EUZKAL-ELIZTIA

EUZKERAZ IDATZITA



«UMANDI»



KARDABERAZ BILDUMA - 41

EUZKAL - ELIZTIA

—

EUZKERAZ IDATZITA

«UMANDI»

EUZKAL - ELIZTIA

◆

EUZKERAZ IDATZITA



KARDABERAZ - 41

Euzkadi
ene abeŕiari

«Umandi»

Autor: «Umandi»
Edita: Uŕestarazu'taŕ Andoni
Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria
D. L.: VI - 339 - 1989
I. S. B. N.: 84 - 404-4763-9

Itzauŕea

Gure Eŕi'ak erabakitzeko dituen ebazkizunen artean euzkerarena da gaŕantzi aundienetakoa duena. Asmo au onartzeko aski bide da edozein Eŕi'aren bizirako bere izkuntza zer dan gogoratzea. Askotan esan danez eta beŕiz ere esatea beti egokia izango dalako, Eŕi baten gogoa ta bere izkuntzaren artean alako lokaŕi estu-estua dago tinkoenik ezaŕita, ta nola gañera! Eŕi batean izkuntza iltzen bada, ondorioz eta ezinbestez bere gogoa era zearo itzaltzen da. Orixe gertatu da gurean, euzkera il dan eŕietan, gero, euzkal-gogoak ere alde-egin du, aren ordez onaŕ-erazi zaigun beste izkuntzari dagokiona artzeko. Beraz, izkuntza bakoitzak berarekin darama beti bere Eŕi'aren gogoa, ala beaŕik. Egi au bizi-bizia agertzen da gure artean eta gaur euzkeraz egiten ez dan eŕietan, euzkal-gogoa ere itzalita dago, españeraz mintzatzen dan tokietan españerazko gogoaz bizi-izateko ta parantzera artu beaŕ-izan dan besteetan parantzerazko gogoaz ari-izateko. Alakotz, argi ikusten da gure abeŕian bertan zer aldatu dan eta nola aldatu dan ere, euzkeraren ordez bi erdera oyek onartzeagatik. Arean, beŕiro esateko ere, besteetan, urbil naiz uŕuti, zer egiten dan edo zer gertatzen dan ikustera eztugu joan beaŕ, gurean zer jazoten dan edo zer bururatzen dan jakiteko.

Azken jokera ori izan da beti jokatzeko araua gure artean. Ezin esan diteke jokera ori txaŕa dala, ez eta etxetik at zer gertatzen dan begiratu beaŕ eztala ere; baña bai ori egitea naikoa eztala, ez eta beaŕa dala ere; ori eginaŕen, nagusiena, egiazko gaŕantzi aundiena duena, geuk gure Eŕi'an zer gertatzen dan eta zergatik gertatzen dan begiratzea da; au bai ba-da ta beti ere izango da beaŕena ta ezinbestekoena.

Iritzi ori oñaŕiz artzean, gaur euzkerari buruz gertatzen dana aŕeta aundienaz begiratu beaŕ dugu. Yainkoa'ri eskeŕ gure izkuntza gureganaño bizirik eldu da, naiz eta iltzeko zorian bizi; ta gure eginbeaŕa bizi oŕi indaŕa ematea izango da, al eta ezin. Jakiña, au ezta iñorentzat gauza beŕia esatea, ta ortan guziok batera gatozela eskieŕ egon gaitezke; alaz ere, gure eginbidea nola bete edo nola zuzendu ikusi nai danean, guztion iritziak ez dira berdin, eta bakoitza bere bidetik doa, onena dalakoan noski.

Geron ustez, ebazkizun aundi ontan eman beaŕ diran uŕatsak bitarikoak ditugu: bat, gai ta gauza guztietarako eŕiaren ondoan ibīli ta joatea da, eŕiak ezpañetan darabīlen mintzoera guztiz aintzakotzat artzean.

Bestea, gure euzkera gogo-lantze-izkuntza egitea izan beaŕ. Elburu au ere guziona dugu, baña ortara eltzeko bideak eztitugu guztiok berdin ikusten.

Argi dago euzkera ikas-toki guztietan ez erabiltzeagatik, atzeratuta geratu zaigula, ta orain, leku oyetan sartu nai dugunean, bidezkoak diran eragozpenak sortzen zaizkigu, gai guzietarako itz-bilduma bereziak eztauzkagulako. Ta itz oyen aukeratzean edo egitean iritzi ezberdiñak ari zaizkigu lan ori burutzeko alegiñetan.

Noski, itz guzti oyek itz beŕiak izan beaŕ, baña nola egin ori? Norberak du bere iritzia ortaz; gurea auxe da: Neuŕi aundienean itz beŕiak euzkal-oñaŕien bidez eratu beaŕ dira, oŕela egiazko euzkal-itzak izan ditezen; ortarako euzkerak bere bide egokiak ditu ta oŕengatik oyetxek dira erabīli beaŕ ditugunak. Eta itz beŕi bakoitzak bi beaŕ auek bete beaŕ-izango ditu: 1.ª, esan dugun bezela, euzkal-oñaŕiz egiña izatea; 2.ª, euzkal-bideen arauz eratua izatea. Bi baldintza oyek ongi bete ezkero, oŕela sortuko dan itz beŕia beste edozein bezin jatoŕa izango da.

Era ortaz egin beaŕ-izango lirake ezinbestekoak ditugun itz beŕi guztiak, eta oŕelakoak beaŕ dituzten gayak asko diralako, gayez-gai jokatu beaŕ-izango litzake, gayak beren gaŕantziari buruz autatzean eta gaŕantzi aundiena dutenetaz astean. Oŕela jokatzean, gañera, oŕen beaŕa zaigun gure euzkal-iztegi orokaŕa egiten ari-izango litzake; azkenez iztegi ori bi eratan aurkeztu al-izateko: gayez-gai ta bere osotasunean.

Nire euzkal-elizti au egiteko, guzi-guzia euzkeraz egiña baitago, Azkue ta Muxika'ren iztegiak erabīli ditut geyenetan, eta itzen bat edo beste, oso gutxi, neronek eratu beaŕ-izan dut, aipatu ditudan bideetan barna ibiltzean.

Zaitegi apaizak ziñoenez, geroko belaunaldietakoengan oldoztu beaŕ dugu, ayentzat bideak atondu ta eŕaztutzeko xedeaz. Guztiz onartzekoa dugu iritzi ori, ta ain zuzen orixe da, geron aldetik ere, egin nai-izan duguna. Alakotz nire euzkal-elizti au, osorik euzkeraz egiña dago, bat edo beste izanezik erderakadak baztertzean eta gai guztietarako euzkal-itzak erabiltzen; bai ta ortaz beaŕenak diran ikas-bideen artean elizti aren lendabizietako bat dalakoan.

Geron gardiz, gure egiazko gogo-lantzea euzkeraz eta euzkeraren

bidez egiña izango da, izatekotan, gure izkuntza alik eta garbienik erabiltzean. Ezta lan makal izango ori burutzea, geyago ala gutxiago, guziok, eŕitaŕ geyen-geyenak ere, ango edo emengo erderaz kutxuturik gagozelako, ta gugan eragiten ain zaŕa dalako, oso zala izango zaigu kutxu ori gugandik aldentzea. Noiz lortu genezake ori?; argi dugu erantzuna: Euzkadi'n gai guzietarako ta berez, euzkaldun guziak euzkeraz oldoztu al-izango dutenean. Oŕa oŕ elburua!

Ortaraño gure Eŕia iñoiz eldu al diteken, nire laguntza txikia eskeiñi nai dut, xede ortaz nire euzkal-elizti au aurkeztean. Ia asmo ortaz nire aberkideen artean onartua ote dan, oŕela beaŕezkoa dan elburua betetzen astean.

Agerpena

Itzaurean diñodan bezela, nire elizti berri onek duen bereiztasun nagusia, guzi-guzia euzkeraz egiña izatea da, beste gai guztietan bezela, ezinbestekoa baita, euzkal-oldozmena, iñoiz, euzkal-bideetan barna, bereziki, ibil al diteken, eta orela egiazko euzkal-oldozmena izan dedin.

Elizti au, len erderaz egin nuena berbera da, arlotxoren bat edo bat bakarik gañeratu dudala; bertan ikastekoa dan guzia len erderaz emandakoa bera da ta kirian berean ere antolatua.

Eginkizunak, ordea, guztiz aldatuta dagoz eta era berian aurkeztuta, ikaskai bakoitzerako, geyenetan, iru motazkoak diralarik. Mintzoeraz euzkaldunak diranentzat egokiak izateko xede berezia izan dut, eta ain zuzen orengatik baitezpadakoa iruditu zait orela egitea.

Iru eginkizun-mota oyetatik, lenengoa jostatzeko bezela izan dedin antolatu dut; beste biak lan sakonagoaz egitekoak dira; ta iruren artean ikasteko lan egokia burutu al-izango dalakoan.

Len, erderaz egindako euzkal-eliztian, ikaskai bakoitzean itz-bilduma txiki bat agertzen zan; baña oraingo ontan, mintzoeraz euzkaldunak diranentzat egiña dalako, bilduma oyek ipiñi gabe geratu dira, oso bearak edo eztiralako. Berebat, kari bera dalarik, len eman genuen itz-bilduma orokara, bai ta esakerak ere, eztitugu orain ematen.

Aurkibideak ere, len erderaz emandakoak berak dira, bat geyago ipiñi dugularik: euzkal-idazleen izen-zerenda mardula emateko.

29'garen ikaskayan asita, ikaskai bakoitzean idazle oyen elerti-lanen irakurgai bat agerterazten dugu; orela, larogetabat euzkal-idazleen izenak eta eun eta irurogetabi lan agertzen diralarik, gure elertiarekiko ikuspegi mardul eta zabala osotzean.

Gañera, irakurgai bakoitzerako, geigari bezela, ikustekoak izan ditezken azpegi batzuk zabaltzeko esondatzen ditut, eta irakasleak izango dira, bakoitza bere iritziaren arauz, azken lan ori ongienik nola bete al-izango dan zuzen dezaketenak.

Lengo era berean, euzkal-elizti au ere, naiz ikasleentzat naiz irakasleentzat, lan-gai egokia izan ditekelakoan nago, ta benetan orela izatea nai-izango nuke. Baña ikasleai beti izango zaye egokia irakasle batek zuzenduta yardutea, beti ere zeatz eta azpeki bereziak, noiz-nai, ikusteko sortuko baitira.

Ia nire ikas-bide berri au, gerokoak batez ere, ontzat artzeko gaya izatera eltzen ote dan.

LENENGO IKASKAYA

LENENGO ASMO TA ESAN-NAYAK

ITZA

Itza, gizonak mintzatzeko duen almena da. Oso aundia da gizonaren almen au, Ludi'an gizonarena bakaŕik dana.

Itza aoaz egiten da ta belaŕiaz entzuten; beraz, itza soñua da, aoaz dagiguna.

Gizakiak, abereak, landareak eta gauzak eta gayak oro izendatzeko, itza darabilgu.

Izendatze ori idatziz egiteko erabiltzen dan ikuŕa, itza ere deitzen da.

Eta oguzi gabeko itza oldozteko ere erabiĪia da.

Alakotz, itza esan, entzun, idatzi ta oldozteko erabiltzen dugu; oŕa itzak duen gaŕantzi aundia.

IZKUNTZA

Alkaŕi ulertezeko ta alkaŕekin itzegiteko, giza-talde batek ala batzuek darabilzkiten itzak betetzen dutena IZKUNTZA da.

Izkuntza bakoitzaren itzak, berari dagokion egituraz eratuak dagoz eta oŕela jokatzen dute.

Geyenetan, izkuntza bakoitza Eŕi bati dagokio, baña ba-dira izkuntza batzuk dituen Eŕia ta izkuntza berbera daukaten Eŕiak ere.

Euzkal-Eŕi'aren izkuntza EUZKERA da.

Euzkera eztan beste edozein izkuntza ERDERA deitzen dugu.

MINTZAIRA edo MINTZOERA edo IZKERA

Eŕi ala Eŕialde bakoitzak bere izkuntza erabiltzeko duen era berezia MINTZAIRA edo MINTZOERA edo IZKERA deitzen da.

IZKELGIA

Izkuntza baten mintzaira edo izkerak, batzuetan, asko edatzen dira ta lenengo izkuntzatik edo ama-izkuntzatik oso ezberdinduta agertzen be; beste izkuntza bat izango bailiran geratzeko. Orduan izkera oyei IZKELGIAK deitzen zaye.

Batzuetan izkelgien ezberdintasunak oso aundiak diralako, beste izkuntzak egiñak izatera eltzen dira. Ori gertatu zaye, esate baterako, lateratik sortu ziran erderai.

Len euzkerak zortzi izkelgi zituen, baña gaurko ontan lau geratzen dira ezberdiñak: Bizkayera, Gipuzkoera, Laburdiera ta Zuberoera.

Len zegozen lau napaŕoerak, neuŕi aundian, laburdiera ala zuberoerarekin bat egin dute.

ELIZTIA

Izkuntza baten egiturari ELIZTIA deitzen zayo, ta itzak ongi erabiltzeko arauak osotzen dute.

Euzkal-eliztiak, euzkera ondo egin eta erabiltzeko arauak erakusten ditu.

SOÑU ta IKUŔA

Esan dugunez, itza, alde batetik, esan eta entzuten da; bestetik, idazten da. Esan eta entzuteko, itza oguzten da bere soñuaren bidez; itza idazteko, bere ikuŕa da beaŕa. Oldozteko ezta beaŕ ez soñurik ez eta ikuŕik ere.

Itza, esateko ta entzutekoa da lendabizi; ta idaztekoa geroago.

Beraz, soñua da lenengoz eta ikuŕa gero. Soñua ezta aldatzen, ezin, berezkoa dalako; ikuŕa alda diteke itunezkoa dalako. Oŕengatik ikuŕa soñuari egokitu beaŕ zayo, iñoiz soñua ikuŕari. Ta bi zera oyei buruz, auxe dugu gaurko jokera: soñu bakoitzarentzat ikuŕ bat bakaŕik erabiltzea, ta ikuŕ bakoitzak soñu bat bakaŕik adierazi beaŕ duela.

IZKI, IZKIN eta ITZATAL

Itz bat, izki batez bakaŕik egiña izan diteke; e. b.: *a, e, i, o, u.* Baña geyenetan bi izki edo geyago beaŕak dira itz bat egiteko; e. b.: *Au; o, ri; gi, zon; e, ma, ku, me*; izkiñak deitzen dira auek, ta bakoitza aots-egotzaldi bakaŕ batez oguzten da. Izki ta izkiñak itzaren atalak dira, ots, itzatalak, eta batzuetan atal bat edo beste, itza bezela ere erabiltzen da; e. b.: *bakaŕ* itzak bi izkin edo atal ditu: *ba* ta *kaŕ*; eta lenengoa, *ba*, itza bezela erabīli diteke; e. b.: *ba*-datoŕ; *aldi* itzak beste bi izkin edo atal ditu: *al* eta *di*; ta lenengoa, itza bezela erabil diteke; e. b.: jan *al* du, emen egitan itza dalarik; baña egiazko itza izan gabe ere erabil diteke; e. b.: etoŕi *al* da?

GEDIN, IGIDIN eta BIKONDE

Soñu bateaz bakaŕik oguzten dan itz edo itzatala GEDIN deitzen da. Euzkeran bost gedin dauzkagu: *a, e, i, o, u.*

Soñu bi edo batzuen bidez oguzten dan itz edo itzatala IGIDIN deitzen da; ta soñu oyetako bat edo geyago, gediñak izaten dira: *b* (be), *d* (de), *f* (efe), *g* (ge), j (je), *k* (ka), *l* (ele), *l̄* (el̄e), *m* (eme), *n* (ene), *ñ* (eñe), *p* (pe), *r* (ere), *ŕ* (eŕe), *s* (ese), *t* (te), *x* (xe), *y* (ye), *z* (ze). Igidiñak, beti, gediñak beaŕ dituzte oguzita izan al-izateko.

Batzuetan bi gedin alkaŕekin soñu bateaz ere oguzten dira, ta bikote oyek BIKONDE deitzen dira. Euzkeran sei bikonde dauzkagu: AI, EI OI, UI, AU, EU; esate baterako: *nai, bei, goi, muin, lau, deun.*

ABEDEA - SOÑUAK - IKUŔAK

A, B, D, D̄, E, F, G, H, I, J, K, L, L̄, M, N, Ñ, O, P, R, Ŕ, S, T, T̄, TS, TX, TZ, U, X, Y, Z.

Oyetxek dira izkiak eta beren soñuen ikuŕak.

A, E ta O, gedin sendoak dira; I ta U, bigunak.

Bikondeak, onela egiten dira: A, E ta O, U edo I'kin; A ta E, U'kin; beraz, bat izanezik, UI, beste bostak gedin sendo baten atzetik bigun bat jartzean.

IZKI BATZUEN SOÑU BEREZIA

G = Soñua beti biguna da, gedin guziekin berdin: ga, ge, gi, go, gu.

Z = Soñua biguna da, alaz ere S'arena baño gutxiago.

F = Soñu berezia da ta batzuen iritziz euzkerari ez dagokiona; bere ordez batzuetan P erabiltzen da. Baña gaur oso erabīlia dugu, ta itz batzuk naiz F naiz P'az oguzten dira; onela: apari ta afari, apaldu ta afaldu.

H = Izki au, egitan, ezta soñua, birikaetatik sortzen dan aizeak dagien zarata baño; alderdi batzuetan erabiltzen da, naiz eta gero ta gutxiago izan.

Y = Onen soñua igidinarena da bereziki.

R = Izki onek eztu iñoiz itzik asten; bere soñua biguna da, ta gogoŕ biurtzen danean onela idazten da: Ŕ, ŕ.

X = Bere soñua S gogortuarena dala esan diteke: Isil, i*x*il.

TX = Bi izki auen bidez, beste soñu bat egiten da, bietatik sortua: E*tx*e, ume*tx*o.

TZ = Bi izki auen bidez berdin gertatzen da: A*tz*o, e*tz*i.

TS = Orobat bi izki auen bidez: A*ts*o, e*ts*i.

Azken bi soñuak, TZ ta TS, Z ta S'tik sortuak bide dira, ta laurak ongi adierazteko zaĪak ditugu gure izkuntzan, batez ere alkaŕengandik bereizteko; ta soñuari buruz ori da euzkerak duen zailtasun bakaŕa. A*s*i ta a*z*i, ja*s*o ta ja*z*o, *s*u ta *z*u, o*ts* eta o*tz*, a*ts*o ta a*tz*o, ... Entzunez ikasi beaŕ da soñu oyen bereizitasuna.

D̄ ta T̄ = D ta T izkien soñu bigunak dira.

L̄ = L'ren soñu sendoa da.

Itz batzuetan, oso gutxi, soñu bikoitz auek erabiltzen dira: DR, BL, GR, PL ta abaŕ.

I'az egiten diran bikondeak itz baten amayean agertzen diranean, eta gedin bateaz asten dan beste itzatala batutzen zayenean, I (gediña) Y (igidiña) biurtzen da: ANA*I* + -A = ANAYA, BE*I* + -EN = BEYEN, GO*I* + -AN = GOYAN.

Bikonde oyei, itza amaitzeko, N edo L jaŕaitzen zaizkienean, eta gedin bateaz asten dan beste itzatala batutzen zayenean, bikondeko I ezabatzen da, ta N ta L, Ñ ta L̄ biurtzen dira: ART*ZAIN* + -A = ARTZAÑA, AŔ*AIN* + -AK = AŔAÑAK, Z*AIL* + -ENA = ZAL̄ENA.

IZKIEN ALDATZEA

Soñuari dagokion berezitasunagatik, batzuetan izki batzuk aldatzen dira. Len, bikondeai buruzkoak aipatuak izan dira. Ona emen igidin batzuei dagozkien beste batzu:

P, B'az, edo alderantziz.

T, D'az, edo alderantziz.

K, G'az, edo alderantziz.

P, T ta K, beste iruen soñu sendoak adierazten dituztela esan diteke, ta, aitzitik, B, D ta G, lenengoen soñu bigunak.

Auxe esan dezakegu berdin ere:

TS, TX ta TZ, S, X ta Z'ren soñu sendoak dirala; ta aitzitik, S, X ta Z, TS, TX ta TZ'en soñu bigunak.

RA, RE, RI itzatalak, itzen amayean agertzen diranean, L'az aldatzen dira, beste itzatal batzuk batutzen zaizkienean: Euzke*ra* + -dun = euzke*l*dun, apa*ri* + -tze + -ra = apa*l*tzera.

N, itz baten azken izkia danean, aldatze au egitekoa da: T ta K'az asten diran itzatalak batutzen zaizkionean, T ta K oyek beren soñu bigunak dituzten beste D ta G'az aldatzen dira: Iza*n* + -*t*ako = iza*nd*ako, emen + -*k*o = emen*g*o.

EZ itzaren Z'k, itz ori, itzatala bezela, aditzera batzuei auŕetik batutzen zayenean, aldaketa auek eragiten ditu:

Aditzeraen asieran B, D ta G agertzen diranean, P, T ta K'az aldatzen dira; N ta L'en auŕetik, EZ'en Z ezabatzen da, baña aditzeraen auŕetiko beste Z, TZ'az aldatzen da: EZ + *b*edi = ezpedi, EZ + *d*uzu = ez*t*uzu, EZ + *g*era = ez*k*era; EZ + *n*aiz = e*n*aiz, EZ + *l*irake = e*l*irake; EZ + *z*era = e*tz*era.

Berdin gertatzen da oyen antzekoak diran beste gertapenetan: EZ + *b*a + da = ezpada, EZ + *b*ait + doa = ezpaitoa.

EZ'en ordez BAIT jaŕi ezkero, azken T oŕek EZ'en Z'k dagiena dagi, baña geyenetan ezabatzen: Bai*t* + *d*uzu = bai*t*uzu, bai*t* + *g*era = bai*k*era, bai*t* + *n*aiz = bai*n*aiz, bai*t* + *l*irake = bai*l*irake, bai*t* + *z*era = bai*tz*era.

E ta R alkartzeko izkiak dira; lenengoa igidiñen artean, eta bigaŕena gediñen artean.

ESAKUNTZA, ESALDI (ESANALDI), ESAKERA, ESAKUN, ITZALDI

Asmo bat adierazteko itz bat edo batzuk, eta asmo batzuk alkarturik ageŕerazteko, erabiltzen diran itzak ESAKUNTZA betetzen dute. E. b.: *ama, auŕ ona, aita etoŕi da, gure osaba gaur mendira joango da*; lau esakuntza ditugu oyek.

Itz batzuk edo esakuntza batzuk, asmo luze ala motz bat adierazteko, alkaŕekin erabiltzen diran itzak oguzteko aldia edo beren alkartasuna ere, ESALDIA deitzen dugu. E. b.: *Neskatīla ez da etoŕi*; *guziok alkaŕekin baseŕi artara joango gera ta an pozik bazkalduko dugu.* Bi esaldi dtugu or. Esaldi ordez, ESANALDI ere esan liteke.

Itz bat edo batzuek, berez eztuten zentzunaz erabiltzen diranean, ESAKERAK deitzen ditugu. E. b.: *Buruz, bein betiko, buru-belaŕi, soŕ eta loŕ, nun edo nun, gora-berak.* Sei esakera dira auek.

Itz batzuk, ikaskayaren antzeko zentzunaz erabiltzen diranean ESAKUNA eratzen dute. E. b.: *Olo ibiltari azeriaren janari, txori bakoitzari edeŕ bere kabi, bururik ez eta txapela nai.* Iru itz-alkartze oyek esakunak dira, ta ATSOTITZAK ere deitzen dira.

Asmo luze bat edo asmo batzuk adierazteko, alkaŕekin josita luzaroan

erabiltzen diran esanaldiak asko alkartzen diranean, beren osotasunari ITZALDIA deitzen zayo.

AUŕIZKI, ERDIZKI, ATZIZKI

Itz bati, auŕetik eransten zayon itzatalari AUŔIZKI deitzen diogu. E. b. : Goiz *baza*toz. BA-ori auŕizkia da.

Itz bati, erdian eransten zayon itzatalari ERDIZKI deitzen zayo. E. b. : *Di*tut; «dut» itzari «-it-» erantsi zayo, ta ori erdizkia da.

Itz bati, atzetik eransten zayon itzatalari ATZIZKI deitzen diogu. E. b. : Nai duzu*lako*; «-lako» itzatal ori atzizkia da.

OGUZKERA

Itzak, esakuntzak eta esaldiak ematean, soñuari buruz erabiltzen dan era OGUZKERA deitzen da; ta batez ere besteak entzuteko egiten diranean, itzak oso ondo oguzi beaŕ dira, beaŕ dan bezela ulertuak izan ditezen.

ERESIA ta DOÑUA

Itzak abesteko ere erabiltzen dira; orduan soñua goruntz eta beruntz aldatzen da, ta era bereziaren bidez ematen da. Era ori ERESIA deitzen da, ta bera erabiltzean abesten da.

Batzuetan, abestu gabe ere, ala nolako eresiaz oguzten dira itzak eta esakuntzak. Eta oŕela egiteko ta abesteko ere erabiltzen dan soñuaren antzeko ta jaŕaipenez ematen dana DOÑUA deitzen da.

SENDOŔATZA

Itzak oguzten diranean, izkin edo atal batzuk besteak baño indaŕ aundiagoaz esaten dira, ta indaŕ aundiagoa dan oŕi SENDOŔATZA deitzen diogu.

Batzuetan eta zio batzuk dirala kari, itzegiten duenak indaŕa eman nai duenean, ortarako egokia zayon atalean oaŕerazten du ori. Baña zio berezirik eztagonean, euzkal-itzak oguztean beren lenengo izkin edo itzatala ematen da sendotxoago; ta itz batzuen bidez osotuta dagozen beste itzak, osotzen dituztenen lenengo itzatala oŕela ere oguzten da; e. b. : *gizona*, *mendiak*, itxaso*an*, *urietatik*. Esandako au arau orokaŕa bezela bakaŕik onaŕ diteke; izan ere baitira yakintsu ta idazle batzuk

(Azkue, Altube ta abaŕ) euzkal-sendoŕatza zeatzago ikusten eta irakasten dutenak.

Idaztean ez da sendoŕatza nabari-erazten, beste izkuntzetan egiten dan bezela. Baña euzkeran oŕen ikuŕa (') «r» izkiaren soñu sendoa adierazteko erabiltzen dugu : Ero, eŕo; gora, goŕa, ...

IDAZTEKO IKUŔAK

Idaztean ikuŕ berezi batzuk erabiltzen dira; auek ditugu berezienak :

« , » *aŕast* deitzen dana; itzen artean darabilgu alkaŕengandik bereizteko. E. b. : Gaur aita, ama, seme ta alaba datoz.

« ; » *kulatz-aŕast* deitzen dana; esanaldien artean darabilgu alkaŕengandik bereizteko. E. b. : Gaur eldu dana arotza da; esan duenez iru edo lau egunetan emen egongo da.

« . » *kulatz* deitzen dana; esakuntza edo idazkuntza luzeak alkaŕengandik bereizteko erabiltzen da. Batzuetan leŕo berean jaŕaitzen da idazten, eta besteetan uŕengoan, idazten duenaren iritziz. E. b. : Goize ontan ikusi ditugun mutiłak gurekin bazkalduko dute. Biar eurekin mendira igoko gera; nai baldin badute, beñepein.

Eguraldi ona izan ezkero, aŕatsean emen izango gera guziok alkaŕekin apaltzeko.

« : » *bi kulatz* deitzen dana, eta lendik iragaŕitako zerbait esan baño lenago jartzen da. E. b. : Emen egon diran adiskideak auetxek izan dituzute : Yon, Andoni, Kepa ta Yokin.

« ' » *berezkatz* deitzen dana; berarizko izen eta atzizki baten artean jartzen da. E. b. : Mikel'ekin etoŕi naiz. Gasteiz'ko etxeak. Iruña'n egon gera.

« - » *maŕatxoa* deitzen duguna; bi itzen artean ipintzen da, alkaŕekiko zentzunen bat adierazteko. E. b. : lore-sorta, mendiz-mendi, ba-datoŕ, tarteka- marteka.

Bai ta leŕo baten amayean itz bat erdibitu beaŕ danean. E. b. : ala-
ba.

« ? » galdera adierazteko erabiltzen da, ta *galde-atz* dei dezakegu. E. b. : Nor eldu da?; noiz bazkalduko dugu?; nolakoak dira mutil oyek?

« ! » aŕitasuna adierazteko erabiltzen da, ta *gel-atz* dei dezakegu.

E. b.: Au bai esne ona!; ori mutil zintzoa!; baratzeko loreak duten edertasuna!

«( )» *taketak* dei dezakeguna, ta batzuetan azalpen berezi bat edo emateko erabiltzen dugu. E. b.: Gizon zintzo oyek (gaur ikusi dituzutenak) guregana etoŕi dira.

- » - *kakotxak* dei ditzakegunak. Idaztean beste baten itzak zeintzuk diran adierazteko erabiltzen ditugu geyenetan. E. b.: Idazti Deun'ean auxe irakurtzen da: «Utzi itzazute umeak nigana urbil ditezela.

« - » *tilet* deitzen dana. Idaztean *l* ta *n* izkien soñu gogoŕa adierazteko erabiltzen dugu, izki oyen gañean jaŕita. E. b.: Īle, diño.

Orobat *d* ta *t* beste izkien soñu biguna nabari-erazteko ere. E. b.: d̄anbolin, aīīa.

Tilet eta *maŕatxoa* ikuŕ berberaren bidez adierazten dira; baña lenengoa izkien gañean jartzen da, ta bigaŕena alboan edo artean.

ELIZTIAREN ATALAK

Lau ditugu: AZTEŔIZTIA, YOSIZTIA, OGUZIZTIA, IDATZIZTIA.

Itzak nolakoak diran ikusteko, aztertzen dira; ta ori egiten erakusten duen atala AZTEŔIZTIA deitzen da.

Itzak, beren artean nola erabīli beaŕ diran jakiteko, beren joskera ikastea noraezekoa da; ta ortarako arauak erakusten dituen atala YOSIZTIA deitzen da.

Itzak ongi oguzteko erakusten duen atala OGUZIZTIA deitzan da.

Itzak ongi idazteko erakusten duen atala IDATZIZTIA deitzen dugu.

BIGAŔEN IKASKAYA

ITZEN MOTAK - IZEN-JOKOA - ADITZ-JOKOA

Izkuntza osotzen duten itzak mota batzuetakoak dira, adierazi nai dituzten asmoen arauz; eta izen auen bidez ezagutzen ditugu:

MUGITZA, IZENA, IZENONDOA, IZENORDEA, ADITZA, ADITZONDOA, LOKAŔITZA, OYUITZA.

MUGITZA

Euzkeraz, mugitza atzizkia da, itzaren zentzuna mugatzeko; ta bietariko dalarik:

-A *bakaŕ*'aren zentzunerako, ta

-AK *askaŕ*'aren zentzunerako.

Izen, izenondo ta izenordeari alkartzen zaizkie, zentzun bateaz ala besteaz mugatzeko. Esate baterako: Gizon-*a* (Gizona); Emakume-*ak* (Emakumeak); Edeŕ-*a* (Edeŕa); Itxusi-*ak* (Itxusiak); Nire-*a* (Nirea); Zure-*ak* (Zureak).

IZENA

Gizaki, abere, landare, gauzak eta gayak edo asmoak zeintzuek diran adierazteko erabiltzen dan itza IZENA da. E. b.: Gizon, zaldi, gari, aŕi, maitasun.

Izena mugatugabea da, ta mugatu beaŕ danean, mugitza edo izenondo mugarazlea alkartzen zaizkio. E. b.: mutīl-*a* (mutīla); Mutil *ori*.

Izena bi motazkoa izan diteke: *berarizkoa* ta *aŕunta*. Lenengoa, gizaki edo abere bati bakaŕik, bai ta batzuetan, zentzun berezia adierazi beaŕ danean, gauza bati ere ematen zaye. E. b.: Sabin, Karmele, Txuriko (txakuŕ bat), Zeñek (katu bat), Eki-begi (etxe bat). Bigaŕena, askori dagokiona dugu. E. b.: Gizon, neska, bei, zugatz, gurdi, gogai. Lendabizikoaren lenengo izkia, beti, izki aundiaz idazten da.

IZENONDOA

Geyen-geyenetan izenaren atzetik jartzen da. Orduan izena mugatu gabe geratzen da ta izenondoa da mugatzen dana. E. b.: Gizon ona, landa zabala, asmo yaukalak; mutil *au*, mendi *ori*, aŕi *ayek*.

Izenondoa ere bi motazkoa da: *nolazkoa* ta *mugarazlea*. Lenengoak, izenaz aipatzen dana nolakoa dan adierazten du. E. b.: Neska *ona*, mutil *gaiztoa*, eŕi *aundia*, ardi *txikia*, gogo *edeŕa*. Bigaŕenak, izenaz aipatzen dana nor edo zein dan adierazten du. E. b.: Agure *au*, atso *ori*, auzo *ura* (edo: auzoa), bildots *auek*, asmo *oyek*.

Izenondo mugarazleak sei dira: *au, ori, ura* (edo: *a*), izen bati dagozkionak (*bakaŕ*'ekoak)- eta *auek, oyek, ayek*, batzuei dagozkienak (*askaŕ*'ekoak).

Esaldi ontan: *Gizon au ona da, au* itza izenondoa da; baña oŕen ordez, *Au ona da* esan ezkero, *au* itza izenordea da, izen baten ordez dagoelako.

IZENORDEA

Izena agertzen eztanean eta beraren ordez erabiltzen dan itza IZENORDEA da. E. b.: Ni, zu, bera, gu, ...
Nire, zure, beraren, ...

Sei motazkoak ikus ditzakegu izenordeetan. Lenengokoak gizakiei dagozkie ta *norekikoak* deitzen ditugu; auek dira: *Ni, zu, bera, gu, zuek, berak*.

Bigaŕen motazkoak, lenengoetatik irtenda, *ukanekikoak* deitzen dira; auetxek: *Nire, zure, beraren* (edo: *bere*), *gure, zuen, beren*.

Irugaŕen motazkoak, len ere izenondoak bezela ikusi ditugunak, *mugarazleak* deiturik: *Au, ori, ura* (edo: *a*), *auek, oyek, ayek*.

Laugaŕen motazkoa, bat dugu: *-N* atzizkia; aditzari alkartzen zayo, ta *alkaŕekikoa* edo *alkaŕ-gai* deitzen da. E. b.: Zuk ekaŕi duzun idaztia. Gu egon geran eŕia.

Boskaŕen motazkoak, *galdetzekoak* dira, ta auek ditugu: *Nor, zein, zer* (*bakaŕ*'en zentzunaz); *Nortzuk* (nortzuek), *Zeintzuk* (zeintzuek), *Zertzuk* (zertzuek) (*askaŕ*'en zentzunaz). Galdetzeko darabilzkigu. E. b.: *Nor* etoŕi da?, *zein* doa?, *zer* nai duzu?, *nortzuk* datoz?, *zeintzuk* ziran?, *zertzuk* beaŕ dituzute?

Seigaŕen motazkoak, asko dira ta *mugagabekikoak* deitzen ditugu;

ona emen batzuk: Norbait, iñor, zeinbait, ezein, zerbait, ezer, bakoitz, beste, urlia, sendia, berendia, alkaŕ, ...

E. b.: *Norbait* dabil emen, eztatoŕ *iñor, zerbait* egin beaŕ dugu, ezta *ezer, norbaitek* daki, *zein* edo *zein* itzuliko da, *besteak* egin zuen, *bakoitza* bere etxean dago, *alkaŕ* ikusi dugu.

Izen, izenondo ta izenordea, berez, *mugatugabeak* dira; ta beren zentzuna mugatzeko, mugitza ta izenondoa (mugarazlea) erabiltzen dira. E. b.: mutīla, mutīlak, gaiztoa, gaiztoak, gizon *ori*, emakume *on*, lore *edeŕ*, aŕo *ura*, aitzuŕ *oyek*, nirea, zureak.

AGEŔERAZLEAK

Len, izenondoaren atalean, izenondo bezela agertzen dira, ta gero, izenordearen atalean, *mugarazleak* deituta, izenordę bezela aipatu ditugunak; beraz izenondo ta izenordę izan ditezke. Sei auek ditugu:
Au, ori, ura (edo: *a*), *bakaŕ*'en zentzunaz, eta
Auek, oyek, ayek, askaŕ'en zentzunaz.

E. b.: Gizon *au* itzuli da. Emen *au* izenondoa da, izenaren ondoan dagoelako. Baño: *Au* itzuli da. Emen *au* izenordea da, izen baten ordez dagoelako.

GALDETZEKOAK

Izenak diñoenez, galderak egiteko itzak ditugu auek:

Bakaŕ-zentzunaz	Askaŕ-zentzunaz
Nor?	Nortzuk?, nortzuek?
Zein?	Zeintzuk? zeintzuek?
Zer?	Zertzuk?, zertzuek?
Nun?, edo non?	
Noiz?, edo noz?	
Zenbat?	Zenbatzuk?, zenbatzuek?
Nola?, edo zelan?	
Nolako?, edo zelango?	Nolakoak?, zelangoak?

Lenengo irurak (*bakaŕ* eta *askaŕ*), izenordeak dira, ta besteak aditzondoak.

E. b.: *Nor* joan da?, *nortzuk* etoŕi dira?, *zein* da ori?, *zeintzuk* eldu dira?, *zer* nai duzu?, *zertzuk* nai dituzu?, *nun* egon zera?, *noiz* joango dira?, *zenbat* sagaŕ daukate?, *zenbatzuk* intxauŕ dauzkate?, *nola* ibīli zerate?, *zelan* zagoz?, *nolakoa* da aragi ori?, *zelangoak* izan dira idazti oyek?

Maiz, *zenbat* askaŕ-zentzunaz ere erabiltzen da.

ADITZA

Bizidunen *egikerak* eta bizidun eta bizigabekoen *izakerak* eta *egokerak*, nolakoak diran adierazteko erabiltzen dan itza, ADITZA da. E. b.: Mutīla *dabil*, neska oŕek *darama*, atso oyek onak *dira*, agureak emen *dagoz*, aŕia gogoŕa *da*, tipula oŕ *dago*, berakatzak an *dagoz*, makīla an *zegoen*.

ADITZONDOA

Aditza, izenondo edo beste aditzondoaren zentzuna aldatzen duen itza ADITZONDOA da. E. b.: *Ondo* etoŕi, ba-dabil *gaizki*, *oso* txikia da, gaizki *xamaŕ* itzuli dira, *atzo* eldu giñan.

Aditzondoek izen-jokoaren atzizkiaz aŕ ditzakete. E. b.: Biar*ko*, atzo*tik*, emen*go*, gero*koan*.

LOKAŔITZA

Itzen eta esaldien zentzunak alkartzeko erabiltzen dana, *lokaŕitza* da. Euzkeraz, itz eta atzizkia izan diteke. E. b.: Zaldi *ta* mandoa, ongi dakida*la* esan dizut, itzegin dute*lako*, entzun *eta* ikasi dugu.

OYUITZA

Oyu ta deadaŕak egiteko, ta gogoaren igipenak adierazteko erabiltzen dan itza OYUITZA da. E. b.: Eup!, ia!, utikan!, jo!, aŕen!, egundaño!, alajaña!

IZEN-JOKOA

Izenak, izenondoak eta izenordeak, alkaŕenganako jokeraetan agertzen dira, bakoitzean adierazi nai dan asmoa nabari-erazteko, Jokera oyek, euzkeraz, atzizkien bidez egiten dira, ta oro, batera, IZEN-JOKOA deritzagu.

ELIZTI-KUNDEA

Euzkeraz eztago elizti-kunderik.

Izakiak, zentzundun eta zentzungabeak izan ditezke. Lenengoen artean, *aŕezkoak* eta *emezkoak* ditugu, ta bakoitzak bere izen berezia du (abereen artean ez asko), ta izen ori eztagoenean, *-aŕ* eta *-eme* atzizkiak erabiltzen dira bereizteko. E. b.: *Gizon* eta *emakume*, *mutil* eta

neska, *agure* ta *atso*; *zaldi* ta *beoŕ*, *oīaŕ* eta *oīo*, *idi* ta *bei*; otsoaŕ eta otsoe*me*. Bigaŕenetan eztago bereizitasun ori egiteko beaŕik. Oŕengatik, izen, izenondo ta izenordeentzat, mugitz bat bakaŕik dago, *bakaŕ* zentzunerako bat, *-a*, ta *askaŕ*'erako beste bat, *-ak*. E. b.: Gizon*a*, neska*k*, zaldi, beo*ŕak*, otsoa*ŕa*, otsoeme*a*; aŕi*a*, areitza*k*.

ADITZ-JOKOA

Nor, zein edo zer dan; nor, zein edo zer dagoen; nork, zeñek edo zerk dagien; nori, zeñi edo zeri dagion; nor, zein edo zer, besteak dagien; guzi ori adierazteko dagozen aditzen erak (edo: aditzerak) aditz bakoitzerako erabil ditezke, ta guziak batera ADITZ-JOKOA osotzen dute. E. b.: Ni *naiz*, zu *zagoz*, gu *gabiltz*, oŕek *darama*, ayek *dakarte*, oŕi *eramaten diot*, zuri *irakurtzen dizugu*, zuk ni *ikusten nauzu*, guri *aiztu zaigu*, ta abaŕ.

EGINKIZUNAK

Esan, itz eta esakuntza auetan, itz eta atzizki bakoitza zer dan:

Gizon-a, emakume-ak, mutil gaizto-a, neska on-ak, mutiko txiki-a, neskatil polit-ak; auŕ-a doa, gazte-ak datoz, agure-a dabil, atso-ak dagoz; nor doa?, ni noa, nortzuk datoz?, gu gatoz, zain dabil?, ori dabil, zeintzuk dira?, oyek dira, zer da?, etxe-a da, zeintzuk dabiltz?, zaldi-ak dabiltz, nun dago agure on-a?, oŕ dago agure on-a, noiz datoŕ atso ori?, orain datoŕ atso ori, nortzuk dagoz an?, mutil gaizto-ak dagoz an, zenbatzuk dagoz oŕ?, lau dagoz oŕ, nola dabil auŕ garbi-a?, ondo dabil auŕ garbi-a, zein da gozo-a?, sagaŕ au da gozo-a, zeintzuk dira mingotz-ak?, zure aran-ak dira mingotz-ak.

IRUGAŕEN IKASKAYA

ADITZAK eta ADITZ-JOKOA - ADITZ NAGUSIA

Auxe dugu euzkeraz aditz nagusia : IZAN.

IZAN aditza, geyenetan, *izakera* adierazten du, baña *egokera* ere adierazi dezake. E. b. : *Zu ona zera*; emen *zu* nolakoa zeran esaten da. *Gu etxean gera*; emen *gu* nun gagozen esaten da.

Baña IZAN'en aditzerak beste aditzen *laguntzale* bezela erabiltzen dira, ta egikera ortan bi motazkoak dira : *iragankoŕak* eta *iragangaitzak*. Lenengoetan, egipena, batengandik bestegana edo bestera igarotzen da; e. b. : *nik* ikusten *dut*; *zuk ama* ikusten *duzu*; bigaŕen esakuntza ontan, 1 2 1 1 2 2 1
duzu aditzera oŕen «d» lenengo izkia «ama» itzari dagokio. Bigaŕenetan, egipena, dagienarengan geratzen da; e. b. : *ni* natoŕ; *gu* goaz; *ni* joan naiz; *gu* ibīli gera. Bigaŕenen artean *egokera* adierazten dutenak ere saŕ ditezke; e. b. : *zu* gagoz; *bera* egon da.

Ona emen IZAN aditzaren aditzerak, *tinkieraz, oraingo* izakera edo egokeraren zentzunezkoak; iragangaitzak diran aditzetarako laguntzaīeak ere ditugunak :

Ni	*naiz*
Zu	*zera*
Bera	*da*
Gu	*gera*
Zuek	*zerate*
Ber*ak*	*dira*

Euzkeraz, aditzen izenak, izenarena baño izenondoaren zentzuna du, ta *aditz-izenondoa* dei dizayokegu.

ADITZ-JOKOA

Euzkerazko aditz-jokoan, gutxi dira era bilduak darabilzkiten aditzak, ots, notin bakoitzarentzako zentzuna itz batez adierazten dutenak; eta oŕen ordez, bi itz erabiltzen dira zeaŕezko eraetan, bat aditzarena ta bestea aditz laguntzaīearena. E. b: JOAN aditzerako, ni NOA esan diteke, baña IGO aditzerako, ni IGOTEN NAIZ esan beaŕ da. Len, era bilduak zeuzkaten aditzak geyago ziran, baña gaur oso gutxi. Beraz, aditz

geyenen erak zeaŕezkoak dira, bi itzezkoak, IZAN'en era bilduen laguntzaz egitekoak.

IZAN'en erak, len esan dugun bezela, bitarikoak dira : *iragankoŕak* eta *iragangaitzak*, oŕelakoak diran aditzekin, bana, erabiltzeko.

Aditz-jokoa, geyenetan, arauduna da; Izan aditzarena, ordea, araugea da.

EGIN aditza, batzuetan, laguntzale bezela ere erabiltzen da.

IZAN aditzaz egin diteken esaldi bakun batean, esate baterako, *emakumea ona da*, iru itz agertzen dira : NOR (edo : ZEIN, ZER), ZER (edo : NOLAKOA) ta aditzera; naiz lenengoak naiz bigaŕenak mugitza eraman beaŕ dute : emakume-*a* on-*a*; jakiña, izen aŕuntak eta izenondoak diranean. Bayezteko esaldietan, uŕenkera ortan joan beaŕ dira beti, ta onela deitzen ditugu iru itz oiek : ADI-YABE, ADIKIZUN (adi-yabeari buruz adierazten duena) ta ADITZA. Esate baterako : Au etxe*a* da. Ezezko esaldietan adikizuna aditzaren atzetik doa. E. b. : Au ez da etxe*a*; Emakumea ez da on*a*.

Geyenetan, orokaŕa izan diteken arauaz, bayezko esaldietan, aditza azken itza izaten da.

Ona emen, oraiñaldirako, iragangaitzak diran lau aditzen era bilduak, IZAN'arenekin, galga berean bostenak eta beren izenordeekin.

Izenordea	IZAN	JOAN	ETOŔI	EGON	IBĪLI
Ni	NAIZ	N-OA	Na-TOŔ	Na-GO	Na-BIL
Zu	ZERA	Z-OA-Z	Za-TO(Ŕ)-Z	Za-GO-Z	Za-BIL-TZ, -A
Bera	DA	D-OA	Da-TOŔ	Da-GO	Da-BIL
Gu	GERA	G-OA-Z	Ga-TO(Ŕ)-Z	Ga-GO-Z	Ga-BIL-TZ, -A
Zuek	ZERATE	Z-OA-Z-(T)E	Za-TO(Ŕ)-Z-(T)E	Za-GO-Z-(T)E	Za-BIL-TZ-TE, -ATE
Berak	DIRA	D-OA-Z	Da-TO(Ŕ)-Z	Da-GO-Z	Da-BIL-TZ, -A

Emen agertzen diran EGON aditzaren aditzerak bizkayerazkoak dira; geroago (6'gn. ikaskayan) gipuzkerazkoak ikusiko dira.

Era auek obeto ulertzeko, oarpen auek emango ditugu :

Ongi ikus ditekenez, bost aditzetako lenengo bakaŕ-notiña, N-'az asten da, bere norekiko izenordea bezela; beraz, N- oŕek, beti, lenengo bakaŕ-notiñaren zentzuna emango digu. Berdin gertatzen da lenengo askaŕ-notiñari buruz; naiz izenordea naiz aditzerak G-'az asten dira; beraz, G- izki oŕek, beti, lenengo askaŕ-notiñaren zentzuna emango du. Beste ainbeste esan dezakegu bigaŕen bakaŕ eta askaŕ-notiñekiko; oyek, beren norekiko izenordeak bezela, Z-'az asten dira; otian, Z- izkiak, bigaŕen notiñen zentzuna adieraziko du.

Noski, Z- izkia bakaŕ eta askaŕezko zentzunaz agertzen da, baña bigaŕenean aditzerak «-te» atzizkia daramate, ain zuzen askaŕ zentzuna emateko, ta oŕen bidez lenengoarenetik bereizten da.

Irugaŕen aditzeretan ezta ori bera gertatzen, ots, aditzeraen eta izenordeen lenengo izkia ezta berdin; «bera» ta «berak» beste izenordeen antzeko zentzuna ez daukatelako, ekintsua dan beste bat baño. Gaur eztugu ezagutzen euzkeraz, irugaŕen notiñentzat, NI, ZU, GU ta ZUEK adierazten duten antzeko zentzunik, eta oŕengatik esandakoak darabilzkigu.

Irugaŕen aditzera oyek D- izkiaz asten dira, ta, ain zuzen, izki ori, berak, ots, irugaŕen notiñak adierazteko darabilgu beti, beren bedegaŕa dalarik.

Araudunak diran azken lau aditzetako eraetan auxe ikus dezakegu gero: esandako lenengo izkiai aditz-eŕoak zaizkien itzatalak, uŕengo, agertzen dira: OA, TOŔ, GO ta BIL; azken iru auen auŕetik, igidiñez asten diralako, *a* gediña jartzen da, aditzeraen lenengo izkiarekin alkartzeko.

Aditz oyen oñaŕia, beren lenengo ta azken izkiak kentzeaz, ateratzen da.

Lau aditz oyen bigaŕen bakaŕ-notiñak eta askaŕekoak diran iruretan, amaitzeko, -Z (edo -TZ) izkia ikusten da; izki oŕek askaŕ-en zentzuna darama; ta bigaŕen bakaŕ-notiñak ere baldin badarama, len, aspaldin, askaŕ zentzuna zeukalako gertatzen da. Oŕezaz uŕengo ikaskayan ari-izango gera zabalago.

Askaŕeko bigaŕen aditzerak, amaitzean, -TE atzizkia daramate, askaŕen zentzuna emateko ain zuzen. Oŕela, aditzera oyek bi atzizki daramazkite zentzun ori adierazteko: -Z-TE (-TZ-TE).

Askaŕeko irugaŕen aditzerak, bakaŕezkoak berak dira, azken -Z (-TZ) gañeraturik.

(T) ta (R) idatzita agertzen diran bi izki oiek, oŕelaxe ematen dira, oguzi ala ez oguzita izan ditezkela adierazteko. (Geroago, izki oyek eta beste batzuk ere, oŕela agertuko dira berdin).

IZAN aditz laguntzaīearen aditzerak eztira agertzen beste aditzerak bezela, arauduna eztalako.

Egiñkizunak

1. Itzez eta idatziz, uŕengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, dagozkien aditzerak esan eta jaŕi beaŕ dira:

Izenordea	IZAN	JOAN	ETOŔI	EGON	IBĪLI
Ni	Naiz	...	...	...	...
Zu	...	zoaz	...	...	...
Bera	...	...	datoŕ	...	...
Gu	...	...	...	gagoz	...
Zuek	...	...	...	...	zabiltzate
Berak	...	...	...	...	...

2. Uŕengoan ematen diran aditzetatik, *iragankoŕak* ala *iragangaitzak* zeintzuk diran esan; eta bigaŕenen azpian maŕatxo bat jaŕi:

Joan - Egin - Ikusi - Etoŕi - Ikutu - Egon - Jan - Eraman - Ekaŕi - Eldu - Jakin - Edan - Entzun - Ibīli - Idatzi - Bazkaldu - Igo - Euki - Esan - Igaro.

3. Edozein *izena* edo *izenondoa*, *mugitza*, sei *mugarazleak* eta *gauŕ*, *orain*, *emen*, *oŕ*, *an*, *ondo* ta *gaizki* aditzondoak erabiltzen, uŕengo galderai erantzun bana eman:

Nor da? ... - nortzuk dira? ... - Zein datoŕ? .. - zeintzuk datoz? ... - Zer dago oŕ? ... - zertzuk dagoz an? ... - Nola dabil aita? ... - nola dabiltz auŕak? ... - Nun dago emakume ori? ... - nun dagoz zaldiak? ... - Nola zatoz? ... - nola zatoze zuek? ... - Nor doa gaur? ... - nortzuk doaz ongi? ... - Zein datoŕ gaizki? ... - zeintzuk datoz gaur? ... - Nor da aitona? ... - nortzuk dira gurasoak? ... - Zein da gizon ori? ... - zeintzuk dira emakume oyek? ... - Noiz zatoze ondo? ... - noiz gabiltz gaizki? ... - Zenbat dagoz an? ... - zenbatzuk emen? ... - Nolakoa da mutil ori? ... - nolakoak dira gazte oyek? ... - Nortzuk dira gaiztoak? ... - Nun dago etxe aundi ori? ... - nun dagoz etxe txiki ayek? ... - Noiz datoz mutil onak? ... - noiz datoŕ ume txikia? ... (1).

(1) Galdera auen atzetik agertzen diran kulatzak, eta gerokoan berdin jaŕiko diranak, galdera bakoitzari erantzun egoki bat eman beaŕ zayola adierazten eta adieraziko dute.

LAUGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - GALDEKIZUNA - UKATZEA - GALDETZEA - BAYEZTE BEREZIA

Bigaŕen bakaŕ-notiña, auŕeko ikaskayan ikusi dan bezela, aipatu ditugun aditzetan onela agertzen da : *ZU* ZERA, *ZU* ZOAZ, *ZU* ZATOZ, ... ; eta oŕela erabiltzen da. Baña, aspaldin, naiz izenordea naiz aditzera oyek «askaŕ»-zentzuna zeukaten.

Bigaŕen bakaŕ-notiñaren izenordea *I* zan, eta aditzen bere erak, auek : I AIZ, I OA, I ATOŔ, ... Ikusten danez, aditzera oyek, aditzen eŕoak berak dira, batzuetan A- auŕizkia jaŕita.

Ba-dugu aditz-joko berezia, ain zuzen bigaŕen bakaŕ-notiñarekiko egiña, eso egokia ta len askoz geyago erabiltzen zana ; gaur onela deitzen diogu aditz-joko oŕi : «I'koa», «Itato» (I + TA + TO), «Itano» (I + TA + NO), «sendiarena» ; ta bereziki ikasi beaŕ da, besteetan agertzen eztana ortan nabaritzen dalako, ots, notin-kuntzeari buruz, aditzera bakoitzean ori zein dan, adierazten dalarik. Ikaste berezi ori azken ikaskayetan emango dugu.

Egunen bidean, bein, bigaŕen bakaŕ-notiñari mintzatzeko, lotsa aundiagoa ageŕerazi nai-izan zan, eta orduan ZU izenordea erabiltzen asi zan ortarako ; ta bigaŕen askaŕ-notiñarentzat ZUEK izenorde beŕia eratu zan, askaŕezko -EK atzizki ori gañeratzean. Eta orobat egin zan aditzerai buruz, lenengoai -TE atzizkia gañeratzen, onela : ZERA-*TE*, ZOAZ-*TE*, ZATOZ-*TE*, ...

Geroago ta geron ustez beaŕik gabe, españeraren antzera, asmo ortarako, BERORI izenordea artu zan, eta bigaŕen bakaŕ-notiñarekin mintzatzeko, onela jokatu zan : BERORI DA ,BERORI DOA, BERORI DATOŔ, ... ; ots, bigaŕen notiñarentzat, irugaŕen aditzera erabiltzen (1).

Ori egiteko beaŕik eztagoela diñogu ; ta oŕelaxe da, ZU izenordea ta berari dagozkion aditzerak egiazko lotsa-zentzuna dutelako.

Azkue'k diñoenez («Euskera» III-IV zenbakia, 1927 urtea, 286 oŕialdea). Aezkoa'n BERORI ori erabiltzen utzi dute. Beraz, Eŕi'ak berak ematen digu eraman beaŕ dugun bidea.

(1) 84'gaŕen ikaskayan BERORI itzaren egiazko zentzuna emango da.

GALDEKIZUNA

Esaldi batean azaltzen diran itzen artean, bat dago nabari nai dan asmo nagusia adierazteko (ain zuzen galdetzen danari, zuzen, erantzun beaŕ zayona) agertzen dana ; itz ori aditzaren auŕe ta ondoan jaŕi beaŕ da. Joskerari buruz auxe da arau berezia.

Esate baterako : *Nor* datoŕ?, galdetzen bada, *Ni* natoŕ, erantzun zeaŕ da. *Nundik* eldu zera orain?, *Menditik* eldu naiz orain. *Noiz* eldu zera menditik?, *Orain* eldu naiz menditik.

Beraz, galdera ta erantzuna toki berean, aditzaren auŕetik beti.

UKATZEA

EZ itzaren bidez adierazten da. Aditzarekin erabiltzen danean, beraren auŕean jaŕi beaŕ da ; aditzerak bilduak diranean, beti ere auŕean, baña EZ itz bezela edo auŕizki-eraz jaŕi diteke, lenengo ikaskayan aipatu ziran aldakuntzak egiten.

Onela : *Ez* datoŕ (edo : *ez*tatoŕ). *Ez* naiz joan (edo : *e*naiz joan).

Aditz laguntzaĪearekin, bi itzen bidez egiten diran aditzeretan, EZ laguntzaĪearen auŕean ipintzen da, ta len bezela, itz edo auŕizki-eraz ; ta orduan bi itz oyen uŕenkera aldatzen da. Bayezko aditzeretan, laguntzaĪea aditzaren atzetik doa, baña ezezkoetan auŕetik.

Esate baterako : Gaur goizean *etoŕi gera* (bayezko), baña : *Ez gera etoŕi* gaur goizean (ezezko).

Onela, beraz, bi motazko aditzeretan : *Ez* doa (edo : *ez*toa) (bilduan) ; *ez* gera ibiĪi (edo : *ez*kera ibiĪi) (laguntzaĪearekin).

Beste zioren bat agertzen ezpada, esaldi bakunetan, EZ ukatzeko itzak, esanaldiaren ataletan, aditza auŕera-erazten du.

GALDETZEA

Ao-soñu bereziaz egiten ditugu galderak itzegitean, eta, gañera, naiz mintzatzen naiz idazten AL itza erabiltzen da ; galdetzekoren beste bat agertzen baldin ezpada. AL itza aditzeraren auŕean jartzen da, bilduak diran eraetan, ta laguntzaĪearen auŕean ere, bi itzezko besteetan, naiz eta ukatzekoak izan. AL itza galdetzekoaren ordez erabiltzen dala esan liteke.

E. b. : *Nor* zera? ; emen «nor» galdetzekoa agertzen danezkero, ezta AL ipiñi beaŕ. Baña galdera onela egiten badugu : Yon *al* zera? ; orduan

bai, AL ori sartzen dugu. Etoŕi *al* zera? : emen laguntzaīearen auŕean doa. Ez *al* zera etoŕi? ; berdin emen, ezezko esanaldi ontan.

BAYEZTE BEREZIA

Bereziki bayezteko egiten diran esanaldietan BA itza ere erabiltzen da; ta EZ ukatzeko itzari buruz nabari-erazi duguna, BA itzari be dagokio. Beraz, berdin bayetzeko ta ukatzeko; baña BA bilduak diran aditzeraekin darabilgu soiīlik, eta idaztean bi itz oyen artean maŕatxoa jartzen dugu, AL galdetzekoa agertzen eztanean; orduan, galderetan noski, BA ta aditzeraren artean AL joan beaŕ dalako. Aditzera bilduak bakaŕik erabiltzen diranean, BA itz ori auŕetik eraman beaŕ dute.

E. b. *Ba* al zoaz? - Bai, *ba*-noa. - *Ba*-gera - *Ba*-dakargu - *Ba*-dakit goize ontan eldu zerala.

EGINKIZUNAK

1. Itzez eta idatziz, uŕengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, dagozkien aditzerak esan eta idatzi beaŕ dira :

Aditza	NI	ZU	BERA	GU	ZUEK	BERAK
Izan	Naiz	...	...	...	...	...
Joan	...	Zoaz	...	...	...	...
Etoŕi	...	...	Datoŕ	...	...	...
Egon	...	...	...	Gagoz	...	...
Ibiīli	...	...	...	...	Zabiltzate	...

2. Uŕengo esaldiak aldatu, onela : Bayezkoak diranen ordez, ezezkoak ipiñi, eta ezezkoen ordez bayezkoak :

Zu adiskidea zera; ... - Ori ez da ona; ... - Gu emen gagoz; ... - Au eztago an; ... - Oyek gaiztoak dira; ... - Ayek eztatoz gaur; ... - Zuek oŕ baziltzate; ... - Gizon auek ez dira onak; ... -

3. Uŕengo esaldietan, EZ ala BA ipiñi, bakoitza beaŕ dan tokian : Ez, ni ... naiz etoŕi; - Zu bai, ... - ... al zoazte?; Bai, ... - ... al zabiltz?; Bai, ... - Ez al dagoz oyek oŕ?; Ez, ... - Ez al doaz ayek?; Bai, ... - Ez al zoaz orain?; Bai, ... - Ez al gera etoŕiko biar?; Ez, ...

4. Edozein izen, izenondo, mugitza, mugarazle ta ezagunak diran aditzondoak erabiltzen, uŕengo galderai erantzun bana eman; galdekizuna zein dan nabari-erazten, idaztean maŕatxo baten bidez :

Gu emen gagoz : Nor dago emen? ...; nun gagoz? ... - Ori etxea da : Zer da ori? ...; zein da etxea? ... - Orma zuria da : Zein da zuria? ...; nola da orma? ...; nolakoa da orma? ...; orma beltza al da? ... - Aulkiak ez dira goŕiak, urdiñak baño : Zeintzuk dira urdiñak? ...; nolakoak dira aulkiak? ...; nola ez dira aulkiak? ...; zeintzuk ez dira goŕiak? ... - Mutiīa ez dabil oŕ, an baño : Nor ez dabil oŕ? ...; nun dabil mutiīa? ...; nun ez dabil mutiīa? ...; gizona an al dabil? ... - Ez al datoz neskatiīak? : Ez, ...; bai, ...; ez, gaur ... - Ez al dabiltz agureak? : Bai ...; ez, ...; bai, orain .. - Idaztiak oŕ dagoz : Zertzuk dagoz oŕ? ...; nun dagoz idaztiak? ...; idaztiak an al dagoz? ...; ez, idaztiak ...; emen al dagoz idaztiak? ... - Atsoak onak dira : Nortzuk dira onak? ...; nola dira atsoak? ...; atsoak gaiztoak al dira? ...; neska ayek onak al dira? ...; nola ez dira neska ayek? ... - Jaun oyek ez doaz orain : Nortzuk ez doaz orain? ...; noiz ez doaz jaun oyek? ...; eta jaun auek al doaz orain? ...; bai, ... - Ez al zagoze ondo oŕ? : Bai, oŕ, emen eta an ...; nortzuk dagoz ondo emen, oŕ eta an? ...; andere auek ondo al dabiltz oŕ? ...; ez, ..., gu ... - Zaŕak onak al dira emen? : Bai, ...; ez, ...; nun ez dira onak zaŕak? ...; zaŕak an gaiztoak al dira? ...; bai, ...; ez, ...

BOSKAŕEN IKASKAYA

IZEN-JOKOA

Atzizkien bidez dagigu euzkeraz izen-jokoa. Ikaskai ontan iru atzizki auek ikasiko dira : «-N», «-TIK» (1), «-RA» (2).

-N atzizkiaren bidez, *toki* ala *egote*'aren zentzunak ematen dira. Esate baterako : Iruña'*n*, gañea*n*. Iruña'*n* bizi naiz; mai gañea*n* dago.

-TIK atzizkiaren bidez, *ibilkeraz* adierazten dan *etorkun*'aren zentzuna ematen da. E. b. : Mendi*tik* etoŕi gera; itzaso*tik* eldu dira.

-RA atzizkiaren bidez, *norabide*'aren zentzuna damagu. E. b. : Etxe*ra* noa; basoeta*ra* igoko dira.

Atzizki auek zentzungabeko izakiak adierazten dituzten itzekin erabiltzeokak dira.

Lenengoa, -N, berarizko izenekin erabiltzen eztanean, bakaŕ-zentzunezko -A mugitzaz darabilgu. Beste biak eztute onen beaŕik bakaŕ-zentzuna adierazteko.

Askaŕ-zentzuna eman beaŕ danean, irurak -ETA- erdizkia artu beaŕ dute. Berdin gertatuko da zentzungabeko izakien izenekin erabīliko diran beste atzizkiakaz.

Azkue'k bere iztegian diñoenez, esandako irugaŕen atzizkia, egitan, -A da bakaŕik, eta R ori lotzekoa baño besterik ezta.

Onela ditugu, beraz, iru atzizki oiek :

Bakaŕ	Askaŕ
-N	-ETA-N
-TIK	-ETA-TIK
-RA	-ETA-RA

Esate baterako :

Etxe-*an*	Etxe-*eta-n*
Etxe-*tik*	Etxe-*eta-tik*
Etxe-*ra*	Etxe-*eta-ra*

(1) Ikusi: 52 ta 66gn. ikask.
(2) Ikusi: 150'gn. ikask.

Ikus dezagun orain iru atzizki oyek, tokiko aditzondoai ta ageŕerazleai nola alkartzen zaizkien; lenengoen artean NUN galdetzekoari ere :

		-N	-TIK	-RA
Goi	:	Goya*n*	Goi*tik*	Gora
Be	:	Bea*n*	Bei*tik*	Bera
Gain	:	Gañea*n*	Gañe*tik*	Gañera
Azpi	:	Azpia*n*	Azpi*tik*	Azpira
Nun?	:	Nun?	Nun*dik*?	Nora?
Emen	:	Emen	Emen*dik*	Ona, onera
Oŕ	:	Oŕ	Or*tik*	Oŕa, oŕera
An	:	An	An*dik*	Ara
Au	:	Ontan	Ontatik	Ontara
Ori	:	Ortan	Ortatik	Ortara
Ura, a	:	Artan	Artatik	Artara
Auek	:	Aue*tan*	Aue*tatik*	Aue*tara*
Oyek	:	Oye*tan*	Oye*tatik*	Oye*tara*
Ayek	:	Aye*tan*	Aye*tatik*	Aye*tara*

Ongi ikusi ditekenez, tokiko aditzondoak (Nun?, Emen, oŕ eta an) eztute -N atzizkia artu beaŕ. Bai ta ageŕerazleak, bakaŕean, -TA- erdizki bat artzen dutela; erdizki oŕezaz geroago mintzatuko gera, 9'gaŕen ikaskayan.

Beste berezitasun bat dugu, atzizki oyei buruz nabaritzeko. Lenengo ta gibaŕen maīetako ageŕerazleak, bakaŕean, esandako atzizkiak eta gero ikusiko diran beste oŕelakoak artzen dituztenean, eurekin eratutako itz beŕiak *O* gediñaz asten dira, baña irugaŕen maīekoaz sortzen dana *A* gediñaz asten da.

Dirudienez, asieran euzkeraz bi ageŕerazle bakaŕik ezagutzen ziran : *O*, urbil zegoena aipatzeko, ta *A*, uŕun zegoena; ta oŕengatik edo, lenengo ta bigaŕeneko maīetan ditugun ageŕerazleetan agertzen da *O* ori, itza asteko. Berdin *A* irugaŕen maīekoan.

Gero, urbil-asmotarako, urbīago zegoena, ainbeste ez zegoenetik nabari-erazteko, *O* oŕi indarkoŕa dan *A* auŕetik jaŕi zitzayon eta *AO* itz beŕia gertatu zan indarkoŕezko zentzunaz; eta geroago *AO* ori *AU* biurtu zan. Eta oŕela, gaur *AU* da lenengo ageŕerazlea.

Aipatutako *O* oŕi, Azkue'k (M.) «mugitz tinkotua» deitzen dio, ta *A* besteari «mugitz orokaŕa»; lenengoa beste itz askotan agertzen dana, naiz izen, izenondo, izenordetan naiz aditzondoetan ere; ta beti oso urbil dagoenaren asmoa emateko; baña ezta iñoiz bakaŕik agertzen ez eta itz bat amaitzen, jaŕaitzen zayon beste atzizki batekin baizik.

Onela : Gazteok, Guztiok, Zerok, Berton, eta abaŕ.

Eginkizunak

1. Itzez eta idatziz, uŕengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, dagozkien erak esan eta idatzi beaŕ dira :

Aditzondo		-N	-TIK	-RA
Emen	:	Emen	...	...
Oŕ	:	...	ortik	...
An	:	...	...	ara

Ageŕerazle		-N	-TIK	-RA
Au	:	Ontan	...	...
Ori	:	...	ortatik	...
Ura, a	:	...	...	artara
Auek	:	Auetan	...	...
Oyek	:	...	oyetatik	...
Ayek	:	...	...	ayetara

2. Uŕengo esaldietan, atzizkiak *bakaŕ*-zentzunaz agertzen diranak, *askaŕ* zentzunezkoen bidez aldatu, ta, alderantziz, *askaŕezkoak bakaŕezkoen* bidez :

Etxean nago; ... - Mendietatik etoŕi gera; ... - Aranera joango zera; ... - Kaleetan dabiltz; ... - Ibaitik eldu zerate; ... - Basoetan egon naiz; ... - Eŕitik itzuliko da gaur; ... - Urietara joango dira gazteak; ...

3. Uŕengo esanaldietan, jokaturik agertzen diran *ageŕerazleen* ordez, bakaŕezkoak ala askaŕezkoak, *beste bi maĺetakoak* ipiñi :

Etxe ontan egon naiz; ... ... - Mendi ayetatik etoŕi gera; ... ... - Aran ortara zoaz; ... ... - Kale oyetan zabiltzate; ... ... - Ibai artatik eldu dira orain; ... ... - Baso ayetara joango da; ... ... - Eŕi ontatik irtengo naiz; ... ... - Uri oyetara sartuko gera biar; ... ...

4. Ezagunak diran izen eta beste itzak erabiltzen, uŕengo galderai erantzun bana eman; beti galdekizuna zein dan nabari-erazten :

Emakumea leyoan dago : Nor dago leyoan? ...; nun dago emakumea? ...; zu al zagoz leyoan? ... - Gizonak ibai ortan dabiltz : Nortzuk dabiltz ibai ortan? ...; nun dabiltz gizonak? ...; gizonak ibai artan al dabiltz? ... - Gu orain itxasora goaz : Nor doa orain itxasora? ...; noiz goaz itxasora? ...; nora goaz orain? ... - Ori ez datoŕ ortik, andik baño : Nundik ez datoŕ ori? ...; nundik datoŕ ori? ...; zuek andik al zatoze? ... - Ingiak mai ontan dagoz : Zertzuk dagoz mai ontan? ...; nun dagoz ingiak?

...; ingiak mai ayetan al dagoz? ... - Baseŕitaŕa gaur solo ortan dabil : Nor dabil gaur solo ortan? ...; noiz dabil baseŕitaŕa solo ortan? ...; nun dabil gaur baseŕitaŕa? ...; baseŕitaŕa gaur solo auetan al dabil? ... - Aulki artan idazti bat dago : Zer dago aulki artan? ...; nun dago idazti bat? ...; aulki ontan al dago idazti bat? Ez, ... baño. - Bide luze oyetan gabiltz : Nortzuk dabiltz bide luze oyetan? ...; nun gabiltz gu? ...; gu zelai auetan al gabiltz? ... - Mendigoizale oyek ez datoz mendi artatik : Nortzuk eztatoz mendi artatik? ...; nundik ez datoz mendigoizale oyek? ...; artzai auek mendi artatik al datoz?, bai, ... - Sendagīlea orain basetxe artatik datoŕ : Nor datoŕ orain basetxe artatik? ...; noiz datoŕ sendagīlea basetxe artatik? ...; nundik datoŕ orain sendagīlea? ... - Ardiak ez dabiltz kale auetan laŕe ayetan baño : Zeintzuk eztabiltz kale auetan? ...; nun dabiltz ardiak? ...; nun ez dabiltz ardiak? ...; txakuŕak laŕe ayetan al dabiltz? ...; ez, ..., ... baño. - Auŕak goizean eta aŕatsaldean ikastola ortara doaz : Nortzuk doaz goizean eta aŕatsaldean ikastola ortara? ...; nora doaz auŕak goizean eta aŕatsaldean? ...; noiz doaz auŕak ikastola ortara? ... - Gaur Armentia'tik gatoz : Nortzuk datoz gaur Armentia'tik? ...; noiz gatoz Armentia'tik? ...; nundik gatoz gaur? ...; gurasoak al datoz gaur Armentia'tik? ...; Ez, ..., ... baño.

SEIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ IRAGANGAITZAK:

Irten, urten	igo	erori, jausi
Sartu	jetxi, jatxi	jeiki, jaiki, jagi

Gipuzkoa'n erabiltzen diran EGON aditzaren era bereziak, oraiñaldiko egokerarako :

Nago	GAUDE
ZAUDE	ZAUDETE
Dago	DAUDE

EGON aditzak, oraingo egokera onen irugaŕen notiñetan, ba-du, zentzun berezi bat, IZAN'en antzekoa (1).

Esate baterako : Zer dago oí? = zer da oí?; ez dago emen = ez da emen; eta zentzun ortaz asko erabiltzen da.

Beste aldietan ere, oíela darabilgu.

E. b. : Ezer egongo al da? = ezer izango al da?; ez da ezer egon = ez da ezer izan.

ADITZ-JOKOA

Len esan dugunez, aditza aipatzeko darabilgun izena, aditz-izenondoa da.

Onela : Irten = irtenda; etoŕi = etoŕita; eta abaŕ.

Beraz, egitan, *irten* itzak *irtenda* esan nai du; ta *etoŕi* itzak, *etoŕita*.

Aditz-izen antzeko bat egiten dugu, aditz-izenondoari -TEN edo -TZEN atzizkiak gañeratzen, aditzaren eŕoa gedin ala igidiñez amaitzen dan arauz; eta atzizki oyek aditz-eŕoari zuzen batutzen zaizkio, ots, aditzak zedaŕitzeko daramazkien azken izki edo izkiak geyenetan kentzean.

Onela : Joa*n* + -ten = Joaten
Etoŕ*i* + -tzen = Etortzen.

Era auek, bildutako aditzerak ez dauzkaten aditzen oraingo egokera egiteko darabilzkigu, IZAN laguntzaĺearen aditzeraekin, bi itzen bidez adierazpena emateko; bai ta bildutako aditzerak dauzkaten aditzenekin, oiturazko oraiñaldiko egokera egiteko.

(1) Ikus: 42'gaŕen ikaskaya.

Onela :

Oraiñaldiko egokera			Oiturazko oraiñaldiko egokera		
Irteten	...	naiz ...	Izaten	...	naiz ...
Sartzen	...	zera ...	Joaten	...	zera ...
Igoten	...	da ...	Etortzen	...	da ...
Jeisten	...	gera ...	Egoten	...	gera ...
Erortzen	...	zerate ...	Ibiltzen	...	zerate ...
Jeikitzen	...	dira	Etzaten	...	dira

Ezkeŕeko erak auxe adierazten dute : Orain irteten naiz, orain sartzen zera, ... Eskumako erak : Orain izan *oi* naiz, orain joan *oi* zera, ...

-TZI, -TSI edo -TXI atzizkietaz amaitzen diran aditzetan, -TEN beste atzizkia artzen dutenean, bikunak diran igidin oyen ordez, Z, S, X, beren igidin bakunak jartzen ditugu.

Onela :

Ida*tzi* + -TEN = Ida*z*ten
Eraku*tsi* + -TEN = Eraku*s*ten
Je*txi* + -TEN = Jei*x*ten

Azken aditz ortan, gañera, atzizki adierazlearen azken I izkia, tokitik aldatuta, gordetzen da. Eta berdin esan dezakegu : JEIXTEN edo JEISTEN; aditza JE*TX*I edo JE*TS*I dalako.

Eta -TU atzizki adierazleaz amaitzen diran aditz guztiak, -TU ori kentzean, -TZEN artzen dute; esate baterako : Sartu + -tzen = Sar*tzen*. Eta -TU kentzen eztanean, -TEN artzen dute; e. b. : Sartu + -ten = Sar*tuten*.

EGINKIZUNAK

1. Itzez eta idatziz, uŕengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, oraiñaldiko egokerari dagozkion aditzerak esan eta idatzi beaŕ dira :

Aditza	NI	ZU	BERA	GU	ZUEK	BERAK
Irten :	Irte...	Naiz	...	...	...	...
Sartu :		... Sar..	Zera	...	...	...
Igo :		...	... Igo..	Da	...	...
Jeitsi :		...	...	... Jeis..	Gera	...
Erori :		...	...	...	... Eror..	Zerate ...
Jeiki :		...	...	...	...	... Jeiki.. Dira

2.—Uŕengo esaldietan, izenen atzizkiak aldatu: *bakaŕ* zentzunaz agertzen diranak, *askaŕ'*enaz, eta alderantziz:

Elizetan egoten gera; ... - Aranetik etortzen da; ... - Bideetan erortzen dira; ... - Goizean jeikitzen zerate; ... - Aŕatsaldeetan ibiltzen naiz; ... - Gauean igoten zera; ... - Ortatik jeisten gera; ... - Tontoŕera igoten zerate; ...

3. Uŕengo esanaldietan, izenondo ta aditzondoak aldatu, agertzen diranen ordez zentzun auŕezkoak jartzeko:

Menditik *ondo* eltzen gera; ... - Mutil auek *txaŕak* izaten dira; ... - Eguraldia *txarto* egoten da; ... - Langiīeak *gogoŕ* ibiltzen dira; ... - Nekazariak *asko* etortzen dira; ... - Auŕa *eŕaz* erortzen da; ... - Atso oyek kale auetan *alai* joaten dira; ... - Agure ona solora *goiz* joaten da; ...

4. Ezagunak diran itzak erabiltzen, emen agertzen diran galderai, bana, erantzun egoki bat eman:

Nortzuk egoten dira etxean? ... - Nundik irteten zera goizean? ... - Nora igoten zerate igandean? ... - Nor sartzen da eliz ontan pozik? ... - Enparantza artan ibiltzen al zera? ... - Noiz jeisten dira artzain eta ardiak laŕe ayetatik? ... - Idaztiak beti mai gañean egoten dira: Zer egoten da beti mai gañean? ... - Nun egoten dira beti idaztiak? ... - Noiz egoten dira idaztiak mai gañean? ... - Aulkia mai azpian egoten al da? ... - Nundik joaten dira gudariak mendietara? ... -Zu median erortzen al zera? ... - Ez, ni ... - Txinduŕiak leyoetatik etxera sartzen dira: Zeintzuk sartzen dira leyoetatik etxera? ... - Nundik sartzen dira txinduŕiak etxera? ... - Nora sartzen dira txinduŕiak leyoetatik? ... - Eŕi ontako auŕak onak izaten al dira? Bai, ... - Nun erortzen dira emengo neskatiīak? ... - Nundik irteten dira etxe ontako beyak? ... - Zaldiak ango aran artan egoten al dira? Ez, ... - Arotz au goiko baseliz artara igoten da jai-egunetan: Nor igoten da jai-egunetan goiko baseliz artara? ... - Nora igoten da arotz au jai-egunetan? ... - Noiz igoten da arotz au goiko baseliz artara? ... - Otso gaiztoak oyan iīunetan ibiltzen dira: Zeintzuk ibiltzen dira oyan iīunetan? ... - Nun ibiltzen dira otso gaiztoak? ... - Auŕ txikia emengo idoyetan erortzen da beti: Nor erortzen da beti emengo idoyetan? ... - Nun erortzen da beti auŕ txikia? ... - Noiz erortzen da auŕ txikia emengo idoyetan? ... - Orko gazteak iturburu ayetatik pozik jeisten dira aŕatsaldeetan: Nortzuk jeisten dira pozik iturburu ayetatik aŕatsaldeetan? ... - Nundik jeisten dira orko gazteak pozik aŕatsaldeetan? ... - Nola jeisten dira orko gazteak iturburu ayetatik aŕatsaldeetan? ... - Noiz jeisten dira orko gazteak pozik iturburu ayetatik? ... - Gu eŕiko etxeetara sartzen gera eguerdian: Nortzuk sartzen dira eŕiko etxeetara eguerdian? ... - Nora sartzen gera gu eguerdian? ... - Noiz sartzen gera gu eŕiko etxeetara? ... - Langiīeak egunero etxetik olara joaten dira: Nortzuk joaten dira egunero etxetik olara? ... - Nundik joaten dira langiīeak egunero olara? ... - Noiz joaten dira langiīeak etxetik olara? ... - Nora joaten dira langiīeak egunero etsetik? ...

ZAZPIGAŕEN IKASKAYA

IZEN-JOKOA

«-KO» atzizkia.

Atzizki onek asmo bi auek adierazteko erabiltzen dugu: toki batean egokerakoa, ta ibiltzerik gabeko nungotasuna.

Izen-jokoan, atzizki au, lenengotasunez, zentzungabeko izakien asmoak adierazten dituzten itzekin erabiltzekoa da.

Bakaŕean, zuzen eransten da, ta askaŕean ikusita dagoen «-ETA-» erdizkiaren bitartez. Onela:

Bakaŕ	Askaŕ	
-KO	-ETA-KO	Esate baterako:
Etxe-*ko*	Etxe-*eta-ko*	

Etxe*ko* atea (etxean dagoen atea). Eŕi*ko* mutīla (eŕikoa dan mutīla, edo eŕian dagoen mutīla, edo eŕian egon dan mutīla).

Ikus dezagun orain, atzizki au, galdetzeko diran itz batzuei, tokiko aditzondoai ta ageŕerazleai nola eransten dan:

Bakaŕ		Askaŕ	
Noiz?	Noizko?		
Nun?	Nungo?		
Emen	Emengo		
Oŕ	Orko		
An	Ango		
Au	Ontako (onetako)	Auek	Auetako
Ori	Ortako (oŕetako)	Oyek	Oyetako
Ura, a	Artako (aretako)	Ayek	Ayetako

ADITZ-JOKOA

Aditzaren aditz-izenondo soīlaz, IZAN laguntzaīearen oraiñaldiko erak jaŕaiturik, aditz guzien *lentxoago igarotako aldi*ari dagozkionak egiten ditugu.

Ta aditzaren izen berberaz, aipatutako «-KO» (N atzetik -GO) atzizkia erantsita, eta IZAN'en oraiñaldiko egokeraen erak ere, «igarotako aldi»'an bezela, jaŕaituta, *geroko*'ak egiten dira.

Igarotako aldia (Igaroaldia)				Geroko aldia (Geroaldia)			
Izan	naiz	...		Izango	naiz	...	
Joan	...	zera	...	Joango	...	zera	...
Etoŕi	...	da	...	Etoŕiko	...	da	...
Egon	...	gera	...	Egongo	...	gera	...
Ibīli	...	zerate	...	Ibīliko	...	zerate	...
Irten	...	dira		Irtengo	...	dira	

GEROKOA

Bigaŕen *geroaldiko* bat eratu diteke, erderaz «geroko osoa» deitzen dana (baña Azkue'k, M. 252-31'gn. diñoenez, ezta ez geroko ta ez osoa), laguntzaīearen geroko eraen auŕetik, jokatu nai dan aditzaren izena jartzean.

Onela: *Etoŕi izango da*, ots, auŕeragotxoan «etoŕi da».

Sortaldeko euzkalkietan GEROALDIKOA ere, «-KO»'en ordez «-EN» beste atzizkia erabiltzean egiten dute; batez ere igidiñez amaitzen diran aditzetarako (Azkue, D.).

Onela: Izan*en* naiz, Joan*en* gera (Izang*o* naiz eta Joang*o* gera bezela).

EGINKIZUNAK

1. Itzez eta idatziz, uŕengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, beaŕezko erak esan eta idatzi beaŕ dira:

Aditzondo		-N	-TIK	-RA	-KO
Emen	:	...	emendik	...	...
Oŕ	:	...	...	oŕa	...
An	:	...	...	...	ango
Ageŕerazle					
Au	:	...	ontatik	...	...
Ori	:	...	...	ortara	...
Ura, a	:	artan	...	...	artako
Auek	:	...	auetatik	...	...
Oyek	:	...	...	oyetara	...
Ayek	:	ayetan	...	...	ayetako

2. Uŕengo esaldietan, onela egin beaŕ dira aldaketak: *bakaŕ* zentzunaz agertzen dana, *askaŕ*'enaz, eta alderantziz.

Eŕiko gizona joan da; ... - Etxe auetako leyoak aundiak dira; ... - Ibaiko aŕañak onak dira; ... - Mendietako ardiak jeisten dira; ... - Kale ontako neskatiīa arin dabil; ... - Baseŕi ayetako atsoak itun dagoz; ... - Solo ortako beya etzanda dago; ... - Ikastola oyetako auŕak igoten dira; ...

3. Uŕengo esaldietan, agertzen diran tokiko aditzondoak, bakoitza beste baten ordez aldatu:

Emengo apaiza zaŕa da: ... - Orko nekazariak lantzaleak izan dira; ... - Ango pelotaria azkaŕa izaten da; ...

Iru esaldi oyek ere, ukatzean jaŕi, aditzondo bakoitza beste baten ordez aldatzen be, baña ez len jaŕitakoa:

....
... .

4. Ezagutzen diran itzak erabiltzen, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman:

Nola da etxeko atea?; Zuria - Etxeko atea beltza al da?; ... -- Nortzuk joan dira basora?; Zuek ... - Nora joan zerate?; ... -- Ni al natoŕ basetxeetatik?; Ez, ..., gu baño - Nundik zatoze?; ... -- Zuek irtengo al zerate biar egunsentian?; Ez, ..., berak baño -- Noiz egon da gizon ori Gorbea'n?; Gaur ... -- Nora igoko zera biar goizean?; Mendi ayetara ... -- Nundik jetxiko zera biar iīunabaŕean?; Mendi ayetatik ... - Emengo mendietatik jetxiko al naiz ni biar iīunabaŕean?; ... -- Nortzuk sartuko dira etzi aŕatsaldean ikasgu ontan?; Gu ... - Zu biar sartuko al zera aŕatsaldean ikasgu ontan?; ... -- Nor irtengo da gaur goizean laŕera?; Baseŕitaŕa ... - Nundik itzuliko da baseŕitaŕa eguerdian?; ... - Noiz itzuliko da baseŕitaŕa laŕetik?; ... -- Nungoa naiz ni?; ... - Zu Araya'koa al zera?; ... -- Nortzuk dira atzokoak?; Agure oyek ... -- Nora igoten da bera aŕatsaldean?; Etxe artara ... -- Nortzuk ez dira eltzen mendi ayetara?; Artzain oyek ... -- Zeintzuk ibiltzen dira laŕe auetan udabeŕian?; Ardiak ... - Nun ibiltzen dira ardiak udabeŕian?; ... - Noiz ibiltzen dira ardiak laŕe auetan?; ... -- Zuek egoten al zerate baratz ontan aŕatsaldean?; Bai, ... -- Zeintzuk dagoz korta ortan?; Zaldi zaŕak ... -- Nundik etortzen gera gu?; Basetxe edeŕ artatik ... - Ni etortzen al naiz basetxe edeŕ artatik?; ... -- Gabaz ardantegi zikin ortara zoaze: Nor doa gabaz ardantegi zikin ortara?; ... - Nora zoaze gabaz?; ... - Noiz zoaze ardantegi zikin ortara?; ... -- Egun itunetan berandu jeisten gera kalera: Nor jeisten da berandu kalera egun itunetan?; ... - Noiz jeisten zerate berandu kalera?; ... -- Mendiko zugatzak txikiak al

dira?; Ez, ... aundiak baño - Zugatz oyek bidean al dagoz?; Ez, ... -- Beltzak al dira artegiko ardi guziak?; Ez, ... -- Bide ontako aŕiak estuak al dira?; Ez, ... zabalak baño -- Ontzi ortako aŕañak txaŕak al dira?; Ez, ... onak baño -- Basoko etxetxua aundia al da?; Ez, ... baño. -- Gaur al dabil eŕi ontan atzoko ijitoa?; ... Ez, ... -- Burnia luŕ gañean egoten al da?; Ez, ... baño. -- Nundik datoz enara beltzak?; Uŕundik ... - Egazti oyek udan eltzen al dira?; Ez, ... baño. - Noiz itzultzen dira enara beltzak?; Udazkenean ... -- Nora eltzen gera jai-egunetan?; Ona ... - Noiz eltzen gera gu ona?; ... -- Loreak eztagoz mai gañean, leyo artan baño: Nun eztagoz loreak?; ... - Zertzuk dagoz leyo artan?; ... - Loreak leyo ontan al dagoz?; ... -- Ingiak gaur mai gañean dagoz: Zertzuk dagoz gaur mai gañean?; ... - Nun dagoz gaur ingiak?; ... - Gaur ingiak mai azpian al dagoz?; ... -- Aita udabeŕi ontan ondo dabil: Nor dabil ondo udabeŕi ontan?; ... - Gu al gabiltz ondo udabeŕi ontan?; ... -- Estibalitz'etik al zatoz?; ... - Ez, gaur ..., Lizaŕa'tik baño. - Nor ez datoŕ gaur Estibalitz'etik, Lizaŕa'tik baño?; ... - Nekazari oyek al datoz gaur Lizaŕa'tik; ... --

ZORTZIGAŕEN IKASKAYA

IZEN-JOKOA

«-RAÑO» atzizkia.

Atzizki au ere zentzungabeko izakien asmoak adierazten dituzten itzekin erabiltzen da, *toki* zentzunaz.

Bakaŕean zuzen gañeratzen da, ta askaŕean, auŕeko beste atzizkiak bezela, «-ETA-» erdizkiaren bitartez. Onela :

Bakaŕ	Askaŕ	
-RAÑO	-ETA-RAÑO	Esate baterako :
Mendi-*raño*	Mendi-*eta-raño*	

Mendi*raño* joan gera - Mendi*etaraño* joango zerate.

NUN galdetzekoarekin, EMEN, OŔ eta AN aditzondoekin eta ageŕerazleekin, onela eransten da :

		Bakaŕ		Askaŕ
Nun?	:	Noraño?		
Emen	:	Oneraño		
Oŕ	:	Oŕeraño		
An	:	Araño		
Au	:	Ontaraño	Auek :	Auetaraño
Ori	:	Ortaraño	Oyek :	Oyetaraño
Ura, a	:	Artaraño	Ayek :	Ayetaraño

ARTE itza :

Esandakoaren antzekoa dan ALDI-asmoa adierazteko, ARTE itza erabiltzen dugu :

Gero *arte* - Biar *arte* Esate baterako :

Gero *arte* emen egongo naiz - Biar *arte* ez gera etoŕiko (1).

ARTE itza, izen aŕuntai eransten zayenean, atzizkia bezala erabiltzen da, ikasita dagoen -RA beste atzizkiaren bitartez. Onela :

Igande*rarte* - Goize*rarte*

(-ra + -arte, *-rarte* egiten dugularik).

(1) Ikusi: 67 ta 79 ikaskayak.

Zenbakiak adierazten dituzten itzekin itz aldenduta bezela jartzen da. Onela : Amaikak *arte* - Ordu biak *arte*.

TA (DA) ETA.

Itz au (egitan biak bat diralarik) lokaŕitza da, ta itzen eta esaldien zentzunak alkartzeko erabiltzen dugu.

Arau ertsia izan gabe, TA gediñez amaitzen diran itzen atzetik jartzen da, ta ETA igidiñez amaitzen diranen atzetik.

Onela : Au, ori *ta* ura - Gizon *eta* emakumea.

EGINKIZUNAK

1. Itzez eta idatziz, uŕengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, beaŕezko erak esan eta idatzi beaŕ dira :

Aditzondo	-N	-TIK	-RA	-KO	-RAÑO
Emen :	...	...	...	emengo	...
Oŕ :	...	...	oŕera	...	...
An :	...	...	...	...	araño
Ageŕerazle					
Au :	...	ontatik	...	...	...
Ori :	ortan	...	...	...	...
Ura, a :	...	...	...	artako	...
Auek :	...	...	...	...	auetaraño
Oyek :	...	...	oyetara	...	...
Ayek :	...	ayetatik	...	...	...

2. Uŕengo laukian agertzen diran aditzeraen ondoren eta kulatzen ordez, ukatzeko bakoitzari dagokion beste era esan eta jaŕi, era bi auetan : lenengoan EZ itza bezela, ta bigaŕenean EZ auŕizki bezela; guzietan egiŀeak adierazteko izenordeak ere ipintzen :

Ni	naiz	Ni	...	Ni	...
Zu	zoaz	Zu	...	Zu	...
Bera	datoŕ	...	...	...	...
Gu	gagoz	...	...	...	...
Zuek	zabiltzate	...	...	...	...
Berak	daude	...	...	...	...

3. Uŕengo esaldietan agertzen diran ageŕerazleak aldatu, bakaŕ zentzunezkoen ordez, askaŕ'ezkoenak jartzean eta alderantziz, askaŕ zen-

tzunezkoen ordez bakaŕ'ezkoak; eta oŕengatik, esaldi bakoitzean aldatzekoak diran itzen ordez beaŕ-izango diranak jartzean :

Etxe *ontako* auŕ *ori* mendi *artara* joan da; ... - Eŕi *ontan* apaiza ez da gaztea; ... - Ibai *ayetatik* eldu dira aŕantzale azkaŕ *auek*; ... - Zakuŕ *au* eŕi *artako* soloraño joango da; ... - Bei goŕiak laŕe zabal *oyetan* biar arte egongo dira; ... - Auzo *ortako* gazte *ura* laisteŕ itzuliko da enparantza *ontaraño*; ...

4. Ezagunak diran itzen bidez, emen agertzen diran galderai erantzun egoki bana eman :

Goiko basetxetik gatoz orain : Nor datoŕ orain goiko basetxetik? ; ... - Nundik gatoz orain? ; ... - Noiz gatoz goiko basetxetik? ; ... -- Andere oyek aŕatsalde guztietan baratz ontan egoten dira : Nortzuk egoten dira aŕatsalde guztietan baratz ontan? ; ... - Noiz egoten dira andere oyek baratz ontan? ; ... - Nun egoten dira andere oyek aŕatsalde guztietan? -- Aita Urbia'ko laŕeetatik etoŕi da : Nor etoŕi da Urbia'ko laŕeetatik? ; ... - Nundik etoŕi da aita? ; ... - Zu etoŕi al zera Urbia'ko laŕeetatik; Ez, ..., baño. -- Etzi Donostia'ko ondartzaraño joango zerate : Noiz joango zerate Donostia'ko ondartzaraño? ; ... - Noraño joango zerate etzi? ; ... - Mutil au joango al da biar Donostia'ko ondartzaraño? ; Ez, ..., baño. -- Etxe ontako neskatīla oso ona da; goizero Mezatara doa : Nolakoa da etxe ontako neskatīla? ; ... - Gaiztoa al da etxe ontako neskatīla? ; Ez, ..., baño. - Nora doa goizero? ; ... - Noiz doa Mezatara? ; ... - Etxe artako gizona Mezatara al doa egunero? ; Ez, ..., baño. - Solo artako garia edeŕa da : Zein da edeŕa? ; ... - Nungo garia da edeŕa? ; ... - Solo ontako garia edeŕa al da? ; Ez, ..., baño. -- Eŕi ontako mutīlak etxetik goizean irten dira ta eztira itzuli orain arte : Nortzuk irten dira etxetik goizean? ; ... - Nundik irten dira eŕi ontako mutīlak goizean? ; ... - Noiz arte eztira itzuli eŕi ontako mutīlak? ; ... -- Atzoko loreak igartu dira : Zertzuk igartu dira? ; ... - Ereneguneko loreak igartu al dira? ; Ez, ..., baño. -- Gasteiz'tik Donostia'raño bultzian joan naiz : Nor joan da Gasteiz'tik Donostia'raño bultzian? ; ... - Nundik joan naiz Donostia'raño bultzian? ; ... - Noraño joan naiz Gasteiz'tik bultzian? ; ... - Nola joan zerate zuek Gasteiz'tik Donostia'raño? ; ... -- Mendigoizale ori mendi artako tontoŕetik eldu da gau ontan : Nor eldu da gau ontan mendi artako tontoŕetik? ; ... - Nundik eldu da gau ontan mendigoizale ori? ; ... - Gu eldu al gera gau ontan mendi artako tontoŕetik? ; Ez, ..., baño. -- Aŕautz auek ereneguneko dira : Noizkoak dira aŕautz auek? ; ... - Zertzuk dira ereneguneko? ; ... - Aŕautz auek atzokoak al dira? ;

Ez, ..., baño. -- Zuek etzerate elduko biar bide artako ituŕietaraño : Nortzuk ez dira elduko biar bide artako ituŕietaraño? ; ... - Noiz etzerate elduko bide artako ituŕietaraño? ; ... - Noraño etzerate elduko biar? ; ... -- Etxe artako auŕak beko kalean ibiltzen dira : Zeintzuk ibiltzen dira beko kalean? ; ... - Etxe guzietako auŕak ibiltzen al dira beko kale ortan? ; Ez, ..., baño - Etxe artako auŕak goiko kale artan ibiltzen al dira? ; Ez, ..., baño. -- Basetxe ayetako abereak lodi ta edeŕak egoten dira : Zeintzuk egoten dira lodi ta edeŕak? ; ... - Nungo abereak egoten dira lodi ta edeŕak? ; ... - Emengo basetxeetako abereak lodi ta edeŕak egoten al dira? ; Ez, ..., baño. -- Nun egon zera egun guzti auetan? ; ...

BEDERATZIGAŕEN IKASKAYA

IZEN-JOKOA

«-RUNTZ (-RONTZ, -RANTZ)» atzizkia.

Auŕeko ikaskayetan ikusi ditugun beste atzizkiak bezela, au be zentzungabeko izakien asmoak adierazten dituzten itzekin erabiltzen da, bai ta *toki*-zentzunaz ere.

Era berean, beste atzizkiak erabiĩi ditugun lez, bakaŕ'ean zuzen eransten da, ta askaŕ'ean «-ETA-» erdizkiaren bitartez. Onela :

Bakaŕ	Askaŕ	
-RUNTZ	-ETA-RUNTZ	Esate baterako :
Mendi-runtz	Mendi-eta-runtz	

Mendiruntz joaten gera - Mendietaruntz joan dira.

-R*O*NTZ, asmoaren izakia urbil dagoenean erabiltzen dugu; -R*A*NTZ, asmoaren izakia uŕun dagoenean; -R*U*NTZ, edonoiz.

Esate baterako : Mendirontz noa (urbil dagoen mendi*ru*ntz); mendi*ra*ntz zoaz (uŕutian dagoen mendi*ru*ntz).

NUN galdetzekoari, EMEN, OŔ eta AN aditzondoai, ta ageŕerazleai, onela gañeratzen zaye :

	Bakaŕ	Askaŕ
Nun? :	Noruntz?	
Emen :	Onuntz	
Oŕ :	Oŕuntz	
An :	Aruntz	
Au :	Ontaruntz	Auek : Auetaruntz
Ori :	Ortaruntz	Oyek : Oyetaruntz
Ura, a :	Artaruntz	Ayek : Ayetaruntz

Oartu al-izan dan bezela, ikusitako atzizkiak, *au*, *ori* ta *ura* edo *a*, ageŕerazleai eransten zaizkienean, «-TA-» erdizkia erabiltzen dugu; erdizki au ageŕerazleen eta atzizkien arteko lokaŕi bat bezela agertzen da.

Esate baterako : «-KO» atzizkia artzean, 7'gaŕen ikaskayan ikusi dugun bezela, onela jokatzen du :

Au + -ko = on-ta-ko; ori + -ko = or-ta-ko; a + -ko = ar-ta-ko (1).

Ikasitako itz eta atzizki batzuen bitartez adierazten diran asmo auek : *goize ontan*, *aŕatsalde ontan*, *gau ontan*, beste era ontaz ere esan ditzakegu : *gaur goizean*, *gaur aŕatsaldean*, *gaur gabean*.

Alaz ere, zentzuna, ertsiki, ezta berbera, ta lits au oaŕ diteke : *goize ontan* diñogunean, itzegiten ari geran goizea adierazi nai dugu; baña *gaur goizean* esan ezkero, aŕatsaldean edo gabean diñogu, egun beraren goizea adierazteko. Beraz *goize ontan* esakuntza, goizean erabiltzekoa da, ta *gaur goizean*, aŕatsaldean edo gabean.

Era berean, *gau ontan* badiñogu, gabean gagozela adierazten dugu, ta *gaur gabean* esanez, goizean ala aŕatsaldean gagozela.

EGINKIZUNAK

1. Itzez eta idatziz, emengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, egokiak izango diran erak esan eta ipiñi beaŕ dira :

Aditzondo	-N	-TIK	-RA	-KO	-RAÑO	-RUNTZ
Emen :	...	...	...	...	oneraño	...
Oŕ :	...	ortik	...	...	...	...
An :	...	...	...	...	...	aruntz
Ageŕerazle						
Au :	...	...	...	...	...	ontaruntz
Ori :	...	...	...	...	ortaraño	...
Ura, a :	...	...	...	artako	...	...
Auek :	...	...	auetara	...	...	...
Oyek :	...	oyetatik	...	...	...	...
Ayek :	ayetan	...	...	...	...	...

2. Uŕengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, aditzai dagozkien era egokiak itzez esan eta idatziz jaŕi :

Aditz	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Izan :	naiz	...	...	...	...	...
Joan :	...	zoaz	...	...	...	...
Etoŕi :	...	...	datoŕ	...	...	...
Egon (B) :	...	...	...	gagoz	...	...
Egon (G) :	...	...	...	...	zaudete	...
Ibiĩi :	...	...	...	...	...	dabiltz

(1) Ikusi: 53'gn. ikaskaya.

3. Emen agertzen diran aditzerak onela aldatu: Oraingo egokerakoen ordez, gerokoak jartzen eta alderantziz; bai ta oiturazko oraingo egokerakoen ordez, igarotako aldikoak ipintzen eta alderantziz ere:

Gaste auek gurdi ontan ongi *dabiltz*; ... - Biar *ezkera egongo* etxean goize guzian; Gaur ... - Emendik alboko kalera *zoazte*; ... - Aste ontan *enaiz sartuko* Gasteiz'ko pelota-tokietan; ... --

Zuek *etzerate etortzen* oneraño; ... - Ayek bideko ituŕi ayetaruntz *joan dira*; ... - Goizeko izaŕa argi ta disdiratsua *izaten da*; ... - Nundik *etoŕi dira* seinzai oyek?; ...

4. Ezagunak diran itzak erabiltzen, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman:

Osaba ta ni mendiruntz goaz: Nortzuk doaz mendiruntz?; ... - Noruntz goaz osaba ta ni?; ... -- Berak eztira joan ibayetaruntz: Nortzuk eztira joan ibayetaruntz?; ... - Noruntz eztira joan berak?; ... --Oĩo guziak, goizean eta aŕatsaldean, basetxeetako soloetan dabiltz: Zeintzuk dabiltz, goizean eta aŕatsaldean, basetxeetako soloetan?; ... - Nun dabiltz oĩo guziak goizean eta aŕatsaldean?; ... - Noiz dabiltz oĩo guziak basetxeetako soloetan?; ... -- Enoa ituŕiruntz, zugazti artaruntz baño: Nor eztoa ituŕiruntz, zugazti artaruntz baño?; ... - Noruntz enoa ni?; ... - Ituŕiruntz al noa ni?; Ez, ..., baño. -- Aita ezta etoŕiko gaur gaberarte: Nor ezta etoŕiko gaur gaberarte?; ... - Noiz ezta etoŕiko aita gaberarte?; ... - Noiz arte ezta etoŕiko aita gaur?; ... -- Eŕitik goiko biderańo joaten gera: Nortzuk joaten dira eŕitik goiko biderańo?; ... - Nundik joaten gera goiko biderańo?; ... - Noraño joaten gera eŕitik?; ... - Adiskide ori joaten al da eŕitik goiko biderańo?; Ez, ... , baño. -- Neskatiĩak eztira irtengo ikastetxetik biar arte: Nor ezta irtengo ikastetxetik biar arte?; ... - Noiz arte eztira irtengo neskatiĩak ikastetxetik?; ... - Nundik eztira irtengo neskatiĩak biar arte?; ... -- Aŕantzale auek egun guztietan itxasora irteten dira ta ugarte artaraño doaz: Nortzuk irteten dira itxasora egun guztietan?; ... - Noiz irteten dira aŕantzale auek itxasora?; ... - Nora irteten dira aŕantzale auek egun guztietan?; ... - Noraño doaz aŕantzale auek egun guztietan?; ... - Zu al zoaz egun guztietan ugarte artaraño?; Ez, ..., baño. -- Berak gaur aŕatsaldean oneraño elduko dira: Nortzuk elduko dira gaur aŕatsaldean oneraño?; ... - Noiz elduko dira berak oneraño?; ... - Noraño elduko dira berak gaur aŕatsaldean?; ... - Gaur gabean elduko al dira berak oneraño? Ez, ..., baño. -- Irurak arte ezkera joaten ikasgura: Nortzuk eztira joaten irurak arte ikasgura?; ... - Noiz arte ezkera joaten ikasgura?; ... - Nora ezkera joaten irurak arte?; ... -- Gizon on ayek aste guztietan oneraño datoz: Nortzuk datoz oneraño aste guztietan?; ... - Noraño datoz aste guztietan gizon on ayek?; ... - Zuek al zatoze aste guztietan oneraño?; Ez, ..., baño. -- Etxeko aŕeba biak goize ontan sagasti ayetaruntz doaz: Nortzuk doaz goize ontan sagasti ayetaruntz?; ... - Noiz doaz etxeko aŕeba biak sagasti ayetaruntz?; ... - Etxeko aŕeba biak goize ontan eŕiruntz al doaz?; Ez, ..., baño. - Ni al noa goize ontan sagasti ayetaruntz?; Ez, ..., baño. - Nungo aŕeba biak doaz goize ontan sagasti ayetaruntz?; ...

AMARGAŕEN IKASKAYA

IZEN-JOKOA

«-EN» atzizkia.

Atzizki au jabetasunaren asmoa adierazteko darabilgu.

Azkue'k (D.) diñoenez, jabetasunaren atzizkia -N bakaŕik bide da, E ori laguntzeko gediña dala soiĭik.

Atzizki au, batez ere, zentzundunak diran izakien asmoak adierazten dituzten itzekin erabiltzen da.

Bakaŕ'ean, izen aŕunta ta izenondoai eransten zayenean, oyek *-A* mugitza artzen dute, bai ta, onen ondoren, alkartzeko *R* izkia ere. Askaŕ'ean zuzen eransten da, bitartekorik gabe; ta batzuetan *-EN* atzizkiak mugagabeko zentzuna ere izaten du. Onela :

Bakaŕ	Askaŕ	
-A-R-EN	-EN	Esateko baterako :
Gizon-aren	Gizon-en	

Gizon*aren* etxe edeŕa - Gizon*en* esku zabalak

Galdetzekoekin, ageŕerazle ta norekiko izenordeekin, onela jokatzen du atzizki onek :

Bakaŕ			Askaŕ		
Nor?	:	Noren?	Nortzuek?	:	Nortzuen?
Zein?	:	Zeñen?	Zeintzuek?	:	Zeitzuen?
Au	:	Onen	Auek	:	Auen
Ori	:	Oŕen	Oyek	:	Oyen
Ura, a	:	Aren	Ayek	:	Ayen
Ni	:	Nire, Nere, Ene	Gu	:	Gure
Zu	:	Zure	Zuek	:	Zuen
Bera	:	Beraren, Bere	Berak	:	Beren

Esaldietan, atzizki oni, -KO (7'gn. ikaskaya) besteari bezela, izen edo izenorde bat jaŕaitu beaŕ zayo. Ta oŕ ikus diteke, ongi, euzkeraren joskera, bereziki, nola ari dan, jaŕaitze ortan baitago bere jatortasunaren azpegi nabarigaŕi bat.

Jokera ori adierazteko, ba-dugu beste bide bat, atzizkirik erabiĭi

gabe; auxe da naikoa : bi itzen artean «-» maŕatxoa jaŕi, ta, gaŕantziari buruz, bi itz oyen nagusiena atzean ipintzen. Esate baterako :

Euzkal-Eŕi	=	Euzkaldun*aren* Eŕi
Sagaŕ-dantza	=	Sagaŕ*aren* dantza
Itzal-abaroa	=	Itzal*eko* abaroa
Lore-sorta	=	Lore*en* sorta
Mendi-negaŕa	=	Mendi*ko* negaŕa
Ogi-puska	=	Ogi*aren* puska.

Alaz ere, bikote oyetan zentzuna ezta berbera. «Euzkal-Eŕi»'ren zentzuna «Eŕi euzkaldun»'arena bezelakoa da; «Sagaŕ-dantza»'rena, sagaŕaz egiten dan dantza; «Itzal-abaroa», itzalean aurkitzen dan abaroa; «Lore-sorta», lorez egindako sorta; «Mendi-negaŕa», mendian entzuten dan negaŕa; ««Ogi-puska», ogiari kentzen zayon puska; eta abaŕ (1).

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, beaŕezko erak esan eta idatzi beaŕ dira :

Galdetzeko		-KO	-EN
Nun?	:	...	
Noiz?	:	...	
Nor?	:		...
Nortzuek	:		...
Zein?	:		...
Zeintzuek?	:		...
Ageŕerazle			
Au	:	...	onen
Ori	:	ortako	...
Ura, a	:	...	aren
Auek	:	auetako	...
Oyek	:	...	oyen
Ayek	:	ayetako	...

(1) Ikusi: 99'gn. ikaskaya.

Izenorde	-KO	-EN
Ni		Nire
Zu		...
Bera		...
Gu		...
Zuek		...
Berak		...

2. Bigaŕen lauki ontan, JOAN aditzaren erak, kulatzen ordez jaŕi; IGAROALDI, ORAIÑALDI eta GEROALDI asmoai buruz :

JOAN:	IGAROALDI	ORAIÑALDI	GEROALDI
Ni	...	noa	...
Zu	joan zera	...	...
Bera	...	...	joango da
Gu	...	goaz	...
Zuek	joan zerate	...	...
Berak	...	...	joango dira

3. Esaldi auetan jabetasunaren atzizkiak aldatu, bakaŕ'ean dagozenak askaŕ'ean jartzeko ta alderantziz; bai ta, oŕengatik beaŕak izango diran esaldien beste itzak aldatzen ere; esanez eta idatziz.

Amoñ*aren* gona oso zabala da; ... - Mendiko artzay*en* ardiak laŕe*tan* dabiltz; ... - Eŕi on*tako* sendagīle oŕ*en* semea eri dago; ... - Irakasle ay*en* idaztiak oso politak dira; ... - Nir*e* lengusua gaur gabean elduko da; ... - Zu*en* osabaen ortu*an* zugatz edeŕak dagoz; ... - Ber*aren* neba ona gu*re* gurasoe*n* etxera joango da; ... - Jakintsu ar*en* itzak auzoko gizone*n* alde izan dira; ...

4. Egokiak izango diran itzak erabiltzen, emen agertzen diran galderai erantzun bana eman :

Aitaren ortua aundia da : Noren ortua da aundia? ; ... - Nolakoa da aitaren ortua? ; ... -- Izebaren katuak txikiak dira : Zeintzuek dira txikiak? ; ... - Noren katuak dira txikiak? ; ... - Izebaren katuak aundiak al dira? ; Ez, ..., baño. -- Mendiko ola oso uŕun dago : Zer dago oso uŕun? ; ... - Nun dago mendiko ola? ; ... - Mendiko ola urbil al dago? ; Ez, ..., baño. -- Anayen soloa eztago eŕi ontan : Zer eztago eŕi ontan? ; ... - Nortzuen soloa eztago eŕi ontan? ; ... - Zure soloa eŕi ontan al dago? ; Bai, ... -- Ori irakaslearen idaztia da : Zer da ori? ; ... - Zein da irakaslearen idaztia? ; ... - Ori nire idaztia al da? ; Ez, ..., baño. -- Nire neba ezta itzuliko etzi arte : Nor ez da itzuliko etzi arte? ; ... - Noiz

arte ezta itzuliko nire neba? ; ... - Zuek ez al zerate itzuliko etzi arte? ; Ez, gu biar ... -- Basetxe zuri ura nekazari zaŕ oŕena da : Norena da basetxe zuri ura? ; ... - Zein da nekazari zaŕ oŕen basetxea? ; ... - Basetxe zuri ura aitarena al da? ; Ez, ..., baño. -- Zu ere artzañen txabolaetaruntz joango zera : Noruntz joango zera zu ere? ; ... - Nor joango da artzañen txabolaetaruntz? ; ... - Ikasle oyek ere artzañen txabolaetaruntz joango al dira? ; Bai, ... - Orko emakume oŕen alaba ere artzañen txabolaetaruntz joango al da? ; Ez, ..., baño. -- Eŕi ayetako gizonen alabak oso onak dira : Nortzuk dira oso onak? ; ... - Nungo gizonen alabak dira oso onak? ; ... - Nortzuen alabak dira oso onak? ; ... - Eŕi auetako gizon oyen alabak ere oso onak al dira? ; Ez, ..., baño. -- Len ikastetxe ortako ikasleak oneraño eldu dira : Nortzuk eldu dira len oneraño? ; ... - Noiz eldu dira oneraño ikastetxe ortako ikasleak? ; ... - Nungo ikasleak eldu dira len oneraño? ; ... - Noraño eldu dira len ikastetxe ortako ikasleak? ; ... -- Nire adiskidearen aizpak gaur beren eŕitik etoŕi dira : Nortzuk etoŕi dira gaur beren eŕitik? ; ... - Noren aizpak etoŕi dira gaur beren eŕitik? ; ... - Noiz etoŕi dira nire adiskidearen aizpak beren eŕitik? ; ... - Nundik etoŕi dira gaur nire adiskidearen aizpak? ; ... -- Asko ibīli gera ta mendi ayetako pago aundi ayetaraño eldu gera : Nortzuk eldu dira mendi ayetako pago aundi ayetaraño? ; ... - Zu asko ibīli al zera? ; Ez, ... , baño. - Nungo pago aundi ayetaraño eldu gera? ; ... - Noraño eldu gera asko ibīli ondoren? ; ... -- Eskale oŕen zakuŕ ori goiko basetxekoa da : Zein da goiko basetxeko zakuŕa? ; ... - Noren zakuŕa da goiko basetxekoa? ; ... - Nungoa da eskale oŕen zakuŕ ori? ...

AMAIKAGAŕEN IKASKAYA

IZEN-JOKOA

«-KIN» atzizkia.

Atzizki au ere zentzundunak diran izakien asmoak adierazteko itzekin erabiltzen da.

Naiz atzizki au naiz geroxeago ikusiko ditugun izaki zentzundunai dagozkien besteak, geyenetan, izen aŕunta, izenondo ta izenordeai eransten zaizkie, jabetasunaren asmoa adierazten duen -EN beste atzizkiaren bitartez, auŕeko ikaskayan aurkeztu ta ikasita izan danez. Alkartasun ori egiten danean, jabetasunezko atzizkiaren -N izkia galtzen da. Onela :

	Bakaŕ	Askaŕ
Esate baterako :	-A-RE-KIN Gizon-*arekin*	-E-KIN Gizon-*ekin*

Galdetzekoekin, ageŕerazle ta norekiko izenordeekin, atzizki onek onela jokatzen du :

	Bakaŕ		Askaŕ
Nor?	: Norekin?	Nortzuek?	: Nortzuekin?
Zein?	: Zeñekin?	Zeintzuek?	: Zeintzuekin?
Au	: Onekin	Auek	: Auekin
Ori	: Oŕekin	Oyek	: Oyekin
Ura, a	: Arekin	Ayek	: Ayekin
Ni	: Nirekin	Gu	: Gurekin
Zu	: Zurekin	Zuek	: Zuekin
Bera	: Berarekin	Berak	: Berekin

Bat baño besterik eztan izakiaren asmoa adierazteko, BAKAŔIK itza darabilgu.

BAKAŔIK itza berak, beste asmo au ere adierazten du : BAKARKI'rena, BATASUNEZKO'rena. Esate baterako :

Aita, *bakaŕik* etoŕi da. - Emen etxe bat *bakaŕik* dago.

BAKARKI-zentzuna, batzuei dagokienean, SOIĿIK beste itz oneu bidez adierazten da. Esate baterako :

Gure adiskideak, SOIĿIK joango dira (1).

Alaz ere, eguneroko erabiltzean, BAKAŔIK itza erabiltzen da, naiz bakaŕ naiz askaŕ izan zentzuna.

Jaŕi ditugun lenengo ta irugaŕen adibideetan, aŕasta kentzen badugu, ta onela ipiñi ezkero :

Aita *bakaŕik* etoŕi da - ta : Gure adiskideak *soilik* joango dira, zentzuna onela aldatuta geratzen da : lenengoa, *nor* etoŕi dan adierazten da, ez *nola*, aŕasta jaŕi ezkero esaten danez; eta bigaŕenean berdin : aŕastik gabe, *nortzuk* joango diran adierazten da, ta aŕastaz, *nola*.

Etxaide'taŕ Yon jaunak uste duenez, SOIĿIK itzak, *nola*-zentzuna adierazteko, aditzaren ondotik joan beaŕ du. Beraz, lengo adibidea, era ontaz idatzita joango litzake obeto :

Gure adiskideak *joango dira soiĿik*.

Alakotz, esaldietan, beaŕ ori sortzen danean, eŕaz bereiztu ditzakegu bertan ager ditezken *nor* eta *nola* zentzunak.

Len ikusi dugunez, ZEIN izenordearekin -KIN atzizkia baldin badoa, *Zeñekin?* diñogu, baña *zein* oŕen atzetik izen bat agertzen bada, izen ori da *-kin* atzizkia artzen duena. Esate baterako :

Zein adiskide*arekin* ibiĿi zera?

EGINKIZUNAK

1. Emen jartzen dugun laukian, agertzen diran kulatzen ordez, beaŕezkoak izango diran erak esan eta idatzi beaŕ dira :

Galdetzeko	-KO	-EN	-KIN
Nun? :	...		
Noiz? :	...		
Nor? :		noren?	...
Nortzuek? :		...	nortzuekin?
Zein? :		...	zeñekin?
Zeintzuek? :		zeintzuen?	...
Ageŕerazle			
Au :	...	...	onekin
Ori :	...	oŕen	...
Ura, a :	artako	...	...
Auek :	...	...	auekin
Oyek :	...	oyen	...
Ayek :	ayetako	...	...

(1) Ikusi: Azkue, M. 240.

Izenorde	-KO	-EN	-KIN
Ni		nire	...
Zu		...	zurekin
Bera		beraren	...
Gu		...	gurekin
Zuek		zuen	...
Berak		...	berekin

2. Beste lauki ontan, EGON aditzaren erak, kulatzen ordez jaŕi; ORAIÑALDIKO EGOKERA, OITURAZKO ORAIÑALDIKO EGOKERA ta GEROALDIKO EGOKERA asmoi buruz :

EGON	ORAIÑALDIKO EGOKERA	OITURAZKO ORAIÑALDIKO EGOKERA	GEROALDIKO EGOKERA
Ni	nago	...	...
Zu	...	egoten zera	...
Bera	...	...	egongo da
Gu	gagoz	...	...
Zuek	...	egoten zerate	...
Berak	...	...	egongo dira

3. Uŕengo esaldietan, bakaŕ zentzunaz agertzen diran atzizkiak, askaŕ zentzunezkoetaz aldatu, eta alderantziz; bai ta, ori egiteagatik aldatu beaŕ diran beste itzak egokiro ipiñi ere; esanez eta idatziz.

Gu*re* adiskidea irakasle*arekin* mendiruntz joan da; ... - Etxe on*tako* zakuŕa, emakume on*en* auŕare*kin* dabil; ... - Artzañ*en* semeak ez dira etortzen egun oy*etan* beren aita*ekin*; ... - Nekazari ar*en* zaldi zuria eŕi ar*tako* mendi*etatik* eltzen da *bakaŕik*; ... - Nortzu*ekin* egoten zerate kale luze oy*etan*? ... - Nortzu*en* idaztiak dagoz beti mutil oŕ*en* mai or*tan*?; ... - Emakume on*en* auŕak etxe oy*etatik* irten dira *soiĺik*; ... - Gu*re* ardi ura goiko laŕe ay*etan* artzanor*arekin* ibiltzen da; ... -.

4. Beaŕezkoak izango diran itzak jartzean, uŕengo galderai eraatzun egoki bana eman :

Nor joango da pizkanaka-pizkanaka gure anayen artegiraño?; ... -- Noiz arte ezta etoŕiko langiĺearen alaba?; ... -- Zu nire aitarekin al zoaz?; ... -- Gure ama zuekin al datoŕ?; ... -- Gasteiz'ko neskatiĺak gurekin igoko dira : Nortzuk igoko dira gurekin?; ... - Norekin igoko dira Gasteiz'ko neskatiĺak?; ... - Gasteiz'ko neskatiĺak beren aiztaekin igoko al dira?; Ez, ..., baño. -- Yon'en adiskideak antzokitik zuekin irtengo dira : Nortzuk irtengo dira antzokitik zuekin?; ... - Nortzuekin irtengo dira antzokitik Yon'en adiskideak?; ... - Nundik irtengo dira zuekin Yon'en adiskideak?; ... -- Gure Eŕi'aren etsayak eztira sartuko basetxe artan : Nortzuk eztira sartuko basetxe artan?; ... - Nun eztira sartuko gure Eŕi'aren etsayak?; ... - Noren etsayak eztira sartuko basetxe artan?; ... -- Ezkera jetxiko gizon oyekin kale ortaraño : Nor ezta jetxiko gizon oyekin kale ortaraño?; ... - Nortzuekin ezkera jetxiko kale ortaraño?; ... - Noraño ezkera jetxiko gizon oyekin?; ... - Gizon oyek zuekin jetxiko al dira kale ortaraño?; Ez, ..., baño. -- Emengo aizea oso zakaŕa da : Zein da oso zakaŕa?; ... - Nolakoa da emengo aizea?; ... - Nungo aizea da oso zakaŕa?; ... -- Nire lagunaren aŕebaekin mendi artaraño eldu naiz : Nor eldu da mendi artaraño bere lagunaren aŕebaekin?; ... - Noren aŕebaekin eldu naiz mendi artaraño?; ... - Noraño eldu naiz nire lagunaren aŕebaekin?; ... - Zuek eldu al zerate mendi artaraño aretoetan dabiltz soiĺik : Nortzuk dabiltz soiĺik etxeko aretoetan?; ... - Nun dabiltz soiĺik gazte ayek?; ... - Zurekin al dabiltz gazte ayek etxeko aretoetan?; Ez, ..., baño. -- Zuen lengusiñak eztira joango biar amoñaren etxe ortara : Nortzuk eztira joango biar amoñaren etxe ortara?; ... - Nora eztira joango biar zuen lengusiñak?; ... - Noiz eztira joango zuen lengusiñak amoñaren etxe ortara?; ... -- Andere aren gutunak gelako mai gañean dagoz : Zer dago gelako mai gañean?; ... - Nun dagoz andere aren gutunak?; ... - Noren gutunak dagoz gelako mai gañean?; ... - Zure gutunak ere al dagoz gelako mai gañean?; Ez, ..., baño. -- Atso on oyek Koldobika'ren alabaekin egunero datoz oneraño : Nortzuk datoz egunero oneraño Koldobika'ren alabaekin?; ... - Norekin datoz atso on oyek egunero oneraño?; Noiz datoz oneraño atso on oyek Koldobika'ren alabaekin?; - Noraño datoz egunero atso on oyek Koldobika'ren alabaekin?; ... - Gu al gatoz egunero oneraño Koldobika'ren alabaekin?; Ez, ..., baño.

AMABIGAŕEN IKASKAYA

IZEN-JOKOA

«-GAZ» atzizkia

Bizkaya'n *-gaz* atzizki au, beste izkelgien *-kin*'en zentzuna bera adierazteko erabiltzen da; eta izaki zentzundunen asmoetarako darabilzkigun itzekin, noski.

Atzizki au, izen aŕunta ta nolazko izenondoai, bakaŕ edo askaŕ izan diteken mugitzaren bitartez eransten zaye; baña mugitza askaŕ baldin bada, atzizkiaren -G- izkia mugitzaren -K ondoren kentzen da. Onela:

	Bakaŕ	Askaŕ
	-A-GAZ	-AK-AZ
Esate baterako:	Gizon-*agaz*	Gizon-*akaz*

-GAZ atzizki au, galdetzeko, ageŕerazle ta norekiko izenordeai gañeratu ezkero, onela egiten da:

	Bakaŕ		Askaŕ
Nor?	Nogaz?	Nortzuk?	Nortzukaz?
Zein?	Zeñegaz?	Zeintzuk?	Zeintzukaz?
Au	Onegaz	Auek	Onekaz
Ori	Oŕegaz	Oyek	Oŕekaz
Ura, a	Aregaz	Ayek	Arekaz
Ni	Nigaz	Gu	Gugaz
Zu	Zugaz	Zuek	Zuekaz
Bera	Beragaz	Eurak	Eurakaz

Bizkaya'ko aŕi askotan, *-gaz* eta *-kin* atzizki biak erabiltzen dira saŕi; baña lenengoa bakaŕ-zentzunaz eta bigaŕena askaŕ-zentzunaz. Esate bateraño:

One*gaz* (bakaŕ)	One*kin* (askaŕ)
Are*gaz* (bakaŕ)	Are*kin* (askaŕ)

ALKAŔ (ELKAŔ) itza.

ALKAŔ itz au, bat eta beste batekin, edo batzuk eta beste batzuekin, berdin eta batera dagokielarik, izan diteken asmoa bera adierazteko erabiltzen da. Onela: *Alkaŕekin* goaz (zu nirekin eta batera ni zurekin). Ikusten danez, oŕ, itzegiten ari diranak ez, baña *alkaŕ* beste bat izango bailitzan agertzen da; ta esandako adibidea berdin esan liteke lenengo itza aldatzean; esate baterako: *Gurasoekin* goaz; beraz, *alkaŕ, guraso*'ren antzera darabilgu.

Agertzen danez, *alkaŕ*, izen eta izenondoak bezela, atzizkiak artzeko gai da (1).

Laguntasunezko asmoa *alkaŕ* itzaren bidez nabaritzen dugu. Baña batzuetan beste bide bat ere ba-dugu asmo ori bera adierazteko. Esate baterako:

Ni *aitarekin* joan naiz, esan ordez, joan diranak *aita* ta *ni* izan gerala nabaritu nai-izan ezkero, onela esan dezakegu: Aita ta *biok* joan *gera*; *bi* zenbaki-itzari, *-ak* mugitzaren ordez, *-ok* gañeratzen diogu (2).

-OK atzizki au, esaldiaren zentzunean, itzegiten duen notiña (1.ª), edo itzegiten zaiona (2.ª) adierazi nai dirala nabaritzeko erabiltzen da. Beraz, lengo esaldian aditzera onela aldatu ezkero: Atia ta *biok* joan *zerate* esanez, *aita* ta *zu* joan zeratela esan nai dugu. Lenengo esaldian, *ni* lenengo notiña dago sartuta; bigaŕenean, *zu* notiña da sartzen dana.

Beste zenbaki-itz bateaz ere berdin esan dezakegu: Aita, ama ta *irurok* joan gera, ots: *aita, ama* ta *ni*.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, egokiak izango diran erak esan eta idatzi egin beaŕ:

Galdetzeko	-EN	-KIN	-GAZ
Nor?	noren?	...	...
Nortzuek?	...	nortzuekin?	...
Zein?	...	...	zeñegaz?
Zeintzuek?	zeintzuen?	...	...

(1) Ikusi: 17'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 5'kn., 67'gn. eta 84'gn. ikaskayak.

Ageŕerazle		-EN	-KIN	-GAZ
Au	:	onen	oŕekin	...
Ori	:	...	...	...
Ura, a	:	...	...	aregaz
Auek	:	auen	...	...
Oyek	:	...	oyekin	...
Ayek	:	...	...	arekaz
Izenorde				
Ni	:	...	nirekin	...
Zu	:	...	...	zugaz
Bera	:	beraren	...	...
Gu	:	...	gurekin	...
Zuek	:	zuen	...	...
Eurak (Berak)	:	...	...	eurakaz

2. Bigaŕen lauki ontan, IBĪLI aditzaren erak, ezetzean eta aldiai dagozkien bezela ipiñi:

IBĪLI		Oraiñaldi	Igaroaldi	Geroaldi
Ni	:	enabil	...	...
Zu	:	...	ez zera ibīli	...
Bera	:	...	...	ezta ibīliko
Gu	:	ezkabiltz	...	...
Zuek	:	...	etzerate ibīli	...
Berak	:	...	...	ez dira ibīliko

3. Emen agertzen diran esaldietan, notiñen asmoak onela aldatu: lenengoen ordez, bigaŕenak ipintzen; bigaŕenen ordez, irugaŕenak; eta irugaŕenen ordez, lenengoak:

Mezatara *nire* aitarekin joan al zera?; ... - *Gure* auŕekin *zure* aitonaren etxean egoten gera; ... - Gaizto *oyek* eztira igoko *zuekin* mendi ayetaraño; ... - *Ni* enoa *berarekin* araño bakaŕik; ... - Aŕantzale zaŕ *auek* gizon begiko *oŕen* ardantegian egoten dira; ... - *Beren* adiskideekin *zure* ortuetan egon gera gaur goizean; ... - Oso pozik *gatoz zuen* eŕiko irakaslearekin; ... - Alargun *ayen* alabak eztira joaten soiĪik *zuen* artegiraño; ... --

4. Bidezkoak izango diran itzak erabiltzen, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman; itzez eta idatziz:

Zuek jetxiko al zerate zuen etxe oyetatik?; ... -- Enparantzako mutiĪak eztira etortzen toki ortatik: Nortzuk eztira etortzen toki ortatik?: ... - Nundik eztira etortzen enparantzako mutiĪak?; ... - Nungo mutiĪak eztira etortzen toki ortatik?; ... -- Emengo neskatiĪak eztira ibiltzen soiĪik bide luze ta itun oyetan: Nortzuk eztira ibiltzen soiĪik bide luze ta itun oyetan?; ... - Nun eztira ibiltzen soiĪik emengo neskatiĪak?; ... - Zuek ibiltzen al zerate alkaŕekin bide luze ta itun oyetan?; Ez, .., baño. -- Apaiz auek beti oso maitagaŕiak dira: Nortzuk dira beti oso maitagaŕiak?; ... - Noiz dira oso maitagaŕiak apaiz auek?; ... - Nola dira beti apaiz auek?; ... - Muziñak al dira apaiz auek beti?; Ez, ..., baño. -- Goizean Aintzane ta bere adiskidea Iruña'tik eldu dira ta aŕatsaldean zuekin ibiĪi dira: Nortzuk eldu dira goizean Iruña'tik?; ... - Nundik eldu dira goizean Aintzane ta bere adiskidea?; ... - Noiz eldu dira Iruña'tik Aintzane ta bere adiskidea?; ... - Norekin ibiĪi zerate aŕatsaldean?; ... - Nirekin ibiĪi al dira aŕatsaldean Aintzane ta bere adiskidea?; Ez, ..., baño. -- Leyo oyetako leyaŕak eztagoz oso garbi: Zertzuk eztagoz oso garbi?; ... - Nola eztagoz leyo oyetako leyaŕak?; ... - Leyo oyetako leyaŕak zikin al dagoz?; Bai, ..., -- Noizkoak dira sagaŕ txiki ta ustel oyek?: Ereneguneko ak ... - Atzokoak al dira sagaŕ txiki ta ustel oyek?; Ez, ..., baño. - Nolakoak dira ereneguneko sagaŕ oyek?; ... - Nola dagoz ereneguneko sagaŕ txiki oyek?; ... - Gaurko sagaŕak al dagoz ustel?; Ez, ..., baño. -- Aran auetako baseŕitaŕak urtero Urkiola'ra joaten dira egun ontan: Nortzuk joaten dira urtero Urkiola'ra egun ontan?; ... - Noiz joaten dira Urkiola'ra aran auetako baseŕitaŕak egun ontan?; ... - Nora joaten dira urtero aran auetako baseŕitaŕak egun ontan?; ... - Noiz joaten dira urtero aran auetako baseŕitaŕak Urkiola'ra?; ... -- Nola etzerate etoŕi gaur goizean?; gexorik egon eta ez ... - Nor ezta etoŕi gaur goizean gexorik egon eta?; ... - Nun egon zerate geixorik gaur goizean?; Etxean ... - Ni ere gexorik egon al naiz etxean gaur goizean?; Ez, ..., baño. -- Aurten etzerate joango nirekin Donostia'ra: Nortzuk eztira joango aurten nirekin Donostia'ra?; ... - Noiz etzerate joango nirekin Donostia'ra?; ... - Norekin etzerate joango aurten Donostia'ra?; ... - Nora enaiz joango zuekin aurten?; ... -- Gizon oyek basoetan dabiltz soiĪik: Nortzuk dabiltz soiĪik basoetan?; ... - Nola dabiltz gizon oyek basoetan?; ... - Nun dabiltz soiĪik gizon oyek?; ... - Zu bakaŕik al zabiltz basoetan?; Ez, ..., baño. -- Ezkera atzokoak: Nortzuk eztira atzokoak?; ... - Noizkoak etzerate?; ... - Ereneguneko ak zerate?; Ez, ..., gaurkoak baño. - Emakume oyek al dira gaurkoak?: Ez, ..., baño. -- Atzotik gagoz emen eta ondo: Nortzuk dagoz atzotik emen eta ondo?; ... - Noiztik zagoze emen eta ondo?; ... - Nun zagoze atzotik ondo?; ... - Nola zagoze emen atzotik?; ... - Gaizki al zagoze emen atzotik?; Ez, ..., baño.

AMAIRUGAŕEN IKASKAYA

ZENBAKITZAK

Euzkeraz zenbaketaren arauketa ogeiñakoa da.

AINBATEKOAK: Ainbateko zenbakiak auetxek dira: bat, bi, iru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, beratzi (bederatzi), amaŕ, amaika, amabi, amairu, amalau, amabost, amasei, amazazpi, amazortzi, emeretzi, OGEI; ogetabat, ogetabi, ..., ogetamaŕ, ogetamaika, ogetamabi, ..., BEŔOGEI: beŕogetabat, beŕogetabi, ..., IRUROGEI; ..., LAROGEI; ... ,EUN; eun eta bat, eun eta bi, ..., BEŔEUN; ..., IRUREUN; ..., LAREUN; ..., BOSTEUN; ..., SEIREUN; ..., ZAZPIREUN; ..., ZORTZIREUN; ..., BERATZIREUN (BEDERATZIREUN); ..., MIĻA (ANEI); ..., MIĻOE (UNEI).

ANEI ta UNEI itz beŕiak dira; geyen erabiltzen diranak, MIĻA ta MIĻOE.

Ainbateko oyetatik: *bat* beti izenaren atzetik jartzen da (esate baterako: *sagaŕ bat*); *bi*, izenaren auŕetik edo atzetik erabiltzen da (e. b.: *bi sagaŕ* edo *sagaŕ bi*); beste guztiak izenaren auŕean doaz (e. b.: *zortzi gizon, amabi madari, irurogei zaldi*) (1).

BAT'etik askaŕa dan au egiten da: BATZUEK edo BATZUK.

Beste zenbakitzak ere -AK mugitz askaŕa artzen dute, ta geyenak *R* izki geikia erdian sarturik: BI*AK*, IRU*RAK*, LAU*RAK*, BOST*AK*, eta abaŕ (2).

Zenbaki bat irakurtzeko, miĻako taldeetan banatzen ditugu, eta, len ikusi danez, ETA lokaŕitza eunkunen atzetik jartzean.

Zenbaki batean ez amarkun ez bakunak ezpadagoz, TA lokaŕitza miĻakunen atzetik ipintzen da, ta eunkunak agertzen ezpadira, amarkunak edo bakunak agiri ezkero.

Esate baterako, 247.695 zenbakia, onela irakuŕiko dugu:

(1) Ikusi: 92'gn. ikask.
(2) Ikusi: 2 ta 108'gn. ikask.

Beŕeun *eta* beŕogetazazpi miĻa, seireun *eta* larogetamabost.
3.600 zenbakia, onela: Iru miĻa *ta* seireun.

AINBAT-GAŔENEKOAK: Auek ainbatekoak dituzte oñaŕi, oyetatik irtetzean eta -GAŔEN atzizkia gañeratzen; onela:

Bigaŕen, irugaŕen, ...; amaikagaŕen, ...; emeretzigaŕen, ...

Bat izanezik; baterako, LENEN edo LENENGO; LENBIZI edo LENDABIZI, LENBIZIKO edo LENDABIZIKO esaten da. Azkena, ATZEN edo AZKEN.

Bat, bi zati berditan erdibitu ezkero, zati bakoitzari ERDI esaten zayo; iru zati berditan egiten bada, bakoitzari EREN; lau zati berditan, LAURDEN; bost berditan, BOSTEN; eta abaŕ. Geyen-geyenetan -EN atzizkiaren bitartez.

Noizko egunak edo *egitegunak* onela esaten dira, bai ta beste eratan ere: 1.981'ngo (gaŕengo) aziĻaren 23'n (gaŕenean).

ORDUAK: Ainbatekoen bidez esaten dira. Onela: irurak, bostak, zortzirak, ...; 1, 2 ta 5 izanezik, beste zenbakitz guzietarako, askaŕ-atzizkiaren auŕetik «r» izki geikia jartzean.

Orduak, *bat* edo *bi* baldin badira, bakoitzari ORDU itza auŕetik jaŕi beaŕ zayo; onela: *Ordu bata, ordu biak.*

Erdiak eta laurdenak adierazteko, onela:

Ordu bi t'erdiak (ordu bi ta erdiak), bost'erdiak, zazpi t'erdiak, ...

Lau ta laurdenak, bost eta laurdenak, ...

Seirak laurden gutxi (edo: gutxiago), ...

Ikusten danez, edozein ordu bere erdiarekin aipatzean, laburpen au egiten da: Ordu biak eta erdia = ordu bi t'erdiak; bostak eta erdia = bost'erdiak; zazpirak eta erdia = zazpi t'erdiak; ...

Izen-jokuan, orduak ainbatekoen bidez ere esaten dira: Iruretan, bostetatik, zortzirak arte, ...

Zenbaki baten zatia, beste zenbaki baten bidez adierazteko, onela egiten da: ogeitarik bi, ogeiko bi edo ogeikal bi; eunetarik iru, euneko iru edo eunkal iru (1).

(1) Ikusi: 103'gn. ikask.

Eginkizunak

1. Uŕengo laukian agertzen diran kulatzen ordez, beaŕezko erak esan eta idatzi :

Galdetzeko		-EN	-KIN	-GAZ
Nor?	:	...	norekin?	...
Zein?	:	Zeñen?	...	...
Nortzuek?	:	...	...	nortzukaz?
Zeintzuek?	:	...	zeintzuekin?	...
Ageŕerazle				
Au	:	...	...	onegaz
Ori	:	Oŕen	...	...
Ura, a	:	...	arekin	...
Auek	:	...	...	onekaz
Oyek	:	Oyen	...	...
Ayek	:	...	ayekin	...
Izenorde				
Ni	:	...	...	nigaz
Zu	:	Zure	...	...
Bera	:	...	berarekin	...
Gu	:	...	...	gugaz
Zuek	:	Zuen	...	...
Berak	:	...	berekin	...

2. Bigaŕen lauki ontan, IZAN aditzaren erak, galdetzean eta aldiai dagozkien bezela esan eta idatzi :

IZAN		Oraiñaldi	Igaroaldi	Geroaldi
Ni	:	Al naiz?	...	...
Zu	:	...	izan al zera?	...
Bera	:	...	...	izango al da?
Gu	:	...	izan al gera?	...
Zuek	:	Al zerate?	...	...
Berak	:	...	...	izango al dira?

3. Emen agertzen diran zenbakietan asi, ta uŕengoko beste bederatzi idatzi, izkietaz noski :

1 : ... ...
11 : ... ...
21 : ... ...
51 : ... ...
81 : ... ...

Lenengo = 1.° : ... ...

Beŕogeigaŕen = 40'gn. : ... ...
Larogetamaikagaŕen = 91'gn. : ... ...

4. Itz egokien bidez, uŕengo galderai erantzun bana eman; itzez eta idatziz :

Igande guztietan basetxetik elizara alkaŕekin jeisten gera : Nortzuk jeisten dira igande guztietan alkaŕekin basetxetik elizara? ; ... - Norekin jeisten zerate igande guztietan basetxetik elizara? ; ... - Noiz jeisten zerate alkaŕekin basetxetik elizara? ; ... - Nundik nora jeisten zerate alkaŕekin igande guztietan? ; ... -- Ez zera egongo nirekin egun alai ayetan : Norekin enaiz egongo egun alai ayetan? ; ... - Nor ezta egongo zurekin egun alai ayetan? ; ... - Noiz ez naiz egongo zurekin? ; ... - Aita egongo al da gurekin egun alai ayetan? ; Ez, ... -- Zenbatzuk zerate zuen etxean? ; ... - Zuen etxean amairu al zerate? ; ... - Noren etxean dira bederatzi? ; ... - Nire etxean amalau al gera? ; ... Ez, ... -- Gaur bat bakaŕik eldu da, baña biar ogetamalau elduko dira : Zenbat eldu dira gaur oneraño? ; ... - Zenbatzuk elduko dira biar oneraño? ; ... - Biar oneraño irurogetamabi elduko al dira? ; ... Ez, ... - Noraño elduko dira biar ogetamalau? ; ... -- Zenbat gudari irtengo dira gau ontan mugaruntz? ; ... - Gau ontan beŕeun gudari irtengo al dira mugaruntz? ; Ez, ..., 150 baño. - Biar 350 gudari irtengo al dira mugaruntz? ; Ez, ..., 560 baño. - Noruntz irtengo dira gau ontan 150 gudari? ; ... -- Noizko eguna da gaur? ; ... - Gaur 1980'ko garagaŕilaren 6'na al da? ; Ez, gaur ez ..., oŕilaren 22'na baño. --Gaur goizean, amaika t'erdietan irten gera etxetik : Nortzuk irten dira gaur goizean amaika t'erdietan etxetik? ; ... - Noiz irten zerate gaur goizean etxetik? ; ... - Noiz irten zerate amaika t'erdietan etxetik? ; ... - Nundik irten zerate gaur goizean, amaika t'erdietan? ; ... -- Zein ordu da orain? ; ... - Orain ordu bi t'erdiak al dira? ; Ez, ..., ordu biak laurden gutxiago baño. - Noiz dira ordu biak laurden gutxiago? ; ... -- Biar, ordu batean elduko gera gure adiskideekin : Nor elduko da biar, ordu batean bere adiskideekin? ; ... - Noiz elduko gera biar gure adiskideekin? ; ... - Norekin elduko gera biar ordu batean? ; ... - Biar bakaŕik elduko al gera ordu batean? ; Ez, ... baño. -- Lenengo bilbelean etxe ortako neskak al doaz? ; Bai, ... - Nortzuk doaz lenengo bilbelean? ; ... - Etxe ortako neskak irugaŕen bilbelean al doaz? ; Ez, ..., baño. - Ni al noa lenengo bilbelean? ; Ez, ..., baño. -- Baso aundi ayetako adaŕak oso luzeak dira ta beraño eltzen dira : Zertzuk dira oso luzeak? ; ... - Noraño eltzen dira baso aundi ayetako adaŕak? ; ... - Nolakoak dira baso aundi ayetako adaŕak? ; ... - Nungoak dira adaŕ oso luze ayek? ; ... --

Astelen arte eztira irtengo beren gurasoen etxe edeŕ eta zabal ortatik: Nortzuk eztira irtengo astelen arte beren gurasoen etxe edeŕ eta zabal ortatik?; ... - Noiz arte etzerate irtengo zuen gurasoen etxe edeŕ eta zabal ortatik?; ... - Nundik ez zerate irtengo astelen arte?; ... -- Andere on oyekin eta beren adiskideekin Ernio'ko tontoŕ goituetaraño elduko gera: Nor elduko da Ernio'ko tontoŕ goituetaraño andere on oyekin eta beren adiskideekin?; ... - Norekin elduko zerate Ernio'ko tontoŕ goituetaraño?; ... - Noraño elduko zerate andere on oyekin eta beren adiskideekin?; ... - Ni elduko al naiz andere on oyekin eta beren adiskideekin Ernio'ko tontoŕ goituetaraño?; Ez, ..., baño. -- Beti gatoz berandu ikasgutik eta etxera amaŕ t'erdietan eltzen gera: Nor datoŕ beti berandu ikasgutik?; ... - Nundik zatoze beti berandu?; ... - Noiz eltzen zerate beti etxera?; ... - Gu eltzen al gera beti berandu etxera?; Ez, .. baño. -- Laugaŕen ikaskai au oso gogoŕ eta zaĪa da: Zein da oso gogoŕ eta zala?; ... - Nolakoa da laugaŕen ikaskai au?; ... - Laugaŕen ikaskai au eŕeza al da?; Ez, ... baño. - Ikaskai guztiak al dira oso gogoŕ eta zaĪak?; Ez, ... baño. -- EŕI polit ontan oso ondo gagoz; ezkera irtengo bertatik irail arte: Nortzuk dagoz oso ondo eŕi polit ontan?; ... - Nun zagoze oso ondo?; ... - Nola zagoze eŕi polit ontan?; ... - Noiz arte ez zerate irtengo eŕi polit ontatik?; ... - Nundik ez zerate irtengo irail arte?; ... -- Ordu bi t'erdiak arte ezkera itzuliko mendi artako basetxetik: Nortzuk eztira itzuliko ordu bi t'erdiak arte mendi artako basetxetik?; ... - Noiz arte etzerate itzuliko mendi artako basetxetik?; ... - Nundik etzerate itzuliko aŕatsaldeko ordu bi t'erdiak arte?; ... -- Zein ordutan etoŕiko zerate etzi?; ... - Ni etoŕiko al naiz etzi bost eta laurdenetan?; Ez, ... - Noiz etoŕiko dira gure lagunak bost eta laurdenetan?; ... - Biar etoŕiko al zera zu bost eta laurdenetan?; Ez, ... baño. -- Gaur goizean gure iru adiskide alkaŕekin etoŕi dira: Nortzuk etoŕi dira alkaŕekin gaur goizean?; ... - Noiz etoŕi dira alkaŕekin gure iru adiskide?; ... - Norekin etoŕi dira gaur goizean gure iru adiskide?; ... -- Iru adiskideak gau ontan bide iĪun ayetaruntz irtengo dira: Noiz irtengo dira iru adiskideak bide iĪun ayetaruntz?; ... - Noruntz irtengo dira gau ontan iru adiskideak?; ... - Gu irtengo al gera gau ontan bide iĪun ayetaruntz?; Ez, ... baño. -- Nola eldu dira adiskide oyek?; Lenengoa ondo baña bigaŕen eta irugaŕena oso nekatuta: Lenengo adiskidea eldu al da oso nekatuta?; Ez, ... baño. - Irugaŕen adiskidea ondo eldu al da?; Ez, ... baño. - Nortzuk eldu dira oso nekatuta?; ...

AMALAUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

Iragankoŕa dan aditz-jokoa - IZAN aditz laguntzaĪea
Tinkiera - Oraiñaldia - Eraketaren lenengo bidea - Izakayezko adizkiñak --

Izakai bakaŕ - Irugaŕen notin		Izakai askaŕ - Irugaŕen notin
Nik	D-u-t	D-it-u-t
Zuk	D-u-zu	D-it-u-zu
Berak	D-u	D-it-u
Guk	D-u-gu	D-it-u-gu
Zuek	D-u-zu-te	D-it-u-zu-te
Berak	D-u-te	D-it-u-z--te

Erakusbide orokaŕa:

D- -IT- -U-

-T
-ZU

-GU
-ZU-TE
-Z- - - -TE

Ikus dezagun era auek osotzen dituzten atal (zati) guzien esan-naya:

Izakai bakaŕeko adizkiñetan: D- len-izkiak izakaya bera, erantzunekoa edo artez-betetzekoa adierazten du; erdiko -U-'ak aditzaren eŕoa, eta -T, -ZU, ... atzizkiek, egiĪea. Irugaŕen bakaŕ-notiñak eztu bera adierazteko atzizkirik.

Izakai askaŕeko adizkiñetan: Len esandako atalak agertzen dira ta gañera, D- izakayari askaŕ-zentzuna emateko, -IT- erdizkia: D-IT-; ta azken adizkiñean, -Z-, beste erdizkia, askaŕ-zentzuna ere emateko; beraz, irugaŕen askaŕ-notiñean, askaŕ zentzuna adierazteko bi erdizki dagoz: -Z- ta -IT-, zentzun ori bi bideŕ ematean.

Esan dugunez, aditzera auetan dagoen aditz-eŕoa -U- da; baña, egitan, eŕo au ezta IZAN aditzarena, UKAN iragankoŕ laguntzaĪea dan aditzarena baño; aditz au ezta erabiltzen ez bizkayeraz ez gipuzkeraz, bai

ordea laburdieraz, napaŕoeraz eta zuberoeraz; eta ayetan -U- tinkierazko jokabidean bakaŕik geratu da.

Bearbada, ona izango litzake UKAN itza, guzietara edatzea iragankoŕ-zentzunaz erabiltzeko; IZAN, iragankaitzena bakaŕik adierazteko uztean.

Emen ipiñi ditugun izakai bakaŕaren aditzerak ez dira, egiz, gipuzkerarenak, sortaldeko izkelgienak baizik. Gipuzkerarenak, egunero erabiltzen diranak, auetxek dira: DET, DEZU, DU, DEGU, DEZUTE, DUTE; eta bizkayerarenak beste auetxek: DOT, DOZU, DAU, DOGU, DOZUBE, DABE.

Ayek, araudunagoak diralako jaŕi ditugu, guzietan -U- aditzeŕoa bera agertzen baita; ta beste aldetik, talde oyen artean dagoen ezberdintasuna oso txikia dalako.

Azkue'k diñoenez (M. 688-9), Araba'ko Zigoitia aranean, guztiz araudunak diran aditzera oyek ere erabiltzen ziran, onela: DUT, DUZU, DU, DUGU, DUZUE, DUE.

Aditz eginkoŕ eta iragankoŕaren egiīe guzik -K atzizkia artzen du bereizgaŕi. Egiīea askaŕa danean, askartasuna adierazten duena ta egilearena bat biurtzen dira, ta adizkiñaren bidez ikusten da bakaŕ ala azkaŕarena ote dan. Napaŕoeraz, laburdieraz eta zuberoeraz, berezkuntza obeto oaŕerazteko, aditz iragankoŕaren askaŕ-egiīeak, -AK'en ordez, -EK atzizkia darama. Onela: Gizon*ak* etoŕi dira - Gizon*ek* egin dute.

Aditzetik at, bere izakai edo artez-betetzekoa adierazten duen itza, aditz iragankoŕaren bayezko esaldietan, tartekorik gabe, aditzaren auŕean ipintzen da beaŕez; beste zioren batengatik (e. b., galdekizun-arauarena - 4'gn. ikask.), toki ori beste itzen batek bete beaŕ ezpadu.

Alakotz, esaldi bakun iragankoŕaren zatien «eredu»'zko uŕenkera, auxe izan beaŕ: *Adi-yabea, artez-betetzekoa* (mugatzekoarekin) eta *aditza.*

Esate baterako: Nik aulkia dut.

Ezezko esaldietan artez-betetzekoa, aditzaren atzetik doa.

Esate baterako: Nik ez dut aulkia.

Eginkizunak

1. Lauki ontan dagozen kulatzen ordez, beaŕezkoak diran erak esan eta idatzi:

Galdetzeko		-TIK	-RA	-EN	-KIN
Nun?	:	...	...		
Noiz?	:	...	...		
Nor?	:			...	...
Nortzuk?	:			...	...
Ageŕerazle					
Au	:	Ontatik	...	...	...
Ori	:	...	ortara	...	...
Ura, a	:	...	...	aren	...
Auek	:	...	auetara	...	...
Oyek	:	Oyetatik	...	...	...
Ayek	:	...	...	...	ayekin

2. Beste lauki ontan, IZAN aditzaren erak, ezezko galdetzean eta aldiai dagozkienez esan eta idatzi:

IZAN		Oraiñaldi	Igaroaldi	Geroaldi
Ni	:	Ez al naiz?	...	...
Zu	:	...	ez al zera izan?	...
Bera	:	...	...	ez al da izango?
Gu	:	...	ez al gera izan?	...
Zuek	:	Ez al zerate?	...	...
Berak	:	...	...	ez al dira izango?

3. Uŕengo zenbakiak izkietaz idatzi, bakoitzerako, uŕenez-uŕen, beste bost gañeratzean:

103 : ... ...
246 : ... ...
351 : ... ...
468 : ... ...
792 : ... ...
1.524 : ... ...
3.605 : ... ...
8.073 : ... ...

4. Emen agertzen diran galderai erantzun egoki bana eman:

Zuk amalau maŕubi dituzu: Nork ditu amalau maŕubi?; ... - Zer duzu?; ... - Zenbat maŕubi duzu?; ... -- Baseŕitaŕ oŕen osabak zortzi bei ditu: Nork ditu zortzi bei?; ... - Zer du baseŕitaŕ oŕen osabak?; ... - Zenbat bei du baseŕitaŕ oŕen osabak?; ... - Noren osabak ditu zortzi

bei?; ... -- Eskuan bost beatz ditugu: Nork ditu bost beatz eskuan?; ... - Nun dituzute bost beatz?; ... - Zenbat beatz dituzu eskuan?; ... - Nik sei beatz al ditut eskuan?; Ez, ... baño. -- Zugatz azpian ilunabaŕ arte egongo gera: Nor egongo da zugatz azpian ilunabaŕ arte?; ... - Nun egongo zerate ilunabaŕ arte?; ... - Noiz arte egongo zerate zugatz azpian?; ... - Ni egongo al naiz zugatz azpian ilunabaŕ arte?; Ez, ... baño. -- Berak ez dituzte asmoak, baña indaŕa dute: Nortzuek ez dituzte asmoak?; ... - Nortzuek dute indaŕa?; ... - Zuk al dituzu asmoak?; Bai, ..., nik ... - Zuek al duzute indaŕa?; Ez, ... baño. -- Gu ez gera joango aruntz iganderarte: Nor ezta joango aruntz iganderarte?; ... - Noiz arte etzerate joango aruntz?; - Noruntz etzerate joango iganderarte?; ... -- Laŕe zabal eta luze ayetako bildotsak eztira jetxiko andik biar arte: Zeintzuk eztira jetxiko andik biar arte?; ... - Nundik eztira jetxiko laŕe zabal eta luze ayetako bildotsak biar arte?; ... - Noiz arte eztira jetxiko laŕe zabal eta luze ayetako bildotsak andik?; ... -- Nik orain sakelean amazortzi laurleko ditut: Nork ditu orain sakelean amazortzi laurleko?; ... - Nun ditut orain amazortzi laurleko?; ... - Noiz ditut sakelean amazortzi laurleko?; ... - Zuk al dituzu orain sakelean amazortzi laurleko?; Ez, ... baño. -- Eztira eldu orain arte etxeko jaunaren moŕoyak: Nortzuk eztira eldu orain arte?; ... - Noren moŕoyak eztira eldu orain arte?; ... - Noiz arte eztira eldu etxeko jaunaren moŕoyak?; ... -- Nire etxeko atezañaren semeak amabi urte ditu: Nork ditu amabi urte?; ... - Nungo atezañaren semeak ditu amabi urte?; ... - Noren semeak ditu amabi urte?; ... - Zuk al dituzu amabi urte?; Ez, ... baño. -- Ardoa al duzute upel oyetan?; Ez, eztugu ardoa, sagardoa baño: - Nork eztu ardoa upel oyetan?; ... - Nun eztuzute ardoa?, sagardoa baño?; ... - Oŕek al du sagardoa upel oyetan?; Ez, ... baño. -- Nire aizpak eta zure adiskidearen aŕebak lorak asko dituzte: Nortzuek dituzte lorak asko?; ... - Zer dute nire aizpak eta zure adiskidearen aŕebak?; ... - Nire adiskidearen aŕebak al dituzte lorak asko?; Ez, ... baño. -- Zuk osasun eta indaŕa dituzu: Nork ditu osasun eta indaŕa?; ... - Zer duzu zuk?; ... - Guk al ditugu osasun eta indaŕa?; ... - Zuk osasun bakaŕik al duzu?; Ez, ... baño. -- Nire nebak begi politak ditu: Nork ditu begi politak?; ... - Zer du zure nebak?; ... - Nire anayak al ditu begi politak?; Ez, ... baño. - Noren begiak dira politak?; ... -- Nola joango zera oyan ortaraño?; Ondo ... - Noraño joango zera ondo?; ... - Bakaŕik joango al zera oyan ortaraño?; Bai, bakaŕik eta ... - Ni bakaŕik eta ondo joango al naiz oyan ortaraño?; Ez, ... - Zu txarto joango al zera oyan ortaraño?; Ez,

... baño. -- Nire etxeko agureak irurogetamalau urte ditu: Nork ditu irurogetamalau urte?; ... - Zenbat urte du zure etxeko agureak?; ... - Zuk al dituzu irurogetamalau urte?; Ez, ... baño. -- Nork du nire idaztia?; auŕ txikiak du bere mayan: Zer du auŕ txikiak bere mayan?; .. - Nun du nire idaztia auŕ txikiak?; ... - Guk al dugu zure idaztia gure mayan?; Ez, ... baño. -- Etxeko jabeak bederatzi seme ta alaba bakaŕa ditu: Nork ditu bederatzi seme ta alaba bakaŕa?; ... - Iru alaba al ditu etxeko jabeak?; Ez, ... baño. - Zuk al dituzu bederatzi seme?; Ez, . baño. -- Ordua al duzu?; bai, zazpi t'erdiak dira: Orain zortzirak laurden gutxiago al dira?; Ez, ... baño. -- Ugarte ayetako biztanleak ez dituzte zaldiak: Nortzuek ez dituzte zaldiak?; ... - Zer eztute ugarte ayetako biztanleak?; ... - Nungo biztanleak eztituzte zaldiak?; ... -- Amaŕ laurleko al dituzu zure sakelean?; ez, eztitut amaŕ laurleko nire sakelean, zortzi baño: Nork eztitu bere sakelean amaŕ laurleko, zortzi baño?; ... - Zenbat laurleko duzu zure sakelean?; ... - Nik, nire sakelean amaŕ laurleko al ditut?; Bai, zuk zure sakelean. ... - Zuek zuen sakeletan ogetazazpi laurleko al dituzute?; Ez, guk eztitugu ..., etxean baño.

AMABOSKAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

Aditz iragankoŕen aditz-joko bildua - Tinkiera - Oraiñaldia - Eraketaren lenengo bidea - Izakayezko adizkiñak.

Aditz iragankaitzen artean bezela, iragankoŕetarako ere ba-dagoz aditz batzuek aditz-joku bilduari eusten diotenak; ona emen egunero erabiltzen diran zazpi :

ERAMAN, EKAŔI, EUKI, ESAN (IÑO), JAKIN, EGIN, ERABĪLI; ta ba-dira ainbeste erabiltzen eztiran beste batzuk.

Jokabide soīlaren oraiñaldiko erakusbide orakaŕa (1) :

			-T
	-RAMA-		-ZU
	-KAŔ-		---
D- a)	-AKI-	-ZKI-	
	-GI-		
	-RABIL-		-GU
			-ZU- -TE
			----- -TE

EUKI ta ESAN aditzak era orokaŕ ontatik at dagoz; lenengoa bere askaŕ-izakayen eraketagatik, eta bigaŕena berarena eztan IÑO eŕoaz jokatzen dalako. Beren adizkiñak 18 ta 20'gaŕen ikaskayetan ikusiko dira.

Agertutako erakusbide orobaŕean oaŕ ditekenez, bere egitura auŕeko ikaskayan ikusi dugun IZAN aditz laguntzaīlearena bezelakoa da, ia. Laguntzaīlearen -U- eŕoaren ordez, *eraman, ekaŕi, jakin, egin* eta *erabīli* bost aditzai dagozkienak ipiñi dira; ta D- izakayaren askartasuna, joku ontan -ZKI- erdizkiaren bitartez egiten da; ta erdizki au eŕoaren atzetik doa; IZAN'en -IT- erdizkia, ostera, auŕetik agertzen dalarik; onela :

Daramat (bakaŕ-izakaya) - *Daramazkit* (askaŕ-izakaya).

Ba-dago, gañera, -ZKI- atzizkiaren ordez, izakayaren askartasunezko asmoa bera emateko, -TZI- beste erdizkia ere; idazle batzuek darabiltena ta Eŕialde'ko toki batzuetan, e. b. Napaŕoa'ko Burunda'n, egunero be entzuten dana (Azkue, M. 545).

(1) Ikusi: 152'gn. ikask.

Adizkin auen *a*) bigaŕen izkiak, D- astekoa dan bestea, eŕoekin alkartzeko dalarik, ba-du beste eginkizuna : aditzera auei *oraiñaldi*aren bereizitasuna emateko; oŕen antzera, geroago (47'gn. ikask.) ikusiko danez, *e*) izkiak len-lenaldiko aditzerai *lenaldia*ren bereizitasuna ematen die (2).

-K atzizkia. Aditz iragankoŕaren adi-yabe egīlearen bereizgaŕi; *egīlearen* beraren zentzuna duelarik.

Galdetzekoai ta ageŕerazleai onela alkartzen zaye; auŕeko ikaskayan esan dan bezela, askartasunean, *-K* au ta askartasuna adierazten duen beste *-K*, bat egiten dutelarik :

	Bakaŕ			Askaŕ
Nor?	:	Nork?	Nortzuek?	: Nortzuek?
Zein?	:	Zeñek?	Zeintzuek?	: Zeintzuek?
Au	:	Onek	Auek	: Auek
Ori	:	Oŕek	Oyek	: Oyek
Ura, a	:	Arek	Ayek	: Ayek

EGINKIZUNAK

1. Emen agertzen dan laukian, kulatzen ordez, egokiak izango diran erak esan eta idatzi :

Galdetzeko		-RAÑO	-RUNTZ	-EN	-GAZ
Nun?	:	...	...		
Zein?	:			...	...
Zeintzuk?	:			...	...
Ageŕerazle					
Au	:	...	ontaruntz	...	...
Ori	:	Ortaraño	...	...	...
Ura, a	:	...	...	...	aregaz
Auek	:	...	...	auen	...
Oyek	:	...	oyetaruntz	...	...
Ayek	:	...	...	...	arekaz

(2) Ikusi: 111'gn. ikask. ta Azkue, M. 604.

2. Uŕengo laukian IZAN (UKAN), ERAMAN, JAKIN eta EGIN aditz iragankoŕen aditzera bilduak ipiñi, kulatzen ordez; bakaŕ-ízakayaz:

Izenordea		IZAN	ERAMAN	JAKIN	EGIN
Nik	:	Dut	...	...	...
Zuk	:	...	daramazu	...	...
Berak	:	...	...	daki	...
Guk	:	...	...	...	dagigu
Zuek	:	Duzute	...	...	...
Berak	:	...	...	dakite	...

3. Irugaŕen lauki ontan, ezkeŕ-aldean ematen diran izenai esateko dagozkien itzak, kulatzen ordez jaŕi:

Izena		ANAI	NEBA	AŔEBA	AIZPA
Mutiĺari	:	...	...	aŕeba	...
Neskatiĺari	:	...	...	...	...
Aitari	:	...	...	...	...
Amari	:	...	...	...	...
Nire anayari	:	...	...	...	...
Zure aizpari	:	...	...	...	...
Gure nebari	:	...	...	...	...
Zuen aŕebari	:	...	...	...	...

4. Emengo galderai, erantzun egoki bana eman:

Nik eskuetan sagaŕ bat daramat: Nork darama eskuetan sagaŕ bat?; ... - Zer daramat eskuetan?; ... - Nun daramat sagaŕ bat?; ... - Oŕek al darama sagaŕ bat eskuetan?; Ez, ... baño. -- Zuk gure aitaren gosaria dakarzu: Nork dakaŕ gure aitaren gosaria?; ... - Zer dakarzu?; ... - Guk al dakargu gure aitaren gosaria?; Ez, ... baño. - Noren gosaria dakarzu?; ... -- Andere oyek asko dakite: Nortzuek dakite asko?; ... - Zer dakite andere oyek?; ... - Zuek ere asko al dakizute?; Ez, ... baño. -- Zuek udan janzki ariña darabilzute: Nork darabil udan janzki ariña?; ... - Zer darabilzute udan?; ... - Noiz darabilzute janzki ariña?; ... - Ayek al darabilte udan janzki ariña?; Ez, ... baño. -- Emakume oŕek otaŕ ortan amabi madari daramazki: Nork daramazki amabi madari otaŕ ortan?; ... - Zer darama emakume oŕek otaŕ ortan?; ... - Nun daramazki emakume oŕek amabi madari?; ... - Zuek al daramazkizute otaŕ ortan amabi madari?; Ez, ... baño. -- Kutxa ontan nire gurasoen gutun eta argazkiak daramazkit: Nork daramazki kutxa ontan bere gurasoen gutun eta argazkiak?; ... - Zer daramazu kutxa ortan?; ... - Noren gutunak daramazkizu kutxa ortan?; ... - Zuk al daramazkizu kutxa ortan zure gurasoen gutun eta argazkiak?; Ez, nik ez ..., zuk zure ... baño. -- Nekazari arek bere gaztak zeira daramazki: Nork daramazki bere gaztak zeira?;

... - Zer darama nekazari arek zeira?; ... - Nora daramazki bere gaztak nekazari arek?; ... - Eŕi ontako nekazariak al daramazki gure gaztak zeira?; Ez, ... baizik. -- Zure semeak eztakite beren ikaskaya: Nortzuek eztakite beren ikaskaya?; ... - Zer eztakite nire semeak?; ... - Noren ikaskaya eztakite nire semeak?; ... - Zure alabak al dakite beren ikaskaya?; Bai, ..., baña ... ez. -- Gizon arek bere besoetan auŕ bat dakaŕ eta onuntz datoŕ: Nork dakaŕ auŕ bat bere besoetan?; ... - Zer dakaŕ gizon arek bere besoetan?; ... - Nor datoŕ onuntz?; ... - Noruntz datoŕ gizon ura?; ... - Nun dakaŕ gizon arek auŕ bat?; ... - Gu al gatoz onuntz?; Ez, ... baño. -- Artzain ori bere ardiekin Bizkaya'ko mugaetaruntz doa: Nor doa bere ardiekin Bizkaya'ko mugaetaruntz?; ... - Zeñekin doa artzain ori Bizkaya'ko mugaetarunz?; ... - Noruntz doa artzain ori bere ardiekin?; ... - Zuek al zoazte zuen ardiekin Bizkaya'ko mugaetaruntz?; Ez, ... baizik. -- Mutil oŕek bere kayolan bi txori ditu: Nork ditu bi txori bere kayolan?; ... - Zer du mutil oŕek bere kayolan?; ... - Nun ditu bi txori mutil oŕek?; ... - Nik al ditut bi txori nire kayolan?; Ez, ... baño. -- Eŕi oyetan gizonek ez darabilte txapela: Nortzuek ez darabilte txapela eŕi oyetan?; ... - Zer eztarabilte gizonek eŕi oyetan?; ... - Nun eztarabilte txapela gizonek?; ... -- Gaur eztitugu zuen idaztiak, gureak baño: Nortzuek eztituzte zuen idaztiak?; ... - Zer eztuzute?; ... - Nik al ditut zuen idaztiak?; Ez, zuk ere ... - Guk al ditugu gure idaztiak?; Bai, ... - Mutil oyek al dituzte zuen idaztiak?; Ez, ..., berenak baño. -- Langiĺe ayek beren lana dagite egunero: Zuek al dagizute langiĺe ayen lana egunero?; Ez, ..., gurea baizik. - Zer dagite langiĺe ayek egunero?; ... - Noiz dagite langiĺe ayek beren lana?; ... - Nik al dagit zuen lana egunero?; Ez, ..., zurea baño. -- Gaur etxean esne ta ogia ditugu: Nork ditu gaur etxean esne ta ogia?; ... - Zer duzute gaur etxean?; ... - Nun dituzute gaur esne ta ogia?; ... - Noiz dituzute etxean esne ta ogia?; ... - Atso oŕek al ditu gaur etxean esne ta ogia?; Ez, ... baño. -- Nire etxeko leyoek eztituzte leyaŕak: Zerk eztitu leyaŕak?; ... - Zer eztute nire etxeko leyoek?; ... - Noren etxeko leyoek eztituzte leyaŕak?; ... - Zuen etxeko leyoek al dituzte leyaŕak?; Bai, ... -- Gaur ez zoazte antzokira nirekin, zuen osabarekin baño: Nortzuk eztoaz gaur antzokira nirekin?; ... - Norekin zoaze gaur antzokira?; ... - Nora zoaze gaur zuen osabarekin?; ... - Noiz zoaze antzokira zuen osabarekin?; ... - Ni al noa gaur antzokira zuen osabarekin?; Ez, ..., gu baizik. -- Zure begiek argi asko dute: Zerk du argi asko?; ... - Zer dute zure begiek?; ... - Nire begi auek ere argi asko al dute?; Ez, ... baño. --

Nire gurasoen etxe ortan aize aundia dago: Zer dago zure gurasoen etxe ortan?; ... - Nun dago aize aundia?; ... - Noren etxean dago aize aundia?; ... - Aize gutxi al dago zure gurasoen etxe ortan?; Ez, ... baño. -- Alkaŕekin muru ayetaruntz joango gera: Nortzuk joango dira alkaŕekin muru ayetaruntz?; ... - Norekin joango zerate muru ayetaruntz?; ... - Noruntz joango zerate alkaŕekin?; ... - Ikasle oyek ere joango al dira alkaŕekin muru ayetaruntz?; Ez, ... baizik. -- Gaur ogia dugu baña eztitugu babaŕunak: Nork du gaur ogia?; ... - Nork eztitu gaur babaŕunak?; ... - Noiz duzute ogia?; ... - Noiz eztituzute babaŕunak?; ... - Nik al ditut gaur babaŕunak?; Ez, zuk ere ... -- Zegama'ko nire aitonak larogetamaŕ ardi ditu: Nork ditu larogetamaŕ ardi?; ... - Zer du zure aitonak?; ... - Nungo zure aitonak ditu larogetamaŕ ardi?; ... - Zegama'ko zure osabak al ditu larogetamaŕ ardi?; Ez, ... baño. -- Langīle auek gure lengusuaren basoko txabola artaruntz doaz: Nortzuk doaz gure lengusuaren basoko txabola artaruntz—; ... - Noruntz doaz langīle auek?; ... - Laŕeko txabolaruntz al doaz langīle auek?; Ez, ... baño.

AMASEIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

Aditz iragankoŕak:

Jan	Ikusi	Jo
Edan	Entzun	Irakuŕi
Lo-egin	Usaindu	Idatzi
	Txastatu	
	Ikutu, ukitu	

Auxe dugu orain ere gogoratzeko: Aditz-izen auek, iragangaitzetan bezela, egitan, *aditz-izenondoak* dira; ta *aditz-izenekoak* dei ditzakegunak -TEN edo -TZEN atzizkien bitartez eratzeko.

Aditz-izeneko auekin, IZAN iragankoŕaren aditzerakaz jaŕaiturik, aditz-joko bildua eztuten aditz iragankoŕ guzien *tinkierazko oraiñaldia* dagigu, ta joko bildua dutenen *oiturazko oraiñaldia*; 6'gaŕen ikaskayan aditz-iragangaitzetarako ikusi zan bezela.

ORAIÑALDI

Joko bildua eztuten aditzak:	Ikusten		-T
	Entzuten		-ZU
	Irakurtzen		---
		D- -IT- -U-	
	Idazten		-GU
	Jaten		-ZU- -TE
	Edaten		-Z- - - - - -TE

OITURAZKO ORAIÑALDI

Joko bildua duten aditzak:	Izaten		-T
	Eramaten		-ZU
	Ekartzen		---
		D- -IT- -U-	
	Jakiten		-GU
	Egiten		-ZU- -TE
	Erabiltzen		-Z- - - - - -TE

Aditz-izenekoaren bitartez, batzuetan, «yakin» (jakin), «entzun», «izan», «ikusi» aditzetan eta beste batzuetarako ere, aditzaren izen solaz adierazten dana diñogu; onela:

Eztakizu ori *esaten*	=	Ori *esan* eztakizu
Ez dantzugu *mintzatzen*	=	*Mintzatu* ez dantzugu
Ilten dakusgu	=	*Il* dakusgu (*ilteko* dala dakusgu)
Etoŕi *bazkaltzen*	=	*Bazkaldu* egitera etoŕi (1).

Eginkizunak

1. Lenengo lauki ontan, kulatzen ordez, beaŕezkoak diran itzerak esan eta idatzi:

Galdetzeko	-TIK	-KO	-KIN	-K
Nun? :	...	...		
Noiz? :	...	...		
Nor?			...	...
Nortzuk?			...	...
Aditzondo				
Emen :	...	...		
Oŕ :	...	...		
An :	...	...		
Ageŕerazle				
Au :	...	...	onekin	...
Ori :	...	ortako	...	...
Ura, a :	Artatik	...	...	...
Auek :	...	...	...	auek
Oyek :	...	oyetako	...	...
Ayek :	...	...	ayekin	...
Izenorde				
Ni :			nirekin	...
Zu :			...	zuk
Bera :			...	berak
Gu :			gurekin	...
Zuek :			...	zuek
Berak :			berekin	...

(1) Azkue, «Euskaleŕiaren Yakintza», III'gna., 304'gn. of. - Ik.: 117'gn. ikaskaya.

2. Bigaŕen lauki ontan, kulatzen ordez, IZAN (UKAN), ERAMAN, JAKIN eta EGIN aditz iragankoŕen aditzera bilduak jaŕi; askaŕ-izakayaz:

Izenordea	IZAN	ERAMAN	JAKIN	EGIN
Nik :	Ditut	...	...	...
Zuk :	...	daramazkizu	...	...
Berak :	...	...	dakizki	...
Guk :	...	...	...	dagizkigu
Zuek :	Dituzute	...	...	...
Berak :	...	...	dakizkite	...

3. Adi-yabe ta aditzerak erabiltzen, uŕengo esakuntzetan eta IZAN-UKAN, JOAN-ERAMAN, ETOŔI-EKAŔI, EGON-JAKIN, IBIĹI-ERABIĹI aditz-bikote auen bakoitzerako, aditz bati dagozkionak besteaŕenen ordez aldatu; itzez eta idatziz:

Ni naiz ... - Zuk duzu ... - Bera doa ... - Guk daramagu ... - Zuek zatoze ... - Berak dakarte ... - Ni nago ... - Zuk dakizu ... - Bera dabil ... - Guk darabilgu ... - Zuek zerate ... - Berak dute ... - Gu goaz ... - Zuek daramazute ... - Berak datoz ... - Nik dakart ... - Zu zagoz ... - Berak daki ... - Gu gabiltz ... - Zuek darabilzute ... --

4. Orain arte ikasi dana erabiltzen, uŕengo galderai erantzun bana eman:

Nire aŕebaren idaztiak irakurtzen ditugu: Nork irakurtzen ditu zure aŕebaren idaztiak?; ... - Zer irakurtzen duzute?; ... - Zure idaztiak irakurtzen al dituzute?; Ez, ... - Nik irakurtzen al ditut zure aŕebaren idaztiak?; Ez, ... baño. -- Eŕi ortan ogi zuria jaten dute, baña emen ogi beltza jaten dugu: Nun jaten dute ogi zuria?; ... - Emen ogi zuria jaten al dugu?; Ez, ... baño. - Zer ez dute jaten eŕi ontan?; ... - Nun eztugu jaten ogi zuria?; ... -- Alkaŕekin gure nebaren etxera egunero goaz: Nortzuk doaz alkaŕekin beren nebaren etxera egunero?; ... - Noiz doaz alkaŕekin beren nebaren etxera?; ... - Norekin doaz beren nebaren etxera egunero?; ... - Mutil oyek al doaz alkaŕekin beren anayaren etxera egunero?; Ez; ..., neskatil oyek ... baño. -- Mutil oŕek ardo asko edaten du: Nork edaten du ardo asko?; ... - Zer edaten du mutil oŕek?; ... - Zuk ere ardo asko edaten al duzu?; Ez, ... baño. - Mutil oŕek ardo gutxi edaten al du?; Ez, ... baizik. -- Gurdi ontan gure eŕiko baseŕitaŕ aren gari ta garagaŕa dakarzkigu: Nork dakarzki gurdi ontan zuen eŕiko baseŕitaŕ aren gari ta garagaŕa?; ... - Zer dakarzute gurdi ontan?; ... - Nun dakarzkizute zuen eŕiko baseŕitaŕ aren gari ta gara-

gaŕa?; ... - Noren gari ta garagaŕa dakarzkizute gurdi ontan?; ... -- Zer daramazute otaŕ ortan?; bonbil utz batzuk daramazkigu: Nork daramazki otaŕ ortan bonbil utz batzuk?; ... - Nun daramazkizute bonbil utz batzuk?; ... - Zer daramazute otaŕ ortan?; ... - Oŕek al daramazki otaŕ ortan bonbil bete batzuk?; Ez, ... baño. -- Aitak etxera sagaŕak dakarzki ta semeak beren aitaren sagaŕak eta ogia jaten dituzte: Nora dakarzki aitak sagaŕak?; ... - Zer dakaŕ aitak etxera?; ... - Nork jaten ditu bere aitaren sagaŕak eta ogia?; ... - Zer jaten dute semeak?; ... -- Gu oso ondo gagoz adiskide onen etxean: Nor dago oso ondo adiskide onen etxean?; ... - Nun zagoze oso ondo?; ... - Nola zagoze adiskide onen etxean?; ... - Zu ere ondo al zagoz adiskide onen etxean?; Ez ... baizik. -- Zuek asko idazten duzute, ta guk gutxi irakurtzen dugu: Nork idazten du asko?; ... - Nortzuek irakurtzen dute gutxi?; ... - Zuek gutxi idazten al duzute?; Ez, ... baño. - Guk asko irakurtzen al dugu?; Ez, ... baño. -- Egun batzuetan neska adiskide oŕen idaztiak eramaten ditugu: Nork eramaten ditu egun batzuetan neska adiskide oŕen idaztiak?; ... - Zer eramaten duzute egun batzuetan?; ... - Noiz eramaten dituzute neska adiskide oŕen idaztiak?; ... - Egunero eramaten al dituzute neska adiskide oŕen idaztiak?; Ez, ... baño. -- Entzuten al duzu abesti ori?; bai, oso ondo entzuten dut, azkatasunaren abestia da: Zer entzuten duzu oso ondo?; ... - Nola entzuten duzu azkatasunaren abestia?; ... - Nork entzuten du oso ondo azkatasunaren abestia?; ... - Guk ere oso ondo entzuten al dugu azkatasunaren abestia?; Ez, ... baizik. -- Gaur eztakizute zuen ikaskaya: Nork eztaki gaur bere ikaskaya?; ... - Zer eztakizute gaur?; ... - Noiz eztakizute zuen ikaskaya?; ... - Nik al dakit gaur nire ikaskaya?; Bai, zuk ... -- Etxe ortan eguŕa erabiltzen dute, baña guk ikatza darabilgu: Zer erabiltzen dute etxe ortan?; ... - Nun erabiltzen dute eguŕa?; ... - Nork darabil ikatza?; ... - Zer darabilzute zuek?; ... - Etxe ortakoek ikatza erabiltzen al dute?; Ez, ... baño. -- Biziaren bidean ez gabiltz bakaŕik: Nortzuk eztabiltz bakaŕik biziaren bidean?; ... - Nun ez zabiltzate bakaŕik?; ... - Nola etzabiltzate biziaren bidean?; ... - Norekin zabiltzate biziaren bidean?; ... -- Gazte oŕek beti makil batzuk eramaten ditu: Nork eramaten ditu beti makil batzuk?; ... - Zer eramaten du beti gazte oŕek?; ... - Noiz eramaten ditu makil batzuk gazte oŕek?; ... - Guk eramaten al ditugu beti makil batzuk?; Ez, ... baño. -- Nire aitaren adiskide ura ona etortzen da askotan: Nor etortzen da ona askotan?; ... - Nora etortzen da askotan

zure aitaren adiskide ura?; ... - Noren adiskidea etortzen da ona askotan?; ... - Gutxitan etortzen al da ona zure aitaren adiskide ura?; Ez, ... baizik. -- Zuk eztakizu euzkera baña laisteŕ ikasiko duzu: Nork eztaki euzkera?; ... - Zer eztakizu?; ... - Noiz ikasiko duzu euzkera?; ... - Nork ikasiko du euzkera laisteŕ?; ... -- Irugaŕen egunean laugaŕen gurutzeraño igoko gera, bai ta zortzigaŕeneraño ere: Nor igoko da irugaŕen egunean laugaŕen gurutzeraño?; ... - Noraño igoko zerate irugaŕen egunean?; ... - Bigaŕen egunean igoko al zerate zortzigaŕen gurutzeraño?; Ez, ... baño. - Bederatzigaŕen gurutzeraño igoko al zerate?; Ez, ... baizik. -- Nire adiskideek eztakizkite idazti onen otoyak: Nortzuek eztakizkite idazti onen otoyak?; ... Zer eztakite zure adiskideek?; ... - Zuk al dakizkizu idazti onen otoyak?; Bai, nik ... - Nork dakizki idazti onen otoyak?; ... -- Auntz auek Napaŕoa'ko mendi ayetaraño daramazkit: Nork daramazki auntz auek Napaŕoa'ko mendi ayetaraño?; ... - Zer daramazu Napaŕoa'ko mendi ayetaraño?; ... - Noraño daramazkizu auntz auek?; ... Nik al daramazkit auntz auek Napaŕoa'ko mendi ayetaraño?; Ez, ... baño.

AMAZAZPIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

Aditz iragankoŕak.

Aditzaren izenaz bakaŕik (aditz-izenondoa), IZAN (UKAN) iragankoŕaren tinkiera-oraiñaldiko aditzerak jaŕaiturik, aditz iragankoŕ guztien IGAROALDI'koak egiten dira.

Eta aditzaren izenaz ere -KO (N atzetik -GO) atzizkiarekin, IZAN (UKAN)'en tinkiera-oraiñaldiko aditzerak berberak jaŕaiturik, GEROALDI'koak egiten ditugu; 7'gn. ikaskayan aditz iragankaitzekin nola jokatzen dan ikusi zanez.

IGAROALDIA

Izan		-T
Eraman		-ZU
Ekaŕi		---
	D- -IT- -U-	
Jakin		-GU
Egin		-ZU- -TE
Erabiĭi		-Z- - - - - -TE

GEROALDIA

Izango		-T
Eramango		-ZU
Ekaŕiko		---
	D- -IT- -U-	
Jakingo		-GU
Egingo		-ZU- -TE
Erabiĭiko		-Z- - - - - -TE

ALKAŔ (ELKAŔ) itza. 12'gaŕen ikaskayan esan genuenez, batzuetan beste batzuekiko ta alderantziz beste batzuetan lenengoai buruz izan diteken asmoa bera adierazteko, itz au egipen iragankoŕetan ere darabilgu; ta artez-betetzekoa aipatzeko erabiltzen da, aditzaren egipena bien edo batzuen arteko asmoa bera ere adierazi beaŕ danean.

Onela: *Alkaŕ* ikusten dugu = Nik zu ta zuk ni, batera.

Eta edozein izen edo izenondo 'k bezela, izen-jokoaren atzizkiak aŕ ditzakela beŕiz esan dezakegu.

EGINKIZUNAK

1. Buruz ikasi, ongi, itz berezi auek:

Asteko egunak:

Astelen, astearte, asteazken, ostegun, ostiral, larunbat, igande.

Urteko iĭak:

Ilbeltz edo urtaŕil, otsail, epaĭl, joŕail, oŕil, garagaŕil, garil edo uztail, dagonil, irail, uŕil, azil, lotazil.

2. Uengo laukian, kulatzen ordez, EKAŔI, ERABIĬI, LO-EGIN eta IKUTU aditz iragankoŕen tinkierazko oraiñaldian beaŕ diran aditzerak, bakaŕ-izakayaz, esan eta idatzi:

Adi-yabea		EKAŔI	ERABIĬI	LO-EGIN	IKUTU
Nik	:	Dakart	...	...	...
Zuk	:	...	...	lo-egiten duzu	...
Berak	:	...	darabil	...	...
Guk	:	...	...	...	ikutzen dugu
Zuek	:	Dakarzute	...	...	...
Berak	:	...	...	lo-egiten dute	...

3. Uŕengo esaldietan aldakuntza bi auek egin: Lenengoz, oraiñaldian dagozenak, igaroaldian jaŕi; ta alderantziz ere, ots, igaroaldian dagozenak oraiñaldian. Bigaŕenez, bakaŕ-izakaya dutenak, askaŕ-izakayaz ipiñi; ta alderantziz, askaŕ-izakayaz dagozenak, bakaŕ-izakayaz.

Lenengoz: Ni mendi artara noa; ... - Zu etxera itzuli zera; ... - Bera eltzen da; ... - Guk asko jaten dugu; ... - Zuek eztuzute asko edan; ... - Berak etxe artan dagoz; ... - Nik txapela daramat; ... - Zuk laŕeko ardi guziak ekaŕi dituzu; ... - Berak eskuandelak darabilzki neguan; ... - Gug etxeko jauna ikusi dugu; ... - Zuek gutun batzuk idazten dituzute; ... - Berak oso ondo lo-egin dute gaur; ...

Bigaŕenez: Nik gero madari bat jango dut; ... - Zuk enparantzako abestiak entzun dituzu; ... - Berak tiŕiña jo du; ... - Guk bi idazti irakuŕi ditugu atzo; ... - Zuek lore oyek usaindu dituzute; ... - Berak gozoki au txastatzen dute; ... - Nik idiak eraman ditut; ... - Zuk osaŕaren zaldia dakarzu; ... - Neska oŕek gona zabalak darabilzki; ... - Guk otoi edeŕ bat dakigu; ... - Zuek otaŕ au dagizute; ... - Berak goize ontan ipuin bat esan dute; ...

4. Uŕengo galderai erantzun bana eman; itzez eta idatziz:

Ondo zagoze oŕ, toki edeŕ ortan: Nor dago ondo, toki edeŕ

ortan?; ... - Nun zagoze ondo?; ... - Nola zagoze oŕ? ... - Ni ongi al nago emen?; Ez, zu ..., gu oŕ baño. -- Artalde ura onuntz datoŕ: Zein datoŕ onuntz?; ... - Noruntz datoŕ artalde ura?; ... - Beste abere ayek ere onuntz al datoz?; Ez, ... baño. -- Artalde arek auŕean artzanora dakaŕ eta atzean artzaña: Zeñek dakaŕ auŕean artzanora?; ... - Zer dakaŕ auŕean artalde arek?; ... - Nun dakaŕ artalde arek artzaña?; ... - Altalde arek artzaña auŕean al dakaŕ?; Ez, ... baizik. -- Ikaskayak ingi ontan idazten ditut: Nork idazten ditu ikaskayak ingi ontan?; ... - Zer idazten duzu ingi ontan?; ... - Nun idazten dituzu ikaskayak?; ... - Zuek idazten al dituzute ikaskayak ingi oyetan?; Ez; ... ingi ontan baño. -- Gaur goizean Donostia'ko egunerokoa irakuŕi dut: Nork irakuŕi du gaur goizean Donostia'ko egunerokoa?; ... - Zer irakuŕi duzu gaur goizean?; ... - Nungo egunerokoa irakuŕi duzu gaur goizean?; ... - Noiz irakuŕi duzu Donostia'ko egunerokoa?; ... -- Gaur gabean eztugu gaizki afalduko: Nork eztu gaizki afalduko gaur gabean?; ... - Nola eztuzute gaur gabean afalduko?; ... - Noiz ez duzute gaizki afalduko?; ... - Nik txarto afalduko ai dut gaur gabean?; Ez, zuk ere ... -- Baseŕitaŕ oyek orain txapel oso aundiak darabilzkite: Nortzuek darabilzkite orain txapel oso aundiak?; ... - Zer darabilte orain baseŕitaŕ oyek?; ... - Noiz darabilzkite baseŕitaŕ oyek txapel oso aundiak?; ... - Guk al darabilzkigu orain txapel oso aundiak?; Ez, ... baizik. -- Gutun bat idatzi dugu; euzkeraz?; ez, erderaz: Nork idatzi du gutun bat erderaz?; ... - Zer idatzi duzute erderaz?; ... - Nola idatzi duzute gutun bat?; ... - Oŕek gutun bat erderaz idatzi al du?; Ez, ... baño. -- Auŕ onek eztu gaur jan oindiño: Nork eztu gaur jan oindiño?; ... - Noiz eztu auŕ onek oindiño jan?; ... - Zuek jan al duzute gaur?; Bai, guk ... -- Gaur goizean aldameneko etxe oyetan egon gera: Nortzuk egon dira gaur goizean aldameneko etxe oyetan?; ... - Noiz egon zerate aldameneko etxe oyetan?; ... - Nun egon zerate gaur goizean?; ... - Ni egon al naiz gaur goizean aldameneko etxe oyetan?; Ez, ... baizik. -- Gaur aratsaldean bide zabal artako ituŕiraño joango gera: Nortzuk joango dira gaur aŕatsaldean bide zabal artako ituŕiraño?; ... - Noiz joango zerate bide zabal artako ituŕiraño?; ... - Noraño joango zerate gaur aŕatsaldean?; ... - Neskatil oyek joango al dira gaur aŕatsaldean bide zabal artako ituŕiraño?; Ez, ... baño. -- Biar gure etxean zure nebaren igaliak eukiko ditugu: Nortzuek eukiko dituzte biar nire nebaren igaliak?; ... - Zer eukiko duzute biar zuen etxean?; ... - Nun eukiko dituzute biar nire nebaren igaliak?; ... - Zure anayak eukiko al ditu biar bere etxean nire nebaren igaliak?; Ez, ...

baizik. -- Beoŕ oŕek bere bizkaŕean zama oso aundiak daramazki: Zeñek daramazki bere bizkaŕean zama oso aundiak? ... - Zer darama beoŕ oŕek bere bizkaŕean?; ... - Nun daramazki beoŕ oŕek zama oso aundiak?; ... - Zuk al daramazkizu zure bizkaŕean zama oso aundiak?; Ez, ... baño. -- Zuk egunero betauŕekoak erabiltzen dituzu: Nork erabiltzen ditu egunero betauŕekoak?; ... - Zer erabiltzen duzu egunero?; ... - Noiz erabiltzen dituzu betauŕekoak?; ... - Nik ere egunero betauŕekoak al darabilzkit?; Ez, ... baizik. -- Ez gera egon aspaldian gure adiskideen semearen basoko etxetxu artan: Nor ezta egon aspaldian gure adiskideen semearen basoko etxetxu artan?; ... - Nun etzera egon aspaldian?; ... - Noiz etzera egon gure adiskideen semearen basoko etxetxu artan?; ... - Zure ama egon al da gure adiskideen semearen basoko etxetxu artan?; Ez, nire ama ere ... -- Miĺa bederatzireun eta larogetabigaŕen urtean gagoz: Nor dago miĺa bederatzireun eta larogetabigaŕen urtean?; ... - Gaur miĺa bederatzireun eta larogetalaugaŕen urtean al zagoze?; Ez, ... baño. -- Gizon zeken ori oso maltzuŕa da: Nor da oso maltzuŕa?; ... - Nola da gizon zeken ori?; ... - Uriko gizon guziak al dira oso maltzuŕak?; Ez, ... bakaŕik baño. -- Zer dakarzute eskuan?; lau epeŕ eta amaika galepeŕ dakarzkigu: Nork dakarzki eskuan lau epeŕ eta amaika galepeŕ?; ... - Zer dakarzute eskuan?; ... - Nun dakarzkizute lau epeŕ eta amaika galepeŕ?; ... - Nik al dakarzkit eskuan lau epeŕ eta amaika galepeŕ?; Ez, ... baño. -- Nik eztitut egiten gauza oyek: Nork eztitu egiten gauza oyek?; ... - Zer eztuzu egiten?; ... - Orko adiskide guziek egiten al dituzte gauza oyek?; Ez, ... **nik baizik.**

AMAZORTZIGAŕEN IKASKAYA

IZEN-JOKOA

«-NTZAT» atzizkia

Atzizki au, geyenetan, izaki zentzundunen asmoak adierazten dituzten itzekin erabiltzen da. Opakizun-asmoa du.

Izen aŕuntai, izenondo ta izenordeai, jabetasunezko beste atzizkien bitaztez alkartzen zaye. Onela :

Bakaŕ	Askaŕ
-A-RE(N)-NTZAT	-E(N)-NTZAT

Esate baterako : Gizon-*arentzat* - Gizon-*entzat*.

Galdetzekoai, ageŕerazle ta norekiko izenordeai alkartzeko, onela dagi :

Bakaŕ			Askaŕ		
Nor?	:	Norentzat?	Nortzuek?	:	Nortzuentzat?
Zein?	:	Zeñentzat?	Zeintzuek?	:	Zeintzuentzat?
Au	:	Onentzat	Auek	:	Auentzat
Ori	:	Oŕentzat	Oyek	:	Oyentzat
Ura, a	:	Arentzat	Ayek	:	Ayentzat
Ni	:	Nirentzat (Niretzat)	Gu	:	Gurentzat (Guretzat)
Zu	:	Zurentzat (Zuretzat)	Zuek	:	Zuentzat
Bera	:	Berarentzat (Beretzat)	Berak	:	Berentzat

«-KO» edo «-KOTZ» atzizkia

Atzizki au auŕekoaren antzekoa da, baña aldi-aditzondoai ezartzeko bakaŕik.

Esate baterako :

Noiz*ko*? - Gaur*ko*
Gaur*kotz*
Biar*ko*
Biar*kotz*

Aditzondo auekin, -KO atzizkiak, berdin ez diran bi zentzun auek euki ditzake : *alde*arena ta *aldi*arena ; bi zentzunak onela bereizteko : izen bat jaŕaitzen bazayo, lenengoa ; aditz bat jaŕaitu ezkero, bigaŕena.

Onela : Biar*ko* eguna (Biar (biar'en) egongo dan eguna).

Biar*ko* itzuliko gera (Biar emen izango gera, itzulita).

ADITZ-JOKOA

Aditz iragankoŕen bildua dan aditz-jokoa
Tinkiera - Oraiñaldi - Eraketaren lenengo bidea

EUKI aditza - -UKA- eŕoa - Izakayezko adizkiñak.

	Bakaŕ-izakaya		Askaŕ-izakaya	
Nik		-T		-T
Zuk		-ZU		-ZU
Berak		---		---
Guk	D- a) -UKA-	-GU	D- a) -U- -Z- -KA-	-GU
Zuek		-ZU- -TE		-ZU- -TE
Berak		----- -TE		----- -TE

Adizkin auetan ongi oaŕ ditekenez, aditz ontarako izakayaren askartasuna, eŕo erdian sartzen dan -Z- baten bidez egiten da ; ta len ikasi diranetatik ortaz bereizten da.

Eginkizunak

1. Uŕengo laukian, kulatzen ordez, bertan agertzen diran galdetzekoai, aditzondo, ageŕerazle ta norekiko izenordeai dagozkien erak esan eta idatzi :

Galdetzeko	-EN	-NTZAT	-KO	-KOTZ
Nor? :	Noren?	...		
Zein? :	...	...		
Aditzondo				
Etzi			...	...
Ageŕerazle				
Au :	Onen	...		
Ori :	...	...		
Ura, a :	...	arentzat		
Auek :	...	...		
Oyek :	...	...		
Ayek :	...	...		
Izenorde				
Ni :	...	niretzat		
Zu :	zure	...		
Bera :	...	...		
Gu :	...	...		
Zuek :	...	...		
Berak :	...	...		

2. Bigaŕen lauki ontan JAKIN, EGIN, ERABIĪLI ta EUKI aditzen erak, izakai askaŕekin, esan eta idatzi :

Adi-yabea	JAKIN	EGIN	ERABIĪLI	EUKI
Nik :	...	dagizkit	...	...
Zuk :	Dakizkizu	...	...	...
Berak :	...	...	...	dauzka
Guk :	...	...	darabilzkigu	...
Zuek :		dagizkizute	...	...
Berak :	Dakizkite	...	...	...

3. Uŕengo esaldietan, UKAN (IZAN) aditzaren adizkiñen ordez, EUKI aditzarenak ipiñi; bai ta bakaŕ-izakaya, askaŕ-izakayaz aldatu; ta alderantziz bi eginkizunetan :

Nire aitaren adiskideak bost aulki *ditu* ; ... - Guk mai bat *daukagu* ; ... - Uritaŕ oyek kapel batzuk *dituzte* ; ... - Zuek *ez daukazute* eskuan igali bat ; ... - Artzain arek ogei bildots *ditu* ; ... - Apaizek otoi-idaztiak *dituzte* ; ... - Nik *eztauzkat* zure iztegiak ; ... - Nork *dauka* ogerleko bat? ; ... - Norentzat *dituzu* bezuza oyek? ; nire nebarentzat *ditut* ; ... - Irakasle arek idazti onak *dauzka* bere ikasleentzat ; ... - Zure aizpak orain soñeko edeŕ bat *du* ; ... - Gazte auek oñetako egokiak *dauzkate* ; ...

4. Emen egiten diran galderai erantzun egoki bana eman ; esanez eta idatziz :

Nire anayaren lagunak mai au guretzat ekaŕi du : Nork ekaŕi du mai au guretzat? ; ... - Zer akaŕi du nire anayaren lagunak guretzat? ; ... - Norentzat ekaŕi du nire anayaren lagunak mai au? ; ... - Nire anayaren lagunak jaun oŕentzat ekaŕi al du mai au? ; Ez, ... baño. -- Bezuza oyek eztira zuretzat, auŕ oyentzat baizik : Zer ezta zuzetzat, auŕentzat baizik? ; ... - Norentzat dira bezuza oyek? ; ... - Nungo auŕentzat dira bezuza oyek? ; ... - Niretzat al dira bezuza oyek? ; Ez, ... baizik. -- Etxe ontan eguŕ eta ikatza dauzkagu : Nork dauzka etxe ontan eguŕ eta ikatza? ; ... - Zer daukazute etxe ontan? ; ... - Nun dauzkazute eguŕ eta ikatza? ; ... - Atso oyek al dauzkate beren etxean eguŕ eta ikatza? ; Ez, ... baño. -- Nire aitonak bere kortan zazpi bei dauzka : Nork dauzka bere kortan zazpi bei? ; ... - Zer dauka bere kortan zure aitonak? ; ... - Nun dauzka zazpi bei zure aitonak? ; ... - Zure aitonak bere kortan amairu bei al dauzka? ; Ez, ... baizik. -- Azkatasuna ezta gizon auentzat : Norentzat ezta azkatasuna? ; ... - Zer ezta gizon auentzat? ; ... - zuretzat al da azkatasuna? ; Ez, ..., ez eta ... ere. -- Aŕantzale sendo oyek gaur goiz jeiki dira : Nortzuk jeiki dira gaur goiz? ; ... - Noiz jeiki dira aŕantzale sendo oyek? ; ... - Berandu jeiki al dira aŕantzale sendo oyek gaur? ; Ez, ... baizik. - Zuek jeiki al zerate gaur goiz? ; Ez, ... baño. -- Idazti auek eŕi ontako ikastolako auŕentzat dira : Zertzuk dira eŕi ontako ikastolako auŕentzat? ; ... - Nortzuentzat dira idazti auek? ; ... - Nungo ikastolako auŕentzat dira idazti auek? ; ... - Ango ikastolako auŕentzat al dira idazti auek? ; Ez, ... baño. -- Zuek gaurkoak zerate : Noizkoak zerate zuek? ; ... - Nortzuk dira gaurkoak? ; ... - Agure oyek al dira gaurkoak? ; Ez, ... baizik. - Zuek atzokoak al zerate? ; Ez, ... baño. -- Eztaukagu etxean ogia ; ostera, igaliak dauzkagu : Nork eztauka etxean ogia? ; ... - Zer daukazute etxean? ; ... Nun eztaukazute ogia? ; ... - Nik al dauzkat etxean igaliak? ; Ez, ... guk baizik. -- Goize ontan oso ondo gosaldu dugu : Nork gosaldu du oso ondo goize ontan? ; ... - Nola gosaldu duzute goize ontan? ; ... - Noiz gosaldu duzute oso ondo? ; ... - Ume guziek gosaldu al dute oso ondo goize ontan? ; Ez, ... baizik. -- Olo auek nire aitarentzat daramazkit : Nork daramazki olo auek bere aitarentzat? ; ... - Zer daramazu zure ai-

tarentzat?; ... - Norentzat daramazkizu olo auek?; ... - Zure aitak al daramazki olo auek zuretzat?; Ez, ... baño. -- Ikasle oŕek bere eginkizunak dagizki: Nork dagizki bere eginkizunak?; ... - Zer dagi ikasle oŕek?; ... - Nik al dagizkit ikasle oŕen egikizunak?; Ez, ... baizik. - Nork dagizki zuen eginkizunak?; Guk ... -- Moŕoi oyek aŕatsalde ontan mai ori zikindu dute: Nortzuek zikindu dute aŕatsalde ontan mai ori?; ... - Zer zikindu dute moŕoi oyek aŕatsalde ontan?; ... - Noiz zikindu dute moŕoi oyek mai ori?; ... - Zuek zikindu al duzute aŕatsalde ontan mai ori?; Ez, ... baño. -- Lan au emakume txiro arentzat egingo dut: Nork egingo du lan au emakume txiro arentzat?; ... - Zer egingo duzu emakume txiro arentzat?; ... - Norentzat egingo duzu lan au?; ... - Guretzat egingo al duzu lan au?; Ez, ... baño. -- Basoko ikazkiñaren alabak oso ondo abesten du: Nork abesten du oso ondo?; ... - Nola abesten du basoko ikazkiñaren alabak?; ... - Gaizki abesten al du basoko ikazkiñaren alabak?; Ez; ... baizik. - Zuk ere ongi abesten al duzu?; Ez, ... baño. -- Nire izebak goizetik gaberarte josten du: Nork josten du goizetik gaberarte?; ... - Noiztik josten du zure izebak gaberarte?; ... - Noiz arte josten du zure izebak goizetik?; ... - Zuek ere goizetik gaberarte josten al duzute?; Ez, ... baizik. -- Nire ilobak bere lanak oso laisteŕ dagizki: Nork dagizki bere lanak oso laisteŕ?; ... - Zer dagi oso laisteŕ zure ilobak?; ... Nola dagizki bere lanak zure ilobak?; ... - Neska ayek ere oso laisteŕ al dagizkite beren lanak?; Ez, ... baizik. -- Arestian Yon nire adiskidearen semeak ikusi ditut: Nork ikusi ditu arestian Yon bere adiskidearen semeak?; ... - Noiz ikusi dituzu Yon zure adiskidearen semeak?; ... - Nor ikusi duzu arestian?; ... - Nik ikusi al ditut arestian Yon zure adiskidearen semeak?; Ez, ... baño. -- Guk ez dakarzkigu zugatz ayetako adaŕak: Nork eztakarzki zugatz ayetako adaŕak?; ... - Zer ez dakarzute?; ... - Eŕiko arotzak al dakarzki zugatz ayetako adaŕak?; ... Ez, oŕek ere ... -- Jantzi oyek biarko ekaŕi ditugu: Nork ekaŕi ditu jantzi oyek biarko?; ... - Zer ekaŕi duzute biarko?; ... - Noizko ekaŕi dituzute jantzi oyek?; ... - Gaurkotz ekaŕi al dituzute jantzi oyek?; Ez, ... baizik. -- Eŕi ontan ez dituzte oitura txaŕ oyek: Nun eztituzte oitura txaŕ oyek?; ... - Zer eztute eŕi ontan?; ... - Nortzuek eztituzte eŕi ontan oitura txaŕ oyek?; ... - Mendiko eiztariak al ditu oitura txaŕ oyek?; Ez, ... ere ... -- Nik eztut bein ere zurea erabiliko: Nork eztu bein ere erabiliko nirea?; ... - Zer eztuzu bein ere erabiliko?; ... - Noiz eztuzu erabiliko nirea?; ... - Zuek gurea erabiliko al duzute?; ez, guk ere ... --

EMERETZIGAŔEN IKASKAYA

IZEN-JOKOA

«-NTZAKO» atzizkia

Atzizki au ere, geyenetan, izaki zentzundunen asmoak erakusten dituzten itzekin erabiltzen da. «-NTZAT» bezela, opakizun-asmoa adierazten du.

Auŕeko ikaskayan ikasi dan atzizki oŕen antzo, izen aŕuntai, izenondo ta izenordeai, jabetasunezko beste atzizkien bitartez batutzen zaye.

Onela:

Bakaŕ	Askaŕ
-A-RE(N)-NTZAKO	-E(N)-TZAKO

Esate baterako: Gizon*arentzako* - Gizon*entzako*

Galdetzekoai, ageŕerazle ta norekiko izenordeai batutzeko, onela dagi:

Bakaŕ			Askaŕ		
Nor?	:	Norentzako?	Nortzuek?	:	Nortzuentzako?
Zein?	:	Zeñentzako?	Zeintzuek?	:	Zeintzuentzako?
Au	:	Onentzako	Auek	:	Auentzako
Ori	:	Oŕentzako	Oyek	:	Oyentzako
Ura, a	:	Arentzako	Ayek	:	Ayentzako
Ni	:	Nirentzako (Niretzako)	Gu	:	Gurentzako (Guretzako)
Zu	:	Zurentzako (Zuretzako)	Zuek	:	Zuentzako
Bera	:	Berarentzako (Beretzako)	Berak	:	Berentzako

-NTZAT eta -NTZAKO azken bi atzizki auek esan-naya bera dute, baña eztira berdin erabiltzen. Onela bereizteko:

-NTZAT, ia beti, aditz baten auŕean edo esaldi baten amayan erabiltzen da.

E. D. Idazti au mutil*arentzat da.*

Zer ekaŕi duzute ni*retzat* (ni*rentzat*)?

Sagaŕ auek ekaŕi ditugu zu*retzat* (zu*rentzat*).

-NTZAKO, ostera, atzetik izen edo izenorde bat daramanean erabiltzen da.

E. b.: Nun daude ume oŕentzako jostaīluak?

*Zuretzako*ak emen dagoz.

Beste bereizitasuna ere ikus diteke auxe gogoratzean: -NTZAKO, alkargayezko izenordea (27'gn. ikaskayan ikusiko dana) daraman adizkiñaren ordez erabiīli diteke, asmo berbera adierazteko.

Onela, len emandako adibidean: Nun daude ume oŕentzako jostaiīluak?, beste era ontaz ere adierazi diteke, asmoa bera emateko:

Nun daude ume oŕentzat *diran* jostaīluak?

Eta bigaŕena be, berdin: *Zuretzakoak* emen dagoz, esan ordez: *Zuretzat diranak* emen dagoz esan diteke.

Beste zentzun bat ere ikus diteke, -NTZAKO atzizkiaren esan-naya geyago zedaŕitzeko; auxe: Lengo bi adibideetan zentzuna onela uleŕ dezakegu, aipatzen diran jostaīluak, lendik ere, umearentzat eta zuretzat *aukeratuak zegozela.*

Eginkizunak

Lenengo lauki ontan, kulatzen ordez, bertan agertzen diran atzizkiak, galdetzekoai, ageŕerazle ta norekiko izenordeai, nola alkartzen zaizkien esan eta idatzi:

Galdetzeko		-EN	-NTZAT	-NTZAKO
Nor?	:	...	norentzat?	...
Zein?	:	Zeñen?	...	...
Nortzuk?	:	...	...	nortzuentzako?
Zeintzuk?	:	...	zeintzuentzat?	...
Ageŕerazle				
Au	:	Onen	...	...
Ori	:	...	oŕentzat	...
Ura, a	:	...	...	arentzako
Auek	:	Auen	...	...
Oyek	:	...	oyentzat	...
Ayek	:	...	...	ayentzako
Izenorde				
Ni	:	Nire	...	...
Zu	:	...	zuretzat	...
Bera	:	...	...	berarentzako
Gu	:	Gure	...	...
Zuek	:	...	zuentzat	...
Berak	:	...	...	berentzako

2. Beste lauki ontan, kulatzen ordez beti, IZAN (UKAN), EUKI, JAN eta EDAN aditzen erak, aldiari dagozkionez, eta bakaŕ-izakayaz, esan eta idatzi:

		IGAROALDIA		GEROALDIA	
		UKAN	EUKI	JAN	EDAN
Nik	:	...	euki dut	...	...
Zuk	:	...	...	jango duzu	...
Berak	:	Ukan du	...	...	...
Guk	:	...	...	...	edango dugu
Zuek	:	...	euki duzute	...	...
Berak	:	...	...	jango dute	...

3. Irugaŕen lauki ontan, igaroaldian dagozen aditzerak, geroaldiari dagozkionen bidez aldatu. Lenengoz: bayetzean dagozen esaldiak ezetzean ipintzen. Bigaŕenez: lenengokoetan bezela, baña bakaŕ-izenordeak askaŕ-izenordeetaz aldatzen ere; eta alderantziz be guzietan; bai ta beaŕ-izango diran beste itzak aldatzeko be.

Lenengoz: Goize ontan oyal ori ebaki dut; ... - Gero txabola artara joango gera; ... Aŕatsaldean eztut lo-egin; ... - Biar ezkera emen ibiīliko; ... - Etzi lanegingo duzute; ... - Nortzuk eztira eldu oneraño?; ... - Etxeko auŕek eztute gaur ondo azkaldu; ... - Biar Armentia'raño lenengoak joango zerate; ... - Ni ez naiz an zurekin ibiīli; ... - Guk asko irabazi dugu lan oyek egiten; ... --

Bigaŕenez: Ni bultzi ontan Tolosa'raño joango naiz; ... - Ikazkin oŕek eztu ikatz gutxi egin gaur; ... - Nekazariek beren soloak ereingo dituzte ongi; ... - Egazti ori goize guzian mendi oŕen gañetik ibiīli da; ... Txinduŕiek laisteŕ bilduko dituzte berentzako aleak; ... - Zein ezta laŕean egon gaur goizean?; ... - Ez zerate nirekin ibiīliko biar; ... - Lagunek len beren otoyak egin dituzte pozik; ... --

4. Emen idazten diran galderai erantzun egoki bana eman; esanez eta idatziz:

duzute Araya'ko jaun oyentzat?; ... - Gure lagunentzat lan-egiten al dugu?; Ez, ... baizik. -- Nik zuen arkatza ekartzen dizuet orain: Nork ekartzen digu orain gure arkatza?; ... - Zer ekartzen diguzu orain?; ... - Noiz ekartzen diguzu gure arkatza?; ... - Goiko neskak ekartzen al digute gure arkatza orain?; Ez, ... baño. -- Andere on oŕek eskutitz bat idatzi dizu: Nork idatzi dit eskutitz bat?; ... - Zer idatzi dit andere on oŕek?; ... - Nori idatzi dio eskutitz bat andere on oŕek?; ... - Jaun ari idatzi al dio eskutitz bat andere on oŕek?; Ez, ... baizik. -- Zuek ogi auek eman dizkiguzute gaur aŕatsaldean: Nortzuek eman dizkizuete ogi auek gaur aŕatsaldean?; ... Nori eman dizkiote ogi auek gaur aŕatsaldean?; ... Noiz eman dizkizuete ogi auek?; ... - Zer eman dizuete gaur aŕatsaldean?; ... - Guk eman al dizkizuegu ogi auek gaur aŕatsaldean?; Ez, ... baño. -- Zergatik utzi duzute oŕ beoŕ ori?; Jaun oŕek eskatu duelako: Nork utzi du oŕ beoŕ ori jaun oŕek eskatu duelako?; ... - Zer utzi dugu oŕ jaun oŕek eskatu duelako?; ... - Nun utzi dugu beoŕ ori jaun oŕek eskatu duelako?; ... - Zuk eskatu duzulako utzi al dugu oŕ beoŕ ori?; Ez, ... baizik. -- Zuk ez didazu aterako gosaria laisteŕ: Nork ez dizu aterako gosaria laisteŕ?; ... - Zer ez dizut aterako laisteŕ?; ... - Noiz eztizut aterako gosaria?; ... - Zuek aterako al didazute gosaria laisteŕ?; Ez, ... baño. -- Auŕ oŕek ez dizkigu eŕazki artuko ortuko madariak: Nork eztizkizue eŕazki artuko ortuko madariak?; ... - Zer eztizue eŕazki artuko auŕ oŕek?; ... - Nola eztizkizue artuko madariak auŕ oek?; ... - Zuk artuko al dizkiguzu eŕazki ortuko madariak?; Ez, nik ere ... -- Norentzat bialdu didazute uso au?; zuretzat bialdu dizugu: Zer bialdu dizugu zuretzat?; ... - Uso au aitarentzat bialdu al dizugu?; Ez, ... baño. - Iru uso bialdu al dizkizugu zuretzat?; Ez, ... baizik. -- Mutil gaizto oyek zuen idaztiak kenduko dizkizuete: Nortzuek kenduko dizkigute gure idaztiak?; ... - Zer kenduko digute mutil gaizto oyek?; ... - Zuek kenduko al dizkiguzute gure idaztiak?; Ez, ... baño. -- Gaur berari guzia esango diogu: Nork esango dio berari guzia?; ... - Zer esango diozute berari gaur?; ... - Noiz esango diozute berari guzia?; ... - Neri esango al didazute guzia gaur?; Ez, ... baizik. -- Zertarako etoŕi zerate Miaŕitzetik ona?; zuen uri polit au ikusteko etoŕi gera: Nor etoŕi da Miaŕitz'etik ona gure uri polit au ikusteko?; ... - Nundik etoŕi zerate ona gure uri polit au ikusteko?; ... - Nora etoŕi zerate gure uri polit au ikusteko Miaŕitz'etik?; ... - Aldameneko mendia ikusteko etoŕi al zerate Miaŕitz'etik ona?; Ez, ... baño. --

OGETABOSKAŔEN IKASKAYA

IZEN-JOKOA

Lauki orokaŕ ontan, orain arte ikasi diran izenari buruzko atzizki guziak agertzen dira, ta oyen bitartez EUZKAL-IZEN-JOKOA osotzen da.

Lauki orokaŕ ontan, atzizkiak alkaŕekiko dauzkaten aŕemanak ikusi ditezke, izakiak *zentzundun* ala *zentzungabe* diralarik; eta oyetxek ditugu atzizki guzti auek muetatzeko bi talde aundiak.

	ZENTZUNDUNAK			ZENTZUNGABEAK		
	Kepa	Gizon	Zaldi	Mendi	Ituŕi	Goi
-a -ak	-a -ak			-a -ak		
-n	-gan, -arengan -engan, -akan			-an -etan		
-tik	-gandik, -arengandik -engandik, -akandik			-tik -etatik		
-ra	-gana, -arengana -engana, -akana			-ra -etara		
-runtz	-ganuntz, -arenganuntz -enganuntz, -akanuntz			-runtz, -rontz, -rantz -etaruntz, -etarontz, -etarantz		
-raño	-ganaño, -arenganaño -enganaño, -akanaño			-raño -etaraño		
-rako	-ganako, -arenganako -enganako, -akanako			-rako -etarako		
-k	-k			-k		
-ko	---			-ko		
	---			-etako		
-en	-aren			-aren		
	-en	(jabetasuneko)		-en		
-kin, -gaz	-arekin, -agaz -ekin, -akaz					

-ntzat -ntzako -rako	-arentzat, -arentzako	-rako
	-entzat, -entzako	-etarako
-gatik -gaitik	-gatik, -arengatik -gaitik, -arengatik -engatik, -akatik -engaitik, -akaitik	-gatik, -arengatik -gaitik, arengaitik -engatik, -akatik -engaitik, -akaitik
-z	-z	-z
-i, -ri	-ari -ai, -ei, -er	-ari -ai, -ei, -er

OGETASEIGAŕEN IKASKAYA

«IZAN»'EKIN ELKARTUTAKO ADITZAK (1)

Iragangaitzak	Irangankoŕak
Bizi-izan	Al-izan, aal-izan
Ari-izan	Ezin-izan
Agiri-izan	Beaŕ-izan
	Nai-izan
	Gura-izan
	Maite-izan
	Goŕoto-izan
	Opa-izan
	Uste-izan

Aditz auek, tinkierazko oraiñaldian jokatzeko, iragankoŕ ala iragangaitz izango dan aditz laguntzaīearen eraen auŕean, beren lenengo itza (bizi, nai, uste, ...) jartzea naikoa dute; beste aldietarako, IZAN bitarteko aditz osoaren izena erabīli beaŕ dute, ta oŕekin -TEN (edo -TZEN) eta -KO (edo -GO) atzizkiak, egokia izango danez, gañeratzean.

Onela: Bizi naiz; bizi-izaten naiz; bizi-izan naiz; bizi-izango naiz.

Nai dut; nai-izaten dut; nai-izan dut; nai-izango dut.

Naiz eta «iragangaitzak» eta «iragankoŕak» izenpuruetaz bereizitasun ori jaŕi. AL-IZAN eta EZIN-IZAN aditzak, iragangaitzak diran egipenetarako laguntzaīearen era iragangaitzekin jokatzen dute.

Oraiñaldiaren adizkiñetan EZIN (Ezin-izan) erabīli beaŕ da, ezezko asmoa adierazteko; lenaldi ta geroaldiarenetan, beraren ordez, EZ AL jaŕi diteke, ots, AL-IZAN aditza ezetzean jokaturik (Azkue, D.).

E. b.: Igo *al* naiz; Eman *al* dut
Ezin igo naiz; *Ezin* eman dut
Ez naiz igo *al*-izango; *Ez* dut eman *al*-izango.

Geyenetan, «ari-izan» aditzaren zentzuna beste itz baten asmoari buruz dagokio; itz oŕek «-n» atzizkia eraman beaŕ du ta aditzaren auŕean

(1) Ikusi: 54, 73 ta 113'gn. ikaskayak.

jartzen da; ta itza aditza danean -TEN edo -TZEN atzizkiarekin erabilī beaŕ da.

E. b.: Lanean ari da («lanean dago» esango baikenuen)
Jaten ari da («jaten dago» esango balitz bezela).

-IK atzizkia; zati-izena (1); mugagabekoa.

Atzizki au, batez ere, galdetzeko, ezezteko ta zalantzazko esakuntzetan erabiltzen da. Mugatu gabe izango litzaken mugitza lez. Bera artzean agertzen dan aditzari dagokion itza gediñaz amaitzen danean, alkartzeko R bat ipiñi beaŕ da, «-ik»'en ordez «-rik» biurturik.

E. b.: Ogi*rik* ba al duzu? (*ogi-puska bat* ba al duzu?, *ezer*?, esango bailitzan).
Ez, eztut ori*rik* (*ogi-puska bat ere* ez dut, *ezer*, esango bagenu bezela).

Ayen beŕi oni*k* ezpadakizu (ayen *beŕi onen bat* ezpadakizu).

Bayezteko esakuntzetan, atzizki au izenondoekin azaltzen diran izenai itsasten zaye, baña izenondo oyek, nolabait, aditzondo bezela agertzen diranean; azalduta edo azaldu gabe egon ditezken aditzekin.

E. b.: Ogi*rik* aski daukagu (Ogi*rik*, aski daukagu) (ogia naikoa).
Eskeŕi*k* asko (Eskeŕi*k*, asko ematen dizut) (Eskeŕak asko ematen dizkizut).
Sagardo*rik* gutxi edan du (Sagardo*rik*, gutxi edan du) (Sagardoa dala-ta, gutxi edan du).
«Ori beste*rik* da» («Ori beste gauza*rik* da» esakuntzaren laburpena bezela) (Ori *ba-da* beste gauza bat) (Gipuzkoa'n erabiltzen dan esakuntza polita) (Etxaide'taŕ Yon jaunak diñoenez).
«Biotz aldakoŕ txakiī*arik* ugari» («Garoa» - Agiŕe'taŕ Txomin).
(«Biotz aldakoŕ txakiī*arik*, ugari» izan oi da) (Biotz aldakoŕ txakiī*a* dutenak, ugari dagoz).

Atzizki onek, batzuetan, norbait nola dagoen ere esan nai du nolabait (2).

E. b.: Ordi*rik* dago (Moskoŕa artuta dago) - Pozi*k* dago (Pozez dago).

---

(1) Ikusi: 73'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: Azkue, M. 20.

Eginkizunak

1. Lenengo lauki ontan, kulatzen ordez, agertzen diran galdetzeko, ageŕerazle ta izenordeak, ematen ditugun atzizkiekin nola alkartzen diran, esan eta idatzi:

		-RA	-GANA	-GANAÑO	-RI
Zer?	:	...			zeri?
Nor?	:		norengana?	...	...
Zein?	:		...	zeñenganaño?	...
Zertzuek?	:	Zertzuetara?			...
Nortzuek?	:		...	...	nortzuei?
Zeintzuek?	:		zeintzuengana?	...	...
Au	:	Ontara	...	...	...
Ori	:	...	oŕengana	...	...
Ura, a	:	...	...	arenganaño	...
Auek	:	...	...	...	auei
Oyek	:	Oyetara	...	...	...
Ayek	:	...	ayengana	...	...
Ni	:		...	niganaño	...
Zu	:		...	...	zuri
Bera	:		beragana	...	...
Gu	:		...	guganaño	...
Zuek	:		...	...	zuei
Berak	:		berengana	...	...

2. Bigaŕen laukian, kulatzen ordez, agertzen diran izakai zeaŕai dagozkien norekiko izenordeen artez eta zeaŕez-betetzeko aditzerak, izakai zuzen askaŕaz, esan eta idatzi:

		Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik	:		dizkizut	...		...	...
Zuk	:	Dizkidazu		...	...		...
Berak	:	...	...	dizkio	...	...	...
Guk	:		...	...		dizkizuegu	...
Zuek		...		...	dizkiguzute		...
Berak		...	...	...	...	...	dizkiete

3. Uŕengo esakuntza bakoitzean, aditzeran agertzen dan adi-yabea, bertan azaltzen dan izakai zeaŕaren ordez ipiñi, ta alderantziz, izakai zeaŕa adi-yabearen ordez; aditzetik at ematen diran izenordeak ere, beaŕa izango danez aldatzean; esanez eta idatziz:

Nik zuei sei madari eman dizki*zuet*; ... - Zuk guri ez dizki*guzu* erakutsi zure idazkiak; ... - Berak zuri oĩo batzuk aŕapatu dizkizu; ... -

Guk berari abere guziak atera dizki*ogu*; ... - Zuek berai amabi laurleko utzi dizki*ezute*; ... - Berak neri beŕi onak jakinerazi dizki*date*; ... - Zuek neri intxauŕak bialdu dizki*dazute*; - Guk berai gure asto biak eskeiñi dizki*egu*; ... - Berak guri izkiluak kendu dizki*gu*; ... - Zuk berari bere txapelak erabili dizki*ozu*; ... - Berak zuei ez dizki*zuete* opa gauza onak; ... - Nik berari iru aulki auek eramango dizki*ot*; ...

4. Uŕengoan ematen diran galderai erantzun bana eman; esanez eta idatziz:

Noruntz zoazte orain?; gure osabaren etxe zilo artaruntz goaz alkaŕekin: Norekin zoazte zuen osabaren etxe zilo artaruntz?; ... - Noren etxe zilo artaruntz zoaze?; ... - Ni al noa zuen osabaren etxe zilo artaruntz? Ez, ... baño. -- Arotz oŕen zura ekaŕi didate: Nork ekaŕi dizu arotz oŕen zura?; ... - Zer ekaŕi dizute?; ... - Nori ekaŕi diote arotz oŕen zura?; ... - Guk ekaŕi al dizugu arotz oŕen zura?; Ez, ... baizik. -- Zertan ari zera oŕ?; nere aitari gutun bat idazten ari naiz: Nor ari da bere aitari gutun bat idazten?; ... - Mutil oyek ari al dira beren aitari gutun bat idazten?; Ez, ... baizik. -- Zer ari naiz idazten?; ... -- Eguneko beŕiak irakuŕi dizkiegu: Nork irakuŕi dizkie eguneko beŕiak?; ... - Zer irakuŕi diezute?; ... - Nori irakuŕi dizkiozute eguneko beŕiak?; ... - Neri irakuŕi al dizkidazute eguneko beŕiak?; Ez, ... baño. -- Gure semeak kendu dizkigute: Nortzuek kendu dizkizuete zuen semeak?; ... - Zer kendu dizuete?; ... - Nortzuei kendu dizkiete beren semeak?; ... - Nik kendu al dizkizuet zuen semeak?; Ez, ... baizik. -- Piko auek nai al dituzute?; gero emango dizkizuet, bazkaldu ondoren: Nork emango dizkigu piko oyek?; ... - Zer emango diguzu?; ... - Nori emango dizkiozu piko oyek bazkaldu ondoren?; ... - Ume oyei emango al dizkiezu piko oyek bazkaldu ondoren?; Ez, ... baizik. -- Jantzi oso luze bat egin didate: Nork egin dizu jantzi oso luze bat?; ... Zer egin dizute?; ... Nori egin diote jantzi oso luze bat?; ... - Neri egin al didate jantzi oso luze bat?; Ez, ... baño. -- Gauza oso politak esan dizkiete: Nortzuek esan dizkiete gauza oso politak?; ... - Zer esan diete?; ... - Nortzuei esan dizkiete gauza oso politak?; ... - Guri esan al dizkigute gauza oso politak?; Ez, ... baizik. -- Egun oso zoriontsua opa dizuegu: Nork opa digu egun oso zoriontsua?; ... - Zer opa diguzute?; ... - Nori opa diozute egun oso zoriontsua?; ... - Jaun oŕek opa al digu egun oso zoriontsua?; Ez, ... baizik. -- Ez dizut ori eman nai: Nork eztit ori eman nai?; ... - Zer ez didazu eman nai?; ... -

Nori eztiozu ori eman nai?; ... - Oyek eman nai al didate ori?; Bai, ... -- Zuen opariak Jaun'arentzat daramazkizute: Nork daramazki bere opariak Jaun'arentzat?; ... - Zer daramagu Jaun'arentzat?; ... - Norentzat daramazkigu gure opariak?; ... - Zuk al daramazkizu zure opariak Jaun'arentzat?; Ez, ... baño. -- Ama oŕek bere altzoan bere semea dauka: Nork dauka bere altzoan bere semea?; ... - Nor dauka ama oŕek bere altzoan?; ... - Nun dauka ama oŕek bere semea?; ... - Nik al daukat nire semea nire altzoan?; Ez, ... baizik. -- Nik eztizkiot artuko bere intxauŕak nire anayari: Nork eztizkio artuko bere intxauŕak bere anayari?; ... - Zer eztiozu kenduko zure anayari?; ... - Nori eztizkiozu kenduko bere intxauŕak?; ... - Guk kenduko al dizkiogu bere intxauŕak zure anayari?; Ez, zuek ere ... -- Oso uŕutira joan beaŕ dugu: Nork joan beaŕ du oso uŕutira?; ... - Nora joan beaŕ duzute?; ... - Nik ere oso uŕutira joan beaŕ al dut?; Ez, ... baño. -- Zer eskatu diozu etxeko jabeari?; sartu al-izateko giltzak eskatu dizkiot: Nork eskatu dizkio giltzak etxeko jabeari sartu al-izateko?; ... - Zertarako eskatu dizkiozu giltzak etxeko jabeari?; ... - Nori eskatu dizkiozu giltzak sartu al-izateko?; ... - Guri eskatu al dizkiguzu giltzak sartu al-izateko?; Ez, ... baizik. -- Ez didazute utzi zuen otoi-idaztia: Nork eztizu utzi bere otoi-idaztia?; ... - Zer eztizugu utzi?; ... - Nori eztiogu utzi gure otoi-idaztia?; ... - Neskatil ayei utzi al diegu gure otoi-idaztia?; Bai, ... -- Gaur Laŕe'ko umetxoai Gure Aita ta Aguŕ Mirena irakasi dizkiegu· Nortzuek irakasi dizkie Laŕe'ko umetxoai Gure Aita ta Aguŕ Mirena?; ... Zer irakasi diezute Laŕe'ko umetxoai?; ... - Nori irakasi dizkiozute Gure Aita ta Aguŕ Mirena?; ... - Baseŕietako umetxoai irakasi al dizkiezute Gure Aita ta Aguŕ Mirena?; Ez, ... baño. -- Dirurik al duzute?; ez, eztugu dirurik: Nork eztu dirurik?; ... - Zer ez duzute?; ... - Eta nik al dut dirurik?; Bai, zuk ... -- Ze bizi-modu?; ni ondo ta zuek?; ongi samaŕ: Nor bizi da ondo?; ... - Zu bizi al zera ondo?; Bai, ni oso ... - Zure auzokoak ere ondo bizi al dira?; Ez, ... baizik. - Nola bizi zerate zuek?; Gu ... -- Yainko Aita siñisten dut: Nork siñisten du Yainko Aita?; ... - Nor siñisten duzu?; ... - Gizon guziek siñisten al dute Yainko Aita?; Ez, ... baño. -- Opil ori eskalari oŕi eman beaŕ diozu: Nork eman beaŕ dio opil ori eskalari oŕi?; ... - Zer eman beaŕ diot eskalari oŕi?; ... - Nori eman beaŕ diot opil ori?; ... - Etxeko nagusiari eman beaŕ al diot opil ori?; Ez, ... baizik. -- Eztizut biar idatzi al-izango: Nork eztit biar idatzi al-izango?; ... - Nori eztiozu

biar idatzi al-izango?; ... - Zer eztidazu biar idatzi al-izango?; ... Nai dudana ez ... -- Dirua naikoa al daukazute Eŕoma'raño joateko?; bai, ba-daukagu dirua naikoa Eŕoma'raño joateko: Nork dauka dirua naikoa Eŕoma'raño joateko?; ... - Zer daukazute Eŕoma'raño joateko?; ... - Noraño joateko dirua naikoa daukazute?; ... - Kanada'raño joateko dirua naikoa al daukazute?; Ez, ... baizik. -- Azkaltzeko intxauŕ batzuk ekaŕi nai dizkiogu, eta berak eztitu nai: Zer ekaŕi nai diozute askaltzeko?; ... - Zertarako ekaŕi nai dizkiozute intxauŕ batzuk?; ... - Nork eztitu nai intxauŕ oyek?; ... Guri ekaŕi nai al dizkiguzute intxauŕ batzuk?; Ez, ... baño.

OGETAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

-*N* aditz-atzizkia. (Alkaŕ-gai; alkarkizun-asmoa) (alkaŕekikoa).

Atzizki onek, izena aditzarekin alkartzeko bidea ematen du.

Esate baterako: Gaur *etoŕi daN gizona*, biar joango da.

Atzizkiaren atzetik doan izena mendeduna da, ta atzizkia aditzari itsatsita jartzen da.

Atzizki au, izen edo *-a, -ak* adierazleak (izenordeak) jaŕaiturik doanean, NOR, ZEIN, NORTZUEK, ZEINTZUEK galdetzekoai erantzuteko erabiltzen da.

Onela: Lengo adibidez, auxe galde dezakegu: *Nor* joango da biar?, eta erantzun au eman: Gaur etoŕi d*an* gizona; bai ta Zein? ere, gaur etoŕi d*ana*, erantzuteko.

Azken asmo au, askaŕ-eran, onela izango litzake: Etoŕi dir*anak*; beraz, bakaŕ-eraz *-na* ta askaŕ-eraz *-nak*.

Aditz bat, galdera zuzenak eztagozenean eta galdetzekoaren mende doanean, -N atzizkia aditzerari alkartu beaŕ zayo, naiz era bildua naiz itz bien bidez egiña izan; noski, mendedunaren izakeragatik, esakuntzak galderak izan gabe, galde-zentzuna daukatenean.

E. b.: Ikusiko dugu *noiz* datoŕe*n*. - Eztakit *noiz* etoŕiko naize*n*. - Jakitekoa izango da *zer* erantzungo digu*n*.

Beste esakuntzetan be, galdetzekorik eraman gabe ta zerbait aztertzeko zentzunaz zalantzaren asmoa adierazten badute, -N atzizki ori ere erabiĩi beaŕ da.

Oŕela, azken bi adibideetan galdetzekoa kendu dezakegu, ta era ontaz ipiñi: Eztakit etoŕiko naize*n* (etortzeko ziurtasunik eztudalako) (1).

Jakitekoa izango da erantzungo digu*n* (jakiteko, erantzungo al digu?).

---

(1) Ikusi: 73'gn. ikaskaya.

Eginkizunak

1. Lenengo laukian, kulatzen ordez, agertzen diran atzizkiak, galdetzeko, ageŕerazle ta izenordeai nola itsasten zaizkien esan eta idatzi:

	-N	-RUNTZ	-GAN	-GANUNTZ
Nor? :			norengan?	...
Zein? :			...	zeñenganuntz?
Nortzuek? :			nortzuengan?	...
Zeintzuek? :			...	zeintzuenganuntz?
Au :	Ontan	...	...	...
Ori :	...	ortaruntz	...	...
Ura, a :	...	...	arengan	...
Auek :	...	...	...	auenganuntz
Oyek :	Oyetan	...	...	...
Ayek :	...	ayetaruntz	...	...
Ni :			nigan	...
Zu :			...	zuganuntz
Bera :			beragan	...
Gu :			...	guganuntz
Zuek :			zuengan	...
Berak :			...	berenganuntz

2. Beste lauki ontan, kulatzen ordez ere jartzeko, izakai zuzen bakaŕaz, ematen diran norekiko izenordeai buruzko aditz artez eta zeaŕez-betetzeko laguntzaĺearen aditzerak esan eta idatzi:

	Nik	Zuk	Berak	Guk	Zuek	Berak
Neri :		...	dit		...	...
Zuri :	Dizut		...	...		...
Berari :	...	diozu	...	...	...	...
Guri :		...	...		diguzute	...
Zuei :	...		...	...	...	dizuete
Berai :	...	...	...	diegu	...	...

3. Emen ematen ditugun esakuntzetan, aditzerak onela aldatu: oraiñaldian dagozenak igaroaldikoen bidez eta oiturazko oraiñaldikoak geroaldikoen bitartez, eta bietan alderantziz ere; baña aldatzekoa dana bayetzean baldin badago, aldaturik izango dana ezetzean ipintzeko ere, ta aitzitik be:

Gure adiskideak ongi *bizi dira* emen; ... - Beti estulka *ari-izaten da*; ... Oraintxe *etoŕi al gera*; ... - Zuengana joan *beaŕ-izango dugu* laisteŕ; ... - *ezin jan ditugu* ogi-puska oyek; ... - Gaiztakeri ori egin dute *nai-izan dutelako*; ... - Mutil ori ezta ona etoŕiko, *gura-izango eztuelako*; ... - Gurasoek beren semeak gero ta geyago *maite dituzte*; ... - Gazte biuŕi auek beren arerioak *goŕoto-izaten dituzte*; ... - Eztugu *jan al-izan* okela gogoŕ ori; ... - Beaŕ danean *agiri dira*; ... - Gure eŕian egonaldi onena *opa-izaten dizuegu*; ...

4. Uŕengo galderai erantzun bana eman, esanez eta idatziz:

Auŕek beren gurasoai egun onak ematen dizkiete: Nortzuek ematen dizkiete egun onak beren gurasoai?; ... - Zer ematen diete auŕek beren gurasoai?; ... - Nori ematen dizkiote egun onak auŕek?; ... - Neri ematen al dizkidate egun onak auŕek?; Ez, ... baño. -- Ez al dizute ulea moztu?; oindiño ez, eztidate ori egin: Nori eztiote oindiño ulea moztu?; ... - Zer eztizute oindiño moztu?; ... - Noiz eztizute ulea moztu?; ... - Guri moztu al digute ulea?; Bai, ... -- Ikusi duzun gizona ona da: Nor da ona?; ... - Nolakoa da ikusi dudan gizona?; ... - Zu ere ona al zera?; Ez, ... baizik. -- Joan dan emakumea nire izeba da: Nor da zure izeba?; ... - Zein da joan dan emakumea?; ... - Joan dan emakumea nire aŕeba al da?; Ez, ... baño. -- Zaldi ayek nekazari oŕi belaŕ guzia jan diote: Zeintzuek jan diote belaŕ guzia nekazari oŕi?; ... Zer jan diote zaldi ayek nekazari oŕi?; ... - Nori jan diote zaldi ayek belaŕ guzia?; ... - Zure nebari jan al diote belaŕ guzia zaldi ayek?; Ez, ... baizik. - Aŕatsalde ontan josten ari naiz: Nor ari da josten aŕatsalde ontan?; ... - Zertan ari zera aŕatsalde ontan?; ... - Noiz ari zera josten?; ... - Neska ayek ere josten ari al dira aŕatsalde ontan?; Ez, ... baizik. -- Elizako apaiza abesten ari da: Nor ari da abesten?; ... - Zertan ari da elizako apaiza?; ... - Zuek ere abesten ari al zerate?; Ez, ... baño. -- Zer galdetu didazu?; gaurko ikaskaya galdetu dizut: Nork galdetu dit gaurko ikaskaya?; ... - Nori galdetu diot gaurko ikaskaya?; ... - Zuk galdetu al didazu gaurko ikaskaya?; Ez, ... baizik. -- Eztiguzu orain ongi erantzun: Nork eztizue orain ongi erantzun?; ... - Noiz eztizuet ongi erantzun?; ... - Nori eztiot orain ongi erantzun?; ... - Nola eztizuet orain erantzun?; ... -- Etxera igoten dan emakume ori oso maitagaŕia da: Nor da oso maitagaŕia?; ... - Nola da etxera igoten dan emakume ori?; ... - Nora igoten da oso maitagaŕia dan emakume ori?; ... - Zuek ere oso maitagaŕiak al zerate?; Ez, ... baño. -- Auŕ ayei eman dizkiezuten idaztiak txaŕak dira: Zertzuek dira txaŕak?; ... - Nolakoak dira aur ayei eman dizkiezuten idazkiak?; ... - Nori eman dizkiozute txaŕak diran idaztiak?; ... - Nik auŕ ayei eman dizkiedan idaztiak ere txaŕak al dira?; Ez, ... baizik. -- Gaur goizean jaten ari-izan gera: Nor ari-izan da jaten gaur goizean?; ... - Zertan ari-izan zerate gaur goizean?; ... - Noiz ari-

-izan zerate jaten?; ... - Etxeko moŕoyak ere jaten ari-izan al dira gaur goizean?; Ez, ... baño. -- Egin didazun galdera oso zaĺa da erantzuteko: Zer da oso zaĺa erantzuteko?; ... - Nolakoa da egin dizudan galdera?; ... - Nori egin diot erantzuteko zaĺa dan galdera?; ... - Zertarako da zaĺa egin dizudan galdera?; ... -- Ikusi duzuten nekazariak urte guztietan garagaŕa ereiten digu: Nork ereiten dizue garagaŕa urte guztietan?; ... - Noiz ereiten dizue garagaŕa ikusi dugun nekazariak?; ... - Nori ereiten dio garagaŕa urte guztietan ikusi dugun nekazariak?; ... - Guk ereiten al diogu nekazari oŕi garagaŕa urte guztietan?; Ez, ... baizik. -- Etxe ontarako ekaŕi dituzten aulkiak oso txikiak dira: Zertzuek dira oso txikiak?; ... - Zein etxerako dira oso txikiak, ekaŕi dituzten aulkiak?; ... - Nolakoak dira etxe ontarako ekaŕi dituzten aulkiak?; ... - Nire etxera eraman dituzten aulkiak ere oso txikiak al dira?; Ez, ... baño. -- Oski ayek Yon'entzat eraman dizkizut: Zer eraman didazu Yon'entzat?; ... - Nori eraman dizkiozu oski ayek Yon'entzat?; ... - Norentzat eraman dizkidazu oski ayek?; ... - Zure aŕebari eraman al dizkiozu oski ayek Yon' entzat?; Ez, ... baizik. -- Gutun oso luze bat idatzi digute idazle ayek: Zer idatzi dizuete idazle ayek?; ... - Nork idatzi dizue gutun oso luze bat?; ... - Nortzuei idatzi diete idazle ayek gutun oso luze bat?; ... - Neri idatzi al didate idazle ayek gutun oso luze bat?; Ez, ... baño. -- Galdetu dioguna eŕaza da: Nolakoa da galdetu diozutena?; ... Nork galdetu dio eŕaza dana?; ... - Zer galdetu diozute?; ... - Guri galdetu al diguzute eŕaza dana?; Ez, ... baizik. -- Etziko eguna jai aundiko eguna izango da: Zein izango da jai aundiko eguna?; ... - Nolakoa izango da etziko eguna?; ... - Biarko eguna izango al da jai aundiko eguna?; Ez, ... baño. -- Entzun dugun Meza oso luzea izan da: Zein izan da oso luzea?; ... - Nola izan da entzun duzuten Meza?; ... - Entzun duzuten Meza labuŕa izan al da?; Ez, ... baizik. -- Emango dizuedan pakea ezta pake labuŕa izango: Zein ezta labuŕa izango?; ... - Nola izango da emango diguzun pakea?; ... - Luzea izango al da emango diguzun pakea?; Bai, ... -- Esan dizuedan ikazkiña biar muru artako gurutze zuriraño elduko da: Nor elduko da biar muru artako gurutze zuriraño?; ... - Noiz elduko da muru artako gurutze zuriraño esan diguzun ikazkiña?; ... - Noraño elduko da biar esan diguzun ikazkiña?; ... - Zuek ere biar muru artako gurutze zuriraño elduko al zerate?; Ez, ... baño. -- Anboto'ko sorgiña guganuntz datoŕ eta berarekin bi antxume dakarzki: Nor datoŕ zuenganuntz?; ... - Norenganuntz datoŕ Anboto'ko sorgiña?; ... - Nork dakarzki berarekin bi antxume?; ... - Guk al dakarzkigu gurekin bi antxume?; Ez, ... baizik. -- Neska oŕen izena oso polita da: Zein da oso polita?; ... - Nolakoa da neska oŕen izena?; ... - Zer da oso polita?; ... - Itsusia al da neska oŕen izena?; Ez, ... baño. -- Nola duzu izena?; Edurne dut izena: Nork du Edurne izena?; ... - Zein da nik dudan izena?; ... - Zuk duzun izena Agurtzane al da?; Ez, ... baizik. -- Eman didazun luma apurtuta dago: Zer dago apurtuta?; ... - Nola dago eman dizudan luma?; ... - Ikasle oŕi eman diodan luma ere apurtuta al dago?; Ez, ... baño. -- Emango dizuedan sagaŕa ezta ustelduta egongo: Zer ezta ustelduta egongo?; ... - Nork emango dizue ustelduta egongo eztan sagaŕa?; ... - Nola egongo da emango diguten sagaŕa?; Umoa ... - Nori emango diote ustelduta egongo eztan sagaŕa?; ... -- Eman digutena zure etxerako da: Zer da nire etxerako?; ... - Norako da eman dizuetena?; ... - Nik eman dizuedana al da zuen etxerako?; Ez, ... baño. -- Intxauŕak asko eskatu dizkiegu ta gutxi eman digute: Zer eskatu diezute?; ... - Nori eskatu dizkiozute intxauŕak asko?; ... - Intxauŕak asko eman al dizkizuete?; Ez, ... baizik. - Neri eman al dizkidate intxauŕak gutxi?; Ez, ... baño.

OGETAZORTZIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

Eginkoŕa, iragankoŕa - Aditz laguntzaĺearen
aditzera orokaŕekin - Tinkiera -
Oraiñaldiko era - Eraketaren lenengo bidea -

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕi dagozkienak

Ni (Nerau) *N-* a) -U- -ZU

Izakai bakaŕa: *Ni* ta *N-*. -ZU- -TE / ---- -TE

Gu (Gerok) *G-* a) *-IT-* -U- -ZU

Izakai askaŕa: *Gu, G- -IT-* eta *-Z-*. -ZU- -TE / *-Z-* ---- -TE

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕi dagozkienak

Zu (Zerori) *Z-* a) *-IT-* -U- -T

Izakai bakaŕa: *ZU-, Z-* ta *-IT-*. -GU / --- (T)E

Zuek (Zerok) *Z-* a) *-IT-* -U- *-Z- -TE-* -T

Izakai askaŕa: *Zuek, Z- -IT-, -Z-* ta *-TE*. -GU / --- (T)E

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕi dagozkienak

Adizkin auek, 14'gaŕen ikaskayan ipiñi ta ikasiak izan diranak ditugu, ta oŕengatik eztira emen aipatzen.

Ikaskai ontakoak diran lau aditzera-taldeetan, asteko agertzen diran N-, G-, Z- ta Z- izkiak, bakaŕaren lenengo notiña, askaŕaren lenengoa, bakaŕaren bigaŕena ta askaŕaren bigaŕenari, kirian-kirian, dagozkien artez-betetzekoak adierazten dituzte; 14'gaŕen ikaskayan, bakaŕ eta askaŕaren irugaŕen notiñak adierazteko agertzen zan D- lenengo izkia bezela.

Uŕengo a), oraiñaldiaren ezagungaŕia da.

Azken iru taldeetan jaŕita dagoen -IT- erdizkiak, izakai edo artez-betetzekoaren askaŕ-zentzuna adierazten du; ta bigaŕen bakaŕ-notiñarentzat ere agertzen da, ondo dakigunez, aspaldian notin oŕen zentzuna askaŕarena zalako.

Oŕen ondoren -U- izkia dugu, ezaguna dan aditzaren eŕoa dana.

Lenengo askaŕ-notiñaren taldeko azken eran, eta bigaŕen askaŕ-notiñaren taldeko guzietan, -Z- izkia azaltzen da, izakai edo artez betetzekoaren askaŕ-zentzuna emateko bigaŕen bidea bezela.

Bigaŕen askaŕ-notiñaren taldean, esandako -Z- oŕen ondoren -TE- erdizkia ematen da, askaŕaren zentzuna be beŕiz emateko. -Z- ta -TE- oyen bitartez, bigaŕen bakaŕ-notiñaren adizkiñetik bigaŕen askaŕ-notiñarenak bereizten dira.

EGINKIZUNAK

1. Ematen dugun lenengo lauki ontan, beti bezela kulatzen ordez, bertan agertzen diran galdetzeko, ageŕerazle ta izenordeak, lau atzizki oyekin nola alkartzen diran esan eta idatzi :

	-RAÑO	-RAKO	-GANAÑO	-GANAKO
Nor? :			norenganaño	...
Zein? :		zeñetarako	...	...
Nortzuek? :			...	noztzuenganako
Zeintzuek? :		zeintzuetarako	...	...
Au :	Ontaraño	...	...	...
Ori :	...	...	oŕenganaño	...
Ura, a :	...	...	...	arenganako
Auek :	...	auetarako	...	...
Oyek :	Oyetaraño	...	...	...
Ayek :	...	...	ayenganaño	...
Ni :			...	niganako
Zu :			zuganaño	...
Bera :			...	beraganako
Gu :			guganaño	...
Zuek :			...	zuenganako
Berak :			berenganaño	...

2. Bigaŕen lauki ontan, lenengo leŕoan, izakai edo artez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak agertzen dira; ta ezkeŕ-aldean, goi-

tiberako zeŕendan, adi-yabeak diran beste izenordeak; alkaŕi dagozkion aditz laguntzaīearen erak, kulatzen ordez, esan eta idatzi:

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik :		zaitut	...		...	...
Zuk :	...		duzu	...		...
Berak :	Nau	...	...	...	...	...
Guk :		...	...		zaituztegu	...
Zuek :	...		...	...		dituzute
Berak :	...	...	...	gaituzte	...	...

3. Irugaŕen eginkizun ontan, esakuntza bakoitzean azaltzen diran adi-yabea ta artez-betetzekoa, alkaŕen eretzean aldatu, aditzeran eta aditzeratik at; esanez eta idatziz:

Nik gaur ondo ikusi *zaitut* elizan; ... - Oŕek ez *nau* entzun etxera eldu naizenean; ... - Zuk indaŕez eraman *duzu* ikastetxera; ... - Guk ez *zaituztegu* begiratu esan diozuten bezela; ... - Zuek zuen besoetan ekaŕiko *dituzute* oneraño; ... - Berak ez *naute* ikutu goize ontan; ... - Nik ere ez *ditut* iñoiz salatuko; ... Apaiz oŕek onetsi *zaitu* maitasunez; .. - Zergatik ez *dituzu* maite auŕ ayek?; ... - Zuek oso gogoŕ jazaŕi *gaituzute* beti; ... - Guk ez *ditugu* joko neska oyek; ... - Gizon azkaŕ ayek beren arerioa zaurituko *dute*; ...

4. Uŕengoan ematen diran galderai erantzun egoki bana eman, esanez eta idatziz:

Esan dizuguna egia da: Zer da esan dizuguna?; ... - Zein da egia?; ... - Oŕek esan dizuna ere egia al da?; Ez, ... baño. -- Bialdu dizkiguzuten olak artzain oŕen txabolarako izango dira: Zer izango da artzain oŕen txabolarako?; ... - Norako izango dira bialdu dizkizuegun olak?; ... - Noren txabolarako izango dira bialdu dizkizuegun olak?; ... - Zuk bialdu dizkidazun olak artzain oŕen txabolarako izango al dira?; Ez, ... baizik. -- Ez zaitut ikusi orain arte eldu naizenetik: Nork ez nau ikusi orain arte eldu danetik?; ... - Nor ez duzu ikusi orain arte eldu zeranetik?; ... Noiz arte ez nauzu ikusi eldu zeranetik?; ... - Noiztik enauzu ikusi orain arte?; ... -- Zorionak asko opa dizkizuet: Nork opa dizkigu zorionak asko?; ... - Zer opa diguzu?; ... - Nori opa dizkiozu zorionak asko?; ... - Lagun guztiek opa al dizkigute zorionak asko?; Ez, ... baño. -- Ezin esan diozu ori jaun oŕi: Zer ezin esan diot jaun oŕi?; ... - Nori ezin esan diot ori?; ... - Zergatik ezin esan diot ori jaun oŕi?; ... -lako. -- Ipiñi dizkiguten erbiak eztira guretzat, berentzat baizik: Zertzuk eztira zuentzat?; ... - Norentzat dira ipiñi dizkizueten erbiak?;

... - Nik ipiñi dizkizuedan erbiak al dira berentzat?; Ez, ... baizik. -- Irakasleak gaur zigortu zaituzte: Nork zigortu gaitu gaur?; ... - Noiz zigortu gaitu irakasleak?; ... - Nor zigortu du gaur irakasleak?; ... - Nik zigortu al zaituztet gaur?; Ez, ... baño. -- Zergatik ez diguzute galdetu ori lenago?; orain arte egin nai-izan eztugulako: Zer ez dizuegu galdetu lenago, orain arte egin nai-izan eztugulako?; ... - Noiz arte eztizuegu ori galdetu nai-izan?; ... - Nork eztizue ori galdetu nai-izan lenago?; ... - Agure oŕek galdetu nai-izan al dizue ori lenago?; Bai, ... -- Zertan ari zerate gela īlun ortan?; babak garbitzen ari gera: Nor ari da babak garbitzen gela īlun ortan?; ... - Nun ari gera babak garbitzen?; ... - Atso begiko oyek ari al dira gela īlun ortan babak garbitzen?; Ez, ... baño. -- Nire gurasoak maite ditut eta zorionak asko opa dizkiet: Nork maite ditu bere gurasoak?; ... - Nor da zuk maite duzuna?; ... - Zer opa diezu zure gurasoai?; ... - Zure gurasoek maite al zaitue?; Bai, ... ere ... -- Siñistu dioguna oso gezuŕ aundia da: Zer da siñistu diozutena? ... - Zer da gezuŕ aundia?; ... - Nori siñistu diozute gezuŕ aundia dana?; ... - Neri siñistu didazutena ere gezuŕa al da?; Ez, ... baizik. -- Gizon on eta zintzoek ez dituzte beren etsayak goŕoto: Nor eztute goŕoto gizon on eta zintzoek?; ... - Nortzuk dira gizon on eta zintzoek goŕoto eztituztenak?; ... - Ni goŕoto al naute gizon on eta zintzoek?; Ez, zu ere ... -- Margolari oŕek ezin margotu die nai dutena: Nork ezin margotu die nai dutena?; ... - Zer ezin margotu die margolari oŕek?; ... - Margolari oŕek nik nai dudana margotu al-izango al dit?; Bai, ... -- Zuen semeak ezin eraman du zama ori mendi artaraño: Nork ezin eraman du zama ori mendi artaraño?; ... - Zer ezin eraman du gure semeak mendi artaraño?; ... - Noraño ezin eraman du zama ori gure semeak?; ... - Nor da mendi artaraño zama ori ezin eraman duena?; ... -- Etoŕi dan emakume alarguna Ondaŕoa'koa da ta itun dago: Nungoa da etoŕi dan emakume alarguna?; ... - Nor da Ondaŕoa'tik etoŕi dana?; ... - Nola dago Ondaŕoa'tik etoŕi dan emakume alarguna?; ... - Zuek ere oso ituu al zagoze?; Ez, ... baizik. -- Ez dizugu opa-izan zori txaŕ ori: Nork eztit opa-izan zori txaŕ ori?; ... - Zer ez didazute opa-izan?; ... - Nori eztiozute opa-izan zori txaŕ ori?; ... - Guk opa-izan al dizuegu zori txaŕ ori?; ... -- Nire nebak erosi duen igali ori ezta auŕ onentzat: Norentzat ezta zure nebak erosi duen igalia?; ... - Nork erosi du auŕ onentzat eztan igali ori?; ... - Guretzat al da zure nebak erosi duen igalia?; Bai, ... -- Ez darabilzkigu saldu dizkiguzuten alkandorak: Nork eztarabilzki saldu dizkiogun alkandorak?; ... - Zer ez darabilzute?; ... - Ayek saldu

dizkizueten alkandorak al darabilzkizute?; Ez ta, ... -- Ondo lo-egin al duzu?; oso ondo, ez naiz itxartu zortzi t'erdiak arte: Nor da oso ondo lo-egin duena?; ... - Noiz arte etzera itxartu?; ... - Nor ezta itxartu zortzi t'erdiak arte?; ... - Nor da zortzi t'erdiak arte itxartu eztana?; ... -- Zertarako garbitzen nauzute?; ikastolan garbi-garbi agertzeko garbitzen zaitugu: Nork garbitzen nau ikastolan garbi-garbi agertzeko?; ... - Nor garbitzen dugu ikastolan garbi-garbi agertzeko?; ... - Etxean geratzeko garbitzen al nauzute?; Ez, ... baño. -- Ez digute egin nai-izan eskatu dieguna: Nork eztizue egin nai-izan eskatu diozutena?; ... - Zer eztizuete egin nai-izan?; ... - Zer eskatu diezute?; ... - Nik egin nai-izan al dut eskatu didazutena?; Bai, ... -- Jan duzuten lebatza bermeotaŕ oŕi erosi diot: Zer erosi diozu bermeotaŕ oŕi?; ... - Zer jan dugu?; ... - Nori erosi diozu jan dugun lebatza?; ... - Gizon txiro ayek jan al dute bermeotaŕ oŕi erosi diozun lebatza?; Ez, ... baizik. -- Mendian dauzkagun beoŕak eztira andik jetxiko negu arte: Zeintzuk eztira jetxiko andik negu arte?; ... - Noiz arte eztira jetxiko mendian dauzkazuten beoŕak?; ... - Nundik eztira jetxiko negu arte mendian dauzkazuten beoŕak?; ... - Nire beoŕak lenago jetxiko al dira andik?; Ez, ... ere, ... -- Espetxetik irten danak egi oso aundia esan digu: Nork esan dizue egi oso aundia?; ... - Nundik irten da egi oso aundia esan dizuena?; ... - Zer esan dizue espetxetik irten danak?; ... - Guk esan dizueguna egi oso aundia al da?; Ez, ... -- Gaur goizean eldu danak eztu artu nai ematen dioguna: Nork eztu artu nai ematen dioguna?; ... - Zer eztu artu nai gaur goizean eldu danak?; ... - Noiz eldu da ematen dioguna artu nai eztuena?; ... - Nik artu nai al dut zuek ematen didazutena?; Bai, ... -- Ez dizkiegu opa ekaŕi dizkiguten zoritxaŕak: Nork eztizkie opa ekaŕi dizkioten zoritxaŕak?; ... - Zer eztiezute opa?; ... - Nori eztizkiozute opa ekaŕi dizkizuen zoritxaŕak?; ... - Nik opa al dizkiet oyei, ekaŕi dizkidaten zoritxaŕak?; Ez, zuk ere ...

OGETABEDERATZIGAŔEN IKASKAYA

ERE itza. Galdekizuna edo galdetutako asmoa.

ERE itza, Bizkaya'n BERE dana (ta laburtuta BE), auŕean agertzen dan itz baten asmoa, berdin edo antzekoa dan beste bat adierazteko erabiltzen da, ain zuzen berdintasun edo antz ori nabaritzeko; ta naiz bayezteko naiz ukatzeko zentzunaz, esakuntzak asmo bat ala bestea ematen dutenez.

Itz au, nabari-erazi nai dan asmoa adierazten duen itzaren atzetik eta ondo-ondoan, jaŕi beaŕ da, bigaŕen itz ori naiz izen naiz izenondo, izenorde, aditzondo ala aditza izan; baña azken oni buruz auxe oartu beaŕ da: Itz au, ERE, ezin jaŕi diteke jokatuta agertzen dan aditz baten ondoren, aditz-izena edo atzizkiren bat daraman adizkiñarekin baño (Altube, «Erderismos», 119).

Onela: Gaur *ikaskaya ere* ikasi dugu.
Gaur ere, ikaskaya ikasi dugu.
Gaur, *ikasi ere* egin dugu ikaskaya.
Gaur, ikaskaya ikasi dugu*lako ere*, au eman digute.

Batzuetan, ERE'k duen zentzuna BAITA (BAI + TA) itzaren bitartez nabari-erazita izaten da, baña bigaŕen itz au ERE'kin alkartuta dagoen beste itzaren auŕetik joan beaŕ da; bai ta ERE'ren atzetik Bai beste itza jartzean.

Adibidez: Ardiak ikusi ditugu; *BAITA bildotsak ERE*. Eta ez guk bakaŕik, berak *ERE BAI* (ikusi dituzte) (1).

BA- aditz-auŕizkiarekin (2) esakera bat egiten da, asko darabilguna.

Onela: Ondo irakuŕi *BAduzu ERE* (3).

Len jaŕi dugun «*Gaur*, ikasi ere *egin dugu ikaskaya*» adibidea, laugaŕen ikaskayan ikusi zan galdetutako asmoari buruz alkartzean, auxe dugu argi oartu beaŕ dana: asmo ori, galdekizunarena, aditza nabarituta dagoenean, au ADITZ-IZENAz agertzen da, berari dagokion adizkin

(1) Ikusi: 90'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 23'gn. ikaskaya.
(3) Ikusi: 64'gn. ikaskaya.

bilduaz jaŕaituta, aditzjoko bildua daukaten aditzekin; edo bi itzen bidez egiña dagoen EGIN'en laguntzaĪearekin eratutako adizkiñaz jaŕaituta ere; ta galdekizunaren aditza iragangaitza danean, EGIN'en laguntzaĪea ere berdin iragangaitza izan beaŕ; baña iragankoŕa izan ezkero, laguntzalea ere iragankoŕa izango da.

IZAN iragangaitzarekin izan ezik, orduan adizkiña IZAN laguntzaĪe iragangaitzarena ere izango da.

Oŕela, «galdekizun»'aren arau orokaŕa eutsita izango da, ots, nabari-erazi nai dan asmo bañena adierazten duen itza, aditzaren auŕe-auŕean joan beaŕ dala diñoena. (Altube, «Erderismos» 27).

Esate baterako : Gizona dabil emen.

Adibide oni buruz, NOR dabiĪen asmoa, beñena bezela azaldu nai baldin badugu, onela esango dugu :

GIZONA dabil emen.

NUN dabiĪen nabari-erazi nai-izan ezkero, ordea :

Gizona *EMEN dabil* jaŕi bear da.

Eta gizonak dagiena *ZER* dan nabari-erazteko :

Gizona *IBIĪI dabi*l emen, esango dugu.

Auxe oŕela dalarik, bi itzen bidez egiña dan adizkin bat agertzen bada, au bezela : Gizona *ibiĪi da* emen; eta gizonak zer egin duen asmoa nabari-erazi nai baldin badugu, onela esango da : Gizona *IBIĪI EGIN DA* emen.

Aditza iragankoŕa baldin bada, bildua dan adizkiñaz egiña dagoen esakuntza, e. b., *Gizonak zaldia darama* esan ezkero, gizonak ZER dagien asmoa nabari-erazteko, *Gizonak ERAMAN DARAMA zaldia*, esango dugu.

Eta adizkiña bi itzen bidez egiña badago, e. b., *Gizonak zaldia eraman du* jartzen badugu, ta gizonak ZER egin duen asmoa nabari-erazi beaŕ bada, beste era au da erabiĪi beaŕ dana : *Gizonak ERAMAN EGIN DU zaldia* (1).

Iragangaitzaren asmoaz IZAN aditza erabiltzen bada, *Nire adiskidea ona izan da* bezelako esakuntzan, IZAN (IZAN DAla)'ren asmoa, beñena lez, nabari-erazi beaŕ baldin bada, onela esango dugu : Nire adiskidea, IZAN ERE, ona izan da.

IZAN ERE itz bi auen bidez aditzondo-era berezia dagigu, asko erabiltzen dana, ta «ain zuzen» esango bagenu bezela; edo «Nire adiskidea, BAI, ona izan da», esaten antzo.

(1) Ikusi: 57'gn. ikaskaya.

ERE itza, IZAN'i bezela, beste edozein aditzari alkaŕ aal dizaiokegu.

Oŕela, len aipatu ditugun «Gizona IBIĪI EGIN DA emen» eta «GIZONAK ERAMAN EGIN DU zaldia» bi adibideen asmoak, onela ere ageŕerazi ditzakegu, antzekoa dan zentzunaz :

Gizona, IBIĪI ERE, emen ibiĪi da (IBIĪI asmoari buruz, dagoaneko, ibiĪi dala jakin-erazteko bezela); eta :

Gizonak, ERAMAN ERE, zaldia eraman du (ERAMAN asmoari buruz, dagoaneko, eraman duela adierazteko lez).

«*Egon ere*, aizkora zugatz-eŕoari ezaŕita dago» (Olabide, «Itun Beŕia», 164-9 (1).

Eginkizunak

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, artez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak ematen ditugu; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak diran beste izenordeak ere; alkaŕi dagozkion aditz laguntzaĪearen erak, kulatzen ordez, esan eta idatzi :

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik :		...	dut		...	...
Zuk :	...		...	...		dituzu
Berak :	...	...	...	gaitu	...	...
Guk :		zaitugu	...		...	...
Zuek :	Nauzute		...	...		...
Berak :	...	...	...	...	zaituztee	...

2. Bigaŕen eginkizun au onela egiteko : Esakuntza bakoitzean agertzen diran adi-yabea ta artez-betetzekoa, alkaŕenganako aldatu, aditzeran bertan eta aditzeratik at; bide batez, bayetzean dagoen esakuntza ezezkoan ipiñi ta alderantziz; kulatzen ordez esan eta idatzi :

Zuk gaur goizean ezetsi *nauzu*; ... - Guk ez *dugu* jaun ori andietsiko; ... - Berak beti laguntzen *gaitu* oso ondo; ... - Nik ez *ditut* auŕ oyek bultzatzen; ... - Zuek geyegi goresten *gaituzute*; ... - Berak beren semea garbitzen *dute*; ... - Nik ez *zaituztet* toki ortatik kenduko; ... - Zuk atzeratu *gaituzu* oneraño; ... - Berak beren irakaslea maite *dute*; ... - Zuek ez *dituzute* iñoiz barkatzen; ... - Guk gela iĪun ortan sartuko *zaitugu* bereala; ... - Berak ez *zaitue* eŕazki auŕeratuko; ... --

(1) Ikusi: 84'gn. ikaskaya.

3. Emen ipintzen ditugun galderai erantzun on bat eman, bana, esanez eta idatziz :

Joan dan astetik ez zaituztegu gure etxean ikusi : Nork ez gaitu ikusi zuen etxean joan dan astetik? ; ... - Nun ez gaituzute ikusi joan dan astetik? ; ... - Noiztik ez gaituzute ikusi zuen etxean? ; ... - Nik ikusi al zaituztet nire etxean joan dan astetik? ; Bai, ... -- Bi ordutan emen euki gaituzte : Nork euki zaituzte emen bi ordutan? ; ... - Nun euki zaituztee bi ordutan? ; ... - Zenbat ordutan euki zaituztee emen? ; ... - Nik euki al zaituztet emen bi ordutan? ; Ez, ... baño. -- Ezin siñistu dugu esan diguzutena : Nork ezin siñistu du esan dioguna? ; ... - Zer ezin siñistu duzute? ; ... - Nik ezin siñistu al dut zuek esan didazutena? ; Bai, ... -- Asko jakin nai duzute ; baña ortarako asko ere aditaldu beaŕ duzute : Nork jakin nai du asko? ; ... - Zertarako aditaldu beaŕ duzute asko ere? ; ... - Guk ere asko aditaldu beaŕ al dugu asko jakiteko? ; Bai, ... -- Gaur zuen eginkizuna oso ondo egin aal duzute, asko ipiñi ez dizuedalako : Nork egin aal du gaur oso ondo bere eginkizuna? ; ... - Zer egin aal dugu gaur oso ondo? ; ... - Zergatik egin aal dugu gaur oso ondo gure eginkizuna? ; ... - Zuk ere oso ondo egin aal duzu gaur zure eginkizuna? ; Ez, ... baizik. -- Gure amona, izan ere, oso txeratsua izan da guganako : Nor izan da oso txeratsua zuenganako? ; ... - Zer izan da, izen ere, zuen amona zuenganako? ; ... - Norenganako izan da, izan ere, oso txeratsua zuen amona? ; ... - Auzoan bizi dan anderea ere oso txeratsua izan al da zuenganako? ; Ez, ... baño. -- Ikusi al nauzute antzokian? ; bai, ikusi zaitugu bai ta zure aita ere : Nun ikusi nauzute? ; ... - Nor ikusi duzute antzokian? ; ... - Ni bakaŕik ikusi al nauzute antzokian? ; Ez, ..., zure aita ere ... - Nik ikusi al zaituztet antzokian? ; Ez, ... baizik. -- Emakume baseŕitaŕ oyei bota egin diete ekaŕi duten esne guzia : Nori bota diote ekaŕi duen esne guzia? ; ... - Zer egin diote emakume baseŕitaŕ oyei? ; ... - Zer bota diete emakume baseŕitaŕ oyei? ; ... - Guk bota al diegu emakume baseŕitaŕ oyei ekaŕi duten esne guzia? ; Ez, ... baño. -- Gure ikaskaya ikasten ari gera : Nor ari da bere ikaskaya ikasten? ; ... - Zer ari zerate ikasten? ; ... - Ikasle guziak ari al dira beren ikaskaya ikasten? ; Ez, ... baño. -- Nik nire piīota ekaŕi dakart : Nork dakaŕ bere piīota? ; ... - Zer dakarzu? ; ... - Zer dagizu? ; ... (Nik ekaŕi dakart ...) - Mutil oŕek al dakaŕ bere piīota? ; Ez, ... baizik. -- Ez dizkizugu opa ekaŕi dizkiguzun gaitzak : Nork eztizkit opa ekaŕi dizkiodan gaitzak? ; ... - Zer ez didazute opa? ; ... - Argin ari opa al dizkiozute ekaŕi dizkizuen gaitzak? ; Ez, ari ere ez ... -- Abestu duena ixil dago,

ta ixil dagoenak abestuko du : Nor dago ixil? ; ... - Nork abestuko du? ; ... - Zu ixil al zagoz? ; Ez, ... baño. - Zuek abestuko al duzute? ; Ez, ... baizik. -- Ori egin ez duenak bestea egingo dizu : Nork egingo dit bestea? ; ... - Zer egingo dit, ori egin ez duenak? ; ... - Zuek egingo al didazute bestea? ; Ez, ... baño. -- Azkaltzeko eman dizkiguzuten gurin eta ogia eztira guretzat, auŕ oyentzat baizik : Zer ezta zuentzat auŕ oyentzaz baizik? ; ... - Zer da auŕ oyentzat? ; ... - Azkaltzeko eman dizkizuegun gurin eta ogia zuen seme-alabaentzat al dira? ; Ez, ... baño. -- Bere zaldiagan oso laisteŕ ekaŕi nau : Nork ekaŕi zaitu oso laisteŕ bere zaldiagan? ; ... - Nun ekaŕi zaitu oso laisteŕ? ; ... - Nola ekaŕi zaitu bere zaldiagan? ; ... - Gu ekaŕi al gaitu oso laisteŕ bere zaldiagan? ; Ez, ... baizik. -- Ez dizugu edestu nai auzo artan gertatu dana : Nork eztit edestu nai auzo artan gertatu dana? ; ... - Zer eztidazute edestu nai? ; ... - Nori eztiozute edestu nai auzo artan gertatu dana? ; ... - Lagun ayei edestu nai al diezute auzo artan gertatu dana? ; Ez, lagun ayei ere ... -- Ez dizuete esan dakiten guzia : Nori eztiote esan dakiten guzia? ; ... - Zer ez digute esan? ; ... - Zuk esan al diguzu dakizun guzia? ; Bai, ... -- Nora ekaŕi gaituzute? ; txoko edeŕ ontara ekaŕi zaituztegu : Nork ekaŕi gaitu txoko edeŕ ontara? ; ... - Nor ekaŕi duzute txoko edeŕ ontara? ; ... - Atso begiko oŕek ekaŕi al gaitu txoko edeŕ ontara? ; Ez, ... zaizik. -- Emendik oso ondo ikusiko zaitut : Nork ikusiko nau ortik oso ondo? ; ... - Nor ikusiko duzu ortik oso ondo? ; ... - Nundik ikusiko nauzu oso ondo? ; ... - Guk ikusiko al zaitugu oso ondo emendik? ; Ez, ... baño. -- Jatekorik emango al diguzute? ; bai, baña eztizuegu emango nai duzuten guzia : Nork emango dizue jatekorik? ; ... - Zer emango dizuegu? ; ... - Nori eztiogu emango nai duen guzia? ; ... - Oŕek nai duen guzia emango al diogu? ; Bai, ... -- Ikusi nauzun etxean bein bakaŕik egon naiz : Nor egon da bein bakaŕik ikusi dudan etxean? ; ... - Noiz egon zera ikusi zaitudan etxean? ; ... - Nun egon zera bein bakaŕik? ; ... - Askotan egon al zera ikusi zaitudan etxean? ; Ez, ... baizik.

4. Izkirimiri au buruz ikasi, gero nun-nai esan aal-izateko : «Salomon'en ama» - «Besteak bezela ura ere il da. Nork eman semeari beŕi txaŕ ori? Gudari batek, zerbait irabazteko asmoz, bere gain artzen du arlo gaitza. Bakaldunagana urbilduta, itz auek diñozki : Berpizte-jayan ilzaŕ, iñauteriz ilbeŕi ; Salomon bakaldunaren ama ezta ez gose ez egaŕi. - Orduan il da. - Zeroŕek esan duzu». -- Eta gudaria pozik, irabazi duenaz» (Azkue - «Prontuario de la lengua vasca» - 62'gn. oŕialdean).

OGETAMARGAŕEN IKASKAYA

-LA aditz-atzizkia (Lokaŕitzaren zentzuna).

Esate baterako : Aitak esan du, biar etoŕiko da*la*.

Ogetabatgaŕen ikaskayan ikusi genuen -LAKO atzizkia, bertan ere esaten zanez, ZERGAITIK galdetzekoari erantzuteko erabiltzen da; era berean -LA beste atzizki au ZER galdetzekoari erantzuteko darabilgu; esakuntza batean (nabaririk ala agertu gabe) egon ditezken bi aditzen asmoak alkarganatzeko.

Lentxoago ipiñi dugun adibideak adierazten duenari buruz, auxe galde dezakegu : *ZER esan du aitak?*, ta onela erantzun : Aitak, etoŕiko da*la* esan du; edo laburkiago ere : Etoŕiko da*la*.

Lenengo erantzunean bi aditz agertzen dira : *etoŕi* ta *esan*; bigaŕenean *esan* ezta agertzen baña eŕazki igartzen da, ta ain zuzen *esan du* bere era egokian.

Ba-ditu -LA atzizki onek esandakoa eztiran beste zentzunak ere.

E. b. : Nutil au ona da*la* ta ... ; onela esango bagenu : Mutil au ona izatean ... (1).

Au, ori, a ageŕerazleai ere alkartzen zaye, zentzun berezi bat adierazteko :

On*ela* = era ontaz; Oŕe*la* = era ortaz; A*la* = era artaz (2).

Atzizki onek eztu aldatzen ezezkoŕa dan adizkiñaren itzen kiria, beste aditz-atzizkiek dagiten bezela, ikasi dugunez, laguntzaĭea, ukatzeko FZ itzarekin, adizkiñaren azken-aldera eramaten.

Onela, asieran ipiñi dugun adibidea, ezezko eran jaŕi ezkero, «Aitak esan du biar *etoŕiko ez dala*» esan ordez, «Aitak esan du, biar *ez dala etoŕiko* esan dezakegu (3).

-NA (-N + -A) ta *-NIK* (-N + -IK) atzizkiak (Lokaŕitzaren asmoa ere; baña ez *-LA*'k, zeatzez, adierazten duen bezela) (4).

Atzizki bi auek, «jakin, bayeztu, ukatu, siñistu, ezagutu, ikusi,

(1) Ikusi: 49'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 115'gn. eta 148'gn. ikaskayak.
(3) Ikusi: Azkue, «El vascuence y varias lenguas cultas», 34'gn. oŕialdean.
(4) Lkusi: 92'gn. ikaskaya.

esan» aditzekin erabiltzen dira; lenengoa, -NA, bayeztekokak diran esakuntzetan, eta bigaŕena oŕelakoak eztiranetan (1).

E. b. : Ba-dakizu zuen seme ori ona da*na* (Zuen seme ori ona da*la* dakizu). Eztut uste datoŕen astean ikusiko duzute*nik* (Datoŕen astean iñola ere ikusiko duzute*la* eztut uste) (2).

EGINKIZUNAK

1. Lenengo laukian agertzen diran aditzeraen aurkakoak, kulatzen ordez, esan eta idatzi :

Dizut; ... - diguzu; ... - diozute; ... - dizuegu; ... - dit; ... - dizute; ... - dizkidazu; ... - dizkigu; ... - dizkizuete; ... - dizkie; ... - dizkizuet; ... - dizkiguzute; ... - nauzu; ... - zaitugu; ... - zaituzte; ... - gaituzu; ... - dut; ... - ditugu; ... - zaitue; ... - zaituztet; ... - naute; ... - dute; ... - gaitu; ... - dituzute; ...

2. Beste eginkizun ontan, -LA ta -LAKO atzizkiak erabiltzean, esakuntza bakoitzerako jartzen diran adi-yabea ta artez-betetzekoa alkaŕi buruz aldatu, aditzaren barnean eta aditzetik at ere bai ta, bayezteko diran esakuntzak ezezkoen bidez aldatu be, ta alderantziz; kulatzen ordez esan eta idatzi :

Nik beti onetsiko *zaituzted*ala uste dut; ... - Zuk eŕazki atzipetuko ez *nauzu*la esaten dizut; ... - Uŕuñatu *gaituzute*lako, ez *zaituztegu* gure artean onartuko; ... - Geyegi jan duzulako, eŕuki *zaitugu*; ... - Oyek egun guztietan berekin ez *zaituztee*la ekaŕiko jakin beaŕ duzute; ... - Gutxi maite *nauzute*lako ez naiz etoŕiko beŕiz zuengana; ... - Ezin bizi gera gizon ankeŕ oyekin goŕotoz menperatu *gaituzte*lako; ... - Txiro zarpail ayek sorosi ez *dituzute*la deadarka diñote; ... - Ez *naute* atzitu oso ondo gorde *nauzu*lako; ... - Amak beti oso ongi oŕazten *gaitue*la bein eta beŕiz esaten dizugu; ... - Biar gaur baño geyago zamatuko ez *zaitugu*lako, obeto ibiĭiko zera; ... - Datoŕen urtean obeto sarituko *gaitue*la agindu digu; ...

(1) Ikusi: Azkue, M.
(2) Ikusi: 73'gn. ikaskaya.

3. Emen jartzen diran galderai, eman egokia izango zayen erantzun bana; itzez eta idatziz:

1. Lenengo eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan, erkatzea da aldatu beaŕ dana, onela : geyagotasunarena geitasunarenaz, eta alderantziz, geitasunarena geyagotasunarenaz, baña aldatzekoa dana bayezkoa bada, bestea ezezkoa jartzean eta alderantziz ; kulatzen ordez, esateko ta idazteko :

Gure lana zuena baño aztun*ago* da, eiki ; ... - Gizagaixo oyek laguntza *geyago* ukan nai dute ; ... - Ene ustez gure mutīlak alay*egi* dabiltz ; ... - - *Geyegi* dala dirudi eskatzen diguzutena ; ... - Gaurko aizea atzokoa baño zakaŕ*agoa* da ; ... - Gure auŕekoek neke *geyegi* jasan beaŕ-izan zuten ; ... - Etzera ibīliko auŕerantzean gaur arte baño aise*ago* ; ... - Emengo nekazariek abere *geyegi* daukate ; ... - Nire pīlota ez da zurea baño motel*agoa* ; ... - Gazte oyek eztute ogi *geyegi* jaten ; ... - Zuen lagunak eztira agertzen gizon basati oyek baño aŕo*ago* ; ... - Toki batzuetan eztute nai izkīlu *geyegi* metatu ; ...

2. AREAGO itza erabiltzen dan esakuntza bakoitzean, GERO ta ... -AGO edo GERO ta ... GEYAGO beste itzen bidez aldatu, ta alderantziz ; baña aldatzekoa dana bayetzean egon ezkero, aldatuko danaz galdera bat egitean, ta alderantziz ere ; kulatzen ordez, esan eta idatzi :

Beti gaiztoak izan diran jokalari oyek, orain *areago* ; ... - Ogasunak asko euki dituzten ayek *gero ta geyago* nai dute ; ... - Oso biuŕiak ditugun gudariak eztut uste *areago* izango dirala ; ... - Baña zuk, *gero ta* okela *geyago* jango al duzu? ; ... - Zintzoak baldin bazerate, ez al zerate izango beti *areago*? ; ... - Ez al dute oyek *gero ta geyago* ikasi? ; ... - Ardandegietan dabilzten mozkortiak *areago* izaten dira ; ... - Gure auŕak *gero ta geyago* ari dira jolasten ; ... - Ez al gera *gero ta* eŕukioŕ*agoak* izango? ;

... - Zertarako euki beaŕ dut lusagaŕ *areago?*; ... - Eztakigu nolakoa zeran, *gero ta* aŕoputz*agoa*; ... - Euki al-izango al dugu *gero ta* etsai *geyago?*; ...

3. Orain jartzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esateko ta idazteko:

Oŕek zuek baño zama aundiago eramango du: Nork eramango du guk baño zama aundiago?; ... - Zer eramango du oŕek?; ... - Nork baño zama aundiago eramango du oŕek?; ... - Zuk nik baño zama aundiago eramango al duzu?; Ez, ... baño. -- Guri baño gauzak geyago esan dizkiete: Nortzuei esan dizkiete zuei baño gauzak geyago?; ... - Zer esan diete?; ... Zuei baño gauzak gutxiago esan al dizkiete?; Ez, ... baizik. -- Ez al zaizkizue eroriko geŕiko oyek?; ez, eztugu uste eroriko zaizkigula: Nori etzaizkio eroriko geŕiko oyek?; ... - Zertzuk etzaizkizue eroriko?; ... - Uste al duzu niri ere geŕikoak eroriko zaizkidala?; Ez, ... -- Agindu digutena bete ez dutela ikusten dugu: Zer ikusten duzute?; Nortzuek ikusten dute agindu dizuetena bete eztutela?; ... - Zuk ikusten al duzu agindu dizuedana bete ez dudala?; Ez, ... -- Laisteŕ itzuli beaŕ dugu: Nork itzuli beaŕ du laisteŕ?; ... - Noiz itzuli beaŕ duzute?; ... - Berandu itzuli beaŕ al dut nik?; Ez, ... baizik. -- Etxe auek uri artakoak baño aundiagoak dira: Zertzuk dira uri artako etxeak baño aundiagoak?; ... - Nolakoak dira etxe auek?; ... - Nolakoak dira uri artako etxeak?; ... - Emengo etxeak uri artakoak baño aundiagoak al dira?; Ez, ... baño. -- Emen Donostia'n baño laurleko geyago eskeiñi diete: Nun eskeiñi diete Donostia'n baño laurleko geyago?; ... - Zer eskeiñi diete emen?; ... - Neri eskeiñi al didate emen Donostia'n baño laurleko gutxiago?; Ez, ... baizik. -- Etzi, egia esan dizugula jakingo duzu: Zer jakingo dut etzi?; ... - Nork jakingo du etzi egia esan diozutela?; ... - Noiz jakingo dut egia esan didazutela?; ... - Biar jakingo al dugu egia esan diguzutela?; Ez, ... baño. -- Eztakit zer aiztu zaidan: Nork eztaki zer aiztu zayon?; ... - Zer da zuk eztakizuna?; ... - Zuek ba al dakizute zer aiztu zaizuen?; Bai, ... -- Eztakit zuk esan didazun ori aiztu zaidala: Nork eztaki zuk esan diozun ori aiztu zayola?; ... - Zer ez da zuk eztakizuna?; ... - Guk ba al dakigu esan diguzuten ori aiztu zaigula?; Bai, ... -- Iruña'tik datozenean, beti besarkatzen gaituzte: Nork besarkatzen zaituzte Iruña'tik datoŕenean?; ... - Noiz besarkatzen zaituztee?; ... - Nor besarkatzen dute Iruña'tik datozenean?; ... - Zuk besarkatzen al nauzu beti, Iruña'tik zatozanean?; Ez, nik ...

baizik. -- Uste-izan dut ikastetxean onenak izan zeratela: Nork uste-izan du ikastetxean onenak izan gerala?; ... - Zer uste-izan duzu?; ... - Ikastetxean txaŕenak izan gerala uste-izan al duzu?; Ez, ... baño. -- Geyena daukanak gutxiena eman du: Nork eman du gutxiena?; ... - Zer eman du geyena daukanak?; ... - Gutxiena daukanak geyena eman al du?; Ez, ... baizik. -- Gero ta gaiztoagoa zera; oŕela jaŕaitzen bazera, zure bizia gaizki amaituko duzu: Nola amaituko du bere bizia gero ta gaiztoagoa danak?; ... - Zer amaituko du gaizki gero ta gaiztoagoa danak?; ... - Nola amaituko du gaizki bere bizia gero ta gaiztoagoa danak?; ... - Zuk ere zure bizia gaizki amaituko al duzu?; Ez, ... baño. -- Zure anayak beti on onak izan dira: Nortzuk izan dira beti on onak?; ... - Nola izan dira beti nire anayak?; ... - Noiz izan dira nire anayak on onak?; ... - Eliz-gizon ayek ere beti on onak izan al dira?; Bai, ... -- Gero ta urte geyago daukagu: Nork dauka gero ta urte geyago?; ... - Zer daukazute?; ... - Nik ere gero ta urte geyago al daukat?; Bai, ... -- Etzaigu aiztuko gu guziok baño obea zerala: Zer etzaizue aiztuko?; ... - Nori etzayo aiztuko zuek baño obea naizela?; ... - Zer da zuei aiztuko ez zaizuena?; ... - Oyei aiztuko al zaye berak baño obeak zeratela?; Ez, oyei ere ... -- Ez dizuet esango nire izeba laisteŕ etoŕiko dala: Nork eztigu esango zure izeba laister etoŕiko dala?; ... - Zer ez diguzu esango?; ... - Nor laisteŕ etoŕiko dala ez diguzu esango?; ... - Nik esango al dizut zure izeba laisteŕ etoŕiko dala?; Ez, ... baizik. -- Jakitean jaun oŕek irakasle onenak baño geyago daki: Jakitean, nork daki irakasle onenak baño geyago?; ... - Zer daki jaun oŕek jakitean?; ... - Jakitean zuk al dakizu irakasle onenak baño geyago?; Ez, ... baño. -- Izan ere eztaukagu zuk ainbat idazti: Nork eztauka nik ainbat idazti?; ... - Izan ere zer eztaukazute?; ... - Izan ere gizon jakitun oyek al daukate nik ainbat idazti?; Bai, ... eta geyago ere. -- Zer egin du Yon'ek eŕi ontan?; Yon ibiĪi egin da eŕi ontan luzaroan: Nor ibiĪi da eŕi ontan luzaroan?; ... - ... - Nun ibiĪi da Yon luzaroan?; ... - Noiz ibiĪi da Yon eŕi ontan?; ... - Zuek ere eŕi ontan luzaroan ibiĪi al zerate?; Ez, ... baizik.

4. Uŕengo irakurgaya ongi ta astiro irakuŕi:

«Antoni, gazte lerdena, zazpi oin eta erdi bai luze, ala ere ez zortzi aŕoa. Bizkaŕez zabal eta geŕiz estu, zume ezea bezin bigun. Esneak azi-azten omen ditu auŕak. Andoni amaika katiĪukada artua, Gorbea-mendipeko bere basetxean. Ura zan esnea, ura! Jetzi beŕia, zindo ta koipetsua;

alako eŕaberorik! Baña berak ziñoenez, Gorbea-mendiko ireltxoen eŕegeak gorosti-adaŕez belaŕia zulatu ziolako, azi omen zan. Txikitan gertatua, baña ez aiztu ari beñere.

Bilbao'ko «Ameriketaŕ Ezaubide» etxeko liburutegian ari zan gure mutiĪa. Liburu-zaya, Sara, neskatxa xaloa ta eŕitaŕa bera, Andoni'ri amaika laguntza egin ziona. Burua jaso zueneko batean, Sara'k kiñu egiñez uŕutizkiña erakutsi zion. Ari eskeŕ jakin zuen itxas-piloto ziranak Indianopolis'eko Ikastola Nagusi'ra joan zitezkela ikaste-sari bidez, atomika-indaŕ arazoaz ikastera. Emezortzi urte bete orduko, Ameriketa'ra joan zan eta iru urte egin zituen. MutiĪaren azkaŕa! Ikasle guztietan auŕenekoa...».

«Ilargian ere Euskeraz». Muñoyerro'taŕ Jose Luis (7'gn. Oŕialdean).

OGETAMAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

ERKATZEA

—Erkatzearen beste azpegiak—

1.ª Alkaŕekiko izenen erkatzea, ANTZEKO, ERAKO, IRUDIKO itzen bidez egin diteke.

Itz auek erabiltzean, erkatzea zeñekiko egiten dan izenak -EN atzizkia eraman beaŕ du.

E. b.: Gure biziak, itxasora doazen ibay*en antzekoak* dira (Gure biziak ibayen antza dute).

2.ª Erkatzea aditzen artean egiten danean, BEZELA edo BEZALA itza darabilgu.

E. b.: Egin bedi Zure naya zeruan *bezela*, luŕean ere (Bietan berdin).

Adibide ontan ezta agertzen, erkatzea zeñekiko egiten dan aditza. Esakuntza osoa onela izango litzake:

Egin bedi Zure naya, zeruan egiten d*an bezela*, luŕean ere.

Edo, aditzen artean egiten dan erkatzea argiago azaldu dedin:

Zeruan egiten d*an bezela*, egin bedi Zure naya luŕean ere.

Bigaŕen adibide onen bidez, 33gn. ikaskayan esan genuena nabari-erazi nai dugu, auxe: Erkatzea zeñekiko egiten dan aditza agertzen danean, aditz oŕek alkaŕ-gayezkoa dan -N atzizkia eraman beaŕ duela, ta *bezela* itzaren auŕetik ondo-ondoan agertzeko (1).

3.ª Erkatzea egiteko, -LAKO atzizkiaz (2); onela erabiltzeko:

NOR eta ZER galdetzekoekin, beste itz auek egiten: NOLAKO (3) eta ZELAKO. NOLAKO = NOLA + -KO - ZELAKO = ZELAN + -KO.

Ageŕerazleekin ere berdin: ONELAKO (ONELA + -KO), OŔELAKO (OĪELA + -KO), ALAKO (ALA + -KO).

Bai ta izen eta izenordeekin be; orduan zentzuna BEZELA edo BEZELAKO (4)'en antzekoa da.

---

(1) Ikusi: 83'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 21, 56 ta 81'gaŕen ikaskayak.
(3) Ikusi: 3'gn. ikaskaya.
(4) Ikusi: Azkue, D.

E. b. : *Nolakoa* (*Zelakoa*) da ori? (*Nola* da ori?).

Eztut ikusi *onelako* etxe edeŕik. (Eztut ikusi etxe au *bezin* edeŕa (edeŕik); etxe au baño edeŕago, bat ere ez).

Bigaŕen adibidean idetasunezko erkatzearen zentzuna dago; ipiñi dugunez, onela ulertzeko : Eztut ikusi etxe au *bezin* edeŕa.

«Bere Lagia-*lakoa* da = Bere Lagia *bezelakoa* da».

Zu*lako* bat (Zu *bezelako* bat) biīatu nai-izan dugu.

Ba-dugu beste itz bat DIÑA tasunezko zentzunaz erabiltzen dana. Onela :

Enaiz zure *diña* = Enaiz zu *ainbat* (zu baño gutxiago naiz).

Zentzun oŕen antzekoa, onela be egiten da :

TASUN : ONEN, OŔEN, AREN (auxe, laburturik, AIN).

Itz auek, dagozkienen auŕetik doaz, ondo-ondoan.

E. b. : Eztut iñoiz ikusi *onen ume* edeŕik (Eztut iñoiz ikusi au *bezin* ume edeŕa (edeŕik) (bat ere ez).

AINDO : ONENBESTE, OŔENBESTE, ARENBESTE (auxe, laburturik, AINBESTE).

E. b. : Diru asko daukala?; ez *oŕenbeste* (eztauka *ainbat*).

Eginkizunak

1. Eginkizun ontan ematen ditugun esakuntzetan, erkatzea ere izango da aldatzekoa; era ontaz : Geyagotasunarena goyentasunarenaz eta, alderantziz, goyentasunarena geyagotasunarenaz; bayezkoak eta ezezkoak be alkaŕi buruz aldatzean; kulatzen ordez, esan eta idatzi :

Areto ontako maya, gela artakoa baño aundi*ago*a da; ... - Jaun ori, gure auzirako, epaīle one*na* izango dugu; ... - Gaurko zuen zoritxaŕa ez da guk jasan beaŕ-izan duguna baño gogoŕ*ago*a; ... - Jokalari auek dira *geyen* irabazi dutenak; ... - Sestao'ko aŕaunlariak besteak baño indartsu*ago* ari-izan dira; ... - Gu gera aŕobi ortatik *geyen*a atera dugunok; ... - Eztugu nai ardo *geyago* edan; ... - Lekaide oyek apale*n*ak bezela agertu zaizkigu; ... - Zuk dagizun lana ezta gurea baño onuratsu*ago*a; ... - Erori diranak, *geyen*ak izan dira; ... - Zuek dakarzute guk baño zikinkeri *geyago*; ... - Ango aŕoputzak ergele*n*ak bezela azaldu zaizkizue; ...

2. *Onelako, oŕelako* ta *alako* itzak alde batetik, eta *onen, oŕen* ta *aren* (*ain*) beste itzak bestetik, mail bakoitzari dagozkionak, esakuntza auetan alkaŕi buruz aldatu; bayezko ta ezezkoak, galderazkoen bidez aldatzen be, ta alderantziz; kulatzen ordez, esateko ta idazteko :

Onelako giro edeŕa gutxitan egon da; ... - *Oŕen* zailtasun aundirik ezta edonun ikusten; ... - *Alako* ibiīaldi atsegiña eztuzute iñoiz izango; ... - *Onen* buru gogoŕa eztuzu eŕazki aurkituko; ... - *Oŕelako* aizkolari kementsuak ez al dira garaiīeak irtengo?; ... - Emen ere *ain* gozoak diran igaliak erosiko ditugu; ... - *Onen* esku zabala dan gizona goretsi egin beaŕ da eten gabe; ... - *Oŕelako* antzerki ona ezta eman zure eŕian; ... - *Ain* emakume eŕukioŕak agertu dirala-ta, uŕuñatuko al dituzte?; ... -*Onelako* bidazti adoretsuak ez dira eŕaz nekatuko; ... - *Oŕen* biotz zabala ikusi al duzute iñoiz?; ... - *Alako* agure mazala oso maitegaŕitzat euki beaŕ da; ...

3. Emen azaltzen diran galderai erantzun bana eman, esanez eta idatziz :

Gasteiz'ko gizon onena da : Nor da Gasteiz'ko gizon onena?; ... - Zer da gizon ori?; ... - Ango gizon onena al da ori?; Ez, ... baño. -- Agure oŕek urte geyegi dauka : Nork dauka urte geyegi?; ... - Zer dauka agure oŕek?; ... - Zuk ere urte geyegi al daukazu?; Ez, ... baño. -- Neska gazte ori iruditu zaigun bezin begikoa da : Nor da iruditu zaigun bezin begikoa?; ... - Nolakoa da neska gazte ori?; ... - Nori iruditu zayo neska gazte ori begikoa dala?; ... - Ortziīuna iruditu al zaizue neska gazte ori?; Ez, ... baizik. -- Mendi ortara igoten bazera, bideko iturian aurkituko gaituzu : Nork aurkituko zaituzte mendi ortara igoten bada?; ... - Nola aurkituko zaituztet bideko iturian?; ... - Nun aurkituko zaituztet mendi ortara igoten banaiz?; ... - Zuen gurasoak aurkituko al ditut bideko iturian mendi ortara igoten banaiz?; Ez, ... baño. -- Atzo baño obeto jaten ari zera : Nor ari da jaten atzo baño obeto?; ... - Nola ari naiz jaten?; ... - Atzo baño txartoago jaten ari al naiz?; Ez, ... baizik. - Zuek al zerate atzo baño obeto jaten ari zeratenok?; Ez, ... baño. -- Txapel ori niretzat aundiegia da : Zer da zuretzat aundiegia?; ... - Nolakoa da txapel ori zuretzat?; ... - Norentzat da txapel ori aundiegia?; ... - Txapel ori mutil oŕentzat aundiegia al da?; Ez, ... baizik. -- Intxauŕ geyegi bialdu diguzute : Nork bialdu dizue intxauŕ geyegi?; ... - Zer bialdu dizuegu?; ... - Nori bialdu diogu intxauŕ geyegi?; ... - Intxauŕ gutxiegi bialdu al dizuegu?; Ez, ... baño. -- Eztute nai eskeiñi die-

ten gentza: Nork eztu nai eskeiñi dioten gentza?; ... - Zer eztute nai?; ... - Nori eskeiñi diote nai ez duen gentza?; ... - Zuek nai al duzute eskeiñi dizueten gentza?; Bai, ... -- Eun oyek emakume ayenak bezin bikañak dira: Zeintzuk dira emakume ayen eunak bezin bikañak?; ... - Nolakoak dira eun oyek?; ... - Nolakoak dira emakume ayen eunak?; ... - Nire eunak al dira emakume ayenak bezin bikañak?; Ez, ... baizik. -- Basetxe oyetan gero ta bei geyago dago: Nun dago gero ta bei geyago?; ... - Zer dago basetxe oyetan?; ... - Basetxe oyetan gero ta bei gutxiago al dago?; ... - Ez, ... baño. -- Gaur otzegi dago: Zer dago gaur?; ... - Noiz dago otzegi?; ... - Gaur beroegi al dago?; Ez, ... baizik. -- Etxe ortarako, eŕedize geyegi daramate: Zer daramate etxe ortarako?; ... - Norako daramate eŕedize geyegi?; ... - Etxe ortarako eŕedize gutxiegi al daramate?; Ez, ... baño. -- Oyek eztira esan diguten bezin onak: Nortzuk eztira esan dizueten bezin onak?; ... - Nola eztira oyek?; ... - Zuek al zerate esan diguten bezin onak?; Bai uste dugu, ... -- Auŕ oyei ortzak erori zaizkie: Nori erori zaizkio ortzak?; ... - Zer erori zaye auŕ oyei?; ... - Zuri ere ortzak erori al zaizkizu?; Ez, ... baizik. -- Esan beaŕ dizuedana esango dizuet: Nork esango digu esan beaŕ diguna?; ... - Zer esan beaŕ diguzu?; ... - Nori esango diozu esan beaŕ diozuna?; ... - Ikasle oyei esango al diezu esan beaŕ diezuna?; Bai, oyei ere ... -- Gure urian idekiten ari diran lantegiak gero ta aundiagoak dira: Zeintzuk dira gero ta aundiagoak?; ... - Nolakoak dira zuen urian idekiten ari diran lantegiak?; ... - Nun idekiten ari dira gero ta aundiagoak diran lantegiak?; ... Nire eŕian idekiten ari al dira gero ta aundiagoak diran lantegiak?; Ez, ... baño. -- Oraingo gazteak eztira lengoen antzekoak: Nortzuk eztira lengoen antzekoak?; ... - Nolakoak eztira oraingo gazteak?; ... - Geroko gazteak izango al dira oraingoen antzekoak?; Eztut uste ... -- Bere anayak bezela lanegiten badu, eztugu esan al-izango alpeŕa dala: Zer eztuzute esan al-izango bere anayak bezela lanegiten badu?; ... - Nola eztuzute esan al-izango alpeŕa dala?; ... - Nik esan al-izango al dut alpeŕa dala bere anayak bezela lanegiten badu?; Ez, zuk ere ... -- Gure eŕian eztago ain ur ona: Zer eztago zuen aŕian?; ... - Nun eztago ain ur ona?; ... - Uri ortan al dago ain ur ona?; Ez, uri ortan ere ... -- Nork esan dizu neska ura zure diña eztala?; atso on oyek esan didate neska ura nire diña eztala: Zer esan dizute atso on oyek?; ... - Nori esan diote atso on oyek neska ura nire diña eztala?; ... - Zuek esan al didazute neska ura nire diña eztala?; Ez, ... baizik. -- Egia da emen ots geyegi dagoela, baña zuen etxean eztago onenbeste:

Nun dago ots geyegi?; ... - Zer dago emen?; ... - Gure etxean al dago onenbeste?; ... - Gezuŕa al da emen ots geyegi dagoela?; Ez, ... baño.

4. Ongi irakuŕi ta buruz ikasi uŕengo bertso edeŕak:

«Etsi zun mutiīlak...
Barnera doa
Ez pizten argirik...
(Eltxoen lotsa).

Oŕ leyo zabala...
Saŕ bedi lapuŕ:
osturen ez dio
zorion-apuŕ!...

Susmo dut ote dan
usu biīosa,
ta usuago dukela
nagusi loa.

Ama Gau beltxeran,
geroz ernari:
etorkizun-auŕak,
iīun ala argi?...».

Lizardi'taŕ Xabier «Umezurtz olerkiak» (34'gn. oŕialdean).

OGETAMAZORTZIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

Euzkal-aditz-jokoan, arau bezela auxe aŕ diteke: Agintzera izanezik, aditzaren beste aldi guziak, oñaŕizkoak diran bietatik sortzen dira; aŕoin bi oyek auetxek ditugu: «tinkiera-oraiñaldia» ta «tinkiera-lenaldia».

Beste eraz ere esan dezakegu ori: Aditzaren aldi guziak «bi erabide»' etatik datoz; lenengoa, «oraiñaldia» ta bigaŕena «lenaldia» ditugu. «Oraiñaldia», bere ondorengo batzuekin, auŕeko ikaskayetan ikasi da; bigaŕena, «Lenaldia», orain ikusiko dugu.

Bi erabide oyek alkaŕengandik bereizten dira, batez ere aditz iragankoŕetan; auetan, egiīeak adierazteko darabilzkigun amai-itzak, adizkin batzuetan, beste kirian agertzen dira.

Gaur erabiltzen diran aditz batzuen era bilduak, oiturazkoak, naiz iragankoŕ naiz iragankaitzak izan, ain zuzen, oñaŕizko aldi oyei dagozkie, oraiñaldi ta lenaldiari; beste aldietan erabiltzen diranak oso gutxi ditugularik.

Lenengo erabidean dauzkagun aditz iragankoŕetan, auxe agertzen da beren bereiztasun tinkotuaz: Beren aldi guzietako adizkiñak *D-* izkiaz asten dira, ta izki onek irugaŕen notiñaren izakai edo artez-betetzekoa adierazten du. Ostera, bigaŕen erabidean eztago irugaŕen notiñaren zentzun ori emateko izkirik; alaz ere, ba-ditugu lenengo ta bigaŕen notiñen artez-betetzekoa nabaritzeko diranak; eta auek, lenengo erabidean bezela, adizkiñak asten dituzte.

Bigaŕen erabidearen oñaŕia dan lenaldiaren bereiztasuna, naiz eta berarena bakaŕik ez izan, aditz iragankoŕ eta iragankaitzetan berdin, auxe dugu: adizkin guziak -N atzizkiaz amaitzen dira; ezta ezagutzen aldi ontako izki ori zertarako dagoen oŕ, ez eta zer adierazten duen ere, egitan, zerbait adierazten badu.

-N atzizki au, aditzerak atzizkiren bat artzen duenean, kentzen da.

Ba-dago aldi ontan beste bereiztasun bat, erdizkia dan beste -N-; izki onek, lenengo ta bigaŕen notiñak adierazteko, aditzerak asten diran beste izkien atzetik daŕai, notin oyek naiz egiīe naiz jasalea izan; eta

bi izkien artean *e* (ala *i*) beste izkia sartzen da, alkartzekoa bezela ta aldiari lenaldiaren zentzuna ere emateko. Bigaŕen -N- ori, irugaŕen notiñaren izakayaz egiten diran bakaŕeko lenengo era iragankoŕetan, ezta agertzen (1).

EGINKIZUNAK

1. *Ainbat, aña* ta *bezenbat* itzak alde batetik, eta *ONENBESTE, OŔENBESTE* ta *ARENBESTE* (*AINBESTE*) beste itzak bestetik, esakuntza auetan alkaŕi buruz aldatu; bayezko ta ezezkoak, galderazkoen bidez aldatzen be, ta alderantziz; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Eztakit oŕek zuk *ainbat* jantzi ote daukan; ... - Guk zuek *aña* mendi ikusi dugu; ... - Mutil oyek *bezenbat* jostaīlu artu al duzu?; ... - *Onenbeste* al da gizon gizen oŕek egunero jaten duena?; ... - Artzain oyek, bai, ba-daukate *oŕenbeste* ardi; ... - Eztut uste nire auzoan *ainbeste* gaizpide izan danik; ...

2. Bigaŕen eginkizun ontan, kulatzen ordez, esakuntza bakoitza osotzeko egokiak izan ditezken itz edo itzak, erkatzekoak batez ere, esan eta idatzi:

Neskatil auek beren amaren ... dira; ... zintzoak. - Ba-dakit zuk etxeak asko dauzkazula; nik ordea eztaukat ... - Gaur aŕatsaldean ez dugu gutxi ikasi, baña biar ... ikasiko dugu. - Atso ori gero ta itun-ikusten dut; ... oţe du?; - Au oñazea!, gero ta neke ... dut. - Anairik on-... gu ikusteko eldu ... - Irakuŕi diguten idaztia polit-polita da; gure idaztidian dauzkagunak baño ... da. - Gentza gozo ontan gudan baño ... gagoz. - Ba al dira mutil oyek zuek ... onak? - Jaun onek eskatu diozuten geŕikoa ekaŕiko ez ... esan ... niri. - Oīo auek eztira zure amoñarenak ... gizenak. - Nekazari oŕek beyak asko dauzka, ene ustez ... bere kortarako.

3. Irugaŕen eginkizun ontan jartzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esan eta idazten:

Zure neba baño makalagoa zera; au mardul-mardula da: Nor da mardul-mardula?; ... - Nolakoa zera zu?; ... - Zu, zure neba baño mar-

(1) Ikusi: 55'gn. ikaskaya.

mulagoa al zera?; Ez, ... baño. -- Mutil ura gaizto-gaiztoa da: Nor da gaizto-gaiztoa?; ... - Nolakoa da mutil ura?; ... - Mutil ura on-ona al da?; Ez, ... baizik. -- Nik zuk baño oroimen gutxiago daukat: Nork dauka nik baño oroimen gutxiago?; ... - Zer daukat nik?; ... - Zuk nik baño oroimen gutxiago al daukazu?; Ez, ... baño. -- Ekaŕi diguten ardoa oso ona da; beren etxeko onena da: Nork ekaŕi dizue oso ona dan ardoa?; ... - Nolakoa da ekaŕi dizueten ardoa?; ... - Nortzuei ekaŕi diete ardo oso ona?; ... - Beren etxeko ardo txaŕena ekaŕi al dizuete?; Ez, ... baizik. -- Emen dago bere auŕa galdu zayolako: Nor dago emen bere auŕa galdu zayolako?; ... - Nun dago bere auŕa galdu zayolako?; ... - Zergatik dago emen?; ... - Ni al nago emen nire auŕa galdu zaidalako?; Ez, ... baño. -- Iruña'ko kaleak Gasteiz'koak baño estuagoak dira: Zertzuk dira Gasteiz'ko kaleak baño estuagoak?; ... - Nolakoak dira Gasteiz'ko kaleak?; ... - Iruña'ko kaleak Gasteiz'koak baño zabalagoak al dira?; Ez, ... baizik. -- Ergel oŕi eztiote jaramonik egin Udal'an: Nori eztiote jaramonik egin Udal'an?; ... - Zer ez diote egin ergel oŕi Udal'an?; ... - Zuri egin al dizute jaramonik Udala'n?; Neri bai, ... -- Neskame oŕi beste oŕi baño aŕautz gutxiago ipiñi diote: Nori ipiñi diote beste oŕi baño aŕautz gutxiago?; ... - Zer ipiñi diote neskame oŕi?; ... - Zuri ipiñi al dizute beste neskame oŕi baño aŕautz gutxiago?; Ez, ... baño. -- Aŕañetan nire bizian ikusi dudan geyena dakarte: Zer dakarte?; ... Zeñetan dakarte zure bizian ikusi duzun geyena?; ... - Aŕañetan zure bizian ikusi duzun gutxiena al dakarte?; Ez, ... baizik. -- Ori Biaizteri'ko gizonen azkaŕena da: Nor da Biaizteri'ko gizonen azkaŕena?; ... - Zer da ori?; ... - Nungo gizonen azkaŕena da ori?; ... - Ni al naiz Biaizteri'ko gizonen azkaŕena?; Ez, ... baño. -- Geyegi eman diguzu: Nork eman dizue geyegi?; ... - Zer eman dizuet?; ... - Nori eman diot geyegi?; ... - Gutxiegi eman al dizuet?; Ez, ... baizik. -- Besteetan baño itunago ikusten zaitut: Nork ikusten nau besteetan baño itunago?; ... - Noiz ikusten nauzu itunago?; ... - Nik ikusten al zaitut besteetan baño itunago?; Ez, ... baño. -- Ni ere len baño itunago bizi naiz: Nor bizi da len baño itunago?; ... - Nola bizi zera zu ere?; ... - Noiz baño itunago bizi zera zu?; ... - Oyek ere len baño itunago bizi al dira?; Ez, ... baizik. -- Baztan'go aran au ederŕ-ederŕa da: Zein da ederŕ-ederŕa?; ... - Nolakoa da Baztan'go arana?; ... - Itxusia al da Baztan'go arana?; Ez, ... baño. -- Iñun ez ditugu aurkitu auek bezain emakume onak: Nork eztitu iñoiz aurkitu auek bezin emakume onak?; ... - Zer eztuzute aurkitu iñun?; ... - Nun eztituzute aurkitu auek bezin emakume onak?; ... - Nik aurkitu al ditut

iñun auek bezin emakume onak?; Ez, zuk ere ... -- Nire osabak oŕenbeste diru eztaukala esaten dizut: Zer esaten didazu?; ... - Nork esaten dit zure osabak oŕenbeste diru eztaukala?; ... - Guk esaten al dizugu zure osabak oŕenbeste diru eztaukala?; Ez, ... baizik. -- Gauza guziak gure etxean bezela egin nai ditugu: Nork egin nai ditu gauza guziak zuen etxean bezela?; ... Nola egin nai dituzute gauza guziak?; ... - Nun bezela egin nai dituzute gauza guziak?; ... - Nik egin nai al ditut gauza guziak zuen etxean bezela?; Ez, ... baño. -- Guregana etortzen zeratenean oso pozik egoten gera: Nor egoten da oso pozik zuengana etortzen geranean?; ... - Noiz egoten zerate oso pozik?; ... - Nola egoten zerate zuengana etortzen geranean?; ... - Agure oyek ere oso pozik egoten al dira berengana etortzen geranean?; Ez, ... baizik. -- Ez gera gu geyena daukagunok: Nor ezta geyena daukana?; ... - Zer etzerate zuek?; ... - Zuek gutxiena daukazutenok al zerate?; Bai, ...

4. Ona emen irakurtzeko irakurgai ona:

«GIONAREN BIZIA»

«Gizonak, bizi-izateko, elikatura ta asnasa beaŕ ditu. Janari ta edariak agotik, zintzuŕean barna, urdaĪera doaz. Asnasa agotik eta suduŕetik, eztaŕian barna, biriketara sartzen zaigu.

Zer egiten duzu elikatzeko? Jakiak, naiz aragi naiz aŕainki naiz belarkiak, eskuz artzen ditugu; gero, geyenak beintzat, sutan eŕe naiz egosi.

Usain gozoa ematen dutenean, mayera eŕatiĪu batean ateratzen ditugu. Aiztoz zatitu ta zati bat edo beste txaliñean artu ta sardeaz agora.

Ortzez eta agiñez eltzen diogu jakiari, agoan erabiĪi, mamurtu, txuz edo txistuz beratu ta zintzuŕetik zintzuŕ-estera, zintzuŕ-estetik urdaĪera, igaŕi ere gabe, sartzen da elikatura.

Edariak urdaĪeratzeko ezta beaŕ ez sarderik, ez ortz eta agiñik ez txisturik. Salda, xaliaz agora eramaten dugu. Batzuek katiĪua ezpañetara eramanez, zuŕu-zuŕu artzen dute. Ardoa naiz sagardoa naiz txakoliña (ura ere norbaitek) glan-glan basoan askok edaten dute, bazkal-aparia egiten dan egunetan».

AZKUE (R. M.)

«Jolaseta» idaztitik artua (61'gn. oŕialdetik) Onaindia aita, karmeldaŕa.

OGETAEMERETZIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKO IRAGANGAITZA - «IZAN» ADITZ LAGUNTZAĪEA

Tinkiera - Lenaldia - Bigaŕen erabidea

Ni	NINTZAN
Zu	ZIÑAN
Bera	ZAN
Gu	GIÑAN
Zuek	ZIÑATEN
Berak	ZIRAN

Tinkiera-oraiñaldirako, 3'gaŕen ikaskayan esan zan bezela, lenaldiko era auek, aditz iragangaitzen laguntzaĪeak bezela erabiĪiko diran izarian berak ere iragangaitzak izango dira; noski, bi itzezko adizkiñetan;

LaguntzaĪeak eztiranean, era auek, tinkiera-oraiñaldikoak bezela, IZAN, izen-aditzari dagozkio.

SAMAŔ, XAMAŔ, NAIKO, ASKI itzak nola erabiltzen diran:

TASUN: SAMAŔ, XAMAŔ, aditzondoak bezela.
Izenondo ala beste aditzondoari ezartzen zaizkie.
E. b.: Aundi *samaŕ* - Ondo *xamaŕ*.

AINDO: NAIKO, ASKI, izenondoak bezela.
Bereziki, izenai ezartzen zaizkie.
E. b.: Orbela *naikoa* - Sagaŕa *naikoa*.
Ogasun *aski* - Janari *aski*.

NAIKO izenondoa, beti, askaŕ-mugitzarekin erabiltzen da, ta auŕetik doakion izenak ere mugitza bera eraman beaŕ du (1).

Esandakoa esanik, alaz ere, NAIKO itza, izenaren auŕetik be ta mugitzarik gabe erabiĪi diteke (ta atzetik doakion izena be berdin); batez ere, abots beteaz oguzten diran esakuntzetan; orduan, bere zentzuna ZENBAT edo ASKO'ren antzekoa da.

E. b.: *Naiko* diru dauka gizon oŕek! (*Zenbat* diru daukan gizon oŕek!) (*Asko* da gizon oŕek daukana!).

(1) Ikusi: Azkue, D. (Iztegia).

Beste ainbeste gertatzen da NAIKO'ren asmoa, zuzen, aditz bati dagokionean; ala izenondo bati buruz azaltzen danean; eta bi gertaera oyetan aditzondoaren zentzunaz erabiltzen da.

E. b.: «*Naiko* jolastu ondoren» (L. Mendizabal, «Xabiertxo», 94'gn.).
Naiko aundia (*Naiko* aundi) - *Naiko* argia (*Naiko* argi).

Eginkizunak

1. Eginkizun ontan agertzen diran IZAN aditzaren *oraiñaldi*ko aditzerak, *lenaldi*koen bidez aldatu, eta alderantziz; bai ta bayezkoak diranak ezezkoen bidez, eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Gu zuek bezin onak *gera*; ... - Zu *etzera* zure laguna baño obea; ... - Ni len orain baño sendoagoa *nintzan*; ... - Gure lengusiña *ezta* egun auetan igaz bezin begikoa; ... - Joan diran urteetan aurten baño zintzoagoak *ziñaten*; ... - Zaldi auek *eztira* aran ontako edeŕenak; ... - Zindoegia *naizela* esan dizuete; ... - Oŕen adoretsua *ez ziñala* uste dugu; ... - Egia da jaun ori oso egizalea *dala*; ... - Esan digutenez, basati ayek *ez ziran* eŕialde artan ankeŕenak; ... - Ba-dakigu beste guziak baño ospetsuagoak *zeratela*; ... - Gu *ezkera* zuen eŕiko gazteak bezin maltzuŕak; ...

2. Bigaŕen eginkizun ontan ematen ditugun esakuntza bakoitzerako, bi aldakuntza egin, onela: bayezkoa bada, ezezkoa ta galderazkoaren bidez; ezezkoa bada, bayezko ta galderazkoaren bidez; eta galderazkoa izan ezkero, bayezko ta ezezkoaren bidez; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Zuek len orain bezin sendoak ziñaten; ... / ... - Gu ez gera izan azkenak gure ikastetxean; ... / ... - Oŕ bizi diran zaŕ oyek gure eŕiko zekenenak al dira?; ... / ... - Ba-dakigu lasterketan bigaŕena eldu zerala; ... / ... - Etxera eldu diranean, ez gaituzte aurkitu bazkaltzen; ... / ... - Zure gurasoenganako esanekoa al ziñan txikitan?; ... / ... - Nire ezkon-anayak lagunduko nauela uste dut; ... / ... - Zurubian jetsi naizenean iĪar guziak jausi zaizkit; ... / ... - Ikasleai aiztu al zaizkie nik eman dizkiedan aolkuak?; ... / ... - Emen dauzkat zuk bialdu dizkidazun orenak; ... / ... - Noiz ziran zure lagun oyek ain eskuzabalak?; ... / ... - Atso ori eztago etxe ontan bere sendiaren artan baño obeki; .../ ...

3. Emen ipintzen ditugun galderai erantzun bana eman, esanez eta idatziz:

Uri ayetako agureak begikoak ziran: Nortzuk ziran begikoak?; ... - Zer ziran uri ayetako agureak?; ... - Nungo agureak ziran begikoak?; ... - Uri ayetako agureak ortziĺunak al ziran?; Ez, ... baño. -- Zu zure adiskideak bezin mazala ziñan: Nor zan bere adiskideak bezin mazala?; ... - Nolakoa ziñan zu; ... - Zure adiskideak al ziran zu bezin mazalak?; Bai, ... - Zu al ziñan zure adiskideak bezin kaldaŕa?; Ez, ... baizik. -- Ez giñan orduan zoriontsuak: Nortzuk ez ziran orduan zoriontsuak?; ... - Zer ez ziñaten orduan?; ... - Noiz ez ziñaten zoriontsuak? ... - Bereteŕ ori al zan orduan zoriontsua?; Ori bai, ... -- Mendiko ikazkiña bere laguna baño eroagoa zan: Nor zan bere laguna baño eroagoa?; ... - Zer zan mendiko ikazkiña?; ... - Nungo ikazkiña zan bere laguna baño eroagoa?; ... - Begirale ori al zan mendiko ikazkiñaren laguna baño eroagoa?; Ez, ... baño. -- Ez ziñaten esan diguten bezin gaiztoak: Nortzuk ez ziran esan dizueten bezain gaiztoak?; ... - Zer ez ziñaten zuek?; ... - Ni al nintzan zuei esan dizueten bezin gaiztoa?; Ez, zu ere ... - Oyek al ziran esan diguzuten bezin onak?: Ez, oyek ere ... -- Nolakoa zan ura?; onenetakoa zan ura: Nor zan onenetakoa?; ... - Gaiztoenetakoa al zan ura?; Ez, ... baño - Zu al ziñan onenetakoa?; Ez, ... baizik. - Nor zan gaiztoenetakoa ez zana?; ... -- Etzera zure aitaren antzekoa; au askoz obea da: Nor ez da bere aitaren antzekoa?; ... - Zer enaiz ni?; ... - Ni bezin ona al da nire aita?; Bai, ... ta ... ere. - Nor baño askoz obea da nire aita?; ... -- Kale au Egoalde'koa baño luzeagoa da: Zein da Egoalde'ko kalea baño luzeagoa?; ... - Nolakoa da kale au?; ... - Kale au Egoalde'koa baño labuŕagoa al da?; Ez, ... baizik. - Egoalde'ko kalea al da au baño luzeagoa?; Ez, ... baño. -- Egon diran bezela dagoz: Nortzuk dagoz egon diran bezela?; ... - Nola dagoz oyek?; ... - Ni al nago egon naizen bezela?; ... - Oyek, egon diran baño gaizkiago al dagoz?; Ez, ... baizik. -- Ez al zaizkizue amaituko jateko gogoak?; ez dugu uste jateko gogoak amaituko zaizkigula: Nork eztu uste jateko gogoak amaituko zaizkiola?; ... - Zer eztuzute uste?; ... - Noiz ez zaizkigu amaituko jateko gogoak?; ... - Zuk uste al duzu gaur jateko gogoak amaituko zaizkizula?; Ez, nik ere ez ... -- Ez zaituztet aurkitu joan naizen jayan: Nork ez gaitu aurkitu joan dan jayan?; ... - Nor eztuzu aurkitu joan zeran jayan?; ... - Nik aurkitu al zaitut joan naizen jayan?; Ez, zuk ere ... -- Ango neska ayek onegiak ziran: Nortzuk ziran onegiak?; ... - Gu al giñan onegiak?; Ez, ... baizik. - Zer ziran ango neska ayek?;

Nungo neskak ziran onegiak?; ... -- Moŕoi auek gero ta zintzoagoak dira: Nortzuk dira gero ta zintzoagoak?; ... - Nolakoak dira moŕoi auek?; ... - Moŕoi auek gero ta aizunagoak al dira?; Ez, ... baño - Zu al zera gero ta aizunagoa?; Ez, ni ere ... -- Gero ta geyago ikasi beaŕ dugu: Nork ikasi beaŕ du gero ta geyago?; ... - Zer ikasi beaŕ duzute?; ... - Zertarako ikasi beaŕ duzute gero ta geyago?; Geyago jakiteko ere ... - Uste al duzu nik be gero ta geyago ikasi beaŕ dudala?; Bai, zuk be ... -- Ol auek al-izan duten bezela ekaŕi dizkizute: Nortzuek ekaŕi dizkidate ol auek al-izan duten bezela?; ... - Zer ekaŕi didate al-izan duten bezela?; ... - Nola ekaŕi dizkidate ol auek?; ... - Zuek ekaŕi al dizkidazute ol auek al-izan duzuten bezela?; Ez, ... baño. -- Zuen gurasoak ilko zaizkizue ta orduan bakaŕik geratuko zerate: Nortzuk ilko zaizkigu?; ... - Nortzuei ilko zaizkie beren gurasoak?; ... - Nola geratuko gera gure gurasoak ilko zaizkigunean?; ... - Auŕ oyek ere bakaŕik geratuko al dira beren gurasoak ilko zaizkienean?; Bai, ... -- Ekaŕi dizkidazun oñetakoak aundiegiak dira: Zertzuk dira aundiegiak?; ... - Nori ekaŕi dizkiot aundiegiak diran oñetakoak?; ... - Ekaŕi dizkizudan oñetakoak txikiegiak al dira? Ez, ... baizik. - Amak ekaŕi dizkizun oñetakoak ere aundiegiak al dira?; Ez, ... ez ...

4. Ongi irakuŕi ta buruz ondo ere ikasi bertso polit auek:

«GOXALDEKO OTOYA»

«Goxaldeko otoya
zeureganuntz doya.

Oŕa laŕosak
uŕezko erlez.
Dantzan mertxikak
latsaen axez.
Nun don goiz argi?
Abaŕak txoriz
piyo-piyo-pi.
Goxa zugatzan
intzezko dizdiz.
¡Goxa don landan!

Goxaldeko otoya
zeureganuntz doya.

Mendi oztiña
Laño zuriyan.
Itxaso-miña
axeunontziyan.
Nun don goiz argi?
Kanpakaz toŕiak
dindon ta dindan.
¡Ixo lausuak!
¡Goxa don garbi
eure iŕipaŕan!

Goxaldeko otoya
zeureganuntz doya.

«Aŕats-Beran» (39'gaŕen oŕialdean) Urkiaga'taŕ Estepan - Lauaxeta.

BEŕOGEIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ IRAGANGAITZEN ADITZ-JOKO BILDUA

TINKIERA LENALDIA - BIGAŕEN ERABIDEA

Ona emen IZAN, JOAN, ETOŕI, EGON eta IBĪLI aditzen lenaldiko era bilduak :

	IZAN	JOAN	ETOŕI
Ni	N-i-N-TZA- - - -N	N-i-N-jOA- - - - - - - -N	N-e-N-TOŕ- - - - - - - -e-N
Zu	Z-i-Ñ- - -A- - - -N	Z-i-N-jOA-Z- - - - -a-N	Z-e-N-TO(R)-Z- - - - -a-N
Bera	Z- - - - - - -A- - - -N	Z-i- - -jOA- - - - - - - -N	Z-e- - -TOŕ- - - - - - - -e-N
Gu	G-i-Ñ- - -A- - - -N	G-i-N-jOA-Z- - - -a-N	G-e-N-TO(R)-Z- - - -a-N
Zuek	Z-i-Ñ- - -A-TE-N	Z-i-N-jOA-Z-(T)E-N	Z-e-N-TO(R)-Z-(T)E-N
Berak	Z-i- - - -RA- - - -N	Z-i- - -jOA-Z-(T)E-N	Z-e- - -TO(R)-Z-(T)E-N

	EGON	IBĪLI
Ni	N-e-N-GO- - - - - -e-N	N-e-N-BIL- - - - - - - - -e-N
Zu	Z-e-N-GO-Z- - - -a-N	Z-e-N-BIL-TZ- - - - - -a-N
Bera	Z-e- - -GO- - - - - -e-N	Z-e- - -BIL- - - - - - - - -e-N
Gu	G-e-N-GO-Z- - - -a-N	G-e-N-BIL-TZ- - - - -a-N
Zuek	Z-e-N-GO-Z-(T)E-N	Z-e-N-BIL-TZ-a-TE- - -N
Berak	Z-e- - -GO-Z-(T)E-N	Z-e- - -BIL-TZ-a-(T)E-N

Era auetan, 3'gn. ikaskayan ikusi genuenez, tinkiera-oraiñaldiko aditz berberai zegozkien bezela, lenengo ta bigaŕen notiñen lendabiziko izkiak beren izenordeen berberak dira; beraz, lenengo izki oyek, naiz bakaŕ naiz askaŕeko lenengo ta bigaŕen notiñen asmoak ematen dizkigute; irugaŕen notiñak Z- bateaz asten dira, izenordearen bezelakoa eztana, ta ori oraiñaldian ere ikusi genuen.

Era batek izanezik, beste guziek, gero, *i* edo *e* izkia daramate; biak batutzekoak dira, ta bigaŕenak lenaldiaren asmoa adierazten du; oŕen uŕengo, lenengo ta bigaŕen notiñetan, -N- erdizkia datoŕ, oyei bereziki dagokiena.

Oŕen ondoren, aditzen eŕoak azaltzen dira, bakoitzari berea; eŕo oyek, ongi dakigunez, aditzen izenetik irteten dira.

Bigaŕen bakaŕ-notiñak eta askaŕeko irurak, eŕoaren ondotik, askaŕ-zentzuna duen -Z- daramate; ta askaŕeko bigaŕen eta irugaŕenean, askaŕ-zentzuna ere duen -TE- beste erdizkia agertzen da; onen bidez, bakaŕeko berenetik nabaritzeko.

Beaŕa zayen notin batzuetan, batutzeko *e* edo *a* izkiak azaltzen dira, ta adizkin guziek lenaldiko bedegaŕa dan -N atzizkia daramate amaitzeko.

Aditz laguntzaĪean, lenengo notiñaren eran agertzen da bakaŕik bere eŕoa; ta askaŕeko irugaŕenean -RA- erdizkia ikusten da; erdizki onek askaŕeko zentzuna du, oraiñaldian ikusi ziran *zera*, *gera*, *zerate* ta *dira* eraetan bezela.

Emen ematen ditugun EGON aditzaren erak bizkayerazkoak dira; gipuzkerazkoak 44'gaŕen ikaskayan ikusiko dira, oraiñaldikoak bezela.

GERO itzaren adiera batzuk :

Lenengoa, aldi-aditzondoarena da.

E. b. : Orain ez, *gero* joango naiz.

Beste zentzunak, auetxek : Zerbait egiteko ala ez egiteko *eskabidea*; itz ori agertzen dan esakuntzan adierazten dan gurari baten *areagotzea*; ta, batzuetan, *zema*ren zentzuna eramatean.

E. b. : Ez esan, *gero*, oŕelakorik! (ori bezelako gauzik ez esateko eskatzen dizut edo beartzen dizut).

Gerok egingo dugu ori; aisa *gero*! (Ori eŕaztasun aundiaz egingo dugu).

Kontuz ibīli, *gero*! (Kontuz ibiltzeko eskatzen dizut, aolkatzen dizut, bestela...!).

Nor, *gero*? = Nor, bada? (Nor ... e. b. : ausartuko da?).

Joko zaitut, *gero*! (Kontuz!, joko zaitut-eta!) (1).

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, kulatzen ordez, adi-yabe bakoitzari dagozkion aditzerak esan eta idatzi :

Adi-yabea	IZAN	JOAN	ETOŕI
Ni	Nintzan	...	...
Zu	...	zinjoazan	...
Bera	...	...	zetoŕen
Gu	Giñan	...	...
Zuek	...	zinjoazen	...
Berak	...	...	zetozen

(1) Ikusi: 125'gaen ikaskaya.

2. Bigarén eginkizun ontan agertzen diran JOAN eta ETORRI aditzen aditzerak aldatu, oraiñaldikoak lenaldikoen bidez, eta alderantziz; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Ba-dakit oso ondo ez *noala*; ... - Norekin *zentozan* ain pozik?; ... - Aitarengana al *doa* gizajo ori?; ... - Gu ez *gentozan* soillik egunsenti aitan; ... - Alayegi *zinjoazen* zuen eriko jayetara; ... - Guztiz asaretuta *zetozen*, bai endore, bai epaillea ere; ... - Ni ez *natorr* iñoiz zuek baño beranduago; ... - Goizegi *zinjoazan* mendietaruntz; ... - Oso atsekabetuta *datorrela* ikusten dugu; ... - Atzo, urduriz beterik, zuengana *ginjoazan*; ... - Zertarako *zatozte* etxe ontara?; ... - Txango artara itun *zijoazela* uste dut; ...

3. Emen jartzen diran galderai erantzun egoki bana eman, esanez eta idatziz:

Orduan gaueko amarak ziran: Zein ordu zan orduan?; ... - Noiz ziran gaueko amarak?; ... - Orduan amaika t'erdiak al ziran?; Ez, .. baizik. -- Etziran irurak laurden gutxiago baño: Irurak zirala uste al duzu?; Ez, ez ... baño. - Iru ta laurdenak al ziran eldu ziñanean?; Ez, ... baño. -- Ni zu baño pozago nentorren: Nor zetorren ni baño pozago?; ... - Nola zentozan?; ... - Zu ni baño itunago al zentozan?; Ez, ... baizik. -- Gero ta okeragoa zan: Nor zan gero ta okeragoa?; ... - Nolakoa zan bera?; ... - Gero ta zuzenago al zan ura?; Ez, ... baizik. - Zu ere gero ta okeragoa al ziñan?; Ez, ni ere ... -- Aranik ederenean nengoen: Nor zegoen aranik ederenean?; ... - Nun zengozan?; ... - Gu al gengozan aranik ederenean?; Ez, ... baño. -- Atzo gaur baño obeto gengozan: Nor zegoen atzo gaur baño obeto?; ... - Nola zengozen atzo?; ... - Noiz zengozen gaur baño obeto?; ... - Ni al nengoen atzo gaur baño obeto?; Ez, ... baizik. -- Lengo egunean gu baño gaizkiago zenbiltzaten: Nor zebillen lengo egunean zuek baño gaizkiago?; ... - Nola genbiltzan lengo egunean?; ... - Noiz genbiltzan zuek baño gaizkiago?; ... - Gazte lerden ayek al zebiltzaten gu baño gaizkiago?; Ez, ... baño. -- Zurekin nirekin baño obeki zegoen: Nor zegoen nirekin zurekin baño obeki?; ... - Nola zegoen ura?; ... - Ura nirekin zurekin baño obeki al zegoen?; Ez, ... baizik. -- Beko mendietako zugatz ayetaruntz alkarekin zinjoazen: Nortzuek zijoazen alkarekin beko mendietako zugatz ayetaruntz?; ... - Noruntz ginjoazan alkarekin?; ... - Norekin ginjoazan beko mendietako zugatz ayetaruntz?; ... - Ni bakarik al ninjoan beko mendietako zugatz ayetaruntz?; Ez, ... baizik. -- Laisterregi zetozen: Nortzuk zetozen laisterregi?; ... - Nola zetozen gizon adiñeko ayek?; ... - Zu ere laisterregi

al zentozan?; Ez, ... baño. -- Gazte ayek ez ziran esan diguten bezin onak: Nortzuk etziran esan dizueten bezin onak?; ... - Nolakoak etziran gazte ayek?; ... - Neska ayek al ziran esan diguzuten bezin onak?; Bai, ... -- Laisterka ginjoazan berandu genbiltzalako: Nor zijoan laisterka berandu zebillelako?; ... - Zergatik zinjoazen laisterka?; ... - Ni ere laisterka al ninjoan?; Ez, ... baizik. -- Aundi xamar ziran gure beartarako: Zer zan aundi xamar zuen beartarako?; ... - Zertarako ziran aundi xamar?; ... - Txikiegiak al ziran zuen beartarako?; Ez, ... baño. -- Ori da jakintsu oyek duten adimena!: Nolakoa da jakintsu oyek duten adimena?; ... - Nork du oren adimen aundia?; ... - Zuek al duzute oren adimen aundia?; Ez, ... baizik. -- Ez zentozen orduan gure etxera, zergatik?; astirik gabe genbiltzalako, ez gentozan orduan zuen etxera: Nor ez zetoren orduan zuen etxera astirik gabe zebillelako?; ... - Noren etxera ez zentozen orduan astirik gabe zenbiltzatelako?; ... - Noiz ez nentoren ni zure etxera astirik gabe nenbillelako?; ... - Zure semebitxiak al zetozen orduan zure etxera?; Ez, oyek ere ... -- Geyena daukanak beti gutxiena ematen du: Nork ematen du gutxiena?; ... - Zer ematen du geyena daukanak?; ... - Geyena daukanak geyena ere ematen al du?; Ez, ... - Eta zuek geyena ematen al duzute?; Ez, guk ere ... -- Zure billa nenbillen orain baño len: Nor zebillen zure billa orain baño len?; ... - Gu ere zuen billa al genbiltzan orain baño len?; Ez, ... baño. -- Zuen eri ura txikiegia zan: Zein zan txikiegia?; ... - Nola zan gure eri ura?; ... - Gure eri ura aundiegia al zan?; Ez, ... baizik. -- Len gengozan tokian beti egongo gera: Nor egongo da beti len zegoen tokian?; ... - Nun egongo zerate beti?; ... - Noiz egongo zerate len zengozen tokian?; ... - Ni ere len nengoen tokian beti egongo al naiz?; Ez, ... baño. -- Ematen digun dirua amaitzen zaigunean, berarengana joaten gera beriz geyago eskatzeko: Nor joaten da beriz berarengana, ematen dion dirua amaitzen zayonean?; ... - Noiz joaten zerate berarengana beriz?; ... - Norengana joaten zerate beriz ematen dizuen dirua amaitzen zaizuenean?; ... - Ni ere berarengana joaten al naiz ematen didan dirua amaitzen zaidanean?; Ez, ... baizik.

4. Irakuri astiro urengo irakurgaya:

«BASETXEA»

«Geroago ezagutu nituan, Joanes'en oroimen gozoak artara eramanda, gizon bikain oren etxea ta etxekoak.

Gogordo'peko zelaitxo batean, garometa aundi batzuen uŕean, soro edeŕ narotuz inguraturik, bene-benetako patxadan zegoen Zabaleta basetxea. Bere alboetan, amari gonetatik eutsika dauden aurtxoak bezela, etxe nagusiari lotuta, bestetxo bi agiri ziran: bata ogia edo artoa eŕetzeko labea, bestea abere-janariak gordetzeko lekua; ta auetatik ez uŕuti, zerbait mendi-aldera ta beregain, neguan ardiak idukitzeko eloŕa. Etxe nagusiaren auŕe-aldetik, saŕerako ate-gañean, lore ta usai gozodun belaŕez egindako bi sorta legoŕ ikusi nituan, oitura zaŕai jaŕaituaz Done Joane goizean ipiñiak, esan zidatenez; atearen erdi-erdian erantsita, argizarizko gurutze txiki zapal bat, etxekoen kristautasuna erakutsi nayean.

Toki ayen baŕuan zer zegoan jakin beaŕik bai al da? Basetxetakoak ba-dakite, baña ez itxastaŕak; ezta, bada, ain gaizki etoŕiko auentzat emen zerbait jartzea».

«Garoa» (13'gn. oŕialdean) Domingo Agiŕe apaizak egindako irakurgaya.

BEŔOGETABATGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - ADITZ IRAGANGAITZAK

Tinkiera-oraiñaldian bezela, lenaldian ere, IZAN aditz laguntzaĪearen eraen auŕean, beste edozein aditz iragangaitza jartzen badugu, onela jokatu beaŕ:

1.ª -TEN edo -TZEN atzizkia, aditzaren izenari jartzen badiogu, aditz-joko bildua ez duten aditz iragangaitz guzien «lenaldia» dagigu; ta aditz-joko bildua dutenen «oiturazko lenaldia» (aditz oyen era bilduak auŕeko ikaskayan ikusi dira).

2.ª Aditzaren izena soĪa erabiĪi ezkero, «lenaldia» baño lenagokoa dan beste aldia dagigu, ta aldi oŕi «len-lenagoaldia» dei dizayokegu.

3.ª -KO (edo -GO) atzizkia erabiltzean, «lenaldi-gerokoa»'ren izenaz deitzen dugu. (Azkue'k, «Morfologia» bere idaztian, «len-lenagoko gerokoa» deitzen zuen). Emen, esan dugunez, «lenaldi-gerokoa» deitzen dugu.

E.b.: 1.ª Jeis*ten* nintzan (Orduan jeis*ten* nintzan) (*nentoŕen* edo *ninjoan* esatean adierazten dan aldian).
Joa*ten* nintzan (*Ninjoan*'en oiturazko zentzunaz).

2.ª *Jetsi* nintzan (*Jeisten nintzan* baño lenagoko aldian).
Joan nintzan (*Ninjoan* baño lenagoko aldian).

3.ª *Jetsiko* nintzan (Lenaldi baten geroko bat bezela).
Joango nintzan (Lenaldi baten geroko bat bezela).

Aditz-joko bildua ez daukaten aditz guzien «lenaldi»'ko erak, eta aditz-joko bildua daukatenen «oiturazko lenaldi»'koak auetxek ditugu:

1.ª

LENALDIA

Ni	Irteten	nintzan
Zu	Sartzen	ziñan
Bera	Igoten	zan
Gu	Jeisten	giñan
Zuek	Erortzen	ziñaten
Berak	Jeikitzen	ziran

1.ª

OITURAZKO LENALDIA

Ni	Izaten	nintzan
Zu	Joaten	ziñan
Bera	Etortzen	zan
Gu	Egoten	giñan
Zuek	Ibiltzen	ziñaten
Berak		ziran

Aldi bietan, aditz bakoitzarekin laguntzalearen sei erak erabiltzeko.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, kulatzen ordez, aditz bakoitzerako ta adi-yabe bakoitzari dagozkien aditzerak esan eta idatzi:

Adi-yabea	IZAN	EGON	IBILI
Ni	...	nengoan	...
Zu	...	...	zenbiltzan
Bera	Zan	...	...
Gu	...	gengozan	...
Zuek	...	...	zenbiltzaten
Berak	Ziran	...	...

2. Eginkizun ontan agertzen diran EGON eta IBILI aditzen aditzerak aldatu, oraiñaldikoak lenaldikoen bidez, eta alderantziz; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Emen ondo *nago*ela esaten dizut; ... - Nola *zenbiltzan* adiskide ayekin?; ... - Nun *dago* zure ama?; ... - Etxe artan oso ongi *genbiltzan*; ... - Esan didatenez, ez *zagoze* beti zuen lan-tokian; ... - Eŕiko gazteak udabeŕian mendiz-mendi *zebiltzaten*; ... - Aŕatsaldeetan etxean baldin ba*zagoz*, biar zu ikustera joango gera; ... - Nire lagunekin *nabil* kaleetan egunero; ... - Oŕ *zebilen* beti ori oso aspertuta; ... - Bola-tokian *gagoz* alkaŕekin jolasten; ... - Igaz aurten baño saŕiago *zenbiltzaten* gure auzo ontan; ... - Gizon zaŕ oyek aulkietan *dagoz* jeiki gabe; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman, kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Ondo al zegoen zure aita?; bai, atzo beñepein oso ondo zekoen: Nor zegoen atzo oso ondo?; ... - Nola zegoen atzo nire aita?; ... - Noiz

zegoen ondo nire aita?; ... - Zuek ere atzo oso ondo al zengozen?; Ez, ... baño. -- Ni ez nengoen zuek bezin ondo: Nor etzegoen gu bezin ondo?; ... - Nola ez zengozan?; ... - Nor bezin ondo ez zengozan?; ... - Zure anayak al zegozen gu bezin ondo?; Ez, oyek ere ... -- Zu txiro ayek baño itunago zinjoazan: Nor zijoan txiro ayek baño itunago?; ... - Nola ninjoan ni?; ... - Nortzuk baño itunago ninjoan ni?; ... - Zuek ere al zinjoazen txiro ayek baño itunago?; Ez, ... baizik. -- Ondartzan egun guzian genbiltzan: Nor zebilen ondartzan egun guzian?; ... - Nun zenbiltzaten egun guzian?; ... - Noiz zenbiltzaten ondartzan?; ... - Neska oyek ere al zebiltzaten ondartzan egun guzian?; Ez, ... baño. -- Nor zetoŕen bilbel artan?; sendagilеak zetozen bilbel artan: Nun zetozen sendagilеak?; ... - Noiz zetozen sendagilеak bilbel artan?; Atzo ... - Norekin zetozen sendagilеak bilbel artan?; ... - Zu al zentozan sendagilеekin belbil artan?; Ez, ... berak alkaŕekin baizik. -- Goizegi zan orduan: Noiz zan goizegi?; ... - Zer zan orduan?; ... - Orduan berandueg al zan?; Ez, ... - Nork esan dizu orduan goizegi zala?; Nire aitak ... -- Zergatik ez ziñaten irteten etxetik aŕatsalde arte?; irten gabe obeto gengozalako: Nor etzan irteten etxetik aŕatsalde arte, irten gabe obeto zegoelako?; ... - Nundik ezkiñan irteten aŕatsalde arte, irten gabe obeto gengozalako?; ... - Noiz arte ez giñan irteten etxetik, irten gabe obeto gengozalako?; ... - Zu ere ez al ziñan irteten etxetik aŕatsalde arte, irten gabe obeto zengozalako?; Ez, ... baño. -- Igaz emen gurekin zenbiltzaten: Nor zebilen igaz zuekin emen?; ... - Nun genbiltzan igaz zuekin?; ... - Noiz genbiltzan emen zuekin?; ... - Eŕiko arotzak al zebiltzaten igaz emen gurekin?; Ez, ... baizik. -- Atzo etxean gengozala esan dizut: Nork esan dit atzo etxean zegoela?; ... - Zer esan didazu?; ... - Nori esan diozu atzo etxean zengoztela?; ... - Aldun oŕek esan al dit atzo etxean zengoztela?; Ez, ... baño. -- Aŕasate'ko atso onena gugana zetoŕen: Nor zetoŕen zuengana?; ... - Norengana zetoŕen Aŕasate'ko atso onena?; ... - Nungo atso onena zetoŕen zuengana?; ... - Mutil gaiztoenak al zetozen zuengana?; Ez, ... baizik. -- Soraluze'ra baldin bazoaz zurekin joango gera: Nor joango da nirekin Soraluze'ra baldin banoa?; ... - Bakaŕik joango al zerate Soraluze'ra ni baldin banoa?; ... - Nora joango zerate nirekin?; ... - Ikastola'ko mutil guziak joango al dira nirekin Soraluze'ra baldin banoa?; Ez, ... baño. -- Guziok al zentozen bultzi artan?; ez, guziok ez, gure etxekoak bakaŕik: Nortzuk zetozen bultzi artan?; ... - Nun gentozan etxeko guziok?; ... - Ni al nentoŕen bultzi artan?; Bai, zu ere ... - Nora gentozan etxeko guziok bultzi artan?; Etxera ... -- Urte guztietan Aitzkoŕi'ko tontoŕeraño igoten nintzan: Nor

igoten zan urte guztietan Aizkoŕi'ko tontoŕeraño?; ... - Noiz igoten ziñan Aitzkoŕi'ko tontoŕeraño?; ... - Noraño igoten ziñan urte guztietan?; ... - Gu ere urte guztietan Aizkoŕi'ko tontoŕeraño igoten al giñan?; Ez, ... baño -- Gure lengusiñaren etxera saŕitan etortzen giñan: Nor etortzen zan saŕitan bere lengusiñaren etxera?; ... - Nora etortzen ziñaten saŕitan?; ... - Noiz etortzen ziñaten zuen lengusiñaren etxera?; ... - Ni ere al nentoŕen saŕitan zuen lengusiñaren etxera?; Ez, ... baizik. - Goyeŕi'ko jayetan alkaŕekin ibiltzen ziñaten: Nortzuk ibiltzen ziran alkaŕekin Goyeŕi'ko jayetan?; ... - Norekin ibiltzen giñan Goyeŕi'ko jayetan?; ... - Nun ibiltzen giñan alkaŕekin?; ... - Zurekin ibiltzen al giñan Goyeŕi'ko jayetan?; Ez, ... baizik. -- Gau guztietan antzoki'ra zijoazen: Nortzuk zijoazen gau guztietan antzokira?; ... - Nora zijoazen gau guztietan?; ... - Noiz zijoazen antzokira?; ... - Zuek ere al zinjoazen gau guztietan antzokira?; Ez, ... baño. -- Eri zengozanean zu ikustera joaten giñan: Nor joaten zan ni ikustera eri nengoenean?; ... - Noiz joaten ziñaten ni ikustera?; ... - Nor ikustera joaten ziñaten ni eri nengoenean?; ... - Nire etxekoak ikustera joaten al ziñaten ni eri nengoenean?; Ez, ... baizik. -- Leize artan etzegoen aize aski: Nun etzegoen aize aski?; ... - Zer etzegoen leize artan?; ... - Uste al duzu leize artan aize aski etzegoela?; Bai, ... - Guk uste al dugu leize artan aize aski etzegoela?; Ez, ... baño. -- Nola bizi-izango da gure Eŕia ainbeste naigabeaz?; nik eztakit nola bizi-izango dan: Nork eztaki gure Eŕia nola bizi-izango dan ainbeste naigabeaz?; ... - Nola eztakizu gure Eŕia noıa bizi-izango dan?; ... - Uste al duzute ainbeste naigabeaz gure Eŕia bizi--izango dala?; Bai, ... ere ...

4. Ongienik irakuŕi ta buruz ikasi bertso auek:

«ARITXULEGI GAÑEAN

«Ikusten duzu goizean...» «Doñua:

1

«Aritxulegi gañean,
Loa uzten dedanean,
zer poztasun baŕenean!
Mendi-gaĺuŕak, «atoŕ onuntza!»,
deituaz aldamenean;
Pago zaŕ baten oñean,
asten naiz kantu lanean...
Euskerik xamuŕenean».

2

«Adaŕ gañetan kantari,
zoŕotz erantzun alkaŕi...
txori danak bertsolari!
Edertasun au ikusiz gero,
begiak zerurantz jaŕi;
Eskatu diot Jaun'ari,
Biurtu al baldin baledi...
¡¡Urte dana Udabeŕi!!».

3

«Zugaitz sendoak loretan,
nekazariak luŕetan,
bei pintak simauŕ loŕetan.
Alkazi usai ameslaria,
beko eŕekondoetan;
Alboko pegadietan,
kuku zaŕ bi beŕiketan...
dakiten izkuntz oŕetan!».

4

«Zaŕ dana gaztetzen dela,
mundu beŕian gaudela.
Iruditzen zait, Paradisoan,
Orain bai esan leikela!
Jaunak gaur jaŕi nauela,
dana menpeko detela,
zugaitzak gurtzen nautela...
¡¡Bai zoriontsu naizela!!».

«Basarri'ren Bertso Sorta» (17'gaŕen oŕialdean) Eizmendi'taŕ Iñaki.

BEŔOGETABIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - ADITZ IRAGANGAITZAK

Auŕeko ikaskayan ikusitako aditz-aldiai jaŕaipena bezela, emen, aditz iragangaitz guztien beste bi aldi ikasiko ditugu; ikaskai ortan deitu genituen «len-lenagoaldia» ta «lenaldi-gerokoa»; ta bertan adierazitako zentzunaz. Ona emen aldi oyetako erak:

2.ª LEN-LENAGOALDIA

Ni	Izan nintzan
Zu	Joan ziñan
Bera	Etoŕi zan
Gu	Egon giñan
Zuek	Ibiĺi ziñaten
Berak	Irten ziran

3.ª LENALDI-GEROKOA

Ni	Izango	nintzan
Zu	Joango	ziñan
Bera	Etoŕiko	zan
Gu	Egongo	giñan
Zuek	Ibiĺiko	ziñaten
Berak	Irtengo	ziran

EGON aditzaren zentzun berezia:

Eguratsaldiari buruz izan ditezken egokera batzuk edo bere goraberaren bat adierazteko, EGON (1) aditzaren irugaŕen bakaŕ-notiñaŕen erak darabilzkigu bereziki; onelakoak:

BERO, OTZ, OZKIŔI, SARGORI, EGURALDI, AIZE, eta abaŕ.

E. b.: Otz *dago* gaur. - Aize aundia *egon da* egun auetan. - Eguraldi ona *egon zan* atzo. - Berorik *al zegoen* erenegun?

-XE ta *-TXE* atzizkiak.

Leku ta aldiarekiko aditzondoekin, eta ageŕerazleekin erabiltzen dira; *gutxi, naiko, berbera*'ren zentzunakaz:

E. b.: Araxeago
Ementxe, ortxe, antxe
Geroxeago, oraintxe
Onelaxe, oŕelaxe, alaxe
Auxe, orixe, uraxe, axe.

(1) Ikusi: 6'gaŕen ikaskaya.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, ETOŔI aditzaren erak, kulatzen ordez, jaŕi; LENALDI, OITURAZKO LENALDI ta LEN-LENAGOALDI asmoai buruz:

ETOŔI	LENALDI	OITURAZKO LENALDI	LEN-LENAGOALDI
Ni	Nentoŕen	...	...
Zu	...	etortzen ziñan	...
Bera	...	...	etoŕi zan
Gu	Gentozan	...	...
Zuek	...	etortzen ziñaten	...
Berak	...	...	etoŕi ziran

2. Eginkizun ontan, IRTEN eta SARTU aditzak erabiltzean, oraiñaldiko erak lenaldikoen bidez aldatu; bai ta igaroaldikoak len-lenagoaldikoen bidez ere; ta alderantziz. Gañera, bayezkoak diranak ezezkoetan jaŕi ta alderantziz ere; kulatzen ordez, esateko ta idazteko:

Toki oyetatik pozik *irteten naiz*; ... - Gu *ez giñan sartzen* lan oyetan; ... - Laisteŕegi *irten zerate* elizatik; ... - Zergatik *sartu zan* gizon naŕas ura zuen artean?; ... - *Ez ziñan sartzen* gogoz an ordu artan; ... - Neskatiĺak ikastetxetik beranduegi *irteten dira*; ... - *Ez gera sartu* ardandegi ontan gaur arte; ... - Oso itun *irten ziñaten* bilkura artatik; ... - Egun auetan *ez zerate irteten* alkaŕekin; ... - Apaldu ondoren nire gelan *sartzen nintzan*; ... - Gure irakaslea *ezta irten* ikasgutik gurekin; ... - Gure lengusuak txabola artan *sartu ziran* euria asi zalako; ...

3. Emen ipintzen ditugun galderai, erantzun bana eman; esanez eta idatziz:

Elizan goizeko zortziretan sartzen ziñan: Nor sartzen zan elizan goizeko zortziretan?; ... - Nun sartzen nintzan goizeko zortziretan?; ... - Zein ordutan sartzen nintzan elizan?; ... - Atso oyek ere elizan goizeko zortziretan sartzen al ziran?; Ez, ... baño. -- Atzo antzokira joan al ziñaten?; bai, osabarekin joan giñan: Nortzuk joan ziran atzo antzokira osabarekin?; ... - Nora joan ziñaten atzo osabarekin?; ... - Noiz joan ziñaten antzokira osabarekin?; ... - Izebarekin joan al ziñaten atzo antzokira?; Ez, ... -- Lengo egunean Gorbea'raño igo giñan: Nor igo zan lengo egunean Gorbea'raño?; ... - Noiz igo ziñaten Gorbea'raño?; ... - Noraño igo ziñaten lengo egunean?; ... - Kapildui-raño igo al ziñaten

lengo egunean?; Ez, ... baño. -- Ez al zegozen zure gurasoak erenegun zurekin?; bai, nirekin zegozen beti bezela: Nortzuk zegozen zurekin erenegun?; ... - Noiz zengozan zure gurasoekin beti bezela?; ... - Norekin zegozen zure gurasoak ereñegun?; ... - Zure lengusiñak al zegozen zurekin erenegun?; Ez, ... baizik. -- Atzeruntz ibiltzen ziran; Nortzuk ibiltzen ziran atzeruntz?; ... - Noruntz ibiltzen ziran?; ... - Zuek ere atzeruntz ibiltzen al ziñaten?; Ez, ... baño. -- Joan zan anaya ezta itzuli: Nor ezta itzuli?; ... - Nor zan itzuli eztana?; ... - Zu itzuli al zera?; Bai, ... -- Etxe ontara askotan etortzen giñan: Nortzuk etortzen ziran etxe ontara askotan?; ... - Nora etortzen ziñaten askotan?; ... - Noiz etortzen ziñaten etxe ontara?; ... - Gutxitan etortzen al ziñaten etxe ontara?; Ez, ... baizik. -- Zu baño ariñago ibiltzen nintzan: Nor ibiltzen zan ni baño ariñago?; ... - Nola ibiltzen ziñan?; ... - Nor baño ariñago ibiltzen ziñan?; ... Eŕen ori ni baño ariñago ibiltzen al zan?; Ez, ... baño. -- Gero ta gaiztoagoa zan: Nor zan gero ta gaiztoagoa?; ... - Nolakoa zan ura?; ... - Zuek ere gero ta gaiztoagak al ziñaten?; Ez, ... baizik. -- Gero ta astiroago zijoazen: Nor zijoan gero ta astiroago?; ... - Nola zijoazen ayek?; ... - Noiz zijoazen ayek gero ta astiroago?; ... - Ni ere gero ta astiroago al ninjoan?; Ez, ... baño. -- Nire amoña aŕatsaldeetan besaulki ortan eseriten zan: Nor eseriten zan aŕatsaldeetan besaulki ortan?; ... - Noiz eseriten zan zure amoña besaulki ortan?; ... - Nun eseriten zan zure amoña aŕatsaldeetan?; ... - Aitona ere eseriten al zan aŕatsaldeetan besaulki ortan?; Ez, ... baizik. -- Ni baño lenago jeikitzen al zera?; bai, egunero jeikitzen naiz zu baño lenago: Nor jeikitzen da egunero zu baño lenago?; ... - Noiz jeikitzen naiz zu baño lenago?; ... - Nor baño lenago jeikitzen naiz egunero?; ... - Zu baño beranduago jeikitzen al naiz egunero?; Ez, ... baño. -- Ementxe egon giñan atzo zure zai: Nortzuk egon ziran atzo ementxe nire zai?; ... - Nun egon ziñaten atzo nire zai?; ... - Noiz egon ziñaten ementxe nire zai?; ... - Aŕebaren zai egon al ziñaten atzo ementxe?; Ez, ... baizik. -- Oŕela ibiltzean ez ziran iñoiz elduko araño: Nor etzan iñoiz elduko araño oŕela ibiltzean?; ... - Noraño ez ziran iñoiz elduko oŕela ibiltzean?; ... - Nola etziran iñoiz elduko araño?; ... - Zuek elduko al ziñaten iñoiz araño oŕela ibiltzean?; Ez, gu ere ... -- Gabonetan otz aundia egon zan Parantzi guzian: Nun egon zan otz aundia Gabonetan?; ... - Noiz egon zan otz aundia Parantzi guzian?; ... - Zer egon zan Gabonetan Parantzi guzian?; ... - Gabonetan beroa egon al zan Parantzi guzian?; Ez, ... baño. -- Kontuz gero!, ona ezpazera zigortuko zaitut: Nork zigortuko nau ona ezpanaiz?; - Nor zigortuko duzu ona ezpada?; ... - Nola zigortuko nauzu?; ... - Nik zigortuko al zaituztet onak ezpazerate?; Ez, ... baizik. -- Eztugu osasun aski eŕialde artan bizi-izateko: Nortzuek eztute osasun aski eŕialde artan bizi-izateko?; ... - Zer eztuzute eŕialde artan bizi-izateko?; ... - Zertarako eztuzute osasun aski?; ... - Guk al dugu osasun aski eŕialde artan bizi-izateko?; Ez, zuek ere ... -- Etzerate iñoiz bizi-izango au bezin uri edeŕean: Nortzuk eztira iñoiz bizi-izango au bezin uri edeŕean?; ... - Nun ez gera iñoiz bizi-izango?; ... - Noiz ezkera bizi-izango au bezin uri edeŕean?; ... - Zu bizi-izango al zera iñoiz au bezin uri edeŕean?; Ez, ni ere ...

4. Irakurgai au astiro irakuŕi, bi edo iru aldiz, bertan esaten dana ongi ulertu arte:

«OSTEGUNA; Txomin laŕi...»

«Ilunabaŕa zan... Negu goŕiko ilunabaŕ bat ... Urgain'go kaleetan ez zan iñor ageri. Eta, egia esan, ez zan aŕitzekoa ... Ango euri-zapaŕak! Ango aize-zuŕunbiloak! Ango otza! ...

Ez zan ez, neska-mutilen joas-zalapartarik entzuten! Ezta, besteetan bezela, ordu ayetan kalean gora ta bera, aruntz-onunzka ta onuntz-arunzka, ibiltzen ziran gazteen ojurik ere! Bai zera! ...

Euria! Euria ta euria! ...

Noizik eta bein, Donostia'ko trena iristen zanean, an zetoŕen jendeak kale nagusiari alaitasun pixka bat ematen zion, baña, berealaxe, itz batzuk orduko, an zetoztenak, batak besteari azken aguŕa egin, eta, guziak lasterka etxeraturik, otza, euria ta arkupetan gerizpeturik zeuden gazte ale batzuen eten gabeko beŕiketaren marmara besterik an ez zan.

Euria, goyan-bean, otza, aizearen txistua ... Eta kale-erdian, eŕeskadan zintzilika zeuden argiak beŕiz, ilun-senti artan izaŕik ageri ez zala-ta, berak izaŕak balira bezela, aŕo-aŕo eginda, zabu-zabuka ta kiñuka. Ayen poza! ...».

«Amabost Egun Urgain'en» (15'gaŕen oŕialdean) J. A. Loidi Bizkarrondo.

BEŔOGETAIRUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-ATZIZKIAK

-TU (*-DU*) atzizkia.

Atzizki onen bidez, *izen* eta *izenondoak* asko, *aditz* biurtzen dira.

Onela : *Gizon* + *-tu* (*-du*) = *gizondu* (gizon egitea).
Aundi + *-tu* = *aunditu* (aundi egitea, azi).
Etxe + *-ra* + *-tu* = *etxeratu* (etxera joan).
Gogo + *-ra* + *-tu* = *gogoratu* (gogora joan, oroitu).

-TE (*-TZE*) atzizkia.

Atzizki au, ostera, *aditzak izen* biurtzeko da.

Mugarazlea dan *-A* mugitza artzen du.

Onela : *Jakin* + *-te* = *jakite, jakitea* (izena biurtuta).
Ibīli + *-tze* = *ibiltze, ibiltzea* (izena biurtuta) (1).

-TU (-DU) ta -TE (-TZE) atzizki auen jokera ori dala-ta, noredonork nabaritutako asmo au sortu da : euzkeraz, itz guztiak naiz izen-jokoan naiz aditz-jokoan erabīli ditezkela ; onela ere esan ditekena : euzkeraz izen guzia aditz biuŕ ditekela, ta alderantziz ere, aditz guzia izen.

-TA eta *-TAKO* (*-TA* + *-KO*) atzizkiak.

Atzizki bi auek *aditzak izenondoak* (*aditz-izenondoak*) biurtzeko erabiltzen ditugu (2).

Onela : *Erori* + *-ta* = *erorita*.
Egin + *-tako* = *egindako* ; *egindakoa*.

Lenengoa, len ikusitako *-(r)ik* antzekoa da, ta au ere bere ordez erabil diteke ; ta «aditz-izenondo osotuak» dagizkien adierazpenen antzekoak be dagizki.

Onela : Au *ikusita* (*ikusirik*), aldegin zuen (Au ikusi ondoren alde gin zuen). Semeak *deituta* (= *deiturik*) itz auek esan zituen (Semeak deitu ondoren itz auek esan zituen).

(1) Ikusi: 151'gaŕen ikaskaya.
(2) Ikusi: 101'gaŕen ikaskaya.

Egon, gelditu, jaŕi ta oŕelako aditzekin asko erabiltzen da, baña ez *izan* laguntzalearekin.

E. b. : *Eserita* (= *eseririk*) dago.
Etzanda (= *etzanik*) geratu da.

Bigaŕena, -TAKO atzizkia, izen edo izenorde baten auŕean aditz-izenondo bat jartzeko erabiltzen da ondo ; ta, labuŕean bada ere, alkaŕ-gayezko esakuntzaren zentzuna artzen du ; ta ain berezkoa danez, asko darabilgu.

E. b. : *Etoŕitako* gizona, zentzunez, *Etoŕi dan* gizona esakuntzaren antz geyagoko da, Gizon *etoŕia* beste esakuntzarena baño.

Nik *erositako zaldia*, Nik *erosi dudan zaldia* ; bi esakuntza auek alkaŕ bezelakoak dira.

Ongi oartu aal-izan danez, aditz-izenondo auen erabiltzea ez da berdin nolakotzen duten izenari buruz ; lenengoa, -TA atzizkiaren bitartez egiten dana, izenaren atzetik joan beaŕ da, izenondo guzien jokera bera jaŕaitzean, ots, izenaren ondorengo tokian agertzeko ; bigaŕena, -TAKO, ordea, izenaren auŕean joan beaŕ da, -KO atzizkiak, beti, atzetik izen edo izenordea eraman beaŕ duelako, 10'gaŕen ikaskayan esan zan bezela ; noski, bigaŕen gertakera ortan alkaŕ-gayarekin azal diteken aditza eramango duen esakuntzaren zentzuna artzeko.

E. b. : Gizon *erorita* - *Eroritako* gizona.

Adibide bi auetan, zentzuna berbera da ; alaz ere, bigaŕenarena alkaŕ-gayarekin agertzen dan aditzaren esakuntzaren zentzunaz ikus dezakegu.

E. b. : *Eroritako* gizona, ta erori dan gizona, bezelaxekoak dira.

Ba-dugu beste zerbait gogoratzeko ere : aditzaren izena, berez eta egitan, *izenondoa* (*aditz-izenondoa*) dala.

Onela : *Etoŕi* da esan ezkero, au galde dezakegu : Zer da?, ta erantzun au eman : *Etoŕia* da.

Egin + *-a* = *egiña* (*egindakoa* bezela).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, IBĪLI aditza erabiltzean, LENALDI, LEN-LENAGOALDI ta LENALDI-GEROKO'aren erak, kulatzen ordez, ipiñi :

IBIĪ	LENALDI	LEN-LENAGOALDI	LENALDI-GEROKOA
Ni	...	ibiĪi nintzan	...
Zu	...	...	ibiĪiko ziñan
Bera	Zebiĭen	...	...
Gu	...	ibiĪi giñan	...
Zuek	...	...	ibiĪiko ziñaten
Berak	Zebiltzaten	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan, IGO ta JETSI aditzakaz jokatzean, igaroaldiko erak, len-lenagoaldikoen bidez aldatu; bai ta geroaldikoak lenaldi-gerokoen bidez; eta alderantziz ere. Bayezkoak agertzen diranak ezezkoetan aldatu be, ta alderantziz; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Guziak baño lenago *igo gera* mendi ortara; ... - Aŕatsalderarte *ez giñan jetsi* andik; ... - Nai baduzute zuekin *igoko naiz* biar; ... - *Ez al ziñan jetsiko* goizago, adiskidea?; ... - Zertarako *igo zerate* oneraño?; ... - Ba-dakit zamalzain mukeŕ oyek eŕira *jetsi zirala*; ... - Bein eta beŕiz gurekin *igoko dala* bayezten du; ... - Pozik *jetsiko giñan* zuen gana laisterka; ... - Artaraño *igo al zera* bakaŕik?; ... - Egun itun artan *ez nintzan jetsi* besteetan bezin alai; Gaur *igoko diranak* nai dutena dagite; ... - Uste dut neskatil oyek alkaŕekin *ez zirala jetsiko*; ...

3. Emen idazten ditugun galderai, erantzun egoki bana eman, esanez eta idatziz:

Uri artara ni baño beranduago joan ziñan: Nor joan zan uri artara zu baño beranduago?; ... - Nora joan nintzan zu baño beranduago?; ... - Noiz joan nintzan uri artara?; ... - Zure ikaskideak joan al ziran uri artara zu baño beranduago?; Ez, ... baño. -- Zuekin oso pozik genbiltzan: Nor zebiĭen oso pozik gurekin?; ... - Norekin zenbiltzaten oso pozik?; ... - Nola zenbiltzaten gurekin?; ... - Zuen lengusuak ere gurekin oso pozik al zebiltzaten?; Ez, ... baizik. -- Ez al ziran egoten an?: bai, maiz egoten ziran an: Nortzuk egoten ziran an?; ... - Nun egoten ziran maiz?; ... - Noiz egoten ziran an?; ... - Zuek ere an maiz egoten al ziñaten?; Ez, ... baño. -- Zergatik etziñan etoŕi atzo?; etxean gurasoekin geratu nintzalako: Nor etzan etoŕi atzo etxean gurasoekin geratu zalako?; ... - Norekin geratu ziñan atzo etxean?; ... - Nun geratu ziñan atzo gurasoekin?; ... - Ori ere ez al zan etoŕi atzo, etxean gurasoekin geratu zalako?; Ez, ... baizik. -- Atera dizkidaten agiñak zulatuta zegozen: Zertzuk zegozen zulatuta?; ... - Nola zegozen atera dizkidaten agiñak?; ... - Nori atera dizkiote zulatuta zegozen agiñak?; ... - Niri

atera dizkidaten agiñak ere zulatuta al zegozen?; Ez, ... baño. -- Goiz jeikitzea osasunerako oso ona da: Zer da oso ona osasunerako?; ... - Zertarako da oso ona goiz jeikitzea?; ... - Txaŕa al da osasunerako goiz jeikitzea?; Ez, ... baizik. -- Eldu giñanean oso nekatuta gengozan: Nor zegoen oso nekatuta eldu zanean?; ... - Nola zengozten eldu ziñatenean?: - Noiz zengozten oso nekatuta?; ... - Ni ere oso nekatuta al nengoen eldu nintzanean?; Ez, ... baño -- Laisteŕ erdu ziran gugana: Nor erdu zan laisteŕ zuengana?; ... - Noiz erdu ziran zuengana?; ... - Norengana erdu ziran laisteŕ?; ... - Zuek ere laisteŕ erdu al ziñaten nigana?; Ez, ... baizik. -- Nirekin aspertuko ziñan: Nor aspertuko zan zurekin?; ... - Norekin aspertuko nintzan?; ... - Uste al duzute zuek ere gurekin aspertuko ziñatela?; Ez, ez ... -- Ez diguzute ulertu nai-izan eztuzutelako: Nork eztizue ulertu nai-izan ez duelako?; ... - Nori eztiogu ulertu nai-izan ez dugulako?; ... - Zergatik ez dizuegu ulertu?; ... - Apaiz oyek ere ez al dizuete ulertu nai-izan eztutelako?; Ez, ... baño. -- Gizonen txikienak ziran: Nortzuk ziran gizonen txikienak?; ... - Nolakoak ziran ayek?; ... - Zu ere gizonen txikiena al ziñan?; Ez, ... baizik. -- Gaizkiĭe oyek egindakoa ikaragaŕia izan zan: Zer izan zan ikaragaŕia?; ... - Nolakoa izan zan gaizkiĭe ayek egindakoa?; ... - Egia al da gaizkiĭe ayek egindakoa ikaragaŕia izan zala?; Bai, ... - Noiz igo ziran oneraño?; igazko udabeŕian igo ziran oneraño: Nortzuk igo ziran oneraño igazko udabeŕian?; ... - Noraño igo ziran igazko udabeŕian?; ... - Uŕuneko mendi artaraño igo al ziran igazko udabeŕian?; Ez, ... baño. -- Galdu zaizkidan ardiak amiltoki artan jausi ziran: Zeintzuk jausi ziran amiltoki artan?; ... - Nun jausi ziran galdu zaizkizun ardiak?; ... - Nori galdu zaizkion amiltoki artan jausi ziran ardiak?; ... - Artzain oyei galdu al zaizkie amiltoki artan jausi ziran ardiak?; Ez, ... baizik. -- Ez gaituzute ikusi, ez orain, ez an zebiltzatenean: Nork ez zaituzte ikusi, ez orain ez an zebiltzatenean?; ... Nor ez dute ikusi ez orain ez an zebiltzatenean?; ... - Noiz ez zaituztee ikusi?; ... - Nik ikusi al zaituztet an ibiĪi naizenean?; Ez, ... baño. -- Gu baño beranduxeago eldu ziñaten: Nor eldu zan zuek baño beranduxeago?; ... - Noiz eldu giñan gu?; ... - Egia al da gu zuek baño beranduxeago eldu giñala?; Bai, ... -- Zuek baño gaizkiago zebiĭen: Nor zebiĭen gu baño gaizkiago?; ... - Nor baño gaizkiago zebiĭen ura?; ... - Gu baño obeki al zebiĭen?; ... - Nork esan dizu gu baño gaizkiago zebiĭela?; Lugin oŕek ... -- Etxera eldu giñanean beranduegi izan zan: Noiz izan zan beranduegi?; ... - Zer izan zan etxera eldu ziñate-

nean?; ... - Goizegi al zan etxera eldu ziñatenean?; Ez, ... baizik. - Ni ere etxera eldu nintzanean beranduegi al zan?; Bai, zu ere ...

4. Ongi irakuŕi bertso auek eta buruz ikasteko alegiñak egin:

«ARDI GAXOA!...»

«Ibaŕez-ibaŕ, mendirik-mendi
Artzai Ona'ren ondoren
zeñen gozoki, zeñen zoruntsu
zeñen gentzaro nenbīlen!
Abesti legun, atseginkoŕak
Artzayak zizkun (1) abesten,
ibargi naro, loretsuetan
genbiltzanean bazkatzen.

Egun batean, līluratua
utzirik ai! artaldea,
aldendu nintzan arturik ala
beaŕ ez nuen bidea;
pozkai ondoren uŕundu nintzan
irudipenez betea,
luditik barna zoro ninjoan
iritxi nayan obea.
«(1) Zizkigun»

Doakabea! ... ez nekin bela
iges arek zekaŕena;
itxumusturik ez nun nabaitu
sartu zidaten eztena ...
Uŕin zerion bide zabala
lenen ibīli nuena;
arantza zoŕotz, otez josia
zorakerien azkena ...

Lizunkerizko lore tartean
txoraturik nenbīlela
ixil-ixīlik irten zitzaidan
iñaŕ-tximista bezela
otso beltz, aundi, amoŕatua,
erakutsirik oŕela
begi zartatsu, ao zoŕotza,
odol-bitsa zeriola».

«Olerkiak» (35'kn. oŕialdean) Loramendi - Bedoña'taŕ Joakin **Abagai** kaputxinoa.

BEŔOGETALAUGAŔEN IKASKAYA

EGON aditzaren «lenaldi»'ko era batzuk:

	Bizkaieraz	Gipuzkeraz	Laburdieraz
Ni	Nengoen	Nengoen	Nindagon
Zu	Zengozan	Zeunden	Ziñagon
Bera	Zegoen	Zegoen	Zagon
Gu	Gengozan	Geunden	Giñauden
Zuek	Zengozten	Zeundeten	Ziñagozten
Berak	Zegozten	Zeuden	Zagozen

Emen bizkayeraz, gipuzkeraz eta laburdierazko erak, alkaŕen ondoan jartzea, xede ontaz dagigu: Lenengoz, gipuzkerazkoak ezagueraztekо, euzkalki au ikasten ari geranezkero; baña bereziki, gaur euzkera zortzi izkelgitan biziaŕen, eta guzti oyetan alkaŕenganako dauzkaten ezberdintasun aundienak, ain zuzen, aditzetan ikusten diralarik, aditzera guzi oyen egitura, egitan, berbera dala argi ikus dezagun, ta orixe nabaritzeko asmoz ipiñi ditugu era auek. Oŕela be, euzkera bat dala oaŕ dezakegu ongi.

Oŕengatik, euzkera bat izanik, izkelgietan agertzen diran berezitasunak alkartzeko ta batutzeko lana oso egingaŕia dala ikus diteke; ta, enurarik gabe, batasun ori berez elduko da, izkuntza guzietan bezela, gurea be ikasgai ta biziaren arazo guztietan, sakon eta zabal, sartzen baldin badugu, arian-arian geron aldetik yardun ezkero.

BURU itzaren adierazpenak:

Izen bezela, ba-dakigu ongi itz onen bidez zer esan nai dugun, ots, gure gorputzaren zati berezia. Baña ba-dauzka itz onek beste zentzun batzuk, eta oyetatik bat da emen nabaritu nai duguna, *norbera*'rena ain zuzen.

Itz au, zentzun oŕezaz, onela darabilgu: aditz iragankoŕen *izakaya* adierazteko, aditz oyen egipena, bera dagien *adi-yabe* edo *egīle*arengan gertatzen danean. Orduan ukanekiko izenordeen bat auŕetik eraman beaŕ du (nere, zure, bere edo beraren, gure, zuen eta beren), zeñekiko zein.

Onela: Yon'ek *bere burua* il du = Yon'ek *burua* il du (*beraren burua* ain zuzen) (onela esango bagenu: Yon'ek Yon il du).

Zuen burua geyegi maite duzute = *Burua* da geyegi maite duzutena (ots, *zuena* dan *burua*) (*Zuek zerok* maite dituzute geyegi).

Nere burua ezagutzen dut = *Burua* da ezagutzen dudala (ots, *nere burua*) (*Nik nerau* (*neu*) ezagutzen dut).

Itz onek, atzizki batzuekin bat eginda, ta beste itzekin ere, itz beŕi ta esakera batzuk dagizki, eŕuz erabiltzen diranak. Emen, Azkue'ren Iztegi'tik batez ere, artu ditugun batzuk ipintzen ditugu:

Buruauste (kardaba bezela); Burubide (asmo, erabaki); Burudun (zentzudun, buru duena); Buruki, buruko (oean, burua jartzeko etzangaĺu); Burutsu (asmutsu, antzedun); Buruz (oroimenez ikasi, ala norbaiten naiz zerbaitenganako zuzentzea (e. b.: niri buruz = niganuntz zuzentzea)); Buruzagi, buruzari, buruzai (nagusi, aintzindari); Burukeri (itsumenezko gogoeta).

Buru-arin (kaskarin, txotxolo); Buru-belaŕi (gogo aundiaz lanegin edo yardun); Buru-utsik (burua txapelik edo beste ezer gabe eukitzea).

Burua-joan (oroimena galdu); Buru-belaŕiak ipiñi (aŕeta aundienaz aditu); Burutik-burura (asieratik amayera); Urte-buru (urte-bete); Buruak eman (burutara etoŕi, otu); Buru-egin (aurka egin, auŕez egin); Buruz-buru (auŕez-auŕe, begiz-begi, mokoz-moko); Buruz-gora (burua goratu).

Eginkizunak

1. Lauki ontan, kulatzen ordez, bizkayeraz eta gipuzkerazko EGON' en aditzerak ipiñi; oraiñaldi ta lenaldian:

	BIZKAYERAZ		GIPUZKERAZ	
Adl-yabea	Oraiñaldi	Lenaldi	Oraiñaldi	Lenaldi
Ni	Nago	...	...	...
Zu	...	zengozan	...	...
Bera	...	...	dago	...
Gu	...	...	...	geunden
Zuek	...	zengozten	...	...
Berak	...	...	daude	...

2. -TU (-DU), -TE (-TZE) eta -TAKO atzizkiak erabiltzen, emen jartzen ditugun esakuntzetan agertzen diran *izenak* edo *izenondoak*, aditzen bidez aldatu; berdin *aditzak*, izenen bidez edo aditz-izenondoen bidez; guzi ortarako, esakuntzaen beste itzak, beaŕak izango diranak, ere aldatzean; eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Gure mutil au *txiki* egin da; ... - Ura *ikusi* ezkero, naikoa izan zan; - Zuk *egin* duzuna ez da goratzekoa izan; ... - *Gizondu* zaizkigunak gugandik joan dira; ... - Gauza oyek oŕen gaizki *erabiltzea* ez da izan guk nai genuena *egitea*; ... - Gizon gizen oyek *jandakoa* gazte auentzat geyegi izan da; ... - *Eliza* artara *eldu* ziranean belauniko jaŕi ziran; ... - Mendi artan *geldituta* geratu ziran ardiak *galduta* zegozela uste-izan beaŕ; ..

3. Uŕengo galderai, kulatzen ordez, erantzun egoki bana eman, esanez eta idatziz:

Lengo egunean ementxe egon giñan: Nor egon zan ementxe lengo egunean?; ... - Nun egon ziñaten lengo egunean?; ... - Noiz egon ziñaten ementxe?; ... - Zuen lagunak ere lengo egunean ementxe egon al ziran?; Ez, ... baño. -- Ni baño uŕutixeago joan ziñan: Nor joan zan zu baño uŕutixeago?; ... - Nora joan nintzan ni?; ... - Ni zu baño uŕutixeago joan al nintzan?; Ez, ... baizik. -- Berekin zebiltzatenean pozik zegozen: Nor zegoen pozik berekin zebiĺenean?; ... - Noiz zegozen pozik?; ... - Zu ere pozik al zengozan berekin zenbiltzanean?; Bai, ni ere ... -- Nire burua begiratzen dudanean lotsa naiz: Nor da lotsa bere burua begiratzen duenean?; ... - Noiz zera lotsa?; ... - Emakume oyek lotsa al dira beren burua begiratzen dutenean?; Ez, ... baño. -- Enengoen zuk diñozun tokian, ez atzo ez eta erenegun ere: Nor etzegoen nik diñodan tokian, ez atzo ez eta erenegun ere?; ... - Nun etzengozan ez atzo ez eta erenegun ere?; ... - Noiz etzengozan nik diñodan tokian?; ... - Dantzari oyek al zegozen zuk diñozun tokian atzo ta erenegun?; Ez, oyek ere ez ... -- Bere burua leyotik bota du ero zegoelako: Nork bota du bere burua leyotik ero zegoelako?; ... - Nundik bota du oŕek bere burua ero zegoelako?; ... - Zergatik bota du oŕek bere burua leyotik?; ... - Zuk ere bota al duzu zure burua leyotik?; Ez, ... baño. -- Joan dan iĺean baño pozago geunden: Nor zegoen joan dan iĺean baño pozago?; ... - Nola zengozten zuek?; ... - Ni ere joan dan iĺean baño pozago al nengoen?; Bai, zu ere ... -- Zure etxera joan etzala bayeztu dit: Zer bayeztu dizu oŕek?; ... - Nori bayeztu dio oŕek nire etxera joan etzala?; ... - Nik bayeztu al dizut oŕen etxera joan enintzala?; Ez, ... baizik. -- Ez al ziñan aspertu Araya'ko jai ayetan?; bai, zearo aspertu nintzan Araya'ko jai ayetan: Nor aspertu zan zearo Araya'ko jai ayetan?; ... - Nun aspertu ziñan zearo?; ... - Emengo jayetan aspertu al ziñan?; Ez,

... baño. -- Auŕ ura asko azi zan: Nor azi zan asko?; ... - Gutxi azi al zan auŕ ura?; Ez, ... baño. - Zu ere asko azi al ziñan?; Bai, ni ere ... -- Zorigabeko oyei beren nekea aunditu zaye: Nortzuei aunditu zaye beren nekea?; ... - Zer aunditu zaye zorigabeko oyei?; ... - Zuei ere aunditu al zaizue zuen nekea?; Ez, ... baizik. -- Esan didazuna oso ondo gogoratu dut: Nork gogoratu du oso ondo esan diodana?; ... - Zer gogoratu duzu?; ... - Nik ere oso ondo gogoratu al dut esan didazuna?; Ez, ... baño. -- Ba al dakizute nire senaŕa atzo zetoŕela?; ez, guk eztakigu zure senaŕa atzo zetoŕela: Nortzuek eztakite zure senaŕa atzo zetoŕela?; ... - Zer eztakizute?; ... - Zure lagunek al dakite zure senaŕa atzo zetoŕela?; Ez, oyek ere ez ... -- Asko jatea kaltegaŕia da: Zer da kaltegaŕia?; ... - Ta gutxi jatea ez al da kaltegaŕia ere?; Bai, ... - Gutxi jatea zuretzat onuragaŕia al da?; Ez, gutxi jatea ez ... baizik. -- Oŕek bere burua geyegi zaintzen du: Nork zaintzen du geyegi bere burua?; ... - Nola zaintzen du oŕek bere burua?; ... - Zuk ere zure burua geyegi zaintzen al duzu?; Ez, ... baizik. -- Bide artako ertzean jausita zegoen: Nor zegoen jausita bide artako ertzean?; ... - Nun zegoen jausita?; ... - Nola zegoen bide artako ertzean?; ... - Zuek al zengozten jausita bide artako ertzean?; Ez, ... baño. -- Ariñegi zentozan: Nor zetoŕen ariñegi?; ... - Nola zentozan?; ... - Ni al nentoŕen ariñegi?; Ez, ... baizik. - Zu geldiroegi al zentozan?; Ez, ... baño. -- Ez digute emen irakasi ori bezin ikaskai edeŕa: Zer eztizuete emen irakasi?; .. - Nun eztizuete irakasi ori bezin ikaskai edeŕa?; ... - Nortzuei ez diete irakasi emen ori bezin ikaskai edeŕa?; ... - Niri irakasi al didate emen ori bezin ikaskai edeŕa?; Bai, zuri ... -- Ez da egoki ortxe sartzea: Zer ezta egoki?; ... - Nun sartzea ez da egoki?; ... - Niretzat egokia al da ortxe sartzea?; Ez, zuretzat ere ... -- Araño alkaŕekin joan giñan: Nortzuk joan ziran alkaŕekin araño?; ... - Noraño joan ziñaten alkaŕekin?; ... - Norekin joan ziñaten araño?; ... - Gurekin joan al ziñaten araño?; Ez, ... baizik.

4. Irakurgai edeŕ au ongi irakuŕi beaŕ da:

«IL - GAUA»

«Ba-zetozen gizon eta emakumeak ugari Mendiola'ra, Arnoldo ilda uŕengo iluntzean. Aideak, auzokoak, gelditu jakozan (zitzaizkion) adiskide apuŕak, eta bai ta arerioetarikoen batzuk bere (ere), sartu ziran jauregi artako atetik baŕura, eriotzaren auŕean oi dan ixiltasun eta begiruneaz. Eriotza zan etxe artako nagusi, ta bera esnatuteko bilduŕean

legez, bi atzen gañean igoten ziran goiko egotokira gizon eta emakume danak, itz bat be alkaŕi esan baga (gabe).

Estaldu ziran aulki guztiak, bete zan mandio ta. Erdi-erdian, areitz-olakaz antxiñetan egindako mai aundi baten gañean ikusten zan Arnoldo'ren gorpua; Eŕiktrudis'ek azkenengo josi eban (zien) soñeko baŕi bategaz jantzirik; bizaŕ eta ule luze zuri edeŕak ondo garbitu ta oŕeztuak agertuten ziran. Bulaŕaren gañean tolosturik eukazan (zeuzkan) eskuak, eta bien tartean zurezko kurutzetxo bat, kristiñautasunaren agergaŕitzat. Lau argi-mutiletan egozan (zegozen) lau argi ta luŕezko ontzitxo batean ur bedeinkatua, ereñoz zati bat baŕuan ebala (zuela).

Il-gaua asi zan».

«Ondaŕak» (50'gn. oŕialdean) Txomin Agiŕe.

BEŕOGETABOSKAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKO IRAGANKOŕA - «IZAN» ADITZ LAGUNTZAĪEA
TINKIERA - LENALDIA - BIGAŕEN ERABIDEA
IZAKAI-ADIZKIÑAK

Irugaŕen notiñaren izakaya

	Bakaŕ	Askaŕ
Nik	N- -u--e-n	N- -it-u- -e-n
Zuk	Z-e-n-u--e-n	Z-e-n-it-u- -e-n
Berak	Z- -u--e-n	Z- -it-u- -e-n
Guk	G-e-n-u--e-n	G-e-n-it-u- -e-n
Zuek	Z-e-n-u-te-n	Z-e-n-it-u-z-te-n
Berak	Z- -u-te-n	Z- -it-u-z-te-n

ERAKUS-BIDE OROKAŕA:

N-		-e-
Z-e-N		-e-
Z-		-e-
	-IT- -U-	-N
G-e-N-		-e-
Z-e-N-		-Z- -TE-
Z-		-Z- -TE-

Len (38'gn. ikaskaya) esan zanez, bigaŕen erabidearen oñaŕia dan lenaldian, bere erak osotzen dituzten atalen kiria aldatzen da.

Onela, lenengo erabidean (tinkiera-oraiñaldia) gertatzen dan alderantziz, *egīlea* adierazten duten izkiak adizkiñaren lendabizikoak dira: *N-*, *Z-*, *Z-*, *G- Z- Z-*; auen uŕengo, lenengo ta bigaŕen notiñen bereizgaŕia dan *-N-* erdizkia doa, lenaldiaren zentzuna duen tarteko *-e-* batekin; *-e-* izki au ezta agertzen lenengo bakaŕ-notiñean; gero, askaŕ-zentzuna duen -IT- beste erdizkia doa (askaŕ-adizkiñetan, noski); oŕen ondoren aditzaren eŕoa dan *-U-* ikusten da, lenengo erabidean bezela; onen atzetik, lenengo lau notiñetan, alkartzekoa dan beste *-e-* dago jaŕita (baña ezta beaŕ-beaŕezkoa, toki askotan erabiltzen ezpaita, eta NUEN ordez NUN esaten dutelarik); eta adizkiña, lenaldiaren bereizgaŕia dan -N atzizkiaz, amaitzen da.

Bigaŕen eta irugaŕen askaŕ-notiñetan, alkartzekoa dan *-e-* ori ezta azaltzen, beaŕa eztalako; notin oyetan, ostera, eŕoaren ondotik *-Z-* ta

-TE- beste erdizkiak ipintzen dira, ta biak askaŕ-zentzuna dutelarik, lenengoa izakayarena da (oŕela zentzun ori bi bideŕ emanda) ta bigaŕena adi-yabearena; ta bi erdizki oyek bigaŕen eta irugaŕen bakaŕ-notiñetik bereizteko ditugu. Jakiña, oyek askaŕ-izakayaren adizkiñetan agertzen dira; ta bakaŕ-izakayarenetan, bigaŕen eta irugaŕen notiñen adi-yabeen askaŕ-zentzuna -TE- erdizkiaz egiten dala ikus diteke.

Oartzen danez, bigaŕen erabide ontan ezta agertzen irugaŕen notiñaren izakaya adierazteko izkirik; osterantzean, len ikusi zanez, lenengo erabidean irugaŕen notin ori adierazteko, adizkiñak asten dituen *D-* izkia agertzen da; ta ortan dago bi erabideen beste ezberdintasuna.

EGINKIZUNAK

1. Emen ematen dugun laukian, IZAN (ba-dirudi, IZAN'en ordez, aditz laguntzaĪea UKAN dala) aditz iragankoŕaren lenaldiko erak, kulatzen tokietan esan eta idatzi; bakaŕ eta askaŕ-izakayetaz:

Adi-yabea	Bakaŕ-izakaya	Askaŕ-izakaya
Nik	Nuen	...
Zuk	...	zenituen
Berak	Zuen	...
Guk	...	genituen
Zuek	Zenuten	...
Berak	...	zituzten

2. Bigaŕen eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan, oraiñaldiko erak lenaldikoen bidez aldatu, ta alderantziz, lenaldikoak oraiñaldikoen bidez; beti *bakaŕ*-izakayaz; bide batez, bayezkoak diranak ezezkoetan biurtu, ta alderantziz; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Nik egin *dudan* lana, zurea baño zaĪagoa da; ... - Zuk jan *zenuen* aragia oso gogoŕa izan zan; ... - Oŕ ikusten dan kutxa aundia berak egin *du*; ... - Guk zuek aña edaten *genuen*, eŕaz gañera; ... - Zuek ez *duzute* iñoiz ikusi ainbeste abere; ... - Berak, an zeudenean, *etzuten* gutunik idatzi; ... - Nik, aŕatsalde artan, ondo jokatu *nuen*; ... - Entzun al *duzute* neska gazte oŕen abestia?; ... - Berak *etzuen* ebaki eun edeŕ ura; ... - Guk, jostun oyek baño obeto, josiko *dugu*; ... - Zuek irakuŕi *zenuten* egunerokoa etzan uri artako onena; ... - Ikazkin oyek, beaŕa izango dan eguŕ guzia ekaŕiko *dute*; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez esan eta idazteko:

Luŕa Yainkoa'k egiña izan zan: Zer izan zan Yainkoa'k egiña?; ... - Nork egiña izan zan Luŕa?; ... - Zuek egiña izan al zan Luŕa?; Ez, ... baño. -- Ez al duzu ikusten zure buruari kalte egiten diozula?; Ez, nik eztut ikusten nire buruari kalte egiten diodala: Nork eztu ikusten bere buruari kalte egiten diola?; ... - Zer eztut nik ikusten?; ... - Zuek zuen buruari kalte egiten al diozute?; Ez, ... baizik. -- Ez zayo egoki emendik uŕutiratzea: Nori etzayo egoki emendik uŕutiratzea?; ... - Zer etzayo egoki oŕi?; ... - Zuri egoki al zaizu emendik uŕutiratzea?; Ez, niri ere ... -- Zuen zai geunden: Nor zegoen gure zai?; ... - Noren zai zengozten?; ... - Ni al nengoen txistulari oyen zai?; Ez, ... baño. -- Mendiko tontoŕ artaraño nekatu gabe igo giñan: Nor igo zan nekatu gabe mendiko tontoŕ artaraño?; ... - Noraño igo ziñaten nekatu gabe?; ... - Nola igo ziñaten mendiko tontoŕ artaraño?; ... - Lagun oyek igo al ziran mendiko tontoŕ artaraño nekatu gabe?; Ez, ... baizik. -- Mai au arotzak ekaŕita izan zan: Zer izan zan arotzak ekaŕita?; ... - Nork ekaŕita izan zan mai au?; ... - Zuk ekaŕita izan al zan mai au?; Ez, ... baño. -- Ez al du oŕek oindiño bere burua ezagutzen?; ez, oŕek oindiño eztu bere burua ezagutzen: Zer eztu oŕek oindiño ezagutzen?; ... - Noiz eztu oŕek bere burua ezagutzen?; ... - Buru arin oŕek ezagutzen al du bere burua?; Ez, ... ere ... -- Udan neguan baño obeto egoten giñan: Nor egoten zan udan neguan baño obeto?; ... - Noiz egoten ziñaten neguan baño obeto?; ... - Neguan udan baño obeto egoten al ziñaten?; Ez, ... baizik. -- Aurten igaz baño igali areago dago: Zer dago aurten?; ... - Noiz dago igaz baño igali areago?; ... - Uste al duzu aurten igaz baño igali gutxiago dagoela?; Ez, ... baño. -- Etzan zu bezin leyala: Nor etzan ni bezin leyala?; ... - Nola etzan ura?; ... - Gu al giñan zuek bezin leyalak?; Ez, zuek ere ... -- Ori ezta bere tokian jaŕita: Zer ezta bere tokian jaŕita?; ... - Nun ezta ori jaŕita?; ... - Nola uste duzu ori bere tokian jaŕita eztagoela?; ... - Guk uste al dugu ori bere tokian jaŕita dagoela?; Bai, ... -- Zergatik etzetozen alkaŕekin?; adiskide onak etziralako etzetozen alkaŕekin: Nortzuk etzetozen alkaŕekin adiskide onak etziralako?; ... - Nola etzetozen adiskide onak etziralako?; ... - Zuek alkaŕekin al zentozten?; Bai, ... -- Gure naigabea are aundiagoa izango zan: Zer izango zan are aundiagoa?; ... - Nola izango zan zuen naigabea?; ... - Zuen naigabea are txikiagoa izango al zan?; Ez, ... baño. -- Ura eztago egiña agindu diodan bezela: Zer eztago egiña zuk agindu diozun bezela?; ... - Nola eztago ura egiña?; ... - Guk agindu diogun bezela egiña al dago ura?; Bai, ... -- Alkaŕ jo dute: Nortzuek jo dute alkaŕ?; ... - Nor jo dute oyek?; ... - Zuek ere alkaŕ jo al duzute?; Ez, ... baizik. -- Mai ura zurez egiña zegoen: Zer zegoen zurez egiña?; ... - Nola zegoen mai ura egiña?; ... - Mai ura burdiñez egiña al zegoen?; Ez, ... baño. -- Ni zaldiz zu oñez baño obeto nentoŕen: Nor zetoŕen zaldiz ni oñez baño obeto?; ... - Nola zentozan zaldiz?; ... - Gu oñez al gentozan zu zaldiz baño obeto?; Ez, ... baizik. -- Euzkeraz españeraz baño obeto itzegiten duzu: Nork itzegiten du euzkeraz españeraz baño obeto?; ... - Nola itzegiten dut nik euzkeraz?; ... - Zuek españeraz euzkeraz baño obeto itzegiten al duzute?; Ez, ... baizik. -- Egun guzian aranez-aran ibiĭi giñan: Nor ibiĭi zan egun guzian aranez-aran?; ... - Nun ibiĭi ziñaten egun guzian?; ... - Noiz ibiĭi ziñaten aranez-aran?; ... - Ni ere egun guzian aranez-aran ibiĭi al nintzan?; Ez, ... baño. -- Umezurtz oyek gauzak asko alkaŕi esan dizkiote: Nortzuek esan dizkiote alkaŕi gauzak asko?; ... - Zer esan diote alkaŕi umezurtz oyek?; ... - Nori esan dizkiote umezurtz oyek gauzak asko?; ... - Guk ere gauzak asko esan al dizkiogu alkaŕi; Ez, ... baizik.

4. Ona emen alkaŕ-izketa bat; irakuŕi ongi, egokia baita:

«Gau artan apal-ostean, Yoseba'k uŕutizkiñaz Bilbao'ra dei bat egin zuan:

— Emen Yoseba, Iñaki etxean al da?

— Bai, oraintxe bertan esango diot.

Andik laisteŕ Iñaki'ren aguŕa aditu zan:

— Kaixo Yoseba, zer darabilzu gaur, Egubeŕi'ko zozketaren sari nagusia jauŕi al zaigu?

— Ez, baiñan ume gaixo bateri sari nagusia etoŕ lekioke...

Eta jaŕayan, Izartxo'rena esan zion. Bukatzean Yoseba'k geitu zuen:

— Dakidanez, ezkeltasuna gaur senda leiken gauza da. Ezagutzen ote duzu oŕ, begi-sendagiĭeren on bat? Aŕen, begira zaidazu arazo au, ta gero Izartxo'ren gurasoei mintzatuko natzaye.

— Bai Yoseba, baiñan nola ordainduko duzute sendaketa? Agi danez, gareztitxo gertatuko da ori. Uste al duzu lapikoarenak oŕenbesteraño emango dizunik?

— Aspalditxo ontan, lapikoa iñoizkorik makalen dago, baiñan danon artean (eta emen bai Jauna ta bai zu sartzen zarie) lortuko dugu.

— Bai —isekari erantzun zion Iñaki'k— ta gero alatz bat gertatu dala zabaldu ...

— Ongi dakizu —zerbait minduta jaulki zion Yoseba'k— gure eŕiak ez duala alazkeririk beaŕ Jainkoa'gan siñesteko. Bestaldetik, naiko alatza gure inguruan eten gabe gertatzen da, ikusi nai dutenentzat. Bizitza, eriotza, argia, txori baten egada, aletxo baten ernetzea ... . Esaidazu Iñaki, zergatik ez dituzu barneko begiak zabaltzen, benetako ezkel oŕek?

— Zabaltzen ditut Yoseba, baiñan ez nauzu oŕen unkibera ... Dana dala, ume oŕentzat begi-sendagīle on bat bīlatzen sayatuko naiz, eta zerbait jakin ala esango dizut. Gabon Yoseba.

— Aguŕ Iñaki ta eskeŕ aunitz».

«Oroitzak» (124'gn. oŕialdean) Zubiri'taŕ Iñaki.

BEŔOGETASEIGAŔEN IKASKAYA

-ZKO atzizkia (-Z + -KO).

Atzizki onek, itsasten zayon itzan esaten dan gayaz zerbait egiña dala adierazten du. Baña ba-ditu beste zentzun batzuk ere: bide, era, gisa, oste, ta tipitzekoa (1).

E. b.: Zure*zko* maya.
Zaldi*zko* (Zaldi-z-ko) (Zaldiz dabīlena).
Egia*zko*, egi*zko* (egiaz esanda).
Ura zan gizone*zko*a! = (Ura gizon-ostea!).
Zuri*zko* (Zuribegi dana).

-EZKERO atzizkia (-Ez + gero) (baldintzazko zentzuna) (2).

Atzizki au, geyenetan, aditzekin erabilīzen da; naiz atzizkia bezela, naiz ayen atzetik itza bezela ipiñita; eta onela egiten bada, aditzak *-N* beste atzizkia eraman beaŕ du; baña aditzaren izena bada, *-N* ori ezta jaŕi beaŕ.

E. b.: Ona izan da*nezkero* (Ona izan dalarik, ona izan danez).
Eldu zera*n ezkero* (Eldu zeralarik, eldu zeranez).
Ibīli *ezkero* (Baldin bazabiltz, bein zabiltzalarik).
Eguraldi ona egon *ezkero* (Eguraldi ona baldin badago).

Aldi- aditzondoekin eta bai *NOIZ*? galdetzekoarekin, *-TIK* atzizkiaz adierazten dan zentzuna du.

E. b.: Noi*zezkero*? = Noiztik?
Aspaldi*ezkero* = Aspalditik.

Beste itz batzuekin ere, izenak edo ageŕerazleak izan, naiz *-TIK* naiz *GERO'*en zentzunak ere adierazten ditu.

Onela: Esandako egu*nezkero* = Esandako egunetik = Esandako egun eta gero.

A*ŕezkero* = Ura jazo zanetik = Ura jazo ta gero.

---

(1) Ikusi: 90'gn. ikaskaya.
(2) 105 eta 144'gn. ikaskayak.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, kulatzen ordez, gipuzkeraz, bizkayeraz eta laburdierazko EGON'en aditzerak ipiñi :

Adi-yabea	Gipuzkeraz	Bizkaieraz	Laburdieraz
Ni	Nengoen	...	...
Zu	...	...	ziñagon
Bera	...	zegoen	...
Gu	...	...	giñauden
Zuek	Zeundeten	...	...
Berak	...	zegozten	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan, oraiñaldiko aditzerak lenaldikoen bidez aldatu, ta alderantziz, lenaldikoak oraiñaldikoen bidez; beti *askaŕ*-izakayaz; eta bide batez, bayezkoak diranak ezezkoetan biurtu, ta alderantziz; kulatzen ordez, esan eta idazteko.

Nik idatzi *ditudan* gutunak gurasoentzat dira; ... - Zuk ez *zenituen* erabiltzen oŕen txapel txikiak; ... - Ene amoñak abesten *dituen* abestiak oso politak dira; ... - Guk ez *genituen* ekaŕi ingi zikin oyek; ... - Zuek ezin jaso *dituzute* aŕi oyek; ... - Artzain oŕen bildotsek artīleak zuri--zuriak *zituzten*; ... - An aurkitu *nituen* adiskideak oso onak ziran; ... - Zuk bota al *dituzu* ol txiki oyek?; ... - Zure ezkon-nebak bezuza politak ekaŕi *zituen*; ... - Guk ez *ditugu* gure makīlak ainbeste zoŕoztu; ... - Zuek zuen zamariak geyegi zamatu *zenituzten*; ... - Eŕi ortako aŕantzaleek aŕain edeŕak artuko *dituzte*; ...

3. Galdera auei erantzun egoki bana eman; itzez eta idatziz :

Araño eldu al ziñan?, eta oñez?; bai, araño oñez eldu nintzan eta oso ondo: Nor eldu zan araño oñez eta oso ondo?; ... - Noraño eldu ziñan oñez eta oso ondo?; ... - Nola eldu ziñan araño?; ... - Ikastolako auŕak ere araño oñez eta oso ondo eldu al ziran?; Ez, ... baño. -- Beren gurasoen antzekoak ziran semeak ez zebiltzaten zu bezela: Nortzuk ez zebiltzaten ni bezela?; ... - Nola ez zebiltzaten beren gurasoen antzekoak ziran semeak?; ... - Zu al zenbiltzan beren gurasoen antzekoak ziran semeak bezela?; Bai, ... -- Gasteiz'en pelotariak eskuz jokatzen dute: Nortzuek jokatzen dute Gasteiz'en eskuz?; ... - Nungo pelotariak jokatzen dute eskuz?; ... - Nola jokatzen dute Gasteiz'en pelotariak?; ... - Zuek ere eskuz jokatzen al duzute?; Ez, ... baizik. -- Umezurtz oyek

eman dizkiegun jantziak dakarzkite: Nortzuek dakarzkite eman dizkiezuten jantziak?; ... - Zer dakarte umezurtz oyek?; ... - Umezurtz oyek nik eman dizkiedan jantziak al dakarzkite?; Ez, ... baño. -- Ez zayo egoki beti kalez-kale ibiltzea: Nori etzayo egoki beti kalez-kale ibiltzea?; ... - Zer ez zaye egoki oyei?; ... - Nun ibiltzea ez zaye oyei beti egoki?; ... - Guri egoki al zaigu beti kalez-kale ibiltzea?; Ez, zuei ere ... -- Lengo egunean ementxe egon giñan: Nor egon zan lengo egunean ementxe?; ... - Nun egon ziñaten lengo egunean?; ... - Noiz egon ziñaten ementxe?; ... - Ni egon al nintzan lengo egunean ementxe?; Ez, ... baizik. -- Antzokian Koldobika bere anayarekin zegoen: Nor zegoen antzokian Koldobika'ren anayarekin?; ... - Nortzuk zegozen antzokian Koldobika ta bere anayarekin?; ... - Norekin zegozen antzokian?; ... - Ementxe al zegozen Koldobika ta bere anayarekin?; Ez, ... baño. -- Erakutsi dizkiguten eun guziak oso txaŕak ziran: Zeintzuk ziran oso txaŕak?; ... - Nolakoak ziran erakutsi dizkizueten eun guziak?; ... - Nori erakutsi dizkiote oso txaŕak ziran eunak?; ... - Nik erakutsi dizkizuedan eunak ere oso txaŕak al ziran?; Ez, ... baizik. -- Berekoi oŕek bere burua geyegi maite du: Nork maite du bere burua geyegi?; ... - Zer maite du geyegi berekoi oŕek?; ... - Nola maite du bere burua berekoi oŕek?; ... Zuk ere zure burua geyegi maite al duzu?; Ez, ... baño. -- Nai-izan duena bakaŕik esan die: Nork esan die nai-izan duena bakaŕik?; ... - Nori esan dio nai-izan duena bakaŕik?; ... - Zer esan die jaun oŕek?; ... - Nik esan al diet nai-izan dudana bakaŕik?; Ez, ... baizik. -- Ez dizut esan nai-izan erenegun Zaldiaran'eraño joan nintzala: Nork eztit esan nai-izan erenegun Zaldiaran'eraño joan zala?; ... - Zer ez didazu esan nai-izan?; ... - Erenegun noraño joan ziñala ez didazu esan nai-izan?; ... - Guk esan nai-izan al diogu aitari erenegun Zaldiaran'eraño joan giñala?; Ez, zuek ere ... -- Gu ere berekin baseliza artan sartuko giñan: Nor sartuko zan berekin baseliza artan?; ... - Nun sartuko ziñaten berekin?; ... - Nirekin sartuko al ziñaten baseliza artan?; Ez, ... baizik. -- Bide ura bere amayean zabalagoa zan: Zein zan zabalagoa bere amayean?; ... - Nola zan bide ura bere amayean?; ... - Bide ura bere asieran al zan zabalagoa?; Ez, ... baño. -- Akelaŕean dantzan ari ziran: Nortzuk ari ziran dantzan akelaŕean?; ... - Nun ari ziran dantzan?; ... - Nortzuk ziran akelaŕean dantzan ari ziranak?; ... - Zuek al ziñaten akelaŕean dantzan ari ziñatenak?; Ez, ... baizik. -- Aurtengo seigaŕen īlean bi edo iru aldiz Estibalitz'en egon giñan: Nortzuk egon ziran aurtengo seigaŕen īlean bi edo iru aldiz Estibalitz'en?; ... - Noiz egon ziñaten Estibalitz'en

bi edo iru aldiz? ; ... - Zenbat aldiz egon ziñaten aurtengo seigaŕen ilean Estibalitz'en? ; ... - Ni ere bi edo iru aldiz egon al nintzan Estibalitz'en aurtengo seigaŕen ilean? ; Ez, ... baño. -- Emakume oyek beren gaztezaroan begikoagoak ziran : Nortzuk ziran beren gaztezaroan begikoagoak? ; ... - Nolakoak ziran emakume oyek beren gaztezaroan? ; ... - Noiz ziran begikoagoak emakume oyek? ... - Emakume oyen senaŕak ere beren gaztezaroan begikoagoak al ziran? ; Ez, ... -- Ogi asko genuen jateko : Nork zuen ogi asko jateko? ; ... - Zer zenuten jateko? ; ... - Zertarako zenuten ogi asko? ; ... - Guk ere ogi asko al genuen jateko? ; Ez, ... baizik. -- Guk baño eroapen geyago zuten : Nork zuen zuek baño eroapen geyago? ; ... - Zer zuten atso ayek? ; ... - Nik al nuen zuek baño eroapen geyago? ; Ez, ... baño.

4. Irakuŕi astiro bertso auek, eta buruz ikasteko alegiñak egin :

«ANBOTO'KO SORGIÑA»

«Anboto'ko sorgiña !
lotan nengoenean
zure adatz edeŕen
iīe kizkurpean,
eresi edeŕena
abestu zenuan
mendi goŕi gañetik
baso zoratuan.

—

Bakaldunen antzeko
uŕezko makiīa
zure eskutik yaso nun
sari biribiīa.

Ametsetan niardun
mutiko bipiīa
ta eguzki beti yai
eldu nere biīa.

—

Dana ametsetan ei zan !
eresi edeŕa
eta uŕezko makiīa...
liīura alpeŕa !
Geroz, eresi bera
entzun nairik, auŕa
iduri, mendiz nabil,
begitan nigaŕa».

«Goldaketan» (19-20'gn. oŕialdeetan) Zaitegi eta Plazaola'taŕ Iokin, PH. D.

BEŔOGETAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ IRAGANKOŔEN ADITZ-JOKO BILDUA

TINKIERA - LENALDIA - BIGAŔEN ERABIDEA

IZAKAI-ADIZKIÑAK

Tinkiera-oraiñaldian, ots, «lenengo erabidean», gertatzen zan bezela, «bigaŕen erabidean» ere, ta aditz iragangaitzekin ikusi danaren antzeko, ERAMAN, EKAŔI, EUKI, ESAN, JAKIN, EGIN eta ERABIĪI aditz iragankoŕak, lenaldi ontan ere, beren era bilduak dauzkate. Ereduz ERAMAN'en aditzerak jartzen ditugu :

Adi-yabea	Bakaŕ-izakayaz	Askaŕ-izakayaz
Nik	N- -e-RAMA- -N	N- -e-RAMA-ZKI- -e-N
Zuk	Z-e-n-e-RAMA- -N	Z-e-n-e-RAMA-ZKI- -e-N
Berak	Z- -e-RAMA- -N	Z- -e-RAMA-ZKI- -e-N
Guk	G-e-n-e-RAMA- -N	G-e-n-e-RAMA-ZKI- -e-N
Zuek	Z-e-n-e-RAMA-TE-N	Z-e-n-e-RAMA-ZKI-TE-N
Berak	Z- -e-RAMA-TE-N	Z- -e-RAMA-ZKI-TE-N

EUKI ta ESAN aditzak izanezik, besteak ERAMAN bezela egiten dituzte beren erak eta jaŕi ditugun adizkiñetan ERAMAN'en eŕoa dan -RAMA- ipiñi ordez, beste lau aditzenenak, ots -KAŔ-, -(A)KI-, -GI ta -RABIL, jartzen baditugu, beren era bildu guziak egiñak geratuko dira.

Ona, beraz, ERAMAN eta beste lau aditzen era bilduak erakusten dituen ERAMUS-BIDE OROKAŔA :

N-			
Z-e-N-	-RAMA-		
Z-	-KAŔ-		
	e)-(A) KI-	-ZKI-	e) -N (1)
G-e-N-	-GI-		
Z-e-N-	-RABIL-	-TE-	
Z-		-TE-	

Emen ere, EUKI ta ESAN aditzak, erakus-bide ontatik zerbait aldatzen dira : lenengoa bere *askaŕ-izakay*agatik, eta bigaŕena, berarena ez dan *IÑO* (*IO*) eŕoaz egiten dalako.

(1) Ikusi: 152'gn. ikaskaya.

Ongi oartu ditekenez, aldi ontako aditz auen egitura ez da 45'gaŕen ikaskayan ikusi dan IZAN aditz laguntzaĪearena bezelakoa, baña ezberdintasuna, ontan bakaŕik agertzen da: lenengoz, noski, aren -U- eŕoaren ordez, emen aditz bakoitzarena jartzen da; gero, askaŕ-izakaya ta bere tokia be eztira berdin; azken au, an, eŕoaren auŕetik azaltzen da, ta emen, ostera, atzetik. Eta zertzelada auetxek berak, tinkiera-oraiñaldian ere gertatzen ziran.

Eŕoen auŕean agertzen dan *e*) izkiak, 15, 38 ta 45'kaŕen ikaskayetan esan dan bezela, *igarotako aldi*aren zentzuna ematen die era auei; ta gañera, egiĪeak adierazten dituzten lenengo izkiak eta eŕoak alkartzen ditu (1).

Eginkizunak

1. Besteetan bezela, lauki ontan ere, kulatzen ordez, azaltzekoak diran aditzen erak, bakaŕ-izakayaz, ipiñi beaŕ; itzez eta idatziz:

Adi-yabea	IZAN (UKAN)	ERAMAN	EKAŔI
Nik	Nuen	...	...
Zuk	...	zeneraman	...
Berak	...	...	zekaŕen
Guk	Genuen	...	...
Zuek	...	zeneramaten	...
Berak	...	...	zekarten

2. ERAMAN eta EKAŔI aditzen erak erabiltzean, oraiñaldikoak lenaldikoen bidez aldatu, ta alderantziz, lenaldikoak oraiñaldikoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Nik usakume au amarentzat *daramat*; ... - Zuk ez *zenekaŕen* ikastetxera zure idaztia; ... - Berak maŕubi auek *daramazki* aitaren etxera; ... - Guk *genekarzkien* oñetakoak ez ziran onenak; ... - Zuek ez *daramazkizute* gaur zuen jantzi beŕiak; ... - Berak al *zekarten* dirurik beren sakeletan?; ... - Nik ere ez *nekarzkien* eguneroko txanponak; ... - Zuk *daramazun* gañekoa oso erosoa da; ... - Berak *zekaŕen* guk ez *daramaguna*; ... - Guk lasai *daramazkigu* zama auek; ... - Zuek ez *zenekarz-*

(1) Ikusi: 111'gn. ikaskaya ta Azkue, M. 604.

kiten oiturazko eskuandelak; ... - Berak *daramatena* guziok ere eramango dugu eŕaz; ...

3. Eman, galdera guzi auei, egokiak izango zayen erantzun bana; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Une artan nire sakelean beŕeun eta ogetairu laurleko neramazkien: Nork zeramazkien une artan bere sakelean beŕeun eta ogetairu laurleko?, ... - Nun zeneramazkien une artan beŕeun eta ogetairu laurleko?; ... - Zenbat laurleko zeneraman une artan zure sakelean?; ... - Une artan eta zure sakelean irureun eta amazortzi laurleko al zeneramazkien?; Ez, ... baizik. -- Zuk umezurtz aren kapela zenekaŕen: Nork zekaŕen umezurtz aren kapela?; ... - Zer zenekaŕen zuk?; ... - Umezurtz arek al zekaŕen zure kapela?; Ez, ... baño. -- Irakuŕi dizkiguzun gutunak erenegun eldu ziran: Zertzuk eldu ziran erenegun?; ... - Noiz eldu ziran irakuŕi dizkizuedan gutunak?; ... - Nik irakuŕi dizkizuedan gutunak atzo eldu al ziran?; Ez, ... baizik. -- Aiztu zayon mezua guk ere genekaŕena da: Zein da mutil oŕi aiztu zayon mezua?; ... - Nori aiztu zayo zuek zenekarten mezua?; ... - Nork zekaŕen mutil oŕi aiztu zayon mezua?; ... - Niri aiztu al zait mutil oŕek zekaŕen mezua?; Ez, ... baño. -- Soñezko luze-luzeak zerabilzkiten: Nortzuek zerabilzkiten soñeko luze-luzeak?; ... - Zer zerabilten?; ... - Nik al nerabilzkien soñeko luze-luzeak?; Ez, ... baizik. -- Oso beaŕa zaigu ikaskaya ondo jakitea: Nori zayo oso beaŕa ikaskaya ondo jakitea?; ... - Zer zaizue oso beaŕa?; ... - Ikasle oyei ere oso beaŕa al zaye ikaskaya ondo jakitea?; Bai, ... ere ... -- Ba-zekien berak, egin beaŕ diguna: Zer zekien berak?; ... - Nork zekien, berak egin beaŕ diguna?; ... - Zuk al zenekien oyek egin beaŕ digutena?; Ez, ... baño. -- Ez al zan guretzak sukaldean zenegitena?; bai, sukaldean genegiena zuentzat zan: Norentzat zan sukaldean zenegitena?; ... - Nun zenegiten guretzat zana?; ... - Nik al negien sukaldean guretzat zana?; Ez, ... baizik. -- Atzo ez zeramaten orain daramatena: Nork etzeraman atzo orain daramana?; ... - Zer etzeramaten atzo?; ... - Zer daramate orain?; ... - Nik al neraman atzo orain daramadana?; Ez, zuk ere ... -- Ludi ontako gazta onenak Urbia'koak ziran: Zeintzuk ziran Ludi ontako gazta onenak?; ... - Nolakoak ziran Urbia'ko gaztak?; ... - Nungo gaztak ziran Ludi ontako onenak?; ... - Beteŕi'ko gaztak al ziran Ludi ontako onenak?; Ez, ... baño. -- Ez al zenuten jateko gogorik?; bai, ta gogo aundiak genituen jateko: Nork zituen gogo aundiak jateko?; ... - Zertarako zenituzten gogo aundiak?; ... - Nik ere jateko gogo aundirik al nuen?; Ez, ... baizik. -- Beren idaztidian bi miĪa irureun eta

larogetazazpi idazti zituzten : Nork zituen bere idaztidian bi mīla irureun eta larogetazazpi idazti? ; ... - Zenbat idazti zuten ayek beren idaztidian? ; ... - Guk al genituen gure idaztidian bi mīla irureun eta larogetazazpi idazti? ; Ez, ... baño. -- Zuen gurasoak zenituzten, gutxienez : Nork zituen bere gurasoak gutxienez? ; ... - Nor zuten gutxienez? ; ... - Nik al nituen nire gurasoak gutxienez? ; Ez, ... baizik. -- Ikusi gaituzunezkero, gaur zentozala esan beaŕ-izan diguzu : Nork esan beaŕ-izan dizue gaur zetoŕela, ikusi zaituztenezkero? ; ... - Zer esan beaŕ-izan dizuet, ikusi zaituztedanezkero? ; ... - Zer dala-ta esan beaŕ-izan dizuet gaur nentoŕela? ; ... - Noiz nentoŕela esan beaŕ-izan dizuet? ; ... -- Erestun au zīlaŕezkoa da : Zein da zīlaŕezkoa? ; ... - Zerezkoa da erestun au? ; ... - Erestun au uŕezkoa al da? ; Ez, ... baño. -- Ez didazute esan etortzeko asmoa zenutela : Nork eztizu esan etortzeko asmoa zuela? ; ... - Nori ez diogu esan etortzeko asmoa genuela? ; ... - Zer ez dizuegu esan? ; ... - Zuek esan al diguzute etortzeko asmoa zenutela? ; Ez, zuek ere ... -- Ba-genituen edesteko gauza batzuk : Nork zituen edesteko gauza batzuk? ; ... - Zer zenuten edesteko? ; ... - Zertarako zenituzten gauza batzuk? ; ... - Guk al genituen gauza batzuk edesteko? ; Ez, ... baizik. -- Toki onenean gengozan : Nor zegoen toki onenean? ; ... - Nun zengozten? ; ... - Egia al da toki onenean zengoztela? ; Bai, egi-egia da ... -- Gero ta laisteŕago ginjoazan : Nortzuk zijoazen gero ta laisteŕago? ; ... - Nola zinjoazten? ; ... - Ni ere gero ta laisteŕago al ninjoan? ; Ez, ... baño. -- Amaitu al zaizkizu madariak? ; ez, oraindik ez zaizkit amaitu madariak : Nori etzaizkio amaitu madariak? ; ... - Zer ez zaizue oraindik amaitu? ; ... - Zer da oraindik amaitu ez zaizuena? ; ...

4. Irakuŕi astiro elebeŕi baten ataltxo au :

«¡DONOSTIA!»

«Azkeneko geŕatea bukatu zan. Txomin donostiaŕa Ernani'ko aldapan gora zaldi-gañean zetoŕen. An, atzean, geratu ziran Ernani ta Ernani'ko espetxea, Txomin ain luzaroan egondakoa. Pakearekin azkatasuna eman zioten eta Txomin ta zaldia alkaŕekin ixīlik zetozen. Zaldiak eup egin zuan : nekez bazan ere, aldapa gaitza menderatu zuan. Zaldunak eta zaldiak atseden artu zuten.

Gaña azpiratu zutenean, goizeko amaŕak-aldea izango zan. Eguzkia goi-xamaŕ zegoan. Goizeko intza ezereztu zan : baña gerizpeak oraindik busti antzekoak zeuden. Eguzkia itzalari ondotik zijoakion ta aŕapatzen

zion puska, beltza zana zuria biurtu. Bideko usai gozoak līluratuta zeukan gaztea. Aspaldian ez zuan oŕelakorik aitu! «Nagoan, nagoan», zion. Espetxeko itzalean oituta eguzkia biziegia zitzayon. Txomin'ek Gipuzkoa'ko zati edeŕ ura ondo ikusi nai, ginbaīa kendu, zapi zuriaz kopeta legortu ta... exeri zaldi-gañean. Zaldiak, bide ertzean, kosk-egiten zion belaŕari. Zaldiek, lepoa luzatzen dutenean, lengoa alako bi dutela ba-dirudite.

Amairu īlabete egin zituan Ernani'ko espetxean eta etxera zetoŕela, etxekoek ez jakiñagatik, ez zuan nai azkartu ibil-neuŕia. Bide artatik beretik ekaŕi zuten aita karlista zualako beste ziorik gabe. Txomin Azpaŕen'en zegoen geŕatean. Etxeratu nayean Sokoa'n Santander'eraño zijoan eŕota-ontzian sartu ta Donosti'ratu zan. Doi-doi aita gazteluan giltzapetuta zegoela jakiteko beste betarik ez zuan izan; aita gaztelura, semea Ernani'ra.

¡A zein ikuste edeŕa goi artatik! Bulaŕa ta biotza zabaldu zitzaizkion. Euzko-mendi galantak dantza ikaragaŕia zebilkiten; ortzia jo ta makurtu, alkaŕekin topo ta altxatzen ziran; batzuk zuzen, besteak okerka, uŕenak atzekoz auŕera. Atzenean ikusmena tinkotu ta bat-batean guztiak gelditu ziran; erpiñena Mendizoŕotz zan, lasayena Aŕatzain, bakaŕena Buruntza...».

«Donostian» (Irakurgaya) (1'go ta 2'gn. oŕialdeak) Anabitarte'taŕ Augustin.

BEŔOGETAZORTZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - ADITZ IRAGANKOŔAK

«Lenaldi»'aren ondorengoa bezela, ta aditz iragangaitzetan ikusi genuenez, IZAN laguntzaīearen «lenaldi»'aren auŕetik, beste edozein aditz iragankoŕa jartzen badugu, *-TEN* (edo *-TZEN*) *atzizkiaz, bakaŕik,* ala *-KO* (*-GO*) beste *atzizkiaz,* beste aldi auek osotuko ditugu :

1.ª *-TEN* (edo *-TZEN*) atzizkiaz, aditz-joko bildua eztuten aditz iragankoŕen «lenaldia», edo, auŕeko ikaskayan ikasi dugun bezela, joko ori gordetzen duten beste aditzen «oiturazko lenaldia».

2.ª Aditzaren izenaz *bakaŕik,* lenaldia baño auŕeragoko beste bat, «len-lenagoaldia» deituko duguna.

3.ª *-KO* (edo *-GO*) atzizkiaz, lenaldiaren geroko bat (Azkue'k bere «Morfologia» idaztian «len-lenagoko gerokoa» deitzen duena); emen «lenaldi-gerokoa» deituko dugu, 41'gaŕen ikaskayan bezela.

E. b. : 1.ª *Idazten* nuen (orduan *idazten* nuen) (*neraman* edo *nekaŕen* esatean adierazten dan aldian).
Eramaten nuen (*neraman*'en oiturazko zentzunaz).

2.ª *Idatzi* nuen (*idazten nuen* baño lenagoko aldian).
Eraman nuen (*neraman* baño lenagoko aldian).

3.ª *Idatziko* nuen (lenaldi baten geroko bat bezela).
Eramango nuen (lenaldi baten geroko bat bezela).

Aditz-joko bildua ez daukaten aditz iragankoŕ guzien «lenaldi»'ko erak, daukatenen «oiturazko lenaldi»'koak, eta guzien «len-lenagoaldi» ta «lenaldi-geroko» besteak, ERAKUS-BIDE auetan erakusten dira :

1.ª

LENALDIA

Nik	Ikusten	N-		-e-	
Zuk	Entzuten	Z-e-N-		-e-	
Berak	Irakurtzen	Z-		-e-	
			-IT- -U-		-N
Guk	Idazten	G-e-N-		-e-	
Zuek	Jaten	Z-e-N-		-Z- -TE-	
Berak	Edaten	Z-		-Z- -TE-	

1.ª

OITURAZKO LENALDIA

Nik	Izaten	N-		-e-	
Zuk	Eramaten	Z-e-N-		-e-	
Berak	Ekartzen	Z-		-e-	
			-T- -U-		-N
Guk	Jakiten	G-e-N-		-e-	
Zuek	Egiten	Z-e-N-		-Z- -TE-	
Berak	Erabiltzen	Z-		-Z- -TE-	

2.ª

LEN - LENAGOALDIA

Nik	Izan	N-		-e-	
Zuk	Eraman	Z-e-N		-e-	
Berak	Ekaŕi	Z-		-e-	
			-IT- -U-		-N
Guk	Jakin	G-e-N-		-e-	
Zuek	Egin	Z-e-N		-Z- -TE-	
Berak	Erabiīi	Z-		-Z- -TE-	

3.ª

LENALDI - GEROKOA

Nik	Izango	N-		-e-	
Zuk	Eramango	Z-e-N-		-e-	
Berak	Ekaŕiko	Z-		-e-	
			-IT- -U-		-N
Guk	Jakingo	G-e-N-		-e-	
Zuek	Egingo	Z-e-N-		-Z- -TE-	
Berak	Erabiīiko	Z-		-Z- -TE-	

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan JAKIN, EGIN eta ERABIĪI aditzai dagozkien erak, bakaŕ-izakayaz, ipiñi ; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Adi-yabea	JAKIN	EGIN	ERABIĪI
Nik	...	negien	...
Zuk	Zenekien	...	...
Berak	...	...	zerabiīen
Guk	...	genegien	...
Zuek	Zenekiten	...	...
Berak	...	...	zerabilten

2. Bigaŕen eginkizun ontan, JAKIN eta EGIN aditzak erabiltzean, beren oraiñaldiko erak lenaldikoen bidez aldatu, ta alderantziz, lenaldikoak oraiñaldikoen bidez ; kulatzen ordez, esan eta idatzi :

Nik *dakidana* ezta zuk *dakizuna* ; ... - Zuk lan aundia *zenegien* orduan ; ... - Berak *eztaki* esan dizueten ainbeste ; ... - Guk *ez genegizkien*

beren maŕezki edeŕ ayen antzekoak; ... - Zuek *dakizkizuten* ikaskayak guri ere irakasi beaŕ dizkigute; ... - Berak *zegiten* guzia etzan goratzekoa izango; ... - Nik berealaxe *negien* agindutako guzia; ... - Zuk *eztakizu* ume gaixo oyek nola eldu diran; ... - Berak *zegizkien* kutxak oso garezti saltzen ziran; ... - Guk *dakiguna* ezta, gero, aŕitzekoa; ... - Zuek *zenegizkiten* iñarkunak gogoŕegiak zirala uste dugu; ... - Berak al *dakizkite* jakintsu oyek ainbat?; ...

3. Emen ipintzen ditugun galderai, erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Eŕementari oŕek zuek baño askoz obeto abestu zuen: Nork abestu zuen guk baño obeto?; ... - Nola abestu zuen eŕementari oŕek?; ... - Zuk baño obeto abestu al zuen eŕementari oŕek?; Bai, ... - Emengo mutiłek abestu al zuten eŕementari oŕek baño obeto?; Ez, ... oyek ere ez ... -- Nire osabak etzituen ekaŕi idazti oyek zuretzat: Nork etzituen ekaŕi idazti oyek niretzat?; ... - Zer etzuen ekaŕi zure osabak niretzat?; ... - Zuek ekaŕi al zenituzten idazti oyek guretzat?; Bai, ... -- Ez al zuten jakingo ori berak ere?; bai, nik uste dut berak ere ori jakingo zutela: Nork jakingo zuen ori?; ... - Zer jakingo zuten berak?; ... - Nork uste du berak ere ori jakingo zutela?; ... - Guk uste al dugu berak ere ori jakingo zutela?; Ez, ... baizik. -- Iruña'n zengozanean geyegi jaten zenuen: Nork jaten zuen geyegi Iruña'n zegoenean?; ... - Zer jaten nuen Iruña'n nengoenean?; ... - Nun nengoen geyegi jaten nuenean?; ... - Gasteiz'en nengoenean ere geyegi jatea al nuen?; Ez, ... baño. -- Ez genuen nai-izan eskeiñi dizueten ori: Nork etzuen nai-izan eskeiñi diguten ori?; ... - Zer ez zenuten nai-izan?; ... - Nori eskeiñi diote nai-izan ez zenutena?; ... - Nik nai-izan al nuen eskeiñi dizueten ori?; Ez, zuk ere ez ... -- Zuk, berak zeramana zenekaŕen: Nork zekaŕen berak zeramana?; ... - Zer nekaŕen nik?; ... - Berak al zeraman nik nekaŕena?; ... - Zuek al zenekarten berak zeramana?; Ez, ... baizik. -- Zuk, lengo eguneko ikaskaya nik baño obeto ulertu zenuen: Nork ulertu zuen lengo eguneko ikaskaya zuk baño obeto?; ... - Zer ulertu nuen zuk baño obeto?; ... - Nola ulertu nuen lengo eguneko ikaskaya?; ... - Neska gazte oŕek ulertu al zuen lengo eguneko ikaskaya zuk baño obeto?; Ez, ... baño. -- Irakurle oŕek zuek bezin ondo irakurtzen zuen: Nork irakurtzen zuen guk bezin ondo?; ... - Nola irakurtzen zuen irakurle oŕek?; ... - Irakurle oŕek zuek bezin ondo irakurtzen al zuen?; Ez, ... baizik. -- Idazle ura, esan zuena baño lenago itzuliko zan: Nor itzuliko zan esan zuena baño lenago?; ... - Noiz itzuliko zan idazle ura?; ... - Idazle ura esan zuena baño geroago itzuliko al zan?; Ez, ... baizik. - Zuek itzuliko al ziñaten idazle ura baño lenago?; Ez, ... -- Oturuntza ortan geyegi edan dugu: Nork edan du geyegi oturuntza ortan?; ... - Zer edan duzute oturuntza ortan?; ... - Nun edan duzute geyegi?; Nik ere oturuntza ortan geyegi edan al dut?; Ez, ... baño. -- Eztut uste ainbeste izan dala: Nork eztu uste ainbeste izan dala?; ... - Zer eztuzu uste?; ... - Guk uste al dugu ainbeste izan eztala?; Ez, ... baizik. -- Auŕak giñanean entzumen ona genuen: Nork zuen entzumen ona auŕa zanean?; ... - Zer zenuten auŕak ziñatenean?; ... - Noiz zenuten entzumen ona?; ... - Guziok al genuen entzumen ona auŕak giñanean?; Bai, nik uste dut ... -- Otso arek betagiñak oso zoŕotzak zituen: Zeñek zituen betagiñak oso zoŕotzak?; ... - Zertzuk zituen otso arek oso zoŕtzak?; ... - Nola zituen otso arek betagiñak?; ... - Kamutzak al zituen otso arek betagiñak?; Ez, ... baño. -- Lau ordu t'erditan zure zai gengozala: Nor zegoen lau ordu t'erditan nire zai?; ... - Noren zai zengozten lau ordu t'erditan?; ... - Ni al nengoen lau ordu t'erditan zuen zai?; Ez, ... baizik. -- Nork maŕeztu zituen lauki oyek?; gure iłobak baŕeztu zituen lauki oyek: Zer maŕeztu zuen, zuen iłobak?; ... - Noiz maŕeztu zituen zuen iłobak maŕezki oyek?; Eztakit noiz ... - Zuk maŕeztu al zenituen lauki oyek?; Ez, ... baño. -- Zuek baño beranduxeago eltzen ziran: Nor eltzen zan gu baño beranduxeago?; ... - Noiz eltzen ziran?; ... - Gu baño lenago eltzen al ziran?; Ez, ... baizik. -- Jetsi dizkiguten ira oyek guztiz igaŕ zegozen: Zertzuk zegozen guztiz igaŕ?; ... - Nola zegozten jetsi dizkizueten ira oyek?; ... - Jetsi dizkizueten irak eze al zegozen?; Ez, ... baizik. -- Gu baño askoz geroago eldu ziran: Nor eldu zan zuek baño askoz geroago?; ... - Noiz eldu ziran ayek?; ... - Gu eldu al giñan zuek baño askoz geroago?; Ez, ... baño.

4. Irakuŕi ta, aal bada, buruz ikasi bertso auek:

«AMA EUSKERIARI AZKEN AGURRAK»

«Neure biotzeko Amatxo zaŕa
Antxiñago ama Euzkera,
Seme leyal bat orain datortzu
Azken aguŕa emotera;
Ainbeste geŕa goitu ezinda
Danori atsotu zara,
Zaurien zauriz galdu galduta
Amatxo, zuaz iltera.

Zori gaiztoan negargaŕi ta
Dot sentimentu andia,
Geure luŕ maite dakustalako
Gaztelatuta jaŕia;
Bestela erdu, erdu ikustera,
Tubal euskeralaria;
Baña, ez dozu ezagutuko
Orain zure jatoŕia».

«Olerkiak» (17-18'gn. oŕialdeetan) F. Arrese-Beitia.

BEŕOGETABEDERATZIGAŕEN IKASKAYA

Alkaŕen antzekoa dan zentzun berezia duten :

-IK, -LA, -LARIK, -TA (-DA), -TAKOAN, -TEN (-TZEN) -Z, -KA, -AN atzizkiak.

Atzizki auetako bakoitzak ba-du bere zentzun berezia, baña, esan dugunez, zentzun guzti oyek alkaŕen antzekoak dira. Zentzun oyek erderaetan aditzaren atal baten bidez ematen dira (1).

E. b. : Bere semeak deitur*ik* ...
Bere biīa zebiīela ...
Aita etoŕi da*larik* ...
Etxean sartu*ta* ... ; Etxetik irten*da* ...
Ara eldu*takoan*...
Ja*ten* ari gera ; Bazkal*tzen* ari zerate.
Ama negaŕez dago.
Zirik*a* dabiltz.
Menditik eltze*an* ...

Adibide auetan agertzen diran zentzunak, onela muetatu ditzakegu (2) :

1.ª *ALDI*'ari dagokion zentzunaz, lenengo iru atzizkiak darabilzkigu :

-IK - Atzizki au aditzaren izenari alkartzen zayo.

E. b. : Bere dirua artu*rik*, joan zan (Bere dirua artu ta gero joan zan).

-LA - Atzizki au aditzerai batutzen zaye, batez be bilduak diranai.

E. b. : Jolasean zebiīe*la* jausi zan (3) (Jolas egiten zegoenean jausi zan).

-LARIK (-LA + -IK (-RIK) - Auŕekoaren antzekoa da, ta naiz era bilduai naiz bi itzezkoai itsasten zaye.

(1) Ikusi: 127 ta 139'gn. ikaskayak.
(2) Ikusi: Aŕigarai'taŕ B. («Euskeraren eliztia», zerbait).
(3) Ikusi: 30'gaŕen ikaskaya.

E. b. : Oŕelako zeŕikeria egin du*elarik*, eztu itzuli nai-izan etxera (oŕelako zeŕikeria egin eta egin duelako, eztu itzuli nai-izan etxera).

Zaldiz zijoa*larik* itsutu zan (Zaldiz zijoanean itsutu zan).

Adibide auetan auxe oaŕ diteke : Lenengoan, -IK atzizkia daraman aditzak adierazten duen egipena, esakuntza nagusiak (JOAN ZAN) erakusten duena baño lenago egiten da ; bigaŕenean, egipen biak batera egiñak dagoz ; eta irugaŕenean, aditzera bi itzezkoa baldin bada -IK bezela jokatzen du, baña aditzera bildua izan ezkero, -LA bezela.

IGAROTAKO ALDIA'ren asmoaz, eta esakuntza nagusiak erakusten duenari buruz, beste bi atzizki auek dauzkagu :

-TA (-DA) - Atzizki au aditzaren izenari alkartzen zayo.

E. b. : Etxean sartu*ta*, lasai geratu naiz (etxera sartu ta gero, lasai geratu naiz).

Etxetik irten*da*, zure adiskideekin ikusi zaitut (etxetik irten eta gero, zure adiskideekin ikusi zaitut).

-TAKOAN (-TAKO + -AN) - Auŕekoa bezela, atzizki au ere aditzaren izenari itsasten zayo, baña zentzun berezi bateaz, «ondorengo», «ezkero» esango bagenu.

E. b. : Andik etoŕi*takoan* pozik zeuden (andik etoŕi *ondoren* pozik zeuden) (andik etoŕi *ezkero* pozik zeuden).

2.ª YARDUERA'ren asmoaz, atzizki bat :

-TEN (-TZEN) - Atzizki au aditzaren izenari batutzen zayo, ta geyenetan ARI-IZAN aditzarekin darabilgu.

E. b. : Apal*tzen* ari gera (aparia egiten (jaten) ari gera).

3.ª ERA edo GISA'ren asmoaz, atzizki bi auek :

-Z - Atzizki au, geyenetan, IZAN edo EGIN aditzen bitartez osotzen diran beste aditz ataldunak egiteko erabiltzen diran itzekin darabilgu.

E. b. : Nai (nai-izan), nayez ; Baŕe (baŕe-egin), Baŕez ; Negaŕ (negaŕ-egin), negaŕez ; Uste (uste-izan), ustez ; eta abaŕ.

Onela : Baŕez zengozala uste genuen (baŕe-egiten zengozala uste genuen.

-KA - Atzizki onek egipenak beŕizten dirala adierazten du.

E. b. : Eztul*ka* (eztul eta eztul egitea) ; Bultza*ka* (bultza ta bultza egitea ; Zirik*a* (ziri ta ziri egitea) (1).

(1) Ikusi: 104'gn. ikaskaya.

Onela : Luzaroan egoten naiz eztul*ka* (eztul eta eztul egiten luzaroan egoten naiz).

-AN (*-A* + *-N*) (5'kaŕen ikaskaya) atzizkiak, NAI, BEAŔ eta oŕelako itzekin, ataldunak diran beste itzak eratzen ditu : NAYEAN, BEAŔEAN, e. a. (nai-izatean, beaŕ-izatean, ... adierazteko).

Berdin gertatzen da -TE edo -TZE atzizkiak daramazkiten aditzekin (1) :

E. b. : Joat*ean* (joan egitean) ; Etortz*ean* (etoŕi egitean) ;
Ikast*ean* (ikasi egitean).

Len esandako *-TA* (*-DA*) atzizkiari, aipatutako asmoaz erabiltzen danean(Azkue «Morfologia»), aldi-aditzondo auetako bat jartzen zayo auŕetik : BATERA, BEREALA, GERO, LASTEŔ.

E. b. : Idatzi*ta batera* (idaztean batera) (idatzi ondoren, besterik egin gabe).
Jeiki*ta bereala* (jeikitzean eta) (jeiki ondoren, besterik egin gabe).
Egin*da gero* (egin ondoren) (egin eta gero).
Ikusi*ta lasteŕ* (ikusi ondoren) (ikusi ta berealaxe).

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, ipintzen diran aditzen erak, askaŕ-izakayaz kulatzen ordez, esan eta idatzi :

Adi-yabea	IZAN (UKAN)	ERAMAN	EKAŔI
Nik	Nituen	...	...
Zuk	...	zeneramazkien	...
Berak	...	...	zekarzkien
Guk	Genituen	...	...
Zuek	...	zeneramazkiten	...
Berak	...	...	zekarzkiten

2. IZAN (UKAN) eta ERABILI aditzak erabiltzean, beren oraiñaldiko erak lenaldikoen bitartez aldatu, ta alderantziz, lenaldikoen erak oraiñaldikoen bitartez ; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Zure asmoa nik ere *dudana* da ; ... - Zuk *darabilzu* beste iñork ez

(1) 43'gn. ikaskaya.

darabilena ; ... - Zer *du* oŕek bere baitan? ; ... - Guk *generabilzkien* itzak beti izan ziran garbiak ; ... - Zuek ez *zenituzten* egun ayetan guk bezin asmo onak ; ... - Berak *darabilzkiten* kirkileriak geyegi dira ; ... - Nik ez *nerabilen* iñoiz oŕen elastun edeŕa ; ... - Zuk al *zenuen*, egun ayetan, jateko gogorik? ; ... - Berak ez *darabil* edari bizi ori ; ... - Guk *ditugun* irakasleak on-onak dira ; ... - Nun erosi *zenuten* zuek *zenerabilten* bilbela? ; ... - Berak ez *zuten* zuenganako bekaizkeririk ; ...

3. Uŕengoan jartzen ditugun galderai, erantzun egoki bana eman ; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Orain arte ez nuen jakin etoŕi ziñala : Nork etzuen jakin orain arte, etoŕi nintzala? ; ... - Zer etzenuen jakin orain arte? ; ... - Noiz arte ez zenuen jakin etoŕi nintzala? ; ... - Zure gurasoek jakin al zuten ni etoŕi nintzala? ; Ez, oyek ere ... -- Ez al zeramazkiten oturuntzaren ondakiñak beren etxerako? ; bai, oyek beti zeramazkiten oturuntzaren ondakiñak beren etxerako : Nork zeramazkien oturuntzaren ondakiñak bere etxerako? ; ... - Zer zeramaten oyek beren etxerako? ; ... - Norako zeramazkiten oyek oturuntzaren ondakiñak? ; ... - Zuek ere al zeneramazkiten oturuntzaren ondakiñak zuen etxerako? ; Ez, ... baño. -- Zergatik zenekarzkien oŕen lore itxusiak? ; besterik aurkitu ez nuelako : Nork zekarzkien oŕen lore itxusiak besterik aurkitu etzuelako? ; ... - Zer nekaŕen besterik aurkitu ez nuelako? ; ... - Nundik nekarzkien oŕen itxusiak diran loreak? ; Zuk dakizu, noski, nundik ... -- Erakutsi dizkizuegun landareak Musitu'tik ekaŕi genituen : Nork ekaŕi zituen Musitu'tik erakutsi dizkigun landareak? ; ... - Zer ekaŕi zenuten Musitu'tik? ; ... Nundik ekaŕi zenituzten erakutsi dizkiguzuten landareak? ; ... - Nik ekaŕi al nituen Musitu'tik erakutsi dizkiguzuten landareak? ; Ez, ... baizik. -- Zure semea besoetan zenekaŕela etxera zentozanean, asko nekatzen ziñan : Nor nekatzen zan asko, bere semea besoetan zekaŕela etxera zetoŕenean? ; ... - Noiz nekatzen nintzan asko, semea besoetan nekaŕela? ; ... - Nola nekatzen nintzan asko etxera nentoŕenean? ; ... - Emakume sendo ori ere asko nekatzen al zan, bere semea besoetan zekaŕela etxera zetoŕenean? ; Ez, ... baño. -- Apurtu egin zenuten gela artan zenuten guzia : Nork apurtu zuen gela artan zuen guzia? ; ... - Zer apurtu genuen? ; ... - Nun apurtu genuen, genuen guzia? ; ... - Nik apurtu egin al nuen gela artan genuen guzia? ; Ez, ... baizik. -- Aditz auek laisteŕ ikasiko zituztela esan zuten : Nork esan zuen aditz auek laisteŕ ikasiko zituela? ; ... - Zer esan zuten ayek? ; ... - Zuek ere aditz auek laisteŕ ikasiko zenituztela esan al zenuten ; Ez, ... baño. -- Enuen txastatu

nai-izan bialdu zenuten txeŕikia: Nork etzuen txastatu nai-izan bialdu genuen txeŕikia?; ... - Zer etzenuen txastatu nai-izan?; ... - Zergatik etzenuen txastatu nai-izan bialdu genuen txeŕikia?; Ustela zegoelako ez ... -- Zerbait auŕeratzean, zu baño araxeago joan nintzan: Nor joan zan ni baño araxeago zerbait auŕeratzean?; ... - Nola joan ziñan ni baño araxeago?; ... - Lagun oyek be ni baño araxeago joan al ziran zerbait auŕeratzean?; Ez, ... zu baño. -- Ortxe zegozen, joan dan astean eldu ziranak: Ementxe al zegozen joan dan astean eldu ziranak?; Ez, ... baizik. - Nortzuk zegozen ortxe?; ... - Nun zegozen joan dan astean eldu ziranak?; ... -- Gau guzian eztulka egon ziran: Nor egon zan eztulka gau guzian?; ... - Nola egon ziran gau guzian?; ... - Gau guzian baŕeka egon al ziran?; Ez, ... baño. -- Zer ikasi zenuten lengo egunean?; ikaskai zail ori ikasi genuen lengo egunean: Nork ikasi zuen lengo egunean ikaskai zail ori?; ... - Noiz ikasi genuen ikaskai zail ori?; ... - Ikasle guziek ikasi al zuten lengo egunean ikaskai zail ori?; Ez, ... baizik. -- Zaldun oyek etzuten geyegi jaten: Nortzuek etzuten geyegi jaten?; ... - Zer etzuten jaten zaldun oyek?; ... - Zuk geyegi jaten al zenuen?; Ez, nik ere ... -- Berak zuten guzia eman zutenezkero, eztiegu geyago eskatuko: Nori eztiozute geyago eskatuko zuten guzia eman zutenezkero?; ... - Zer dala-ta, eztiezute geyago eskatuko?; ... - Guri geyago eskatuko al diguzute, genuen guzia eman genuenezkero?; Ez, zuei ere ... -- Burnibideko zubi ura Bizkaya'ko burniaz egin zuten: Zer egin zuten Bizkaya'ko burniaz?; ... - Zerez egin zuten burnibideko zubi ura?; ... - Zuek saldu zenuten burniaz egin al zuten burnibideko zubi ura?; Ez, ... baño. -- Ez genuen euki etxean oŕenbeste gure lengusiña eldu zan arte: Nork etzuen euki etxean oŕenbeste bere lengusiña eldu zan arte?; ... - Zer etzenuten euki etxean zuen lengusiña eldu zan arte?; ... - Noiz arte etzenuten euki etxean oŕenbeste?; ... - Nik ere ez al nuen euki etxean oŕenbescte nire lengusiña eldu zan arte?; Ez, zuk ere ...

4. «YOLANDA» elebeŕi politaren zatitxo au irakuŕi ondo:

«OLA»

«Iñoiz ere, ainbeste mutil sendo sortzen dituan Gipuzkoa'ko alderdi ortan, etzan ikusi Ixtebe, Urdanibi'ko ola zaŕaren jabea bezelako gizon edeŕ eta mardulik. Basajauna bezain aundi, sorbaldak gora, burua tente, arpegia goŕi, Andoain'go sagaŕ geza-goŕia bezelatsu, ta ilea luze ta gorbeltz, aziīako gaztena (gaztaña) zoliaren antzera. Aren beso zañaŕ eta

lodiak bezalakorik, gutxi. Zaragoil edo galtza motzen azpian, zangoak naŕuzko lokaŕiz ertsiki josiak zeuzkan. ¡Ura zan, ura, itxuraz, egizko nekazari ta ola-gizon seme euzkalduna!

Baña gorputz gora ta bulaŕ sendo ayen baŕenean biotz bat sasiko maŕubia bezain guri ta biguna zekaŕen; ta bekoki kotoŕ aren mamian, gogo zuzen eta zuŕa. Oyan-gizon bat zirudian mutil edeŕ arek, aurtxo emearen gogo biotzak zeduzkan.

Bizitza alkaŕekin eramateko, bere ogei urtetan autatu zuan lagun liraña, gazterik obiratu zitzayon; baña Yainkoa'ren maitasun ta bilduŕa biotzean zekaŕen kristau ziñezko oŕek, naigabe samiña bere zeruko Jabe'aren eskutikako doai edo emaitza bezala artu zuan, ta geroztik bere gurutza Goiko atsegiñen itxaropenarekin ba-zeraman.

Zorionean bizi-izan zan lau urtetatik, oroipen bezela geratzen zitzaizkion iru alaba gazte, bere ama zaŕarekin etxean zegozkionak: Yolanda, Luixa eta Ixtebana. Iru maite-maite oyek Urdanibi'ko baŕen-lanak beren lepoko zeuzkaten.

¡Etzan ori egikizun txikia!» (12-13'gn. oŕialdeetan) Pierre Lhande, S. J.

BERÓGETAMARGAŔEN IKASKAYA

ADITZ IRAGANKOŔEN ADITZ-JOKOA
TINKIERA - LENALDIA - BIGAŔEN ERABIDEA
IZAKAYEZKO ADIZKIÑAK

EUKI ADITZA - -UKA- eŕoa

	Bakaŕ-izakaya			Askaŕ-izakaya		
Nik	N-			N-		
Zuk	Z-e-N-			Z-e-N-		
Berak	Z-	e) -UKA-	-N	Z-	e) -U-Z-KA-	-N
Guk	G-e-N-			G-e-N-		
Zuek	Z-e-N-	-TE-		Z-e-N-	-TE-	
Berak	Z-	-TE-		Z-	-TE-	

ESAN ADITZA - -IÑO- eŕoa

	Bakaŕ-izakaya			Askaŕ-izakaya		
Nik	N-			N-		
Zuk	Z-e-N-			Z-e-N-		
Berak	Z-	-IÑO- e)	-N	Z-	-IÑO- -ZKI- e)	-N
Guk	G-e-N-	(-IO-)		G-e-N-	(-IO-)	
Zuek	Z-e-N-	-TE-		Z-e-N-	-TE-	
Berak	Z-	-TE-		Z-	-TE-	

Azken era bildu auek eztira asko erabiltzen, irugaŕen bakaŕ-notiña izanezik, ZIÑOEN, ZIÑOAN ere esaten dana; ta aldi onen asmoa, ESAN aditzarena, geyenetan, aditz-joko bildua eztaukaten beste aditzek darabilzkiten bi itzezko eraen bitartez ematen da.

Onela: Esaten nuen (niñoen'en ordez) - Esaten zenuten (zeniñoten'en ordez).

Gipuzkeraz, era oyek laburtuta erabiltzen dira: *nion, zenion, zion, genion, zenioten, zioten.*

Lopez Mendizabal'ek («La Lengua Vasca», 137), diñoenez, era oyek onela dira:

Bakaŕ-izakayaz: Nion, Ziñion, Zion, Giñion, Ziñioten, Zioten.

Askaŕ-izakayaz: Nizkion, Ziñizkion, Zizkion, Giñizkion, Ziñizkioten, Zizkioten.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan agertzen diran aditzen erak, askaŕ-izakayaz, kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Adi-yabea	JAKIN	EGIN	ERABILI
Nik	...	...	nerabilzkien
Zuk	...	zenegizkien	...
Berak	Zekizkien	...	...
Guk	...	...	generabilzkien
Zuek	...	zenegizkiten	...
Berak	Zekizkiten	...	...

2. EUKI ta ESAN aditzen erak erabiltzen, oraiñaldikoak lenaldikoen bidez aldatu, ta, alderantziz, lenaldikoak oraiñaldikoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Ba-daukat zuri eskeintzeko ardo ona; ... - Zuk guzia ongi *zeniñoen*; ... - Arek ez *dauka* zuek ainbat jostalu; ... - Bilkura ayetan guk *ez geniñozkien* zuek nai zenituzten gauza guziak; ... - Zuek *daukazuten* saroyak gureak baño zabalagoak dira; ... - Gure mutil oyek *zeukaten* eritasuna sendagaitza zala esan ziguten; ... - Jaun jakintsu ayen auŕean nik *ez niñoen* itzik; ... - Ba-dakit beti nai duzuna *daukazula*; ... - Zer *ziñoen* izlari arek ainbeste deadaŕ egitean?; ... - Igaz ez *geneukan* gaur *daukaguna*; ... - Gutxitan ulertzen genuen zuek *zeniñotena*; ... - Lugin oyek *dauzkaten* zaldiak oso zaluak dira; ...

3. Eman galdera auei erantzun egoki baña; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Aurten ez gera joango Baŕia'ra beste urteetan ginjoazen bezela: Nor ezta joango aurten Baŕia'ra beste urteetan zijoan bezela?; ... - Nora ez zerate joango aurten beste urteetan zinjoazten bezela?; ... - Noiz ez zerate joango Baŕia'ra beste urteetan zinjoazten bezela?; ... - Zure neba joango al da aurten Baŕia'ra beste urteetan zijoan bezela?; Ez, ... baño. -- Gure osabak baño intxauŕondo geyago zeneukaten: Nork zeukan zuen osabak baño intxauŕondo geyago?; ... - Zer geneukan guk?; ... - Nork

baño intxauŕondo geyago geneukan?; ... - Zure lagun on oŕek al zeukan zuen osabak baño intxauŕondo geyago?; Ez, ... baizik. -- Nire adiskidea ta biok baseliza artara gure eskeintzak generamazkien: Nortzuek zeramazkiten beren eskeintzak baseliza artara?; ... - Zer zeneramaten zure adiskidea ta biok baseliza artara?; ... - Nora zeneramazkiten zuen eskeintzak zure adiskidea ta biok?; ... - Nik al neramazkien nire eskeintzak baseliza artara?; Ez, ... baño. -- Erenegun nai-izan etzuena gaur eman diote: Zer eman diote gaur?; ... - Noiz eman diote erenegun nai-izan etzuena?; ... - Noiz etzuen nai-izan gaur eman diotena?; ... - Zuei eman al dizuete gaur, erenegun nai-izan etzenutena?; Ez, ... baizik. -- Geyena euki zuenak gutxiena eman zuen: Nork eman zuen gutxiena?; ... - Zer eman zuen geyena euki zuenak?; ... - Gutxiena euki zuenak geyena eman al zuen?; Ez, oŕek ere ... -- Bazkalduta bereala bere suyak egindakoa jaulkiko dizugu: Nork jaulkiko dit bazkalduta bereala bere suyak egindakoa?; ... - Zer jaulkiko didazute bazkalduta bereala?; ... - Noiz jaulkiko didazute bere suyak egindakoa?; ... - Endoreari jaulkiko al diozute aren suyak egindakoa bazkalduta bereala?; Ez, ... baizik. -- Zer zeniñoen?; gogoa garden ez genuela, auŕak giñanean bezela: Nork ziñoen gogoa garden etzuela auŕa zanean bezela?; ... - Gogoa nola ez zenutela zeniñoten?; ... - Nik al nuen gogoa auŕa nintzanean bezin garden?; Ez, zuk ere ... -- Ez zuten beŕiz abestuko oŕek bezin ondo: Nork etzuen beŕiz abestuko oŕek bezin ondo?; ... - Nola etzuen oŕek beŕiz abestuko?; ... - Zuk abestuko al zenuen oŕek bezin ondo?; Ez, nik ere ... -- Ba-zekiten gauzak ongi egitea: Nork zekien gauzak ongi egitea?; ... - Zer zekiten ayek?; ... - Zuek al zenekiten gauzak ongi egitea?; Ez, ... baño. -- Ori janda lasteŕ zugandik aldenduko naiz: Nor aldenduko da nigandik ori janda lasteŕ?; ... - Noiz aldenduko zera nigandik?; ... - Norengandik aldenduko zera ori janda lasteŕ?; ... - Ni aldenduko al naiz zuengandik ori janda lasteŕ?; Ez, ... baizik. -- Gu baño gaiztoagoak izan ziñaten beti: Nor izan zan zuek baño gaiztoagoak?; ... - Nola izan giñan gu beti?; ... - Noiz izan giñan zuek baño gaiztoagoak?; ... - Zuek baño obeak izan al giñan beti?; Ez, ... baño. -- Urte artan zure lagunak baño gutxiago lanegin zenuen: Nork lanegin zuen urte artan bere lagunak baño gutxiago?; ... - Noiz lanegin nuen nire lagunak baño gutxiago?; ... - Urte artan nire lagunak baño geyago lanegin al nuen?; Ez, ... baizik. -- Ez zuten egingo otu zaiguna: Nork etzuen egingo otu zaizuena?; ... - Zer etzuten egingo ayek?; ... - Nik egingo al nuen zuei otu zaizuena?; Ez, zuk ere ... -- Ez diete edestuko an ikusi zutena: Nork ez die edestuko an ikusi zuena?; ... - Zer ez diete edestuko?; ... - Guk edestuko al dizuegu an ikusi genuena?; Eztakigu, an ... -- Gaizkiīe arek nai zuena zegien: Nork zegien nai zuena?; ... - Zer zegien gaizkiīe arek?; ... - Noiz zegien gaizkiīe arek nai zuena?; ... - Zuk al zenegien nai zenuena?; Ez, ... baño. -- Bilbel artan gentozalarik, zuek baño lenago eldu giñan. Nor eldu zan gu baño lenago bilbel artan zetoŕelarik?; ... - Nor baño lenago eldu ziñaten bilbel artan zentozelarik?; ... - Nola eldu ziñaten gu baño lenago?; ... - Auzoko auŕak eldu al ziran gu baño lenago bilbel artan zetozelarik?; Ez, ... baizik.

4. Irakuŕi lenengoz, eta buruz ikasi gero, bertso polit auek:

«AINGERUTXOAK»

«—Esan, amatxo: zer da aingerua?
Nun daude aingerutxoak?...
galdetzen dio alargunari
besoetan daukan aurtxoak.

Malko gozoak estali dira
amaren begi urdiñak
bere biotzan esnatu dira
oroipen maite-samiñak.

Besarkatzen du bere aurtxoa
estu-estu biotzean,
t'erantzun dio musu bero bat
luzaro eman-ostean.

—Aingerutxoa zer dan, diozu?
Enetxu, ori galdera!
Aingerutxoa, ene kutuna,
aingerutxoa... zu zera».

«Biozkadak» (92'gn. oŕialdean) Jauregi'taŕ Luis Apaiza.

BEŔOGETAMAIKAGAŔEN IKASKAYA

GALDETZEKOEN ERATOŔITAKOAK

Nor	:	Nor-nai	Edonor
Zein	:	Zein-nai	Edozein
Zer	:	Zer-nai	Edozer
Noiz, noz	:	Noiz-nai	Edonoiz
Nun, non	:	Nun-nai	Edonun
Nola	:	Nola-nai	Edonola
Zelan	:	Zelan-nai	Edozelan (1)
Nolako	:	Nolakoa-nai	Edonolakoa
Zelango	:	Zelangoa-nai	Edozelangoa
Zenbat	:	Zenbat-nai	Edozenbat

Nor-nai, Zein-nai ta abaŕ erabiĩi ordez, toki batzuetan beste auek erabiltzen dira: *Nor-gura, Zein-gura, Zer-gura, Noiz-gura, Nun-gura, Zelan-gura.*

Bai ta, Nolakoa-nai ta Zelangoa-nai'en ordez, beste au asko erabiltzen da: *Nolanaikoa*; ta *Zenbat-nai*'en ordez, *Nai-aña.*

Beste batzuk:

Bayezkoak	Galdetzekoak edo Zalantzazkoak	Ezezkoak
Norbait	Iñor	Iñor ez
Zeinbait	Ezein	Ezein ez
Zerbait	Ezer (3)	Ezer ez
Noizpait	Iñoiz	Iñoiz ez
Nunbait	Iñun	Iñun ez
Nolabait	Iñola	Iñola ez
Zelanbait	Ezelan	Ezelan ez
Nolakoabait	Iñolakoa	
Zelangoabait (2)	Ezelangoa	

Iñor ez, Ezein ez, e. a. esanaŕen, esabide auek, bakaŕik erabiltzen diranean dauzkate beren esangura oyek, galdera zeaztuai egiten zaizkien erantzun soiĩetan.

E. b.: Nor etoŕi da? - *Iñor ez* -- Zer diñozu? - *Ezer ez.*

Baña aditza agertzen dan esakuntzetan, Iñor, Ezein, e. a.'en zentzuna

(1) Ikusi: 148'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 90'gn. ikaskaya (*BAIT*- auŕizkia).
(3) Ikusi: 63 ta 66'gn. ikaskayak.

Galdetzekoa edo Zalantzazkoa'rena da soilki; ta ezezkoaren zentzuna, oŕela agertzen dan aditzak ematen du.

Beraz, esakuntza ontan: Ez da *iñor* etoŕi, auxe da, egitan, adierazten dana: *Iñor* dala etoŕi ez dana.

(Españeraz, ostera, auxe esaten da: *Ez* da *iñor ez* etoŕi; ots, ezetza bi bideŕ egitean, benetan, adierazi nai danaren aurkakoa esaten; noski, «iñor ez», etoŕi ezpada, ba-dirudi *norbait* etoŕi dala. Baña oituragatik, eiki, egokiro ulertzen da).

Atzizki batzuk, galdetzekoen eratoŕitakoai itsasten diranean, lenengoko galdetzekoari, zuzen, alkartzen zaizkio.

E. b.: Nun-nai + -ra = *Nora*-nai.
Edonun + -ra = Edo*nora.*

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo lauki ontan ematen diran aditzen erak, bakaŕ-izakayaz, ipiñi; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Adi-yabea	IZAN (UKAN)	EUKI	ESAN
Nik	...	neukan	...
Zuk	Zenuen	...	...
Berak	...	...	ziñoen
Guk	...	geneukan	...
Zuek	Zenuten	...	...
Berak	...	...	ziñoten

2. IZAN (UKAN) eta EUKI aditzak erabiltzean, lenengoaren erak bigaŕenarenen bidez aldatu, baña bide batez, oraiñaldikoak lenaldikoen bidez ere, ta, alderantziz, lenaldikoenak oraiñaldikoen bitartez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Nik *dudan* ogerlekoa ezta zuretzat izango; ... - Zer *zeneukan* zure sakel aundi ortan?; ... - Berak *ez du* ezer emateko, egun ontan; ... - Guk *geneuzkan* uŕak zuekin banatu nai genituen; ... - Zuek al *dituzute* osabak bialdutako bezuzak?; ... - Berak *ez zeukan* guk uste-izan genuena; ... - Nik etxean *neuzkan* ogasun guziak auŕ auentzat izango ziran; ... - Zuk *duzun* izakera txaŕ oŕengatik oso gaizki bizi-izango zera; ... - Egia al da lagun oŕek bere burua ukatu *zuela*?; ... - Guk *eztitugu* zuek uste-izan

dituzuten lepoko edeŕ oyek; ... - Zuek, etxe artan, nai zenutena *zeneukaten* maiz; ... - Berak *dituzten* esku trebe oyen bitartez lan oso egokia egin aal dute; ...

3. Emen ageŕerazten ditugun galderai erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Norbait eldu zan bart zuengana : Nor eldu zan bart gugana?; ... - Noiz eldu zan norbait gugana?; ... - Norengana eldu zan bart norbait?; ... - Zu eldu al ziñan bart norbaitengana?; Ez, ... baño. -- Edozer emango nuen Lizaŕa'ra joan al-izateko : Nork emango zuen edozer Lizaŕa'ra joan al-izateko?; ... - Zer emango zenuen Lizaŕa'ra joan al-izateko?; ... - Zertarako emango zenuen edozer?; ... - Nik ere edozer emango al nuen Lizaŕa'ra joan aal-izateko?; Ez, ... baizik. -- Gosaria beroegi emau didazu : Nork eman dizu gosaria beroegi?; ... - Zer eman dizut beroegi?; ... - Nola eman dizut gosaria?; ... - Ayei eman al diet gosaria beroegi?; Ez, ... baño. -- Ara elduta, zerbait eskatuko dizuete : Nortzuek eskatuko digute zerbait ara elduta?; ... - Zer eskatuko digute ara elduta?; ... - Noiz eskatuko digute zerbait?; ... - Zuk eskatuko al diguzu zerbait ara elduta?; Ez, ... baizik. -- Nun-nai alai zegozen : Nor zegoen alai nun-nai?; ... - Nola zegozen nun-nai?; ... - Nun zegozen alai?; ... - Zuek ere nun-nai alai al zengozen?; Bai, gu ere ... -- Iñor egon al da?; ez, ezta iñor egon : Noiz ezta iñor egon?; ... - Nun ezta iñor egon?; ... - Nork esan dizu iñor egon eztala?; Neskameak ... -- Ezer nai al zuten?; ez, etzuten ezer nai : Nork etzuen ezer nai?; ... - Noiz etzuten ezer nai?; ... - Zuk ezer nai al zenuen?; Ez, nik ere ... -- Izututa geratu ziran gaŕ lazkoŕ ayek ao zabalik begiratzean : Nor geratu zan izututa gaŕ lazkoŕ ayek ao zabalik begiratzean?; ... - Nola geratu ziran gaŕ lazkoŕ ayek begiratzean?; ... - Ao zabalik zer begiratzean geratu ziran izututa?; ... - Zu ere izututa geratu al ziñan gaŕ lazkoŕ ayek ao zabalik begiratzean?; Ez, ... baizik. -- Iñun ez zerabilzkiten emengoak bezin gona motzak : Nun etzerabilzkiten emengoak bezin gona motzak?; ... - Zer etzerabilten iñun?; ... - Zuek al zenerabilzkiten emengoak bezin gona motzak?; Ez, guk ere ... -- Bere txiŕinga uzten badigu zerbait emango diogu : Nori emango diozute zerbait bere txiŕinga uzten badizue?; ... - Zer utzi beaŕ dizue zuek berari zerbait emateko?; ... - Nori utzi beaŕ dio bere txiŕinga berari zerbait emateko?; ... - Nik utzi beaŕ al dizuet nire txiŕinga zuek zerbait emateko?; Bai uste dugu, zuk ere ... -- Emakume gaixo ura negaŕez zegoen bere semea il zalako : Nor zegoen negaŕez bere semea il zalako?; ... - Nola zegoen emakume gaixo ura bere semea il zalako?; ... -

Zergatik zegoen negaŕez emakume gaixo ura?; ... - Zuek ere negaŕez al zengozten zuen semea il zalako?; Ez, ... il ez zalako. -- Gaur azkaltzeko, bere eŕañak bialdu zituen ezti ta mamia ipiñiko dizkizuegu : Nork ipiñiko dizkigu azkaltzeko bere eŕañak bialdu zituen ezti ta mamia?; ... - Zer ipiñiko diguzute azkaltzeko?; ... - Apaltzeko ipiñiko al dizkiguzute bere eŕañak bialdu zituen ezti ta mamia?; Ez, ... baizik. -- Goiztirian jeikitzea egin zuenarentzat beti onuragaŕia izan zan : Zer izan zan beti goiztirian jeikitzea egin zuenarentzat?; ... - Norentzat izan zan beti onuragaŕia goiztirian jeikitzea?; ... - Noiz izan zan onuragaŕia goiztirian jeikitzea egin zuenarentzat?; ... - Eta zuentzat zer izan zan goiztirian jeikitzea?; Guretzat ere ... -- Aspalditik ez zaitugu ikusi : Nork enau aspalditik ikusi?; ... - Nor eztuzute ikusi aspalditik?; ... - Noiztik ez nauzute ikusi?; ... - Nik ere ez al zaituztet ikusi aspalditik?; Noski, zuk ere ...

4. Irakuŕi, poliki-poliki, irakurgai edeŕ au :

«PLATERO»

«Txiki, iĪetsu, leguna da Platero; azalez ain biguiña ta dana liñaberazkoa dala, ezuŕik ez daukala esan liteke. Aren begien azabatxezko ispiĪuak bakaŕik dira gogoŕak, bi leyaŕezko kakaŕaldo iduri.

Nik ura askatu ta ba-doa laŕatzera ta loretxo goŕi, urdin eta oriai maite egiten die epelki, bere mutuŕaz ozta-ozta ukitzen ditularik ... Nik ari «Platero?» goxoki dei egin eta ba-datorkit taka-taka alai batekin, paŕe antzean, ez dakit zer ametsezko txintxil otsekin.

Nik eman guzia yaten du. Uŕesagaŕ mandariñak ditu atsegin, erlabiomatsak, guziak anbarezkoak, piko ubelak, beren leyaŕezko tantatxorekin...

Mutiko bat, neskato bat bezelako samuŕ eta loisintzalea da ...; baiña sendo ta legoŕa, aŕizkoa bailitzan. Aren gaiñean, igandez, egurasten naizanean, iriko azken kaletxoetan barna, alorgizonak, yantzi garbiz ta astidunak, ari begira gelditzen dira.

—Ba-du gatza...

Ba-du gatza, Gatza ta Ilargi-ziĪaŕa, batean».

Platero ta biok» (11-12'gn. oŕialdeetan) Juan Ramón Jimenez - Ametzaga'taŕ Bingen euzkeratuta.

BEŕOGETAMABIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - IRAGANKOŕA - ADITZ LAGUNTZAĿEA
TINKIERA - LENALDIA - BIGAŕEN ERABIDEA
IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

	Z-e-N-			
	Z-			
Ner*i* :		-I- -ZKI- -T- (-Da-)		-N
	Z-e-N-		-TE-	
	Z-		-TE-	
	Z-e-N-			
	Z-			
Gur*i* :		-I- -ZKI- -GU-		-N
	Z-e-N-		-TE-	
	Z-		-TE-	
	N-			
	Z-			
Zur*i* :		-I- -ZKI- -ZU-		-N
	G-e-N-			
	Z-		-TE-	
	N-			
	Z-			
Zue*i* :		-I- -ZKI- -ZU(T)E-		-N
	G-e-N-			
	Z-		-TE-	
	N-			
	Z-e-N-			
	Z-			
Berar*i* :		-I- -ZKI- -O-		-N
	G-e-N-			
	Z-e-N-		-TE-	
	Z-		-TE-	
	N-			
	Z-e-N-			
	Z-			
Bera*i* :		-I- -ZKI- -E-		-N
	G-e-N-			
	Z-e-N-		-TE-	
	Z-		-TE-	

Bigaŕen erabideak eskatzen duenez, aditzera auek, *egiĿeak* edo *adi-yabeak* adierazten dituzten izkietaz asten dira: N-, Z-, Z-, G-, Z-, Z-; gero, lenengo ta bigaŕen notiñai dagokien -N- erdizkia datoŕ; asteko bi izki oyen artean -e- beste izkia agertzen da, oyek batutzeko ta, bide batez, adizkin auei lengo aldiaren zentzuna emateko; lenengo bakaŕ-notiñaren aditzerak eztarama -N- ori; oyen uŕengo, aditz-eŕoa bezela, -I- erdizkia ikusten da; oŕen ondoren, askaŕ-izakaya adierazteko -ZKI- beste erdizkia, lenengo erabidean ikusi zan bezelaxe; oŕen atzetik, zeaŕez-betetzekoari dagozkion eta ezagunak diran erdizki auek agertzen dira: -T- (-Da-), -GU-, -ZU-, -ZU(T)E-, -O- ta -E-; askaŕ-bigaŕen eta irugaŕen notiñetarako, -TE- erdizkia azaltzen da, egiĿeari edo adi-yabeari askaŕ-zentzuna emateko, ta oŕela bakaŕenetik bereizten dira; ta aditzera guziek -N atzizkiaz amaitzen dira.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan ipintzen diran aditzen erak, askaŕ-izakayaz, jaŕi; ta kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Adi-yabea	IZAN (UKAN)	EUKI	ESAN
Nik	Nituen	...	...
Zuk	...	zeneuzkan	...
Berak	...	...	ziñozkien
Guk	Genituen	...	...
Zuek	...	zeneuzkaten	...
Berak	...	...	ziñozkiten

2. Uŕengo esakuntzetan ESAN aditzaren oraiñaldi ta lenaldiko aditzerak agertzen dira; lenengokoak bigaŕeneko bitartez aldatu egin beaŕ, ta, alderantziz, bigaŕenekoak lenengokoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko: Ez al da siñisteko nik *diñodana?*; ... - Zuk ez *zeniñoen* ezer gure bilkuretan; ... - Ulertzen al dituzute oŕek *diñozkien* gauzak?; ... - Guk *geniñoen* ura egi utsa zan, zalantzik gabe; ... - Zuek orain ori *diñozute*, baña nire ustez ori besterik da; ... - Berak ez *ziñozkiten* zuk edesten dizkiguzun gezuŕ aundi oyek; ... - Nik uste dut itz ez egoki ayek oituraz bakaŕik *niñozkiela*; ... - Bai, zuk olerki ori *diñozu*, baña ulertzen al duzu bere mamia?; ... - Eguneroko beren leloa *ziñoen* beti; ... - Guk ez *diñozkigu* zuei otu zaizkizuen lelokeri oyek; ... - Zuek *zeniñozkiten* itz ayek gogoŕegiak ziran ontzat artzeko; ... - Gure gurasoek ez *diñote* zuek eta ni beti alkaŕekin ibiĿi beaŕ dugula; ...

3. Orain jartzen ditugun galderai, oitura dugunez, erantzun egoki bana eman, kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Norbaitek ekartzen zion: Nork ekartzen zion?; ... - Nori ekartzen zion norbaitek—; ... - Nik iñori ekartzen al nion?; Ez, ... -- Zergatik eman zioten jantzi ori?; oŕela eskatu zielako: Nori eman zioten jantzi ori, oŕela eskatu zielako?; ... Zer eman zioten oŕela eskatu zielako?; ... - Guri eman al ziguten jantzi ori oŕela eskatu genielako?; Ez, ... baño. -- Noizpait aurkituko gaituzte etxean: Nork aurkituko zaituzte etxean noizpait?; ... - Nor aurkituko dute etxean noizpait?; ... - Iñoiz aurkituko al zaituztegu etxean?; Bai, ... -- Ez geneukan eskatu ziguten eliztia: Nork etzeukan eskatu zioten eliztia?; ... - Zer ez zeneukaten?; ... - Egia al da eskatu zizueten eliztia ez zeneukatela?; Bai, ... - Nik al neukan niri eskatu zidaten eliztia?; Ez, zuk ere ... -- Edesten diguzun ori gogoŕegia da: Zer da gogoŕegia?; ... - Nolakoa da nik edesten dizuedan ori?; ... - Samuŕa al da guk edesten dizuegun ori?; Ez, zuek ... ere ez ... baño. -- Baratzeko landare guziak apurtzen zizkieten: Nortzuek apurtzen zizkieten baratzeko landare guziak?; ... - Zer apurtzen zieten?; ... - Nik apurtzen al nizkien baratzeko landare guziak?; Ez, ... baizik. -- Itzuliko ez giñala esan genizun: Nork esan zidan itzuliko etzala?; ... - Zer esan zenidaten?; ... - Nori esan zenioten itzuliko etziñatela?; ... - Nik esan al nion oŕi itzuliko ez nintzala?; Ez, ... baño. -- Zeken ayek ez ziguten ezer eman: Nork ez zizuen ezer eman?; ... - Zer ez zizueten eman zeken ayek?; ... - Nortzuei ez zieten ezer eman zeken ayek?; ... - Nik eman al nizuen ezer?; Bai, ... -- Zorion aundiak opa-izango dizkizuegu: Nortzuek opa-izango dizkigute zorion aundiak?; ... - Zer opa-izango diguzute?; ... - Nori opa-izango dizkiozute zorion aundiak?; ... - Gizon maltzuŕ oyei ere zorion aundiak opa-izango al dizkiezute?; Ez, ... baizik. -- Urbasa'ko mendietatik jetsi ziran artzak izugaŕiak ziran: Zeintzuk ziran izugaŕiak?; ... - Nola ziran Urbasa'ko mendietatik jetsi ziran artzak?; ... - Nundik jetsi ziran izugaŕiak ziran artzak?; ... - Entzia'n zebiltzaten otsoak ere izugaŕiak al ziran?; Ez, ... baño. -- Zekarten ardo guzia edan zieten: Nork edan zien zekarten ardo guzia?; ... - Zer edan zieten?; ... - Nori edan zioten zekaŕen ardo guzia?; ... - Guk edan al genien zekarten ardo guzia?; Ez, ... baño. -- Beren lan edeŕak erakutsiko zizkigutela esan zuten: Nortzuek esan zuten beren lan edeŕak erakutsiko zizkizuetela?; ... - Zer esan zuten ayek?; ... - Nori esan zioten ayek, beren lan edeŕak erakutsiko zizkiotela?; ... - Beren lan edeŕak niri erakutsiko zizkidatela esan al zuten?; Ez, ... baizik. -- Iñoiz ez giñan araño eldu: Nortzuk etziran iñoiz araño eldu?; ... - Noraño ez ziñaten iñoiz eldu?; ... - Noiz etziñaten araño eldu?; ... - Ni eldu al nintzan iñoiz araño?; Ez, zu ere ... -- Oyan artara eldurik bere burua il zuen: Nork il zuen bere burua oyan artara eldurik?; ... - Nor il zuen oyan artara eldurik?; ... - Nora eldurik il zuen bere burua?; ... - Ikazkin arek il al zuen bere burua oyan artara eldurik?; Ez, ... baño. -- Etzait egoki beranduegi apaltzea: Nori etzayo egoki beranduegi apaltzea?; ... - Zer etzaizu egoki?; ... - Noiz etzaizu egoki apaltzea?; ... - Guri egoki al zaigu beranduegi apaltzea?; Ez, zuei ere ...

4. Irakuŕi astiro bertso edeŕ auek: eta buruz ikasteko alegiñak egin.

«ETXEKO KEA»

«Aidean, edeŕ usoa,
mendi-mendian, pagoa...
Etxe gaingoŕiak emana
kea dun edeŕagoa.

Basaluŕez bidalari
ke urdiña ba-dut nabari,
ai nire poza!, uraxe baita
gizaluŕ ezagungaŕi.

Aurki, aldean, oiloa;
maldan etzinik soroa;
etxe zabal teilagoŕia,
auŕean intxauŕondoa...

An dun bero, ta an dun bizi...
An, auŕ-yolasen kaŕaisi...
Gauez, sutondora bilduta,
eguneko lanen sari...

Nireganako, maiteño;
aurki, bata bestereño;
amets!, iñulaŕeko izaŕa
zeruan piztu dediño...

Eztai-egunez, mayean
indi-oiloak sailean...
Ortzia bezain urdin, kea
teilatutik, biuŕean...

Leyotik ogei baseŕi,
mendiaren apaingaŕi;
zenbait zabal ditun ageri;
zenbait, erdika nabari.

Batak besteak adiña
kea guziek urdiña...
Susmo niñan zeru goxoa
keok ote zen egiña!».

Lizardi «Biotz begietan» (136-138'gn. oŕialdeetan).

BERŔOGETAMAIRUGAŔEN IKASKAYA

-TIK, -NETIK atzizkiak.

Ondo ezagutzen dugu -TIK lenengo atzizki oŕen zentzuna; onelako esakuntzetan adierazten dana: Ni mendi*tik* etoŕi naiz, zu etxe*tik* irtengo zera, aŕantzaleak itxaso*tik* datoz, eta abaŕ. (Zentzun au 5'gn. ikaskayan ikusi genuen).

Baña atzizki onek ba-du beste zentzun bat, «zeaŕ», «zerbaiten zeaŕ» itzen bidez adierazi oi duguna. E. b.: Bide*tik* goaz (bidean *zeaŕ* edo bidearen *zeaŕ* goaz); kale*tik* dabiltz (kalean *zeaŕ* edo kalearen *zeaŕ* dabiltz); emen*dik*, or*tik*, an*dik* joango gera; eta abaŕ.

Azkue'k, bere Iztegian, zentzun ori adierazteko, atzizki au oso egokia ez dala diño; baña guk emen aipatzen dugu asko ta nun-nai erabiltzen dalako.

-NETIK beste atzizkia, -N + -TIK bi auen bidez egiña dago; ta aditzai itsasten zaye, -TIK'en lenengo zentzunaz.

E. b.: Gatoze*netik*, joan ziñatene*netik*, eldu dira*netik*, ...

Batzuetan, eta izenekin erabiltzean, «etxetik» esanez ematen dugun zentzuna du.

E. b.: Mikel'e*netik* nentoŕen = Mikel'en *etxetik* nentoŕen.

-TA- erdizkia (1).

Erdizki oni buruz bederatzigaŕen ikaskayan zerbait esan genuen.

Emen beste zertxobait gañeratu beaŕ dugu, auxe: Alkartzen zayen itzai, zein gabeko edo nor gabeko gayak adierazteko zentzuna ematen die; batez ere lobelak edo laspelak adierazten dituzten itzai.

E. b.: Ur*ta*n, aize*ta*n, su*ta*n, ardo*ta*n, ...

Erdizki au ta -N atzizkia erabiltzean, izen bati buruz iru asmo auek nabari-erazi ditzakegu: Eguzki*an* (eguzkian bertan egotean), eguzki*etan* (eguzki batzuetan egotean), eguzki*tan* (eguzkiak ematen duen tokian egotean).

Auxe ere esaten da: Meza*ta*n, Meza*ta*ra, Meza*ta*tik, ...

Beste itzekin be, zentzun oŕezaz, mugatu gabe bezela, erabil diteke.

E. b.: Zein mendi*tan* egon zera? (Emen ezta esaten mendi*an*, ez eta mendi*etan* ere, mendi*tan* baño; beraz, muga gabeko zentzunaz).

(1) Ikusi: 147'gn. ikaskaya.

Enaiz joango iñungo uri*ta*ra (berdin emen, ezta esaten uri*ra* ez eta uri*eta*ra ere, uri*ta*ra baizik; muga gabeko zentzunaz be).

Lau eŕi*tan* ibili gera (eztugu esaten lau eŕi*etan*, lendik esan edo dakizkigun eŕi*etan*, nabari-erazten eztitugun eŕietan baño).

Oaŕ ditekenez, adibide oyetan, -TA- erdizkia daramaten itzak, galdetzeko edo zenbakitzak mendetuak dagoz (1).

Mendetasun ori ez daukaten beste itzekin ere erabil diteke. E. b.: Diru*tan* eztauka oŕek gutxi, ene ustez (emen be eztugu esaten diru*an* ez eta diru*etan*, mugatuak dagozen itz oyen zentzuna, zeaztuta ez dagoen beste batena baño).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan agertzen diran izakai zeaŕai dagozkien norekiko izenordeen artez eta zeaŕez-betetzeko *aditzerak*, kulatzen ordez, esan eta idatzi; izakai zuzen bakaŕaz:

	Nik	Zuk	Berak	Guk	Zuek	Berak
Neri :		zenidan	...		...	...
Zuri :	Nizun		...	...		...
Berari :	...	...	zion	...	...	...
Guri :		...	...		zeniguten	...
Zuei :	...		...	...		zizueten
Berai :	...	...	...	genien	...	...

2. Bigaŕen lauki ontan, -NAI, EDO- ta -GURA auŕezki ta atzizkien bidez, Galdetzekoai dagozkien Eratoŕitakoak, kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Galdetzekoak		-NAI	EDO-	-GURA
Nor	:	...	edonor	...
Zein	:	Zein-nai	...	...
Zer	:	...	...	zer-gura
Noiz, noz	:	...	edonoiz	...
Nun, non	:	Nun-nai	...	...
Nola	:	...	...	nola-gura
Zelan	:	...	edozelan	...
Nolako	:	Nolako-nai	...	...
Zelango	:	...	...	zelango-gura
Zenbat	:	...	edozenbat	...

(1) Ikusi: Azkue, D.

3. Emen ageŕerazten ditugun galderai, erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Noizpait, nai duguna emango ziguten : Nori emango zioten noizpait nai duena? ; ... - Noiz emango zizueten nai duzutena? ; ... - Zer emango zizueten noizpait? ; ... - Niri emango al zidaten noizpait nai dudana? ; Ez, ... baño. -- Ez zion ekaŕi al-izan eskatu ziona : Zer ez zion ekaŕi al-izan? ; ... - Nori ez zion ekaŕi al-izan eskatu ziona? ; ... - Zuri ekaŕi al-izan al zizun eskatu zeniona? ; Ez, niri ere ... -- Azkaldu genuenetik ilunabaŕ arte abesten ari-izan giñan : Nor ari-izan zan abesten azkaldu zuenetik ilunabaŕ arte? ; ... - Noiztik ari-izan ziñaten abesten ilunabaŕ arte? ; ... - Noiz arte ari-izan ziñaten abesten azkaldu zenuenetik? ; ... - Neskatil oyek ere ari-izan al ziran abesten azkaldu zutenetik ilunabaŕ arte? ; Ez, ... baizik. -- Ez genekien zuk ainbat beŕi : Nork etzekien nik ainbat beŕi? ; ... - Zer ez zenekiten? ; ... - Idazle ayek al zekiten nik ainbat beŕi? ; Ez, ... ere ... -- Emendik joatean Mezatara berandu elduko gera : Nor elduko da berandu Mezatara emendik joatean? ; ... - Nora elduko zerate berandu emendik joatean? ; ... - Nola elduko zerate Mezatara berandu? ; ... - Ni ere berandu elduko al naiz Mezatara emendik joatean? ; Ez, ... baizik. -- Aitz zoŕotz ayetan oso gaizki genbiltzan : Nortzuk zebiltzaten oso gaizki aitz zoŕotz ayetan? ; ... - Ondo al zenbiltzaten aitz zoŕotz ayetan? ; Ez, ... baizik. - Mendigoizale ura ondo al zebilen aitz zoŕotz ayetan? ; Ez, ... ura ere ... -- Iñola ez zizkiguten eman nai-izan beren izkilluak : Nork ez zizkizuen eman nai-izan bere izkilluak? ; ... - Nortzuei ez zizkieten eman nai-izan beren izkilluak? ; ... - Gudari oyei eman nai-izan al zizkieten beren izkilluak? ; Bai, ... -- Aurten ez gera joango iñungo mendira : Nor ezta joango aurten iñungo mendira? ; ... - Nora etzerate joango aurten? ; ... - Ni joango al naiz aurten iñungo mendira? ; Bai, zu ... -- Txiro ayentzat eskatzean ibili giñan : Nor ibili zan eskatzean txiro ayentzat? ; ... - Nortzuentzat ibili ziñaten eskatzean? ; ... - Nire tzat eskatzean ibili al ziñaten? ; Ez, ... baño. -- Ikusi al nauzu gaur goizean? ; ez, ez zaitut ikusi gaur goizean : Nork ez nau ikusi gaur goizean? ; ... - Nor ez duzu ikusi gaur goizean? ; ... - Noiz ez nauzu ikusi? ; ... - Guk ikusi al zaitugu gaur goizean? ; Ez, zuek ere ... -- Iñun ez ziguten ulertu emen bezin ondo : Nola ez zizueten ulertu iñun? ; ... - Nik ulertu al nizuen emen bezin ondo? ; Ez, zuk ere ... - Nori ez zioten ulertu emen bezin ondo? ; ... - Iñun ulertu al zidaten niri, emen bezin ondo? ; Bai, zuri ... -- Ongi begiratzen bada, etzayo otuko oŕela irtetea : Nori etzayo otuko onela irtetea, ongi begiratzen bada? ... - Nola etzayo otuko irtetea, ongi begiratzen bada? ; ... - Zuei otuko al zaizue oŕela irtetea, ongi begiratzen bada? ; Ez, guri ere ... -- Eztakigu guzia esan ziguten : Nortzuek ez dakite guzia esan zieten? ; ... - Zer eztakizute? ; ... - Lekaide oŕek al daki guzia esan zioten? ; Ez, ... ere ... -- Zu ikustera joatea aiztu zait : Nori aiztu zayo ni ikustera joatea? ; ... - Zer aiztu zaizu? ; ... - Zuek ikustera aiztu al zaigu guri? ; Ez, ... baño. -- Nai zenutena zenegiten : Nork zegien nai zuena? ; ... - Zer genegien? ; ... - Zuk al zenegien nai zenuena? ; Ez, ... baizik. -- Ez zaitugu iñoiz eukiko gure artean : Nor ez duzute iñoiz eukiko zuen artean? ; ... - Nun ez nauzute iñoiz eukiko? ; ... - Noiz ez nauzute zuen artean eukiko? ; ... - Agure oyek eukiko al zaitue iñoiz beren artean? ; Bai, ... -- Ez zizkieten ideki espetxeko ateak atzo aŕatsalderarte : Nori ez zizkioten ideki espetxeko ateak atzo aŕatsalderarte? ; ... - Noiz arte ez zizkieten ideki espetxeko ateak? ; ... - Zer ez zieten ideki atzo aŕatsalderarte? ; ... - Guri ere ez al zizkiguten ideki espetxeko ateak atzo aŕatsalderarte? ; Ez, zuei lenago ...

4. Ongi ta aŕetaz irakuŕi antzerki bateko alkaŕ-izketa au :

«Maisua : Ni naiz maisua. Eŕian eskola bat eta ikasle bat bertan aita ila duana. Ez du ama besterik zaindari. Orain avengana joan nai dut, ongi bizi! esatera, laisteŕ mendira bait noa txango bat egitera. Emen izurte bat sortu zaigu ta mendiz arunzko irian sendagile ospetsuak ba-dira. (Ate joka) Sartu al niteke?

Mutikoa : (2'gn. gelatik l'gora joanez) Nor da oŕ? A!, Maisu jauna da. Maisua datoŕ gu ikustera.

Maisua : Zergatik ez aiz aspaldidanik eskolara etortzen?...

Mutikoa : Ezin joan nintekelako. Nere ama gaxo bait dago.

Maisua : Ez nenkitxean ire ama gaxo zegoenik. Esayok, aŕen, emen nagola.

Mutikoa : (Bigaŕen gelara ots-egiñez) : Ama! Maisu jauna da emen.

Ama : (2'gn. gelan eserita) : Esayozu, aŕen, saŕ dedila barnera.

Mutikoa : Mesedez, sartu zaite. (Saŕ bitez biak 2'gn. gelara).

Maisua : Ez nintzan aspaldi izan emen. Zure semeak esan dit gaitzak jota zaudela. Obeto al zaude?

Ama : Damurik ez nago obeto. Nere eritasuna sendatzeko ez bait du iñork eŕemediorik ezagutzen.

Maisua : Zerbait arkitu beaŕ dugu. Ortara natorkizue, aguŕ egitera; bigar mendiz aruntz noa ibīlian eŕemedio ta sendabideen bīla. Mendiz bestaldeko irian sendagīle ospetsuak bait daude.

Ama : Menditik aruntz laguntza bīla! Bai, nik ere entzuna dut an dirala mediku ospetsuak, baiñan bai ta ere entzun dut ori aŕisku aundiko txangoa dala. Nere semea zurekin eraman nai al duzu?

Maisua : Oŕelako ibīlitara ezin eraman diteke auŕ bat.

Ama : Ondo da. Osasuntsu itzuli zaitezela opa dizut.

Maisua : Ba-noa bada ... ta ongi bizi!

««Bai esalea» eta «ez esalea»» (japoitaŕ «Taniko» antzerkitxotik Arthur Walley'k inglesera ta Arnold Brech'ren aleman itzulpenaretik euzkeratuta) Antonio M. Labayen'ek».

BEŔOGETAMALAUGAŔEN IKASKAYA

«IZAN»'ekin elkartutako aditzak :

25'kaŕen ikaskayan *Izan*'ekin elkartutako aditz batzuk ikusi genituen. Oraingo ontan (ayek sartuta) «Izan»'ekin elkartutako aditzen osotuagoa dan beste zeŕenda bat aurkezten dugu. Aditz ataldun auek Azkue'k (M., 506), Arana-Goiri'rekin batera, «aditz-mintzaera zentzundunak» deitzen ditu.

Iragangaitzek, geyenek, *zentzunak* adierazten dituztenek, Izan'en aditzera iragangaitzen bidez jokatzen dute; ta iragankoŕek, aditz laguntzaīle berbera oŕen aditzera iragankoŕen bidez, eta, geyenetan, *lerak* adierazten dituzte.

IRAGANGAITZAK (zentzunak)	IRAGANKOŔAK (lerak)
- Aalke-izan	Adiskide-izan
Agiri-izan	a) Al-izan, aal-izan
Ajola-Izan	Beaŕ-izan
Ari-izan	Damu-izan
Belduŕ-izan	Eŕuki-izan
Bero-izan	a) Ezin-izan
Bizi-izan	Goŕoto-izan
Edeŕ-izan	- Gura-izan (B)
Egaŕi-izan	Maite-izan
Egoki-izan	- Nai-izan (G)
Gose-izan	Nayago-izan
Kakazi-izan	a) Oi-izan
Larde-izan	Opa-izan
Logura-izan	Uste-izan
- Lotsa-izan	Zoŕ-izan
Nagi-izan	
On-izan	
Otz-izan	

a) *Al, Ezin* eta *Oi-izan*, beste aditzekin erabiltzeko diralarik, iraunkoŕekin iragankoŕak bezela darabilzkigu, ta iragangaitzekin iragangaitzak lez (1).

Lenengo leŕokadan agertzen diran aditzen izakeragaitik, ots, *zentzunak* nabari-erazten dituztela-ta, *zentzun* oyek oso aundiak dirala adierazteko, onela jokatzen dute: «*bero-bero* naiz», «*gose-gose* naiz», «*egaŕi-egaŕi* naiz»; beraz, zentzuna adierazten duen itza bi bideŕ esaten;

(1) Ikusi: 26, 73 ta 113'gn. ikaskayak.

eta asmo berak onela ere adierazi ditzakegu: «*guztiz* bero naiz», «*guztiz* gose naiz», «*guztiz* egaŕi naiz» (1).

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian agertzen diran izakai zeaŕai dagozkien norekiko izenordeen artez eta zeaŕez-betetzeko *aditzerak*, kulatzen ordez, esan eta idatzi; izakai zuzen askaŕaz:

	Nik	Zuk	Berak	Guk	Zuek	Berak
Neri :		...	zizkidan		...	...
Zuri :	...		...	genizkizun		...
Berari :	Nizkion	...	...	...	...	...
Guri :		...	...		zenizkiguten	...
Zuei :	...		...	...		zizkizueten
Berai :	...	zenizkien	...	...	...	...

2. Beste lauki ontan, Galdetzekoai dagozkien eta bertan aipatzen diran iru motazkoen Eratoŕitakoak ipiñi; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Galdetzekoak	Bayezkoak	Galdetzeko edo Zalantzazkoak	Ezezkoak
Nor :	Norbait	...	...
Zein :	...	ezein	...
Zer :	...	...	ezer ez
Noiz, noz :	Noizpait	...	...
Nun, non :	...	iñun	...
Nola :	...	...	iñola ez
Nolako :	...	iñolakoa	
Zelango :	Zelangoabait	...	

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Talde batean alkartuko zaituztee egurastera joateko: Nortzuk alkartuko dituzte egurastera joateko?; ... - Nortzuek alkartuko zaituztee egurastera joateko?; ... - Zertarako alkartuko zaituztee?; ... - Nik alkartuko al zaituztet egurastera joateko?; Ez, ... baño. -- Izotz aundi ayen artean otz nintzan: Nor zan otz izotz aundi ayen artean?; ... - Nun ziñan otz?; ... - Izotz aundi ayen artean bero al ziñan?; Ez, ... baizik. -- Nire semeengatik bilduŕ nintzan: Nor zan bilduŕ bere semeengatik?;

(1) Ikusi: Azkue, D., «egaŕi».

... - Nortzuengatik ziñan bilduŕ?; ... - Gu bilduŕ al giñan zure semeengatik?; Ez, ... baño. -- Iñoiz etzaye aiztuko nire senideai beren alde egin duzutena: Nortzuei etzaye iñoiz aiztuko beren alde egin duzutena?; ... - Zer etzaye aiztuko zure senideai?; ... - Zuei aiztuko al zaizue zuen alde egin dutena?; Ez, guri ere ... -- Beren uzta bildurik Yainkoa'ri eskeŕak eman zizkioten: Nori eman zizkioten eskeŕak beren uzta bildurik?; ... - Zer eman zioten Yainkoa'ri beren uzta bildurik?; ... - Noiz eman zizkioten eskeŕak Yainkoa'ri?; ... - Neri eman al zizkidaten eskeŕak beren uzta bildurik?; Ez, ... baizik. -- Damu-izan genuen ura egiteagatik: Nork damu-izan zuen ura egiteagatik?; ... - Zergatik damu-izan zenuten?; ... - Nik ere damu-izan al nuen ura egiteagatik?; Ez, ... baño. -- Bere laguntzarekin obeto bizi-izango giñan: Nor bizi-izango zan obeto bere laguntzarekin?; ... - Noren laguntzarekin bizi-izango ziñaten obeto?; ... - Nola bizi-izango ziñaten bere laguntzarekin?; ... - Gaizkiago bizi-izango al ziñaten bere laguntzarekin?; Ez, ... baizik. -- Gau guzian gaŕaxika ari-izan zan: Nor ari-izan zan gaŕaxika gau guzian?; ... - Nola ari-izan zan gau guzian?; ... - Noiz ari-izan zan gaŕaxika?; ... - Zu ere gaŕaxika ari-izan al ziñan gau guzian?; Ez, ... baño. -- Enintzan itzuli al-izan zu baño lenago: Nor etzan itzuli al-izan ni baño lenago?; ... - Noiz etziñan itzuli al-izan?; ... - Zuek ni baño lenago itzuli al-izan al ziñaten?; Ez, gu ere ... -- Iñoiz ez zaitut ikusi oŕen ondo: Nork enau iñoiz ikusi onen ondo?; ... - Nola ez nauzu iñoiz ikusi?; ... - Noiz ez nauzu ikusi onen ondo?; ... - Nik ikusi al zaitut iñoiz oŕen ondo?; Bai, zuk ... -- Logale nintzan eta enuen oartu egin zenidatena: Nor zan logale?; ... - Zer etzenuen oartu?; ... - Zergatik etzenuen oartu egin genizuna?; ... - Auŕ ayek ere logale al ziran?; Bai, ... -- Ez dizuegu emango eman zigutena: Nork eztigu emango eman ziotena?; ... - Zer ez diguzute emango?; ... - Nortzuei ez diezute emango eman zizuetena?; ... - Nik emango al diet oyei, eman zidatena?; Bai, zuk ... -- Nekazari ayek gero ta luŕ geyago zeukaten: Nortzuek zeukaten gero ta luŕ geyago?; ... - Zer zeukaten nekazari ayek?; ... - Zuek al zeneukaten gero ta luŕ geyago?; Ez, ... baño. -- Joan dan neguan ez giñan otz-izan: Nor etzan otz-izan joan dan neguan?; ... - Noiz etziñaten otz-izan: ... - Eŕiko atsoak otz-izan al ziran joan dan neguan?; Bai, ... -- Ituŕiruntz ninjoan sula buruan neramala: Nor zijoan ituŕiruntz buruan sula zeramala?; ... - Noruntz zinjoazan buruan sula zeneramala?; ... - Nola zinjoazan ituŕiruntz?; ... - Ni ere ituŕiruntz al ninjoan buruan sula neramala?; Ez, ... baizik. -- Otoi-egin etzekitelarik ez zuten ezer esan:

Nork etzuen ezer esan otoi-egin etzekielarik?; ... - Zer dala-ta etzuten ezer esan?; ... - Zuk ezer esan al zenuen?; Bai, ... nekielako. -- Nik zurekin egotea nayago nuen: Nork nayago zuen nirekin egotea?; ... - Zer nayago zenuen?; ... - Oyek nayago al zuten nirekin egotea?; Ez, ... baño.

4. Bertso polit auek irakuŕi ta buruz ikasteko alegiñak egin; ba-dirudi abestiaren antzekoak dirala:

«EŔEKAZ-EŔEKA» **«Loyola'n Urola»**

«Eŕekaz-eŕeka
Dabila
Urola,
Jauz eta jauzteka.

Zelayan oŕa oŕ
Dagola
Loyola,
Guzieri gogoŕ.

Eŕekaz-eŕeka
Dabila
Urola,
Jauz eta jauzteka.

Loyola'n arkaitzak
Ibaitu
Baititu
Jauna'ren biotzak.

Eŕekaz-eŕeka
Dabila
Urola
Jauz eta Jauzteka.

Munduz-mundu doa
Denari
Kantari
Aipatuz Jainkoa».

9-1-57

«Argiz Argi» (102'gn. oŕialdean) Iratzedeŕ.

BEŔOGETAMABOSKAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA - IRAGANKOŔA - EREDUZKO ADITZA
ADITZ LAGUNTZAILEAREN ADITZERA OROKAŔEKIN
TINKIERA - LENALDIKO ERA
ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA

Len, 38'gaŕen ikaskayan esan zanez, eta orain arte agertu diran aldi onen aditzeraetan ikusi dugunez, bere bedegaŕa dan -N- erdizkia, aditzaren eŕoa adierazten duen izkiaren auŕetik doa, adizkiñak lenengo edo bigaŕen notiñaren egile edo jasalea nabaritzeko ditugun izkien bidez asten diranean; irugaŕen notiñen aditzeraetan ezta iñoiz azaltzen.

Bigaŕen bedegaŕa dan erdizki ori (1), lenalditik sortzen diran beste aldi guzietan agertzen da, ots, eraketaren bigaŕen bidea daramatenetan.

Uŕengo adizkiñetan bigaŕen bedegaŕ ori argi-argi nabaritzen da:

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕi dagozkienak

				-ZU-	
				----	e)
Ni	(nerau)	*N*-i-N- d) -U-			-N
	Izakai bakaŕa:			-ZU- -TE-	
	Ni ta *N*-			----- -TE-	
				-ZU-	
				----	e)
Gu	(gerok)	*G*-i-N- d) -U-			-N
	Izakai askaŕa:			-ZU- -TE-	
	Gu, *G*- ta *-Z*-		-Z-	----- -TE-	

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕi dagozkienak

				-Da-	
				----	e)
Zu	(zerori)	*Z*-i-N- d) -U-			-N
	Izakai bakaŕa:			-GU-	
	Zu ta *Z*-			----- -TE-	
				-Da-	

Zuek	(zerok)	*Z*-i-N- d) -U- *-Z- -TE-*			-N
	Izakai askaŕa:			-GU-	
	Zuek, *Z*-, *-Z*- ta *-TE-*			----- -(T)E-	

(1) Ikusi: Azkue, M., 545.

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕi dagozkienak

Adizkin auek, 45'gaŕen ikaskayan ikusi genituenak dira, ta oŕengatik eztira emen aipatzen.

Lau aditzera-talde auetan, auxe dugu begiratzeko :

Adizkiñak asten diran *N-*, *G-*, *Z-* ta *Z-* izkiak bakaŕ eta askaŕak diran lenengo ta bigaŕen notiñen izakai zuzenak adierazteko ditugu, zeñeri zein; ori bera 28'gn. ikaskayan, eraketaren lenengo bidean ikusi genuen. Gero *-i-* bat datoŕ, alkartzeko izkia bezela ta, ba-liteke, lenago aipatu dugun *-e-* beste izkia bezela, adizkin auei lenaldi-zentzuna emateko ere izatea; oŕen uŕengo, *-N-* izkia ikusten da, aldi ontan lenengo ta bigaŕen notiñen bedegaŕa; oŕen ondoren zentzunik edo eztuen *d)* izkia agertzen da, bereala ikusiko dugunez, batzuetan ezabatzen dana; atzetik, *-U-* erdizkia datoŕ, aditzaren eŕoa erakusten.

Lenengo iru taldeetan, erdizkiak bezela, adi-yabeen erakusle ezagunak diran itzatalak ditugu; laugaŕenean, izakayari askaŕ-zentzuna emateko, *-Z-* ta *-TE-* erdizkiak azaltzen dira; *-Z-* ori bigaŕen taldearen azken eran ere ikusten da, izakayaren askaŕ-zentzuna emateko be.

Lenengo iru talde oyetan, alkartzeko *e)* izkia agertzen da, irugaŕen notiña adi-yabe bezela dagoen eraetan.

Eta adizkiñak, aldi oni dagokion *-N* atzizkiaz amaitzen dira.

-N- ta *d)* batutzea (niNDuzun ..., giNDuzun ..., ziNDudan ..., ta ziNDuztedan ...), era guzietan agertzen dana, toki askotan *-Ñ-*'az aldatzen da, onela esateko: niÑuzun ..., giÑuzun ..., ziÑudan ..., ziÑuztedan ... Lenengo iru taldeetan be, aipatutako *e)* izkia, saŕi, kentzen da; eta batzuetan, beraren ordez, *a)* erabiltzen da.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, artez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak ematen ditugu; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak diran beste izenordeak ere; alkaŕi dagozkion aditz laguntzaĺearen erak, kulatzen ordez, esan eta idatzi :

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		zindudan	...		...	...
Zuk	...		zenuen	...		...
Berak	...	...	...	ginduen	...	...
Guk		...	...		zinduztegun	...
Zuek	...		...	...		zenituzten
Berak	Ninduten	...	...	...	...	...

2. Emen jartzen ditugun esakuntzetan, artez eta zeaŕez-betetzeko aditzerak agertzen dira; oraiñaldikoak diranak lenaldikoen bidez aldatu beaŕ dira, ta alderantziz, lenaldikoak oraiñaldikoen bidez; beti bezela, kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Utzi *dizudan* idaztia zurea baño edeŕagoa da; ... - Zergatik bialdu *zenidan* lengo egunean beoŕ ura?; ... - Gure auŕak artu *dizkigu* bere ikastolara eramateko; ... - Idatzi *genizkizuen* gutunak zuek ongi aztertzekoak dira; ... - Nori eman *zenioten* nik ekaŕitako txapela?; ... - Gure uzta guzia eŕe *digute* ero oyek; ... - Ez al ziran politak nik erakutsi *nizkien* ikuŕatz ayek?; ... - Ia lenbailen josten *diguzun* uŕatuta dagoen gure txamaŕ au; ... - Laurleko batzuk auŕeratu *zizkidan* lagunari lenbailen biurtuko *dizkiot*; ... - Auŕ oyei gure abesti samuŕena abestuko *diegu*; ... - Zertarako eskeiñi *zenizkidaten* zuen poŏkak?; ... - Uste dut nire gelak ongienik antolatuko *dizkidatela*; ...

3. Auŕeko ikaskayetan bezela, emen ematen ditugun galderai erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Zure gela zuk baño obeki antolatu zizuten: Nori antolatu zioten bere gela berak baño obeki?; ... - Zer antolatu zidaten nik baño obeki?; ... - Nola antolatu zidaten nire gela?; ... - Zuk antolatu al zenidan nire gela nik baño obeki?; Ez, ... baño. -- Noizpait aginduko zizueten: Nork aginduko ziguten noizpait?; ... - Nori aginduko zioten noizpait?; ... - Iñoiz aginduko al ziguten?; Bai, ... - Zuk aginduko al zenigun noizpait?; Ez, ... baizik. -- Ez al diguzute gaztigatu al-izan?; ez, ez dugu ukan astirik ori egiteko: Nork eztu ukan astirik zuei gaztigatu al-izateko?; ... - Zertarako eztugu astirik ukan?; ... - Zer eztugu ukan zuei gaztigatu al-izateko?; ... - Oŕek astirik ukan al du niri gaztigatu al-izateko?; Bai, oŕek ... -- Nun ikusi ninduzun?; nunbait ikusi zindudan: Nork ikusi zinduen nunbait?; ... - Nor ikusi nuen nunbait?; ... - Ayek nunbait ikusi al ninduten?; Ez, ... baizik. -- Gure gurasoak biotz-biotzez maite geni-

tuen : Nork maite zituen bere gurasoak biotz-biotzez? ; ... - Nortzuk maite zenituzten biotz-biotzez? ; ... - Nola maite zenituzten zuen gurasoak? ; ... - Eta zuen gurasoek ere biotz-biotzez maite al zinduzteen? ; Bai, ... -- Lengo egunean barazkiak gutxi zeneramazkiten zuen gurdian : Nork zeramazkien barazkiak gutxi bere gurdian? ; ... - Zer generaman gure gurdian lengo egunean? ; ... - Noiz generamazkien barazkiak gutxi gure gurdian? ; ... - Zuk ere zure gurdian barazkiak gutxi al zeneramazkien lengo egunean? ; Ez, ... baño. -- Okiñak opil oso onak egin zizkigun : Nork egin zizkizuen opil oso onak? ; ... - Zer egin zizuen okiñak? ; ... - Nori egin zizkion okiñak opil oso onak? ; ... - Niri egin al zizkidan okiñak oso onak ziran opilak? ; Ez, ... baizik. -- Zuek baño obeto ikusi ginduzten : Nork ikusi zinduzten guk baño obeto? ; ... - Nola ikusi zinduzteen ayek? ; ... - Nik ikusi al zinduztedan ayek baño obeto? ; Ez, zuk ... -- Aratsalde guzian bareka egon ziran : Nortzuk egon ziran bareka aratsalde guzian? ; ... - Nola egon ziran oyek aratsalde guzian? ; ... - Gu ere aratsalde guzian bareka egon al giñan? ; Ez, ... baño. -- Edonola bialduko zigula esan zion : Nork esan zion edonola bialduko zizuela? ; ... - Nola bialduko zizuela esan zion? ; ... - Guk esan al genion edonola bialduko genizuela? ; Ez, ... baizik. -- Ergel orek nire idazki guziak galdu zizkidan : Nork galdu zizkizun zure idazki guziak? ; ... - Zer galdu zizun ergel orek? ; ... - Nori galdu zizkion ergel orek bere idazki guziak? ; ... - Nik galdu al nizkizun zure idazki guziak? ; Ez, ... baño. -- Aitonak ekari zidan erestuna etzan berunezkoa, zilarezkoa baizik : Nolakoa zan aitonak ekari zizun erestuna? ; ... - Zer zan zilarezkoa? ; ... - Nori ekari zion aitonak zilarezkoa zan elestuna? ; ... - Nik ekari nizun erestuna berunezkoa al zan? ; Bai, ... -- Nork jo zinduen? ; ni jo ninduena etzan zuk uste duzuna : Nor jo zuen nik uste dudanak? ; ... - Nor etzan nik uste dudana? ; ... - Oyek uste dutena al zan zu jo zinduena? ; Ez, ... ere ... -- Etziguten ezer bialdu : Nork etzizuen ezer bialdu? ; ... - Zer ez zizueten bialdu? ; ... - Nori ez zioten ezer bialdu? ; ... - Nik ezer bialdu al nizuen? ; Ez, zuk ere ... -- Bi ordutan gengozan gure aitaren zai : Nor zegoen bi ordutan bere aitaren zai? ; ... - Noren zai zeundeten bi ordutan? ; ... - Zenbat ordutan zengozten zuen aitaren zai? ; ... - Zuen aita al zegoen bi ordutan zuen zai? ; Ez, ... baizik ; -- Ara elduta bereala ezagutu ginduen : Nork ezagutu zinduzten ara elduta? ; ... - Nor ezagutu zuen ara elduta? ; ... - Noiz ezagutu zinduzten? ; ... - Nik ezagutu al zinduztedan ara elduta? ; Ez, ... baño. -- Ura jaulkitzen nizunean lotan zengozan : Nor zegoen lotan ura jaulkitzen zenionean? ; ... -

Nola nengoen ura jaulkitzen zenidanean? ; ... - Aur oyek ere lotan al zegozen ura jaulkitzen zenienean? ; Ez, ... baño. -- Bein edo bein ikusten zaitudala! : Nork ikusten nau bein edo bein? ; ... - Noiz ikusten nauzu? ; ... - Zure adiskideak ikusten al naute bein edo bein? ; Ez, ... baizik. -- Batzuetan itzegitea isiltzea baño obea da : Zer da batzuetan isiltzea baño obea? ; ... - Noiz da itzegitea isiltzea baño obea? ; ... - Beti al da itzegitea isiltzea baño obea? ; Ez, ... baño.

4. Irakuri, poliki, bertsolariai buruz iritzi eder au :

«Bat-bateko bertso egiteak, bere zer-izatean eroturik lez, ertz bi daukaz oso bedegarak : bata, olerki-era erikoi onen antxiñakotasuna ta, bestea, bertsolariaren arima-uztutze bete-betea. Aspaldi bateko eririk geyenak, izan be, euren asieran ba-eben olako zerbait, gerora askok gizalege ta kultura obe batez ornidurik —euren ustez beintzat— albora itxia edo galdua. Gogo-lantze, kultura ori, baña, guzur oskolez jantzia dogu geyenetan ; ezta ots-otsekoa, burutik arakoa, barne-mandioan aretaz erabili ta ausnartua baño. Etori-ala esanak, edo arima baruan luze ausnartuak, agertu ta adierazten ete dausku obeto geure izanaren muñean daroaguna?

Euzkaldunok oraindik bertso-era zar ori zutik daukagu. Aritzekoa izanda be, guk ba-ditugu oraindiño bat-bateko jardunean euren baruak uztu oi dabezan bertsolariak. Eta jokabide au ezta atzo goizeko gauza, ziurik asko edesti auretik datorkiguna baño, euzkera bera baizen antxiñakoa, esan gengike. Gure gurasoen auretikoak ortik, antza, ainbeste maite ebezan bertsolariak. Egia esateko, gu baño zar zaleago ziran.

Gaur be, bai, euzkal-bertsolaria mendi-erpin zear dabilkigu ; ainbat sayo, ainbat txapelketa emen naiz an. Eria be ez dabil nagi ta zabar, gure eri xea, erti-min dan gure eria, bertsolariak oren bero ta gartsu txalotzen dabezan euzkal-eria».

«Gure bertsolariak» «Sarrera» Aita Onaindia Karmeldarra.

BEŔOGETAMASEIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - ADITZ LAGUNTZAĪEA

TINKIERA - LENALDIA

ARTZAĪE-ADIZKIÑAK - IRUGAŔEN NOTIÑAREN ADI-YABEA (1)

	Bakaŕ	Askaŕ
Neri :	-Da-	-Da-
Zuri :	-ZU-	-ZU-
Berari :	-O-	-O-
	Z- i) -TZA- -I- -N	Z- i) -TZA- (I) -ZKI- -N
Guri :	-GU-	-GU-
Zuei :	-ZU(T)E-	-ZU(T)E-
Berai :	-E-	-E-

Era auetan, lenengo *Z-* irugaŕen notiñaren adi-yabea adierazteko dugu; gero agertzen dan *i)* artizkia da, ta, apika, igarotako aldiaren zentzuna euki lezake; uŕengoan *-TZA-* itzatala datoŕ, aditzaren eŕoa izan litekena; oŕen uengo *-I-* izkia ikusten da, zeaŕezkoa asmoa ematen duen *-KI-* erdizkiaren ondakiña dala dirudiena; *-KI-* ori bigaŕen taldean agertzen da osorik *-Z-*'az adi-yabearen askaŕ-zentzuna adierazteko; oŕen ondoren, oso ezagunak ditugun *-Da-*, *-ZU-*, *-O-*, ... erdizkiak azaltzen dira artzaĪearen notin-izkiak diranak; eta adizkiñak aldiari dagokion azken *-N*'az amaitzen dira.

Aditzera auek, tinkiera-oraiñaldikoenak bezela (31'gn. ikaskaya) norberarekiko eraz jokatu beaŕ duten aditz guzietarako erabiltzen dira.

E. b. : Aztu zitzaidan (beaŕ nuena ez nuen gogoratu).
Galdu zitzaizun (ba-zenuen zerbait eta orain ez, nunbait galduta).
Autsi zitzayon (berak zuen zerbait autsita izan zan, berari).

-LAKOAN (-LAKO + -A + -N) atzizkia (Ustearen zentzuna).

-LAKOTAN, *-LAKOTZAT* atzizkiak (-LAKOAN'en aldaketak).

E. b. : Etoŕi ziña*lakoan* (Etoŕi ziñan ustean).

(1) Ikusi: 140, 142 ta 143'gaŕen ikaskayak.

-LAKO atzizkia ere (len, 21 eta 37'g. ikaskayetan, beste zentzunetaz ikusi genuena), *-LAKOAN*'en zentzunaz be erabiltzen da.

E. b. : Emango zio*lako* bialdu nion (Emango zion ustean).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, adi-yabeak (egiĪeak) diran izenordeak jartzen ditugu; ta ezkeŕ-aldean goitiberako zeŕendan, artez-betetzekoak (izakayak) adierazten dituzten beste izenordeak be; alkaŕi dagozkion aditz laguntzaĪearen erak, kulatzen ordez, esan eta idatzi :

	Nik	Zuk	Berak	Guk	Zuek	Berak
Ni :		...	ninduen		...	...
Zu :	...		...	zindugun		...
Bera :	Nuen	...	...	...	...	...
Gu :		...	...		ginduzuten	...
Zuek :	...		...	...		zinduzteen
Berak :	...	zenituen	...	...	...	...

2. Emen agertzen diran esakuntzetan, artez-betetzekoak edo izakaya adierazten dituzten aditzerak ematen ditugu; oraiñaldikoak diranak lenaldikoen bidez aldatu beaŕ dira, ta alderantziz, lenaldikoak oraiñaldikoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idatzi :

Ez nizun ezer esan ikusi ez *zindudalako*; ... - Noiz eramango *nauzu* zurekin jolasketara?; ... - Gertakizun ori berak nai-izan *zuena* izan da; ... - Txango batera eramango *zaituztegu* pozik ibiĪiko zeratelakoan; ... - Ez *ginduzuten* maite-izango agure begiko ayek ainbat; ... - IIe ontan ereingo *dituzte* olo ta zekalea; ... - Gaur bertan aztertuko *zaitut* zure osasuna nolakoa dan jakiteko; ... - Nor eraman *zenuen* zurekin ugarte artara joan ziñanean?; ... - Ezta goratzekoa oŕek egin *duen* maltzurkeri ori; ... - Pozik lagunduko *zinduztegun*, baña ezin egin ori etzirarte; ... - Onetsiko al *gaituzu* eskatzen dizugun bezela?; ... - Jokalari ayek ez *naute* kenduko iñoiz nire tokitik; ...

3. Emengo galdera auei erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Igaz ez genekien gaur dakiguna : Nork etzekien igaz gaur dakiena?; ... - Zer etzenekiten igaz?; ... - Noiz etzenekiten gaur dakizutena?; ... -

Nik al nekien igaz gaur dakidana?; Ez, zuk ere ... -- Etzaizu iñoiz otuko oyei ori egitea: Nori etzayo iñoiz otuko oyei ori egitea?; ... - Zer etzait iñoiz otuko?; ... - Eta zuei otuko al zaizue iñoiz oyei ori egitea?; Bai, ... -- Ia ezagutzen zindudan galdetu zidaten: Nori galdetu zioten ia ezagutzen ninduen?; ... - Zer galdetu zizuten?; ... - Guri galdetu al ziguten ia ezagutzen zinduztegun?; Ez, ... baño. -- Ez zuten uste-izan oŕela genbiltzala: Nork etzuen uste-izan oŕela zenbiltzatela?; ... - Zer ez zuten uste-izan ayek?; ... - Zuk uste-izan al zenuen oŕela nenbiīela?; Ez, nik ere ... -- Uri artako kaleetan loyez beterik aurkitu ginduzten: Nork aurkitu zinduzten uri artako kaleetan loyez beterik?; ... - Nor aurkitu zuten uri artako kaleetan loyez beterik?; ... - Nola aurkitu zinduzteen uri artako kaleetan loyez beterik?; ... - Guk aurkitu al zinduztegun uri artako kaleetan loyez beterik?; Ez, ... baizik. -- Iñun ez zekarzkiten zuk dakarzkizun geŕikoak: Zer etzekarten iñun?; ... - Zeintzuk dira iñun ez zekarzkiten geŕikoak?; ... - Nik al nekarzkien zuek dakarzkizuten geŕikoak?; Ez, zuk ere ... -- Bazkalduta bereala kako artatik esegiko zaitut: Nork esegiko nau kako artatik bazkalduta bereala?; ... - Nor esegiko duzu kako artatik bazkalduta bereala?; ... - Nik esegiko al zaitut kako artatik bazkalduta bereala?; Ez, ... baño. -- Noiz atzitu zinduten?; ni atzitu nindutenean, zu utzi zinduten: Nor utzi zuten zu atzitu zindutenean?; ... - Nor atzitu zuten ni utzi nindutenean?; ... - Guk atzitu al zindugun ni utzi nindutenean?; Ez, ... baizik. -- Ia laisteŕ zatozen: Nork nai du ni laisteŕ etortzea?; ... - Zer nai dute zure gurasoek?; ... - Zuek ere nai al duzute ni laisteŕ etortzea?; Bai, guk ere ... -- Norbaitek aŕi ori jaso nai-izan zuen, baña etzuen al-izan: Iñork jaso nai-izan al zuen aŕi ori?; ... - Zer jaso nai-izan zuen norbaitek?; ... - Nork etzuen jaso al-izan aŕi ori?; ... - Zuk jaso nai-izan al zenuen aŕi ori?; ... Ez, ... baño. -- Esaten dizudan ori, alkaŕ ezagutu genuen egunean jazo zan: Zer jazo zan alkaŕ ezagutu genuen egunean?; ... - Noiz jazo zan esaten didazun ori?; ... - Esaten didazun ori alkaŕ ezagutzen ez genuenean jazo al zan?; Ez, ... baizik. -- Ia zer dan, egin beaŕ dizuguna: Ba al dakizu zuk, egin beaŕ dizuedana zer dan?; ... - Nork daki egin beaŕ dizuedana zer dan?; ... - Oyek al dakite nik egin beaŕ dizuedana zer dan?; Ez, oyek ere ... -- Geyegi maite zinduzteen: Nortzuek maite ginduzten geyegi?; ... - Nor maite zuten geyegi?; ... - Nola maite ginduzten?; ... - Zuek ere geyegi maite al ginduzuten?; Ez, ... baño. -- Ez zizkiguten opa gauza onak asko: Nortzuek ez zizkizueten opa gauza onak asko?; ... - Zer ez zizueten opa?; ... - Nik opa al nizkizuen gauza onak asko?; Bai, ... -- Iñork esan al

zizun aŕatsalde ontan etoŕiko nintzala?; ez, niri etzidan iñork esan aŕatsalde ontan etoŕiko ziñala: Nork etzizun esan ni aŕatsalde ontan etoŕiko nintzala?; ... - Iñork esan al zien auzokoai aŕatsalde ontan etoŕiko nintzala?; Bai, ... - Nori etzion iñork esan aŕatsalde ontan etoŕiko nintzala?; ... -- Atzo Eibar'tik etoŕi zanak eltze oyek utzi zizkizuen: Nork utzi zizkigun eltze oyek?; ... Zer utzi zigun Eibar'tik atzo etoŕi zanak?; ... - Nundik etoŕi zan eltze oyek utzi zizkiguna?; ... - Zuek utzi al zenizkiguten eltze oyek?; Ez, ... baizik. -- Bero izan al zan auŕ ori bart?; ez, auŕ ori etzan bero izan bart: Nor etzan bero izan bart?; ... - Noiz etzan auŕ ori bero izan?; ... - Otz izan al zan auŕ ori bart?; Ez, otz ere ... -- Zuk uste zenuena baño alayagoak izan giñan: Nor izan zan nik uste nuena baño alayagoa?; ... - Nolakoak izan ziñaten?; ... - Nik uste nuena baño itunagoak izan al ziñaten?; Ez, ... baizik. -- Egia al da deitu ninduzula?; ez, ezta egia deitu zindudala: Zer ezta egia?; ... - Nork uste du deitu ninduzula egia dala?; ... - Nik uste al dut deitu ninduzula egia dala?; Bai, ...

4. Ona emen irakurtzeko politak diran bertsoak, bai ta buruz ikasteko ere:

«SUA TA TXIMELETA

«Egan dabil tximeleta
ziru-zira;
su-mingain bati
begira.
Aizeak txiru-liru
gaŕ argira.
Kontu, tximeletatxo
jira-bira!
Zer zenduke egatxoak
eŕeko balira?

Itxu dabil tximeleta,
ziru-zira;
su goŕiak jo dio
begira.
Bein da beŕiz, txoraxka,
gaŕ argira
joanaz, ega ariñak
jira-bira,
su-mingain goŕi artan
galdu dira.

Ikusi ta ikutu,
ikusi ta txoratu;
amaika gizon
jolas oŕetan
munduan dira
ondatu».

«Lur beŕi-biīa» (219'gn. oŕialdean) Etxaniz'taŕ Nemesio.

BEŕOGETAMAZAZPIGAŕEN IKASKAYA

«EGIN»'ekin alkartutako aditzak :

Egin aditzarekin alkartzen diran aditz batzuen leŕokada bat ematen dugu emen. Geyenak Azkue'ren idazti batetik (M. 505) artu ditugu; berak eta Arana Goiri'k «aditz-mintzaera eragīleak» deitzen dituzte. *Izan*'en ataldunak bezela (54'gn. ikaskaya) dagoz eratuta, mugatugabea dan izen bateaz eta *egin* aditzaz; onengatik, guziak iragankoŕak dira.

Aginka-egin
Agiraka-egin
Aguŕ-egin
Alde-egin
Alegin-egin
Amets-egin
Amor-egin
Aŕausi-egin
Atz-egin
Baŕe (faŕa)-egin
Beaŕ-egin (B.)
Bultz-egin
Dardart-egin
Deadaŕ-egin
Dei-egin
Egaz-egin
Eztul-egin
Gañez-egin
Gaŕasi-egin
Iges-egin
Iŕi-egin
Iŕibaŕe-egin
Itsumustu-egin
Itxumustu-egin
Itz-egin
Kalte-egin
Lan-egin (G.)
Lasteŕ-egin
Lo-egin
Molokot-egin
Murt-egin
Negaŕ-egin
Oyu-egin
Oles-egin
On-egin
Otoi-egin
Ots-egin
Ozka-egin
Pipeŕ-egin
So-egin
Usin-egin
Utz-egin
Zin-egin
Zintz-egin
Zuŕut-egin

Egin aditzak, beste aditz batzuk ere laguntzen ditu, ain zuzen aditz oyen zentzunari indaŕ aundiagoa emateko, aditz oyen asmoa adierazteko

beñena danean, ots, adierazi nai dan asmoa, nagusia bezela, nabaritu beaŕ danean; eta *egin* itza adizkiñaren erdian jartzen da.

E. b. : Etoŕi *egin* naiz (nik egin dudana, etortzea izan dala adierazteko).
Jan *egin* dute (egin dutena jatea izan dala nabaritzeko).

Adibide auetan ikusten danez, itz bien bitartez egiten diran aditzeraetan dagigu ori; baña aditzera bildua danean, aditz baten asmoa nabaritu beaŕ baldin bada, aditzera bilduaren auŕetik aditz berberaren izena jartzen dugu.

Onela : Bera *etoŕi datoŕ* (etortzea da egiten duena).
Zuk *eraman daramazu* (eramatea da egiten duzuna) (1).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, idazpuru bezela, zeaŕez zentzuneko izenordeak ipintzen ditugu; ezkeŕ-aldean irugaŕen notiñaren adi-yabeak ageŕeŕazten: bakaŕ eta askaŕ, bayeztean eta ezeztean bakoitza. Alkaŕi dagozkion lenaldiko adizkin artzaīleak, kulatzen ordez, esan eta idatzi :

Adi-yabea	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Bera (bai) :	...	zitzaizun	...	...	...	zitzaien
Bera (ez) :	etzitzaidan	...	...	...	etzitzaizuen	...
Berak (bai) :	...	zitzaizkizun	...	zitzaizkigun	...	...
Berak (ez): :	...	...	etzitzaizkion	...	...	etzitzaizkien

2. Bigaŕen eginkizun ontan zeaŕezko adizkin batzuk ageŕerazten ditugu; beren erantzunetan oraiñaldikoak lenaldikoen bidez aldatu beaŕ dira, ta alderantziz ere, lenaldikoak oraiñaldikoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Zuk esandakoa aiztutzen *ezpazait*, biar ementxe ikusiko nauzu; ... - Zenbat izan ziran galdu *zitzaizkizun* ardiak?; ... - Mutil oni *etzayo* iñoiz ezer otutzen; ... - Orduan erori *zitzaigun* zama guzia ondatu zan; ... - Nola usteldu *zaizkizue* atzo ekaŕi nizkizuen maŕubi ayek?; ... - Alkartu *zitzaizkien* lagunak eŕi ontako gizon maltzuŕenak ziran; ... - Eztakit zergatik asaŕetu *zitzaizkidan* nire lagun auek; ... - Begiak distiratu *zaiz-*

(1) Ikusi: 29'gaŕen ikaskaya.

kizu zure ama eldu *zaizuenean*; ... - Nor izan zan bere bidean urbildu *zitzayona*?; ... - Uste dugu gure adimena laisteŕ zabalduko *zaigula*; ... - Egia al da zuen adiskide onenak aldendu *zitzaizkizuela*?; ... - Geyegi atzeratu *zaye* beren lan guzia; ...

3. Eman, galdera auei, egokiak izango zaizkien erantzunak; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Mamutz guziak erailgo zizkigutela uste genuen: Nork uste zuen mamutz guziak erailgo zizkiotela?; ... - Zer uste zenuten?; ... - Nik ere uste al nuen mamutz guziak erailgo zizkidatela?; Ez, ... baño. -- Beren zoriona laisteŕ amaitu zitzayen: Nortzuei amaitu zitzayen laisteŕ beren zoriona?; ... - Zer amaitu zitzayen laisteŕ?; ... - Noiz amaitu zitzayen beren zoriona?; ... - Guri ere laisteŕ amaitu al zitzaigun gure zoriona?; Ez, zuei ... -- Etzinduten atzeman aŕatsalderarte: Nor etzuten atzeman aŕatsalderarte?; ... - Noiz arte eninduten atzeman?; ... - Bereala atzeman al ninduten?; Ez, ... - Nik atzeman al zinduztedan bereala?; Ez, zuk ere ... -- Iĺunabaŕ artan gu biok alkaŕengandik aldendu giñan: Nortzuk aldendu ziran alkaŕengandik?; ... - Norengandik aldendu ziñaten iĺunabaŕ artan?; ... - Noiz aldendu ziñaten alkaŕengandik?; Gurasoengandik aldendu al ziñaten iĺunabaŕ artan?; Ez, ... baizik. - Beren kabiak, arbasta txikietaz edonola zegizkiten; Zeintzuek zegizkiten beren kabiak arbasta txikietaz edonola?; ... - Zer zegiten arbasta txikietaz?; ... - Zerez zegizkiten beren kabiak edonola?; ... - Nola zegizkiten beren kabiak arbasta txikietaz?; ... - Karnabak ere beren kabiak arbasta txikietaz edonola al zegizkiten?; Ez, karnabak ez ... -- Baseŕitaŕ eŕukioŕ arek basoko aterabideraño lagundu ginduen: Nork lagundu zinduzten basoko aterabideraño?; ... - Noraño lagundu zinduzten baseŕitaŕ eŕukioŕ arek?; ... - Ni lagundu al ninduen baseŕitaŕ eŕukioŕ arek basoko aterabideraño?; Ez, ... baizik. -- Goseberari jaten eman beaŕ genion: Nori eman beaŕ zenioten jaten?; ... - Zer eman beaŕ zenioten goseberari?; ... - Guk ere jaten eman beaŕ al genion goseberari?; Bai, guziok ... -- Zagozten tokira eldu baño lenago asko lanegin beaŕ-izan zenuten: Zer egin beŕa-izan genuen gagozen tokira eldu baño lenago?; ... - Noiz lanegin beaŕ-izan genuen asko?; ... - Nik ere lanegin beaŕ-izan al nuen asko nagoen tokira eldu baño lenago?; Bai, zuk ere ... -- Zure etxe ura aundiegi ta otza iruditu zitzaidan: Zer iruditu zitzaizun aundiegi ta otza?; ... - Nola iruditu zitzaizun nire etxe ura?; ... - Lekaime ayei ere nire etxe ura aundiegi ta otza iruditu al zitzayen?; Ez, ... baño. -- Bart eldu ziñatalakoan gengozan: Nor zegoen bart eldu giñalakoan?; ... - Noiz eldu giñalakoan zengozen?; ... - Auŕak al zegozen bart eldu giñalakoan?; Ez, ... baño. -- Egun itun artan etxean bakaŕik utzi ninduzun: Nork utzi zinduen bakaŕik egun itun artan?; ... - Nor utzi nuen bakaŕik egun itun artan?; ... - Zuek utzi al ninduzuten bakaŕik egun itun artan?; Ez, ... baizik. -- Noiz apurtu zitzaizkizun galtzerdiak ainbeste?; otaka ayen artean ibiĺi nintzanean apurtu zitzaizkidan galtzerdiak ainbeste: Nori apurtu zitzaizkion galtzerdiak ainbeste otaka ayen artean ibiĺi zanean?; ... - Zer apurtu zitzaizun ainbeste otaka ayen artean ibiĺi ziñanean?; ... - Guri ere galtzerdiak apurtu al zitzaizkigun ainbeste otaka ayen artean ibiĺi giñanean?; Ez, ... baizik. -- Gaizkiĺe ayek neneukan guzia ostu ziguten: Nortzuek ostu zizueten zeneukaten guzia?; ... - Zer ostu zizueten gaizkiĺe ayek?; ... - Niri ere gaizkiĺe ayek neukan guzia kendu al zidaten?; Ez, ... baño. -- Zergatik iŕibaŕe-egin dute oŕela?; oso begikoak diralako iŕibaŕe-egin dute, noski: Nortzuek iŕibaŕe-egin dute oso begikoak diralako?; ... - Nola iŕibaŕe-egin dute oso begikoak diran oyek?; ... - Zuek ere iŕibaŕe-egin al duzute oŕela?; Ez, ... baizik. -- Gure sakel guziak zulatu zitzaizkigun: Nortzuei zulatu zitzaizkien beren sakel guziak?; ... - Zer zulatu zitzaizuen?; ... - Jostun oyei ere beren sakel guziak zulatu al zitzaizkien?; Ez, ... baño -- Ez genuen sartu nai-izan, itzaldia geyegi luzatuko zitzayolakoan: Zer zala-ta etzenuten sartu nai-izan?; ... - Nik sartu nai-izan al nuen itzaldia geyegi luzatuko zitzayolakoan?; Ez, zuk ere ... - Nork etzuen sartu nai-izan itzaldia geyegi luzatuko zitzayolakoan?; ... -- Toki guzti ayetan indaŕaz sakabanatu ginduzten: Nortzuek sakabanatu zinduzteen indaŕaz toki guzti ayetan?; ... - Nortzuk sakabanatu zituzten indaŕaz toki guzti ayetan?; ... - Guk sakabanatu al zinduztegun indaŕaz toki guzti ayetan?; Ez, ... baizik.

4. Irakuŕi, aŕetaz, alegi goxo au:

«TXANTXANGOŔIA TA IPURTARGIA»

«Gau iĺuna zan, iretargi bakoa. Txantxangoŕi bat, eloŕi-esi gañez noraezean egazka ebiĺela arantza sartu yakon ankatxoan. Min bizitan, txi!, txi!, txi! egian zarata. Baña, zelan atara, iĺuntasun andiaren erdian, ankatxoko arantza?

Zorionez, ipurtargi batek entzun eban txori gaixoaren negaŕ-ulu, ta itandu eutsan bedaŕ artetik:

—Zer daukak, txoritxo, oŕen estu ta laŕi?

—Oi, ene ipurtargi edeŕ!, erantzun eutsan txantxangoŕiak, eloŕi-punta bat josi yatan aragian, eta iluntasun ontan ezin yonat atara.

—Etxaik apuŕ baten —besteak yardetsi; ta bere argitxoa ixetu eban— ikusten al dok?

—Bai, eskeŕik asko! —txoriak; eta aren argiak lagunduta, arantza atara eban aragitik.

Bitartean, zeru-alde guztia areago ilundu zan. Uŕiñera, trumoyaren otsa entzuten zan, eta oñestu argiak dir-dir egien ortzipe zabalean zeaŕ.

—Bilduŕ naz! —oyu ipurtargiak.

—Atoŕ neugaz —txantxangoŕiak ari—. Etxetxo bat eratu egingo daunat.

Moko ta pikuaz lan egiñik, oŕi batzuk eundu ebazan, mamo-kokoak argiz laguntzen eutsan bitartean. Ura txoŕoka jausten asi zanean, izaki txiki biak etxetxo berdearen aterpean babestu ziran; au da: alkaŕ maitasunetik sortutako aterpe ezti gozoan».

IGOTZ

«Jolasketa» (119'gn. oŕialdean) Onaindia Aita.

BEŔOGETAMAZORTZIGAŔEN IKASKAYA

«ERAGIN»'ekin alkartutako aditzak:

ERAGIN (E-ra-gin) (egin'etik ateratzen dana) (1).

Ikusten danez, «egin» itzaren erdian «-ra-» erdizkia sartzen da, «egin»'en zentzunari indaŕ geyago emateko, «egin» eta «egin» esango baikenuen.

«ERAGIN»'ekin egiten diran beste aditz ataldunak, Azkue'k (M. 506) «aditz-mintzaera eginkoŕak» deitzen ditu. Auŕeko ikaskayan agertzen diranak berak ditugu, baña «egin» jaŕi ordez, «eragin» erabiltzean.

Onela: Aguŕ-eragin - Baŕe-eragin (aguŕ edo baŕe egiteko beartu).

Eragin aditz au beste aditz batekin ere joaten da, baña aditz oŕen izenarekin beti.

E. b.: Urten eragin - Jan eragin (urteteko edo jateko beartu).

Eragin (egin eta egin) edo beartzeko asmoa beste aditz onen bitartez be adierazten da: ERAZI (ERAZO, ARAZI, ARAZO).

Onela: Eseri arazi - Eraman erazo (esertzeko edo eramateko beartu, indartu).

Erazi'rekin alkartzen dan beste aditza, *-tu* edo *-du* itzatalaz amaitzen danean, itzatal auek galtzen dira ta *erazi* atzizki bezela jartzen da.

Onela: Bazkaldu + erazi = bazkalerazi - Deitu + erazi = deyerazi.

Oartu al-izan danez, IZAN'ekin alkartutako aditzak (54'gn. ikaskaya), geyenek, *zentzupenak* (iragangaitzek) eta *lerak* (iragankoŕek) adierazten dituzte.

EGIN eta ERAGIN'ekin alkartzen diranek, ostera, geyenek ere, gorputzaren egipenak adierazteko dira. (Azkue, D.).

Aditzondoko esakuntzak: *Ona emen, oŕa oŕ, ara an* (emen, oŕ edo an dagoela esango baikenuen).

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, irugaŕen notiñen adi-yabeak agertzen dira goiko leŕoan; bakaŕ eta askaŕ, eta bakoitza bayeztean eta ezeztean; ez-

(1) Ikusi: 76'gn. ikaskaya

keŕ-aldean zeaŕezko zentzuna duten izenordeak dagoz. Alkaŕi dagozkion lenaldiko adizkin artzaīeak ipiñi; kulatzen ordez, esan eta idazteko.

Izenordeak	Bera (bai)	Bera (ez)	Berak (bai)	Berak (ez)
Neri :	...	etzitzaidan	...	...
Zuri :	Zitzaizun	...	...	...
Berari :	...	...	zitzaizkion	...
Guri :	...	...	...	etzitzaizkigun
Zuei :	...	etzitzaizuen	...	...
Berai :	Zitzayen	...	...	...

2. *Egin, eragin* eta *erazi*'ekin alkartutako aditzak erabiltzean, oraiñaldiko aditzerak lenaldikoen bidez aldatu, ta alderantziz, lenaldikoak oraiñaldikoen bidez; eta bide batez, bayezkoak ezezkoen bidez aldatu ere, ta alderantziz noski; kulatzen ordez, esan eta idatzi.

Adiskide ari pozik aguŕ-egin *nion*; ... - Nork akaŕ-egin *dizu* oŕen gogoŕ?; ... - Gaizki jokatuz, zuek alkaŕi alde-egin *zenioten*; ... - Neska gazte oŕek amets-egiten *du* geyegi; ... - Uste dut guk eŕaz amor-egingo *genuela*; ... - Auŕ alaitsu oyei baŕe-eragin *diezute* asko aŕatsalde ontan; ... - Uŕengo egunean deyeraziko *zizuetela* uste genuen; ... - Onenbeste eztul-egiten *dutenezkero*, sendagīlearengana eramango ditugu; ... - Ijito oyei laisteŕ igeseragin *diet* gaur goizean; ... - Gazte zoro oyek eten gabe itsumustu-egiten *zuten* orduan; ... - Emakume gaixo oyei itz-eragiten *diete* berak nai zuten baño geyago; ... - Argi dago, zuei ankerkeriz negaŕerazi *dizueten* biotz gabeko ayek, ez dira gure adiskideak; ...

3. Emen ipintzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Joan dan larunbatean nire luma eman nion eta biaramonean biurtu zidan : Nori eman zenion joan dan larunbatean zure luma?; ... - Zer biurtu zizun biaramonean?; ... - Noiz biurtu zizun joan dan larunbatean eman zenion luma?; ... - Guri eman al zenigun zure luma joan dan larunbatean?; Ez, ... baño. -- Ez zitzaigun siñetsi orduan : Nori ez zitzayon siñetsi orduan?; ... - Noiz ez zitzaizuen siñetsi?; ... - Niri siñetsi al zitzaidan orduan?; Bai, ... -- Baŕe-eragin al zizueten asko?; bai, asko baŕe-eragin ziguten : Nori baŕe-eragin zioten asko?; ... - Nork baŕe-eragin zigun asko?; ... - Guziei baŕe-eragin al zieten asko?; Ez, ... baizik. -- Ona emen egin diegun kaltea : Nortzuei egin diezute kaltea?; ... - Zer egin diezute?; ... - Guri egin al diguzute kaltea?; Ez, ... baño. -- Ez ginduzuten ezagutu, ez eta orain ere ez gaituzute ezagutzen : Nor ez genuen ezagutu?; ... - Nortzuek ez zinduzteen ezagutu?; ... - Orain ezagutzen al zaituztegu?; Ez, ... ere ... - Nortzuk eztitugu ezagutzen orain?; ... -- Ez zitzaigun egoki ala bizi-izatea : Nori etzitzayon egoki ala bizi-izatea?; ... - Nola ez zitzaidan egoki?; ... - Zuei egoki al zitzaizuen ala bizi-izatea?; Ez, guri ere ... -- Ur-luŕiñak odeyak egin zizkigun : Zerk egin zizkizuen odeyak?; ... - Zer egin zizuen ur-luŕiñak?; ... - Nortzuei egin zizkien odeyak ur-luŕiñak?; ... - Urak berak egin al zizkizuen odeyak?; Ez, ... baño. -- Geyegi lan-eragin ziguten : Nortzuek lan-eragin zizueten geyegi?; ... - Nola lan-eragin zizueten?; ... - Guk lan-eragin al genizuen geyegi?; Bai, zuek ere ... - Gutxiegi lan-eragin al zizueten?; Ez, ... baizik. -- Nori jausi zitzaizkion lore oyek?; Neska sorayo oŕi?; ... - Nolakoa zan lore oyek jausi zitzaizkion neska?; ... - Guri jausi al zitzaizkigun lore oyek?; Ez, ... baño. -- Ibaitik zearo bustita atera zinduten : Nor atera zuten ibaitik zearo bustita?; ... - Nola atera ninduten ibaitik?; ... - Nundik atera ninduten zearo bustita?; ... - Zuk atera al ninduzun ibaitik zearo bustita?; Ez, ... baizik. -- Auŕ ayei dardart-eragin zien : Nork dardart-eragin zien auŕ ayei?; ... - Nortzuei dardart-eragin zieten?; ... - Niri dardart-eragin al zidaten?; Ez, ... baño. -- Ez genuen entzun eŕementari arek deadaŕ-egin ziguna : Nortzuek etzuten entzun eŕementari arek deadaŕ-egin ziena? ... - Nork deadaŕ-egin zizuen entzun etzenutena?; ... - Nik deadaŕ-egin nizuena entzun al zenuten?; Ez, zuk ... ere ... - Eta eŕementari arek entzun al zuen zuek deadaŕ-egin zeniotena?; Bai, ... -- Zeramazkien aŕautzak jausi zitzaizkion eta guziek leŕ-egin zuten : Zer jausi zitzayon?; ... - Zer zeraman?; ... - Zer egin zuten zeramazkien eta jausi zitzaizkion aŕautzek?; ... - Nori jausi zitzaizkion zeramazkien aŕautzak?; ... - Guri jausi al zitzaizkigun generamazkien aŕautzak?; Ez, ... baño. -- Oŕa oŕ nun datozen galdetu dizkidazun jostunak : Nortzuk datoz oŕ?; ... - Nun datoz galdetu dizkizudan jostunak?; ... - Aitak galdetu dizkidan jostunak al datoz oŕ?; Ez, ... baizik. -- Ez ginduzten iñoiz eraman nai genuenera : Nortzuek ez zinduzteen iñoiz eraman nai zenutenera?; ... - Nortzuk ez zituzten eraman iñoiz nai zutenera?; ... - Nora etzinduzteen iñoiz eraman?; ... - Noiz etzinduzteen eraman nai zenutenera?; ... - Nik eraman al zinduztedan iñoiz nai zenutenera?; Bai, ... -- Joan beaŕ genueneruntz oso ondo bideratu ginduzten : Nortzuek bideratu zinduzteen oso ondo joan beaŕ zenuteneruntz?; ... - Noruntz bideratu zinduzteen oso ondo?; ... - Nola bideratu zinduzteen joan beaŕ zenuteneruntz?; ... - Guk bideratu al zinduztegun oso ondo joan beaŕ zenuteneruntz?; Ez, ... baizik.

4. Ongi irakuŕi bertso auek eta, al baldin bada, buruz ikasi ere:

«ARKAITZEKO eloŕia
loratu danean
txoriak ezin dira
kabitu airean.

argia garbitu da,
otzandu aizea,
arkume-usain gatx eta
samuŕez aidea.

Oŕiztatu da poza
goitu dau esia.
Epaīleko xoramen,
zuri, eloŕia.

GAUR dana jaso zara
lore ta oŕi baŕiz,
igo beaŕ batean.
Gaur, Udabaŕia,
zeure adaŕ pean.

Gaur dana jatsi zara
neure oñetaraño,
etsi beaŕ batean.
Gaur, Udagoena,
zeure loŕiñetan».

«Elorri» (32-33'gn. oŕialdeetan) Aita Bitoriano Gandiaga-k, O. F. M.

BEŔOGETAEMERETZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - ADITZ IRAGANGAITZAK

BALDINTZAERA - BIGAŔEN ERABIDEA

Baldintzaera, euzkeraz, bigaŕen erabidetik sortzen da, ta tinkierazko lenaldiaren eraetatik ateratzen ditu bereak; ortarako, lenaldiaren bedegaŕa dan -N atzizkia kentzen da, ta beraren ordez *-KE* beste atzizkia jartzen da; irugaŕen notiñetan, lenengo Z- izkia utzi ta bere tokian *L-* erabiltzean; eta adi-yabeari askaŕ zentzuna emateko dan *-TE* beste atzizkia, agertu beaŕ danean, -KE atzetik ipintzeko. Onela:

	IZAN	JOAN	ETOŔI
Ni	N-i-N-TZA-KE	N-i-N-jOA- - -KE	N-e-N-TOR- - - -KE
Zu	Z-i-Ñ- - -A-KE	Z-i-N-jOA-Z-KE	Z-e-N-TO(R)-Z-KE
Bera	L-i- - -TZA-KE	L-i- - -jOA- - -KE	L-e- - -TOR- - - -KE
Gu	G-i-Ñ- - -A-KE	G-i-N-jOA-Z-KE	G-e-N-TO(R)-Z-KE
Zuek	Z-i-Ñ- - -A-KE-TE	Z-i-N-jOA-Z-KE-TE	Z-e-N-TO(R)-Z-KE-TE
Berak	L-i- - - -RA-KE	L-i- - -jOA-Z-KE	L-e- - -TO(R)-Z-KE

	EGON (Biz.)	EGON (Gip.)	IBĪLI
Ni	N-e-N-GO- - -KE	N-e- - -N-GO-KE	N-e-N-BIL- - - -KE
Zu	Z-e-N-GO-Z-KE	Z-e- -UN-DE-KE	Z-e-N-BIL-TZA-KE
Bera	L-e- - -GO- - -KE	L-e- - - - -GO-KE	L-e- -BIL- - - - -KE
Gu	G-e-N-GO-Z-KE	G-e- - -UN-DE-KE	G-e-N-BIL-TZA-KE
Zuek	Z-e-N-GO-Z-KE-TE	Z-e- - -UN-DE-KE-TE	Z-e-N-BIL-TZA-KE-TE
Berak	L-e- - -GO-Z-KE	L-e- - -U- -DE-KE	L-e- - -BIL-TZA-KE

Era auek oso gutxi erabiltzen dira, berak bakaŕik. Baldintzaren asmoa, geyenetan, bi itzen bidez adierazten da: edozein aditza (-KO edo -GO atzizkiekin) geroaldirako bezela jaŕita, eta baldintzaerazko laguntzaīlearen eraz.

Onela: Izan*go nintzake* - Etoŕi*ko giñake*.

Egitan, ba-dago bereizpen-lits bat, bilduak diran eta bi itzen bidez egiten diran aditzeraen artean. Auxe:

Zenbiltzake (emen baldintzaren asmoa osoa dago).

Ibīliko ziñake (emen, lenengo asmoari, beste geroaldiko zentzuna ematen zayo).

Beraz, lenengo eraz oraiñaldiko zentzuna ematen da; ta bigaŕen eraz, geroaldikoa.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, IZAN, JOAN eta ETOŔI aditzen baldintzaerazko erak, adi-yabe bakoitzari dagozkionak, kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Adi-yabea	IZAN	JOAN	ETOŔI
Ni	Nintzake	...	...
Zu	...	zinjoazke	...
Bera	...	...	letorke
Gu	Giñake	...	...
Zuek	...	zinjoazkete	...
Berak	...	...	letorzke (letozke)

2. *Izan* eta *joan* aditzak erabiltzean, uŕengo esakuntzetan agertzen diran lenaldi-geroko erak baldintzaerazkoen bidez aldatu, ta alderantziz, baldintzaerazkoak lenaldi-gerokoen bidez; bide batez, bayezkoak ezezkoen bidez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Zuek emen egon arte ni *enintzan joango* eŕaz; ... - Gurekin al *zinjoazke* uŕutiko leize artaraño?; ... - Oso egokia *litzake* zure semeak gure etxera etortzea; ... - Poz-pozik *joango giñan* zure aideekin edonora; ... - Uste dut nik agindu nizuen tokiraño bereala *zinjoazketela*; ... - Nai ta nai ez, beren irakasleekin *izango ziran*; ... - Iñoläz ere *ez ninjoake* zure eŕiko ardandegi zikin ayetara; ... - Astiro-astiro *joango ziñan*, araño ondo eltzeko; ... - Gazte adoretsu ori *elijoake* nai-izango dueneraño; ... - Zuen laguntzarik gabe ere, Araz'ko tantoŕeraño *ginjoazke*; ... - Zuek *ez ziñaten izango* eŕazki gu bezin zaluak; ... - Zuen ikaskideak oso uŕutira *lijoazke*; ...

3. Emen ipintzen ditugun galderai erantzun bana eman:

Ni zu bezin ona nintzake: Nor litzake ni bezin ona?; ... - Gu zuek bezin onak al giñake?; bai, zuek ... - Nola lirake mutil oyek?; ... -- Zu ez zinjoazke nirekin baseliza artaraño: Nor ez lijoake zurekin baseliza artaraño?; ... - Noraño eninjoake zurekin?; ... - Eta gu al ginjoazke zurekin baseliza artaraño?; Ez, zuek ere ... -- Maŕeztu zenizkigun ingiak

galdu zitzaizkigun: Nori galdu zitzaizkion maŕeztu genizkion ingiak?; ... - Zer galdu zitzaizuen?; ... - Oŕek maŕeztu al zizkizuen galdu zitzaizkizuen ingiak?; Ez, ... baizik. -- Ona emen nun datozen an ikusi zinduzteenak: Nortzuk datoz emen?; ... - Nun ikusi ginduzten emen datozenak?; ... - Zuk ikusi al ginduzun an?; Ez, ... baizik. -- Urik gabe ez giñate bizi-izango malko-aran ontan: Nor elitzake bizi-izango urik gabe negaŕ-aran ontan?; ... - Nun ez ziñakete bizi-izango urik gabe?; ... - Agure ori bizi-izango al litzake urik gabe negaŕ-aran ontan?; Ez, ori ere ... -- Lau ordutan igoko al ziñakete Gorbea'ko tontoŕeraño?; bai, eŕaz igoko giñake lau ordutan Gorbea'ko tontoŕeraño: Nor igoko litzake eŕaz lau ordutan Gorbea'ko tontoŕeraño?; ... - Noraño igoko giñake lau ordutan?; ... - Zu ere igoko al ziñake lau ordutan Gorbea'ko tontoŕeraño?; Ez, ... baño. -- Zaŕ gosebera ayek iīak bezela agertu zitzaizkigun: Nortzuk agertu zitzaizkizuen iīak bezela?; ... - Nola agertu zitzaizkizuen zaŕ gosebera ayek?; ... - Niri agertu al zitzaizkidan zaŕ gosebera ayek iīak bezela?; Ez, ... baño. -- Ogi ta okela ugari eman genizkien jateko: Zer eman zenieten jateko?; ... - Zertarako eman zenizkieten ogi ta okela ugari?; ... - Guri eman al zenizkiguten ogi ta okela ugari jateko?; Ez, ... ayei baizik. -- Zuk zenekien leotz artan sartu ninduten: Nor sartu zuten nik nekien leotz artan?; ... - Nun sartu zinduten?; ... - Guk sartu al zindugun nik nekien leotz artan?; Ez, ... baño. -- Oŕ alkaŕekin zengozela iruditu zitzaigun: Nori iruditu zitzayon oŕ alkaŕekin gengozala?; ... - Nun iruditu zitzaizuen alkaŕekin gengozala?; ... - Eŕiko ertzañai iruditu al zitzayen oŕ alkaŕekin gengozala?; Ez, ... baizik. -- Zer gertatuko litzake ara guziok joan ezkero?; eztakit zer gertatuko litzaken ara guziok joan ezkero?; Nork eztaki ara guziok joan ezkero zer gertatuko litzaken?; ... - Nora joan ezkero eztakizu zer gertatuko litzaken?; ... - Guk al dakigu guziok ara joan ezkero zer gertatuko litzaken?; Ez, zuek ere ... -- Bere lana utzita, zeukan guzia erakutsi zigun: Nork erakutsi zizuen zeukan guzia bere lana utzita?; ... - Noiz erakutsi zizuen zeukan guzia?; ... - Nik ere neukan guzia erakutsi al nizuen nire lana utzita?; Ez, ... baño. -- Eskua indaŕez aginka-egin zion: Nori aginka-egin zion eskua indaŕez?; ... - Nola aginka-egin zion eskua?; ... - Zuk aginka-egin al zenion eskua indaŕez?; Ez, ... baizik. -- Laisteŕ aterako lirakela gaztigatu ziguten: Nork gaztigatu zizuen laisteŕ aterako lirakela?; ... - Noiz aterako lirakela gaztigatu zizueten?; ... - Nik ere laisteŕ aterako nintzakela gaztigatu al nizuen?; Ez, ... baño. -- Eztakit gurekin pozik zengozken: Nork eztaki zuekin pozik nengoken?; ... - Zer eztakizu?; ... - Guk -l dakigu gurekin pozik zengozketen?; Ez, zuek

ere ... -- Beti leyatsu gentozke zure aolkuak entzuteko: Nor letorke leyatsu nire aolkuak entzuteko?; ... - Zertarako zentozkete leyatsu?; ... - Nola zentozkete nire aolkuak entzuteko?; ... - Neska gazte oyek ere leyatsu al letozke nire aolkuak entzuteko?; Ez, ... baizik. -- Goizegi jeiki-erazi ninduten: Nork jeiki-erazi zinduen goizegi?; ... - Noiz jeiki-erazi zinduen?; ... - Nor jeiki-erazi zuten goizegi?; ... - Nik ere goizegi jeiki-erazi al zindudan?; Ez, ... baño. -- Argia itzali zitzayen eta ilūntasun aundienean geratu ziran: Nortzuei itzali zitzayen argia?; ... - Zer itzali zitzayen atso ayei?; ... - Nola geratu ziran argia itzali zitzayenean?; ... - Zergatik geratu ziran ilūntasun aundienean?; ... - Gu ere ilūntasun aundienean geratu al giñan argia itzali zitzaigulako?; Ez, ... baizik.

4. Aŕetaz irakuŕi uŕengo esaldia, bide batez «Orixe» euzkal-idazle yaukalaren zerbait jakiteko:

« «Orixe»'k aurtzaroa Uitzi'n igaro zun, eta an euzkera ikasi. Euzkaleŕi'ko uri aundietan baño eŕezago ikasi diteke, noski, euzkera eŕi txikietan. Urixkaetan euzkera guziek dakite ta guziek itzegiten. Ta eŕi aundietara edo urietara joateko bide zabalean ez badago, ango euzkera garbiago ta jatoŕago izan oi da, beste izkuntzen itz, esaera ta durundarik gabe ere. Aukera aukerako da Uitzi'ko urixka polita euzkera ikasteko —len beintzat, «Orixe» aurtzaroan an egon zanean—. Garai artan ikazkin asko batzen ziran Uitzi'n, ikatz-lanetarako, ta lan orietara ez ziran joaten Napaŕoa'tik bakaŕik, Gipuzkoa ta Bizkaya'tik ere bai. Ta onela, Euzkaleŕi'ko toki askotakoak an batzen ziralako, ta elkaŕen arteko kidetasunez yardun, ainbeste aldetako euzkera entzuten zan. Ta oŕa, «Orixe» aurtzaroan an egon zan. Eta auŕak elkaŕen artean nola itzegiten zuten ere ikasi zun. Eta zaŕeri ere entzun zien, zegon etxean bertan, eta agian, auzoko mutikoek adixkide izanik, aen etxeetan. Entzun-itzak eta joskera. Nikola tipiaren buru-barnean sartu ta an kokatzen ziran, beaŕ zan garayan ezpañetara irteteko.

Uitzi'n zegoelarik eskolara joaten asi zan. Garai artan Uitzi'n, eskola-maixu on bat euki omen zuten, Nikolas'en eritziz. Ain zuzen, maixu ori, berak euki zitunen artean onentzat jotzen zun. Irakasleak, auŕei irakasten zizkien gayak, argi ipintzen omen zizkien, gauzak zer ziran eta elkaŕen artean zer artu-eman eta zer alde zuten adieraziz. Urte asko joanda ere, oroitzen zan Uitzi-eskolako gauza auetaz, irakaslea goratuz.

«Orixe» «Omenaldi» (120'gn. oŕialdean) Oyarzabal'daŕ Martin.

IRUROGEIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - ADITZ IRAGANGAITZAK
BALDINTZAERA - BIGAŔEN ERABIDEA

Auŕeko ikaskayan esan dugunez, baldintzaera ontan, geyenetan, eztira era bilduak erabiltzen; eta oyen ordez, aditz guziek bi itzen bidez egiten dituzte beren erak: lenengoa, aditzaren izena, -KO geroko atzizkiarekin jaŕita, eta bestea laguntzaīearen baldintzaerazko aditzera.

Oŕela dalarik, aditzera laguntzaīeai *-AN* beste atzizkia gañeratzen badiegu, beste aldi berezi bat dagigu, lenagoko zentzuna emateko. Beraz, bi aldi dauzkagu baldintzazko era ontan; e. b.:

Izango nintza*ke* (baldintzaera, gerokoaren zentzunaz); eta

Izango nintza*kean* (geroko oŕen lenagoko beste zentzunaz).

Eliztilariek, aldi bi auei, izen batzuk ematen dizkiete; geron aldetik, Kanpion'ek («Gramática Vascongada», 413-416) ematen dizkienak onartu ditugu; ona emen zeintzuk diran:

	GEROALDI URBIĿENA		LENAGOKO GEROALDIA
Izango	N-i-N-TZA-KE	Izango	N-i-N-TZA-KE- - -AN
Joango	Z-i-Ñ- - -A-KE	Joango	Z-i-Ñ- - -A-KE-TE-AN
Etoŕiko	L-i- - -TZA-KE	Etoŕiko	Z-i- - -TZA-KE- - -AN
Egongo	G-i-Ñ- - -A-KE	Egongo	G-i-Ñ- - -A-KE- - -AN
Ibiīiko	Z-i-Ñ- - -A-KE-TE	Ibiīiko	Z-i-Ñ- - -A-KE- - -AN
Irtengo	L-i- - -RA-KE	Irtengo	Z-i- - -TZA-KE-TE-AN

Oaŕ ditekenez, bigaŕen geroaldi ortan, irugaŕen notiñek, bedegaŕa zan *L-* lenengo izkia, bigaŕen erabideko *Z-*'az aldatzen da; ta gañera askaŕa dan irugaŕen notiñak *zitzaketean* dagi; ez, uste litekenez, *lirakean*. Alzaga'taŕ Toribio jaunak esaten zuenez (Donostia'ko «Oguzi Ikastolan» ematen zuen ikastaldian) -AN atzizkia ta L- auŕizkia alkargaitzak dira.

-AN edo -KEAN atzizki oŕen azken *-N* ori, beste atzizkiren bat jaŕi beaŕ bada, kentzen da.

«Lenagoko geroaldi» oŕen bidez adierazten dugun asmoa, oso saŕi edo geyenetan, len (42'gn. ikaskayan) ikusi genuen «Lenaldi-gerokoa»'ren bitartez adierazten da, batez ere eŕiaren izkeran; eta mail ortan oso gutxi

ezagutzen da -KE ta -AN atzizkien bidez dagiguna. Ipiñi ditugun aldi oŕen aditzerak elertian bakaŕik erabiltzen dirala esan diteke.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, EGON (Biz.), EGON (Gip.) eta IBIL aditzen baldintzaerazko erak ipiñi beaŕ dira; adi-yabe bakoitzari dagozkionak; kulatzen ordez esan eta idazteko :

Adi-yabea	EGON (Biz.)	EGON (Gip.)	IBIL
Ni	Nengoke	...	...
Zu	...	Zeundeke	...
Bera	...	...	Lebilke
Gu	Gengozke	...	...
Zuek	...	Zeundekete	...
Berak	...	...	Lebiltzake

2. *Etoŕi* ta *Egon* (*Biz.*) erabiltzean, uŕengo esakuntzetan agertzen diran lenaldi-geroko aditzerak baldintzaerazkoen bidez aldatu, ta alderantziz, baldintzaerazkoak lenaldi-gerokoen bitartez; era berean, bayezkoak diranak ezezkoen bidez aldatu ta alderantziz ere, ezezkoak bayezkoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idatzi :

Zure eguńerako *etoŕiko nintzan*, baña uste dut eziña izango zaidala; ... - Zure amak diñoenez, uri artan emen baño obeto *zengozke*; ... - *Etzan* ori garaiz *etoŕiko* gure bazkaria amaitu baño lenago; ... - Oso pozik *gengozke* zuekin zuen baratzan; ... - *Ez* al *ziñaten etoŕiko* gaur aŕatsaldean antzokira alkaŕekin joateko?; ... - Oyek an luzaroan *legozkela* diñote; ... - *Enentorke* ango nire lan guztiak amaitu arte; ... - Noiz arte *egongo ziñan* igariten oŕela?; ... - Gure anaya garaiz *letorke* emen zuekin arazo ortan yarduteko; ... - Noski, *ez giñan egongo* asaŕeturik luzaroan; ... - Nai ta nai ez, gurekin *zentozkete* alkaŕekin jolasteko; ... - Eztugu uste gureganako ain mukeŕ *egongo zirala*; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Nire uŕezko erestuna latsan erori zitzaidan : Nori erori zitzayon bere uŕezko erestuna latsan?; ... - Zer erori zitzayon latsan?; ... - Neska oŕi erori al zitzayon bere erestuna latsan?; Ez, ... baño. -- Lenago joan-

go nintzakean baña enintzan al-izan : Nor joango zitzakean lenago?; ... - Gu joango al giñakean lenago?; Bai, ... - Noiz etziñan joan al izan? ... -- Gurekin al zentozkete?; ez, gu ez gentozke zuekin : Nor ez letorke gurekin?; ... - Norekin ez zentozkete?; ... - Ni al nentorke zuekin?; Ez, zu ere ... -- Egaztiak eguraldi onaz obeto bizi-izango lirake : Zeintzuk bizi-izango lirake obeto eguraldi onaz?; ... - Nola bizi-izango lirake egaztiak obeto?; ... - Egaztiak eguraldi txaŕaz bizi-izango al lirake obeto?; Ez, ... baizik. -- Eztakit zer esan zidaten : Nork eztaki zer esan zioten?; ... - Zer da zuk eztakizuna?; ... - Guk al dakigu zer esan ziguten?; Ez, zuek ere ... -- Eskierki berarekin joango ziñaketean : Nor joango zitzakean eskierki berarekin?; ... - Norekin joango giñakean eskierki?; ... - Txistulari ori joango al zitzakean eskierki berarekin?; Ez, ... baño. -- Zuk orain emen ikusten nauzu, baña atzo eninduzun ikusi ez nengoelako : Nork ikusten zaitu orain emen?; ... - Nor etzenuen ikusi atzo?; ... - Nik ikusi al zinduztedan atzo?; Ez, zuk ere ... -- Iñor baño lenago jetsiko giñake : Nor jetsiko litzake iñor baño lenago?; ... - Noiz jetsiko ziñakete?; ... - Mutiko oyek jetsiko al lirake iñor baño lenago?; Ez, ... baizik. -- Nai duzutenarekin irtengo ziñaketean emen egon izan ezkero : Nortzuk irtengo zitzaketean nai dutenarekin emen egon izan ezkero?; ... - Nortzuekin irtengo giñakean emen egon izan ezkero?; ... - Zu irtengo al ziñakean nai duzunarekin emen egon izan ezkero?; Ez, ... baño. -- Atsegiñez bete ginduen : Nork bete zinduzten atsegiñez?; ... - Zerez bete zinduzten?; ... - Nik bete al zinduztedan atsegiñez?; Ez, ... baizik. -- Igoko al ziñakete nirekin araño?; bai, ta pozik ere igoko giñake : Nor igoko litzake pozik zurekin araño?; ... - Norekin igoko ziñakete pozik?; ... - Noraño igoko ziñakete pozik nirekin?; ... - Okin oyek ere pozik igoko al lirake nirekin araño?; Ez, ... baño. -- Lenago jetsiko giñakean, baña ez zaitugu ikusi orain arte : Nor jetsiko zitzakean lenago?; ... - Noiz ez ziñaketean jetsiko?; ... - Nor ez duzute ikusi orain arte?; ... - Ni lenago jetsiko al nintzakean?; Ez, ... baizik. -- Ezagutu al zinduten nire gurasoek orduan?; ez, zure gurasoek ez ninduten ezagutu orduan : Nork ez zinduen ezagutu orduan—; ... - Noiz ez zinduten ezagutu nire gurasoek?; ... - Zuek ezagutu al ginduzuten orduan?; Bai, guk ... -- Zortixaŕez ez zitzaizuen ezer otu : Nori ez zitzayon ezer otu, zoritxaŕez?; ... - Zer ez zitzaigun otu, zoritxaŕez?; ... - Zuei ezer otu al zitzaizuen?; Bai, ... -- Nekazari ayek alkaŕekin itzuliko zitzaketean, baña ez ziran al-izan : Nortzuk itzuliko zitzaketean alkaŕekin?; ... - Nekazari ayek alkaŕekin itzuli al-izan al ziran?; ... - Norekin etziran itzuli

al-izan nekazari ayek? ; ... - Ni itzuli al-izan al nintzan nekazari ayekin? ; Ez, zu ere ez ... -- Zaurituta erori giñalarik, bereala ekaŕi ginduzten etxera : Nor ekaŕi zuten bereala etxera, zaurituta erori zalarik? ; ... - Zer zala-ta, ekaŕi zinduzteen bereala etxera? ; ... - Ni ekaŕi al ninduten bereala etxera, zaurituta erori nintzalarik? ; Ez, ... baño. -- Oso uŕutira elduko lirake : Nortzuk elduko lirake oso uŕutira? ; ... - Nora elduko lirake oyek? ; ... - Zuek ere oso uŕutira elduko al ziñakete? ; Ez, ... baizik. -- Auŕa utzi zizutelakoan nengoen : Nor zegoen auŕa utzi zidatelakoan? ; ... - Zer utzi zidatelakoan zengozan? ; ... - Gu al gengozan auŕa zuei utzi zizuetelakoan? ; Ez, ... baño.

4. Ongi irakuŕi ausnartzekoak diran bertso polit auek ; eta buruz ikasi ezkero, obe :

Zugatz bat gutxiagoz
Etxeko baratza ;
Uŕezko arnaria
Arekin galdu da.

Au dot ezpaya nigaz !
Bilduŕ naz izan dan
Aurten bere, negute.
Ikusi dagidan :

Eun ortzeren balioz
Joan yat urtea ;
Zuzenago izan balitz
Nire bizikera !

Bayetz, ezetz, au, ori
Eta a : onenbeste ;
Onela ta oŕela...
Emen urtebete.

Zer diñoan jakin nai
Urtearen Jauna'k.
Saŕ nadin baŕenean,
Itz-begist gogoak !

Nagon lotsez isīlik !
Saŕ nadin ogean.
Izan nadin obea
Urtebaŕi ontan.

«Orbelak» (69'gn. oŕialdean) Kerexeta'taŕ J. «Arantzibia».

IRUROGETABATGAŔEN IKASKAYA

«ETSI»'rekin alkartutako aditzak :

«ETSI» aditza = aintzakotzat artu, aintzatu, begiratu, iritzi.

Ona emen ETSI aditzaren bidez egiten diran ataldun beste batzuk ; geyenak Azkue'ren (M. 507) idaztitik artuta ; berak, Arana Goiri'rekin batera, «aditz-mintzaera onginaizkoak» deitzen ditu ; ez du, alaz ere, bigaŕenak ematen dien *aditz ataldunen* deitura onartzen, naiz era bere Iztegian («etsi» itza) aditz ataldunetaz itzegin.

Aditz oyek eratzeko, izenondo bati (noizpait izen bati) *etsi* aditza eransten zayo, bien artean itz bakaŕa osoten. Iragankoŕak dira :

— Andietsi	(aunditzat artu, goratu)
Apaletsi	(gutxitzat artu)
Auŕetsi	(auŕa bezela artu)
Autetsi	(aukeratu, auŕetik berezi, berezi)
Azketsi	(azke bezela artu, barkatu)
Beaŕetsi	(eragin, erazo)
Berantetsi	(artegatu, gogaitu)
— Donetsi	(gurendu, onetsi, donetzat artu)
Edeŕetsi	(aozabal geratu, laket-izan)
— Ezetsi	(arbuyatu)
— Gaitzetsi	(ez onartu, gaizki esan, gaizpetu)
Gogoetsi	(gogaitu, aspertu)
— Goretsi	(goraipatu, onez aipatu)
— Gutietsi	(uŕuñatu)
Īletsi	(gal-etsi, etsia eman)
Irandetsi	(urari eragin)
Jardetsi	(atzera erantzun)
Jauretsi	(gurtu, Yainko'tzat euki)
Laidetsi	(iraindu, gerendu)
Laketetsi	(edeŕ-izan, atsegin-izan)
Luzetsi	(luzea iduri)
Obetsi, oberetsi	(nayago-izan)
— Onetsi	(bayetza eman, donetzat artu)
Opaetsi, opetsi	(eskeiñi, opa-egin)

— Unetsi	(onartu, aintzakotzat artu)
Ustetsi	(entzindu)
— Zuzenetsi	(ontzat eman)

Eginkizunak

1. Lenengo lauki ontan GEROALDI URBIL̄ENA ta LENAGOKO GEROALDIA deitzen ditugun bi aldien aditzerak ipiñi, izenordeai dagozkienez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	GEROALDI URBIL̄ENA	LENAGOKO GEROALDIA
Ni	Nintzake	...
Zu	...	ziñakean
Bera	Litzake	...
Gu	...	giñakean
Zuek	Ziñakete	...
Berak	...	zitzaketean

2. *Egon* (*Gip.*) ta *Ibil̄i* aditzak erabiltzean, emen jartzen ditugun esakuntzetan, lenaldi-geroko aditzerak baldintzaerazkoen bidez aldatu ta alderantziz, baldintzaerazkoak lenaldi-gerokoen bitartez; bide batez, bayezkoak diranak ezezkoen bidez aldatu ta alderantziz ere, ezezkoak bayezkoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Pozik *egongo nintzan* uri edeŕ ontan luzaroago, baña ezin; ... - Zu ere gurekin al *zeundeke* datoŕen aste arte?; ... - Auŕ ori, ostera, *etzan ibil̄iko* gaberarte jolasean; ... - Mendi goitu ayetan nekatu gabe *genbiltzake* mandazain ayekin; ... - Ziuŕ nago ikastetxe artan ongienik *egongo ziñakela*; ... - Ene ustez, uŕutiko itsaso ayetan *ez lebiltzake* oso lasai; ... - Ni, ordez, ayek baño obeto *nenbilke*; ... - Gure zai *egongo ziñalakoan* geunden; ... - Eskalari ura eŕiz-eŕi al *lebilke* onen txaŕa dan eguraldiaz?; ... - *Ez giñan* iñoiz *ibil̄iko* ango zantarkerietan; ... - Zuen ama onak zainduko ezpazinduzten beti eri *zeundekete*; ... - Basabere izu ayek alkaŕi buŕuka egiten *ibil̄iko ziran*; ...

3. Besteetan bezela, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Une artan geyegi andietsi zenuten zuen burua: Nortzuek andietsi zuten geyegi beren burua une artan?; ... - Zer andietsi genuen geyegi une artan?; ... - Noiz andietsi genuen geyegi gure burua?; ... - Nik ere nire burua geyegi andietsi al nuen une artan?; Ez, ... baño. -- Ara joango nintzake ta ez nintzake itzuliko: Nor joango litzake ara?; ... - Nora joango ziñake?; ... - Nor elitzake itzuliko?; ... - Zuek itzuliko al ziñakete?; Ez, gu ere ... -- Uŕatu zenidaten soñekoa josten ari nintzan: Zer ari ziñan josten?; ... - Nor ari zan josten uŕatu genion soñekoa?; ... - Ni ari al nintzan josten uŕatu zenidaten soñekoa?; Ez, ... baizik. -- Ez zitzaketean erduko zuengana: Nor etzitzakean erduko gugana?; ... - Norengana ez zitzaketean erduko?; ... - Zuek erduko al ziñaketean gugana?; Ez, gu ere ... - Ni erduko al nintzakean zuengana?; Bai, zu ... -- Ats artu al-izan gabe luzaroan egon giñan: Nor egon zan luzaroan ats artu al-izan gabe?; ... - Nola egon ziñaten luzaroan?; ... - Ni ere ts artu al-izan gabe luzaroan egon al nintzan?; Ez, ... baño. -- Baŕuraño sartuko al ziñakete?; bai, bereala sartuko giñake baŕuraño: Nor sartuko litzake bereala baŕuraño?; ... - Noraño sartuko ziñakete bereala?; ... - Noiz sartuko ziñakete baŕuraño?; ... - Ume oyek ere sartuko al lirake baŕuraño bereala?; Ez, ... baizik. -- Egunsentian baño lenago irtengo zitzaketean: Nortzuk irtengo zitzaketean egunsentian baño lenago?; ... - Noiz irtengo zitzaketean?; ... - Orko eiztaria irtengo al zitzakean egun sentian baño lenago?; Ez, ... baño. -- Egin zizkioten laido guziak azketsi zizkien: Nork azketsi zizkien egin zizkioten laido guziak?; ... - Zer azketsi zien?; ... - Zuri asketsi al zizkizun egin zinizkion laido guziak?; Bai, niri ere ... -- Ni ez ninduten jo besteak bezela: Nor etzuten jo besteak bezela?; ... - Nortzuk bezela ez zinduten jo?; ... - Nik jo al zindudan besteak jo nituen bezela?; Ez, zuk ere ... -- Guzia aiztu zitzaizuelakoan egon giñan: Nor egon zan guzia aiztu zitzaigulakoan?; ... - Nola egon ziñaten?; ... - Zu guzia aiztu zitzaidalakoan egon al ziñan?; Ez, ... baño. -- Eztakit ni baño lenago itxartuko ziñaken: Nork eztaki zu baño lenago itxartuko nintzaken?; ... - Zer eztakizu?; ... - Guk al dakigu gu baño lenago itxartuko ziñaketen?; Ez, zuek ere ... -- Agure on arek, joatean, onetsi ginduen: Nork onetsi zinduzten joatean?; ... - Nor onetsi zuen agure on arek joatean?; ... - Nik onetsi al zinduztedan joatean?; Ez, ... baizik. -- Ez zitzaketean asaŕetuko zuekaz: Nor etzitzakean asaŕetuko gugaz?; ... - Nogaz ez zitzaketean asaŕetuko?; ... - Zu asaŕetuko al ziñakean gugaz?; Ez, ... baño. -- Zer da alkaŕi esan diozutena?; gure isilpekoak esan dizkiogu alkaŕi: Nori esan dizkiozute zuen isilpekoak?; ... - Nortzuek esan dizkiote alkaŕi beren isilpekoak?; ... - Neska maratz oyek ere alkaŕi esan al dizkiote beren isilpekoak?; Ez, ... baizik. -- Ona emen nik beti nayago nuena: Nork nayago zuen beti emen dagoena?; ... -

Zer nayago zenuen beti?; ... Guk nayago al genuen zuek nai duzutena?; Ez, ... baño. -- Zer da atzo otu zitzaizuna?; andere zaŕ oŕi otu ez zitzayona da guri otu zitzaiguna: Nori otu zitzayon andere zaŕ oŕi otu ez zitzayona?; ... - Noiz otu zitzaizuen andere zaŕ oŕi otu ez zitzayona?; ... - Niri otu al zitzaidan atzo andere zaŕ oŕi otu ez zitzayona?; Ez, ... baizik. -- Ori, gu emen geratu ezkero, jazoko litzake: Zer jazoko litzake zuek emen geratu ezkero?; ... - Nola jazoko litzake ori?; ... - Ni ere emen geratu ezkero jazoko al litzake ori?; Ez, ... baño. -- Ez giñakean eŕaz eroriko: Nor etzitzakean eŕaz eroriko?; ... - Nola ez ziñaketean eroriko?; ... - Uste al duzu eŕen oyek eŕaz eroriko zitzaketeala?; Bai, ... -- Ikusi nai al duzute atzo eman zigutena?; bai, gogoz ere ikusi nai dugu atzo eman zizuetena: Nork ikusi nai du gogoz atzo eman zigutena?; ... - Zer ikusi nai duzute gogoz?; ... - Zure suyak ere gogoz ikusi nai al du atzo eman zigutena?; Ez, ... baizik. -- Nik edonork ainbat abere neukan: Nork zeukan edonork ainbat abere?; ... - Zer zeneukan zuk?; ... - Nekazari oyek al zeukaten edonor ainbat abere?; Ez, ... baño.

4. Ikasle batek, uŕutian bizi diran bere gurasoai gutun bat idazten die, gai ta arazo auek aipatzean: Bere osasuna, bere ikaskayak, bere irakasleak, bere lagunak edo ikaskideak, ikasguak nola diran, etxera itzultzeko dituen gogoak, bere gurasoak beŕiz ikusteko duen naya, gurasoai zer opa dien, bizi dan uria nolakoa dan, gerorako bere asmoak.

Idatzi ezazute gutun ori.

IRUROGETABIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ IRAGANKOŔEN ADITZ-JOKO BILDUA

BALDINTZAERA - BIGAŔEN ERABIDEA

IZAKAI-ADIZKIÑAK

Aditz iragangaitzekin erabīlitako jokera berberaz, iragankoŕen baldintzaera ere, bi *era orokaŕetan* banatua dugu; lenengoa, aditz laguntzaīlearentzat, eta bigaŕena, joko bildua daukaten beste aditzentzat:

IZAN Laguntzaīlea

Irugaŕen notiñaren izakai bakaŕa	Irugaŕen notiñaren izakai askaŕa
N-	N-
Z-e-N-	Z-e-N-
L-	L-
-U- -KE-	-IT- -U- -KE-
G-e-N-	G-e-N-
Z-e-N- -TE	Z-e-N- -Z- -TE
L- -TE	L- -Z- -TE

ERAMAN, EKAŔI, JAKIN, EGIN, ERABĪLI

Irugaŕen notiñaren izakai bakaŕa	Irugaŕen notiñaren izakai askaŕa
N-	N-
Z-e-N- -RAMA-	Z-e-N- -RAMA-
L- -KAR-	L- -KAR-
e) -(A)KI- -KE-	e) -(A)KI- -ZKI- -KE-
G-e-N- -GI-	G-e-N- -GI-
Z-e-N- -RABIL- -TE	Z-e-N- -RABIL- -TE
L- -TE	L- -TE

Aditz iragangaitzai buruz esan genuena bera esan dezakegu emen ere, ots, era auek oso gutxi erabiltzen dirala, eta beren ordez bi itzekoak dira geyenetan entzuten diranak, noski, aditz laguntzaīlea oñaŕiz arturik eta jokatu beaŕ duen beste aditza geroaldiko atzizkiaz (-KO edo -GO) jaŕita.

Onela: *Eramango nuke* (*neramake* aditzeraren ordez)

Erabīliko lituke (*lerabilzkike* aditzeraren ordez).

Bi era oyen arteko ezberdintasuna ontan dago: bilduak diran erak

oraiñaldi-zentzuna ematen dute, ta besteak, bi itzekoak, geroaldi-zentzuna.

E. b.: *Lekarke* (berak *orain* lekarke)
Ekaŕiko luke (berak *geroago* lekarke).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan agertzen diran aditzen erak, baldintzaerazkoak, izakai bakaŕaz eta izenordeai dagokienez, jaŕi; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	IZAN	ERAMAN	EKAŔI
Nik	Nuke	...	...
Zuk	...	zeneramake	...
Berak	...	...	lekarke
Guk	Genuke	...	...
Zuek	...	zeneramakete	...
Berak	...	...	lekarkete

2. *Izan* eta *eraman* aditzak erabiltzean, azaltzen diran lenaldiko erak baldintzaerazkoen bidez aldatu ta alderantziz, baldintzaerazkoak lenaldikoen bidez; bai ta bide batez, bayezkoak diranak ezezkoen ordez eta alderantziz, ezezkoenak bayezkoen bitartez ere; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Nik mendiaren oñean etxe zuri bat *nuen*; ... - Zuk oso uŕutira *zeneramake* zure zaldi zalu ori; ... - Artzain arek ez *zituen* bere ardi guztiak alkartuta; ... - Guk gure amuak *generamazkike* itxasora berealaxe ateratzeko; ... - Noiz *zenituzten* zuen besoak sendo, lan ura egin al-izateko?; ... - Eŕi artako maltzuŕek *ez leramazkikete* auŕera beren asmo txaŕak; ... - Nik ere *enituen* azkaltzeko sagaŕ goxo ayek; ... - Zuk *ez zenituen* gogo aundiak ikasketa zail ayek egiteko; ... - Noraño *leramazkike* andereño arek bere ikastolako auŕak?; ... - Guk piko ta madariak *genituen* ugari zuei emateko; ... - Txango artara zuen etxeko auŕ txikia ere *zeneramakete*; ... - Aran artako biztanleek oitura oso onak *zituzten*; ...

3. Eman, uŕengo galderai, egokiak izan ditezken erantzunak; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Bide erdian otso batzuk agertu zitzaizkion: Nori agertu zitzaizkion bide erdian otso batzuk?; ... - Nun agertu zitzaizkion otso batzuk?; ... -

Zuri ere bide erdian otso batzuk agertu al zitzaizkizun?; Ez, ... baño. -- Ni enintzake iñoiz itzuliko uri artara: Nor elitzake iñoiz itzuliko uri artara?; ... - Noiz etziñake itzuliko uri artara?; ... - Gu itzuliko al giñake uri artara?; Bai, zuek ... -- Lenago erduko giñakean, baña ezkiñan al-izan: Nor erduko zitzakean lenago?; ... - Nor etzan erdu al-izan lenago?; ... - Zuek erduko al ziñaketean lenago?; Ez, gu ere ... -- Zer galdetu zenidan atzo?; ia gurekin bazkalduko zenuken galdetu nizun atzo: Nori galdetu zenion ia zuekin bazkalduko luken?; ... - Noiz galdetu zenigun ia zuekin bazkalduko genuken?; ... - Nik galdetu al nizun ia gurekin bazkalduko zenuken?; Ez, ... baizik. -- Ez nizun erantzun, esan zenuena ulertu ez genizulako: Nori ez zenion erantzun esan zuena ulertu ez zeniolako?; ... - Zergatik ez zenidan erantzun?; ... - Eta nik zergatik erantzun nizun?; ... -- Nik ez nuke ezer jardetsiko andere mazal ayei entzuten: Nork eluke ezer jardetsiko andere mazal ayei entzuten?; ... - Nori entzuten ez zenuke ezer jardetsiko?; ... - Guk jardetsiko al genuke ezer endere mazal ayei entzuten?; Ez, zuek ere ... -- Mutil gazte oyek ez zitzaketean oŕela izango: Nor etzitzakean oŕela izango?; ... - Nola etzitzaketean izango mutil gazte oyek?; ... - Zuek izango al ziñaketean oŕela?; Ez, gu ere ... -- Gure osabak bere erleen ezti ta argizaya ekaŕi zizkigun: Nork ekaŕi zizkizuen bere erleen ezti ta argizaya?; ... - Zer ekaŕi zizuen zuen osabak?; ... - Guk ekaŕi al genizkizuen gure erleen ezti ta argizaya?; Ez, ... baño. -- Indaŕez eseri-erazi ninduten: Nortzuek eseri-erazi zinduten indaŕez?; ... - Nola eseri-erazi zinduten?; ... - Nik eseri-erazi al zindudan indaŕez?; Ez, ... baizik. -- Aiztu al zaizu ori nola esaten dan?; ez, niri etzait aiztu ori nola esaten dan: Nori etzayo aiztu ori nola esaten dan?; ... - Zer etzaizu aiztu?; ... - Lege-gizon oyei aiztu al zaye ori nola esaten dan?; Ez, ... ere ... -- Ez giñakean iñoiz emendik irtengo: Nor ez zitzakean iñoiz emendik irtengo?; ... - Nundik ez ziñaketean iñoiz irtengo?; ... - Ni iñoiz irtengo al nintzakean emendik?; Bai, ... -- Asko baŕe-eragin al zizueten?; bai, asko ta geyegi ere. Nori baŕe-eragin zioten asko ta geyegi ere?; ... - Nola baŕe-eragin ziguten?; ... - Zuek asko baŕe-eragin al zeniguten?; Ez, ... baño. -- Beren egun onak amaitu zitzaizkien: Nortzuei amaitu zitzaizkien beren egun onak?; ... - Zer amaitu zitzayen?; ... - Zuei ere amaitu al zitzaizkizuen zuen egun onak?; Ez, ... baizik. -- Zergatik itxartu ninduzuten ain goiz?; eŕitik lenbailen irten beaŕ genuelako: Nor itxartu zenuten ain goiz eŕitik lenbailen irten beaŕ zenutelako?; ... - Nundik irten beaŕ zenuten lenbailen?; ... - Nik itxartu al zinduztedan ain goiz eŕitik lenbailen

irten beaŕ genuelako?; Ez, ... baño. -- Ez dituzu iñoiz jakingo opa-izan dizkizugun gauza on guztiak: Nork eztitu iñoiz jakingo opa-izan dizkiozuten gauza on guztiak?; ... - Zer eztut nik iñoiz jakingo?; ... Eta jakintsu oyek jakingo al dituzte iñoiz, opa-izan dizkiezuten gauza on guztiak?; Ez, oyek ere ... -- Biar itzuliko ziñaketela esan ziguten: Nork esan zizuen biar itzuliko giñakela?; ... - Zer esan zizueten?; ... - Nik esan al nizuen biar itzuliko giñakela?; Ez, ... baizik. -- Erosi zituzten goldeak Gasteiz'en egiñak ziran: Zer zan Gasteiz'en egiña?; ... - Zer erosi zuten?; ... - Beaŕ edeŕez erosi al zituzten Gasteiz'en egiñak ziran goldeak?; Ez, ... -- Ayek zeuzkaten abereak eraman-erazi zizkieten: Nortzuei eraman-erazi zizkieten zeuzkaten abereak?; ... - Zer eraman-erazi zieten?; ... - Guk eraman-erazi al genizkizuen zeneuzkaten abereak?; Ez, ... baño. -- Apurtuko ez zitzaizulakoan utzi genizuen ori: Nori utzi zenioten ori apurtuko ez zitzayolakoan?; ... - Nork utzi zidan ori apurtuko ez zitzaidalakoan?; ... - Guk utzi al genizuen ori apurtuko ez zitzaizuelakoan?; Ez, ... baizik.

4. Irakuŕi ondo esanaldi au, ta gero, bertan agertzen diran aditzerak zein aditz-aldian jaŕita dagoen bakoitza ta bilduak ote diranentz esan:

«Leize auek gure auŕekoen jauregiak ziran, eta ayetatik zenbait ilobi ta eliza ere bai. Bestelako etxe-bizitzak (txabolak, nunbait) galdu ziran denak, gai ustelkoŕaz eginda zeudelako. Gure eŕietan beste oŕenbeste gertatu oi da: etxeak erortzen dira, baña jauregi, gaztelu, toŕe, eliza ta oŕelakoak tente irauten dute urte geyago. Leize-zuloak, arkaitz bizian egiñak, gure gazteluak baño iraunkoŕago izan ... . Eta etxe-bizitzarako ez ziran txaŕak, oso egokiak baizik; neguan beroa, udaran otza, eta piztien atzapaŕetatik gizona gordetzeko aukerakoak atea naŕuz edo eguŕez itxi ezkeroz ... . Etxe-bizitza izandako leizeak, geyenak, eguteran daude eta kobearen atakan lanegiten zuten tresna ta lanabesak egiten; leizeak baitziran leen-gizonen ola ta lantegi. Lantegia eta sukaldea alkaŕekin zeuden; bai ta ilobia ere ... . Geyenetan, ura ere, etxe barnean zeukaten eta bildutako igaliak edo eizetako aragi ta naŕuak gordetzeko leku aukerakoak...

Bizitzeko egokiak izanaŕen, ez ziran beti etxe-bizitza bakaŕik izaten; zenbait leizetan gauza miragaŕiak azaldu zaizkigu, zoragaŕizko maŕazkiak, alegia, margoak eta eŕetentxoak kobeetako ormaetan. Gizon ayen artean ba-zan ertilari edeŕik, edergintzan trebetuak...».

«Euskalerria eta Eriotza» (18-19'gn. oŕialdeetan) A. Arrinda.

IRUROGETAIRUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - ADITZ IRAGANKOŔAK
BALDINTZAERA - BIGAŔEN ERABIDEA
IZAKAI-ADIZKIÑAK

Jokaera ontan, aditz iragankoŕetan ere, bi aldi auek bereizten ditugu:

	GEROALDI URBILENA				LENAGOKO GEROALDIA				
Izango	N-	-U-	-KE		Izango	N-	-U-	-KE	-AN
Eramango	Z-e-N-	-U-	-KE		Eramango	Z-e-N-	-U-	-KE	-AN
Ekaŕiko	L-	-U-	-KE		Ekaŕiko	Z-	-U-	-KE	-AN
Jakingo	G-e-N-	-U-	-KE		Jakingo	G-e-N-	-U-	-KE	-AN
Egingo	Z-e-N-	-U-	-KE-	-TE	Egingo	Z-e-N-	-U-	-KE-	-TE- -AN
Erabiliko	L-	-U-	-KE-	-TE	Erabiliko	Z-	-U-	-KE-	-TE- -AN

Era guzti auek izakai bakaŕari dagozkio; ta izakai askaŕa izan ezkero, -IT- erdizkia -U- eŕoaren auŕetik jaŕi beaŕ da, auŕeko ikaskayan ikusi dan lez; eta izakayaren askaŕ-zentzuna duen -Z- beste erdizkia ere, bigaŕen eta irugaŕen askaŕ-notiñentzat, -U- eŕoaren atzetik jartzean.

Oaŕ ditekenez, «lenagoko geroaldi»'an, irugaŕen notiñentzako eraetan, «geroaldi urbilen»'aren lenengo *L-* izkia, *Z-*'z aldatzen da, ots, bigaŕen erabideari dagokiona ipintzeko.

ZEINBAIT (bayezteko) ta EZEIN (zalantzarako edo galdetzeko), 51'gn. ikaskayan ikusi genituen itzak adierazten duten asmoa, BAT zenbakitzaren bidez ere adierazi dezakegu, onela esaten: «BAT EDO BAT» edo «BATEN BAT».

Bigaŕen era ori, beste itzekin ere erabili diteke; izenari *-EN* atzizkia eransten eta uŕengoan BAT itza jartzean.

E. b.: Sagaŕ*en bat* (zeinbait sagaŕ) - Gizon*en bat* (zeinbait gizon).

Asmoari askaŕ-zentzuna emateko, BAT'en ordez, BATZUK edo BATZUEK itzak darabilzkigu.

E. b.: Sagaŕ*en batzuk* - Gizon*en batzuk* (1).

(1) Ikusi: 66'gn. ikaskaya.

Era berean, esandako 51'gn. ikaskayan agertzen diran EZEIN EZ eta EZER EZ izkerak duten zentzuna, BAT zenbakitzaren bitartez be eman dezakegu, onela esaten: BAT EZ BAT (Ezein ez) ta BATEZ (Ezer ez).

E. b.: Mendi ortan basurde asko dagoela esan digute, baña guk eztugu BAT EZ BAT ikusi (bai ta: eztugu BAT ERE ikusi). Zer dakarte oyek, bada? - BATEZ (bat ere ez).

Ikusten dugunez, *Batez*, egitan, *Bat ere ez* itzen laburpena da, ta naiz *Ezein ez* naiz *Ezer ez* adierazi ditzake.

Bizkaya'n, *Bapez* esaten da *Ezer ez*'en zentzuna emateko; ta itz ori ere *Bat bere ez* izkeraren laburpena da.

Onela: Zer ekaŕi dozu? - *BAPEZ* (Ezer ez).

Eginkizunak

1. Emen damagun lauki ontan agertzen diran baldintzaerazko aditzen erak, izakai askaŕaz eta izenordeai dagozkienez, jaŕi; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

	JAKIN	EGIN	ERABILI
Nik :	Nekizkike	...	...
Zuk :	...	zenegizkike	...
Berak :	...	...	lerabilzkike
Guk :	Genekizkike	...	...
Zuek :	...	zenegizkikete	...
Berak :	...	...	lerabilzkikete

2. *Ekaŕi* ta *jakin* aditzak erabiltzean, agertzen diran lenaldiko erak baldintzaerazkoen bidez aldatu ta alderantziz, baldintzaerazkoak lenaldikoen bidez; bai ta, aldi baten, bayezkoak diranak ezezkoen bidez eta alderantziz, ezezkoenak bayezkoen bitartez be; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Nire etxeko aulki guziak *nekarzkike* gure bilkurarako; ... - Lengo egunean *ez zenekiela* esan zenigun, baña etzan egia; ... - Nork *lekarke* arin oŕen zama aundia?; ... - Guk *genekiena* zuek ez *zenekitena* zan; ... - Eztakigu nola *zenekarzkiketen* oŕen uŕatuak dauzkazuten soñekoak; ... - Ayek ain ondo *zekizkiten* ikaskayak ikastaro guziaren zalenak ziran; ... - Iñoiz *enekike* zuk ainbeste; ... - Alpeŕik *zenekarzkiten* zure idazki guziak, iñork elituke irakuŕiko; ... - Mutil alpeŕ arek *etzekien* iñoiz ezer; ... - Guk *genekarzkiken* madariak zeiko gozoenak izango lirake; ... - Zuek *ez zenekiten* auzo artan gertatu zana; ... - Zuen moŕoyek *lekarzkiketen* upelak elirake aundienetakoak izango; ...

3. Emen ageŕerazten ditugun galderai, eman egokia izango dan erantzun bana; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Zuen ondoan oso pozik eseriko nintzakean: Nor eseriko zitzakean oso pozik gure ondoan?; ... - Noren ondoan eseriko ziñakean oso pozik?; ... - Auŕ oyeŕ ere gure ondoan oso pozik eseriko al zitzaketean?; Ez, ... baño. -- Bialdu zenizkiguten giltzak erdoyez beterik zegozen: Zertzuk zegozen erdoyez beterik?; ... - Nola zegozen bialdu genizkizuen giltzak?; ... - Garbi al zegozen arek bialdu zizkizuen giltzak?; Bai, ... -- Ez ginduzten atzeman gaberarte: Nortzuek ez zinduzteen atzeman gaberarte?; ... - Nor etzuten atzeman gaberarte?; ... - Nik ere ez al zinduztedan atzeman gaberarte?; Ez, zuk lenago ... -- Ikusi gaituzte ta bereala beren laguntza eskeiñi digute: Nor ikusi dute ta nori eskeiñi diote dereala beren laguntza?; ... - Nortzuek ikusi zaituztee?; ... - Arek eskeiñi al dizue bere laguntza?; Ez, ... baizik. -- Zuk Legutiano'n lana izango zenuke: Nork izango luke lana Legutiano'n?; ... - Nun izango nuke nik lana?; ... - Eŕi artan izango al nuke nik lana?; Ez, ... baño. -- Ez nintzakean oindiño itzuliko; baña nire gurasoek idatzi zidaten eta bereala etoŕi nintzan: Nor etzitzakean oindiño itzuliko?; ... - Zergatik etoŕi ziñan bereala-; ... - Zuek itzuliko al ziñaketean bereala?; Ez, ... baizik. -- Ba-nekien gona ori Yone'rena zala: Nork zekien gona ori Yone'rena zala?; ... - Zer zenekien?; ... - Guk ba al genekien gona ori Yone'rena zala?; Ez, ... baño. -- Beren burusiaz estali ninduten: Nortzuek estali zinduten beren burusiaz?; ... - Zerez estali zinduten?; ... - Nik estali al zindudan nire burusiaz?; Ez, ... baizik. -- Noiz edo noiz Donostia'n alkaŕ ikusiko dugu: Nortzuek ikusiko dute alkaŕ noiz edo noiz Donostia'n?; ... - Nor ikusiko duzute noiz edo noiz Donostia'n?; ... - Zure lengusiñek ikusiko al dute alkaŕ noiz edo noiz Donostia'n?; Ez, ... baño. -- Andik, emendik baño geyago ikusiko genuke: Nortzuek ikusiko lukete andik, emendik baño geyago?; ... - Zer ikusiko zenukete andik?; ... - Nik ikusiko al nuke andik, emendik baño geyago?; Ez, ... baizik. -- Uri ayetan gutietsi ginduzten: Nor gutietsi zuten uri ayetan?; ... - Nun gutietsi zinduzteen?; ... - Nik emen gutietsi al zinduztedan?; Ez, ... baño. -- Etzerabilzkiten orduan orain darabilzkiten gauzak: Nork etzerabilzkien orduan orain darabilzkienak?; ... - Zer darabil

orain?; ... - Guk al generabilzkien orduan orain darabilzkigun gauzak?; Ez, zuek ere ... -- Igalien batzuk jango genitukean egaŕi-egaŕi giñalako. Nortzuek jango zituzketean igalien batzuk?; ... - Zergatik jango zenituzketean igalien batzuk?; ... - Nik jango al nitukean igalien batzuk?, Ez, ... baizik. -- Nirekin itzuliko al ziñaketean?; bai, gogo onez itzuliko giñakean zurekin: Nor itzuliko zitzakean gogo onez nirekin?; ... - Nola itzuliko ziñaketean nirekin?; ... - Irule oyek ere gogo onez itzuliko al zitzaketean nirekin?; Ez, ... baño. -- Lenago apalduko genukean baña ezkenuen al-izan: Nork apalduko zukean lenago?; ... - Nork etzuen lenago apaldu al-izan?; ... - Nik apalduko al nukean lenago?; Bai, ... -- Beste guziak baño uŕe geyago ekaŕiko zenukete, eiki: Nork ekaŕiko luke, eiki, beste guziak baño uŕe geyago?; ... - Zer ekaŕiko genuke guk eiki?; ... - Beste guziek guk baño uŕe geyago ekaŕiko al lukete eiki?; Ez, ... baizik. -- Oŕen astiro joatean etziñaketean iñoiz elduko: Nor ez zitzakean iñoiz elduko oŕen astiro joatean?; ... - Nola etziñaketean iñoiz elduko?; ... - Ni iñoiz elduko al nintzakean oŕen astiro joatean?; Ez, zu ere ... -- Lan ura artezteko zure burua eskeiñiko zenukela bayeztu zenidan: Nire burua zer artezteko eskeiñiko nukela bayeztu nizun?; ... - Nori bayeztu nion lan ura artezteko nire burua eskeiñiko nukela?; ... - Zuek zuen burua eskeiñiko al zenukete lan ura artezteko?; Ez, ... baño. -- Bereala oneraño ekaŕi zinduzteen: Nortzuek ekaŕi ginduzten bereala oneraño?; ... - Nortzuk ekaŕi zituzten bereala oneraño?; ... - Nik ekaŕi al zinduztedan bereala oneraño?; Ez, ... baizik.

4. Irakuŕi astiro olerki au; ta esan, gero, zeintzuk eta zenbat ditugun ots-kideak diran bertsoak, ots, berdin amaitzen diran bertsoak:

«GORA - DEI»

«Oŕa uste gabe, yaunak,
ipui bat asia:
antzea bezain, naski,
gaya dut uŕia...

Mutiletako poza
ta axolakabea;
amets eztia dela
lenen-maitatzea.

Edozein lan asteko,
Yauna'ri biotza;
areago, txit bainaiz
artarako motza.

Yaungoiko on, euzkaldunon
betiko yabea
indazu nere ipuya
tayuz yalkitzea.

Nola baitan astuntzen
gerora bizia;
ta zein dugun beaŕa
noiz-nai goi-argia.

Ta zuk, euzkera edeŕ,
mintzo zaŕ yoria,
barkako al didazu
nire ausardia...

Ez bezakida abotik
itz gaiztorik eror;
ez bedi nere esanik
iñorentzat galkoŕ.

Oroitzapen maiteenen
ontzia, zere uŕez
landu nai baitut... Landu,
nire esku baldaŕez!».

«Umezurtz Olerkiak» (47-48'gn. oŕialdeetan) Lizardi'taŕ Xabier.

IRUROGETALAUGAŕEN IKASKAYA

-AŕEN atzizkia.

Ona emen atzizki onek dauzkan zentzun batzuk :

1.ª «Bada ere» esanez adierazten dana; ta aditzari eransten zayo; aditzaren izena izan ezkero, *atzizkia* bezela, baña bi itzen bidez egiña izango dan aditzera baldin bada, beste *itz bat* bezela, ta orduan aditzerak *-N* atzizkia be eraman beaŕ du.

E. b. : Ori egin*aŕen* = Ori egin *bada ere*, edo : Ori egin *badugu ere*.
Ara joan geran *aŕen* = Ara joan *bagera ere* (1).

Asmo ori beste eraz be adierazi diteke : NAIZ ETA itzak erabiltzen, *-aŕen* atzizkiaren ordez. Baña itz oyek, ortarako, aditzaren izena daraman esakuntzan bakaŕik erabil ditezke, ta esakuntza oŕen auŕean ain zuzen.

E. b. : *Naiz eta* ori *egin* = Ori egin*aŕen* = Ori egin *bada ere*.
Ezkera etoŕi *naiz eta* zuek *eskatu* = Ezkera etoŕi zuek eskatu*aŕen* = Ezkera etoŕi zuek eskatu *baduzute ere*.

2.ª Aditz-izenarekin edo izena biurtutako aditzarekin, atzizki bezela darabilgu, ta -TEKO atzizkiaz adierazten danaren antzekoa da bere zentzuna (ikusi : 20'gn. ikaskaya).

E. b. : Ona etoŕi dira jate*aŕen* = Ona etoŕi dira *jateko* bakaŕik, beste asmorik gabe.
Oŕa joango naiz ikuste*aŕen* = Oŕa joango naiz ikus*teko* asmoaz bakaŕik.

3.ª Atzizkia bezela ere, *lerak* adierazten dituzten izenekin (Azkue, M. 233), erazko aditzondoen zentzuna du, asmo auek adierazten : «zerbaiteaz eraginda» edo «zerbaiteaz beteta»...

E. b. : -Alpeŕ*aŕen* = Alperkeriz beteta, alperkeriagatik.
Aŕo*aŕen* = Aŕokeriz beteta, aŕokeriagatik.
Damu*aŕen* = Damuak eraginda.
Gur*aŕen* = Gurariak eraginda.
Laŕi*aŕen* = Laŕitasunez beteta, laŕitasunagatik.
Lots*aŕen* = Lotsak eraginda.

(1) Ikusi: 67'gn. ikaskaya.

-Nagi*aŕen* = Nagikeriz beteta, nagikeriagatik.
Nay*aŕen* = Nayak eraginda.
Poz*aŕen* = Pozak eraginda.

4.ª Itza bezela, oyuitza bezela erabiltzen da, eskari edo otoi lez.

E. b. : Etoŕi (zaitez), *aŕen*! = Etortzeko eskatzen dizut.

Zentzun oŕezaz eta atzizki bezela, beste itz batzuekin be erabiltzen da.

E. b. : Etoŕi (zaitez), Yainko'*aŕen* = Etoŕi zaitez, Yainkoa'gatik!

AU eta *ORI* ageŕerazleen zentzun berezia.

Bi ageŕerazle auek NI ta ZU izenordeen antzeko erabiltzen dira, deika zentzunez erabiltako albo-izena bezela; bai ta lenengo ta bigaŕen notiñen aditzeraekin; baña aditzera auei -N alkaŕ-gayezko izenordea gañeratu beaŕ zaye.

E. b. : Norengana joango naiz, gizajo AU?
(gizajo AU = NI gizajoa) (... Ni gizajoa?).
Gaizto ORI = *Zu* gaiztoa.
Alpeŕ ORI = *Zu* alpeŕa.
Emen nagoen AU = Emen nagoen *ni*.
Eldu zeran ORI = Eldu zeran *zu* (1).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, baldintzaerazko «geroaldi urbiltena» ta «lenagoko geroaldia» deitzen ditugun aldiai dagozkien erak jaŕi, guziai -LA atzizkia gañeratzen, eta askaŕ-izakayaz; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

	GEROALDI URBILTENA	LENAGOKO GEROALDIA
Nik	Nitukela	...
Zuk	...	zenitukeala
Berak	Litukela	...
Guk	...	genitukeala
Zuek	Zenituketela	...
Berak	...	zituzketeala

2. *Egin* eta *erabili* aditzak erabiltzean, uŕengo esakuntzetan ematen diran lenaldiko erak baldintzaerazkoen bidez aldatu ta alderantziz,

(1) Ikusi: 67'gn. ikaskaya.

baldintzaerazkoak lenaldikoen bidez; aldi baten, bayezkoak diranak ezezkoen bidez eta alderantziz, ezazkoenak bayezkoen bitartez aldatzean ere; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Gaurko eginkizunak bereala *negizkike*; ... - Igaz *ez zenerabilzkien* orain darabilzkizun oñetakoak; ... - Zer *legike* elbaŕituta dagoen gizajo oŕek?; ... - Etxean geyen *generabilen* maya kendu ziguten; ... - Zuek *ez zenegiten* adiskide oyek ainbat otoi; ... - Auzo artan *ez lerabilzkikete* aitzuŕ egokienak; ... - Nire lan zail ura *ez negien* ongi; ... - Beti al *zenerabilke* orain darabilzuna?; ... - Nork jakin olagizon oŕek bere lantegian *zegiena*!; ... - Pozik *generabilzkike* nun-nai ekaŕi dizkiguten txapelak; ... - Ziuŕ gagoz mandakeri oyek *ez zenegizkiketela*; ... - Auzo ayetako emakumeek gona oso luzeak *zerabilzkiten*; ...

3. Emen damazkigun galderai erantzun egoki bana eman; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Egiñalak eginaŕen, enintzan eldu nai nuen tokira: Nor etzan eldu nai zuen tokira egiñalak eginaŕen?; ... - Nora ez ziñan eldu egiñalak eginaŕen?; ... - Gu ere ez al giñan eldu nai genuen tokira egiñalak eginaŕen?; Ez, zuek ere ... -- Ez al zenituke auŕ oyek maite-izango?; bai, nik beti maite-izango nituke auŕ oyek: Nork maite-izango lituke auŕ oyek?; ... - Nor maite-izango zenuke beti?; ... - Guk ere auŕ oyek beti maite-izango al genituke?; Ez, ... baño. -- Gurekin pozik lanegingo zuketean: Nortzuek lanegingo zuketean pozik zuekin?; ... - Norekin lanegingo zuketean pozik?; ... - Nola lanegingo zuketean ayek zuekin?; ... - Nik ere zuekin pozik lanegingo al nukean?; Bai, uste dugu zuk ere ... -- Ez al zinduten atera andik bart?; bai, bart atera ninduten andik: Nor atera zuten andik bart?; ... - Noiz atera zinduten andik?; ... - Nundik atera zinduten bart?; ... - Nik atera al zindudan bart andik?; Ez, ... baño. -- Ala ere ez ninduzuten ikusi: Nor ezkenuen ikusi ala ere?; ... - Nortzuek ez zinduten ikusi ala ere?; ... - Guk ikusi al zindugun ala ere?; Ez, zuek ... -- Ez genukean ekaŕiko oŕelakorik zuretzat: Nork etzukean ekaŕiko oŕelakorik niretzat?; ... - Zer ez zenuketean ekaŕiko niretzat?; ... - Norentzat ez zenuketean ekaŕiko oŕelakorik?; ... - Nik ekaŕiko al nukean oŕelakorik zuretzat?; Ez, zuk ere ... -- Eskierki laŕuzko eskuandelak erabiliko lituzkete: Nork erabiliko lituke laŕuzko eskuandelak?; ... - Zer erabiliko lukete ayek?; ... - Uste al duzu nik ere laŕuzko eskuandelak erabiliko nitukela?; Bai, eskierki zuk ere ... -- Ezuŕen bat apurtu ziotela bayeztu zidaten: Zer bayeztu zizuten?; ... - Zer apurtu ziotela bayeztu zizuten?; ... - Nori bayeztu zioten ezuŕen bat apurtu ziotela?; ... - Guk bayeztu al genizuen ezuŕen bat apurtu ziotela?; Ez, ... baizik. -- Zearo atzipetu ginduzten: Nor atzipetu zuten zearo?; ... - Nola atzipetu zinduzteen?; ... - Gu atzipetu al ginduzten zearo?; Ez, ... - Nik atzipetu al zinduztedan zearo?; Ez, ... baño. - Estualdi aunditan zegozen: Nor zegoen estualdi aunditan?; ... - Nola zegozen ayek?; ... - Ni ere estualdi aunditan al nengoen?; Ez, ... baizik. -- Beren abereak mendi ayetaraño eramango lituzkete: Nortzuek eramango lituzkete beren abereak mendi ayetaraño?; ... - Zer eramango lukete mendi ayetaraño?; ... - Noraño eramango lituzkete beren abereak?; ... - Zuek ere zuen abereak mendi ayetaraño eramango al zenituzkete?; Ez, ... baño. -- Ez zenukean jakingo ikaskaya nik bezin ondo: Nork etzukean jakingo ikaskaya zuk zebin ondo?; ... - Zer enukean jakingo zuk bezin ondo?; ... - Nork bezin ondo enukean jakingo ikaskaya?; ... - Laugaŕen ikasle arek jakingo al zukean ikaskaya zuk bezin ondo?; Ez, arek ere ez ... -- Bereala aurkitu zinduzteen: Nork aurkitu ginduen bereala?; ... - Nor aurkitu zuten bereala?; ... - Noiz aurkitu ginduzten?; ... - Zuk aurkitu al ginduzun bereala?; Ez, ... baizik. -- Ule guzia erori zitzayen: Nori erori zitzayon ule guzia?; ... - Zer erori zitzayen?; ... - Guri erori al zitzaigun ule guzia?; Ez, ... baño. -- Gure opariak onetsi zizkiguten: Nortzuek onetsi zizkizueten zuen opariak?; ... - Zer onetsi zizueten?; ... - Nortzuei onetsi zizkieten beren opariak?; ... - Niri ere onetsi al zizkidaten nire opariak?; Ez, ... baizik. -- Ez al diozute ezer galdetuko?; bai, zerbait galdetuko diogu: Nori galdetuko diozute zerbait?; ... - Nortzuek galdetuko diote zerbait?; ... - Nik galdetuko al dizuet ezer?; Bai, zuk ... -- Pozaŕen nire gurasoengana bereala joan nintzan: Nor joan zan pozaŕen bere gurasoengana bereala?; ... - Nortzuengana joan ziñan bereala pozaŕen?; ... - Nola joan ziñan bereala zure gurasoengana?; ... - Ni joan al nintzan pozaŕen zure gurasoengana bereala?; Ez, ... baño.

4. Uŕengo esanaldia ongi irakuŕi, ta gero, bertan agertzen diran aditzerak aztertu ta bakoitzarentzat zeatz auek adierazi: Zein aditzarena dan, aditza nolakoa dan (iragangaitza ala iragankoŕa), aditzera zein aldian jaŕita dgoen, bildua ala itz bikoa ote dan, eta adi-yabea, artez betetzekoa ta zeaŕez betetzekoa zeintzuk diran; esan eta idatzi:

«SASI ARI SU»

«Uŕengo egunez ilunabaŕ eguzkiaren azken printzak uriko kanpantoŕea zeruaren urdiñean uŕez ozkatzen zuanean, ba-zetoŕen bere jayotetxe-

tik «Muñoluzea»'ko mutīla. Menditaŕak oi duten oinkada luze ta aundíkia zekaŕen lorabeŕi lenengoz pinportatzen ari ziran sagastietako bidexketatik barna, bai belardi ezeak zatitzen zutenetatik eta bai gurdiak txiŕiatuaz igarotzen zituzten bide zabalagotatik.

Etxeko eginbeaŕak oparotsu bete ondoren izaten dan pozaldi garbia agertzen zuen bere arpegiak. Etxeko abere ta egazti, etxeko aloŕ eta soroak, etxeko baso ta mendiek ez zioten noski igaŕi auŕeguneko apustu-nekea. Ta ez zion igaŕiko iñungo kistaŕik ere neketan ibīli izan zanik, bere ibīlera gartsu ta sendoa ikusirik. Bestetan bezela ibīli izan baitzan langīle, sayati ta neka-eziñekoa.

Zuzen-zuzen enparantzaruntz jo zuen eta, konsejupean gazteek zebiltzaten pelota-jokua aintzakotzat artu gabe, ezagun ostatu baŕura sartu zan.

Erdiz-erdi mai luze bat zutela, ta mayaren biotzean ardoz betetako pitxaŕeko bonbīla, zabal eta patxara edeŕean zeramaten (batzuek) beren itz-jardunaldia. Bertan zeuden adiskide guziei aŕatsalde on bat opatzeko aguŕ-egin zien gogoz».

«Ezpalak» (56'gn. oŕialdean) Estanislao Urruzola («Uxola»).

IRUROGETABOSKAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - IRAGANKOŔA - ADITZ LAGUNTZAĪEA

BALDINTZAERA - BIGAŔEN ERABIDEA

IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

	Z-e-N-			
	L-			
Ner*i*		-I- -ZKI- -*T*-(-*Da*-)	-KE-	
	Z-e-N-			-TE
	L-			-TE
	Z-e-N-			
	L-			
Gur*i*		-I- -ZKI- -*GU*-	-KE-	
	Z-e-N-			-TE
	L-			-TE
	N-			
	L-			
Zur*i*		-I- -ZKI- -*ZU*-	-KE-	
	G-e-N-			
	L-			-TE
	N-			
	L-			
Zue*i*		-I- -ZKI- -*ZU*(*T*)*E*-	-KE-	
	G-e-N-			
	L-			-TE
	L-			
	N-			
	Z-e-N-			
Berar*i*		-I- -ZKI- -*O*-	-KE-	
	G-e-N-			
	Z-e-N-			-TE
	L-			-TE
	N-			
	Z-e-N-			
	L-			
Ber*ai*		-I- -ZKI- -*E*-	-KE-	
	G-e-N-			
	Z-e-N-			-TE
	L-			-TE

Oaŕ ditekenez, era auek «lenaldi»'tik (bigaŕen erabidea) irteten dira, aldakuntza txiki auek eginda: Ango azken -N itzatala (52'gn. ikaskaya) kendu ta, bere ordez, baldintzaerazko -KE atzizkia jartzen; gero, irugaŕen notiñen eraetan lenengo Z- izkia L-'az aldatzen da, eta -KE atziz-

kiaren atzetik, bigaŕen eta irugaŕen notin oyetan, adi-yabearen askaŕ--zentzunezko -TE beste atzizkia ipintzean.

Eginkizunak

1. Lauki ontan agertzen diran izakai zeaŕai dagozkien norekiko izenordeen artez eta zeaŕez betetzeko *aditzerak*, baldintzaeraren geroaldi urbīlenean ezaŕita izakai zuzen bakaŕaz, kulatzen ordez, esan eta idatzi:

	Nik	Zuk	Berak	Guk	Zuek	Berak
Neri :		...	lidake		...	...
Zuri :	Nizuke		...	...		...
Berari :	...	zenioke	...	...	...	...
Guri :		...	...		zenigukete	...
Zuei :	...		...	genizueke		...
Berai :	...	...	...	...	...	liekete

2. Emen ipintzen ditugun esakuntzetan, artez eta zeaŕez-betetzeko aditzerak agertzen dira; lenaldi-gerokoak diranak baldintzaerazkoen bidez aldatu, ta alderantziz baldintzaerazkoak lenaldi-gerokozkoen bitaitez; oitura dugunez, esan eta idazteko:

Enion ekaŕiko berak ain isituki eskatu zidana; ... - *Utziko al zenizkidake* zure etxeko giltz guziak?; ... - Txabola artan geneukan guzia *kenduko zigun*; ... - Egin nai dituzuten gutun guziak pozik *idatziko genizkizueke*; ... - *Ez zenieten adieraziko* jakin nai zuten guzia; ... - Ustekoa da bere ogasun guziak *aŕapatuko lizkioketela*; ... - Bai gizona, nire laguntza gogoz *eskeiñiko nizuke* beti; ... - Noiz *bialduko zenigun* zure zalburdi ura?; ... - Agure arek on guziak *opa-izango lizkizueke*, alantzik gabe; ... - Guk *ez genizuen* iñoiz *zuzenetsiko* auzo artan egin zenutena; ... - Nun edo nun *ezkutatuko al zenizkigukete* gure bitxi edeŕ auek?; ... - Esan didatenez, nire sagaŕondoak oso ondo *iñausiko zizkidaten*; ...

3. Uŕengo galderai eman egokiak izango diran erantzunak; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Ongi irakuŕi zenien aŕen, ez zizuten ulertu: Nortzuek ez zidaten ulertu ongi irakuŕi nien aŕen?; ... - Nori ez zioten ulertu, ongi irakuŕi zien aŕen?; ... - Zuek ere ez al zenidaten ulertu ongi irakuŕi nizuen aŕen?; Bai, guk ... -- Daukadan guzia emango nioke, baña ergeltasunez

beterik dagoenezkero eztit artu nai: Nori emango zenioke daukazun guzia?; ... - Zer emango zenioke?; ... - Zergatik eztizu artu nai emango zeniokena?; ... - Guk artuko al genizuke emango zenigutena?; Bai, ene ustez ... -- Ezagutu zinduten bezin laisteŕ zuregana erdu ziran: Nortzuk erdu ziran nigana ezagutu ninduten bezin laisteŕ? ... - Norengana erdu ziran ezagutu zuten bezin laisteŕ?; ... - Noiz erdu ziran nigana?; ... - Zuek ere nigana erdu al ziñaten ezagutu ninduzuten bezin laisteŕ?; Ez, ... baño. -- Ez genitukean idatziko gutun ayek ain laisteŕ: Nork ez zitukean idatziko gutun ayek ain laisteŕ?; ... - Zer ez zukean idatziko ain laisteŕ?; ... - Noiz ez zitukean idatziko gutun ayek?; ... - Uste-izango al zenuke gutun ayek ain laisteŕ idatziko nitukeala?; Bai, ... -- Beren bildots guziak erosiko genizkioke, baña eztaukagu dirua naikoa: Zer erosiko zeniokete?; ... - Nori erosiko zenizkiokete beren bildots guziak?; ... - Zertarako eztaukazute dirua naikoa?; ... - Zuk erosiko al zenizkidake nire bildots guziak?; Bai, ... -- Aŕokeriz beteta, ez zigun aguŕ-egin nai-izan: Nork ez zizuen aguŕ-egin nai-izan?; ... - Zergatik ez zizuen aguŕ-egin nai-izan?; ... - Nori etzion aguŕ-egin nai-izan aŕokeriz beteta?; ... - Zuek aguŕ-egin nai-izan al zeniguten?; Bai, ... -- Oski auek eramango genizkieke, baña ez lituzkete nai-izango: Nortzuei eramango zenizkiekete oski auek?; ... - Zer eramango zeniekete?: ... - Nai-izango al lituzkete eramango zenizkieketen oski auek?; ... - Zuk nai-izango al zenituke eramango nizkizuken oskiak?; Ez, nik ere ... -- Dana dala. ez zinduten gutietsi: Nor etzuten gutietsi?; ... - Nork ez ninduen gutietsi, dana dala?; ... - Zuek gutietsi al ninduzuten?; Ez, guk ere ... -- Geyago aditalduko nuke, baña asko nekatzen naiz: Nork aditalduko luke geyago?; ... - Zer aditaldu zenuke?; ... - Nork eluke geyago aditalduko asko nekatzen dalako?; ... - Gazte oyek geyago aditalduko al lukete?; Bai, ... nekatzen eztiralako. -- Asko ikasiaŕen, beti geratzen da askoz geyago jakin gabe: Zer geratzen da jakin gabe asko ikasiaŕen?: ... - Zeren aŕen geratzen da beti askoz geyago jakin gabe?; ... - Noiz geratzen da askoz geyago jakin gabe, asko ikasiaŕen?; ... -- Auŕ oyek beti etoŕiko dira baratz ontara jolasteaŕen: Nortzuk etoŕiko dira beti baratz ontara jolasteaŕen?; ... Nora etoŕiko dira auŕ oyek beti jolasteaŕen?; ... - Zertarako etoŕiko dira auŕ oyek beti baratz ontara?; ... - Gu ere jolasteaŕen etoŕiko al gera beti baratz ontara?: Ez, ... baizik. -- Atso ori aŕeta aundiaz ibīli dan aŕen, azkenez kale-erdian jausi da: Nor jausi da azkenez kale-erdian aŕeta aundiaz ibīli dan aŕen?; ... - Nun jausi da azkenez atso ori aŕeta aundiaz ibīli dan aŕen?; ... - Zu ere

kale-erdian jausi al zera?; Ez, ... baño. -- Uste dut eguraldi txaŕ onengatik eiztari oyetako bat ere irtengo ez litzakela: Zer dala-ta uste duzu eiztari oyetako bat ere irtengo ez litzakela?; ... - Nor elitzake irtengo eguraldi txaŕ onengatik?; ... - Zuek irtengo al ziñakete eguraldi txaŕ au dala-ta?; Ez, gu ere ... -- Ez zituzten laidetsiko oŕela: Nork ez zituen laidetsiko oŕela?; ... - Nor ez zuten laidetsiko oŕela?; ... - Nola ez zituzten laidetsiko?; ... - Zuk laidetsiko al ginduzun oŕela?; Ez, nik ere ... -- Lenengoak alduko ziñaketelakoan gengozan: Nor zegoen lenengoak elduko giñakelakoan?; ... - Nola zengozten?; ... - Ni al nengoen zu lenengoa elduko ziñakelakoan?; Ez, ... baño. -- Eztakit jan dudana on-egingo zaidan: Nork eztaki jan duena on-egingo zayon?; ... - Zer eztakizu?; ... - Guk al dakigu jan duguna on-egingo zaigun?; Ez, zuek ere ... -- Uri ontan egin beaŕ duguna aiztutzen ezpazaigu, etxera laisteŕ itzuli al-izango gera: Nor itzuli al-izango da laisteŕ etxera uri ontan egin beaŕ duena aiztutzen ezpazayo?; ... - Nola itzuli al-izango zerate laisteŕ etxera?; ... - Ni ere etxera laisteŕ itzuliko al naiz uri ontan egin beaŕ dudana aiztutzen ezpazait?; Bai, zu ere ...

4. Irakuŕi ongi bertso auek, eta, gero, oyetan dagozen asmoak itz-lauz edestu, esanez eta idatziz:

«AMA»

«O, zein mutiltxo polita
amatxok daukana!...
Ta nolako lo edeŕa
egingo duana!

Ea ba, maitia... txasta!
seaska epelean...
Orain estali... ederki!
Ara ama zure auŕean.

Negaŕ?... Ez dezu nai, maite,
amatxok gela iluntzerik?
Oŕa, ba, leyoa iriki!
Joan, mamua, emendik!

Ea, polita, egin lo;
ama ementxe daukazu,
Eta zuk lo egin daigun
berak abestuko dizu:
«Lo, lo! maitetxua, lo, lo!».

Bañan... begi argiakin,
maite, begitzen nazu!
Onela... itxi leyoa ta
laisteŕ lo egingo-zu.

Nekez bañan, loak artu du
nere biotzeko puxka;
Orain nuan ixil-ixilik
neure lanak egitera.

«Mila Euskal-olerki edeŕ» (848-9 oŕialdeetan) Muxika'taŕ Eŕobustene, «Tene».

IRUROGETASEIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA - IRAGANKOŔA - ADITZ LAGUNTZAILEA BALDINTZAERA - BIGAŔEN ERABIDEA IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

Auŕeko ikaskayan ikusitako erak, aditz iragankoŕ guziekin erabilita (aditz oyek -GO edo -KO atzizkien bidez gerokoan jaŕita), BALDINTZAERA'ren «geroaldi urbilena» dagite, izakai-adizkiñen eraekin bakaŕik bezela.

Baña, era oyei *-AN* atzizkia eransten badiegu, ta irugaŕen notiñetan lenengo *L-* aldatzen badugu, bere ordez *Z-* ipintzen, era bakunekin bezela (63'gn. ikaskaya), «lenagoko geroaldia» izango dugu; ta aditzak -GO edo -KO atzizkia daramatela.

Adibidez, lenengo notiñaren erak jaŕiko ditugu soilik, notin ori artzaile bezela arturik; eta beste notiñen erak berdin atera ditzakegu:

	Z-e-N-						
	Z-						
Neri:		-I-	-ZKI-	-T-(-Da)	-KE-		-AN
	Z-e-N-					-TE-	
	Z-					-TE-	

Onela: Ekaŕiko lida*ke* (Berak neri ekaŕiko lidake).
Ekaŕiko zida*kean* (Berak neri ekaŕiko zidakean).

ALA, EDO

Bi itz auek lokaŕitzak dira, ta beren zentzuna berdin da. Alaz ere:

ALA, galdetzeko erabiltzen da, galderak egiteko; bai ta, galdera izan gabe, esakuntzak *galde-zentzuna* duenean, eta *zalantza* adierazten baldin badu ere.

E. b.: Zer nai duzu, au *ala* beste ori? (galdera).
Eztakit bi *ala* iru etoŕiko diran. (zalantza).

EDO, *berdintasun-asmoa* adierazteko darabilgu.

E. b.: Au *edo* ori badiñogu, bata naiz bestea izatea berdin zaigula esan nai dugu.

ALA itzak, aitzitik, *auŕezko asmoa* adieraztekoa da.

E. b.: Au *ala* ori? galdetu ezkero, bata naiz bestea berdin etzaigula esan nai dugu, ta bien artean zein aukeratu beaŕ dan.

Banatzeko asmoa berdintasun osokoa danean, itz auek erabiltzen dira : NAIZ ... NAIZ, edo : ZEIN ... ZEIN.

E. b. : *Naiz* emen *naiz* an, beti egin beaŕ dugu lan. (*Emen* edo *an* ...).
Zein gazte *zein* zaŕ, guztiok il beaŕ (dugu). (Gazte edo zaŕ ...).

Batzuetan, ALA, banatzen diran itzetatik, bat agertzen eztanean ere, erabiltzen da.

E. b. : Ez duzu ikusi *ala*? ; esakuntza osoa onela izango zan : Ez duzu ikusi *ala* bai?

Ba-dirudi, ALA itza (Azkue'k diñoenez, M., 256-17), onela izan dala eratua : AL itzatalari (4'gn. ikaskaya) sortaldeko euzkalkietan, galdetzeko AL'en ordez, erabiltzen duten *-A* atzizkia gañeratzean.

E. b. : Ikusiko duta? = Ikusiko *al* dut?
Egin duzuya? = Egin *al* duzu?
Zeroŕek daramazuya? = Zeroŕek *al* daramazu?

EDO lokaŕitzak, galdetzekoekin, esakera polit auek dagizki ; ta beren zentzunak 51'gn. ikaskayan ikusi ziranen bezelakoak dira :

Nor *edo* nor = Nor-nai ; Zein *edo* zein = Zein-nai ; Zer *edo* zer = Zer-nai (1).

Noiz *edo* noiz = Noiz-nai ; Nun *edo* nun = Nun-nai.

Bat *edo* bat = Zeinbait (2) ; Bat *edo* beste = Beste zeinbait.

Egiñkizunak

1. Lauki ontan agertzen diran izakai zeaŕari dagozkien norekiko izenordeen artez eta zeaŕez-betetzeko *aditzerak*, «lenagoko geroaldian» ezaŕita, izakai zuzen bakaŕaz, kulatzen ordez, esan eta idatzi :

	Nik	Zuk	Berak	Guk	Zuek	Berak
Neri :		...	zidakean		...	...
Zuri :	Nizukean		...	...		...
Berari :	...	zeniokean	...	...	...	...
Guri :		...	...		zeniguketean	...
Zuei :	...		...	genizuekean		...
Berai :	...	...	...	...	...	zieketean

2. Emen aurkezten ditugun esakuntzetan, artez eta zeaŕez-betetzeko aditzerak agertzen dira ; lenaldi gerokoak diranak, baldintzaeraren «lenagoko geroaldi»'koen bidez aldatu beaŕ dira, eta alderantziz, baldintzaeraren «lenagoko geroaldi»'koak, lenaldi gerokoen bidez ; beti bezela, esan eta idazteko :

Ez niokean eman *beaŕ-izango* eskatu zidan guzia ; ... - Unealdi artan *erakutsiko al zigukean* gorderik zeukan argazkia? ; ... - Nik neuzkan usakume guziak *kenduko zenizkidan* ; ... - *Ez genizkizuen askatuko* bere ala, lotuta zegozen beoŕak : ... - Eztugu uste gure maŕezki ayek ezabatuko *zenizkiguketeala* ; ... - Ageŕerazi zenituen arlo guziak *jardukiko zizkizuten* ; ... - *Ez nizuekean ordainduko* oindiño nire zoŕ guzia ; ... - *Sarituko al zenion* bere lan aundi ura? ; ... - Lenago eldu ezkero, nire idazkiak *gordeko zizkidakean* ; ... - Iñoiz *oinpetuko ez genizuela* bayezten dizuegu ; ... - Eskierki, gizon nekatu ayei beren zamak *arinduko zenizkieketealakoan* gengozan ; ... - Bein eta beŕiro *aŕenduko zidatela* oyu-egin zidaten ; ...

3. Eman, galdera auei, erantzun egoki bana, itzez eta idatziz.

Beren bezuzak ekaŕiko lizkigukete, txaŕak izanaŕen : Nork ekaŕiko lizkizueke bere bezuzak, txaŕak izanaŕen? ; ... - Zer ekaŕiko lizuekete? ; ... - Noren bezuzak ekaŕiko lizkizuekete, txaŕak izanaŕen? ; ... - Nik ere nire bezuzak ekaŕiko al nizkizuekean, txaŕak izanaŕen? ; Ez, ... baño. - Laisteŕ erdu giñan aŕen, ez giñan eldu esan ziguten orduan : Nortzuk ez ziran eldu esan zieten orduan, laisteŕ erdu ziran aŕen? ; ... Noiz ez ziñaten eldu laisteŕ erdu ziñaten aŕen? ; ... - Ni, esan zidaten orduan eldu al nintzan, berandu erduaŕen? ; Bai, ... -- Biarko, irureun eta ogetabost laurleko beaŕ-izango nituke : Nork beaŕ-izango lituke biarko irureun eta ogetabost laurleko? ; ... - Zenbat laurleko beaŕ-izango zenuke biarko? ; ... - Lareun eta amaŕ laurleko beaŕ-izango al zenituke biarko? ; Ez, ... baizik. -- Jaun ayek oso ondo zainduko zinduten : Nork zainduko ninduen oso ondo? ; ... - Nola zainduko ninduten jaun ayek? ; ... - Nik jaun ayek oso ondo zainduko al nituen? ; Ez, ... baño. -- Zerbait ikusiko lukete berarengan, onesteko : Zer ikusiko lukete berarengan onesteko? ; ... - Norengan ikusiko lukete zerbait, onesteko? ; ... - Zuk nigan ere zerbait ikusiko al zenuke ni onesteko? ; Ez, ... baizik. -- Nunbait aurkituko zitzaketean galdutako bitxiak : Zer aurkituko zitzakean nunbait? ; ... - Nun aurkituko zitzaketean galdutako bitxiak? ; ... - Emen aurkituko al zitzaketean galdutako bitxiak? ; Ez, emen ez, baña ... -- Zer eramango genioke auzoko ari, aitzuŕ au ala lai ura? ; naiz bat naiz bestea eramango zeniokete auzoko ari : Nori eramango genioke naiz aitzuŕ au naiz lai ura? ; ... - Zuek neri eramango al zenidakete naiz aitzuŕ au naiz lai ura? ;

(1) Ikusi: 146'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 63'gn. ikaskaya.

Ez, ... baño. -- Naiz eta garaiz itxartu, berandu eldu ziñaten: Nor eldu zan berandu naiz eta garaiz itxartu?; ... - Noiz eldu giñan naiz eta garaiz itxartu?; ... - Zuek ere berandu eldu al ziñaten naiz eta garaiz itxartu?; Ez, ... baizik. -- Edestu dizkiguten gauzaetatik batzuk ezin siñistu ditugu: Nork ezin siñistu ditu, edestu dizkioten gauzaetatik batzuk?; ... - Zer ezin siñiztu duzute?; ... - Nik siñistu aal ditut edestu dizkidaten gauzaetatik batzuk?; Bai, ene ustez, zuk ... -- Ez zitzaketean oindiño itzuliko, baña gose ziran eta an etzegoen jatekorik: Nor ez zitzakean oindiño itzuliko?; ... - Nortzuk ziran gose?; ... - Zu ere itzuliko al ziñakean gose ziñalarik?; Ez, ... nintzan aŕen. -- Zerbait ikusiko genuke araño elduta: Nork ikusiko luke zerbait araño elduta?; ... - Noraño elduta ikusiko zenukete zerbait?; ... - Nik ere zerbait ikusiko al nuke araño elduta?; Ez, ... baño. -- Naiz Europa'n naiz Amerika'n, bizi al-izateko asko lanegin beaŕ da: Nun lanegin beaŕ da asko bizi al-izateko?; ... - Zer egin beaŕ da bizi al-izateko naiz Europa'n naiz Amerika'n?; ... - Nork lanegin beaŕ du asko naiz Europa'n naiz Amerika'n bizi al-izateko?; Edonork ... -- Zer izango litzake obe, gu Garazi'ra joan ala etxean geratu?; Uste dut gu etxean geratzea obe izango litzakela: Zer izango litzake zuek Garazi'ra joatea?; Txaŕa ... - Norentzat izango litzake obe etxean geratzea?; ... - Auŕ oyentzat ere obe izango al litzake etxean geratzea?; Ez, ... baizik. -- Ez nintzakean joango antzokira entzuteaŕen bakaŕik: Nor ez zitzakean joango antzokira entzuteaŕen bakaŕik?; ... - Zeren aŕen bakaŕik ez ziñakean joango antzokira?; ... - Zuek joango al ziñaketean antzokira entzuteaŕen bakaŕik?; Bai, ... -- Alpeŕ ori, zergatik etzabiltz ariñago zure lana egiteko?; astia dudalako enabil ariñago nire lana egiteko: Nor eztabil ariñago bere lana egiteko?; ... - Nork du astia bere lana egiteko?; ... - Gu arin al gabiltz gure lana egiteko?; Bai, zuek beti ... -- Nayaŕen guzti ura egin al-izan genuen: Nork egin al-izan zuen guzti ura nayaŕen?; ... - Zer egin al-izan zenuten nayaŕen?; ... - Langile yaukal arek ere egin al-izan al zuen guzti ura nayaŕen?; Bai, ... -- Agindu zutena betetzea beaŕetsiko liekete: Nori beaŕetsiko liokete agindu zuena betetzea?; ... - Nork agindu zuen beaŕetsiko lioketena betetzea?; ... - Neri beaŕetsiko al lidakete agindu zutena betetzea?; Ez, ... baño.

4. Uŕengo idatzatala ongi irakuŕi ta auxe nabari-erazi: Lenengoz, -*N* alkaŕekikoa dan izenordea daramaten aditzak zeintzuk diran, eta gero, atzizki oŕen bidez alkartzen diran itzen zentzunak zeintzuk diran be; bai ta, esakuntzan, auetatik asmo nagusia adierazten dutenak ala menperatuta dagozen beste asmoak zeintzuk ditugun ere; eta lenengoak izen ala izenorde ote diran esaten:

«ITXAROMENDI»

«Jaungoikoa'k jaŕi zuan Bizkaya'n Urkiola'ko mendia, Araba'ren ondoan, Gipuzkoa'tik alde samaŕ, eta mendi oŕetxen gañean euzkaldun siñistetsuak Antonio Done'aren elizetxea ipiñi zuten, zorion guztien itxaropengaŕi.

Mendi ortara Bizkaya'koak, Arabaŕak eta Gipuzkoa edeŕ ontan jayoak joaten dira saŕi; mendi ortara joaten dira, donerik eŕukioŕ, mirarigilerik aundien eta sendatzalerik onenaren jauregira bezela, uri aundi gizaditsuetatik eta baseŕi txiki padutaŕetik, aberatsak eta txiroak, gizon zindoak eta osasungabeak, indarge jayotakoak eta ezuŕen bat autsi dutenak; eŕenak eta itxuak, ankokeŕak eta besomotzak, goŕak eta zauriz beteak, totelak eta zanpatuak; buruko txorabio, zuldaŕ, legen, eztul, berako, minbizi, aunditsudunak; etsita daudenak, bizi nai luketenak, irabazkidea idoroten dabiltzanak, euri edo eguzkiaren beaŕean arkitzen diran luŕ-jabeak, Amerika'etan semeren bat daukaten gurasoak, gudara joan beaŕ duanaren aideak, ikastolatik etxeratutako mutilak eta ezkontzeagatik mototxa salduko luketen neskatxak; itz gutxitan amaitzeko, gogo, estutasun, samin edo premiren batean arkitzen diran euzkaldun guztiak, osasun-bila, argi-eske, laguntasuna itxaroaz, zorion iŕikitzen edo eskeŕak ematen; eta bertan, Urkiola'n, egin oi-dituzte benetako aŕenak eta bertan utzi, beren oparitzat, eguŕezko makuloak, argizariko anka ta besoak, zilaŕezko biotzak, ile-txirikordak, ontziak eta soñekoak, izenak eta kondairak, samin, aje ta neke askorekin batera».

«Garoa» (144-5 oŕialdeetan) Domingo Agiŕe.

IRUROGETAZAZPIGAŕEN IKASKAYA

DANA itza (DAN-A).

Argi ikus ditekenez, DANA itz au aditz laguntzaīearen tinkiera-oraiñaldiko irugaŕen bakaŕ-notiñetik irteten da, iragangaitza-aditzeratik. Eta aditzeraren zentzun zeatz ortatik, zeingabeko beste ontara igaro da:

DAN eta DANA, aditzerak bezela, *DA* + *-N* ta *DA* + *-N* + *-A* ditugu; e. b.: Etoŕi *da*n jauna; bai ta: Etoŕi *da*na.

Baña azken itz ori, *DANA*, *GUZTI*'ren zentzuna artzera eldu da Beraz, *DANA* = *GUZTI*.

DANA'ren askaŕ bezela, DANAK dagigu, ots, DANAK = GUZTIAK; naiz eta (Azkue, D.) DIRANAK beste itz au ere erabiīi.

DAN, egitan, eratoŕitako iru zentzun auetan ikustekoa da, iru bakaŕ-ageŕerazleekin eratuak:

DAN + AU = DANAU (GUZTI-AU).

DAN + ORI = DANORI (GUZTI-ORI).

DAN + A = DANA (GUZTI-A).

DANAU itzak NI zentzuna du; ta DANORI itzak ZU. Era berean ba-daukagu DANOK be, zentzun bi auek ageŕerazi ditzakena: GU edo ZUEK (nori buruz mintzatzen danez). Ertsiki: DAN + *OK* = DAN-*GU*. edo DAN + *OK* = DAN-*ZUEK* (1).

E. b.: Nor joango da, ba (bada)? Eta erantzun bat:

DANOK joango *gera* (DAN-OK, GERAN-OK esan ordez).

Eta bigaŕen erantzuna:

DANOK joango *zerate* (DAN-OK, ZERATEN-OK esan ordez).

DAN-*OK*, egitan, DANA'ren askaŕa da, DAN*AK* bezelaxe, naiz eta zentzun berezi auetaz: GUZTI AUEK edo GUZTI OYEK, naiz GU GUZTIAK edo ZUEK GUZTIAK.

DAN-OK itz onen egituran, -OK mugitza dagoela ikusten da, -AK'en zentzuna duena; bai ta AUEK edo OYEK'ena, baña zentzun mugatuagoaz.

E. b.: Gizon*ok* = gizon *auek*; Geran*ok* = geran *auek*; Zeraten*ok* = zeraten *oyek* (2).

-DAN- erdizkia.

(1) Ikusi: 64'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 12'gn. ikaskaya.

Erdizki au, aldi-zentzuna duen itz baten eta -IK atzizkiaren artean jartzen da, aldiarekiko aditzondoai alkartzeko; -TIK atzizkiaren zentzunaz.

Onela: Gaur*danik*; Atzo*danik*; Noiz*danik*? (1).

-DAÑO atzizkia = ARTE (aldi-asmoaz).

Ba-dirudi, atzizki au, lengo -DAN- erdizkia ta -RAÑO (toki-asmoaz) beste atzizkiaz egiña dala (2), eta aldi-aditzondoekin ere erabiltzen da.

E. b.: Noizdaño? = noiz arte?; Gaurdaño = gaur arte; Egundaño = gaur arte, orain arte.

Egundaño itza, zeingabekoagoa dan beste zentzunaz, asmo auek adierazteko erabiltzen dugu: IÑOIZ EZ, ORAINDIK, ALAJAÑA.

-GIÑO, *-RAGIÑO*. Atzizki auek, naiz toki (-RAÑO) naiz aldi (ARTE) zentzunak adierazteko ditugu.

E. b.: «Nogiño?», «Noragiño?» = Noraño? (A. D.).
«Eriotzaragiño» = Eriotza arte (A. D.).

-RAGIÑO, oso maiz, -RAÑO biurtzen da; ta auxe 8'gn. ikaskayan ikusitako atzizkia dugu.

-GIÑO, zentzun berberaz, toki ta aldi zentzunak agertzen eztiranean ere erabil diteke.

E. b.: «Gure arerio*giño*koak» = Gure arerioak diraneneraño (A. D.)

EGINKIZUNAK

1. Emengo lauki ontan, ezkeŕ-aldean eta goitik bera izakai zeaŕari dagozkien norekiko izenordeak agertzen dira; oyei buruz eta lenengo leŕoan jartzen ditugun adi-yabeekiko artez eta zeaŕez-betetzeko *aditzerak*, izakai zuzen askaŕaz, «lenagoko geroaldian» ipiñi; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Nik	Zuk	Berak	Guk	Zuek	Berak
Neri :		...	...		zenizkidaketean	...
Zuri :	...		zizkizukean	...		...
Berari :	Nizkiokean	...	...	...	...	...
Guri :		zenizkigukean	...		...	...
Zuei :	...		...	...		zizkizueketean
Berai :	...	...	...	genizkiekean	...	...

(1) Ikusi: 5'kn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 8'gn. ikaskaya.

2. Emen ageŕerazten ditugun aditzerak lau aldi auetan ipiñita dagoz: Tinkierazko *geroaldi* ta *lenaldi-gerokoan*; eta Baldintzaerazko *geroaldi urbīlena* ta *lenagoko geroaldian*. Lenengoan azaltzen diran adizkiñak irugaŕenekoen bidez aldatu beaŕ dira; ta orobat, bigaŕenean azaltzen diranak laugaŕenekoen bitartez; eta alderantziz ere, irugaŕeneko adizkiñak lenengokoen bidez, eta laugaŕenekoak bigaŕenekoen bitartez: kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Biar edo etzi, jakin nai duzuten guzia *esango dizuegu*; ... - *Ez al zenizkidan erakutsiko* jauregi ortako aretoak?; ... - Oŕek *eliguke igaŕiko* saski ontan daramaguna; ... - Bere lokaŕi guziak *tinkotuko nizkiokean*; ... - Gaur eŕira eldu dan aŕotz oŕek gure aizto ta labanak oso ondo *zoŕoztuko dizkigu*; ... - *Ez al zeniguke zelaituko* gure landa maldatsu ori?; ... - Alde batetik besteraño *zilotuko genizkizuekean* beaŕak zaizkizuen ol oyek; ... - Ene ustez, geyegi *luzatuko zizkiguten* beren solasketak; ... - Ekaŕi dizkiguzun ardatz oyek oso ondo *kiribilduko dizkizuegu*; ... - Oso berandu *laburtuko zizkidaten* nire nekealdi gogoŕ auek; ... - Zuen abere guztiak beaŕ dan bezela *bideratuko lizkizuekete*; ... - Orko gazte biuŕiak egokiro *zintzotuko genizkiekean*; ...

3. Emen ipintzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Jantzi ori erosiko nizukean baña gareztiegia zan: Nork erosiko zidakean jantzi ori?; ... - Zer erosiko zenidakean?; ... - Guk erosiko al geniokean jantzi ori gure semeari?; Bai, ... -- Neska maratz oŕek nai-izango nukean baño lenago itxartu ninduen: Nork itxartu zinduen nai-izango zenukean baño lenago?; ... - Noiz itxartu zinduen neska maratz oŕek?; ... - Zuk itxartu al ninduzun nik nai-izango nukean baño lenago?; Ez, ... baño. -- Zer utzi zeniguten, dirua ala ingia?; ingia utzi genizuen: Nork utzi zigun ingia?; ... - Nori utzi zenioten ingia?; ... - Nik utzi al nizuen dirua?; Ez, ... baizik. -- Bere suya edo bere eŕañarekin etoŕiko dala bayeztu didate; berdin zait: Zer bayeztu dizute?; ... - Nori bayeztu diote bere suya edo bere eŕañarekin etoŕiko dala?; ... - Zuek bayeztu al diguzute bere suya edo bere eŕañarekin etoŕiko dala?; Ez, ... baño. -- Gaur arte ez genukean ezer jakingo: Nork etzukean ezer jakingo gaur arte?; ... - Zer ez zenuketean jakingo gaur arte?; ... - Nik ere ez al nukean ezer jakingo gaur arte?; Ez, zuk ere ... -- Zer esango zeniguketean emen egon ezkero?; datoŕen igandean zugana joango ez giñala esango genizuekean emen egon ezkero: Nori esango zenioketean emen egon ezkero, datoŕen igandean nigana joango ez ziñatela?; ... - Zer esango zenidaketean emen egon ezkero?; ... - Oŕek, emen egon ezkero, esango al zizuekean datoŕen igandean zuengana joango etzala?; Ez, ... baizik. -- Nire idaztien oŕiak malgutu zizkidaten: Nork malgutu zizkizun zure idaztien oŕiak?; ... - Zer malgutu zizuten?; ... - Nik malgutu al nizkizun zure idaztien oŕiak?; Ez, ... baño. -- Iŕi-baŕeka urbildu zitzaigun: Nor urbildu zitzaizuen iŕi-baŕeka?; ... - Nola urbildu zitzaizuen?; ... - Niri ere iŕi-baŕeka urbildu al zitzaidan?; Ez, ... baizik. -- Iñor baño lenago onetsi zinduten: Nor baño lenago onetsi ninduten?; ... - Nortzuek onetsi ninduten iñor baño lenago?; ... - Guk onetsi al zinduztegun iñor baño lenago?; Ez, ... baño. -- Tontoŕ ain goitu ayetan otz-izango giñake: Nor otz-izango litzake tontoŕ ain goitu ayetan?; ... - Nun otz-izango ziñakete?; ... - Menditaŕ oyek ere otz-izango al lirake tontoŕ ain goitu ayetan?; Ez, ... baizik. -- Biardanik gero ta geyago lanegingo dugu: Nork lanegingo du gero ta geyago?; ... - Nola lanegingo duzute biardanik?; ... - Noizdanik lanegingo duzute gero ta geyago?; ... - Nik ere biardanik gero ta geyago lanegingo al dut?; Ez, ... baño. -- Baseliza artaraño joan ziñaten guziok guztiz damuturik itzuli ziñaten: Nortzuk itzuli ziran guztiz damuturik?; ... - Nola itzuli giñan baseliza artaraño joan giñan guziok?; ... - Zu ere baseliza artatik guztiz damuturik itzuli al ziñan?; Ez, ... baizik. -- Oŕen laisteŕ zentozala jakitean, guzia gertuko genizukean: Zer gertuko zenidaketean onen laisteŕ nentoŕela jakitean?; ... - Zer zala-ta jakitean gertuko zenidaketean guzia?; ... - Guk ere guzia gertuko al genizuekean oŕen laisteŕ zentoztela jakitean?; Ez, ... baño. -- Eskierki da gaur edo biar amaituko zizueketeala: Zer da eskierki?; ... - Noiz amaituko ziguketeala da eskierki?; ... - Zure iritziz ere eskierki al da gaur edo biar amaituko zidaketeala?; Bai, ... -- Nora joango zera gaizto alen ori, obeki bizi al-izateko?; edonora joango naiz obeki bizi al-izateko: Nor joango da edonora obeto bizi al-izateko?; ... - Zertarako joango zera edonora?; ... - Ni ere edonora joango al naiz obeki bizi al-izateko?; Ez, ... baizik. -- Artzañen batzuk zuek baño lenago erduko zitzaketean: Nortzuk erduko zitzaketean gu baño lenago?; ... - Noiz erduko zitzaketean artzañen batzuk?; ... - Zu ere gu baño lenago erduko al ziñakean?; Ez, ... baño.

4. Emen ageŕerazten dugun alkaŕ-izketa, aŕetaz irakuŕi, ta gero, bertan agertzen diran aditzerak zein aldietan dagozen ikusi ta esan:

«(IZKETAN)»

(Joxepa, Ana-Miren, Isabeltxo ta beste batzuk).

Jox. : «Auŕak : ni aspertu naiz oyu-egiten. Nork nai du eŕegiñaka yostatu?

Orok : Nik... nik... nik ere bai.

Jox. : Nerau eŕegiña.

An. : Beti eŕegiña zu ta gu beti mirabe? Enabil ni eŕegiñaka.

Orok : Ni ere ez... ni ere ez... ezta ni ere.

An. : (Aldaŕika) Sardiña bizi-bizia. Ondaŕabi'tik ekaŕi-beŕiaaaaa!

Jox. : Bero dago, sardiña saltzen ibiltzeko. Saltokia yaŕi beaŕ dut. (Aŕizko zizalu baten gañean bildu bitza aŕi ta luŕ, orbel eta eguŕ-kima ta beste zerbait). Isabeltxo : aspaldion eztidazu ezer erosi. Len egunero agertzen ziñan; eta batean galtzerdiak, bestean gonagayak naiz aurzapi txuri-txuriak erosita joaten ziñan. Ez al duzu goizean ezertxo nai?

Isab. : Etxeko andereak bazkari ugaria nai-izango luke ta janari-bila bidali nau. Ba al duzu aragirik?

Jox. : Emakumetxo : aragia arategian saltzen da. Ez al zenekien? Emen pipeŕa, naiz olioa, naiz poŕu ta azalandare, koipe ta gurin; zer-nai dut saltzeko ta merke.

Isab. : Pipeŕ-autsa nai-izango nuke; goŕia ta beltza.

Jox. : Arestian saldu dut neukan pipeŕ goŕi guztia. Beltzik eztut iñoiz saldu. Utikan! Gauza zikiñik nere saltokian eztu sarpiderik. Pipeŕ oria nai baduzu, kanarioa bezelako ori-ori-oria dut, Madrid'etik oraindik orain ekaŕia (Orbel gañean luŕa erakutsiko dio). Gibela gozatzeko, pipeŕ oria da ongaŕirik egokiena».

«Prontuario de la Lengua Vasca» ,133-4'gn. oŕialdeetan) R. M. de Azkue.

IROGETAZORTZIGAŔEN IKASKAYA

-DUN (-DUN-A) atzizkia.

-DUN atzizki au, auŕeko ikaskayan ikusi dan DANA itza bezela, bere lenengo zentzun zeatzetik, zeingabeko beste zentzun beŕia artzera eldu da.

DUN eta DUNA, aditzerak bezela, *DU* + *-N* + *-A* ditugu. Onela : Dirua *dun* gizona ; bai ta : Dirua *duna*.

Ostera, aditzera onek, atzizki bezela, izen bati alkartzen bazayo, zeingabeko zentzuna artzen du, naiz eta aditzera bezela zeatzez duenaren antzekoa izan ; eta zentzun beŕiaz, alkartzen zayon itzak adierazten duenaren *jabea* dala esan nai du.

E. b. : Dir*uduna* = dirua duena, diruaren jabea.
Zal*duna* = zaldia duena, zaldiaren jabea.

-DUNA, atzizkia bezela, edozein izenari eransten bazayo, aditz-izenondo bat eginda geratzen da (Azkue, D.); ta bere tokia ez da izenondoentzako orokaŕena, biltzen zayon izenaren auŕean jartzen dalako.

E.b. : *Euzkaldun gazte* bat, esaten da, ta ez : *Gazte euzkaldun* bat.
Dirudun gizona, ta ez : *Gizon diruduna*.

Alaz ere, lenengo adibidean, bi zentzun auek ikus ditezke : Lendabiziko esakuntzak, «Gaztea dan euzkaldun bat» adierazten duela uleŕ dezakegu; ta bigaŕenean, «Euskalduna dan gazte bat» esaten dala uleŕ diteke.

-TUN atzizkia.

Auŕeko -DUN'etik sortua dala uste dezakegu; e. b.: UGAZTUN (Ugatz-dun, ugatz duena). Baña eransten zayon itzak adierazten duenaren *zaletasuna* ere nabari dezake. E. b. : Jaki*tun* = jakiteko zalea ; Jos*tun* = josteko zalea ; Ikas*tun* = ikasteko zalea.

-KOI atzizkia.

Atzizki onek ere, «zaletasuna» edo «jokera» adierazten du, ta izenai alkartzen zaye ; auŕekoa (-TUN), ostera, adizkiai.

E. b. : Ama*koi* = amarenganako zaletasun aundia duena.
Eliz*koi* = elizarako zaletasun aundia duena.
Iŕi*koi* = baŕe-egiteko jokera duena.

-KOI atzizki au -OI beste atzizkiaren aldaketa da (Azkue, D), ta bien zentzuna berbera da.

E. b. : Elizoi = Elizkoi = elizarako zaletasun aundia duena.
Ardanoi = Ardankoi = ardorako zaletasun aundia duena, mozkortia.

-KOŕ atzizkia.

Atzizki onek, *egipen* bati buruzko «apeta» edo «jokera» adierazten du; oŕengatik, aditzai alkartzen zaye.

E. b. : Siñeskoŕ = siñesteko jokera duena.
Baikoŕ = bayetz esateko edo usteko jokera duena.
Ilkoŕ (1) = il beaŕ duen biziduna.
Ayerkoŕ = apentzeko apeta duena.
Suminkoŕ = asaŕetzeko jokera duena.

-KOŔ atzizki au -OŔ beste atzizkiaren aldaketa da (Azkue, D.), ta bien zentzuna berbera da.

E. b. : Eŕukioŕ = eŕukitsua izateko jokera duena.
Lotsoŕ = lotsa izateko jokera duena, bildurti.

Eginkizunak

1. Emen ipintzen ditugun lau aldietan (lauretan geroaldi-zentzuna dagoelarik), laguntzaīearen erak, ezkeŕ-aldean adierazten diran artez eta zeaŕez-betetzekoai buruz jaŕi; izakai zuzen bakaŕaz; kulatzen ordez, esan eta idatzi :

	TINKIERA		BALDINTZAERA	
	Geroaldia	Lenaldi-gerokoa	Geroaldi urbīlena	Lenagoko geroaldia
	izango...	izango...	izango...	izango...
Zuk neri :	Didazu	...	...	...
Zuek guri :	...	zeniguten	...	...
Nik zuri :	...	...	nizuke	...
Guk zuei :	...	...	...	genizuekean
Berak guri :	Digu	...	...	...
Berek zuei :	...	zizueten	...	...
Zuk berari :	...	...	zenioke	...
Guk berai :	...	...	...	geniekean

2. Uŕengo esakuntzetan agertzen diran artez eta zeaŕez-betetzeko aditzeraetan, adi-yabeak eta izakai zeaŕak alkaŕen artean aldatu beaŕ

(1) Ikusi: 120'gn. ikaskaya.

dira; bide batez, -LA atzizkia, -LAKO'ren bidez aldatu ere; -LAKO'a, -LAKOAN'en bidez; eta -LAKOAN'a, -LA'ren bidez; eta egingo diran esakuntzak ongi gera ditezen, egokiak izango diran itzak erabiltzean; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Zure gurasoek etzuten uste oŕelakorik *asmatuko zeniekela*; ... - Etzan orduan azaldu, egin nai zuena *igaŕiko geniokelako*; ... - Guzia *okertuko zidakelakoan* nengoen; ... - Beren idiak ongi *uztartuko zenizkieketela* esan zenieten; ... - Lasai geratu nintzan gogoŕ *tinkotuko zenizkidakelako*; ... - Ara eldu baño lenago, baloya *puztuko ziguketealakoan* joan giñan; ... - Nekazari oyei beren solo guziak *sakailduko lizkiekela* gaztigatu zien; ... - Ez lirake okeŕ ibīliko, ongi *oartuko geniekealako*; ... - Garaiz *oroituko zidalakoan* ez genuen ezer esan; ... - Egun artan zeneukan guzia *aŕapatuko lizuketela* bayeztu zuten; ... - Eskuak *biuŕituko zenizkiguketealako* ezkiñan zuengana joan; ... - Nire idazkiak *naspīlatuko zenizkidalakoan* bilduŕ nintzan; ...

3. Emen ematen ditugun galderai egokia izango dan erantzun bana eman, esatean eta idaztean :

Zaldun oŕek, damuz beterik, ez zigukean ezer edestuko; Nork ez zizuekean ezer edestuko, damuz beterik?; ... - Zer etzizuekean edestuko, damuz beterik?; ... - Nola etzizuekean ezer edestuko?; ... -- Jostunak jantzi au oso ondo josiko lidake: Nork josiko lizuke oso ondo jantzi au?; ... - Zer josiko lizuke oso ondo?; ... - Nik josiko al nizuke oso ondo jantzi au?; Ez, ... baizik. -- Atzodanik euki al zaitue oŕela?; atzodanik ez, erenegundanik euki naute oŕela: Nor euki dute oŕela erenegundanik?; ... - Nortzuek euki zaitue oŕela erenegundanik?; ... - Guk euki al zaitugu oŕela erenegundanik?; Ez, ... baño. -- Elizoi ura uŕutiratu zitzaigun laisterka: Nor urutiratu zitzaizuen laisterka?; ... - Nori uŕutiratu zitzayon laisterka elizoi ura?; ... - Nola uŕutiratu zitzaizuen elizoi ura?; ... -- Utziko al zenidake eskuan daukazuna?; bai, pozik utziko nizuke eskuan daukadana: Nork utziko lizuke pozik eskuan daukana?; ... - Zer utziko nizuke pozik?; ... - Nola utziko nizuke eskuan daukadana?; ... -- Gizon siñeskoŕ ayek, damuaŕen, barkamena eskatu zidaten: Nortzuek eskatu zizuten barkamena, damuaŕen?; ... - Nola eskatu zizuten barkamena gizon siñeskoŕ ayek?; ... - Nik eskatu al nizun barkamena, damuaŕen?; Ez, ... baizik. -- Noizdanik zenekiten ainbeste?; ikastola artan ibīli giñanetik genekien ainbeste: Nork zekien ainbeste ikastola artan ibīli zanetik?; ... - Igazdanik al zenekiten ainbeste?; ... - Mutil oyek al zekiten ainbeste ikastola artan ibīli zirane-

tik?; Ez, ... baño. -- Guziok itzuliko giñakean bultzi artan, baña etzegoen lekurik: Nortzuk itzuliko zitzaketean bultzi artan?; ... - Zergatik etziñaten itzuli bultzi artan?; ... - Jokalari guzti oyek itzuliko al zitzaketean bultzi artan?; Ez, ... ere, ... -- Gaurdanik egunero eramango zaitue azkaltzera: Nortzuek eramango naute gaurdanik egunero azkaltzera?; ... - Zuek eramango al nauzute gaurdanik egunero azkaltzera?; Ez, ... baizik. -- Oŕek, beaŕ zenuten guzia ornituko lizueke: Nork ornituko liguke beaŕ genuen guzia?; ... - Zer ornituko liguke oŕek?; ... - Zuk ornituko al zeniguke beaŕ genuen guzia?; Ez, ... baño. -- Ez al zinduten bakaŕik utzi zure adiskideek?; ez, nire adiskideek ez ninduten bakaŕik utzi: Nork ez zinduen bakaŕik utzi?; ... - Nor etzuten bakaŕik utzi zure adiskideek?; ... - Zuek utzi al ninduzuten bakaŕik?; Ez, guk ere ... -- Berekin joateko indaŕez beartu egingo lizukete: Nortzuek beartu egingo lidakete indaŕez berekin joateko?; ... - Nori beartu liokete indaŕez berekin joateko?; ... - Zuk beartu egingo al zenidake indaŕez zurekin joateko?; Ez, nik ... -- Argin suminkoŕ oyek, ezer esan gabe, joango zitzaketean: Nortzuk joango zitzaketean ezer esan gabe?; ... - Nola joango zitzaketean argin suminkoŕ oyek?; ... - Zuek ere ezer esan gabe joango al ziñaketean?; Ez, ... baizik. -- Mutil ardanoi ori ez zitzakean oŕela izango bere gurasoekin egotean: Nor etzitzakean oŕela izango bere gurasoekin egotean?; ... - Nola ez zitzakean oŕela izango mutil ardanoi ori?; ... - Zu ere oŕela izango al ziñakean zure gurasoekin ez egotean ere?; Ez, ... baño. -- Guzti ori oso pozik emango nizuke zure ikastaldian lenengoa izan ezkero: Nork emango lidake guzti ori oso pozik nire ikastaldian lenengoa izan ezkero?; ... - Nola emango zenidake guzti ori oso pozik?; ... - Guk emango al genizuke guzti ori oso pozik zure ikastaldian lenengoa izan ezkero?; Bai, zuek ere ... -- Naiz etxean naiz kalean euzkeraz alik eta geyena itzegin beaŕ-izango zenuke: Nork itzegin beaŕ-izango luke alik eta geyena euzkeraz naiz etxean naiz kalean?; ... - Nun itzegin beaŕ-izango nuke euzkeraz alik eta geyena?; ... - Ikastetxe ortako ikasleek ere euzkeraz itzegin beaŕ-izango al lukete alik eta geyena naiz etxean naiz kalean?; Bai, oyek eta guziok ... -- Noiz edo noiz isilduko al ziñaten?; bai, uste dugu noiz edo noiz isilduko giñala: Nortzuk isilduko ziran noiz edo noiz?; ... - Ni ere noiz edo noiz isilduko al nintzan?; Bai, ... - Eta atso ori noiz edo noiz isilduko al zan?; Ez, ... baizik. -- Elitzake egokia izango oŕen ajolagabea izatea: Zer elitzake egokia izango?; ... - Noiz elitzake egokia izango oŕen ajolagabea izatea?; ... - Norentzat elitzake egokia izango oŕen ajolagabea izatea?; Guziontzat ... -- Arlote arek zeneukaten guzia ostuko

lizueke: Nork ostuko liguke geneukan guzia?; ... - Zer ostuko liguke arlote arek?; ... - Nori ostuko lioke arlote arek, zeukan guzia?; ...

4. Irakuŕi ondo uŕengo bertso politak; eta gero, oyetan azpegi auek ateman: Bost aapaldietan bilduta dagozela; aapaldi bakoitzak sei bertso dauzkala; lenengo iru aapaldietan eraskin bat agertzen dala: kun-kun, kun-kun, eta azken aapaldia eraskin oŕekin amaitzen dala, aapaldi barnean sartuta; aapaldi bakoitzean agertzen diran bertsoetatik, irugaŕena ta seigaŕenak zortzi izkiñekoak dirala, ta besteak bostekoak, eta lenengo aapaldian batik bat, bigaŕen eta boskaŕen bertsoak, alde batetik, eta irugaŕenak eta seigaŕenak, bestetik, ots-kideak dirala. Gañera, aapaldi bakoitzean, lenengo ta bigaŕen bertsoak batean bakaŕik jaŕi litezke, ta era berean laugaŕena ta boskaŕena; ta oŕela egin ezkero, ta lenengo bi aapaldiak alkarturik jaŕita, *zortziko nagusia* deitzen dana izango genuke, ta ortan bakoitzak diran bertsoak amaŕ izkin dauzkate, ta bikoitzak zortzi:

«KULITXU SEASKAN»

Mamiren-mami
jainko txiki zu,
amaren argi, zoruna,
betaxaletan
giro bezaizu
nere abesti kutuna.
kun-kun, kun-kun...

Aldamenean
nazu biyotxa,
negaŕik ez ba, ixo, ixo,
amatxok gero
biguin koxua
emango ta egin īo-īo.
kun-kun, kun-kun...

Mamua datoŕ
ara...! Joan ortik!;
utikan!, ez urbil geigo!,
nere txikiya
polīta da-ta
ez du ñegaŕik egingo.
kun-kun, kun-kun...

Loak artu du...
Iŕipaŕ emez
piztu zayo arpegiya;
aingeruekin
jolasten dari
maitiño zoragaŕiya.

Eragin laztan
eztitsu batez
biyok amets egin zagun;
aurtxoak lotan
eta nik esna...
Oŕen goxo...! kun-kun, kun-kun...

«Olerki beŕitze» (29-30'gn. oŕialdeetan) Emeterio Arrese.

IRUROGETABEDERATZIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŘA - IRAGANKOŘA

EREDUZKO ADITZA - ADITZ LAGUNTZALEAREN ERA OROKAŕEKIN

BALDINTZAERA - GEROALDI URBĪLENA - ERAKETAREN BIGAŕEN BIDEA

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

					-ZU

Ni	(nerau)	*N*-i-N- d) -U-		-KE-	-ZU- -TE
	Izakai bakaŕa:				----- -TE
	Ni ta *N*-				
					-ZU

Gu	(gerok)	*G*-i-N- d) -U-		-KE-	-ZU- -TE
	Izakai askaŕa:				----- -TE
	Gu, *G*- ta *-Z*-		-Z-		

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

					-T

Zu	(zerori)	*Z*-i-N- d) -U-		-KE-	-GU
	Izakai bakaŕa:				---- -TE
	Zu ta *Z*-				
					-T
					--
Zuek	(zerok)	*Z*-i-N- d) -U-	*-Z- -TE-*	-KE-	-GU
	Izakai askaŕa:				---- -TE
	Zuek, *Z*-, *-Z-* ta *-TE-*				

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

Ez ditugu emen jartzen adizkin auek, 62'gn. ikaskayan ikasi ziranak diralako.

Ongi ateman ditekenez, aditzera auek, «lenaldiko era»'etatik (55'kn. ikaskaya) ateratzen dira, ayen -N atzizkiaren ordez -KE jartzean; baña -KE- itzatal au (erdizki bezela) adi-yabeak adierazten dituzten beste atzizkien auŕetik ipiñita.

Eleizalde'k (Morfologia, 98, 130 ta 134'gn. oŕialdeak) oartzen zuenez, KE itzatal au, adi-yabea nolabait azalerazten duen beste edozeñen auŕetik ipiñi beaŕ da.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, artez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak ematen ditugu; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak diran beste izenorde egīleak ere; alkaŕi dagozkion aditz laguntzaīlearen «geroaldi urbīlen»'ean kulatzen ordez, esan eta idatzi:

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		zinduket	...		...	...
Zuk	...		...	gindukezu		...
Berak	Ninduke	...	...	...	...	...
Guk		...	genuke		...	...
Zuek	...		...	...		zenituzkete
Berak	...	...	...	...	zinduztekete	...

2. Esakuntza auetan, adizkin auek ematen dira: «Lenaldi geroko»'arenak eta «Baldintzaera»'renak; oyetan, aldiak dira lenengoz alkaŕen bidez aldatu beaŕ diranak; eta gero, aldatze oyen bakoitzerako, adi-yabeak eta izakayak ere; lenengoak bigaŕenen bidez aldatu, ta alderantziz, bigaŕenak lenengoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Zure ikastaldian biar bertan *ikusiko genuen*; ... - Goitik bera zeatzez *neurtuko zindukegu*; ... - *Noizean bein aztatuko nituen* aŕeta aundiaz; ... - *Ezituko al zinduzteket* iñoiz ondo?; ... - Ene auŕak iñork baño obeto neronek *azituko nituen*; ... - Eztut uste beaŕa zan bezela *estaliko gindukezutela*; ... - Unealdi egokienean *ageŕeraziko zenituen*; ... - Nun edo nun *ezkutatuko nindukete*; ... - Mutil koskoŕ ori, iñola ere *ez genuen ostenduko*; ... - Agure oŕek aguro *ayenatuko zinduzteke*; ... - Zuen soloetara joan ezkero, *uxatuko al ginduzuten*?; ... - Irakasle ayek guk baño obeto *aztertuko zinduztekete*; ...

3. Emen ipintzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman, esanez eta idatziz:

Zuk ez nindukezu ikusiko sapaīlo artatik: Nork ez zinduke ikusiko sapaīlo artatik?; ... - Nundik ez zinduket ikusiko?; ... - Zuek ikusiko al nindukezute sapaīlo artatik?; Ez, ... baño. -- Nunbait egongo ziñaten ezkututa: Nor egongo zan ezkututa nunbait?; ... - Nun egongo giñan ezkututa?; ... - Zu ere nunbait egongo al ziñan ezkututa?; Bai, ni ere ... -- Iñork ez al zinduen ikusi araño igoten?; ez, iñork eninduen ikusi araño igoten: Nork ez zinduen ikusi araño igoten?; ... - Noraño igoten ez zinduen iñork ikusi?; ... - Guk ikusi al zindugun araño igoten?; Ez,

zuek ere ... -- Noizean bein zuek ikustera joango giñake, baña eztugu ezertarako astirik eta ezin: Nortzuk joango lirake gu ikustera?; ... - Zertarako eztuzute astirik?; ... - Zergatik ez ziñakete joango gu ikustera?; ... -- Noiz ekaŕiko zindukete?; etzi edo etzidamu ekaŕiko nindukete: Nortzuek ekaŕiko zindukete etzi edo etzidamu?; ... - Gaur ekaŕiko al zindukete?; Ez, ... baizik. - Guk ekaŕiko al zindukegu etzi edo etzidamu?; Ez, zuek ere ... -- Uste dut gurekin bizi-izatean obeto ezagutuko gindukezutela: Nork ezagutuko zinduzteke obeto zuen artean bizi-izatean?; ... - Nor ezagutuko genuke obeto zuen artean bizi-izatean?; ... - Oyek ezagutuko al zinduztekete obeto zuen artean bizi-izatean?; Ez, ... baño. -- Noruntz eramango nindukezu?; goiko sarobe artaruntz eramango zinduket: Nork eramango ninduke goiko sarobe artaruntz?; ... - Nor eramango nuke goiko sarobe artaruntz?; ... - Artzain oŕek eramango al zinduke goiko sarobe artaruntz?; Ez, ... baizik. -- Ordudanik gu ikustera aste guztietan zetoŕen: Nor zetoŕen ordudanik aste guztietan zuek ikustera?; ... - Noizdanik zetoŕen aste guztietan zuek ikustera?; ... - Ni al nentoŕen ordudanik aste guztietan zuek ikustera?; Ez, ... baño. -- Elirake an izango elizakoyak: Nun elirake izango elizakoyak?; ... - Nortzuk elirake izango an?; ... - Zuek an izango al ziñakete?; Bai, gu ... -- Onekin edo arekin pozik joango nintzakean: Nor joango zitzakean pozik onekin edo arekin?; ... - Norekin joango ziñakean pozik?; ... - Neskame oyek pozik joango al zitzaketean onekin edo arekin?; Ez, ... baizik. -- Euzkeraz idatziko genizukean, baña ...: Nortzuek idatziko zidaketean euzkeraz?; ... - Nik idatziko al nizukean euzkeraz?; Bai, ... - Eta uritaŕ oyek euzkeraz idatziko al zizuketean?; Ez, ... baño. -- Uri aundi ortan laisteŕ aurkituko al zinduztekegu?; bai, uste dugu uri aundi ortan laisteŕ aurkituko gindukezutela: Nortzuek aurkituko zinduztekete laisteŕ uri aundi ortan?; ... - Nortzuk aurkituko zenituzkete laisteŕ uri aundi ortan?; ... - Nik aurkituko al zinduzteket laisteŕ uri aundi ortan?; Ez, ... baizik. -- Elitzake egoki-izango oŕen ayerkoŕa izatea: Norentzat elitzake egoki-izango oŕen ayerkoŕa izatea?; ... - Uste al duzu iñorentzat egoki-izango litzakela oŕen ayerkoŕa izatea?; Ez, ... - Noiz elitzake egoki-izango iñorentzat oŕen ayerkoŕa izatea?; Iñoiz ... -- Izan zuten zoritxaŕ artan beren laguntzan guziok erduko giñakean, baña berandu jakin genuen: Nortzuk erduko zitzaketean beren laguntzan, izan zuten zoritxaŕ artan?; ... - Zer jakin zenuten berandu?; ... - Noiz erduko ziñaketean beren laguntzan?; ... -- Goi ayetan ondo estali zinduten otza oso aundia zalako: Nor estali zuten ondo goi ayetan otza oso aundia zalako?; ... - Zergatik estali ninduten ondo goi ayetan?; ... - Zuek estali al ninduzuten ondo goi ayetan otza oso aundia zalako?; Ez, ... baño. -- Euzkaldun giro artan obeto aziko nindukete: Nor aziko lukete obeto euzkaldun giro artan?; ... - Nun aziko zindukete obeto?; ... - Guk aziko al zindukegu obeto euzkaldun giro artan?; Bai, zuek ere ... -- Luzaroan ez liekete geituko beren egunaria: Nortzuei eliekete geituko beren egunaria?; ... - Zer eliekete geituko luzaroan?; ... - Zuek geituko al zeniekete beren egunaria?; Bai, ... -- Guzia gaitzetsiko liekete, bai ta beren egipen onenak ere: Nortzuei gaitzetsiko liekete guzia, bai ta beren egipen onenak ere?; ... - Zer gaitzetsiko liekete?; ... - Zuk gaitzetsiko al zenieke guzia, beren egipen onenak ere?; Ez, ... baizik.

4. Irakuŕi ongi uŕengo idazki-txatala; ta gero, bertan agertzen diran asmoai buruz, adiskide bati gutun bat idatzi, zer irakuŕi duzuten esaten eta asmo oyek zer iruditzen zaizkizuen ere, azalpena alik eta zabalena egiten:

«GIZADIA AUNDITZEN»

«Iru gizaldi dirala, 600 miloe gizon zegozen luŕ-azalean. Gaur iru milla miloe gera, ta 2.000'gaŕen urtean, sei milla miloe lez izango gera. Lurbira etzan iñoiz be orain bezin azkaŕ ugaritu. Egunetik egunera 125.000 gizaseme geyago gera gure izarbelan: zeozer dan eŕi batekoak beste. Laisteŕ ez al dizkiogu alkaŕi orpoak zapalduko?; luŕak janaritu al-izango ote du ainbeste jende?; Gerokoan poŕokaldi ikaragaŕiak uxatu ta alderatzeko, elizake zentzuzkoa jayotzak berariz mugatzea?

Malthus, XIX'gaŕen mendeko ekonomista, izan zan gai oni lau ertzetatik begiratu ta sakonik aizaturik, jayotzak mugatzea mundu osoaren begi auŕean jaŕi zuena. Arek ziñoen: gizadiak bizi-izateko dauzkan eskuarte ta baliakizunak ez dira egundo ere al-izango, lurbirako gizasemeak ugaltzen dijoazten neuŕian azi ta ugaritu. Luŕeko biztanleak oraingo bizkortasunez geituaz badijoaz, gizadia nai ta ez goseak jota ilko zaigu. Gaur ere, goseak triskantza ikaragaŕiak egiten ditu luŕalde askotan. Egia ote Malthus'ek esana? Jaungoikoa'k irazan zuen luŕa, estuegia ote da gizonarentzat?».

«Giza-bizia» (29'gn. oŕialdean) Onaindia Aita.

IRUROGETAMARGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŕA - IRAGANKOŕA - EREDUZKO ADITZA

ADITZ LAGUNTZAĪEAREN ERA OROKAŕEKIN

BALDINTZAERA - LENAGOKO GEROALDIA - ERAKETAREN BIGAŕEN BIDEA

Auŕeko ikaskayan ikusitako erak, aditz guztiekin erabīlita (-GO edo -KO atzizkiaz gerokoaldian jaŕita), eta bertan ere esan danez, Baldintzaera'ren «geroaldi urbīlena» damate, lenago ikasi ditugun beste adizkiñetan bezela. Eta 63 ta 66'gaŕen ikaskayetan ibīlitako bidean berean jaŕaiturik, era oyei -AN atzizki ezaguna eransten badiegu, dagokigun «lenagoko geroaldia» izango dugu.

Notin guzientzako eraketaren egikera bera erabiltzean, adibidez, lenengoaren erak ipiñiko ditugu soīlik; ona eman:

Ni (nerau) *N*-i-N- d) -U- -KE- -ZU- / ---- / -ZU- -TE- / -----TE- -AN

Naiz «lenagoko geroaldi» onen erak, naiz len ikusitako «geroaldi urbīlen»'arenak, *-N- d)* izkiak erakusten dituzte alkaŕen ondoan (niNDukezu, niNDukezuan; ziNDuket, ziNDukedan; ...); aunitz tokietan bi izki oyen ordez, -Ñ- erabiltzen da. Egitan, auxe da oŕ gertatzen dana: lenengoz *D* kentzen da ta, gero, -N-, auŕetik -I- bat eta atzetik beste gedin baten artean geratzen dalako, -Ñ- biurtzen da, ezaguna dugun arauaz (1).

Eta onela esaten da: Ni*Ñ*ukezu, ni*Ñ*ukezuan; zi*Ñ*uket, zi*Ñ*ukedan ....

-TASUN eta -KERI atzizkiak (2).

Atzizki bi auek, izen eta izenondoai eransten zaizkie, zeingabeko asmoa bera adierazteko; baña -TASUN lenengoak edozein zeiñezkoa, berezko zentzunean ematen du, naiz asmo on bat izan, onbide bat, naiz markets izan ditekena, onen akatsa berezkoa baldin bada, ez jasaten

(1) Ikusi: 2'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 151'gn. ikaskaya.

duenaren eŕuz. Ostera, -KERI bigaŕen atzizkiak, beti, txarbidezkoa adierazten du.

Onela: On*tasun* = onezia; Gizon*tasun* = giza-lege; Ume*tasun* = auŕ-lege; Eder*tasun* = edertza; Ergel*tasun* = erogo; Itsus*tasun* = ezaingo.

And*ikeri* = antuste; Gizon*keri* = gizatada (e. b.: auŕ batena); Ume*keri* = auŕ-lan; Lizun*keri* = lizungo.

Noiz edo noiz, -TASUN atzizkia, izena bezela erabīlita izan da, ZEIÑEZKOA zeingabeko zentzunaz adierazteko; ta, ba-liteke, izkuntzaren edatzean, guzien aldetik oŕela onartua izango edo dala.

-KERI atzizkiak, abere batzuen izenai erantsita, oyekin eratoŕitako beste izenak eratzen ditu, beko edo doīoŕa dan zentzunaz.

E. b.: Asta*keri* = astotzaŕen egipena; Zeŕi*keri* = zikiña dan egipena; Oīo*keri* = bilduŕezko egipena; Zapo*keri* = maixkaŕa dan egipena; Manda*keri* = kaikutzaŕaren egipena; Zakur*keri* = egipen zitala.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, artez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak ematen dira; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak diran beste izenorde egīleak ere; alkaŕi dagozkion aditz laguntzaīearen erak, «lenagoko geroaldi»'an, kulatzen ordez. esan eta idatzi:

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		...	...		zinduztekedan	...
Zuk	Nindukezuan		...	...		...
Berak	...	...	zukean	...	...	...
Guk		...	...		...	genitukean
Zuek	...		...	gindukezutean		...
Berak	...	zinduketean	...	...	...	...

2. Uŕengo esakuntzetan, adizkin auek ematen dira: «Lenaldi geroko»'arenak eta Baldintzaera'zko «Lenagoko geroaldi»'arenak; oyetan, aldiak dira, lenengoz, alkaŕen bidez, aldatu beaŕ diranak; eta gero, aldatze oyen bakoitzerako, adi-yabeak eta izakayak ere: lenengoak bigaŕenen bidez aldatu, ta alderantziz, bigaŕenak lenengoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Ba-dakit ebazkizun zalenak ere *azterkatuko zenituela*; ... - Alik eta ongienik *argituko zinduztekeguan*; ... - Oŕela jokatzean eŕaz *eŕeko nuen*; ... - Ez bilduŕik izan, *ez gindukezutean kiskalduko*; ... - Aŕeta aundienaz eta oso ongi *oŕaztuko zinduzteen*; ... - Uste al duzu batzaŕ artatik *egotziko ninduketeala?*; ... - Aŕi oyek *jaurtiko al zituen* etxe aren aurka?; ... - Liskaŕ artan egon ezkero, indaŕez *bultzatuko ginduzketean*; ... - *Ez al zenituen gordeko* ume oyek zure sendian?; ... - Gogoz *sarituko zindukeguan* jaŕi genizun azterketa ondo egin ezkero; ... - Eskierki *ez ninduten sorosiko* nire beaŕetan; ... - Al-izan ezkero, bereala *arinduko zinduztekedan*; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; esanez eta idatziz:

Atzo itzuli baziñate, zuen aita aurkituko zenuketean : Nork aurkituko zukean bere aita atzo itzuli balitz?; ... - Nor aurkituko genukean atzo itzuli bagiña?; ... - Oŕek ere bere aita aurkituko al zukean atzo itzuli balitz?; Ez, oŕek ... -- Ayekin egon omen ziran : Nortzuk egon omen ziran ayekin?; ... - Nortzuekin egon omen ziran?; ... - Nirekin egon omen ziñaten?; Ez, ... baño. -- Ez al zitzayokean ezer otuko?; ene ustez bai, zerbait otuko zitzayokean : Nori otuko zitzayokean zerbait zure ustez?; ... - Zer otuko zitzayokean zure ustez?; ... - Zuei ezer otuko al zitzaizuekean?; Bai, guri ... -- Garaiz eldu ezpaziñate, ez ginduzketean oindiño emendik aterako : Nundik ez zinduzteketean oindiño aterako garaiz eldu ezpagiña?; ... - Nortzuk ez zituzketean oindiño emendik aterako garaiz eldu ezpagiña?; ... - Ni aterako al ninduketean emendik, garaiz eldu ezpaziña?; Ez, zu ere ... -- Enukean uste-izango ain ezigaitzak izango lirakela : Zer ez zenukean uste-izango?; ... - Nork etzukean uste-izango ain ezigaitzak izango lirakela?; ... - Zuek uste-izango al zenuketean ain ezigaitzak izango giñakela?; Ez, guk ere ... -- Oneraño igo ezpaziña, obeto egongo giñake : Nor egongo litzake obeto oneraño igo ezpalitz?; ... - Nola egongo ziñakete oneraño igo ezpaziñate?; ... - Ume oyek ere obeto egongo al lirake oneraño igo ezpalira?; Orixe uste dut, ume oyek ere ... -- Oŕ konpon!, ni ez nindukezute an ikusiko : Nor ez genuke an ikusiko?; ... - Nork ez zinduke an ikusiko?; ... - Ni an ikusiko al nindukezu?; Bai, ... -- Gona oso luzeak bide zekarzkiten : Nork bide zekarzkien gona oso luzeak?; ... - Zer bide zekarkiten?; ... - Guk bide genekarzkien gona oso luzeak?; Ez, ... baizik. -- Oīasko guziak itzuriko litzaizkieke berekin egongo ezpaziña : Nori itzuriko litzaizkioke oīasko guziak berekin egongo ezpalitz?; ... - Zer itzuriko litzaidake berarekin egongo ezpanintz?; ... - Etxekandere oŕi ere oīasko guziak itzuriko al litzaizkioke berekin egongo ezpalitz?; Bai ... ere ... -- Ilko alda! : Norengatik esan duzute ori?; ... - Zer esan duzute gaizkīe oŕengatik?; ... - Nik esan al dut ori gaizkīe oŕengatik?; Ez, ... baizik. -- Elizara goiz sartuko bagiña, oso toki ona aurkituko genuke : Nork aurkituko luke oso toki ona elizara goiz sartuko balitz?; ... - Zer aurkituko zenukete elizara goiz sartuko baziñate?; ... - Nik ere oso toki ona aurkituko al nuke elizara goiz sartuko banintz?; Bai, zuk ere ... -- Ona izan ezpalitz ez genukean dagoen tokian ikusiko : Nork etzukean dagoen tokian ikusiko ona izan ezpalitz?; ... - Nor etzenuketean dagoen tokian ikusiko ona izan ezpalitz?; ... - Ni nagoen tokian ikusiko al nindukezutean ona izan ezpanintz?; Ez, zu ere ... -- Ez zeniguketean ezer beŕi esango : Nori ez zenioketean ezer beŕi esango?; ... - Zer ez genizuekean esango?; ... - Zuk zure lagunari ezer beŕi esango al zeniokean?; Ez, nik ere ... -- Beren zangoŕi guziak emango omen dizkizute : Nori emango omen dizkiote beren zangoŕi guziak?; ... - Zer emango omen didate?; ... - Zuek emango omen dizkiguzute zangoŕi guziak?; Ez, ... baño. -- Bizi nai baldin baduzu, eten gabe lanegin beaŕ-izango duzu :

Nork lanegin beaŕ-izango du eten gabe bizi nai baldin badu?; ... - Nola lanegin beaŕ-izango dut nik, bizi nai baldin badut?; ... - Gazte alpeŕ oyek ere eten gabe lanegin beaŕ-izango al dute bizi nai baldin badute?; Bai, ... ere ... -- Emen egon baziñate, oŕen gauza negargaŕia etzitzakean jazoko: Zer etzitzakean jazoko emen egon bagiña?; ... - Emen nor egon balitz etzitzakean oŕen gauza negargaŕia jazoko?; ... - Ertzañak emen egon balira, oŕen gauza negargaŕia jazoko al zitzakean?; Ez, ... be ...

4. Irakuŕi ta aztertu ondo emen ageŕerazten ditugun bi olerkiak. Eta onezaz ateman ere gero: Gurean, besteetan bezela, bertsoek neuŕi bat izaten dute, ta neuŕi ori bakoitzaren izkiñak zenbatzean egiten da; oŕela, bateko, biko, iruko, ... amazortziko izkiñetaz ere izaten dira; bai ta, askotan, olerki batean bertsoz-bertso, batekotik bikora, edo bikotik irukora, ..., zazpikotik zortzikora, ..., aldatzen dira, olerkariak nai duen bezela. Ikusi ta esan, beraz, uŕengo bertsoak zein neuŕitan egiñak dagozen:

«AŕAUNKETA»

«Aupa
mutīlak!
Egin
aleiñak!
Mikel
entzuyak!
Uste
guztiak
igan
dizkiat!
Ala
ziok ta
Ire
sasoyak!».

Loidi'taŕ Paben

(Ikus «Eusko Olerkiak» 1930, 92'gn. oŕialdea).

«ORIO'KO UMEZURTZA»

«Bai gora,
bai bera,
bultzia
urduri;
batera
bestera
subea
dirudi».
«Ibayak
alayak
atzean
bipil;
mendiak
zelayak
leizean
amil».

Loidi'taŕ Paben

(Ikus «Yakintza», 10'gn. zenbakia, 260'gn. oŕialdea).

«Gure bertsolaria» idaztitik artuta (94'gn. oŕialdean) Onaindia Aita.

IRUROGETAMASEIGAŔEN IKASKAYA

ERAGITEKO ADITZAK

Azkue'k (M. 180) onela deitzen ditu, -RA- erdizkiak edo zentzunkideak diran ARAZO, ARAZI, ERAZO, ERAZI aditzen bidez dagizkigun aditz zatidunak; eta emen aipatzen ditugun lau aditz oyek, batzuetan, beste aditzen atzizkiak bezela erabiltzen dira, 58'gaŕen ikaskayan esan genuenez.

Naiz -RA- erdizkiak naiz esandako aditzek, *eragiteko* asmo orokaŕa dute; ta asmo ori da alkartzen zaizkien beste aditzai ematen dietena, ots, aditz bakoitzaren zentzunari *eragin* edo *beartu*'ren beste zentzuna gañeratzen.

Onela: E*ra*bīli (ibīli + -ra-) = Ibīli eragin, ibīli erazi.
Gal*erazi* (galdu + -erazi) = Galdu eragin, galdu erazi.

Ona emen -RA- erdizkiaren bitartez eratutako aditz batzuen leŕokada: guziak iragankoŕak dira ta oyetan bereizitasun au ikus diteke: guziak, E- edo I- izkiaz asi, ta -I edo -N izkiaz amaitzen diran beste aditzetatik ateratzen dira; ta -ZI edo -SI itzatalakaz amaitzen badira, oyetatik sortzen diranak -TZI edo -TSI'etaz aldatzen dira.

ERABAGI	(ebagi'tik	) (zerbait egiteko asmo sendoa artu)
ERABAKI	(ebaki'tik	) (zerbait egiteko asmo sendoa artu)
ERABĪLI	(ibīli'tik	) (ibīl eragin, ibīl erazi)
ERADAN	(edan'etik	) (edan eragin, edan erazi)
ERAGI, ERAIKI	(jagi ta jaiki'tik	) (jagi eragin, jaiki erazi)
ERAGIN	(egin'etik	) (egin eragin, egin erazi)
ERAGOTZI	(egotzi'tik	) (utzi-eragin, utzi erazi)
ERAKAŔI	(ekaŕi-tik	) (ekaŕi eragin, ekaŕi erazi)
ERAKUTSI	(ikusi'tik	) (ikusi eragin, ikusi erazi)
ERAMAN, EROAN	(eman eta joan'etik	) (eman eragin, joan erazi)
ERANTSI	(eutsi'tik?	) (eutsi eragin, gañeraerazi)
ERANTZUN	(entzun'etik	) (entzun eragin, entzun erazi)
ERASAN	(esan'etik	) (esan eragin, esan erazi)
ERASO	(esan'etik	) (nabari-eragin, Meza lagundu)
ERATOŔI	(etoŕi'tik	) (etoŕi eragin, etoŕi erazi)
ERATXI	(jetxi edo jatxi'tik	) (jetxi eragin, jetxi erazi)
ERATZAN	(etzan'etik	) (etzan eragin, etzan erazi)
ERAZAGUTU	(ezagutu'tik	) (ezagutu eragin, ezagutu erazi)
IRAGAŔI	(igaŕi'tik	) (igaŕi eragin, igaŕi erazi)
IRAKATSI	(ikasi'tik	) (ikasi eragin, ikasi erazi)
IRATZEKI	(itxeki'tik	) (itxeki eragin, itxeki erazi)
IRATZAŔI	(itzaŕi'tik	) (itzaŕi eragin, itzaŕi erazi)
IRAZAN	(izan'etik	) (izan eragin, izan erazi)
IRAZEKI	(izeki'tik	) (izeki eragin, izeki erazi)

Aditz auen eta gañera genitzaken beste batzuen esan-naya, eskuma-aldean eta taketen artean, bakoitzerako adierazten duguna da; ta lenengoz, taketen artean be, bakoitza zeñetik datoŕen aipatzen dugu.

Nolanai ere, *eragin* edo *beartu*, ots, zerbait *eragin* edo zerbait *beartu-egiten* dala nabaritzen dan asmoa adierazteko, egitan, ERAGIN aditza dugu bereziki, 57 ta 58'gaŕen ikaskayetan aipatzen diranak adierazteko; ta besteetarako, geyenetan, ERAZI, ERAZO, ARAZI, ARAZO beste aditzak darabilzkigu, 58'gaŕen ikaskayan ere esan genuenez.

Eginkizunak

1. Lauki ontan, sei izenorde edo adi-yabeai, uŕenez-uŕen, *irten, sartu, igo, jetxi, eldu* ta *erori* aditzak jartzean, agertzen diran ustekizunaren bi aldietarako aditzera egokiak zeintzuk zaizkien aipatu beaŕ dira; ta bakoitzean, egipena, *gaur* edo *biar*, ala *atzo* edo *erenegun*, asmoai ote dagokien, esan eta idatzi :

USTEKIZUNA

	Geroaldia			Lenagokoa	
Ni	Gaur	Irtengo	banintz	Atzo	...
Zu	...	...		...	sartu baziña
Bera	...	Igoko	balitz	...	...
Gu	Biar	...		Erenegun	jetxi bagiña
Zuek	...	Elduko	baziñate	...	...
Berak	...	...		...	erori balira

2. Eginkizun ontan Baldintzaerazko Ustekizunaren aditzerak agertzen dira, beren bi aldietan; ta bi aldi oyek dira aldatu beaŕ diranak, bakoitzaren ordez bestea ipintzen; bai ta bayezkoak diranak ezezkoen bidez aldatzen, eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Bonbil oyek ardo onaz *beteko ezpalira* obeto emen uztea; ... - Eŕi ortako urbidea *uztu balitz* ura edan al-izan gabe luzaroan egongo zitzaketean; ... - Etxera eldu baño lenago *ilunduko ezpalitz* lasai ibiliko giñake; ... - Laisteŕ *sendatu banintz*, ongi geratuko nintzakean nire lana jaŕaitzeko; ... - Uri artan *kutsatuko baziñate*,etziñakete bereala etxera itzuli al-izango; ... - Aŕetaz ez ibiltzeagatik *edendu bagiña*, gaur ez giñake bizirik egongo; ... - Neska gazte oyek *isilduko ezpalira*, eztakit zer egin beaŕ-izango dugun; ... - Batzaŕ artan *atzipetu ezpaziñate*, etzenuketean gero ainbeste lana egin beaŕ-izango: ... - Auŕ oyek asko *zikinduko balira*, bereala etxera ekaŕi beaŕ-izango genituke; ... - Zuen bilkuraetara *erdu ezpagiña*, eskierki zearo asaŕetuko ziñakete; ... - Gugana *urbilduko baziña*, eztuzu gero damurik ukanen; ... - Gurasoen etxetik *itzuri banintz*, nora joango nintzakean ongi bizi al-izateko?; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Onuntzago igaroko baziñate, obeto ikusiko zinduztekegu : Nork ikusiko ginduke obeto onuntzago igaroko bagiña?; ... - Nor ikusiko zenukete obeto onuntzago igaroko balitz?; ... - Nik obeto ikusiko al zinduket onuntzago igaroko baziña?; Bai, ni ere ... -- Ori ere egitea eragotziko al ligukete?; eztut uste ori ere egitea eragotziko lizueketela : Nori eragotziko liokete ori ere egitea?; ... - Zer eragotziko ligukete?; ... - Nik eragotziko al nizueke ori ere egitea?; Ez, ... baño. -- Beazun eta ozpiña eman omen zizkieten : Zer eman omen zieten?; ... - Nortzuei eman omen zizkieten beazun eta ozpiña?; ... - Zuek eman omen zenizkieten beazun eta ozpiña?; Ez, ... baizik. -- Edestu zizutena, dana danez, esan beaŕ didazu : Nork esan beaŕ dizu edestu zidatena, dana danez?; ... - Zer esan beaŕ dizut?; ... - Ziñegotzi oyei esan beaŕ al diet, dana danez, edestu zidatena?; Ez, ... baño. -- Egon beaŕ-izango luketen beti, beren tokian egongo balira!; Nortzuek egon beaŕ-izango lukete beti beren tokian?; ... - Noiz egon beaŕ-izango zenuke zuk, zure tokian?; ... - Guk ere beti egon beaŕ-izango al genuke gure tokian?; Bai, ... -- Beaŕ dan bezela ibiliko balira! : Nola ibiĺi beaŕ-izango lukete oyek?; ... - Nork ibiĺi beaŕ-izango luke beaŕ dan bezela?; ... - Zuek ere beaŕ dan bezela ibiĺi beaŕ-izango al zenukete?; Bai, guk ere ... -- Edesten zeniguten ura siñiskaitza zan : Zer zan siñiskaitza?; ... - Nolakoa zan edesten genizuen ura?; ... - Arek edesten zizuena ere siñiskaitza al zan?; Ez, ... baizik. -- Bildu ditugun mats guziak pozik emango genizkieke : Zer emango zeniekete pozik?; ... - Nori emango zenizkiekete bildu dituzuten mats guziak?; ... - Niri emango al zenizkidakete pozik bildu dituzten mats guziak?; Ez, ... baño. -- Urik gabe, erein dizkiezuten babaŕun guziak ustelduko litzaizkieke : Nori ustelduko litzaizkioke erein dizkiegun babaŕun guziak, urik gabe?; ... - Nola usteldu litzaizkieke erein dizkiegun babaŕun guziak?; ... - Zuei erein dizkizuegun babaŕun guziak ere, urik gabe, ustelduko al litzaizkizueke?; Bai, guri ere ... -- Gure etxeak, nai genuen bezela eraikiko ote zizkiguketean?; nire ustez bai, zuen etxeak, nai duzuten bezela

eraikiko zizkizueketean: Zer eraikiko ziguketean, nai dugun bezela?; ... - Nola eraikiko zizkiguketean gure etxeak?; ... - Zuk eraikiko al zenizkigukean gure etxeak nai dugun bezela?; Bai, nik ere ... -- Zortzirak baño lenago itxartuko balira!: Zer egingo duzu zortzirak baño lenago itxartuko balira?; ... - Zu pozik geratuko al ziñake zortzirak baño lenago itxartuko balira?; ... - Ta ni ere pozik geratuko al nintzake zortzirak baño lenago itxartuko baziña?; Bai, zu ere ... -- Gu ikustera maiz igo oi ziran: Nortzuk igo oi ziran maiz zuek ikustera?; ... - Noiz igo oi ziran zuek ikustera?; ... - Zuek igo oi ziñaten maiz ni ikustefa?; Ez, ... baizik. -- Ez zitzaizkigukean aiztuko sute izugarí ayek: Nortzuei ez zitzaizkiekean aiztuko sute izugarí ayek?; ... - Zer ez zitzaizuekean aiztuko?; ... - Ume oyei aiztuko al zitzaizkiekean sute izugarí ayek?; Ez, ume oyei ere ... -- Oso pozik agurtu zindukedan, baña ez zindudan ikusi: Nork agurtuko nindukean oso pozik?; ... - Zergatik ez nindukezuan agurtuko?; ... - Zuek oso pozik agurtuko al gindukezutean, gu ikusi ezkero?; Bai, ... -- Uste dut beren ebazkizun guziak bereala erabakiko lizkieketela: Nortzuek erabakiko liskiekete beren ebazkizun guziak bereala?; ... - Noiz erabakiko lizkiekete beren ebazkizun guziak?; ... - Zuek erabakiko al zenizkiekete bereala beren ebazkizun guziak?; Ez, ... baizik.

4. Elebeŕi baten ataltxo bat ematen dugu emen, aŕetaz irakuŕi beaŕ dana; gero, bertan dagozen esakerak zeintzuk diran aipatzeko; bai ta *alkaŕ-gaya* dan izenordea zein esakuntzetan agertzen dan ete bakoitzaren mendeduna ere zein dan adierazi:

«GUDA - OTSAK»

«Aitzondo-garaikoa izena duen baseŕiko nekazari jatoŕak pozik eta alaitsu bizi ziran. Eŕitik uŕutitxo eta mendi goi-samaŕean izanaŕen basetxe edeŕ eta aberatsa da.

Bere luŕ guztiaz inguratua, arkaitzpeko toki mardul eta babes gozoa egutera bete-betean, eguzki aldera begira, gizaldi ta gizaldietan sendo ta egoki bertan arkitzen da.

.....

...bizi-izateko bai toki edeŕ eta zoragaŕia! Mendi-kazko batean izanik auŕez-auŕe, bera-antzean, beste mendiegalean, beren eŕi edeŕa, uŕutixko bañan garbi ikusten dute; aŕilanduaz egindako Eleiz aundia bere ezkiltoŕearekin; aldameneko etxearte zabalean Eŕi-Etxe edeŕa, pelota-toki egokia ta inguruan etxepīla bat tēlatu zaŕ aundi, tximini ketsu, orma beltz sendoak; guztiak, gain-bera, Aitzondo'tik ederki agiri dira, bai ta eŕiko etxeartean dabiltzanak ere garbi ikusten dira emendik.

Eta eŕi-burutik gutxi-asko aldenduta, begiak artzen duen eremu guztian an-emenka etxe ta baseŕi beren luŕ-landuaz inguratuak, arizti, gaztañadi ta sagasti edeŕen artean.

.....

Mendi-magal artan euskaldun nekazarien sendi jatoŕ, zintzo au, pakean eta zoriontsu kristautasun edeŕean bizi zan.

.....

Noizik bein aita-semeak azoka-perira eŕi nagusira joaten dira, bei edo txekoŕen bat saldu edo erosi beaŕ dutela aitzeki artuta, edo ... demarik baldin bada, esaten duten bezela oraingo aizkolari gazte oek aspaldiko... bezin onak ba ote diran ikusi beaŕ dutela-ta.

Alako gizarte batean beŕi izugarí bat jakin dute. Eŕian eta bazteŕ guztietan beste izketarik ez zan. ... guda-gizon agintari batzuek erkalaren aurka jeiki dirala, ... asi omen dira lenbizi, bañan bereala... luŕetara sua zabaltzen dala diñote».

«Ekaitzpean» (7, 9, 10 ta 11'gn. oŕialdeetan) Eizagirre'taŕ Joseba.

IRUROGETAMAZAZPIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ADITZ IRAGANKOŕEN JOKOA

BALDINTZAERAZKO USTEKIZUNA - ERAKETAREN BIGAŕEN BIDEA

IZAKAI-ALDIZKIÑAK

Aditz iragangaitzetan ikusi genuen bezela, USTEKIZUN onentzako aditz iragankoŕen erak, 62'gaŕen ikaskayan ikusitako BALDINTZAERA' enetik sortzen dira: -KE atzizkia ere kentzean eta BA- auŕizkia jartzen; BA ori, itza bezela ere erabil ditekelarik.

Beraz, era ayei buruz esandako aldaketak egiten, ERAKUSBIDE OROKAŔA au ipiñi dezakegu, onela:

«IZAN» ADITZ LAGUNTZAĿEA

Irugaŕen notiñaren bakaŕ-izakaya	Irugaŕen notiñaren askaŕ-izakaya
-N-	-N-
-Z-e-N-	-Z-e-N-
-L-	-L-
BA- -U-	Ba- -IT- -U-
-G-e-N-	-G-e-N-
-Z-e-N- -TE	-Z-e-N- -Z- -TE
-L- -TE	-L- -Z- -TE

ERAMAN	EKAŔI	JAKIN	EGIN	ERABIĿI
-N-		-N-		
-Z-e-N-	-RAMA-	-Z-e-N-	-RAMA-	
-L-	-KAŔ-	-L-	-KAŔ-	
BA- e)	-(A)KI-	BA- e)	-(A)KI-	-ZKI-
-G-e-N-	-GI-	-G-e-N-	-GI-	
-Z-e-N-	-RABIL- -TE	-Z-e-N-	-RABIL-	-TE
-L-	-TE	-L-		-TE

Era auek, dagozkien BALDINTZAERA'zko besteak bezela, oso gutxi erabiltzen dira; ta beren ordez, laguntzaĿearen besteekin egiten diranak, bi itzen bidez, eta aditza (-KO edo -GO atzizkiekin) geroaldian ipiñita, darabilzkigu:

Onela: Egingo bazenu - Ekaŕiko balitu.

Eta ezezkoak: Egingo ezpazenu - Ekaŕiko ezpalitu.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, ezkeŕeko izenordeai dagozkien sei aditzen Ustekizun'aren era BILDUAK, bakaŕ-izakayaz, kulatzen ordez, esan eta idatzi:

	IZAN	ERAMAN	EKAŔI	JAKIN	EGIN	ERABIĿI
Nik	Banu	...	...	...	...	...
Zuk	...	bazenerama	...	...	...	...
Berak	...	...	balekaŕ	...	...	...
Guk	...	...	...	bageneki	...	...
Zuek	...	...	...	...	bazenegite	...
Berak	...	...	...	...	.	balerabilte

2. *Izan*, *Eraman* eta *Ekaŕi* aditzak erabiltzen, uŕengo esakuntzetan, bakaŕ-izakayezko erak, askaŕezkoen bidez aldatu, ta alderantziz, askaŕezkoak bakaŕezkoen bidez; bai ta, aldi baten, bayezkoak diranak ezezkoen bidez, eta alderantziz ere, ezezkoak bayezkoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Zuk asmo obea *bazenu*, beste eraz ibiĿiko ziñake; ... - Nik zaldia *ezpanerama*, nola itzuliko nintzake gero?; ... - Berak bere idaztiak *balekarzki*, guziok irakuŕiko genituke; ... - Guk gure oldozpenak *ezpagenitu* besteen naya egin beaŕ-izango genuke; ... - Zuek zuen jostaiĿuak *bazeneramazkite* ume gizajo oyei utziko zenizkiekete; ... - Berak beren arkatza *ezpalekarte*, elukete ikaskaya idatzi al-izango; ... - Nik jateko gogo onak *ezpanitu*, laisteŕ geratuko nintzake guztiz argalduta; ... - Zuk mendirako oskiak *bazeneramazki* zaluago ibiĿiko ziñake txangoan; ... - Oŕek oroimen obea *balu*, bere lagunek ainbat ikasiko luke; ... - Guk janzki ariñagoak *bagenekarzki*, otz-izango giñake itzuli baño lenago; ... - Zuek irudimena *bazenute*, luze idatzi al-izango zenukete; ... - Berak otaŕ aundiak *baleramazkite*, guziontzako igaliak ekaŕiko lituzkete; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Geyago jango bazenu, obeto egongo ziñake: Nor egongo litzake obeto, geyago jango balu?; ... - Nola egongo nintzake geyago jango banu?; ... - Oyek ere obeto egongo al lirake geyago jango balute?; Bai, oyek ere ... -- Ez ginduzkete zuek bezela begiratuko: Nortzuek ez zinduztekete guk bezela begiratuko?; ... - Nortzuk ez lituzkete oyek begiratuko guk bezela?; ... - Nik begiratuko al zinduket zure amak bezela?; Ez, zuk ere ... -- Asko eskeiñiko lizuekete, baña elizuekete ezer emango:

Nortzuei eskeiñiko liekete asko?; ... - Nori eliokete ezer emango?; ... - Zuek asko eskeiñiko al zenigukete?; Ez, guk ... baño. -- Nai-izango zuketean guzia erasango zioketean: Nori erasango zioketean nai-izango zuketean guzia?; ... - Zuri erasango al nizukean nai-izango nukean guzia?; Ez, ... baizik. - Eta guri erasango al ziguketean nai-izango zuketean guzia?; Ez, zuei ere ... -- Emen gurekin geratzea erabakiko luketela uste dut: Nork uste du emen zuekin geratzea erabakiko nukela?; ... - Zuek uste al duzute emen zuekin geratzea erabakiko genukela?; Bai, guk ere ... - Gurasoek uste al dute emen berekin geratzea erabakiko zenukela?; Eztakit ... ote ... -- Auŕ oyek eroriko balira, miña artuko lukete: Nortzuek artuko lukete miña eroriko balira?; ... - Nola artuko lukete miña auŕ oyek?; ... - Zuk ere, eroriko baziña, miña artuko al zenuke?; Bai, ... -- Ez genuen iñoiz jakin ezer eman ote zieten: Nork etzuen iñoiz jakin ezer eman ote zieten?; ... - Zer etzenuten iñoiz jakin?; ... - Nik iñoiz jakin al nuen ezer eman ote zizuten?; Ez, zuk ere ... -- Oŕela nai-izan ezkero, beaŕ dituzun lusagaŕak ornituko zizkizuketean: Nori ornituko zizkioketean beaŕ dituen lusagaŕak, oŕela nai-izan ezkero?; ... - Zer ornituko zizuketean oŕela nai-izan ezkero?; ... - Guk ornituko al genizkizukean beaŕ dituzun lusagaŕak, oŕela nai-izan ezkero?; Ez, ... baizik. -- Mendian gerturik zeuzkaten txondaŕak bereala piztuko genizkiekean: Nortzuek piztuko zizkieketean mendian gerturik zeuzkaten txondaŕak?; ... - Zer piztuko zenieketean bereala?; ... - Zuk piztuko al zenizkidakean mendian gerturik neuzkan txondaŕak?; Ez, ... baño. -- Auŕ ura txukunagoa izan balitz, etxera ekaŕiko genukean: Nor ekaŕiko zenuketean etxera txukunagoa izan balitz?; ... - Nork ekaŕiko zukean etxera auŕ ura, txukunagoa izan balitz?; ... - Ni ekaŕiko al nindukezuan etxera txukunagoa izan banintz?; Bai, zu ere ... -- Ain ezigaitzak izan ezpalira, moxal batzuk erosiko genizkiekean: Nortzuek erosiko zizkieketean moxal batzuk ain ezigaitzak izan ezpalira?; ... - Zer erosiko zenieketean ain ezigaitzak izan ezpalira?; ... - Zuk erosiko al zenizkiekean moxal batzuk ain ezigaitzak izan ezpalira?; Bai, nik ere ... -- Ez bide zitzaketean ibiĭiko, zurekin joatean ibiĭi ziran bezin ondo: Nortzuk ez bide zitzaketean ibiĭiko, nirekin joatean ibiĭi ziran bezin ondo?; ... - Nola ez bide zitzakean ibiĭiko?; ... - Zu ere ez bide ziñakean ibiĭiko, gurasoekin joatean ibiĭi ziñan bezin ondo?; Bai, ni ere ... -- Lapikoan ipiñi zenizkigun iĭaŕ ayek egosteke geratuko litzaizkiguke: Zer geratuko litzaizueke egosteke?; ... - Nori geratuko litzaizkioke egosteke lapikoan ipiñi genizkion iĭaŕak?; ... - Guri ere lapikoan ipiñi zenizkiguten iĭaŕak egosteke geratuko al litzaizkiguke?; Bai, zuei ere ... -- Ain amaziloak ziñaten bezela izatean ez zinduzteketean egokiro aziko: Nortzuk ez zituzketean egokiro aziko ain amaziloak ziran bezela izatean?; ... - Nola ez ginduzketean egokiro aziko?; ... - Nik egokiro aziko al zinduztekedan, ain amaziloak ziñaten bezela izatean?; Ez, zuk ere...

4. Ondo irakuŕi ipuin au, ta egokia izan diteken ondorioa zein dan ateman eta esan:

«AXARIA'REN ZORIGAITZA...!»

«Ba ote leike, eluŕik ezagutzen ez duen axaririk.

Gure ipuiko onek etzuen, beintzat, ezagutzen. Eta elurterik aundienean zerura begira zegoen zoraturik, eluŕ-maluta ayek zer ote ziran, bere buruari galdezka.

An inguruan egaka ari zan aŕano batek ikusi zuen eta, bi egoak zabal-zabalik, axariarengana etoŕi zan.

— Zer ari zera begira?

— Zer ari ote, ba! Zerutik erortzen ari diran gauza auei begira. Ezpaitut, nik, oŕelako gauzarik orain artean ikusi!

— Ez ote dakizu, ortaz, oyek zer diran.

— Eta zuk?

— Nola ez, mutil? Oĭo-lumak dituzu oyek.

— Oĭo-lumak?

— Bai, mutil; ara —jaŕaitu zuen aŕanoak— biar jai izango dute zeruan, eta oĭoak lumatzen ari dira orain.

— Oĭoak lumatzen? Nor legoken biar an!

— Izan ere, oĭo-zalea zera zu.

— Iñor baldin bada, ni naiz bat.

— Antxe aseko ziñake, ba, bein-betirako!

— Ez diñozu gezuŕik. Ikusten danez, miĭaka ari dira-ta lumatzen. Zuk bezelako ego edeŕak izango banitu...!

— Etzaitez oŕengatik estutu! Nik neronek eramango zaitut zeruraño, zuk nai baldin baduzu, beintzat.

— Nola nai ez, bada?

— Gogoŕak al dira zure ortzak?

— Aŕia baño gogoŕagoak.

— Eldu zaidazu, bada, nere buztanetik gogoŕ, eta laisteŕ eramango zaitut zeruraño.

Eta odeyetan gora igaro ziranean, izketan asi zitzayon aŕano maltzuŕa :

— Ondo al zatoz, axari?

— Bai! —erantzun zion onek, an askatuko ote zuen bilduŕez...

Eta «bai» esateko, iriki egin beaŕ-izan zuen aoa, ta goitik-bera erortzen asi zan. Gero ta gertuago ikusten zituen mendi gañeko aitzak...

Eta axaria izan zan aŕautzopil biurtu zana.

Eta aŕanoak izan zuen, egun artan, jai, ta ez zeruko aingeruak!».

«20 ipui eta...» (9, 10 eta 11'gaŕen oŕialdeetan) Albisu ta Ayerdi'taŕ Anastasio.

IRUROGETAMAZORTZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ADITZ IRAGANKOŔEN JOKOA

BALDINTZAERAZKO USTEKIZUNA - ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA

IZAKAI-ADIZKIÑAK

Auŕeko ikaskayetan esan dugun bezela, USTEKIZUN onen erak, geyenetan, bi itzen bidez erabiltzen diralarik, laguntzaĪearen eraen bitartez noski, iragangaitzetan egin genuen antzo, emen ere bi aldi auek berezi ditzakegu : GEROALDIA ta LENAGOKOA. Auetxek ditugu beren aditzerak :

GEROALDIA					LENAGOKOA				
Izango		-N-			Izan		-N-		
Eramango		-Z-e-N-			Eraman		-Z-e-N-		
Ekaŕiko		-L-			Ekaŕi		-L-		
	Ba-		-U-			Ba-		-U-	
Jakingo		-G-e-N-			Jakin		-G-e-N-		
Egingo		-Z-e-N-		-TE	Egin		-Z-e-N-		-TE
Erabiĭiko		-L-		-TE	Erabiĭi		-L-		-TE

Era guzti auek, irugaŕen notiñaren bakaŕ-izakayezkoak dira; askaŕ-izakayezkoak egiteko, ongi ezagutzen dan -IT- erdizkia, -U- eŕoaren auŕetik ipiñiko dugu; ta askaŕezko bigaŕen eta irugaŕen notiñek, eŕoaren ondotik, -Z- beste erdizkia ere artzen dute.

Onela : Eramango bazenu. Eraman bazenu. Eraman bazenitu.
Ekaŕiko bazenute. Ekaŕi bazenute. Ekaŕi bazenituzte.

-KIKO atzizkia (-KIN + -KO) (-ganako'ren zentzunaz).

Atzizki au, izen, izenondo ta izenordeai eransten zaye, -(R)EN jabetasunezko beste atzizkiaren bitartez.

Onela : Jainkoa're*kiko* (Jainkoa'renganako).
Gurasoe*kiko* (gurasoenganako).
Nere*kiko*, zure*kiko*, ... (nereganako, zureganako, ...).

E. b. : Nere*kiko* esan nuen = Nireganako esan nuen (nere barnerako).

Nor*ekiko* diñozu ori? = Norenganako diñozu ori? (nori buruz diñozu ori?) (1).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, ezkeŕeko izenordeai dagozkien sei aditzen Ustekizun'aren era BILDUAK, askaŕ-izakayaz, kulatzen ordez, esan eta idatzi:

	IZAN	ERAMAN	EKAŔI	JAKIN	EGIN	ERABIĹI
Nik	...	baneramazki	...	...	...	...
Zuk	...	...	bazenekarzki	...	...	...
Berak	...	...	...	balekizki	...	...
Guk	...	...	...	...	bagenegizki	...
Zuek	...	...	...	...	...	bazenerabilzkite
Berak	balituzte	...	...	...	...	...

2. *Jakin*, *Egin* eta *Erabiĺi* aditzak erabiltzen, uŕengo esakuntzetan, bakaŕ-izakayezko erak, askaŕezkoen bidez aldatu, ta alderantziz, askaŕezkoak bakaŕezkoen bidez; bai ta, bide batez, bayezkoak diranak ezezkoen bidez, eta alderantziz, ezezkoak bayezkoen bidez ere; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Euzkeraz ongi *baneki*, ura nire poza!; ... - Zure eginkizunak astiro *bazenegizki*, obeto geratuko litzaizkizuke; ... - Beste txiŕinga *balerabil*, lenago elduko litzake; ... - Gure eginbeaŕak zeintzuk diran *bagenekizki*, *ez giñake urduri ibiĺiko*; ... - *Egoki zaizuena bazenegite*, obeki bizi-izango ziñakete; ... - Buru-zapi aundi oyek *ezpalerabilzkite*, neketsuago izango litzayeke eguzkitan ibiltzea; ... - Nire bazkariak beren orduan *banegizki*, osasuntsuago ikusiko nuke nire burua; ... - Beste bide obea *bazenerabil*, askoz lenago amaituko zenuke ori; ... - Bere otoyak ondo *balekizki*, gurasoak pozago ikusiko lituke; ... - Gure itzultzea ondo *bagenegi*, lasai geratuko giñake; ... - Zuen layak gogoŕ *bazenerabilzkite*, solo ori laisteŕ izango zenukete beaŕ dan bezela gertuta; ... - Beren bidetik zuzen joan *balekite*, iñor baño lenago elduko lirake; ...

3. Uŕengo galderai egokia izan diteken erantzun bana eman; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Ziza oyek jan bagenitu, gexotuko giñakean: Nor gexotuko zitzakean ziza oyek jan balitu?; ... - Nola gexotuko ziñaketean?; ... - Ni ere gexotuko al nintzakean ziza oyek jan banitu?; ... -- Nirekin irtengo balira, zerbait erasango nieke: Nortzuei erasango zenieke zerbait zurekin irtengo balira?; ... - Nola erasango zeniekete zerbait; ... - Guk erasango al genieke ezer, gurekin irtengo balira?; Ez, ... baño. -- Noiz ikusiko zinduket bizi zeran uri ortara joango banintz?; nai-izango zenuken orduan ikusiko nindukezu bizi naizen uri ontara etoŕiko baziña: Nork ikusiko ninduke nai-izango luken orduan, bizi naizen uri ontara etoŕiko balitz?; ... - Nor ikusiko zenuke nai-izango zenuken orduan, bizi dan uri ontara etoŕiko baziña?; ... - Guk ikusiko al zinduztekegu nai-izango genuken orduan, bizi zeraten uri ortara joango bagiña?; Ez, ... baizik. -- Ingi ayek eŕe balituzte, gaur ez genuke ezer jakingo: Nork eluke ezer jakingo ingi ayek eŕe balituzte?; ... - Zer etzenukete jakingo, ingi ayek eŕe balituzte?; ... - Nik ezer jakingo al nuke, ingi ayek eŕe bazenitu?; Ez, zuk ere ... -- Nai-izango bazenute, lan ori laisteŕ egin al-izango zenigukete: Zer egin al-izango genizueke laisteŕ, nai-izango bagenu?; ... - Noiz egin al-izango genioke oŕi lan ori, nai-izango bagenu?; ... - Zuk ere lan ori laisteŕ egin al-izango zeniguke, nai-izango bazenu?; Bai, nik ere ... -- Beaŕ duguna egingo bagenu, ez ligukete ezer esango: Nork elizueke ezer esango, beaŕ duzutena egingo bazenute?; ... - Nortzuei eliekete ezer esango, beaŕ dutena egingo balute?; ... - Guri ezer esango al ligukete, beaŕ duguna egingo bagenu?; Ez, zuei ere ... -- Gaur goizean jetxi baziñate, aurkituko nindukezutean: Nor aurkituko genukean gaur goizean jetxi bagiña?; ... - Noiz aurkituko zindukeguan?; ... - Nik aurkituko al zinduztekedan, gaur goizean jetxi banintz; Ez, ... baño. -- Zertarako emango ligukete beaŕ ez genuen au?; bearbada, gordetzeko emango lizuekete beaŕ etzenuten ori: Nori emango liokete, bearbada, gordetzeko, beaŕ etzuen ori?; ... - Zer emango lizuekete, bearbada, gordetzeko?; ... - Niri emango al zenidakete, bearbada, gordetzeko, beaŕ enuen au?; Ez, zuri ez ... -- Obeto abestuko balute, uŕetxindoŕak bezela izango lirake: Nortzuk izango lirake uŕetxindoŕak bezela, obeto abestuko balute?; ... - Zeintzuk bezela izango lirake, obeto abestuko balute?; ... - Zu ere uŕetxindoŕa bezela izango al ziñake, obeto abestuko bazenu?; Ez, ... baizik. -- Auŕ oŕi janzki guziak eŕaz gartuko zitzaizkiokean: Nori gartuko zitzaizkiokean janzki guziak eŕaz?; ... - Zer gartuko zitzayokean eŕaz auŕ oŕi?; ... - Zuei ere janzki guziak eŕaz gartuko al zitzaizkizuekean?; Ez, ... baizik. -- Uriko kaleak ain ongi argitu ezpalituzte, ez genitukean ondo ikusiko bere saltokiak: Nortzuek ez zituzketean ondo ikusiko bere saltokiak, uriko kaleak ain ongi argitu ezpalituzte?; ... -

(1) Ikusi: 22 ta 23'gn. ikaskayak.

Zer etzenuketean ondo ikusiko, uriko kaleak ain ongi argitu ezpalituzte?; ... - Nik ondo ikusiko al nitukean bere saltokiak, uriko kaleak ain ongi argitu ezpalituzte?; Ez, zuk ere ... -- Auzo artan zeuzkan etxe guziak eratxiko zizkioketean: Zer eratxiko zioketean?; ... - Nori eratxiko zizkioketean auzo artan zeuzkan etxe guziak?; ... - Nik eratxiko al nizkizukean auzo artan zeneuzkan etxe guziak?; Ez, ... baño. -- Gu baño askoz lenago elduko edo lirake: Nor elduko edo litzake zuek baño askoz lenago?; ... - Noiz elduko edo lirake?; ... - Ni elduko edo nintzake zuek baño askoz lenago?; Ez, ... baizik. -- An gertatu zana ez omen zuketean bīlakatuko: Zer ez omen zuketean bīlakatuko?; ... - Zuek bīlakatuko omen zenuketean an gertatu zana?; Ez, ... - Eta nik bīlakatuko omen nukean an gertatu zana?; Ez, zuk ere ... -- Atsekabez beterik uŕutiratuko zitzaizkigukean, eskierki: Nola uŕutiratuko zitzaizkizuekean, eskierki?; ... - Nori uŕutiratuko zitzaizkiokean atsekabez beterik, eskierki?; ... - Niri ere atsekabez beterik uŕutiratuko al zitzaizkidakean, eskierki?; Ez, ... baño.

4. Irakuŕi astiro uŕengo bertsoak, auxe nabaritzeko: bakoitiek zazpi izkin dituzte, ta batoyek sei; ta batoyak dira, bakaŕik, oskideak, ots, berdin amaitzen diranak; lenengo, laugaŕen eta boskaŕen aapaldietan, azken izkiña da berdin, eta ots-kide mota oŕi «mugatua» deitzen zayo; bigaŕen eta irugaŕen aapaldietan, azken bi izkiñak dira berdin, eta mota oni «erdikoa» deitzen zayo; ta «osoa» izateko, azken iru izkiñak izan beaŕ dira berdin, baña oŕelakoak eztira agertzen bertso auetan. Zazpi-seiko bertsoetan azaltzen dan zortzikoari, Leizaola jaunak «zortziko beŕia» deitzen omen dio («Gure Bertsolariak» idaztian Onaindia aitak diñoenez) (110'gaŕen oŕialdean).

«AGUŔ EUSKAL'EŔIA'RI»

«Zazpi Euskal-Eŕiek
bat egin dezagun,
guziak beti-beti
gauden gu Euskaldun.

Aguŕ eta oore .....
Euskal-eŕiari .....
Laburdi, Baxenabaŕ,
Zibero gainari; Gure aritz au azken
Bizkai, Napaŕ, Gipuzko mende autaraino
eta Araba'ri. zaarturik ere, zen
Zazpiak bat besarka edeŕ bezein sano.
lot beitez elgaŕi. Bere luŕ oin garbian
oso zagoeno
Aritz edeŕ bat ba-da gainetik zoakona
gure mendietan, beaŕ zen aŕano.
zazpi adaŕez dena
zabaltzen airetan I aiz, Euskal-eŕia,
Frantzia'n, Espaiñia'n, aritz ori bera,
bi alderdietan; aŕotza nausiturik
emen iru, ta an lau, moztua sobera.
bat da zazpiretan. Oi, gure arbasoak,
ez, otoi, ez beira
zein goratik garen gu
jautsiak beera!».

«Euskaldunak poema eta Olerki guziak» Nicolas Ormaetxea «Orixe».

IRUROGETAEMERETZIGAŕEN IKASKAYA

ARTE ta *ALDE* itzen zentzunak; ALDI ta TOKI'ren asmoai dagozkienak.

ARTE: 8'gaŕen ikasckayan itz onen zentzun batzuetako bateaz ari-izan giñan; *ALDI*'ari dagokion asmoaz. Ikaskai artan ere asmo oŕi buruz bi bereiztasun ikusi genituen, emen ere begiratu beaŕ ditugunak; auetxek: berarizko izen eta aditzondoekin erabiltzen danean, ARTE itza zuzen gañeratzen da, beste itz bat bezela edo atzizki lez; baña izen aŕuntekin -RA beste atzizkiaren bitartez, atzizkiaz ere jartzean, alkartzen da.

Onela: Irail *arte* (edo: Iraīlarte).
Biar *arte*.
Gaber*arte* (Gau + -ra + -arte) (Ga*ue*rarte, ga*be*rarte).
Datoŕen īl*erarte* (Īl + -ra + -arte) (Īlerarte).

Ba-ditu itz onek ere beste zentzun batzuk: *gain*, *tarte*, *bide*, *bitarte*. Azken zentzun ori adieraztean, ARTE ezin joan diteke bakaŕik, baitezpadako beste atzizkiren batekin baizik; eta alkartzen zayon izena, bakaŕik joan diteke edo -EN jabetasunezko atzizkiarekin ere.

E. b.: Gizon art*ean* - Gizon*en* art*ean*.
Lau aitz aundi*ren* art*ean* (1).

Nolabait, ARTE itzaren eratoŕitakoak bezela beste itz auek ditugu:

BITARTE	(bien arteko zentzunaz)	:	Bi etxe oyen bitarte.
	(bien artekotasun zentzunaz)	:	Zure bitarte ona.
	(laguntasun zentzunaz)	:	Zure bitarte ona.
BITARTEAN	(anartean zentzunaz)	:	Ori egingo duzun bitartean.
	(bizkitartean zentzunaz)	:	Bitartean emen egongo gera.
	(bien artean zentzunaz)	:	Bitartean ibīlī beaŕ-izan dut.
	(ala ere zentzunaz)	:	Bitartean, eztut ori egingo.
BITARTEKO	(artekari zentzunaz)	:	Zu gure bitartekoa izango zera.
	(eragīle zentzunaz)	:	Bitarteko ona izan zera beti.
	(tarteko zentzunaz)	:	An bitartekorik ez (zegoen).
BITARTEZ	(artekotasunez zentzunaz)	:	Oŕen bitartez ongi ibīliko gera.
BITARTETU	(lagundu zentzunaz)	:	Bitartetu nai-izan al duzu?
	(artetu zentzunaz)	:	Bitartetu al da ori zuen auzian?

(1) Ikusi: 99'gaŕen ikaskaya.

ARTE, ta eratortzen zayon ARTEAN itza, aditzaren izenari alkartzean itzak bezela darabilzkigu; aitzitik, aditzera batekin atzizkiak lez joan ditezke; baña orduan, alkaŕ-gayezkoa dan -N atzizkia aditzerari eransten zayo.

E. b.: Zuek ikusi *arte* - Zuk ikusi duzu*narte*.
Zuek igo *artean* - Zu igo zera*nartean*.

ALDE: Itz onek zentzun auek adierazten ditu:

ALBO'koa; LAGUNTZA'rena.

E. b.: Etxe *alde* ori (Etxeko albo ori).
Euzkaleŕia'ren *alde* (Euzkaleŕia'ren laguntzean).

ERKATZE'aren asmoa ere ba-du:

E. b.: Oyen *alde*an gutxi zerate (Oyek baño gutxiago zerate).

URIKAN! itzaren antzeko zentzunaz saŕi erabiltzen da.

Onela: *Alde* emendik! (Zoaz emendik, anka emendik!).

Egin aditzarekin zatiduna dan beste aditz au eratzen da: ALDE-EGIN (uŕuntzea edo aldentzea adierazteko).

-DU atzizkiarekin beste aditz bat ere eratzen da: ALDENDU (uŕuntzearen edo aldentzearen zentzunaz be).

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, bertan aipatzen diran USTEKIZUN'aren bi aldietarako, ta ezkeŕ-aldean agertzen diran izenordeai dagozkien ERAMAN, EKAŔI, JAKIN eta ERABIĪLI lau aditz auen erak (bi itzezko erak noski), bakaŕ-izakayaz, eta kulatzen ordez esan eta idatzi:

	GEROALDIA		LENAGOKOA	
	Eraman	Ekaŕi	Jakin	Erabīlī
Nik	Eramango banu	...	...	...
Zuk	...	ekaŕiko bazenu	...	...
Berak	...	...	jakin balu	...
Guk	...	...	...	erabīlī bagenu
Zuek	Eramango bazenute	...	...	...
Berak	...	ekaŕiko balute	...	...

2. Emen jartzen ditugun esakuntzetan, Baldintzaera'zko Usteki-zun'aren «Geroaldi» ta «Lenagoko» aldien erak daramazkite; lenengoak

bigaŕenen bidez aldatu beaŕ dira ta alderantziz, bigaŕenekoak lenengoen bidez; bai ta, aldi baten, bayezkoak diranak ezezkoen bidez eta alderantziz be, ezezkoenak bayezkoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Lenbailen *erabakiko bazenu,* aurki amaituko zenuke zure arazo ori; ... - Lenago *eradan banitu* gure beoŕak eultzitzerako gertuago egongo zitzaketean; ... - Uri ontako etxe beŕiak aŕeta aundiagoz *eraikiko balituzte,* kaleak politago ikusiko genituke; ... - Oitura txaŕ ori garaiz *eragotzi banu,* orain enituke jasan beaŕ-izango eldu zaizkidan ondorio auengaŕi auek; Auŕ oyek guregana *erakaŕiko bagenitu,* gero beren laguntza ona izango genuke; ... - Dauzkazuten luŕetarako beste ura *erantsi bazenute,* zuen ereintzarako solo zabalagoak ukanen zenituzkete; ... - Auŕak beren orduan *eratzango balituzte,* azkeago geratuko lirake; ... - Zure isilpekoa *erazagutu ezpazenu,* etzenuke uŕengoan uŕats txaŕ oyetan ibiĩi beaŕ-izango; ... - Egin nai duena garaiz *iragaŕi balu,* guzia gerturik aurkituko zukean; ... - Sukaldea goiz *irazekiko ezpagenu,* ezkenuke gure bazkaria bere orduan gerturik izango; ...

3. Emen agertzen diran galderai erantzun egoki bana eman, esanez eta idatziz:

Izpaŕingia irakuŕi balu, epaikariak eldu zirala jakingo luke: Nork jakingo luke epaikariak eldu zirala, izpaŕingia irakuŕi balu?; ... - Nola jakingo luke epaikariak eldu zirala?; ... - Nik jakingo al nuke epaikariak eldu zirala, izpaŕingia irakuŕi banu?; Bai, zuk ere ... -- Bitartean bazkaria ipiñiko ziguketean: Nortzuei ipiñiko zieketean bazkaria bitartean?; ... - Noiz ipiñiko zizueketean bazkaria?; ... - Oyei ere bazkaria ipiñiko al zieketean bitartean?; Ez, ... baño. -- Itz gutxiagoz eta egipen geyagoz, obeki erakaŕiko ginduzketean: Nor erakaŕiko zuketean obeki itz gutxiagoz eta egipen geyagoz?; ... - Nola erakaŕiko zinduzteketean obeki?; ... - Zuek ere obeki erakaŕiko al nindukezutean itz gutxiagoz eta egipen geyagoz?; Bai, guk ere ... -- Noren bitartez elduko giñake jaun oyenganaño?; ene ustez, ziñegotzi oŕen bitartez elduko ziñakete jaun oyenganaño: Norenganaño elduko giñake ziñegotzi oŕen bitartez?; ... - Nortzuk elduko lirake jaun oyenganaño ziñegotzi oŕen bitartez?; ... - Nire bitartez elduko al ziñake zu jaun oyenganaño?; Eztakit ... -- Datoŕen udararte ez zenituzkete zuen ebazkizunak erabagi al-izango: Nortzuek ez lituzkete beren ebazkizunak erabagi al-izango datoŕen udararte?; ... - Nik erabagi al-izango nituke nire ebazkizunak datoŕen uda baño lenago?; Bai, uste dut ... -- Guztien artean zuk bakaŕik baño gazta gutxiago erosiko lukete: Zuen artean nik bakaŕik baño gazta geyago erosiko al zenukete?; ... - Zer erosiko lukete nik bakaŕik baño gutxiago?; ... - Gure artean zuek baño gazta gutxiago erosiko al genuke?; Ez, ... baizik. -- Ori egiten oso adeitsuak izango zitzaketean: Nortzuk izango zitzaketean oso adeitsuak ori egiten?; ... - Zer izango zitzaketean ori egiten?; ... - Zuek ere oso adeitsuak izango al ziñaketean ori egiten?; Bai, gu ere ... -- Ipiñi zizkiguten ikaskai auek azalduko al zenizkigukete?; bai, pozik azalduko genizkizueke ipiñi zizkizueten ikaskai oyek: Nortzuei azalduko zenizkiekete, pozik, ipiñi zizkieten ikaskai oyek?; ... - Zer azalduko zenigukete pozik?; ... - Nik ere pozik azalduko al nizkizueke ipiñi zizkizueten ikaskai oyek?; Bai, zuk ere ... -- Nori buruz itzegin dute erdeldun ayek?; beren artezkariari buruz itzegin dute erdeldun ayek: Zuek ere zuen artezkariari buruz itzegin al duzute?; Ez, ... baño. - Nortzuek itzegin dute beren artezkariari buruz?; ... - Nik itzegin al dut nire artezkariari buruz?; Ez, ... baizik. -- Eri aren alde egingo genuken guzia, elitzake izango gure eginbidea betetzea baño: Zer elitzake izango eri aren alde egingo zenuketen guzia?; ... - Zer izango litzake zuen eginbidea betetzea?; ... - Nire eginbidea betetzea ere izango al litzake eri aren alde egingo nuken guzia; Bai, zure ... -- Eztuzu iñorenganako egin beaŕ, zure buruarekiko egingo etzenukena: Nork eztu egin beaŕ iñorenganako, berarekiko egingo elukena?; ... - Zer ez dut nik egin beaŕ iñorenganako?; ... - Zuek egin beaŕ al duzute iñorenganako, zuen buruarekiko egingo etzenuketena?; Ez, guk ere ... -- Igesleku artara eldu baño lenago iĩunduko balitz, eztakit gaua nola igaroko genuken: Zer eztakizu igesleku artara eldu baño lenago iĩunduko balitz?; ... - Nola eztakizu gaua nola igaroko zenuketen?; ... - Guk al dakigu gaua nola igaroko genuken, igesleku artara eldu baño lenago iĩunduko balitz?; Ez, zuek ere ... -- Len siñiskaitza izango litzake, orain jasan-erazi digutena: Zer izango litzake siñiskaitza len?; ... - Zer izango litzake len, orain jasan-erazi dizuetena?; ... - Nori izango litzaioke len siñiskaitza, orain guri jasan-erazi digutena?; Gure auŕekoei ... -- Aize artaz argi guziak itzaliko zitzaizkigukeala uste dut: Nork uste du aize artaz argi guziak itzaliko zitzaizkizuekeala?; ... - Zerez uste duzu argi guziak itzaliko zitzaizkizuekeala?; ... - Oyek uste al dute aize artaz argi guziak itzaliko zitzaizkidakeala?; Ez, ... zuk baño.

4. Ondo irakuŕi emen jartzen dugun elebeŕi baten txatala ta gero, bertan esaten dana oñaŕiz arturik, berari buruzko iruzkin bat idatzi:

«GIZERAILTZA»

«Ni Ernani'n geratu nintzan.

Umeak izan, mendira obus-pusketa batzuk biltzera joan nintzan nere kideko beste mutil batekin. Eta an, baratz-luŕetan lendabizi irikitako zauri beltz ayetan, burni-puska beroak jasotzen gabiltzala, alako: «...uuuuuuu... Txisssssst!!... Uuuuuuuu... Txisssssst!!»... txistu izugaŕiak, eta berebiziko trumoi-buŕundara batzuk erortzen asi ziran gure gañera, zerutik edo!...

Gauden zuloan auzpez jaŕi ta iru edo lau ordutan ia itz bat esan gabe egon giñan biok.

Noizpait bukatu zan, iīuntzan asia zan-da, ta laisterka, poltxiko guziak obus-pusketaz beteta, itzuli giñan eŕira, enparantza nagusitik baŕena...

— Geldi! (erderaz idaztian).

Nere laguna eskatz batean izkutatu zan. Ni, bakaŕ-bakaŕik arkitu nintzan, bilduŕak ito beaŕeko arnas uts-utsa biurtu banintz bezela. Txapel goŕi bat neukan auŕean, izkiīu txiki bat eskuan zeukala.

— Nora oa? (erderaz idaztian) —Orain napaŕa ote zan nago. Orduan ez zitzaidan burura ezertxo ere etoŕi.

Poltxikuak ikutu ta zer zegoen ikusi zuenean:

— Abil etxera! (erderaz idaztian) —ta ostikada bat eman zidan.

Enparantza utz-utza zegoen. Bazteŕetan, arkupean, amaŕ edo amabi txapel-goŕi, ta gudalari bat edo beste. Etxe-leyo guziak itxita zeuden, eŕian geratutako banakak zeletaka egonaŕen. Noizean bein tiro-ots bat, edo «pak-um... pak-um» ..., edo «tap-tap-tap» ... iīera bat, edo «pum!» ... mortero edo kañoi-buŕunda bat. Etxeko irugaŕen bizitzara eldu nintzanean, atea zabal- zabalik arkitu nuen. Xagutxo bat uxatzeko ainbat ots ez. Emen ere aize ikaragaŕi batek dana sakabanatu balu bezela... Norbait ote zan, baña ez; iīunabaŕeko aizeak ego-aldetik zekarkien ikara zan. Balkoyean izebak ainbeste maite zituen bi xoxo ta birigaŕo bat beren kayoletan ixil-ixiīik; bildurtuta nonbait. Geletan oeak uŕatuta; sukaldean, ontzi guziak sakabanatuta; sapaldetan dana ankaz gora.

«Iltzaleak» (16-17'gn. oŕialdeetan) Ugalde'taŕ Martin.

LAROGEIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA, IRAGANKOŔA - ADITZ LAGUNTZAĪEA

BALDINTZAERAZKO USTEKIZUNA - ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA

IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

		-Z-e-N-		
		-L-		
Neri	BA-		-I- -ZKI- *-T-* (*-Da-*)	
		-Z-e-N-		-TE
		-L-		-TE
		-Z-e-N-		
		-L-		
Guri	BA-		-I- -ZKI- *-GU-*	
		-Z-e-N-		-TE
		-L-		-TE
		-N-		
		-L-		
Zuri	BA-		-I- -ZKI- *-ZU-*	
		-G-e-N-		
		-L-		-TE
		-N-		
		-L-		
Zuei	BA-		-I- -ZKI- *-ZU(T)E-*	
		-G-e-N-		
		-L-		-TE
		-N-		
		-Z-e-N-		
		-L-		
Berari	BA-		-I- -ZKI- *-O-*	
		-G-e-N-		
		-Z-e-N-		-TE
		-L-		-TE
		-N-		
		-Z-e-N-		
		-L-		
Berai	BA-		-I- -ZKI- *-E-*	
		-G-e-N-		
		-Z-e-N-		-TE
		-L-		-TE

Era auek aditz iragankoŕai alkartzean, aditzak (-KO edo -GO atzizkiekin) geroaldian jaŕita, «Geroaldia» egingo dugu, ta aditzen izenakaz bakaŕik, «Lenagokoa».

E. b. : Eramango banio (nik berari, gero (geroaldian)).
Eraman banio (nik berari, len (lenagokoan)).

Eginkizunak

1. Lenengo lauki ontan agertzen diran norekiko izenordeai dagozkien artez eta zeaŕez-betetzeko «Ustekizun»'aren *aditzerak*, izakai zuzen bakaŕaz, kulatzen ordez, esan eta idatzi :

	Nik	Zuk	Berak	Guk	Zuek	Berak
Neri :		bazenit	...		...	...
Zuri :	Banizu		...	...		...
Berari :	...	...	balio	...	...	...
Guri :		...	...		bazenigute	...
Zuei :	...		...	...		balizuete
Berai :	...	...	...	bagenie	...	...

2. Emen jartzen diran esakuntzetan, artez eta zeaŕez-betetzeko aditzerak agertzen dira; geroaldikoak diranak lenagokoen bidez aldatu beaŕ dira ta alderantziz, lenagokoak geroaldikoen bidez; bai ta, aldi baten, bayezkoak diranak ezezkoen bidez eta alderantziz, ezezkoak diranak bayezkoen bidez ere, besteetan bezela, kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Diru-pizka bat *emango bazenit*, goxoki batzuk erosiko nituke; ... - Auŕ oyek ongi *zaindu ezpanizkizu*, eztakit gaur nolakoak izango liraken; ... - Margolari oŕek guk nai duguna *margoztuko baligu*, lauki polit bat euki al-izango genuke; ... - Gure adeya *opaldu ezpagenie*, elirake pozik egongo; ... - Abere oyek *kenduko ezpazenizkigute*, mendira eramateko utziko genizkizueke; ... - Erositako janzki beŕi ori emen *esegi balidate*, obeto erakutsiko nizuekean; ... - Orma auek *zilotuko banizkizue*, ez ote lirake jausiko?; ... - Gure basetxe ondoko luŕa *zelaitu bazenigu*, guztiz ongi geratuko zitzakean; ... - Lokaŕi oyek geyago *teinkatuko ezpalizkizue*, zama guzia eroriko litzaizueke; ... - Beren solo oŕen esia estuago *ertsituko bagenio*, oĺo bat ere elitzake an sartuko; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ baye; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

An ikusi genuena esango bagenizue, ez zenigukete siñistuko : Nork

elizueke siñistuko, an ikusi zenutena esango bazeniote?; ... - Zer ez genizueke siñistuko?; ... - Nik siñistuko al nizueke an ikusi zenutena esango bazenidate?; Ez, zuk ere ... -- Egin zenigun ona iñoiz aiztuko ez litzaidakela nirekiko esan nuen : Nork esan zuen berarekiko, egin nion ona iñoiz aiztuko elitzaiokela?; ... - Norekiko esan zenuen, egin nizuen ona iñoiz aiztuko elitzaizuekela?; ... - Oyek esan al zuten berenekiko, egin zenieten ona iñoiz aiztuko elitzaiekela?; Ez, ... baño. -- Zure laguntza eskeiñiko bazenit, pozik onartuko nizuke : Nori onartuko zenioke, bere laguntza eskeiñiko balizu?; ... - Nork onartuko lidake, nire laguntza eskeiñiko banio?; ... - Zuek ere onartuko al zenigukete, gure laguntza eskeiñiko bagenizue?; Bai, guk ere ... -- Iñoiz ez zitzaizkigukean ainbeste aldenduko : Nortzuk etzitzaizkizuekean iñoiz ainbeste aldenduko?; ... - Noiz ez zitzaizkizuekean ainbeste aldenduko?; ... - Uste al duzu niri ere iñoiz ainbeste aldenduko ez zitzaizkidakeala?; Bai, zuri ere ... -- Ez zieketean galeraziko beren betekizunak betetzea : Nori ez zioketean galeraziko bere betekizunak batetzea?; ... - Zer etzieketean galeraziko?; ... Nik galeraziko al nizuekean zuen betekizunak betetzea?; Ez, ... baizik. -- Ori lenago edestu bazenidate, enintzakean Yon'engana joango : Nor etzitzakean joango Yon-engana, ori lenago edestu bagenio?; ... - Norengana ez ziñakean joango, ori lenago edestu bagenizu?; ... - Oyek joango al zitzaketean Yon'engana ori lenago edestu bagenie?; Ez, oyek ere ... -- Alde ortik!, bestela masaĺeko bat emango dizut : Nori emango diozu masaĺeko bat alde-egiten ezpadu?; ... - Niri ere masaĺeko bat emango al didazu, emendik alde-egiten ezpadut?; Ez, ... baño. - Nork emango dio oŕi masaĺeko bat alde-egiten ezpadu?; ... -- Nai-izango bazenu, Lizaŕa'ra eramango zindukegu : Nor eramango zenukete Lizaŕa'ra, nai-izango balu?; ... - Nora eramango nindukezute, nai-izango banu?; ... - Gu eramango al gindukezute Lizaŕa'ra, nai-izango bagenu?; Ez, ... baizik. -- Etzekienak daki : Nork daki?; ... - Zuek ba al zenekiten?; Bai, guk ere ... - Eta nik ba al nekien?; Ez, ... baizik. -- Gure Eŕi'ko arazo gaŕantzidun guzietan geyago eragin beaŕ-izango genukean : Nork eragin beaŕ-izango zukean geyago bere Eŕi'ko arazo gaŕantzidun guzietan?; ... - Zertan eragin beaŕ-izango zenuketean geyago?; ... - Nik ere nire Eŕi'ko arazo gaŕantzidun guzietan geyago eragin beaŕ-izango al nukean?; Ez, ... baño. -- Intxauŕak geyago erosiko banizkizu, merkeago emango al zenizkidake?; bai, intxauŕak geyago erosiko bazenizkit, merkeago emango nizkizuke : Nori emango zenizkioke merkeago, intxauŕak geyago erosiko balizkizu?; ... - Nola emango zenizki-

dake intxauŕak, geyago erosiko banizkizu?; ... - Neska oyei ere intxauŕak merkeago emango al zenizkieke, geyago erosiko balizkizute?; Bai, oyei ere ... -- Bitartean bera ikustera joango giñake: Nor ikustera joango ziñakete bitartean? ... - Noiz joango ziñakete bera ikustera?; ... - Zu ikustera joango al giñake gu ere bitartean?; Ez, ... baizik. -- Nik, iñork esango ez zizukeana esango dizut: Nork esango dit iñork esango ez zidakeana?; ... - Zer esango didazu?; ... - Guk esango al dizuegu iñork esango ez zizuekeana?; Ez, ... baño. -- Zure gurasoenganako dituzun eginbideak beteko bazenitu!: Nork bete beaŕ-izango lituke bere gurasoenganako dituen eginbideak?; ... - Zer bete beaŕ-izango nuke nik?; ... - Eta zuek ez al zenituzkete bete beaŕ-izango zuen gurasoenganako dituzuten eginbideak?; Bai, guk ere ... -- Lenago erdu bagiña, etzuketean oŕelako zitalkeria egingo: Nork etzukean oŕelako zitalkeria egingo, lenago erdu baziñate?; ... - Zer etzuketean egingo, lenago erdu baziñate?; ... - Onek oŕelako zitalkeria egingo al zukean ni lenago erdu banintz?; Ez, oŕek ere ...

4. Irakuŕi aŕetaz uŕengo idazkia, gutun-eredutzat aŕ ditekena; ta gero, norberaren kasaz, beste gutun motz bat egin:

«EGUZKI ALDETIK OSPEL ALDERA»

«Aznaŕ'taŕ Xabier jauna
X'en

«Nere Xabi,

Zure eskutitza oraintxe jaso dut. Au da lasaitasuna artu dudana, ongi zerala jakin dudanean! Guregandik aldendu ziñanean, nori bururatu beaŕ zitzayon onelako egun estuak zetozkigunik? Gu lotan geundela, batenbat esna ibiĭi da, guda bildurgaŕi au gertatzen.

Nereak naikoak eztirala, gure txiki biak albotik naiko loŕ sortzen didate. Nork geldirik euki ume auek? Katakumeak baño jolasgure ta zarata-gogo geyago dute biak. Eskeŕak osasunez ongi diranari. Baña auen galderak ez dute azkenik:

— Nun da aita?
— Ama, noiz datoŕ aita?
— Zergatik ez datoŕ?
— Lasteŕ etoŕiko al da?

Jesus, miĭa bideŕ! Burua bere lekutik aterako lukete ume auek. Xabitxo oso gogoŕ dabil eta Lauratxo'k eztul pixka bat izan du, baña joan zayo, Jainkoa'ri eskeŕak.

Zure orko estuasunak eztira makalak; baña nereak ere ez. Oŕ bezela, emen ere, alkaŕen susmo ta bilduŕez bizi gera. Ori berarekin dakaŕ gudak; alde guzietan etsairen bat jaikiko ote zaigun kezkatan, eta utzagatik galtzen da erne eztabiĭena.

Emen nagusi gelditu diranak, indaŕ asko biltzen ari dira, ta nik uste, azkenean auek irabaziko dutela guda. Oŕengatik, ni ere nere aldetik neuŕiak artzen ari naiz, andik eta emendik ezaupideak sortzen. Noizpait alde ontakoak irabazi ta zauden eŕi ortara sartzen badira, norbaiten beaŕa izango dugu, zu pakean utzi zaitzaten. Onelako unetan itzerdi bat naikoa izaten da gizona ondatzeko. Zure bururik ez nastu beñere odoletan. Al dezazun izkutuen ibiĭi, ta emengoak oŕeraño elduko balira, ez iñori aitatu oŕ izan duzun lan-leku ori. Obe oŕelakorik ez jakitea.

Auŕen eta nere laztan asko ta asko. Zure-zurea duzun.

Laura»

Lur beŕi biĭa» (80, 81, 82'gn. oŕialdeetan) Etxaniz'taŕ Nemesi.

LAROGETABATGAŕEN IKASKAYA

-ZAZ, -TZAZ, -TAZ atzizkiak.

Iru atzizki auek, alkaŕen antzekoak dira, beren egituraz eta beren esan-nayaz ere. Beren zentzuna, zerbait egiteko bide edo gaya adierazteko da (1).

Geyenetan, adierazle, izenorde ta aindozko aditzondoai alkartzen zaizkie. Onela :

Au	:	Onezaz	edo	Ontaz	Auek	:	Auezaz	edo	Auetzaz
Ori	:	Oŕezaz	edo	Ortaz	Oyek	:	Oyezaz	edo	Oyetzaz
Ura, a	:	Azaz	edo	Artaz	Ayek	:	Ayezaz	edo	ayetzaz
Ni	:	Nizaz	edo	Nitzaz	Gu	:	Guzaz	edo	Gutzaz
Zu	:	Zuzaz	edo	Zutzaz	Zuek	:	Zuezaz	edo	Zuetzaz
Bera	:	Berazaz	edo	Beratzaz	Berak	:	Berezaz	edo	Beretzaz
Nor?	:			Nortzaz?	Nortzuek?	:			Nortzuetzaz?
Zein?	:			Zeintzaz?	Zeintzuek?	:			Zeintzuetzaz?
Zer?	:			Zertzaz?	Zertzuek?	:			Zertzuetzaz?

Bataz, Bitaz (Bizaz), Irutaz, Lautaz, Bostaz, ...

Askotaz, Askozaz - Askozaz ere.

E. b. : Makil one*zaz* jo egin diot (makil onen bidez).
Ol oye*zaz* genigo duzu ongi mai ori (ol oyek erabiltzen).
Zer egingo dugu zu*tzaz*? (nola erabiīiko zaitugu?).
Nortzue*tzaz* itzegin duzu? (nortzuk aipatu dituzu?).
Idazti bi*taz* aski izango dugu (idazti bi aski izango dira).
Ori zu baño geyago da, *askozaz ere* (askoz geyago).

ETA (TA).

Len, 8'gaŕen ikaskayan itz au ikusi genuen «lokaŕitza» bezela, beste itzak alkaŕi buruz *lotzeko* erabiltzen dana. E. b. : Aran *eta* mendia, osaba *ta* izeba. Baña «lokaŕitza» bezela ere, beste zentzunaz, *ziozko* zentzunaz, erabil diteke. E. b. : Goazen, berandu da *ta*.

Bigaŕen zentzun ori, BAIT- (2) eta -LAKO (3) beste auŕizki ta atzizki auen bitartez ematen dugunaren antzekoa da ; ta len ipiñi dugun adi-

(1) Ikusi: 22'gaŕen ikaskaya.
(2) Ikusi: 90 gn. ikaskaya.
(3) Ikusi: 21'gn. ikaskaya.

bidea, zentzun berberaz, onela ere jaŕi dezakegu : Goazen, berandu *baita* (bait- + da) ; edo : Goazen, berandu da*lako*.

Batzuetan, beste zentzun au be adierazteko darabilgu : *besteak* edo *uŕengoak*.

E.b. : Nortzuk eldu dira? - Osaba *ta* (osaba ta besteak edo uŕengoak).

«Besteak» itzaren zentzuna emateko, «abaŕ» beste itz au ere erabil diteke, berarekin *eta* itza be erabiltzean.

Onela : Sagaŕ, madari, okaran *eta abaŕ* (sagaŕ, madari, okaran eta besteak).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, USTEKIZUN'aren bi aldiak agertzen dira ; bai ta bakoitzarentzat bi aditz ere : ERAMAN, EKAŔI, ta JAKIN, ERABIĪLI ; ezkeŕ aldean ematen ditugun izenordeai dagozkien aditz oyen erak (bi itzezko erak), askaŕ-izakayaz, kulatzen ordez, esan eta idatzi beaŕ dira :

	GEROALDIA		LENAGOKOA	
	Eraman	Ekaŕi	Jakin	Erabiīi
Nik	...	ekaŕiko banitu	...	...
Zuk	Eramango bazenitu	...	...	...
Berak	...	...	...	erabiīi balitu
Guk	...	...	jakin bagenitu	...
Zuek	...	ekaŕiko bazenituzte	...	...
Berak	Eramango balituzte	...	...	...

2. Emen ipintzen ditugun esakuntzetan, alde batetik, «Baldintzaerazko geroaldi-urbiīen»'aren aditzerak agertzen dira, ta beste aldetik, «Ustekizunezko geroaldi»'arenak : aditzera oyek dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, lenengoak bigaŕenen bidez eta alderantziz ere ; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Pozik *joango nintzake* biar txango ortara ; ... - Ikaskai ori ondo *ikasiko bazenu*, obe zuretzat ; ... - Agure oŕek *azketsiko lizkiguke* gure utzak, noski ; ... - Gela auek *zikinduko ezpagenitu*, gero eŕazago lanegiteko ! ; ... - Laisteŕ *jetxiko ziñakete* arkaitz ayetatik, eiki ; ... - Emakume arduratsu oyek gure jazkiak *ukuziko ezpalizkigute*, nork egin lan ori? ; ... - *Ez nituke* iñoiz auŕ eŕugabe oyek *atzipetuko* ; ... - Bere maŕez-

kiak *ezabatuko ezpazenizkio*, emen egongo ziran guziok ikusteko; ... - Noiz edo noiz atso oyek *isilduko lirake*, oŕek zer diñoen ulertzeko; ... - Eŕiko guziak *kutsatuko ezpazenizkigu*, gaitz erdi; ...

3. Emengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Zure idaztiak utzi bazenizkit, geyago ikasiko nukean; Nork ikasiko zukean gerayo nire idaztiak utzi banizkio?; ... - Zer ikasiko zenukean nire idaztiak utzi banizkizu?; ... - Guk ere geyago ikasiko al genukean zure idaztiak utzi bazenizkigu?; Bai, zuek ere ... -- Ez gindukean emendik iñork igituko: Nor ez zukean ikork emendik igituko?; ... - Nork ez zinduztekean emendik igituko?; ... - Ni igituko al nindukean iñork emendik?; Ez, zu ere ... -- Oŕen gaiztoa izango ezpaziña!: Nor izango litzake oŕen gaiztoa?; ... - Zuek ere oŕen gaiztoak izango al ziñakete?; Ez, ... - Uste al duzu ni ere oŕen gaiztoa izango nintzakela?; Ez, ... baño. -- Ura oso ondo azaldu omen zieten: Nori azaldu omen zioten ura oso ondo?; ... - Nola azaldu omen zieten ura?; ... - Guri ere ura oso ondo azaldu omen ziguten?; Ez, ... baizik. -- Ez litzayeke iñoiz amaituko beren umore ona: Nori elitzayoke iñoiz amaituko bere umore ona?; ... - Zer elitzayeke iñoiz amaituko?; ... - Zuri iñoiz amaituko al litzaizuke zure umore ona?; Ez, niri ere ... -- Zer uste-izan zenuten nitzaz?; ezer ez genuen uste-izan zutzaz: Nork etzuen ezer uste-izan nitzaz?; ... - Nortzaz ez zenuten ezer uste-izan?; ... - Zuek ezer uste-izan al zenuten gutzaz?; Ez, guk ere ... -- Onezaz mintzatzea bidezkoa izango zitzakean: Zertzaz izango zitzakean bidezkoa mintzatzea?; ... - Zer izango zitzakean bidezkoa?; ... - Azaz mintzatzea ere bidezkoa izango al zitzakean?; Ez, ... baizik. -- Oso zoriontsua izango nintzake laisteŕ ekaŕiko bazenit: Nor izango litzake zoriontsua laisteŕ ekaŕiko banio?; ... - Nolakoa izango ziñake laisteŕ ekaŕiko banizu?; ... - Gu ere zoriontsuak izango al giñake laisteŕ ekaŕiko bazenigute?; Bai, zuek ere ... -- Gizajo oŕek argiak itzali ezpalizkigu, andik lenago irtengo giñakean: Nundik irtengo ziñaketean lenago, gizajo oŕek argiak itzali ezpalizkizue?; ... - Nortzuk irtengo zitzaketean lenagoandik, gizajo oŕek argiak itzali ezpalizkie?; ... - Ni ere andik lenago irtengo al nintzakean gizajo oŕek argiak itzali ezpalizkit?; Ez, zu ez ... -- Beŕiz azalduko bazenit uste dut ikasiko nukela: Nork ikasiko luke, beŕiz azalduko banio?; ... - Zer uste duzu?; ... - Zuek ere ikasiko al zenukete, beŕiz azalduko banizue?; Bai, guk ere ... -- Bart ez gindukezuan ezagutuko: Nork ez zinduztekean bart ezagutuko?; ... - Noiz ez zinduztekedan ezagutuko?; ... - Ni ezagutuko al ninduketean bart?; Ez, zu ere ... -- Mezutuko bazenie, lasteŕegi etoŕiko lirake: Nor etoŕiko litzake lasteŕegi, mezutuko banio?; ... - Nola etoŕiko lirake mezutuko banie?; Zuek ere lasteŕegi etoŕiko al ziñakete mezutuko banizue?; Ez, ... baño. -- Gauza oyek ez jakitea auengaŕia izango litzake: Zer izango litzake auengaŕia?; ... - Zer izango litzake gauza oyek ez jakitea?; ... - Emengo gauzak ere ez jakitea auengaŕia izango al litzake?; Ez, ... baizik. -- Zertzaz itzegin dute zure lagunek?; eztakik nire lagunek zertzaz itzegin duten: Nork eztaki bere lagunek zertzaz itzegin duten?; ... - Zer eztakizu?; ... - Guk al dakigu zuek zertzaz itzegin duzuten?; Ez, zuek ere ... -- Oŕelako irutaz eŕaz irabaziko genukean: Nortzuek irabaziko zuketean eŕaz oŕelako irutaz?; ... - Nola irabaziko zenuketean?; ... - Nik ere oŕelako irutaz irabaziko al nukean?; Ez, zuk ez ... baño. -- Zer esango lukete auŕ oyek azkaria garaiz emango ezpagenie?; maite eztituzutela esango lukete auŕ oyek azkaria garaiz emango ezpazeniete: Nortzuek esango lukete maite ez ditugula azkaria garaiz emango ezpagenie?; ... - Nortzuei esango liekete auŕ oyek maite ez dituztela, azkaria garaiz emango ezpaliete?; ... - Zuri esango al lizukete auŕ oyek, maite ez dituzula azkaria garaiz emango ezpazenie?; Ez, ... baño.

4. Uŕengo alkaŕ-izketa irakuŕi ondo, ta idatzi gero ingi batean, Pernando amezketaŕa nor zan, nun jayo, bere bizia nolakoa zan, zergatik zuen aipu aundia, ta berari buruz beste zerbait ere:

«PERNANDO TA LEGE-GIZONA»

«Pernando bein lege-gizon oyetako batengana joan zan zerbait galdetu beaŕ ziola-ta.

— Zer duzu, Pernando? —galdetu zion lege-gizonak.

— Benetan gauza aundia izan diteken ezer ez, baña galdera bat egin nai-izango nizuke.

— Zuk esan, Pernando.

— Besteak ere, oŕelako zer edo zer ba edo dute, baña leporaño egin dut nik oraintxe...

— Zergatik, ordea...?

— Gizon guztiak bezelaxe, ba-ditut nik nere zordunak eta artzekodunak ere. Nere zordun oyek pake-pakean uzten ditut nik, baña gañean

ditut beti nere artzekodunak, eta ez naute, egun batean ere, pakean uzten. Eta zer egin dezakedan jakin nai-izango nuke nik...

— Legez zer egin dezakezun, alegia...?

— Orixe...!

— Legeak ez dizu, ortan, babesik emango, Pernando. Ta au izango litzake nik emango nizuken aolkua: ortzak erakutsi, dirua eskatzen dizuten guztiei...!

— Ortzak erakutsi...?

— Bai, gizona, bai...! Ortzak erakutsi...!

— Aolku oberik ezin eman zenidan...! Eta zer zoŕ dizudan, esan beaŕ didazu orain.

— Bost laurleko besterik ez, Pernando...!

Bereala Pernando'k lege-gizonari ortzak erakutsi zizkion, eta onen etxetik irten zan».

«Amezketa'ko Pernando» (49-50'gn. oŕialdeetan) Albisu ta Ayerdi'taŕ Anastasio.

LAROGETABIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA, IRAGANKOŔA

EREDUZKO ADITZA, LAGUNTZAĿEAREN ERAEKIN

BALDINTZAERAZKO USTEKIZUNA - GEROALDIA - ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

				-ZU

Ni	(nerau)	IKUSIKO	BA- -*N*-i-N- d) -U-	
	Izakai bakaŕa:			-ZU- -TE
	Ni ta *N*-			----- -TE
				-ZU

Gu	(gerok)	IKUSIKO	BA- -*G*-i-N- d) -U-	
	Izakai askaŕa:			-ZU- -TE
	Gu, *G*- ta -*Z*-			-*Z*- ----- -TE

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

				-T
				--
Zu	(zerori)	IKUSIKO	BA- -*Z*-i-N- d) -U-	
	Izakai bakaŕa:			-GU
	Zu ta -*Z*-			---- -TE
				-T
				--
Zuek	(zerok)	IKUSIKO	BA- -*Z*-i-N- d) -U- -*Z*- -*TE*-	
	Izakai askaŕa:			-GU
	Zuek, -*Z*- ta -*TE*-			--- -(T)E

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai *b*akaŕ eta askaŕai dagozkienak

Ez ditugu jartzen emen adizkin auek, 77'gn. ikaskayan ikusi ziranak diralako.

Ondo ikusi ditekenez, era auek 69'gaŕen ikaskayan agertzen diranak berak dira, aldaketa bi auek eginda: ayen bedegaŕa zan -KE atzizkia kendu da, ta auena dan BA- auŕizkia jaŕi da.

Era auek, aditz iragankoŕai alkartzean, aditzak (-KO edo -GO atzizkiekin) geroaldian jaŕita, «Geroaldia» dagite, ta aditzen izenakaz bakaŕik, «Lenagokoa».

E. b. : Ikusi*ko* baninduzu (zuk ni, gero (geroaldian).
Ikusi baninduzu (zuk ni, len (lenagokoan).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan «Ustekizun»'aren erak (laguntzaīearenak) ipiñi beaŕ dira; ezkeŕ aldean agertzen diran izakai zeaŕezko izenordeai ta lenengo leŕoan jaŕitako beste izenorde adi-yabeai dagozkien artez eta zeaŕez--betetzeko aditzerak, izakai zuzen bakaŕaz, kulatzen ordez, esan eta idatzi :

	Nik	Zuk	Berak	Guk	Zuek	Berak
Neri :		bazenit	...		...	...
Zuri :	Banizu		...	...		...
Berari :	...	...	balio	...	...	...
Guri :		...	...		bazenigute	...
Zuei :	...		...	bagenizue		...
Berai :	...	...	...	...	...	baliete

2. Bigaŕen lauki ontan, bertan agertzen diran iru atzizkiak, goitik berako zeŕendan ipiñita dagozen galdetzeko, adierazle ta izenordeai nola alkartzen zaizkien, kulatzen ordez, esan eta idatzi :

	-ZAZ	-TZAZ	-TAZ
Nor? :		nortzaz?	
Zein? :		... ?	
Zer? :		... ?	
Nortzuek? :		nortzuetzaz?	
Zeintzuek? :		... ?	
Zertzuek? :		... ?	
Au :	Onezaz		...
Ori :	...		ortaz
Ura, a :	...		...
Auek :	Auezaz	...	
Oyek :	...	oyetzaz	
Ayek :	...	...	
Ni :	Nizaz	...	
Zu :	...	zutzaz	
Bera :	...	...	
Gu :	...	...	
Zuek :	...	...	
Berak :	...	...	

3. Esakuntza batzuei buruz emen jartzen diran galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Zutzaz asko itzegingo genieke : Nortzaz itzegingo zeniekete asko? ; ... - Nori itzegingo zeniokete asko? ; ... - Zuetzaz ere asko itzegingo al liokete? ; Ez, ... baño. -- Ulertuko ezpazenit, pozik azalduko nizuke : Nori azalduko zenioke pozik, ulertuko ezpalizu? ; ... - Nork azalduko lidake ulertuko ezpanio? ; ... - Guri azalduko al zenigukete ulertuko ezpagenizue? ; Bai, zuei ere ... -- Etxean ikusiko baninduzu, beste gauzak esango zenizkidake : Nork esango lizkizuke beste gauzak etxean ikusiko bazindu? ; ... - Nori esango nizkioke beste gauzak etxean ikusiko banu? ; ... - Guri ere beste gauzak esango al zenizkigukete etxean ikusiko baginduzute? ; Bai, zuei ere ... -- Urkoarenganako maitasuna, gureganako dugunaren antzekoa izan beaŕ-izango litzake : Zer izan beaŕ-izango litzake zuenganako duzuten maitasunaren antzekoa? ; ... - Nolakoa izan beaŕ-izango litzake urkoarenganako maitasuna? ; ... - Etsayenganako maitasuna ere, zuganako duzunaren antzekoa izan beaŕ-izango al litzake? ; Bai, ... ere ... -- Mendi oyetako zugatzak sutu balira, baseŕitaŕ ayentzat galtze oso aundia izango zitzakean : Zer izango zitzakean baseŕitaŕ oyentzat, mendi oyetako zugatzak sutu balira? ; ... - Nortzuentzat izango zitzakean galtze oso aundia, mendi oyetako zugatzak sutu balira? ; ... - Zuentzat ere galtze oso aundia izango al zitzakean, mendi oyetako zugatzak sutu balira? ; Ez, ... baizik. -- Legutiano'ra eramango baginduzte, oso pozik joango giñake : Nortzuk joango lirake oso pozik, Legutiano'ra eramango balituzte? ; ... - Nola joango ziñakete Legutiano'ra eramango bazinduztee? ; ... - Ni ere oso pozik joango al nintzake, Legutiano'ra eramango banindute? ; Ez, ... baño. -- Yon eta eldu ziranean, zuetzaz gauzak asko edestu zizkiguten : Nortzuetzaz edestu zizkizueten gauzak asko Yon eta eldu ziranean? ; ... - Zer edestu zizueten Yon eta eldu ziranean? ; ... - Nik ere gauzak asko edestu al nizkizuen oyetzaz Yon eta eldu ziranean? ; Ez, ... baizik. -- Argia piztuko balidate, zerbait ikusiko nuke : Nork ikusiko luke zerbait, argia piztuko baliote? ; ... - Zer ikusiko zenuke argia piztuko balizute? ; ... - Guk ere zerbait ikusiko al genuke argia piztuko baligute? ; Bai, zuek ere ... -- Ekaŕi zizkiguten zoŕoak eta egin dizkiguten kutxak erakutsiko genizkizueke : Nori erakutsiko zenizkiokete ekaŕi zizkizueten zoŕoak eta egin dizkizueten kutxak? ; ... - Zer erakutsiko zenigukete? ; ... - Nik erakutsiko al nizkizueke ekaŕi zizkidaten zoŕoak eta egin dizkidaten kutxak? ; Ez, ... baño. -- Eztakit oyan artan ikasleak bidekatuko ez ote zitzaizkigukean :

Zer eztakizu? ; ... - Nork eztaki oyan artan ikasleak bidekatuko ez ote zitzaizkiokean? ; ... - Oyek al dakite oyan artan ikasleak bidekatuko ez ote zitzaizkiekean? ; Ez, oyek ere ... -- Etxetik aterako bazindugu, pozik egongo al ziñake? ; bai, oso pozik egongo nintzake, etxetik aterako baninduzute : Nor egongo litzake oso pozik etxetik aterako bagenu? ; ... - Nola egongo ziñake etxetik aterako bazindugu? ; ... - Gu ere oso pozik egongo al giñake etxetik aterako baginduzute? ; Bayetz uste dut, zuek ere ... -- Ez zenukean oŕela uste-izango agure agurgaŕi oyetzaz : Nork etzukean oŕela uste-izango agure agurgaŕi oyetzaz? ; ... - Nola ez nukean uste-izango agure agurgaŕi oyetzaz? ; ... - Zuek oŕela uste-izango al zenuketean agure agurgaŕi oyetzaz? ; Ez, guk ere ... -- Beaŕ nuena ornitu balidate, nai zenuena egingo nukean : Nork egingo zukean nik nai nuena, beaŕ zuena ornitu baliote? ; ... - Zer egingo zenukean, beaŕ zenuena ornitu balizute? ; ... - Guk ere zuek nai zenutena egingo al genukean, beaŕ genuena ornitu baligute? ; Ez, ... baizik. -- Lanegiteko mai bat egingo bazenigute, askozaz ere, daukaguna baño obea izango litzake : Nolakoa izango litzake, lanegiteko mai bat egingo bagenizue? ; ... - Zein baño obea izango litzake, lanegiteko mai bat egingo banizue? ; ... - Oyek ere lanegiteko mai bat egingo balizuete, askozaz ere, daukazutena baño obea izango al litzake? ; Ez, ... -- Gure artean bizi-izaten, espetxe aren egun txaŕak aiztuko litzaizkizuke : Nori aiztuko litzaizkioke espetxe aren egun txaŕak zuen artean bizi-izaten? ; ... - Nola aiztuko litzaizkidake espetxe aren egun txaŕak? ; ... - Zuei ere espetxe aren egun txaŕak aiztuko al litzaizkizueke gure artean bizi-izaten? ; Bai, guri ere ...

4. Emen jartzen ditugun bertso auek ongi irakurtzean, neuŕiari buruz, irurogemazortzigaŕen ikaskayan eman genituen antzekoak dirala oartu diteke bereala, ots, bakoitiak zazpi izkiñetan eta batoyak seiretan egiñak dagozela, beraz, «zortziko baŕi»'tan. Oŕela, euzkal-bertsoetan iru «zortziko»-mota ditugu : «nagusi» (10-8), «txiki» (8-7) ta «beŕi» (7-6) ; beti *bakoiti* ta *batoyetan* neuŕi oyetzaz ikusteko :

«ARTAZURIKETA»

«.....

ikusi nuanean
nik zure begia,
iruditu zitzaidan
anpolai goŕia.

Ikusi nuanean
nik zure okotza,
iruditu zitzaidan
gaztaña-morkotsa.

Ikusi nuanean
zure belaŕia,
iruditu zitzaidan
azaren oŕia.

Ikusi nuanean
nik zure bulaŕa
iruditu zitzaidan
basoan txondaŕa.

Ikusi nuanean
nik zure suduŕa,
iruditu zitzaidan
lukainka-mutuŕa.

Ikusi nuanean
nik zure mokoŕa,
iruditu zitzaidan
Azpiroz-malkoŕa.

Ikusi nuanean
nik zure agoa,
iruditu zitzaidan
karobi-zuloa.

Ikusi nuanean
nik zure zangoa,
iruditu zitzaidan
auntzadaŕ-makoa».

«Euskaldunak» (75-6-7'gn. oŕialdeetan) Nikolas Ormaetxea «Orixe».

LAROGETAIRUGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ADITZ LAGUNTZAĿEA

BALDINTZAERAZKO USTEKIZUNA - ERAKETAREN BIGAŕEN BIDEA

ARTZAĿE-ADIZKIŃAK - IRUGAŕEN NOTIÑAREN ADI-YABEA 11)

	Bakaŕ	Askaŕ
Neri :	-T	-T
Zuri :	-ZU	-ZU
Berari :	-O	-O
	BA- -L- i) -TZA- -I-	BA- -L- i) -TZA- -I- -ZKI-
Guri :	-GU	-GU
Zuei :	-ZU(T)E	-ZU(T)E
Berai :	-E	-E

Oiturazko erabideaz jaŕaitzean, era auek 71'gaŕen ikaskayan agertzen diranetatik sortzen dira (Baldintzaerazko Urbiĺenarenetatik); beti bezela, ayen -KE atzizkia kentzean eta Ustekizun'aren BA- auŕizkia gañeratzean.

Era berean, geroaldian jaŕitako aditzerai ezartzean (KO edo -GO atzizkiekin), era auek «GEROALDIA» dagite; ta aditzaren izenarekin, «LENAGOKOA»; ikusitako beste eraekin egin dan bezela.

Onela : Aztu*ko* balitzait (guri, gero, aiztu ezkero).
Aztu balitzait (guri, len, aiztu ezkero).

BAI- auŕizkia.

Auŕizki au, Baldintzaerazko Ustekizun'ari, orain arte ikusitako BA- beste auŕizkiaren ordez, gañeratu ezkero, erkatzearen asmo bat dagigu; baña ortarako, aditzai -N beste atzizkia ere erantsi beaŕ zaye (2).

E. b. : Garaiz elduko *bai*litzan (gero elduko balitz bezela).
Ondo egin *bai*luten (len ondo egin balute bezela).
Aztuko *bai*litzaidan (gero aztuko balitzait bezela) (3).

Almenerazko Lenaldi'aren aditzeraekin (126 ta uŕengoko ikaskayak)

(1) Ikusi: 140, 142, 145 ikaskayak.
(2) Ikusi: Azkue, D.
(3) Ikusi: 37, 90 ikaskayak.

erabiĺi ezkero, auŕizki onek, AL- beste auŕizkiaren bitartez adierazten dan zentzuna bera dauka.

E. b. : Erori *bai*zindez! (eroriko *al*zera!).
Aztu *bai*lekio! (aztuko *al*zayo!) (1).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, artez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak ipintzen ditugu; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak diran beste izenorde egiĺeak ere; alkaŕi dagozkion laguntzaĺearen erak, «Ustekizun»'ean, kulatzen ordez, esan eta idatzi:

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		bazindut	...		...	...
Zuk	Baninduzu		...	...		...
Berak	...	...	...	bagindu	...	...
Guk		...	bagenu		...	...
Zuek	...		...	...		bazenituzte
Berak	...	...	...	...	bazinduztee	...

2. Emen agertzen diran esakuntzetan, alde batetik, «Baldintzaerazko geroaldi-urbiĺen»'aren erak ematen ditugu, ta beste aldetik, «Ustekizunezko geroaldi»'arenak; aditzera oyek alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira, lenengoak bigaŕenen bidez eta alderantziz ere, bigaŕenekoak lenengoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Iñoiz *azketsiko ezpaninduzu*, nola bizi-izango nintzake?; ... - Guregana etoŕiko baziña, laisteŕ *sendatuko zindukegu*; ... - Isituki *begiratuko genituke*, ia ezagutzen ote ginduzten; ... - Etxetik *egotziko bagindu*, nora joango giñake gu gizajook?; ... - Gure indaŕ guztiakaz *bultzatuko zinduztekegu*, gure aldamenetik uŕutiratzeko; ... - Okuntza ori *oinpetuko bazenute*, kalte aundia egingo zenidakete; ... - Uste dut *beartuko eninduke*zutela lan zikin ori egiteko; ... - Batzaldi ortan *sarituko bazindute*, pozez beterik geratuko ziñakelakoan gagoz; ... - *Ez* al *gindukezu sorosiko* ezbeaŕ batean ikusiko baginduzu?; ... - Zuen zorigaitzean *arinduko ezpazinduztegu*, ez giñake zuen adiskide onak izango?; ...

(1) Ikusi: 73'gaŕen ikaskaya

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman, besteetan bezela, ta, kulatzen ordez, erantzunak esan eta idatzi :

Zuri esateko nuena aiztuko balitzait, ez zenidake ori emango : Nork elizuke ori emango berari esateko zenuena aiztuko balitzaizu? ; ... - Nola elizuke ori emango? ; ... - Guri emango al zeniguke ori, zuri esateko genuena aiztuko balitzaigu? ; Ez, zuei ere ... -- Ontasun oŕezaz edonun maite-izango zindukete : Nor maite-izango lukete ontasun oŕezaz? ; ... - Nun maite-izango nindukete ontasun onezaz? ; ... - Zuek ere maite-izango al zinduztekete ontasun oŕezaz? ; Bai, ... -- Garaiz ikusi ezpazindugu, nun egongo ziñake orain? ; eztakit orain nun egongo nintzaken, zuek garaiz ikusi ezpaninduzute : Nork eztaki orain nun egongo litzaken, zuek garaiz ikusi ezpazenute? ; ... - Zuek al dakizute orain nun egongo ziñaketen, garaiz ikusi ezpazinduztegu? ; Ez, ... - Eta ume gizajo oyek al dakite orain nun egongo liraken zuek garaiz ikusi ezpazenituzte? ; Ez, ... oyek ere ... -- Aŕaiki ura jan-erazi ziguten eta guziok gexotu giñan : Nori jan-erazi zioten aŕaiki ura? ; ... - Zergatik gexotu ziñaten guziok? ; ... - Ni ere gexotu al nintzan aŕaiki ura jan-erazi zidatelako? ; Bai, zu ere ... -- Agure oyek obeto ulertuko zizueketean, gorago itzegin bazeniete : Nortzuek ulertuko ziguketean obeto, gorago itzegin bagenie? ; ... - Nola ulertuko zizuketean agure oyek, gorago itzegin bazenie? ; ... Guk ere obeto ulertuko al genizukean gorago itzegin bazenigu? ; Bai, zuek ere ... -- Zurekin eraman baginduzu, etzenukean damu-izango : Nork etzukean damu-izango berarekin eraman bazinduzte? ; ... - Nola enukean damu-izango? ; ... - Zuek damu-izango al zenuketean zuekin eraman baginduzute? ; Ez, guk ere ... -- Zenekitena irakasi ezpazenidate, gaur enuke ezer jakingo : Nork eluke ezer jakingo genekiena irakasi ezpagenio? ; ... - Nola etzenuke ezer jakingo- ; ... - Gazte oyek gaur ezer jakingo al lukete, beren aurzaroan zenekitena irakasi ezpazeniete? ; Ez, oyek ere ... -- Agindu zenidana egitea aiztuko etzitzaidala bayeztuko nizuke : Nork bayeztuko lidake agindu niona egitea aiztuko etzitzayola? ; ... - Zer bayeztuko zenidake? ; ... - Zuek bayeztuko al zenigukete agindu genizuena egitea aiztuko ez zitzaizuela? ; Ez, ... baño. -- Ergelkeri oŕezaz ez digute iñoiz ulertu al-izango : Nork eztizue iñoiz ulertu al-izango ergelkeri oŕezaz? ; ... - Nortzuei eztiete iñoiz ulertu al-izango ergelkeri oŕezaz? ; ... - Beren irakasleari iñoiz ulertu al-izango al diote ergelkeri oŕezaz? ; Ez, ... ere ... -- Gure bizia jasangaitza izango litzake onela jaŕaitu ezkero : Noren bizia izango litzake jasangaitza onela jaŕaitu ezkero? ; ... - Nolakoa izango litzake zuen bizia onela jaŕaitu ezkero? ; ... - Zure bizia ere jasangaitza izango al litzake onela jaŕaitu ezkero? ; Bai, ... -- Obeto ezagutu baninduzu, ez zitzaizukean otuko nitzaz bayeztu duzuna esatea : Nori ez zitzayokean otuko zutzaz bayeztu duena esatea, obeto ezagutu bazindu? ; ... - Zer ez zitzaidakean otuko obeto ezagutu bazindut? ; ... - Zuei gutzaz bayeztu duzutena esatea otuko al zitzaizuekean, obeto ezagutu baginduzute? ; Ez, eztut uste ... -- Bitartean beren oiturazko bakartasunean jaŕaituko zitzaketean : Nortzuk jaŕaituko zitzaketean beren oiturazko bakartasunean bitartean? ; ... - Nola jaŕaituko zitzaketean bitartean? ; ... - Zu ere zure bakartasunean jaŕaituko al ziñakean bitartean? ; Ez, ... baizik. -- Guziok euzkeraren alde beaŕ duguna egingo bagenu, ez genuke ikusiko galtzeko kinkan : Nola ez zenukete ikusiko euzkera, beraren alde guziok beaŕ duzutena egingo bazenute? ; ... - Zer ez zenukete galtzeko kinkan ikusiko, beraren alde guziok beaŕ duguna egingo bagenu? ; ... - Zuk ere euzkera galtzeko kinkan ikusiko al zenuke, guziok beraren alde beaŕ duguna egingo bagenu? ; Ez, nik ere ... -- Gure osasunerako ona izango bide litzake eskualde menditsu artan uda igarotzea : Zertarako izango bide litzake ona eskualde menditsu artan uda igarotzea? ; ... - Zer eta nun igarotzea izango bide litzake ona zuen osasunerako? ; ... - Nire osasunerako ere ona izango bide litzake eskualde menditsu artan uda igarotzea? ; Ez, ... baño. -- Ustekoa da oŕen laisteŕ indarga geratuko ez zitzaigukeala : Norentzat da ustekoa oŕen laisteŕ indarga geratuko ez zitzaizuekeala? ; ... Nola uste duzute geratuko ez zitzaizuekeala? ; ... - Niri ere oŕen laisteŕ indarga geratuko ez zitzaidakeala ustekoa al da? ; Bai, zuri ere ...

4. Emen, lamiñai buruz egindako idazti baten txataltxoa damagu. Ia, ondo irakurtzean, lamiñen beŕia jasotzen ote dan ; eta gero, lamiñen antzeko gayezko eztiran beste euzkal-izakien izenak bildu ta idatzi beaŕ dira :

«EUZKALDUN UMEAI»

«Eskuetan daukazu, ume maite, idazti polita, zuretzat egiña. Beaŕ zenuena, ez ote? Uste oŕek eraginda egin dizut nik.

Ipuin-zale dira umetxoak, dan-danak, nik uste. Zu be bai, igaŕi barik gañera. Aspaldi dala ibiĭi natzaizu umetxoen artean, zeu lakoxe neska-mutikoen artean, euzkeraz eta kristiñau-ikasbidea irakasten.

Ludi'ko umeak bardin-samaŕak dira, diñosku R. Tagore, India'ko olerkari eztiak : bizkoŕ, alai, pinpirin, jolas-zale. Oŕez gain ipuin-zale. Bai ta euzkaldun umeak be.

Emen daukazute idazti au, esku-artean, ipuin antzera osotua; beronen gaya, neuk asmatutako edeskizun luzea da. Alan be, ba-dituzute berton, askotxo izan be, ari ta oni itaundu ta entzunik, eŕiaren aotik jasotako elezaŕ eta alegiak.

Zuek ba-duzute lamiñen entzutea, ezta? Izena daroan guztia ei da; lamiñak be, bada, naitaez izan beaŕ. Leenago ba-zen lamiñarik gure artean. Gaur ez ete? Erderazko beste batzuen antza daukate, zer askotan beintzat, gure lamiñak; ituŕi, ibai ta urmael ondoetan bizi dira; ez dituzute gaizkīe, sorgiñak lez, onak baño, idazti au irakuŕiaz ikusiko duzutenez. Ari ta oni on-egiñez bizi dira ur-ertzean beti oŕaztu ta oŕaztu diarduten emakumetxo oŕazi-zale ta abots meedunak. Umetxoak, gabaz, ez dutela lorik egin gura? Eurak ezaŕiko dute olakoaren betazaletan loaren eztia. Gaste bat, ilunduta, galdu egin dala? Eurak esango diote bere etxeraño daroan bideari nundik eldu.

Txomin eta Itziaŕ, Beŕiz'ko neba-aŕeba gaztetxo biak, bein, Oiz'ko Kristobal Done jayetan, galdu egin ziran, ekaitz bildurgaŕi baten ondoren; ango lamiña Mari Buŕika'k atera zituen estualditik, gau berandu zala. Eskeŕ oŕen ordez, eŕiz-eŕi bialdu zituen oŕazi bīa. Eta oŕetan ibīi zitzaizkigun aste bi osoan, Markiña, Ondaŕoa, Lekeitio, Elantxobe, Artia, Gernika, Busturia, Sukaŕieta, Mundaka, Bermeo, Bakio, Gorlitz, Getxo, Lamiako, Artxanda, Usansolo, Zornotza ta Maume'n zeaŕ, oŕazi batze edeŕak egiñik».

«Lamiñak» (7-8'gaŕen oŕialdeetan) A. Onaindia.

LAROGETALAUGAŔEN IKASKAYA

SENDOTZEKOAK

-ER- erdizkiari ta *-XE* atzizkiari, bi itzatal auei, oŕela deitzen diegu: SENDOTZEKOAK (-XE'ri buruz 42'gaŕen ikaskayan zerbait agertzen da) (1). Lenengoa norekiko izenordeai eransten zaye, ta bigaŕena ageŕerazleai ta toki ta aldiarekiko aditzondoai; izenorde ageŕerazle batzuekin berdin erabil ditezke naiz bat naiz bestea; ta batzuetan biak itz batean berean be joan ditezke.

Onela eratzen diran izenorde, adierazle ta aditzondo guzti auek, esakuntza batean asmo nagusia adierazi beaŕ duten itzak izaten dira. Ta auxe bera, alderantziz, onela ere esan dezakegu: Aipatutako norekiko izenorde, izenorde ageŕerazle ta aditzondoak, esakuntzaren asmo nagusia nabaritzeko erabiltzen diranean, bereziki, sendotzeko eraz darabilzkigu (2).

-ER- erdizkia ta -XE atzizkiaren zentzuna, BERBERA'rena da.

-ER- erdizkia izenorde bakoitzaren lenengo izkiaren ondotik jartzen da; ta alkartze au guztiz buruturik izan dedin, izenorde bakoitzari bere malako adierazle bat gañeratzen zayo; ta irugaŕen notiñerako berezitasun au gertatzen da: bakaŕ danean berari iru ageŕerazleak eransten zaizkio, ta askaŕ baldin bada, bi: lenengoak *au*, *ori* ta *a* dira, ta bigaŕenak *ak* eta *ok*. Onela:

Ni	NERAU	(N-er-au)	(Ni	- berbera	- au)
Zu	ZERORI	(Z-er-ori)	(Zu	- berbera	- ori)
Bera	BERAU	(B-er-au)	(Bera	- berbera	- au)
Bera	BERORI	(B-er-ori) (3)	(Bera	- berbera	- ori)
Bera	BERA	(B-er-a)	(Bera	- berbera	- a)
Gu	GEROK	(G-er-ok)	(Gu	- berberak	- auek)
Zuek	ZEROK	(Z-er-ok)	(Zuek	- berberak	- oyek)
Berak	BEROK	(B-er-ok)	(Berak	- berberak	- auek - oyek)
Berak	BERAK	(B-er-ak)	(Berak	- berberak	- ayek)

Len ere esan dugunez, ba-dakigu euzkeraz eztagoela irugaŕen notiñaren egiazko izenordea, ta notin oŕen asmoa adierazteko, sendotua da-

(1) Ikusi: 90'gaŕen ikaskaya.
(2) Ikusi: Altube «Erderismos» ta 29'gaŕen ikaskaya.
(3) Ikusi: 4'gaŕen ikaskaya.

goen BERA darabilgula. BERA au onela bide dago eratua: BI edo izan zala uste dan izenorde baten *B-* lenengo izkia, asieran aipatu dugun *-ER-* ezdizkia ta *A* adierazlea alkartzean.

BERA irugaŕen maĪakoa da ta, askotan, lenengo ta bigaŕen maĪakoen ordez erabiltzen da, beti BERBERA'ren zenzunaz; ta «Berau»'en ordez, AU BERA be esaten da; bai ta «Berori»'en ordez, ORI BERA ere.

Bizkayerazko norekiko izenorde sendotuak auek dira: NEU; ZEU; BERAU, BERORI, BERA; GEU; ZEUEK, ZEUBEK; EUROK, EURAK.

BERA sendotuaren eratoŕita, aditzondo auek dauzkagu:

BERTON (emen edo oŕ)	BERTAN (an)
BERTOTIK (emendik edo ortik)	BERTATIK (andik)
BERTORA (ona edo oŕa)	BERTARA (ara)

eta Izen-jokoan dagozen beste atzizkiekin berdin egin diteke: BERTORAÑO, BERTORUNTZ, ...

NOR galdetzekoari erantsita, NORBERA dagi (Norbait bera, edo bakoitza'ren zentzunaz).

Bizkayeraz BERAK'en ordez, EURAK esaten da, lenago be ikusi dugunez.

B- ta -ER-'en alkartzean egiten dan BER itzatala beŕiztu diteke, adierazpenari indaŕ geyago emateko; onela:

*BERBER*AU (bera-bera au) - *BERBER*TAN (bera-bera an).

«Bera» ta «Berbera»'en bidez adierazten dan sendotzearen asmoa, oyen antzeko beste izen beŕiztuen bidez ere egiten da, oso aipagaŕiak diran esakerak tajutzen.

E. b.: Esan nizun *ordu orduan* (Esan nizun ordu berean).

«Yayo nintzan *egun egunean*» (Yayo nintzan egun berean) (1).

Eta beŕiztuta ageŕ ditezken itzai, biai, beste atzizki bera erantsi ezkero, esakerak beste zentzuna artzen dute.

Onela: «Zortzian zortzian» (zortzi egunetik zortzi egunera).

«IĪean iĪean» (iĪe guztietan) (2).

«Egunean eguneangoa» (egun guztietakoa) (3).

-XE edo -TXE bigaŕen itzatala, ageŕerazleai ta toki ta aldiarekiko aditzondoai eransten zaye. Onela:

(1) Azkue, «El Vascuence y varias lenguas cultas», 72.
(2) Azkue, «El Vascuence y varias lenguas cultas», 72.
(3) Azkue, M. 345. Ikusi: 36'gaŕen ikaskaya.

Au	:	AUXE	=	BERAU	Emen	:	EMENTXE	= BERTON
Ori	:	ORIXE	=	BERORI	Oŕ	:	ORTXE	= BERTON
A	:	AXE, URAXE	=	BERA	An	:	ANTXE	= BERTAN
Auek	:	AUETXEK	=	BEROK	Orain	:	ORAINTXE (OINTXE, ONTXE)	= ORAIN BERTAN
Oyek	:	OYETXEK	=	BEROK	Orduan	:	ORDUANTXE (ORDUXEAN)	= ORDUAN BERTAN
Ayek	:	AYETXEK	=	BERAK				

-ER- eta -XE, batzuetan, itz berean agertzen dira: e. b.: *BERAUXE, BERORIXE, BERAXE, BERTANTXE, BEREALAXE*, ...

-XE atzizki sendogaŕi au, esandako itzai izen-jokoaren atzizkiak alkartzen zaizkienean, atzizki oyen atzetik jartzen da, auekin ezik: -A, -K, -I (-RI), -KIN, -GAZ (eta G-'az asten diranak, auek bezelakoak: -GAN, -GANA, eta abaŕ). -TIK atzizkiarekin erdian sartzen da, -K auŕetik).

E. b.: Orta*ra*, Orta*raxe* - Ordu*an*, Ordu*antxe* - Oŕelako*a*, Oŕelako*xea* - O*ŕek*, O*ŕexek* - On*i*, On*exeri* - Aue*kin*, Aue*xekin* - Are*gaz*, Are*xegaz* - Onen*gana*, One*xegana* - And*ik*, And*ixek* - Ordu*tik*, Ordu*tixek*.

A-, auŕizkia bezela, BERBERA'ren zentzunaz erabil diteke.

Onela: *A*MEN = Emen bertan; *A*OŔ = Oŕ bertan; *A*ORAIN = Orain bertan; *A*ONELAN (laburtuta: *A*OLAN) = Onelaxe; ...

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, zeaŕez-betetzekoren zentzunezko izenordeak agertzen dira; eta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, bayeztean eta ezaztean bakoitza, irugaŕen notiñen adi-yabeak jaŕita dagoz. Alkaŕi dagozkion «Ustekizun»'aren adizkin artzaĪeak ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Adi-yabea	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Bera (bai) :	...	balitzaizu	...	...	...	balitzaye
Bera (ez) :	...	...	ezpalitzayo	...	ezpalitzaizue	...
Berak (bai) :	Balitzaizkit	...	...	...	...	balitzaizkie
Berak (ez) :	...	ezpalitzaizkizu	...	ezpalitzaizkigu	...	...

2. Emen ematen ditugun esakuntzetan, «Baldintzaerazko lenagoko geroaldi»'aren erak alde batetik, eta «Ustekizunerazko lenagoko»'arenak

bestetik agertzen dira; aditzera oyek alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira, lenengoak bigaŕenen bidez eta alderantziz, bigaŕenekoak lenengoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Zure indaŕ guziak ondo *batu bazenitu*, estualdi ortatik eŕezago irtengo ziñakean; ... - Ez uste izan gure alkartasuna eŕaz *beretxiko genukeala*; ... - Ume gaixo oyek beren lagunengandik *bereiztu balizkigute*, gaur, len bezin menak izango lirake; ... - Ostera be auŕ biuŕi oyek zuen mataza guziak *erainduko zizkizueketean*; ... - Zure janzkiak *uŕatu bagenizkizue*, zer egingo zenuketean?; ... - Luŕune guzti ori ondo *landuko nizuekean*, nai-izan bazenute; ... - Gure mendietan areitzak *landatu balizkigute*, egokiago izango zitzakean guziontzat; ... - Eŕi ortako garitza beste edonork baño obeto *igitaituko zieketean*; ... - Okindegi artan nai genituen ogiak *oratu balizkigute*, ez giñakean zuengana etoŕiko; ... - Zuen artean adeyez *onartuko gindukezuteala* uste-izan genuen; ...

3. Emen idazten ditugun galderai erantzun egoki bana eman, kulatzen ordez, esaten eta idaztean:

Oñak geyago anpatu balitzaizkizu, sendagilearengana eramango zindukedan: Nor eramango zenukean sendagilearengana, oñak geyago anpatu balitzaizkio?; ... - Norengana eramango nindukezuan, oñak geyago anpatu balitzaizkit? ... - Nik eramango al zinduztekedan sendagilearengana oñak geyago anpatu balitzaizkizue?; Ez, ... baño. -- Obeto azi bazinduztee, gaur zuen eŕian eredu izango ziñakete: Nor izango litzake gaur bere eŕian eredu, obeto azi balute?; ... - Nun izango giñake gaur eredu, obeto azi baginduzte?; ... - Zu ere zure eŕian gaur eredu izango al ziñake, obeto azi bazindute?; Ez, ... baizik. -- Zerbait geitu baliete, ez ote zitzaketean gose-izango: Nor ez ote zitzakean gose-izango zerbait geitu baliote?; ... - Nola ez ote ziñaketean gose-izango?; ... - Gu gose-izango ote giñakean zerbait geitu baligute?; Ez, ... -- Itsu bera beti antxe egongo zitzakean: Nor egongo zitzakean beti antxe?; ... - Nun egongo zitzakean beti itsu bera?; ... - Zuek ere beti antxe egongo al ziñaketean?; Ez, ... baño. -- Basati oyei Siñismen'aren bide ona erakutsi ezpalitzaye, gaur oindiño ezigaitzak izango lirake: Nortzuk izango lirake ezigaitzak gaur oindiño, Siñismen'aren bide ona erakutsi ezpalitzaye?; ... - Zer izango lirake gaur oindiño basati oyek, Siñismen'aren bide ona erakutsi ezpalitzaye?; ... - Zuek ere gaur oindiño ezigaitzak izango al ziñakete, Siñismen'aren bide ona erakutsi ezpalitzaizue?; Ez, ... baizik. -- Sua garaiz piztu bazenidate, bazkaria obeto edo egingo

nizuekean: Nortzuei egingo zeniekean obeto edo bazkaria, sua garaiz piztu balizute?; ... - Nola egingo zenigukean bazkaria, sua garaiz piztu balizute?; ... - Guk ere bazkaria obeto edo egingo al genizuekean, sua garaiz piztu baligute?; Bai, zuek ere ... -- Iskanbila lazkoŕak eragin oi zituzten beti: Nork eragin oi zituen beti iskanbila lazkoŕak?; ... - Zer eragin oi zuten beti?; ... - Zuk ere beti iskanbila lazkoŕak eragin oi zenituen?; Ez, ... baizik. -- Gauza ez bide da diñoten bezela: Zer ez bide da diñoten bezela?; ... - Nola ez bide da gauza?; ... - Gauza zuk diñozun bezela al da?; Ez, ... -- Norbera, itzaldi ura entzutean, isilduko zitzakean: Nor isilduko zitzakean itzaldi ura entzutean?; ... - Nola isilduko zitzakean norbera?; ... - Zuek ere itzaldi ura entzutean isilduko al ziñaketean?; Bai, gu ere ... -- Edendu bazinduztee ilen ziñaketean, noski, bereala: Nor ilen zitzakean, noski, bereala, edendu zalute?; ... - Noiz ilen nintzakean, noski, edendu banindute?; ... - Zu ere bereala ilen al ziñakean, noski, edendu bazindute?; Bai, ni ere ... -- Goŕ berau andixek elduko zitzaigukean: Nor elduko zitzaizuekean andixek?; ... - Nundik elduko zitzaizuekean goŕ berau?; ... - Bere adiskideai ere elduko al zitzayekean goŕ berau andixek?; Bai, ... ere ... -- Zure aipuan orbandu bazindute, gizatxarkeri bat jaukiko zuketean: Zer jaukiko zuketean nire aipuan orbandu banindute?; ... - Nola jaukiko zuketean gizatxarkeri bat?; ... - Guk ere gizatxarkeri bat jaukiko al genukean zure aipuan orbandu bazindugu?; Bai, zuek ere ... -- Bere eritasuna garaiz sendatu baliote, gaur gurekin ementxe egongo litzake: Nor egongo litzake gaur gurekin ementxe, bere eritasuna garaiz sendatu baliote?; ... - Nun egongo litzake gaur gurekin, bere eritasuna garaiz sendatu baliote?; ... - Ni ere gaur zuekin ementxe egongo al nintzake, nire eritasuna garaiz sendatu balidate?; Bai, zu ere ... -- Orduan zerori mintzatu baziña, uste dut bereala azketsiko ninduketeala: Nor uste duzu azketsiko zuketeala bereala, orduan nerau mintzatu banintz?; ... - Noiz uste duzu azketsiko zuketeala, orduan zeuek mintzatu baziñate?; ... - Orduan geu ere mintzatu bagiña, uste al duzu bereala azketsiko ninduketeala?; Bai, ... ere ...

4. Ondo irakuŕi emen damagun ipuin baten alkaŕ-izketa; gero, bertan aipatzen diran Eŕi'ak nun dagozen, zaldi ta otsoak nolako abereak diran, ango sendiek zenbat ume eukitzen omen duten, eta ipuiñari buruz dakizkizuten beste zertzeladak esan edo ingi batean idatzi:

«OTSOAK ETA ARTZAK»

— Bein Eŕusia'n sendi bat bizi zan, Ego-aldeko luŕalde edeŕ eta bigun batean. Sendi au ez zan ain aundia ere: aita, ama, iru seme, alaba bi ta aŕeba iñosu bat ziran.

— Etzala sendi aundia diñozu? Zenbatekoa beaŕ duzu, bada, orduan, aundia izateko?

— Nik esan nai dut sendi au etzala aundia Eŕusia'rako, alegia; luŕalde artan amabi ta amalau umedun sendiak asko izan oi dira ta.

— Sendi onek Lituania'ra joan beaŕ-izan zuen, aldi luzetxu bat igarotzera, aitona zaaŕ bat, an, gaixorik zeukatelakotz. ... Eluŕak ordurako luŕa estali zuen. Sendi guzia artzen zuen zalburdi aundia, ara joateko, patiñen gañean ipiñi zuten.

— Zer dira patiñak, zu?

— Patiñak? Eluŕ eta izotza dagozenean, zalburdiai gurpiłen azpian ipintzen zaizkien galtzairuzko gauza batzuk. Oñetakoak bezela. Zalburdiari zortzi zaldi on eta indartsuak lotu zizkioten, eta ba-zijoazen astiro-astiro bidea luzea zalako eta zaldien indaŕak basoa igarotzeko gorde beaŕ. ... Luŕalde artako basoak otsoz beteak dira. ... Eldu dira basora ... Zaldiak arin doaz, azkartasun berdiñean; ... baña bat-batean, uŕutian ¡ououou! oŕo izugaŕia entzun zan.

— «Otsoak!!, deadaŕ egin zuen zaldi-zañak; otsoak!!

— «Jo zaldiak, Nikita, esan zion nagusiak (Bogoslafe jaunak), jo eŕuki gabe, alegindu ari basotik lenbailen irtetzeko, otsoak uŕeratu baño len».

Nikita'k indartsu darabil, zigoŕa; zaldiak ikara baten aizea bezin arin doaz. Baña oŕoak eta uluak uŕeratzen datoz. Bilduŕ izuak egoak eman dizkie zaldiai.

— «Emen datoz, emen dira!! ... Bosteun baitira gutxienez!!».

— «Galduak gera!», zion Bogoslafe jaunak.

— «Ez, ene nagusi maitea; gaizkatuko gera oraindik, Jaungoikoa'k laguntzen bagaitu. Nik ba-dakit basetxe bat, emendik eun uŕatsera. Ate aundia zabalik badago, gaizkatuak izango gera».

«Zuentzat» (163-4-5'gn. oŕialdeetan) Azpeitia'taŕ Julene.

LAROGETABOSKAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

AGINTZERA

Len, 38'gaŕen ikaskayan, era au euzkal-aditzaren arau orokaŕetik at ari dala esan genuen; beste era ta aldi guziak, oñaŕizkoak diran bi eratik sortzen diralarik: Tinkierazko ORAIÑALDI ta LENALDI'tik.

Era ontan aldi bakaŕa dugu: «oraiñaldia». Ezta ongi ulertzen agintzeraren «lenaldia»; «geroaldia» bai, ordea, ta Azkue'k (M. 665, 9.ª) uste zuenez, noizpait izan zan, gaur ezagutzen eztan eta berezia zan bedegaŕaz.

Era ontan sei notiñak ageŕerazten ditugu, beste izkuntzetan egiten eztanez; oyetan ez damate lenengo notiña (bakaŕa dan lenengo notiña gutxienez) izpide ontaz edo: Agintzearen eginkizuna AGINTZEA danezkero, agintzeko, bigaŕen edo irugaŕen notiña beaŕa dala, agintzen dana betetzeko, iñork ezpaitio bere buruari agintzen.

Emen notin guziak agertzeko izpidea (Azkue'gandik ere artzen dugu, M. 664-5.ª), ontan dago: Agintzeraren eginkizuna ezta bakaŕik agintzekoa, beste batzuk baño: Onela, lenengo notiñentzat, asmoa «erabakitzekoa» da; bigaŕenentzat, «agintza», «eskaria», «aŕentza»; ta irugaŕenentzat, «mezua».

LAGUNTZAŁE IRAGANGAITZAREN ERA OROKAŔA

Ni	Izan	NADIN	(N- a) -DI-	-N)
Zu	Izan	ZAITEZ	(Z- a -IT- e)	-Z)
Bera	Izan	BEDI	(B- e) -DI)	
Gu	Izan	GAITEZEN	(G- a) -IT- e)	-Z- e) -N)
Zuek	Izan	ZAITEZTE	(Z- a) -IT- e)	-Z- -TE)
Berak	Izan	BITEZ	(B- -IT- e)	-Z)

Era auek: Nadin, Zaitez, ..., eztira iñoiz bakaŕik erabiltzen, aditzaren izen bat laguntzean baño; ta oŕela eratzen dan adizkiña, aditzaren izenarekin doalako, igaroaldiaren itxura eukiaŕen, bere zentzuna, zearo, oraiñaldiarena da.

Jaŕitako erak begiratzean auxe oaŕ diteke: Irugaŕen notiñak B-'az asten diralarik, izki au, era ontan, beren bedegaŕa dala; ta ba-liteke,

auŕeko ikaskayan aipatu dugunez, aspaldiko BI irugaŕen notiñaren izenordearenetik etortzea.

Bere Agintzera'n ipiñi ditugun laguntzaīearen era oyek, eztira sortzen IZAN aditz-izenatik, EDIN'etik baizik. Aditz-izen au noizpait izan zala uste da, baña ezta ezagutu, ta gaur ere ezta erabiltzen itz lotugabea bezela.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, -ER- erdizki ta -XE (edo: -TXE) atziskiarekin, ezkeŕ-aldean eta bakoitzerako damazkigun izenorde, ageŕerazle ta aditzondoak nola jokatzen duten ageŕerazi; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

			-ER-	-XE (edo: -TXE)	
Ni	+	au	Nerau	Au	Auxe
Zu	+	ori	...	Ori	...
Bera	+	au	...	Ura, a	...
Bera	+	ori	...	Auek	Auetxek
Bera	+	a	...	Oyek	...
Gu	+	ok	Gerok	Ayek	...
Zuek	+	ok	...	Emen	Ementxe
Berak	+	ok	...	Oŕ	...
Berak	+	ak	...	An	...
				Orain	...
				Orduan	...

2. Orain ematen ditugun esakuntzetan, Baldintzaerazko Ustekizun'aren «geroaldi» ta «lenagoko» aditzera artzaīeak agertzen dira; alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira aditzera oyek, lenengoak bigaŕenen bidez eta alderantziz, bigaŕenekoak lenengoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idaztko:

Emen egotea *eragotziko balitzait*, eztakit nora joango nintzaken; ... - Bide obeak *erakutsi balitzaizkizu*, ustekoa da bidekatuko ez ziñakeala; ... - Gure etoŕera *iragaŕiko ezpalitzayo*, ulertzekoa izango litzake emen ez egotea; ... - Geyago *aŕendu balitzaigu*, apika amor-egingo genukean; ... - Ainbeste *auŕeztuko balitzaizkizue*, zuen alegin guztiak alpeŕik izango lirake; ... - Beren soñekoak *uŕatu balitzaizkie*, ez zitzaketean beren bidean jaŕaituko; ... - Oŕela *naŕastuko balitzait*, eztakit zer egingo nioken;

... - Koipe ta urdai oyek *nastatu balitzaizkigu*, guzia ondatuko zitzaigukean; ... - Gure arazo berezi ayek *lardaskatuko balitzaizkigu*, gure galera oso aundia izango litzake; ... - Zuen adiskidea *moskortu balitzaizue*, nora eramango zenuketean?; ...

3. Emen jartzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Izan gaitezen onak, gero ta obeak!: Norenak dira asmo on oyek?; ... - Nolakoak dira zuen asmoak?; ... - Nireak al dira asmo on oyek?; Ez, ... baño. -- Oraintxe gure zorion-aguŕak bialdu dizkiegu: Zer bialdu diezute oraintxe?; ... - Noiz bialdu dizkiezute zuen zorion-aguŕak; ... - Nik bialdu al dizkiet nire zorion-aguŕak?; Ez, ... baizik. -- Dirua amaituko balitzaizu, daukagunaren zerbait emango genizuke: Nork emango lidake daukanaren zerbait, dirua amaituko balitzait?; ... - Nori emango zeniokete daukazutenaren zerbait dirua amaituko balitzayo?; ... - Nik emango al nieke oyei, daukadanaren zerbait, dirua amaituko balitzaye?; Ez, ... baño. -- Andik garaiz atera baninduzute, enintzake orain gexorik egongo: Nor elitzake orain gexorik egongo, andik garaiz atera bazenute?; ... - Nola enintzake orain gexorik egongo?; ... - Zuek gexorik egongo al ziñakete, andik garaiz atera bazinduztegu?; Ez, gu ere ... -- Oraingo totel oyek garaiz zainduta izan balira, gaur guk bezela itzegingo lukete: Nortzuek itzegingo lukete gaur zuek bezela, garaiz zainduta izan balira?; ... - Nola itzegingo lukete gaur oraingo totel oyek, garaiz zainduta izan balira?; ... - Guk ere gaur zuek bezela itzegingo al genuke, garaiz zainduta izan bagiña?; Bai, zuek ere ... -- Igo zaitezte etxera ta azkaria ipiñiko dizuegu: Nortzuei ipiñiko diezute azkaria etxera igoten badira?; ... - Zer ipiñiko diguzute etxera igo ezkero?; ... - Nik ipiñiko al dizuet azkaria etxera igoten bazerate?; Ez, ... baño. -- Antxe aurkituko gindukezutean, joan baziñate: Nor aurkituko genukean antxe, joan bagiña?; ... - Nortzuek aurkituko zinduzteketean antxe, joan balira?; ... - Nik ere aurkituko al zinduztekedan antxe, joan banintz?; Bai, zuk ere ... -- Isiltasun arek bilduŕez beteko ginduke zuekin egongo ezpagiña: Nor beteko luke bilduŕez isiltasun arek, gurekin egongo ezpalitz?; ... - Zerk beteko zinduzteke bilduŕez, gurekin egongo ezpaziñate?; ... - Ni ere bilduŕez beteko al ninduke isiltasun arek, zuekin egongo ezpanintz?; Bai, zu ere ... -- Nik nai nituen eunak ebagi bazenizkidate, erosiko nizkizueke: Nork erosiko lizkizueke, nai zituen eunak ebagi bazenizkiote?; ... - Zer erosiko zeniguke, nai zenituen eunak ebagi bagenizkizu?; .. - Zuek erosiko al zenizkigukete, nai zenituzten eunak ebagiko bagenizkizue?;

Bai, guk ere ... -- Orduantxe ukuzi baginduzte, edonor bezin garbi etoŕiko giñakean: Nor etoŕiko zitzakean edonor bezin garbi, orduantxe ukuzi balute?; ... - Nola etoŕiko ziñaketean, orduantxe ukuzi bazinduztee?; ... - Ni ere edonor bezin garbi etoŕiko al nintzakean, orduantxe ukuzi banindute?; Bai, zu ere. -- Itzuli zaitezte laisteŕ Gorbea'ko zuen txangotik: Nori esaten diozute Gorbea'ko bere txangotik laisteŕ itzultzeko?; ... - Guri esaten al diguzute Gorbea'ko gure txangotik laisteŕ itzultzeko?; ... - Nik esaten al dizuet Gorbea'ko zuen txangotik laisteŕ itzultzeko?; Ez, ... baizik. -- Donetsia izan bedi zure izena!: Nori esaten diogu bere izena donetsia izateko?; ... - Zer esaten diogu Yaungoikoa'ri?; ... - Guri esaten al diguzute gure izena donetsia izateko?; Ez, ... baño. -- Zuen ikastetxea uztuko zitzaizuekean, gayak era berean irakasten jaŕaitu baziñate: Nori uztuko zitzayokean bere ikastetxea, gayak era berean irakasten jaŕaitu balitz?; ... - Nola uztuko zitzaigukean gure ikastetxea?; ... - Niri ere nire ikastetxea uztuko al zitzaidakean, gayak era berean irakasten jaŕaitu banintz?; Bai, zuri ere ... -- Ezkutatu gaitezen, ementxe gu ikusi baño lenago: Nortzuek nai dute ezkutatu, ementxe berak ikusi baño lenago?; ... - Noiz ezkutatu nai duzute?; ... - Nik ere ezkutatu nai al dut, ementxe ni ikusi baño lenago?; Ez, ... baizik. -- Jakiak uŕitu balira, asko gosez ilko zitzakean: Nortzuk ilko zitzaketean gosez, jakiak uŕitu balira?; ... - Nola ilko zitzakean asko gosez?; ... - Zuek ere gosez ilko al ziñaketean, jakiak uŕitu balira?; Bai, gu ere ...

4. Irakuŕi ondo emen aipatzen dugun idaztiaren txatala, ta gero, bat-banaka, bertan agertzen zaizkigun itzak, eliztiari buruz, zer diran aztertu ta esan edo idatzi:

«MIXIOLARI JOKABIDE ONEK KALTE EGIN ZIGUN»

Itz auek eztira alpeŕik galtzekoak. Zenbat aldiz, Mixiolariei toki askotan egin zayen aŕera txaŕa ez ote da izan jokabide txaŕ onen eŕuz! Koppers'ek diñoenez, oŕelako makuŕak maiz egin izan dituzte, bai Misiolari protestanteek eta bai katolikoek ere. Eŕi oyen biotzetara uŕeratu beaŕean eta beren jatoŕizko jakituria kutunkiro xuŕupatu beaŕean —eta lenen-lenengo beren izkuntza, au baita giltza— joan izan dira, beste gabe, gurea ayei sartzera. Gure izkuntza, gure oiturak, gure kultura, bizimodua ta erlijioa ere beren jatoŕizko erlijioaz batere ikustekorik ezpalu bezela. «Zuek zozo batzuk zerate, zuen gauzak txorakeriak besterik eztira, utzi itzazute oyek bein-betiko eta gureak artu...». Jainkoa'k,

ordea, eztu olakorik nai. Edozein Eŕi'k duen berezitasun eta jatoŕizko ondasuna gorde ta zaindu beaŕ da. Gure Aita Done Yon XXIII'gaŕenak, oraintsu bere «Mater et Magistra»'n argi ta ozenki aldaŕikatu du ori.

Ludi guzian dira ezagunak Schmidt jaunak egin dituen lanak, antziñako Eŕi'ak diralako oyei buruz. Eŕi auek, alatzez eta Yainkoa'k ala nairik, gaur arte iraun izan dute beren antziña-kutsu aŕigaŕian eta alde askotatik gizatasunaren beerengo maĺan aurkitzen dirala ezin uka diteke. Oyetakoak dira Australia'ko zenbait gizeli: kulin, kurnai, yuin... Apirka'ko negrilloak, boskimanoak. Asia'ko pigmeoak, samojedoak, korjakoak, ainuak, eskimalak. Ipaŕ-Amerika'n, beŕiz, algonkinoak, Kalifornia'ko noka, penuti, yuki. Amazonas-aldean ere ba-dira beste batzuk, Tierra de Fuego'n, eta abaŕ. Ludi'aren bazteŕ-aldeetan eta batak bestearen beŕi jakin gabe bizi diran Eŕi xume auek, bada, bizi-bizia atxiki dute Yainko bekaŕaren siñestea. Gusinde ta Koppers'ek yamanen artean aurkitu zuten bezela».

«Kristau fedearen sustraiak - Jainkoa» (20-21'gn. oŕialdeetan) Luis Villasante Aita, O.F.M.

LAROGETASEIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ADITZ IRAGANGAITZEN JOKO BILDUA

AGINTZERA

EZAGUNAK DIRAN ADITZ AUEN ERA BILDUAK

IZAN			JOAN			ETOŔI	
N- a)	-DI-	-N	N-	-OA-	-N	N- a) -TOŔ-	e) -N
Z- a) -IT-	e) -Z		Z-	-OA- -Z		Z- a) -TO(R)- -Z	
B-	e) -DI		B- i) -OA	(1)		B- e) -TOŔ	
G- a) -IT-	e) -Z- e)	-N	G-	-OA -Z- e)	-N	G- a) -TO(R)- -Z-	e) -N
Z- a) -IT-	e) -Z- -TE		Z-	-OA- -Z- -(T)E		Z- a) -TO(R)- -Z-	-(T)E
B-	-IT- e) -Z		B- i) -OA- -Z	(2)		B- e) -TO(R)- -Z	

EGON (Biz.)			EGON (Gip.)			IBIĪ	
N- a) -GO-	e)	-N	N- a) -GO-	e)	-N	N- a) -BIĪ-	e) -N
Z- a) -GO- -Z			Z- a) -U- -DE			Z- a) -BIL- -TZ -A	
B- e) -GO			B- e) -GO			B- e) -BIL	
G- a) -GO- -Z- e)		-N	G- a) -U- -DE-		-N	G- a) -BIL- -TZA-	-N
Z- a) -GO- -Z- -(T)E			Z- a) -U- -DE- -TE			Z- a) -BIL- -TZA- -TE	
B- e) -GO- -Z			B- e) -U- -DE			B- e) -BIL- -TZ	

Geyenetan, azken lau aditzen erak baño geyago, laguntzaīearen bidez, bi itzeko besteak erabiltzen dira.

Onela : Joan zaitez - Egon bedi - Ibil (Ibiīi) gaitezen.

Ezetzean eztira erabiltzen era bildu auek; eta ezetza laguntzaīearen bitartez egiten da.

Onela : Etzaitez (Ez zaitez) joan - Ezpedi (Ez bedi) egon.

Oaŕ ditekenez, azken bost era-talde oyetako lenengo notiñak, tinkierazko oraiñaldian erabiltzen diranak berak dira, -N atzizkia erantsita; ta -N izki oŕek, era oyei, menekoeraren bedegartasuna ematen die.

Bost era-talde oyen bigaŕen notiñak ere, tinkierazko oraiñaldikoak berak dira. Oŕela, e. b., ZOAZ era bi zentzun auetan erabil diteke: Gaur ondo ZOAZ; eta, ZOAZ emendik! (joan zaitez emendik!).

Eŕi'aren jokera, beti laburpenak egiteko dalarik, bigaŕen notiñen

(1) Aldakuntza bezela: BIJOA ere erabiltzen da.
(2) Aldakuntza bezela: BIJOAZ ere erabiltzen da.

eraetan(bi itzen bidez egiten diran eraetan) laguntzaīea kenduta, aditzaren izena bakaŕik erabiltzen da, agintzeko edo eskatzeko anturaz.

Onela : Etoŕi *zaitez* esan ordez, laguntzaīea dan ZAITEZ ori kentzen da, ta ETOŔI bakaŕik esaten da; e. b.: ETOŔI ONA! (Etoŕi zaitez ona!).

Irugaŕen notiñetarako, ikusitako eraen ordez, menekoerazkoak erabiltzen dira, onela esaten: DOALA (*Bioa* esan beaŕean); BATOŔELA (*Betoŕ'*en ordez); DAGOELA (*Bego'*en ordez); eta abaŕ.

Noski, beste aditz geyenak, beren agintzeraren erak, bi itzen bidez dagizkite. Eta guziek, beren bedagartasunagatik, esakuntzak asten dituzte.

Eginkizunak

1. Lauki ontan, sei notiñai dagozkien agintzeraren erak (lenengo leŕoan ematen ditugun iru aditzenak) ipiñi; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

	IZAN	JOAN	EGON (Biz.)
Ni	Nadin	...	...
Zu	...	zoaz	...
Bera	...	...	bego
Gu	Gaitezen	...	...
Zuek	...	zoazte	...
Berak	...	...	begoz

2. Emen damazkigun esakuntzetan, agintzerazko adizkiñak agertzen dira; oyetan, era bilduak bi itzenen bidez aldatu beaŕ dira, ta alderantziz, bi itzenekoak biduen bidez; bai ta, aldi baten, bayezkoak ezezkoen bidez, eta alderantziz be, ezezkoak bayezkoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Goazen etxera alkaŕekin afaltzeko; ... - *Etzaitez etoŕi* guregana gure mezua artu baño lenago; ... - *Nagoen* ni ementxe nire gurasoak eldu arte; ... - *Ez zaitezte ibiīi* lagun gaizto oyekin; ... - *Bebil* gurea pozik bere jokuetan; ... - *Ez bitez joan* neska gazte oyek gaur aŕatsaldean enparatzara; ... - *Gatozen* lenbailen gure ikastola edeŕ ontara; ... - *Ez bedi egon* atso ori oŕen luzaroan oŕ; ... - *Zabiltzate* isituki zuen ikasketa guzietan; ... - *Ez bitez joan* gazte auek beste eŕietara moŕoyak izateko;

... - *Betoz* aizkolari oyek gure eŕiko jayetara; ... - *Gauden* sendo betiko gure iritzietan; ...

3. Ageŕerazten ditugun galderai, erantzun egoki bana eman; oitura dugunez, esan eta idaztean:

Betoz laisteŕ gure bīla!: Nortzuk nai dituzute zuen bīla etortzea?; ... - Nortzuen bīla nai duzu gu etortzea?; ... - Ni zuen bīla etortzea nai al duzute?; Ez, ... baño. -- Orduantxe, eskeiñi zeniguna erosiko genizukean: Nortzuek erosiko zidaketean orduantxe, eskeiñi niena?; ... - Zer erosiko zenidaketean orduantxe?; ... - Nik erosiko al niokean oŕi orduantxe, eskeiñi zidana?; Ez ... baizik. -- Egin zizuten astakeria aiztuko balitzaizu, berberak gogoratuko dizute: Nori gogoratuko diote berberak egin zioten astakeria?; ... - Zer gogoratuko didate oyek?; ... - Zuei gogoratuko al dizuete berberak niri egin zidaten astakeria?; Ez, ... baño. -- Emen ikusiko bazindute, atzituko zindukete ta daramazuna kenduko lizukete: Nor atzituko lukete, emen ikusiko balute?; ... - Nori kenduko liokete daramana emen ikusiko balute?; ... - Guri ere daramaguna kenduko al ligukete, emen ikusiko baginduzte?; Ez, ... baizik. -- Jetxi zaitezte gugana!: Nortzuei esan diezu zuengana jeisteko?; ... - Zer esan diezu oyei?; ... - Guri esan al diguzu zuengana jeisteko?; Ez, ... baño. -- Gerok salduko genizkizueke zuen lan guziak: Nork salduko lizkiguke gure lan guziak?; ... - Zer salduko zenigukete?; ... - Neronek salduko al nizkizueke zuen lan guziak?; Ez, ... baizik. -- Ortz bat igituko balitzait, bereala aterako nuke: Nork aterako luke bereala ortz bat igituko balitzayo?; ... - Zer aterako zenuke bereala?; ... - Neskatil oŕek ere ortz bat bereala aterako al luke, igituko balitzayo?; Ez, ... baño. -- Zer uste-izango lukete zutzaz?; nik eztakit zer uste-izango luketen nitzaz: Nork eztaki beratzaz zer uste-izango luketen?; ... - Zer eztakizu?; ... - Guk al dakigu gutzaz zer uste-izango luketen?; Ez, zuek ere ... -- Bere ikaskayak obeto azaldu balizkiote, dakiena baño geyago jakingo luke: Nola jakingo luke oŕek dakiena baño geyago?; ... - Zuek ere dakizutena baño geyago jakingo al zenukete, zuen ikaskayak obeto azaldu balizkizuete?; ... - Eta nik dakidana baño geyago jakingo al nuke, nire ikaskayak obeto azaldu balizkidate?; Bai, zuk ere ... -- Begoz beti ortxe!: Nor nai duzute beti ortxe egotea?; ... - Nun nai duzute oyek beti egotea?; ... - Ni ere ortxe beti egotea nai al duzute?; Ez, ... baizik. -- Norberak bere eginbidea beteko balu, askoz obeto bizi-izango giñake: Nortzuk bizi-izango lirake askoz obeto, norberak bere eginbidea beteko balu?; ... - Nola bizi-izango ziñakete obeto?; ... - Eŕiko agure ta atsoak ere obeto bizi-izango al lirake obeto, norberak bere eginbidea beteko balu?; Bai noski, oyek ere ... -- Ongi aztertuko baginduzte, elukete aurkituko gugan uste duten gaiztakeria: Nortzuek elukete aurkituko zuengan uste duten gaiztakeria, ongi aztertuko bazinduztee?; ... - Zer ez genuke aurkituko zuengan ongi aztertuko bazinduztegu?; ... - Nigan ere uste duzuten gaiztakeria aurkituko al zenukete, ongi aztertuko baninduzute?; Ez, ... baño. -- Nortzuei buruz erazagutuko zenidakean oŕelakorik?; jokalari eragabe oyei buruz erazagutuko nizukean oŕelakorik: Nork erazagutuko zizukean oŕelakoa jokalari eragabe oyei buruz?; ... - Zer erazagutuko zenidakean jokolari eragabe oyei buruz?; - Guk erazagutuko al genizuekean oŕelakoa jokalari eragabe oyei buruz?; Ez, ... baizik. -- Ez genuke bitartekorik beaŕ-izango gure auzia erabakitzeko: Nortzuek elukete bitartekorik beaŕ-izango beren auzia erabakitzeko?; ... - Zertarako ez zenukete bitartekorik beaŕ-izango?; ... - Nik bitartekorik beaŕ-izango al nuke nire auzia erabakitzeko?; Ez, zuk ere ...

4. Ongi irakuŕi uŕengo olerki-atalak, eta bertan oskidetasunai buruz, iru oskide-mota auek oaŕerazi: *osoa* (bi bertsotan edo geyagoetan azken iru izkiñak berdin diranean), *erdikoa* (bi bertsotan edo geyagoetan azken bi izkiñak berdin izatea), ta *mugatua* (bi bertsotan edo geyagoetan azken izkiña bakaŕik berdin danean); esaten eta idaztean adierazteko:

«KONTZEZI»

«Maite bat maitatzen det maitagaŕia
Begi edeŕa du ta guztiz argia;
Daukat uŕuti,
Bañan ezin kendu det buruti
Aren itxura;
Saldu al baliteke pisura,
Uŕearen truke
Nork erosi peituko ez luke.
Nork erosi, ...
Ogetalau leguaz nago, bai arte
Bitartean ba-daukat mīloi bat ate,
Guztiak itxirik;
Nai aŕen ezin egon ixīlik;
Beti negaŕez,
Nere maite maitearen galdez;

«BERTSO ZAŔA»

«An goyen-goyen
izaŕa,
eŕekondoan
lizaŕa;
etxe ontako
nagusi jaunak
uŕe goŕizko
bizaŕa».

Ote dan bizi,
Biotz-biotz nereko Kontzezi,
Biotz-biotz nereko, ...

Egunaz argi gutxi, gauean ilun
Atsedenik ez da neretzat iñun
Maitea gabe;

Egin ote nadin aren jabe
Oroitutzean,
Zenbait neke bere biotzean

Ditut igaro;
Maite det ta ez da alatz oro,
Maite det ta, ...».

«Gure bertsolariak» (130'-gn. oŕialdean) Onaindia Aita.

«Iztueta'ren Olerkiak» (79'gn. oŕialdean) Jose Garmendia Aŕuabaŕena.

LAROGETAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

-GIN, -KIN, -GILE (-GIN + -LE), -KILE (-KIN + -LE)atzizkiak.

-LE, -TZAILE (-TZALE, -TZALE) atzizkiak.

Atzizki guzti auek zentzuna bera dute oro: *egile*arena, *dagien*arena; baña batzuk *izenai* eransten zaizkie, ta besteak *aditzai*.

Zentzuna bera duten lenengo leŕokoak dira izenai alkartzen zaizkienak.

Onela: Aŕi'kin, ar*gin* egiten da; Lan'ekin, Lan*gile*; Ikatz-ekin, Ikaz*kin*.

Bigaŕen leŕokoak, aditzai alkartzen zaizkie; ta auek ere zentzuna bera dute. Baña oyetatik, lenengoa, *-i* edo *-n*'az amaitzen diran aditzai.

Onela: Entzun'ekin, Entzu*le* egiten da; Ikasi'kin, Ikas*le*; Irabazi'kin, Iraba*zle*.

Eta bigaŕena, geyenetan, *-tu* edo *-du*'az amaitzen diranai; baña bai ta *-a*, *-e*, *-o* edo *-l*'az amaitzen diranai ere.

E. b.: -Garbi*tu*'kin, Garbi*tzaile* (Garbi*tzale*); Jo'kin, J*otzaile* (Jo*tzale*).

-TZAILE'tik, -ZALE datoŕ; eta bere zentzuna, zerbaiten *aldekoa* dala izaten da; edo zerbaiterako *gogo aundia* duela.

E. b.: Euzkel*zale*, euzkeraren aldekoa dana; Pelota*zale*, pelotarako gogo aundia duena.

E. b.: Aur*kin*, auŕak *maite* dituena; Zakur*kin*, zakuŕenganako *gogo aundia* edo *maitasuna* adieraztean.

E. b.: Aur*kin*, auŕak *maite* dituena; Zakur*kin*, zaguŕenganako *gogo aundia* edo *zaletasuna* ageŕerazten duena.

-KIN, geyago erabiltzen dan beste zentzun baterako dugu: zerbait erabili ondoren, botatzeko edo *geratzen dana*; edo irabazpena bezela *artzen ditekena* adierazteko.

E. b.: Onda*kin* (zerbaitetik geratzen dana edo botatzekoa dana).
Eba*kin* (eunak ebakita, geratzen diran ondaŕak).
Moz*kin* (luŕetik lortzen dana, irabazten dana).

-ARI atzizkia.

Atzizki onek bizibide bat duenaren *egīlea* adierazi dezake; bai ta *zaletasun beñena* duena ere (1).

E. b.: Pelotari (pilotaz, *bizibideaz* edo *jolasteko* jokatzen ari dana); Gudari (gudan edo gudarako ari dana); Auŕeskulari (auŕesko deitzen dan dantzan, eŕenkako lenengoa); Epaikari (epaīlearen bizibidea duena).

EGINKIZUNAK

1. Emen damagun lauki ontan, sei notiñai dagozkien agintzeraren erak (lenengo leŕoan agertzen diran iru aditzenak), kulatzen ordez, *esan eta idatzi*:

	ETOŔI	EGON (Gip.)	IBĪLI
Ni	Natoŕen	...	...
Zu	...	zaude	...
Bera	...	...	bebil
Gu	Gatozen	...	...
Zuek	...	zaudete	...
Berak	...	...	bebiltz

2. Orain jartzen ditugun esakuntzetan agintzerazko erak agertzen dira; bakaŕ zentzunezkoak, dagozkien askaŕen bidez aldatu beaŕ dira, ta alderantziz, askaŕ zentzunezkoak, dagozkien bakaŕen bidez; aldi baten, bayezkoak ezezkoen bidez, eta alderantziz ere, ezezkoak bayezkoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Erdu nadin lenbailen iragaŕi didaten bilkurara; ... - *Etzaitezte igo* oraindik adiskide oyengana; ... - *Bioa* gure auŕ ori laisteŕ ikastolara; ... - *Ez gaitezen jatxi* kalera ordu bi t'erdiak arte; ... - *Zaude* ementxe zure gurasoen zai; ... - *Ez bitez itzuli* beren sendiarengana geuk aztertu baño lenago; ... - *Noan* oraintxe bertan nire lengusuak ikustera; ... - *Zatoz* gurekin jayetara; ... - *Eldu bedi* beren laguntza ona, al bezin laisteŕen; ... - *Gagozen* oraingoan gure iritzian tinko; ... - *Zabiltzate* aŕeta aundienaz zuen txangoetan; ... - *Ezpedi ibīli* auzo artako mutil gaiztoekin; ...

(1) Ikusi: 24'gaŕen ikaskaya.

3. Galdera auei erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, esaten eta idazten:

Bioaz emendik beren etxeetara! Nortzuk nai dituzu beren etxeetara joatea?; ... - Nora esan duzu joateko?; ... - Ni ere nire etxera joatea nai al duzu?; Ez, ... baño. -- Entzule ayek gizon menak izan balira!: Zer gertatuko zitzakean, entzule ayek gizon menak izan balira?; ... - Obeto bizi-izango al giñakean entzule ayek gizon menak izan balira?; ... - Tokian berean egongo al zitzaketean entzule oyek gizon menak izan balira?; Ez, ... -- Epaikari oyek zerok baño ontasun aundiagoz epaituko ginduzketean: Nortzuek epaituko zinduzteketean gerok baño ontasun aundiagoz?; ... - Nor epaituko zuketean epaikari oyek gerok baño ontasun aundiagoz?; ... - Nik epaituko al zinduztekedan epaikari oyek baño ontasun aundiagoz?; Ez, ... -- Etortzeko ziñala otu balitzait, zure gela gertuko genizukean: Nori gertuko zenioketean bere gela, etortzeko zala otu balitzaizue?; ... - Zer egingo zenuketean etortzeko nintzala otu balitzaizue?; ... - Nik ere, etortzeko ziñatela otu balitzait, zuen gela gertuko al nizuekean?; Ez, ... baizik. -- Emendixek joango giñake gogoz, nai-izango zenukeneraño: Nor joango litzake gogoz, emendixek, nik nai-izango zenukeneraño: Nor joango litzake gogoz, emendixek, nik nai-izango nukeneraño?; ... - Nola joango ziñakete emendixek guk nai-izango genukeneraño?; ... - Lagun oyek ere gogoz joango al lirake emendixek zuek nai-izango zenuketeneraño?; Bai, lagun oyek ere ... -- Zeroŕi ukatuko lizukete gezurti ayek: Nori ukatuko liokete gezurti ayek?; ... - Nork ukatuko lidake neroni?; ... - Nik ukatuko al nizueke zeroi?; Ez, ... baño. -- Umetxo ori ilko balitzait, zer izango litzake nitzaz?; oso itun geratuko ziñake umetxoari ori ilko balitzaizu: Nor geratuko litzake oso itun umetxo ori ilko balitzayo?; ... - Nola geratuko ziñakete zuen umetxo ori ilko balitzaizue?; ... - Ni ere oso itun geratuko al nintzake umetxo au ilko balitzait?; Bai, zu ere ... -- Maitatua izan bedi gure urkoa beaŕ dan bezela!: Nola izan beaŕ da maitatua zuen urkoa?; ... - Nor izan beaŕ da maitatua beaŕ dan bezela?; ... - Gu ere maitatuak izan beaŕ al gera beaŕ dan bezela?; Bai, zuek ere ... -- Ongi zaindu baginduzte, gaur gure laguntza eskeiñiko genieke: Nortzuei eskeiñiko zeniekete zuen laguntza, ongi zaindu bazinduztee?; ... - Nola eskeiñiko zeniekete zuen laguntza?; ... - Nik ere nire laguntza eskeiñiko al nizueke, ongi zaindu baninduzute?; Bai, zuk ere ... -- Agertu zitzaizkigun itzal ayek argitu balitzaizkigu!: Pozik egongo al ziñakete agertu zitzaizkizuen itzal ayek argitu balitzaizkizue?; - Nola egongo ziñakete pozik?; ... - Ni ere pozik

egongo al nintzake agertu zitzaizkidan itzal ayek argitu balitzaizkit?; Eztakit ..., gu bai bederen. -- Betoz euzkaltzaleak lenbailen gure izkuntzaren alde lanegitera: Nortzuek etoŕi beaŕ dute lenbailen gure izkuntzaren alde lenagitera?; ... - Zertara etoŕi beaŕ dute euzkaltzaleak lenbailen?; ... - Guk ere lenbailen etoŕi beaŕ al dugu gure izkuntzaren alde lanegitera?; Bai, zuek ere ... -- Goazen bereala ikazkin oyengana!: Nortzuek joan nai dute ikazkin oyengana bereala?; ... - Nortzuengana joan nai duzute bereala?; ... - Okiñengana joan nai al duzute bereala?; Ez, ... baizik. -- Begoz epaikari oyek beren tokian!: Nortzuk nai duzute beren tokian egotea?; ... - Nun nai duzute epaikari oyek egotea?; ... - Ni ere nire tokian egotea nai al duzu zuk?; Bai, ... -- Zalantzik gabe beren umekerietaz asaŕeraziko ninduketean: Nortzuek asaŕeraziko zinduketean zalantzik gabe beren umekerietaz?; ... - Zerez asaŕeraziko zinduketean zalantzik gabe?; ... - Gu ere asaŕeraziko al ginduzketean zalantzik gabe beren umekerietaz?; Ez, ... baño. -- Orduan oŕelakorik eŕan balidate, eztakit zer egingo nukean: Nork eztaki zer egingo zukean orduan oŕelakorik eŕan baliote?; ... - Zer dala-ta eztakizu zer egingo zenukean?; ... - Guk al dakigu zer egingo genukean orduan oŕelakorik eŕan baligute?; Bai, ene ustez, zuek ba-dakizute ...

4. Aŕetaz irakuŕi idazki-txatal au; bertan agertzen diran aditzerak ere ondo aztertu, ta esan, gero, edo idatzi, bakoitza zein aldikoa dan:

«ERDI - BEAŔA»

«...begirakune eŕukioŕa bota zidan! Nik nere burua enekien nolatan garbitu; ba-zirudidan lotsagaŕikeri batean atzeman ninduela.

Adiskide ori eztut euzkeltzale; ... Oyek guziak txotxolokeriak ditugula; ... nik ingi artan idatziak txorakeri batzuk bide zirala; berak etzula «NEGU» itza besterik ulertu, ta astia galtzeko gogorik ez, beŕiz ... Olakoak bota zizkidan. Guziok iñoiz entzun dituzute.

Miñarazi nindun aŕanoak, eta esan nion: yaŕiko nituela erderaz itz-neurtu ayek; etortzeko uŕengo egunean eta nik erakutsiko niola, euzkeraz sortutako itz-neurtuak mamiago aal zirala, ta indaŕago...

Etxeratu nintzan ta... nire erderalpen ori egin nuen...

Uŕengo eguneko goiza auŕekoaren antzeko zegoen, zorionez, ta... ez nuen neke aundirik beaŕ-izan... adiskidearen gogora ura erakartzeko. Gero, itzulpena eskutan ipiñi nion.

Ori irakuŕi ondoren goitik bera begiratu ninduen itzal-apuŕ batez... euzkerazkoa astiro-astiro irakurtzeraño bere burua eratxi zuen.

Ortatik atera dut - zuzenki ala ez? - nola argitaratuko nuken nik olerki-idazti bat, gauza dan gairik baneuka...

Idazti txiki apain bat egingo nuke... Ta olerkiok enituke emango euzkera utsez; alboan zeñek bere erderalpena lukete... Saltokian biltoŕi (bildu-oŕi) nabari bat yantzita agertuko nituke...

Nik uste, oŕela ale geyago salduko nituke. Bestela ... zenbaitek erosiko lukete agian. Ta askoek, bearbada, ikasi, gauzak ederki ta mamiz adierazten euzkerak eztiola erderari batere zoŕik.

Aolku oyek iñorentzat zuzenbide izango balira, ongi ordaindurik nengoke arako nere erditze laŕi artaz».

«Itz-lauz» (31-2-3-4'gn. oŕialdeetan) Lizardi'taŕ Xabier.

LAROGETAZORTZIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŕA - IRAGANKOŕA - ADITZ LAGUNTZAĪEA

IZAN - AGINTZERA - IZAKAI-ADIZKIŃAK

Irugaŕen notiñaren bakaŕ-izakaya

Nik	D- e) -ZA- -Da- -N	
Zuk	e) -ZA- -ZU	edo: ZA- -ZU
Berak	B- e) -ZA	
Guk	D- e) -ZA- -GU- -N	
Zuek	e) -ZA- -ZU- -TE	edo: ZA- -ZU- -TE
Berak	B- e) -ZA- -TE	

Irugaŕen notiñaren askaŕ-izakaya

Nik	D- -IT- -ZA- -Da- -N
Zuk	IT- -ZA- -ZU
Berak	B- -IT- -ZA
Guk	D- -IT- -ZA- -GU- -N
Zuek	IT- -ZA- -ZU- -TE
Berak	B- -IT- -ZA- -TE

Jaŕitako erak: DEZADAN, EZAZU, ..., iragangaitzetan agiri ziran beren maĪakoak bezela, eztira bakaŕik erabiltzen, aditz iragankoŕaren izenarekin, bi itzezko eraz baño.

Etoŕi ere, eztatoz IZAN'etik, bere eratoŕitako EZAN'etik baizik; baña azken itz ori, zentzunik emateko, ezta bakaŕik erabiltzen.

Lenengo notiñetan, asteko D- ikusten dugu, irugaŕen notiñaren izakaya adierazteko, len besteetan be agiri-izan danez; eta amaitzeko -N, laguntzaĪe iragangaitzean bezela; ta izki onek, emen ere, era oyei menekoeraren bedegartasuna ebaten die, era au ikastean ikusiko dugunez.

Bigaŕen notiñetan, -ZA- eŕoa agertzen da, bakaŕik edo geikia dan e) izkiarekin, EZA-; ta adi-yabea adierazteko amayerak.

Eta irugaŕen notiñetan, asteko B- ikusten da, era ontako bedegaŕa dan izkia.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, sei notiñai dagozkien EZA'ren era iragankoŕak ipiñi beaŕ dira, bakaŕ eta askaŕ-izakayaz; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Bakaŕ-izakayaz	Askaŕ-izakayaz
Nik	Dezadan	...
Zuk	...	itzazu
Berak	Beza	...
Guk	...	ditzagun
Zuek	Ezazute	...
Berak	...	bitzate

2. Uŕengo esakuntzetan, aditzera iragankoŕak agertzen dira; oyetan, bakaŕ-izakayezkoak diranak askaŕekoen bidez aldatu beaŕ dira, ta alderantziz, askaŕ-izakayezkoak bakaŕekoen bidez; era berean, bayezkoak ezezkoen bidez eta ezezkoak bayezkoen bidez ere aldatzeko; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Gutxiago *jan ezazu* ez gaxotzeko; ... - *Ez ditzadan* iñoiz oŕelako asmoak *ukan*; ... - *Ikasi beza* mutil oŕek gero ta geyago; ... - *Ez dezagun lo-egin* zure adiskideak etxetik joan arte; ... - *Layatu ezazute* zuen soloa Goyeŕi'n dagiten bezela; ... - *Galbaitu bitzate* gari ta garagaŕ guzti oyek lenbailen; ... - *Irauli dezadan* etxe-auŕean eguŕ-gurdi ori; ... - *Landatu itzazu* zure baratzean zugatz igalidunak geyago; ... - *Ez bitza jaitzi* bere ardiak beste artzañak eldu arte; ... - *Naŕastu dezagun* aŕi aundi ori bidetik at, aŕetaz jartzeko; ... - *Ez itzazute* oindiño *iñausi*, ez udareondo ez eta sagaŕondoak ere; ... - *Ez bitzate eralki* emen igaratik oraintxe ekaŕi dituzten urunak; ...

3. Oitura dugunez, emengo galderai erantzun egoki bana eman, esanez eta idatziz:

Kendu ezazu ori ortik!: Zer nai duzu nik kentzea?; ... - Nundik nai duzu ori kentzea?; ... - Ori ortik kentzea oyei eskatu al diezu?; Ez, ... zuri baño. -- Ona etortzea gebendu baliete, ez zinduzteketean ikusiko: Nork ez gindukean ikusiko, ona etortzea gebendu baliote?; ... - Nortzuk ez zituzketean ikusiko, ona etortzea gebendu baliete?; ... - Nik ikusiko al zindukedan ona etortzea gebendu balidate?; Ez, zuk ere ... -- Egiazko euzkaltzaleak beren asmoak edonun zabalduko lituzkete: Nortzuek zabalduko lituzkete beren asmoak edonun?; ... - Zer zabalduko

lukete edonun egiazko euzkaltzaleak?; ... - Zuk ere zure asmoak edonun zabalduko al zenituke?; Bai, nik ere ... -- Ez zitzaigun iñor urbildu: Nori etzitzayon iñor urbidu?; ... - Nor ez zitzaizuen urbildu?; ... - Niri iñor urbildu al zitzaidan?; Ez, zuri ere ... -- Zer uste-izango lukete, berak egin dutena gerok egingo bagenu?; gaizki egongo litzakela uste-izango lukete, berak egin dutena zerok egingo bazenute: Ongi egongo litzakela uste-izango al lukete, berak egin dutena gerok egingo bagenu?; ... - Nork uste-izango luke, egin duena zuk egingo bazenu, gaizki egongo litzakela?; ... - Eta zuek egin duzutena guk egingo bagenu, gaizki egongo litzakela uste-izango al zenukete?; Ez, guk ..., baizik. -- Beren bazkariaren ondakiñak utziko balizkigute, ez genieke ezer esango: Nori ez zeniokete ezer esango, bere bazkariaren ondakiñak utziko balizkizue?; ... - Eta beren bazkariaren ondakiñak utziko balizkizuete, ezer esango al zeniekete?; ... - Zuk ezer esango al zenidake nire bazkariaren ondakiñak utziko banizkizu?; Ez, nik ere ... -- Jakin beza auŕ oŕek lenbailen, egin beaŕ duena: Nork jakin beaŕ du lenbailen, egin beaŕ duena?; ... - Zer jakin beaŕ du auŕ oŕek lenbailen?; ... - Zuek ere lenbailen jakin beaŕ al duzute, egin beaŕ duzutena?; Bai, guk ere ... -- Beren maitasaŕeetaz zuzpertuko baginduzte!: Obeto egongo al ziñakete beren maitasaŕeetaz zuzpertuko bazinduztee?; ... - Nola egongo ziñakete obeto?; ... - Ni ere obeto egongo al nintzake beren maitasaŕeetaz zuzpertuko banindute?; Bai, zu ere ... -- Esan zenidan onezaz, ez niekean ezer itzegingo; Nork ez ziekean ezer itzegingo, esan nion onezaz?; ... - Zertzaz ez zeniekean ezer itzegingo?; ... - Guk ezer itzegingo al geniekean, zuek esan zeniguten onezaz?; Ez, zuek ere ... -- Itxasertzeko arkaitz aundienak erakutsiko nizkizueke: Nork erakutsiko lizkiguke itxasertzeko arkaitz aundienak?; ... - Zer erakutsiko zeniguke?; ... - Guk erakutsiko al genizkizueke itxasertzeko arkaitz aundienak?; Ez, ... baño. -- Orduan ez ninduten ikusi omen, jabearengana zurekin joan nintzanean: Nor etzuten omen ikusi, jabearengana nirekin joan ziñanean?; ... - Noiz ez zinduten ikusi omen?; ... - Gu ikusi omen ginduzten jabearengana zuekin joan giñanean?; Ez, zuek ere ... -- Oŕaztu ezazu ondo zure burua!: Nork oŕaztu beaŕ du ondo bere burua?; ... - Nola oŕaztu beaŕ dut nire burua?; ... - Nor oŕaztu beaŕ du ondo oŕek?; Bere burua ... -- Iltzatu itzazute kutxa oyek lenbailen!: Nortzuek iltzatu beaŕ dituzte kutxa oyek lenbailen?; ... - Zer iltzatu beaŕ dugu lenbailen?; ... - Eta nik ez al ditut iltzatu beaŕ kutxa oyek lenbailen?; Ez, ... baizik. -- Senda beza bere burua alik eta ongienik!: Nork sendatu beaŕ du bere burua alik eta ongienik?; ... - Nor sendatu beaŕ du oŕek alik eta ongienik?; ... - Gexo

ayek ere beren burua alik eta ongienik sendatu beaŕ al dute?; Bai, ayek ere ... -- Irabazleek ez zuketean ainbeste jardukiko: Nortzuek etzuketean ainbeste jardukiko?; ... - Nola etzuketean jardukiko?; ... - Zuek ainbeste jardukiko al zenuketean?; Ez, guk ere ... -- Oso pozik egongo ziñaketean, garaiz eldu baziñate bezela: Nortzuk egongo zitzaketean oso pozik, garaiz eldu balira bezela?; ... - Nola egongo giñakean oso pozik?; ... - Ume ori ere oso pozik egongo al zitzakean, garaiz eldu balitz bezela?; Bai, ume ori ere ...

4. Emen ipui biren beŕi ematen da, ta, guzia ongi irakuŕi ondoren, ipui oyen mami ta zertzeladak adiskide bati egingo zayon gutun batean idatzi beaŕ dira, norberaren arauz:

«MARI'REN MOROYAK»

«Jentilak Leizadi'ko arpe batean bizi zirala, egundoko izaŕ edeŕ bat odeyetan agertu zan.

Alako izaŕa ikusi zutenean, jentil ayek erabat ikaratu ziran, ta Ludi'an zer gertatu beaŕ ote zan ezin asmaturik zebilzten.

Alako batean, arpe baŕuan erdi-itxututa zegoen jentil zaŕ bat ataka auŕera atera ta, betazalak endayaz zabaldurik, odeyetara begira jaŕi zuten, antz emango ziola-ta.

Bai ta, ikusi orduko, deadaŕ egin: —Ai, ene umeak...! «Kismie» jayo duk, galduak gaituk oraintxe. Bota nazazute ni emendik gain-bera.

Jentilek Jesukristo'ri «Kismie» deitzen zioten...

Gero, Kristau-asmoa Ludi'an zabaltzen asi zanean, jentil guziak sakabanatu ta bereala galdu ziran...

— Ta, zure jakin-min ori ase al duzu, euzkalduna...?

— Azkeneko galdera bat egingo dizut, galdetzen uzten baldin badidazu.

— Galdetu, galdetu...!

— Tartalo'ren izena aipatu didazu lenago. Zein zan Tartalo ori?

— Tartalo, gaiztoa zan. Bekokiaren erdian zeukan begi bakaŕ aundi bat, eta Aizkoŕi'ko arpe batean bizi zan...

— Zergatik esaten didazu Tartalo gaiztoa zala...?

— Tartalo'k mendiko piztiak jaten zituen; baña kristauren bat aŕapatu ezkero ere...

— Jaten zituen...?

— Bai, orixe...!

— Ta bizi al da oraindik?...

— Esango dizut nola il zan: Bein bi anai aŕapatu zituen. Biak, mutil gazteak. Arpera eraman, ateak itxi ta, ayetako bateri buŕuntzia sartu ta, eŕeta, jan zuen. Besteari, beŕiz, eraztuna jaŕi zion atz batean, ezin kentzekoa.

Bazkalondoan loak artu zuen Tartalo... Orduan beste anayak, bizi zanak, buŕuntzia sutan goritu ta bere begi bakaŕetik sartu zion Tartalo'ri.

Tartalo'ren oŕu ta gaŕaxiak...! Itxu geratuaŕen, ba-zuen indaŕa, ta mutīlaren bīla zebīlen; ardi-naŕu pīla batean gordeta zegoen gure mutil ori. Mutīla eŕezago bīlatzeko, Tartalo'k ardi-naŕuak arpetik lekorera bota zituen. Bai ta mutīla ere, naŕuekin batera.

Ekiten dio mutīlak aldapa-bera laisterka. Baña atzean zeraman eraztuna asi zan deika: —Emen nago...!, emen nago...!

Deadaŕ ayetara, Tartalo laisterka be mutīlaren ondoren. Mutīlak bere burua galbidean ikusi zuenean, atza ebagi ta, eraztun ta guzi, osin aundi batera bota zuen... Bai ta Tartalo ere, eraztunaren atzetik, osinera... Bertan ito zan».

«Jainko txikiak» (17-8-9'gn. oŕialdeetan) A. Arrinda.

LAROGETABEDERATZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ADITZ IRAGANKOŔEN JOKO BILDUA

AGINTZERA - IZAKAI-ADIZKIÑAK

Ezagunak ditugun: ERAMAN, EKAŔI, JAKIN, EGIN eta ERABĪLI aditzak, beren joko bilduan, adibide onen eran jaŕi ditezke:

AGINTZERAREN ADIBIDE OROKAŔA

Irugaŕen notiñaren izakai bakaŕa			Irugaŕen notiñaren izakai askaŕa		
D- a)	-Da-	-N	D- a)	-Da-	-N
e) -RAMA-	-ZU		e) -RAMA-	-ZU	
B- e) -KAŔ-	---		B- e) -KAŔ-	---	
-(A)KI-			-(A)KI-	-ZKI-	
D- a) -GI-	-GU-	-N	D- a) -GI-	-GU-	-N
e) -RABIL-	-ZU-	-TE	e) -RABIL-	-ZU-	-TE
B- e)	-----	-TE	B- e)	-----	-TE

Era auetatik, eztira erabiltzen gaurko ontan, irugaŕen notiñaren bat edo beste baño: Bekaŕ, Begi, ...; eta maiz entzuten diran: Ekarzu, Egizu, Erabilzu, ... itzak, ba-dirudite beste auen laburpenak dirala soīlik: Ekaŕ zazu, Egin zazu, Erabil zazu, ...; ez egiazko era bilduak.

Geyenetan, beraz, oŕen ezagun eta erabīlita ditugun aditz auek, beste iragankoŕak bezela, agintzeraren adizkiñetarako, bi itzen bidez egiten diran beste eraetan darabilzkigu; beti bezela aditz laguntzaīlearen bitartez.

Emen ere, 86'gaŕen ikaskayan, aditz iragangaitzetarako, ipiñi genituen oarketak onartzekoak dira, bigaŕen notiñai dagokiena izan ezik.

Orain, naiz iragankoŕak naiz iragangaitzak diran aditzetarako, ta, agintzeran bezela, gero ikusiko diran menekoeran eta almeneran ere, bi itzen bidez egiten diran aditzeretan, aditzen mugarazleak ditugun *-i* ta *-tu* (*-du*) kentzen dira.

Onela esateko, beraz: *Etoŕ*(i) bedi; *Ekaŕ*(i) zazu; *Esna*(tu) zaitez; *Uler*(tu) zazute.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, goiko leŕoan agertzen diran iru aditzen agintzerazko erak jaŕi beaŕ dira, bakaŕ-izakayaz, eta ezkeŕ aldean ipintzen ditugun sei notiñei dagozkienak; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	EZAN	ERAMAN	EKAŔI
Nik	...	daramadan	...
Zuk	Ezazu	...	...
Berak	...	...	bekaŕ
Guk	...	daramagun	...
Zuek	Ezazute	...	...
Berak	...	...	bekarte

2. Emen ipintzen ditugun esakuntzetan, aditzera iragankoŕ bilduak azaltzen dira; oyetan, bakaŕ-izakayezkoak diranak askaŕezkoen bidez aldatu beaŕ dira, ta alderantziz, askaŕezkoak bakaŕezkoen bidez; bai ta bayetzean dagozenak ezetzean ipintzeko, ta alderantziz ere, ezezkoak diranak bayetzean yartzeko; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Zuk *ezazu* zuregan lan gogoŕ ori; ... - Neronek *daramazkidan* auŕak ikastetera; ... - Berak *bekaŕ* bere txakuŕa eizarako; ... - Guk *dakigun* gure eginbidea betetzen; ... - Zuek *ez egizkizute* oŕen deitoragaŕiak diran gauzak; ... - Berak *berabilte* beren txapel edeŕa; ... - Nik *ez ditzadan* zeŕi lodi oyek beti kortan; ... - Zuk *ez eramazkizu* oñetako oyek txango luze ortarako; ... - Berak *ez bekarzki* eskatu dizkieten jostailuak; ... - Guk *dagozkigun* ezinbestekoak diran eginkizunak; ... - Zuek *ez ekizute*, jakin beaŕ eztuzutena; ... - Berak *ez berabilzkite* oŕen itxusiak diran jantzi oyek; ...

3. Orain damazkigun galderai erantzun egoki bana eman, esanez eta idatziz:

Ona ekarzu eguneroko ori! : Nori esaten diozu eguneroko ori ekartzeko?; ... - Zer esaten diozu oŕi?; ... - Niri esaten al didazu eguneroko ori ekartzeko?; Ez, ... baño. -- Ementxe ilko ginduzketean ankeŕ ayek: Nortzuek ilko zinduzteketean ementxe?; ... - Nun ilko zinduzteketean ankeŕ ayek?; ... - Ni ere ilko al ninduketean ementxe?; Ez, ... baizik. -- Beaŕ zenutena erabaki balizuete! : Nortzuei erabakiko zieketean beaŕ zutena?; ... - Zer erabakiko zieketean?; ... - Guri erabakiko al ziguketean beaŕ genuena?; Bai, zuei ere ... -- Zer izango ziñake orduan, baikoŕ

ala ukakoŕa?; ni beti izango nintzake baikoŕa: Nor izango litzake beti baikoŕa?; ... - Noiz izango ziñake baikoŕa?; ... - Zuek ez al ziñakete izango beti baikoŕak?; Ez, ... baño. -- Nere utz guziak azketsiko balitzaizkit, ederki benetan: Nori azketsiko litzaizkioke bere utzak?; ... -- Zer azketsiko litzaizuke?; ... - Guri azketsiko al litzaizkiguke gure utzak?; Bai, zuei ere ... -- Irakurle ayek gorago irakuŕiko balute, obeto ulertuko genieke: Nortzuei ulertuko zeniekete obeto, gorago irakuŕiko balute?; ... - Nola ulertuko zeniekete obeto irakurle oyei?; ... - Niri ere obeto ulertuko al zenidakete gorago irakuŕiko banu?; Ez, ... baño. -- Neuŕi itzazute zuen itzak itzegin baño lenago! : Nork neurtu beaŕ ditu bere itzak itzegin baño lenago?; ... - Noiz neurtu beaŕ ditugu gure itzak?; ... - Eta zuk ez al dituzu neurtu beaŕ zure itzak itzegin baño lenago?; Bai, nik ere ... -- Zuzentasunez epaitu balitzayo! : Nori epaitu beaŕ-izango litzayote zuzentasunez?; ... - Nola epaitu beaŕ-izango litzayoke?; Guri ere zuzentasunez epaitu beaŕ-izango al litzaiguke?; Bai, zuei ere ... -- Zauritu baginduzte, ezkiñake emen egongo: Nortzuk elirake emen egongo zauritu balituzte?; ... - Nun etziñakete egongo zauritu bazinduztee?; ... - Ni emen egongo al nintzake zauritu banindute?; Ez, zu ere ... -- Goazen laisteŕ jakintsu oyengana! : Nork joan beaŕ du laisteŕ jakintsu oyengana?; ... - Norengana joan beaŕ duzute laisteŕ?; ... - Uste al duzu nik ere jakintsu oyengana laisteŕ joan beaŕ dudala?; Bai, nik uste dut ... -- Josi ezazu ondo eskuzapi ori! : Nork josi beaŕ du ondo eskuzapi ori?; ... - Zer josi beaŕ dut ondo?; ... - Zuek ez al duzute josi beaŕ ondo eskuzapi ori?; Bai, guk ere ... -- Oroimen ona bezate guzia gogoratzeko: Nortzuei esan diezu oroimen ona ukan beaŕ dutela guzia gogoratzeko?; ... - Zertarako nai duzu oyek oroimen ona eukitzea?; ... - Nik ez al dut oroimen ona ukan beaŕ guzia gogoratzeko? : Bai, zuk ere ... -- Gorde itzazute mozkiñak! : Nortzuek gorde beaŕ dituzte mozkiñak?; ... - Emengo nekazariek ere gorde beaŕ al dituzte mozkiñak?; Bai, ... - Guk gorde beaŕ al ditugu mozkiñak?; Ez, ... baño. -- Abeslari ayek dakizkiten abestiak abestu balizkigute, aŕatsalde zoriontsua igaroko genukean: Zer igaroko zenuketean abeslari ayek dakizkiten abestiak abestu balizkizuete?; ... - Nola igaroko zenuketean aŕatsalde zoriontsua?; - Guk ere aŕatsalde zoriontsua igaroko al genukean abeslari ayek dakizkiten abestiak abestu balizkigute?; Bai, zuek ere ... -- Orduantxetik beren ateraldi guziak jardukiko genizkiekean: Nortzuei jardukiko zenizkieketean beren ateraldi guziak?; ... - Zer jardukiko zenieketean orduantxetik?; ... - Guri ere orduantxetik jardukiko al zenizkiguketean gure ateraldi guziak?; Bai, zuei ere ...

4. Emen ematen dugun alkaŕ-izketa ondo irakuŕi ta, gero, bertan erabiltzen diran gayetaz, norbaiti jakin-erazoteko eraz idatzi, baña beste izketarik egin gabe, gayen beŕia ematean baño :

«EKAITZ IZUGAŔIA»

«Malen — Bai, ezer gertatuko zayotenik ez dut uste... Bakaŕik, itxura jartzen duen bezela, euri-jasaen bat asiko balitz bustiko lirakela... ori bai... (Tximist-oztotzak aldiz-aldiz eta gero ta bertarago dira).

Xabier — Oraindik asiko duanik ez zait iruditzen... etxeraño etortzeko ateŕaldia izango dute...

Ama — Jainkoa'k nai dezala...

Malen — Tximistaren aurkako argizaria piztutzera noa...

Ama — Bai, ta Arantzazu'ko Ama'ren irudi-auŕean jaŕi zan... aretxek gorde gaitzala...

Aitona — (Xabier'i) Zu ere onezkero nekatuta edo zera, exeri zaitez ortxe.

Xabier — Bai, gogo onez exeriko naiz...

Ama — Eta ainbeste ibilita, egaŕituak edo zerate... zerbait edango duzute...

Aitona — Bai, bai, ez naiz egarbera baña txaŕo bat sagardo ekartzen baduzu gogoz edango dugu; ez al da oŕela, Xabier?...

Xabier — Bai, onela da; ni ere edale motza naiz, baña oraintxe ongi etoŕiko zait...

Ama — (Etxe baŕuan dabilen Malen'i) Gizon oyentzat sagardo pixka bat ekaŕi zan... nik aparia gertu beaŕ dut. Noan sukaldera... menditik datozen ayek gose ona ekaŕiko dute... (etxe baŕura doa).

Aitona — Ekaitz-soñu aundiak dira baña euri andirik izango ez dala iruditzen zait...

Xabier — Obe oŕela izango balitz... bidean datozenak etxeratu arte bederen ateri izan dedila... Gero, nai badu egin dezala...

Aitona — Bai, oŕela da... baña euria egitekotan onezkero asia beaŕ-izango lukela esan liteke... aurki emen izango dirala uste dut...

Malen — (Txaŕo-asgardoa eta bi edontzi dakarzki) Ona emen sagardo edeŕa eztaŕia leguntzeko... aŕatsaldeko ibilaldiaz naiko berotuak edo zerate ta... Baña emen, etxeauŕean, beaŕ al duzute? Oztots eta tximistak ez al zaituzte bildurtzen?...

Aitona — Ba, ba... ateri dan bitartean atsegin da emen...

Xabier — Gure ibilian ez gera, ba, asko berotu... e...

Aitona — Ez, baña ibiliak edateko gogoa beti ematen du... edan dezagun.

Xabier — Edeŕa dago.

Aitona — Bai, ongi sartzen da...

Xabier — Malentxo...!, zu bilduŕez zaudela iruditzen zait...

Malen — Bai, Xabier... ekaitzak edo zerbaitek bilduŕa ematen dit... beste ayek etoŕiak balira nayago-izango nuke...

Xabier — (Zutik jartzen da ta Malen bereganatuaz)... Ez duzu bilduŕik izan beaŕ, Malentxo... atoz, atoz..., nerekin...

«Ekaitzpean» 173-4-5'gn. oŕialdeetan) Eizagiŕe'taŕ Joseba.

LAROGETAMARGAŕEN IKASKAYA

GEIGAŕI TA GUTXIGAŕIAK

Itzak

GAITZ	:	Diru gaitza (Diru asko) (1)	KOSKOŕ	:	Mutil koskoŕa (Mutil taŕotua)
MIN	:	Adiskide miña (Oso adiskide)			
GOŕI	:	Negu goŕia (Negu erdi-erdian)	XAMAŕ	:	Aundi xamaŕ (zerbait aundituta) (2)
AŕAIL	:	Mozkoŕ aŕaila (Mozkoŕ poŕokatua)			
ALAKO	:	Gaizto alakoa (Gaizto ori!)	BEGI	:	Zuri begi (Zuribegi)
ALENA	:	Gaizto alena (Gaizto ori!)			(zerbait zurituta)

Atzizkiak

-TZAR	:	Anditzaŕ (ezezpenez)	-ANDA	:	Otsanda (otsoeme gaztea)
-KOTE	:	Lodikote (maitasunez)	-ANGA, -ANGO	:	Luzanga, luzango (luze xamaŕ)
		Onela ere batzuetan:			
-KO	:	Amako (ama izanez, geyegi edo)	-KIŕI	:	Ozkiŕi (zerbait otzitua)
-TO	:	Gizato (gizon aundia)	-KO	:	Otsoko (otso-kumea)
			-KONDO	:	Etxekondo (etxe txikia)
			-NGO	:	Zuringo (aŕautzako zuria)
				:	Goŕingo (aŕautzako goŕia)
			-NO	:	Etxano (etxe txikia)
			-ÑO	:	Andereño (anderegaya)
			-ÑI	:	Aitañi (aitatxo, aitona)
			-SKA, -XKA	:	Mordoska (mordo txikia)
			-SKO, -XKO	:	Idisko (idi txikia)
				:	Goŕizko (goŕi antza)
			-STA, -XTA	:	Orista, -xta (ori antza)
		(ezezpenez)	-SKIL	:	Andereskil (andere txikia)
			-TIL	:	Neskatil (neska txikia)
				:	Leyatil (leyo txikia)
			-TO	:	Elizato (eliza txikia)
				:	Zubito (zubi txikia)
			-TXA	:	Neskatxa (neska txikia)
				:	Bigantxa (txal txikia) (3)
			-TXE (-XE)	:	Oraintxe (orain bertan)
			-TXO, -TXU	:	Menditxo (mendi txikia)
				:	Jonetxu (Jone txikia)
			-XE (-TXE)	:	Aitaxe (4) (aitatxo, aitona)
			-ZKA, -ZKO	:	Belzka (5) (beltz antza)
				:	Moŕoizko (mutil gaztea)

(1) Ikusi: 75'gn. ikaskaya (-gaitz atzizkia).
(2) Ikusi: 39'gn. ikaskaya.
(3) Ikusi: 151'gn. ikaskaya.
(4) Ikusi: 42 ta 84'gn. ikaskayak.
(5) Ikusi: 46 gn. ikaskaya.

Ageŕerazten ditugun itz eta atzizkiak erabiltzen diralarik, ba-dugu beste era berezia gutxigaŕiak egiteko, SOÑU'aren bidez, igidin batzuk ao-sapayaz oguztean; bat-banaka, onela aldatzean:

D, D̄	biurtzean	: Andere'tik	Andēre	dagigu
L, L̄	biurtzean	: Leŕ'tik	Lēŕ	dagigu
N, Ñ	biurtzean	: Nabaŕ'tik	Ñabaŕ	dagigu
T, T̄	biurtzean	: Anton'dik	Antōn	dagigu
Z, X	biurtzean	: Zuri'tik	Xuri	dagigu
S, X	biurtzean	: Sare'tik	Xare	dagigu
Z, TX	biurtzean	: Zakuŕ	Txakuŕ	dagigu

BAIT- auŕizkia (1).

Aditzaren auŕizkia dugu au bakaŕik, eta aditzerari eransten zayonean, *t-* bere azken izkia galtzen du; ta bide batez aditzerak asteko izan ditezken izkiai buruz, oiturazko aldakuntza auek dagizki, ots: *d, g, z,* izkiak *t, k, tz,* biuŕeraztean; bai ta, azken *-t* ori, *n* edo *l* auŕetik galtzean.

Onela: Etxera bai*toa* (bait- + *doa*) edo: bai*tijoa* (bait- + *di*joa).
An egon bai*kera* (bait- + *ge*ra).
Onak bai*tzerate* (bait- + *ze*rate).
Etoŕiko bai*nintzan* (bait- + *nin*tzan).
Eldu bai*tziñan* (bait- + *ziñ*an).

BAITA itza. Itz soła bezela, lau zentzun auek adierazi ditzake:

1.° Esandako *bait-* auŕizkitik sortua (bait- + da); *danez* esatean adierazten dugun zentzunaz (Etoŕi *baita*, etoŕi *danez*).

2.° *Bai* + *ta* eratua bezela, ERE itzak, bayezteko esakuntzetan, ematen duen zentzuna betetzeko erabiltzen da (*Baita* ori *ere*) (ori *ere bai*) (2).

3.° Laburdi aldean «etxe»'ren zentzunaz ezagutzen da (Martin *baita*, Martin'en etxea).

4.° -GAN atzizkiaren zentzunaz ere saŕi erabiltzen da (Ene *baitan* = Ni*gan*) (3).

(1) Ikusi 51 (-bait atzizkia), 81 ta 83'gn. ikaskayak.
(2) Ikusi: 29'gn. ikaskaya.
(3) Ikusi: 22'gn. ikaskaya.

Eginkizunak

1. Uŕengo laukian goiko leŕoan ageŕerazten ditugun iru aditzen agintzerazko erak dira jaŕi beaŕ diranak; askaŕ-izakayaz eta ezkeŕ-aldean ipintzen ditugun sei izenordeai dagozkienak; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	JAKIN	EGIN	ERABIĪI
Nik	Dakizkidan	...	...
Zuk	...	egizkizu	...
Berak	...	...	berabilzki
Guk	...	dagizkigun	...
Zuek	Ekizkizute	...	...
Berak	...	...	berabilzkite

2. Emen, agintzerazko aditzerak daramazkiten esakuntzak ipintzen ditugu; oyetatik, batzuk era bilduak dira, besteak ez, bi itzen bidez egiñak baño; alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira aditzera oyek, eta, aldi baten, bayetzean dagozenak ezetzean jartzeko, ta alderantziz, ezetzean dagozenak bayetzean ipintzeko; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Ukan ezazu zeuk, bederen, osasun onena; ... - Nik *daramadan* auŕ oyek beaŕ duten guzia; ... - Berak *ekaŕi beza* ain sutsuki eskeiñi diguna; ... - Lendik *dakizkigun* ondo irakasi nai ditugun ikaskayak; ... - *Egin itzazute* zuen eginkizunak aŕetaz; ... - Kontuz *berabilzkite* izkiīu ayek; ... - *Ukan ditzadan* etxean gerturik erakusteko ditudan gayak; ... - *Eramazkizu* lenbailen zuen beoŕ oyek laŕera; ... - *Bekarzki* aŕantzale oŕek gaur goizean lortutako aŕañak; ... - *Jakin dezagun* gure lagun-urkoenganako adeibera izatea; ... - *Egizkizute* laisteŕ, eskatu dizkizueten lan guziak; ... - *Erabil bitzate* sendakai auek zentzunez; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman, esanez eta idaztean:

Otoi-egin bitzate beren otoyak eraspenez!: Nori eskatuko diozu bere otoyak eraspenez otoi-egiteko?; ... - Zer eskatu diezute neska oyei?; ... - Niri ere nire otoyak eraspenez otoi-egiteko eskatuko al didazute?; Bai, zuri ere ... -- Begoz, badagoz!: Emen baldin bagagoz, egoteko esan al diguzu?; ... - Nori esango diozute egoteko, emen baldin badago?; ... - Guk esango al dizuegu egoteko, emen baldin bazagozte?; Ez, ... baño. -- Toki ontantxe burua apurtuko zizueketean: Nun apurtuko ziguketean burua?; ... - Nori apurtuko zioketean burua ontantxe?; ... - Niri ere burua apurtuko al zidaketean ontantxe?; Ez, ... baizik. -- Oraindik igitu ezpaginduzte, obeto egongo giñake: Nor egongo litzake obeto oraindik, igitu ezpalute?; ... - Nola egongo ziñaketean oraindik, igitu ezpazinduztee?; ... - Uste al duzu ni ere obeto egongo nintzakela oraindik, igitu ezpanindute?; Bai, ene ustez, zu ere ... -- Emakume arduratsu ayek negaŕez uŕeratu zitzaizkidan: Nori uŕeratu zitzaizkion negaŕez emakume arduratsu ayek?; ... - Nola uŕeratu zitzaizkizun emakume arduratsu ayek?; ... - Apaizai uŕeratu al zitzaizkien negaŕez emakume arduratsu ayek?; Ez, ... baño. -- Paŕe-eragin al zizuten?; bai, paŕe-eragin zidaten, eta ez gutxi: Nortzuei paŕe-eragin zieten, eta ez gutxi?; ... - Nortzuek paŕe-eragin zizueten asko?; ... - Nik paŕe-eragin al nizuen asko?; Ez, ... baizik. -- Zabaldu itzazute zuen burusiak lo-egiteko: Nortzuei eskatzen diezute beren burusiak zabaltzea lo-egiteko?; ... - Zertarako eskatu dizuegu zuen burusiak zabaltzea?; ... - Niri eskatu al didate oyek nire burusiak zabaltzea lo-egiteko?; Ez, ... baño. -- Gizontxu ayek eldu baitziran, onaŕ ditzagun ongi!: Nortzuk onartu beaŕ dituzute oneraño eldu baitziran?; ... - Ni ere onartu beaŕ al nauzute oneraño eldu bainintzan?; ... - Zuek onartu beaŕ al dituzute gizontxu oyek oneraño eldu baitziran?; Bai, guk ere ... -- Nire emakume adiskide miña arek, oŕek esan nai duena azalduko lidake: Nork azaldu lizuke oŕek esan nai duena?; ... - Nori azalduko lioke zure emakume adiskide miña oŕek, arek esan nai duena?; ... - Zuek azalduko al zenidakete arek esan nai duena; Ez, ... baizik. -- Neronek ikusi beaŕ-izan nuena ukatu balitzait!: Zer egingo zenukean zeroŕek ikusi beaŕ-izan zenuena ukatu balitzaizu?; ... - Asaŕetuko al ziñakete zerok ikusi beaŕ-izan zenutena ukatu balitzaizue?; ... - Ta ni ere asaŕetuko al nintzake neronek ikusi beaŕ-izan nuena ukatu balitzait?; Bai, zu ere ... -- Gero ta gaiztoagoak ziñaten: Nortzuk ziran gero ta gaiztoagoak?; ... - Nola izango giñan?; ... - Ni ere gero ta gaiztoagoa al nintzan?; Ez, ... baño. -- Egin zazu lenbailen zure euzkal-eginkizuna!: Zer nai duzu nik lenbailen egitea?; ... - Noiz nai duzu nire euzkal-eginkizuna egitea?; ... - Guk nai al dugu zuek ere zuen euzkal-eginkizuna lenbailen egitea?; Ez, ... baizik. -- Bekarzkite beren auŕak ikastolara irakurtzen eta idazten ikasteko: Nortzuek ekaŕi beaŕ dituzte beren auŕak ikastolara irakurtzen eta idazten ikasteko?; ... - Zertarako ekaŕi beaŕ dituzte beren auŕak ikastolara?; ... - Nik ere nire auŕak ikastolara ekaŕi beaŕ al ditut irakurtzen eta idazten ikasteko?; Bai, zuk ere ... -- Entzule onak izango baziñate, ez genizkizueke gure ikaskayak beŕiztu beaŕ-izango: Nortzuek ez lizkigukete beren ikaskayak beŕiztu beaŕ-izango entzule onak izango bagiña?; ... - Zer elukete beŕiztu beaŕ-izango zuek entzule onak izango baziñate?; ... - Eta zu entzule ona izango baziña, gure ikaskayak beŕiztu beaŕ-izango al genizkizuke?; Bai,

ni ere ... - Gu ikustera zortzian-zortzian bederen etoiko baziña, zure ikasketan auŕeratzen ote zeran jakin al-izango genuke: Nork jakin al-izango luke nire ikasketan auŕeratzen ote naizen, bera ikustera zortzian-zortzian bederen etoŕiko banintz?; ... - Nola jakin al-izango zenuke nire ikasketan auŕeratzen ote naizen?; ... - Zure osaba oyek jakin al-izango lukete zure ikasketan auŕeratzen ote zeran, berak ikustera zortzian-zortzian bederen joango baziña?; Bai, nire osaba oyek ere ...

4. Irakuŕi ondo, orain ,olerki baten lenengo zati au; bertan auxe ongi oartzeko: bertsoak zortzi aapaldietan bilduta dagozela, aapaldi bakoitzak bost dituelarik; aapaldi bakoitzean, alde batetik bertsoak neuŕi berean egiñak dagozela, bai ta oskidetza, aapaldi bakoitzean ere berdin agertzen dala, lenengo ta irugaŕen bertsoak soñu berberaz amaitzen, eta aapaldia betetzeko dagozen beste irurak be amai bereaz.

«ORIO'KO UMEZURTZA»

Kayo-sail aundik
utzirik ainbat ur-jolas,
itxas-aunditik
igesi doaz
bizi ta kuŕizka joaz.

Mendiak zuri
asaŕe beltz itxasoa;
ekaitz-urduri,
naspil-giroa
belaŕekin kayoa...

Min du auzoak
odei-muŕu beltz kizkiŕa;
berun mordoak
alda makuŕa,
zuri-arinki eluŕa...

Erio dabil...
Len aritz eze sendoa
orain arakil
zuŕunbiloa
orbela biltzen dijoa.

Gau iluna da.
Eŕia lotan dalarik,
iren dangada,
kezka ereiñik
ari da joal zaŕetik...

Nor il da? —galde—
atsoak leyo-zulotik...;
sei aŕantzale
makuŕ,burutsik,
kalean gora ixilik...

Andre gazteak
baleki gertakizuna...!
Aŕantzaleak
so alarguna...,
galdu zayo ta laguna.

Gau iluna da...
Ama-semeak
irauli dira kayara.
Ekaitz-aizeak,
galdetu ala,
iŕiz darantzu il dala.

Erio dabil...

«Txiruliruka» «Olerkiak» (11'g. oŕialdean) Loidi'taŕ Paben.

LAROGETAMAIKAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA - IRAGANKOŔA - ADITZ LAGUNTZAILEA

IZAN - AGINTZERA - IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

		(e)		-ZU	
		B- e)		---	
Ner*i*	IZAN		-ZA- -I- -ZKI- -*T* (-*D*a-)		
		(e)		-ZU- -TE	
		B- e)		-----TE	
		(e)		-ZU	
		B- e)		---	
Gur*i*	IZAN		-ZA- -I- -ZKI- -*GU*-		
		(e)		-ZU- -TE	
		B- e)		-----TE	
		D- i)		-Da-	-N
		B- e)		---	
Zur*i*	IZAN		-ZA- -I- -ZKI- -*ZU*-		
		D- i)		-GU-	-N
		B- e)		-----TE	
		D- i)		-Da-	-N
		B- e)		----	
Zue*i*	IZAN		-ZA- -I- -ZKI- -*ZU*- -(*T*)*E*-		
		D- i)		-GU-	-N
		B- e)		-----TE	
		D- i)		-Da-	-N
		(e)		-ZU	
		B- e)		---	
Ber*ari*	IZAN		-ZA- -I- -ZKI- -*O*-		
		D- i)		-GU-	-N
		(e)		-ZU- -TE	
		B- e)		-----TE	
		D- i)		-Da-	-N
		(e)		-ZU	
		B- e)		---	
Ber*ai*	IZAN		-ZA- -I- -ZKI- -*E*-		
		D- i)		-GU-	-N
		(e)		-ZU- -TE	
		B- e)		-----TE	

Era auetan, Agintzera'ren iragankoŕak diran beste guzietan bezela, auxe oaŕ dezakegu: Eraketaren lenengo bidean ikusi genuen bezela, adi-yabeak adierazten dituzten itzatalak atzizkiak ditugula, ta adi-yabea

lenengo notiñekoa danean, irugaŕen notiñaren izakaya agertzen dala, adizkiña D- izkiaz astean.

Adizkin guzietan -ZA- eŕoa ikusten da, Agintzera ta Menekoera'ri dagokiena; ta oŕen ondoren -I- izkia azaltzen da, zeaŕezko -KI- itzataletik edo geratzen dana, ta -KI- ori -ZKI- askaŕ zentzunaz darabilgun erdizkian osorik ikusten dalarik.

Eginkizunak

1. Lenengo lauki ontan zeaŕezko izenordeak ematen ditugu lenengo leŕoan, eta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak erakusten dituzten besteak; alkaŕi dagokion agintzerazko aditzerak ipiñi beaŕ dira bakaŕ-izakayaz artez eta zeaŕez-betetzekoak daramazkitenak; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		dizaizudan	...		...	...
Zuk	Ezaidazu		...	...		...
Berak	...	...	bezayo	...	...	...
Guk		...	...		dizaizuegun	...
Zuek	...		...	ezaiguzute		...
Berak	...	...	...	...	...	bezayete

2. Esakuntza auetan, artez eta zeaŕez-betekizunak agertzen dira, ta aldakuntza, onela egin beaŕ da: bakoitzean, adi-yabea zeaŕez-betetzekoaren bidez, eta alderantziz, zeaŕez-betetzekoa adi-yabearen bidez; aldi baten, bayezkoa dana ezezkoa egiten, eta alderantziz ere, ezezkoa bayezkoa biurtzen; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Eskeiñi dizayodan mutil on oŕi madari eldu au! ; ... - *Ez ezaizkidazu berezi* nire eginkizun-oŕi auek, otoi! ; ... - *Ez bezaigu amaratu* ergelkiro eguneko gure lan guzia! ; ... - *Uŕatu dizaizugun* lopil oŕen estalkia barnean zer dagoen ikusteko; ... - *Ez ezaizkidazute eraindu* emen uzten ditudan laukiak; ... - *Irauli bezaizuete* bereala zuen lusagaŕ-gurdi ori! ; ... - *Erein dizaizkiedan* agure oyei beren soloak! ; ... -- *Landatu ezaizkidazu* baratzean intxauŕondo batzuk! ; ... - *Goldatu bezaigu* gaur bertan gure soloa; ... - *Joŕaitu dizaizkiogun* gure auzokoari bere luŕak; ... - *Ez ezaizkiguzute oraindik irindu* gure galgarauak; ... - *Oratu bezayote* ongi atso oni ain beaŕa duen ogia; ...

3. Uŕengo galderai, egokiak izango zaizkien erantzunak eman; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Erakutsi ezaidazu igaz egin zizuten jantzi ori! : Zer nai duzu erakustea? ; ... - Nori erakutsi beaŕ diot igaz egin zidaten jantzia? ; ... - Mutil oŕek erakutsi beaŕ al dizu igaz egin zioten jantzia? ; Ez, ... baño. -- Eri ikusiko baninduzute, dei-egin ezayezute bereala sendagile ta apaizari : Nortzuei dei-egingo diegu bereala eri ikusiko bazindugu? ; ... - Noiz dei-egingo diet sendagile ta apaizari zu eri ikusiko bazindut? ; ... - Gu eri ikusiko baginduzute bereala sendagile ta apaizari dei-egingo al diezute? ; Bai, zuek ere ... -- Eska bezaidate nire ogia ta ez diet ukatuko : Nortzuei ez diezu ukatuko zure ogia? ; ... - Zer ez diezu ukatuko oyei? ; ... - Guri ukatuko al diguzu zure ogia? ; ... -- Izan zaitezte arduratsu zuen buruaz : Nork izan beaŕ du arduratsu bere buruaz? ; ... - Zer izan beaŕ dugu gure buruaz? ; ... - Nik ere nire buruaz arduratsu izan beaŕ al dut? ; Bai, zuk ere ... -- Ainbeste amets-egingo ezpalu, bizia zer dan obeto ikusiko luke : Nork ikusiko luke obeto bizia zer dan ainbeste amets-egingo ezpalu? ; ... Zer ikusiko luke obeto, ainbeste amets-egingo ezpalu? ; ... - Zuek ere bizia zer dan obeto ikusiko al zenukete, ainbeste amets-egingo ezpazenute? ; Bai, guk ere ... -- Azaldu ezaidazu iragarki oŕek esan nai duena : Nori azaldu beaŕ diot iragarki oŕek esan nai duena? ; ... - Zer azaldu beaŕ dizut? ; ... - Andere ayei ere azaldu beaŕ al diet iragarki oŕek esan nai duena? ; Ez, ... baizik. -- Atzo zuen baratzean ozkiŕi zegoen : Zer zegoen atzo gure baratzean? ; ... - Noiz zegoen ozkiŕi gure baratzean? ; ... - Atzo gure baratzean bero al zegoen? ; Ez, ... baño. -- Itzul gaitezen lenbailen gure aitonarengana : Nortzuk itzuli beaŕ dute lenbailen beren aitonarengana? ; ... - Norengana itzuli beaŕ duzute lenbailen? ; ... - Niregana itzuli beaŕ al dute auŕ oyek lenbailen? ; Ez, ... baizik. -- Antxe bertan adieraziko geniekean gure xedea : Nori adieraziko zenioketean antxe bertan zuen xedea? ; ... - Zer adieraziko zenieketean antxe bertan? ; ... - Nik adieraziko al nizuekean antxe bertan nire xedea? ; Ez, ... baizik. -- Ori ume edeŕa! : Nor uste duzu ume edeŕa dana? ; ... - Ume ori nolakoa dan uste duzute? ; ... - Guziek uste al dute ume ori oso edeŕa dana? ; Eztakit, baña guk bai bederen. -- Biuŕ ezaizkiezute kendu zenizkieten loreak : Nortzuei biurtu beaŕ dizkiegu kendu genizkien loreak? ; ... - Zer biurtu beaŕ diegu? ; ... - Niri biurtu beaŕ al dizkidazute kendu zenizkidaten loreak? ; Ez, ... baño. -- Indaŕak amaituko balitzaizkizu, zer izango litzake zutzaz? ; eztakit nitzaz zer izango litzaken, indaŕak amaituko balitzaizkit : Nork eztaki beratzaz zer

izango litzaken bere indaŕa amaituko balitzayo?; ... - Zer eztakigu zutzaz indaŕak amaituko balitzaizkizu?; ... - Guri indaŕak amaituko balitzaizkigu, ba al dakigu gutzaz zer izango litzaken?; Ez, zuek ere ... -- Ate guziak itxiko lizkigukete sartu nai-izango bagenu: Nori itxiko lizkiokete ate guziak, sartu nai-izango balu?; ... - Zer itxiko lizuekete sartu nai-izango bazenute?; ... - Niri ere ate guziak itxiko al lizkidakete, sartu nai-izango banu?; ... -- Zu ikustera joan omen zitzaizkizun: Nor joan omen zitzaidan ni ikustera?; ... - Nor ikustera joan omen zitzaizkion?; ... - Gu ere ikustera joan omen zitzaizkigun?; Ez, ... baizik. -- Gurasorik gabe, umezurtz, ikusi ginduzten, eta beren laguntza ukatu ziguten: Nor ikusi zuten gurasorik gabe, umezurtz?; ... - Nortzuei ukatu zieten beren laguntza?; ... - Zuk ere zure laguntza ukatu al zenien?; Ez, ... baño. -- Garaiz erdu ziñatenezkero, ez dizuegu ukatuko uste genuena: Nori ez diozute ukatuko uste zenutena, garaiz erdu zanezkero?; ... - Zer ez diguzute ukatuko garaiz erdu giñanezkero?; ... - Niri ukatuko al didazute uste zenutena, garaiz erdu nintzanezkero?; Ez, zuri ere ... -- Ikaskaya aiztu balitzait, enintzake zuregana etoŕiko: Norengana etziñake etoŕiko ikaskaya aiztu balitzaizu?; ... - Zer dala-ta etziñake nigana etoŕiko?; ... - Gu etoŕiko al giñake zuengana, ikaskaya aiztu balitzaigu?; Ez, zuek ere ...

4. Idazti baten uŕengo atala, ongi irakuŕi, astiro, ta bertan esaten dana, gero, norberaren eraz, idatzi, ta oŕ ematen diran asmoen artean, norberarentzat ere, nabarigaŕiena zein dan esan:

«PATXI'REN POZAK PUTZURA, AMETS ZOROEN MODURA»

«Patxi'k, Bilbao'tik Aŕigoŕieta'ra ekaŕi zutenean, iru urteko adiña zuen.

Amak gona ondoan zerabīlen beti. Baselizetako beila ta eŕomerietara, inguruetako eŕi txikietara jayetan, eta toki askotara egurastera, biak joaten ziran; geyenetan beste andere batekin, amaren adiskide mamia berau, Patxi'ren adiñeko ta Edurne izeneko alaba īipi baten ama.

Gure mutikoak aŕeba bat zuen, bera baño urtebete zaaŕagoa, Kataliñ izenekoa. Beronegaz eta Edurne ta beste neskatilīo batzuekin, maiz egiten zuen jolasean Patxi'k, Edurne'ren ama ta berea beŕiketan zeudelarik.

Aita itsasontzi aundi bateko agintaria zan eta bein edo bi bideŕ urtean etxera etortzen zan, amaŕ edo amabost egun igaroteko, itsasoetan

zeaŕ, Bilbao'tik Anberes'era, Brema'ra, Sagunto'ra, eta abaŕ, kairik-kai ibilīi ostean. Edurne'ren aita be kapitana zan, eta itsasoetatik zebilen Patxi'rena bezela. Ez eban iñork ulertzen Patxi gaxuaren gogoa. Ez ote zaye gertatzen auxe bera auŕ geyenei?

Patxi'k etzuen aurkitzen atsegiñik neskatilen jokoetan, eta gañera euren aginduak bete beaŕ-izaten zituen beti. Oŕengatik, bakaŕik ibiltzea nayago zuen, bazteŕ batean jolas egiñik, lasai ta atsegiñez besteengandik uŕun.

Baña naikoa zuen amak, azkatasuna gozatzen zegoela igartea, asteko:

— Ixilegi dago gure Patxitu. Ziuŕ baŕabaskeriren bat egiten dagoela.

Ta au eŕaitea baizik ezpalitz!... Zoritxaŕez, esaten bukatu orduko, bila asi, aurkitu, ta gaŕaixika, edo bearbada zartadaka ere, iratzartu egiten zuen bere jolasen amets pozgaŕietatik.

Bera bakaŕik eta zeruan zegoela iruditzen zitzayon. Ama etoŕi ta... eztugu eŕanen gaiztokira jeisten zanik, baña garbitokira bai...».

«Kurloiak» (39-40'gn. oŕialdeetan) OskiLaso.

LAROGETAMABIGAŕEN IKASKAYA

BETE itza. Nola erabiltzen dan (1).

Itz au, oso ezagunak diran zentzun batzuetan erabiltzen dugu. Baña ba-du, izan ere, ain ezaguna eztan beste zentzun au: BAT zenbakitzarena: *aldi, alde* ta *jarmain*'aren neuŕiak adierazteko.

Onela: Ordu *bete* (ordu bat); Aste *bete* (aste bat); Ila*bete* (ilē bat); Urte *bete* (urte bat). EGUN eta GAU itzai etzaye alkartzen.

Oin *bete* (oin bat); Aŕa *bete* (aŕa bat).

Otaŕ *bete* sagaŕ (sagaŕez *beteta* dagoen otaŕa); Esku *bete* gari (gariz *beteta* dagoen eskua).

Ezta erabiltzen beste zenbakitzekin, *il* itzarekin ez doanean; orduan onela esaten baita: Bi ilа *bete* (bi il); Zortzi ilа *bete* (zortzi il)...

-NA ta *-RA* atzizkiak.

Bi atzizki auek *banaketa*'ren zentzuna dute (2).

Zenbakitzai erantsita, *bakoitzerako* asmoa adierazten dute.

E. b.: Ba*na* (bakoitzari bat); Bi*ra*, Bi*na*, Biña (bakoitzari bi); Iru*na* (bakoitzari iru); Zortzi*ra*, Zortzi*na*, Zortziña (bakoitzari zortzi); Erdi*bana* (bakoitzari erdia) (erdizka).

Noski, izenarekiko zenbakitzaren kiria ezta aldatzen.

Onela: Segaŕ *bana* (bakoitzari sagaŕ bat); Amar*na* sagaŕ (bakoitzari amaŕ sagaŕ).

NAKA ta *-RAKA* (*-RAZKA, -RANZKA*).

Atzizki auek ere *banaketa*rako darabilzkigu, ta auŕekoenetik ateratzen dira; oyek bezela, auek ere, zenbakitzai eransten zaizkie, baña zentzuna zerbait aldatzeko.

Onela: Bi*raka*, Bi*naka*, Biña*ka* (bietatik bi); Zazpi*raka* (zazpietatik zazpi); Amabos*naka* (amabostetik amabost).

-KOITZ eta *-KIN* atzizkiak.

Atzizki auek, zanbakitzai erantsita ere, *laiñeko* zenbakiak eratzeko darabilzkigu.

Onela: Ba*koitz* (*bat*i dagokiona, bakaŕik); Bi*koitz* (*biri* dagokiena); *sei iru*ren bikoitza da (3 x 2 = 6); Iru*koitz* (*iru*ri dagokiona); *bederatzi iru*ren irukoitza da (3 x 3 = 9); Amar*kun* (*amaŕ* batutzen duena); Amabi*kun* (*amabi* batutzen duena); Ogei*kun* (*ogei* batutzen duena).

«Bakoitza»'ren zentzuna, NORBERA itzaren bitartez ere damagu. «Norbera» («bakoitza bera»).

(1) Ikusi: 13, 136'gn. ikaskayak.
(2) Ikusi: 30'gn. ikaskaya.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, zeaŕezko zentzuna daramaten izenordeak jartzen ditugu; ezkeŕ-aldean eta goitiberako zeŕendan, adi-yabeak adierazten dituzten beste izenordeak; alkaŕi dagozkion agintzerazko aditzerak ipiñi beaŕ dira, askaŕ-izakayaz, eta artez eta zeaŕez-betetzekoetaz; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		...	...		dizaizkizuedan	...
Zuk	...		ezaizkiozu	...		...
Berak	Bezaizkit	...	...	...	...	...
Guk		...	...		...	dizaizkiegun
Zuek	...		...	ezaizkiguzute		...
Berak	...	bezaizkizute	...	...	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan, agintzeraren artez eta zeaŕez-betekizunak erakusten dituzten esakuntzak agertzen dira; bai ta -TEKO edo -TZEKO atzizkiekin eratutako menperazko zentzunez erabiltzen diran era soilak; batzuek eta besteak adierazten dituzten zentzunak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Obetu ezaidazute nire lana egiteko bidea!; ... - Guretzat oŕelako ergelkeriak *asmatzeko*, eztute Ikastola Nagusi'an ikasten ari beaŕ; ... - *Makurtu dizaizkiegun* gure buruak beren jakintzaren auŕean!; ... - *Agindu ezayezute* beaŕ danean belaunikatzea!; ... - Idi oyek ekaŕi dizkizuete gurdi oni *uztartzeko*; ... - *Igaŕi bezaigute* datoŕen ilean gertatu beaŕ dana; ... - Ume oyek *ez gaiztotzeko* alegiñak egin beaŕ-izango dizkizuegu; ... - *Tinkotu dizaizkizuedan* zuen eskubide guziak!; ... - Auen lanak *leuntzeko* eztakit zer egingo zenuken; ... - Gure makilak *kakotu ezaizkiguzu* dagokigun bezela erabili nai ditugu-ta; ... - Talo

ori guretzat *zeatzeko* eztu neska oŕek lan aundia egin beaŕ; ... - *Ez bezaizkiete soildu* lugin oyei beren landak; ...

3. Eman, galdera auei, egokiak izango zaizkien erantzun bana kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Neurtu bezaizkigute eun ayek ondo!: Nortzuei neurtu beaŕ dizkiete eun ayek ondo?; ... - Zer neurtu beaŕ dizuete ondo?; ... - Niri ere eun ayek ondo neurtu beaŕ al dizkidate?; Ez, ... baño. -- Atzemango ginduzketenezkero, zertarako ain iraduz joan?: Nor atzemango zuten orduan?; ... - Nork nai zuen iraduz joan?; ... - Zuek ere iraduz joango al ziñaten?; Ez, ... ayek baño. -- Mutil aundikote oŕek zekiena adieraziko ziekean; ez al duzu oŕela uste?: Nortzuei adieraziko ziekean mutil aundikote oŕek zekiena?; ... - Zer adieraziko ziekean mutil aundikote oŕek?; ... - Zuek ere adieraziko al zeniguketean zenekitena?; Ez, ... baizik. -- Uka bezait nai badu; baña eztiot siñetsiko: Nori eztiozu siñetsiko?; ... - Zer eztiozute siñetsiko?; ... - Niri siñetsiko al didazute ukatzen badizuet?; Bai, ... -- Katagoŕiek zure intxauŕak jan balizkizute, zer egingo zenuke?; gogorkienik jazaŕiko nituke katagoŕi oyek nire intxauŕak jan balizkidate: Zeintzuk jazaŕiko zenituke gogorkienik, zure intxauŕak jan balizkizute?; ... Nola jazaŕiko zenituke katagoŕi oyek?; ... - Guk ere gogorkienik jazaŕiko al genituke katagoŕi oyek gure intxauŕak jan balizkigute?; Bai, zuek ere ... -- Ez ezazu egin ori!, gero lotsa-izango zeralako: Zer eztut egin beaŕ, gero lotsik ez izateko?; ... - Zer izango zera gero, ori egiten baduzu?; ... -- Auŕak!, etoŕ zaitezte ona bat-banaka!: Nortzuek etoŕi beaŕ dute ona bat-banaka?; ... - Nola etoŕi beaŕ dute auŕak ona?; ... - Zuek ere bat-banaka etoŕi beaŕ al duzute ona?; Ez, ... baizik. -- Edes bezaigu an jazo zitzayen guzia!: Zer nai duzu oŕek edestea?; ... - Nortzuei nai duzu an jazo zitzayen guzia edestea?; ... - Nik ere an jazo zitzaidan guzia zuei edestea nai al duzute?; Bai, ... -- Joan zaitezte emendik, laisteŕ!: Nortzuk joan beaŕ dute emendik laisteŕ?; ... - Noiz joan beaŕ dute emendik?; ... - Nik ere emendik laisteŕ joan beaŕ al dut?; Ez, ... baño. -- Berandu gabe zuengana joango lirake, artuko bazenituzte: Nortzuk joango lirake guregana berandu gabe, artuko bagenitu?; ... - Noiz joango lirake guregana, artuko bagenitu?; ... - Ni ere zuregana joango al nintzake berandu gabe, artuko baninduzu?; Bai, uste dut zu ere ... -- Bioaz beren etxera!: Nortzuk nai dituzu beren etxera joatea?; ... - Nora nai duzu oyek joatea?; ... - Gu ere gure etxera joatea nai al duzu?; Bai, ... -- Toki ontantxe jausi zitzaizkigun gure bilbelean genekarzkien orniketak: Nun jausi zitzaizkizuen zuen bilbelean zenekarzkiten orniketak?; ... - Zer jausi zitzaizuen toki ortantxe?; ... - Oni jausi al zitzaizkion toki ortantxe, bere bilbelean zekarzkien orniketak?; Ez, ... baizik. -- Ori lenago otu balitzaigu!: Pozik egongo al ziñakean ori lenago otu balitzaizu?; ... - Nola egongo ziñakean ori lenago otu balitzaizu?; ... - Ni ere pozik egongo al nintzakean, ori lenago otu balitzait?; Bai, ... -- Erakutsi dizaizkiogun gure uso edeŕak!: Nori erakutsi nai dizkiozute zuen uso edeŕak?; ... - Zer erakutsi nai diozute?; ... - Eta niri ez al dizkidazute erakutsi nai zuen uso edeŕak?; Bai, zuri ere ... -- Agure mazal oyen egipenak umekeriak irudituko litzaizkizueke: Zer irudituko litzaizkizuke agure mazal oyen egipenak?; ... - Nori irudituko litzaizkioke umekeriak agure mazal oyen egipenak?; ... - Zuri ere agure mazal oyen egipenak umekeriak irudituko al litzaizkizuke?; Ez, ... baizik.

4. Irakuŕi astiro ipuin baten ataltxo au; ta oaŕerazi, gero, bertan agertzen diran «alkaŕ-gai» edo «alkaŕekikoa» adieraztekoa dan atzizkia, ta lokaŕiz-zentzuna ematen duten beste atzizki ta itzak ere:

«I»

Egunsentiko argi-printzak uŕe goŕiz jantzirik daukate, kayera sartu-beŕia dan itxasontzi iīluna. Eta oŕil-eguzki alayari ongi-etoŕika diardute ingurumaiko sasi-belazeak, txinta-soñu ta usai gozo.

Txoriak eta bazteŕak poz. Ez da txikiagoa Peru-Fermin Izko'ren poza, itxasontzia itxasoan utzi ta Nikolas Deun'eko atakatik baŕena bideak gora abiatzean. Iñor askorik ez bideetan, goiz-garai ontan; eta oŕ doa goitik beerako banakak ikusmiran jaŕi-arazten dituela, bere soñeko janzkiaren joskera-margo nabarmenaz. Txapela ta abarketak, bai, bertakoak ditu, begitartea ere ez aŕotz; baña gañerantzean jazkera-moldeak salatzen die, garbi, uŕutiren batetik eldu dan basagizona. Lepotik beera beŕiz, txistu-danboliñak zintziīlik: aretxengana doaz batik-bat bidaztien begiak:

— Orixe agure umorekoa! —egiñez, jaŕaitzen zaizkio bideari, paŕ-antzean, atzetik begira apuŕ bat egonda.

Ez da Peru-Fermin txantxetan bakaŕik «agure», naikoa gordin egonaŕen bere zaaŕean. Arpegiko larmintz soīa zimel, buruko iīe bakanak urdin, ortz-oyak utzak, eta ezpain biak baŕuratxo bilduak: ezagun du zerbait ikusia dala Ludi'an. Ala ta guztiz ere, tente jasotzen ditu sorbaldagañak oraindik, aztalak arin darabiltza, belaunak gozo, arnas-so-

ñurik gabe bulaŕ-aspoak; ez da lausorik aren begi bizi urdiztetan, ez zalaparta txaŕik biotz-pilpiran. Bere euritakoa eskuan eta makil-mutuŕetik pardela bizkaŕean, oŕen txairo igoten oarturik, ez lizkioke eŕez igaŕiko urteak.

Zenbat ote zituen? ... «Irurogoi ta amaŕez goiti bai» egiñez asiko litzaizuke kontua ateratzen, bere napaŕ-euzkeraz: aixa jarduteko beintzat, egundaño jakin dizun mintzaira bakaŕean. Irurogei ta amaŕeko oŕi gañean zenbat erantsi, ez luke itzetik ortzera esaten asmatuko; ezta buruai alpeŕ-neke geyegirik eman gabe ere. Larogei osotu ez dituela: oŕa ziuŕenik zekiena.

Gogoan dizu eraberean, aurtengoarekin datozela beŕogei ta amaŕ, Ameriketa'ra alde-egin zuenetik: Mattxin aita, bere ibaŕeko tuntunero ta bere danbolin-maisu zanari luŕ emanda lasteŕ; eta Karlos-Kinto'ren, edo Maria Kristina'ren mutil bere burua ikusi nai ezik, egia beaŕ baduzu... Beŕogei amaŕ urte aundi!... Ez motzak, gizonaren bizia labuŕaren konturako, baña bai azkaŕ izkutatuak, aldi joanaren leize-zulo ondargabean!...».

«Eŕaondo'ko azken danbolinteroa» (3-4-5'kn. oŕialdeetan) Arturo Campion - A. Justomari Mokoroa'k... euzkeraz antolatua.

LAROGETAMAIRUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

AGINTZERA - EGINKOŔA - IRAGANKOŔA

EREDUZKO ADITZA - LAGUNTZAILEAREN ERAEKIN

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

			-ZU							-ZU			
			---							---			
Ni	*N-* a)	-ZA-					*Gu*	*G-* a)	*-IT-*	-ZA-			
			-ZU-	-TE						-ZU-	-TE		
			-----	-TE						-----	-TE		

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

			-Da-		-N					-Da-		-N	
			----							----			
Zu	*Z-* a)	*-IT-*	-ZA-				*Zuek*	*Z-* a)	*-IT-*	-ZA-	*-TE-*		
			-GU-		-N					-GU-		-N	
			-----	(T)E						-----	(T)E		

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

Ez ditugu emen adizkin auek aipatzen, 88'gaŕen ikaskayan ikasi ziranak diralako.

Jaŕitako beste eraetan, auxe da oaŕerazi dezakeguna: gero ikusiko dugun menekoeran agertzen diranen antzekoak dirala (eta batzuk, *zaitzadan, zaitzagun*; *zaitzatedan, zaitzategun* oyek, berdin); eta eraketaren lenengo bidea jaŕaitzen dutela, beren itzatalak kirian berean jartzeko; izakaya adierazten duena auŕean doalarik eta adi-yabearena azken tokian.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, artez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak ipintzen ditugu; ta eskeŕ-aldean, goitiberako ze-

ŕendan, adi-yabeak diran beste izenorde egīleak ere; alkaŕi dagozkion «Agintzera»'ren era laguntzaīleak, kulatzen ordez, esan eta idatzi:

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		zaitzadan	...		...	...
Zuk	Nazazu		...	...		...
Berak	...	...	...	gaitza	...	...
Guk		...	dezagun		...	...
Zuek	...		...	...		itzazute
Berak	...	...	...	...	zaitzatee	...

2. Emen ipintzen ditugun esakuntzetan, adi-yabeak eta artez-betetzekoak agertzen dituzten «Agintzera»'ren erak aldatu beaŕ dira: bakoitzean bere adi-yabea bere izakayaren bidez, eta alderantziz ere, izahaya adi-yabearen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Ikus zaitzadan beti osasun onenean!; ... - *Eraman nazate* lanbailen sendagīle oŕengana; ... - *Ekaŕ bezate* ona īlundu baño lenago!; ... - *Entzun ditzagun* emakume begiko ayek!; ... - *Ez itzazute begira* oŕen itsusiak diran zomoŕo oyek!; ... - *Jazaŕi bezate* gogoŕ biotz gabeko ankeŕ ayek; ... - *Aguŕ zaitzatedan* beti gogo onenaz!; ... - *Aŕ itzazu* umezurtz gizajo auek maitasunez!; ... - *Lagun naza* jaun oŕek beaŕ dudan bezela; ... - *Ez dezagun ezetsi* alargun itun ori!; ... - *Ez gaitazute zapuztu* zuen uŕikaltasunaren bīla gatozenean; ... - *Laztandu bitzate* adeitsuki ume polit oyek; ...

3. Orain jartzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Ikus nazate, nola utzi ninduten!: Nork ikusi beaŕ zinduen, utzi zinduten eraz?; ... - Nor ikusi beaŕ zuten, utzitako tankeran?; ... - Ni ikusi beaŕ al ninduten orduan nengoen beaŕean?; Ez, ... baño. -- Bota ezayozute arpegira!: Nori bota beaŕ diote arpegira?; ... - Nortzuek bota beaŕ diote arpegira?; ... - Zuei ere arpegira bota beaŕ al dizuete?; ... -- Nire baitan zaletasun ona aurkitu ezpalute, zer esango lukete?; nik eztakit zer esango luketen, zure baitan zaletasun ona aurkitu ezpalute: Zuk ezer esango al zenuke nire baitan zaletasun ona aurkitu ezpazenu?; ... - Noren baitan aurkituko zuketean zaletasun ona?; ... - Nik aurkituko al nukean oyen baitan zaletasun ona?; Bai, ... -- Eraman gaitzazute nai duzutenera: Nork eramango zaituzte nai duenera?; ... - Nor eraman beaŕ dugu nai dugunera?; ... - Ni eramango al nauzute nai duzutenera?; Ez, ... baño. -- Ayen antzera gurekin izango zinduztekegu luzaroan: Nortzuek izango ginduzkete ayen antzera luzaroan?; ... - Nortzuk izango zenituzkete zuekin luzaroan ayen antzera?; ... - Ni ere zuekin luzaroan izango al nindukezute ayen antzera?; Ez, ... baizik. -- Utzi zeniguna erdibanatu genuen: Nola erdibanatu zenuten utzi genizuena?; ... - Nortzuek erdibanatu zuten utzi geniena?; ... - Zuek ere utzi genizuena erdibanatu al zenuten?; Bai, guk ere ... -- Ez ezaizkiezute jan igali oyek!: Nortzuei ez dizkiegu jan beaŕ igali oyek?; ... - Zer ez diegu jan beaŕ?; ... - Guri ere jan beaŕ al dizkiguzute igali oyek?; Ez, ... baño. -- Erosi dizaizkiogun beren burusi ta izara guziak!: Nortzuei erosiko dizkiezute beren burusi ta izara guziak?; ... - Zer erosiko diezute oyei?; ... - Nik erosiko al dizkiet oyei beren burusi ta izara guziak?; Ez, ... baizik. -- Ate ayek itxiko balitzaizkit, beste batzuk idekiko lirake: Nori itxiko litzaizkioke ate ayek?; ... - Zer itxiko litzaizuke?; ... Guri ere ate ayek itxiko al litzaizkiguke?; Ez, ... baño. -- Ura zuk nai duzun bezela erosiko balizute, ziuŕ nago asko alaituko ziñakela: Nor alaituko litzake asko, ura berak nai duen bezela erosiko baliote?; ... - Nola alaituko nintzakela uste duzu?; ... - Gu ere asko alaituko al giñake, ura guk nai dugun bezela salduko baligute?; Bai, zuek ere ... -- Zer egingo zenuke ikusiko bazindute?; eztakit zer egingo nuken, ikusiko banindute: Nork eztaki zer egingo luken ikusiko balute?; ... - Oyek al dakite zer egingo luketen ikusiko balituzte?; Bai, ... - Eta guk al dakigu zer egingo genuken ikusiko baginduzte?; Eztakit zuek ote dakizuten ... -- Alkaŕ gaitezen gure elburua burutzeko: Nortzuk alkartuko dira beren elburua burutzeko?; ... - Zertarako alkartuko zerate?; ... - Gu ere alkartuko al gera gure elburua burutzeko?; Ez, ... baizik. -- Otaŕ bete sagaŕ ekaŕiko genizuekean, baña bat ere ezkenuen aurkitu: Nortzuek ekaŕiko ziguketean otaŕ bete sagaŕ?; ... - Nortzuei ekaŕiko zenieketean otaŕ bete sagaŕ?; ... - Nik ekaŕiko al nizuekean otaŕ bete sagaŕ?; Ez, ... baizik. -- Zure azaburuak biña erosiko lizkizukete: Nori erosiko lizkiokete bere azaburuak biña?; ... - Iruna erosiko al lizkidakete nire azaburuak?; Ez, ... baño. - Guk erosiko al genizkizuke zure azaburuak launa?; Ez, zuek ere biña ... -- Biñaka eraman baginduzte!: Pozik joango al ziñakete biñaka eraman bazinduztee?; ... - Nortzuk joango lirake pozik biñaka eraman balituzte?; ... - Gu ere pozik joango al giñake biñaka eraman baginduzte?; Bai, zuek ere ... -- Ero ayek uŕeratuko balitzaizkit, bereala itzuriko nintzake: Nor itzuriko litzake bereala ero ayek uŕeratuko balitzaizkio?; ... - Zer dala-ta itzuriko ziñake?; ... - Gu ere itzuriko al giñake ero ayek uŕeratu balitzaizkigu?; Ez, ... baizik.

4. Irakuŕi aŕetaz uŕengo elkaŕ-izketa, Shakespeare'ren antzerki batetik artuta; ikusi, gero, Ingalateŕa'ko elertian idazle oŕen gaŕantzia nolakoa dan, eta berak egindako beste antzerkien izen batzuk eman:

«I EKITALDI»

AZAL (Basa-uriko Ebazle) — «Emen datoŕ Ane andereño liraña. Gazte al nintz zugaitik, Ane andereño!

ANE (Peitx'en alaba) — Mayan dago bazkaria; zuok mayan bere lagun izango zeraten begira dagotzue nire aita.

AZAL — Aren esan eta agindura nago ni, Ane andereño.

EVANS (Wales'taŕ abade) — Yaungoikoa'ren guraria egin bedi! Maya onesterakoan an izan gura dot.

ANE — Edeŕ bekizu, yauna, ta zu be baŕura zatoz.

SLENDER (Azal'en iīoba) — Ez, eskeŕik asko benetan eta biotzez; ondo be ondo nago ni.

ANE — Zure begira dago bazkaria, jauna.

SLENDER — Enaz goserik, eskeŕik asko, benetan. Oa i, zirtzil ori; nire otsein izanaŕen, otsein akio nire osaba Azal'eri. Bake-ebazle izanaŕen, ak bere iīobaren otseñaren otseintzea aintzakotzat aŕ lei... Nire ama il arte iru gizon eta mutiko bat bakaŕik dodaz otseintzarako; baña ze ardura daust oŕengatik? Bitartean jayotzez beartsu dan aitonen seme-antzera bizi naz.

ANE — Ezin sartu neinteke ni baŕura zu adeigaŕi ori barik; ayek ez dira yaŕiko maira zu yoan arte.

SLENDER — Siñis egidazu, enaz gose; yango baneu legetxe eskeŕik asko damotzut.

ANE — Aŕen yauna, zatoz baŕura.

SLENDER — Gurago dot emen berton ibiīi; eskeŕik asko; lengo egunean ezpataketa-irakaslekin ezpata ta sastakai-yolasean geragoyola, iru oldarketa edo yaŕaikadaren alderako okaran egosiak yokaturik, nire zangazuŕa uŕatu neban, bai? eta aŕezkero, siñis egidazu, ezin yasan dot okela eŕearen usaiñik be. Zertgatik daragoyoe zuan txakuŕak olan ausika? Artzak doguz uri ontan, ala?

ANE — Ba-dagozela uste dot, yauna; entzun izan dot olangorik.

SLENDER — Begiko-begiko yat yolas ori; baña lasteŕ nozu ni iskanbiīaren batean sarturik. Ingelanda'n edonor lez; ... zu bilduŕ izaten zara artzik azkatuta ikusi ezkero, ezta?

ANE — Bai, izan be, yauna.

SLENDER — Orain ori niretzako yatea ta edatea legetxe da. Ogei bideŕ ikusi dot Sackerson artza azkatuta; eta katetik artuta erabiīi izan dot; baña, siñis egidazu, emakumeek gedaŕez eta iŕintzeka eragoioen bera euren auŕetik igaro-ala; ... ez, emakumeek ezin yasan dabe artzik; arpegi zantaŕeko pizti benetan motzak yatzuz artzak».

«Windsor'ko gogaldi oneko emazteak» (89-90'gn. oŕialdeetan) W. Shakespeare (euzkeraz, Laŕakoetxea'taŕ Bedita Y.).

LAROGETAMALAUGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

AGINTZERA - ADITZ LAGUNTZAĿEA

ARTZAĿE-ADIZKIÑAK - IRUGAŕEN NOTIÑAREN ADI-YABEA (1)

	Bakaŕ		Askaŕ	
Neŕi		-T		-T
Zuŕi		-ZU		-ZU
Berarí		-O		-O
	IZAN B- e) -KI-		IZAN B- e) -KI- -ZKI-	
Guŕi		-GU		-GU
Zueí		-ZU- -(T)E		-ZU- -(T)E
Berai		-E		-E

Ikusten danez, era guziak *B-* len-izkiaz asten dira, era ontako irugaŕen notiñaren adi-yabea adierazteko duguna; gero, oso ezagunak ditugun beste itzatalak jaŕaitzen dirala.

-MEN eta *-PEN* atzizkiak.

Atzizki auek, geyenbat, aditz-gayai alkartzen zaizkie, zentzun onekaz:

Lenengoak EGINTZA adierazten du, ta batzuetan ba-du ALMEN'aren zentzuna ere.

Bigaŕenak, beti, EGINTZA adierazten du.

E. b.: Bai*men* (bayetza ematen duen *egintza* edo *almena*).
Barka*men* (barkatzekoa dan *egintza* edo *almena*).
Ikus*men* (ikusteko dugun *almena*).
Ikus*pen* (ikusteko egiten dan *egintza*).
Oroi*men* (gogoratzeko dugun *almena*).
Oroi*pen* (gogoratzeko egiten dan *egintza*).

-MEN atzizkitik -MENDI ta -MENDU beste atzizkiak sortzen dira.

E. b.: Onda*mendi* (ondatuta geratzen dana).
Parka*mendu* (barkatzen duen *egintza*).

MEN, itza bezela, zentzun batzuetaz erabiltzen da. Onela:
Izena bezela: *estualdi, meatze, al-izatea,* ... adierazten ditu.
Izenondo bezela: *ziñezko* edo *zintzo, benetako, esaneko, eskurakoi* ...

---

(1) Ikusi: 140, 142, 147 ikaskayak.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontako lenengo leŕoan, artzaĿe-zentzuna ematen duten izenordeak ipintzen ditugu; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, bayeztean eta ezeztean bakoitza, irugaŕen notiñen adi-yabeak agertzen dira. Alkaŕi dagozkion «Agintzera»'ren adizkiñak, kulatzen ordez, esan edo idatzi beaŕ dira:

Adi-yabea		Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Bera (bai)	:	...	bekizu	...	...	...	bekie
Bera (ez)	:	Ez bekit (Ezpekit)	...	ez bekio (ezpekio)	...	...	...
Berak (bai)	:	...	...	...	bekizkigu	...	bekizkie
Berak (ez)	:	...	ez bekizkizu (ezpekizkizu)	...	...	ez bekizkizue (ezpekizkizue)	...

2. Uŕengo esakuntzetan artzaĿe-zentzunaz agertzen diran eraen azken itzatalak aldatu beaŕ dira; bakaŕezkoa dana bere maĿako askaŕezkoaren bidez, eta alderantziz ere, askaŕezkoa dana bakaŕezkoaren bidez; aldi baten, bayeztekoa dana ezezkoaren bidez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Aiztu bekit egun izugaŕi artan ikusi nuena; ... - *Ez bekizu arindu* zure naigabea oindiño; ... - *Azketsi bekizkio* bere utz guziak; ... - *Ez bekigu kutsatu* ume ori jostaketa oyetan; ... - *Garbi bekizkizue* zuen gogokizun guztiak lenbailen; ... - *Ez bekie ordaindu* beren zoŕa gureganaño etoŕi arte; ... - *Ezpekizkit ezabatu* nire maŕezki polit auek; ... - *Senda bekizkizu* zure gurasoak, nai duzuten bezela; ... - *Ez bekizkio itzali* etxeko argiak gau guzian; ... - *Bete bekizkigu* gure upelak goraño ta laisteŕ; ... - *Uztu bekizue* oraintxe ekaŕi duzuten bada-zoŕo ori; ... - *Kiskali bekizkie* ongienik azkaltzeko dauzkaten opiĿak; ...

3. Oitura dugunez, eman galdera guzti auei egokia izango zayen erantzuna; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Izan bekizu atsegiña gure arteko egoera: Nori opa diozu zuen arteko egoera atsegiña izatea?; ... - Zer opa didazute?; ... - Guk opa al dizuegu gure arteko egoera atsegiña izatea?; Bai, ... -- Eraman nazazu zurekin Donosti'ra: Nor nai duzu nirekin Donosti'ra eramatea?; ... - Nora eramango gaituzu zurekin?; ... - Nik eramango al zaituztet nirekin Donosti'ra?; Ez, ... baño. -- Eztakit nirekiko zer esan nuen, guregandik

aldendu zanean: Nork eztaki berekiko zer esan zuen, zuengandik aldendu zanean?; ... - Noiz esan zenuen zurekiko ura?; ... - Guk al dakigu gurekiko zer esan genuen, guregandik aldendu zanean?; Ez, ... baizik. -- Uŕeratu bekit neska gazte ori!: Nor nai duzu zuregana uŕeratzea?; ... - Nortzuek nai dute neska gazte ori berengana uŕeratzea?; ... - Guk nai al dugu neska gazte ori guregana uŕeratzea?; Ez, ... baño. -- Atera gaitzate lenbailen emendik: Nortzuk aterako dituzte lenbailen emendik?; ... - Nundik aterako zaituztee lenbailen?; ... - Ni ere lenbailen aterako al naute emendik?; Ez, ... baizik. -- Jaso ezaidazu ori luŕetik: Nori jasoko nioke ori luŕetik?; ... - Nundik jasoko lidakete ori?; ... - Zuek jasoko al zenigukete ori luŕetik?; Ez, ... baño. -- Gauzak geyago erosiko zenizkionezkero, erosi ezaizkiozu gazta ori ta sagaŕ ayek: Nori erosi beaŕ dizkiot gazta ori ta sagaŕ ayek?; ... - Zer erosi beaŕ diogu guk?; ... - Zuei ere erosi beaŕ al dizkizuegu gazta ori ta sagaŕ ayek?; Ez, ... baizik. -- Atera nazazu egokera neketsu ontatik: Nor aterako nuke egokera neketsu ontatik?; ... - Nundik aterako genuke gizajo ori?; ... - Ni aterako al nindukezute egokera neketsu ontatik?; Bai, zu ere ... -- Zeroŕek aŕendu bazenie, beren antxumeak salduko zizkiguketean: Nork salduko zizkizuekean beren antxumeak neronek aŕendu banio?; ... - Zer salduko zizuekean neronek aŕendu banio?; ... - Guk salduko al genizkizuekean gure antxumeak zuen adiskide oŕek aŕendu baligu?; Bayetz uste dugu, zuek ... -- Iruña'n aurkituko ezpazenute, geratu zaitezte antxe bertan biaramon arte: Noiz arte geratuko gera antxe bertan, Iruña'n aurkituko ezpagenu?; ... - Nun geratuko naiz biaramon arte, Iruña'n aurkituko ezpanu?; ... - Zuek ere antxe bertan biaramon arte geratuko al ziñakete, Iruña'n aurkituko ezpazenituzte?; Bai, gu ere ... -- Guzion batasunak gure azkatasuna emango liguke: Nortzuei emango lieke guzion batasunak beren azkatasuna?; ... - Zerk emango lizueke guzion azkatasuna?; ... - Jopu oyei ere guzien batasunak beren azkatasuna emango al lieke?; Bai, oyei ere ... -- Utzi zaitzae pakean zure asabaen etxean: Nor utzi beaŕ-izango lukete pakean bere asabaen etxean?; ... - Nola utzi beaŕ-izango zindukete zure asabaen etxean?; ... - Ni ere nire asabaen etxean pakean utzi beaŕ-izango al nindukete?; Bai, zu ere ... -- Eman bezaizkigute okaran ayek seiña: Nortzuei emango dizkiegu okaran ayek seiña?; ... - Nola eman beaŕ dizkizuegu okaran ayek?; ... - Guri ere okaran ayek seiña eman beaŕ al dizkiguzute?; Ez, ... baño. -- Ikasle zuuŕ eta menak ez ziguketean egingo oŕelako zeŕikeria: Nortzuek ez zizueketean egingo oŕelako zeŕikeria?; ... - Zer ez zizueketean egingo ikasle zuuŕ eta menak?; ... - Zuk egingo al zenigukean oŕelako zeŕikeria?; Ez, ... baizik. -- Esan dizudana ukatuko balizute, esan ezayezu gezurtiak dirala: Nortzuei esango diet gezurtiak dirala, zuk esan didazuna ukatuko balidate?; ... - Zer esango diegu ayei, zuk esan diguzuna ukatuko baligute?; ... - Zuei ere gezurtiak zeratela esango al dizuegu, gurasoek esan digutena ukatuko bazenigute?; Bai, guri ere ... -- Norberak bere artaldea zainduko luke aŕeta aundienaz: Nork zainduko luke bere artaldea aŕeta aundienaz?; ... - Nola zainduko luke norberak bere artaldea?; ... - Zuek ere zuen artaldea aŕeta aundienaz zainduko al zenukete?; Bai, guk ere ...

4. Irakuŕi ta aztertu egokiro, emen ipintzen dugun «amalaunekoa», ots, amalau bertso dituen olerkia; gurean saŕi, onelakoak egin ordez amabikoak egiten dira; ta emengo amalauneko ontan auxe ere oartu beaŕ da: bertso bakoitzak amabi itzatal dauzkala, ta erdian, sei itzataletik sei itzatalera, «etena» edo geldi-une bat egiten dala esatean:

«JESUS'EN ZAZPI AZKEN ITZAK»

«Zeru-luŕ artean Jesus jaso dute
ta gero berari azpitik begira
iŕiz ari zaizko guziak batera,
eupaka, ixeka zernai badarauste.
«Jainkoa du Aita (berak ala uste!),
ongi nai badio, el bekio Bera.
Baldin Israel'go eŕege bazera,
eup! abe ortatik jautsi egin zaite.
Baldin Jauretxea uŕatu ta beŕiz
iru egunetan gora badaikezu,
eup! zeure burua azka zazu lenen!».
Jesus'ek guzia entzun ta eŕukiz
Aita'ri otoiztu: «Oi, barka zayezu!
Aita, eztakite zer ari diraden».

«Gure bertsolariak» (104'gn. oŕialdean) Irisarri. Aita Onaindia.

LAROGETAMABOSKAŕEN IKASKAYA

ADITZAREN IZEN-JOKOA

Lenengo ikaskayetan ikusi genuenez, ba-dakigu euzkal-izen-jokoa nola egiten dan; izenen arteko aŕemanak, orduan ikasi genituen atzizki batzuen bidez adierazten.

Orain, atzizki ayek berak, aditzen artean izan ditezken ayen antzeko aŕemanetarako ta beren zentzun berberaz darabilzkigula ikusiko dugu.

Ta atzizki ayek, aditzak onela, iru era auetan, artzen dituzte: beren izenean (dakigunez, egitan aditz-izenondoak diralarik), -TE edo -TZE atzizkien bidez dagigun aditz-izenean, eta jokatutako eraetan.

Adibidez, ERAMAN aditza artuta, uŕengo laukia jaŕi dezakegu, erabīli ditezken atzizki batzuekin (zerbait: Azkue, M.).

Atzizkiak	ERAMAN (aditz-izenondo)	ERAMATE (aditz-izen)	DARAMA (jokatutako era)
-a	eraman*a*	eramate*a*	daraman*a*
-k	eraman*ak*	eramate*ak*	daraman*ak*
-n	eraman*ean*	eramate*an*	daraman*ean*
-tik	eraman*etik*	eramate*tik*	daraman*etik*
-ra	eraman*era*	eramate*ra*	daraman*era*
-en	eraman*aren*	eramate*aren*	daraman*aren*
-ko	eraman*eko*	eramate*ko*	daraman*eko*
-ari	eraman*ari*	eramate*ari*	daraman*ari*
-z	eraman*az*	eramate*az*	daraman*az*
-gatik	eraman*agatik*	eramate*agatik*	daraman*agatik*

Goitiberako lenengo zeŕendan agertzen diran erak, onela uleŕ ditzakegu: Eramaten dan*a*, eramaten dan*ak*, eramaten dan*ean*, eramaten dan*etik*, ...

Bigaŕenean agertzen diranak, onela ere uleŕ ditzakegu: Eraman egiten dan*a*, eraman egiten dan*ak*, eraman egiten dan*ean*, eraman egiten dan*etik*, ...

Irugaŕenean agertzen diranak, onelaxe be ulertzeko: Eramaten duen*a*, eramaten duen*ak*, eramaten duen*ean*, eramaten duen*etik*, ...

Beste atzizkiak ere erabil ditzakegu; bai ta atzizki bateaz agertzen dan itzari beste bat gañeratzen be. Onela, e. b.: -TEKO atzizkia artzen badugu, ta ERAMAN (aditz-izenondo)'i alkartzen badiogu, onela joka dezakegu: ERAMAN + -TEKO = ERAMATEKO; ta itz beŕi oni, lengo laukian agertzen diran beste atzizkiak alkartzen badizkiogu, beste itz

auek eratuko ditugu: Eramatekoa, eramatekoa*k*, eramatekoa*n*, eramatekoa*ren*, eramatekoa*ri*, eta abaŕ.

Itz oyetako batzuek bi zentzun eman ditzakete, ta zentzun oyek esakuntzaren esan-nayak adieraziko ditu:

Onela: Oŕek *daramana*, polita da.
Txapela *daramana*, itzuliko da.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, lenengo leŕoan agertzen diran aditz-izenondo, aditz-izen eta jokatutako erai, ezkeŕ-aldean ipintzen ditugun atzizkiak erantsi; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Atzizkiak	Ekaŕi	Ekarte	Dakaŕ	Jakin	Jakite	Daki
-a	...	...	...	...	jakitea	...
-k	ekaŕia	ekarteak	...	...	...	dakienak
-n	...	...	dakaŕenean	...	jakitean	...
-tik	ekaŕiera	ekartetik	...	jakiñetik	...	...
-ra	...	...	...	...	...	dakienera
-en	...	...	dakaŕaren	...	jakitearen	...
-ko	...	ekarteko	...	jakiñeko	...	...
-ari	ekaŕiari	...	...	...	...	dakienari
-z	...	...	dakaŕenaz	...	jakiteaz	...
-gatik	...	ekarteagatik	...	...	jakiñagatik	...

2. Emengo esakuntzetan, EKAŔI, JAKIN, ERABIĪLI (aditz-izenondo) ta EKARTZE, JAKITE ta ERABILTZE (aditz-izen) agertzen dira, ta alkaŕi buruz aldatu beaŕ dugu; aditz bakoitzerako, lenengoa bigaŕenaren bidez eta alderantziz, bigaŕena lenengoaren bidez; aldi baten, bayetzean dagoena ezetzean jartzeko ta alderantziz ere; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Ekaŕia dagoen eguŕa negurako egokia izango zaigu; ... - *Jakiña* duzuna beti zuretzat onuragaŕia izango da; ... - Ain *erabīlia* izan dan mintzoera etzayo iñori aiztuko; ... - Idaztia *ez ekartzea* deitoragaŕia izango da; ... - Ezer *ez jakitea* eŕukaŕia izan beaŕ edonorentzat; ... - Atxuŕ eta layak aŕetaz *erabiltzea* eskatu beaŕ diegu nekazari gazte oyei; ... - Beaŕ dana garaiz *ez ekaŕia* izan, uste dugu kalterako izango dala; ... - *jakiña* eztana ez da iñoiz aiztuko; ... - Itz garbia *erabīlia* oso atsegiña izango zaigu guzioi; ... - Sorbaldan *ekartzea* nekegaŕia izango zayo; ... -

Ikaskaya ongi *jakitea* beaŕa izango zaigu ikastaldian auŕeratzeko; ... - Soñeko zabala *ez erabiltzea* oztopogaŕi izango da, ziuŕ, ibiltzeko; ...

3. Oitura dugunez, eman uŕengo galderai erantzun egoki bana; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Aldendu bekizkigu kutsudun oyek!: Nortzuk nai dituzute zuengandik aldentzea?; ... - Nortzuengandik nai duzute kutsudun oyek aldentzea?; ... - Nigandik ere aldentzea nai al duzute?; Ez, ... baizik. -- Estali zaitzatee beren babesaz: Nortzuk estali beaŕ dituzte ayek beren babesaz?; ... - Nortzuek estali beaŕ gaituzte beren babesaz?; ... - Ni ere zuen babesaz estali beaŕ al nauzute?; Ez, ... baño. -- Neronek edestu banizu, orduan ere ez zenuke siñetsiko: Nork eluke siñetsiko zeroŕek ere edestu bazenio?; ... - Ayek edestu balizute, siñetsiko al zenuke?; Ez, ... - Eta zuk edestu bazenigu, guk siñetsiko al genuke?; Bai, uste dut, nik ... -- Ongi idaztea oso beaŕa da: Zer da oso beaŕa?; ... - Nola idaztea da oso beaŕa?; ... - Norentzat da oso beaŕa ongi idaztea?; Guziontzat da ... -- Ez bekizkigu aiztu zure aolkuak: Nori etzaizkio aiztu beaŕ nire aolkuak?; ... - Zer ez zaizue aiztu beaŕ?; ... - Oyei aiztu beaŕ al zaizkie nire aolkuak?; Ez, oyei ere ... -- Onetsi gaitzate agure agurgaŕi ayek!: Nortzuek onetsiko zaituztee?; ... - Nor onetsiko dute agure agurgaŕi ayek?; ... - Ni onetsiko al naute agure agurgaŕi ayek?; Ez, ... baño. -- Erein ezaizkiezute beren soloak gari, garagaŕ eta oloaz: Nori erein beaŕ dizkiogu bere soloak gari, garagaŕ eta oloaz?; ... - Zerez erein beaŕ dizkiogu bere soloak?; ... - Zuei ere erein beaŕ al dizkizuegu zuen soloak gari, garagaŕ eta oloaz?; Ez, ... baizik. -- Bakoitzak pitin bat ebaki balie, ez litzayeke ezer geratuko: Nori elitzayoke ezer geratuko, bakoitzak pitin bat ebaki balio?; ... - Nola elitzayoke ezer geratuko?; ... - Guri ezer geratuko al litzaiguke bakoitzak ere pitin bat ebaki baligu?; Ez, zuei ere ... -- Dana dala, nik guzia erosiko nizuke: Nori erosiko zenioke guzia, dana dala?; ... - Zer erosiko zenidake, dana dala?; ... - Guk erosiko al genizuke guzia, dana dala?; Ez, ... baño. -- Ez dira berdin esatea ta ematea: Zertzuk eztira berdin?; ... - Zer eztira esatea ta ematea?; ... - Zer diñozu zuk?; ... Esatea ta ematea ... -- Dakienaren almena oso aundia izaten da: Zer izaten da oso aundia?; ... - Nola izaten da dakienaren almena?; ... - Zure almena ere oso aundia izaten al da?; Ez, ... baizik. -- Geyegi edateagatik beren osasuna laisteŕ galdu zuten: Zergatik galdu zuten laisteŕ beren osasuna?; ... - Zer galdu zuten laisteŕ geyegi edateagatik?; ... - Zuek ere zuen osasuna laisteŕ galdu al zenuten geyegi edateagatik?; Ez, ... baizik. -- Auek daukatenaz gauzak asko egin al-izango lirake: Zer egin al-izango litzake auek daukatenaz?; ... - Zerez egin al-izango lirake gauzak asko?; ... - Nik daukadanaz ere gauzak asko egin al-izango lirake?; Ez, ... baño. -- Eman bekie auŕ auei guretzat nai dugun azkespen guzia: Nortzuei eman beaŕ-izango litzayeke zuentzat nai duzuten azkespen guzia?; ... - Zer eman beaŕ-izango litzayeke auŕ auei?; ... - Guri eman beaŕ-izango al litzaiguke zuentzat nai duzuten azkespen guzia?; Bai, zuei ere ... -- Sorosi zaitzatee erakunde ayek al duten guzia: Nortzuek sorosi beaŕ gaitzate al duten guzia?; ... - Nor sorosi beaŕ dute erakunde ayek al duten guzia?; ... - Nerau sorosi beaŕ al naute erakunde ayek al duten guzia?; Ez, ... baizik.

4. Irakuŕi ondo ta aŕetaz elebeŕi-txatal au, ta esan gero: Zenbat eta zer diran bertan aipatzen diran notiñak; nundik, nora ta zertara doazen; nolako bideetan dabiltzaten, eta jaso ditzakezuten beste zertzelada guziak:

«I. - BIZITZEAREN KEZKA»

«Eŕosa, aŕautz-otartxoa besoetan arturik, gaztaz beteriko saskia astoari lengo zamaren geigaŕi ipiñi, ta mutiłak lasto-itxuta aldiro ara-ona, piztu itzalika zuela, ontan artu zuten etxetiko irteera bidazti goiztaŕak.

Bidealdi motxean, bañan mendi-egalak beera bidatxigoŕ estu ta uŕia zuten oin-bide.

An-emen arte-ondo iłun bakartiek albora utziaz, eta auen ostape itxiek iłunagotzen ziotelarik, eŕekatxo ałalaren erara zijoan burdi-bide sakona artu zuten geroxeago. Sakon bezin loitsua alabeaŕez. Astoak oiñarte bakoitzeko jaurtitzen zien zipriztiñak jasoko ez bazituzten, edo ta, belaunburuetaraño lokatzez likatu, Joxamingo, galtzak zankabeetaraño jasorik, eta Eŕosa gona beltz exurtua ta auŕe-mantal mendelak oi zituen baño goraxeago altxaturik irten beaŕ-izan zuten bide likatsu artatik. Toki garbiagora, bide ezpalera.

Etziran noski auek bakaŕik ordu berean eta toki berera zijoazenak: Eŕekatxoren ezkeŕ-eskuma ziran bideak beera, lasta-argiaren ke-moltso, ta gaŕ-mototsak ere aldioro nabariaz zeramazkiten ama-semeak. Onenean, aueri auŕen artzea izan zitekean oen asmo bakaŕa, baña asto zamatuaren oiñarte motelak luzaerazten noski, amaika bideŕ ibiltarin jetxiko zuten bide ezagun artatik irtetzea.

Egun argiaren lenen aztaŕa, Araląŕ gandoŕetik kirikaz zetoŕen bide zabala artu zutenerako. Emen, astoari so eman-da, aŕopetan jaso zituzten

zipriztiñak, azkaxal muṫuŕaz muŕizkatu, ta bide ertzean neguak kizkurturiko almitz igaŕetan oñetako loyek utzi ondoren, biek astoaren orpoz-orpo jaŕi ziran.

Aŕikada bide etzuten auŕeratu, gurdi negarti bat auŕeraxeago zijoana nabari zuten arteño. Gutxi bat auŕerago, ta bideera bardiñean zijoala zirudian. Eta itzai zentzungea idien leloan patxadaz, akuḻua sorbaldaturik joan zitekean bitartean, astoari orpotsak dantzatu-erazi ziozkan Artzuaga'ko etxekoandre gartsuak. Nola galduko zuten elkaŕekin beŕi-kontari joan zitezkean tarte atsegiña?

Urbilduaz zijoazelarik, gizaseme lodixkote bizartsu, ta andrezko soriḻan arpegiak, lendiko ezagutze eŕaiñua zekarkion Eŕosa'ri. Ain zuzen, alegitaŕak ziran».

«On egiñaren obaria» (21-22'gn. oŕialdeetan) Ugarte'taŕ Martin.

LAROGETAMASEIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

MENEKOERA

Menekoerak nayaren asmoa adierazten du; ta asmo ori *-TEKO* (*-TZEKO*) ta *-LA* atzizkien bidez ematen ditugun zentzun bietan ageŕ diteke.

Era onen bedegaŕa *-N* atzizkiaz amaitzea da, ta onela atondutako erak esandako bi zentzunak eman ditzakete; baña geyenetan, lenengoa adierazteko, *-N* erabiltzen da bakaŕik, bigaŕenerako *-LA* uztean.

Beraz, jokera orokaŕ ori jaŕaitzean, onela esango dugu:

Izan NADI*N* = ni iza*teko*; ta: Izan NADI*ḺA* = ni, gero, izan nai*zela* (zentzun auen antza).

Lenengo zentzuna emateko, idazle batzuek *-NTZAT* (1) atzizkia ere erabiḻi dute. Idazle oyen artean Arana Goiri'k ere.

Menekoeran bi aldi ditugu: ORAIÑALDI ta LENALDI.

Laguntzaḻe iragangaitzaren erak EDIN aditzetik datoz, Agintzaera'renak bezela; ta laguntzaḻe iragankoŕarenak, IZAN edo EZAN'etik, eraketaren lenengo bidea jaŕaitzean oraiñaldirako, ta bigaŕena lenaldirako. Auetxek ditugu lenengoaren erak:

MENEKOERA - ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA

LAGUNTZAḺE IRAGANGAITZAREN ERA OROKAŔAK

Ni	Izan NADIN	(N- a) -DI-	-N)
Zu	Izan ZAITEZEN	(Z- a) -IT- e) -Z- e)	-N)
Bera	Izan DADIN, DEDIN	(D- a) -DI-	-N)
Gu	Izan GAITEZEN	(G- a) -IT- e) -Z- e)	-N)
Zuek	Izan ZAITEZTEN	(Z- a) -IT- e) -Z- -TE-	-N)
Berak	Izan DITEZEN	(D- -IT- e) -Z- e)	-N)
Ni	Izan NADIḺA	(N- a) -DI-	-ḺA)
Zu	Izan ZAITEZELA	(Z- a) -IT- e) -Z- e)	-LA)
Bera	Izan DADIḺA, DEDIḺA	(D- a) -DI-	-ḺA)
Gu	Izan GAITEZELA	(G- a) -IT- e) -Z- e)	-LA)
Zuek	Izan ZAITEZTELA	(Z- a) -IT- e) -Z- -TE-	-LA)
Berak	Izan DITEZELA	(D- -IT- e) -Z- e)	-LA)

Era auek gutxitan erabiltzen dira soiḻik, eta geyenetan, jokatu beaŕ dan aditzaren izena auŕetik daramate; alaz ere, antolatze oŕek eztu ezer

(1) Ikusi: 18'gaŕen ikaskava

esan nai aldiari buruz, eta Agintzera'n (85'gn. ikaskaya) gertatzen dan bezela, naiz eta era auek aditzaren izena eramateagatik, igarota zentzuna ematen dutela irudi, (maiz esan dugunez, aditzaren izena, egitan, aditz--izenondoa dalako), oŕela egiten dan bi itzen alkartzeak, oraiñaldiko zentzuna du bereziki.

Beste aldetik, Agintzera ikastean ikusi genuenez (89'gn. ikaskaya), eta naiz aditz-joko iragankoŕan naiz iragangaitzan, *-i* edo *-tu* (*-du*) izkietaz amaitzen diran aditzek, oso maiz, emen ere mugarazle oyek galtzen dituzte.

Onela: Etoŕ(i) zaitezen; Ibīl(i) ditezela; Saŕ(tu) dedin; Itzul(i) gaitezela.

Eginkizunak

1. Lauki ontan, menekoeraren aditzerak ipiñi, -N eta -LA atzizkiai buruz bereiztean; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

	IZAN'aren erak, -N'az	IZAN'aren erak, -LA'az
Ni	Izan nadin	...
Zu	...	Izan zaitezela
Bera	Izan dedin	...
Gu	...	Izan gaitezela
Zuek	Izan zaitezten	...
Berak	...	Izan ditezela

2. Emen ematen ditugun esakuntzetan, -N ta -LA atzizkietaz amaitzen diran menekoeraren aditzerak agertzen dira, ta oyetxek ditugu alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, -N daramatena -LA'ren bidez, eta alderantziz, -LA daramatenak -N'ren bidez; aldi baten, bayetzean dagozenak ezetzean ipintzeko ta alderantziz be; beaŕ danean beste itzak aldatzean edo beste batzuk gañeratzean; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Alegiñak betetzen ari dira ni emen *gera nadin*; ... - Eztugu nai oraindik *eldu zaitezela*; ... - Zer egingo dugu buru arin ori emen *agertu ez dedin?*; ... - Berengana *igo gaitezela* isituki eskatu digute; ... - Ez egin sasi-sendagīle oyek diñotena, *gaizkitu ez zaitezten*; ... - Gure auŕak bide oyetan *ibil ez ditezela* nai dugu ziñez; ... - Zertarako nai duzu oŕa *jetsi nadīla?*; ... - Benetan eskatuko dizugu gure bilkurara *erdu zaitezen*; ... - Egokia izango dala esan diote, beiz ona *itzul ez dedīla*; ... - Isituki ari-izango dira gu beren auŕean *azal ez gaitezen*; ... - Auxe da zuen gurasoen naimen berezia, zuek gurekin *bizi zaiteztela*; ... - Nola jokatu beaŕ duten esango diegu, atzipeturik *izan ez ditezen*; ...

3. Besteetan bezela, emen ere, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Yainkoa'k egin gaitu onak izan gaitezen: Nork egin zaituzte onak izan zaitezten?; ... - Zertarako egin zaituzte Yainkoa'k?; ... - Ni ere Yainkoa'k egin al nau ona izan nadin?; Bai, zu ere ... -- Auta nazazute zuen izenean bīlerara joateko: Nor autatu beaŕ dugu gure izenean bīlerara joateko?; ... - Zertarako nai duzu zerori autatzea?; ... - Gu autatuko al gaituzute zuen izenean bīlerara joateko?; Ez, ... baño. - Okaran auek iruna banatu ezaizkiezute: Nortzuei banatu beaŕ dizkiegu okaran auek iruna?; ... - Nola banatu beaŕ dizkiegu okaran auek?; ... - Guri ere okaran auek iruna banatuko al dizkiguzute?; Ez, ... baizik. -- Zu ikustera joan bagiña, zer emango zenigukean?; Azkaltzeko igali edeŕak emango nizkizuekean, ni ikustera joan baziñate: Nori emango zenizkiokean azkaltzeko igali edeŕak, zu ikustera joan balitz?; ... - Zertarako emango zenizkigukean igali edeŕak, zu ikustera joan bagiña?; ... - Landeŕ oyei ere azkaltzeko igali edeŕak emango al zenizkiekean, zu ikustera joan balira?; Bai, oyei ere ... -- Ozkiŕi dago emen!: Nun dago ozkiŕi?; ... - Bero al dago emen?; ... - Baratz oyetan ere ozkiŕi al dago?; Ez, ... baizik. -- Egon gaitezen emen biar arte: Nortzuk egon beaŕ dute emen biar arte?; ... - Noiz arte egon beaŕ dugu emen?; ... - Etzi arte egon beaŕ al dugu emen?; Ez, ... baño. -- Ez bekigu otu berekoi oyengana joatea: Nori etzayo otuko berekoi oyengana joatea?; ... - Norengana joatea ez zaizue otuko?; ... - Agure oŕengana joatea otuko al zaigu guri?; Bai, zuei ... -- Ez nazate jauretsi oŕen ergelki: Nor ez dugu jauretsi beaŕ oŕen ergelki?; ... - Nola ez zaitue jauretsi beaŕ?; ... - Gu jauretsi beaŕ al gaituzte oŕen ergelki?; Ez, zuek ere ... -- An bosnaka ipiñiko baginduzte, obeto egongo giñake: Nola egongo ziñakete an obeto?; ... - Nun egongo ziñakete obeto bosnaka ipiñiko bazinduztee?; ... - Ikastetxeko ikasleak ere obeto egongo al lirake, an bosnaka ipiñiko balituzte?; Bai, ayek ere ... -- Zeroŕek igitu ezpazenio, ori egitea eziña dala esango nuke: Nork esango luke ori egitea eziña dala, neronek igitu ezpanio?; ... - Zer esango zenuke, neronek igitu ezpanio?; ... - Guk ere ori egitea eziña dala esango al genuke, zerok igitu ezpazeniote?; Bai, zuek ere ... -- Laisteŕ itzul zaitezela nai dugu: Nortzuek nai dute

laisteŕ itzul gaitezela?; ... - Zer nai duzute zuek?; ... - Nik ere nai al dut laisteŕ itzul ditezela?; Bai, zuk ere ... -- Ori esan dut bereala joan dedin: Zertarako esan duzu ori?; ... - Zer esan duzu bereala joan dedin?; ... - Ni ere bereala joan nadin esan al duzu ori?; Ez, ... baizik. -- Obeto egon zaitezten etoŕi gera: Nortzuk etoŕi dira obeto egon gaitezen?; ... - Zertarako etoŕi zerate?; ... - Ni etoŕi al naiz zu obeto egon zaitezen?; Ez, ... baño. -- Nire gurasoek ni sendagīlea izan nadīla nai dute: Nortzuek nai dute zu sendagīlea izan zaitezela?; ... - Zer nai dute zure gurasoek?; ... - Guraso oyek beren semea sendagīlea izan dedīla nai al dute?; Ez, ... ayek baizik. -- Oneraño igo zaitezela nai dut: Nork nai du oneraño igo nadīla?; ... - Noraño igo nadīla nai duzu?; ... - Guk nai al dugu zuek ere oneraño igo zaiteztela?; Ez, ... baizik.

4. Antzerki baten izketa au ondo irakuŕi ondoren, bertan azaltzen diran aditzera bilduak eta bi itzezkoak zeintzuk diran ikusi beaŕ da; bai ta agertzen diran esakerak ere, beren zentzunak adierazten; esanez eta idaztean:

IRUGAŔEN AGERTALDIA

«Abeslari-buru — Ots!, esaidazu: Ori esaten diguzunean, uŕen ote da Aigist, ala, etxetik atera?

Eletere — Baiki, atera da; uŕen balitz, ez uste, nerau atarira etoŕi al-izango nukenik; orain, ordea, basaldean dabil.

Abeslari-buru — Areago azarturik zure esanetara yo al dezaket, oriek onela izaki?

Eletere — Orain ez dagon ezkero, atsegin zaizuna galde.

Abeslari-buru — Itanduko dizut, ba: anayatzaz zer diñozu?; etortzeko ote da?, ala, enuxu-banuxu ote?; orixe yakin nai dut.

Eletere - Ala diño; esanaz, ordea, esanik eztu egiten.

Abeslari-buru — Astiro ibīli dabil egitekoren bat egiten ari dan gizona.

Eletere — Oŕen ezmezean egon gabe, neronek bera yarein nuen.

Abeslari-buru — Zaildu: yayotzez aitorseme duzu, maiteei lagun egiteko.

Eletere — Etsita nago; ezperen, areago ezin bizi-izango nintzake.

Abeslari-buru — Oraingotz tutik ez esan. Kirisozemi zure aizpa odolkide ta aita-ama berberaren alaba etxetik datoŕela bai-dakust, baitikoei eskeñi oi zaizkien il-adiguriak eskuetan ekarki».

«Sopokel'en antzerkiak» (19-20'gn. oŕialdeetan) «Eladeratik euzkeratuak». Zaitegi eta Plazaola'taŕ Iokin, Ph. D.

LAROGETAMAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ADITZ IRAGANGAITZEN JOKO BILDUA

MENEKOERA

Tinkoeran beren aditz-joko bildua daukaten: JOAN, EOŔI, EGON ta IBĪLI iragangaitzek, beren Menekoaren oraiñaldiko erak onela dagite: Tinkoeraren oraiñaldikoai -N atzizkia gañeratzen, besterik gabe. Baña, onela osotutako erak, egitan, naiz Tinkoera naiz Menekoera'ren zentzuna ukan dezakete.

Onela: ZOAZEN (oŕ zoaz*en* ori; edo: agindu dizuten etxera zoaz*en* (joateko).
DABĪLEN (an dabīl*en* ura; edo: ona ekaŕi dute emen dabīl*en* (ibiltzeko)).

Bi aditzera oyen lenengo zentzunean, alkaŕ-gaya dan -N agertzen da; bigaŕenean, -TEKO'ren antzeko zentzuna ematen da: etxera joa*teko*, ta emen ibil*tzeko* esango bagenu bezela.

-N ordez, beste atzizkiak ere erabiltzean, -LA, -NEAN eta abaŕ, berdin gerta diteke, era berberai alkartzean eta esan ditugun bi zentzunak adierazteko:

E. b.: DATOŔE*LA* = Orain datoŕela; edo: gero etoŕiko dala (etoŕi dedīla).
NABĪLE*NEAN* = Orain nabīlenean; edo: gero ibīliko naizenean (ibīli nadiñean).

Bigaŕen era ori, onela ikusteko: nabīlen + -nean.

Oŕengatik eztitugu emen ipintzen menekoerari dagozkion aditz oyen era bilduak; geyenetan laguntzaīlearekin jokatzean, bi itzen bidez egiten diran besteak erabiltzen dira, eta oyetxek ikasiko ditugu emen.

E. b.: Joan gaitezen (gu joateko). Etoŕ dedin (bera etortzeko).

-TZA atzizkia.

Atzizki onek zentzun batzuetarako darabilgu:

Izenai erantsita, «bizibidea» edo «ugaritasuna» adierazi dezake.

E. b.: Artzain*tza* (artzañaren bizibidea); Diru*tza* (diru ugari); Aŕan*tza* (aŕañak artzeko bizibidea); Nekazari*tza* (nekazariaren bi-

zibidea); Gari*tza* (gari ugari); Ikazkin*tza* (ikaskiñaren bizibidea).

Aditzai erantsita, aditz bakoitzari dagokion egipena adierazten du.

E. b.: Jayo*tza* (jayo-egipena); Erio*tza* (il-egipena); Ezkon*tza* (ezkondu-egipena); Bizi*tza* (bizi-egipena) (1).

-GINTZA (-GINTZO, -GINTZU) atzizkia.

Atzizki au ere bi zentzutan erabīi diteke: «bizibide» edo «langintza» adierazteko.

E. b.: Ar*gintza* (arīaren edo argiñaren bizibidea); Zur*gintza* (zuraren edo zurgiñaren bizibidea); Txapel*gintza* (txapelak egiteko lana edo langintza); Teīa*gintza* (teīak egiteko lana edo langintza).

-KUNTZA atzizkia.

Atzizki onek «egipen»-zentzuna adierazten du.

E. b.: Iz*kuntza* (itzegiteko egipena); Ikas*kuntza* (ikasteko egipena); Oi*kuntza* (oiturazko egipena).

Eginkizunak

1. Lauki ontan, -N ta -LA atzizkien bitartez dagizkigun Menekoera'ren laguntzaīe iragangaitzaren erak ipiñi; ezetzean eta adi-yabe bakoitzari dagozkionak; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Adi-yabeak	-N atzizkiarenak	-LA atzizkiarenak
Ni	Izan enadin	...
Zu	...	izan etzaitezela
Bera	Izan eztedin	...
Gu	...	izan ezkaitezela
Zuek	Izan etzaitezten	...
Berak	...	izan eztitezela

2. Urengo esakuntzak Tinkierazko Oraiñaldian eta Menekoerazko Oraiñaldian egiñak dagoz; lenengoak bigarenen bidez aldatzeko ta alderantziz, bigarenak lenengoen bidez; bai ta bayetzean ematen diranak

(1) Ikusi: 18'garen ikaskaya.

ezetzean jartzeko, ta alderantziz ere; Menekoeraren aditzerak naiz -N naiz -LA atzizkiak daramazkitela; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Amak ori esan dit, lenbailen *itzul nadin*; ... - Nik, zu ni baño obea zerala *esan dut*; ... - Beren belbīla utzi diote, lenago *igo dedīla* eskatzean; ... - Irakasleak berarengana *joaten ez dirala* esaten digu; ... - Ikasi ondo gurasoek esaten dizuetena, gero ta zintzoagoak *izan zaitezten*; ... - Mendi ortatik ilundu baño lenago *jeisten eztirala* gaztigatu diete; ... - Oyek eztute gura berekin *irten nadīla*; ... - Zer egingo dugu goizago *jeikitzen ezpazerate?*; ... - Gure xedea, obeto *jari dedīla* izan beaŕ da; ... - Eŕi ontara ekaŕi gaituzte, ia emengo aize onaz *sendatzen ote geran*; ... - Oso beaŕa zaye berak baño lenago *igaro zaiteztela*; ... - Alegiñak eginaŕen, *eztira* gureganaño lenago *eltzen*; ...

3. Eman, emen ere, agertzen diran galderai, egokiak izango zaizkien erantzunak, bana; itzez eta idatziz:

Ori bai dala polita!: Zein ote da polita?; ... - Nolakoa da ori?; ... - Zuk uste al duzu ori itsusia dala?; Ez, ... baño. -- Gaur bertan bera ikustera joan gaitezela eskatu zigun: Nork eskatu zizuen bera ikustera joan zaiteztela?; ... - Zer eskatu zizuen?; ... - Nik eskatu al nizuen ni ikustera joan zaiteztela?; Ez, ... baizik. -- Edestu bezaigu bakoitzak an gertatu zitzayena: Nortzuek edestu beaŕ dizuete an gertatu zitzayena?; ... - Zer edestu beaŕ dizuete?; ... - Guri edestu beaŕ al diguzute an gertatu zitzaizuena?; Ez, ... baño. -- Eserita dagozenezkero, eseri gaitezen gu ere: Nor eseriko da, berak eserita dagozenezkero?; ... - Zer dala-ta nai duzu eseri gaitezela?; ... - Ni eserita nagoenezkero, zuek ere eseriko al zerate?; Bai, ... -- Alegindu zaitez euzkeraren ikastean, bertan gure Eŕi'aren bizia baitago: Nun uste duzu gure Eŕi'aren bizia dagoela?; ... - Zergatik alegindu beaŕ dugu euzkeraren ikastean?; ... - Nortzuek alegindu beaŕ dute euzkeraren ikastean?; Guziok... -- Ekaŕi ezpazenizkit, beren bīla bereala joango nintzake: Nor joango litzake bereala beren bīla, ekaŕi ezpazenizkio?; ... - Noiz joango ziñake beren bīla, ekaŕi ezpalizkizu?; ... - Ni ere bereala joango al nintzake beren bīla, ekaŕi ezpalizkit?; Bai, zu ere ... -- Lagundu naute laisteŕ itzul nadin: Nor lagundu dute laisteŕ itzul dedin?; ... - Zertarako lagundu zaitue?; ... - Nik ere lagundu al zaituztet laisteŕ itzul zaitezten?; Ez, ... baizik. -- Itxartu zaitzatee goiz, berealaxe irtetzeko: Nor itxartuko dute goiz, berealaxe irtetzeko?; ... - Zertarako itxartuko gaituzte goiz?; ... - Ni ere itxartuko al nauzute goiz, berealaxe irtetzeko?; Ez, ... baño. -- An urte osoan egongo giñakean: Nortzuk egongo zitzaketean an urte osoan?;

... - Noiz egongo ziñaketean an?; ... - Uste al duzu ni ere an urte osoan egongo nintzakeala?; Ez, ... baizik. -- Bere itzak ondo neurtuko balitu, elituke lelokeriak esango: Nork elituke lelokeriak esango, bere itzak ondo neurtuko balitu?; ... - Nola elituke lelokeriak esango?; ... - Guk lelokeriak esango al genituke gure itzak ondo neurtuko bagenitu?; Ez, zuek ere ... -- Gaitz erdi, diñozuten ori egingo bazenute: Gaitz erdi esango al zenukete, diñogun ori egingo bagenu?; ... - Zer esango lukete ayek, diñozuten ori egingo ezpazenute?; ... - Nik ere gaitz erdi esango al nuke, diñozun ori egingo bazenu?; Ez, ... baizik. -- Aŕantza gero ta etekintsuago izan dedin lanegiten dugu: Nortzuek lanegiten dute aŕantza gero ta etekintsuago izan dedin?; ... - Zertarako lanegiten duzute?; ... - Alpeŕ oŕek aŕantza gero ta etekintsuago izan dedin lanegiten al du?; Ez, ... baño. -- Azi bitzate ondo auŕ oyek, beren gurasoen antzera izan ditezen: Nortzuk azi beaŕ dituzte ondo, beren gurasoen antzera izan ditezen?; ... - Zertarako azi beaŕ dituzte ondo auŕ oyek?; ... - Ni ere ondo azi beaŕ al naute nire gurasoen antzera izan nadin?; Bai, zu ere ... -- Ukan bezate oroimen ona, beren ikaskayak obeto jakiteko: Zer ukan beaŕ dute beren ikaskayak obeto jakiteko?; ... - Zertarako ukan beaŕ dute oroimen ona?; ... - Nik ere oroimen ona ukan beaŕ al dut nire ikaskayak obeto jakiteko?; Bai, zuk ere ... -- Ekaŕ ezaiguzute amabikun bat aŕautz gau ontako aparirako: Nortzuei ekaŕiko diegu amabikun bat aŕautz gau ontako aparirako?; ... Zer ekaŕiko dizuegu gau ontako aparirako?; ... - Niri ekaŕiko al didazute amabikun bat aŕautz gau ontako aparirako?; Ez, ... baizik.

4. Irakurgai au astiro irakuŕi, ta gero, bertan dagozen esakuntzak bat-bana begiratu, bakoitza osotzen duten itz guziak zeintzuk diran oartzeko:

«POLI»

«Goiz artan Poli Itxas-bazteŕeko aŕietara jetxi zan. Ura bare-bare zegoen. Poli aitz baten gañean jaŕi zan urari begira. Poli txikia ta bere eŕañua bi, esan zitekean. Eguzkiak ondo argitzen zuela-ta, beeraño ikusten ondoa muskeŕ-margoan; baŕenago ta iīunago. Urpeko aŕiek ba-ziruditen palaxtaka uraren ibiīeraz. Uraren zola oso polita, itxas-belaŕa apaingaŕi. Txalburuak añako aŕaitxoak aŕi-azpitik atera ta egiñaletan biurtzen ziran. Beste buru aundi beltzak, bildurtiagoak, ba-ziruditen zearka begira ere ba-zekitela. Kaŕamaŕo bat ozta-ozta urpetik lekorera

asi zan. Atzeko ankak atera zituenean, bertan geldi eguzkitan aŕian gora. Kaŕamaŕoa busti-beŕia ta diz-diz egiten.

Aŕi ayek Poli'renak ziran. An lapa ugari izaten zan. Txoko artan ba-ziran zuloak, exeri ta etzatokiak. Poli itxuan ere ibiīiko zan aŕitik aŕira, etxean bezela, noizpait etxean baldin ibiīia zala esatekoa bada. Gorde-lekuak ere bai. Iñor aŕi ayetara joaten bazan, antxe aldean egongo zitzayon alde-egin arte. Aŕantzaleren bat aŕantzan asten bazan, aŕantza luzea izanaŕen, ez zitzayon joango arek kanabelak jaso arte. Ta onuntzean bere ondoan igarotzen bazan, begiratu zoŕotza egingo zion gizona bazan ere. Ostutako kare ta aŕietaz egindako etxearen jabeari bezin berea zitzayon toki ura.

Poli'k labana zaaŕ kamotza sakeletik atera ta lapak biltzen asi zan. Labanari ortzak txaŕak zitzaizkion; jabeari bereak, ez. Toki eroso batean exeri ta lapak ustu-ala jaten asi zan. Utzak, urtara. Bateaz kaŕamaŕoa izutu ta itzulipurdika sartu zan urtan. Besteetan aidean bota ta labanaz jota, tokitara bialtzen zituen. Bat ur sakonean txiŕi-pilika nola ondoratzen zan begira zegoela, aldean atzapaŕak igitzen ikusi. Mulko iīun bat zan. Buru aundia ta atzapaŕak, besterik ez. Olagaŕoa zan».

«Poli» (14-15'kaŕen oŕialdeetan) A. Anabitarte.

LAROGETAMAZORTZIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŕA - IRAGANKOŕA -ADITZ LAGUNTZAĪEA
IZAN -MENEKOERA -ORAIÑALDIA
ERAKETAREN LENENGO BIDEA - IZAKAI-ADIZKIÑAK

Irugaŕen notiñaren bakaŕ-izakaya

			-Da-	
			-ZU-	

IZAN	D- e) -ZA-	IZAN D- e) -ZA-		-N
			-GU-	
			-ZU- -TE-	
			---- -TE-	

Irugaŕen notiñaren askaŕ-izakaya

			-Da-	
			-ZU-	

IZAN	D- -IT- -ZA-	IZAN D- -IT- -ZA-		-N
			-GU-	
			-ZU- -TE-	
			---- -TE-	

Era auetako azken -N'ren ordez, -LA atzizkia jartzen badugu, oyei dagozkien beste auek izango ditugu: Dezada*la*, ...; Ditzazu*la*, ...

96'gaŕen ikaskayan esan genuenez, era auek eraketaren lenengo bidea jaŕaitzen dute, ta auxe oaŕ diteke eŕaz: Tinkiera-oraiñaldiarenak berak dirala, ango eŕoa zan -U- auei dagokien -ZA-'ren bidez aldatzean; eta emengo era guziak Menekoera'ren bedegaŕa dan -N atzizkiaz amaitzean.

Joko bildua duten ERAMAN, EKAŔI, JAKIN, EGIN, ERABIĪI aditz iragankoŕai buruz, len iragangaitzenetaz esan genuena bera beŕiztu dezakegu. Beren Tinkoerazko erai -N edo -LA atzizkiak eranstean, besterik gabe, Menekoerazkoak izango ditugu; naiz eta, oŕela, egindako erak aren eta onen asmoak adierazteko egokiak izan.

Onela: *Daramadan*, bi zentzun auetan aŕ dezakegu: «nik orain eramaten dudan», eta «nik gero eramat*eko*».

Dakartela, berdin: «berak orain ekartzen dute*la*», ta «berak gero ekartzeko».

Eguneroko yardunetan, egiz, era auek Tinkierazko zentzunean erabiltzen dira soīlik; eta Menekoeraren zentzuna adierazteko, laguntzaīearen bidez egiten diran bi itzezko beste erak darabilzkigu.

Bi itzezko era oyek, naiz iraganko ŕak naiz iragangaitzak ezetzean jaŕi beaŕ diranean, eztute aldatzen bi itz oyen kiria, ta laguntzaīea, beti, azken tokian jaŕi beaŕ da; ain zuzen, esandako atzizki biak, len besteekiko ikusi genuenez, ezetzaren indaŕa baño aundiagoa dute, laguntzaīea bere lenengo tokian jaŕai-erazteko, ots, aditz-izenaren ondoren.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, adi-yabeai dagozkien Tinkiera ta Menekoeraren ipiñi, bigaŕenak -N atzizkiaz; oraiñaldian eta bakaŕ-izakayaz bietarako; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Adi-yabeak	Tinkierazko oraiñaldia	Menekoerazko oraiñaldia
Nik	Dut	...
Zuk	...	dezazun
Berak	Du	...
Guk	...	dezagun
Zuek	Duzute	...
Berak	...	dezaten

2. Emen ematen ditugun esakuntzetan, Tinkieraz eta Nenekoerazko aditzerak agertzen dira, alkaŕi buruz aldatzeko, ta bigaŕenak -N atzizkiaz jartzeko; aldi baten, bayezkoak ezezkoen bidez ere aldatu beaŕ eta alderantziz. Noski, zentzun egokiaz egiteko, beaŕak izango diran beste itzak ere aldatzean. Kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Joaten naizen jan-toki ortan beti oso ondo *bazkaltzen dut*; ... - Oso beaŕa izango zaizu alegiñak egitea zure ikaskaya ongi *ikas dezazun*; ... - Zuen lagun ona ez dabil gaur gurekin *nai ez duelako*; ... - Aŕetaz ibiīi gaitezen, oyek oŕen ondo amaitu dutena *eraindu ez dezagun*; ... - Zuek beti *bereixten dituzute* guk lan aundiaz batutzen ditugunak; ... - Gure jantziak emen uzten ditugu ayek *uŕatu ez ditzaten*; ... - Eman ezaizkidazute okaran oyek *jan ditzadan*; ... - *Ez duzu* ondo *azterkatzen* leize ori oraindik; ... - Agure oŕek bere semesoa ekaŕi du otaŕ oyek igaliz *bete ditzan*; ... - Gabero gure gelak ongienik *argitzen ditugu*; ... - Emendik kendu beaŕ zaituztegu gure eultzea *eŕe ez dezazuten*; ... - Nekazari ayek beren zugatz igalidunak *iñausten dituzte*; ...

3. Emen jartzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Sagaŕ au eman dizut jan dezazun: Nori eman diot sagaŕ au jan dezan?; ... - Zertarako eman dizut sagaŕ au?; ... - Guri eman al diguzu sagaŕ au jan dezagun?; Ez, ... baño. -- Zure eŕesuman egon zaitezenean nitzaz oroitu zaitez: Noiz oroituko naiz zutzaz?; ... - Nortzaz oroituko naiz nire eŕesuman egon nadiñean?; ... - Zuek gutzaz oroituko al zerate zuen eŕesuman egon zaiteztenean?; Bai, gu ere ... -- Biurtu ezaizkiguzute gure jantziak!: Nortzuei biurtu beaŕ dizkiegu beren jantziak?; ... - Zer biurtu beaŕ dizuegu?; ... - Niri biurtu beaŕ al dizkidazute nire jantziak?; Ez, ... baizik. -- Gizon biuŕi oyek atzeman baginduzte, ezkiñake emen egongo: Nor elitzake emen egongo gizon biuŕi oyek atzeman balute?; ... - Nun etziñakete egongo gizon biuŕi oyek atzeman bazinduztee?; ... - Gizon biuŕi oyek emen egongo al lirake guk atzeman bagenitu?; Ez, oyek ere ... -- Bi ordutan emen euki zaituztet zuen eginkizunak egin ditzazuten: Zertarako euki gaituzu emen bi ordutan?; ... - Nortzuk euki dituzu emen bi ordutan beren eginkizunak egin ditzaten?; ... - Ni euki al nauzu emen bi ordutan nire eginkizunak egin ditzadan?; Ez, ... baño. -- Basetxe ortara bialdu zaituztee euzkera ikasi dezazuten: Nor bialdu dute basetxe ortara euzkera ikasi dezan?; ... - Zertarako bialdu gaituzte basetxe ortara?; ... - Nik bialdu al ditut nire semeak basetxe ortara euzkera ikasi dezaten?; Ez, ... baizik. -- Izan bekizkizu aldeko, done guziak: Nori izan beaŕ zaizkio aldeko done guziak?; ... - Nortzuk izan beaŕ zaizkit aldeko?; ... - Zuen iĺobai ere done guziak aldeko izan beaŕ al zaizkie?; Bai, oyei ere ... -- Azaldu ezaidazu beŕiz ikaskai ori: Nori azaldu beaŕ diot beŕiz ikaskai ori?; ... - Noiz azaldu beaŕ dizut ikaskai ori?; ... - Guri ere ikaskai ori beŕiz azaldu beaŕ al diguzute?; Ez, ... baño. -- Aintzane nire adiskide miñak bere etxea erakutsiko balit, nik gero nire ontara ekaŕiko nuke: Nor ekaŕiko zenuke zure etxe ontara, berak berea erakutsiko balizu?; ... - Nora ekaŕiko zenuke Aintzane zure adiskide miña, bere etxea erakutsiko balizu?; ... - Aintzane zure adiskide miñak bere etxera eramango al ninduke, nirea erakutsiko banio?; Bai, berak ere ... -- Gaitz erdi ikusi zindudala!: Nor ikusi zenuen gaitz erdi itz oyek esateko?; ... - Zer esan zenuen ni ikusi ninduzunean?; ... - Gu ikusi ginduzutenean ere gaitz erdi itzak esan al zenituzten?; Ez, ... -- Argia bereala piztu dezazula esan dizut: Nori esan diozu argia bereala piztu dezala?; ... - Zer esan didazu?; ... - Bereteŕ oyei esan al diezute argiak bereala piztu ditzatela?; Ez, ... baizik. -- Beren lengusiñaren ezkontzara erdu ez nadiĺa aŕendu didate: Nori aŕendu diote beren lengusiñaren ezkontzara erdu ez dediĺa?; ... - Nortzuek aŕendu dizute beren lengusiñaren ezkontzara erdu ez zaitezela?; ... - Guk aŕendu al dizuegu gure lengusiñaren ezkontzara erdu ez zaiteztela?; Ez, ... baño. -- Atzeman gaitzate al baldin badute: Nortzuk atzemango dituzte al baldin badute?; ... - Ni atzemango al nauzu al baldin baduzu?; ... - Zuek atzemango al zaituztegu al baldin badugu?; Bai, zuek ere ... -- Ikastetxe artan sei edo zazpi iĺebetetan egon baziñate, orain baño geyago jakingo zenukete: Nortzuek jakingo lukete orain baño geyago ikastetxe artan sei edo zazpi iĺebetetan egon balira?; ... - Zer jakingo genuke orain, ikastetxe artan sei edo zazpi iĺebetetan egon bagiña?; ... - Zu ere orain baño geyago jakingo al zenuke ikastetxe artan sei edo zazpi iĺebetetan egon baziña?; Bayetz uste dut, nik ere ... -- Bota ezayezu antzaŕ ayei esku bete gari, jan dezaten: Zeintzuei bota beaŕ diet esku bete gari, jan dezaten?; ... - Zertarako bota beaŕ diet antzaŕ oyei esku bete gari?; ... - Eta txitoai ez al diet bota beaŕ esku bete gari, jan dezaten?; Bai, oyei ere ...

4. Egokia danez, ongi irakuŕi beaŕ dira uŕengo bertsoak, eta esan gero, zein motazkoak diran: «Euzkal-abesti zaŕak», «gerta-olerkiak», «maite-leloak», «Jainkozko abestiak» ala «ardo-abestiak».

«Mertxikaren lorearen edeŕa!
baŕenean du ezuŕa gogoŕa.

Nik ez dut maiterik
besterik
alerik;

Arnoak naduka ni
liĺuraturik.

Ni ilten naizenean
ez egin negaŕik,
ez artu dolurik;
bi bonbilkada arno
eman buruketan,
edan ditzadan
gogoz biak zeruetan».

«Uso zuri edeŕ bat, oñetan ortozik, aldatzean gora doa, egoak zabalik. Aldatzen goyeneko zelai edeŕ baten Birjiñea topau neban atseden egiten. Kristo'ren Birjiñea, oŕ zer eiten dozu?

—Kristo biĺatzen nabil, ikusi badozu Kristo zeruan dago Mezea esaten, Aingeru San Gabriel Mezea erasoten. Zeruko aingeruak orgañua joten, amabi apostoluak Mezea entzuten, Jesus'en jardineko lorearen argia! Bera ta Santa Klara dontzeĺa garbia. Amaren eŕaiten zenduan grazia, munduan ibilteko ejemplu andia».

«(Ikus Azkue, Euskaleŕiaren Yakintza, 110 oŕ.)»

«Gure bertsolariak» (70 ta 72'gn. oŕialdeetan) Onaindia Aita.

LAROGETAEMERETZIGAŕEN IKASKAYA

ATZERAKO ITZAK

Toki-izenetan atzerako itzak eta atzizkiak ere, eŕaz erabiltzen dira.

E. b.: Mendiola'n OLA, Aŕiaga'n AGA, Landaburu'n BURU, ta onelako beste asko. Oyen artean auetxek ditugu bereziki aipatzeko: GAIN; BE (PE); AUŔE edo AINTZI; ATZE, OSTE edo GIBEL; BAŔU; ARTE (1); INGURU; ALBO, ALDE edo ONDO.

Atzerako itzek, egokiak izango diran izen-jokoaren atzizkiak aŕ ditzakete. Eta esandakoak, izen aŕuntai, zuzen eransten zaizkie; baña izen berarizko, notin-izenorde edo adierazleai, *-EN* atzizkia jaŕi beaŕ zaye.

Onela: Mai gañe*an*; Aŕi arte*an*; Eŕi inguru*an*; Etxe auŕetik. Baña: Kepa'r*en* gañean; Zugatz oy*en* artean; Nir*e* ondoan; Zulo au*en* baŕuan.

Auek eta beste itz asko (izenak, izenondoak, aditzak, aditzondoak) beren artean alkaŕ ditezke areago, ta onela, itz beŕiak soŕerazten dituzte. Eraketa onen gaitasuna, *itz-elkartzerako* bide eŕeza da, euzkeraren bedegaŕa ta gure izkuntzan asko erabiltzen dana.

E. b.: Itz + Aldi = Itzaldi; Beso + Be (edo: Pe) = Besabe edo Besape.

Ituŕi + Buru = Iturburu; Esku + Motz = Eskumotz.
Egin + Bide = Eginbide; Gaur + Gero = Gaurgero.

Itzen eraketa onek, askotan, 10'gaŕen ikaskayan aipatu genuen jabetasun-asmoa adierazteko, -EN atzizkiaren ordez, ortarako beaŕak diran bi itzen artean «-» maŕatxoaz darabilgun jokera gogoraerazten digu.

Itzak eratzeko, ba-dago beste era bat, itz aŕunt edo ataldunai, ikasi ditugun atzizkiak eranstean; ta era oni *eratortzea* deitzen diogu, orain arte erabiīi ditugun itz eta izkien bidez egiten dala ikusi dugunez.

Beraz, bi era dauzkagu euzkeraz itz beŕiak soŕerazteko: *Itz-elkartze* ta *eratortzea* (2).

BOST - AMAIKA - MAKIÑA itzak.

(1) Ikusi: 79'gaŕen ikaskaya.
(2) Ikusi: I. Lopez Mendizabal'en «La Lengua Vasca», 62-65 oŕialdeetan.

BOST (bere aldaketak diran BORTZ eta BORZ'ekin) eta AMAIKA (bere aldaketa dan AMEKA'rekin) itzek ba-dute, zenbatitzen zentzunetik at, aindo aundiai dagozkienean, beste zentzuna, «ainbat» edo «asko»'ren antzekoa dana.

Zentzun ontaz, AMAIKA, AMAI + KA dala dirudi.

E. b.: *Amaika* aldiz egon giñan an! (ainbat aldiz egon giñan an!);
Bostetan egon gera! (ainbat aldiz egon gera!);
Bereak eta bost entzun beaŕ-izan zituen! (ainbat gauza entzun beaŕ-izan zuen!).

Ikusten danez, gel-zentzunaz erabiltzen dira, geyenetan.

MARIÑA itza, zentzun ortan bertan erabiltzen da; baña, geyenetan, itz au eztoa bakaŕik, BAT zenbatitzaren laguntasunean baño; BAT itz au, itz bezela edo atzizkia lez jaŕi diteke.

Onela: *Makiña bat* etoŕi dira! (asko ta asko etoŕi dira!).

Makiñabat epeŕ ikusi genituen! (epeŕ asko ta asko ikusi genituen!).

Makiñatxo bat ogerleko eman beaŕ-izan dugu! (ogerleko asko ta asko eman beaŕ-izan dugu!).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, adi-yabeai dagozkien Tinkiera ta Menekoeraren aditzerak ipiñi, bigaŕenak -LA atzizkiaz; oraiñaldian eta askaŕ-izakayaz bietarako; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Adi-yabeak	Tinkierazko oraiñaldia	Menekoerazko oraiñaldia
Nik	Ditut	...
Zuk	...	ditzazula
Berak	Ditu	...
Guk	...	ditzagula
Zuek	Dituzute	...
Berak	...	ditzatela

2. Esakuntza auetan, Tinkieraz eta Menekoerazko aditzerak agertzen dira, aditzera oyek alkaŕi buruz aldatzeko, ta bigaŕenekoak -LA atzizkiaz jartzeko; bide batez, bayezkoak ezezkoen bidez ere aldatu beaŕ dira ta alderantziz ere. Besteetan bezela, esakuntza egokiak egiteko,

beaŕak izango diran beste itzak ere aldatzean. Kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Nire eguneroko lana ongi *asten dut*; ... - Zure idazkia bereala *amaitu dezazula* nai dute; ... - Noiz *burutzen du* langile oŕek bere eginkizuna?; ... - Agure ayek gure dantzak *beŕiztu ditzagula* eskatu digute; ... - Iñoiz *ez dituzute izendatzen* zuekin joan beaŕ dutenak; ... - Entzun nai ez duguna *abesten dute* maiz; ... - Nire jayo-eguna *ospatu dezadala* aŕendu didate isituki; ... - Zure irudiak gero ta obeto *maŕezten dituzu*; ... - Seinzai onek umeak ongienik *zaindu ditzala* itxaroten dugu; ... - *Ez ditugu esegiten* lukainkak goizetik, lasteŕegi legortu ez ditezen; ... - Gure bezuzak, geyegi *iŕikitu ez ditzazutela* uste dugu; ... - Beren oparia baseliza artan *opaltzen dute*; ...

3. Eginkizun ontan ageŕerazten ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Etziran il gure anayak, guk ezer egin ez dezagun: Zertarako etziran il zuen anayak?; ... - Nortzuk etziran il zuek ezer egin ez dezazuten?; ... - Zure anayak zuk ezer egin ez dezazun il al ziran?; Ez, ... -- Beaŕezkoa da gutun oyek idatzi ditzazutela: Zer da beaŕezkoa?; ... - Nork esan du gutun oyek idatzi ditzagula beaŕezkoa dala?; ... - Nik esan al dut gutun oyek berak idatzi ditzatela beaŕezkoa dala?; Ez, ... baño. -- Estibalitz'etik itzul zaiteztenean, zatoz ni ikustera, zure zai egongo naiz-eta: Nor ikustera joan beaŕ-izango dut, Estibalitz'etik itzul nadiñean?; ... - Noiz joan beaŕ dugu zu ikustera?; ... - Nortzuek joan beaŕ dute zuek ikustera Estibalitz'etik itzul ditezenean?; ... -- An ikusiko baginduzute zatozte gugana: Nortzuek etoŕi beaŕ dute zuengana, an ikusiko bazinduztee?; ... - Norengana joan beaŕ duzute an ikusiko bazenute?; ... - Nik ere zuregana joan beaŕ al dut an ikusiko bazindut?; Ez, ... baizik. -- Jaun arek ate ayek ideki ditzagula eskatu dit: Nori eskatu dio jaun arek ate ayek ideki ditzala?; ... - Zer eskatu dizu jaun arek?; ... - Guk eskatu al dizuegu ate ayek ideki ditzazutela?; Ez, ... baño. -- Biurtu ezaidazu etzi baño lenago, Julen'i eman beaŕ diot-eta: Noiz baño lenago biurtu beaŕ dizut, Julen'i eman beaŕ diozu-ta?; ... - Nori biurtu beaŕ diot etzi baño lenago, Julen'i eman beaŕ dio-ta?; ... - Guri biurtu beaŕ al diguzute, Julen'i eman beaŕ diogu-ta?; Ez, ... baizik. -- Ukatuko ezpalizuete, ez diezute ezer esango: Nortzuei ez diegu ezer esango, ukatuko ezpaligute?; ... - Nork ez die ezer esango, ukatuko ezpaliote?; ... - Nik ezer esango al dizuet, ukatuko ezpazenidate?; Ez, zuk ere ... -- Aiztuko ezpalitzaigu, ura ekaŕiko genizuke, ikus dezazun: Aiztuko ezpalitzaizu, nori ekaŕiko zenioke ura, ikus dezan?; ... - Nork ekaŕiko lidake ura aiztuko ezpalitzayo, ikus dezadan?; ... - Zuei aiztuko ezpalitzaizue, ura ekaŕiko al zenigukete, ikus dezagun?; Bai, guri ere ... -- Amaika gizon ikusi dugu gaur elizan!: Nun ikusi dituzute gaur amaika gizon?; ... - Zenbat gizon ikusi duzute gaur elizan?; ... - Nik ikusi al dut gaur elizan amaika gizon?; Ez, ... baño. -- Neurtu itzazu ongi eun oyek, jantziak aundiegi egin ez ditzaten: Zertarako neurtu beaŕ ditut ongi eun oyek?; ... - Nortzuek neurtu beaŕ dituzte ongi eun oyek, jantziak aundiegi egin ez ditzaten?; ... - Nik neurtu beaŕ al ditut ongi eun oyek jantziak aundiegi egin ez ditzazun?; Ez, ... baizik. -- Ez zindugun bialdu Iruña'ra, oŕen laisteŕ itzul zaitezen: Nor ez zenuten bialdu Iruña'ra, oŕen laisteŕ itzul ez dedin?; ... - Zertarako ez ninduzute bialdu Iruña'ra?; ... - Nik bialdu al zindudan Iruña'ra, oŕen laisteŕ itzul zaitezen?; Ez, ... -- Zure aitak intxauŕondo ayek landatu zituen, zuek arnariak jaso ditzazuten: Nork landatu zituen intxauŕondo ayek guk arnariak jaso ditzagun?; ... - Zertarako landatu zituen nire aitak intxauŕondo ayek?; ... - Zure aitak intxauŕondo ayek landatu al zituen ikastolako auŕ guziek arnariak jaso ditzaten?; Ez, ... baño. -- Ona itzuli ez ditezen, esan ezayezu datoŕen ilerarte egongo ez naizela: Nori esan beaŕ diot datoŕen ilerarte egongo ez zerala, ona itzul ez dedin?; ... - Zer esan beaŕ diet ona itzul ez ditezen?; ... - Niri esango al didazu datoŕen ilerarte egongo ez zerala, ona itzul ez nadin?; Ez, ... baizik. -- Geŕikoak biña bialdu balizkigute, ez giñakean asaŕetuko: Nortzuek ez zitzaketean asaŕetuko, geŕikoak biña bialdu balizkiete?; ... - Zuek asaŕetuko al ziñaketean geŕikoak biña bialdu bagenizkizue?; ... - Gu asaŕetuko al giñakean geŕikoak biña bialdu bazenizkigute?; Ez, ... baño. -- Amaika bideŕ esan zidaten orixe!: Nori esan zioten amaika bideŕ orixe?; ... - Zer esan zizuten amaika bideŕ?; ... - Guk esan al genizuen orixe amaika bideŕ?; Ez, ... baizik.

4. Ongi irakuŕi uŕengo idazkia; ta gero esan, buruz, bertan azaltzen dan mamia, bai ta amaitzeko ematen diran biñakako bertsoak ere:

«I IKASGAYA - ZER TA NOLAKOA DAN»

«Idatzi gabeko Elertiari» «Aozko Elertia» esaten zayo. Idatzi gabeko elertia.

Ba-dirudi izan ezin ditekela Elertia idatzi-gaberik. Elertiaren erderazko izenean «izkia» agertzen da; beraz, ba-dirudi Elertia danak, beti ere, izkien bidez idatzia izan beaŕ-izango zukeala.

Eŕiak asko dira, ordea, Ludi'an, ezertxo ere idatzi ez dutenak, eta, ala ere, Elerti edeŕaren jabe diranak.

Ala, Apirka'ko zenbait gizeli, ta Amerika'ko zenbait indio-giza-talde.

Europa'n bertan amaika ipui —Polifemo'rena bezelakoak— milaka urte asko edestu izan bide dira artzai europaŕen artean; eta ibilian-ibilian Homero'k-eta beren olerkietan sartu dituzten aŕen, sortu, ez bide ziran idatziz sortu, kontu-kontari esanaz baizik; eta, oraindik ere bazteŕetan kontu-kontari esaten diran guztiak, ez daude danak idaztietan jasoak.

Berdin gertatu da, Euzkaleŕi'an edesten diranetaz ere: gure Polifemo dan Tartalo, artzai begibakaŕaren ipui bildurgaŕiaz, adibidez, eta gure Ipui-bilduma'ko Mari ta Ataŕabi ta Mikelats'en ipuigayetaz.

Gure eŕietan abesten diran neurtitz eta bertso asko ta asko dirala-ta, gertatu ere berdin gertatu da. Eunka ta eunka urtez, iñork idatzi gabe, abestu ta abestu, gure baseŕietan bizi-izan diran elerti-gayak dira, orain beŕogetamaŕen bat urte gure Barandiaran'daŕ Yoseba Mikel jaunak bere Euzko-folkloren bildu ta argitaldu dituenak».

«Eta oso polit asko. Adibidez:

Zapata txuri, paperez,
andi danean bat-ere-ez.
Edeŕ zeruan izaŕa,
eŕekaldean lizaŕa...

Au aizearen epela!
aidean dabil orbela...
eta *kriskitin-kraskitin*
aŕosa--krabelin...

Oŕa oŕ, gauza politak, polikitxo esaten dituzten neurtitz batzuk, eunka urtez gure trikiti-bileratan-da abestu izan diranak, eta sortu ere, asko dantzatu-alean, bapatean koplariak sortuak, eta eunka urtez idatzi gabe bizi-izan diranak».

«Aozko elertia» (1 ta 2'gaŕen oŕialdeetan) Lekuona'taŕ Imanol.

EUNGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA - IRAGANKOŔA - ADITZ LAGUNTZAILEA
MENEKOERA - ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA
IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

Neri	IZAN	D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- *-Da-*	-ZU- ---- -ZU- -TE- ----- -TE-	-N
Guri	IZAN	D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- *-GU-*	-ZU- ---- -ZU- -TE- ----- -TE-	-N
Zuri	IZAN	D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- *-ZU-*	-Da- ---- -GU- ----- -TE-	-N
Zuei	IZAN	D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- *-ZU(T)E-*	-Da- ---- -GU- ----- -TE-	-N
Berari	IZAN	D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- *-O-*	-Da- -ZU- ---- -GU- -ZU- -TE- ----- -TE-	-N
Berai	IZAN	D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- *-E-*	-Da- -ZU- ---- -GU- -ZU- -TE- ----- -TE-	-N

Era auetan, len ikusi ditugun izakayezkoak bakaŕik izan diranetan bezela, -N atzizkiaren ordez -LA jartzen badugu, onela izango dira sortuko

diranak: Dizaidazu*la*, ...; Dizaiguzu*la*, ...; Dizaizuda*la*, ...; Dizaizkidazu*la*, ...; Dizaizkiguzu*la*, ...; Dizaizkizuda*la*, eta abaŕ.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontako lenengo leŕoan, zeaŕezko izenordeak ematen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak erakusten dituztenak; bakaŕ-izakayaz, alkaŕi dagozkion menekoeraren aditzerak jaŕi beaŕ dira, artez eta zeaŕez-betetzekoak daramazkitenak; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		...	dizayodan		...	...
Zuk	Dizaidazun		...	...		...
Berak	...	dizaizun	...	...	...	...
Guk		...	...		dizaizuegun	...
Zuek	...		...	dizaiguzuten		...
Berak	...	...	...	...	...	dizayeten

2. Emen ematen ditugun esakuntzetan, Tinkieraz eta Menekoerazko aditzerak agertzen dira, alkaŕekiko aldatu beaŕ diranak; bigaŕenak -N atzizkia eramaten; aldi baten, bayezkoak diranak ezezkoen bidez eta alderantziz aldatzeko ere; bai ta egin beaŕ diran bigaŕen esakuntzak zentzun egokiaz jaŕita izan ditezen, beaŕ-izango diran beste itzak aldatu ta jartzean be; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Ekaŕi dituzun aleak, beaŕ dan bezela, *bereizten dizkizut*; ... - Ona ekaŕi zaitut, nire landa ori ongi *landu dizaidazun*; ... - Artzain oŕek egunero bi aldiz *jaizten dizkigu* gure ardiak; ... - *Ez diezute baetzen* beren garagaŕa oso ondo; ... - Egin ditzagun alegin guztiak bere garia egokiro *eotu dizayogun*; ... - Zuen iriña oso gaizki *eralkitzen dizuete*; ... - Utzi nazazu, zure ogia txarto *oratu ez dizaizudan*; ... - Gure barazki guztiak *nastatzen dizkidazu*; ... - Guzia *naspilatu ez dizaigun* ezta emen sartu beaŕ; ... - Oneraño eldu gera, ta *ez diegu* beren bazkaria *lardaskatzen*; ... - Auŕak utzi al dizkizuegu oŕela *naŕastu dizaizkiguzuten*?; ... - Sari ona eskeiñi diezute zuen soloak ongi layatu *dizaizkizueten*; ...

3. Emen ageŕerazten ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Beren jauregian euki ditzaten, garbiagoak izan beaŕ-izango dute:

Nortzuek izan beaŕ-izango dute garbiagoak beren jauregian euki ditzaten?; ... Zertarako izan beaŕ-izango dute garbiagoak?; ... - Auŕ au ere garbiagoa izan beaŕ-izango al du, beren jauregian euki dezaten?; Bai, au ere ... -- Lenbailen saldu dizaidatela nai dut: Nork nai du lenbailen saldu dizayotela?; ... - Noiz nai duzute saldu dizaizuetela?; ... - Nik nai al dut lenbailen saldu dizaidatela?; Ez, ... baño. -- An, geyenetan, nai zutena zegitela esan oi zizueten: Nortzuek esan oi ziguten, an, geyenetan, nai zutena zegitela?; ... - Nori esan oi zioten an, geyenetan, nai zutena zegitela?; ... - Guk esan oi genizuen an, geyenetan, nai genuena genegiela?; Ez, ... baizik. -- Bereala eman dizayozula nai dut: Nork nai du bereala eman dizayodala?; ... - Nori nai duzu bereala eman dizayodala?; ... - Zuei eman dizaizuetela nai al duzute?; Ez, guk ez ... -- Irakuŕi ezaidazu gutun ori, zure adiskideak esaten dizuna jakin dezadan: Zertarako nai duzu gutun ori zuri irakuŕi dizaizudala?; ... - Zer nai duzu zuri irakurtzea, nire adiskideak esaten didana jakin dezazun?; ... - Zuek irakuŕi nai al diguzute gutun ori, zuen adiskideak esaten dizuena jakin dezagun?; Ez, ... baño. -- Itzul bitez laisteŕ auŕ oyek, beren gurasoen etxera joan ditezen: Nortzuek etoŕi beaŕ dute laisteŕ, beren gurasoen etxera joan ditezen?; ... - Zertarako etoŕi beaŕ dute laisteŕ auŕ oyek?; ... - Zuk ere laisteŕ etoŕi beaŕ al duzu zure gurasoen etxera joan zaitezen?; Bai, nik ere ... -- Nai duzutena ardietsiko bagenizue, pozik egongo al ziñakete?; bai, oso pozik egongo giñake nai duguna ardietsiko bazenigute: Nor egongo litzake oso pozik nai duena ardietsiko bazeniote?; ... - Nola egongo lirake ayek, nai dutena ardietsiko bagenie?; ... - Zu ere oso pozik egongo al ziñake nai duzuna ardietsiko banizu?; Bai, ni ere ... -- Jan itzazu mats ayek bat-banaka: Nola jan beaŕ ditut mats ayek?; ... - Zertzuk jan beaŕ ditugu bat-banaka?; ... - Auŕ onek ere mats ayek bat-banaka jan beaŕ al ditu?; Bai, ... ere, ... -- Epeŕ bi oyek ekaŕi dizkizuet, azkaltzeko ipiñi dizaizkiguzuten: Zertarako ekaŕi dizkiguzu epeŕ bi oyek?; ... - Zer ekaŕi diguzu, apaltzeko ipiñi dizaizudan?; ... - Sukaldari ayei ekaŕi al dizkiezute epeŕ bi oyek azkaltzeko ipiñi dizaizkizueten?; Ez, ... baizik. -- Guregana jetxi ditezela aŕendu diegu: Nortzuei aŕendu diezute zuengana jetxi ditezela?; ... - Zer aŕendu diezute ayei?; ... - Guk aŕendu al dizuegu guregana jetxi zaiteztela?; Ez, ... baño. -- Biardanik, ikaskai auek zeroŕek azaldu ditzazula nai-izango nuke: Nork nai-izango luke biardanik ikaskai auek neronek azaldu ditzadala?; ... Zer nai-izango zenuke?; ... - Guk nai-izango al genuke, biardanik ikaskai auek zerok azaldu ditzazutela?; Ez, ... baizik. -- Mai oŕen inguruan eserita egon gaitezenean, jakin nai duzutena edestuko di-

zuet : Noiz edestuko diguzu jakin nai duguna? ; ... - Zer edestuko diezu, mai oŕen inguruan eserita egon zaiteztenean? ; ... - Etxetik irten nadiñean edestuko al didazute jakin nai dudana? ; Ez, ... baño. -- Amaika aldiz joango giñakean zuregana! : Nor joango litzake amaika aldiz niregana? ; ... - Norengana joango ziñaketean amaika aldiz? ; ... - Ni joango al nintzake amaika aldiz ayengana? ; Ez, ... baizik. -- Ez dizkigute bialdu kutxa ortan ipiñi ditzagun : Zertarako ez dizkizuete bialdu? ; ... - Nortzuek ez dizkiote bialdu kutxa ontan ipiñi ditzan? ; ... - Guri bialdu al dizkigute kutxa ontan ipiñi ditzagun? ; Ez, zuei ere ... -- Zoriontsuak izan ditezela opa diet : Nortzuei opa diezu zoriontsuak izan ditezela? ; ... - Zer opa diezute? ; ... - Guri opa al diguzute zoriontsuak izan gaitezela? ; Ez, ... baño.

4. Ongi irakuŕi antzerki baten alkaŕ-izketa au, ta esan gero izketaren asmo berezia zein dan, bai ta itzegiten dutenak nortzuei ta noizkoei buruz ari diran :

«ONESTO TA FERMIN»

Fermin : «Ona emen, nere aita maitea, Orikain'go auzora eldurik. Etxe auxe dala uste dut aurtengo nagusiaren etxea.

Onesto : (Besoa zerurantz jasorik) Gure Jesus onak bere bi moŕoi aben uŕatsak bide onean zuzendu bitza! Gure nekeak ontzat artu ditzala!

Fermin : Asko nekatu al zera, aita, aldapa ontan?

Onesto : Ezer gutxi, Fermin.

Fermin : Emen alki bat, atsedena artzeko.

Onesto : Jaun'ak eskeintzen digunezkero, artu dezagun biok, gero indaŕ geyagoz lan egiteko. (Biak alkian eseriko dira. Onesto'k nekez bezela itzegingo du) ... Ez dakit nola azaldu, seme, nere poza.

Fermin : Zer, aita?

Onesto : Jaun'ak beragaitik egiten ditugun lantxoak atsegin andiak emanik ordaintzen dizkigu, seme.

Fermin : Esku zabala baita.

Onesto : Mixiolariak opa dezaken saririk onena emen ugari artzen da... Aldi labuŕean Iruña'ko eŕiak Jaun'aren itza gogoz aditu du.

Fermin : Ez guziak, aita. Gezuŕezko jainkoen jaŕaitzaīe asko da oraindik Iruña'n.

Onesto : Oyek ere lasteŕ Jesus'en uztaŕi biguna artuko dute.

Fermin : Lasteŕ ikusi dezagula egun ori!

Onesto : Jaun'aren itza egiñalean ereintzen saya gaitezen, bai, ta Berak bere intza gozoaz guk ereindakoa jayo-eraziko du.

Fermin : Ni beintzat lanerako gertu naukazu, aita.

Onesto : Ez dakit nola; baña uste aundia sortu zait biotzean zuen berarizko bizikera ikusita...

Fermin : A! Poz aundia ematen didate itz oyek.

Onesto : Gezuŕezko jainkoak dituzute, bai, euzkaldunok; erbestetaŕenganako iguiña, izakera zakaŕ-xamaŕa, ta beste onelako akatsen batzuk dituzute...; baña zuen biotza bezelako biotz on, zintzo ta garbiagorik ez da eŕez iñun arkitzea».

«Īlargi bete» (7 ta 8'gaŕen oŕialdeetan) Urkia'taŕ Pernando.

EUN ETA BATGAŕEN IKASKAYA

-TZAT, -TZAKO atzizkiak.

Atzizki auetako lenengoak auxe adierazten du: Norbait edo zerbait, bere izenak duen zentzunaz onartzen dala, ots, izen oŕek esan nai duena egia bezela artzen dala.

Onela: Seme*tzat* (egitan semea dala uste da).
On*tzat* (egitan ona dala uste da).

Bigaŕenak, -TZAT + -KO = -TZAKO, oŕela egiña, lengoaren zentzuna bera edo antzekoa du.

E. b.: Ero*tzakoa* (ero dagoela uste dala).
Aita*tzakoa* (aita dala uste dala).

Naiz atzizki ontan naiz len ikasi ditugun beste batzuetan: -LAKO, -TAKO, -ZKO, ta beste batzuetan be, -KO atzizkiaren bizia nolako zabala dan ikusten da, beste batzuekin alkartuta, asmo beŕiak adierazteko, beste atzizkiak eratzen.

Alkartze oyetako beste bi beŕi auek aipatzekoak dira:

-IKO (-IK + -KO) ta *-TARIKO* (-TA + -IK + -KO); azken ontan, alkartzeko R izkia agertzen da.

Atzizki bi oyetako lenengoa, -IKO, -IKAKO ere izan ditekena, aditz-izenondoa dugu (1).

Onela: Egiñ*ikoa* = Eginda, Egiña. Idatz*ikoa* = Idatzita, Idatzia.
Estal*ikakoa* = Estalita, Estalia.

Bigaŕenak -TARIKO, bi zentzun auek ditu (2).

Ageŕerazle ta zenbakitzekin alkartzean, «mueta»'ren zentzuna du, adierazleen iru maīetan agertzeko: one*tariko*, oŕe*tariko*, a*tariko* = onen, oŕen edo aren muetakoa. Bie*tariko* = bi muetako.

Ba-du beste au ere: Zenba*tariko*? = zenbat muetako?

Notin-izenordeekin, «arteko»'ren zentzuna du.

E. b.: Zue*tariko* = zuen arteko. Gu*tariko* = gure arteko.

Beste itz batzuekin ere alkaŕ diteke, esandako bi zentzunetaz.

E. b.: Edoze*tariko* = edozein muetako.
Eldu dirane*tariko* = eldu diranen arteko.

---

(1) Ikusi: 43'gaŕen ikaskaya.
(2) Ikusi: Azkue, D.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukiko lenengo leŕoan, zeaŕezko izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; askaŕ-izakayaz, alkaŕi dagozkion menekoeraren adizkiñak ipiñi beaŕ dira, noski, artez eta zeaŕez-betetzekoak daramazkitenak; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		...	...		dizaizkizuedan	...
Zuk	...		dizaizkiozun	...		...
Berak	Dizaizkidan	...	...	...	...	...
Guk		dizaizkizugun	...		...	...
Zuek	...		...	...		dizaizkiezuten
Berak	...	...	...	dizaizkiguten	...	...

2. Uŕengo esakuntzetan, Tinkieraz eta Menekoerazko aditzerak agertzen dira, alkaŕekiko aldatzekoak; bigaŕenak -LA atzizkia eramaten; batera, bayezkoak diranak ezezkoen bidez eta alderantziz aldatu beaŕ dira; ta bigaŕen esakuntzak zentzun egokia eramateko, beaŕ-izango diran beste itzak ere erabiltzeko; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Garaiz eskatu diote beaŕ dana *oaŕ dizaidala*; ... - Zure aloŕ guztiak zearo *sakailtzen dizkizute*; ... - Beaŕa zayo bere asmoa iñoiz *igaŕi ez dizayogula*; ... - Zuen lagunek saŕi zuen idiak *uztartzen dizkizuete*; ... - Ugal ayek ongi *tinkotu dizaizkiguzutela* nai dugu; ... - *Ez diete leuntzen* beren lana berak nai duten bezela; ... - *Ez dizkidate makotzen* makil oyek beaŕ dan ainbat; ... - Belbil-gurpiīak *ziztatu dizaizkizutela* bilduŕ gera; ... - Zergatik *ondatzen diozu* oŕela bere lan edeŕa?; ... - Zuen umeak *gaizkatu dizaizkizuedala* aŕen eta aŕen esan didazute; ... - Gure aulki onena *puskatzen digu* oŕela; ... - Beren jostaīuak *austu ez dizaizkiezula* eskatzen dizugu; ...

3. Oitura dugun lez, uŕengo galderai eman bekie erantzun egoki bana; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Gizon ayerkoŕ ayei azaldu diegu, ondo uleŕ dizaiguten: Zertarako azaldu diezute gizon ayerkoŕ ayei?; ... - Nori azaldu diozute uleŕ dizaizuen?; ... - Guri azaldu al diguzute ondo uleŕ dizaizuegun?; Ez, ... baño. -- Apaiz ayengana joan zaiteztenean, joan zaitezte lotsa aundiaz: Noiz joan beaŕ dugu lotsa aundiaz?; ... - Norengana joango gera lotsa

aundiaz?; ... - Ni ere, apaiz ayengana joan nadiñean lotsa aundiaz joan beaŕ al dut?; Bai, zu ere ... -- Zalantzik gabe, an emen baño obeto so--egingo ziguketean: Nori so-egingo zioketean an emen baño obeto?; ... - Nola so-egingo zizueketean an?; ... - Zuk ere niri an baño obeto so-egingo al zenidakean?; Bai, nik ere ... -- Zergatik euki zinduten ain luzaroan gaiztotzat?; eztakit zergatik euki ninduten gaiztotzat ain luzaroan: Nork eztaki gaiztotzat ain luzaroan zergatik euki zuten?; ... - Ontzat euki al zinduten luzaroan?; ... - Guk al dakigu ain luzaroan zergatik euki ginduzten gaiztotzat?; Ez, zuek ere ... -- Ona ekaŕi ginduzten ikus dezaguna esan dizayegun: Nortzuk ekaŕi zituzten ona, ikus dezatena esan dizayeten?; ... - Zertarako ekaŕi zinduzteen ona?; ... - Ni ekaŕi al ninduzuten ona ikus dezadana esan dizaizuedan?; Ez, ... baizik. -- Ikastetxera joaten asi zaitezenetik, asko aditaldu beaŕ duzu: Nork aditaldu beaŕ du asko ikastetxera joaten asi dediñetik?; ... - Noizdanik aditaldu beaŕ dut asko?; ... - Zuek ere asko aditaldu beaŕ al duzute ikastetxera joaten asi zaiteztenetik?; Bai, guk ere ... -- Alkaŕ bizkortu ezazute ta eutsi ezayozute zuen itxaropenari: Nortzuk nai duzu alkaŕ bizkortu dezatela?; ... - Nortzuek eutsi beaŕ diote beren itxaropenari?; ... - Niri ere esango al didazu ene burua bizkortu dezadala?; Ez, ... baizik. -- Amaika bideŕ entzun beaŕ-izan genuen itzuliko ez ziñaketela: Nortzuek entzun beaŕ--izan zuten itzuliko ez giñakela?; ... - Noiz entzun beaŕ-izan zenuten ni itzuliko ez nintzakela?; ... - Guk ere entzun beaŕ-izan al genuen amaika bideŕ, itzuliko ez giñakela?; Ez, ... baño. -- Beren landak erein dizaizkiegula nai dute, baña eztugu aal-izango: Nortzuek nai dute beren landak erein dizaizkiezutela?; ... - Ayek nai dutena egin aal-izango duzute?; ... - Nik nai al dut nire landak erein dizaizkidatela?; Ez, ... baizik. -- Itzuli zaitezteneko, ez gera egongo burni lodi auen artean: Nor ez da egongo burni lodi auen artean gu itzuli gaitezeneko?; ... - Nun atzerate egongo itzuli nadiñeko?; ... - Zu egongo al zera burni lodi ayen artean zure lagunak itzuli ditezeneko?; Ez, ni ere ... -- Ez al gindukezute ikusiko etzi goizean?; bai, uste dut etzi goizean ikusiko zinduztekegula: Nor ikusiko zenukete etzi goizean?; ... - Noiz ikusiko nindukezute?; ... - Nik ikusiko al zinduket etzi goizean?; Bai, uste dut, zuk ... -- Zuetariko batek salduko nau: Nork salduko zaitu?; ... - Nor salduko du gutariko batek?; ... - Ayetariko batek salduko al zaitu?: Bai, ziuŕ, ... -- Nik esan dizayodala?, esan ezayozute zerok: Nork nai duzu esan dizayola?; ... - Nortzuei nai duzu esan dizayegula?; ... - Nik nai al dut zeroŕek esan dizayozula?; Ez, ... baño. -- Bialdu ezaizkidazute etzi nire etxera: Nortzuk bialduko dizkizut etzi zure etxera?; ... - Nora bialduko dizkizut etzi?; ... - Zuek bialduko al dizkiguzute etzi gure etxera?; Ez, ... baizik. -- Noizdanik zeneramazkiten onen ule luzeak?; aspaldidanik generamazkien onen ule luzeak: Nork zeramazkien aspaldidanik oŕen ule luzeak?; ... - Nik al neramazkien oŕen ule luzeak aspaldidanik?; Ez, ... baño.

4. Irakuŕi ongi ipuin bateko irakurgai au ta esan, gero, zeintzuk diran bertan agertzen diran adizkiñak, zein aditzekoak diran, zein aldietakoak eta era bilduak zeintzuk diran ere:

«EŕAMON GUDARIA - II»

«Eŕamon, etxean, poz-pozik, batere kezkarik gabe, lasai ta zoriontsu bizi zala uste-izango duzu, bearbada, irakurle. Alabaña, azaletik bakaŕik begiratuta, edozeñek uste zezakean bezin alai etzegoen mutiĪa, kezka baten aŕak zulatzen zion biotza. Pozez zegoen bai, ta ondo baño obeto, danak maite baitzuten eŕian, eta etxean zer esanik ez. Baña, bere pozak luzaro iraungo etzuela ba-zekien; laisteŕ-bai-laisteŕ bere burua, aŕatoi zikiñaren antzera, lubaki zabaletan eta baso, ta oyenetako zulo estu--loitsuetan sartuta ikusi beaŕ-izango zuela ere bai; ango kañoi-otsa ta sua, ta izkiĪuetako bala-txistu bildurgaŕiak gogora zetozkion; zaurituen deadaŕ negargaŕiak eta ildakoen arpegi zuriak beŕiro entzun eta ikusi beaŕean zegoela uste zuen ... Nolaz geyegizko pozaz alaitu zitekean, ba?

Baña, egia esan dezadan: oroigaŕi iĪun oyek baño, bere amaren eta Malentxo'ren alaitasun geyegiak, biotza geyago goibeltzen zion. Ez al zituen, bada, ikusten biak txoraturik ezkontza antolatzen, erabat eta betirako etxera etoŕia zitzayelakoan?

— Ez, Eŕamon, ez —erantzun oi zioten ao batez amak eta emaztegayak—, beŕiro ez aute gudara eramango. Bi iĪabete ba-dituk emen agoela, Eguaŕi-Urte beŕitako bakaŕik ik uste uan baño. Gañera gutxien uste diagun garayan, eta laisteŕ, guda bukatzera zijoakian zuŕu-muŕu zebilkik baztereŕetan. Utziok, ba, ire leloari, siñistu zak, lasaitu adi bein-betiko.

Baña, ezin gure mutiĪa lasaitu. Egunak joan eta egunak etoŕi, bere biotza estuago ta laŕiago, urbiĪago ikusten baitzuen bere zoritzaŕa.

Eŕamon beti izan zan elizkoya ta siñismen bizikoa; eta eriotza begiz-begi gudako su-leŕoetan ikusi ezkeroztik, areago. Arengatik, bere bur-

uausteak oro laga, ta azkenean, Jaungoikoa'ren eskuetan jaŕi zan erabat, A'ren naya osoro ta gogoz betetzeko gertu.

Jaungoikoa'ri egin zion bere buruaren eskeintza latz onek, ezin esan aiñako pakea sortu zion biotzean.

— Berak daki —bere baitan ziñoen—, zer zaigun onena... Luŕean batutzen ezpagaitu, Zeru'an maite-lokaŕi iĺezkoŕez betiko alkartuko gaitu... Jauna, zuk piztu duzu ni ta Malen arteko maite-sua, biok maitasun batez sutsuago maite zaitzagun...! Luŕean itzali nai badiguzu, berpiztu eiguzu Zeru'an».

«Ipuiak» (37-38'gn. oŕialdeetan) Jauregi'taŕ Koldobika (Jautarkol).

EUN ETA BIGAŔEN IKAŚKAYA

ADITZ-JOKOA

MENEKOERA - EGINKOŔA - IRAGANKOŔA
EREDUZKO ADITZA - LAGUNTZAĹEAREN ERAEKIN
ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

Ni	IKUS	*N-* a)	-ZA-	-ZU- / ---- / -ZU- / -----	-TE- / -TE-	-N
Gu	IKUS	*G-* a)	*-IT-* -ZA-	-ZU- / ---- / -ZU- / -----	-TE- / -TE-	-N

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

Zu	IKUS	*Z-* a)	*-IT-* -ZA-	-Da- / ---- / -GU- / -----	-(T)E-	-N
Zuek	IKUS	*Z-* a)	*-IT-* -ZA- *-TE-*	-Da- / ---- / -GU- / -----	-(T)E-	-N

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

Ez ditugu emen adizkin auek aipatzen, 98'gn. ikaskayan ikasi ziranak diralako.

Len, 83'gn. ikaskayan esan genuenez, era auek, eraketaren lenengo bidea jaŕaitzen dutenak, Agintzera'renak berak dira, -N atzizkia erantzita. Era berean, Tinkierazko oraiñaldikoak dirala ere esan diteke (1); ayetako -U- eŕoa, -ZA- beste eŕoaz aldaturik eta azken -N izkia gañeratua.

(1) Ikusi: 28'gn. ikaskaya.

Ikaskai ontako eraetan, -N atzizkia -LA'ren bidez aldatzen badugu, besteetan bezela, beste auek sortzen dira : Ikus nazazu*la*; Ikus gaitzate*la*; Ikus zaiztzategu*la*; eta abaŕ.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, artez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak agertzen dira; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak ditugun beste izenordeak jartzean ere; alkaŕi dagozkion Menekoera'ren aditzera laguntzaīleak ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		...	dezadan		...	...
Zuk	Nazazun		...	...		...
Berak	...	...	...	...	zaitzaten	...
Guk		zaitzagun	...		...	...
Zuek	...		...	gaitzazuten		...
Berak	...	...	...	...	...	ditzaten

2. Emen ageŕerazten ditugun esakuntzetan, Tinkierazko oraiñaldiko erak eta Menekoerazko oraiñaldikoak be ipintzen ditugu, alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak; bigaŕenak -N atzizkiaz jartzeko; aldi baten, bayezkoan dagozenak ezezkoen bidez eta alderantziz aldatzeko ere; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Zer egin beaŕ duzu *auŕera nazazun*? ; ... - Egokiena zaizulako, oso goiz *oeratzen zaitugu* ; ... - Emen duzute oŕazi au zuen umea obeto *oŕaztu dezazuten* ; ... - Eŕaz *lazotzen gaituzte*, eŕukirik gabe ta edonun; ... - Nai ez duzutena egiteko, egunero *beartzen zaituztee* ; ... - Eztakit zer egin gaizki *gorde ez ditzadan* ; ... - Noizean bein oso ondo *saritzen nauzute* ; ... - Zer egin beaŕ dugu zure atsekabean *arindu zaitzagun*? ; ... - Kalean eske egoten dan itsua ongi xamaŕ *sorosten dugu* ; ... - Geyegi *zamatu ez gaitzazuten*, gure indaŕak oso aundiak eztirala begiratu beaŕ duzute; ... - Joan zaitezte lenbailen amarengana, ongi *garbitu zaitzaten* ; ... - Bein eta beŕiro alegiñak eginaŕen, *ez dituzte* gizajo ayek *atzipetzen* ; ...

3. Emen be, jartzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Eztut nai oŕelakorik egin dizayezuten : Zer eztuzu nai? ; ... - Nork eztu nai oŕelakorik egin ez dizayegun? ; ... - Ayek nai al dute oŕelakorik egin dizaiguzuten? ; Ez, ayek ere ... -- Guregana al zatoz anaitzat euki zaitzagun? ; bai, ain zuzen ortarako natoŕ zuengana leyatsu : Nor datoŕ zuengana leyatsu anaitzat euki dezazuten? ; ... - Nortzuengana natoŕ leyatsu anaitzat euki nazaten? ; ... - Oyengana al gatoz gu, leyatsu, anaitzat euki gaitzaten? ; Ez, ... baño. -- Aroztegi ortan lanegin bazenu, dakizuna baño geyago jakingo zenuke : Nork jakingo luke dakiena baño geyago aroztegi ortan lanegin balu? ; ... - Zer jakingo nuke nik aroztegi ortan lanegin banu? ; ... - Zuek ere aroztegi ortan lanegin bazenute, dakizutena baño geyago jakingo al zenukete? ; Bai, guk ere ... -- Aŕ ezazute ori erdibana : Nortzuek artuko dute ori erdibana? ; ... - Nola artuko dugu ori? ; ... - Auŕ ayek ere ori erdibana artuko al dute? ; Ez, ... baizik. -- Antzokira zurekin eraman nazazula nai dut : Nork nai du antzokira nirekin eraman dezadala? ; ... - Nora nai duzu nirekin eraman zaitzadala? ; ... - Guk nai al dugu antzokira zurekin eraman gaitzazutela? ; Ez, ... baño. -- Ez nazazute euki gaiztotzat! : Nor eztugu euki beaŕ gaiztotzat? ; ... - Nola ez zaitugu euki beaŕ? ; ... - Guk nai al dugu gaiztotzat euki gaitzazutela? ; Ez, zuek ez ... -- Beren idaztien oŕiak malgutu ez dizaizkiezuten aŕendu dizuete : Zer aŕendu digute? ; ... - Nortzuei aŕendu diete beren idaztien oŕiak malgutu ez dizaizkieten? ; ... - Nik aŕendu al dizuet nire idaztien oŕiak malgutu ez dizaizkidazuten? ; Ez, ... baño. -- Zuen maŕezkiak mai oŕen gañean ipiñiko bazenizkigute, obeto ikusiko genituke : Nola ikusiko zenituzkete gure maŕezkiak, mai oŕen gañean ipiñiko bagenizkizue? ; ... - Nortzuek ikusiko lituzkete obeto nire maŕezkiak mai oŕen gañean ipiñiko banizkie? ; ... - Nik ere zuen maŕezkiak obeto ikusiko al nituke, mai oŕen gañean ipiñiko bazenizkidate? ; Bai, zuk ere ... -- Aŕetaz ibīliko gera, atzipetu ez gaitzazun : Nola ibīliko zerate, atzipetu ez zaitzatedan? ; ... - Nor ibīliko da aŕetaz, atzipetu ez dezazuten? ; ... - Ni ere aŕetaz ibīliko al naiz, atzipetu ez nazazuten? ; Bayetz uste dugu, zu ere ... -- Zure aitzuŕak eta zure igitayak utzi dizaizkidazula agindu dizute : Nori agindu diote bere aitzuŕak eta bere igitayak utzi dizaizkidala? ; ... - Zer agindu didate niri? ; ... - Guri agindu al digute gure aitzuŕak eta gure igitayak utzi dizaizkizuegula? ; Ez, ... baizik. -- Bakoitzak orduan bere eginbeaŕa bete balu, orain beren adiskideak ez zitzaizkiekean uŕutiratuko : Nola ez zitzaizkigukean orain uŕutiratuko

gure adiskideak? ; ... - Nortzuk ez zitzaizkizuekean uŕutiratuko orain, bakoitzak orduan bere eginbeaŕa bete balu? ; ... Niri uŕutiratuko al zitzaizkidakean orain nire adiskideak, bakoitzak orduan bere eginbeaŕa bete balu? ; Ez, zuri ere ... -- Oraintxe irteten bazera, garaiz elduko ziñakenezkero, eztuzu iñoren zai egon beaŕ : Nork eztu iñoren zai egon beaŕ, oraintxe irteten bada, garaiz elduko litzakenezkero? ; ... - Zer dala-ta, eztut iñoren zai egon beaŕ? ; ... - Oraintxe irteten bagera, garaiz elduko giñakenezkero, zuen zai egon beaŕ al dugu? ; Ez, zuek ere ... -- Ikastetxe ortatik atera zaitzategula onena izango da : Zer izango da onena? ; ... - Ni ikastetxe ortatik atera nazazutela onena izango al da? ; ... - Txaŕena izango al da zuek ikastetxe ortatik atera zaitzategula? ; Ez, ... baizik. -- Euki nazazu zure adiskidetzat orain eta beti : Nor euki beaŕ dut nire adiskidetzat orain eta beti? ; ... - Nola euki beaŕ zaitut orain eta beti? ; ... - Gu ere zuen adiskidetzat euki beaŕ al gaitzazute orain eta beti? ; Bai, zuek ere ... -- Ez zizkieten ekaŕi mats oyek, orain biurtu dizaizkieten : Zer ez zieten ekaŕi orain biurtu dizayeten? ; ... Nortzuei ez zenizkieten ekaŕi mats oyek? ; ... - Zuri ekaŕi al genizkizun matz oyek orain biurtu dizaizkiguzun? ; Ez, niri ere ...

4. Irakuŕi ondo uŕengo bertsoak, eta aapaldi bat bederen buruz ikasi ; bai ta bertso auetan dagozen ots-itzak auŕentzako egokiak nola diran nabaritu ere :

«TXINTXIN TXIRIKITIN»

1. «Txintxin txirikitin txoria,
Txoritxo txilibitaria ;
erein nuen garia,
oso arlo aundia,
uste nuen eun anega,
imiña bat zan guztia.
Txintxin txirikitin txoria,
Txoritxo txilibitaria.

2. Txintxin txirikitin txoria,
txoritxo txilibitaria ;
mizmiz katu zuria
yaurti nion aŕia,
aren ordez mindu nuen
atsoaren bekokia.

Txintxin txirikitin txoria,
Txoritxo txilibitaria.

3. Txintxin txirikitin txoria,
Txoritxo txilibitaria ;
atsoaren zauria sendatzera
etoŕia, oge sabayan da ageri
txindoŕ papaŕ goŕia,
txiolaritxo zolia.
Txintxin txirikitin txoria,
Txoritxo txilibitaria.

«Euskaleŕiaren Yakintza» (371-2'gn. oŕialdeetan) Resurrección María de Azkue.

EUN ETA IRUGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

MENEKOERA - ADITZ LAGUNTZAĪEA - ORAIÑALDIA

ARTZAĪE-ADIZKIÑAK - IRUGAŕEN NOTIÑAREN ADI-YABEA (1)

Bakaŕ

Neri			-Da-	
Zuri			-ZU-	
Berari			-O-	
	IZAN	D- a) -KI-		-N
Guri			-GU-	
Zuei			-ZU- -(T)E-	
Berai			-E-	

Askaŕ

Neri			-Da-	
Zuri			-ZU-	
Berari			-O-	
	IZAN	D- a) -KI- -ZKI-		-N
Guri			-GU-	
Zuei			-ZU- -(T)E-	
Berai			-E-	

Era auetan ere, Menekoerazko beste taldeetan egin dan bezela, -N atzizkiaren ordez -LA beste atzizkia jartzen badugu, onela izango dira eratuko ditugun besteak : Dakizkizu*la*, ... ; Dakio*la*, ... ; Dakizkigu*la*, ... ; ta abaŕ.

Oartu aal-izan danez, eta 88'gn. ikaskayan oŕi buruz be zerbait esan genuen, iragangaitzak diran NADIN eta GAITEZEN, bai ta iragankoŕak diran DEZADAN eta DEZAGUN eta auen askaŕezkoak ditugun DITZADAN eta DITZAGUN erak, beste taldeetan agertzen diran oyen antzeko besteak bezela, bi zentzun dituzte, Agintzera'rena ta Menekoera'rena. Onela, beraz :

IZAN NADIN — (Agintzera : *Izan nadin* beti ona!); edo (Menekoera : Ona ekaŕi naute ona *izan nadin*).

(1) Ikusi: 140, 142 ta 147'gn. ikaskayak.

IZAN GAITEZEN — (Agintzera : *Izan gaitezen* gero ta obeak); edo (Menekoera : Onela azi gaituzte, gero ta obeak *izan gaitezen*).

IZAN DEZADAN — (Agintzera : *Ikas dezadan* ongi euzkera); edo : (Menekoera : Basetxe ontan utzi naute, euzkera ongi *ikas dezadan*).

IZAN DEZAGUN — (Agintzera : *Idatzi dezagun* alik eta ongienik); edo : (Menekoera : Alegiñak egin beaŕ ditugu alik eta ongienik *idatzi dezagun*).

Zentzun bi oyek ongi bereizteko, itzegiteko erabiltzen dan soñua bide egokia da; baña ontaz ere ezagutu ditzakegu : Agintzeran, aditza esakuntzaren *asieran* joaten da, ta Menekoeran, *atzean*.

E. b. : *Izan gaitezen* zintzoak; eta : Zintzoak *izan gaitezen*.

Egin dezagun azkari on bat; eta : Azkari on bat *egin dezagun*.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, artzaĪe-zentzuna duten izenordeak agertzen dira; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, bayeztean eta ezeztean bakoitza, irugaŕen notiñen adi-yabeak ipintzen ditugu. Alkaŕi dagozkion «Menekoera»'ren Oraiñaldiko adizkiñak, kulatzen ordez, esan eta idazteko.

Adi-yabea	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Bera (bai) :	Dakidan	...	...	...	dakizuen	...
Bera (ez) :	...	ez dakizun	...	...	...	ez dakien
Berak (bai) :	...	...	dakizkion	...	dakizkizuen	...
Berak (ez) :	Ez dakizkidan	...	...	ez dakizkigun	...	...

2. Orain ematen ditugun esakuntzetan, Agintzerazko ta Menekoerazko oraiñaldiko aditzerak agertzen dira, alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak; bigaŕenak -N atzizkia eramatean; aldi berean, bayezkoan dagozenak ezezkoan jartzeko ta alderantziz ere; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Izan nadin beti beaŕ dan bezela; ... - Ementxe jartzen zaitugu luzaroan *egon zaitezen*; ... - *Jan beza* auŕ oŕek ori, gutxienez; ... - Aŕetaz ibiĪi beaŕ, okeŕak *egin ez ditzagun*; ... - *Jeiki zaitezte* egun auetan

goizago; ... - Eztakit zer egin adiskide oyek lengo atsekabeak *oroitu ez ditzaten*; ... - Agindu dizudana egin beaŕ duzute lasayago *gera nadin*; ... - *Jo ezazu* auŕera, gero ta adoretsuago agertzen; ... - Bakaŕik utziko dugu, bere eginkizunak gaizki *egin ez ditzan*; ... - *Erdu gaitezen* ausarki ororen batzaŕera; ... - Oŕenbeste *edan ez dezazuten* bonbil geyenak kenduko dizkizuegu; ... - *Ezkutatu bitzate* beren bitxiak iñork ikus ez ditzan; ...

3. Emen ematen ditugun galderai erantzun bana eman; esaten eta idazten:

Egunero zer edo zer egin beaŕ duzu euzkeraren ikastea eŕazagoa izan dakizun: Nork egin beaŕ du egunero zer edo zer euzkeraren ikastea eŕazagoa izan dakion?; ... - Zertarako egin beaŕ dut egunero zer edo zer?; ... - Zuek ez al duzute egunero zer edo zer egin beaŕ, euzkeraren ikastea eŕazagoa izan dakizuen?; Bai, guk ere ... -- Egokia da zuretzat ondo ezagutua izan zaitezela: Norentzat da egokia ondo ezagutua izan dediĺa?; ... - Zer izango da niretzat egokia?; ... - Zuentzat ez al da egokia izango ondo ezagutuak izan zaiteztela?; Bai, guretzat ere ... -- Biurtu ez dizaiguten, onena bialdu ez dizayegula izango da: Zer izango da onena biurtu ez dizaizueten?; ... - Zertarako izango da onena, bialdu ez dizayodala?; ... - Onena izango al da zuri ori bialdu ez dizaizugula, biurtu ez dizaiguzun?; Ez, ez da izango onena ... -- Eman ezaidazu eskuan daukazuna ta bioken artean erdibana banatuko dugu: Zertarako nai duzu eskuan daukadana eman dizaizudala?; ... - Zer nai duzute nik eman dizaizuedala erdibana banatu dezazuten?; ... - Guri emango al diguzute eskuan daukazutena erdibana banatu dezagun?; Ez, ... baizik. -- Zer egin, irakasi didazutena aiztu ez dakidan?; egunero ari-izatea izango da onena irakasi dizuguna aiztu ez dakizun: Nor ari-izango da egunero, irakasi diozutena aiztu ez dakion?; ... - Zertarako ari-izango gera egunero?; ... - Gazte ayek ere egunero ari-izango al dira irakasi diezutena aiztu ez dakien?; Bai, gazte ayek ere ... -- Ikus ez zaitzaela beŕiz gure artean: Nor ez dute beŕiz zuen artean ikusi beaŕ?; ... - Nortzuen artean ez naute ikusi beaŕ beŕiz?; ... - Auŕ xalo ayek beŕiz zuen artean ikusi beaŕ al ditugu?; Ez, auŕ oyek ere ... -- Neronek salduko ditut bereala, edonola saldu ez dizaizkidazuten: Nork salduko ditu bereala, edonola saldu ez dizaizkiogun?; ... - Zertarako salduko dituzu bereala?; ... - Guk salduko al ditugu bereala, edonola saldu ez dizaizkiguzuten?; Ez, ... baño. -- Aŕetaz ibiĺi zaitez eskuetan daramazuna erori ez dakizun: Zertarako ibiĺi beaŕ dut aŕetaz?; ... - Nork ibiĺi beaŕ du aŕetaz eskuetan daramana erori ez dakion?; ... - Guk ere aŕetaz ibiĺi beaŕ al dugu eskuetan daramaguna erori ez dakigun?; Bai, zuek ere ... -- Nai al duzute goiz iratzaŕi zaitzategula?; bai, orixe da, ain zuzen, nai duguna: Nortzuek nai dute goiz iratzaŕi ditzagula?; ... - Noiz nai dugu iratzaŕi gaitzazutela?; ... - Zuk ere nai al duzu goiz iratzaŕi zaitzadala?; Ez, ... baizik. -- Ez zizkieten bialdu intxauŕ ayek, orain bat-banaka eman dizaizkiguten: Nortzuei ez zizkieten bialdu intxauŕ oyek, orain bat-banaka eman dizaizkieten?; ... - Zertarako ez zizkidaten bialdu intxauŕ ayek?; ... - Zuei bialdu al genizkizuen intxauŕ ayek, orain bat-banaka eman dizaizkiezuten?; Ez, ... -- Zuen artean artu nazazutenean, dakidana edestuko dizuet: Noiz edestuko diguzu dakizuna?; ... - Zer edestuko diguzu gure artean artu zaitzagunean?; ... - Guk ere dakiguna edestuko al dizuegu zuen artean artu gaitzazutenean?; Ez, ... baño. -- Ez al duzu nai beren zoŕak azketsi dizaizkietela?; Bai, benetan nai dut beren zoŕak azketsi dizaizkietela: Nork nai du nire zoŕak azketsi dizaizkidatela?; ... - Zer nai duzu benetan?; ... - Zuek ere nai al duzute zuen zoŕak azketsi dizaizkizuegula?; Bai, guk ere ... -- Kalean aurki zaitzagunean olekiz aguŕ-egingo dizugu: Nori aguŕ-egingo diozute olekiz kalean aurki dezazutenean?; ... - Noiz aguŕ-egingo didazute olekiz?; ... - Nik ere aguŕ-egingo al dizuet olekiz kalean aurki zaitzatedanean?; Bai, uste dugu zuk ere ... -- Jantzi ayek ekaŕi dizkizuete garbi dizaizkiezuten: Nortzuei ekaŕi dizkiete jantzi ayek garbi dizaizkieten?; ... - Zer ekaŕi digute garbi dizayegun?; ... - Niri ekaŕi al dizkidazute jantzi ayek garbi dizaizkizuedan?; Ez, ... baizik. -- Esan bezayete utz-egin gabe erdu ditezela: Nortzuei esango diete utz-egin gabe erdu ditezela?; ... - Zer esango dizuete zuei?; ... - Guri esango al digute utz-egin gabe erdu gaitzezela?; Ez, ... baizik.

4. Emen Trueba'taŕ Andoni jaunak erderaz idatzi zuen «El Judas de la Casa» ipuiñaren itzulpena jartzen dugu; asiera bakaŕik da ori, ongi irakuŕi beaŕ dana; ta itzulpena nork egin zuen ere be-aldean diñogu. Irakuŕi ta gero, bertan dagozen alkaŕ-gayezko esakuntzak zenbat eta zeintzuk diran ikusi ta esan beaŕ-izango da:

«I»

«Erdu, ene maitea, erdu nirekin batera; yaŕaitu niri adimeneko, zentzuneko begiakaz, Kadagua deritxon eŕeka edeŕaren ibaŕetara; euren txukuntasunaz eŕeka apartsu, otz, garden ori, geyen aŕotu, ta edertoen

yantzi daroen ibaŕetara. Bere yayotza-lekua dan Mena izeneko arana atzean lagatzen daben tokitik asi, ta, Jaungoikoa'k, bere sortze-leku ori uzteko daroan iraduaren zigorkadatzat, Ibaizabal deitzen zayon ibai andiak iruntsi dagian aginduta daukan lekuraño, bost legoako bidea ortxe-antxe egin daroa, aitaturiko eŕeka oŕek.

Erdu nirekin adimenagaz, Gueñes deitzen dan uriraño; auxe da ba, Bizkaya-ko Enkartaziñoetako urien artean politenetariko bat, eta berau aukeratu dut nire ipuin mingoitsenetariko baten ageŕ-lekutzat; ipuin samiña benetan au, ta beraz ilunenetarikoa.

Araneko sakon unetik, an doa, iŕa, iŕa ta iŕa, txeŕenek berekin daroan arima galduaren antzera, Kadagua eŕeka urduria, ta bere ipaŕ eta ego aldeetatik, mendi yagi-yagiak agiri dira; mendi oyetan, oŕ-an--emen sakabanatuta, gaztain eta areitz arteko kerizpe gozotxoan, basetxe zuri batzuk agertu doaz.

Miren Andere Eleizaren gain aldean, eta «somoetara», mendi yagietara igoteko beaŕ-izango liraken maīen antzera agertzen diran alagaŕen arteko batean, gizaldi onen lenengo urteetan, Etxe-Edeŕa izeneko basetxe bat egoen.

Benetan izen egokia eukan, izan bere, basetxe onek euzkeraz; etxea ta bere alderdi ta inguru guzti-guztiak, txukuntasunez eta edertasunez yantzirik agertzen ziran-eta.

Etxetxo ori, eduŕ-mukil baten itxuraz, mendiz eta basoz inguraturik, intxauŕ eta kereiza artean, tente-tente ta aŕo-aŕo agiri zan; eta bere oste aldean, ondo zaindutako luŕ-arlo andiak ikusi eitekezan».

«Etxe-Kalte» (5-6'gn. oŕialdeetan) (Aŕuza'taŕ Migel (Aŕugain) euzkeratzaīea.

EUN ETA LAUGAŔEN IKASKAYA

-GA, -KA atzizkiak.

Atzizki auek asmo batzuk adierazten dituzte, ta oyetako bat edo beste, biei dagozkie berdin; onelakoetan, egitan, auxe da bakaŕik gertatzen dana: bien soñuak alkaŕen antzekoak diralarik, *G* ordez *K* agertzen da, ta alderantziz ere, *K* ordez *G*.

1'go asmoa: Gabetzearena.

Onela: Indar*ga* (indaŕik gabe); Lotsa*ga* (lotsarik gabe); Arte*ga*, Arte*ka* (baretasunik gabe); Siñis*ka* (siñismenik gabe).

Esan-nai onenaz, atzizki oyetatik beste auek sortu dira: BAGA, BAGE, GABE (1), KABE, GABEKO, GABETANIK, GABERIK, BARIK (BAGARIK'en laburpena), BAKO (BAGAKO'en laburpena): ta naiz atzizkiz naiz aldendutako itzak bezela erabiīi ditezke.

E. b.: Uste*gabe*, Uste*kabe* (usterik ez egitean); Oar*kabe* (oaŕik ez erabiltzean); Zu *gabe* (zu ez egotean); Diru *barik* (dirurik ez eukitzean); Ardura*bako* (ardurarik ez izatean).

Beste atzizki auek ere, ayetatik eratoŕita ditugu:

-TZAGA, -TZAKA, -TZAKE, -TZEKE, -TEKE.

E. b.: Apal*tzaga* (apaldu gabe); Bete*tzaka* (bete gabe); Isil*tzeke* (isil gabe); Ikus*teke* (ikusi gabe); Egi*teke* (egin gabe) (1).

Azken bi adibide oyek begiratzean, ba-liteke itz oyetan -GE (-KE) atzizkia bakaŕik egotea, izena biurtutako aditzari erantsita (Etxaide'taŕ Yon) (2).

2'gaŕen asmoa: Len, 49'gaŕen ikaskayan ikusi genuenez. -KA atzizkiak egipen bat beŕitzen ari dala adierazten du.

Onela: Zir*ika* (ziri ta ziri egitea); Musu*ka* (musu ta musu ematea); Jo*ka* (jo ta jo egitea); Erausi*ka* (erausiten eta erausiten ari-izatea).

3'gaŕen asmoa: -KA (-KAL), (-GAL) (3) atzizkiak, zerbaiten ainbat adierazi dezake.

---

(1) Ikusi: 71 ta 105'kn. ikaskayak.
(2) Ikusi: Azkue, M.
(3) Ikusi: 13'gn. ikaskaya.

Onela: Aste*ka* (asteak, bat-banaka erabiltzen); Eun*kal* (Eunetik ainbat, %).

4'gaŕen asmoa: -KA atzizkia, «zertxobait»'en antzeko bat adierazteko ere erabiltzen da.

E. b.: Apur*ka* (apuŕakaz ari-izatea, apuŕaz-apuŕaz erabiltzea, ondaŕa).

EGINKIZUNAK

1. Emen ipintzen ditugun esakuntzak betegabe agertzen dira ta itz egokien bidez bete egin beaŕ; esanez eta idatziz; eta al ditekenean Menekoerazko aditzerak erabiltzean:

Zuengana etoŕi gera gaur, ikus ...; Gurasoek, zuk ni lagundu ... nai dute; Oso ona izan beaŕ du mutil oŕek, gurekin eraman ...; Guri, orduan, ori aiztuko ba-..., oso gaizki ibiliko ...; Lan geyago egingo ba-..., an ere askoz obeto bizi-izango...-ke; Ibil... gu aŕetaz, oyek atzipetu ez ...; Ni begira... zuek ondo, lengo egunean nola utzi... ikus...; Guri lan ori egin...-la gebendu digute; Auŕ oyek beti nai..., gure intxauŕ guziak eman...-la; Aldi artan ni zuengana joan ba-..., ez... geratuko zuek oso pozik, ez...?; Alegiñak egingo al... zuek, laŕialdi batean ni ikusi ezkero, galbide ortan jausi ez...?; Gure naimen bizienak, zuek, alde ta aldi guzietan, Eŕi'ko seme zintzoak bezela, zuen eginbide guziak ondoenik bete...-la izan dira.

2. Beste esakuntza auetan, artzaīe-adizkiñak daramazkiten Agintzera ta Menekoerazko aditzak agertzen dira; bi era oyetakoak alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira, bigaŕenak -LA atzizkia eramaten; kulatzen ordez esan eta idazteko:

Aiztu bekizu lenbailen laŕialdi artan jasan zenuena; ... - Ume auei, aŕen eta aŕen, zuei *urbil dakizkizuela* esan diegu; ... - *Gertura bekigu* oŕen zorigabekoa dan zure lengusu ori; ... - Guziok asaŕetu ez zaitezten, *albora dakizkizuela* eskatu diegu jokalari oyei; ... - *Zentzatu bekit* bein-betiko auŕ biuŕi ori; ... - Ikusleek, antzerkilari ayek lenbailen *asi dakizkiela* deadaŕez eskatzen dute; ... - *Amai bekizu* zure zoritxaŕ aundi ori; ... - Gurasoak zeratenezkero, zuen auŕ ori bere ikasketan *alegindu dakizuela* itxaroten duzute; ... - *Leyatu bekizkio* irakasle oŕi bere ikasle guziak, gero ta geyago ikasteko; ... - Ez dut uste maltzuŕ ayek geyegi *isitu dakizkidala*; ... - *Beŕitu ez bekizkigu* gure ezbeaŕ onen aundi auek; ... - Neska txatxu ayek geyegi *alaitu ez dakizkiola* opa beaŕ diogu ama oŕi; ...

3. Oiturari jaŕaitzean, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; itzez eta idatziz:

Mutil koskoŕ oyek urbil ez dakizkigula nai-izango genuke: Nortzuek nai-izango lukete mutil koskoŕ oyek urbil ez dakizkiela?; ... - Zer nai-izango zenukete?; ... - Nik ere mutil koskoŕ oyek urbil ez dakizkidala nai-izango al nuke?; Bai, uste dugu zuk ere ... -- Norengana joango naiz ene burua indarga ikus dezadanean?; joan zaitez zure osaba zaŕ oŕengana, lagun zaitzala eskatzeko: Nork joan beaŕ du bere osaba zaŕ oŕengana, lagun dezan eskatzeko?; ... - Noiz joan beaŕ dut nire osaba zaŕ oŕengana, lagun nazan?; ... - Guk ere zure osaba zaŕ oŕengana joan beaŕ al dugu gure burua indarga ikus dezagunean?; Ez, ... baño. -- Nire etxean ez dute nai abestera joateko autatu gaitzatela: Zer ez dute nai zure etxean?; ... - Zertarako ez dute nai zure etxean autatu zaitzateela?; ... - Zuek nai al duzute abestera joateko ni autatu nazatela?; Ez, guk ere ... -- Esan bezaigute dakiten guzia: Zer eskatzen duzute?; ... - Nori esan beaŕ diote dakiten guzia?; ... - Zuk eskatu al diezu, dakiten guzia esan dizaizutela?; Ez, nik ... -- Gexotu ez bekizkizu zure auŕak: Nori opa diozute bere auŕak gexotu ez dakizkiola?; ... - Zer opa didazute oŕen gartsuki?; ... - Guk opa al dizuegu zuen auŕak gexotu ez dakizkizuela?; Bai, zuek ere ... -- Beste soñekoak jantzi beaŕ-izango dituzute, ezagutu ez zaitzateen: Nortzuek jantzi beaŕ-izango dituzte beste soñekoak, ezagutu ez ditzaten?; ... - Zertarako jantzi beaŕ ditugu beste soñekoak?; ... - Zuk ez al dituzu beste soñekoak jantzi beaŕ, ezagutu ez zaitzaen?; Ez, ... baizik. -- Lotsagabe ori, eman ezaidazu bereala kendu didazuna!: Nori eman beaŕ dio bereala lotsagabe oŕek kendu diona?; ... - Zer eman beaŕ dizu lotsagabe oŕek?; ... - Guri eman beaŕ al digu lotsagabe oŕek zuri kendu dizuna?; Ez, ... baño. -- Otu ez dakiela dagozen tokitik irtetzea: Nortzuei ez zaye otu beaŕ dagozen tokitik irtetzea?; ... - Nundik etzaye otu beaŕ irtetzea?; ... - Guri esaten al diguzute gagozen tokitik irtetzea otu ez dakigula?; Ez, zuei ... -- Maite zaitzaten, maite ezazu zuk ere: Nork maite baeŕ du maite dezaten?; ... - Zertarako maite beaŕ dut nik?; ... - Zuek maite beaŕ al duzute maite zaitzateen?; Bai, guk ere

... -- Ez zizkizueketean ol ayek ekaŕiko, oŕela iltzatu dizaizkidazuten: Zertarako ez zizkiguketean ol ayek ekaŕiko?; ... - Nori ez zizkioketean ol ayek ekaŕiko onela iltzatu dizaizkigun?; ... - Niri ekaŕiko al zizkidaketean ol ayek onela iltzatu dizaizkizuedan?; Ez, zuri ere ... -- Dirurik gabe ez zenuke an ezer egingo: Nork eluke an ezer egingo dirurik gabe?; ... - Nola ez nuke an ezer egingo?; ... - Zuek ezer egingo al zenukete an dirurik gabe?; Ezetz uste dugu, guk ere ... -- Zer nai duzu?, zure semeak geyegi uŕundu ez dakizkizula?; orixe nai dut beti, nire semeak geyegi uŕundu ez dakizkidala: Nork nai du bere semeak geyegi uŕundu ez dakizkiola?; ... - Zer ote da zuk beti nai duzuna?; ... - Guk nai al dugu gure semeak geyegi uŕundu dakizkigula?; Ez, zuek ere ... -- Egin duguna eginaŕen, berarekin eraman gaitzala eskatuko diogu: Zer eskatuko diozute, egin duzutena eginaŕen?; ... - Nori eskatuko diozute, egin duzutena eginaŕen, berarekin eraman zaitzatela?; ... - Nik, egin dudana eginaŕen, zuei eskatuko al dizuet zuekin eraman nazazutela?; Ez, ... baizik. -- Tilista ayek bialdu dizkizuete, eskeiñi dizaizkiguzuten: Zer bialdu digute eskeiñi dizaizuegun?; ... - Zertarako bialdu dizkigute tilista ayek?; ... - Zuen aitak bialdu al dizkizue tilista ayek niri eskeiñi dizaizkidazuten?; Ez ... baño. -- Eman ezaiguzute ori erdibana, aŕen!: Zer nai duzute erdibana eman dizaizuegula?; ... - Nola nai dut nik ori eman dizaidazutela?; ... - Langiīe oyek nai al dute ori erdibana eman dizaiezutela?; Bai, langiīe oyek ere ...

4. Shakespeare, England'eko antzerkiīe ospatsuaren «MACBETH» antzerkiaren zati bat ematen dugu emen, euzkeraz itzulita. Ongi irakuŕi ondoren, bertan azaltzen dan gaya egiazko ala ametsezkoa ote dan adierazi, ta ori oartzeko itz bereziak zeintzuk diran esan ere; bai ta nabari be, bertan zein izkelgi ta nolako aditz-jokoa erabiltzen diran nabari beaŕ da:

III. — Agerlekua. - Iñaŕadia. - Ostotsak dira.
Iru sorgiñak datoz auŕea»:

«I Sorgiñak. — Non izan az, aizta?

II Sorgiñak. — Txaŕia ilten.

III Sorgiñak. — Aizta, i non?

I Sorgiñak. — Itxas-gizon baten emazteak gaztañak eukazan altzoan, eta yan eta yan eragoyon: «Ekatzan» diñotsat nik, eta emakume alpeŕontzi epertoak deadaŕ: «Alde, sorgin oŕek». Aren semea «Tiger» ontziaren

yabe da ta Alepo'ra yoana, baña baea ontzitzat artuta, buztanbako aŕatoya legetxe, ara yoan eta yoan eta yoan egingo naz.

II Sorgiñak. — Axe bat emongo dausnat.

I Sorgiñak. — Biotz onekoa az.

III Sorgiñak. — Nik beste bat emongo dausnat.

I Sorgiñak. — Neronek daukadaz besteak, eta putz-eta-putz kayak eurak be auŕean eroaten dabez, itxas-mapatik ondo ezagun dabezan baztaŕ guztiak. Arako gizon a bedaŕ igaŕa baño be igaŕago egingo dot; ontziko bere txabolatxoaren gañean loa ezta kokatuko ez gabaz ez egunez; beragana iñor eltzea galazota dauen gizona legetxe biziko da; zazpi gau gogaikaŕi bederatzi bidaŕ bederatzitan makaldu, argaldu ta iristu egingo da; aren ontzia gal-eziña izanaŕen yostalu izango da. Begira zer dodan.

II Sorgiñak. — Erakutsi egidan, erakutsi egidan.

I Sorgiñak. — Pilotaren atz orkoroa yaukanat emen, etxerantza etoŕela ontzia urperatuko itxas-pilotarena.

(Baŕuan tuntuna)

III Sorgiñak. — Tuntuna!, Tuntuna!, Macbeth datoŕ.

Irurak — Aizta sorgiñak, eskuak alkaŕeri emonda, legoŕ eta itxasoko bidariak, onantxe yoaten dira batetik bestera, batetik bestera. Iru bidaŕ irera, iru bidaŕ nirera ta beste iru bidaŕ bederatzi osotuteko. Ixil! Zoragaŕia amaitu da».

«Macbeth» (64-65'kn. oŕialdeetan) «Shakespeare» Laŕakoetxea'taŕ Bedita'k Euzkeratuta.

EUN ETA BOSKAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

MENEKOERA - LENALDIA

ERAKETAREN BIGAŕEN BIDEA -

LAGUNTZAĿE IRAGANGAITZAREN ERA OROKAŕAK

Ni	Izan NENDIN	(N-e-N- -DI-	-N)
Zu	Izan ZINDEZEN	(Z-i-N- -DE- -Z- e)	-N)
Bera	Izan ZEDIN	(Z- e) -DI-	-N)
Gu	Izan GINDEZEN	(G-i-N- -DE- -Z- e)	-N)
Zuek	Izan ZINDEZTEN	(Z-i-N- -DE- -Z- -TE-	-N)
Berak	Izan ZITEZEN	(Z-i- -TE- -Z- e)	-N)
Ni	Izan NENDIĿA	(N-e-N- -DI-	-ĿA)
Zu	Izan ZINDEZELA	(Z-i-N- -DE- -Z- e)	-LA)
Bera	Izan ZEDIĿA	(Z- e) -DI-	-ĿA)
Gu	Izan GINDEZELA	(G-i-N- -DE- -Z- e)	-LA)
Zuek	Izan ZINDEZTELA	(Z-i-N- -DE- -Z- -TE-	-LA)
Berak	Izan ZITEZELA	(Z-i- -TE- -Z- e)	-LA)

Era auei, len 96'gaŕen ikaskayan MENEKOERA-ORAIÑALDI'arenai buruz egin ziran oarketak ere dagozkie.

Beren era bilduak dauzkaten aditzen adizkiñekiko, oraiñaldirako 97'gaŕen ikaskayan esan genuena, emen are berdin esan dezakegu, ots, era oyek naiz Tinkierazko naiz Menekoerazko zentzunak ukan ditzaketela, itzegiten duenaren asmo-arauz (1).

-EZIK atzizkia.

Atzizki au, aditzaren izenari erantsita, ezezko baldintzaeraren zentzunaz erabiltzen da; nolabait, -EZKERO'ren bitartez adierazten dan asmoaren aurkakoa bezela (2).

E. b.: Etoŕi*ezkero* (bayetzean) - Etoŕi*ezik* (ezetzean).

Izan *ezkero* (bayetzean) - Izan*ezik* (ezetzean).

EZIK, itza bezela artzean, eta bere auŕetik EZ jartzen badugu: EZ EZIK (bi itzetan) egiten da; bai ta EZEZIK (itz batean, -EZIK atzizkia lez); era bietan «ez bakaŕik» zentzunaren antzekoaz aŕ dezakegu.

Eta EZEZE, beste itzak ere, zentzun ori bera dauka.

(1) Ikusi: Azkue, M., 671.
(2) Ikusi: 46'gaŕen ikaskaya.

Onela: Gazta ori *ezezik*, ziztoŕen bat ere jango nuke, bai.
EZIK, itza bezela, GABE'ren zentzuna ere ukan dezake.
E. b.: Ezer esan *ezik* joan zitzaigun = Ezer esan *gabe* joan zitzaigun.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, Menekoera-Lenaldi'aren aditzerak ipiñi beaŕ dira, -N ta -LA atzizkiai buruz bereiztean; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

	IZAN'aren erak, -N'az	IZAN'aren erak, -LA'az
Ni	...	Izan nendiĿa
Zu	Izan zindezen	...
Bera	...	Izan zediĿa
Gu	Izan gindezen	...
Zuek	...	Izan zindeztela
Berak	Izan zitezen	...

2. Ageŕerazten ditugun esakuntzetan, Menekoera-Lenaldia'ren erak ikusten dira; batzuk -N atzizkiaz amaitzen dirala ta beste batzuk -LA atzizkiaz, eta oyetxek dira alkaŕen ordez aldatu beaŕ diranak; bai ta, bide batez, bayetzean dagozenak ezetzean jartzeko, ta alderantziz ere; noski beaŕak izango diran beste itzak be aldatzean, beti esakuntza egokia egiteko; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Su ondotik aldendu nintzan, azkenez *kiskaldu ez nendin*; ... - Zu ziñan bezela *irudi zindezela* nai zuten ayek; ... - Zer egingo genuke gure auŕa, lenbailen, *senda zedin*?; ... - Aŕetaz ibiĿi beaŕ-izan genuen, toki ayetan *zikindu ez gindezen*; ... - Orixe nai-izan zuten oyek. zearo *kutsatu zindeztela*; - Ume ayek *edendu ez zitezela*, orixe zan gure nai biziena; ... - Nayago zenukete arin *itzuli nendiĿa*, eiki; ... - Etzenuke ori artu beaŕ-izango, zamatuegi *gera ez zindezen*; ... - Saritua *izan etzediĿa* itxaroten zuten bere adiskideek; ... - Laisteŕ *auŕera gindezela* eskatu ziguten; ... - Pozik lagunduko zinduztekegu *gibelera ez zindezten*; ... - Isituki ari zitzaizkien beranduegi *etxeratu ez zitezen*; ...

3. Beste ikaskayetan bezela, emen ere, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; esanez eta idaztean:

Zu bere etxera joan zindezela nai zuen: Nork nai zuen ni bere etxera joan nendiĿa?; ... - Zer nai zuen berak?; ... - Zuek nai al zenuten gu

zuen etxera joan gindezela?; Ez, ... baño. -- Aŕ ezazu ori gogoa alaitasunez bete dakizun: Zer artu beaŕ dut gogoa alaitasunez bete dakidan?; ... - Zertarako artu beaŕ dugu ori?; ... - Zuen lagunek ere ori artu beaŕ al dute beren gogoa alaitasunez bete dakien?; Ez, ... baizik, -- Azkaŕ ibiĭi zaitezte, oŕen luzaroan emen euki ez nazazuten: Nortzuk ibiĭiko dira azkaŕ, emen oŕen luzaroan euki ez zaitzaen?; ... - Zer dala-ta ibiĭi beaŕ dute azkaŕ?; ... - Nik ere azkaŕ ibiĭi beaŕ al dut emen oŕen luzaroan euki ez zaitzateen?; Ez, ... baizik. -- Maŕubi oyek eman bagenizkizun, zure lengusuai eraman dizaizkiezun izan zan: Nori eman zenizkioten maŕubi oyek, nire lengusuai eraman dizaizkien?; ... - Zertarako eman zenizkiguten maŕubi oyek?; ... - Nik eman al nizkizuen maŕubi oyek nire lengusuai eraman dizaizkiezuten?; Ez, ... baño. -- Gu baño lenago irten ziran berekin igo ez gindezen: Noiz irten ziran ayek, berekin igo ez zindezten?; ... - Nortzuk irten ziran zuek baño lenago, berekin igo ez nendin?; ... - Gu irten al giñan zu baño lenago, gurekin igo ez zindezen?; Ez, ... baizik. -- Zergatik ez duzu nai beren ajolakaz zuzpertu zaitzaela?; ezer lortuko ez dutelako, ez dut nai beren ajolakaz zuzpertu nazatela: Nork eztu nai beren ajolakaz zuzpertu dezatela?; - Guk nai al dugu beren ajolakaz zuzpertu gaitzatela?; ... - Eta agure oŕek ez al du nai beren ajolakaz zuzpertu dezatela?; Bai, oŕek bai, ... -- Eman ezaizkiguzu lauki oyek obeto maŕeztu dizaizkizugun: Zer eman beaŕ dizuet obeto maŕeztu dizaidazuten?; ... - Zertarako nai duzute lauki oyek eman dizaizkizuegula?; ... - Nik nai al dut maŕezki oyek eman dizaizkidazutela obeto maŕeztu dizaizkizuedan?; Ez, ... baño. -- Argi guziak izali zenituzten laisteŕ atera gindezen: Zer egin genuen laisteŕ atera zindezten?; ... - Nork itzali zizkidan argi guziak laisteŕ atera nendin?; Nik argi guztiak itzali al nizkizun laisteŕ atera zindezen?; Ez, ... baizik. -- Gaur bertan ikastetxera biali zaitzatela; onena izango da: Zer izango da onena?; ... - Noiz nai duzute ikastetxera biali gaitzatela?; ... - ... - Zuk nai al duzu gaur bertan ikastetxera biali nazatela?; Ez, ... baño. -- Onak izan zitezela; ori zan gure gurari bakaŕa: Zein zan zuen gurari bakaŕa?; ... - Zertarako izan zenuten gurari ura?; ... - Nik ere nai al nuen onak izan zindeztela?; Bai, zuk ere ... -- Zuengandik aldendu ez gaitzaten, ez gaitzazute utzi: Nortzuek nai dute utzi ez zaitzateela, guregandik aldendu ez zaitzateen? Nortzuengandik nai dute aldendu nazatela?; ... - Zuk nai al duzu zuregandik aldendu nazala?; Ez, ... -- Etzi baño lenago itzuliezik, enaiz etoŕiko datoŕen aste arte: Nor ezta etoŕiko datoŕen aste arte?; ... - Ni ere ez al naiz etoŕiko datoŕen aste arte, etzi baño lenago itzuliezik?; Uste dugunez, zu ere ... - Nola

etzera etoŕiko datoŕen aste arte?; ... -- Ori izanezik, eztut nai ezer eman dizaidazula: Nork eztu nai, ori izanezik, ezer eman ez dizayodala?; ... - Zer eztuzu nai ori izanezik?; ... - Guk nai al dugu, ori izanezik, ezer eman ez dizaiguzutela?; Bai, zuek ere ... -- Beren zalburdia utzi ziguten, iĭunabaŕa baño lenago jetxi gindezen: Zer ipiñi zizueten iĭunabaŕa baño lenako jetxi zindezten?; ... - Nortzuei ipiñi zieten beren zalburdia iĭunabaŕa baño lenago jetxi zitezen?; ... - Nik ipiñi al nizun nire zalburdia iĭunabaŕa baño lenago jetxi zindezen?; Ez, ... baizik. -- Sagaŕak asko dauzkazutenezkero, eman ezaizkiezute biña: Nortzuei eman beaŕ dizkiegu biña, sagaŕak asko dauzkagunezkero?; ... - Zertzuk eman beaŕ dizkiezute biña, sagaŕak asko dauzkazutenezkero?; ... - Nik ere biña eman beaŕ al dizkizuet, sagaŕak asko dauzkadanezkero?; ...

4. Beti bezela, ondo irakuŕi beaŕ da uŕengo idazkia; nabaritzeko, gero, bertan aipatzen dan oitura berezia, gure Eŕi'an izan ditugun besteen artekoa dana:

«ETXEA TA IĬOBIA»

«Etxea, iĭobia ta eliz-obiak, irurak bat dagite, baseŕitaŕen artean beintzat, orain urte gutxirarte. Irurak dira oñordekoa dan oŕentzat eta etxea salduko balitz, irurak batera saldu beaŕ-izango lirake. Ona zer diñoen Etxegarai'taŕ Bonifazio jaunak arazo oni buruz: 'Oñordekotza ez zan baten onerako bakaŕik, etxearen eta sendiaren onerako baizik. Ez zan oñordekotza senide guztian artean banatzen, apaizgintza etxean betetzeko zuenaren alde izango ziran etxea ta iĭobia...'. «Erlijioak agintzen du (Zizeron eŕomataŕ ospetsuak diño) etxeko ondasunak eta etxeko eleizkizunak biak batera izan ditezela beti seme nagusiaren gain, bera baitzan etxeko apaiza. Bere gain zeuden etxeko eleizkizunak eta auxe zan, izan ere, bere eginbeaŕik estuena; etxeko ondasunak bide bat ziran eginbeaŕ au bete aal-izateko...». Eŕomataŕen antzera jokatu du beti euzkaldunak gai ontan, eta oŕengatik, etxea ta bere ondasunak artzen zituen seme nagusiak senideko guziai iĭetak atera beaŕ zizkien idazki agirian eta azken-nayan bereziki esan oi dan bezela. Esan dugunez, etxea ta elizako iĭobia bat dira ta batera saltzen dira. Iĭobi ori lengoaren eredua da, bera ere iĭobi baitzan iĭobiak eleizaetatik atera auŕetik. Gauzak oŕela dirala, ez da aŕitzeko Bizkaya'ko Fueroak agintzen dutena (XIX. Ti. XX):

Oñordeko ez diran etxeko seme-alabek ba-dutela, alegia, ta eskubide utsez, etxeko iīobian leku bereizi bat eurentzako (Etxegarai'taŕ Bonifazio jaunak). Iīobian ezezik, etxean ere bai, ezkongai dirauten artean.

Baseŕitaŕen arteko iīeta ta ondorengo bazkariak etxera zer kalte zekarten, gerok ere ikusi izan oi dugu: iīetak, elizkariak, bederatziuŕenak, jayeroko eskeintzak, urtebetetzeak eta abaŕ; gañera, elizkizunik ez, bazkaririk edo bazkari-antzekorik gabe. Guzti oyek ez zituzten apaizek asmatu; euzkaldunen oitura zaŕak ziran».

«Euskalerria eta eriotza» (67-8'gn. oŕialdeetan) Anastasio Arrinda Albisu.

EUN ETA SEIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŘA - IRAGANKOŘA - ADITZ LAGUNTZAĪEA

IZAN - MENEKOERA - LENALDIA

ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA - IZAKAI-ADIZKIÑAK

Irugaŕen notiñaren bakaŕ-izakaya

	N-		
	Z-e-N-		
	Z-		
IZAN		e) -ZA-	-N
	G-e-N-		
	Z-e-N-	-TE-	
	Z-	-TE-	

Irugaŕen notiñaren askaŕ-izakaya

	N-		
	Z-e-N-		
	Z-		
IZAN		-IT- -ZA-	-N
	G-e-N-		
	Z-e-N-	-TE-	
	Z-	-TE-	

Menekoera-Oraiñaldi'aren era guztiai buruz erabili dugun araua jaŕaitzean, -N atzizkiaren ordez -LA jartzen badugu, beste era auek egingo ditugu: NEZALA, ZENEZALA, ... ; NITZALA, ZENITZALA, ... Lenago bezela.

Nabaritzen danez, aditzera auek Tinkiera'n adierazi zan bezela, eraketaren bigaŕen bidean barna doaz; eta era aren Lenaldian ikasi ziran ayetatik sortuak lez aŕ ditzakegu; noski, orduko -U- eŕoaren ordez -ZA- erabiltzean.

Tinkieran ikasi ziran joko bildua duten aditzak, oso maiz ikusi ditugun: ERAMAN, EKAŘI, JAKIN, EGIN, ERABIĪI, geyenetan, eta aldi ontan ere, aditz laguntzaīearekin alkartuta erabiltzen dira, bi itzetan noski, auŕeko ikaskayan iragangaitzetarako egin dugun oaŕaz.

Emen ere, ezetzean jokatzen duten aditzerak, bayetzean daramaten

kiria bera darabilte; ots, lenengoz aditzaren izena jartzean, eta gero, jokatu beaŕ dan laguntzaīea; 98'gaŕen ikaskayan aipatu genuenagatik.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, adi-yabeai dagozkien Tinkiera ta Menekoera'ren aditzerak ipiñi, bigaŕenak -N atzizkiaz; lenaldian eta bakaŕ-izakayaz bietarako; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Adi-yabeak	Tinkierazko lenaldia	Menekoerazko lenaldia
Nik	Nuen	...
Zuk	...	zenezan
Berak	Zuen	...
Guk	...	genezan
Zuek	Zenuten	...
Berak	...	zezaten

2. Emen ageŕerazten ditugun esakuntzetan, Tinkieraz eta Menekoerazko aditzerak ikusten dira, guziak Lenaldian; alkaŕi buruz aldatzeko ta bigaŕenak -N atzizkiaz ipintzeko; aldi berean, bayezkoak ezezkoen bidez aldatu beaŕ dira, ta alderantziz ere. Besteetan bezela, zentzunezko esakuntza beŕiak egiteko, beaŕak izango diran beste itzak be aldatzean. Kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Al nuen bezela, alkaŕengandik aldenduta zegozen eŕitaŕ ayek *batutzen nituen*; ... - Ongi eskuperatu zindugun zure jantzi edeŕa *uŕatu ez zenezan*; ... - Ondo batuta zegozen gure lanak isituki *amaratzen zituen*; ... - Garaiz *eotu ez genitzan*, eragozpen aundiak jaŕi zizkiguten; ... - Egun ayetan, gerturik zegoen eultzea, arin *eultzitzen zenuten*; ... - Zer egingo zuen amak, beren soñekoak *naŕas ez zitzaten*?; ... - Orduan deitu ninduten, nire sagardui guzia ondo *txerta ez nezan*; ... - Gurdi edeŕ ayek, ajolakabez, zearo *irauli zenituen*; ... - Egun guzirako ogia *oratu ez zezan*, al-izan genuena kendu genion; ... - An zeuzkaten mota askotako aleak *nastu genituen*; ... - Beren soloak *goldatu ez zenitzaten*, egun guzian etxean euki zinduzteen; ... - Ankeŕ aundi ayek Napaŕoa zearo *suntzitu zuten*; ...

3. Oitura dugunez, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Okela ori jan zezala nai-izan genuen, baña ez genuen lortu oŕela egin zezala : Zer nai-izan zenuten?; ... - Lortu al zenuten okela ura jan zezala?; ... - Nik ere okela ori jan nezala nai-izan al zenuten?; Ez, ... baño. -- Ezkutatu zaitez, emen aurkitu ez zaitzaen : Nor ezkutatuko da, emen aurkitu ez dezaten?; ... - Zertarako nai duzute emen ezkutatu nadiīa?; ... - Gu ere emen ezkutatuko al gera, aurkitu ez gaitzaten?; Bai, zuek ere ... -- Gauza guzti auetatik, nayago ditzazunak ipiñiko diz kizugu : Gauza guzti auetatik, zer ipiñiko didazute?; ... - Zertzuetatik ipiñiko dizkidazute nik nayago ditzadanak?; ... - Nik ipiñiko al dizkiot oŕi, gauza guzti auetatik berak nayago ditzanak?; Ez, ... baizik. -- Ikasketa ori gero ta zaīagoa izango litzayeke : Zer izango litzayeke gero ta zaīagoa?; ... - Nortzuei izango litzayeke ikasketa ori gero ta zaīagoa?; ... - Guri ere ikasketa ori gero ta zaīagoa izango al litzaiguke?; Ez, zuei ... -- Ori erantzun zenezan, ez genizukean ezer galdetuko : Nori ez zenioketean ezer galdetuko, ori erantzun zezan?; ... - Zertarako ez zenidakean ezer galdetuko?; ... - Guri galdetuko al zeniguketean, ori erantzun genezan?; Ez, zuei ere ... -- Lenbailen itzuli gindezela eskatu ziguten : Nortzuei eskatu zenieten lenbailen itzuli zitezela?; ... - Zer eskatu zizueten?; ... - Neronek ere, lenbailen itzuli zindeztela eskatu al nizuen?; Ez, guri ez ... -- Aŕetaz ibiīi zaitezte, soñekoak zikindu ez dakizkizuen : Nortzuk nai duzu, aŕetaz ibiīi ditezela, soñekoak zikindu ez dakizkien?; ... - Zertarako nai duzu aŕetaz ibil gaitezela?; ... - Oŕek nai al du aŕetaz ibil nadiīa, soñekoak zikindu ez dakizkidan?; Bai, oŕek ere ... -- Izan zaitez on eta zintzoa semetzat euki zaitzagun : Nork izan beaŕ du on eta zintzoa semetzat euki dezazuten?; ... - Nolakoa izan beaŕ dut neronek?; ... - Eta zuek ez al duzute on eta zintzoak izan beaŕ, semetzat euki zaitzategun?; Bai, guk ere ... -- Erakutsi dizaizuedanean, bai edeŕa dala ikusiko duzute : Nork ikusiko du benetan edeŕa dala, erakutsi dizayozunean?; ... - Zer ikusiko dugu erakutsi dizaiguzutenean?; ... - Zuk ere benetan edeŕa dala ikusiko al duzu, erakutsi dizaizugunean?; Bai, uste dut, nik ere ... -- Idazti oyek utzi zizkizueten iru egun baño lenago biurtu zenitzaten : Zer utzi ziguten iru egun baño lenago biurtu genezan?; ... - Nortzuei utzi zizkieten idazti oyek iru egun baño lenago biurtu zitzaten?; ... - Niri utzi al zanizkidaten idazti oyek, iru egun baño lenago biurtu nitzan?; Ez, ... baño. -- Zortzi t'erdietan apaldu zuten, neskak zinemara garaiz eldu zitezen : Zertarako apaldu zuten zortzi t'erdietan?; ... - Noiz apaldu zenuten gu zinemara garaiz eldu gindezen?; ... - Nik ere zortzi t'erdietan apaldu al nuen zu zinemara garaiz

eldu zindezen?; Ez, ... baizik. -- Ona ekaŕi al zaitue, agian adoretu ez gaitzazun?; ez, ez naute ona ekaŕi, adoretu ez zaitzatedan: Nor ez dute ona ekaŕi adoretu ez gaitzan?; ... - Zertarako ez naute ekaŕi ona?; ... - Zuek ekaŕi al zaituztee ona, adoretu ez gaitzazuten?; Ez, gu ere ez ... -- Zutik egon ziran, eseri ez zindezten: Nortzuk egon ziran zutik eseri ez gindezen?; ... - Nola egon ziñan ni eseri ez nendin?; ... - Gu zutik egon al giñan zu eseri ez zindezen?; Ez, ... baño. -- Goazen aguro, araño eldu baño lenago gaba izan ez dakigun: Nortzuek joan beaŕ dute aguro, araño eldu baño lenago gaba izan ez dakien?; ... - Nola joan beaŕ duzute, araño eldu baño lenago gaba izan ez dakizuen?; ... - Bidazti ayek ere aguro joan beaŕ al dute araño eldu baño lenago gaba izan ez dakien?; Bai, ayek ere ... -- Egia al da onuntz ekaŕi zaituela beren abereak ebatsi ez dizaizkiezun?; oŕela diñote, onuntz ekaŕi nautela beren abereak ebatsi ez dizaizkiedan: Nor ekaŕi dute onuntz ayek, abereak ebatsi ez dizaizkien?; ... - Zer diñote gizon oyek?; ... - Guk ekaŕi al zaitugu onuntz gure abereak ebatsi ez dizaizkiguzun?; Ez, ... baizik.

4. Bat-banaka, irakuŕi aŕetaz emen jartzen ditugun bertso bikoak; eta berdin ez diran biko bakoitzaren azken bi itzen zentzuna oaŕerazi ongi:

«1.ª Astelen guztietan dakarsku oŕek *guri*
kolko bete sagaŕ ta aya guri-*guri*.

2.ª Astearteetan baŕiz azokatik *zuri*
yan naizuko anpolayak: baltz, goŕi ta *zuri*.

3.ª Basoraño bazoaz, esayozu *oŕi*
aŕen dakarkigula esku bete *oŕi*.

4.ª Gure Aita zana *etzan*
nik dakidala beintzat, gaisorik iñoiz *etzan*.

5.ª Baŕitsu zikoitz oyek ezteuste *atera*
ezer, yoan naizenean gaur euren *atera*.

6.ª Atzo irun neban nik edozenbat *ari*
guztia saldu neutsan yostun zartxo *ari*.

7.ª Onen egun gitxitan onenbeste *euri*!
au oŕenbeste dala, nork esan dausk *euri*?

8.ª Ortik erori banintz gaixo au, *erori*,
ezkintzoazan emen izango ez ni ta ez *erori*.

9.ª Ordaña emoteko guri dauskun *zoŕi*,
geyegi daukaz oŕek ezkabi ta *zoŕi*.

10.ª Batean daukaz uŕun, bestean oŕ *uŕe*;
eskuan ez ostera ez zidaŕ ez *uŕe*.

11.ª Igon eziñik dabiīelako mendiri ez *laŕi*
armin-armiñik dakust nik ori ats baga ta *laŕi*.

12.ª Oŕek izan ezaŕen ez belaŕi ez *begi*,
ni gora-bera, kanta nai badu, *begi*.

13.ª Gure musikotxoak aatsean *jota*
dantzan egingo yoagu batuŕuen *jota*».

«Euskera» (Euskaltzaindi'aren aldizkaria) XII urtea - I zenbakia - 1931 - Ilbeltza - Epaiīa (42-3-4'gn. oŕialdeetan) Azkue, Resurrección María.

EUN ETA ZAZPIGAŕEN IKASKAYA

-NEKO atzizkia.

Atzizki au aditz-atzizkia da, ta «ordurako» zentzuna adierazten du.

E. b.: Eldu zira*neko* = Eldu ziran *ordurako*.
Lan ori amaitu duda*neko* = Lan ori amaitu dudan *ordurako*.

Esakuntza batean, atzizki au daraman aditzari, izen bat jaŕaitzen bazayo, zentzuna zerbait aldatuta geratuko da.

E. b.: Ikazkintzan ibīli za*neko egunak* = Ikaskintzan ibīli za*n egunetan*.

Ikusten danez, adibide ontan, *-neko*'ren zentzuna, *-n* ta *-ko*, bi atzizki auena da, bereziki.

Beste zentzun au ere adierazi diteke atzizki onen bidez: «Norbaiten etxea».

Onela: Joseba'*neko* = Joseba'*ren etxeko*.

-NAKO atzizkia.

BAT eta BI zenbakitzekin, atzizki onek beste itz bi auek eratzen ditu: BANAKO ta BIÑAKO.

Lenengo itzak, BANAKO'k auxe esan nai du: «berezia» edo «berdin gabea»; bai ta auŕek darabilten joku bat; eta BANA-BANAKO eraz erabiltzean, bat-banaka egiten dan dantza be adierazten du; era ontaz ere «auta» edo «aukerako» dana uleŕ diteke.

E. b.: Gure auŕak *banako*an ari dira gogoz = Gure auŕak *banakoa* dan joku berezian ari dira gogoz.

Bigaŕen itzak, BIÑAKO'k, «biren» zentzuna izan dezake, bai ta «bakoitzak biko» ere.

E. b.: Oŕek *biñako*a egingo du bereala = Oŕek bereala, *biñako* egingo du (*biñako*, «lokaŕi»-jokuan bi birunda ematea da) (1).

---

(1) Ikusi: Azkue, M., 171.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, sei adi-yabeai dagozkien Tinkiera ta Menekoera'ren aditzerak ipiñi beaŕ dira; bigaŕen erakoak -LA atzizkiaz; lenaldian eta askaŕ-izakayaz bietarako; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Adi-yabeak	Tinkierazko Lenaldia	Menekoerazko Lenaldia
Nik	...	nitzala
Zuk	Zenituen	...
Berak	...	zitzala
Guk	Genituen	...
Zuek	...	zenitzatela
Berak	Zituzten	...

2. Orain jartzen ditugun esakuntzetan, Tinkieraz eta Menekoerazko aditzerak agertzen dira, guztiak Lenaldian; alkaŕi buruz aldatzeko ta guzietan -LA atzizkia azaltzeko; aldi baten, bayezkoak diranak ezezkoen bidez aldatu beaŕ dira ta alderantziz ere. Ta, esan beaŕik ez, erantzunak, esakuntza egokiak izan ditezen, beaŕak izango diran beste itzak, aldatzen, kentzen edo gañeratzean ere. Kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Emen duzu lauki au, neronek *ezabatzen nuela*; ... - Orixe da eskatu beaŕ dizuguna, zure ospea *orbandu ez zenezala*; ... - Ongi *eŕaten zuela* entzun beaŕ-izan zuten; ... - Beren asmo guziak *jardukitzen genituela* siñistu zuten; ... - Ume gaixo ayek *lazotu ez zenitzatela* gura genuen guziok; ... - Ankeŕ ayek gure izen on guzia *oinpetzen zutela* jakin genuen; ... - Zer diñozu, gizona, umezurtz ura etxetik *egotzi nezala*?; ... - Oartu gabe edo, eskuan zeneuzkan gauza guziak orduan *jaurtitzen zenituela* jakin-erazi zidaten; ... - Gurditxo oyek *bultzatu ez zitzala* eskatu zioten; ... - Ekintza ura *oldartu genezala* esondatu ziguten; ... - Zuen zoŕak al bezin laisteŕ *ordaintzen ez zenituztela* bayeztu zuten okeŕ; ... - Isituki *aŕendu zezatela* eragin zieten; ...

3. Uŕengo galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, besteetan bezela; kulatzen ordez, esanez eta idatziz:

Krabelin eta zangoŕiak bialdu zizkidan nik erosi ez nitzan: Nori bialdu zizkion krabelin eta zangoŕiak berak erosi ez zitzan?; ... - Zer bialdu zizun zuk erosi ez zenezan?; ... - Guk bialdu al genizkizuen krabelin eta zangoŕiak zuek erosi ez zenitzaten?; Ez, ... baño. -- Aŕen eta aŕen egin zigun bere īlobaengana igo gindezen: Nork egin zizuen aŕen

eta aŕen bere ilobaengana igo zindezten? ; ... - Zertarako egin zizuen aŕen eta aŕen? ; ... - Niri egin al zidan aŕen eta aŕen bere ilobaengana igo nendin? ; Ez, ... baizik. -- Sakelean txakuŕ txiki batzuk sartuko bazenizkit, gazta- pizka bat emango nizuke : Nori emango zenioke gazta-pizka bat berak sakelean txakuŕ txiki batzuk sartuko balizkizu? ; ... - Zer emango zeniguke guk sakelean txakuŕ txiki batzuk sartuko bagenizkizu? ; ... - Zuek ere gazna-pizka bat emango al zenidakete nik sakelean txakuŕ txiki batzuk sartuko banizkizue? ; Ez, ... baño. -- Begira zaitzatee ondo, ia ezagutzen ote zaituzteen : Nor begira beaŕ dute ondo, ia ezagutzen ote duten? ; ... - Nola begiratu beaŕ zaitue, ia ezagutzen ote zaituen? ; ... - Ni begiratu beaŕ al nauzute ondo, ia ezagutzen ote nauzuten? ; Ez, ... baizik. -- Idatzi diegu, eldu gaitezeneko lortu dizaiguten : Nori idatzi diozute eldu zaitezteneko lortu dizaizuen? ; ... - Nortzuei idatzi diezu eldu zaitezeneko lortu dizaizuten? ; ... - Guk idatzi al dizuegu, eldu gaitezeneko lortu dizaiguzuten? ; Ez, ... baño. -- Lenbailen biurtu zenitzatela esan zuen : Nork esan zuen lenbailen biurtu genitzala? ; ... - Zer esan zuen legegizon arek? ; ... - Nik esan al nuen lenbailen biurtu zitzatela? ; Bai, zuk ere ... -- Ametsetan, bide artatik itzuli ez zitezela gaztigatu zieten : Nortzuei gaztigatu zieten, bide artatik itzuli ez zitezela? ; ... - Zer gaztigatu zieten ametsetan? ; ... - Zuri gaztigatu al zizuten bide artatik itzuli ez zindezela? ; Ez, ... baño. -- Zer esango didate ain uŕuti aurkitu nazatenean? ; txarto egin duzula esango dizute ain uŕuti aurkitu zaitzaenean : Nori esango diote txarto egin duela, ain uŕuti aurkitu dezatenean? ; ... - Zer esango dizu zure aitak, ain uŕuti aurkitu zaitzanean? ; ... - Niri ere txarto egin dudala esango al didate ain uŕuti aurkitu nazatenean? ; Ez, zuri ez ... -- Nortzuk geran jakinezik aurkitu ez gaitzatela nayago dugu : Nork nayago du aurkitu ez dezatela, nor dan jakinezik? ; ... - Zer nayago dugu guk? ; ... - Nik ere nayago al dut, nor naizen jakinezik aurkitu ez nazatela? ; Bai, zuk ere ... -- Ona etoŕi beaŕ-izango lukete, urtatsak merkeago erosi zitzaten : Nortzuek etoŕi beaŕ-izango lukete urtatsak merkeago erosi zitzaten? ; ... - Zertarako etoŕi beaŕ-izango zenukete ona? ; ... - Nik ere ona etoŕi beaŕ-izango al nuke urtatsak merkeago erosi nitzan? ; Bai, zuk ere ... -- Garaiz etoŕiezik, ez ezayezute ezer esan : Nortzuei ez diet ezer esan beaŕ garaiz etoŕiezik? ; ... - Zer ez diegu esan beaŕ garaiz etoŕiezik? ; ... - Guk ezer esan beaŕ al diegu garaiz etoŕiezik? ; Ez, zuek ere ... -- Izan beaŕ dan bezela izan zindeztela nai-izango genuke : Nork nai-izango luke, izan beaŕ dan bezela izan gindezela? ; ... - Zer nai-izango zenukete? ; ... - Oyek nai-izango al lukete izan beaŕ

dan bezela izan nendila? ; Bai, oyek ere ... -- Lotu ezaizkidazute ondo ingi ayek, galdu ez dakizkidan : Nori lotu beaŕ dizkiogu ondo ingi ayek, galdu ez dakizkion? ; ... - Nork lotu beaŕ dizkizu ondo ingi ayek, galdu ez dakizkizun? ; ... - Nik lotu beaŕ al dizkizuet ondo ingi ayek, galdu ez dakizkizuen? ; Bai, nire ustez, zuk ere ... -- Txolarteetan egingo genizuke beaŕ zenezaneko : Noizko egingo zeniguke txolarteetan? ; ... - Noiz egingo zenidakete beaŕ nezaneko? ; ... - Zuk egingo al zeniguke txolarteetan, beaŕ genezaneko? ; Bai, pozik egingo ... -- Bereiztu itzazute ongi ale oyek nastu ez dakizkizun : Zertzuk bereiztu beaŕ ditugu ongi, nastu ez dakizkizuen? ; ... - Zertarako bereiztu beaŕ dizkidazu ale oyek? ; ... - Nik bereiztu beaŕ al dizkiet ale oyek, nastu ez dakizkien? ; Ez, ... baño.

4. Emen damagun elebeŕi baten txatala, astiro ta aŕetaz irakuŕi beaŕ da ; bizkayeraz dago egiña, ta, irakuŕi ondoren, bertan agertzen diran aditzerak gipuzkeraz nola izango liraken esan beaŕ da :

«EKATXA!»

«Bildurgaŕizkoa egoan Kantauri'ko itxasoa. Ur-lañozko estalki andi bat jaŕi yakon gaiñalde guztian, beren itxura gaiztoko aseŕea eskutau nairik legez ; betauŕerik onenakaz beti uraldera begira egozanak, ia ez eben ezer ikusten ; agiri zan itxaso apuŕa berde baltzeran irakindua egoan, eta irakiñaren dardareak azal guztian atara eutsazan apaŕ zuriak igarian ebiltzan itxasertz gizon jantzaleak zirudien. An baŕuan, lañoak eta bisutsak estaldurik eukazan ur gazi zabaletan, gauza aŕigaŕiren batzuk gertetan ziran, baga ta olatuen oŕuak ziñoenez.

Uste onetan egozan beintzat Aŕanondo'ko gizataldeak eta, beste olango eretietan legez, Jaungoikoa'ren eŕukiari eskari apal bat egiteko asmo zuzena artu eben danak. Asi zan eliz-eskilarik andiena, durundirik lodi ta ilunenekoa, astiro-astiro, noizean bein daungada bat joten, eta asi ziran ikastetxeko mutiltxoak kalean zeaŕ, makila baten gañean oyal-zati baltza aizeratuaz, euren erakustzalea auŕetik ebela, aingeruen gisako dei zoli bigunakaz Garbitoki'ko arimentzat eskean eta itxasogaz buŕuka gogoŕean ebiltzan gurasoentzat zeruetako Aita'ri aŕen egiten.

Ura bai aŕena ! Gauza samuŕagorik eztau iñok egundo ikusi. Umeak gurasoen bitarteko, eŕugabeak iñoiz gaiztekerian jausi diranen alde, indaŕik eztaukienak indardunai lagundu nayan, aingerutxoak gizonakaitik

eskatuten, negaŕez geyenak, negaŕa ezarkoŕa da-ta, batak bere aŕebea ta besteek bere ama negaŕez ikusi dituelako! Itxas-eŕietako umien aŕena, euren txapeltxoak eskuan dituela, begi bustiak zerura jasoaz esaten dabien *Aitagurea*, Jaun'aren agintaulkira zuzen-zuzen doyala uste dot nik eskari oŕek, askotan, euren gaitasunak eta indaŕak baño geyago erakarten dituala etxaldera Kantauria itxasoko aŕantzale gizagaizoak».

«Kresala» «Euskal-elertia» idaztitik artuta (98-99'gn. oŕialdeetan) T. Agirre (Onaindia Aita).

EUN ETA ZORTZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA - IRAGANKOŔA -ADITZ LAGUNTZAILEA

MENEKOERA - LENALDIA -ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA

IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

Ne*ri*	IZAN	Z-e-N- Z-	i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*Da*-		-N
		Z-e-N-		-TE-	
		Z-		-TE-	
Gu*ri*	IZAN	Z-e-N- Z-	i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*GU*-		-N
		Z-e-N-		-TE-	
		Z-		-TE-	
Zu*ri*	IZAN	N- Z-	i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*ZU*-		-N
		G-e-N-			
		Z-		-TE-	
Zue*i*	IZAN	N- Z-	i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*ZU*- -(*T*)*E*-		-N
		G-e-N-			
		Z-		-TE-	
Bera*ri*	IZAN	N- Z-e-N- Z-	i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*O*-		-N
		G-e-N-			
		Z-e-N-		-TE-	
		Z-		-TE-	
Bera*i*	IZAN	N- Z-e-N- Z-	i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*E*-		-N
		G-e-N-			
		Z-e-N-		-TE-	
		Z-		-TE-	

Era auetan, azken -N izkiaren ordez, -LA atzizkia jartzen badugu, Menekoerazko beste era guzietan bezela, beŕi auek izango ditugu: Zeni-

zaidala, ...; Zenizaigula, ...; Nizaizula, ...; Zenizaizkidala, ...; Zenizaizkigula, ...; Nizaizkizula, ...; eta abaŕ.

Eginkizunak

1. Emen jartzen dugun lauki ontako lenengo leŕoan, zeaŕezko izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak erakusten dituzten besteak; bakaŕ-izakayaz eta -N atzizkiaz, alkaŕi dagozkion Menekoeraren lenaldiko aditzerak ipiñi beaŕ dira, artez eta zeaŕezbetetzekoak daramazkitenak; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		nizaizun	...		...	...
Zuk	Zenizaidan		...	...		...
Berak	...	...	...	zizaigun	...	...
Guk		...	genizayon		...	...
Zuek	...		...	...		zenizayeten
Berak	...	...	...	...	zizaizueten	...

2. Esakuntza auetan, Tinkieraz eta Menekoerazko aditzerak agertzen dira; guziak Lenaldian diralarik; alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira; bigaŕenak -N atzizkia eramaten; aldi batez, bayezkoak diranak ezezkoen bidez aldatzeko ta alderantziz ere; bigaŕen esakuntzak egokiak izan ditezen, beaŕ-izango diran beste itzak ere aldatzean; kulatzen ordez esan eta idaztean:

Egun ayetan egin beaŕ zenuena *oartzen nizun*; ... - Nire baŕuti guziak *sakaildu ez zenizaizkidan* erne egon nintzan luzaroan; ... - Gure aitak beti gure eginbideak *oroitzen zizkigun*; ... - Zure jantzi beŕia *urasetu ez genizaizun*, ez zenuen emen utzi; ... - Belbiĺeko gurpiĺak *pustutzen zenizkieten* beti oso ondo; ... - Gure xedeak *igaŕi ez zizaizkiguten*, ez genien itzik ere esan; ... - Zuen idiak *uztartu ez nizaizkizuen*, ez zenituzten ekaŕi iñoiz ona; ... - Zer *asmatzen zenigun* egun gogoŕ ayetan?; ... - Beren auŕak *okertu ez zizaizkien*, ez zuten iñoiz azletzat onartu; ... - Oso ongi *tinkotzen genion* bere etxeko oñaŕia; ... - Oyal oyek bialdu nizkizuen zuek dakizutenez *leundu zenizaizkidaten*; ... - Zaure ori *ez ziguten makotzen* guk nai genuen bezela; ...

3. Emen ematen ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez esan eta idaztean:

Orenlari ori bialdu nizun osotu zenizaidan: Nori bialdu zenion orenlari ori osotu zizaizun?; ... - Zertarako bialdu zenidan orenlari ori?; ... - Guk bialdu al genizuen orenlari ori osotu zenizaiguten?; Ez, ... baño. -- Bazkaltzera joan zitezen arte, ez genuke guk asiko: Nork eluke asiko ni bazkaltzera joan nendin arte?; ... - Noiz arte ez zenukete asiko?; ... - Ume ayek ez al lukete asiko gu joan gindezen arte?; Ez, ayek ere ... -- Itxasoa ikustera eraman nazatenean, dakidan guzia edestuko dizut: Nori edestuko diozu dakizun guzia, itxasoa ikustera eraman zaitzaenean?; ... - Noiz edestuko didazu dakizun guzia?; ... - Guk ere dakigun guzia edestuko al dizuegu itxasoa ikustera eraman gaitzatenean?; Bai, zuek ere ... -- Laisteŕ idatziko diguzute, ezta?; bai zera!, udan baño lenago ez bederen: Nork ez dizue idatziko udan baño lenago?; ... - Nik idatziko al diot oŕi, udan baño lenago?; ... - Nortzuei ez diezute idatziko udan baño lenago?; ... -- Idisko ori bialdu zidaten saldu nizaizun: Zertarako bialdu zizuten idisko ori?; ... - Zer bialdu zizuten saldu zenizaidan?; ... - Guk bialdu al genizun idisko ori saldu zenizayon?; Ez, ... baizik. -- Abestu-erazi ezpagenie, ezer esan gabe joango zitzaketean: Nola joango zitzaketean, abestu-erazi ezpazeniete?; ... - Nor joango zitzakean ezer esan gabe, abestu-erazi ezpazeniote?; ... - Zuek ere ezer esan gabe joango al ziñaketean, abestu-erazi ezpagenizue?; Ez, ... baño. -- An egingo elukenezkero, ez dezala egin gure auŕean ere: Nork ez du zuen auŕean egin beaŕ, an egingo elukenezkero?; ... - Noren auŕean ez duzute egin beaŕ, an egingo ez zenuketenezkero?; ... - Nik egin beaŕ al dut ayen auŕean, an egingo enukenezkero?; Ez, zuk ere ... -- Onela esan genizaizuen aŕendu ziguten: Nortzuei aŕendu zieten onela esan zizaizueten?; ... - Nortzuek aŕendu zizueten onela esan zenizaidaten?; ... - Mutil oŕi aŕendu al zioten, onela esan zizaigun?; Ez, ... baizik. -- Etzuen nai-izan berarekin jetsi nendiĺa: Zer ez zenuten nai-izan?; ... - Nork etzuen nai-izan berarekin jetsi gindezela?; ... - Guk nai-izan al genuen gurekin jetsi zindeztela?; Bai, zuek ... -- Eraman ezazu diru ori, len zeneukanari erantsi dizaizun: Nork eraman beaŕ du diru ori, len zeukanari erantsi dizayon?; ... - Zer eraman beaŕ dugu guk, len geneukanari erantsi dizayogun?; ... - Zuek ere diru ori eraman beaŕ al duzute len zeneukatenari erantsi dizayozuten?; Bai, guk ere ... -- Ez zitzaketean oneraño elduko, jateko ezer eman ez zenizayeten: Nortzuk ez zitzaketean oneraño elduko, jateko ezer eman ez genizayen?; ... - Noraño ez zitzakean ori elduko, jateko ezer eman ez nizayon?; ... - Gu oneraño elduko al giñakean, jateko ezer eman ez zenizaiguten?; Ez, ene ustez zuek ere ... --

Aiztu ezpekigu, oraintxe entzun duguna : Nori etzayo aztu beaŕ, oraintxe entzun duena? ; ... - Zer ez zaizue aiztu beaŕ? ; ... - Oyei aiztu beaŕ al zaye, oraintxe entzun dutena? ; Ez, oyei ere ... -- Lantegi artan ipiñi zinduzteen lanegin zenezaten eta diru asko irabazi zenizayeten : Nor ipiñi zuten lantegi artan lanegin zezan eta diru asko irabazi zizayen? ; ... - Zertarako ipiñi ninduten lantegi artan? ; ... - Zuek ere lantegi artan ipiñi al zinduztegun lanegin zenezaten eta diru asko irabazi zenizaiguten? ; Ez, ... baño. -- Zergatik etziñaten erdu, deitu zinduzteen tokira? ; irten gabe, etxean oso ondo gengozalako : Nortzuk etziran erdu deitu zituzten tokira, irten gabe etxean oso ondo zegoztelako? ; ... - Nora ezkiñan erdu, irten gabe etxean oso ongi gengozalako? ; ... - Zuek ere etxean geratu al ziñaten oso ondo, deitu zinduzteen tokira joan gabe? ; Bai, gu ere ... -- Isiltzeke egongo zitzaketean goizetik gaberarte : Nortzuk egongo zitzaketean isiltzeke goizetik gaberarte? ; ... - Noiz arte egongo zitzaketean isiltzeke goizetik? ; ... - Zuek ere isiltzeke egongo al ziñaketean goizetik gaberarte? ; Ez, gu ez ...

4. Uŕengo alkaŕ-izketa ongi irakuŕi, ta gero bertan esaten dan guzia, bakoitzak bere gisa edestu dezala :

«TXANTXANGOŔIA»

«Gizameak : Yainkoa'k gure luŕ ontako abereak egin zituenean, bakoitzari bere margoak eman omen zizkion.

Yainkoa'k : Atoz, aŕosa edeŕ ori... Goŕi-goŕia izango zera... Atoz, lili... Txuri-txuri izan zaitez...

Emakumeak : Eta oŕelaxe gauza guziak... Ontan ari zala...

Yainkoa'k : Ene!, margoak aitu zaizkit. Eta oraintxe nengoen oldozten, txoritxo beŕitsu bat nola sortu.

Gizakumeak : Eta txoritxoa Yainko'aren eskuetatik bereala atera zan.

Yainkoa'k : Txoritxo maite ori! Zuk «Txantxangoŕia» izango duzu izena.

Emakumeak : Txantxangoŕia txoŕo-txioka joan zan aidea egoez uŕatzen ; eta ituŕi ta eŕekaetan begiratzerakoan, bere burua batere margorik gabea, zearo nabaŕa, urdiña zala oartu zuen. Itzultzen da, bada, itun, Yauna'gana :

Txantxang. : Yauna, nola egin nauzu margorik gabea? Nere lepapean lumatxo goŕi batzuk nai-izango nituke.

Yainkoa'k : Txoritxo maite ori! Lumatxo gaŕi oyek zeroŕek irabazi beaŕ dituzu.

Txantxang., itun : Nola irabazi ote nezake nere lumatxoak goŕiztatzea? ; Urte ta mende askoren buruan, Jerusalen'era iritxi zan Txantxangoŕia, ta bere kabitxoa egiñaz, an zegoen umeak azten. Auek amari galde :

Txorikumeak : Amatxo, zergatik egin gaitu Yainkoa'k margorik gabeak?

Txantxang. : Ai, nere umetxuok ; neronek ere orixe dut naigaberik aundiena. Yainkoa'k esan zidan, neronek irabazi beaŕ nuela nere lumak goŕizkatzea.

Txorikumeak : Ta nola irabaziko duzu, ama?

Gizakumeak : Baña... nortzuk datoz aldapan gora, istīlu ta ardaīa?... Ene!... gudari gogoŕ batzuek, lapuŕen artean, Jesus dakartela..., lapuŕik aundiena bezela... Txoritxoa eŕukiz betea dago Jesus begiratzen. Geroxeago iltze zoŕotzez esku-oñak josita, Yauna Gurutzean jaso dute ; ta ori naikotzat etzutela, Jesus'i buruan arantzazko burestuna ipintzen diote... Txantxangoŕiaren zotiñak. Zer egingo ote du?

Emakumeak : An dabil Yauna'ren inguruan, urbiltzeko bilduŕez... Alako batean Jesus'i alboratu zayo ta arantza bat mokoaz ateratzen dio. Arantza zulotik, odol jarioa sortu zan, eta txoriari papaŕ-azpiko lumak goŕitu zitzaizkion odolez.

Jesus'ek : Txoritxo maite, gaurtik auŕera zure lepapeko lumatxoak goŕi-goŕiak izango dira...

Emakumeak : Oŕa nola goŕitu zitzaizkion txantxangoŕiari bere lepapeko lumatxo txikiak».

«Luŕ beŕi bīla» (129-130-131'gn. oŕialdeetan) Etxaniz'taŕ Nemesio.

EUN ETA BEDERATZIGAŕEN IKASKAYA

-TSU, -TZU atzizkiak. Ona emen beren zentzunak :

-TSU atzizkiak «ugaritasun»-asmoa du, zentzun ori adierazten du.

E. b. : Osasun*tsu* = osasun yoria duena; Eur*itsu* = euri ta euri danean; Bizar*tsu* = ule ugaridun bizaŕa duena; Muk*itsu* = muki asko daukana.

-TZU atzizkiak esandakoaren antzeko zentzuna du; baña geyenetan, zenbakitzai ta galdetzekoai eransten zaye, beren askaŕ-zentzuna emateko (1).

Onela : Ba*tzuk* (Bat*zu*ek) = bat baño geyago adierazteko; iru*tzuk* = iru talde; Nor*tzuk*? (Nor*tzu*ek?) = nor batzuk?; Zer*tzuk*? (Zer*tzu*ek?) = zer batzuk?; Zein*tzuk*? (Zein*tzu*ek?) = zein batzuk?; Zenbat? (Zenba*tzu*ek?) = Zenbat batzuk?

-TZU, toki-izenetan ere ugaritasun-zentzunean erabiltzen da; naiz eta, zentzun ortarako, *-ZU* atzizkia erabilago izan.

E. b. : Zume*tzu* = zumaen ugaritasuna; Arantza*tzu*, Arantza*zu* = arantzak ugari dagozen tokia.

-TSU atzizkiak ba-du «gutxi-gorabera» zentzuna ere.

Onela : Orain*tsu* = orain gutxi, arestian; Orobat*su* (orobat + -tsu) = ia berdin dana; Onela*tsu*, oŕela*tsu*, ala*tsu* = gutxi gorabera onela, oŕela, ala; Berdin*tsu* = ia berdin dana; Eun*tsu* = ia eun.

-TZU atzizkiak, batzuetan, irabazpidearen zentzuna du.

E. b. : Aŕa*tzu* = aŕantzaleen irabazpidea; Argin*tzu* = argiñaren irabazpidea.

-DI, -TI, -DOI, -DUI atzizkiak.

Atzizki auek ere «ugaritasun»-zentzuna dute, batez ere, toki-izenetan.

E. b. : Elor*di* = eloŕi asko-moltzoa; Paga*di* = pago asko-moltzoa; Arez*ti* = areitz asko-moltzoa; Amez*toi* = ametz asko-moltzoa; Sagar*dui* = Sagas*ti* = sagaŕondo asko-moltzoa; Mas*tui* = matsondo asko-moltzoa.

Gazte*di* = gazte asko-moltzoa; Giza*di* = gizon asko-moltzoa, gizon guzien batza.

(1) Ikusi: 3 ta 13'gn. ikaskayak.

-TI atzizkia, ugaritasun-asmoa bera duelarik, izenai eransten zaye, egipen bat saŕi dagiena adierazteko; ta oŕelakoetan uruñatzearen zentzunaz erabiltzen da.

E. b. : Egaz*ti* = egak dituena; Egiaz*ti* = beti egia diñoena; Basa*ti* = baso-itxura ala basorako jokera duena; Adur*ti* = aduŕa eŕuz dariona; Bildurti = bilduŕ dana; Gezur*ti* = gezuŕak diñozkiena; Negar*ti* = negaŕ asko dagiena; Seta*ti* = setaz aŕi dana.

-TI, noizpait, -TIK'en aldaketa bat izaten da.

Onela : Goi*ti* = goitik; Bei*ti* = beitik.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, goiko leŕoan, zeaŕezko izenordeak ipintzen ditugu; ezkeŕ-aldean eta goitiberako leŕokadan, ordea, adi-yabeak izan ditezkenak; askaŕ-izakayaz eta -LA atzizkiaz, alkaŕi dagozkien Menekoera'ren Lenaldi'ko aditzerak jaŕi beaŕ dira, artez eta zeaŕez-betetzekoak daramazkitenak; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		...	nizaizkiola		...	...
Zuk	Zenizaizkidala		...	...		...
Berak	...	...	...	zizaizkigula	...	...
Guk		genizaizkizula	...		...	...
Zuek	...		...	...		zenizaizkietela
Berak	...	...	...	...	zizaizkizuetela	...

2. Emen ematen ditugun esakuntzetan dagozen aditzerak, Menekoera'zkoak dira; batzuk Oraiñaldi'koak eta besteak Lenaldi'koak; alkaŕekiko aldatu beaŕ dira, ta bayetzean dagozenak ezezkoan ipintzen, bai ta alderantziz ere, ezezkoak bayetzean; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Eztitugu ekaŕi ume ayek zuengana oŕela *zematu ditzazuten*; ... - Eskatu didate neska ura *larderiatu ez nezala*; ... - Aŕetaz ibi iko gera gure mazkuriak *ziztatu ez dizaizkiguzun*; ... - Ez genuen nai mutiko ayek ainbeste *zimika zitzatela*; ... - Alegiñak egingo ditugu beren ama gaixoa,

alik eta geyen, *sendotu dezaten*; ... - Zer egingo nuke aren txabolak *suntzitu ez zizaizkioten*?; ... - Eztakit zertarako nai duten beren kapel edeŕa *puska dizayegula*?; ... - Ez nuen uste nire ogi guzia *zeatu zenizaidatela*; ... - Zuen edontzi politak *austu ez ditzan*, giltzapean gorde beaŕ-izango dituzu; ... - Gogoŕ ari-izango giñan Eŕi'ko soloak *soildu ez zitzaten*; ... - Aŕeta aundienaz egon beaŕ dugu gure baseliz zaŕ ori *zuzitu ez dezaten*; ... - Ez zenioten utzi kaskail ari zuen baratzan daukazuten sagaŕondoa *muŕiztu zizaizuela*; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Olak nai zuten neuŕian ebagi zizaizkiela eskatu zieten: Nori eskatu zioten olak guk nai genuen neuŕian ebagi zizaizkigula?; ... - Nola nai zenuen olak ebagi zizaizkizuela?; ... - Nik ere eskatu al nion, nai nuen neuŕian olak ebagi zizaizkidala?; Ez, ... baño. -- Beyak ertzetatik zeramazkiten, bidean zeartu ez zitezen: Nundik zeneramazkiten beyak bidean zeartu ez zitezen?; ... - Nork zeramazkien beyak ertzetatik bidean zeartu ez zitezen?; ... - Zuk zure zaldia ertzetatik al zeneraman bidean zeartu ez zedin?; Ez, ... baizik. -- Ez zaituztegu ona ekaŕi ikus zaitzateen bakaŕik: Nortzuk eztituzute ona ekaŕi ikus ditzaten bakaŕik?; ... - Nora ez gaituzute ekaŕi ikus gaitzaten bakaŕik?; ... - Ni ekaŕi al nauzute ona ikus nazaten bakaŕik?; Ez, zu ere... -- Ezer esan ez zizaigutela eragotzi zieten: Nortzuei eragotzi zieten zuei ezer esan ez zizaizuetela?; ... - Zer eragotzi zenien ayei?; ... - Guri eragotzi al zeniguten, ayei ezer esan ez genizayela?; Bai, zuei ere ... -- Tink-egon zaitez ortik igitu ez zaitzaen: Zertarako tink-egon beaŕ dut nik?; ... - Nork tink-egon beaŕ du ortik igitu ez dezaten?; ... - Zuek ere tink-egon beaŕ al duzute, ortik igitu ez zaitzateen?; Bai, guk ere ... -- Gure zoŕak azketsi zizkigun, guk gure zordunei azketsi genizaizkien: Nortzuei azketsi zizkieten beren zoŕak, berak beren zordunai azketsi zizaizkieten?; ... - Zertarako azketsi zizkiguten gure zoŕak?; ... - Berari ere bere zoŕak azketsi al zizkioten, berak bere zordunai azketsi zizaizkien?; Bai, berari ere ... -- Lanegin zazu eten gabe bizia eramankoŕa izan dakizun: Nork lanegin beaŕ du eten gabe, bizia eramankoŕa izan dakion?; ... - Zer egin beaŕ dugu eten gabe, bizia eramankoŕa izan dakigun?; ... - Adiñeko gizon ayek ere eten gabe lanegin beaŕ al dute, bizia eramankoŕa izan dakien?; Ez, ... baño. -- Enuke nai-izango zaŕ bizartsu oŕek ideki zizaizkizula: Nork eluke nai-izango zaŕ bizartsu oŕek ideki zizaizkidala?; ... - Guk nai-izango al genuke zaŕ bizartsu oŕek ideki zizaizkigula?; ... - Eta zaŕ bizartsu oŕek

nai-izango al luke guk ideki genizaizkiola?; Ez, oŕek ere ... -- Ez zaitezte ara joan, autatu ez zaitzateen: Nora ez dugu joan beaŕ, autatu ez gaitzaten?; ... - Nortzuek ez dute ara joan beeŕ, autatu ez ditzaten?; ... - Nik joan beaŕ al dut ara, autatu nazaten?; Bai, ... -- Ez genukean uste-izango gaurko gaztedi onek gauza onik egin zizaigula: Nortzuek ez zuketean uste-izango gaurko gaztedi onek gauza onik egin zizayela?; ... - Zer etzenuketean uste-izango?; ... - Nik uste-izango al nukean gaztedi onek gauza onik egin zizaidala?; Ez, zuk ere ... -- Guziok igo ez zindezten, zuri bakaŕik, Yon, dei-egin nizun: Zertarako dei-egin zenidan niri bakaŕik?; ... - Nori dei-egin zenion bakaŕik, guziok igo ez gindezen?; ... - Zuri dei-egin al genizun bakaŕik, guziok igo ez zindezten?; Ez, ... baizik. -- Ardurabako ayek ikus ez nazaten, ementxe, zumetzu ontan ezkutatuko naiz: Nor ezkutatuko da zumetzu ontan, ardurabako ayek ikus ez dezaten?; ... - Nun ezkutatuko zera, ardurabako ayek ikus ez zaitzaen?; ... - Zuek ere zumetzu ontan ezkutatuko al zerate, ardurabako ayek ikus ez zaitzateen?; Ez, ... baño. -- Uste al zenuten gezurti ayek, gauzak gertatu ziran bezela esan zizaizkizuetela?; ez, guk ez genuen uste gezurti ayek, gauzak gertatu ziran bezela esan zizaizkigutela: Nortzuek etzuten uste gezurti ayek, gauzak gertatu ziran bezela esan zizaizkietela?; ... - Zer ez zenuten uste zuek?; ... - Nik uste al nuen, gezurti ayek gauzak gertatu ziran bezela esan zizaizkidatela?; Ez, zuk ere ... -- Lotu ezazu zaldi ori oŕ, zaldizko arek nik nekaŕena eraman ez dezan: Zein lotu beaŕ dut oŕ, zuk zenekaŕena zaldizko arek eraman ez dezan?; ... - Zaldi ori oŕ lotu beaŕ al dut, guk genekaŕena zuk eraman ez dezazun?; ... - Oyek lotu beaŕ al dute zaldi ori oŕ, berak zekartena nik eraman ez dezadan?; Ez, ... baizik. -- Alegin guztiak zegizkiten bizi ez gindezen: Nortzuek zegizkiten alegin guziak bizi ez zindezten?; ... - Zer zegiten ni bizi ez nendin?; ... - Zuek alegin guziak al zenegizkiten ayek bizi ez zitezen?; Ez, guk ...

4. Uŕengo ipuin au aŕetaz irakuŕi beaŕ da; gero, *ika* jaŕita dagozen izenorde ta aditzerak *zuka* jartzeko:

«DIRUBIDE BIKAÑA»

«Pelo Ixuxki'k goseak jandako kaiku aundi bat zirudien. Baña etzan ez kaiku ez kankalu ta ez oŕelakorik. Bai zera! Jakin ere ondo zekien lan aundirik leporatu gabe dirubide edeŕik egiten. Bein eŕi batean eta

gero bestean, zeiz-zei ta azokaz-azoka ibīli oi zan aal zituen gizajo guziak atzipetuz.

Alako batean, bere adiskide batekin topo-egin zuen Ernani'ko ardandegi batean, eta auŕeneko aguŕak egin ondoren galdetu zion lagunak:

— Ta ire lanbidean zer moduz?

— Ederki motel. Ikaragaŕizko dirubidea asmatu diat.

— Bai zera! Jakin al liteke zer dukan bera?

— Bai gizona! Baña, eroŕek dirubide berdiñik ez jartzekoa agindu beaŕ didak lenen. Bestela, nere dirubidea muŕiztuko bailitzake.

— Ez nere bilduŕ izan, Pelo, Jaungoikoa'ri beaŕik diruz lasai bizi nauk eta eztiat ire asmaketa ostuko.

— Esango dikiat, bada. Usoak saltzen zitiat.

— Sail aunditan beaŕ-izango, dirutza aundirik jasoko baduk.

— Bai zera! Amabikuntxo bat aski diat nere artu-emanetarako.

— Nola duk ori, gizona?

— Oso eŕaza, motel. Aldako usoak saltzen zitiat, eta, noski, egun batean zei batean saldu ta iīuntzerako etxean zeuzkat, biaramonean beste zei batean saltzeko.

— Motel, motel, eztuk burubide txaŕa izan. Nik agindu dikiat dirubide berdiñik ez jartzea ta eztiat jaŕiko, baña nolanai ere, apari-azkari bat eskeiñiko didak, eztuk ala, Pelo?

Eta adiskide biek, alai ta umore onez ospatu zuten Pelo'ren burubidea apari-azkari edeŕa egiñaz».

«Puŕa! Puŕa!» (43-4'gn. oŕialdeetan) Yon Etxaide'taŕak.

EUN ETA AMARGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

MENEKOERA - EGINKOŔA - IRAGANKOŔA
EREDUZKO ADITZA - LAGUNTZAĪEAREN ERAEKIN
LENALDIA - ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

IKUS	*N-i-N-* t) -ZA-	-ZU- ----	-N
		-ZU- -TE- ----- -TE-	
IKUS	*G-i-N-* t) -ZA-	-ZU- ----	-N
		-ZU- -TE- ----- -TE-	

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

IKUS	*Z-i-N-* t) -ZA-	-Da- ----	-N
		-GU- ----- -(T)E-	
IKUS	*Z-i-N-* t) -ZA- *-TE-*	-Da- ----	-N
		-GU- ----- -(T)E-	

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

Ez ditugu emen adizkin auek aipatzen, 106'gn. ikaskayan ikasi ziranak diralako.

Aditzera auek, 55'kn. ikaskayan ikasi ziran Tinkiera'zkoekin erkatzen baditugu, argi ikusten da, oraingoak ordukoak berak dirala, aldakuntza bi auek eginda: orduko eŕoa zan *-U-* izkiaren ordez -ZA- itzatalaz, eta orduko *d)* alkartzekoa, oraingo *t)*'ren bidez.

Beste aldetik, aditzera auetan azken -N ordez, -LA beste atzizkia jartzen badugu, Menekoera'zko beste aldietan bezela, beste era auek sortzen zaizkigu:

Ikus Nintzazu*la*, ...; Ikus Gintzazu*la*, ...; Ikus zintzada*la*, ...; Ikus Zintzateda*la*, ...

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, lenengo leŕoan artez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak diran beste izenordeak azaltzen ditugu; ta alkaŕi dagozkion Menekoera'ren Lenaldi'ko aditzera laguntzaīleak ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		...	...		zintzatedan	...
Zuk	...		zenezan	...		...
Berak	Nintzan	...	...	...	...	...
Guk		...	...		...	genitzan
Zuek	...		...	gintzazuten		...
Berak	...	zintzaen	...	...	...	...

2. Orain jartzen ditugun esakuntzetan, Tinkierazko lenaldiko erak eta Menekoerazko lenaldiko erak ere ageŕerazten ditugu, alkaŕi buruz aldatzeko dagozenak; bigaŕenak -N atzizkia eramaten; eta aldi baten, bayezkoak diranak ezezkoen bidez aldatzeko be; kulatzen ordez, esan eta idaztean.

Estutzen ninduten ankeŕ ayek alde-egin zuten emendik; ... - Ez giñan joan zuregana *artegatu ez zintzagun*; ... - Zearo *atsekabetzen zenuten* gizajo ura; ... - Obe izan zitzaigun oŕ ez egotea zuk *kezkatu ez gintzazun*; ... - Gero ta geyago *naigabetzen zinduzteen* zuen semeak; ... - Ikasle gaizto ayek aŕenka eldu zitzaizkidan *lekoratu ez nitzan*; ... - Bayetz esan beaŕ-izan zenuten ni *auŕezkatu ez nintzazuten*; ... - Gizon maltzuŕ arek *zorabiatzen zinduen* saŕi; ... - Emakume arek etzuen nai ayekin egon *zoratu ez zezaten*; ... - Eztabaida ayetan guztiz ondo *aldezten ginduzun* beti; ... - Zer egingo zenukete auzoko ayek *salatu ez zintzateen*?; ... - Beaŕa zan baño askoz gutxiago *zigortzen genituen*; ...

3. Emen ageŕerazten ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Ez nengoke ni emen, ikus nintzazuten bakaŕik: Nor elegoke emen ikus genezan bakaŕik?; ... - Nun ez zengozke ikus zintzagun bakaŕik?; ... - Gu al geundeke emen ikus gintzazuten bakaŕik?; Ez, zuek ere ... -- Arestian, ona itzuli ez gindezela oartu ziguten: Nori oartu zioten arestian, ona itzuli ez zediīa?; ... - Noiz oartu zizueten ona itzuli ez zindeztela?; ... - Niri oartu al zidaten arestian, ona itzuli ez nendiīa?; Ez, ... baño. -- Zerbait bederen eskeiñi zenizaiguten etoŕi giñan: Nortzuk etoŕi ziran zerbait bederen eskeiñi genizayen?; ... - Zertarako etoŕi ziran eskale ayek?; ... - Ni ere etoŕi al nintzan zerbait bederen eskeiñi zenizaidaten?; Ez, ... baizik. -- Nigana ekaŕ zintzateen eskatu nien: Nortzuei oskatu zenien zugana ekaŕ gintzaten?; ... - Zertarako eskatu zenieten ayei?; ... - Oyek eskatu al zieten berengana ekaŕ zitzaten?; Ez, ... baño. -- Zer egingo genuke ikaskai auek ain zaīak izan ez dakizkigun?; gero ta geyago lanegingo zenukete ikaskai auek ain zaīak izan ez dakizkizuen: Nork lanegingo luke gero ta geyago ikaskai ayek ain zaīak izan ez dakizkion?; ... - Zertarako lanegingo genuke gero ta geyago?; ... - Oyek ere gero ta geyago lanegingo al lukete ikaskai auek ain zaīak izan ez dakizkien?; Bai, oyek ere ... -- Ertzain ayek bialdu zizkizueten zaindu gintzaten: Nor bialdu zizueten zaindu zintzaten?; ... - Noiz bialdu zizkiguten ertzain ayek zaindu zintzateen?; ... - Nik bialdu al nizkien oyei ertzain ayek, zaindu zitzaten?; ez, ... baizik. -- Eguraldia euritsu zegoen aurtxoak bialdu genizaizkizun: Nola zegoen eguraldia aurtxoak bialdu zenizaizkidaten?; ... - Zertarako zegoen euritsu eguraldia?; ... - Eguzkitsu al zegoen eguraldia aurtxoak bialdu nizaizkizuen?; Ez, ... baño. -- Erne gengozan andik igitu ez gintzaten: Nortzuk zegozen erne andik igitu ez zitzaten?; ... - Nola zengozten andik igitu ez zintzateen?; ... - Ni ere erne al nengoen andik igitu ez nintzaten?; Bai, zu ere ... -- Nire laguntza eskeiñi nizaizuela nai zenuten, ezta?; baña orduan enuen al-izan: Nork nai zuen zure laguntza eskeiñi zenizayola?; ... - Nork etzuen orduan al-izan bere laguntza eskeintzea?; ... - Guk nai al genuen zuen laguntza eskeiñi zenizaigutela?; Bai, zuek ere ... -- Zer egingo genuke beren etxean euki ez gaitzaten?; ezer ez zenukete egingo beren etxean euki ez zaitzateen: Nortzuek elukete ezer egingo beren etxean euki ez ditzaten?; ... - Zertarako enuke nik ezer egingo?; ... - Zuek ezer egingo al zenukete beren etxean euki ez zaitzateen?; Ez, guk ez ... -- Antola bezaizkizute Olbea'n erosita dauzkazun etxe guziak: Nori antolatu beaŕ dizkiote Olbea'n erosita dauzkan etxe guziak?; ... - Zer antolatu beaŕ didate niri?; ... - Ain

aberatsa dan jaun oŕi ere Olbea'n erosita dauzkan etxe guziak antolatu beaŕ al dizkiote?; Ez, ... baño. -- Ez al zenuen nai leotz ortatik atera zintzaen?; bai, antsiz ere nai nuen leotz artatik atera nintzaten: Nundik nai zenuen antsiz, atera zintzaen?; ... - Nola nai nuen nik leotz artatik atera nintzaten?; ... - Zuek ere antsiz nai al zenuten leotz artatik atera zintzateen?; Bai, guk ere ... -- Gure eltzeak emen utzi genituen, apurtu ez zenizaizkiguten: Nortzuek utzi zituzten emen beren eltzeak apurtu ez genizaizkien?; ... - Zer utzi zuten emen apurtu ez nizayen?; ... - Nik ere nire eltzeak emen utzi al nituen apurtu ez zizaizkidaten?; Bai, zuk ere ... -- Egiñal guztiak egin beaŕ-izango dituzute moŕoi oyek uŕutiratu ez dakizkizuen: Nortzuek egin beaŕ-izango dituzte egiñal guztiak moŕoi oyek uŕutiratu ez dakizkien?; ... - Zer egin beaŕ-izango dugu moŕoi oyek uŕutiratu ez dakizkigun?; ... - Zuen aitak ere egiñal guztiak egin beaŕ-izango al ditu moŕoi oyek uŕutiratu ez dakizkion?; Bai, uste dugunez, gure aitak ere ... -- Zerok baño pozago ginjoazan: Nortzuk zijoazen gerok baño pozago?; ... - Nola zinjoazten?; ... - Ni al ninjoan zuek baño pozago?; Ez, zuk ez...

4. Ondo irakuŕi emen jartzen ditugun bertsoak; eta gero, oyetatik, oskidetasunari buruz, «osoak» zeintzuk diran, zeintzuk «erdikoak» eta zeintzuk «mugatuak» esan; Onaindia aitak bere «Gure Bertsolariak» idaztian muetatzen dituenez (1):

«MENDI GOI - GOYAN»

Mendi tontortxu zoŕotz batian
nago begira:
ãgiri dira
alde batetik itxas zabala
eta bestetik, baŕiz, legoŕa.

Ortze zabala eguzki izpiz
oztiña dago
eta berago
axe garbia mendi goyetan
ta ur gardena ituŕietan.

(1) Ikusi: 86gn. ikaskayan (4'gn. eginkizunean) muetatze onen beŕia.

Txoriak yarei egan dabiltzaz,
txori polītak
abeslariak:
axe biguna
ozkiŕitxua,
eguzki leuna
...! a tokitxua!

Tontoŕian, ba, bakartadian
Edertasuna
matetasuna
mendi goyetan, ementxe dago,
eta ixilik oldozkoŕ nago.
Mendi goi-goyan, ta neu bakaŕik?
—Ez, bakaŕik ez.
Beste bat ziñez
dot, ba, laguna; a bai laguna
benetakua...! Aloroduna».

«Eusko Olerkiak» - 1932 (28-9'gn. oŕialdeetan) Erkiaga'taŕ Eusebi.

EUN ETA AMAIKAGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

MENEKOERA - ADITZ LAGUNTZAĿEA - LENALDIA

ARTZAĿE-ADIZKIŃAK - IRUGAŕEN NOTIŃAREN ADI-YABEA (1)

Bakaŕ

Ner*i*			-*Da*-	
Zur*i*			-*ZU*-	
Berar*i*			-*O*-	
	IZAN	Z- e) -KI-		-N
Gur*i*			-*GU*-	
Zue*i*			-*ZU*- -(*T*)*E*-	
Ber*ai*			-*E*-	

Askaŕ

Ner*i*			-*Da*-	
Zur*i*			-*ZU*-	
Berar*i*			-*O*-	
	IZAN	Z- e) -KI- -ZKI-		-N
Gur*i*			-*GU*-	
Zue*i*			-*ZU*- -(*T*)*E*-	
Ber*ai*			-*E*-	

Era auetan, beti bezela, -N atzizkia, -LA beste atzikiaren bidez aldatzen badugu, beste era auek izango ditugu: Izan zekid*ala*, ...; Izan zekizkid*ala*, ...

A ta *E* gediñak, aditz-jokoan duten esan-nai berezia (2).

15 eta 47'gn. ikaskayetan esan genuenez, ikasitako era aunitzetan agertzen diran *A* ta *E* gedin auek, aditzaren e´o-auŕetik doazenean, zentzun berezi bat dutela oaŕeraztea egokia da; lenengoarena oraiñaldiari dagokiolarik, eta bigaŕenarena lenaldiari. Ori, bereziki, joko bildua duten aditzetan gertatzen da, bai ta aditz laguntzaĿearen era batzuetan ere. Esandako toki ortatik at, —eŕoaren auŕekoan— izki auek eztute ezer adierazten, eta beren egikera, beste izkiak alkartzekoa da bakaŕik (3).

(1) Ikusi: 141, 142 ta 147'gn. ikaskayak.
(2) Ikusi: 151'gn. ikaskaya.
(3) Ikusi: Azkue, M. 604.

Onela:	Na*g*o	- Ne*n*goen	Ikusi na*u*	- Ikusi ne*n*duen (ni*n*duen)
	Za*t*oz	- Ze*n*tozan	Atera za*i*tugu	- Atera ze*n*dugun (zi*n*dugun)
	Da*k*igu	- Ge*n*ekien	Izan na*d*iĿa	- Izan ne*n*diĿa
	Da*k*arte	- Ze*k*arten	Aztu da*k*ion	- Aztu ze*k*ion

ESAKUNTZA NAGUSIA TA ESAKUNTZA MENPEKOA

Askotan, esaldi baten barnean, bi esakuntza agertzen dira, bai ta geyago ere.

Esakuntza osoa izateko, itzak aditz baten inguruan alkartzen dira.

Esaldi batean dagozen esakuntzaetatik, bat nagusia izaten da, ta bestea edo besteak, menpekoak.

E. b.: *Aitak esan du*, etoŕ zaitezela bere*ala*, ta gogoz jan dezazute*la*.

Adibide ontan, «Aitak esan du» esakuntza nagusia da; ta beste biak, «etoŕi zaiteztela» ta «jan dezazutela», menpekoak dira.

Ikusten danez, «nagusia» Tinkoera'n dago, ta «menpekoak» Menekoera'n; eta era ontakoak beti «menpekoak» izaten dira. Baña «menpekoak» Tinkoera'n eta Baldintzaera'n be egon ditezke.

E. b.: Goiz jeikiko *ba*ziña (menpekoa), *uriburu artara joango giñake* (nagusia).

Esakuntza nagusiak Tinkoera'n eta Baldintzaera'n egon ditezke, bai ta Almenera'n ere.

E. b.: *Beŕia jakin dut* (nagusia), esan didate*nean* (menpekoa).
Pozik joango giñake, zuek gurekin etoŕiko *ba*ziñate.
Irakasleak nai *baldin ba*du, *lan ori bereala egin dezakegu*.

Menpekoak, beti, atzizki edo auŕizki bat eramaten dute.

Ona emen oyetako batzuk: *-la, -n, -nean, -neko, ote ... -n, -netik, -larik, -lakoan, bait-, ba-, baldin ba-, -ezkero, -gatik, -lako, -ta, -la-ta*.

E. b.: *Amak nai du*, oraintxe joan gaite*zela*.
Eldu da*n* neska, *nire aŕeba da*.
Goiz jeikitzen naize*nean*, *obeto nabil*.
Erdu za*n*eko, *ardiak uŕuti zebilzten*.
Oŕek eztaki, gaur etoŕi *ote* diran.
Ori irakuŕi zuene*tik*, *eztu ardorik edaten*.
Zure anayak ikusi ditut, oyek ere an egon dira*larik*.
Bakaŕik etoŕi da*lakoan*, *obeto lagundu dute*.
Bezuzak artu dituzu, oso ona izan *bait*zera.
Ona baldin *ba*da, *gurekin bazkalduko du*.

Arin ibīli dan*ezkero, lasterketan lenengoa izan da.*
Aŕo oyen*gatik, guzia galdu dugu.*
Gurekin joan al-izango zera, ordu onean jeiki zera*lako.*
Ezbeaŕ ori da*la-ta, Bilbao'ra joan gabe geratu gera.*

Menpeko esakuntzak ezin jaŕi ditezke bakaŕik, nagusia dan beste batekin baño. Esakuntza nagusiak, bai, bakaŕik joan ditezke.

Eginkizunak

1. Uŕengo laukian eta lenengo leŕoan, artzaīle-zentzuna duten izenordeak ipintzen ditugu; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, bayeztean eta ezeztean bakoitza, irugaŕen notiñen adi-yabeak agertzen dira. Alkaŕi dagozkion «Menekoera»'ren Lenaldiko adizkiñak eman beaŕ dira, esanez eta idatziz.

Adi-yabea	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Beral
Bera (bai) :	...	zekizun	...	zekigun	...	...
Bera (ez) :	ez zekidan	...	...	...	...	ez zekien
Berak (bai) :	...	...	zekizkion	...	zekizkizuen	...
Berak (ez) :	...	ez zekizkizun	...	ez zekizkigun	...	...

2. Uŕengo esakuntzetan, Menekoera'zko aditzerak agertzen dira; batzuk, oraiñaldikoak, besteak lenaldikoak; guziak alkaŕi buruz aldatzeko, ta bayetzean dagozenak ezetzean jartzeko, bai ta alderantziz ere, ezezkoak bayetzean; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Eztakit zer egingo nuken zeredozer *otu dakizun*; ... - Beaŕ zanean *uŕutiratu ez zekidan*, ongi ezita eukiko nuke; ... - Auŕ ayek *atzeratu zekizkiola* nai zuen; ... - Ez diegu ezer esango iñoiz *auŕeztu ez dakizkigun*; ... - Ume polit oyek oso goiz *oeratu zekizkizuela* ororen beaŕa zan; ... - Alegin aundienak egingo lituzkete gizon burutsu ura *arduratu zekien*; ... - Lenbailen *alkartu dakizkidala* eskatuko diegu; ... - Zergatik nai zenuen zuregandik *bereiztu zekizkizula?*; ... - Lagundu egin beaŕ diogu oŕi, bere gurdia *irauli ez dakion*; ... - Gure arazo ayek *naspīlatu zekizkigula* itxaro zuten gure arerio maltzuŕ ayek; ... - Zuen igali edeŕ ayek *lardaskatu ez dakizkizuen* goiko gelan jaŕi beaŕ dituzute; ... - Gexotegiko eriak *gaizkitu ez dakizkien*, obeto zaintzea noraezekoa izango zaye; ...

3. Oitura dugunez, galdera guzti auei erantzun egoki bana eman

beaŕ zaye, edozein itz egokia ere erabiltzen; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Nun utziko nuke tupin au, gero eramatea aztu ez zekidan?; gure sukaldean utzi zenezake lasai, joan baño len oŕ egongo geralako: Zer utziko nuke zuen sukaldean, gero eramatea aztu ez zekidan?; ... - Zertarako utziko genuke gure tupiña zuen sukaldean?; ... - Oŕek ere bere tupiña gure sukaldean utziko al luke, gero eramatea aztu ez zekion?; Ez, ... baño. -- Oso ondo lotu zituzten, kendu ez genizaizkien: Nola lotu zituzten, kendu ez zenizaizkieten?; ... - Nork lotu zituen oso ondo, kendu ez zenizaizkion?; ... - Nik ere oso ondo lotu al nituen, kendu ez zizaizkidaten?; Ez, ... baizik. -- Oŕela izanezik, ez duzu beste eraz ipiñi al-izango jausi ez dakizun: Nola ipiñi al-izango dut jausi ez dakidan?; ... - Zertarako ipiñiko dugu oŕela?; ... - Nik ere oŕela ipiñiko al dut, jausi ez dakidan?; Bai, zuk ere ... -- Erori ez zekizun, zamari oŕen gañean obeto ipiñi beaŕ-izango zenuke: Nun ipiñi beaŕ-izango nuke obeto, erori ez zekidan?; ... Nola ipiñi beaŕ-izango genuke zamari oŕen gañean, erori ez zekigun?; ... - Mandazain oyek ere zamari oŕen gañean obeto ipiñi beaŕ-izango al lukete, erori ez zekien?; Enurarik gabe, oyek ere ... -- Zuengana joan giñan, zuen babesaz estali gintzazuten: Nortzuengana joan ziñaten, beren babesaz estali zintzateen?; ... - Zertarako joan ziñan arengana?; ... - Ni ere zuengana joan al nintzan zuen babesaz estali nintzazuten?; Ez, ... baño. -- Eragotzi genizayela ala ez, berdin egingo lukete beren naya: Nork egingo luke beti bere naya, eragotzi genizayola ala ez?; ... - Eta zuk eragotzi zenizayela ala ez, berdin ere egingo al lukete beren naya?; Bai, ... - Niri eragotzi zenizaidatela ala ez, nik ere nire naya egingo al nuke?; Ez, zuk ... -- Ergel ura auŕean ipiñi ez zekigun, indaŕaz kendu beaŕ-izan genuen: Nor kendu beaŕ-izan zenuten indaŕaz, auŕean ipiñi ez zekizuen?; ... - Nola kendu beaŕ-izan zenuen ergel ura, auŕean ipiñi ez zekizun?; ... - Nik ere ergel ayek indaŕaz kendu beaŕ-izan al nituen, auŕean ipiñi ez zekizkidan?; Ez, ... baizik. -- Iñoiz zigortu ez zintzateela nai-izango genuke: Zer nai-izango zenukete?; ... - Nor ez zenukete nai-izango, iñoiz zigortu ez zezatela?; ... - Zuk nai-izango al zenuke gu iñoiz zigortu ez gintzatela?; Bai, ... -- Gari ura ta garagaŕ au ekaŕi zizkizueten beren laŕañean edatu zenizaizkieten: Zer ekaŕi zizueten beren laŕañean edatu zenizayeten?; ... - Nortzuei ekaŕi zizkieten gari ura ta garagaŕ au beren laŕañean edatu zizaizkieten?; ... - Niri ekaŕi al zizkidaten gari ura ta garagaŕ au beren laŕañean edatu nizaizkien?; Ez, ... baño. -- Ez genuen uste ain laisteŕ ekaŕ gintzazu-

tela : Nortzuek etzuten uste ain laisteŕ ekaŕ zitzatela? ; ... - Zer etzenuten uste? ; ... - Nik uste al nuen ain azkaŕ ekaŕ nintzatela? ; Bai, zuk ... -- Ez naiz joan atso beŕitsu arengana, zuetaz ainbeste gauzak edestu dizaizkidan : Norengana etzera joan, gutzaz ainbeste gauzak edestu dizaizkizun? ; ... - Zertarako etzerate joan atso beŕitsu arengana? ; ... - Zure osaba atso beŕitsu arengana joan al da nitzaz ainbeste gauzak edestu dizaizkion? ; Ez, nire osaba ere ... -- Oraintxe ezkutatuko zera, ertzañek aurki ez zaitzaen : Nor ezkutatuko da oraintxe, ertzañek aurki ez dezaten? ; ... - Zertarako eskutatuko gera oraintxe? ; ... - Zuek ere oraintxe ezkutatuko al zerate, ertzañek aurki ez zaitzateen? ; Ez, ... baizik. -- Ayengana joango al ziñakete beren etxean euki ez zintzateen? ; ez, ez giñake joango ayengana, beren etxean euki ez gintzaten : Nor elitzake joango ayengana beren etxean euki ez zezaten? ; ... - Norengana ez ziñakete joango beren etxean euki ez zintzateen? ; ... - Ni joango al nintzake ayengana, beren etxean euki ez nintzaten? ; Ez, zu ere ... -- Ez zuten nai ardoa atera genizayela, berak etoŕi zitezen arte : Zer etzuten nai atera zenizayetela, berak etoŕi zitezen arte? ; ... - Noiz arte etzuten nai ardoa atera genizayela? ; ... - Nik nai al nuen ardoa atera zenizaidatela, nerau etoŕi nendin ondoren? ; Bai, zuk nai ... -- Etortzeko omen ziran, zu irten zindezen baño lenago : Nor omen zan etortzeko, ni irten nendin baño lenago? ; ... - Noiz omen ziran etortzeko? ; ... - Ni ere etortzeko omen nintzan zuek irten zindezten baño lenago? ; Ez, ... baizik.

4. Aŕetaz irakuŕi uŕengo idazti-txatala, ta gero, bertan esaten dana oñaŕiz arturik, ingi-oŕi batean landareai buruz bakoitzari otuko zayona idatzi ; ogeiren bat leŕoetan guzia :

«ITZ AUŔEA»

«Landareen izakera ta jokaera begieman eta aztertzen dabiĪenak, jakintza arlo zoragaŕia eskuratu du kardatzeko. Zerbait zoragaŕi baten auŕean dago. «Ayen zuri» gure lianarik politena, zein ederki atxikitzen zayen beste landareai ta auen bizkaŕera igo ta zabaltzen dan! Eta bere edertasuna ta pertxentasuna landarearen soñean biuŕikatzen dira.

Gizona luŕean ageri izan danetik aŕeman estuan bizi-izan da landarearekin. Bere auŕerapenetan laguntzaĪe bikañena au izan du. Eŕilantzeak asko zoŕ dio. Bai, aintzin-aintziñeko gizona ibiltaria zan; landareak eldu dio ta txoko batean josi du ; ereindako aloŕ ondoan bizi-izatera bortxatu du. Landarea erein eta uzta artean gizonak egon beaŕ bere aloŕa

zaituaz. Lenengo eŕilantzeak, Tigris, Eufrates eta Nilo ibai alboetan garatu ziran, garitegi andi biurtu ziran luŕalde ayetan ain zuzen. Aspaldiko txinoen eŕilantze-aldia ugoloak elikatu zuen eta Ameriketa'ko maya eŕilantzea artoarekin batera zabaldu ta indartu zan.

Eta zerk bultzegin zion Kolon'i sartaldeko itxasbide baŕiak uŕatzera, kanela, klaboa, intxauŕ moskatua, pipeŕa ta beste pizkaiĪuak erakartzeko bide erosoagoak eta diru-emankoŕagoak arkitzera ezpazan?

Hudson biĪakariari zerk zirika egin zion, bere izeneko ibaya ta aintzira aztertzera? Landare janaritsu ta sendalariak biĪatu nai zituen, eta bai aurkitu ere Kanada ta Ipaŕameriketa'ko biĪaketa onuratsuetan.

Landareak etxea ta uria apaintzen eta osasuntzen dizkizu. Loretegiak eta baratzak mintza bitez eta esan bezate uri-gizonaren izadi-egaŕia nola asetzen duten. Baña baratz edeŕenak mendietan, basoetan, lats-bazteŕetan dituzu. Zoaz aruntz. Uri aundietako kutsadura-galbidetik igesi, zoaz. Landarearekin itzegizu, luŕetik jaso ta maxia zazu ; galde egiozu ta bere ixiĪean erantzungo dizu».

«Landare-Jakintza» (VII-VIII.gn. oŕialdeetan) GiĪermo Laŕañaga.

EUN ETA AMABIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-IZENEN ALKARKIZUNEN BITARTEZ EGIÑAK, ORAIÑALDI TA LENALDIAN, MENEKOERA-ADIZKIÑEN LABURKETAK; ETA TINKIERA'ZKO ERAK MENEKOERA'ZKOEN ORDEZ ERABILTZEA

Eŕiak, beti, laburtzera jotzen du, indarketa txikienaren legearengatik edo; beste aldetik, elertiaren eta izkuntzaren lantze zabala peitu dalako, beren eskuarteak eta aditzen era guziak erabiĩi gabe, izkuntza bere almen osoaren koskontzean edatzeke geratu da; ori dala-ta, Menekoera'ren asmoak aditz-izenen alkarkizun batzuen bidez adierazten dira; bai ta Tinkiera'zko erak aldi ta notin guztientzat erabiltzean; aisetasun aundiaz, noski, baña Menekoera'ren aditzerak adierazteari ematen dizkioten zeaztasun eta egokiduraren kaltean.

Era onen lenengo ikaskayan (96'gna.) Menekoera'k nayaren asmoa adierazten duela esan genuen; ta xede oŕek, adierazi nai diran gurari-motak nabari-erazteko, aditzerak beaŕak diran atzizkiak eraman ditzatela eskatzen du.

Ikasi ditugun era guzietan -N ta -LA atzizkiak bakaŕik azaldu dira, bakoitzak duen asmoa berezia emateko. Baña ezagutzen ditugun beste atzizki auek ere: -NEAN, -TIK, -ARTE, -ARTEAN, -NEKO, oyen ordez erabiĩi ditezke; onela: Izan zaitezen*ean*, Izan nadiñe*tik*, Izan gaitezen*arte*, Izan ditezen*artean*, Izan zaitezte*neko*. Ta ikusi ditugun aldi bietan, beste era guziekin berdin, naiz iragankoŕak naiz iragangaitzak izan.

Esandako aditz-izenen alkarkizunak, Menekoera'ren ordez erabiltzen diranak, onela egiten dira:

1.ª Aditz-izenari, aipatutako atzizkiak edo egokiak izan ditezken beste batzuk gañeratzean; ots, aditza, naiz aditz-izena, naiz aditz-izenondoa bezela, izen-jokoaz erabiltzean (1); ta jokera ortantxe, Menekoera'ren adizkiñak, egitan, aditz jokatuaren izen-jokoaz egiñak dagozela esan diteke.

2.ª Notiñak mugatzeko, auŕetik jaŕitako notin-izenordeak erabiltzean.

(1) Ikusi: 95'kn. ikaskaya.

3.ª Aldi-aditzondoen bidez, geyenetan ORDUAN, igarotako aldia adierazteko; ta batzuetan beste bat, ORAIN, oraiñaldirako; naiz eta, geyenetan, oraiñaldikoa aditzondorik erabiĩi gabe ere, adierazten dala.

Ona emen Menekoera'zko aditzerak eta berai dagozkien «aditz-izenen alkarkizunak» duten ainbatasuna:

	MENEKOERA'ZKO ADITZERAK		ADITZ-IZENEN ALKARKIZUNAK
	Igo nadi*n*	=	Ni igo*teko*
	Igo nendi*n*	=	Ni, orduan, igo*teko*
	Egin dezazu*la*	=	Zuk egi*teko*
	Egin zenezu*la*	=	Zuk, orduan, egi*teko*
I	Itzul gaitezen*ean*	=	Gu itzultz*ean*
	Itzul gindezen*ean*	=	Gu, orduan, itzultz*ean*
II	Etoŕ dediñe*tik*	=	Bere etoŕera*tik*
	Etoŕ zediñe*tik*	=	Bere orduko etoŕera*tik*
III	Edan dezazuten*arte*	=	Zuek edan *arte*
	Edan zenezaten*arte*	=	Zuek, orduan, edan *arte*
IV	Jetxi ditezen*artean*	=	Berak jetxi *artean*
	Jetxi zitezen*artean*	=	Berak, orduan, jetxi *artean*
	Jakin dezazu*neko*	=	Zuk jakin *orduko*
	Jakin zenezan*eko*	=	Zuk, orduan, jakin *orduko*

97'gaŕen ikaskayan, joko bildua duten aditzen Menekoera'zko adizkiñak, Tinkiera'zkoak berak, -N, -LA, ..., atzizkiekin, dirala esan genuen; eta naiz Tinkiera'zko naiz Menekoera'zko asmoak adierazi ditzaketela. Ta, bearbada, egikera (1) onengatik, Menekoera'zko laguntzaĩearen era batzuen ordez, lengo adibideetan ikusitako atzizkiekin, eŕiaren erabiltzean, atzizki berberaekin, ayei dagozkien Tinkiera'zkoak entzuten dira. Onela:

	MENEKOERA'ZKO ADITZERAK		TINKIERA'ZKO ADITZERAK
I	Itzul gaitezen*ean*	=	Itzultzen gera*nean*
	Itzul gindezen*ean*	=	Itzultzen giña*nean*
II	Etoŕ dediñe*tik*	=	Etortzen dane*tik*; datoŕene*tik*
	Etoŕ zediñe*tik*	=	Etortzen zane*tik*; zetoŕene*tik*
III	Edan dezazuten*arte*	=	Edaten dezuten*arte*
	Edan zenezaten*arte*	=	Edaten zenuten*arte*
IV	Jetxi ditezen*artean*	=	Jeisten dira*nartean*
	Jetxi zitezen*artean*	=	Jeisten zira*nartean*

(1) Ikusi: Azkue, M. 871.

Eginkizunak

1. Lauki ontan, ezkeŕ aldean eta goitibera agertzen diran izenordeai dagozkien Meneko'erazko oraiñaldi ta lenaldien aditzerak ipiñi beaŕ dira, zenbaki berberaz izenorde bakoitzarentzat :

	Oraiñaldia	Lenaldia
Neri	Dakidan	...
Zuri	...	zekizkizun
Berari	Dakizkion	...
Guri	...	zekigun
Zuei	Dakizuen	...
Berai	...	zekizkien

2. Eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan, adizkin batzuk Menekoera'z ematen dira, ta beste batzuk aditz-izenen alkarkizunetan; aldaŕekiko aldatu beaŕ dira, kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Zuengana *eldu nadiñean,* ikusiko dugu zer diñozuten; ... - Zure gurasoengandik *aldentzen ziñanetik,* oso gaizki zenbiltzan; ... - Nire eskaria *zuzenetsi dezanarte,* urduri egongo naiz; ... - Berak *orduko gose izanez,* elirake ondo ibiliko; ... - Ortaz *ari gaitezenartean,* lasayago bizi gaitezke; ... - Zuek *eŕuki zeneratela* uste-izan genuen guziok; ... - Neronek *oyu-egin nezanarte,* an etzan iñor ageriko; ... - Zuk, *orduan, azkaldu arte* gu zai egongo giñake; ... - Jaun ori *erdu eztedin,* alegin aundienak egingo dituzte; ... - Guk *laisteŕ-egiteko* agindu digute etxean; ... - Zuek *orduan buruastu arte,* ez zizueten ezer emango; ... - Berak guzion nekeak *geitu zitzatela* bilduŕ giñan; ...

3. Emen ematen ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Enuke nai-izango ni ikustera joatea aiztu zekiola : Nork eluke nai-izango zu ikustera joatea aiztu ez zekidala? ; ... - Nor ikustera joatea aiztu ez zekigula nai-izango zenuke? ; ... - Guk nai-izango al genuke zuek ikustera joatea aiztu ez zekiela? ; Bai, zuek ere ... -- Jaso gintzaten, daukatena baño indaŕ geyago euki beaŕ-izango lukete : Nortzuek euki beaŕ-izango lukete, daukatena baño indaŕ geyago gu jaso gintzaten? ; ... - Zer euki beaŕ-izango lukete zuek jaso zintzateen? ; ... - Nik ere daukadana baño indaŕ geyago euki beaŕ-izango al nuke zu jaso zintzadan? ; Bai, zuk ere ... -- Garbitu ez nizaizkizula aŕendu zidan, eta berak egingo

dizula esan dizaizudala : Zer aŕendu zizun emakume arek? ; ... - Nori aŕendu zion emakume arek garbitu ez zizaizkiola? ; ... - Zuei aŕendu al zizuen emakume arek garbitu ez zenizaizkiola? ; Ez, ... baño. -- Okela guzi ori jan zezatenarte, elirake maitik jeikiko : Noiz arte elirake maitik jeikiko? ; ... - Nundik elirake jeikiko okela guzi ori, orduan, jan arte? ; ... - Zu ere ez al ziñake maitik jeikiko okela guzi ori orduan jan arte? ; Ez, ni ere ... -- Atea ondo itxi beaŕ-izango zenukean argia itzali ez zekizun : Zer itxi beaŕ-izango nukean ondo, argia itzali ez zekidan? ; ... - Zertarako itxi beaŕ-izango genukean guk atea ondo? ; ... - Oyek itxi beaŕ-izango al zuketean atea ondo, argia itzali ez zekien? ; Bai, oyek ere ... -- Aŕeta aundiaz nenbiłen ikutu ez nintzaten : Nor zebiłen aŕeta aundiaz ikutu ez zezaten? ; ... - Nola zenbiltzan ikutu ez zintzaen? ; ... - Gu ere aŕeta aundiaz al genbiltzan ikutu ez gintzaten? ; Ez, ... baizik. -- Utzi ez genizaizula eskatuko ziguketean : Nork eskatuko zizuekean utzi ez zenizaidatela? ; ... - Oŕi utzi ez zenizayotela eskatuko al zizueketean? ; ... - Nik eskatuko al niekean oyei utzi ez zizaizuetela? ; Ez, ... baño. -- Mutil koskoŕ auek aŕatsaldero azkaria eman dizayeten erdu oi dira ; Noiz erdu oi dira mutil koskoŕ auek azkaria eman dizayeten? ; ... - Zertarako erdu oi dira mutil koskoŕ auek aŕatsaldero? ; ... - Zuek ere erdu oi zerate aŕatsaldero azkaria eman dizaizueten? ; Ez, ... baizik. -- Bete itzazu Jaungoikoa'renganako eginbeaŕak : Norenganako nai duzu nire eginbeaŕak bete ditzadala? ; ... - Zer nai duzute guk bete dezagula? ; ... - Nik nai al dut zuk ere Jaungoikoa'renganako zure eginbeaŕak bete ditzazula? ; Bai, zuk ere ... -- Itzuli zaitezeneko, eraman izango gaituzte : Noizko eraman izango zaituztee? ; ... - Zer egin izango zaituztee gu itzuli orduko? ; ... - Ni itzuli orduko ere eraman izango al zaitue? ; Ez, ... baizik. -- Jakiak amaitu ez zekizkigun, egun bakoitzean oso gutxi jan beaŕ-izan genuen : Nortzuek jan beaŕ-izan zuten egun bakoitzean oso gutxi jakiak amaitu ez zekizkien? ; ... - Zertarako jan beaŕ-izan zenuten egun bakoitzean oso gutxi? ; ... - Nik ere egun bakoitzean oso gutxi jan beaŕ-izan al nuen jakiak amaitu ez zekizkidan? ; Bai, zuk ere ... -- Zer egingo nuke nik, pakean utzi nintzazun? ; ezer ez zenuke egingo, pakean utzi zintzadan : Nork eluke ezer egingo, nik pakean utzi nezan? ; ... - Zertarako ez genuke ezer egingo? ; ... - Zuek ezer egingo al zenukete pakean utzi zintzateen? ; Bai, nire ustez guk ... -- Argiak oindiño itzali ez zizaizkietela aŕendu zieten : Zer aŕendu zieten ayei? ; ... - Nortzuei aŕendu zenizayeten argiak oindiño itzali ez zizaizkizuetela? ; ... - Guk aŕendu al genizuen argiak oindiño itzali ez zenizaizkigutela? ; Ez, ... baizik. --

Auŕ ain biuŕi oyek lotu beaŕ-izan genituen, ortura jetxi ez zitezen: Nortzuk lotu beaŕ-izan zenituzten, ortura jetxi ez zitezen?; ... - Nolakoak ziran lotu beaŕ-izan zenituzten auŕ oyek?; ... - Ni lotu beaŕ-izan al ninduzuten, ortura jetxi ez nendin?; Ez, ... baño. -- Janzki auek josten ditugunartean, zuk zure ikaskaya ikasi aal duzu: Zer ikasi aal duk nik, janzki auek josten dituzutenartean?; ... - Noiz ikasi aal dut nik nire ikaskaya?; ... - Guk ere gure ikaskaya ikasi aal dugu zuek janzki auek josi artean?; Bai, zuek ere ...

4. Uŕengo idazkia aŕetaz irakuŕi beaŕ da; gero, bertan euzkerari buruz esaten dana oñaŕitzat arturik, gure izkuntza onezaz ingi-oŕi batean, zuen aburuzko zerbait idatzi zazute:

«KANPION'EN EŔAONDO'KO TXISTULARIAREN BERPIZTEA»

«Napaŕoa'ko euzkal-kabi batean igaro nuen nere aurtzaroa; Urgainborda'n, Bera'ko baseŕian, ain zuzen. Nere amona Maria'ren magaletik asi nintzan euzkera gure izkuntzaren eztia zuŕupatzen. Baseŕi xuri ortan begiak iriki bezin aguro, euzkal-giroaren arnasa gartsua artu nuen. Nere animaren euzkal-nortasuna Suspela, Alzate ta Dornaku auzoetan goizetik gaba arte Larun, Labiaga ta ayakoaŕi mendiak ikusten nituela, joan zan zuzpertzen. Inguruko beste baseŕietako auŕekin aŕemanak egunero izaten nituen; izen ayek ezin aztu ditut, jakiña, Premosa, Malkoŕa, Zigardiberea ta abaŕ. Nere euzkal-izatea txoko zoragaŕi ortan sortu zan. Txoriarentzat zugaitza bezela, neretzat mendi bazteŕ oyek ziran.

Auŕak baseŕietan eguneroko aginduak egin beaŕ-izaten dituzte, ta Urgainborda'n etzegoen auŕik, ni besterik. Alzate'ra bialtzen ninduten... Baseŕiko auŕak, kalean danak agurtu beaŕ eta bereala denek ezagutzen ninduten. ... Kaleko nere adiñeko auŕekin itz gutxi izaten nituen, erderaz mintzatzen ziran geyenak eta ni euzkeraz bakaŕik. Izkuntza berdiña ez mintzatze oŕek, aŕituta uzten ninduen, euzkera gurea ta nerea zala uste bainuen.

Udaran, gaztetxo nintzala, beti amonarengana joaten nintzan eta igande atsaldetan, Labiaga ta Santa Barbara mendi gañera igotzea oso atsegin zitzaidan; Andik ondo entzuten nuen Lesaka ta Bera'ko eresia, ia beti erdal-doñuaz joaz, neretzat aŕotzak ziranak eta, egitan, min ematen zidaten. Ikusten bainuen ura etzala gurea.

Garai artan, Kanpion'en Eŕaondo'ko azken txistulariaren ipuya, ez

bein, askotan baizik irakuŕi ondorean, betiko zaurituta geratu nintzan. Ipui oŕek gure ergelkeria ikusi-arazi zidan; zeñen azkaŕ gurea uzten dugun bestena artzeko, naiz gurea gauzik berexiena izan. Nere euzkal-zaletasuna ipui oŕek erabat esnatu zidan. Kanpion'en lan ori irakuŕi ezkeroztik gaur arte, orduan artu nuen miña etzait joan. Ikusten bainuen nere inguruan, Bera'n bertan gertatzen zala, Kanpion'ek esaten ziguna; euzkaldunak beren buruari aŕika emanaz, euzkera galduaz».

«Napaŕoa Euzkal-Aŕobia» (21-22'gn. oŕialdeetan) Latxaga.

EUN ETA AMAIRUGAŕEN IKASKAYA

ALMENERA TA EZIÑERA

«Almenera» ta «Eziñera»'ren asmoak, euzkeraz, gisa batzuen bidez adierazten dira.

Len, 26 ta 54'gaŕen ikaskayetan, «al-izan» eta «ezin-izan» aditzak ikusi genituen, «izan»'ekin alkartuta dagozenak; gero, 73'gn. ikaskayan ere «al» eta «ezin» itzak, azaldu ziran, ain zuzen, «al-izan» eta «ezin-izan» zentzunetan, aditzaren esan-naya bestelatzeko. Eta orixe da «almenera» ta «eziñera»'ren asmoak adierazteko darabilgun bide bat.

«Almenera» nabaritzeko, ba-dago beste bide bat: Menekoera'n ikusitako aditzerai *-KE* atzizkia gañeratzea; ta -KE atzizki ori, batzuetan, erdizkia biurtzen da, laguntzaīle iragankoŕa ikastean ikusiko danez.

Azkenez, esandako bi bide oyek alkaŕekin ere darabilzkigu.

-KE atzizkia, almenera adierazteko, aspaldin, aditz iragankoŕetan bakaŕik erabiīi bide zan; eta asmoa bera, iragangaitzetan, *-TE* beste atzizkiaz ematen zan. Gaur, lenengoa bigaŕenaren aloŕean sartu da, baña bere tokitik kendu gabe, ta oŕela, aditz iragangaitzen almenera, bien artean egindako *-TEKE* beste atzizkiaz egiten da.

«Eziñera», esan dugunez, EZIN itzaren bidez adierazten da; bera erabiltzea, oraiñaldi ta lenaldian beaŕezkoa da; ta beste aldietan EZIN ordez, EZ AL bi itzak erabiīi ditezke (1) Onela:

ALMENERA

		Oraiñaldia (1'go. erabidea)		Lenaldia (2'gn. erabidea)	
		Iragangaitzak	Iragankoŕak	Iragangaitzak	Iragankoŕak
AL	:	AL NAIZ	AL DUT	AL NINTZAN	AL NUEN
-KE	:	NAITEKE	DEZAKET	NINDEKE	NEZAKE

E. b.: Etoŕi al naiz — Edan al dut — Etoŕi al nintzan — Edan al nuen
Etoŕi naiteke — Edan dezaket — Etoŕi nindeke — Edan nezake

Altube jaunak, «Erderismos» bere idaztian, 249'gn. oŕialdean, bi era oyei (ta dagozkien Eziñera'renai berdin), «Oraiñaldiko Almenera» ta

(1) Ikusi: EZIN'i buruz 73'gn. ikaskayan esaten dana.

«Oraiñaldiko Geroko Almenera» deitzean, beren zentzunari buruz bereizten ditu: lenengoa, almenaren egipena «egiten ari danean» erabiltzeko, ta bigaŕena, egipen ori mintzatzen danetik «gerokoan» egin beaŕ danerako.

E. b.: Eskuan daramadan au, eraman *al dut* (*oraintxe* eraman *al dut*).
Zuk daukazun ori, eraman *dezaket* (*geroxeago* eraman *al dut*).

Adibide auek, enurarik gabe, Eraketaren lenengo bideak oñaŕia duen oraiñaldikoak dira. Baña, geron iritziz, berdin gertatzen da Eraketaren bigaŕen bideak oñaŕia duen lenaldian ere.

Eta antzekoa dan gisaz, auxe esan dezakegu: Lenengo era, lenaldiko almenera adierazten zan «unealdi»'an egipena «egiten ari zan»'ean erabiltzekoa da; ta bigaŕena, «unealdi»'aren «geroxeago»'an. Eta adibideak onela emateko:

Eskuan neraman ura, eraman *al nuen* (*orduantxe* eraman *al nuen*).
Zuk zeneukan ura, eraman *nezake* (*geroxeago* eraman *al nuen*).

EZIÑERA

		Oraiñaldia (1'go. erabidea)		Lenaldia (2'gn. erabidea)	
		Iragangaitzak	Iragankoŕak	Iragangaitzak	Iragankoŕak
EZIN	:	EZIN NAIZ	EZIN DUT	EZIN NINTZAN	EZIN NUEN
-KE	:	EZIN NAITEKE	EZIN DEZAKET	EZIN NINDEKE	EZIN NEZAKE

E. b.: Ezin etoŕi naiz — Ezin edan dut — Ezin etoŕi nintzan — Ezin edan nuen.
Ezin etoŕi naiteke — Ezin edan dezaket — Ezin etoŕi nindeke — Ezin edan nezake.

Ba-dirudi, 2'gn. erabideko aditzerak, batez ere -KE atzizkia daramatenak, Baldintzaera-zentzuna dutela, baña ez dira oŕelakoak; naiz oraiñaldian naiz lenaldian, egitan, Almenera-zentzuna dutelako. Kanpion jaunak diñoenez, («Gramática», 641'gn. oŕialdean), auxe gogoratu beaŕ dugu: «Geroaldia», «Almenera» ta «Baldintzaera»'n, anbiolako asmoen alkartasuna dago, ela.

Izan ere, DEZAKET «Erderismos»'en zentzunaz artzen badugu (geroxeago *al dut*), egitan, geroaldi-asmoa ikus diteke oŕ; eta era berean NEZAKE artzean (geroxeago *al nuen*), benetan baldintzaera-zentzunaz aŕ liteke; ta oso saŕi zentzun oŕezaz erabiltzen da.

NAITEKE, DEZAKET, NINDEKE, NEZAKE aditzerak, eta beste

notiñai dagozkienak, jokatzean, lenengo biak oraiñaldirako ta beste biak lenaldirako bakaŕik erabiltzen dira.

NAITEKE, DEZAKET, ... aditzera auek, naiz Menekoera'zko eŕoa euki, Tinkiera'zko zentzuna dute; baña alkaŕekiko zentzuna ukan dezan atzizkiren bat artzen badute, orduan Menekoera'zko esan-naya adierazten dute.

Onela: Etoŕi nindeke*la* (1) (Etoŕi al nendīla uste-izan zuen).
Egin dezakeda*nean* (Egin al dezadanean egingo dut ori).

Goraxeago esan dugunez, Oraiñaldi ta Lenaldian izanezik, EZIN ordez, EZ AL erabil ditezke, uŕengoan ipintzen diran adibideetan agertzen danez.

Beraz, -KE atzizkiarekin eratutako aditzerak, oraiñaldi ta lenaldiaren asmoak adierazteko bakaŕik erabīliko ditugu; beste aldietarako, ezagutzen diran AL-IZAN eta EZIN-IZAN aditzen aditzerak artuko ditugu.

Bigaŕen aditzera oyen adibidez, ikusitako aldi guzietako lenengo notiñarenak bakaŕik nabari-eraziko ditugu orain:

ALMENERA ta EZIÑERA

Al eta EZIN edo EZ AL itzak oñaŕiz artuta, egiten diran aditzerak:

IRAGANGAITZAK (E. b.: ETOŔI) IRAGANKOŔA (E. b.: EDAN)

Tinkiera	Oiturazko oraiñaldia	(Lenengo erabidea)
Etoŕi *al*-izaten naiz		Edan *al*-izaten dut
Ezin etoŕi izaten naiz		*Ezin* edan izaten dut
Enaiz etoŕi *al*-izaten		*Eztut* edan *al*-izaten

Tinkiera	Igaroaldia	(Lenengo erabidea)
Etoŕi *al*-izan naiz		Edan *al*-izan dut
Ezin etoŕi izan naiz		*Ezin* edan izan dut
Enaiz etoŕi *al*-izan		*Eztut* edan *al*-izan

Tinkiera	Geroaldia	(Lenengo erabidea)
Etoŕi *al*-izango naiz		Edan *al*-izango dut
Ezin etoŕi izango naiz		*Ezin* edan izango dut
Enaiz etoŕi *al*-izango		*Eztut* edan *al*-izango

(1) Ikusi: Azkue, M. 788.

Tinkiera	Oiturazko lenaldia	(Bigaŕen erabidea)
Etoŕi *al*-izaten nintzan		Edan *al*-izaten nuen
Ezin etoŕi izaten nintzan		*Ezin* edan izaten nuen
Enintzan etoŕi *al*-izaten		*Enuen* edan *al*-izaten

Tinkiera	Len-lenagoaldia	(Bigaŕen erabidea)
Etoŕi *al*-izan nintzan		Edan *al*-izan nuen
Ezin etoŕi izan nintzan		*Ezin* edan izan nuen
Enintzan etoŕi *al*-izan		*Enuen* edan *al*-izan

Tinkiera	Lenaldi-gerokoa	(Bigaŕen erabidea)
Etoŕi *al*-izango nintzan		Edan *al*-izango nuen
Ezin etoŕi izango nintzan		*Ezin* edan izango nuen
Enintzan etoŕi *al*-izango		*Enuen* edan *al*-izango

Baldintzaera	Geroaldi urbīena	(Bigaŕen erabidea)
Etoŕi *al*-izango nintzake		Edan *al*-izango nuke
Ezin etoŕi izango nintzake		*Ezin* edan izango nuke
Enintzake etoŕi *al*-izango		*Enuke* edan al-izango

Baldintzaera'zko aditzera auen ordez, saŕi egiten dan bezela, -KE atzizkiarekin eratutako beste auek erabīli ditezke; eta zentzuna berbera izan diteke:

Iragangaitzak	Irangankoŕak
Etoŕi nindeke	Edan nezake
Ezin etoŕi nindeke	Ezin edan nezake

Baldintzaera'zko Lenagoko Geroaldia, Geroaldi Urbīen'etik irteten da ezagutzen danez, -KE'en ordez, -*KEAN* jartzean.

Baldintzaerazko Ustekizuna	Geroaldia	(Bigaŕen erabidea)
Etoŕi *al*-izango banintz		Edan *al*-izango banu
Ezin etoŕi izango banintz		*Ezin* edan izango banu
Etoŕi *al*-izango *ezpanintz*		Edan *al*-izango *ezpanu*

Baldintzaerazko Ustekizuna	Lenagokoa	(Bigaŕen erabidea)
Etoŕi *al*-izan banintz		Edan *al*-izan banu
Ezin etoŕi izan banintz		*Ezin* edan izan banu
Etoŕi *al*-izan *ezpanintz*		Edan *al*-izan *ezpanu*

Menekoera	Oraiñaldia	(Lenengo erabidea)
Etoŕi *al*-izan nadin		Edan *al*-izan dezadan
Ezin etoŕi izan nadin		*Ezin* edan izan dezadan
Etoŕi *al*-izan enadin		Edan *al*-izan eztezadan
Menekoera	**Lenaldia**	**(Bigaŕen erabidea)**
Etoŕi *al*-izan nendin		Edan *al*-izan nezan
Ezin etoŕi izan nendin		*Ezin* edan izan nezan
Etoŕi *al*-izan enendin		Edan *al*-izan enezan

Menekoera'zko (oraiñaldia ta lenaldia) aditzera auetan, -N'ren ordez, -LA atzizkia jartzen badugu, dagozkien beste auek izango ditugu :

Etoŕi *al*-izan nadi*la*	Edan *al*-izan dezada*la*
Ezin etoŕi izan nendi*la*	Edan *al*-izan enezala

Egiñkizunak

1. Lauki ontan aipatzen diran lau aldietan, sei izenordeai dagozkien almanerazko JOAN'en aditzerak bayetzean ipiñi beaŕ dira, kulatzen ordez esan eta idazteko :

	Igaroaldia	Geroaldia	Len-lenagoaldia	Lenaldi-gerokoa
Ni	Joan al-izan naiz	...	...	...
Zu	...	joan al-izango zera	...	...
Bera	...	...	joan al-izan zan	...
Gu	...	...	...	joan al-izango giñan
Zuek	Joan al-izan zerate	...	...	...
Berak	...	...	joan al-izan ziran	...

2. Emen ematen ditugun esakuntzetan, igaroaldiko ta len-lenagoaldiko aditzerak agertzen dira, ta alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira ; bai ta bayetzean dagozenak ezetzean jartzeko ta alderantziz, ezezkoak bayezkoen bidez aldatzen ere ; beti AL-IZAN erabiltzean ; kulatzen ordez esan eta idatzi :

Gogo aundiaz *erdu al-izan* naiz zuengana ; ... - *Etziñan jetxi al-izan* goizerarte ; ... - Gure auŕa eŕaz *igo al-izan da* ; ... - Zuek eldu baño lenago *jeiki al-izan giñan* orduan ; ... - *Ez zerate gelditu al-izan* guregaño eldu baño lenago ; ... - Gure artean *geratu al-izan ziran* lasai ta luzaroan ; ... - *Ez nintzan igaro al-izan* jaun oyek eskatu zidatenean ; ... - Ondo *abiatu al-izan zera* lasterketan, baña alaz ere oso berandu eldu zera ; ... *Etzan* bakaŕik *bideratu al-izan* baso ayetan ibiĺi zanean ; ... - Beaŕa zan aldian *agertu al-izan gera* ; ... - *Ez ziñaten ostendu al-izan* zuen irakasleak azaldu baño lenago ; ... - *Ez dira aspertu al-izan* ain onak diran adiskide oyekin.

3. Ageŕerazten ditugun galdera auei erantzun egoki bana eman beaŕ zaye ; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Opoŕ-egunak amai zekizkidala bilduŕ nintzan : Nor zan bilduŕ opoŕ-egunak amaitu zekizkiola ? ; ... Zer zala-ta, bilduŕ ziñaten ? ; ... - Ume ayek bilduŕ al ziran opoŕ-egunak amai zekizkiela ? ; Bai, ayek ere ... -- Andik joan ziñaten jo ez zintzateen : Nundik joan giñan jo ez gintzaten ? ; ... - Ni joan al nintzan andik jo ez nintzazun ? ; Ez, zu ... - Zu joan al ziñan andik jo ez zintzagun ? ; Bai, ... -- Arestian geŕiko ayek utzi zizkiguten eman genizaizkizuen : Nori utzi zizkioten arestian geŕiko ayek eman zizaizkigun ? ; ... - Noiz utzi zizkizueten geŕiko ayek eman zenizaizkiguten ? ; ... - Niri utzi al zizkidaten geŕiko ayek eman nizaizkizuen ? ; Ez, ... baño. -- Berengana joan gindezela agindu ziguten, baña ez giñan al-izan : Norengana ez ziñaten joan al-izan ? ; ... - Nortzuei agindu zieten berengana joan zitezen ? ; ... - Zu joan al-izan ziñan guregana, ori egiteko agindu genizunean ? ; Ez, ni ere ... -- Ibayean ondo igari al-izaten dugu : Nork igari al-izaten du ondo ibayean ? ; ... - Nun igari al-izaten duzute ondo ? ; ... - Zuek ere ibayean ondo igari al-izaten duzute ? ; Bai, guk ere ... -- Ez dugu jan al-izan oŕenbeste gazta : Nork ez du jan al-izan oŕenbeste gazta ? ; ... - Zer eztuzute jan al-izan ? ; ... - Nik jan al-izan dut oŕenbeste gazta ? ; Bai, ... -- Gure sakeletan sartu genituen aztu ez zekizkigun : Nun sartu zenituzten aztu ez zekizkizuen ? ; ... - Zertarako sartu zenituen zure sakeletan ? ; ... - Nik ere nire sakeletan sartu al nituen aztu ez zekizkidan ? ; Ez, ... baizik. -- Asko deadaŕ-egin beaŕ-izan nuen entzun zizaidaten : Nork deadaŕ-egin beaŕ-izan zuen asko entzun zizayoten ? ; ... - Zertarako deadaŕ-egin beaŕ-izan zenuen asko ? ; ... - Gizon oyek ere asko deadaŕ-egin beaŕ-izan al zuten entzun zizayeten ? ; Bai, oyek ere ... -- Oarkabez, zeneuzkaten gaztak eraman balizkizuete, biurtu dizaizkizuetela eskatu ezayezute : Zer eskatu beaŕ diegu, geneuzkan gaztak oarkabez eraman balizkigute ? ; ... - Nori eskatu beaŕ diogu biurtu dizaizkigula, guk geneuzkan gaztak oarkabez eraman balizkigu ? ;

... - Ayei eskatu beaŕ al diezu, zeneuzkan gaztak oarkabez eraman balizkizute, biurtu dizaizkizutela?; Bai, ... -- Ez ziran eldu al-izan mendi artako tontoŕeraño: Nor etzan eldu al-izan mendi artako tontoŕeraño?; ... - Noraño etziran eldu al-izan?; ... - Zu eldu al-izan ziñan mendi artako tontoŕeraño?; Ez, ni ere ... -- Gure irakasleak lasteŕ jetxi zaiteztela esan digu: Nori esan dio zuen irakasleak lasteŕ jetxi gaitezela?; ... - Zer esan dizue zuen irakasleak?; ... - Zu lasteŕ jetxi zaitezela esan al dizu zure irakasleak?; Ez, ... baizik. -- Gure indaŕ guziak erabiīli beaŕ-izan genituen an lotu ez gintzaten: Nork erabiīli beaŕ-izan zituen bere indaŕ guziak an lotu ez zezaten?; ... - Zer erabiīli beaŕ-izan zenuten an lotu ez zintzateen?; ... - Nik ere nire indaŕ guziak erabiīli beaŕ-izan al nituen an lotu ez nintzaten?; Ez, zuk ... -- Gaztedi ura ondo azi zuten naigabeak eman ez zizaizkien: Nola azi zenuten gaztedi ura naigabeak eman ez zizaizkizuen?; ... - Nor azi zenuen ondo naigabeak eman ez zizaizkizun?; ... - Nik ere gaztedi ura ondo azi al nuen naigabeak eman ez zizaizkidan?; Ez, ... baño. -- Ongi atotsi nintzazuten, zuengana pozaŕen pozez joango nintzake: Norengana joango ziñake pozaŕen pozez, ongi atotsi zintzagun?; ... - Ni ere zuenganuntz pozaŕen pozez joango al nintzake ongi atotsi nintzazuten?; Bai, gure ustez ... -- Ez zenuen ekaŕi al-izango eguŕ guzi ori: Nork etzuen ekaŕi al-izango eguŕ guzi ori?; ... - Zer ez nuen ekaŕi al-izango?; ... - Zuek ekaŕi al-izango zenuten eguŕ guzi ori?; Bai, guk ...

4. Ongi irakuŕi antzerkizun baten alkaŕizketa au; gero, «Araba» ta «Bizkaya»'k diñotena oñaŕitzat arturik, Gipuzkoa, Napaŕoa, Laburdi, Benapaŕoa ta Zuberoa'ri buruz zerbait esan eta idatzi, bakoitzari dagokionez:

«EUSKAL-EŔIA'REN ETORKIZUNA...!»

(«antzerkitxoa»)

Andereñoa: «Jaun-andreak...! EUSKAL-ERRI du bere izena jauregi onek. Ludi'ko jauregietan zaaŕenetako bat, zaaŕena ez baldin bada...!

Baztaŕ edeŕak ditu: mendiak ugari, lurzabalak ez gutxi, belardiak asko, basoak ez gutxiago ta itxaso-zati edeŕ bat.

Euskal-Erria'n zaudete, beraz.

Ezagutu ditzagun orain bertako biztanleak.

Aitoŕ degu au: euzkaldunon aita...!

Aitoŕ: Aitoŕ naiz, bai...! Ta euzkaldunen aita. Ta euzkaldunen aita izateak ematen dit pozik aundiena. Bai ta kezkarik aundiena ere...! Noiz arte izango ote naiz izen oŕen jabe?

Andereñoa: Euzkaldunok nai-izango dugun arte...!

Aitoŕ: Egia diñozu, andereño: euzkaldunok nai-izango duzuten arte...!

Bañan noiz arte nai-izango ote duzute ori, euzkaldunok... Noiz arte?

Andereñoa: Araba duzute au...!

Araba: Eta Gasteiz dugu arabaŕok gure uri-buru; Mendi batzuk baldin baditugu ere, lauak dira gure luŕ geyenak. Gaztel-eŕi'arekin ditugu gure mugarik zabalenak, eta ortik datorkigu, euzkaldun bezela, gure galbiderik aundiena...!

Andereñoa: Bizkaya duzute au...!

Bizkaya: Eta Bilbao dugu gure uri-buru. Ta burni-meatzak eta Ibaizabal'eko lantegi aundiak ipaŕaldera bota digute gure euzkera. Gordeko algaitu, ala ere, euzkaldun, Gernika'ko gure zugatz ospetsua».

«20 ipui eta...» (123-4-5'kn. oŕialdeetan) Albisu ta Ayerdi'taŕ Anastasio.

EUN ETA AMALAUGAŕEN IKASKAYA

Ikaskai ontan eta uŕengoetan, auŕekoan aipatu ditugun -KE atziz-kiarekin eratutako aditzerak erakutsiko ditugu, naiz -KE'rekin bakaŕik naiz -TEKE-rekin, oraiñaldi ta lenaldian.

ADITZ-JOKOA

IRAGANGAITZA - LAGUNTZAĿEA - **ORAIÑALDIA**

ERAKETAREN LENENGO BIDEA - -TEKE DARAMATEN ADITZERAK

	ALMENERA		EZIÑERA
IZAN	NAITEKE ZAITEZKE DITEKE	EZIN IZAN	NAITEKE ZAITEZKE DITEKE
	GAITEZKE ZAITEZKETE DITEZKE		GAITEZKE ZAITEZKETE DITEZKE

IRAGANGAITZA - LAGUNTZAĿEA - **LENALDIA**

ERAKETAREN BIGAŕEN BIDEA - -TEKE DARAMATEN ADITZERAK

	ALMENERA		EZIÑERA
IZAN	NINDEKE ZINDEZKE LITEKE	EZIN IZAN	NINDEKE ZINDEZKE LITEKE
	GINDEZKE ZINDEZKETE LITEZKE		GINDEZKE ZINDEZKETE LITEZKE

Aditzera guzti auek, 96 ta 105'kaŕen ikaskayetan ikusitako Mene koera'zko oraiñaldi ta lenaldiarenetatik irteten dira, ongi oaŕ ditekenez; aldakuntza txikiak egiñik, bi berezi auek ditugu nabarierazteko: Aditzera ayen azken -N izkiaren ordez, -TEKE ipiñi dugu, ta, lenaldian, irugaŕen notiñaren lenengo izkia dan Z-'ren ordez, L- jaŕi ere, Baldintzaeran egin zan bezela.

Lenaldiaren lenengo ta bigaŕen notiñetan, -ND- izkiak alkartuta ditugu, ta oyen ordez, -NT- ere jaŕi ditezke, onela esateko: NI*ND*EKE edo NI*NT*EKE, ZI*ND*EZKETE edo ZI*NT*EZKETE.

Lenaldian jaŕitako aditzeretan, -*AN* beste atzizkia gañeratzen badugu, ta irugaŕen notiñetan, astekoa dan L- izkiaren ordez Z- jartzean, LENAGOKO GEROALDIA egingo dugu; onela:

Izan NINDEKEAN, Izan ZINDEZKEAN, Izan ZITEKEAN, eta abaŕ.

Aditzera guzti auek iragangaitzak diran aditzekin darabilzkigu, ta aditz oyek -*i* edo -*tu* izkietaz amaitzen badira, adierazle oyek, Menekoeran bezela, ken ditezke.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian sei adei-yabeai dagozkien laguntzaĿearen aditzerak, aipatzen diran Almenera'zko iru aldietan jaŕi; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

		Oraiñaldia	Lenaldia	Lenagoko geroaldia
Ni	Izan	naiteke	...	...
Zu	Izan	...	zindezke	...
Bera	Izan	...	...	zitekean
Gu	Izan	...	gindezke	...
Zuek	Izan	zaitezkete	...	...
Berak	Izan	...	...	zitezkean

2. Emen agertzen diran esakuntzetan, *Almenera'zko* aditzerak ipintzen ditugu; batzuk *oraiñaldian* eta beste batzuk *lenaldian*; eta guzti oyek dira alkaŕekiko aldatu beaŕ diranak, lenengoen ordez bigaŕenak, eta bigaŕenen ordez lenengoak esaten eta idazten:

Ni egunero *etoŕ naiteke* zuengana; ... - Zu eŕaz *eldu zindezke* muño oyetaraño; ... - Bera *auzpeztu diteke* bere otoyak esateko; ... - Gu *makuŕ gindezke* zuek nai-izango bazenute; ... - Zuek *belaunikatu zaitezkete* baseliza ortara zoaztenean; ... - Berak *obetu litezke* laisteŕ, ori egiteko gerturik egongo balira; ... - Ni *gaiztotu nindeke* gazte biuŕi oyekin ibiĿiko banintz; ... - Zu *kakotu zaitezke* zugatz adartsu oyen azpitik igarotzeko; ... - Bera *aunatu liteke* bide maldatsu oyetan barna ibiĿi ezkero; ... - Gu *argaldu gaitezke* ori baño geyago jaten ezpadugu; ... - Zuek *akitu zindezkete* ain luzeak ziran txango ayetan; ... - Berak *erkitu ditezke* lan gogoŕ oyetan jardun beaŕ baldin badute; ...

3. Galdera guzti auei erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, oitura dugunez; kulatzen ordez, esaten eta idaztean:

Tontoŕ artaraño zu bezin laisteŕ igo gaitezke: Nor igo diteke ni bezin laisteŕ tontoŕ artaraño?; ... - Nor bezin laisteŕ igo zaitezkete tontoŕ artaraño?; ... - Zu igo al zaitezke ayek bezin laisteŕ tontoŕ artaraño?; Bai, ni ere ... -- Utzi geniena jan zezateneko, makiña bat egun igaroko zan: Zenbat egun igaroko zan, utzi zeniotena jan zezaneko?; ... - Nik utzi nizuna jan zenezaneko ere makiña bat egun igaroko al zan?; ... - Eta guk utzi genizuena jan zenezateneko ere makiña bat egun igaroko al zan?; Ez, ... baño. -- Auŕak ondartzatik uŕundu nituen auldu ez zekizkidan: Nortzuk uŕundu zenituen ondartzatik auldu ez zekizkizun?; ... - Nundik uŕundu zenituzten auŕak auldu ez zekizkizuen?; ... - Oŕek ere bere auŕak uŕundu al zituen ondartzatik auldu ez zekizkion?; Bai, oŕek ere ... -- Txoko artatik ken ez gintzatela nai-izango genukean: Nork nai-izango zukean, txoko artatik ken ez zezatela?; ... - Nundik nai-izango zenukean ken ez zintzaen?; ... - Oyek nai-izango al zuketean txoko artatik ken ez genitzala?; Bai, oyek ere ... -- Gu baño lenago jetxi liteke, baña etzuen nai: Nor jetxi liteke zuek baño lenago?; ... - Nork etzuen nai zuek baño lenago jeixtea?; ... - Gu jetxi al gindezke zuek baño lenago?; Bai, eŕaz ... -- Andik egotzi nintzatela eskatu zieten, baña ez zieten jaramonik egin: Nundik egotzi zintzaela eskatu zieten?; ... - Gu andik egotzi gintzazutela eskatu al zizueten?; ... - Ni andik egotzi nintzazula eskatu al zizuten?; Ez, ... baizik. -- Nik ezkutatu nizuna aurki zenizaidan, amaika uŕats eman beaŕ-izango zenuke: Zertarako eman beaŕ-izango nuke amaika uŕats?; ... - Nork eman beaŕ-izango luke amaika uŕats, guk ezkutatu geniona aurki zizaigun?; ... - Guk ere amaika uŕats eman beaŕ-izango al genuke, ezkutatu zenigutena aurki genizaizuen?; Bai, zuek ere ... -- Zu ona izan zaitezke; zergatik ez zera?; egitan, ezin izan naiteke orain naizen baño obea: Nor ezin izan diteke orain dan baño obea?; ... - Zer ezin izan zaitezke?; ... - Auŕ ayek izan al ditezke orain diran baño obeak?; Bai, auŕ ayek ... -- Zure anayak eldu artean, obe izango da jan dezagula, zer iruditzen zaizu?; ongi iruditzen zait nire anayak eldu artean jan dezazutela: Nori iruditzen zayo ongi, bere anayak eldu artean jan dezadala?; ... - Zer iruditzen zait niri?; ... - Ayei ere ongi iruditzen al zaye, beren anayak eldu artean guziok jan dezagula?; Ez, ... baño. -- Ezagutu ez zintzategun zuen burua arduraz estali zenuten, baña alpeŕik: Zertarako estali genuen arduraz gure burua?; ... - Nortzuek estali zuten arduraz beren burua ezagutu ez zenitzaten?; ... - Nik ere nire burua arduraz estali al nuen, ezagutu ez nintzazuten?; Ez, ... baño. -- Ken itzazu ortik aŕautz oyek, seinzai ayek zapal ez dizaizkizuten: Nundik kendu beaŕ ditut aŕautz oyek seinzai ayek zapal ez dizaizkidaten?; ... - Zer kendu beaŕ dut ortik, seinzai ayek zapal ez dizaidaten?; ... - Zuek ere aŕautz oyek ortik kendu beaŕ al dituzute, seinzai oyek zapal ez dizaizkizueten?; Bai, guk ere ... -- Lenago etoŕi zitezkean, baña etzuten nai-izan: Nortzuk etoŕi zitezkean lenago?; ... - Noiz etoŕi nindekean?; ... - Zuek ere lenago etoŕi al zindezketean?; Ez, gu ezin ... -- Zuen adiskideen etxera joan gindezke, London'era joatea noiz uste duten esan dizaiguten: Zertarako joan zindezkete gure adiskideen etxera?; ... - Nora joan nindeke ni, London'era joatea noiz uste duen, esan dizaidan?; ... - Atso ori joan al liteke bere adiskideen etxera, London'era joatea noiz uste duten esan dizayoten?; Bai, atso ori ere ... -- Auŕak bazkal dezatenartean, gu emen lasai egon gaitezke: Nortzuk egon ditezke emen lasai, auŕak bazkal dezatenartean?; ... - Nik bazkal dezadanartean ere, zuek emen lasai egon al zaitezkete?; ... - Ni ere emen lasai egon al naiteke, zuek bazkal dezazutenartean?; Ez, ... baizik. -- Itxasontzia ondatu ez dakizun, ondo gertu beaŕ-izango duzu: Zer gertu beaŕ-izango dut, ondatu eztakidan?; ... - Nola gertu beaŕ-izango dugu itxasontzia, ondatu ez dakigun?; ... - Aŕantzale oyek ere itxasontzia ondo gertu beaŕ-izango al dute ondatu ez dakien?; Bai, ... ere, ...

4. Salmoak diran bertso auek ondo irakuŕi beaŕ dira; ta gero, naiz bertsoai buruz naiz itzatalekiko, nolakoak diran ikusi ta esan:

«D 30 h. 31»

«1. NERETZAT IZAN beso zabal,
Jauna, betikotz ez nadin gal.

2. Azka nezazun eman egal,
Niganat lasteŕ otoi! apal.

3. Izan zakizkit iges-aŕi,
Eta goi-iri azkagaŕi.

4. Zu zaitut aŕi, Zu goi-iri,
Zu bidez-bide aintzindari.

5. Bertzen saretik azke noa,
Nere zain duzu Zuk besoa.

6. Zure eskutan nago dena,
Gaizkatzen nauzu, Jainko Jauna.

7. Astio duzu bai astio,
Nork zerbait ezdeus baitu Jainko.

8. Ni Jainkoa'ri nagokio,
Arek neretzat amodio.

9. Goxatu duzu nere mina,
Zuauk arindu nauzu, Jauna.

10. Ez nauzu egin etsayena,
Bañan bai aldiz xut emana.

II

11. UŕIKAL, JAUNA, indaŕ eman;
Zenbat min eta belduŕ dudan!

12. Nigaŕak dauzkat begietan,
Ariman eta ezuŕetan.

.....

23. Begitarte on egin, Jauna,
Zure zurea bainaiz dena.

24. Erakuts neri biotz ona,
Ez dadiīla gal zure dena».

«Salmoak» (69-70'gn. oŕialdeetan) X. Iratzedeŕ - G. Lertxundi.

EUN ETA AMABOSKAŔEN IKASKAYA

-ERA, -KERA, -ARA, -KARA, -TARA atzizkiak.

Atzizki auek zentzun batzuk dauzkate, ta noiz edo noiz, oyetako batzuek esan-naya bera dute; orduan, -KERA ta -KARA, -ERA ta -ARA'en aldakuntzak dira.

-ERA, aditzondo batzuekin, *kaizua* adierazteko erabiltzen da.

Onela: Luz*era* (luze danaren kaizua); Zabal*era*, Andi*era*, Sakon*era*, Lodi*era* (zabal, andi, sakon, lodia danaren kaizua).

-ERA ta -ARA, zentzun auetaz erabiltzen dira: Gisa, Antza, Izkuntza.

Onela: Bizi*era*, Ibiīl*era* (bizi ta ibiīliaren gisa); Euzk*era* (euzkaldunen izkuntza, euzkaldunen gisa); Erd*era* (euzkera ez dan beste izkuntza); So*ara* (begiratzeko gisa) (1).

-KERA ta -KARA ere gisa-atzizkiak dira, auŕekoen aldakuntzak.

E. b.: Ego*kera*, Ibil*kera*, Iza*kera* (egon, ibiīli, izan gisa); Jo*kera* (jotzeko gisa (e. b.: piīlota'ri)) (2).

-ARA, -ADA'ren aldakuntza bezela, batutzen zayon itzak esan nai duenetik soŕ diteken egipenaren zentzunaz darabilgu.

E. b.: Zuŕut*ada* edo Zuŕut*ara* (zuŕut egitearen egipena); Buŕund*ada* edo Buŕundara (buŕunda egitearen egipena); Dard*ada* edo Dard*ara* (dardaŕ egitearen egipena) (3).

ARA!, ez atzizki bezela, oyuitza bezela baño, itzegiten zayonai adipena eskatzeko zentzunaz erabiltzen da.

Onela: *Ara*!, nik esango dizut nola dan ori (ots!, aditu ezazu!, ...).

-TARA, ageŕerazleai alkartzen zaye, *gisa* edo *antza*'ren zentzunaz, onela: One*tara*, Oŕe*tara*, Are*tara* (onen, oŕen, aren gisaz) (4).

-KERA ta -TARA, toki-aditzondoai alkartuta, gisa-zentzunaz be erabiltzen dira: *Auŕe*, *Atze*, *Albo*, ... itzekin, lenengoa; ta Eskuma, Ezkeŕ, ... izenekin, bigaŕena.

---

(1) Ikusi: Azkue, Dic.
(2) Ikusi: Azkue, Dic.
(3) Ikusi: 136'gn. ikaskaya.
(4) Ikusi: 30 ta 148'gn. ikaskayak.

E. b. : Auŕe*kera* (auŕez), Atze*kera* (atzez), Albo*kera* (alboz).
Eskuma*tara* (eskuma aldera), Ezker*tara* (ezkeŕ aldera), Luze*tara* (luze-zentzunaz), Okeŕe*tara* (okeŕ-zentzunaz), Zabale*tara* (zabal-zentzunaz).

-KARA, tipitzeko zentzuna emateko ere darabilgu.

E. b. : Zuri*kara* (zurixko-zentzunaz).

KARA, izena bezela, nunbait, *Margo*'aren esan-nayaz erabiltzen da.

-ARA ta -KARA, adimen gabekoen ernal-iŕitsa adierazteko erabiltzen dira.

Onela : O*ara* (zakuŕemearen ernal-iŕitsa); Ar*kara* (ardiaren ernal-iŕitsa).

Eginkizunak

1. Lauki ontan, «eldu» aditzerako sei adi-yabei dagozkien laguntzaīlearen aditzerak, esaten diran aldietan ipiñi; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

	Baldintzaera'zko Geroaldi Urbiīena	Almenera'zko Lenaldia
Ni	Elduko nintzake	...
Zu	...	eldu zindezke
Bera	Elduko litzake	...
Gu	...	eldu gindezke
Zuek	Elduko ziñakete	...
Berak	...	eldu litezke

2. Emen ematen diran esakuntzetan, Almenera'zko Lenaldian eta bere Lenagoko Geroaldian jaŕitako aditzerak agertzen dira; guziak alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira; bayetzean dagozenak ezezkoen bidez aldatu ta alderantziz, ezezkoan dagozenak bayezkoen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Ni zu baño lasteŕago *zaŕ nindeke*, onela jaŕai ezkero; ... - Urian bizi-izan baziña, ezin *gaztetu zindezkean*; ... - Burdin ori aizetan egonez, arin *erdoitu liteke*; ... - *Endekatu al gindezkean* leku nazkagaŕi ayetan bizi-izan bagiña?; ... - Ene ustez, *ezin busti zindezkete* asko, aterkia eraman ezkero; ... - Ekaŕi dituzun bedaŕak, onezkero *legoŕ zitezkean* ondo; ... - Oraindik *ezin zimurtu nindekean*, ene burua oso ongi zaintzen nuelako; ... - Lasai *itxoin zindezke* etxean, gurasoak eldu arte; ... -

Lore-sorta ori berealaxe *belaskatu zitekean*, uraz jartzen ezpaduzute; ... - Gu *ezin zimeldu gindezke* laisteŕ, gure eŕian egongo bagiña; ... - Gure zai, biar arte *egon al zindezkete* emen?; ... - Gazte oyek *ezin etsi litezke*, entzungo ezpazeniete?; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, oi dugun bezela; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Ezin joan gaitezke orain zuekin; ordea, zuek emen gera zindezkete : Norekin ezin joan zaitezkete orain?; ... - Noiz ezin joan zaitezke zu nirekin?; ... - Ni emen gera al nindeke, ordea?; Bai, zu ere ... -- Zer egingo nuke nik ume ayek uŕeratu zekizkidan?; maitasaŕe aundiagoaz jokatu beaŕ-izango zenuke, ume ayek uŕeratu zekizkizun : Nork jokatu beaŕ-izango luke maitasaŕe aundiagoaz, ume ayek uŕeratu zekizkion?; ... - Nola jokatu beaŕ-izango genuke, ume ayek uŕeratu zekizkigun?; ... - Zuk ere maitasaŕe aundiagoaz jokatu beaŕ-izango al zenuke, ume ayek uŕeratu zekizkizun? Bai, nik ere ... -- Ba-dakit egiñalak egingo zenitukela, igaŕi ez zizaizuten : Zer egingo nuke nik, igaŕi ez zizaidaten?; ... - Zertarako egingo genituke egiñalak guk?; ... - Auŕ oŕek ere egiñalak egingo al lituke, igaŕi ez genizayon?; Bai, auŕ oŕek ere ... -- Ara!, guk garbituko genizkizuke zure etxeko gelak, beŕiz zikinduko ezpazenizkigu : Zer garbituko zenidakete, beŕiz zikinduko ezpanizue?; ... - Nortzuek garbituko lizkidakete nire etxeko gelak, beŕiz zikinduko ezpanizkie?; ... - Nik garbituko al nizkizueke zuen etxeko gelak, beŕiz zikinduko ezpazenizkidate?; Bai, uste dugu, zuk ere ... -- Ni, nai nezanean igo nindeke : Nor igo liteke nai zezanean?; ... - Zuek ere nai zenezatenean igo al zindezkete?; ... - Neskatil ayek ere igo al litezke nai zezatenean?; Ez, ... baño. -- Uri ontara ekaŕi zinduztegun zuen bizibidea obeto ikas zenezaten : Nora ekaŕi ginduzuten gure bizibidea obeto ikas genezan?; ... - Nor ekaŕi zenuten uri ontara, bere bizibidea obeto ikas zezan?; ... - Zu ekaŕi al zinduten uri ontara zure bizibidea obeto ikas zenezan?; Ez, ... baizik. -- Zera ..., jende oŕekin joan ez zindezela esan nai nizun : Zer esan nai zenidan?; ... - Zertarako esan nai zenigun ori?; ... - Guk esan nai al genizuen jende oŕekin joan ez zindeztela?; Bai, zuek ere ... -- Egitan nai-izan ezkero, gurekin erdu zitezkean : Nor erdu zitekean zuekin, nai-izan ezkero?; ... - Norekin erdu nindekean, egitan nai-izan ezkero?; ... - Dantzari oyek ere, egitan nai-izan ezkero, zuekin erdu al zitezkean?; Bai, oyek ere ... -- Txoko edeŕ ontan iīabete batzuetan ongi bizi zaitezkete : Nun bizi gaitezke ongi iīabete batzuetan?; ... - Nola bizi naiteke txoko edeŕ ontan iīabete batzuetan?; ... - Lekaime oyek

ere, txoko edeŕ ontan, iīabete batzuetan ongi bizi al ditezke?; Bai, lekaime oyek ere ... -- Ezin izan diteke ori, diñozun bezela, izan dediīa: Zer ezin izan diteke, diñodan bezela, izan dediīa?; ... - Nola ezin izan diteke ori izan dediīa?; ... - Izan al diteke ori, zuek diñozuten bezela, izan dediīa?; Bai, ... -- Uste dut pitin bat geldi litezkela, atseden-artzeko: Zertarako uste duzu pitin bat geldi gindezkela?; ... - Nork uste du, pitin bat geldi nindekela, atseden-artzeko?; ... - Guk uste al dugu, pitin bat geldi zindezketela atseden-artzeko?; Bai, zuek ere ... -- Oŕela jan dezatenartean, beren lanak ondo egiteko indaŕak izango dituzte: Noiz izango ditu oŕek indaŕak bere lanak ondo egiteko?; ... - Zertarako izango ditut nik indaŕak, oŕela jan dezadanartean?; ... - Zuk ere indaŕak izango al dituzu zure lanak ondo egiteko, oŕela jan dezazunartean?; Bai, nik ere ... -- Guregana eldu ditezenetik, gure sendiaren bizi-modua jakin eragingo diegu: Zer jakin eragingo diezute, zuengana eldu ditezenetik?; ... - Noiztik jakin eragingo didazute zuen sendiaren bizi-modua?; ... - Nik ere zuei nire sendiaren bizi-modua jakin eragingo al dizuet nigana eldu zaiteztenetik?; Ez, ... baizik. -- Gure aolkuak iñoiz aiztu ez lekizkizula nai-izango nuke: Zer nai-izango zenuke?; ... - Nork nai-izango luke bere aolkuak iñoiz aiztu ez lekizkigula?; ... - Ayen gurasoek nai-izango al lukete beren aolkuak iñoiz aiztu ez lekizkiela?; Bai, ayen gurasoek ere ... -- Leku ayetan zapuztu ez zintzateen, zuen egiteko era ondo zaindu beaŕ-izango zenukete: Zer zaindu beaŕ-izango genuke ondo, leku ayetan zapuztu ez gintzaten?; ... - Nortzuek zaindu beaŕ-izango lukete ondo beren egiteko era, leku ayetan zapuztu ez zitzaten?; ... Nik ere nire egiteko era ondo zaindu beaŕ-izango al nuke leku ayetan zapuztu ez nintzaten?; Bai, zuk ere ...

4. Ongi irakuŕi beaŕ da, besteetan bezela, uŕengo idazki-txatala; gero, usoak dirala-ta, eizari buruz batez ere, bakoitzak esan dezakena aipatu beaŕ-izango du, itzegiten eta idazten:

«USOA GURE MAITE-KANTETAN»

«Aŕigaŕia da gure abestietan usoari eman zayon lekua. Ez dut uste ainbeste erabiīi duen beste Eŕi'rik Ludi'an denik. Baxenabaŕ eta Xubero aldean geyen noski. Zergatik ote? Andik asko igaroten dalako? Mendi gaīuŕ ayetan eluŕaren maitekide biīakatzen da. Lantxurda ta eguzki-

-eŕañuak ortzadaŕa sortzen duten bezela, udazkeneko ego-aizearen maite miñezko besarkadak girotzen du ango tontoŕ gaiñetako lekunea. O! Ori'ko pagadi ezkurtsua! Zugan arkitzen ditu «Ur-zo-luma-gris gaxuak» geldi-aldi eroso ta jaki ugari. Eŕi baten izatea zaaŕago ta Izadi'arekin bat egiñago. Diñotenez, alegi ta antz-irudi zaleago oi dira ikastolik gabeko eŕiak, besteak baño.

Dena den, goraundiko zayo euzkaldunari gure egazti sotiīa; bere-berea dan zerbait bezela artua dauka. Eta besteak beste, gure Eŕi'ak ere, oarkabean, josta-jostari, usoa artu du bere irudipenen adierazgaŕi. Azketsi, jaun-andereak, baña iritziak-iritzi, nerea ematen oitua nago, axalekoa izanik ere. Dakitenek ixil-ixiīik egoten dira geyenetan, eta gero ni ta ni bezelako itzontziak ibiīi oi gera bazteŕetan. Usoarenak aipatu ditut, ez gutxi ta bai asko; aintzakotzat artu badut, ondoren esango dudanaren oñaŕi dedin izan da. Bai, euzkal-maite-kantetan usoa igaro ta igaro dabil, eta oraindaño, zorionez, pakezko abartxoa aoan eramanki dakusgu gure Euzkal-eŕietan.

Uste dut usoarekikorik aski esan dudala; zuek aspertzeko aña. Iñor ez omen da iīabete baten artean egunero uso bat jateko lain; zuek gaur bertan ogetamaŕ baño geyago iretsi dituzute: Nere zakuan urzo asko gelditu da oraindik. Orko Olinpiadetan aidera zabaldutako miīaka usoak ez ditut aipatu; gure itz-zuuŕetan agertzen diranak ere ez; uso-geznariak, eta ba-dute nundik oratu, lekurik-ezaz geratu zaizkit; Tiro-Pichon antolaketak eta abaŕ nere saretik kanpoan geratu dira. Bai ta beaŕ ere; gañontzean... nik ere Zepai zanak bezela esango dut: «Nik erabiīiak ez beste danak igaro dira».

«Usoa Maite-kantetan» (68-9'gn. oŕialdeetan) Fernando Artola Sagarzazu, «Bordari».

EUN ETA AMASEIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ALMENERA - EGINKOŔA - IRAGANKOŔA

«IZAN» ADITZ LAGUNTZAŁEA - IZAKAI-ADIZKIÑAK

ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA - IRUGAŔEN NOTIÑAREN **BAKAŔ-IZAKAYA**

Nik		-T
Zuk		-ZU
Berak		---
	IZAN D- e) -ZA- -KE-	
Guk		-GU
Zuek		-ZU- -TE
Berak		----TE

ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA - IRUGAŔEN NOTIÑAREN **ASKAŔ-IZAKAYA**

Nik		-T
Zuk		-ZU
Berak		---
	IZAN D- -IT- -ZA- -KE-	
Guk		-GU
Zuek		-ZU- -TE
Berak		----TE

LENALDIA - ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA - IRUGAŔEN NOTIÑAREN **BAKAŔ-IZAKAYA**

Nik	N-	
Zuk	Z-e-N-	
Berak	L-	
IZAN	e) -ZA- -KE-	
Guk	G-e-N-	
Zuek	Z-e-N-	-TE
Berak	L-	-TE

LENALDIA - ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA - IRUGAŔEN NOTIÑAREN **ASKAŔ-IZAKAYA**

Nik	N-	
Zuk	Z-e-N-	
Berak	L-	
IZAN	-IT- -ZA- -KE-	
Guk	G-e-N-	
Zuek	Z-e-N-	-TE
Berak	L-	-TE

EZIÑERA

Aditz iragangaitzetan ikusi dan bezela, jaŕitako aditzeraen auŕean EZIN itza ipintzen badugu, Eziñera'zkoak egingo ditugu.

Ondo ikus ditekenez, aditzera guzti auek, 98 ta 106'gn. ikaskayetan ikasi genituen Menekoera'zko besteetatik sortzen dira, bi aldaketa auek egitean: Menekoera'zko azken *-N* kentzen da ta bere ordez *-KE* atzizkia jartzen dugu; baña -KE au, beti, adi-yabearen itzatalen auŕetik joan beaŕ du, ta orduan, atzizkia izan ordez, erdizkia biurtzen da, batez ere Eraketaren lenengo bidean. Eta Eraketaren bigaŕen bidean, Menekoera'zko irugaŕen notiñerako asten zan *Z-*, *L-*az aldatzen da.

Lenaldiaren aditzerai, *-AN* beste atzizkia gañeratzen badiegu, ta beti bezela, irugaŕen notiñen lenengo *L-*, *Z-*'az aldatzen badugu, beste era bereziak egiten ditugu: Izan ZENEZAKE*AN*, Izan ZEZAKE*AN*; Ezin izan ZENEZAKETE*AN*, Ezin izan ZEZAKETE*AN*; ... LENAGOKO GEROALDIA'RI dagozkionak.

Eginkizunak

1. Uŕengo laukian, Almenera'zko aditzerak jaŕi beaŕ dira; ezkeŕ--aldean agertzen diran izenordeai, bakaŕ-izakayaz, dagozkienak, oitura dan bezela, kulatzen ordez, esan eta idaztean:

	Oraiñaldia	Lenaldia
Nik	Dezaket	...
Zuk	...	zenezake
Berak	Dezake	...
Guk	...	genezake
Zuek	Dezakezute	...
Berak	...	lezakete

2. Emen ematen ditugun esakuntzetan, Almenera'zko Oraiñaldi ta Lenaldi'aren aditzerak agertzen dira, ta bi aldi oyetakoak alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira; bai ta bayetzean dagozenak ezetzean ipintzeko, ta alderantziz, ezetzean daudenak bayetzean; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Txikitan egindakoa ere oso ondo *oroi dezaket*; ... - *Ezin gogo-eman zenezake* iñoiz oŕen ongi; ... - Mutil oŕek obeki *oaŕ dezake* oŕ egon da-

kion galbidea; ... - *Ezin sakaildu genitzake* landa ayek geyago egun artan; ... - *Iruditu al dezakezute* zuek, ipuin atsegiñagorik?; ... - *Ezin oldoztu lezakete* gure arerioek euzkera galtzeko bide egokiagorik; ... - *Ezin zematu nitzake* umezurtz gizajo oyek ainbat; ... - Ondo *azkartu dezakezu* zure osasuna mendiz-mendi ibiltzean; ... - Oarkabez *ondatu litzake* seme biuŕi oŕek bere gurasoen artalde guziak; ... - *Ezin suntzitu dezakegu* eŕaz oŕen lankai edeŕ ori; ... - Nola, *puskatu zenitzakete* burdiñezko lanabesa ayek?; ... - *Ezin muŕiztu dezakete* bereala oŕen pago aundi ori; ...

3. Galdera guzti auei erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Ezin egin dezakezute nai duzutena; oŕengatik asaŕetzen zerate oŕenbeste: Nork ezin egin dezake nai duena?; ... - Zer ezin egin dezakegu?; ... - Auŕ ayek egin al dezakete nai duten guzia?; Ez, ... ere ... -- Ez naiz etoŕi al-izan garaiz, oŕen gauza polit oyek erakutsi dizaizkidazuten: Noiz ez zera eldu al-izan, onen gauza polit auek erakutsi dizaizkizudan?; ... - Zertarako ez zerate etoŕi al-izan garaiz?; ... - Emakume ori etoŕi al-izan da garaiz, onen gauza polit auek erakutsi dizaizkioten?; Ez, ori ere ... -- Ez genien agindu, egin zuten bezela, zengozten toki artatik egotzi zintzateela: Nori ez zenioten agindu, gengozan tokitik egotzi gintzala?; ...- Zer ez zenieten agindu ertzain ayei?; ... - Niri agindu al zidaten zengozten tokitik egotzi zintzatedala?; Ez, zuri ere ... -- Aŕetaz ibīli beaŕ-izan zenuen, egosten zeneuzkan lusagaŕ ayek gogortu ez zekizkizun: Nola ibīli beaŕ-izan nuen egosten neuzkan lusagaŕ ayek gogortu ez zekizkidan?; ... - Zertarako ibīli beaŕ-izan genuen aŕetaz?; ... - Sukaldari oŕek ere aŕetaz ibīli beaŕ-izan al zuen egosten zeuzkan lusagaŕ ayek gogortu ez zekizkion?; Bai, ... ere ... -- Jaun oyek euzkera ikas lezakete, baña etzuten nai: Nork ikas lezake euzkera?; ... - Zuek ikas al zenezakete euzkera?; ... - Mutil burutsu oŕek ikas al lezake euzkera laisteŕ?; Bai, ... -- Ezin irten gindezke etxetik ain egun txaŕ ayetan: Nor ezin irten liteke etxetik ain egun txaŕ ayetan?; ... - Noiz ezin irten zindezkete etxetik?; ... - Ni irten al nindeke etxetik ain egun txaŕ ayetan?; Ez, zu ere ... -- Laisteŕ, nai dezazutena abestu al-izango duzute: Nork abestu al-izango du laisteŕ nai dezana?; ... - Zer abestu al-izango dugu laisteŕ?; ... - Nik abestu al-izango dut laisteŕ nai dudana?; Ez, ... baño. -- Zuek an, orduan, egon artean ez genuke ajolarik izango: Nork eluke ajolarik izango, gu an, orduan, egon artean?; ... - Guraso oyek ajolarik izango al lukete, beren semetxoak an, orduan,

egon artean?; ... - Ni an, orduan, egon artean ajolarik izango al zenukete?; Ez, guk ere ... -- Guzti ori oartu genizuen, egiteko egokiena zitzaizuena oldoztu zenezaten: Nori oartu zenioten guzti ori, egiteko egokiena zitzayona oldoztu zezan?; ... - Zer oartu zeniguten egokiena zitzaiguna oldoztu genezan?; ... - Niri oartu al zenidaten guzti ori, egiteko egokiena zitzaidana oldeztu nezan?; Ez, ... baizik. -- Nik ezin jan dezaket zuk ainbat: Nork ezin jan dezake nik ainbat?; ... - Zer ezin jan dezakezu?; ... - Gazte gosebera ayek jan al dezakete zuek ainbat?; Ez, ... ere, ... -- Zuk josi al ditzakezu gona oyek zure izebak bezin ondo: Zer josi dezaket nik, nire izebak bezin ondo?; ... - Nork josi ditzake gona oyek bere izebak bezin ondo?; ... - Zure izeba ayek josi al ditzakete gona oyek zuk bezin ondo?; Ez, ... ere ... -- Etzan ona garagardo ura zuŕutadaka edan zenezatela: Zer etzan ona?; ... - Zer etzan garagardo ura zuŕutadaka edan genezala?; ... - Ona al zan nik ere garagardo ura zuŕutadaka edan nezala?; Ez, ... -- Mutikote ayek zikindu ez gintzaten, beste aldetik joan giñan: Zertarako joan ziñaten beste aldetik?; ... - Nundik joan ziñaten mutikote ayek zikindu ez zintzateen?; ... - Ni ere beste aldetik joan al nintzan mutikote ayek zikindu ez nintzaten?; Ez, ... baizik. -- Ez al ziñan igo al-izan zure adiskideak zegozten tokiraño?; ez, ni ez nintzan igo al-izan nire adiskideak zegozten tokiraño: Nor etzan igo al-izan bere adiskideak zegozten tokiraño?; ... - Noraño ez ziñan igo al-izan?; ... - Gu igo al-izan giñan gure adiskideak zegozten tokiraño?; Ez, zuek ere ... -- Ezin gogora nezake, orduan, esan zidaten guzia: Nork ezin gogora lezake, orduan, esan zioten guzia?; ... - Zer ezin gogora zenezake orduan?; ... - Guk gogora al genezake, orduan, esan ziguten guzia?; Ez, zuek ere ...

4. Uŕengo alkaŕ-izketa ondo irakuŕi ondoren, Napaŕoa'ren zein edesti-aldiari dagokion esan beaŕ da, bai ta edesti-aldi artako beŕiren batzuk eman ere:

«LOIOLA - XABIER»

«Xabier : Peru...! (Ta irtetzeko kiñua egingo dio eskuaz).
Peru : Zer nai duzu, Xabier?
Xabier : Galdera bat egin nai-izango nizuke.
Peru : Galdera bat?
Xabier : Bai, Peru... Baña bene-benetan erantzutekotan, ordea...
Peru : Ondo dago, Xabier...

Xabier : Emezortzi urte izango bazenitu zuk, emen egongo al ziñake, gaur?...
Peru : Ori galdera, Xabier...!
Xabier : Orixe da, ba, nik jakin nai-izango nukena. Ta eztago gezuŕik esaterik, Peru.
Peru : Gezuŕik esaterik ezpadago...
Xabier : Eztago gezuŕik esaterik, Peru...
Peru : Emezortzi urte banitu, ez nengoke, ez, emen, Xabier...!
Xabier : Nun egongo ziñake, ba...?
Peru : Nun egongo nintzaken, ba...? Zure bi anayekin Iruña'n... An baitaude, guda gogoŕean egon ere, Napaŕoa maite duten guztiak...
Xabier : Nik ez dut, beraz, Napaŕoa maite...?
Peru : Zergatik diñozu ori, Xabier...?
Xabier : Ni an ez nagoelako...!
Peru : Gaztea zera zu, oraindik, ortarako, Xabier.
Xabier : Emezortzi urte ditut, Peru...
Peru : Bai, egia diñozu ori ere... Baña zuk ez duzu, an, egon beaŕik...
Xabier : Zergaitik ez...?
Peru : Amak bakaŕik geratu beaŕ-izango luke ortara... Ta an dira beste zure anai biak...
Xabier : Etxe askotako amak geratu dira bakaŕik egun ayetan... Eta etxe askotako bi edo iru anai dira, guda gogoŕean, Iruña'n, Napaŕoaren azkatasunaren alde... Zergaitik eztut nik ere egon beaŕ...?
Peru : Buru argia eman dizu zuri Jaungoikoa'k, Xabier...
Xabier : Eta ez al zuen buru argia nere aitak ere...?
Peru : Bai, Xabier...!
Xabier : Eta ez al zan, oŕegatik, gudari trebea ere izan...?
Peru : Bai, Xabier.
Xabier : Ta...?».

«Gartzi-Ximeno, eta...» (180-l'gneko. oŕialdeetan) Albisu ta Ayerdi'taŕ Anastasio'k.

EUN ETA AMAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

-TEN (*-TZEN*) atzizkia.

Oso ezaguna dugun aditz-atzizki onek —6, 16, 41 ta 48'gaŕen ikaskayetan ikusitakoa, ta oraiñaldi, oiturazko oraiñaldi, lenaldi ta oiturazko lenaldiaren asmoak adierazteko beaŕa dana, ta beste aldetik, 49'gaŕen ikaskayan yardueraren asmoaz ikusi genuenak— artzen dutenai lagun zaizkien beste aditzak diran ber, zentzun batzuk ditu (1):

1.ª Laguntzaīearekin, joko bildua duten aditzai gañeratuta, ayei aditz-izenaren zentzuna ematen die.

Onela: Joa*ten* da; Erama*ten* dut; Ego*ten* ziñan; Eka*rtzen* genuen.

2.ª Orobat egiten du Ikusi, Jakin, Entzun aditzekin eta besteren batekin ere.

E. b.: Ida*zten* ikusi dugu; Iraku*rtzen* dakite; Abestu*ten* entzun nuen; Oŕela bizi-iza*ten* oi gera.

3.ª *Eman* aditzarekin jaŕi ezkero, *-ko* atzizkiaren zentzuna du:

Eda*ten* eman = edate*ko* eman; Ja*ten* eman = jate*ko* eman.

4.ª Ikasi, Irakasi, Azartu, Asi aditzekin, *-ra* atzizkiaren antzeko zentzuna artzen du:

Jo*sten* ikasi dute = joste*ra* ikasi dute; Lanegi*ten* irakasi diot = lanegite*ra* irakasi diot; Igo*ten* azartuko al ziñakete? = igote*ra* azartuko al ziñakete?; Jolas*ten* asi giñan = jolaste*ra* asi giñan (2).

5.ª *Ari-izan*, *Ibīli* ta beste aditz batzuekin, yardueraren asmoa dama:

Itzegi*ten* ari-gera; Ones*ten* ibīli zan; Begira*tzen* egon dira. (Egipen oyek betetzeko egon gera, egon zan, egon dira).

-TEKO (*-TZEKO*) atzizkia.

Atzizki au 20'gaŕen ikaskayan ikusi genuen, aditz-izenari alkartzean, *-rako* zentzunaren antzekoa bezela; baña ba-du beste zentzun bat, *-ko* beste atzizkiaren zentzuna:

(1) Ikusi: Azkue, Dic.
(2) Ikusi: 16'gn. ikaskaya.

E. b.: Irabaz*teko* ustez = irabazte-*ko* ustez; Sal*tzeko* zoria = Saltze-*ko* zoria; Gores*teko* da = goreste-*ko* da; Ikus*teko* zan = ikuste-*ko* zan.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, Almenera'zko aditzerak jaŕi beaŕ dira; eskeŕ-aldean agertzen diran izenordeai, askaŕ-izakayaz, dagozkienak; besteetan bezela, kulatzen ordez, esan eta idaztean:

	Oraiñaldia	Lenaldia
Nik	...	nitzake
Zuk	Ditzakezu	...
Berak	...	litzake
Guk	Ditzakegu	...
Zuek	...	zenitzakete
Berak	Ditzakete	...

2. Esakuntza auetan Almenera'zko eLnaldi ta Lenagoko Geroaldiaren aditzerak agertzen dira, ta bi aldi oyetakoak alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira; aldi baten, bayetzean dagozenak ezetzean ipintzeko, ta alderantziz, ezetzean daudenak bayetzean; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Bilbel-gurpil ori bereala *puztu nezake*; ... - Ene ustez, *ezin ateman zenitzake* bide ortan dagozen galbideak; ... - Jaun oŕek edozein gauza *oldoztu zezakean*, baña etzukean egia igaŕiko; ... - Uste al duzu txikitan igarotakoak *gogoratu ezin genitzakeala?*; ... - Astiroago *gogo-eman zenezakete* uri artan egin beaŕ zana; ... - Nola *asmatu zitzaketean* ainbeste ametsak?; ... - Nire oitura zaŕak *ezin ongitu nitzake* epe labuŕean; ... - *Igaŕi al zenezakean* guda izugaŕi ura sortuko zala?; ... - Gizon zakaŕ arek *ezin tinkotu lezake* geyago bere lopil aztun ura; ... - Auŕ ayei zuzenduko genizkien itzak *leundu genitzake*; ... - *Ezin larderiatu zenitzaketean* geyago zuen alabak; ... - Geyago *zatitu al litzakete* beren jostaĭuak?; ...

3. Emen ageŕerazten ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Ondo josten ikasi bazenu!: Lan obea egin al nezakean ondo josten ikasi banu?; ... - Nork egin zezakean lan obea ondo josten ikasi balu?; ... - Zuek ere lan obea egin al zenezaketean ondo josten ikasi bazenute?; Bai, guk ere ... -- Ate ayek garaiz ideki ditzake, ta eztu nai: Zer ideki dezake garaiz, nai eztuenak?; ... - Noiz ideki ditzakezu ate ayek?; ... - Nik ideki al ditzaket garaiz ate ayek?; Ez, ... baño. -- Ezin itzuli liteke bere aitagana, lotsaz beterik zegoelako: Nor ezin itzuli liteke bere aitagana?; ... - Zergatik ezin itzuli liteke bere aitagana?; ... - Zu itzuli al zindezke zure aitagana?; Bai, ... -- Ezin edan genezakean zuk ainbat sagardo: Nork ezin edan zezakean nik ainbat sagardo?; ... - Zer ezin edan zenezaketean?; ... - Nik edan al nezakean zuk ainbat sagardo?; Bai, ene ustez ... -- Aŕetaz ibiĭi zaitezte, sasi oyek zuen soñekoak uŕatu ez dizaizkizueten: Nola ibiĭi beaŕ dugu sasi oyek gure soñekoak uŕatu ez dizaizkiguten?; ... - Zertarako ibiĭi beaŕ dugu aŕetaz?; ... - Nik ere aŕetaz ibiĭi beaŕ al dut sasi oyek nire soñekoa uŕatu ez dizaidaten?; Bai, zuk ere ... -- Geron gurariaz nai genuena autatu genezake: Nork auta lezake, bere gurariaz, nai zuena?; ... - Zer auta zenezakete, zuen gurariaz?; ... - Alargun ayek ere, beren gurariaz, nai zutena auta al lezakete?; Ez, ... baizik. -- Onela gaizkiago egongo nintzake, zure tokitik ikus nintzazun: Zertarako egongo ziñake gaizkiago oŕela?; ... - Nor egongo litzake oŕela gaizkiago, gure tokitik ikus genezan?; ... - Zuek ere, oŕela gaizkiago egongo al ziñakete nire tokitik ikus zintzatedan?; Ustekoa da gu ere ... -- Su ain izugaŕi artara ezin uŕeratu gindezke: Nor ezin uŕeratu liteke su ain izugaŕi artara?; ... - Nora ezin uŕeratu zindezkete?; ... - Agure gizajo oyek uŕeratu al litezke su ain izugaŕi artara?; Ez, oyek ere ... -- Nai dugun eraz maŕeztu al-izango balizkigute!: Pozik egongo al ziñake nai duzun eraz maŕeztu al-izango balizkizute?; ... - Nola egongo nintzake nai dudan eraz maŕeztu al-izango balizkidate?; ... - Zuek ere pozik egongo al ziñakete nai duzuten eraz maŕeztu al-izango balizkizuete?; Bai, gu ere ... -- Zuen txakuŕ auek, emango zenieketeana jan zezaketean: Zer jan zezaketean gure txakuŕ auek?; ... - Zeintzuek jan zezaketean nik emango niekeana?; ... - Ardi ayek ere, guk emango geniekeana jan al zezaketean?; Ez, ... baño. -- Ezin oaŕ dezakegu oindiño, igaroten ari dan guzia: Nork ezin oaŕ dezake oindiño, igaroten ari dan guzia?; ... - Zer ezin oaŕ dezakezute oindiño?; ... - Nik oaŕ al dezaket oindiño, igaroten ari dana?; Ez, zuk ere ... -- Zeŕi ayek geyago gizendu litzakete, gero gareztiago saltzeko: Zein gizendu lezakete geyago, gero gareztiago saltzeko?; ... - Zertarako gizendu litza-

kete geyago zeŕi ayek?; ... - Nik gizendu al nitzake geyago zeŕi ayek gero gareztiago saltzeko?; Ez, ... baizik. -- Eŕaz zornetu litezke, zeuzkaten zauri guztiak: Zer zornetu liteke eŕaz?; ... - Nola zornetu litezke, geneuzkan zauri guztiak?; ... - Zuk zeneuzkan zauri guztiak ere eŕaz zornetu al litezke?; Bai, nik ... ere ... -- Su ondoan jaŕi zitzatela beaŕa izango litzake, bigundu zekizkien: Nun izango litzake beaŕa jaŕi zitzatela?; ... - Zertarako izango litzake beaŕa su ondoan jaŕi zitzatela?; ... - Zer izango litzake beaŕa, bigundu zekizkien?; ... -- Zure gurasoak oneraño etoŕi-erazi genituen, besarkatu zintzaten: Nortzuk etoŕi-erazi zenituzten oneraño, besarkatu nintzaten?; ... - Noraño ekaŕi-erazi zenituzten nire gurasoak?; ... - Ni ekaŕi-erazi al ninduzuten oneraño, besarkatu zintzatedan?; Ez, ... baño.

4. Uŕengo idazkia ongi irakuŕi beaŕ da, ta landareekiko bertan esaten dana ondo ikasi ondoren, buruz esan eta idatzi:

«1.5. ZUAITZ-LANDAREAK»

«Euzkaleŕi'ko zuaitz-landareei Kantauri ta Mediteŕáneo alderdiek, goitasunak eta luŕaren izateak ematen diete beren berezitasuna.

Kantauri aldeko luŕaldeak, eguraldi epel eta ezeari eskeŕ, laŕe edeŕ eta osto galkoŕeko zuaitz basoak ugari dituzte. Aspaldi ontan leŕondoz trukatzen ari dira beste zuaitz oyek, azte azkaŕagoa dute-ta. Ibaŕetan, beŕiz, artoa, baratzak, sagastiak, laŕe-zunak, izaten dira geyenetan, bertan iri aundiak beren lankuntzaekin aurkitzen baitira.

Mediteŕaneo aldean lau luŕalde bereiz ditezke. Auñamendi mendietako luŕaldeek, sortaldeko ibaŕek, jatoŕizko leŕondo basoak ugari dituzte. Baso auen zurgayak aberastasun aundia dakarkie ibaŕ auei. Baso oyetako bat Irati'ko oyan bikaña dugu. Belardi gozoak, mendi-magal eta goi-aranetako laŕetakoak; ibaŕ estuen sakonetan, lusagaŕ, arto ta baratzak landatu oi dituzte Auñamendi eŕixketako biztanleek.

Erdi-aldeko luŕaldeetan, Andia, Urbasa, Entzia ta beste zenbait mendileŕoetako baso bikañez gañera, mendi-laŕek goi-aldeko ordeketan daude. Arte ta ezpel basoak daude mendileŕo auen egoaldeko magaletan. Baña erdi-aldeko luŕalde auetan geyen dagoena alea da. Nekazaritzako gertutzen dira luŕaldeak eta oŕezaz gañera eŕixkeen ondoan baratzak izaten dira.

Eŕibera'ko zabaletan, eguraldi legoŕ eta Mediteŕaneo'ari eskeŕ, garas-

ta-luŕak eta baratzetako luŕaldeak dira. Bertan maastiak eta galtzeko zorian dagoen oliondoa aurki ditezke. Barde'etako luŕak basamortua dira. Oso landare gutxi dago ta bere luŕ legoŕak ale pixka bat ematen du. Gañera, Zaraitzu ta Eŕonkari'ko artaldeak bertara joaten dira negu ta udabeŕiko laŕeetara, ta auetaz gañera, Eŕibera'ko eŕi batzuek ere ba-dute eskubidea beren abereak bertan bazkatzeko».

«Euskaleŕi'ko Artzayak» (20'gaŕen oŕialdeetan) Fermin Leizaola.

EUN ETA AMAZORTZIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA - IRAGANKOŔA - ADITZ LAGUNTZAĿEA

ALMENERA - ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA

IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

					-ZU ---
Ner*i*	IZAN	D- i) -ZA- -(I)-	-ZKI-	-*D*a-	-KE-
					-ZU- -TE - - - - -TE
					-ZU ---
Gur*i*	IZAN	D- i) -ZA- -(I)-	-ZKI-	-*GU*-	-KE-
					-ZU- -TE - - - - -TE
					-T --
Zur*i*	IZAN	D- i) -ZA- -(I)-	-ZKI-	-*ZU*-	-KE-
					-GU - - - -TE
					-T --
Zue*i*	IZAN	D- i) -ZA- -(I)-	-ZKI-	-*ZU(T)E*-	-KE-
					-GU - - - -TE
					-T -ZU ---
Bera*ri*	IZAN	D- i) -ZA- -(I)-	-ZKI-	-*O*-	-KE-
					-GU -ZU- -TE - - - - -TE
					-T -ZU ---
Bera*i*	IZAN	D- i) -ZA- -(I)-	-ZKI-	-*E*-	-KE-
					-GU -ZU- -TE - - - - -TE

Eziñera, auŕeko ikaskayetan ikusi dugun era berberaz egingo da, ots, adizkin auei EZIN itza auŕetik jartzean.

Almenera ta Eziñera'zko erai -N atzizkia gañeratzen bazaye, Menekoera'ren zentzuna artzen dute.

E. b. : Ona ekaŕi gaituzte ongi bizi gaitezke*n*.
Jaki auek onela jaŕi ditugu obeto jan ditzakezu*n*.
Nire aitzuŕa an goyan esegi dut kendu ezin dizaidakezute*n*.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, eta lenengo leŕoan, zeaŕezko izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; bakaŕ-izakayaz, alkaŕi dagozkion almenerazko adizkiñak ipiñi beaŕ dira, jakiña, artez eta zeaŕez-betetzekoak daramazkitenak; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		...	dizayoket		...	...
Zuk	Dizaidakezu		...	...		...
Berak	...	...	...	dizaiguke	...	...
Guk		dizaizukegu	...		...	...
Zuek	...		...	...		dizayekezute
Berak	...	...	...	...	dizaizuekete	...

2. Emen jartzen ditugun esakuntzetan Menekoera ta Almenera'zko aditzerak azaltzen dira, guziak Oraiñaldian, eta bi era oyetakoak alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira; aldi berean, bayetzean dagozenak ezetzean ipintzen, eta alderantziz, ezetzean daudenak bayetzean; eta ortarako beaŕak izango diran beste aldakuntzak egiten; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Jostun arek janzki au bialdu dit neronek *josi dizayodan*; ... - *Ezin irakuŕi dizaigukezu* olerki ori emengo mutiĿak bezin ondo; ... - Imanol'i lan ura lenbailen *egin dizaizuela* eskatu genion; ... - Nai duzun bezin aguro *biurtu dizaizkizukegu* lengo egunean utzi zenizkigun jostaiĿuak; ... - Ementxe jaŕi nai ditugu aulki auek *kendu ez dizaizkiguzuten*; ... - Ume oyek *ezin erantzun dizayokete* jaun oŕi zuek baño obeto; ... - Orain-txe *egosi dizaizkizueket* zuen ortutik ekaŕi dizkidazuten babak; ... - Eurak ekaŕi dizkizute intxauŕ oyek besteai *erosi ez dizaizkiezun*; ... - Agure oŕek *ezin eraman dizaidake* oŕen zama aundia; ... - Aŕen eta aŕen egin ziguten, beren soloak *erein dizaizkiegun*; ... - *Ulertu al dizayokezute*

berak esan dezaken guzia?; ... - Zilaŕezko zali ayek ongi gordeko ditut atso auek *ikus ez dizaizkidaten*; ...

3. Galdera guzti auei, egokia izango dan erantzun bana egin; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Beren bilerara erdu beaŕ-izango zenukete, abesten entzun zintzateen: Nora erdu beaŕ-izango genuke, abesten entzun gintzaten?; ... - Zertarako erdu beaŕ-izango nuke beren bilerara?; ... - Zuk ere beren bilerara erdu beaŕ-izango al zenuke, abesten entzun zintzaten?; Ez, ... baño. -- Igali legoŕ ayen azalak ezin apurtu genitzake: Nork ezin apurtu litzake igali legoŕ ayen azalak?; - ...Zer ezin apurtu zenezakete?; ... - Zuk apurtu al zenitzake igali legoŕ ayen azalak?; Ez, nik ere ... -- Zorigabeko ori, dana baño askoz obea izan zitekean: Nor izan zitekean dana baño askoz obea?; ... - Nola izan zitekean zorigabeko ori?; ... - Zu ere, zerana baño askoz obea izan al zindezkean?; Bai, ni ere ... -- Nai dezan guzia maŕeztu dizayokegu: Nori maŕeztu dizayokezute nai dezan guzia?; ... - Zer maŕeztu dizayokezu?; ... - Zuek maŕeztu al dizaigukezute nai dezagun guzia?; Bai, guk ere ... -- Ezin atera litzakete antxumeak, jausi ziran zuloetatik: Zein ezin atera lezakete, jausi zan zulotik?; ... - Nundik ezin atera zenitzakete antxumeak?; ... - Nik atera al nitzake antxumeak, jausi ziran zuloetatik?; Ez, zuk ere ... -- Zure lengusiñak lo-egin al-izango ezpalu, eman ezayozu sendagai au ta ikusiko duzu zein ondo atseden artzen duen: Zer emango diogu gure lengusiñari lo-egin al-izango ezpalu, atseden aŕ dezan?; ... - Nori emango diozute sendagai au atseden aŕ dezan, lo-egin al-izango ezpalu?; ... - Niri ere sendagai ori emango al didazute lo-egin al-izango ezpanu?; Bai, zuri ere ... -- Ezin kendu dizaizkidakete ez dauzkadan erleak: Nori ezin kendu dizaizkiokete ez dauzkan erleak?; ... - Zer ezin kendu dizaizukete?; ... - Guri kendu al dizaizkigukezute ez dauzkagun erleak?; Ez, zuei ere ... -- Emakume zoli ayek ezin utzi litzakete gosez iltzen beren semeak: Nortzuek ezin utzi litzakete gosez iltzen beren semeak?; ... - Nor ezin utzi lezakete gosez iltzen emakume zoli ayek?; ... - Guk utzi al genitzake gosez iltzen gure semeak?; Ez, zuek ere ... - Orma oyen lodiera, oindiño, aundiagoa izan liteke: Zer izan liteke, oindiño, aundiagoa?; ... - Nola izan liteke, oindiño, orma oyen lodiera?; ... - Orma oyen lodiera, oindiño, txikiagoa izan al liteke?; Ez, ... baño. -- Bitzabal zeaŕ zugatz batzuk irauli zizkieten, igaro ezin litezken: Nori irauli zizkieten zugatz batzuk bitzabal zeaŕ, igaro ezin liteken?; ... - Zer irauli zieten bitzabal zeaŕ igaro ezin litezken?; ... - Zuei ere bitzabal zeaŕ zugatz batzuk irauli al zizkizueten, igaro ezin zindezketen?; Ez, ... baizik. -- Ezin jakin zezaketean, eskierki, an egin genuena: Nork ezin jakin zezakean, eskierki, an egin zenutena?; ... - Zer ezin jakin zenezaketean, eskierki?; ... - Nik jakin al nezakean, eskierki, an egin zenutena?; Ez, zuk ere ... -- Ezin irakasi dizaizuket geyago, nekien guzia irakasi dizudalako: Nori ezin irakasi dizaiokezu geyago, zenekien guzia irakasi diozulako?; ... - Zergatik ezin irakasi dizaidakezu geyago?; ... - Arek ere ezin irakasi dizaizuke geyago, zekien guzia irakasi dizulako?; Bai, arek irakasi dizaidake geyago, ... -- Mutil lerden ayek ez ziran itzuli al-izan beren eŕialdera aurten arte: Nortzuk ez ziran itzuli al-izan beren eŕialdera aurten arte?; ... - Noiz arte ez ziñaten itzuli al-izan zuen eŕialdera?; ... - Ni ere ez nintzan aurten arte itzuli al-izan nire eŕialdera?; Ez, zu ere ... -- Bizi-modu oŕezaz ezin eldu zindezkete zartzarora: Nortzuk ezin eldu litezke zartzarora bizi-modu oŕezaz?; ... - Nora ezin eldu gindezke bizi-modu onezaz?; ... - Zu eldu al zindezke zartzarora bizi-modu oŕezaz?; Ez, ni ere ... -- Zoŕ didazuna ordaindu al-izango bazenit, laurleko oyek oso ondo etoŕiko litzaizkidake: Nori etoŕiko litzaizkioke oso ondo laurleko oyek, zoŕ diozuna ordaindu al-izan bazenio?; ... - Nola etoŕiko litzaizkizuke laurleko oyek, zoŕ dizudana ordaindu al-izango banizu?; ... - Guri ere laurleko oyek oso ondo etoŕiko al litzaizkiguke, zoŕ diguzutena ordaindu al-izango bazenigute?; Bai, zuei ere ...

4. Emen aipatzen ditugun bertsoak ondo irakuŕi ondoren, oyetan agertzen dan berezitasuna oartu beaŕ da; berezitasun ori «oin eŕena» deitzen dugu. Ona emen Lekuona'taŕ Imanol jaunak, idaztiaren itzauŕean, oŕi buruz diñoena: «Geyenean erabiltzen ditugun bertsoetan, ritmoa ta rima (1), asi ta buka, beti berak izan oi dira bertsoaren baŕuan. Bañan Iztueta'ren ontan ez da ola».

«Puntu-aldatze oŕek eta ritmoaren aldatze onek, astindu bat ematen dio bertsoari; eta betiko puntuak (2) eta betiko ritmoak ematen digun logale-antxa astindu guri. Eta orixe da «oin eŕenaren» egitekoa bertsolaritzan».

---

(1) «ritmo», «igi-neuŕi» esan dezakegu; ta «rima», «ots-kide».

(2) «puntu», «ots-kidea» adierazteko erabiltzen da, bertsolarien artean. Aapaldi bakoitzean, 3, 5 ta 7'gaŕen bertsoak dira «oin-eŕen».

«KONTZEZI'RI»

«Maite bat maitatzen det maitagaŕia
Begi edeŕa du ta guztiz argia;
Daukat uŕuti,
Bañan ezin kendu det buruti
Aren itxura;
Saldu al baliteke pisura,
Uŕearen truke
Nork erosi faltako ez luke,
Nork erosi...

Ogetalau leguaz nago aparte,
Bitartean ba-dauzkat miloi bat ate,
Guztiak itxirik;
Nai aŕen ezin egon ixilik;
Beti negaŕez,
Nere maite maitearen galdez:
Ote dan bizi,
Biotz-biotz nereko Kontzezi,
Biotz-biotz...

.....

Nere maitea zuzaz ni oroitzen naiz
Egunaz eta bai ta gauetan txit maiz.
Lotan ere bai.
Zu ikusitzera nik joan nai;
Azke banengo
Oŕ nintzake egun bigaŕengo;
Naiz orduan il,
Ez nuke izango batere miñ,
Ez nuke izango...».

«Iztueta'ren Olerkiak» (79-80'gn. oŕialdeetan)
«Itz-auŕea» «Lekuona zaaŕak).

EUN ETA EMERETZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA - IRAGANKOŔA - ADITZ LAGUNTZALEA
ALMENERA - LENALDIA - ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA
IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

		Z-e-N-			
		L-			
Neri	IZAN		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*Da*-	-KE-	
		Z-e-N-			-TE
		L-			-TE
		Z-e-N-			
		L-			
Guri	IZAN		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*GU*-	-KE-	
		Z-e-N-			-TE
		L-			-TE
		N-			
		L-			
Zuri	IZAN		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*ZU*-	-KE-	
		G-e-N-			
		L-			-TE
		N-			
		L-			
Zuei	IZAN		i) -ZA- -(I) -ZKI- -*ZU(T)E*-	-KE-	
		G-e-N-			
		L-			-TE
		N-			
		Z-e-N-			
		L-			
Berari	IZAN		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*O*-	-KE-	
		G-e-N-			
		Z-e-N-			-TE
		L-			-TE
		N-			
		Z-e-N-			
		L-			
Berai	IZAN		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*E*-	-KE-	
		G-e-N-			
		Z-e-N-			-TE
		L-			-TE

Eziñera, beti bezela, adizkin auei EZIN itza auŕetik jartzean egiten da.

Lenago, 114 ta 116'gn. ikaskayetan esan dugun bezela, emen ere, era auei *-AN* atzizkia gañeratzean, ta irugaŕen notiñerako, lenengo L-izkiaren ordez, Z- ipiñi ezkero, LENAGOKO GEROALDI'ARI dagozkion beste erak egingo ditugu: Izan ZENIZAIDAKE*AN*, Izan ZIZAIDAKE*AN*, ...; Ezin Izan ZENIZAIGUKE*AN*, Ezin Izan ZIZAIGUKE*AN*; ...

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, eta lenengo leŕoan, zeaŕezko izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; askaŕ izakayaz, alkaŕi dagozkion almenerazko adizkiñak oraiñaldian ipiñi beaŕ dira, noski, artez eta zeaŕez-betetzekoak eramatean; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		dizaizkizuket	...		...	...
Zuk	...		...	dizaizkigukezu		...
Berak	...	...	dizaizkioke	...	...	...
Guk		...	...		dizaizkizuekegu	...
Zuek	...		...	...		dizaizkiekezute
Berak	Dizaizkidakete	...	...	...	...	...

2. Uŕengoan agertzen diran esakuntzetan, Menekoera ta Almenera'-zko aditzerak ikusten dira, guziak Lenaldian ipiñita, ta bi ere, oyetakoak, alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira; aldi baten, bayetzean dagozenak ezetzean ipintzeko, ta alderantziz, ezetzean daudenak bayetzean; bai ta ori egiteko beaŕak izango diran beste aldakuntzak be erabiltzean; kulatzen ordez, beti bezela, esaten eta idazten:

Etxe artara eraman ninduten ondo *garbitu nizayen*; ... - Zuk gure auŕak iñork baño obeto *zaindu zenizaizkiguke*; ... - Ez nion ori edestu, nire gogokizuna *igaŕi ez zizaidan*; ... - *Ezin suntzitu genizaizueke* zuen lan edeŕ guzti ura; ... - Ito-beaŕean ekaŕi zinduzteen ona, beren abereak *gaizkatu zenizaizkieten*; ... - *Ezin zatitu lizaizkizukete* baso artatik ekaŕi zenituen eguŕ gogoŕ ayek; ... - Bereala *zeatu nizaizkizueke* mai gañean zeneuzkaten ogi guziak; ... - Etzindudan guregana ekaŕi guzia oŕela *busti zenizaigun*; ... - *Urtu al lizaiguke* lantegian geneukan burni zaŕ guzti ura?; ... - Aŕeta aundienaz zebiltzaten beren izkiluak *erauzi ez genizaizkien*; ... - Ene ustez eŕaz *pulunpatu zenizayokete* zingira artan bere gurdi edeŕ ori; ... - Ez genien eraman gure ardoa ain ergelki *isuri zizaiguten*; ...

3. Emen egiten ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Utzi zenidana lengo egunean biurtu nizaizuke, baña ez zindudan aurkitu emateko: Zer biurtu zenizaidake lengo egunean?; ... - Noiz biurtu zenizaiguke utzi genizuna?; ... - Landeŕ oŕek lengo egunean biurtu al lizaizuke utzi zeniona?; Ez, ... baño. -- Nai dezazutena esan dizaidakezute; bost ajola neri: Nori esan dizayokegu nai dezaguna?; ... - Zer esan dizaizuekegu?; ... - Oyek esan al dizaizukete nai dezatena?; Ez, oyek ezin ... -- Gure bidean ezin zeartu litezke; baña egin zuten: Nor ezin zeartu liteke zuen bidean?; ... - Nun ezin zeartu zindezke?; ... - Gu zeartu al gindezke zuen bidean?; Ez, zuek ere ... -- Nora joan litezke agure ayek berak duten oŕen dardara aundiaz?; iñora eskierki: Nortzuk ezin joan litezke eskierki iñora, berak duten oŕen dardara aundiaz?; ... - Zer dala-ta, ezin joan litezke iñora agure ayek?; ... - Zuek joan al zindezkete iñora, zuek duzuten dardara oŕen aundiaz?; Ez, gu ere ... -- Joan dan astean mezutu nien lana amai lidakete: Nortzuek amai lizukete joan dan astean mezutu zenien lana?; ... - Zer amai ligukete ayek?; ... - Nik amai al nizaizuke joan dan astean mezutu zenidan lana?; Bai, zuk ... -- Atzo etoŕi baziña, orain an egon zindezke: Nor egon liteke orain an, atzo etoŕi balitz?; ... - Nun egon gindezke orain, atzo etoŕi bagiña?; ... - Zure izebak ere orain an egon al litezke, atzo etoŕi balira?; Bai, ... ere ... -- Jausi zaizkigun eguŕ oyek jaso al dizaizkigukezu?; bai, eŕaz jaso dizaizkizueket jausi zaizkizuen eguŕ oyek: Nork jaso al dizaizkizueke jausi zaizkizuen eguŕ oyek?; ... - Zer jaso dizaidake oŕek?; ... - Zuek jaso al dizaizkigukezute jausi zaizkigun eguŕ oyek?; Bai, guk ere ... -- Ni ezin igo nindekean oŕen gora: Nor ezin igo zitekean oŕen gora?; ... - Nora ezin igo zindezkean?; ... - Gu igo al gindezkean oŕen gora?; Ez, zuek ere ... -- Zuk dauzkazun gauza guziak kendu dizaizkizukete, baña dakizuna ez: Zer kendu dizaidakete?; ... - Nori ezin kendu dizaiokete dakiena?; ... - Zuek kendu al dizaizkigukezute dauzkagun gauza guziak?; Bai, guk ... -- Ainbeste etsayen artean lasai ibil al gindezke?; ez, ezin ibil zindezkete ainbeste etsayen artean lasai: Nun ezin ibil zindezkete lasai?; ... - Nortzuk ezin ibil litezke lasai ainbeste etsayen artean?; ... - Ni ibil al nindeke lasai ainbeste etsayen artean?; Ez, zu

ere ... -- Ezin nezake ta orain ere ezin abestu dezaket nai duzuten bezela: Nork ezin lezake ta orain ere ezin abestu dezake nai dugun bezela?; ... - Nola ezin zenezake ta orain ere ezin abestu dezakezu nik nai dudan bezela?; ... - Guk al genezake ta orain ere abestu al dezakegu zuek nai duzuten bezela?; Ez, zuek ere ... -- Lotu dizkizuegun lokaŕiak ezin aska dizaizkigukezute: Zer ezin aska dizaizuekegu?; ... - Nori ezin aska dizaizkiokegu lotu dizkigun lokaŕiak?; ... - Nik aska al dizaizkizueket lotu dizkidazuten lokaŕiak?; Ez, zuk ere ... -- Orduan goizetik gaberarte gudaldu genezake, nekatu gabe: Nortzuek gudaldu lezakete nekatu gabe goizetik gaberarte?; ... - Nola gudaldu zenezakete goizetik gaberarte?; ... - Mutil oŕek ere gudaldu al lezake nekatu gabe goizetik gaberarte?; Ez, ... baizik. -- Berak beste ainbeste egin al zizaidaketean?; ez, berak ezin egin zizaizuketean beste ainbeste: Zer ezin egin zenizaiguketean zuek?; ... - Nork ezin egin zizaidakean beste ainbeste?; ... - Nik egin al nizaiekean beste ainbeste?; Ez, zuk ere ... -- Ibai ain zabal ura igaro al zenezakean igariten?; bayetz uste dut, ibai ain zabal ura ere igaro nezakean igariten: Nork igaro zezakean igariten ibai ain zabal ura?; ... - Zer igaro genezakean igariten?; ... - Auŕ ayek ere igaro al zezaketean igariten ibai ain zabal ura?; Ez, ... zuk baño.

4. Uŕengo leŕoak astiro ta aŕetaz irakuŕi; esan, gero, bertsolariai buruz norberaren iritzia zein dan, bai ta ezagutzen dituen lau edo bost bertsolarien izenak:

«BERTSOLARITZA»

«Ez dakigu noizkoa dan gure bertsolaritza. Antziñakoa nai ta ez, gure Eŕia euzkal-luŕ ontan aspaldikoa da-ta.

Beiñola, orain amalau-amasei miīa urte, Santimamiñe'ko leze-zuloetan bizi ziranak, aitz-ormetan margoak zituzten lez, gorputz eta arima ziranezkero, itz ere egingo zuten eta itz-egiñez gañera, eresi ta abesti ere berena izango zuten. Ordukoak edo auŕeragokoak ditugu, ba, gure bertsolariak, koplak eta bertsoak ondu zituztenak.

Euzko-oitura zaŕa omen da bertsolaritza, ots, bertsoak otu-ala botateko oitura.

Ituŕi beteak ura eskeintzan dau; gure pagadi ta areiztietako txoriak kanta-kantari ditugu. Euzkalduna ere, gizaldiak zeaŕ, kantari ibiīi da.

Gure arnasa ta biotz-baŕua, bertsolariak erakutsi digu ondoen. Aoz-ao gureganaño eldu diran kanta zaŕak ditugu lekuko».

«BERTSOLARIEN ELERTIA»

«Ugaria izan da bertsolarien elertia. Itza ta doñua dute jatoŕa. Bertsolariak abestuaz esaten ditu bere koplak.

Neuŕi askotako bertsoak osotzen ditu gure bertsolariak; naiko gaitzak batzuk, bederatzi puntukoa, esate baterako.

Inguru guztietatik, aŕigaŕia dugu; buru argia erakusten digu, irudimen bizkoŕa, oroimen izugaŕia; bertsoak asmatu ta esaten trebea».

«ABESTI ZAŔAK»

«Zer dira?; Eŕi'ak —nork daki noiz?— asmatu ta aoz-ao gaur arte ekaŕi ditun olerki zaŕak.

Gure Eŕi-olerkia guztiz aberatsa da, inguruko edozein elertian bezin edeŕ ta aberatsa. Euzkalduna beti izan da abeslari. Ta abesti zaŕok, gizaldiz-gizaldi, zaŕ-arnasaz, gure egun auen arte eldu dira.

Auxe dugu eŕi-olerkia. Geyen bat, eresiari eskeŕ, guganaño eldua. Abesti zaŕak, era askotarikoak dituzu...».

«Euskal-elertia» (6-7'gn. oŕialdeetan) Onaindia aita.

EUN ETA OGEIGAŔEN IKASKAYA

-BERA, -GALE, -GURA, -KARI, -NAI atzizkiak.

Bost atzizki auek alkaŕen antzekoak diran zentzunak dauzkate: ayeŕa, yorana, aŕausia, lera, ...

-BERA. Galea adierazten duten izenekin doa, antzekoa dan zentzuna daukaten izenondoak egiten.

Onela: Gose*bera* (jateko gogoa duena); Egar*bera* (edateko gogoa duena); Kili*bera* (kilikoŕa); Biozbera, biozpera (eŕukioŕa); Iŕi*bera* (iŕikoŕa).

Azkue'k (D.) diñoenez, atzizki au soin-ayeŕak adierazten dituzten izenai alkartzen baye; *-Koŕ* beste atzizkia, ordea, adimen-ayeŕak adierazten dituztenai (1).

-GALE. Gañeratzen zayen itzak esan nai duenaren *guraria, gosea,* ... adierazten du.

E. b.: Lo*gale* (lo-egiteko gogoa duena); Negar*gale* (negaŕ-egiteko gogoa duena); Piza*gale* (pix-egiteko gogoa duena); Txu*gale* (txu-egiteko gogoa duena).

-GURA. Izenai alkartzen zaye, *gogoa* adierazten duten izenondoak eratzeko; era berean aditz-izenai ere.

E. b.: Lo*gura* = Lo*gale*; Ikus*gura* (ikusteko gogoa); Ikas*gura* (ikasteko gogoa); Jan*gura* (jateko gogoa).

GURA itza bezela erabil diteke, ta ez da *-GURA* atzizkia bezela erabiltzen; atzizki au daramaten itzak, izen-aditzarekin joan ditezke, adikizuna bezela; baña GURA, itza bezela, iragankoŕak diran aditzekin erabiĺi beaŕ da.

Onela: Jan*gura* naiz (jateko gogoa dut); Jan *gura* dut (jan nai dut).

-KARI. Norbaitenganako edo zerbaiterako *zaletasun* edo *gaŕa* adierazten du.

E. b.: Ander*ekari* (emakumeenganako zaletasuna); Aur*kari* (auŕenganako gaŕa); Egi*kari* (egiarekiko zaletasuna).

(1) Ikusi: 68'gn. ikaskaya.

-NAI. -GURA'ri buruz esandakoa, onekiko ere esan dezakegu; ta arek bezela, gogoa adierazten duten izenondoak eratzen ditu.

Onela: And*inai* (andizalea, anditasunaren gogoa duena); Biz*inai* (bizizalea, bizi-izateko gogoa duena); Ikas*nai* (ikasteko gogoa).

EGINKIZUNAK

1. Emen ematen dugun laukian, eta lenengo leŕoan, zeaŕezko izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; bakaŕ-izakayaz, alkaŕi dagozkion almenerazko adizkiñak, lenaldian, ipiñi beaŕ dira, zeaŕez-betetzekoak eramaten; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		nizaizuke	...		...	...
Zuk	...		zenizayoke	...		...
Berak	Lizaidake	...	...	...	...	...
Guk		...	...		genizaizueke	...
Zuek	...		...	...		zenizayekete
Berak	...	...	...	lizaigukete	...	...

2. Orain ipintzen ditugun esakuntzetan Almenera'zko aditzerak azaltzen dira, Oraiñaldian batzuk eta Lenaldian besteak; guziak alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira, Oraiñaldian dagozenak Lenaldikoen bidez, eta alderantziz, Lenaldian daudenak Oraiñaldikoen bidez; bide batez, bayezkoak diranak ezezkoen bidez, eta alderantziz ere, ezezkoak bayezkoen bitartez; kulatzak agertzen diran tokietan, esanez eta idatziz, erantzunak jartzeko:

Nik *irakasi al dizaizukedan* guzia azalduko dizut; ... - Zuk eŕi artan, oyek ainbat *irabazi al zenizaiguke?*; ... - Orko biztanle oŕek *ezin eraiki dizaizkizueke* ondo, nai dituzuten etxeak; ... - Nai-izanaŕen *ezin jaulki genizayeke* txango artan gertatu zitzaiguna; ... - Ene ustez, zuek *ezin ulertu zenizaizkigukete* ongi ikaskai luze ayek; ... - Emen geyago egon nai eztutela *adierazi al dizayokete*; ... - Nire gurari sakonenak jakin-*erazi al nizaizkizuke* bereala; ... - Zeroŕek *aipa al dizaigukezu* ezaguna dan izenen bat bederen?; ... - Ziuŕ nago zaldi zalu oyek *ezin geldi-erazi lizaizkizuekela* laisteŕ; ... - Uste dugu zure uzta guzia eŕaz *bildu dizaizu-*

kegula; ... - *Ezin nabari dizayekezute* obeto atso begiko oyei zuen poza; ... - Zure ikasleek *ezin opa lizaizkizukete* zorion aundiagoak; ...

3. Oi dugunez, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Uka zenizayeke guzia; zergatik ez zenuen egin oŕela?; eziña izan zitzaidala uste dezakezu: Nork uka lizaidake guzia?; ... - Zer uka nizayeke, zure ustez?; ... - Guk uka al genizaizueke guzia?; Ez, zuek ere ... -- Ezin ornitu dizayokete eskatu dien guzia: Nork ezin ornitu dizayoke eskatu dion guzia?; ... - Zer ezin ornitu dizaidakezu?; ... - Guk ornitu al dizaizuekegu eskatu diguzuten guzia?; Bai, ene ustez ... -- Ezin zoŕ lezake zuek ainbat: Zer ezin zoŕ lezake gizajo arek?; ... - Nori ezin zoŕ zenizayoke ayek ainbat?; ... - Guk zoŕ al genizayeke zuek guri ainbat?; Ez, ... -- Ara!, andinai oyek igo al-izateko dagizkiten alegiñak: Nork dagizki alegiñak igo al-izateko?; ... - Zuek ere alegiñak al dagizkizute igo al-izateko?; ... - Zuk alegiñak al zenegizkien tontoŕ artaraño igo al-izateko?; Ez, ... baño. -- Orixe erantzungo zizuketean, niri bezela galdetu bazenie: Nori erantzungo zioketean zuri bezela galdetu balie—; ... - Zer erantzungo zeniguketean, ayei bezela galdetu bagenizue?; ... - Nik ere erantzungo al niekean, zuei bezela galdetu balidate?; Bai, zuk ere ... -- Ezin teinkatu zenizaizkiguketean geyago lokaŕi ayek: Nortzuei ezin teinkatu zenizaizkieketean geyago lokaŕi ayek?; ... - Zer ezin teinkatu zizaiguketean geyago?; ... - Nik teinkatu al nizaizkizuekean geyago lokaŕi ayek?; Ez, zuk ere ... -- Aiztoak gure aŕian zoŕoztu genizaizkioke, iñork baño obeto: Zer zoŕoztu zenizayokete zuen aŕian iñork baño obeto?; ... - Nun zoŕoztu zenizaizkigukete aiztoak iñork baño obeto?; ... - Nik zoŕoztu al nizaizkioke aiztoak nire aŕian iñork baño obeto?; Ez, ... baizik. -- Ezin zamatu dizaizkiguke bere gurdian, dauzkagun garagaŕ eta garia: Nork ezin zamatu dizaizkizueke bere gurdian, dauzkazuten garagaŕ eta garia?; ... - Zer ezin zamatu dizaiguke bere gurdian?; ... - Nekazari oyei zamatu al dizaizkiekezute zuen gurdian, dauzkaten garagaŕ eta garia?; Bai, eŕaz ... -- Artzain koskoŕ arek ezin bildu litzake itzuri zitzaizkion ardiak, bildotsak eta aaria: Zer ezin bildu lezake artzain koskoŕ arek?; ... - Nortzuek ezin bildu litzakete itzuri zitzaizkien ardiak, bildotsak era aaria?; ... - Zuek bildu al zenitzakete itzuri zitzaizkizuen ardiak, bildotsak eta aaria?; Ez, guk ere ... -- Orduan logura izan ezpanintz, zure eginkizunak egiten lagundu al-izango zindukedan: Nor lagundu al-izango zenukean bere eginkizunak egiten, orduan logura izan ezpaziña?; ... - Nork lagun

al-izango nindukean nire eginkizunak egiten, orduan logura izan ezpalitz?; ... Nik lagundu al-izango zinduztekedan zuen eginkizunak egiten, orduan logura izan ezpanintz?; Bai, okeŕ ezpagagoz, zuk ere ... -- Gizon biozpera ayek oŕelako gauzak ezin gebendu lizaizkigukete: Nortzuek ezin gebendu lizaizkizuekete oŕelako gauzak?; ... - Nortzuei ezin gebendu genizaizkieke oŕelako gauzak?; ... - Niri gebendu al zenizaizkidakete oŕelako gauzak?; Ez, zuri ere ... -- Zalburdia atondu al-izango bazenidate, orain atera nindeke: Nor atera liteke orain, zalburdia atondu al-izango baliote?; ... - Noiz atera zindezke, zalburdia atondu al-izango bagenizu?; ... - Zuek ere orain atera al zindezkete, zalburdia atondu al-izango balizuete?; Bai noski, gu ere ... -- Gure aita deitu beaŕ-izan genuen, pakean utzi gintzaten: Nor deitu beaŕ-izan zenuten, pakean utzi zintzateen?; ... - Zertarako deitu beaŕ-izan nuen nire aita?; ... - Zuk ere zure aita deitu beaŕ-izan al zenuen, pakean utzi zintzaen?; Bai, nik ere ... -- Ez zaitez izan negarti, gurekin egurastera eraman zaitzagun: Nork eztu negarti izan beaŕ, zuekin egurastera eraman dezazuten?; ... - Zertarako ez dut nik negarti izan beaŕ?; ... - Zuek negarti izan beaŕ al duzute, nirekin egurastera eraman zaitzatedan?; Ez, guk ere ... -- Irakasleme ayek gure ikastolako lana egin al zizaiguketean ain aurkariak ziranezkero: Nortzuek egin al zizaizueketean zuen ikastolako lana ain aurkariak ziranezkero?; ... - Zuek ere gure ikastolako lana egin al zenizaiguketean, ain aurkariak ziñatenezkero?; ... - Bai, guk ere ... - Eta irakasle onek ere zure ikastolako lana egin al zizaizukean, ain aurkaria zanezkero?; Ez, ... baño.

4. Irakuŕi aŕetaz uŕengo alkaŕ-izketa lenengoz; gero, bertan agertzen diran iru emakumeen asmo ta usteak zeintzuk diran esan, bai ta bakoitza besteenganako zer dan ere:

«IV. - SENDAMENA»

— Ama: zu gaizki zagoz eta sendagileari ots-egin beaŕ diogu.
— Bart esan nuena nik orain ere: Mikela'ri bai, besteri ez.
— Zuk il nai baduzu, nik eztut nai umezurtz izan. Ba-noa ni Ardantza yaunari dei egitera.

.....

— Egun on, Kontze. Bizi al zera?
— Etoŕi al zera, Mikela, Yainkoa'ren alaba, etoŕi al zera? Ertsi zazu ate ori, besterik iñor saŕ eztakigun.

— Aspaldion zu ikusi bage «miñez ote da?» galdetzen nuen eta iñortxok etzidan argitasunik ematen. Zer duzu?
— Nik ezuŕ guztiak minduta. Geldi banago, gogaitu egiten naiz; ezkeŕ naiz eskubira igitu nai dudanean, antziaz: au ezta bizi-izatea.
— Noiztik zera eri?
— Artazuritzetik onerakoan. Orduantxe otzak batetik bestera igaro ninduen eta geroztik egun bat eztut izan onik.
— Berorik edo ba al duzu?
— Eŕai guztiak eŕetzen dauzkat.
— Orduan baŕuko gaitza duzu. Begiratu niri aurpegi-aurpegira. Oŕelaxe. Begiratu orain goiburura, begiok baŕuko aldetik ongi ikus ditzadan. Yateko gogorik?
— Iltzeko beste.
— Lorik egiten al duzu, lorik?
— Aste osoa igaro zait lo bage.
— Izan al duzu iñoiz ago-eririk?
— Ortzetakoa ta agiñetakoa, besterik ez.
— Izan al duzu lenago baŕuko gaitzik?
— Nik auŕ-miñak ama izatorduan, besterik ez, esatekorik beintzat.
— Ito-beaŕik edo?
— Egun auetan bai ta gañera lokiak gabiz yota bezela minduak ditut.
— Ori zer dan ba-dakit. Biotzeŕerik?
— Ori ere maiz, igandetik onera.
— Biotzeŕea biotzetik datoŕ. Odola irakiten bezela yartzen da ta gero biotzetik agorako bidea sutan bezelaxe asten zaigu.
— Egia, Mikela, egia».

«Prontuario de la Lengua Vasca» (126-7'gn. oŕialdeetan) R. M. de Azkue.

EUN ETA OGETABATGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ALMENERA - EGINKOŔA - IRAGANKOŔA

EREDUZKO ADITZA - LAGUNTZAĽEAREN ERAEKIN

ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕari dagozkienak

				-ZU

IKUS	*N*- a)	-ZA-	-KE-	
				-ZU- -TE
				----- -TE
				-ZU

IKUS	*G*- a)	*-IT-* -ZA-	-KE-	
				-ZU- -TE
				----- -TE

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

				-T
				--
IKUS	*Z*- a)	*-IT-* -ZA-	-KE-	
				-GU
				---- -TE
				-T
				--
IKUS	*Z*- a)	*-IT-* -ZA- *-TE-*	-KE-	
				-GU
				---- -TE

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

Besteetan bezela, ez ditugu aipatzen emen adizkin auek, 116'gn. ikaskayan ikusi genituelako.

EZIÑERA, beaŕ danez, adizkin auei EZIN itza auŕetik ipintzean dagigu.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, eta lenengo leŕoan, zeaŕezko izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; askaŕ-izakayaz, alkaŕi dagozkion almenerazko adizkiñak, lenaldian, ipiñi beaŕ dira, zeaŕez-betetzekoak eramatean; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		...	nizaizkioke		...	...
Zuk	Zenizaizkidake		...	...		...
Berak	...	...	...	lizaizkiguke	...	...
Guk		genizaizkizuke	...		...	...
Zuek	...		...	...		zenizaizkiekete
Berak	...	...	...	...	lizaizkizuekete	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan, oraiñaldian dagozen menekoera ta almenerazko esakuntzak jartzen ditugu; era bietakoak alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira, ots, lenengokoak bigaŕenen bidez, ta alderantziz, bigaŕenekoak lenengoen bitartez; kulatzen ordez, itzez eta idatziz, aldakuntzak jartzean :

Etxean egongo naiz egun guzian, nai baduzu, bertan *ikus nazazun*; ... - Geron ustez, mandazain oyek ongi *lagundu zaitzakete*; ... - Garaiz eldu diteken, beaŕa izango da oso goiz *itxartu dezagula*; ... - *Ezin atera gaitzakezu* orain eldu zaigun estualdi ontatik?; ... - Gaurgero pozik *aukera zaitzatekegu* gure ordezkariak izan zaitezten; ... - Bilkura berezia egingo dute ikastaro ontan izango ditugun irakasleak *bereitxi ditzaten*; ... - Bazteŕ guzietan barna *bīla nazakete*, baña enaute aurkituko iñoiz; ... - Zaindu ezazu zure burua, egin nai dugunerako beti gerturik *aurki zaitzagun*; ... - Auŕ mardul oyek beren amoña eŕaz *nekatu dezakete*; ... - Alde-egin beaŕ dugu emendik ijito ayek *itsatsi ez gaitzaten*; ... - Eztugu uste, emen egonaŕen, *nekarazi zaitzatekegula*; ... - Bururik eztuten neskatil auek, azkenez, *erotu ditzakete* beren adiskideek; ...

3. Emen aurkitzen dituzuten galderai erantzun egoki bana eman beaŕ diezute; kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Emen edo an, nun-nai, murgil nazakezu : Nor murgil dezaket emen edo an, nun-nai?; ... - Nun murgil zaitzaket?; ... - Zuek murgil al gaitzakezute emen edo an, nun-nai?; Ez, ... baizik. -- Logura nengoen bart; oŕengatik ezin irakuŕ nizaizkizueke eguneko beŕiak : Nork ezin irakuŕ

lizaizkiguke eguneko beŕiak?; ... - Zer ezin irakuŕ zenizaigukete?; ... - Gazte baldaŕ oŕek irakuŕ al lizaizkizueke eguneko beŕiak?; Ez, ... oŕek ere ... -- Oyek ezin irakasi dizaizuekete lanegiten, iñoiz lanegin eztutelako : Nortzuek ezin irakasi dizaigukete lanegiten, iñoiz lanegin eztutelako?; ... - Zer ezin irakasi dizaizukete?; ... - Zuk lanegiten irakasi al dizaigukezu?; Ez, nik ere ... -- Ayuŕi txaŕeko gizon arek ez zigun ezkutatu al-izan, egin zuen gaiztakeria : Nork ez zizuen ezkutatu al-izan egin zuen gaiztakeria?; ... - Nolakoa zan egin zuen gaiztakeria ezkutatu al-izan ez zizuen gizon ura?; ... - Nik ezkutatu al-izan nizuen egin ez nuen gaiztakeria?; Ez, ..., ain zuzen gaiztakeririk egin etzenuelako. -- Erail gaitzakezute; baña ziuŕ gagoz bizirik utziko gaituzutela : Nork erail dezakegu?; ... - Ziuŕ al zagoz bizirik utziko zaituela, erail bazaitzakete ere?; Bai, oso ziuŕ nago ... - Nork erail zaitzateke?; ... -- Eskale gosebera ayek ezin eska lizaizuekete beartu zuten guzia : Nortzuek ezin eska lizaigukete beartu zuten guzia?; ... - Zer ezin eska lizaigukete gosebera ayek?; ... - Guk eska al genizaizueke beartu genuen guzia?; Ez, zuek ere ... -- Ezin maīatu dizaizkigukezu sukaldeko pertzak oso gogoŕak diralako : Nork ezin maīatu dizaizkizueke sukaldeko pertzak oso gogoŕak diralako?; ... - Zer ezin maīatu dizaizuekete oso gogoŕa dalako?; ... - Guk maīatu al dizaizkizuekegu sukaldeko pertzak oso gogoŕak ez diralako?; Ez, zuek ere ... -- Lasaiki zegozen jokatzen, ezer gertatu ezpailitzayen : Nola zegoen atso ura?; ... - Nor zegoen lasaiki jokatzen, ezer gertatu ezpailitzayon?; ... - Ni ere lasaiki jokatzen al nengoen, ezer gertatu ezpailitzaidan?; Ez, ..., baño. -- Emendik andik baño obeto ikus zaitzaket : Nundik ikus nazakezu andik baño obeto?; ... - Nor ikus dezakezu ortik andik baño obeto?; ... - Zuek ere ortik andik baño obeto ikus al gaitzakezute?; Bai, guk ere ... -- Ez ezaizkidazu bialdu laurleko ayek gorde ezin dizaizkizukedalako : Zer eztizut bialdu beaŕ ezin gorde dizaidakezulako?; ... - Nori ez dizkiogu bialdu beaŕ laurleko ayek ezin gorde dizaizkigukelako?; ... - Guk ere ez al dizkizuegu laurleko ayek bialdu beaŕ, gorde ezin dizaizkigukezutelako?; Ez, zuek ere ... -- Aurkaria izango balitz, ainbeste dagozen baratz auetara erdu liteke : Nor erdu liteke ainbeste auŕ dagozen baratz auetara, aurkaria izango balitz?; ... - Nora erdu litezke, aurkariak izango balira?; ... - Gu erdu al gindezke ainbeste auŕ dagozen baratz auetara, benetan aurkariak izango bagiña?; Bai, zuek ere ... -- Ezin jaso lizaizkiekete mandazain oyei, aldapa artan erori zitzaizkien mandoak : Nori ezin jaso lizaizkiokete aldapa artan erori zitzaizkion mandoak?; ... - Zer ezin jaso

zenizayekete mandazain oyei?; ... - Guri jaso al zenizaizkigukete aldapa artan erori zitzaizkigun mandoak?; Ez, zuei ere ... -- Oŕen ekaitz izugaŕia dala-ta, guziak itxasoan ondatu zitezkean: Nortzuk ondatu zitezkean itxasoan, oŕen ekaitz izugaŕia dala-ta?; ... - Zer dala-ta, ondatu zitezkean guziak itxasoan?; ... - Zuek ere itxasoan ondatu al zindezketean oŕen ekaitz izugaŕia dala-ta?; Bai, gu ere ... -- Ezin auta gaitzakezu toki ortarako, ezertarako ez geralako: Nor ezin auta dezakegu toki ortarako, ezertarako eztalako?; ... - Norako ez zaitzateket auta, ezertarako ez zeratelako?; ... - Ni auta al nazakezute toki ortarako?; Ez, zu ere ... -- Gazte egikari oŕek an jazo zitzaizkigun gertariak jaulki dizaizkieke: Zer jaulki dizayeke gazte egikari oŕek?; ... - Nori jaulki dizaizkioke gazte egikari oŕek an jazo zitzaizkizuen gertariak?; ... - Nik jaulki al dizaizkizueket an jazo zitzaizkien gertariak?; Ez, ... baizik.

4. Emen aipatzen dan elebeŕiari egindako itzauŕean agertzen dan zati au irakuŕi ondo; gero, bertan Euzkaltzaindi'aren izena ematen dalako, erakunde oŕi buruz bakoitzak esan dezakena azaldu beaŕ du: Noiz eta nola sortu zan, bere lana zein izan ote dan, lonako aldakuntzak izan dituen eta abaŕ; esanez eta idatziz:

«ITZ BI»

«1954'gn. urtean sariketa bat jaŕi zuen Euskaltzaindi'ak. Lenbiziko gaya elebeŕi bat antolatzea zan, naiz zuzenean euzkeraz asmatua, naiz beste edozein erderatik aldatua. Lanak asko azaldu ziran, amabi bai gutxienez. Oyetatik iru aukeratu zituzten epaīleek saristatuak izateko: Etxaide jaunaren «Joanak Joan» (lenbiziko saria), Itunbe'ren «Bide Izkutua» (bigaŕen saria), eta Erkiaga jaunaren «Aspaldiko Maigret» (irugaŕena). Sari oyezaz gañera, deduzko aipua eman zitzayon Loidi jaunaren «Amabost egun Urgain'en» ertzain-elebeŕi ernagaŕiari; aipu ondo irabazia, ziñez, irakurgai ori edari sarkoŕaren iŕitsaz zuŕupatzen baita. Bigaŕen eta irugaŕen tokian izendatu ditugunak, itzulpenak dira; bata gazteleratik, bestea parantsesetik euzkeratua.

Orduan bigaŕen saria eramandako lana argitaratzen dugu, bada, orain. Hugo Wast, Arjentina'ko idazle ospetsuak idatzitako «El Camino de las llamas», oŕa zer eskeintzen zaigun «Bide Izkutua» ontan euzkeratuta.

Euzkeratzaīlea nor dugun? «Itunbe», izen asmatu oŕen azpian iru lagun gorde dira. It-un-be: Ituŕia'taŕ Joseba, Unzuŕunzaga'taŕ Imanol, Berasaluze'taŕ Sabin, alegia. Iru frantziskotaŕ ikasle gazte oyek Napaŕoa'ko Olite'n arkitzen ziran garai artan, Filosofia'ko ikastaldiak egiten, eta iruron artean burutu zuten lan au. Irugaŕen ori gernikaŕa duzute, beste biak zarauztaŕak, eta erdikoa, gañera, «Itxaropena» Etxeko jaunaren semea.

Elebeŕía argitaratzeko, ordez, egiīearen baimena beaŕ, eta oŕ izan genuen istiīua. Egun ayetan Arjentina'ko Erkala aŕas naastua zebiīen. Peron zala ta etzala, egun beltzak ikusitakoak dira ango biztanleak. Hugo Wast jauna, beiñola, Eŕi-azibide kontuan eskudun eta gero Liburutegi Nazional'eko Artezkari izandakoa dugu; baña Peron jauna Eliza'ren aurkako legeak ematen asi zanean, bere kargu guztiak bertanbera utzi, eta aldendu egin zan».

«Bide Izkutua» (5-6'gn. oŕialdeetan) «Hugo Wast» Itzauŕearen egiīea, Luis Villasante Aita, O. F. M. Euskaltzaindi'koa.

EUN ETA OGETABIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ALMENERA - EGINKOŔA - IRAGANKOŔA

EREDUZKO ADITZA - LAGUNTZAĿEAREN ERAEKIN

LENALDIA - ERAKETAREN BIGAŕEN BIDEA

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

			-ZU

IKUS	*N-i-N-* t) -ZA-	-KE-	
			-ZU- -TE
			----- -TE
			-ZU

IKUS	*G-i-N-* t) -ZA-	-KE-	
			-ZU- -TE
			----- -TE

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

			-T
			--
IKUS	*Z-i-N-* t) -ZA-	-KE-	
			-GU
			--- -TE
			-T
			--
IKUS	*Z-i-N-* t) -ZA- *-TE-*	-KE-	
			-GU
			--- -(T)E-

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

Beste ikaskayetan bezela, eztitugu emen jartzen adizkin auek, 116'gn. ikaskayan ikasi genituenak diralako.

Auŕeko 114, 116 ta 119'gn. ikaskayetan adierazi dugun bezela, ontan ematen ditugun erai -AN atzizkia gañeratzen badiegu, LENAGOKO GEROALDIA deitzen dugun beste aldikoak egingo ditugu; onela:

Ikus NINTZAKEZU*AN*; Ikus ZINTZAKED*AN*; eta abaŕ.

EZIÑERA, beste ikaskayetan ikusi dugun bezela, esandako adizkiñen auŕetik EZIN ipintzean egingo dugu.

EGINKIZUNAK

1. Emen ematen dugun lenengo laukian, lenengo leŕoan izakayak adierazten dituzten izenordeak azaltzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; alkaŕi dagozkion adizkiñak ipiñi beaŕ dira, Almenera'zko oraiñaldian; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		zaitzaket	...		...	...
Zuk	Nazakezu		...	...		...
Berak	...	...	...	gaitzake	...	...
Guk		...	dezakegu		...	...
Zuek	...		...	...		ditzakezute
Berak	...	...	...	...	zaitzatekee	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan, lenaldian dagozen menekoera ta almenerazko esakuntzak ipintzen ditugu; era bietakoak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, ots, lenengokoak bigaŕenen bidez eta alderantziz, bigaŕenekoak lenengoen bitartez; kulatzen ordez, itzez eta idatziz, egiteko:

Anaya ta biok unealdi artan *gaizkatu nintzazula* nai genuen; ... - Orduan egin zenigun gaiztakeriagatik *zematu zintzakegu*; ... - Auŕ ori bialdu zizueten *larderiatu zenezaten*; ... - Oŕela *zimikatu gintzakezu*, baña guk deadaŕ-egingo genuke gogoŕ; ... - Oneraño eldu ziñaten neronek *sendotu zintzatedan*; ... - Emakume gaixo oyek *azkartu genitzake* guregana elduko balira; ... - Egia da *ondatu nintzakezutela*, baña biotzik izango al zenukete oŕelakorik egiteko?; ... - Alegiñik aundienak egin beaŕ-izango zenituke ankeŕ oyek *muŕiztu ez zintzaten*; ... - Guzia *zatitu genezake* eŕaz baña zertarako egingo genuke astakeri ori?; ... - Ez dugu uste gizon maltzuŕ oyek ere *poŕokatu gintzatela*; ... - Etzi arte emen egongo baziñate, ene ustez ongi *bizkortu zintzatekete*; ... - Gure etxera etoŕi nai-izango balute, beaŕ duten bezela *adoretu nitzan*; ...

3. Besteetan bezela, emen ipintzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, esanez eta idatziz:

Igo al nintzakezu zurekin egazki ortan?; zuk nai baduzu bai, igo zintzaket nirekin egazki ortan: Nork igo nintzake berarekin egazki ortan?; ... - Nun igo nintzakezute zuekin nik nai-izan ezkero?; ... - Guk igo al zintzatekegu gurekin egazki ortan zuek nai-izan ezkero?; Bai, zuek ere ... -- Ikusi nai zaitudanean, ezin aurkitu zaitzaket: Nork ezin aurkitu nazake ikusi nai nauenean?; ... - Nor ezin aurkitu dezakezu ikusi nai duzunean?; ... - Zuek aurkitu al gaitzakezute ikusi nai gaituzutenean?; Ez, zuek ere ... -- Ezin zin-egin lizayekete eskatzen zietena: Nori ezin zin-egin lizayokete eskatzen ziena?; ... - Zer ezin zin-egin genizaizueke?; ... - Nik zin-egin al nizaizuke eskatzen zenidana?; Ez, zuk ere ... -- Ezin zeartu litezke obeto gure bidean zerok baño obeto: Nortzuk ezin zeartu litezte zuen bidean gerok baño obeto?; ... - Ni zeartu al nindeke zure bidean berak baño obeto?; ... - Gu zeartu al gindezke zuen bidean lagun ayek baño obeto?; Ez, ... -- An ikusi nuena edestu al-izango banizue, izutuko ziñakete, alegia: Nor izutuko litzake, alegia, an ikusi zuena edestu al-izango balio?; ... - Gu izutuko al giñake an ikusi zenuena edestu al-izango bazenigu?; Bai, zuek ... - Ni izutuko al nintzake an ikusi zutena edestu al-izango balidate?; Ez, ... baño. -- Aldezkari on ayek ezin goratu zintzatekete geyago: Nork ezin goratu gintzake geyago?; ... - Nortzuk ezin goratu litzakete geyago aldezkari on ayek?; ... - Zuk goratu al nintzakezu geyago?; Ez, ... baizik. -- Uŕuñatu zintzakegu, baña ez genuen egin eta eztugu iñoiz egingo: Nork uŕuñatu nintzake?; ... - Zuk uŕuñatu al gintzakezu?; Ez, ... - Zuek uŕuñatu al gintzakezute?; Ez, guk ere ... -- Ezin aspertu zindezkete gazte mazal ayekin: Nor ezin aspertu liteke gazte mazal ayekin?; ... - Gazte mazal ayek aspertu al litezke zuekin?; Ez, ene ustez ... - Eta ni aspertu al nindeke gazte mazal ayekin?; Ez, zu ere ... -- Ezin jaso nazakezu emendik, ez eta zure indaŕ guztiak erabiltzean ere: Nork ezin jaso zaitzake emendik, ez eta bere indaŕ guztiak erabiltzean ere?; ... - Nor ezin jaso dezaket emendik, ez eta nire indaŕ guztiak erabiltzean ere?; ... - Zuk jaso al gaitzakezu emendik?; Ez, nik ... ez eta ... -- Naiz emen naiz an, beaŕ dituzuten urdayak edonun esegi al-izango dizkizuet: Nork esegi al-izango dizkit beaŕ ditudan urdayak naiz emen naiz an, edonun?; ... - Nun esegi al-izango dizkiguzu beaŕ ditugun urdayak?; ... - Nortzuek esegi al-izango dizkizuete beaŕ dituzuten urdayak naiz emen naiz an, edonun?; Emakume maratz ayek ... -- Ezin aurkitu nazake, ta iru aldiz nire auŕetik igaro da: Nork ezin aurkitu zaitzake zure auŕean iru aldiz igaro bada ere?; ... - Nortzuek ezin aurkitu nazakete nire auŕetik iru aldiz igaroaŕen?; ... - Guk aurkitu al zaitzatekegu?; Ez, zuek ere ... -- Begiluze oyek beste alde batera begira al lezakete: Nortzuek begira al lezakete beste alde batera?; ... - Nora begira al lezakete begiluze oyek?; ... - Guk begira al genezake beste alde batera?; Ez, ... baño. -- Beren ondoan egon ez izatea ezin azketsi lizaigukete: Nortzuek ezin azketsi lizaizuekete beren ondoan egon ez izatea?; ... - Zuk azketsi al zenizaiguke zure ondoan egon ez izatea?; ... - Nik azketsi al nizaizueke nire ondoan egon ez izatea?; Ez, zuk ere ... -- Ankerkeri ori egiteko ausartu al zindezkete?; Ez, gu ezin ausartu gindezke ankerkeri ori egiteko: Nor ezin ausartu liteke ankerkeri ori egiteko?; ... - Zertarako ezin ausartu zindezkete zuek?; ... - Ni ausartu al nindeke ankerkeri ori egiteko?; Ez, zu ere ... -- Bidaldi ain luze artatik ez nintzan itzuli al-izan joan dan astearte: Nor etzan itzuli al-izan joan dan aste arte bidaldi ain luze artatik?; ... - Noiz arte ez ziran oyek itzuli al-izan bidaldi ain luze artatik?; ... - Zuek itzuli al-izan ziñaten bidaldi ain luze artatik joan dan aste arte?; Ez, gu ere ...

4. Irakuŕi ondo emen ematen ditugun bost aapaldiko bertsoak; aapaldi bakoitzean «oin-eŕen» bat agertzen da; bertso «oin-eŕen» ori zein dan esan beaŕ da, bai ta zergatik deitzen diogun oŕi, oŕela, «oin-eŕen» ere. Oŕez gañera, bertsoen mamia, ots, olerkariak bertso oyen bidez, zer esan nai duen be, begiratu ta zein dan esan ere.

«EUZKALDUNENAK»

«Euzkaldunak ez dira
egon bakean
bizi arazoetan,
burua amets gaŕez zan
artean.

Euzkaleŕi'ko luŕa
gitsi etsirik,
menturazko bideak
arturik doaz asko
etxetik.

An, uŕin, gogoratzen
zan eŕiagaz,
mindurik. Mendi, zelai
ta eŕi osoaren
giroaz.

Zergatik itzi neban?
zerk mindu nindun?
Zugandik aldetako,
zu lakorik ez bada.
ez iñun?

Begiak galdu eusten
orko orlegia,
txikia baziñan be
luŕez, nork ager zure
bizia?».

«Deika» (142'gn. oŕialdean) Solozabal'taŕ Paulin.

EUN ETA OGETAIRUGAŕEN IKASKAYA

-AŔ, -DAŔ, -TAŔ, -AR, -ER atzizkiak.

-AŔ ta bere aldaketak diran -DAŔ, -TAŔ, gañeratzen zaizkion izenak adierazten duen tokian, norbait jayo dala edo jatoŕiz andik datoŕela esateko darabilzkigu.

Onela: Donostia*ŕ*, Irun*daŕ*, Gasteiz*taŕ* = Donostia'n, Irun'en, Gasteiz'en jayo dana edo bere sendiaren bidez toki oyetatik datoŕena.

Atzizki oyek, abizenai alkartzean, bakoitza norberaren sendiarena dala adierazten dute.

E. b.: Aŕegi'taŕ Yon = Yon, Aŕegi sendiarena da.

-AR eta *-ER*, zerbait burutzeko uŕean dagoela adierazteko erabiltzen da; ta -TE edo -TZE beste atzizkien bitartez, aditz-izenari alkartzen zaizkio.

Onela: Egi*ter* = egiteko uŕean; Iltze*ar* edo iltz*er* = il-agian; Itotz*er* = itotzeko eiñean.

-ER, sortaldeko euzkaldunen artean itz-jokoan erabiltzen da, beste tokietan -AI edo -EI atzizkien bidez adierazten dana esateko (1).

Onela: Gizon*er* = Gizon*ai* = Gizon*ei*.

-ARO, -ZARO atzizkiak, garai edo aldi-unea adierazteko darabilzkigu.

E. b.: Gazt*aro* = gazteen garaya; Zartz*aro*, Zarz*aro* = zaŕen garaya; Az*aro* = azia ereintzeko aldi-unea.

ARO, itza bezela, beste zentzun batzuetarako ere erabiltzen da: *aldi, giro, garai*, edo *aldi-unea* (atzizkia izanez bezela); *oboa, anaidia, ziurtasuna* (Azkue'k bere Iztegian, azken zentzun ori itz batean bakaŕik ayertzen dala diño).

E. b.: *Aro* ona = aldi ona; Gure *aro*an = gure garayan; Iz*aro* = itxaso-oboa (2); Su *aro* = suteen aurkako anaidia (3).

-ARO, -ERO, -ORO atzizkiak.

(1) Ikusi: 24'gn. ikaskaya.
(2) Azkue'k (D.) diñoenez, Mogel izan zan, bere «Peru-Abarka»'n, itz oni, ugarte baten izena dana, zentzun ori eman ziona.
(3) Ikusi: Azkue, Dic.

Iru atzizki auek *askaŕ*-zentzuna dute, *guziak* itza bezela; batez ere *aldizkotasun*aren asmoa adierazteko.

Onela: Ilaro, Ilero = il guztietan; Egun*ero*, Egun*oro* = egun guztietan, egunean-egunean.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, izakayak adierazten dituzten izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; alkaŕi dagozkion adizkiñak ipiñi beaŕ dira, almenerazko lenaldian; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		...	nezake		...	...
Zuk	...		...	gintzakezu		...
Berak	Nintzake	...	...	...	...	...
Guk		zintzakegu	...		...	...
Zuek	...		...	...		zenitzakete
Berak	...	...	...	...	zintzatekee	...

2. Beste eginkizun ontan, almenerazko adizkiñak daramazkiten esakuntzak ematen ditugu, batzuk oraiñaldian eta besteak lenaldian jaŕita dagozenak; bi mota oyetakoak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, ots, lenengokoak bigaŕenen bidez eta alderantziz, bigaŕenekoak lenengoen bitartez; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Zuen laguntzaren biīa natoŕ, zuek *agondu bainazakezute*; ... - Jaun ayek *goratu zintzakete*, beaŕ-izango litzaken ainbat; ... - Neronek *goititu dezaket* ikuŕiña eŕi ortako udaletxean; ... - *Ezin atotsi gintzakezute*, orduan egin zenuten baño obeto; ... - Basati oyek *ezin ordeztu zaitzatekee* lan oyetarako, iñola ere; ... - Atzeŕitaŕ ayek *uŕuñatu genitzake*, baña guk eztugu nai oŕelakorik egitea; ... - *Ezin txalotu nintzakete* biīera artan, ortarako ezer egin enuelako; ... - Ene ustez lantoki ortarako eŕaz *onartu zaitzakegu* zuk zure burua aurkeztu nai baldin baduzu; ... - *Ezin baztertu zenezakete* ain apala zan gazte ura; ... - *Zokora gaitzakezu* berandu gabe, baña zer irabazi dezakezu oŕela jokatzean?; ... - Noiz *epaitu zintzateke* epaikari zoŕotz oŕek?; ... - *Astandu ditzakete* leikide gogaikaŕi oyek bereala; ...

3. Uŕengo galderai erantzun bana eman beaŕ zaye, beti berela esaten eta idazten:

Berarekin jetxi ezin zintzakenezkero, bakaŕik jeistea utzi beaŕ-izan zinduen: Nork utzi beaŕ-izan ninduen bakaŕik jeistea, berarekin jetxi ezin nintzakenezkero?; ... - Nor utzi beaŕ-izan zenuen bakaŕik jeistea, zurekin jetsi ezin zenezakenezkero?; ... - Guk zu bakaŕik jeistea utzi beaŕ-izan al zindugun, gurekin jetsi ezin zintzakegunezkero?; Bai, zuek ere ... -- Egarbera zegozen eta ezin eman genizayeke ur-tantorik ere: Nori ezin eman zenizayokete ur-tantorik ere, egarbera egonaŕen?; ... - Nortzuek ezin eman lizaidakete ur-tantorik ere, ain egarbera nengoenean?; ... - Nik ur-tantorik eman al nizaizueke, zuek ain egarbera ikustean?; Bai, geron ustez ... -- Etxe-auŕea margotu al dizaigukezutenean, zalantzik gabe, guzia oso ondo geratuko zaigu: Nola geratuko zaizue guzia, etxe-auŕea margotu al dizaizuekegunean?; ... - Zer geratuko zaigu oso ondo, etxe-auŕea margotu al dizaigukezunean?; ... - Oso ondo geratuko al zait guzia, etxe-auŕea margotu al dizaidakezutenean?; Bai, zuri ere ... -- Ezin pulunpatu zintzatekee zingira nazkagaŕi artan: Nortzuek ezin pulunpatu gintzakete zingira nazkagaŕi artan?; ... - Nor ezin pulunpatu zenezakete zingira nazkagaŕi artan?; ... - Zuk pulunpatu al nintzakezu zingira nazkagaŕi artan?; Bai, nik ... -- Nor egon liteke orduan iltzer?; ume iñul oyek egon litezke orduan iltzer: Nola egon nindeke ni orduan?; ... - Noiz egon liteke iltzer ume iñul ori?; ... - Gu ere iltzer egon al gindezke orduan?; Bai, zuek ere ... -- Berealaxe itzuliko nintzake ezer esan ezin zenizaidaketen: Nor itzuliko litzake berealaxe ezer esan ezin genizayoken?; ... - Zertarako itzuliko giñake gu berealaxe?; ... - Zuek ere berealaxe itzuliko al ziñakete ezer esan ezin genizaizueken?; Ez, ... baño. -- Legendun ayek kutsatu al nintzaketean: Nortzuek kutsatu al zintzaketean?; ... - Nor kutsatu zezaketean legendun ayek?; ... - Nik kutsatu al zintzatekedan?; Ez, ... baizik. -- Ezin onetsi gintzakete eskuak lotuta zeuzkatelako: Nork ezin onetsi zintzateke eskuak lotuta zeuzkalako?; ... - Zergatik ezin onetsi nintzakete?; ... - Nik onetsi al zintzaket eskuak lotuta neuzkalarik?; Ez, zuk ere ... -- Ezin biĺa gaitzakete, nun egon gaitezken eztakitelako: Nork ezin biĺa zaitzateke, nun egon zaitezketen eztakielako?; ... - Nor ezin biĺa dezakete, nun egon diteken eztakitelako?; ... - Guk biĺa al zaitzatekegu, nun egon zaitezketen uste dezakegularik?; Bai, zuek ... -- Beren zuldaŕak zornetu lizaizkiekete; oŕengatik ez zitzaizkien uŕeratu: Nori zornetu lizaizkiokete beren zuldaŕak?; ... - Zergatik ez zitzaizkigun uŕeratu atso ayek?;

... - Niri ez al zitzaizkidan uŕeratu, nire zuldaŕak zornetu lizaizkidaketelako?; Oŕela izan zan, zuri ere ... -- Etoŕi zaitezte goiz biar, besarkatu al nazakezuten, etxetik laisteŕ irtengo naiz eta: Nork etoŕi beaŕ-izango du goiz biar, zu besarkatu zaitzaken, etxetik laisteŕ irtengo zera ta?; ... - Zergatik etoŕi beaŕ-izango dugu goiz biar, zu besarkatu zaitzakegun?; ... - Zuk ere goiz etoŕi beaŕ-izango al duzu biar, ni besarkatu nazakezun, etxetik laisteŕ irtengo naiz eta?; Bai, nik ere ... -- Oŕen bizaŕ luzeaz ezin ezagutu zintzakedan: Nork ezin ezagutu nintzakean onen bizaŕ luzeaz?; ... - Nor ezin ezagutu zenezaketean oŕen bizaŕ luzeaz?; ... - Nik ezagutu al zintzatekedan oŕen bizaŕ luzeaz?; Ez, zuk ere ... -- Bizidunik ezin euki lezake bere zartzaroan bere gaztezaroan ainbat indaŕ: Nork ezin euki lezake bere zartzaroan bere gaztezaroan ainbat indaŕ?; ... - Noiz ezin euki lezakete oyek beren gaztezaroan ainbat indaŕ?; ... - Zuk euki al zenezake zure zartzaroan zure gaztezaroan ainbat indaŕ?; Ez, nik ere ... -- Abeltxea ezin egon liteke laŕe ayetan neguan: Zeñek ezin egon liteke laŕe ayetan neguan?; ... - Nun ezin egon liteke abeltxea neguan?; ... - Abelgoŕia egon al liteke laŕe ayetan neguan?; Ez, abelgoŕia ere ... -- Alegin guztiak egin nituen nire maizteŕak muzindu ez zekizkidan: Nork egin zituen alegin guztiak bere maizteŕak muzindu ez zekizkion?; ... - Zertarako egin zenituen alegin guztiak?; ... - Zuek ere alegin guztiak egin al zenituzten zuen maizteŕak muzindu ez zekizkizuen?; Ez, ... baizik.

4. Emen jartzen dugun elebeŕi baten egiĺeak berak bere lanari ipiñi zion itzauŕearen zati bat irakuŕi beaŕ da; ongi beti bezela; bertan gure Erdi-aroan Eŕi'ak jasan beaŕ-izan zuen elkaitza ekaŕi zutenak nortzuk izan ziran gogoratzen du. Irakuŕi ondoren, orixe da irakurle bakoitzak aipatu beaŕ-izango duena, talde ayei buruz dakien guzia azaltzeko, ta zoritxaŕezko ayen jokeraekiko duen iritzia; esanez eta idatziz:

«NONDIK ETA NOLA»

«Oiñaztaŕ eta Ganboaŕak dira gure Erdi-Aroan Sartaldeko Euzkaleŕi'-aren mendi-zelayak goŕitu zituztenen talde-izenak. Aldi berean Agramontesak eta Biamontesak zuten ari-leku Sortaldean. Lenengoek erabiĺi zituzten izenei buruz, Garibai giputz-istorigiĺe ospatsuak dio Araba'ko Gebara eta Mendoza leiñuen arteko boŕoketatik izan zutela sortze. Oñati Gebaratarena baitzen eta emendik artu omen zuten leenik «oñatinos» ize-

na eta gero antzaldatuz «oñazinos». Uribaŕi-Ganboa, ostera, Mendozataŕen jaurgoa zen eta uri onen izenetik sortu zen Ganboataŕen izena. Itz oyen zentzuez eman diren gaiñerako adierazpen guztiak paŕegaŕiak eta ametsezkoak direla aitortzen du Garibai'ek, baiñan, ala ta guztiz ere guk saŕera eman diogu ezagunenari, ene ustez bai-baitu zapore gazi-gozorik ezko-argien ipuyak.

Guk jaso dugun kondaira aldian Oiñaztaŕ taldeari Butroetaŕ generitzayoke egokiago eta alaber Ganboataŕari Abendañotaŕ, bi aundiki auek izan baitziren aipatutako taldeen buruzagi jaŕi zirenak. Jaun Peru Abendaño'k eta Jaun Gomiz Onzalutx'ek alkaŕ sakaildu beaŕez, norkeri basatienez boŕokan diarduten artean euren gurari makuŕak defendituz, Jaun Matxin Olasoko'k —Ganboa'ko etxearen leiñukoa ain zuzen— bi taldeen arteko pakea eta adiskidetasuna bilatzen du, zaldun aundikien oorezko lege utsalen gaiñetik Ebanjelioaren apaltasunezko erakuspideari jaŕaituz.

Nire kondairazko edeŕ-lanen —izen onen merezigaŕi baldin badira beintzat— irakurleei gauza bat jakin-erazi nai nieke bereziki. Alegia, auek kondairan sendo oiñaŕiturik egonarren, etxe bat bere zimenduetan bezala, ez direla, iñundik ere, gertakizunok itzez-itz artzekoak ala gertatu bailiran. Ene literatur-lanetan beti sayatu izan naiz egiaren irudia biziro islatzen, baiñan oŕek eztu esan gura nik kondairazko bizilagunei leporatzen dizkiedan egintzak egiazkoak direnik. Aitzitik, kontakizunik geyena asmamen utsezkoa baita, ez xeetasunetan bakaŕik, baita jo-mugatzat artutako leŕo nagusietan ere».

«Gorrotoa lege» (9-10'gn. leŕoeetan) Yon Etxaideko.

EUN ETA OGETALAUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ALMENERA - ADITZ LAGUNTZAILEA - ORAIÑALDIA

ARTZAILE-ADIZKIÑAK - IRUGAŔEN NOTIÑAREN ADI-YABEA (1)

Bakaŕ

Neri			-*Da*-	
Zuri			-*ZU*-	
Berari			-*O*-	
	IZAN	D- a) -KI-		-KE
Guri			-*GU*-	
Zuei			-*ZU*- -(*T*)*E*-	
Berai			-*E*-	

Askaŕ

Neri			-*Da*-	
Zuri			-*ZU*-	
Berari			-*O*-	
	IZAN	D- a) -KI- -ZKI-		-KE
Guri			-*GU*-	
Zuei			-*ZU*- -(*T*)*E*-	
Berai			-*E*-	

ALMENERA - ADITZ LAGUNTZAILEA - LENALDIA

ARTZAILE-ADIZKIÑAK - IRUGAŔEN NOTIÑAREN ADI-YABEA (2)

Bakaŕ

Neri			-*Da*-	
Zuri			-*ZU*-	
Berari			-*O*-	
	IZAN	L- e) -KI-		-KE
Guri			-*GU*-	
Zuei			-*ZU*- -(*T*)*E*-	
Berai			-*E*-	

Askaŕ

Neri			-*Da*-	
Zuri			-*ZU*-	
Berari			-*O*-	
	IZAN	L- e) -KI- -ZKI-		-KE
Guri			-*GU*-	
Zuei			-*ZU*- -(*T*)*E*-	
Berai			-*E*-	

(1) Ikusi: 140, 142, 149 ikaskayak.
(2) Ikusi: 140, 142, 149 ikaskayak.

Era guzti auek Menekoera'ren Oraiñaldi ta Lenaldiko (103 ta 111 ikaskayak)beste eraetatik ateratzen dira, bi aldakuntza auek egitean bakaŕik: Guzietan -N atzizkia kendu ta beraren ordez -KE jartzean, eta lenaldikoetan Z- auŕizkiaren ordez L- ipintzean.

EZIÑERA, lenago ikusitako beste oŕelakoetan bezela, EZIN itzaren bitartez egingo dugu.

114, 116, 119 ta 122'gn. ikaskayetan bezela, Lenaldian, -KE atzizkiaren ordez, -KEAN jartzen badugu ta auŕeko L-'ren ordez Z- ipintzean, LENAGOKO GEROALDIA'ren erak egingo ditugu.

Onela: IZAN ZEKIDA*KEAN*; IZAN ZEKIZU*KEAN*; ...

EGINKIZUNAK

1. Emen ematen dugun lauki ontan, lenengo leŕoan, artzaĺe zentzuna duten izenordeak jartzen ditugu; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, bayeztean eta ezeztean bakoitza, irugaŕen notiñen adi-yabeak agertzen dira. Alkaŕi dagozkion «Almenera»'ren eta «Eziñera»'ren Oraiñaldiko adizkiñak jaŕi beaŕ dira, esanez eta idatziz:

Adi-yabea	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Bera (bai):	Dakidake	...	...	...	dakizueke	...
Bera (ez):	...	ezin dakizuke	...	...	...	ezin dakieke
Berak (bai):	...	...	dakizkioke	...	dakizkizueke	...
Berak (ez):	Ezin dakizkidake	...	...	ezin dakizkiguke	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan Almenera'ren oraiñaldi ta lenaldiko adizkiñak daramazkiten esakuntzak ipintzen ditugu; bi aldi oyetakoak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, oraiñaldikoak lenaldikoen bidez eta alderantziz, lenaldikoak oraiñaldikoen bitartez; aldi baten, bayezkoak ezezkoen bidez eta alderantziz, ezezkoak bayezkoen bitartez; esatean eta idaztean:

Orixe da niri orain *otu dakidakena bakaŕik*; ... - *Ezin lotu lekizkizuke* obeto gurdiaren ugalak; ... - Zer *eska dakioke* oŕen aulduta dagoen gizako oŕi?; ... - *Ezin muzindu lekizkiguke* oso maitagaŕiak ziran neskatil ayek; ... - Zuen mirabe ori, berarenganako onak ezpazerate, *asaldatu dakizueke* noiz edo noiz; ... - *Ezin gaizkitu lekizkieke* geyago beren

zain zegozen eriak; ... - *Ezin anpatu lekizkidake* nire zangoak lasterkari oyei ainbat; ... - Zure seme makal ori, lan oyetan ari bada, *elbaŕi dakizuke*, gero; ... - *Ezin zornetu lekizkioke* bere zauriak ondo garbituko balitu; ... - *Oartu dakiguken* guzia gogo onez eta aŕetaz begiratuko dugu; ... - *Ezin oroitu lekizkizueke* guda gogoŕ artan jasan beaŕ-izan zenituzten ezbeaŕak?; Bilduŕ gera, beren gogoa *gogoŕ dakiekelako*; ...

3. Galdera guzi auei erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, beti bezela; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Auŕa erori dakidake, baña aŕetaz ibiĺiko naiz erori ez dakidan: Nori erori dakioke auŕa?; ... - Nor ibiĺiko da aŕetaz auŕa erori ez dakion?; ... - Zuei auŕa erori al dakizueke aŕetaz ezpazabiltzate?; Bai, guri ere ... -- Ez al gaituzute elikatu al-izango gure zartzaroan?; nai bai, baña eztakigu zuen zartzaroan elikatu al-izango ote zaituztegun: Nor elikatu al-izango zaitu zure zartzaroan?; ... - Zuek elikatu al-izango gaituzute gure zartzaroan?; Agian-bai, ... - Zuk elikatu al-izango nauzu nire zartzaroan?; Ez dut uste, nik ... -- Ezin uŕuñatu zintzakegu iñoiz eta iñun: Nortzuek ezin uŕuñatu nintzakete iñoiz eta iñun?; ... - Nor ezin uŕuñatu zenezakete iñoiz eta iñun?; ... - Neska lirain oyek uŕuñatu al gintzakete iñoiz edo iñun?; Ez, ... -- Bere ezuŕ guziak zenbatu zenizaizkiokete: Nori zenbatu genizaizkioke bere ezuŕ guziak?; ... Zer zenbatu nizayoke oŕi?; ... - Niri zenbatu al zenizaizkidakete nire ezuŕ guziak?; Ez, ... baño. -- Ezin asaŕetu litezke zuek bezelako notiñekin: Nor ezin asaŕetu liteke gu bezelako notiñekin?; Iñor ... - Norekin ezin asaŕetu zindezkete?; ... - Ni asaŕetu al nindeke zuek bezelako notiñekin?; Ez dugu uste, zu ... -- Ezin uŕeratu dakizuke umerik, izutzen dituzulako: Nori ezin uŕeratu dakioke umerik, izutzen dituelako?; ... - Nor ezin uŕeratu dakidake izutzen dudalako?; ... - Zergatik ezin uŕeratu dakizueke umerik?; Izutzen ... -- Egin al lezakete, bearbada, beren gaztezaroan, txaŕago egindako gauzik?; Ez, nire ustez ezin egin lezakete, beren gaztezaroan, txaŕago egindako gauzik: Nork ezin egin lezake, bearbada, bere gaztezaroan, txaŕago egindako gauzik?; ... - Zer ezin egin nezake, bearbada, nire gaztezaroan?; ... - Guk egin al genezake, bearbada, gure gaztezaroan, txaŕago egindako gauzik?; Ez, zuek ere ... -- Ezin zigortu zintzatekee orduan, oŕenbesterako ziorik etzegoelako: Nortzuk ezin zigortu litzakete orduan, oŕenbesterako ziorik etzegoelako?; ... - Zergatik ezin zigortu nintzakete orduan?; ... - Guk zigortu al zintzatekegu orduan?; Ez, zuek ere ... -- Erenegun ipiñi genizkien asmakizun eŕazak ezin atera lizaiz-

kigukete: Zer ezin atera lizaizuekete?; ... - Nortzuek ezin atera lizaizkizuekete erenegun ipiñi zenizkieten asmakizun eŕazak?; ... - Zuk atera al zenizaizkiguke erenegun ipiñi genizkizun asmakizun eŕazak?; Bai uste dut, nik ... -- Nai zezaten guzia uŕutiratu lekizkioke, baña bera beren jaŕaitzean joango litzake: Nor uŕutiratu lekioke nai zezan guzia?; ... - Nortzuei urutiratu lekizkieke nai zezaten guzia?; ... - Zuei ere nai zezaten guzia uŕutiratu al lekizkizueke?; Ez, ... baizik. -- Asko lasteŕ-eginaŕen ezin atzitu zintzakete: Nor ezin atzitu lezakete asko lasteŕ-eginaŕen?; ... -Nork ezin atzitu nintzake asko lasteŕ-eginaŕen?; Zuk atzitu al nintzakezu asko lasteŕ-eginaŕen?; Ez, nik ere ... -- Ez zaitez egon eskatu diguzunaren zai, ekaŕi ezin dizaizukegulako: Nori ezin ekaŕi dizayokezute eskatu dizuena?; ... - Zer ezin ekaŕi dizaidakezute?; ... - Nik ekaŕi al dizaizueket eskatu didazutena?; Bai, uste dugu zuk ... -- Nori aiztu lekioke bizi-izate ikaragaŕi ura?; iñori ezin aiztu lekioke bizi-izate ikaragaŕi ura: Zer ezin aiztu lekieke erbesteratutako ayei?; ... - Zuri aiztu al lekizuke bizi-izate ikaragaŕi ura?; ... - Eta niri aiztu al lekidake bizi-izate ikaragaŕi ura?; Ez, zuri ere ... -- Ezin legoŕ dakizkiguke belarki oyek nai-izango genuken bezin laisteŕ: Nortzuei ezin legoŕ dakizkieke belarki oyek nai-izango luketen bezin laisteŕ?; ... - Zer ezin legoŕ dakizueke nai-izango zenuketen bezin laisteŕ?; ... - Niri legoŕ al dakizkidake belarki oyek nai-izango nuken bezin laisteŕ?; Ez, zuri ere ... -- Ezin erdu ezkero, lenago gaztigatuko dizuegu olekiz: Nork gaztigatuko digu lenago olekiz, ezin erdu ezkero?; ... - Nola gaztigatuko didazute lenago, ezin erdu ezkero?; ... - Zuk gaztigatuko al diguzu lenago, olekiz, ezin erdu ezkero?; Bai, nik ere ...

4. Ongi irakuŕi Sopokel'en antzerki baten ataltxo au; esan, gero, antzerkigiīe ori nungoa ta noizkoa zan, bai ta zein izkuntzan idatzi zuen; orobat antzerki oŕen euzkeratzaīleari buruz, nungoa ta noizkoa zan, bai ta berak euzkeratu dituen beste lanen beŕiren bat eman be:

«AYATZ»

«Odiseu'k — Zer dagizu, Azene? Iñola ez iozu otsegin lekorera.
Azene'k — Ez al zera ixiīik egongo? Ez zaitez bilduŕik izan.
Odiseu'k — Ez, yainkoaŕen! Barnean geratzea dauka.
Azene'k — Zeren estu ta laŕi zera? Ez al zan au lenago gizon ala?
Odiseu'k — Ta nere etsaya, noski, oraindik ere.

Azene'k — Etsayei buruz paŕ-egitea ez al da paŕerik eztiena?
Odiseu'k — Neri, ordea, gizon ori barnean egotea aski zait.
Azene'k — Gizon zoro baten buruz-buru ikusteak ikaratu egiten al zaitu?
Odiseu'k — Senean balego ikararik ez nuke egingo, aurki.
Azene'k — Oraingoan, ordea, naiz eta alboan euki, ez zaitu ikusiko.
Odiseu'k — Nola diteke, ordea? Ikusi begi beurez baitakus.
Azene'k — Ikusi badakuzkete, begiak, ordea, lauso-araziko dizkiot.
Odiseu'k — Dana diteke, noski, yainkoen bat tarteko izaki.
Azene'k — Orain zaude ixiīik, eta zaude zaudenez.
Odiseu'k — Geratuko naiz, noski; emendik uŕun egongo banintz, ordea, nayago nuke.
Azene'k — Ots, Aiatz, bigaŕenez otsegiten dizut. Zure gudukideari oŕen jaramon gutxi egiten al diozu? (Kapaŕetik ateratzen da Ayatz, burtzoraturik, eskuetan idabiuŕa odoletan blei-blei).
Ayatz'ek — Aguŕ, Azene, aguŕ Tzeu'ren alaba! Garaiz bai-zatoz! Uŕezko saŕaskiz buruntzatuko zaitut, eizaki onen eskeŕ onez.
Azene'k — Ederki esana; esaidazu, ordea, auxe: Argutaŕen gudostean ongi goŕitu al duzu ezpata?
Ayatz'ek — Ilaŕaindu naiteke, noski, ta egundaño ez dut ukatuko.
Azene'k — Ta Ateutaŕen buruzki ere buŕundarazi al duzu zure ukabiīa?
Ayatz'ek — Auŕerantzean, beiñik-bein. Ayatz ez dute itsusi-erazi al--izango, noski.
Azene'k — Iīak dira gizonok zure esanaren arauz.
Ayatz'ek — Iīak onezkero; etoŕi betoz nere izkiīoak bipiltzera».

«Sopokel'en antzerkiak - II» (16-17-18'gn. oŕialdeetan). Zaitegi eta Plazaola'taŕ Iokin'ek Ph. D., eladeratik euskeratuak.

EUN ETA OGETABOSKAŔEN IKASKAYA

OYUITZAK

AUFA!	Poztasuna adierazteko
EUP!	Oaŕerazteko
EA!, IA!	Zirikaldia bezela
OTS!	Zirikaldia bezela; oaŕerazteko ere
OTX!	Miña dagoela adierazteko
TIRA!	Zirikaldia bezela
MAU-MAU!	Siñisten ez dala adierazteko; «jateko egipena» ere
UTIKAN!	Astaneraztea adierazten du
OSTERA BE (ERE)	Ustekabea adierazten du
OTOI!	Eskatzea adierazten du
AŔEN!	Eskatzea adierazten du
EGUNDANO!	Aŕimena adierazten du
ĒNE!, JESUS ENE!	Aŕimena adierazten du
EIT!	Iseka adierazten du
IXO!	Ixīlera eragiteko
KASK!, TANPA!, DANPA!, TANBA!, DANBA!	Ukaldi baten otsa (ematen dan ukaldiarena)
AITAREN!	Aŕimen eta ustekabea adierazten du
ARA!	Begira!, ikusi!
AŔAYOA!, AŔAYOPOLA!	Aŕimena adierazten dute
ALAJAÑA!	Aŕimena adierazten du
AŔANOA!, AŔANOPOLA!	Aŕimena adierazten dute
BEJONDEIZULA!, BEJONDEIKELA!	Pozezko-aguŕ, on-egin!
BEYONDEIZULA!, BEYONDEIKELA!	Pozezko-aguŕ, on-egin!
BEŔI ON!, ZORIONAK!	Pozezko-aguŕ, atsegin-aguŕ, zorion-aguŕ
BAI ZERA!	Ezintasunaren ustea adierazteko (1)
EZ ZERA!	Altasunaren ustea adierazteko (2)
EKIN!	Egiteko ta jaŕaitzeko eskaria
GERO!, BEŔIZ!, GERO E!	Aŕetaz ibiltzeko eskaria
MADARIKATUA!	Añenekatzeko itza
ATZERA!, AUŔERA!	Nora joan beaŕ dan agintzeko
AI ENE!	Auena adierazteko
BAI OTE!	Aŕimena adierazteko
GAIXOA!	Uŕikaltasuna adierazteko (nai gizakume maiz emakumeari esateko)
GIZAGAIXOA!, GIZAJOA!	Uŕikaltasuna adierazteko (gizakumeari bakaŕik)
GORA!	Norbait edo zerbait goresteko
BERA!	Norbait edo zerbait erasteko
KAIXO!, OLES!	Aguŕ-egiteko
KONTUZ!	Oaŕerazteko

(1) Ikusi: 146'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 146'gn. ikaskaya.

ONDIKOTZ!, ONDIKOZ!	Zerbait auengaŕia dala adierazteko
ORI DEK!, ORI DUK!	Aŕimena adierazteko
ORI DEK, MOTEL (MUTIL)!	Gauzaren bat ondo egin dala adierazteko
AIDA!	Abelgoŕiak auŕeruntz akulatzeko
ATXI!, ESTI!	Abelgoŕiak atzera-erazteko
UOO!	Zamariak geldi-erazteko
PUŔA!	Oīoak deitzeko
UXU!	Oīoak aldenerazteko
MIZ!, MOX!	Katua deitzeko
ZAPI!	Katua aldenerazteko
KUTX-KUTX!	Zeŕiari txera-egiteko
TUŔI-TUŔI!	Zeŕiari dei-egiteko
POTX-POTX!	Astoari dei-egiteko

ARAOAK

Oso gutxi dagoz euzkeraz. Erabīliena auxe da :

ALA JAINKOA!, ALA JINKOA!	Jainkoa lekuko!

Arao au onela aldatu da :

ALA JAIÑA!, ALAJAÑA!	Itz au, lenago, oyuitza bezela ikusi da.

Azkue'k diñoenez, (M. 499), ALEGIA (ALA-EGIA), esakera bezela, azken arao ortatik bide datoŕ.

ARAOAK, sumiña adierazteko, bai, ba-dagoz batzuen batzuk; e. b. :

MADARIKATUA!, AŔAYOA!	Lenago ere itz auek oyuitzak bezela eman ditugu.

BIRAOAK

Euzkeraz AÑENAK ere deitzen dira, ta naiz bat naiz besteak gaitzetsi nai dala adierazten dute; ta Yainkoa'ri eskeŕ gure izkuntzak ez darabilzki oyek adierazteko itzak.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, artzaīe zentzuna duten izenordeak ipiñi ditugu; ta eskeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, bayeztean eta ezeztean bakoitza, irugaŕen notiñen adi-yabeak azaltzen dira. Alkaŕi

dagozkion «Almenera»'ren eta «Eziñeran'ren Lenaldiko adizkiñak eman beaŕ dira, esanez eta idatziz :

Adi-yabea	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Bera (bai) :	...	lekizuke	...	lekiguke	...	...
Bera (ez) :	Ezin lekidake	...	...	...	ezin lekizueke	...
Berak (bai) :	...	...	lekizkioke	...	...	lekizkieke
Berak (ez) :	...	ezin lekizkizuke	...	...	ezin lekizkizueke	...

2. Beste eginkizun ontan, Baldintzaeran eta Almenera'zko Lenaldian jaŕitako esakuntzak agertzen dira; aditzak iragangaitzak diralarik, biak alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira, lenengok bigaŕenen bidez eta alderantziz, bigaŕenak lenengoen bitartez; aldi baten, bayetzean dagozenak ezetzean eta ezetzean dagozenak bayetzean ipintzeko; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Elizan sartzean, ni *buruastuko nintzake* bereala; ... - Ibayaren beste aldera igarotzeko *oñustu zindezke*; ... - Datoŕen aste arte *elitzake* emen *agertuko* lotsakabe ori; ... - Nastatutako oyan ortan oso ondo *ezkutatu gindezkean*; ... - Bide oyetatik joan ezkero, geron ustez, zuek *ez ziñakete ostenduko*; ... - Min aundia ez eukiaŕen, gure mutiīak asko *espatuko lirake*; ... - Lana naikoa euki ezkero, ni *ezin aspertu nindeke* emen; ... - Janari ori bera eukiko bazenu, azkenez *gogaituko ziñakelakoan* nago; ... - Gure amoña, ara joanaŕen, uste dut *ezin aŕitu litekela*; ... - Beŕi oyek lenago artu bagenitu, *txundituko giñakean* oso; ... - Uri zikin ayetan eŕazki *kutsatu zindezkete*; ... - Beŕitsu aundi ayek *ezin isildu litezke*; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez esan eta idaztean :

Ia!, nor jaŕi lekiguke auŕean orduan?; noski, iñor ezin jaŕi lekizueke auŕean orduan : Nortzuei ezin jaŕi lekieke iñor orduan?; ... - Noiz ezin jaŕi lekiguke auŕean iñor?; ... - Niri jaŕi al lekidake iñor auŕean orduan?; Ez, zuri ere ... -- Ezin inguratu zintzatekee, bildu ziran ainbeste gizonen artean?; ez, ezin inguratu gintzakete bildu ziran ainbeste gizonen artean : Nor ezin inguratu lezakete bildu ziran ainbeste gizonen artean?; ... - Nola ezin inguratu nintzakete?; ... - Zu inguratu al zintzakegu geuk?; Ez, zuek ere ... -- Iraindu al zaitzaket zeroŕek egin didazunagatik; baña zertarako? : Nork iraindu nazake neronek egin diodanagatik?; ... - Zergatik iraindu gaitzakezute?; ... - Oŕek iraindu al zaitzateke zerok egin diozutenagatik?; Bai, oŕek ... -- Ez zera!, berealaxen egin dizaizukegu ori : Nork egin dizaidake ori berealaxen?; ... - Noiz egin dizaidakezute ori?; ... - Guk egin al dizaizuekegu ori berealaxen?; Ez, ... baño. -- Bai zera!, ezin zeartu lekizkiguke jaŕaitzen genuen bidean, oso zabala zalako : Nortzuk ezin zeartu lekizkizueke jaŕaitzen zenuten bidean?; ... - Nortzuei ezin zeartu lekizkieke jaŕaitzen zuten bidean?; ... - Neri zeartu al lekizkidake jaŕaitzen nuen bidean?; Ez, zuri ere ... -- Azaroan gari ta oloa erein lizaizkizuekete : Zer erein lizaidakete azaroan?; ... - Noiz erein lizaizkigukete gari ta oloa?; ... - Nik erein al nizaizkizueke azaroan gari ta oloa?, Bai, Zuk ... -- Beren ajola aundia erabiīiaŕen ezin zuzpertu nazakete : Nor ezin zuzpertu dezakete beren ajola aundia erabiīiaŕen?; ... - Zer erabiīiaŕen ezin zuzpertu zaitzakete?; ... - Zuek ere ezin zuzpertu gaitzakezute zuen ajola aundia erabiīiaŕen?; Ez, guk ere ... -- Apurtu zitzaizkien janzki zaŕ guziak josten eragin lizaizkiekete : Zuei josten eragin al lizaizkizuekete apurtu zitzaizkizuen janzki zaŕ guziak?; ... - Zer josten eragin lizaidakete neri?; ... - Nik josten eragin al nizaizkizuke apurtu zitzaizkizun janzki zaŕ guziak?; Ez, ... baizik. -- Zure aolkuak aiztu dakizkidake, baña alegiñak egingo ditut oŕela izan eztedin : Nori aiztu dakizkioke nire aolkuak?; ... - Zer aiztu dakizuke?; ... - Guri aiztu al dakizkiguke oyen aolkuak?; Bai, zuei ere ... -- Iltzer nengoelarik ezin utzi nintzaketean : Nor ezin utzi zezaketean iltzer zegoelarik?; ... - Noiz ezin utzi zintzaketean?; ... - Guk utzi al zintzakeguan iltzer zengozalarik?; Ez, zuek ere ... -- Zuen artaldeak ezin ibil zitezkean sapaŕ ayetan : Zein ezin ibil zitekean sapaŕ ayetan?; ... - Zuek ibil al zindezketean sapaŕ ayetan?; ... - Eta ni ibil al nindekean sapaŕ ayetan?; Ez, zu ere ... -- Ezin izan lekizuke atsegiña aramantaren usaña?; Bai, uste dut aramantaren usaañ atsegiña izan lekidakela : Nori izan lekioke atsegiña aramantaren usaña?; ... - Zer izan lekizuke atsegiña?; ... - Guri ere atsegiña izan al lekiguke aramantaren usaña?; Bai, zuei ere ... -- Kontuz!, ezin eman zenizaiguke buruausterik : Nork ezin eman lizaizueke buruausterik?; ... - Zuek eman al zenizaidakete buruausterik?; ... - Eta nik eman al nizaizueke buruausterik?; Ez, nire ustez, zuk ere ... -- Ezin utzi zenizaizkigukete zugaztian gorputz zentzungabe ayek : Zer ezin utzi genizaizueke zugaztian?; ... - Nori ezin utzi lizaizkiokete zugaztian gorputz zentzungabe ayek?; ... - Nik utzi al nizaizkizueke zugaztian gorputz zentzungabe ayek?; Ez, zuk ere ... -- Nire lagunak bialdu dizkizuet, maŕazoengatik an dagoen gaitzuŕea oaŕ dizaizueten : Nortzuk bialdu dizkiguzu,

mańazoengatik an dagoen gaitzuŕea oań dizaiguten?; ... Zertarako bialdu dizkidazu zure lagunak?; ... - Zuek bialdu al dizkiguzute zuen lagunak, mańazoengatik an dagoen gaitzuŕea oań dizaiguten?; Bai, guk ere ...

4. Elebeŕi onen atal au aŕetaz irakuŕi; gero, naiz bale-aŕantza naiz itxas-lapuŕai buruz bakoitzak jakin dezakena esan eta idatzi beaŕ da:

«KANALA'KO IKARAGAŔIAK»

«Teŕanoba'ko ur otzetara, bale-aŕantzan, urtero lez joanda ziran baleetako itxasontziak oraindik etorteko egozan, eta arein kezka ta arduraz bizi ziran eŕitaŕak, uste barik, euren bidean bat bateko gogortaden baten aŕisku ta estutasunetan jausiko ez ete ziran. Aŕantzale areik kanpotik zirala, eŕiko gazterik bulartsuenen indaŕa peitzen zan eŕietan, edozer gertatu ezkeroz.

Elantxobe ta Bermeo'n itotasun berezi bat igartzen zan. Estutasun laŕi ta etenkoŕ bat. Berdin Mundaka ta ingurutako eŕi txikietan.

Izaro ugartearen ingurutan, eŕi oŕein auŕez-auŕe, amalau erbesteko itxasontzi zenbatzen zituen egunetan. Belak kenduta, beaŕena agan inguratu ta tolestuta, iñorako iradurik ez eta igartzen ziran, egunak joan eta besteak etoŕi, andik ingurutako eŕitxoetan edozein unetan sartzeko eran.

Itxasertz guztian igaŕita zegozan zeñenak ziran txalopak eta zein zan euretako buru edo patroi nagusi: Drake.

Drake itxas-lapuŕa aspaldietako lapuŕik ezagun eta ausartitsuena zan, bai ta nabarmen, zital eta bildurgaŕiena be. Konta alak esanda be ez ziran bere jokabide ta egitada guztiak euren osotasunean esan al-izaten.

Drake izen berberak dardara ta otzikara sartzen zituen gizonik adoretsuenengan be ta ekaitzik gogoŕenak eta baltzenak aiña ate ta leyo itxi eragin.

Itxas-giro bigun eta barea zan udagoyen oŕetan. Neke barik egozan. Baña itxasertz guztian ba-ekien ez egozala oŕ oneitan etoŕi truke ta denbora igaroteko.

Izaro ugartean fraile franziskotaŕak lekaidetxe bat zabalduta euken. Eun eta irurogetamaŕ lenagotik an bizi ziran bake santu ta maitagaŕi batean, nai ta giro gordin, busti ta aizetsuen mende, borondatez an bizitzea

eskatzen eben fraileak. Jaungoikoa'ri itxas-soñuz otoitzak eskeiñi, itxasoak bedeinkatu ta itxas-gizonen bide ta ibiĪerak zuzendu nairik.

Legoŕetik premiñazkoena zana eroan eta oŕez gain bertatik aŕantzatzen zituzten aŕañakaz eta bertako aitz-zuloetan eta tartetan ugari batu eikiezan itxas-txorien aŕutzakaz janaritzen ziran.

Ugarte oŕeitara uŕeratu ziran bi-irutan txalopa oŕeitako batzuk. Ugarte ori jaubetzeko asmotan? Ez jakin».

«Esan eta Esango» (30-31'gn. oŕialdeetan) Augustin Zubikarai Bedialauneta.

EUN ETA OGETASEIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

IRAGANGAITZA - LAGUNTZAŁEAREN ERAEKIN

ALMENERA TA EZIÑERA'REN USTEKIZUNA

ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA

	Almenerazko Ustekizuna	Eziñerazko Ustekizuna
	BANADI	BANADI
	BAZAITEZ	BAZAITEZ
	BADADI	BADADI
IZAN AL		IZAN EZIN
	BAGAITEZ	BAGAITEZ
	BAZAITEZTE	BAZAITEZTE
	BADITEZ	BADITEZ

LENALDIA - ERAKETAREN BIGAŕEN BIDEA

	Almenerazko Ustekizuna	Eziñerazko Ustekizuna
	BANENDI	BANENDI
	BAZINDEZ	BAZINDEZ
	BALEDI	BALEDI
IZAN AL		IZAN EZIN
	BAGINDEZ	BAGINDEZ
	BAZINDEZTE	BAZINDEZTE
	BALITEZ	BALITEZ

Ongi egiztatu ditekenez, era auek beste bi auetatik irteten dira : naiz Almenera'renetatik (1), -KE atzizkia kentzean eta BA- auŕizkia gañeratzean, lenengo ta irugaŕen bakaŕ-notiñetarako aldakuntza txikiak egiten : naiz Menekoera'renetatik (2), -N edo -LA atzizkiak kentzean eta Ba-auŕizkia gañeratzean, bai ta Lenaldian, irugaŕen notiñetan, Z- auŕizkiaren ordez L- jartzean.

Eziñera'zko era auek 114'gn. ikaskayan agertzen diranekin erkatzean, auxe dago ikusteko : aretan EZIN itza aditzaren izen auŕean dago jaŕita, eta ikaskai ontakoetan, itz ori aditza ta adizkiñen artean dago ipiñita ; 73'gn. ikaskayan ematen dan EZIN itza jartzeko arauaren arauz.

(1) Ikusi: 114'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 96, 105'kn. ikaskayak.

Adizkin guzti auek eztira asko erabiltzen, eta Almenera eta Eziñera'ren zentzuna ematen diena, talde bakoitzari dagokionez, AT eta EZIN itzak ditugu. Beraz, itz bi oyek kendu ezkero, adizkin auen egiazko zentzuna baldintzaerarena da. Oŕela, Lenaldiko era guzti auek eta Baldintzaera'zko Ustekizun'arenak (1) zentzuna bera dute.

Onela : Izan *banendi* = Izango *banintz*.

Eginkizunak

1. Lenengo lauki ontan Almenera'zko Oraiñaldi ta Lenaldi'aren adizkiñak jaŕi beaŕ dira, sei adi-yabeai dagozkienez, beti bezela kulatzen ordez :

	Almenera'zko Oraiñaldia	Almenera'zko Lenaldia
Ni	Izan al banadi	...
Zu	...	izan al bazindez
Bera	Izan al badadi	...
Gu	...	izan al bagindez
Zuek	Izan al bazaitezte	...
Berak	...	izan al balitez

2. Bigaŕen eginkizun ontan, Almenera'zko Ustekizun'aren erak daramazkiten esakuntzak agertzen dira ; batzuk Oraiñaldian eta besteak Lenaldian ; aldi bi auetakoak ditugu alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, lenengoak bigaŕenen bidez eta alderantziz ere ; kulatzen ordez esan eta idaztean :

Lan oyetan nekatu *al banadi*, eztitut niretzat artuko ; ... - Zu edozein zioagatik nekarazi *al bazindez*, nola eramango zindukegu gurekin iñora? ; ... - Buru-belaŕi ekitean igo *al badadi*, alpeŕik ukatuko du eskatzen zayona betetzea ; ... - Egokera artan obeki aurki *al bagindez*, ezkiñake, ez, emen geratuko ; ... - Eŕi ontatik uŕun *al bazaitezte*, joan zaitezte lenbailen edonora ; ... - Gazte zoro ayekin erotu *al balitez*, obe izango zaye ayengana ez joatea ; ... - Laisteŕ zentzatu *al banendi*, enengoke ortarako nire alegiñak bete gabe ; ... - Beaŕ dan orduan etxean egoteko leyatu *al bazaitez*, egin oŕela gogo onez ; ... - Zorigabeko emakume ori gugana uŕeratu *al baledi*, pozik sorosiko genuke ; ... - Jaun eratsu oyei

(1) Ikusi: 74'gnetik 83'gneraño, ikaskayak.

alboratu *al bagaitez*, askoz obeto ibiliko gera; ... - Gurekin batera poztu *al bazindezte*, gure alaitasuna aundiagoa izango litzake, enurarik gabe; ... - Lan aundi ori egiteko, oraintxe abiatu *al baditez*, aste gutxi baŕu egiña izango dute; ...

3. Eman galdera auei beaŕak izango diran erantzunak:

Ia!, obea izan al bazaitez, nolako eragozpenak dituzu ez izateko?; egitan eztut eragozpenik ikusten, baña ala ere ez da eŕaz niretzat obea izatea: Norentzat ez da eŕaz obea izatea?; ... - Oyek ere obeak izan al baditez, eragozpenik aurkituko al dute oŕela izateko?; ... - Eta zuek obeak izan al bazaitezte, alegiñak egingo al dituzute oŕela izateko?; Bai, .. -- Ezin ikutu liteke, iñola ere: Nor ezin ikutu liteke, iñola ere?; ... - Nola ezin ikutu liteke ori?; ... - Ni ikutu al nindeke iñola ere?; Ez, zu ere ... -- Ezin jaso gintzakezute, naiz eta gogo ona bazenuten ere, zuen indaŕak txikiak ziralako: Nortzuk ezin jaso zenitzakete, naiz eta gogo ona bazenuten ere?; ... - Zergatik ezin jaso zintzatekegu?; ... - Ni jaso al nintzakezute, naiz eta gogo ona bazenuten ere?; Ez, zu ere ... -- Erdu al bagaitez, nai dezazutenera utz-egin gabe joango gera: Nor joango da utz-egin gabe guk nai dezagunera, erdu al badadi?; ... - Nola joango zerate guk nai dezagunera, erdu al bazaitezte?; ... - Ni ere erdu al banadi, zuk nai dezazunera joango al naiz utz-egin gabe?; Bai, ... -- Ori dek, mutil!, ekaŕ ezaidazu al dezakezun guzia: Nori ekaŕi beaŕ diot al dezakedan guzia?; ... - Zer ekaŕi beaŕ didazute?; ... - Zuek ere al dezakezuten guzia ekaŕi beaŕ al diguzute?; Bai, guk ere ... -- Egin beaŕ dutena aiztu lekieke, eta, oŕengatik, saŕi gogoratu egin beaŕ zaye: Zergatik gogoratu beaŕ zait saŕi, egin beaŕ dudana?; ... - Zer aiztu lekiguke guri ere?; ... - Zuri ere saŕi gogoratu beaŕ al zaizu egin beaŕ duzuna, aiztu lekizukelako?; Bai, niri ere ... -- Beŕogetamaŕen bat notiñek azterkatu nintzakete, ta an negiena ikusi lizaidakete: Nortzuek azterkatu zintzakete?; ... - Zer ikusi lizaizukete notin oyek?; ... - Nik azterkatu al zintzateket?; Ez, ... baño. -- Atetik sartu ezin baditez, saŕ ditezela leyotik: Nortzuek sartu beaŕ dira leyotik, atetik ezin baditez?; ... - Ni ere leyotik sartuko al naiz, atetik ezin banadi?; ... - Eta zuek ere leyotik sartuko al zerate, atetik sartu ezpazaitezte?; Bai, gu ere ... -- Alde emendik!, ezin ikusi zintzaket len, ez eta orain ere: Nork ezin ikusi nintzake len?; ... - Noiz ezin ikusi gintzakezu?; ... - Guk ikusi al zintzatekegu len?; Ez, zuek ere ... -- Iltzer zegozelarik, ezin esan zizaiguketean ezer: Nortzuek ezin esan zizaizueketean ezer iltzer zegozelarik?; ... - Zer ezin esan zizaidaketean iltzer zegozelarik?; ... - Nortzuei ezin

esan zizayeketean ezer iltzer zegozelarik?; Iñori ... -- Zure guziekin eta betiko, ondatu zaitzakegu: Nork ondatu nazake nire guziekin eta betiko?; ... - Nor ondatu dezakezute bere guziekin eta betiko?; ... - Nik ondatu al zaitzateket zuen guziekin eta betiko?; Ez, ... baizik. -- Belaunikatu ezin bagaitez, egon gaitezen zutik bederen: Nork egon beaŕ du zutik bederen, belaunikatu ezin badadi?; ... - Nola egon beaŕ dugu bederen, belaunikatu ezin bagaitez?; ... - Zuk ere zutik bederen egon beaŕ al duzu, belaunikatu ezin bazaitez?; Bai, nik ere ... -- Zure eŕiko zantzail ayek zentzatu al balitez!: Pozik egongo al ziñake, zure eŕiko zantzail ori zentzatu al baledi?; ... - Nola egongo ziñakete, gu ere zentzatu al bagindez?; ... - Eta ni ere pozik egongo al nintzake zuek zentzatu al bazindezte?; Bayetz uste dut, zu ere ... -- Ezin beartu zintzakete uztai oŕen pean egoteko: Nor ezin beartu zenezake uztai oŕen pean egoteko?; ... - Gu ere uztai oŕen pean egoteko beartu al gintzakezute?; ... - Eta nik uztai oŕen pean egoteko beartu al zintzaket?; Ez, zuk ere ... -- Jausiko baziña, txonkatil bat okertu lekizuke: Nori okertu lekioke txonkatil bat jausiko balitz?; ... - Zer okertu lekidake jausiko banintz?; ... - Guri ere txonkatil bat okertu al lekiguke jausiko bagiña?; Bai, zuei ere ...

4. Beŕiz ere emen ipintzen ditugu bertso batzuk, aŕetaz irakurtzeko; ta gero, «Gabon abestiak» eta «Eŕi-olerkiak» zeintzuei esaten zayen adierazi beaŕ da; itzez eta idatziz ere:

«GABON-ABESTIA» - «ARTZAÑAK»

«Jaunaren geznariak
poz-geznea ekaŕi dausku;
geure laŕe onetan
Jaun-Semia jayo bai-yaku.

Guazan, artzain danok
Seintxu Deuna biłatuteko;
geure bildots baŕiak
izan bediz Berarentzako.

Ardoki baten Jauna,
esan dausku jayo yakula;
Bera aulan txikituta,
geu geronek anditu gara.

Ara oŕ ardokia...
Entzuten da Seintxuari
Amaren lo-lotxua...
Lotan dago; biar da ixilī.

Au da Jaun eŕukioi
ona da Jaun maitegaŕia!
Bere maitetasunak
eratsi dau aska batera.

Jaunaren geznaria
dantzubenak, zoriontsubak!;
Jatsi dan Jaun-Goikua
dazabenak, zoriondunak!

Sein ori ardokitan
jayoten da, geu lakoxerik
ardiak zainduteko;
ezta iñun artzain oberik!

Jaungoiko-Semia, aguŕ!
Aguŕ, aguŕ, Jaunaren Ama!
Aguŕ, zeu, Gizon deuna!
Neska-amaren ezkona zara.

Mīla Euskal-olerki edeŕ» (622-3'gn. oŕialdeetan) Arana Goiri'taŕ Sabin.

Onaindia Aita'k jasota

EUN ETA OGETAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

-KI atzizkia.

Atzizki onek zentzun batzuk ditu (1).

a) Izenai alkartuta, artzen duen itzak esan nai duenaren zati edo gaya adierazten du.

E. b.: Ada*ki* = adaŕ baten zatia.

Zentzundunen izenekin, *aragia* dala adierazten du.

Onela: Txeŕi*ki* = Zeŕiaren *aragia*; Olo*ki* = Oloaren *aragia*; Sayes*ki* = sayetsaren *aragia*; Aŕai*ki* = aŕañaren *aragia*.

b) Izenondoekin, bakoitzari dagokion *aditzondoa* egiten du (2).

Onela: Eder*ki* = edeŕa danaren *egokera*; Ong*i* (on + -KI) = *ondo*, ondo dagoenaren *egokera*; Gaiz*ki* = *txarto*, txarto dagoenaren *egokera*; Egiaz*ki* = egizkoa danaren *izakera*; Gizon*ki* = gizona bezela *jokatzea*; Poli*ki* = polita danaren *egokera*; Itz onek, biŕesanez, *poliki-poliki* esakera egiten du, *taka-taka*, *arian-arian* bezelako asmoa ematen; Ole*ki* = olez ari danaren *egikera*.

d) Zenbakitzekin, talde baten *zati bakoitza* adierazten du.

Iru*ki* = iruetatik *bakoitza*; Lau*ki* = lauetatik *bakoitza*.

Bi*ki*, erkide edo sorkidearen zentzuna ematekoa da.

Zazpi*ki*, zazpigaŕen īlean jayo danari esateko erabiltzen da.

e) Aditzaekin, *izakaria* adierazten du.

E. b.: Estal*ki* = estaltzeko dan zerbait; Eŕe*ki* = eŕeta dagoen zerbait.

Batzuetan, aditzen *izatean* edo *egitean*, zerbait dala edo egiten dala adierazten du.

Onela: Iza*ki* = izatean; Ibil*ki* = ibiltzean (3).

f) Erdizkia (4) bezela, adizkiñetan, zeaŕ-betetzekoa erakusten du.

Onela: Dator*kit* = ni*ri*, ni*gana* datoŕ; Doa*kio* = be*rari*, berare*ngana* doa.

---

(1) Ikusi: Azkue, Dic. ta Lopez Mendizabal, Dic.
(2) Ikusi: 34'gn. ikaskaya.
(3) Ikusi: 49 ta 139'gn. ikaskayak.
(4) Ikusi: 31 ta 140'gn. ikaskayak.

-KIDE edo *-IDE* atzizkia.

IDE izenondotik irteten dira atzizki bi auek; eta -KIN atzizkiaren zentzuna dutela esan diteke.

Onela: Ma*ikide* = mayan alkaŕekin dagoezen bakoitza; Lan*kide* = lanean alkaŕekin ari diranen bakoitza; Aber*kide* = abeŕia bera dutenen bakoitza.

A*ide*, sendi berberarena dana adierazteko esaten da: Au*ŕide*, anai, neba, aŕeba edo aizta dana; Goga*ide*, gogo edo asmo bera dutenen bakoitza.

KIDEZ-KIDE esakera erabiltzen da, alkaŕekiko izan edo ari dirala, adierazteko.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, aditz laguntzaīe iragangaitzaren Ustekizuneran, Baldintzaera'zko Geroaldiaren eta Almenera'zko Lenaldiaren adizkiñak ipiñi beaŕ dira, sei adei-yabeai dagozkienez jakiña, kulatzen ordez esan eta idazteko:

	Baldintzaera'zko Geroaldia	Almenera'zko Lenaldia
Ni	Izango banintz	...
Zu	...	izan al bazindez
Bera	Izango balitz	...
Gu	...	izan al bagindez
Zuek	Izango baziñate	...
Berak	...	izan balitez

2. Eginkizun ontan, Eziñera'zko Ustekizun'aren adizkiñak daramazkiten esakuntzak ematen ditugu; batzuk Oraiñaldian eta besteak Lenaldian; mota bietakoak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, lenengoak bigaŕenen bidez eta alderantziz, bigaŕenak lenengoen bitartez; kulatzen ordez esakuntza beŕiak esan eta idazteko:

Egokera ontan bero-izan *ezin banadi*, nola ezaŕiko naiz obeto egoteko?; ... - Logura-izan *ezin bazindez*, zerbait irakurtzea egokia izango litzaizuke; ... - Mutil eragabe ori lotsa-izan *ezin badadi*, gogoŕ erabiltzea beaŕa izango zaigu; ... - Orduan oñustu *ezin bagindez*, oso nekegaŕia izango litzaiguke; ... - Bilkura ontan agertu *ezin bazaitezte*, eztugu erabiīi

al-izango gure arazo nagusia; ... - Toki egokian ezkutatu *ezin balitez*, berealaxe atzituko zituzten; ... - Pozik joango nintzake oyekin aspertu *ezin banendi*; ... - Beŕi oyek artzean txunditu *ezin bazaitez*, zer esan beaŕ-izango lizukete?; ... - Oyan oŕen barna ayendu *ezin baledi*, mendigoizale oso ona izango litzake; ... - Ikaskide oyekin ibiltzean gogaitu *ezin bagaitez*, egun guzian berekin ibiīiko gera; ... - Gu bezela aŕitu *ezin bazindezte*, zuen sorgortasuna oso aundia izango litzake; ... - Argi ayek itzali *ezin baditez*, gaizki egongo gera emen; ...

3. Oitura dugunez, galdera batzuk jartzen ditugu emen, bakoitzari erantzun egoki bat emateko; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Leotz ortatik atera al baledi, bereala egingo luke: Zuk ere ori egingo al zenuke leotz ortatik atera al bazindez?; ... - Zer egingo genuke guk leotz ortatik atera al bagindez?; ... - Nik ere orixe egingo al nuke leotz ortatik atera al banendi?; Bai, ... -- Obea izan ezin bazaitez, zer izango da zutzaz?; eztakit zer izango dan nitzaz, obea izan ezin banadi: Nork eztaki beratzaz zer izango dan, obea izan ezin badadi?; ... - Zuek obeak izan al zaitezkete?; Ez, ... - Guk al dakigu gutzaz zer izango dan obeak izan ezin bagaitez?; Ez, zuek ere ... -- Ezin zematu lekiguke oŕela: Nori ezin zematu lekioke oŕela?; ... - Nola ezin zematu lekizueke?; ... - Niri zematu al lekidake oŕela?; Ez, ... -- Ongi zigortu zintzatekegu, ori egiteko almena genuelako: Nor zigortu zenezakete, ori egiteko almena zenutelako?; ... - Zergatik zigortu nintzakezute?; ... - Nik ere zigortu al zintzaket, ori egiteko almena nuelako?; Ez, ... baño. -- Ikaskide ayengana uŕeratu al bazindezte, esaten ari dirana entzungo zeniekete: Nork entzungo lieke esaten ari dirana, ikaskide ayengana uŕeratu al baledi?; ... - Zer entzungo genieke, ikaskide ayengana uŕeratu al bagindez?; ... - Nik ere esaten ari dirana entzungo al nieke, ikaskide ayengana uŕeratu al banendi?; Bai, zuk ere ... -- Nik iraindu al zintzateket, guzia irabazi duzutelako: Nor iraindu genezake, guzia irabazi duelako?; ... - Zergatik iraindu gintzakezu?; ... - Oŕek iraindu al nintzake, guzia irabazi dudalako?; Bai, oŕek ... -- Ezin orbandu nazakete, berak guzien gañetik nagoelako: Nork ezin orbandu zaitzake, bere gañetik zagozelako?; ... - Nor ezin orbandu dezakete, berak guzien gañetik dagoelako?; ... - Guk orbandu al zaitzatekegu, zerok guzien gañetik gagozelako?; Ez, zuek ... -- Bizinai ayek igaz ainbeste lanaz egin genuena eraindu lizaigukete: Zer eraindu lizaizuekete bizinai ayek?; ... - Nori eraindu lizaiokete bizinai ayek, igaz ainbeste lanaz egin zuena?; ... - Guk eraindu al genizaizueke igaz ainbeste lanaz egin zenutena?; Ez, zuek ere ... --

Lauretan baño lenago itzuli al banendi, nai dezazunera alkaŕekin joango gera : Nora joango zerate alkaŕekin, lauretan baño lenago itzuli al bazindez? ; ... - Norekin joango naiz ni, berak nai dezanera, lauretan baño lenago itzuli al baledi? ; ... - Gu ere nai dezagunera joango al gera, zuek lauretan baño lenago itzuli al bazindezte? ; Bai, ... -- Oneraño igo ezin bazaitezte, zuengana jetxiko gera : Nortzuk jetxiko dira guregana, oŕeraño igo ezin bagaitez? ; ... - Oŕengana jetxiko al zerate zuek, oŕeraño igo ezin badadi? ; ... - Nigana jetxiko al dira lagun oyek, araño igo ezin banadi? ; Bai, ... -- Andere agurgaŕi ayek auŕean oleki makurtu al balitez! : Emen egongo al lirake andere agurgaŕi ayek, beren auŕean olerki makurtu al banendi? ; ... - Nortzuk egongo lirake emen, beren auŕean oleki makurtu albazindezte? ; ... - Zu egongo al ziñake emen, zure auŕean oleki makurtu al bagindez? ; Bai, ... -- Uste dut laŕanbiīoak zure miñak leundu lizaizkizukela : Zer uste duzu? ; ... - Nori leundu lizaizkioke bere miñak laŕanbiīoak? ; ... - Uste al duzute laŕanbiīoak guri ere gure miñak leundu al lizaizkigukela? ; Bai, ... -- Zuekin egongo ezpalitz, gaiztotu liteke : Nor gaiztotu liteke gurekin egongo ezpalitz? ; ... - Gu gaiztotu al gindezke zuekin egongo ezpagiña? ; ... - Eta zu ere gaiztotu al zindezke, gurekin egongo ezpaziña? ; bayetz uste dut, ni ere ... -- Araño eldu al bazindezte, an beraizik ipiñi zizkiguten aŕimokoŕ ayek ken zenizaizkigukete : Zer ken genizaizueke, araño eldu al bagindez? ; ... - Nortzuei ken zenizaizkieke, an beraizik ipiñi zizkieten aŕimokoŕ ayek, araño eldu al bazindez? ; ... - Nik ken al nizaizkizueke, an beraizik ipiñi zizkizueten aŕimokoŕ ayek, araño eldu al banendi? ; Bai, zuk ere ... -- Ardai ori piztu zenizaidake ta sua bereala izango genuke : Nork piztu lizaidake ardai ori sua bereala eukitzeko? ; ... - Zer piztu genizaizueke, sua bereala eukitzeko? ; ... - Ayek ardai ori piztu al lizaizuekete, sua bereala euki zenezaten? ; Bai, ...

4. Emen ipintzen duguna, txakuŕ baten edestiaren asikera da ; ongi irakuŕi ondoren, bertan agertzen diran bizkayerazko adizkiñen ordez gipuzkerazkoak aipatu beaŕ dira, esanez eta idatziz :

«IGESA»

«Atzean aizkorea eroyala, etxeko mutiīa uŕeratzen yatan. Astiro-astiro etorkidan geldiune labuŕak egiñez, eten barik berba gozoak iñoztazala. Geŕiaren atzetik eskumeaz aizkoreari eusten eutsala, ezkeŕa luzatuz azuŕ bikain bat eskeintzen eustan. Azuŕa, nire endako edozeñentzat ziri-

kapen gaŕai-eziña izango zitzakean, baña oraingo ontan ez ninduke auŕekoan lez ezustean aŕapatuko.

Auŕegunean, eskaratzaren bazkal-ondakiñak gosez itsu eginda irusten nebazala, alako baten Eŕupiñ'ek, etxeko mutiīak, idunetik oratuta, naŕaz kanpora atara ninduan. Ikara itzel batek menperaturik, atzazkalak luŕean untzatuz jarki nintzakion, eta bidetik topatzen neban zein-nai sostoŕi oratzen neutsan. Baña dana alpeŕik ; Eŕupiñ'en beso sendoek eŕuki barik neroan, eta azkenean etxetik atara egin ninduan.

Atadian dana gerturik egoan. Erdian, eguŕa zatitzeko arte-mukuŕ lodia ikusten zan, eta onen gañean aizkorea diz-dir gaiztoaz nire begira egoan. Etsi-etsian, azkenengoz jarki nintzan, atzeko ankakaz goldeko txiŕindola bati eutsi neutsala. Orduan mutiīak teinkada basati bataz andik askatu egin ninduan, eta ezer egiteko gauzarik ez nintzala, nire burua mukuŕ-ondoan ikusi neban. Eŕupiñ'ek idunekoari gogoŕ eusten eutsala, beste eskuaz aizkorea artu ta sorbatzaren zoŕoztasuna erpuruaz aztertu ta ontzat emonik, azkenengo ekitaldirako gertatu zan.

Esku bataz aizkoreari eusten eutsala, besteaz nire buztana mukuŕ gañean jaŕi ta oin baten azpian zapaltzen eustala, esku biakaz aizkorea jaso eban. Ontan, baña, unetxu batez geldi-geldi gertu zan, agopean iñoala :

— Nixio osabak lengo egunean iñostanez, ebate garbia izan beaŕ dau, ta ondoen egiteko, laugaŕen eta boskaŕen azuŕ-giltzen artean.

Jaŕaian, Eŕupin zenbatzen asi zan :

— Bat, bi, iru, ...

Orduantxe oñaren zapalkuntzea zeozer arintzen yatala konturatu nintzan, eta beingo baten teinkada bizia egiñez, askatu ta ariñeketan soloetatik igesari emon neutsan».

«Galdu»

«Txakuŕ baten gora-beerak» (11-12'gn. oŕialdeetan) Zubiri'taŕ Iñaki.

EUN ETA OGETAZORTZIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

IRAGANKOŕA - LAGUNTZAĽEAREN ERAEKIN

ALMENERA'ZKO USTEKIZUNA

ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA

	Irugaŕen notiñaren **bakaŕ**-izakaya					Irugaŕen notiñaren **askaŕ**-izakaya				
Nik					-T					-T
Zuk					-ZU					-ZU
Berak					---					---
	IZAN	AL	BA-	-D- e) -ZA-		IZAN	AL	BA- -D-	-IT- -ZA-	
Gu					-GU					-GU
Zuek					-ZU- -TE					-ZU- -TE
Berak					----- -TE					----- -TE

LENALDIA -ERAKETAREN BIGAŕEN BIDEA

	Irugaŕen notiñaren **bakaŕ**-izakaya					Irugaŕen notiñaren **askaŕ**-izakaya				
Nik			-N-					-N-		
Zuk			-Z-e-N-					-Z-e-N-		
Berak			-L-					-L-		
	IZAN	AL	BA-	e) -ZA-		IZAN	AL	BA-	-IT- -ZA-	
Guk			-G-e-N-					-G-e-N-		
Zuek			-Z-e-N-		-TE			-Z-e-N-		-TE
Berak			-L-		-TE			-L-		-TE

EZIÑERA'ZKO USTEKIZUNA:

Auŕeko adizkiñetan AL'en ordez EZIN ipiñita, egiña izango dugu.

Onela : Izan ezin badezat; Izan ezin baleza; Irakuŕi ezin baditzagu; Irakuŕi ezin banitza; ...

Era guzti auek, iragangaitzakoen antzera, Almenera'zkoetataik (1) irteten dira, -KE atzizkia kentzean eta BA- auŕizkia gañeratzean; edo Menekoera'zkoetatik (2) -N edo -LA atzizkiak kentzean eta BA- auŕizkia gañeratzean; eta Lenaldi'ko irugaŕen notiñetan Z- auŕizkiaren ordez L- jartzean.

---

(1) Ikusi: 116'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 98, 106'gn. ikaskayak.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, Almenera ta Eziñera'zko aditzerak jaŕi beaŕ dira, oraiñaldian eta bakaŕ eta askaŕ-izakayakaz; sei adei-yabeai dagozkienez; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

	Almenera		**Eziñera**	
	Bakaŕ-izakaya	Askaŕ-izakaya	Bakaŕ-izakaya	Askaŕ-izakaya
Nik	Al badezat	...	...	ezin baditzat
Zuk	...	al baditzazu	ezin badezazu	...
Berak	Al badeza	...	...	ezin baditza
Guk	...	al baditzagu	ezin badezagu	...
Zuek	Al badezazute	...	...	ezin baditzazute
Berak	...	al baditzate	ezin badezate	...

2. Emen ematen ditugun esakuntzetan, Almenera'zko Ustekizunean jaŕitako adizkiñak agertzen dira; batzuk Oraiñaldian eta besteak Lenaldian; bi aldi auetakoak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, Oraiñaldikoak Lenaldikoen bidez eta alderantziz, Lenaldikoak Oraiñaldikoen bitartez; beti bezela, kulatzen ordez esatean eta idaztean :

Lokaŕi ori *ebaki al badezat*, bereala sartu al-izango gera oŕera; ... Guzion ebazkizunetan beaŕenak *erabaki al bazenitza*, ene ustez, ororen onurako ona izango litzake; ... - Zur ayek egokiro *laukitu al baditza* egiten ari geran etxerako edeŕak izango dira; ... - Gure auŕak bizian barna ondo *zuzendu al bagenitza*, gure eginbidea beteta utziko genuke; ... - Emen utzi dizkizuegun biuŕiko oyek, beaŕ dan bezela *kiribil al baditzazute*, lantegira eramango ditugu bereala; ... - Zuen aŕobi ortako aŕiak *zula al balitzate*, beren lana oso ongi ordaindu zenizayekete; ... - Nire ortuetako oxiñak *sakondu al banitza*, ura naikoa izango nuke umantzerako; ... - Garaiz *itzegin al badezazu*, egia guzien auŕean agertu al-izango da; ... - Lankai oŕen biurkiñak *ertsi al balitza*, lana obeto burutuko luke; ... - Astiroago *otoi-egin al badezagu*, guziek eŕazago erantzun al-izango digute; ... - Oŕ dagozen ariak *teinka al bazenitzate*, euna berdinduago aterako zenukete; ... - Indaŕago *oles-egin al badezate*, erantzun egokiago lortuko dute; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Josi al badezazu, josi ezaidazu oraintxe, otoi : Nork josiko dit orain-

txe josi al badeza?; ... - Zuei josiko al dizuete ori, oraintxe josi al badezate?; ... - Nori josiko diozute oraintxe josi al badezazute?; Edonori ... -- Etzi arte gurekin egon al balitez, ondo baño obeto: Egokia izango al litzake ni zuekin etzi arte egon al banendi?; ... - Ikasle ori nirekin etzi arte egon al baledi, obeto gertuko al luke bere azterketa?; ... - Zuek gurekin etzi arte egon al bazindezte, ez zenigukete poz aundia emango?; Bayetz uste dut, ... -- Etoŕi ezin badadi, bere laguntza gabe igaroko gera: Nor igaroko da zure laguntza gabe, etoŕi ezin bazaitez?; ... - Nola igaroko dira, gu etoŕi ezin bagaitez?; ... - Ni etoŕi ezin banadi, nire laguntza gabe igaroko al zerate?; Eztakit, ... -- Etxe begiko artan bizi-izan giñan ordu zoriontsu ayek ezin aiztu lekizkiguke: Nori ezin aiztu lekizkioke etxe begiko artan bizi-izan zan ordu zoriontsu ayek?; ... - Zer ezin aiztu lekizuke zuri?; ... - Niri aiztu al lekizkidake etxe begiko artan bizi-izan nintzan ordu zoriontsu ayek?; Ez, zuri ere ... -- Zazpiki oyek jetxi ezin baditez, jetxi ditezela bederen beren lengusuak: Nor jetxiko da zu jetxi ezin bazaitez?; ... - Zazpiki oyek jetxiko al dira, zuek jetxi ezin bazaitezte?; ... - Gu jetxiko al gera, zazpiki oyen lengusua jetxi ezin badadi?; Ez, ... baño. -- Ori dek ‚mutil!, ezin otu lekizuke gauza oberik zure bizi guzian: Nori ezin otu lekioke gauza oberik bere bizi guzian?; ... - Zer ezin otu lekizuete zuen bizi guzian?; ... - Niri otu al lekidake gauza oberik nire bizi guzian?; Ez, zuri ere ... -- Zuen orniak amaitu dakizkizueke, ta orduan, zalantzik gabe, gureak eskatuko dizkiguzute: Zer amaitu dakiguke?; ... - Nortzuei amaitu dakizkieke beren orniak?; ... - Niri ere amaitu al dakizkidake nire orniak?; Bai, zuri ere ... -- Erantzun ezin badezazute, ez dizuegu geyago galdetuko: Nortzuei ez diezute geyago galdetuko, erantzun ezin badezate?; ... - Zer ez didate galdetuko, erantzun ezin badezat?; ... - Zuri galdetuko al dizut geyago, erantzun ezin badezazu?; Ez, niri ere ... -- Nire aideak ezin uŕeratu lekizkieke ijito zarpail ayengana: Nortzuengana ezin uŕeratu lekizkieke zure aideak?; ... - Nor ezin uŕeratu lekieke ijito zarpail ayengana?; ... - Gugana uŕeratu al lekizkiguke ijito zarpail ayek?; Ez, zuengana ere ... -- Ezin jausi lekizuke ez zeneramana: Nori ezin jausi lekioke ez zeramana?; ... - Zer ezin jausi lekidake?; ... - Zuei jausi al lekizueke ez zeneramatena?; Ez, guri ere ... -- Ala ere, argi-belaŕa geyegiz ere aŕ lezakete: Nork aŕ lezake argi-belaŕa, geyegiz ere?; ... - Zer aŕ zenezakete zuek, geyegiz ere?; ... - Nik jaso al nezake argi-belaŕa, geyegiz ere?; Bai, zuk ere ... -- Alegin oyek egin al baditzazu, zure laguntza oso onuratsua izango zaigu: Zer izango zaizue oso onuratsua, alegin oyek egin al baditzat?; ... - Nori izango zayo oso onuratsua zuen laguntza, alegin oyek egin al baditzazute?; ... - Nortzuei izango zaye oso onuratsua gure laguntza, alegin oyek egin al baditzagu?; Ene ustez, zuei ... -- Emen naroro abetaldu zintzakegu: Nork abetaldu nintzake emen naroro?; ... - Nor abetaldu zenezakete emen naroro?; ... - Gu abetaldu al gintzakezute emen naroro?; Bai, zuek ere ... -- Edariak neuŕiz eman al badizkiezu, berentzat egokiagoa izango da: Zer izango da berentzat, edariak neuŕiz eman al badizkiet?; ... - Zuentzat ere egokiagoa izango al da, edariak neuŕiz eman al badizkizuegu?; ... - Eta niretzat egokiagoa izango al da, edariak neuŕiz eman al badizkidazute?; Bai, zuretzat ere ... -- Ezin asmatu genitzake bide obeak uztak eŕuz lortzeko: Nork ezin asmatu litzake bide obeak uztak eŕuz lortzeko?; ... - Zertarako ezin asmatu zenitzakete bide obeak?; ... - Nik asmatu al nitzake bide obeak uztak eŕuz lortzeko?; Ez, zuk ere ...

4. Emen ematen dugun alkaŕ-izketa aŕetaz irakuŕi; gero, bertan agertzen eta aipatzen diran lagunai buruz, norberari zer deritzayon esan eta idatzi: etxean bakoitza nor dan eta bere izakera nolakoa dugun batez ere:

«LENENGO EKITALDIA»

«Lierni — (Kaleko atetik datoŕela sarturik, galtzarpean kartera daramala) Aŕatsalde on amatxo! (berarengana musu ematera joanez).

Agustiñe — Aguro etoŕi zera, Lierni! Gaur Paŕokia-etxean ez al zenuten biĪerarik?

Lierni — Ez ama! Larunbatetan elizkizuna izan oi dala ba-dakizu ta bereala bukatu da. (Kartera utzi ta etxeko moduan jaŕiaz).

Agustiñe — Nun geratu da Mirari?

Lierni — Zinemara joatekoa zala uste dut.

Agustiñe — (Gaiztoz) Ez zan bakaŕik joango, ez.

Lierni — Ez dakit, lagunak asko ditu-ta...

Agustiñe — Bai, eta dei-egiten dutenak! Ez da galduko, ez, Mirari. Zure aizpatxoarekin joaten asi beaŕ-izango duzu. Zure aitarekin ezpaitago iñora joaterik. Ez aste ta ez jai-egunez.

Lierni — Lanetik nekaturik etortzen da ta nayago izaten du etxean egotea. Igandeetan, beŕiz, amoŕaiketara joan ezkero, pozik. Biarko ere asmo ortan edo dago.

Agustiñe — Zuk lagundu beaŕ-izango diozu... zu ere bakarzale zaitugu-ta.

Lierni — Ezpanu beste zeregiñik, gogoz lagunduko nuke. Mendi ta eŕeka gora ibiltzea atsegin zait. Eta amoŕai ta eskaīuak amuan aŕapatzea gauza polita da.

Agustiñe — Bai, busti-busti egin eta otzez beterik etxeratzea oso osasungaŕi.

Ikerne — Aŕai preskoa jatea gogokoa zaizue bada...

Agustiñe — Zuen eskaīuok ba al dute, bada, ezuŕa besterik? Baŕuak garbitzen ematen duten lana geyago da...

Lierni — Ez zayozu ori esan aitatxori. Ark duen tiŕia!

Agustiñe — Bai, orain or duzu, amu, gaŕanga ta txitxareak zaitzen! Au naska!

Lierni — Zerbait nai ote duan galdegitera noa...

Agustiñe — Lendabizi askaldu zazu. Oŕ sukaldeko mai gañean utzi dizkizut esne, txokolate ta ogia.

Lierni — Ez naiz gozozalea ta eguerdian geratutako aragi-zeŕa jan nayago dut...

Agustiñe — Alako gose al zera? Xanti'rentzat gorderik neukala ba-dakizu. Bazkaririk ez du egin eta...

Lierni — Beti mutiīentzat! Lenago etxera etortzea zuen! (bijoa)».

«Kalifornia... ku-ku» (22-3-4'gn. oŕialdeetan) Antonio Maria Labayen.

EUN ETA OGETABEDERATZIGAŔEN IKASKAYA

-KIZUN atzizkia.

Atzizki onek, batzen zayen idatz-gunekin, onela jokatzen du:

Batzuetan IZEN beŕiak eratzen ditu, geyenetan geroko egipenen baten zentzuna emateko; besteetan, IZENONDOAK, egin diteken egipenen bat adierazteko (1).

E. b.: *Damukizun* = damutzekoa izango dan zerbait; *Eginkizun, Egikizun* = egin beaŕ dan zerbait, egiteko yarduera, egitekoa; *Esakizun* = esateko dagoena, solas-gaya; *Eskakizun* = eskatu beaŕ dana; *Etorkizun* = gerokoa; *Gogokizun* = asmoa, xedea; *Igarkizun* = igartzeko dagoena; *Ikaskizun* = ikaskaya; *Ikuskizun* = ikuskaria; *Irakurkizun* = irakurtzeko dana, irakurketa; *Lotsakizun* = erabidea; *Siñiskizun* = siñisteko gaya, siñistu beaŕ dana; *Asmakizun* = ebazketa, igartzekoa dana, asmaketa; *Ebazkizun* = erabaki beaŕ dana.

Ibilkizun = ibiltzeko dagoena, ibilgaŕia dana; *Barkakizun, azkeskizun* = barkatzeko dana, barkagaŕia, azkesgaŕia dana.

Ba-dagoz esakuntza batzuek, atzizki onen bidez, esandako zentzun orokaŕean, beste zentzun berezia ematen dutenak.

Onela: Ori *ikuskizun* dago = ori ikusteko dago; Ori *etorkizun* dago = ori etortzeko dago; Ori *egikizun* dago = ori egiteko dago.

-KUNDE, -KUNE atzizkiak (2).

Biek *egipen* edo *gaitasun* zentzuna adierazten dute.

E. b.: Ayer*kunde* = jokera; Adi*kune* = so-egitea; Bear*kunde* = beaŕa; Begira*kune* = begiratzea; Egi*kunde*, Egi*kune* = egipena, egitea; Esa*kune* = atsotitza, esatea; Nai*kunde* = naikeria; Oi*kunde* = oitura, ekandu.

-KUNDE, batzuetan, giza-leŕo edo giza-maīa adieraztekoa da.

Onela: Apez*kunde* = apezen, apaizen bizi-bidea; Aur*kunde* = auŕen maīa; Emaztе*kunde* = emazte-taldea; Giza*kunde* = gizon egitea.

KUNDE, azkenez, notiñen bilkuraren asmoa adierazteko erabiltzen da.

---

(1) Ikusi: L. Mendizabal, Dic., eta Azkue, M., 110'gn. oŕialdeean.
(2) Ikusi: Azkue, M. ta Dic.

Aita*kunde* = aita edo guraso-kidea, oyen bīlera; Ema*kunde* = emakumeen zazpi-asteko osteguna; Giza*kunde* = gizonen sei-asteko osteguna; Oro*kunde* = guzien osteguna, bost-asteko osteguna.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, Almenera ta Eziñera'zko aditzerak jaŕi beaŕ dira, lenaldian eta bakaŕ eta askaŕ-izakayakaz; sei adei-yabeai dagozkienez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	ALMENERA		EZIÑERA	
	Bakaŕ-izakaya	Askaŕ-izakaya	Bakaŕ-izakaya	Askaŕ-izakaya
Nik	...	al banitza	ezin baneza	...
Zuk	Al bazeneza	...	...	ezin bazenitza
Berak	...	al balitza	ezin baleza	...
Guk	Al bageneza	...	...	ezin bagenitza
Zuek	...	al bazenitzate	ezin bazenezate	...
Berak	Al balezate	...	...	ezin balitzate

2. Uŕengo esakuntzetan, Eziñera'zko Ustekizunean ipiñitako adizkiñak agertzen dira; batzuk Oraiñaldian eta besteak Lenaldian: eta bi aldi oyetakoak, alkaŕi buruz, aldatu beaŕ dira, Oraiñaldikoak Lenaldikoen bidez eta alderantziz, Lenaldikoak Oraiñaldikoen bitartez; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Aundiki oyek *andietsi ezin baditzat*, aipatu gabe utziko ditut: ... - Neska gazte ori *apaletsi ezin bazeneza*, bere apaltasuna bederen aintzakotzat artu beaŕ-izango zenuke; ... - Gure gurdiak *aztatu ezin baditza* aztatu gabe eramango ditugu bereala; ... - Ekaŕi dizkiguzuten moxalak *ezi ezin bagenitza*, dei-egingo genizueke zerok egin zenezaten; ... - Zuen ezagutza *geitu ezin badezazute*, ikasi nai eztuzutelako edo da; ... - Barazkiak egokiro *estali ezin balitzate*, laisteŕ ondatuko zaizkie zearo; ... - Soloetako garitza *ugaritu ezin baneza*, uŕengo uzta oso uŕi izango dugu; ... - Lauki ayek *edeŕetsi ezin bazenitza*, eztakit zure gogokoa zer izan diteken; ... - Geyago *opaetsi ezin baleza*, ziuŕ egon gaitezke geyago ez daukala; ... - Esan digutena *erazagutu ezin badezakegu*, eztiogu iñori ezer esango; ... - Ipiñiko dizkizueten galderak *erantzun ezin bazenitzate*, gaizki irtengo zerate zuen azterketatik; ... - Bazkaria garaiz *egosi ezin badezate*, noiz bazkalduko dugu gaur?; ...

3. Besteetan bezela, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Zure ayerkunde ori dala-ta, an egin zenuena jakin al bageneza!: Zer egingo zenuke an egin nuena jakin bazeneza?; ... - Beren semeak an egin zuena jakin balezate ayek, zigoŕ egokia jaŕiko al liokete?; ... - Erantzun egokia emango al zenigukete, an egin genuena jakin bazenezate?; Bai, ... -- Bazkari batean zeŕiki ta aŕaiki jan ezin baditzazu, zertarako dagizu ori?; Zeŕikia alpeŕik gal eztedin dagit oŕela: Nork ezin jan ditzake zeŕiki ta aŕaiki bazkari batean?; ... - Zuek, bazkari batean, zeŕiki ta aŕaiki jan ezin baditzazute, ori egingo al duzute?; Ez, ... - Eta lekaide ayek bazkari batean zeŕiki ta aŕaiki jan ezin baditzate, uste al duzu ori egingo dutela?; Ez, ... -- Ai ene!, nork atera nintzake leize īlun ontatik?: Nik atera al zintzaket leize īlun ortatik?; Eztakit, ... - Zuek atera al gintzakezute leize ontatik?; ... - Eta oyek atera al zintzatekee leize ortatik?; Ez, oyek ere ... -- Obeto abestu al baleza, egin egingo luke, gizona!: Zuek egingo al zenukete, obeto abestu al bazenezate?; ... - Neska ayek egingo al lukete, obeto abestu al balezate?; ... - Uste al duzu,, nik obeto abestu al baneza, oŕela egingo nukela?; Bai, uste dut ... -- Gaur jan ezin badezat, uste dut biar al-izango dudala: Nork uste du biar al-izango duela, gaur jan ezin badeza?; ... - Zuek biar al-izango duzute, gaur jan ezin badezazute?; ... - Zure izeba txiro oŕek biar al-izango du, gaur jan ezin badeza?; Ez, oŕek biar ere ... -- Bilduŕ al ziñan txepel ayek etoŕ litezkelako?; ez, ni enintzan bilduŕ txepel ayek etoŕ litezkelako: Zuek bilduŕ al ziñaten txepel ura etoŕ litekelako?; ... - Txepel ayek bilduŕ al ziran zuek etoŕ zindezketelako?; ... - Zuek bilduŕ al ziñaten ni etoŕ nindekelako?; Ez, ... -- Len bezela, lasteŕ-egin bazeneza, nork eukiko zinduke etxean?; Len bezela lasteŕ-egin baneza, iñork eninduke etxean eukiko: Nortzuk ez genituke etxean eukiko, len bezela lasteŕ-egin balezate?; ... - Nun ez ginduzkete eukiko, len bezela lasteŕ-egin bageneza? ... - Gazte ori etxean eukiko al zenukete, len bezela lasteŕ-egin baleza?; Ez, ori ere ... -- Ezin irten gaitezke zurekin geyago, iñola ere: Nor ezin irten diteke geyago nirekin, iñola ere?; ... - Norekin ezin irten zaitezkete geyago, iñola ere?; ... - Zu irten al zaitezke gurekin geyago; Ez, ni ere ... -- Kutxa ayek ideki ezin baditzazute, deitu ezazute arotza, berak ideki dizaizkizuen: Nor deitu beaŕ-izango dugu, kutxa ayek ideki ezin baditzagu?; ... - Ni deituko al

naute, kutxa ayek ideki ezin baditzate?; Ez, zu ... - Gu deitu al gaituzute kutxa ayek ideki ezin baditzazute?; Ez, zuek ere ... -- Ezin murgildu gintzakete urtan, berak baño indaŕ geyago geneukalako: Nortzuek ezin murgildu zintzatekee urtan, berak baño indaŕ geyago zeneukatelako?; ... - Nor ezin murgildu lezakete urtan, berak baño indaŕ geyago zeukalako?; ... - Zu ezin murgildu zintzakegu urtan, guk baño indaŕ geyago zeneukalako?; Noski, ni ere ... -- Zure iritziak ziurtu al baditzazu, egin beaŕ duzuna obeto jakingo duzu: Nork jakingo du obeto egin beaŕ duena, bere iritziak ziurtu al baditza?; ... - Nola jakingo dut obeto egin beaŕ dudana?; ... - Zuek ere egin beaŕ duzutena obeto jakingo al duzute, zuen iritziak ziurtu al baditzazute?; Bai, nire ustez, ... -- Abere auek etxeko eskaratzan egon al balitez, lasayago geratuko giñake: Nortzuk geratuko lirake lasayago abere auek etxeko eskaratzan egon al balitez?; ... - Oĭaŕ ori ere etxeko eskaratzan egon al baledi, zu ere lasayago geratuko al ziñake?; ... - Nola geratuko ziñakete abere auek etxeko eskaratzan egon al balitez?; ... -- Nola erabakiko genizaizkieke beren ebazkizun aundiak?; nork esan beren ebazkizun aundiak nola erabakiko zenizaizkieketen: Nori erabakiko zenizaizkioke bere ebazkizun aundiak?; ... - Zer erabakiko lizayokete agintari oŕi?; ... - Uste al duzu nik erabakiko nizaizkizuekela zuen ebazkizun aundiak?; Ez, zuk ere ... -- Bere almenen neuŕian bederen egin lezake: Nork egin lezake bere almenen neuŕian bederen?; ... - Zuk egin al zenezakete zuen almenen neuŕian bederen?; ... - Eta nik egin al nezake nire almenen neuŕian bederen?; Bai, zuk ere, ... -- Gerokoa nolabait ezagutu al bageneza!: Zer egingo luke arlote oŕek gerokoa nolabait ezagutu al baleza?; ... Ezer egingo al zenukete, gerokoa nolabait ezagutu al bazenezate?; ... - Nik ezer egingo al nuke, gerokoa nolabait ezagutu al baneza?; Bai uste dut, ...

4. Elebeŕi baten txataltxo bat ipintzen dugu emen, aŕetaz eta astiro irakurtzeko; ta gero, aŕañai ta aŕantzaleai buruz, irakurtze ontatik atera ditezken asmo batzuk emateko ere:

«EGALUZETAN»

«Udako aŕantzuketa onen asiera-eguna eldu zan; leentxoago azaldutako eguna iraganik eldu ere.

Udabaŕiko bokart eta sardiñatako aldiari aguŕ-egiñik, atuneta-sasoya, egaluzetea asi oi dabe gure itxasertzeko gizon azkaŕ, zangaŕ, adoretsu ta jasankoak.

Oraingo egunetan, untzi luŕun-indaŕezko ta olio-loidun bultzakiñei eskeŕ, itxasora osterea edo joan-etoŕia aguro ta eŕezago egin aal dabe, leenagokoen ikusian, eta oŕegaitik, portura itzultzeko aukera obea dabe.

Leenagoko aŕantzaleak euren gorputzetaratzen zituen neke ta oñaze gogoŕak gomutara daiguzan, aize-oyalez eta aŕaunketan aldi luzean joan eta joan egin beaŕ-izaten eben aro artan.

Oraingo untzi sendo ta ironak, gañetik solairuz estalduta dagoz. Lenagoko txalupa zapal ayek, tantai luze bi zutik eta tostak izaten zituen, eurotan jesaŕita, gau ta egun, ainbat ordu ta ordutan aŕaunai eraginaz, gogoŕ eta bulartsu jardunaz, ontziari ibilpidea emon egioen baŕuko gizonen besoak. Itxasoa bare agertzen zanean, tira, ainbestean joan oi ziran gelditu bage; beti, baña, eŕemuak azkaŕ astinduaz; eta aize biguna erara oso edo beintzat poparean ezaŕen ere, lagungaŕi izaten ebenetan, pozaŕen ibiltzen ekien olatuen dantzai gora-beeraketaz erantzunaz, eta beti jo-auŕera egiñaz.

Batez ere, neguko itxaroteak dira bildurgaŕiago. Otzez alatuta, esku ta oñak otzak gogortuta zituenetan, zerbait zuzpertzeko ta berotzeko besoez bulaŕ-bizkaŕ ukaldika jarduten eben mutil eta gizonak. Izotz, euri ta erauntsi, aize ta eduŕ, kayeko babesa utzirik, oyaren epeletik alde-egiñik, iĭunpe osoan jaŕi, goyan zerua, bean ura ta ondo bagako lezea zituela aŕantzuan ari-izatea, bizibide gogoŕ ta lanbide latza dana, edonork daki, maizegi aaztuten dogun aŕen.

Baña giro epel beroa danean ere, udako egun sargori antzekoetan ere, uste bako edo bapateko galaŕena diñotsen ekaitz bildurgaŕiak itxaso andian artzen dituanetan, orduan, Antigua'ko Ama maite ori!, zeure pentzura ta kontura geratu oi dira mariñel gaisoak».

«Arranegi» (77-8'gn. oŕialdeetan) Eusebio Erkiaga.

EUN ETA OGETAMARGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŕA - IRAGANKOŕA - ADITZ LAGUNTZAĽEA

ALMENERA'ZKO USTEKIZUNA - ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA

IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

Ner*i*	IZAN	AL BA- -D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*Da*-(-*T*)	-ZU --- -ZU- -TE - - - - -TE
Gur*i*	IZAN	AL BA- -D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*GU*-	-ZU --- -ZU- -TE - - - - -TE
Zur*i*	IZAN	AL BA- -D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*ZU*-	-T -- -GU - - - -TE
Zue*i*	IZAN	AL BA- -D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*ZU*(*T*)*E*-	-T -- -GU - - - -TE
Bera*ri*	IZAN	AL BA- -D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*O*-	-T -ZU --- -GU -ZU- -TE - - - - -TE
Bera*i*	IZAN	AL BA- -D- i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*E*-	-T -ZU --- -GU -ZU- -TE - - - - -TE

EZIÑERA'ZKO USTEKIZUNA:

Besteetan egin dugun bezela, AL'en ordez EZIN jartzean dagigu.

E. b.: Izan *ezin* badizaidazu; Bialdu *ezin* badizaidazute; ...

Emen ipiñi ditugun era guztiak, Almenera'zko Oraiñalditik irteten dira (1), -KE- erdizkia kentzean eta BA- auŕizkia gañeratzean; edo: Menekoera'zko Oraiñalditik (2), -N edo -LA atzizkiak kentzean, eta BA- auŕizkia gañeratzean.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, Almenera'zko Ustekizunaren Oraiñaldian yardutean lenengo leŕoan, zeaŕezko izenordeak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; bakaŕ-izakayaz, izenorde bi mota oyei, alkaŕi dagozkion adizkiñak ipiñi beaŕ dira, noski, artez eta zeaŕez-betetzekoak eramatean; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		badizaizut	...		...	...
Zuk	...		badizayozu	...		...
Berak	Badizait	...	...	...	...	...
Guk		...	...		badizaizuegu	...
Zuek	...		...	...		badizayezute
Berak	...	...	...	badizaigute	...	...

2. Orain jartzen ditugun esakuntzetan, Oraiñaldiko adizkiñak agertzen dira; batzuk Almenera'zkoak dira, besteak Almenera'zko Ustekizun'ekoak, bi mota oyetakoak alkaŕi buruz aldatzeko: Almenera'zkoak, Almenera'zko Ustekizun'ekoen bidez, eta Almenera'zko Ustekizun'ekoak, Almenera'zkoen bitartez; oitura dugunez, kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Nai dezazunean, oin-azpiko ori *astindu dizaizuket*; ... - Lokaŕi ayek *biuŕi al badizaizkidazu*, zergatik eztuzu ori bereala egin beaŕ?; ... - Gure antxumeak *aŕapatu dizaizkiguke*, ta bilduŕ gera orixe egingo di-

---

(1) Ikusi: 118'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 100'gn. ikaskaya.

gula; ... - Bere zaldia *atzitu al badizayogu*, etxera ekaŕiko diogu lenbailen; ... - Uste dut beren izpideai zuenak *ostetu dizaizkiekezutela*; ... - Berak, eŕazki, zuen abereak *gizendu al badizaizkizuete*, ez diozute beste iñori eskatuko ori egitea, ziuŕ; ... - Bere eun zabal ori *urasetu al badizayot*, ekaŕi bezin laisteŕ egingo diot; ... - Gure gorputzak *sakaildu dizaizkigukezu*, noski, ortarako izkiĺuak eskuan dauzkazulako; ... - An nola jokatu beaŕ dugun *oartu al badizaigu*, gure eginkizuna obeto beteko dugulakoan gagoz; ... - Guk beti *oroitu-erazi dizaizkiekegu* beren eginbide berezienak; ... - Bere ingi-zoŕoan zer dakaŕen *igaŕi al badizayozute*, burutsuak zeratela adieraziko duzute, alegia; ... - Gure labana *leundu dizaigukete* ongi, ta ori egin dizaigutela eskatuko diegu; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, itzez eta idatziz:

Biarko gertu al badizaidazu, eskertuko dizut: Nori eskertuko diot, biarko gertu al badizait?; ... - Zer dala-ta eskertuko dizu oŕek?; ... - Guk eskertuko al dizuegu, biarko gertu al badizaiguzute?; Bai, zuek ere ... -- Egosi ezin bazenitza, ipiñi ezaizkidazu e egosiak: Nola ipiñiko dizkiot, egosi ezin banitza?; ... - Nortzuei ipiñiko dizkiezute eŕegosiak, egosi ezin bazenitzate?; ... - Oyek ere eŕegosiak ipiñiko al dizkigute, egosi ezin balitzate?; Eztakit oyek ... -- Lasterka igo ezin balitez, poliki-poliki egin zezatela; beranduago izanaŕen, oŕela ere elduko lirake: Beranduago izanaŕen, nor elduko litzake oŕela ere, lasterka igo ezin baledi?; ... - Nola elduko ziñake poliki-poliki, lasterka igo ezin bazindez?; ... - Ni ere poliki-poliki elduko al nintzake, lasterka igo ezin banendi?; Bai uste dut, zu ere ... -- Biar bertan esan al badizaizuet, eztut etziko utziko: Nork eztu etziko utziko biar bertan esan al badizaizue?; ... - Noizko eztugu utziko, biar bertan esan al badizayogu?; ... - Oyek etziko utziko al dute, biar bertan esan al badizaigute?; Ez da usteko, oyek ... -- Gaurko ikuskizunak ezin izan litezke politagoak: Zer ezin izan liteke politagoa?; ... - Nola ezin izan litezke gaurko ikuskizunak?; ... - Biarko ikuskizunak ere politagoak izan al litezke?; Ez, ... ere ... -- Beaŕ zan bezela epaitu ezin bagenitza, gure tokia beste batzuei utzi beaŕ-izango diegu: Nortzuei utzi beaŕ-izango diezute zuen tokia, beaŕ dan bezela epaitu ezin bazenitzate?; ... - Zer utzi beaŕ-izango diete ayek beste batzuei, beaŕ dan bezela epaitu ezin balitzate?; ... - Nik ere beste bati utzi beaŕ-izango al diot nire tokia, beaŕ dan bezela epaitu ezin banitza?; Bai, noski, zuk ere ... -- Nik indaŕez astindu zintzateket, baña alpeŕik izango litzake egin nezan guzia: Nork astindu gintzake indaŕez?; ... - Nola astindu gintzakezu?; ... - Oŕek ere indaŕez astindu al nintzake?; Bai, zalantzik gabe, oŕek ere ... -- Madariondo batzuk landatu al badizaizkiguzu, nire ortuak asko irabaziko du: Zerk irabaziko du asko, madariondo batzuk landatu al badizaizkizuet?; ... - Zer gertatuko da, madariondo batzuk landatu al badizaizkiegu?; ... - Gure ortuak ere asko irabaziko al du, madariondo batzuk landatu al badizaizkiguzute?; Bai, zuen ortuak ere ... -- Ezin utzi zintzateket gela auetan nola-nai: Nork ezin utzi gintzake gela auetan nola-nai?; ... - Nor ezin utzi nezake gela auetan nola-nai?; ... - Ni utzi al nintzakezute gela auetan nola-nai?; Ez, zu ere ... -- Apezkundea beste biderik baño obeto egoki lekizuke: Nori egoki lekioke apezkundea beste biderik baño obeto?; ... - Nola egoki lekidake apezkundea?; ... - Guri ere apezkundea beste biderik baño obeto egoki al lekiguke?; Ez, ... baño. -- Zangoŕi-kima batzuk ekaŕi al badizaizkiguzute, gure baratzan landatuko ditugu: Nun landatuko dituzte ayek zangoŕi-kima batzuk ekaŕi al badizaizkiegu?; ... - Nork landatuko ditu bere baratzean zangoŕi-kima batzuk ekaŕi al badizaizkiogu?; ... - Zuk ere zure baratzean landatuko al dituzu, zangoŕi-kima batzuk ekaŕi al badizaizkizut?; Bai, nik ere ... -- Egipen guzti oyetan ezin izan diteke azkeskizunik: Zer ezin izan diteke egipen guzti oyetan?; ... - Nun ezin izan diteke azkeskizunik?; ... - Eta nire egipen auetan ere uste al duzu azkeskizunik ezin izan ditekela?; Ez, ene ustez, zure ... -- Nai dugun oturuntza antola al badizaiguzute, ba-dakigu naroki egingo duzutela: Nork daki, nai duen oturuntza antola al badizayogu, naroki egingo dugula?; ... - Zer dakigu guk?; ... - Nik ere naroki egingo dutela al dakit, nai dudan oturuntza antola al badizaidate?; Bai, zuk ere ... -- Laboreak laisteŕ bildu al badizaizkidate, eskeŕ aundia egingo didate: Nori egingo diote eskeŕ aundia, laboreak laisteŕ bildu al badizaizkiote?; ... - Zer egingo digute laboreak laisteŕ bildu al badizaizkigute?; ... - Nik ere eskeŕ aundia egingo al dizuet, laboreak laisteŕ bildu al badizaizkizuet?; Bai, uste dugu, ... -- Ezin zuzendu lizaizkigukete begirakune ayerkoŕagoak: Nori ezin zuzendu lizaizkiokete begirakune ayerkoŕagoak?; ... Zer ezin zuzendu lizaizuekete?; ... - Zuk zuzendu al zenizaizkiguke begirakune ayerkoŕagoak?; Bai, nik ...

4. Irakuŕi astiro emen ipintzen ditugun bertsoak; eta oaŕerazi oyetan dagozen bertso oskideak zeintzuk diran, bai ta oyetan dagoen igikeraz, ia abesteko ere egokiak ote diran:

«NERE ZERUKO AMARI» (gaitzuŕe batean)

1. «Ene Amatxo,
nere Zeruko Amatxo...!
Beŕiz Zugana
natoŕ naigabez ta gaxo.

2. Etsai gaiztoak
puskau didate biotza :
nere alboan
ikusi det eriotza.

3. Ots-egin dizut :
Amatxo eŕukitsua...!
Eta maiteki
luza didazu eskua.

4. Zaurietatik
odola dariodala
natorkizu, ai!
guztiz aul eta makala.

5. Ituna, beltzen
erdian daukat anima...
Zoritxaŕ ontan,
noruntz joko nuan, ba, Ama?

6. Ama zera-ta,
Amaren Biotza dezu :
semearen zai
zaude beti eŕukitsu.

7. Nabaitzen zaitut,
Amatxo, nere alboan...
Auŕ bat bezela,
artu nazazu besoan.

8. Estu nazazu
zure kolko maitetsuan :
eŕe nazazu
zure Biotzaren suan.

9. Ta zure eskutik
ez nazazu beñere utzi :
aurtxo txiki bat
bezela, zaitu, Ama, ni.

10. Bestela, etsai
beltzak ilko nau betiko,
ta, Ama maitea,
betiko zaitut galduko.

11. Orixe baño
iltzea nai det nayago...
Mundu ontatik
eraman, ba, ni lenago...
Zure besotan, Amatxo...!».

«Olerti» 1961-IV (264-5-6'gn. oŕialdeetan) «Jautarkol».

EUN ETA OGETAMAIKAGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA - IRAGANKOŔA - ADITZ LAGUNTZAĿEA

ALMENERA'ZKO USTEKIZUNA - LENALDIA - ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA

IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

			-Z-e-N-		
			-L-		
Ner*i*	IZAN	AL BA-		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*T* (-*Da*-)	
			-Z-e-N-		-TE
			-L-		-TE
			-Z-e-N-		
			-L-		
Gur*i*	IZAN	AL BA-		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*GU*-	
			-Z-e-N-		-TE
			-L-		-TE
			-N-		
			-L-		
Zur*i*	IZAN	AL BA-		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*ZU*-	
			-G-e-N-		
			-L-		-TE
			-N-		
			-L-		
Zue*i*	IZAN	AL BA-		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*ZU*- -(*T*)*E*-	
			-G-e-N-		
			-L-		-TE
			-N-		
			-Z-e-N-		
			-L-		
Berar*i*	IZAN	AL BA-		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*O*-	
			-G-e-N-		
			-Z-e-N-		-TE
			-L-		-TE
			-N-		
			-Z-e-N-		
			-L-		
Ber*ai*	IZAN	AL BA-		i) -ZA- -(I)- -ZKI- -*E*-	
			-G-e-N-		
			-Z-e-N-		-TE
			-L-		-TE

EZIÑERA'ZKO USTEKIZUNA:

Beti bezela, AL'en ordez EZIN jartzean dagigu.
E. b. : Izan *ezin* bazenizait ; Egin *ezin* balizaizu ; ...

Era auek Almenera'zko Lenalditik (1) irteten dira, -KE- erdizkia kentzean eta BA- auŕizkia gañeratzean; edo: Menekoera'zko Lenalditik (2), -N edo -LA atzizkiak kentzean, eta BA- auŕizkia gañeratzean.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, Eziñera'zko Ustegizunaren Oraiñaldian yardutean, lenengo leŕoan zeaŕezko izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; askaŕ-izakayaz, izenorde bi mota oyei, alkaŕi dagozkion adizkiñak ipiñi beaŕ dira, artez eta zeaŕez-betetzekoak eramaten; kulatzen ordez esan eta idazteko:

	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		...	ezin badizaizkiot		...	...
Zuk	Ezin badizaizkidazu		...	...		...
Berak	...	ezin badizaizkizu	...	...	...	...
Guk		...	...		...	ezin badizaizkiegu
Zuek	...		...	ezin badizaizkiguzute		...
Berak	...	...	...	...	ezin badizaizkizuete	...

2. Emen ipintzen ditugun esakuntzetan, Oraiñaldiko adizkiñak ikusten dira; batzuk Eziñera'zkoak dira, besteak Eziñera'zko Ustekizun' ekoak, bi mota oyetakoak alkaŕi buruz aldatzeko: Eziñera'zkoak, Eziñera'zko Ustekizun'ekoen bidez, eta alderantziz, Eziñera'zko Ustekizun' ekoak, Eziñera'zkoen bitartez; beti dagigun bezela, kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Luŕ ori *landu ezin badizaizuet*, garaiz jakin-eraziko dizuet; ... - Nai ditugun gari ta oloa *ezin erein dizaizkigukezu*, ta oŕengatik beste bati eskatuko diogu lan ori egin dezan; ... - Beaŕak zaizkizuen poŕuak nekazari oŕek *landatu ezin badizaizkizue*, eztakit zer egin beaŕ-izango duzuten; ... - Beren luŕa egokiro *ezin goldatu dizayokegu*, ta ustekoa da artega geratuko dala; ... - Gure alea *galbaitu ezin badizaiguzute*, lan ori geuk egin beaŕ-izango dugu; ... - Gure soloak *ezin layatu dizaizkiguketelako*, eztugu gure garia erein al-izango; ... - Bere iriña *eralki ezin badizayot*, ba-liteke galdu zekiola; ... - Zuk bakaŕik *ezin joŕaitu dizaigukezu* gure ortu aundi ori; ... - Zuen igalidunak *iñausi ezin badizaizkizue*, neronek egingo dizuet ori ongi; ... - Guk *ezin naŕastu dizaiekegu* oŕen aztuna dan aŕi ori; ... - Gaur gure ardiak *jaitzi ezin badizaizkiguzute*, esnerik gabe geratuko gera biar arte; ... - Gaur bertan beaŕ duten ogia *ezin oratu dizayekete* ongi; ...

(1) Ikusi: 119'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 108'gn. ikaskaya.

3. Beti lez, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Nik, izan zan bezela, jaulki al banizaizu, eiki etzenidake siñistuko: Nork elizuke eiki siñistuko, zuk, izan zan bezela, jaulki al bazenizayo?; ... - Guk siñistuko genizueke, izan zan bezela zuek jaulki al bazenizaigute?; ... - Eta gizon oŕek siñistuko liguke, izan zan bezela jaulki al bagenizayo?; Ez, oŕek ere, eiki, ... -- Itzuli-erazi ezin badezate, an betiko utzi beaŕ-izango dute: Nor utzi beaŕ-izango duzute an betiko, itzuli-erazi ezin badezat?; ... - Ume ayek ere an betiko utzi beaŕ-izango dituzu, itzuli-erazi ezin baditzazu?; Bai, noski, ... -- Zerok eutsi ezin bazenitzate, nork egingo luke?; zaĺa izango litzake, beste batek egitea, gerok eutsi ezin bagenitza: Nik eutsi ezin banitza, eŕaza izango al litzake zeroŕek egitea?; ... - Zaĺa izango al litzake, zuek eutsi ezin bazenitzate, zuen adiskideek egitea?; ... - Eta zuk eutsi ezin bazenitza, zaĺa izango al litzake beste edonork egitea?; Ez dut uste ... -- Kidez-kide ezin zematu zezaketean, egin zuten bezela: Nor ezin zematu zenezakean kidez-kide, egin zenuen bezela?; ... - Nork ezin zematu gintzakean kidez-kide, egin zuen bezela?; ... - Zuek kidez-kide zematu al nintzakezutean, egin zenuten bezela?; Bai, guk ... -- Dakizkizuten dantzak irakasi al badizaizkiezute, zalantzik gabe, gero, zuek baño obeto egingo dute: Nork egingo du nik baño obeto, gero, dakizkidan dantzak irakasi al badizaizkiot?; ... - Nola egingo dugu guk, gero, dakizkizun dantzak irakasi al badizaizkiguzu?; ... - Nik ere zuek baño obeto egingo al dut, gero, dakizkizuten dantzak irakasi al badizaizkidazute?; Bai, uste dut, zuk ere ... -- Eŕi'aren esakunak ikasi ezin baditzagu, oso gutxi egingo dugu: Nork egingo du oso gutxi, Eŕi'aren esakunak ikasi ezin baditza?; ... - Zer egingo duzu, Eŕi'aren esakunak ikasi ezin baditzazu?; ... - Gazte oyek ere oso gutxi egingo al dute, Eŕi'aren esakunak ikasi ezin baditzate?; Bai, oyek ere ... -- Alajaña!, jeiki ezin balitez, utzi itzazute nekatu ditezen arte: ... - Nor utzi beaŕ-izango dugu nekatu dedin arte, jeiki ezin baledi?; ... - Ni ere utzi-beaŕ-izango al nauzute nekatu nadin arte, jeiki ezin banendi?; Jakiña, zu ere ... -- Ezin uŕundu lekizkidake nai zuten guztia ongi lotuta

zegozelako: Nor ezin uŕundu lekizueke nai zuen guztia ongi lotuta zegoelako?; ... - Nortzuei ezin uŕundu lekizkieke, nai zuten guztia ongi lotuta zegozelako?; ... - Guri uŕundu al lekizkiguke, nai zuten guztia ongi lotuta egonaŕen?; Ez, zuei ere ... -- Orgari ayek eŕedize ayek laisteŕ ekaŕi al balizaizkidate!: Pozik egongo al ziñake, orgari ayek eŕedize ayek laisteŕ ekaŕi al balizaizkizute?; ... - Nor egongo litzake pozik orgari ayek eŕedize ayek laisteŕ ekaŕi al balizaizkiote?; ... - Zuek ere pozik egongo al ziñakete, orgari ayek eŕedize ayek laisteŕ ekaŕi al balizaizkizuete?; Bai, gu ere ... -- Biar bertan igalidun oyek iñausi al badizaizkizut, eztut etziko utziko: Nork eztu etziko utziko, biar bertan igalidun oyek iñausi al badizaizkit?; Noizko eztuzute utziko, biar bertan igalidun oyek iñausi al badizaizkiguzute?; ... - Nekazari oŕek etziko utziko al du lan ori, biar bertan igalidun oyek iñausi al badizaizkizue?; Uste dut oŕek ere ... -- Ikuskizun dago zuek asmatu zenizaiguketena: Zer dago ikuskizun?; ... - Guk asmatu genizaizuekena ere ikuskizun al dago?; ... - Uste al duzu nik asmatu nizaizuekena ikuskizun dagoela?; Bai noski, ... -- Gasteiz'ko gorulariek, beaŕ dituzten zapiak irun al balizaizkiete, oso pozik geratuko lirake: Nor geratuko litzake oso pozik, beaŕ dituen zapiak Gasteiz'ko gorulariek irun al balizaizkiote?; ... - Andere oyek ere, beaŕ dituzten zapiak, guk irun al bagenizaizkie, oso pozik geratuko al lirake?; ... - Zu oso pozik geratuko al ziñake, beaŕ dituzun zapiak Gasteiz'ko gorulariek irun al balizaizkizute?; Bai, ... -- Baso artako egurgīleak eguŕ geyago ekaŕi al balizait, nire labea obeto izekiko nuke: Nork izekiko luke obeto bere labea, baso artako egurgīleak eguŕ geyago ekaŕi al balizayo?; ... - Nola izekiko zenukete zuek obeto zuen labea?; ... - Zuk ere zure labea obeto izekiko al zenuke, baso artako egurgīleak eguŕ geyago ekaŕi al balizaizu?; Ez, ... baño. -- Zauritu nintzakezute zuen izkīuakaz jokatzean: Nork zauritu zintzake bere izkīuakaz jokatzean?; ... - Nortzuek zauritu gintzakete beren izkuīuakaz jokatzean?; ... - Nik zauritu al zintzateket nire izkīuakaz jokatzean?; Bai, zuk ere ... -- Ezin ulertu zaitzateket oŕen aundia dan sorgortasun oŕezaz: Nor ezin ulertu dezakezu oŕen aundia dan sorgortasun oŕezaz?; ... - Nork ezin ulertu nazake onen aundia dan sorgortasun onezaz?; ... - Gu ulertu al gaitzakezute onen aundia dan sorgortasun onezaz?; Ez, zuek ere ...

4. Ondo irakuŕi beaŕ da uŕengo idazti-txatala; gero, bertan aipatzen diran oiturak zein arokoak izan ziran esan beaŕ da, bai ta bakoitzak aro artako jakin ditzaken beste oiturak aipatu ere; itzez eta idatziz:

«JANTZIAK»

«Abere ta piztien laŕuz jazten ziran, geyenean beintzat, auŕekoek.

Aria egiten ikasiak zeuden, ala ere... Ba-zituzten laŕua bigundu ta lantzeko tresnak; ebakitzekoak ere bai. Botoyak eta botoi-zuloak egiteko jostoŕatz eta zulakaitzak.

Laŕuz jazteko diru asko beaŕ da gaurko egunean; bera baita onena, apañena, beroena, iraukoŕena... Oñetakoetarako ere laŕua beti gairik egokiena...

Oŕa gure mendietako basaidi, zezen, basauntzen naŕuen etorkizuna: gizon eta emakumeen bizkaŕ-gaña, eta oñak.

Etzan naŕua bakaŕik soñeko-gai. Abereen īlez, soloko belaŕez ere, aria egiten ba-zekiten... Ardatza ta jostoŕatza ezagunak zituzten... Ardatza aria egitekoa da, ta jostoŕatza, ari ori josteko... Nolako jantziak ote ziran ayek?...».

«ETXE-BIZITZA»

«Bizitzarako etxerik onenak leize-zuloak ziran.

Batez ere, egoaldera (eguteran) dauden leizeak. Aitz labana izan ei zan ate-gaña, goitik iñor sartu ezin erakoa...

Baŕuan, atetik gertu, keya lekorera joan zedin, sukaldea. Luŕean egiten zuten sua. Bertan jan, bertan lan (aŕi-landu, soñeko...), bertan lo. Ta bertan ildakoak eortzi ere... Askotan, leizea zuten etxe ta īlobi.

Eguraldietan babes, piztiengandik gorde-leku, bizitzaren eginbeaŕak betetzeko toki egoki... Oŕa leizea!

Aitzpeetan edo txaboletan, beŕiz, leizerik etzutenak bizi beaŕ. Txabolak, ate-saŕera batekoak, eta leyorik-gabeak (oraindik be eŕi atzeratuak oŕela egiten dituzte, beintzat); gure artean gaur arte iraun duen oitura zaŕ batek oŕela ageŕerazten digula, uste genezake. Ona emen oitura ori: etxean bateren bat iltzen danean, leyoak irikitzen dira, animak alde egin dezan; baña ba-dira eŕiak beste era batera jokatzen dutenak: leyoak iriki beaŕean, teīatuan zuloa egiten dute (teīak kenduta), anima irten dedin. Leyorik etzan etxean, agertzen digu teīatuko zuloak...

Aralar'ko, Aitzkoŕi'ko, Urbasa'ko artzayak, txabola ta bordak leyorik gabekoak egiten dituzte gaur ere...».

«Euskalerri Zaarra» - «Gu Euskaldunok» (62-3-4'gn. oŕialdeetan)
A. Arrinda.

EUN ETA OGETAMABIGAŕEN IKASKAYA

-GAI, (*-KAI*), *-GEI* atzizkiak.

Atzizki bi auek zentzuna bera dute: Gañeratzen zaizkion itzak adierazten duen bururakizunerako aukerakoa dala.

Zentzundunen izenekin, lenengoa da geyen erabiltzen dana, ta alkartzen zayon itzak adierazten duenerako *leyadura* dan asmo berezia dama.

E. b.: Apez*gai* = Apaiz*gai* = apaiza izateko gertutzen ari dana; Senar*gai* = senaŕa izateko bidean dabīlena; Emaztegai = emaztea izateko uŕatsetan dabīlena.

Zentzungabeko izenekin, atzizki biek, artzen dituzten itzak adierazten dutena egiteko ore edo ekaya erakusten dute.

Onela: Gona*gei* = gonak egiteko oyala.

Zentzun orokaŕean, *ekaya* edo *ulerkizuna*ren asmoak adierazten dituzte.

E. b.: Irakur*gai* = irakurtzekoa; Senda*gai* = sendatzeko izan ditekena; Otoiz*gai* = gogoetak izateko egokia dana; Ager*kai* = ageŕerazi nai dediñerako bidea.

Izenak bezela erabīli ezkero, *arazoa* ta zerbait egiteko *orea* edo *ekaya* erakusteko darabilzkigu.

Onela: Erabīli dugun *gaya* = erabīli dugun arazoa; Ez al duzute *gai*rik ori egiteko? = ez al duzute ori egiteko ororik edo ekairik?

-GU, *-GO*, *-GI*, *-OLA* atzizkiak.

Naiz lenengoa naiz atzizki auetako laugaŕena, bai ta beste biak ere lenengoaren aldakuntzak diranean, auxe adierazten dute: *zerbait egiten dan toki edo lekua*; ta aditzai alkartzen zaizkie.

E. b.: Ikas*gu* edo Ikas*tola* = ikasteko tokia; Lan*dola* = lanegiteko tokia; Etzan*go* = atseden artzeko tokia; Edan*gu* = edan egiteko lekua; Jan*gu*, Yan*gu* = jateko lekua; Jos*gi*, Yos*gi* = josten dan tokia.

-GO atzizkiak zeingabeko asmoa ta bizibidea ere adierazten ditu.

Onela: Etsai*go* = areriotasuna; Aide*go* = senidetasuna; Artzain*go* = abere-zaintzea.

-OLA atzizkiak, *gauzaen lekua* ta *zerbaitzuen multzoa* ere adierazten ditu.

Onela: Aŕi*ola* = aŕien lekua, aŕitza; Eguŕola = eguŕ edo zuren multzoa.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian Almenera'zko Ustekizunaren Lenaldian jokatzean, lenengo leŕoan zeaŕezko izenordeak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; bakaŕ-izakayaz, izenorde bi mota oyei, alkaŕi dagozkion adizkiñak jaŕi beaŕ dira, artez eta zeaŕez-betetzeko asmoak adierazten; kulatzen ordez, esaten eta idaztean:

	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		.banizaizu	...		...	...
Zuk	Bazenizait		...	...		...
Berak	...	...	...	balizaigu	...	...
Guk		...	bagenizayo		...	...
Zuek	...		...	...		bazenizayete
Berak	...	...	...	...	balizaizuete	...

2. Uŕengo esakuntzetan, Lenaldiko adizkiñak azaltzen dira; batzuk Almenera'zkoak dira, besteak Almenera'zko Ustekizun'ekoak; bi mota oyetakoak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak: Almenera'zkoak, Almenera'zko Ustekizun'ekoen bidez, eta alderantziz, Almenera'zko Ustekizun'ekoak, Almenera' zkoen bitartez; betikoari jaŕaitzean, kulatzen ordez esan eta idazteko:

Ori *aŕapatu al banizaizue*, bera gabe geratuko ziñakete, ziuŕ; ... - Lokaŕi oyek *biurtu zenizaizkidake* gaurko lanerako beaŕ dan bezela; ... - Artzanorak piztiren bat *atzitu al balizaizu*, pozik egongo ziñake; ... - Bere soñekoak *astindu genizaizkioke* ongi, auts guzia kentzeko; ... - Uste dugu gure xedeak *igaŕi al bazenizaizkigute*, pozago egongo ziñaketela; ... - Beren zamarien zamak obeto *tinkotu al balizaizkiete*, etxeraño obeki joango lirake; ... - Guraso auei beren auŕak *larderiatu nizaizkieke*,

ontzat artuko balute; ... - Oŕela jokatzean gure artaldea *ondatu zenizaiguke* zearo; ... - Basetxean dagoen sualditik gure abeltxeak bederen *gaizkatu al balizaizkigu*, on oso aundia egingo liguke; ... -Bereala *biŕindu genizaizkieke* beren txabola guztiak; ... - Nire baso zabal ori *muŕiztu al bazenizaidate*, eztakit ori egin gabe geratuko ote ziñaketen; ... - Nire areizti edeŕ au *zuzitu lizaidakete* aŕetaz ibiĺiko ezpanintz; ...

3. Galdera guzti auei erantzun egoki bana eman beaŕ baye; kulatzen ordez, esanez eta idatziz:

Egin uste dituzuten etxeak laisteŕ eraiki al balizaizkizuete, niretzat bat lekoratu zenizaidatela nai-izango nuke: Nork nai-izango luke, egin uste ditugun etxeak laisteŕ eraiki al balizaizkigute, berarentzat bat lekoratu genizayola?; ... - Zer nai-izango zenuke?; ... - Guk ere nai-izango al genuke, egin uste dituzten etxeak laisteŕ eraiki al balizaizkiete, guretzat bat lekoratu zizaigutela?; Bai, zuek ere ... -- Mezutu diguzun eun leuna eundu ezin badizaizugu, garaiz esango dizugu: Nork esango dit garaiz, mezutu diodan eun leuna eundu ezin badizait?; ... - Noiz esango didazute, mezutu dizuedan eun leuna eundu ezin badizaidazute?; ... - Nik ere oŕi garaiz esango al diot, mezutu didan eun leuna eundu ezin badizaiot?; Bayetz uste dugu; zuk ere ... -- Irentsi ezin bazenezate, beste sendagai bat emango dizuet: Nork emango digu beste sendagai bat, irentsi ezin bageneza?; ... - Zer emango didate, irentsi ezin baneza?; ... - Oyei ere beste sendagai bat emango al diete, irentsi ezin balezate?; Ez, baño. -- Len bezela jaŕaitu ezin balitez, astiroago egingo dute ainbeste ez nekatzeko: Ainbeste ez nekatzeko, nork egingo du astiroago, len bezela jaŕaitu ezin baledi?; ... - Zertarako egingo dut nik astiroago, len bezela jaŕaitu ezin banendi?; ... - Zuek ere ainbeste ez nekatzeko, astiroago egingo al duzute len bezela jaŕaitu ezin bazindezte?; Noski, guk ere ... -- Zure artalde aren zerbait eskeiñi al bazenizaigu, eskeiñi ezaiguzu bildots onena, guriena: Nork eskatzen dit bildots onena, guriena, eskeiñi dizayodala, nire artaldearen zerbait eskeiñi al banizayo?; ... Zer eskatzen diezute oyei?; ... - Nik ere zure artaldearen zerbait eskeiñi al bazenizait, bildots onena, guriena, eskatu al dizut?; Bai, ... -- Izenak aipatu ezin badizaizkidazute, esan ezaidazute, bederen, eldu ziranak zenbatzuk izan ziran: Zer esan beaŕ dizuet, izenak aipatu ezin badizaizkizuet?; ... - Nori esan beaŕ diogu eldu ziranak zenbatzuk izan ziran, izenak aipatu ezin badizaizkiogu?; ... - Guri ere eldu ziranak zenbatzuk izan ziran esan beaŕ al digute, izenak aipatu ezin badizaizkigute?; Ori uste dugu, zuei ere ... -- Euzkal-eginkizunak egin ezin bazenitza, orain arte

ikasi duzuna aiztuko litzaizuke: Nori aiztuko litzayoke orain arte ikasi duena, euzkal-eginkizunak egin ezin balitza?; ... - Zuei ere orain arte ikasi duzutena aiztuko al litzaizueke, euzkal-eginkizunak egin ezin bazenitzate?; Bai, guri ere ... -- Bai gizona!, diñozun bezela gibeleratu ezin banendi, auŕera jaŕaituko nintzake azkeneraño: Nor jaŕaituko litzake auŕera azkeneraño, diñodan bezela gibeleratu ezin baledi?; ... - Noraño jaŕaituko ziñakete, diñogun bezela, gibeleratu ezin bazindezte?; ... - Gu ere, auŕera, azkenerako jaŕaituko al giñake, diñozuten bezela gibeleratu ezin bagindez?; Ez, ... baizik. -- Nire beoŕak edangura eraman al bazenizaizkit, bitartean nik besterik egin nezake: Nork egin lezake besterik, bere beoŕak edangura eraman al banizaizkio?; ... - Zuen beoŕak edangura eraman al balizaizkizuete, zuek ere besterik egin al zenezakete?; ... - Eta guk be besterik egin al genezake, gure beoŕak edangura eraman al balizaizkigute?; Ustekoa da, zuek ere ... -- Auŕak obeto zaindu ezin badizaizkiguzu, beste seinzai biĺatuko dugu: Zer egingo duzute, auŕak obeto zaindu ezin badizaizkizuet?; ... - Nork biĺatuko du beste seinzai, auŕak obeto zaindu ezain badizaizkiogu?; ... - Guraso ayek ere beste seinzai biĺatuko al dute, auŕak obeto zaindu ezin badizaizkiezute?; Bai, guraso ayek ere ... -- Azkuŕi ayek eŕazki biŕindu lekizkizueke: Nori biŕindu lekizkioke eŕazki azkuŕi ayek?; ... - Zer biŕindu lizaizueke eŕazki?; ... - Niri ere azkuŕi ayek eŕazki biŕindu al lekizkidake?; Ez, ... baizik. -- Zuen landak soildu al balizaizkizuete, zalantzik gabe bereala egingo lukete: Uste al duzu nire landak soildu al balizaizkidate, bereala egingo luketela?; ... - Zuk gure landak soildu al bazenizaizkigu, bereala egingo al zenuke?; ... - Nik oŕen landak soildu al banizaizkio, zalantzik gabe egingo al nuke?; Ez, zuk ... -- Akitu ezin banendi, eten gabe lanegiten emen eukiko nindukezu: Nor eukiko zenuke emen eten gabe lanegiten, aitu ezin baledi?; ... - Zuek ere eten gabe lanegiten emen eukiko al zinduztekegu, akitu ezin bazindezte?; ... - Nortzuek eukiko zindukete emen eten gabe lanegiten, akitu ezin bazindez?; Lugin oyek ... -- Ezin azkartu zintzakete nai-izango luketen bezin laisteŕ: Nor ezin azkartu lezakete nai-izango luketen bezin laisteŕ?; ... - Nork ezin azkartu nintzake nai-izango luken bezin laisteŕ?; ... - Zuek azkartu al gintzakezute nai-izango zenuketen bezin laisteŕ?; Ez, guk ere ... -- Nire txabola ondatu ez dakidan teĺa beŕiak ipiñiko dizkiot: Nork ipiñiko dizkio teĺa beŕiak bere txabolari ondatu ez dakion?; ... - Zeri ipiñiko dizkiozute teĺa beŕiak ondatu ez dakizuen?; ... - Artzain ayek ere beren txabolai teĺa beŕiak ipiñiko al dizkiete ondatu ez dakizkien?; Bai, artzain ayek ere ...

4. Irakuŕi, aŕetaz, uŕengo alkaŕ-izketa; bertan aita bat, ama bat, seme bat eta alaba bat agertzen dira; irakuŕi ondoren, bakoitzari buruz auxe esan beaŕ da: Aita nor dan eta noren aita, berdin ama ta noren ama, semea ta noren semea, ta alaba ta noren alaba:

«III EKITALDIA»

Beke — «Itzaldi borobiĪa atera zaizu, Isai jauna...

Isai j. — Oŕatx! uste gabean. Apaizak kalean ere ezin ken elizako oitura...

Agar — Ni bezelakoak ikasteko beaŕean gaude, apaiz jauna. Ta nere semea ere ikastola ortan azitzea nai nuke. Entzun al duzu, maite?

Ismael — Bai, emen geratuko naiz. Ez dut beŕiz Yosulagunetara joan nai...

Beke — Ja!, ja!, ja! Ez iñor kayolara gogo onez joaten. Abesti zaaŕak diñoenez: «Azkatasuna zein edeŕ den!».
(gelatik saŕ bitez Abram jauna ta Sofie).

Beke — Itzaldia entzuteko garaiz zatozte. Isai jauna etxean dugu-ta.

Isai j. — Nere itzaldia bukatu dut. Auŕerantzean egintzak beaŕ dituzute.

Sofie — Orixe bera esaten dut nik ere. Ondo esna ta erne zegoen, bai, gure nagusia. Alajaña!

Abram j. — Guztia entzun dut. Ezpaitut bat ere lorik egin. Etzanik egotea, besterik ez! Buruko-min eta kezkaz...

Beke — Orain biotzaren txanda dugu. Goazen guztiok alkaŕekin!

Isai j. — Alabak zuzen esana, Abram...

Abram j. — Eta aita dan onek entzungoŕ egingo ez diona. Baña...

Beke — Zer, bada?...

Abram j. — Emen... nere eŕuz seme bat peitzen zaidala... Ezekiel!

Sofie — Beste bat irabazi duzu ordea. Ardi galdua artaldera bilduko da. Nun aurkituko du berotasun eta bazka oberik?

Beke — Nik ere oŕela uste dut...

Isai j. — Ortarako ez dezala iñork leengo eŕu ta ogenik aipa... Gauza zaŕak dira. Orain Itun Beŕi'aren argitan gaude. Kristo etoŕi zan, egin dezagun alaitsu aren Naya!».

«Agar'en seme... Ismael» - «Teatrogintza eta Yakintza» (61-2'gn. oŕialdeetan) «Antonio Maria Labayen».

EUN ETA OGETAMAIRUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA - IRAGANKOŔA - ADITZ LAGUNTZAĿEA
ALMENERA'ZKO USTEKIZUNA - ORAIÑALDIA - ERAKETAREN LENENGO BIDEA

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕari dagozkienak

			-ZU

IKUS	AL BA- -*N*- a)	-ZA-	
			-ZU- -TE
			----- -TE
			-ZU

IKUS	AL BA- -*G*- a) -*IT*-	-ZA-	
			-ZU- -TE
			----- -TE

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

			-T
			--
IKUS	AL BA- -*Z*- a) -*IT*-	-ZA-	
			-GU
			--- -(T)E
			-T
			--
IKUS	AL BA- -*Z*- a) -*IT*- -ZA-	-*TE*-	
			-GU
			--- -(T)E

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

Eztitugu emen aipatzen adizkin auek, 128'gn. ikaskayan ikusi genituenak diralako.

EZIÑERA'ZKO USTEKIZUNA

Beti bezela, EZIN itzaren bidez dagigu, itz ori AL'en ordez jartzean.

Eginkizunak

1. Lauki ontan, Eziñera'zko Ustekizunaren Lenaldian jokatzean, lenengo leŕoan zeaŕezko izenordeak aipatzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; askaŕ izakayaz, izenorde bi mota oyei, alkaŕi dagozkion adizkiñak jaŕi beaŕ dira, artez eta zeaŕez-betetzekoen asmoak adierazten; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		...	ezin banizaizkio		...	...
Zuk	Ezin bazenizaizkit		...	...		...
Berak	...	ezin balizaizkizu	...	...	...	...
Guk		...	...		...	ezin bagenizaizkio
Zuek	...	...	...	ezin bazenizaizkigute		...
Berak	...		...	...	ezin balizaizkizuete	...

2. Emengo esakuntzetan, Lenaldi'ko adizkiñak ematen dira; batzuk Eziñera'zkoak dira ta besteak Eziñera'zko Ustekizun'ekoak; bi mota oyetakoak ditugu alkaŕi buruz aldatzeko: Eziñera'zkoak, Eziñera'zko Ustekizun'ekoen bidez, eta alderantziz, Eziñera'zko Ustekizun'ekoak, Eziñera'zkoen bitartez; beti bezela, kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Zure morkoa *maĺatu ezin banizaizkizu*, ez nuke noski ori egingo; ... - Gure belaŕa *ezin zapaldu zenizaiguke*, beaŕa zitzaigun bezela; ... - Nire ortuak garaiz *umandu ezin balizaizkit*, barazkiak ondatuko litzaizkidake; ... - Zuek janzkia *ezin ezkotu genizaizueke* zuek nai zenuten bezela; ... - Beren egipenak *jauki ezin bazenizaizkiete*, guziok oso pozik geratuko giñake; ... - Ustekoa da bere xedea betetzea *ezin gebendu lizayoketela*; ... - Nik *ezin edaztu nizayeke* beren eultzea egokiro orduan; ... - Nire idaztiak *bildu ezin bazenizaizkit*, esan ezaidazu beste batek egin dizaidan; ... - Oŕ daukazun gari guztia, mutil oŕek *ezin edatu lizaizuke* berak bakaŕik; ... - Soloan dagozen oĺoak *baŕeyatu ezin bagenizaizkio*, zuek egingo zenizayokete ori laisteŕ; ... - *Ezin zeartu zenizaidakete* eguŕ guzti ori etxeko ate auŕean, nai zenutenez; ... - Mai gañean dagozen ingiak *tolestu ezin balizaizkigute*, gure lana oso atzeratuta geratuko litzaiguke.

3. Emen ipintzen ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ-izango zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Zeroŕekin eraman al banazazu, nai dezazunera joango naiz: Nor joango da nik nai dezadanera, neronekin eraman al badezat?; ... - Nora joango zera, geurekin eraman al bazaitzagu?; ... - Gu ere nai dezazutenera joango al gera, zeuekin eraman al bagaitzazute?; Bayetz uste dut, zuek ere ... -- Gari-orgak bultza ezin badizaizkidate, gaurkotz beaŕ duzutena ez dizuet eotu al-izango: Nori ez diozu eotu al-izango, gaurkotz beaŕ duena, gari-orgak bultza ezin badizaizkizute?; ... - Zer ez diguzute eotu al-izango, gari-orgak bultza ezin badizaizkizuete?; ... - Guk, gaurkotz beaŕ duzuna eotu aal-izango dizugu, gari-orgak bultza ezin badizaizkigute?; Ez, zuek ere ... -- Uŕeratu ezin baledi, obe izango da ezer egin eztezala: Zer izango da obe, ni uŕeratu ezin banendi?; ... - Txaŕago izango al da zerbait egin dezatela, uŕeratu ezin balitez?; ... - Obe izango al da guk zerbait egin dezagula, uŕeratu ezin bagindez?; Bai, ... -- Sendatu al bazaitzatee, oso gogoz sendatuko zaituztee: Nork sendatuko gaitu oso gogoz, sendatu al bagaitza?; ... - Nola sendatuko gaituzute, sendatu al bagaitzazute?; ... - Nik ere oso gogoz sendatuko al zaituztet, sendatu al bazaitzatet?; Bai, ziuŕ gagoz, zuk ere ... -- Oŕen mandazain zakaŕ oŕek zamarien lokaŕien korapiĺoak askatu ezin balizaizkigu, ezin erabil genitzake oyek: Nork ezin erabil litzake zamari oyek, oŕen mandazain zakaŕ oŕek beren lokaŕien korapiĺoak askatu ezin balizaizkio?; ... - Zer ezin erabil zenezakete, oŕen mandazain zakaŕ oŕek zamarien lokaŕien korapiĺoak askatu ezin balizaizkizue?; ... - Nik erabil al nitzake zamari oyek, zuek beren lokaŕien korapiĺoak askatu ezin bazenizaizkidate?; Ez, zuk ere ... -- Tontoŕeraño eldu ezin bazindezte, ezin ikus zenezakete bere atzean dagoena: Nork ezin ikus lezake bere atzean dagoena, tontoŕeraño eldu ezin baledi?; ... - Zer ezin ikus nezake, tontoŕeraño eldu ezin banendi?; ... - Guk ikus al genezake bere atzean dagoena, tontoŕeraño eldu ezin bagindez?; Ez, zuek ere ... -- Bazkarian artu ezin baditzazu, aparian artu beaŕ-izango dituzu: Nor artu beaŕ-izango ditu aparian, bazkarian artu ezin baditza?; ... - Nun artu beaŕ-izango ditut, bazkarian artu ezin baditzat?; ... - Zuek ere aparian artu beaŕ-izango al dituzute, bazkarian artu ezin baditzazute?; Bai noski, guk ere ... -- Berak bezela, estali al bagaitzate, ziuŕ gagoz oŕela egingo dutela: Nor dago ziuŕ, berak bezela estali al badezat, oŕela egingo dudala?; ... - Nor bezela estaliko gaituzute?; ... - Zu ere ziuŕ al zagoz, berak bezela estali al bazaitzagu, oŕela egingo dugula?; Bai, oso ziuŕ nago ... -- Otoizgai ayek irakuŕi al balizaizkidate, astia aidean joango litzaidake: Nori joango litzayoke astia aidean, otoizgai ayek irakaŕi al balizaizkiote?; ... - Zuri ere astia aidean joango al litzaizuke, otoizgai ayek irakuŕi al balizaizkizute?; ... - Eta guri nola joango litzaiguke astia, otoizgai oyek

irakuŕi al balizaizkigute?; Zuei ere ... -- Zalburdiaren gurpīlak igi ezin bagenizaizkizue, ezin yaŕai zenezakete zuen bidaldia: Nork ezin yaŕai lezake bere bidaldia, zalburdiaren gurpīlak igi ezin bazenizaizkio?; ... - Zer ezin yaŕai genezake zalburdiaren gurpilak igi ezin bazenizaizkigu?; ... - Zuk yaŕai al zenezake zure bidaldia, zalburdiaren gurpilak igi ezin banizaizkizu?; Ez, nik ere ... -- Zortziñaka ipiñiko baginduzute, guziok, nai-izango zenuketeraño pozago joango giñake: Nortzuk joango lirake pozago nai-izango nukeneraño, zortziñaka ipiñiko banitu?; ... - Noraño joango ziñakete pozago, zortziñaka ipiñiko bazinduztegu?; ... - Oyek ere zuek nai-izango zenuketeneraño pozago joango al lirake, zortziñaka ipiñiko bazenituzte?; Bai, oyek ere ... -- Zuek azkatu ezin bagaitzazute, nork egin lezake?; Lendakariak edo azkatu zaitzateke, guk ezin badezagu: Zu azkatu ezin bazaitzagu, uste al duzu lendakariak azkatu zaitzakela?; ... - Ta ni azkatu ezin banazazute, ni ere lendakariak azkatu al nazake?; ... - Eta gu lendakariak azkatu ezin bagaitza, zuk azkatu al gaitzakezu?; eztut uste, ... -- Zulo ayek estali ezin badizaizkiote, uste dut eŕaz igaroko eztala: Nortzuk eztira eŕaz igaroko zulo ayek estali ezin badizaizkiete?; ... - Ni eŕaz igaroko al naiz zulo ayek estali ezin badizaizkidate?; ... -Zuek uste al duzute eŕaz igaroko zeratela, zulo ayek estali ezin badizaizkizuegu?; Bai, guk uste dugu ... -- Adionean eldu ezin bagaitez, ez ditugu gure gurariak lortuko: Nork ez ditu bere gurariak lortuko, adionean eldu ezin badadi?; ... - Zer ez duzute lortuko, adionean eldu ezin bazaitezte?; ... - Nik lortuko al ditut nire gurariak, adionean eldu ezin banadi?; Ene ustez zuk ere ez ... -- Kinka oyetan erantzun ezin badezate galduta izango dira: Nor izango da galduta, kinka oyetan erantzun ezin badeza?; ... - Uste al duzu gu ere galduta izango gerala, kinka oyetan erantzun ezin badezagu?; Ez, ... - Zu ere galduta izango al zera, kinka oyetan erantzun ezin badezazu?; Ez, ... ayek baño.

4. Oitura dugunez, uŕengo eskutitza aŕetaz irakurtzea eskatzen dugu, gutunak nola idatzi ditezken ikusteko, eredu ona dalako; gero, naiz Kalifornia'ra naiz Amerika'ko beste tokietara joateko, euzkaldunen artean dagoen leyari buruz bakoitzaren iritzia eman beaŕ, iritziaren zioak zeintzuk diran esatean:

«LENENGO ESKUTITZA»

«Adrian Iriondo, Leaburu'ko Bikario jaunari, Emeterio Olazaŕeta'k.

Amalau urte doi-doi daramazkit eŕialde ontan: Kalifornia'n.

Iru eskutitz egin ditut nere aide urkoen etxera. Geyago ere egingo nituen, lengoak alpeŕekoak izan ezpalira. Lenengoa amagiñaŕebari zuzendu nion; bigaŕena, nere emazte zanaren aizpa Isabel'i; irugaŕena, amagiñaŕeba il zala jakitean, zeroŕen izenean bidali nuen. Eztut izan erantzupenik. Zergatik ote da? Iru eskutitzetan nere seme bakaŕ Leon'en beŕiak galdetu nituen. Eskeŕak orko adiskide bati, zerbait jakitera iritsi da Medel (Emeteri) gaixoa.

Amabi urte berealaxe beteko ditu Leon'ek; eta onezkero ona etoŕi diteke. Oŕ baño ikaspide obeak dira emen, irabazpide geyago, ugariago dirua. Aspaldi guzi ontan zuk eta zure lengusiña Isabel'ek eta izeba zanak, Leon'entzat eskuartea beaŕ izan duzute. Zenbat diru eralki duzuten esan eta nik lenbailen garbituko dut zoŕ ori. Erara nabil eta gogoz ari naiz diru biltzen.

Kalifornia! Au da Eŕia! Ez neguan otzegi, ez beroegi udan. Emen eztakigu eztula zer dan, maŕanta ta bulaŕ-estua (kostuma) zer diran ere ez. Birigaitza ezta ezagutzen. Osasun-eŕi ta ondasun-eŕi da au. Zenbat uste duzu, Adrian lengusua, zenbat irabazten nuela Sakramento'tik Txiko deritzayon gorengo uritxora, Nebada-ondora, ibaiz, gurpildun luŕiñontzian ibīli nintzanean? Īlean 50 dollar (ogerleko) uŕetan eta gañera jan-edana; jan ere aragia ugari; ez, oŕ bezela, oīoentzat egokiagoa dan ozala, giza-ozala, eltzekaria.

Txiko, Gaintza bezelatsuko basauritxoa da, Sakramento-ibai deritzayon ibai-bazteŕean egiña. Gorago eztira luŕiñontziak joaten. Andik Nebada'ko mendi eskerga, izugaŕi beti eluŕez beteak ageri dira. Jaŕi itzazute alkaŕen gañean Izaŕaitz, Ernio, Aizkoŕi, Aralar eta Gorbea, gañerakotzat (kapelatzat bezela) Basatxuŕo dutela. Ala ere Nebada'ko Whitney mendia aundiago, bost bat mīla zeŕen (metro) baititu».

«Ardi galdua» (1-2'gn. oŕialdeetan) R. Maria Azkue'k.

EUN ETA OGETAMALAUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

EGINKOŔA - IRAGANKOŔA - ADITZ LAGUNTZAĿEA
ALMENERA'ZKO USTEKIZUNA - LENALDIA - ERAKETAREN BIGAŔEN BIDEA

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕari dagozkienak

		-ZU

IKUS	AL BA- *-N-i-N-* t) -ZA-	
		-ZU- -TE
		----- -TE
		-ZU

IKUS	AL BA- *-G-i-N-* t) -ZA-	
		-ZU- -TE
		----- -TE

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕari dagozkienak

		-T
		--
IKUS	AL BA- *-Z-i-N-* t) -ZA-	
		-GU
		---- -(T)E
		-T
		--
IKUS	AL BA- *-Z-i-N-* t) -ZA- *-TE-*	
		-GU
		---- -(T)E

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕari dagozkienak

Eztitugu emen aipatzen adizkin auek, 128'gn. ikaskayan ikasitakoak berak diralako.

EZIÑERA'ZKO USTEKIZUNA

Auŕeko beste ikaskayetan ikusi dugun bezela, EZIN itzaren bitartez.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, izakayak adierazten dituzten izenordeak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; alkaŕi dagozkion adizkiñak ipiñi beaŕ dira, Almenera'zko Ustekizun'aren oraiñaldian; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		al bazaitzat	...		...	...
Zuk	Al banazazu		...	...		...
Berak	...	...	al badeza	...	...	...
Guk		...	...		al bazaitzategu	...
Zuek	...		...	al bagaitzazute		...
Berak	...	...	...	...	...	al baditzate

2. Emengo esakuntzetan, Almenera'zko Ustekizun'aren adizkiñak azaltzen dira; batzuk oraiñaldikoak eta besteak lenaldikoak dira, ta bi aldi oyetakoak ditugu alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak; oraiñaldikoak lenaldikoen bidez eta alderantziz, lenaldikoak oraiñaldikoen bitartez; oitura danez, kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Zurekin *eraman al banazazu*, ni oso pozik joango naiz; ... - Azkenez *ezagutu al bazintzat*, pozik geratuko nintzake; ... - *Zapaldu al badezazute*, zergatik eztuzute oŕela egiten?; ... - *Poŕokatu al bagintzate*, zertarako ari-izango ziran ala gure aurka?; ... - Ondo *azi bazaitzate*, eztakit zergatik eraman nai zaituzte eŕitik at; ... - Jantzi oyek *txikitu al bazaitzae*, egin dezatela ori lenbailen; ... - An zegizkieten lanak *azterkatu al banintzazute*, enindukete aŕapatuko; ... - Lan ortarako *aztertu al bazatzae*, egin dezatela ori lenbailen; ... - An zegizkieten lanak *azterkatu al bagenitza*, obetu burutuko lituzkete; ... - Emen bertan *kiskaldu al bagaitzate*, orixe egingo digute, zalantzik gabe; ... - Egurgiŕe maltzuŕ oŕek *atzipetu al bazintzate*, uste dut gaizki ibiĭiko ziñaketela; ... - Auŕ auek *garbitu al baditzagu*, egin dezagun lan ori gerorako utzi gabe; ...

3. Emen ageŕerazten ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Baretu al bazintzat, nire alegin guztiak egingo nituke lortzeko : Ni baretu al banintza, nork egingo lituke bere alegin guztiak lortzeko?; ... - Zertarako egingo zenituzkete zuen alegin guztiak, gu baretu al bagintzazute?; ... - Gu baretu al bagintzate, ayek ere beren alegin guztiak

egingo al lituzkete lortzeko?; Eztakit, ayek ... -- Nai duena egin ezin bagenizayo, ozta-ozta agurtuko ginduke: Nork agurtuko zinduzteke ozta-ozta, nai duena egin ezin bazenizayote?; ... - Nola agurtuko zinduke oŕek, nai duena egin ezin bazenizayo?; ... - Zuk ere ozta-ozta agurtuko al nindukezu, nai duzuna egin ezin banizaizu?; Ez, ... baizik. -- Itxasontzi ayek nekez uŕeratu lekizkieke, itxasoa lazkoŕ zegoelako: Zer uŕeratu lekieke nekez, itxasoa lazkoŕ zegoelako?; ... - Nori uŕeratu lekizkioke nekez itxasontzi ayek, itxasoa lazkoŕ zegoelako?; ... - Zuei ere itxasontzi ayek nekez uŕeratu al lekizkizueke, itxasoa lazkoŕ zegoelako?; Bai, guri ere ... -- Egotzi ezin bagaitzazute, ezpairik gabe zirkimirki geratuko zerate: Nor geratuko da ezpairik gabe zirkimirki, egotzi ezin bazaitzate?; ... - Nola geratuko gera ezpairik gabe, egotzi ezin bazaitzategu?; ... - Zu ere zirkimirki geratuko al zera, ezpairik gabe, egotzi ezin banazazu?; Ez, ... baño. -- Beren arazoak txolarteetan antolatu ezin banizaizkie, enuke iñoiz egingo: Nork eluke iñoiz egingo, beren arazoak txolarteetan antolatu ezin balizaizkie?; ... - Noiz etzenuke egingo, beren arazoak txolarteetan antolatu ezin bazenizaizkie?; ... - Nik iñoiz egingo al nuke ori, zure arazoak txolarteetan antolatu ezin banizaizkizue?; Ez, zuk ere ... -- Aiztu al banintzate, obe izango litzake guziontzat: Norentzat izango litzake obe, aiztu al bazintzate?; ... - Nola izango litzake guziontzat, aiztu al bazintzatee?; ... - Gu ere aiztu al bagintzate, obe izango al litzake guziontzat?; Ez dut uste ... -- Ondo lotu ezin bazaitzatee, ez zinduztekete iñoiz azpiratuko: Nork ez ginduke iñoiz azpiratuko, ondo lotu ezin bagaitza?; ... - Nola ez ninduke iñoiz azpiratuko?; ... - Guk azpiratuko al zinduztekegu, ondo lotu ezin bazintzategu?; Ez, zuek ere ... -- Ezin bizi liteke aldi-une oŕen luzean: Nor ezin bizi liteke aldi-une oŕen luzean?; ... - Zu bizi al zindezke aldi-une oŕen luzean?; ... - Eta gu bizi al gindezke aldi-une oŕen luzean?; Ez, zuek ere ... -- Solo auek esi bateaz itxi ezin badizaizkiguzu, auntzak nai dezatenean sartu al-izango dira: Zeintzuk sartu al-izango dira nai dezatenean, solo auek esi bateaz itxi ezin badizaizkizuegu?; ... - Nun sartu al-izango dira auntzak nai dezatenean, solo auek esi bateaz itxi ezin badizaizkizuet?; ... - Noiz sartu al-izango dira auntzak, solo auek esi bateaz itxi ezin badizaizkidate?; ... -- Obeto azi al bazintzae, makiña bat irabaziko zenuke: Nork irabaziko luke makiña bat, obeto azi al balezate?; ... - Nola irabaziko nuke nik makiña bat?; ... - Guk ere makiña bat irabaziko al genuke, obeto azi al bagintzate?; Bai, zuek ere ... -- Beren egazkiñera igo al bagintzate, oso pozik joango giñake: Nor joango litzake oso pozik, beren egazkiñera igo al balezate?; ... - Nola joan ziñakete, beren egazkiñera igo al bazintzatee?; ... - Ni ere oso pozik joango al nintzake, beren egazkiñera igo al banintzate?; Bai, ene ustez ... -- Nire aterpean atotsi al bazaitzatet, gaba ondo igaro al-izango duzute: Nork igaro al-izango du ondo gaba, zure aperpean atotsi al badezazu?; ... - Nola igaro al-izango dugu gaba, zure aterpean atotsi al bagaitzazu?; ... - Nik ere gaba ondo igaro al-izango dut, zuen aterpean atotsi al banazazute?; Bai, zuk ere ... -- Besteai bezelako ein berean aziak ornitu al bazenizaizkidate, lasa egongo nintzake: Nor egongo litzake lasa, besteai bezelako ein berean aziak ornitu al banizaizkio?; ... - Nola egongo ziñake, besteai bezelako ein berean aziak ornitu al bagenizaizkizu?; ... - Gu ere lasa egongo al giñake, besteai bezelako ein berean aziak ornitu al bazenizaizkigute?; Bayetz uste dut, zuek ere ... -- Obo ain ertsi ortatik atera ezin bagaitzazute, eztakit zer egin al-izango dugun: Nortzuek eztakite zer egin al-izango duten, obo ain ertsi ortatik atera ezin baditzagu?; ... - Zer eztakizu zuk, obo ain ertsi ortatik atera ezin bazaitzagu?; ... - Nik al dakit zer egin al-izango dudan, obo ain ertsi ortatik atera ezin banazazute?; Bai, zuk ba-dakizu ... -- Nire itzayak bialdu al dizaizkizuedanean, zuen landa-lanak obeki egingo dituzute: Nork egingo ditu obeki bere landa-lanak, zure itzayak bialdu al dizaizkiozunean?; ... - Zer egingo dugu guk obeki, zuen itzayak bialdu al dizaizkiguzutenean?; ... - Zuek ere zuen landa-lanak obeki egingo al dituzute, gure itzayak bialdu al dizaizkizuegunean?; Bai, noski, zuek ere ...

4. Ludi'ko Eŕi'ek ba-dute, bakoitzak berea, beren Eŕi-ereserkia; emen ipintzen ditugun bertsoak Arjentina'koarenak dira; ongi irakuŕi ondoren nabari-erazi beaŕ da ereserki oŕen gizurena nor dan, bai ta olerki-eresiaren egiĩea, ta orixe bera euzkeraz jaŕi duena ere; aipatu, azkenez, Euzkadi'ren ereserkia zein dan:

«MATXIN BURDIN»

«1. Atzaŕabita oslagun,
emen iartzen naiz kantari,
loŕ oyez bat dala kari
noiznai loitzaŕi dagona,
txori soiĩa lez gizona
urgaizten baita abeskari.

2. Betozkit lagun Goi Deunak
xuxpertuz ene gogamen;
eres nai baitut nik amen
eraman dudan bizitza,
otoi! beŕitu oroitza,
argitu nire asmamen.

3. Betozkit Doneak lagun,
betoz oro alazgiḻe,
betoŕ launa lagungiḻe
abagune estu onetan;
miia lot zait zintzuŕetan,
soa dut lausoz usgiḻe.

4. Bost bertsolari ikus ditut,
ospez iantzita, panpiñik,
zaintzeko bat ere ez griñik
ots ona irabaz ondoren:
noski ba, abia baño len
urtenka meko egiñik.

5. Beste ertaŕ bat igan bidez
Matxin Burdin da bidatzen.
Ezerk ez du atzeratzen,
ioanik du mamu kexka;
oro iardunik abeska,
nik be ekin nai dut kantatzen».

«Matxin Burdin» (29-30'gn. oŕialdeetan) «Jose Hernandez» «Iakakortexarena'k euskeratuta».

EUN ETA OGETAMABOSKAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ALMENERA'ZKO USTEKIZUNA - ADITZ LAGUNTZAḺEA - ORAIÑALDIA

ARTZAḺE-ADIZKIÑAK - IRUGAŔEN NOTIÑAREN ADI-YABEA (1)

Bakaŕ

Neri		*-T*
Zuri		*-ZU*
Berari		*-O*
	IZAN AL BA- -D- a) -KI-	
Guri		*-GU*
Zuei		*-ZU- -(T)E*
Berai		*-E*

Askaŕ

Neri		*-T*
Zuri		*-ZU*
Berari		*-O*
	IZAN AL BA- -D- a) -KI- -ZKI-	
Guri		*-GU*
Zuei		*-ZU- -(T)E*
Berai		*-E*

ALMENERA'ZKO USTEKIZUNA - ADITZ LAGUNTZAḺEA - LENALDIA

ARTZAḺE-ADIZKIÑAK - IRUGAŔEN NOTIÑAREN ADI-YABEA (2)

Bakaŕ

Neri		*-T*
Zuri		*-ZU*
Berari		*-O*
	IZAN AL BA- -L- e) -KI-	
Guri		*-GU*
Zuei		*-ZU- -(T)E*
Berai		*-E*

Askaŕ

Neri		*-T*
Zuri		*-ZU*
Berari		*-O*
	IZAN AL BA- -L- e) -KI- -ZKI-	
Guri		*-GU*
Zuei		*-ZU- -(T)E*
Berai		*-E*

(1) Ikusi: 140, 142 ta 150'gn. ikaskayak.
(2) Ikusi: 140, 142 ta 150'gn. ikaskayak

Era auek Almenera'zko Oraiñaldi ta Lenaldi'koetatik datozela esan diteke (1); ayetan agertzen dan -KE atzizkia kentzean eta BA- auŕizkia gañeratzean.

EZIÑERA'ZKO USTEKIZUNA

Auŕeko besteetan egin dugun bezela, emen ere AL itzaren ordez, EZIN jartzean egingo dugu.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, izakayak adierazten dituzten izenordeak jartzen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; alkaŕi dagozkion adizkiñak ipiñi beaŕ dira, Almenera'zko Ustekizun'aren Lenaldian; kulatzen ordez, esan eta idazteko.

	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		...	al baneza		...	...
Zuk	Al banintzazu		...	...		...
Berak	...	al bazintza	...	...	...	...
Guk		...	...		...	al bagenitza
Zuek	...		...	al bagintzazute		...
Berak	...	...	...	...	al bazintzatee	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan, Oraiñaldiko Almenera ta Almenera'zko Ustekizun'aren adizkiñak agertzen diran esakuntzetan, bi era oyetakoak dira alkaŕekiko aldatu beaŕ diranak; Almenera'zkoak, Almenera'zko Ustekizun'ekoen bidez, eta alderantziz, Almenera'zko Ustekizun'ekoak, Almenera'zkoen bitartez; beti dagigun bezela, kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Zuk nai baduzu, *adoretu nazakezu* ondo; ... - *Bizkortu al bazaitzagu*, pozik egingo dizugu ori; ... - Geron ustez, zearo *poŕokatu dezakegu* mutilzaŕ aundi ori; ... - Pizkat *itxaron al bagaitzazute*, gero alkaŕekin joan al-izango gera; ... - Lasterketa ortan eŕaz *atzeman zaitzatekee* mutil ausarti oyek; ... - Txepel auek *murgildu al baditzat*, uste dut zalantzatu gabe egingo dudala; ... - Besterik egingo duzulakoan nago *kuzkurtu al banazazu* ere; ... - Mutil oldarkoi ayek eŕaz *izutu zaitzakete*; ... - Geyegi *artegatu al badezazute*, obe izango da ezer egin ez dizayozutela; ... - Gure auŕek *naigabetu gaitzakete*, jokera txaŕ ori artu ezkero; ... - Zuengana joatean, *auŕezkatu al bazaitzategu*, nayago dugu etxetik ez irtetzea; ... - Buŕukari oyek, kementsuak izanaŕen, laisteŕ *lekoratu ditzakegu*; ...

(1) Ikusi: 124'gn. ikaskaya.

3. Galdera guzti auei erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Diñozun ori aiztu al badakizu, obeto bizi-izango zera : Nor bizi-izango da obeto, diñoen ori aiztu al badakio?; ... - Nola bizi-izango naiz diñodan ori aiztu al badakit?; ... - Zuek ere obeto bizi-izango al zerate, diñozuten ori aiztu al badakizue?; Bayetz uste dugu, gu ere ... -- Salatu ezin banazate, ni galtzeko beste edozein aitzaki biīatuko lukete : Zu galtzeko zer biīatuko lukete salatu ezin bazaitzae?; ... - Nork biīatuko luke beste edozein aitzaki gu galtzeko, salatu ezin bagaitza?; ... - Zuk ere ori galtzeko beste edozein aitzaki biīatuko al zenuke, salatu ezin badezazu? Ez, ... -- Jauretsi al balitzate, beren arima guziaz jauretsiko lituzkete : Nor jauretsiko zenukete zuen arima guziaz, jauretsi al bazenezate?; ... - Nola jauretsiko genituke, jauretsi al bagenitza?; ... - Ni jauretsiko al nindukezute, jauretsi al banintzazute?; Ez, iñola ere ... -- Noizean bein zerbait adierazi al balizaizuete, zuen azterketa obeki igaroko zenukete : Nork igaroko luke obeki bere azterketa, noizean bein zerbait adierazi al balizayote?; ... - Nola igaroko genuke gure azterketa, noizean bein zerbait adierazi al balizaigute?; ... - Zuk ere zure azterketa obeki igaroko al zenuke, noizean bein zerbait adierazi al balizaizute?; Bai, nik ere ... -- Azpertu al badakizkie, berek jakingo dute zer egin eurak alaitzeko : Nork jakingo du zer egin eurak alaitzeko, azpertu al badakizkio?; ... - Zertarako jakingo duzu zer egin, azpertu al badakizkizu?; ... - Guk jakingo al dugu zer egin eurak alaitzeko, azpertu al badakizkigu?; - Eztakit zuek jakingo duzuten ... -- Bereala atzeman ezin bagaitzate, elburura gu baño askoz beranduago elduko dira : Nortzuk elduko dira elburura zuek baño askoz beranduago, bereala atzeman ezin bazaitzatee?; ... - Nora elduko dira zu baño askoz beranduago, bereala atzeman ezin bazaitzae?; ... - Ni baño askoz beranduago elduko al dira elburura, bereala atzeman ezin banazate?; Bai noski, ... -- Zuen zaletasunaz atsegindu ezin banintzazute, etzaitezte etoŕi nigana : Norengana eztugu etoŕi beaŕ, gure zaletasunaz atsegindu ezin bageneza?; ... - Nork eztu zuregana etoŕi beaŕ, bere zaletasunaz atsegindu ezin bazintza?; ... - Guk ere ez al dugu zuengana etoŕi beaŕ, gure

zaletasunaz atsegindu ezin bazintzategu?; Bai, obe izango da, zuek ere gugana ez etortzea ... -- Ikusi ezin bagaitzate, bost ajola guri; beste egun batean ikusiko gaituzte: Nork ikusiko zaituzte beste egun batean, orain ikusi ezin bazaitzate; ... - Noiz ikusiko zaitue, orain ikusi ezin bazaitzae?; ... - Zuek beste egun batean ikusiko al nauzute, orain ikusi ezin banazazute?; Bai, oŕela uste dugu, ... -- Beste gauza oberik otu ezin badakizu, obea izango da ixil zaitezela: Zer izango da obea beste gauza oberik otu ezin badakit?; ... - Norentzat izango da obea ixil dedīla, beste gauza oberik otu ezin badakio?; ... - Guretzat ere obea izango al da ixil gaitezela, beste gauza oberik otu ezin badakigu?; Bai, zuentzat ere ... -- Esnea laisteŕ galdu ezin balekit, enuke oraindik irakiko: Zer etzenuke oraindik irakiko, laisteŕ galdu ezin balekizu?; ... - Noiz etzenukete esnea irakiko, laisteŕ galdu ezin balekizue?; ... - Nortzuek elukete oraindik esnea irakiko, laisteŕ galdu ezin balekie?; ... -- Oso naigabetsu egongo giñake, gure alabaren ezkontzan gurekin euki ezin bazintzategu: Nortzuk egongo lirake oso naigabetsu, zuen alabaren ezkontzan zuekin euki ezin bagintzazute?; ... - Nola egongo ziñakete, zuen alabaren ezkontzan zuekin euki ezin banintzazute?; ... - Ni ere oso naigabetsu egongo al nintzake, nire alabaren ezkontzan nirekin euki ezin bazintzatet?; Bai, zu ere ... -- Seme auek sendatu ezin balekizkigu, gure oñazea neurgabekoa izango litzake: Nola izango litzake zuen oñazea, seme oyek sendatu ezin balekizkizue?; ... - Zer izango litzake neurgabekoa, beren seme oyek sendatu ezin balekizkie?; ... - Nire seme auek sendatu ezin balekizkit, nire oñazea ere neurgabekoa izango al litzake?; Bai uste dut, ... -- Beaŕ dan bezela zentzatu ezin bazaitzae, eztakit zertarako etoŕi diran: Nork eztaki zertarako etoŕi diran, beaŕ dan bezela zentzatu ezin banazate?; ... - Zuek al dakizute zertarako etoŕi diran, beaŕ dan bezela zentzatu ezin bazaitzatee?; ... - Guk al dakigu zertarako etoŕi diran, beaŕ dan bezela zentzatu ezin bagaitzate?; Ez, zuek ere ... -- Zaure ayek kakotu ezin balekizkio, beaŕa izango zayo beste batzuen bīla joatea: Nortzuei izango zaye beaŕa beste batzuen bīla joatea, zaure ayek kakotu ezin balekizkie?; ... - Zer izango zaizue beaŕa, zaure ayek kakotu ezin balekizkizue?; ... - Niri ere beaŕa izango al zait beste batzuen bīla joatea, zaure ayek kakotu ezin balekizkit?; Zalantzik gabe, zuri ere ... -- Emen ongi jaŕaituko gera, len bezela zematu ezin bagaitzate: Nor jaŕaituko da ongi emen, len bezela zematu ezin badezate?; ... - Nola jaŕaituko zera emen, len bezela zematu ezin bazaitzae?; ... - Ni ere emen ongi jaŕaituko al naiz, len bezela zematu ezin banazate?; ...

4. Edestiari buruzko uŕengo idazki-txatala ondo irakuŕi beaŕ da, bertan ematen diran beŕiak ikasteko; gero, buruz, esanez eta idatziz emateko.

«EŔOMATAŔAK, EUZKALEŔIAN»

«Eŕomataŕek eman zituzten idatziz euzkaldunen lenengo beŕiak.

Idazle eŕomataŕen iritziz sei leiñuek osotzen zituzten Euzkaldun guztiak: Baskondaŕak, Barduloak, Karistiak, Autrigonoak, Akindaŕak eta Berondaŕak.

Baskondaŕak Ondaŕabi'tik Jaka uria baño arantzago bizi ziran, zabalean eta goiko Bayona'tik beko Ebro'raño, luzean. Baskondaŕak ziran, beraz, oraingoko Ueska ta Oyarzun'go ibaŕak ere.

Barduloak, Urumea ta Deba ibaŕen bitarteko Gipuzkoa'ko luŕaldean bizi ziran; eta Araba'ko sortalde ta erdialdea ere artzen zituzten.

Karistioak, orain Gipuzkoa dan Deba'ko ibaŕ luze, ta Bilbao'raño zati guztian zeaŕ, zabaltzen ziran; eta oyetaz gañera, Araba'ko zabaldi guztia Ebro'raño.

Autrigonoak, Bilbao'tik oraingo Santander erdiraño irixten ziran, itxasaldetik; eta Burgos'ko Montes de Oka'ren ondoraño jeixten beko aldetik.

Berondaŕak, oraingo Eŕigoya aldean bizi ziran.

Akindaŕak, beŕiz, Bayona'tik Bordele bitartean. Garona ibaya zan ayen bazteŕ-muga.

Oyarzun eta Deba'ko ibaŕetan oraindik ere mintzatzen diran euzkalkiak, bereiztasun onen alde agertzen dira: Oyarzun ibaŕeko eŕi guztiak Napaŕeraz, eta Deba ibai ingurukoak Bizkayeraz egiten baitute.

Orduko euzkaldunak artzañak ziran. Eta artzañek mendiak bai, mendiak eŕez igarotzen zituzten beren artaldeekin, ibairik ez, ordea!

Eŕomaŕak gurera azaldu ziranean, (Jesus jayo baño ia eun urte lenago) buŕuka luzean zebiltzaten euzkaldunak Keltaekin.

Keltak Alemania'ko Rin ibai inguruko gizon goŕiak ziran. Orain iru mīla bat urte andik abiatu, ta luŕ obeen bīla Prantzia zeaŕ jetxi ziran. Luŕ oŕetaz jabetu, ta Akitania'ko euzkaldunekin gudan jaŕi.

Andik bosteun bat urte geroago abiatu ziran beŕiz, eta Oŕeaga'tik sarturik, gure Ebro ibayaren inguruko luŕalde aberatsaren iŕikan jaŕi».

«Historia General del País Vasco» (28'gn. oŕialdean) «Manuel Estonba, Donato Aŕinda».

EUN ETA OGETAMASEIGAŕEN IKASKAYA

-KADA, -ADA atzizkiak (1).

Atzizki auetako lenengoak, -KADA, (Azkue'k diñoenez, D.) -KA + -ADA'z eratua, bi zentzun auek ditu : DANPA ta NEUŔI.

E. b. : Agin*kada*, Aŕi*kada*, Osti*kada*, Ukabil*kada* = agiñaz, aŕiaz, ankaz, ukabilaz emandako *danpa*.

Azkue beraren iritziz, mugitza eztan -A izkiaz amaitzen diran izenekin -KADA'en ordez, -ADA erabiltzen da.

Onela : Makila*da* = makilaz emandako *danpa*.

Neuŕi-zentzunaz, *zerbaiteaz beterik dagoen gauza bat* adierazten du.

E. b. : Ao*kada*, Esku*kada*, Kolko*kada*, Katilu*kada* = zerbaiteaz beteta dagozen ao, esku, kolko, katilua.

Naiz ao naiz esku ta abaŕ, beteta dagozen gauza zein dan adierazteko, atzizkia daraman itzaren ondotik, gauza oŕen izena jartzen da, -A mugitzaz.

Onela : Ao*kada ura* = uraz beteta dagoen aoa; Esku*kada dirua* = diruz beteta dagoen eskua.

Mugitza oŕen ordez, beste mugarazleak ere erabil ditezke.

Onela : Ao*kada* ur *ori* = uraz beteta dagoen ao *ori*; Esku*kada* diru *auek* = diruz beteta dagozen esku *auek*.

Eta *ao bat* uraz beteta dagoela, edo *esku bat* diruz beteta dagoela esan beaŕ baldin bada, BAT zenbakitza erdian jartzen da, eukitzen dana adierazten duen itzaren auŕetik, BETE (ain zuzen BAT'en ordez erabiltzean) itzaz ikusi genuenez (2), ura erabiltzen zan bezela; baña orain, eukitzen dana erakusten duen itzak -A mugitza galtzen du.

E. b. : Ao*kada bat* ur = uraz betetako ao *bat*; Esku*kada bat* diru = diruz betetako esku *bat*; Kolko*kada bat* sagaŕ = Sagaŕez betetako kolko *bat*.

Beste zenbakitzak auŕetik doaz, arau orokaŕak agintzen duenez.

Onela : *Iru* esku*kada diru* = diruz betetako *iru* esku; *Lau* kolko*kada sagaŕ* = sagaŕez betetako *lau* kolko.

(1) Ikusi: 115'kn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 92'gn. ikaskaya.

LEGEZ itza.

Bizkayeraz, gipuzkeraz'ko BEZELA'ren zentzuna du (ez erkatzeko zentzunaz, *era* adierazteko baño).

Sendotzekoa bezela : LEGETXE edo LEGETXEZ dauka; eta azken au : LETXE'az laburtzen da.

E. b. : Esne *letxe* = esne bezela.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, artzaile-zentzuna duten izenordeak ipintzen ditugu; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, bayeztean eta ezeztean bakoitza, irugaŕen notiñen adi-yabeak ikusten dira. Alkaŕi dagozkion «Almenera»'zko ta «Eziñera»'zko Ustekizun'aren Oraiñaldiko adizkiñak jaŕi beaŕ dira; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Adi-yabea	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Bera (bai) :	...	al badakizu	...	al badakigu	...	...
Bera (ez) :	Ezin badakit	...	...	...	ezin badakizue	...
Berak (bai) :	...	...	al badakizkio	...	...	al badakizkie
Berak (ez) :	...	ezin badakizkizu	...	ezin badakizkigu	...	...

2. Uŕengo esakuntzetan, Lenaldiko Almenera ta Almenera'zko Ustekizun'aren adizkiñak azaltzen dira, ta bi era oyetakoak dauzkagu alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak; Almenera'zkoak, Almenera'zko Ustekizun'ekoen bidez, eta alderantziz, Almenera'zko Ustekizun'ekoak, Almenera'zkoen bitartez; Oitura danez, eta kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Uste dut zuk oso ondo *elikatu nintzakezula*; ... - Guk *baretu al bazintzagu*, pozik geratu giñake; ... - Berak nai duen tokira *arakotu al zenezakete*?; ... - Agure mazal ayek ongi *aolkatu al bagintzate*, gure lan obeki amaituko genezake; ... - Beaŕ eztana egitera *ixurtatu zintzatekee* maltzuŕ ayek; ... - Eztakit, *limurtu al banitza*, orixe egitea erabakiko ote nuken; ... - Eginkizun ortarako *gertu al banintzate*, uste dut eŕaz burutuko nukela; ... - Bereala *apaindu zintzakegu*, jai edeŕ ortara ondo joan al zaitezken; ... - Egokia izango litzakez, eri ori ondo *agondu al baneza*, lasayago geratuko nintzake; ... - Ba-dakigu *goratu gintzakezutela*, baña oŕelakorik ez egiteko eskatzen dizuegu; ... - Olekiz *atotsi al*

bazintzategu, ziuŕ egon zaitezkete oŕela egingo genukela; ... - Nola *uŕuindu zenitzake* gazte eratsu oyek?; ...

3. Emen jartzen ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Goize guzian legortu ezin badakizkit, eztitut bildu al-izango eguerdi ondoren arte: Nork eztitu bildu al-izango eguerdi ondoren arte, goize guzian legortu ezin badakizkio?; ... - Noiz arte eztituzu bildu al-izango, goize guzian legortu ezin badakizkizu?; ... - Zuek ere eguerdi ondoren arte ez al dituzute bildu al-izango, goize guzian legortu ezin badakizkizue?; Jakiña, guk ere ... -- Ikuskizun dago ori, bi agin auek atera ezin bazenizaizkit, Kepa'k aterako dizkit: Nork aterako dizkizu, bi agin oyek nik atera ezin banizaizkizu?; ... - Zer aterako dit Kepa'k, oŕek atera ezin balizait?; ... - Nik bi agin oyek atera ezin banizaizkizue, uste al duzu Kepa'k aterako dizkizuela?; Bai, zuk ... -- Edontzikada bat ur eman al badizaiguzu, gure egaŕi au kenduko dugu: Nork kenduko du bere egaŕi ori, edontzikada bat ur eman al badizayozute?; ... - Zer kenduko duzute, edontzikada bat ur eman al badizaizuegu?; ... - Nik ere nire egaŕi au kenduko al dut, edontzikada bat ur eman al badizaidate?; Bai, zuk ere ... -- Oŕela egotean, eri oŕek aokada bat odol euki lezake: Zuk euki al zenezake aokada bat odol oŕela egotean?; ... - Zer euki nezake nik oŕela egotean?; ... - Guk ere aokada bat odol euki al genezake oŕela egotean?; Ene ustez zuek ere ... -- Daukadan gaitza kendu al balekit, zoriontsua izango nintzake: Nor izango litzake zoriontsua, daukan gaitza kendu al balekio?; ... - Zer izango ziñake, daukazun gaitza kendu al balekizu?; ... - Gu ere zoriontsuak izango al giñake, daukagun gaitza kendu al balekigu?; Ustekoa da, zuek ere ... -- Auŕak ondo azi ezin badakizkizue, joan zaitezte lenbailen sendagīlearengana: Nortzuek joan beaŕ dute lenbailen sendagīlearengana, auŕak ondo azi ezin badakizkie?; ... - Norengana joan beaŕ dut lenbailen, auŕak ondo azi ezin badakizkit?; ... - Ama oŕek ere, lenbailen sendagīlearengana joan beaŕ al du, auŕak ondo azi ezin badakizkio?; Zalantzik gabe, ama oŕek ere ... -- Paŕa-paŕa banatu ezin badizaizkizuete, egokiago izango zaizue ezer eman ez dizaizuela: Zer izango zaigu egokiago, paŕa-paŕa banatu ezin badizaizkigute?; ... - Nortzuei izango zaye egokiago ezer eman ez dizayetela, paŕa-paŕa banatu ezin badizaizkiete?; ... - Zuei ere egokiago izango al zaizue ezer eman ez dizaizuegula, paŕa-paŕa banatu ezin badizaizkizuegu?; Bai, ene ustez guri ere ... -- Itxartu al bagintzate, sei t'erdietan bertan egin zezatela nayago-izango genuke: Nork nayago-izango luke, itxartu al balezate, sei t'erdietan bertan egin zezatela?; ... - Noiz nayago-izango zenuke egin genezala, itxartu al bazintzagu?; ... - Nik ere sei t'erdietan bertan egin zenezatela nayago-izango al nuke, itxartu al banintzazute?; Zeroŕek esan beaŕ duzu, ... -- Abesten laketu ezin balekigu, ezin egon liteke jai egokirik: Zer ezin egon liteke, abesten laketu ezin balekizue?; ... - Nun ezin egon liteke jai egokirik, abesten laketu ezin balekit?; ... - Eta zuri abesten laketu ezin balekizu, emen jai egokirik izan al liteke?; Ez, niri ere ... -- Zalantzik gabe, ezin lasteŕ-egin lezake, kolkokada bat intxauŕ zeramalako: Nork ezin lasteŕ-egin lezake, kolkokada bat intxauŕ zeramalako?; ... - Zergatik ezin lasteŕ-egin nezake nik?; ... - Zuek ere ezin lasteŕ-egin zenezakete, kolkokada bat intxauŕ zeneramatelako?; Noski, guk ere ... -- Katīlukada bat esne eman genizayoke bakoitzari: Nortzuei eman zenizayeke katīlukada bat esne?; ... - Guri ere katīlukada bat esne eman al zenizaigukete?; ... - Nik eman al nizaizueke katīlukada bat esne zuei?; Bai, zuk ere ... -- Geixeago eutsi al balekizkio, gaizkatuta egongo lirake: Nortzuk egongo lirake gaizkatuta, geixeago eutsi al balekizkie?; ... - Nola egongo litzake, geixeago eutsi al balekigu?; ... - Aŕantzale oyek ere gaizkatuta egongo al lirake, geixeago eutsi al balekizkizue?; Orixe uste dugu, aŕantzale oyek ere ... -- Aŕaindegia itxi al balizaidate, uste dut berandu gabe egingo luketela: Zuk berandu gabe egingo al zenuke, aŕaindegia itxi al bazenizaigu?; ... - Oŕek berandu gabe egingo al luke, aŕaindegia itxi al balizaizue?; Eta nik berandu gabe egingo al nuke, aŕaindegia itxi al banizaye?; Ez, ... baño. -- Ezin utzi dezakegu, orma auek untzez bete dakizkigula: Nortzuek ezin utzi dezakete, orma auek untzez bete dakizkiela?; ... - Oŕek utzi al dezake, orma auek untzez bete dakizkiola?; ... - Nik utzi al dezaket orma auek untzez bete dakizkidala?; Ez, zuk ere ... -- Landola artan lanegiten onartu nintzaketen, areago ikasi beaŕ-izango nuke: Nork ikasi beaŕ-izango luke areago, landola artan lanegiten onaŕ lezaketen?; ... - Zer egin beaŕ-izango genuke, landola artan lanegiten onaŕ gintzaketen?; ... - Zuek ere areago ikasi beaŕ-izango al zenukete, landola artan lanegiten onaŕ zintzateketen?; Bai, guk ere ...

4. Uŕengo alkaŕ-izketak ondo irakuŕi; gero, norberak esan eta idatzi egin beaŕ-izango du, bietatik atera ditzaken ondorioak:

1.ª **«IZEN ONA»**

«Bein Sua, Ura ta Izen ona alkaŕegaz joyazan (zijoazen). Banatu ta galduteko bilduŕ zirean, ta otu jaken (zitzayen) galdu ezkero zelan alkaŕ aurkituko ete eben (zuten) jakitea. Suak esan eban (zuen):

— Zuek aurkituko nozue (nauzute) kea darien toki guztietan.

Urak esan eban (zuen):

— Ni, toki zingiratsuetan aurkituko nozue (nauzute).

Eta biak batera Izen onari itandu (galdetu) eutsen (zioten):

— I, adiskidea, nun aurkitu al-izango augu?

— Ni —erantzun eutsen (zien) Izen onak—, bein galdu ezkero, galduta nago betiko, enau (ez nau) iñok (iñork) aurkitu al-izaten».

«Ipuiñak» (53'gn. oŕialdean) Azkue, Resurrección María.

«Bizkaiko euskal-idazleak» (145'gn. oŕialdean) Zarate Mikel.

2.ª **«EZKONTZA-AUSTE BAT»**

«— Ezkontzearen austea nai dozue (duzute), orduan?

— Bai jauna. Ezkondu ginduzan legez, ezkontza ausitzeko almena be ba-daukazula entzun dugu-ta.

— Ondo dago, ondo dago, ene semeok: Eleizpera joanda, an itxaron eidazue (ezaidazute) Apuŕ baten. Lasteŕ joango nayatzue (natzaizue).

Ara eldu-ta, Kepa jaunak isopua ur bedeinkatu ontzian busti eban (zuen), eta —ezaitez bildurtu Lorentzo, ez da ezer— kaska! emon eutsan (zion) buruan isopuaz. Gero beste kaskaŕeko bat Toribi'i. Gero, baŕiro Lorentzo'ri; uŕengo Toribi'ri, kiski ta kaska, jo ta ke...

— Jauna, baña noz amaituko dozu ezkontza-auste au?

— Ai, seme-alabatxuok! Ondiño iraungo dau (du), ba, apurtxo baten.

— Ai ene, aai! Jauna, amaitu eizu (ezazu) ainbat ariñen eginkizuna.

— Min artuten dozue (duzute), orduan? Jakin eidazue, ba, enetxuok, jakin, bein-betiko: Ezkontza ezin ausi daiteke arik eta biotatik bat il arte.

— Ezkontza austeko biotatik bat il beaŕ? Eleizkizun au oŕen gogoŕa bada, obe dogu, Toribi, etxera joanda, ezkondu giñanean agindu genduanez (genuenez), bakean eta luzaro bizi.

— Goazan, Lorentzo, goazan ainbat ariñen!».

«Ipuin-Baŕeka» (145'gn. oŕialdean) «Bilbao, Felix».

«Bizkaiko euskal-idazleak» (285-6-7'gn. oŕialdeetan) «Zarate Mikel».

EUN ETA OGETAMAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

Ikasi ditugun adizkin bilduak dituzten aditzak, naiz iragangaitzak naiz iragankoŕak izan, gaurko egunean adizkin oyetan geyen erabiltzen diranak ditugu. Baña ez dira oyek bildu-eraz jokatzen dutenak soiīlik; ba-dagoz beste batzuk; eta oyetako beren aditzerak, gaur, euŕez erabiltzen dira; besteak utzita dagoz eta aditz oyen era batzuk banaka ezagutzen dira, aspaldiko idazleek erabiīlita.

Aŕigarai'ek, arazo onezaz ari danean, aspaldian joko-bilduaren aditzak geyago izan edo zirala uste duela diño; ta bere iritziz, galdu diran era bilduak beŕiz erabiīli beaŕ ditugu, bai ta era berean jokatu ditezken beste aditz guztiak be oŕela erabiīli beaŕ dirala.

Beren era bilduak oraindik dauzkaten aditzetatik, batzuk iragangaitzak dira, e. b.: ETZAN, JAŔAI (Jaŕaitu), EGOKI, EKIN, ITXEKI.

Aditz oyetatik bi, beste zentzunaz, iragankoŕak ere izaten dira. Auek: JAŔAITU ta ITXEKI.

Beste aditz batzuk iragankoŕak dira, e. b.: JARDUN, IRITZI (ERITZI), IRAUN, ERAUSI, ENTZUN, EZAGUTU, IRUDI, JARION (ERION), EUTSI.

Naiz batzuk naiz besteak, askotan, artzaīe-adizkiñen era ta zentzunaz erabiltzen dira, auek ikasi ditugun arauz. Onela: EGOKI, IRITZI, JARION.

EUTSI, artez eta zeaŕezko betekizunen adizkiñetan erabiltzen da.

E. b.: Oŕi eutsi diogu; Beren oiturai eutsi dizkiete.

Guzien artean geyen erabiltzen edo diranen erak ipintzen ditugu emen; auenak: ETZAN eta JAŔAI (iragangaitzak); IRUDI ta JARDUN (iragankoŕak), eta IRITZI ta EGOKI (artzaīeak).

Aipatuko ditugun EGOKI'ren erak, EGON aditzari dagozkio (EGON' etik EGOKI datoŕelarik); adi-yabea irugaŕen notiña izanik eta artzaīe-izenordeak eramaten.

Beste aditzai dagozkien adizkiñak, eŕaz atera ditezke, emen agertzen diranak ereduz artzean.

ORAIÑALDIA

JOKO IRAGANGAITZAREN ADIZKIÑAK

	ETZAN		JAŔAI
Ni	NATZA	Ni	NAŔAI
Zu	ZAUTZA	Zu	ZAŔAIZ
Bera	DATZA	Bera	DAŔAI
Gu	GAUTZA	Gu	GAŔAIZ
Zuek	ZAUTZATE	Zuek	ZAŔAIZTE
Berak	DAUTZA	Berak	DAŔAIZ

JOKO IRAGANKOŔAREN ADIZKIÑAK

	IRUDI		JARDUN
Nik	-T	Nik	-T
Zuk	-ZU	Zuk	-ZU
Berak	---	Berak	---
	D- -IRUDI-		D- -IARDU-
Guk	-GU	Guk	-GU
Zuek	-ZU- -TE	Zuek	-ZU- -TE
Berak	----- -TE	Berak	----- -TE

JOKO ARTZAĿEAREN ADIZKIÑAK

	EGOKI		IRITZI
Niri	-T	Niri	-T
Zuri	-ZU	Zuri	-ZU
Berari	-O	Berari	-O
	D- a) -GOKI-		D- e) -RITZA(I)-
Guri	-GU	Guri	-GU
Zuei	-ZU-(T)E	Zuei	-ZU-(T)E
Berai	-E	Berai	-E

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, artzaĿe zentzuna duten izenordeak agertzen dira; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, bayeztean eta ezeztean bakoitza, irugaŕen notiñen adi-yabeak dagoz jaŕita. Alkaŕi da gozkion «Almenera»'zko ta «Eziñera»'zko Ustekizun'aren Lenaldiko adizkiñak ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Adi-yabea	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Bera (bai) :	Al balekit	...	...	...	al balekizue	...
Bera (ez) :	...	...	ezin balekio	...	...	ezin balekie
Berak (bai) :	...	al balekizkizu	...	al balekizkigu	...	...
Berak (ez) :	Ezin balekizkit	...	...	...	ezin balekizkizue	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan, Oraiñaldi ta Lenaldi'ko artzaĿe-adizkiñak ipintzen ditugu; bi aldi oyetakoak alkaŕi buruz aldatu beaŕ dira: Oraiñaldi'koak Lenaldi'koen bidez eta alderantziz, Lenaldi'koak Oraiñaldi'koen bitartez; Almenera'zko ta Eziñera'zko Ustekizun'aren erak diralarik :

Beso au *igitu al badakit*, uste dut ongi ibiĿiko naizela; ... - Idaztiak ondo *ipiñi ezin balekizkizu*, lan geyago gero zuretzat; ... - Asto ori *etzin al badakio*, eztakit nola ibiĿiko dan auŕeruntz joateko; ... - Ez geneukana *eskatu ezin balekigu*, pakean utziko ginduzkete; ... - Zuen ayeŕak *kendu al badakizkizue*, askoz obeki bizi-izango zerate; ... - Erosi nai dutena *erakutsi al badakie*, uste dut bereala erosiko dutela; ... - Ikaskai zail oyek obeto *azaldu ezin balekizkit*, enituke iñoiz ikasiko; ... - Zu eŕudun zerala *egiztu al badakizu*, gaizki ibiĿiko zera; ... - Bere ikasleak ordu-orduan *aurkeztu ezin balekizkio*, bere ikastaldia berandu amaituko luke; ... - Gure adiskideak ustekabean *il al badakizkigu*, gure naigabea ezta izango txikia; ... - Ule geyago *sortu al balekizue*, zuen burua egokiago oŕaztu zenezakete; .... - Beren umeak beaŕ dan baño lenago *esnatu al balekizkie*, beren lana obeto amaituko lukete; ...

3. Emen agertzen diran galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Emen datzan gizona bizi-izango balitz, eztakit gurekin etoŕiko litzaken : Nork eztaki berarekin etoŕiko litzaken, oŕ datzan gizon ori bizi-izango balitz?; ... - Zer eztakizu, an datzan gizon ura bizi-izango balitz?; ... - Guk al dakigu, emen datzan gizona bizi-izango balitz, gurekin etoŕiko litzaken?; Ez, zuek ere ez ... -- Ijitoak dirudizute oŕen soñeko zarpailtsu oŕekaz : Nork dirudi ijitoa oŕen soñeko zarpailtsu oŕekaz?; ... - Zer dirudigu onen soñeko zarpailtsu onekaz?; ... - Zure auŕak ere ijitoak al dirudite, oŕen soñeko zarpailtsu oŕekaz?; Bai, ... ere ...-- Zer deritzaizu, esate baterako, agureai dei-egin dizayegula laŕe oyetako belaŕ guztia moztu dizaiguten?; oso ondo deritzait agureai dei-egin dizayezutela, laŕe oyetako belaŕ guztia moztu dizaizueten : Nortzuei dei-egingo diezu laŕe oyetako belaŕ guzia moztu dizaizuten?; ... -

Nori deritzayo ondo laŕe oyetako belaŕ guzia moztu dizayoten, agureai dei-egin dizayedala?; ... - Zuei ere ondo al deritzaizue, laŕe oyetako belaŕ guzia moztu dizaiguten, agureai dei-egin dizayegula?; Bai, guri ere ... -- Uŕeratu ezin balekizkizue, eroak bezela suminduko lirake: Nor suminduko litzake eroa bezela, uŕeratu ezin balekigu?; ... - Ezezagun ori ere eroa bezela suminduko al litzake, uŕeratu ezin balekizu?; ... - Zuen adiskide ayek ere eroak bezela suminduko al lirake, uŕeratu ezin balekizkit?; Oŕela uste dugu, gure adiskide ... -- Bidean nekatu al balekizkigu, ez genituke gurekin eramango: Nor etzenukete zuekin eramango, bidean nekatu al balekizue?; ... - Zure auŕak zurekin eramango al zenituke, bidean nekatu al balekizkizu?; ... - Beren ikasleak eramango al lituzkete berenekin, bidean nekatu al balekizkie?; Ez, oyek ere ... -- Baba ayek ongi egosi ezin badakizkizu, bota ezaizkiezu zeŕiai ia berak jaten dituzten: Zeintzuei botako dizkiet baba ayek, ongi egosi ezin badakizkit?; ... - Zer bota beaŕ diegu zeŕiai ongi egosi ezin badakigu?; ... - Nekazari ayek ere, baba ayek egosi ezin balekizkie, zeŕiai bota beaŕ-izango al dizkiete?; Bai, ayek ere ... -- Izan ere, sarbideak lortu ezin badizaizkizuete, kalean geratu beaŕ-izango duzute: Nork geratu beaŕ-izango du kalean, izan ere, sarbideak lortu ezin badizaizkiote?; ... - Izan ere, zer dala-ta kalean geratu beaŕ-izango dugu?; ... - Nik ere kalean geratu beaŕ-izango al dut, sarbideak lortu ezin badizaizkidate?; Ez, ..., baño. -- Egun auetan duzun estulak geyegi dirudi: Zerk dirudi geyegi?; ... - Guk egun auetan dugun estulak ere geyegi al dirudi?; ... Eta ume ayek egun auetan duten estulak ere geyegi al dirudi?; Ez, ... baizik. -- Unai oyek atsik artu eziñik daŕaiz: Nor daŕai atsik artu eziñik?; ... Zu ere atsik artu eziñik al zaŕaiz?; ... - Nola daŕaiz unai oyek?; ... -- Aroztegi-lanetan egun guzian diardugu: Nortzuek diardute aroztegi-lanetan egun guzian?; ... - Nola diardu oŕek egun guzian?; ... - Zuk ere egun guzian aroztegi-lanetan al diarduzu?; Ez, ... baizik. -- Emen dautza garaiz beren burua zentzatu al-izan etzutenak: Nor datza emen?; ... - Nun dautza garaiz beren burua zentzatu al-izan etzutenak?; ... - Zuek al zautzate emen-; Ez, ... baizik. -- Ez deritzait ondo ikaztegi ortan ainbeste lanegin dezazutela: Nori ez deritzayo ondo ikaztegi ortan ainbeste lanegin dezadala?; ... - Zer ez deritzaizu ondo?; ... - Zuei ondo al deritzaizue ikaztegi ortan ainbeste lanegin dezagula?; Ez, guri ere ... -- Uste dugu toki ori ez dagokizula, zuretzat goituegia da: Nork uste du toki ori ez dagokidala, niretzat goituegia dalako?; ... - Nortzuei ez dagozkie toki oyek, berentzat goituegiak diralako?; ... -

Zuk uste al duzu toki ori ez dagokiola, berarentzat goituegia dalako?; Bai, nik ... -- Gure iritziai itsatsita gaŕaiz, oso egokiak deritzaizkigulako: Nor daŕai bere iritziai itsatsita oso egokiak deritzaizkiolako?; ... - Zergatik zaŕaizte zuen iritziai itsatsita?; ... - Agure ayek ere beren iritziai itsatsita al daŕaiz, oso egokiak deritzaizkielako?; Bai, agure ayek ere ... -- Zuen auenak amaitu ezin balekizkizue, txepelak izango ziñakete: Nor izango litzake txepela, bere auenak amaitu ezin balekizkio?; ... - Zer izango giñake gure auenak amaitu ezin balekizkigu?; ... - Ni ere txepela izango al nintzake, nire auenak amaitu ezin balekizkit?; Bai, zu ere ...

4. Emen ematen dugun idazkia irakurtzekoa da; ta gero, euzko-elertiari buruz bakoitzaren iritzia eman beaŕ da, idazkian agertzen diran asmoak erabiltzean, eta olerkarien izenak gogoratuz:

«EUZKO-OLERKIAK»

«1930'gaŕenean argitaratu zan «Euzko-Olerkiak» izeneko ale panpoxaen lenengoari, Aitzol'ek itzauŕe jori au ipiñi zion: «Oraingoan, euzkaldunak gure izkera apaindu eta aberastu beaŕean gera. Euzko-olertia oparotsuenetakoa ez bada ere, ez da askok uste lezaketen bezin argal eta makala. Euzkaltzaleak, alaz guztiz, gure elertiari mendu gazteak txertatuaz sendotu nai-izango lukete. Ortarako biderik egokiena, ordea, olerti gayari eragitea zaigu. Goitaŕ indaŕ meea, almen-biotzetan, darabilkiten gazte azkaŕak bai baititugu. Gure sorteŕian olerkariak, eta ugaritsu, ale mardulak bezela, sortzen ezpadira, euzkera loretsu, kemen biziz indartua ta euzkaldunen ezpaiñetan iŕibaŕ antzera ikusi beaŕean, oraindik argal eta beartsu luzaroan aurkituko degu. Olerki oparo-ugaritsu gabe euzkera ez da ernaituko, iñungo izkerarik olerti-neurtzitik gabe geratu ta sendotu ez dan bezela. Ele apain, bigun, biuŕi, irudiz eŕez, adiz sakona, idazleen lumetatik, aizetsu ta leun ixurtzeko, euzkerari beste biderik ez dagokio. Izkera-langile beaŕenekoek, olerkaŕiak dira. Oyek ele gogoŕ eta gordiña, olaetan burni goria meetzen duten eran, bizkortu ta gozotzen dute; oyek irudi biziz, asmaketa zoŕotzaz, eta ametsereduz aberastutzen dute; oyek itz-joskera beŕi-aŕigaŕiak sumatzen dituzte. Idazleak aisago ta eŕezago ibiili ditezen, olerkariak, erdikaldi nekeak igarota, buru-auste goŕiak ikusita, izkeraren bide zabalak idekitzen dituzte».

««Euskaltzaleak» elkarte nekagaitzak antolatuta, zazpi Olerki-Egun ospatu ziran, txit gogoangaŕiak noski. 1930'gn., Eŕenderi'n, Lauaxeta'ren «Maitale kutuna» sariztaturik. 1931'gn., Tolosa'n, Lizardi'ren «Urte-giroak ene begian» sariztaturik. 1932'gn. Ernani'n, Loramendi'ren «Baŕuntza leyoan» sariturik. 1933'gn. Uŕetxua'n, Etxebeŕia'taŕ Pantzeska'ren «Bost Lore» sariturik. 1934'gn. Zarautz'en, Zaitegi'ren «Tori nire edontzia» sariturik. 1935'gn. Bedoña'n, L. Jauregi'ren «Maite Opari» saritua. 1936'gn. Lekeitio'n, J. Otamendi'k zilaŕezko aritz-abaŕa irabazi bere «Giza-adiñak» olerkiaz».

«Olerti 1980» (8-9'gn. Oŕialdeetan) Onaindia Aita

EUN ETA OGETAMAZORTZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

LENALDIA

JOKO IRAGANGAITZAREN ADIZKIÑAK

	ETZAN		JAŔAI
Ni	NENTZAN	Ni	NEŔAYEN
Zu	ZEUNTZAN	Zu	ZENEŔAIZEN
Bera	ZETZAN	Bera	ZEŔAYEN
Gu	GEUNTZAN	Gu	GENEŔAIZEN
Zuek	ZEUNTZATEN	Zuek	ZENEŔAIZTEN
Berak	ZEUTZAN	Berak	ZEŔAIZTEN

JOKO IRAGANKOŔAREN ADIZKIÑAK

	IRUDI		JARDUN
Nik	N-	Nik	N-
Zuk	Z-e-N-	Zuk	Z-e-N-
Berak	Z- -IRUDI- e) -N	Berak	Z- -IARDU- e) -N
Guk	G-e-N-	Guk	G-e-N-
Zuek	Z-e-N- -TE-	Zuek	Z-e-N- -TE-
Berak	Z- -TE-	Berak	Z- -TE-

JOKO ARTZAĒEAREN ADIZKIÑAK

	EGOKI		IRITZI
Niri	-Da-	Niri	-Da-
Zuri	-ZU-	Zuri	-ZU-
Berari	-O-	Berari	-O-
	Z- e) -GOKI- -N		Z- e) -RITZA(I)- -N
Guri	-GU-	Guri	-GU-
Zuei	-ZU-(T)E-	Zuei	-ZU-(T)E-
Berai	-E-	Berai	-E-

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, adi-yabeak adierazten dituzten izenordeak agertzen dira; ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, Oraiñal-

dian eta Lenaldian bildurik jokatu beaŕ diran ETZAN eta JAŔAI aditzak; eta aditz auei dagozkien erak ipiñi beaŕ dira, adi-yabe bakoitzaren berea noski; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Aditzak	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Etzan (orain.) :	Natza	...	...	...	zautzate	...
Jaŕai (orain.) :	...	zaŕaiz	...	...	...	daŕaiz
Etzan (lenal.) :	...	...	zetzan	geuntzan	...	...
Jaŕai (lenal.) :	...	zeneŕaizen	...	...	...	zeŕaizten

2. Bigaŕen eginkizun ontan, Etzan eta Jaŕai aditzaen aditzerak daramazkiten esakuntzak jartzen ditugu; batzuk oraiñaldian eta besteak lenaldian; eta bi aldi oyetakoak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak; beste eginkizunetan bezela, kulatzen ordez esatean eta idaztean:

Ementxe *natza* egunero oñazez beterik; ... - Nola *zeuntzan* zikinkeri oyen gañean?; ... - Etxe ortan *datzan* gizona aspaldiko gure adiskidea da; ... - Egokera txaŕ artan *geuntzan* aspaldi ezkero; ... - Orain *zautzaten* oean, zoritxaŕez, luzaroan egon beaŕ-izango duzute; ... - Nai ezpazuten ere, garo ayetan *zeutzan* gizajo ayek jeiki eziñik; ... - Nire bidean barna *neŕayen* nekatu gabe; ... - Zure bizi txaŕean *zaŕaiz*, eta oŕela gaizki ibiīliko zera; ... - Eŕen ura ozta-ozta *zeŕayen* ondo xamaŕ, baña auŕeratu eziñean; ... - Zuen zai *gaŕaiz*, txango ortara zuekin joan nai baitugu; ... - Amor-egin nai gabe *zeneŕaizten* setaz beterik; ... - Gaur ere atzoko ijitoak *daŕaiz*, emendik alde-egin nai ez dutelako.

3. Oitura dugun lez uŕengo galderai erantzun bana eman, esaten eta idazten:

Gure etsai aundiena izan zana, iīobi otz artan zeŕayen: Nortzuk zeŕaizten iīobi otz artan?; ... - Nun zeŕayen zuen etsai aundiena izan zana?; ... - Zuen adiskideak al zeŕaizten iīobi otz artan?; Ez, ... baño. -- Batera, artzaingoan eta ikazkintzan ziarduten: Nork ziarduen batera artzaingoan eta ikazkintzan?; ... - Zuk al zeniarduen batera artzaingoan eta ikazkintzan?; ... - Guk al geniarduen batera artzaingoan eta ikazkintzan?; Ez, zuek ez ... -- Bada-ezpada ez ezayezute ezer esan, beren umeak guri bialtzea otu ez dakien: Nortzuei ez diegu ezer esan beaŕ, beren umeak zuei bialtzea otu ez dakien?; ... - Zertarako ez diet nik ezer esan beaŕ?; ... - Guri ere ez al digute ezer esan beaŕ, gure umeak

berai bialtzea otu ez dakigun?; Bai, zuei ere ... -- An zeutzan bedaŕ ezean: Nor zetzan bedaŕ ezean?; ... - Nun zeuntzaten zuek?; ... - Ni ere bedaŕ ezean al nentzan?; Ez, ... baizik. -- Ez dagokizue nai duzuten ori egitea: Nortzuei ez dagokie nai duten ori egitea?; ... - Zer ez dagokigu egitea?; ... - Zuri al dagokizu nai duzun ori egitea?; Ez, niri ere ... -- An orduan aurkitu ezin banintzazute, agian ni joango nintzake zuen biīa: Nor joango litzake nire biīa agian, an orduan aurkitu ezin banintza?; ... - Noren biīa joango ziñake agian, an orduan aurkitu ezin bazeneza?; ... - Gu ere zuen biīa joango al giñan agian, an orduan aurkitu ezin bazintzategu?; Bai uste dugu, zuek ere ... -- Nunbait bildu zituzten orbel eta garoa metatu ezin lizaizkiguketela esan ziguten: Nork esan zizuen nunbait bildu zituen orbel eta garoa metatu ezin lizaizkizuekela?; ... - Zer esan zizueten ayek?; ... - Guk esan al genizuen, nunbait bildu genituen orbel eta garoa metatu ezin genizaizkizuekela?; Ez, ... baño. -- Orduan, adorerik gabe, iīak bezela ziruditen: Nork zirudien orduan adorerik gabe, iīa bezela?; ... - Zer nirudien nik orduan?; ... - Gu ere orduan, adorerik gabe, iīak bezela al genirudien?; Ez, ... baizik. -- Zuen erakundeetan kemenez beterik zeneŕaizten: Nor zeŕayen bere erakundeetan kemenez beterik?; ... - Nola geneŕaizen gure erakundeetan?; ... - Agintari ayek ere beren erakundeetan kemenez beterik al zeŕaizten?; Bai, ... -- Eraiīe uzu aren gorputz aundia bazteŕ artan arnas-gabe zetzan: Noren gorputz aundia zetzan arnas-gabe bazteŕ artan?; ... - Eraiīe uzu ayen gorputz aundiak ere bazteŕ artan arnas-gabe al zeutzan?; ... - Nun zetzan eraiīe uzu aren gorputz aundia arnas-gabe?; ... --Ez zeritzaigun ondo abiadura arezaz egitea: Nori ez zeritzayon ondo abiadura arezaz egitea?; ... - Zer ez zeritzaizuen ondo?; ... - Niri al zeritzaidan ondo abiadura arezaz egitea?; Ez, zuri ere ... -- Erakaŕi ezin banintzazute, zuen alderdikoa izateko, eŕua zuena izango litzake: Noren eŕua izango litzake, gure alderdikoa izateko erakaŕi ezin bazintzagu?; ... - Gure eŕua izango al litzake, gure alderdikoak izateko erakaŕi ezin bazintzategu?; ... Zure eŕua izango al litzake, zure alderdikoa izateko erakaŕi ezin banintzazu?; Orixe uste dut nik, ... -- Ez zeritzaigun bidezkoa jakintsu ayek beren egokeran jaŕaitu zitezela: Nori ez zeritzayon bidezkoa jakintsu ayek beren egokeran jaŕaitu zitezela?; ... - Zer ez zeritzaidan bidezkoa?; ... - Guri bidezkoa al zeritzaigun zuek zuen egokeran jaŕaitu zindeztela?; Bai, zuei ... -- Egikera ortaz iñoiz ezin lagundu zintzakegu: Nor ezin lagun zenezakete iñoiz, egikera ortaz?; ... - Noiz ezin lagundu zintzateket egikera ortaz?; ... -

Ni lagundu al nintzakezute iñoiz egikera ontaz?; Ez, zu ere ... -- Zure kemenak makaldu al balekizkizu, egokera auengaŕian egotera eldu zindezke: Nor eldu liteke egokera auengaŕian egotera bere kemenak makaldu al balekizkio?; ... - Nora eldu litezke oyek beren kemenak makaldu al balekizkie?; ... - Ni ere egokera auengaŕian egotera eldu al nindeke nire kemenak makaldu al balekizkit?; Bai, zu ere ...

4. Bertso auek ongi irakuŕi beaŕ dira; ta gero, bertso auen neuŕia zein dan esan beaŕ da, ots, zenbat izkiñekoetaz ote diran, eta oŕengatik zer izena ematen zayen neuŕi ortakoai; bai ta ikuŕiña zer dan, bere margoek zer adierazten duten eta euzkal-ikuŕiña euzkaldunentzat zer esan nai duen ere:

«IKUŔIÑA»

«Ikuŕiña!
Euzkal-biotz ituŕ-miña,
odol goŕiaz egiña,
zenbatez edeŕago zu
seme zintzoak bagiña!
Ikuŕiña!

Ikuŕiña!
Gurutz zuriaz egiña,
gudarien estaliña!
Bildu gaitzazu azpian
biar eriotz bagiña!
Ikuŕiña!

Ikuŕiña!
Gurutz orlegiz egiña,
gure luŕa da berdiña,
Berak erne zun euzkera;
zure bizitz barne-muiña!
Ikuŕiña!

Ikuŕiña!
Gure Eŕi'aren adiña
izan zaitez, ikuŕiña,
azkatasuna zaintzeko
zu bai-zerade egiña!
Ikuŕiña!».

«Olerti 1980» (78-9'gn. oŕialdeetan) «Uxola».

EUN ETA OGETAEMERETZIGAŔEN IKASKAYA

-KETA atzizkia.

Atzizki onek zentzun auek ditu (geyenak Azkue'ren Iztegi ta «Morfolojia»'tik artuta):

a) «Zerbaiten biīa»; ta ontan, batzuetan -N izkia erantsita darama.

E. b.: Ur*keta* = ur biīa; Bioz*keta* = biotzen biīa; Aŕi*ketan* = aŕien biīa, edo aŕiak ekartzen; Egur*keta* = eguŕ biīa.

b) «Egipen», «egintza».

E. b.: Baŕi*keta*, Beŕi*keta* = solasaldia; Oŕaz*keta* = oŕazteko egintza; Bioz*keta* = samintasun, biozmin; Ele*keta* = izketa; Eros*keta* = erospena; Leun*keta* = pereka; Oar*keta* = oarpena; Sala*keta* = salakuntza; Zezen*keta* = zezen-jolas; Zoz*keta* = zotz-egitea.

Ontan ere, -N atzizkia darama; ta lengoan eta ontan, oŕela eratutako itzek -TEN beste atzizkiaz eratutako aditzen zentzuna artzen du (1).

E. b.: Maīu*ketan* = maīuka*tzen*; Indar*ketan* = indaŕak egi*ten*; Layaŕ*ketan* = layatzen; Asaŕe*ketan* = asaŕe*tzen*.

d) «Laguntalde, ozte, samalda».

E. b.: Jende*keta* = giza-pilo; Aŕai*keta* = aŕai-saldoa; Bei*keta*, Beor*keta*, Ardi*keta* = bei-talde, beoŕ-talde, ardi-talde.

e) Ostagiak adierazteko ere erabiltzen da.

Onela: Aize*keta* = aize-buŕunba; Euri*keta* = euri-ajasa; Aŕi*keta* = abazuza, ageta; Elur*keta* = edurte; Idor*keta* = legorte; Izoz*keta* = izozte.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, adi-yabeak adierazten dituzten izenordeak ipintzen ditugu; ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, Oraiñal-

(1) Ikusi: 49, 127'gn. ikaskayak.

dian eta Lenaldian jokatu beaŕ diran IRUDI ta JARDUN aditzak agertzen dira; eta aditz auen erak dira jaŕi beaŕ diranak, izenordeai dagozkienak noski; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Aditzak	Nik	Zuk	Berak	Guk	Zuek	Berak
Irudi (orain.) :	...	dirudizu	...	dirudigu	...	...
Jardun (orain.) :	diardut	...	...	...	...	diardute
Irudi (lenal.) :	...	...	zirudien	...	zeniruditen	...
Jardun (lenal.) :	...	zeniarduen	...	geniarduen	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan, Irudi ta Jardun aditzen aditzerak daramazkiten esakuntzak ematen ditugu; batzuk oraiñaldian eta besteak lenaldian; eta bi aldi oyetakoak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak; besteetan bezela, kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Ziuŕ egon zaitezkete, nik ez *dirudit* ayek esan dutena; ... - Zertan *zeniarduen* lantegi artan?; ... - Eztakit zer *dirudien* soñeko oŕezaz; ... - Egun guzietan lan neketsu artan *geniarduen*; ... - Ez da eŕaz esatea zuek *dirudizutena*; ... - Aitzurketan *ziarduten* nekazari ayek jo ta ke; ... - Nire lana betetzen *niarduen* goiz-goiztik beti; ... - Oso eri zagozela *dirudizu* margo txaŕ oŕezaz; ... - Artzain arek jaizten *ziarduen* goiko saroyan; ... - Geuk gerana *dirudigu* unealdi guzietan, gure ustez; ... - Zergatik *zeniarduten* egikizun lotsagaŕi ayetan?; ... Iratxoak *dirudite* ibilkera arin ortaz; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, oitura dugunez; kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Urkoaz geyegi mintzatzean ziarduela zeritzaigun : Nori zeritzayon urkoaz geyegi mintzatzean ziarduela?; ... - Zer zeritzaizuen?; ... - Zuri al zeritzaizun urkoaz geyegi mintzatzean geniarduela?; Bai, guri ... -- Ez dirudizu igazkoa; argalago ta zurbilago zaude : Nork ez dirudi igazkoa?; ... - Zergatik ez dirudit igazkoa?; ... - Oyek al dirudite igazkoak?: Ez, oyek ere ... -- Ez zegokidan langile gazte ayei itzegitea; egokiagoa izango da zuk oarketa batzuk egin dizaizkiezula : Nori ez zegokion langile gazte ayei itzegitea?; ... - Zer ez zegokizun?; ... - Zer izango da egokiagoa?; ... -- Bai zera! Ezin ikus nintzakete len, eta orain ere ez naute ikusi al-izango : Nortzuek ezin ikus zintzakete len?; ... - Nor ez dute ikusi al-izango orain ere?; ... - Zuek ikus al gintzakezute len?;

Ez, guk ere ... -- Ez zeritzaigun ala jardetsiko zigula : Nori ez zeritzayon ala jardetsiko ziola?; ... - Zer ez zeritzaizuen?; ... - Niri al zeritzaidan ala jardetsiko zidala?; Ez, zuri ere ... -- Ez ziruditen besteetako berberak; izan ere urteetaz guzia aldatzen da : Nork ez zirudien besteetako berbera?; ... - Zer ez ziruditen ayek?; ... - Zuek al zeniruditen besteetako berberak, urteetaz guzia aldatzen dalarik?; Ez, guk ere ... -- Zuei al dagokizue, era berean, jaŕi zeraten tokian jaŕaitzea?; bai, guri ba-dagokigu, era berean, jaŕi geran tokian jaŕaitzea : Nortzuei dagokie, era berean, jaŕi diran tokian jaŕaitzea?; ... - Zer dagokizue, era berean?; ... - Niri al dagokit, era berean, jaŕi naizen tokian jaŕaitzea?; Ez, ... baño. -- Goizean urketa joan ezin bazindezte, gerok joango giñake : Nortzuk joango lirake goizean urketa, gu joan ezin bagindez?; ... - Nor joango litzake urketa goizean, ni joan ezin banendi?; ... - Zu joango al ziñake goizean urketa, moŕoi ayek joan ezin balitez?; Bai, ni ... -- Bizkortasun arezaz egurgile ayek iñoiz nekatzen etzirala ziruditen : Nork zirudien iñoiz nekatzen etzala, bizkortasun arezaz?; ... - Bizkortasun arezaz zuk al zenirudien iñoiz nekatzen ez ziñala?; ... - Eta guk al genirudien bizkortasun arezaz iñoiz nekatzen ez giñala?; Bai, zuek ere ... -- Nire menpeko nekatuek lipaŕ batean bederen bizkortu al banintzate : obeto egon al zindezke zure menpeko nekatuek lipaŕ batean bederen bizkortu al bazintzate?; ... - Nor egon liteke obeto, bere menpeko nekatuek lipaŕ batean bederen bizkortu al balezate?; ... - Gu ere obeto egon al gindezke, gure menpeko nekatuek lipaŕ batean bederen bizkortu al bagintzate?; Bai, zuek ere ... -- Eztakit ekaŕi zizkizuten zizak erdoitu ote lekizkizuken : Zuek ba al dakizute ekaŕi zizkizueten zizak erdoitu ote lekizkizueken?; ... - Oŕek al daki ekaŕi zizkioten zizak erdoitu ote lekizkioken?; ... - Eta nik al dakit niri ekaŕi zizkidaten zizak erdoitu ote lekizkidaken?; Ez, zuk ere ... -- Beren kemenak gaztetu ezin balekizkio, beren egimen guzia galduko lukete : Nortzuek galduko lukete beren egimen guzia, beren kemenak gaztetu ezin balekizkie?; ... - Zer galduko luke oŕek, bere kemenak gaztetu ezin balekizkio?; ... - Guk ere gure egimen guzia galduko al genuke gure kemenak gaztetu ezin balekizkigu?; Bai, zuek ere ... -- Jendeketa artan ezagutu ezin bagintzazute, joan zaitezte gero ostatura gure bila : Nora joan beaŕ dugu gero zure bila, jendeketa artan ezagutu ezin bazintzagu?; ... - Noren bila joan beaŕ dut gero ostatura jendeketa artan ezagutu ezin baneza?; ... - Zuen bila joan beaŕ al dut gero ostatura, jendeketa artan ezagutu ezin bazintzatet?; Bai, gure bila ... -- An ezagutu zenituen emakume alargu-

nak etziran nekatzen beren beŕiketan: Nortzuk etziran nekatzen beren beŕiketan?; ... - Zertan etzan nekatzen an ezagutu nuen emakume alarguna?; ... - Zuek nekatzen al ziñaten zuen beŕiketan?; Ez, gu ere ... -- Orgari kaskail ayek zapaldu ez nintzaten, asko zearkatu beaŕ-izan nuen: Nork zearkatu beaŕ-izan zuen asko, orgari kaskail ayek zapaldu ez zezaten?; ... - Zer egin beaŕ-izan zenuen, orgari kaskail ayek zapaldu ez zintzaten?; ... - Guk ere asko zearkatu beaŕ-izan al genuen orgari kaskail ayek zapaldu ez gintzaten?; Bai, zuek ere ...

4. Uŕengo zeazketa ondo irakuŕi ondoren, bertan aipatzen diran zeatzak buruz esan eta idatzi beaŕ dira, norberak oyekiko aal duena gañeratzean:

«GURE IZARBELA SORKALDIAN»

«Miīaka urte ditu gizadiak Ludi'an. Geroztik, Izadi'ari begira aŕiturik dago, gordairu bizia baita; aurpegi maitagaŕia agertzen du batzuetan, bildurgaŕia besteetan.

Bizi-beaŕak galbide-zale egiten ditu lendabiziko gizakiak. Izadi'aren toki edeŕ eta zabaletan zeaŕ dabiltza, ara ta onera, eten gabe. Alako batean, an edo emen, bizi-tokiak antolatzen asten dira. Abere asko arkitzen dituzte non-nai ta landareak ere bai. Eiztari ausartak dira; aŕantzale trebeak. Oŕengatik, asierako gizakiak ur-ertzetan bizi oi ziran; aintziraen edo ibayen ondoan, alegia. Zelai aundietan baŕena ibiltzen zaleak ziran, zer ikusiko, eta basa-beltzetan auŕera sartzen ere, bai ausarki zer bīlatuko. Eizean edo beste gizakien igesi zebiltzanean, arkaitzetan gora igo ta aitzuloetan babesten ziran. Lendabiziko aldiz itxasoa ikusi zutenean, ura Ludi'aren azkeneko muga zala iruditu zitzayen. Zoragaŕia iruditu zitzayen, noski, itxas-aundiaren muga beltzaŕe au, ari batean bezela, zeru-luŕak alkar jotzen zutela ikustean.

Antziñako gizakiak gure Ludia gurpil bat zala uste zuten, eta, onen inguru-marian, jira-biraka zebīlela izartegi guzia. Erdi-aro'an ere, oraindik, alaxe uste zuten. Gaur ba-dakigu Ludia ia borobīla dala; azaletik biotzera 6.350 aneurkin dauzkala. Biotza metalezkoa du, metal-salda astunekoa. Biotz ori estalki lodi batean bildua dago, 2.900 aneurkin lodikoa. Lurbirak aundia dala ematen du, baña, sorkaridiaren ondoan, utza besterik ezta, aletxo bat; beste zortzi bere antzekoakin batean izaŕ baten biran dabīlena: Eguzki'aren biran.

Gure lurbirak ibīli bikoitza dauka; bere ardatzaren biran bat; batetik bestera ibiltzen bestea. Gu ere oŕ gabiltza lurbirarekin batera, baña ez gera bat ere oartzen; txikiegiak baikera, ta batez ere, ariñegiak gure zentzunak, tokiz-aldatu oyetaz oartzeko. Ibīli bikoitza du, beraz, lurbirak: 365 egun beaŕ ditu eguzkiaren inguruan bira bakoitza emaiten; eta 24 ordu bere ardatzaren inguruan. Bere ardatzaren biran ibiltze onek, txandan-txandan, bere alderdi guziak, orain eguzkiaren argitan eta ondoren ilunpetan jartzen dizkio: eguna ta gaua».

«Izadiaren ludia» (6'gn. Oŕialdean) Doŕonsoro'taŕ Lukas, Lekuona'taŕ Manuel euskaltzain buruaren ardurapean.

EUN ETA BEŔOGEIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ADITZ IRAGANGAITZEN ADITZ-JOKO BILDUA
-KI- ERDIZKI ARTZAĪEAREKIN

Len ikusitako 31 eta 127'gaŕen ikaskayetan esan genuena gogoratzean, ots, -KI- erdizkiak, aditzen adizkiñetan agertzen danean, aditz-eŕoa ta zeaŕ-betetzekoa alkartzen dituela, aditz iragangaitzen era bilduetan ezartzen badugu, ta -T, -ZU, -O, -GU, -ZU(T)E, -E amayera ezagunak gañeratzen baditugu, ain zuzen, erdizki oŕekin artzaīle-asmoa betetzen dutenak, beste era iragangaitzak egingo ditugu, beteagoak eta asko erabiltzen diranak, batez ere IKAKO aditz-jokoan; eta oŕela, aditzaren asmoa, adi-yabearena eztan beste notiñari buruz egiña bezela agertzen da.

E. b.: NATOŔ aditzeratik, NATOR*KIZU* dagigu = ni zugana natoŕ (zu zagozen tokira esango baigenuen).

ZABILTZ aditzeratik, ZABIL*ZKIT* dagigu = zu nigana zabiltz (ni nagoen tokira esango baigenuen).

Orotarako adibidez, aditz guziai dagokielarik, ETOŔI aditzaren erak ipiñiko ditugu emen:

TINKIERA'ZKO ORAIÑALDIA

		NI			GU
		-ZU			-ZU
		-O			-O
NATOR-	-KI-	-ZU-(T)E	GATO(R)Z-	-KI-	-ZU-(T)E
		-E			-E
		ZU			ZUEK
		-T			-Da-
		-O			-O-
ZATO(R)Z-	-KI-	-GU	ZATO(R)Z-	-KI-	-TE
		-E			-GU-
					-E

		BERA			BERAK
		-T			-T
		-ZU			-ZU
		-O			-O
DATOR-	-KI-	-GU	DATO(R)Z-	-KI-	-GU
		-ZU-(T)E			-ZU-(T)E
		-E			-E

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, lenengo leŕoan, izenorde artzaīleak agertzen dira; ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, Oraiñaldian eta Lenaldian jokatu beaŕ diran EGOKI ta IRITZI aditzak ipintzen ditugu; ta aditz auen erak dira jaŕi beaŕ diranak, izenordeai dagozkienak noski; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Aditzak		Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Egoki (orain.)	:	Dagokit	...	dagokio	...	...	...
Iritzi (orain.)	:	...	deritzaizu	...	...	...	deritzaye
Egoki (lenal.)	:	Zegokidan	...	...	...	zegokizuen	...
Iritzi (lenal.)	:	...	...	...	zeritzaigun	...	zeritzayen

2. Bigaŕen eginkizun ontan, Egoki ta Iritzi aditzen aditzerak daramazkiten esakuntzak jartzen ditugu; batzuk oraiñaldian eta besteak lenaldian; eta bi aldi oyetakoak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak; beti bezela, kulatzen ordez, esanez eta idatziz:

Niri ez *dagokit* arazo oyetan yardutea; ... - Ez didazu esan abeslari ospetsu ura zer *zeritzaizun*; ... - Emengo endoreari *dagokio* eŕiko bizia zuzentzea; ... - Oso ondo *zeritzaigun* zuen auŕak ikastetxe artara eramatea; ... - Uste al duzute zuei *dagokizuela* egokera ortan erabakitzea?; ... - Gure gurasoai oso gaizki *zeritzayen* oitura txaŕ ayetan murgildurik ari-izatea; ... - Ez zuten oyek ontzat artu orduan niri *zeritzaidana*; ... - Oŕ agintzea zuri ba*dagokizu*, egin zazu lenbailen egin beaŕ dana; ... - Gure irakasleari *zeritzayona* geron aldetik onartu beaŕ genuen; ... - Zer diñozu, gizona, atso oyek sorostea guri *dagokigu*la?; ... - Egokia al *zeri-*

tzaizuen an zegiten dantza ero ura?; ... - Orko lekaideai *dagokie* beren elizan bildu dan ukaŕ guztia; ...

3. Gure ikaskayetan oitura dugunez, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Zuregana natorkizunean, edozertarako gerturik aurkitu nai zaitut beti: Nor aurkitu nai duzu beti gerturik, nigana zatozkidanean?; ... - Gu ere beti edozertarako gerturik aurkitu nai al gaituzu, guregana zatozkigunean?; ... - Oyek ere beti edozertarako gerturik aurkitu nai al dituzute berengana zatozkietenean?; Bai. ... -- Obeto egon al bazindezte, etziñakete, ziuŕ, egurketan ibīliko: Nor elitzake, ziuŕ, egurketan ibīliko, obeto egon al baledi?; ... - Nola enintzake, ziuŕ, ibīliko, obeto egon al banendi?; ... - Agure ayek egurketan ibīliko al lirake, obeto egon al balitez?; Ez, ... ere ... -- Ontaz edo artaz, egun guzian asaŕeketan ziarduten: Nortzuk ziarduten, ontaz edo artaz, egun guzian asaŕeketan?; ... - Zu al zeniarduen, ontaz edo artaz, egun guzian asaŕeketan?; ... - Eta gu al geniarduen, ontaz edo artaz, egun guzian asaŕeketan?; Ez, ... baño. -- Egiaz, ez zenirudien beti izan oi zeran gazte sorayoa; zer zala-ta?: Nork ez zirudien, egiaz, beti izan oi dan gazte sorayoa?; ... - Zer ez nirudien egiaz?; ... - Zuek, egiaz, al zeniruditen orduan, beti izan zeraten gazte sorayoak?; Ez, guk ere ... -- Zergatik zoazkit nire ondotik oŕen naigabetsu ta itun?; ongi ulertzen ez nauzulako noakizu zure ondotik onela: Nor doakit nire ondotik naigabetsu ta itun ongi ulertzen ez dudalako?; ... - Nortzuk al doazkigu gure ondotik oŕen naigabetsu ta itun?; ... - Ni al noakizue zuen ondotik oŕela ongi ulertzen ez nauzutelako?; Egitan, eztakigu zergatik ... -- Eztizut esango mutil biuŕi ayen egipen kaldaŕak zer iritzi zaizkidan: Nori ez diozu esango mutil biuŕi ayen egipen kaldaŕak zer iritzi zaizkizun?; ... - Zer ez dizuegu guk esango?; ... - Zure gurasoek esango al digute mutil biuŕi ayek egipen kaldaŕak zer iritzi zaizkien?; Bai, nire ustez ... -- Ez zegokien berai gure Eŕi'ko gudaroztea antolatzea: Nori ez zegokion zuen Eŕi'ko gudaroztea antolatzea?; ... - Zer ez zegokizuen?; ... - Eta guri al zegokigun gure Eŕi'ko gudaroztea antolatzea?; Bai, zuei ... -- Ez gabilzkizue eŕiz-eŕi txerpolariak bezela: Nortzuk ez dabilzkigu eŕiz-eŕi txerpolariak bezela?; ... - Nola ez zabilzkigute eŕiz-eŕi?; ... - Berak al dabilzkigu eŕiz-eŕi txerpolariak bezela?; Bai, berak... -- Ez al zegokidan, esate baterako, noiz edo noiz, atsedenen bat eukitzea?; bai, gizona, beste edonori bezela atsedenen bat eukitzea zegokizun: Nori zegokion, noiz edo noiz, atsedenen bat eukitzea?; ... - Zer zegokidan niri, noiz edo noiz?; ... - Zuei

al zegokizuen, noiz edo noiz, atsedenen bat eukitzea?; Bai, guri ere ... -- Zeratena baño obeak dirudizute; baña eztut uste iñor atzipetu dezazutela: Nork dirudi dana baño obea?; ... - Zer dirudigu guk?; ... - Zure adizkide ayek al dirudite dirana baño obeak?; Ez, ... baizik. -- Ez natorkizu ezer eman ez dizaidazun: Nor ez datorkit ezer eman ez dizayodan?; ... - Zertarako ez zatozkit?; ... - Ayek al datozkizue ezer eman ez dizayezuten?; Ez, ayek ere ... -- Beti espaka zatozkigute ta guk ezin sorosi zaituztegu: Nor datorkizue beti espaka?; ... - Nork ezin sorosi gaitu?; ... - Gu al gatozkizu beti espaka?; Ez, ... baño. -- Ez goazkizu zuri gaitzik egiteko ariuŕeaz: Nor ez datorkit niri gaitzik egiteko ariuŕeaz?; ... - Nola ez zoazkidate?; ... - Ni al noakizue zuei gaitzik egiteko ariuŕeaz?; Ez dugu uste, ... -- Sapelatzak inguruan dabilzkiete aŕapatzeko gogoaz: Zeintzuk dabilzkiete inguruan aŕapatzeko gogoaz?; ... - Zein gogoaz dabilzkizute sapelatzak?; ... - Ni aŕapatzeko al dabilzkidate sapelatzak?; Ez, zu ... -- Gogoarin oyei gure buruzagien egokera ondo al zeritzayen?; ez, gogoarin oyei ez zeritzayen ondo zuen buruzagien egokera: Nori ez zeritzayon ondo gure buruzagien egokera?; ... - Zer ez zeritzayen ondo gogoarin oyei?; ... - Zuei ondo al zeritzaizuen gure buruzagien egokera?; Bai, guri ...

4. Alkaŕ-izketa au ondo irakuŕi; gero «Santimamiñe» antzeko beste leize batzuen izenak aipatu, bakoitzak ikusi, entzun edo irakuŕi duenez, eta oyetan jakintsuek zer ikusi ta ikasi duten nabari-erazi ere; itzez eta idatziz:

«SANTIMAMIÑE»

— «Mendi beltz ori ikusten al dezu?...

— Galuŕean baseliz zuria duena?...

— Mendiaren izena «Ereñusaŕe» da, ta mendi oŕen egalean «Santimamiñe» leize-zuloa dago...

Artu ninduen aidean, ta izugaŕizko eŕun eraman ninduen Eresuñaŕe mendira. An ikusi nuen leize-zulo aundi bat. Leizearen atakan, lapa ta txirla azalak ugari...

— Zer dira auek? —galdetu nion Galtxa-goŕi'ri.

— Zera... zuen auŕekoak jandakoen aŕastoak... Ez al duzu, oŕ bean, Gernika'ko ibaya ikusten?...

— Bai.

— Ta an, beerago, itxasoa?

— Bai ta.

— Ba, antxe biltzen zituzten lapa ta txirla auek...

— Ta, ortik bizi al ziran?...

— Bai.

— Ta, zer aŕapatzen zuten eizean?

— Pizti ta abereak: zezenak bezela, bisonte, basauntz, zaldi, basurde ta beste asko ere, bai...

— Bisonteak?...

— Bai, bisonteak ere, bai... Orain emen ez dago bisonterik, baña orduan ba-ziran Euzkaleŕi'an...

— Ori, ipuin bat edo da...

— Ipuya?... Etoŕi leize baŕura nerekin...

Sartu ninduen leize-zuloko ilunpe artara. Krisalua piztu zuen eta, baŕu-baŕuan, ezkeŕeko ormatik gora, gela txiki batean sartu giñan biok.

— Enee! Oyek zer dira?...

— Zuen auŕeko Euzkaldun zaaŕak egindako maŕazkiak.

— Zenbat urte ote, egin zituztela?...

— Amabi mila urtetik gora... Ezagutu nituen euzkaldun ayek. Zuen antzekoak ziran...

— Ta, ayek aalmenik ote zuten oŕelako maŕazki egoki ta edeŕak egiteko!?...

— Ala dirudi... Ara emen, aitatutako bisonteak... Ikusten al dituzu?...

— Bisontekin batera, beste abereak ere ikusten ditut. Ara, artza ta basauntza ere...

— Ipuyak al dira?...

«Jainko txikiak» (6-7'gn. oialdeetan) A. Arrinda.

EUN ETA BEŔOGETABATGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ADITZ IRAGANGAITZEN ADITZ-JOKO BILDUA

-KI- ERDIZKI ARTZALEAREKIN

TINKIERA'ZKO LENALDIA

		NI			GU	
NENTOR-	-KI-	-ZU- -O- -ZU-(T)E- -E-	-N	GENTO(R)Z-	-ZU- -O- -ZU-(T)E- -E-	-N
		ZU			ZUEK	
ZENTO(R)Z-	-KI-	-Da- -O- -GU- -E-	-N	ZENTO(R)Z-	-Da- -O- -TE -GU- -E-	-N
		BERA			BERAK	
ZETOR-	-KI-	-Da- -ZU- -O- -GU- -ZU-(T)E- -E-	-N	ZETO(R)Z-	-Da- -ZU- -O- -GU- -ZU-(T)E- -E-	-N

(Ez dira jartzen beste aldietako adizkiñak, oso gutxi erabiltzen diralako; baña beren eratzea arautasun osoaz egiten da, ikasitako beste aditz-jokoetan egiten dirala ikusi dugunez).

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan ETOŔI aditza oraiñaldian jokatzen da, onela: Lenengo leŕoan izenorde artzaleak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitibera-

ko zeŕendan, adi-yabeak diranak; alkaŕi dagozkion erak dira ipiñi beaŕ diranak; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		natorkizu	...		...	natorkie
Zu	Zatozkit		...	zatozkigu		...
Bera	...	...	datorkio	...	datorkizue	...
Gu		gatozkizu	...		...	gatozkie
Zuek	Zatozkidate		...	zatozkigute		...
Berak	...	...	datozkio	...	datozkizue	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan, Egoki ta Iritzi aditzen aditzerak daramazkiten esakuntzak ipintzen ditugu, adi-yabea askaŕ izanik; batzuk oraiñaldian eta besteak lenaldian; eta bi aldi oyetakoak ditugu alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak; oi dugunez, kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Neroni *dagozkit*, ain zuzen, auŕ oyen eralketak; ... - Ondo al *zeritzaizkizun* gizon zakaŕ ayen egikerak?; ... - Eztakigu nori *dagozkion* emengo antolaketak; ... - Oso egokiak *zeritzaizkigun* agintari ayek artu zituzten erabakiak; ... - Ez al *dagozkizue* zuei, ona bialdu dituzten bezuza auek?; ... - Ene ustez, gurasoai *zeritzaizkien* asmoak ziran, gazte ayek onartu beaŕ zituztela; ... - Niri *zeritzaizkidanak*, ordea, iñun etziran aintzakotzat artu; ... - Zuri *dagozkizun* lanak, alik eta ondoenik bete beaŕ dituzu; ... - Nori *zeritzaizkion* txaŕak, guk emandako erantzunak?; ... - Oyetxek dira, oituraz, guri *dagozkigun* eginbeaŕak; ... - Ain txaŕak *zeritzaizkizuen* jokerak, azkenez, egokienak izan ziran; ... - Benetan esaten dizuegu, emakume txaldan oyei itz zentzundun oyek ez *dagozkiela*; ...

3. Emen ere, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esaten eta idaztean :

Egubeŕian zentozkigunean, jai auek pozik eta zoriontsu igaro genitzake : Nork igaro litzake jai auek pozik eta zoriontsu Egubeŕi'an gentozkionean?; ... - Nola igaro zenitzakete jai auek, Egubeŕi'an nentorkizuenean?; ... - Nik ere jai auek pozik eta zoriontsu igaro al nitzake nigana zentozkidanean?; Bai, zuk ere ... -- Ez zegokizuen, aurtxoak bezela, kiriketan jolasten ari-izatea : Nortzuei ez zegokien, aurtxoak bezela, kiriketan jolasten ari-izatea?; ... - Zer ez zegokigun guri?; ... - Niri al zegokidan, aurtxoa bezela, kiriketan jolasten ari-izatea?; Ez, zuri ere ... -- Ez zeritzaidan, oŕela, ain uzuak ziran basati ayekin kidez-kide buŕukatzea al lezaketela : Nori ez zeritzayon, oŕela, ain uzuak ziran basati ayekin, kidez-kide buŕukatzea al zenezaketela?; ... - Zer zeritzaizun zuri?; ... - Zuei al zeritzaizuen, oŕela, ain uzuak ziran basati ayekin, kidez-kide buŕukatzea al genezakela?; Ez, guri ez ... -- Zuen semeak, an, pozaŕen-pozez zebilzkizuen : Nortzuk zebilzkigun, an, pozaŕen-pozez?; ... - Nola zenbilzkidaten zuek an?; ... - Ni ere, an, pozaŕen-pozez al nenbilkizuen?; Bai, zu ere ... -- Bi ordu dira otz ikaragaŕi onezaz zai nagokizuela : Nor dagokigula zai otz ikaragaŕi onezaz bi ordutan?; ... - Zenbat ordutan, otz ikaragaŕi onezaz zai zagozkidatela?; ... - Ni zai al nagokizue bi ordutan otz ikaragaŕi onezaz?; Ez, ... baño. -- Ezer ez zeritzayen ondo; beti upa bete negaŕ zegozen : Nori ez zeritzayon ezer ondo?; ... - Zer ez zeritzaizun ondo?; ... - Guri ezer ondo al zeritzaigun?; Ez, zuei ere ... -- Egunero ginjoazkizuen zuekin jokatzeko : Nortzuk zijoazkizuen egunero zuekin jokatzeko?; ... - Zertarako zinjoazkiguten egunero?; ... - Ni ere egunero al ninjoakizun zurekin jokatzeko?; Ez, ... baizik. -- Zergatik zetozkigun beti, auen berberakaz?; gogaikaŕiak ziralako zetozkizuen beti, auen berberakaz : Nor zetorkizuen beti, auen berberakaz?; ... - Ni al nentorkizuen beti, auen berberakaz?; ... - Nori zetozkion beti, auen berberakaz?; ... -- Kinka artan laŕitasunez beterik zai zegozkizun : Nor zegokidan zai, kinka artan laŕitasunez beterik?; ... - Nola zegozkigun zai, kinka artan?; ... - Gu be, kinka artan, laŕitasunez beterik al gengozkizuen?; Ez, ... -- Egun guzian igitasunez zebilzkien, baña ezer egin gabe : Nor zebilkien egun guzian igitasunez ezer egin gabe?; ... - Nola zebilzkigun egun guzian ezer egin gabe?; ... - Ni al nenbilkizuen igitasunez, egun guzian ezer egin gabe?; Ez, ... baizik. -- Añeneko ura eten gabe biraoka zegokigun : Nor zegogizuen eten gabe biraoka?; ... - Nola zegokizun añeneko ura?; ... - Berai al zegokien añeneko ura eten gabe biraoka?; Ez, ... baizik. -- Nekarazten zenbilzkidaten iteuliak izango baiziñaten : Nor zebilkidan nekarazten iteulia izango bailitzan?; ... - Nola genbilzkizun iteuliak izango baigiñan?; ... - Ni al nenbilkizuen nekarazten iteulia izango bainintzan?; Ez, ... baño. -- Zuzpertzen nagokizue, gelditasun osoa gordetzen : Nor dagokigu zuzpertzen, gelditasun osoa gordetzen?; ... - Nola zagozkigu zuzpertzen?; ... - Zuek zuzpertzen al zagozkigute, gelditasun osoa gordetzen?; Bai, gu ere ... -- Ez zeritzaigun egokia, erabiĭi nai zenuten egikera : Nortzuei ez zeritzayen egokia, erabiĭi nai genuen egikera?; ... - Zer ez zeritzaizuen egokia?; ... - Niri egokia al zeritzaidan erabiĭi nai zuten egikera?; Ez, zuri ere ... -- Ez dirudite ziñez dira-

na; beaŕezkoa da aizuntzat eukitzea: Nork ez dirudi ziñez dana?; ... - Zer ez dirudizute?; ... - Nik al dirudit ziñez naizena?; Ez, zuk ere ...

4. Irakurgaya dan txatal au aŕetaz irakuŕi; gero, bakoitzak ezagutzen dituen zomoŕoen izenak aipatzeko, bai ta bakoitza nun bizi-izaten dan esateko ere; esanez eta idatziz:

«BIZIDUNEN TALDE NAGUSIA»

« «Xomoŕoa» esate utsean miloika bizidunen taldea adierazten zaigu. Xomoŕoak osotzen dute, bizia dutenen talderik aundien eta ugariena. Aŕigaŕia da benetan. Xomoŕoetan arkitzen ditugu eltxo txiki aŕigaŕienak eta mamutzaŕ bildurgaŕienak. Oyek dira izakirik ikusgaŕienak.

Aŕi ta zur egiñak geratzen gera, xomoŕo auen izakera, oiturak eta sena ikustean; ain zoragaŕiak dira! Ba-dirudi beste nunbaiteko izakiak ditugula, edo zeru-sapai zabaleko izaŕetatik, sorgin-indaŕez bezela, etoŕitako abere-txiki-talde bat dala.

Itz egoki ta osozko bat ezin arki genezake, abere kazkaŕ auek zer nolakoak diran esateko. Xomoŕoetan bost bat miloi mota bereizi ba-dirala diñote jakintsuak; izakera ezberdiñeko xomoŕoak alegia. Ikusten danez, aberedia guzira jo ta, lautatik iru xomoŕoak dira.

Nun-nai bizi oi dira xomoŕoak: luŕ gañean, aidean, urtan. Zenbat ote dira? Zenbatzaile elektroniko batek bakaŕik agertu al-izango luke «zenbat» ori. Beste aldetik, beŕiz, xomoŕorik aundienak («Titan» eguŕ-jalea eta «Fasma aundia» esate baterako) ogei zentimetro baño luzeago ez dira. Txikienak, beŕiz, begiratu soilez ikuskaitzak dira.

Aberedi guziko mota edo talderik edeŕen eta apaiñena, xomoŕoena dugu. Txoriak eta loreak ez bezela bereizten dira, alkaŕen artean, aŕ txiki auek, daramazkiten margo edeŕei eskeŕ. Izan ere, margo soilean edo nastuan, mila margo-eraz jantziak, bakoitza berean aberats, agertzen zaizkigu. Basoetako zugaiztiak begi argiz zaindu ezkero, laisteŕ arkituko luke edonork mokotaŕoa esate baterako, gau ilun-urdiñez edo «esmeralda» bera baño orlegi biziagoz apaindua.

Ur geldietan, beŕiz, antxe ditugu urdin, orlegi makal, goŕi bizi edo goŕi-orizko diabru-zaldiak. Xomoŕo auek, diran bezela bizi motzekoak izan beaŕean, azken gabeko iraupena balute, bitxitegirik edeŕenean, aŕi-pitxirik bikañenen erdian lukete beren egon-lekua. Itxas-sakoneko aŕai batzuek bezela argi otzez jantzitako argi-xomoŕoak ere ba-dira.

Xomoŕo egadunen artean, ikŕtu utsez iltzen diran xomoŕoak arkitzen ditugu; ain eten-bera eta il-eŕexak dira!

Xomoŕai begira jaŕita, esan liteke, antzerki eta eres-antzerki-talde bat dala; denetik baitute beren artean: soñu-jole, antz-artzaile, indartsu, saltalari, alkimilari eta aztiak.

Eta zer esan xomoŕo buŕundalaŕietzaz? Oŕ ditugu elbiak, eltxoak, liztoak, erleak, erlabioak; izugaŕizko buŕundara sortzen dute beren egoen dardaraz».

«Xomoŕoen mundua» (8'gn. oŕialdean) Iturbe'taŕ Martin (euzkeratzaile).

(Lekuona'taŕ Imanol'en ardurapean).

EUN ETA BEŔOGETABIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

Auŕeko bi ikaskayetan ageŕerazi dan asmoa bera, joko bildua daukaten aditz iragangaitzai buruz dagokiena, Tinkiera'zko Oraiñaldi ta Lenaldietan batez ere erabiltzen dana, aditz oyen beste aldietarako ta beste aditzen aldi guzietarako ere adierazi diteke, laguntzaīlearen uŕengo era berezien bitartez. Era oyek onela deitzen ditugularik :

ADITZ LAGUNTZAĪEAREN ARTZAĪE-ADIZKIÑAK

Emen ageŕeraziko ditugunetan, bakaŕ eta askaŕean, lenengo ta bigaŕen notiñak adi-yabe bezela agertuko dira; ta oyek beteko dituzte, orain arteko beste ikaskayetan, aldi bakoitzaren azkenean, ikusi ditugun IRUGAŔEN NOTIÑAREN ADI-YABEA DARAMATEN ARTZAĪE--ADIZKIÑAK (1).

«IZAN» ADITZ LAGUNTZAĪEAREN ARTZAĪE-ADIZKIÑAK

TINKIERA - ORAIÑALDIA

Lenengo notiñaren adi-yabea

	Bakaŕ	Askaŕ
Zuri	-ZU	-ZU
Berari	-O	O-
	NATZA- -I-	GATZA- -I- -ZKI-
Zuei	-ZU(T)E	-ZU(T)E
Berai	-E	-E

Bigaŕen notiñaren adi-yabea

	Bakaŕ	Askaŕ
Neri	-T	-T
Berari	--O	-O
	ZATZA- -I-	ZATZA- -I- -ZKI-
Guri	-GU	-GU
Berai	-E	-E

(1) Ikusi: 31, 56, 71, 72, 83, 94, 103, 111, 124, 135 ikaskayak.

Irugaŕen notiñaren adi-yabea

Eztitugu emen jartzen era auek, len, 31'gaŕen ikaskayan ikasi ziranak diralako.

Lengo 31, 127 ta 140'gaŕen ikaskayetan esan zana beŕiz aipatzean, ots, askaŕ-zentzuna daman ZKI itzatalean, egitan, askaŕ-zentzun ori adierazten duena Z izkia dala bakaŕik, ta geratzen dan KI izkiña zeaŕezko edo opakizun-asmoa emateko dalarik, auxe dugu nabaritzeko egokia : Adi-yabe bakaŕa daramaten artzaīe-adizkiñetan, naiz 31'gaŕen ikaskayan ikusi ziranetan naiz ontakoetan, bertan agertzen dan I izkia, benetan, KI izkiñaren ondokiña bide da; beraz, ipiñi ditugun NATZAIZU ..., ZATZAIT ..., ZAYO ..., eraen ordez, len, auek edo izango ziran : NATZA*KI*ZU ..., ZATZA*KI*T ..., ZA*KI*O ...

Oraingo adizkiñak 31'gaŕen ikaskayan ikusi ziranekin erkatzean, auxe oaŕ diteke argi : auek ordukoak berberak dirala esan genezake, N-, G ta Z- izkiak, lenengo ta bigaŕen notiñen adierazleak, auŕetik ipiñi zaizkielarik, *a*) (oraiñaldi-asmoa) ta *t*) alkartzeko izkiak ere gañeratzean. Eta, arazo guzia laburki ageŕerazteko, ikaskai bietako era guziak onelako ERAKUS-BIDE OROKAŔEAN ipiñi ditzakegu :

N- a) t)		-T
Z- a) t)		-ZU
Z-		-O
	-ZA- -I-	
G- a) t)	-Z- -KI-	-GU
Z- a) t)	-Z- -KI-	-ZU-(T)E
Z-	-Z- -KI-	-E

Emen, ezkeŕeko goitiberako zeŕendan agertzen diran izkiak adi-yabea adierazten dute; gero datozen beste izkiak, esandako aldi ta alkartzekoak ditugu; uŕengoan agertzen dan -ZA- izkiña, eŕoa izan diteke; atzetik dagoen -I- izkia, KI izkiñaren ondokiña edo da, askaŕ-notiñetan ken ditekena, geroxeago azaltzen dan KI izkiña bera dalako; berealaxe ipintzen dan -Z- izkiak askaŕ-zentzuna dama; oŕen atzetik jaŕitako -KI-, esan dugun zeaŕ-asmoa daman izkiña da, ta azken zeŕendan, zeaŕ-betetzekoak edo artzaīeak adierazten dituzten azken itzatalak ditugu.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, ETOŔI aditza lenaldian jokatzen da, onela : Lenengo leŕoan, izenorde artzaīeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean,

goitiberako zeŕendan, adi-yabeak diranak; alkaŕi dagozkion erak dira ipiñi beaŕ diranak; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		nentorkizun	...		...	nentorkien
Zu	Zentozkidan		...	zentozkigun		...
Bera	...	...	zetorkion	...	zetorkizuen	...
Gu		gentozkizun	...		...	gentozkien
Zuek	Zentozkidaten		...	zentozkiguten		...
Berak	...	...	zetozkion	...	zetozkizuen	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan, JOAN aditzaren aditzerak daramazkiten esakuntzak jartzen ditugu; batzuk oraiñaldian eta besteak lenaldian; bi aldi oyetakoak dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak; eta kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Ongi dakizunez, beti *noakizu* gogo onenaz; ... - Nola *zinjoazkidan* egun artan ain atsekabeturik?; ... - Jai-egunetan mendira *doakigu* zizaketa; ... - Begirune aundienaz *ginjoazkion* orduan agure arengana; ... - Zuek ez *zoazkiete* zuen gurasoengana oso beaŕa dan apaltasunaz; ... - Iñoiz *ez zijoazkizuen* erabakitako orduetan; ... - Nire irakaslearengana *ninjoakion* nire ikasketan zalantzan nenbīlenean; ... - Zergatik *zoazkit* onen azkaŕ gure bīleratik?; ... - Goiz-goizetik *doakizu* zure semea baratzera; ... - Gure osabaengana *goazkie* beren laguntzaren bīla; ... - Eztakigu zergatik *zinjoazkiguten* gabaz kalez-kale; ... - Enparantzan auŕ guztiak *doazkizue* zuen gozokiak artzeko ...

3. Emen egiten ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, esanez eta idatziz, kulatzen ordez:

Egun guzian zure bīla ibīli natzaizu ta etzaitut aurkitu: Nor ibīli zait nire bīla egun guzian eta ez nau aurkitu?; ... - Noren bīla ibīli zatzayo egun guzian?; ... - Gu ere zuen bīla ibīli al gatzaizkizue egun guzian?; Ez, ... baño. -- Ez zetozkigun iñoiz, beaŕ zan bezela, alai ta pozik; beti zirki-mirki: Nor ez zetorkizuen iñoiz, beaŕ zan bezela, alai ta pozik, zirki-mirki baizik?; ... - Nola ez zetozkizuen beaŕ zan bezela, alai ta pozik?; ... - Gugana al zentozkiguten beti zirki-mirki?; Ez, gu ez ... -- Ez al dagokizue, gaur gabean, laugaŕen txandan apaltzea? bai, ain zuzen orixe da dagokiguna: Nori dagokio, gaur gabean, laugaŕen txandan apaltzea?; ... - Zein txandan dagokit niri gaur gabean apaltzea?; ... - Gure lagunai al dagokie, gaur gabean, laugaŕen txandan apaltzea?; Ez, oyei ez ..., baizik. -- Zuengandik joan gatzaizkizue oso berandu izaten zitzaigulako: Nor joan zaigu gugandik oso berandu izaten zitzayolako?; ... - Zergatik joan zatzaizkigu gugandik?; ... - Ni ere zuengandik joan al natzaizue oso berandu izaten zitzaidalako?; Ez, ... baño. -- Zergatik itzuli zatzaizkigu oŕen laisteŕ? gure lana berealaxe amaitu zaigulako itzuli gatzaizkizue oŕen laisteŕ: Nortzuk itzuli zaizkizue oŕen laisteŕ beren lana berealaxe amaitu zayelako?; ... - Noiz itzuli zatzait, zure lana berealaxe amaitu zaizulako?; ... - Ni itzuli al natzaizue oŕen laisteŕ nire lana berealaxe amaitu zaidalako?; Ez, zu ez ... -- Lanean nengokizuenean, etzitzaidan gogoratu zuen ingiak ebaki nizaizkizuen etoŕiko ziñaketela: Nori etzitzaion gogoratu, lanean zegokigunean, beren ingiak ebaki zizaizkien etoŕiko lirakela?; ... - Zer etzitzaizun gogoratu lanean zengozkigunean?; ... - Guri gogoratu al zitzaigun lanean gengozkizuenean zuen ingiak ebaki genizaizkizuen etoŕiko ziñaketela?; Ez, zuei ere ... -- Ikasi ezazu leyatsu, galde dizaizutenean, zure ikaskayak burutik-burura esan ditzazun: Nork ikasi beaŕ du leyatsu galde dizayotenean, bere ikaskayak burutik-burura esan ditzan?; ... - Zertarako ikasi beaŕ dut leyatsu?; ... - Guk ere leyatsu ikasi beaŕ al dugu, galde dizaigutenean, gure ikaskayak burutik-burura esan ditzagun?; Bai, zuek ere ... -- Irakasle beŕiak etoŕiko lirake, ikastaroa asi baño lenago aztertu zintzaen: Nortzuk etoŕiko lirake, ikastaroa asi baño lenago aztertu nintzaten?; ... - Zertarako etoŕiko lirake irakasle beŕiak?; ... - Zuek etoŕiko al ziñakete, ikastaroa asi baño lenago aztertu gintzazuten?; Ez, gu ez ... -- Beŕi txaŕ oyek emateko etoŕi zaizkizue: Nortzuei etoŕi zaizkie beŕi txaŕ oyek emateko?; ... - Zertarako etoŕi zaizkit?; ... - Gu etoŕi al gatzaizkizue beŕi txaŕ oyek emateko?; Ez, zuek ... -- Emen gagozkizu, eroapenez beterik, aldi obeen zai?: Nor dagokit, eroapenez beterik, aldi obeen zai?; ... - Zeren zai zagozkidate, eroapenez beterik?; ... - Zu al zagozkigu, eroapenez beterik, aldi obeen zai?; Ez, ... baizik. -- Gauzak diran bezela esan al balekizkio ta asaŕetu ez zedīla!: Gauzak diran bezela esan al lekizkizuke ta asaŕetu ez zindezela?; ... - Nori esan lekizkioke gauzak diran bezela ta asaŕetu ez zedīla?; ... - Guri esan al lekizkiguke gauzak diran bezela ta asaŕetu ez gindezela?; Bai uste dut, zuei ... -- Zergatik egon zatzaizkie zai oŕen luzaroan?; emengo lana alkaŕekin egin al dezakegun egon gatzaizkie zai oŕen luzaroan: Noren zai egon zatzayo oŕen luzaroan, emengo lana alkaŕekin egin al dezakezuten?; ... - Gu egon al gatzaizkizue zai oŕen luzaroan emengo lana alkaŕekin egin al dezakegun?; ... - Ni ere zure zai egon al natzaizu oŕen luzaroan emengo lana alkaŕekin egin al dezakegun?; Ez, zu ez ... -- Ez gatzaizkizue beti oŕela ibīliko, eten gabeko orekan: Nortzuk ez zaizkigu beti oŕela ibīliko, eten gabeko orekan?; ... -

Nola ez zatzaizkigu beti ibīliko?; ... - Ni beti oŕela ibīliko al natzaizue, eten gabeko orekan?; Ez, zu ere ... -- Guztiz mozkortuta zetozkigun iñorenganako begirunik gabe: Nortzuk zetozkizuen guztiz mozkortuta iñorenganako begirunik gabe?; ... - Nola zentozkidaten?; ... - Ni al nentorkizuen guztiz mozkortuta iñorenganako begirunik gabe?; Ez, zu ez ..., baño. -- Auŕa nintzanean, ez nintzakete urtatu, ez etxean ez iñun ere: Nor ez zezaketen urtatu auŕa zanean, ez etxean ez iñun ere?; ... - Nun ez zintzakete urtatu auŕa ziñanean?; ... - Gu, auŕak giñanean, urtatu al gintzakete etxean?; Ez, zuek ere ...

4. Uŕengo bertsoak aŕetaz irakuŕi beaŕ dira; gero, bertsoen neuŕia nolakoa dan esan, eta batez ere olerkariak darabīlen asmo berezia zein dan aipatu ere, gai oŕi buruz norberaren iritzia emateko; esatean eta idaztean:

«TAMALGAŔIA»

1. «Giza-uoldea datoŕ
baso-bideak beera,
saguak lakiora lez,
kale-bizitzaz līlura.

2. Ibīlerea aztun eta
begiak urduri doaz,
zaaŕak gogo motelakaz,
gazteak amets beroaz.

3. Atxuŕa itxikeran izan
ta azkatasuna be galdu:
Basa-txoria kayolan
goibeltasunak ilten du.

4. Bai. Basoan otak dira!
Baña, ez dakizu otak
baño eun bideŕ latzago
dirana izerdi-lapuŕak!

5. Zuen izate ta ametsak
olaen otsak itoko.
Maitasun bako gizarteen
baŕu-bakea galduko.

6. Gaixoak! baŕikeria
gaikoyak, apurka-apurka,
eŕuki barik zakatzak
aterako, ba, igartzeka.

7. ...Eta, basoak īletaz
jazten diran bitartean,
berein baseŕitaŕ
guzuŕ-ametsen bidean».

«Olerti 1980» (53-54'gn. oŕialdeetan) Aurre Apraiz.

EUN ETA BEŔOGETAIRUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

«IZAN» ADITZ LAGUNTZAĪEAREN ARTZAĪE-ADIZKIÑAK

TINKIERA - LENALDIA

Lenengo notiñaren adi-yabea

	Bakaŕ			Askaŕ		
Zuri	-ZU-			-ZU-		
Berari	-O-			-O-		
	NINTZA- -I-	-N		GINTZA- -I- -ZKI-		-N
Zuei	-ZU-(T)E-			-ZU-(T)E-		
Berai	-E-			-E-		

Bigaŕen notiñaren adi-yabea

	Bakaŕ			Askaŕ		
Neri	-Da-			-Da-		
Berari	-O-			-O-		
	ZINTZA- -I-	-N		ZINTZA- -I- -ZKI-		-N
Guri	-GU-			-GU-		
Berai	-E-			-E-		

Irugaŕen notiñaren adi-yabea

Ez ditugu emen era auek zeatzez jartzen, len, 56'gaŕen ikaskayan ikasi ziranak diralako.

Emen jaŕitako adizkin guziak, eta esandako 56'gaŕen ikaskayan agertu ziranak, uŕengo ERAKUS-BIDE OROKAŔEAN alkartu ditezke, onela:

N-i-N-		-Da-		
Z-i-N-		-ZU-		
Z-i-		-O-		
	t) -ZA- -I-			-N
G-i-N-	-Z-	-KI-	-GU-	
Z-i-N-	-Z-	-KI-	-ZU-(T)E-	
Z-i-	-Z-	-KI-	-E-	

Erakus-bide ontan, goitiberako zeŕendaetan ikusten diran itzatalak, auŕeko ikaskayan Oraiñaldirako agertzen diranen zentzunak berak dituzte; ta azken -N izkia Lenaldiaren bedegaŕa da.

Eginkizunak

1. Uŕengo laukian, lendabiziko leŕoan, izenorde artzaīeak ikusten dira, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen izenordeak doaz; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion artzaīe-adizkiñak, oraiñaldian, ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		natzaizu	...		...	natzaye
Zu	Zatzait		...	zatzaigu		...
Bera	...	...	zayo	...	zaizue	...
Gu		gatzaizkizu	...		...	gatzaizkie
Zuek	Zatzaizkit		zatzaizkio	...		...
Berak	...	...	...	zaizkigu	zaizkizue	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan ematen diran esakuntzetan, oraiñaldiko artzaīe-adizkiñak azaltzen dira; oŕ, esakuntza bakoitzean, bere adizkiña da aurka zayonaren bidez aldatu beaŕ dana, ots, adi-yabea, atzaīearen bitartez eta alderantziz, artzaīea, adi-yabearen bidez; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Biar bertan elduko *natzaizu* alkaŕekin egon gaitezken; ... - Noiz joango *zatzayo* zure amarengana?; ... - Goiz-goizetik gugana jetsi *zaigu* ume ori negaŕez; ... - Zuengana etoŕi *gatzaizkizue* osasunez nola zagozten ikusteko; ... - Irakasleengana erdu *zatzaizkie*, ikaskayak obeto jakiteko asmoz; ... - Noiz itzuliko *zaizkit* nire semeak, gaur goizean joan diran txango ortatik?; ... - Bereala igoko *natzaye* goiko auzokoai, zer nai duten galdetzeko; ... - Beranduegi esnatu *zatzait* beaŕa dana egin al dezakegun; ... - Nola ibiīi *zaizue* oŕen paŕegaŕi zuen iīoba?; ... - Ementxe egon *gatzaizkizu* luzaroan zure zai urduri; ... - Zergatik *ez zatzaizkigu* sartu gure biīeran lenago?; ... - Asaŕeturik irtengo *zaizkizu* beti gazte biuŕi oyek; ...

3. Emen ipintzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, beti bezela, esatean eta idaztean:

Ez al dakite atzoko egunean garaiz etoŕi zintzaizkigula?; ez, eztakite atzoko egunean garaiz etoŕi gintzaizkizuela: Nork eztaki atzoko egunean garaiz etoŕi nintzayola?; ... - Zer eztaki oŕek?; ... - Zuk al dakizu oyek zuregana atzoko egunean garaiz etoŕi zitzaizkizula?; Ez, nik ... -- Noizpait joaten nintzayen berekin alkarturik lanegiteko: Nor joaten zitzayen noizpait, berekin alkarturik lanegiteko?; ... - Norengana joaten zintzayon berarekin alkarturik lanegiteko?; ... - Gu joaten al gintzaizkien ayengana berekin alkarturik lanegiteko?; Ez, zuek ez ... -- Agian itzuli zaitezteneko, ez gatzaizkizue emen egongo: Nortzuk ez zaizkigu emen egongo, agian, itzuli gaitezeneko?; ... - Norengana ez zatzaizkio, agian, emen egongo itzuli dediñeko?; ... - Ni egongo al natzaizue, agian, emen, itzuli zaitezteneko?; Eztakit zu ... -- Ni beñepein, ez nentorkizuen iñoiz, era oŕen iguingaŕiaz itzegiteko: Nor ez zetorkigun iñoiz era oŕen iguingaŕiaz itzegiteko?; ... - Noiz ez zentozkigun era oŕen iguingaŕiaz itzegiteko?; ... - Gu al gentozkizuen iñoiz, era oŕen iguingaŕiaz itzegiteko?; Ez, zuek ez ... -- Eztakigu egunsentian baño lenago elduko ote gatzaizkizuen: Nork eztaki egunsentian baño lenago elduko ote zaigun?; ... - Zuk ba al dakizu egunsentian baño lenago elduko ote zatzaigun?; ... - Zuek al dakizute egunsentian baño lenago elduko ote zatzaizkien?; Ez, guk ... -- Irurok etoŕiko zatzaizkigunezkero, gutxi gorabera, ogetamabosna ogerleko jazoko zaizkizue: Nortzuei jazoko zaizkie ogetamabosna ogerleko, gutxi gorabera, etoŕiko zaizkizuenezkero?; ... - Guri ere ogetamabosna ogerleko jazoko al zaizkigu, gutxi gorabera, etoŕiko gatzaizkizuenezkero?; ... - Zuei ere ogetamabosna ogerleko jazoko al zaizkizue, gutxi gorabera, etoŕiko zatzaizkienezkero?; Bayetz uste dugu, guri ere ... -- Laisteŕ jeisten bazatzait, gaitz erdi; oŕela obetu zeran ala ez ikusi zintzaket: Nork ikusi nintzake obetu naizen ala ez, laisteŕ jeisten banatzayo?; ... - Nor ikusi zenezake obetu dan ala ez, laisteŕ jeisten bazaizu?; ... - Zuek ikusi al gintzakezute obetu geran ala ez, laisteŕ jaisten bagatzaizkizue?; Bai, guk ere ... -- Guziok alkaŕekin etoŕi zatzaizkigunezkero, Mikel Deun'an egin genituen antzezkiak batera erakutsi al-izango dizkizuegu: Nork erakutsi al-izango dizkigu batera, Mikel Deun'an egin zituen antzezkiak, guziok alkaŕekin etoŕi gatzaizkionezkero?; ... - Zer erakutsi al-izango diguzute, guziok alkaŕekin etoŕi gatzaizkizuenezkero?; ... - Nik Mikel Deun'an egin nituen antzezkiak batera erakutsi al-izango dizkizuet, guziok alkaŕekin etoŕi zatzaizkidanezkero?; Bai, zuk ere ... -- Beren lanak amaitu zituzteneko, oso berandu egin zitzayen: Nori egin zitzayon oso berandu bere lanak amaitu zitueneko?; ... - Noizko egin zitzaizuen oso berandu?; ... - Guri ere oso berandu egin al zitzaigun gure lanak amaitu genitueneko?; Ez, ... baño. -- Al gaitezken bezin laisteŕ uŕutiratuko gatzaizkizue: Nortzuk uŕutiratuko zaizkigu al ditezken bezin laisteŕ?; ... - Noiz uŕutiratuko zatzaizkigu?; ... - Ni ere al nadin bezin laisteŕ uŕutiratuko al natzaizue?; Ez, ... baizik. -- Ez gintzaizkizuen zaartu uste li-

teken bezin aguro: Nor ez zitzaigun zaartu uste liteken bezin aguro?; ... - Noiz ez zintzaizkigun zaartu?; ... - Zu zaartu al zintzaigun uste liteken bezin aguro?; Ez, ni ere ... -- Ez zintzaizkidan irteten korapīlo ayetatik nik nai-izango nukean eŕaztasunaz: Nor ez zitzaizun irteten korapīlo ayetatik zuk nai-izango zenukean eŕaztasunaz?; ... - Nola ez gintzaizkizun irteten korapīlo ayetatik?; ... - Ni irteten al nintzaizuen korapīlo ayetatik zuek nai-izango zenuketean eŕaztasunaz?; Ez, zu ere ... -- Etxe auŕetik aŕabots izugaŕiaz igaroten zintzaigun: Nor igaroten zitzaizuen etxe auŕetik aŕabots izugaŕiaz?; ... - Nola igaroten nintzaizuen etxe auŕetik?; ... - Zuek igaroten al zintzaizkigun etxe auŕetik aŕabots izugaŕiaz?; Ez, ... baizik. -- Azketsi ezin bazintzate, ondorioak txaŕak izango lirake zuretzat: Norentzat izango lirake txaŕak ondorioak, azketsi ezin balezate?; ... - Zer izango litzake txaŕa niretzat, azketsi ezin banintzate?; ... - Eta zuentzat ere ondorioak txaŕak izango al lirake, azketsi ezin bazintzatee?; Bai, guretzat ere ... -- Eragozkien gañetik iraupen gelgaŕiaz zeŕaizten: Nor zeŕayen iraupen gelgaŕiaz eragozkien gañetik?; ... - Nola zeneŕaizten eragozkien gañetik?; ... - Gu al geneŕaizen iraupen gelgaŕiaz eragozkien gañetik?; Ez, zuek ez ... baño.

4. Uŕengo idazki-txatal au ongi irakuŕi, ta gero Ludi'ari buruz bakoitzak dakien guzia ageŕerazi dezala, esate baterako: zenbat ordutan egiten duen Ludi'ak bere ardatzean bira osoa, zenbat egunetan egiten duen Ludi'ak eguzkiaren inguruan bira osoa, ta abaŕ; itzez eta idatziz:

«GURE LUŔA»

«Ona emen gure LUŔA. Euzkaldunontzat, PILOTA AUNDI BAT dala esango genuke. Ikus dezagun nola dabīlen bere eguzkiaren inguru daraman bidean. Ba-dakizute ziba bere ardatzaren gañean luŕean biraka nola ari dan, Erdi-erdian burnizko ziritxoa sartuta euki oi du. Ziri au biraka jartzen badugu, aren ibīlian biraka jartzen dugu ziba ere. Ta ori izaten da txikien jostaīurik ezagutuenetako bat.

Jostaketa ori darabil gure Luŕ'ak ere... Ori bai, Luŕ'ak eztu bere baŕua erdiz-erdi zulatzen dion ziririk, baña ala balu bezela, ibīli dabil jira-biraka bere iduriko ardatzaren eragiñean.

Ziri oŕek erdiz-erdi gure PILOTA au zulatuko balu, alde batean sartu ta bestetik irtetzean, bi lekutan zulatuko luke gure LUŔA. Bi tini izango lituke ortara, zulatuak. Goiko aldetik saŕerako tinia izango luke ta beko aldetik irteerako tinia zulatua. Oŕela, ardatz batean, bi mutuŕ izango genituke. Bi tini auei, goikoari IPAŔ-ARDATZ-BURUA esaten diogu, ta bekoari, EGO-ARDATZ-BURUA.

Guk asmatu dugun Ludi'ko ardatz ori, pixka bat alde batera alboratua dago, goitik, eskui-alderuntz, eta beitik, ezkeŕ-alderuntz. Onela egiten du eguzkiaren inguruan bere bira, alborakako laiñeza ori galtzeke.

LUŔ au eztugu osorik ikusten beñere. Egazkilariak ere, ezin ikus dezakete gure LUŔ au osorik begirakada batean, goraka mīlaka aneurkiñetara (kilometrotara) igo gabe. Ta igota ere, beti guri begira dagoen pilota oŕen erdia bakaŕik ikusten dute. Ori bai, goi ayetatik —īlargitik adibidez— nabaritu liteke, nola itxas zabalak eta luŕ legoŕ aundiak gure pilota biribil au osotzen duten.

Gure Luŕ'ak, eguzkitik artzen ditu bere bero ta argia. EGUZKIA, sutan gori-gori dagoen pilota da. Luŕ ontatik mīloika aneurkiñera edo kilometrora dago eguzki ori zeruetan.

Gure Luŕ'ak bere ardatzaren inguruan bira osoa emateko beaŕ duen epeari EGUNA esaten diogu. Egunero, gure Luŕ-aren alderdi guziak, Eguzki-argia artzen dute, ta gero, īlunpetan sartzen dira. Onela dakigu Eguna ta Gaua nola sortzen diran».

«Gure luŕ osoaren lutelestia» (7-8'gn. oŕialdeetan) Etxaniz'taŕ Nemesio'k euzkeratua.

EUN ETA BEŕOGETALAUGAŕEN IKASKAYA

-NEZ, -NENTZ atzizkiak.

Atzizki auen bigaŕena, noski, lenengotik datoŕela argi ikusten da; laburtu ere egin diteke, -NTZ eta -NZ auetan biurturik. Biek zentzuna bera dute, nolabait zalantzaren asmoa adierazteko, len (1) -N atzizkiaz mintzatzen aipatu genuenez, aztertzeko xedeaz zerbait esaten danean; baña zentzun ori, emen, bi atzizki oyek erabiltzean, indaŕ aundiagoaz ematen; *bai* ... ala *ez* ote dan bereziki adierazteko edo (2).

E. b.: Eztakit garaiz elduko da*nentz* = Eztakit garaiz elduko dan ala ez.
Ikusiko dugu jeisten zerate*nez* = Ikusiko dugu jeisten zeraten ala ez.

Aditz-eraketaren bigaŕen bidean, batez ere, atzizki auek erabiltzea egokia da, oŕen aldietan aditzera amaitzeko agertzen dan -N azken atzizkiaz ez nastutzeko.

Onela: Eztakigu garaiz eldu zira*n* = Eztakigu garaiz eldu ote zira*n*.
Eztakigu garaiz eldu zira*nentz* = Eztakigu garaiz eldu ziran ala ez.

Lenengo esakuntza aztertzeko zentzunik gabe erabil dezakegu, onelako galderari erantzuteko baldin bada: Bultzia artu al zuten?; erantzuna ematen ongi esan dezakegu: Eztakigu garaiz eldu ziran; zentzun zeatz onezaz: Eztakigu, garaiz eldu ziran.

Bigaŕen esakuntzak, beŕiz, beti izango du aztertzeko zentzuna.

Ba-dute atzizki bi auek, beste zentzun bat, BEZELA itzaren bitartez adierazten danaren antzekoa.

Onela: Eŕan duzute*nez* = Eŕan duzuten *bezela*.
Agindu zigu*nentz* = Agindu zigun *bezela*.

-NEZ atzizkiak, azkenez, -EZKERO (3) edo -NEZKERO beste atzizkien zentzuna ere ukan dezake.

E. b.: Alaxe egin dute*nez* = Alaxe egin duten *ezkero*.

(1) Ikusi: 27 ta 73'gn. ikaskayak.
(2) Ikusi: Altube'ren «Erderismos», 124.
(3) Ikusi: 46'gn. ikaskaya.

-NEZKERO atzizkia.

Atzizki au, -NEZ + GERO alkartuta dago egiña (len ikasi zan -EZKERO (1), ots, -EZ + GERO bezela), eta -EZKERO'ren zentzunaren antzekoa du.

Orduan, 46'gn. ikaskayan esan genuenez, -EZKERO, jokatutako aditzekin erabiltzen dala dakigu; aditzerai -N atzizkia gañeratzen eta oŕen ondoren EZKERO, itza bezela, jartzean. Egitan, gauza bera da guzia, era batean ala bestean erabiltzen, izkelgi bakoitzaren oituraren arauz.

E. b.: Emen bildu gera*n ezkero*, edo: Emen bildu gera*nezkero*.
Azkenez, beste zentzun au ere euki dezake atzizki onek: «Ondoren».
Onela: Andik etoŕi zira*nezkero* = Andik etoŕi ziran *ondoren*.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lendabiziko leŕoan, izenorde artzaĪeak ikusten ditugu, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen beste izenordeak; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion artzaĪe-adizkiñak, lenaldian, jaŕi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		...	nintzayon		...	...
Zu	Zintzaidan		...	...		zintzayen
Bera	...	zitzaizun	...	zitzaigun	...	...
Gu		...	gintzaizkion		gintzaizkizuen	...
Zuek	Zintzaizkidan		...	...		zintzaizkien
Berak	...	zitzaizkizun	...	zitzaizkigun	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan, lenaldiko artzaĪe-adizkiñak ematen dira, ta esakuntza bakoitzean bere adizkiña da aurka zayonaren bidez aldatu beaŕ dana, ots, adi-yabea, artzaĪearen bitartez eta alderantziz, artzaĪea adi-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Lengo egunean joan *nintzayon* gure endorearengana; ... - Aŕatsalde euritsu artan guztiz busti *zintzaidan* gizajoa; ... - Noizko legortuko *zitzaizun* ikuzitako janzkia?; ... - Zure zai egon *gintzaizkizun* guziok urduri; ... - Iritxi *zintzaizkigun*ean oso berandu zan azkaltzeko; ... Agure on ayek, dagoaneko, zimurtu *zitzaizkizuen* oso zaŕak ziralako; ... - Ziuŕ egon zaitezke, ni *enintzaizun* ausartuko zuk egin zenuena bete-

(1) Ikusi: 46'gn. ikaskaya.

tzeko; ... - Oso egokiro azkortu *zintzayon* bere bīla joan ziñanean; ... - Ume txiki ura bildurtuko *zitzaidan* gurekin basora eramango banu; ... - Ez *gintzaizkizuen* kikilduko iñoiz zuekin ibīli ezkero; ... - Nire ustez, eŕaz ikaratu *zintzaizkidan* guk jasan beaŕ-izan genuen luŕ-dardara bezelako batean; ... - Murgilduko *ez zitzaizkigu*lakoan lasai egon giñan aintzira artan; ...

3. Emen ipintzen ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Iru edo lau aldiz aurkitzera irten nintzaizun, baña alpeŕik : Nor irten zitzaidan iru edo lau aldiz aurkitzera?; ... - Zertara irten zintzaizkidan iru edo lau aldiz?; ... - Gu atera al gintzaizkizuen aurkitzera iru edo lau aldiz?; Ez, ... baño. -- Eldu gintzaizkieneko etzegozen berekin, gazta ayek saldu zizkietenak : Nortzuk etzegozen berekin, eldu zintzaizkieneko?; ... - Noizko etzegozen berekin, gazta ayek saldu zizkietenak?; ... - Ni eldu nintzayeneko al zegozen berekin, gazta ayek saldu zizkietenak?; Ez, ... ere, ez ... -- Eztakit au izan ezik beste tokian obeto idatziko zizuketean : Nork eztaki au izan ezik beste tokian obeto idatziko zidaketean?; ... - Zer eztakizu?; ... - Guk al dakigu au izan ezik beste tokian obeto idatziko ote ziguketean?; Ez, zuek ere ... -- Zer egin beaŕ dugu onen idorketa gogoŕaz landareak igartu ez dakizkigun?; estali aal badituzute, ene ustez ori izango zaizue bide onena : Zertarako izango da bide ona landareak estaltzea, onen idorketa gogoŕa dala-ta?; ... - Zer estali beaŕ duzute onen idorketa gogoŕaz landareak igartu ez dakizkizuen?; ... - Nik ere nire landareak estali beaŕ al ditut onen idorketa gogoŕaz igartu ez dakizkidan?; Bai, zuk ere ... -- Oŕela ez gatzaizkio iñoiz iñori aurkeztuko : Nor etzayo iñoiz iñori oŕela aurkeztuko?; ... - Nori ez zatzaizkio iñoiz oŕela aurkeztuko?; ... - Zu iñoiz iñori oŕela aurkeztuko al zatzayo?; Ez, ni ere ... -- Eztakigu joan zintzaizkiguneko beŕitsu ayek esnatu ote ziran : Nortzuek eztakite joan gintzaizkizueneko beŕitsu ayek esnatu ote ziran?; ... - Zer eztakizute?; ... - Nik al dakit joan zintzaizkidaneko beŕitsu ayek esnatu ote ziran?; Ez, zuk ere ... -- Oso gaizki zeritzaigun, al eta ezin, nai ez zenuenari eustea eragin zizaizutela : Nortzuei zeritzayen oso gaizki, al eta ezin, nai ez nuenari eustea eragin zizaidatela?; ... - Zer zeritzaizuen oso gaizki?; ... - Guri gaizki al zeritzaigun, al eta ezin, nai ez genuenari eustea eragin zizaigutela?; Bai noski, zuei ... -- Bai beorketa muru ayetan zegoena! : Nun zegoen beorketa?; ... - Zer zegoen muru ayetan?; ... - Muru ayetan beiketa al zegoen?; Ez, ... baizik. -- Erdu ez zintzaizkigunezkero, ez genuen orduan ezer egin al-izan : Nortzuek ez zuten orduan ezer egin al-izan erdu ez nintzaizunezkero?; ... - Zer ez zenuten orduan egin al-izan, erdu ez gintzaizkizuenezkero?; ... - Oyek orduan ezer egin al-izan zuten, zu erdu ez zintzayenezkero?; Ez, oyek ere ... -- Ez natzaizu itzuriko, gizona; ez izan ajolik eta zoaz ainbat lasteŕen janariaren bīla : Nork joan beaŕ du janariaren bīla, ainbat lasteŕen, itzuriko ez zatzayonezkero?; ... - Zeren bīla joan beaŕ dut ainbat lasteŕen, itzuriko ez zatzaizkidanezkero?; ... - Guk ere joan beaŕ al dugu janariaren bīla ainbat lasteŕen, itzuriko ez zatzaigunezkero?; Bai, zuk ere ... -- Eztakit lan ayetan geyegi bustitzen ez ote zintzaidan : Nork eztaki lan ayetan geyegi bustitzen ez ote nintzayon?; ... - Zer eztakizu?; ... - Guk al dakigu lan ayetan geyegi bustitzen ez ote zintzaizkigun?; Ez, zuek ere ... -- Uri artara joan gintzaizkizunean ikus al diteken guzia ikusi genuen : Nork ikusi zuen al diteken guzia uri artara joan zitzaigunean?; ... - Nora joan zintzaizkigun, ikus al diteken guzia ikusi zenutenean?; ... - Nik ere ikus diteken guzia ikusi al nuen uri artara joan nintzaizuenean?; Ez, ... baizik. -- Zergatik uŕutiratu zintzaidan ainbeste Gorbea'tik jeixten giñanean?; egitan eztakit zergatik uŕutiratu nintzaizun ainbeste Gorbea'tik jeixten giñanean : Nor uŕutiratu zitzaidan ainbeste Gorbea'tik jeixten giñanean?; ... - Noiz uŕutiratu zintzaidan ainbeste?; ... - Zuek ere alkaŕi ainbeste uŕutiratu al zintzaizkion, Gorbea'tik jeixten ziñatenean?; Ez, gu ez ... -- Egiazki ez zatzaizkigu iñoiz urbildu orain ainbat : Nor ez zaizue iñoiz urbildu orain ainbat?; ... - Nola ez gatzaizkizue iñoiz urbildu?; ... - Ni urbildu al natzaizue iñoiz orain ainbat?; Ez, zu ere ... -- Betiko ogenetan bertan erortzen zintzaizkigun : Nortzuk erortzen zitzaizkizuen betiko ogenetan bertan?; ... - Nun erortzen gintzaizkizuen?; ... - Ni ere betiko ogenetan bertan erortzen al nintzaizuen?; Bai, zu ere ...

4. Emen jartzen dugun ipuin baten zatia astiro ta ondo irakuŕi beaŕ da; gero, bertan agertzen diran asmoai buruz norberaren iritzia emateko, batez ere gizonen artean egin ditezken alkartasunai buruz; itzez eta idatziz :

«EŔEGE ZOŔIA»

«— Ez dugu euzkaldunok gaur goizeko gaitza, bakoitza geren aldetik ibiltze ori. Kale aldean bizi diranak ikasi dute oŕatik urteen bidean alkaŕ ondo artzen; baña baseŕietan bizi geranok, lengo lepotik daukagu

burua, eta ezin alkartu gera, Malen. Bai onugaŕia genukela baseŕitaŕak alkartzea! Orduan, orain amets egin ezin genezaken gauzak asko ta asko eŕez lortuko genituke.

— Bai, ori ala da, aitona; alderdi edeŕa dago bakaŕik jokatu ala alkartuta, gauzak erosi ta saltzeko garayan. Noiz ikusiko dugu, ordea, ori, aitona?

— Ondo diñozu, Malen, noiz ikusiko ori baseŕitaŕen artean? Ortxe-ortxe bideak zuzentzeko edo abereen okeŕak zuzentzeko alkartzen gera... beste gauzetan bakoitza bere kisa... ta oŕela ederki lumatzen gaituzte askok eta askok.

— Ez al dira iñoiz euzkaldunak alkartasun zaleak izan, aitona?

— Maite-izan dute euzkaldunek asko alkartasuna, ta ori ikusten dugu ipuyetan. Ara oyetako bat: Baseŕiko mutil gazte batek, etxea utzi ta luŕez-luŕ joatea erabaki omen zuen. Egin omen zuen bere janzkiaz pardeltxo bat eta guraso ta senideak agurtuta, abiatu omen zan bere asmoak betetzera. Eŕitik aldendu orduko, jabetu omen zan bakaŕik egin ezin lezakela gauza aundiri, eta lagunak biltzea erabaki omen zuen.

— Uŕengo egun batean auŕera zijoala, bide ertzeko belaza batean etzanda lagun bat ikusi omen zuen, belaŕia itxatzita. Begira jaŕi omen zitzayon eta esan: —Zer egiteko luŕean etzanda, adiskide?

— Belaŕak lurpetik irtetzean ateratzen duen soñua entzuten nago.

— Baña gizona, soñu ori entzun al dezakezu?

— Nik uste bayetz, entzuten ditut beintzat, emendik bi edo iru orduko bidean datoŕen zaldiaren peŕa soñua.

— Etzera makala; aizu: nai-izango al zenuke nerekin luŕez-luŕ etoŕi, zeredozer egiten ote dugun ikustera?

— Oso pozik joango naiz».

«Aitonaren Ipuyak» (129-130'gn. oŕialdeetan) Ramon Murua'k.

EUN ETA BEŔOGETABOSKAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

«IZAN» ADITZ LAGUNTZAĽEAREN ARTZAĽE-ADIZKIÑAK

BALDINTZAERA

BALDINTZAERA'ZKO GEROALDI URBIĽERA'ren adizkiñak oro, 71'gn. ikaskayan ikusi genituenak betetzen dituztenak:

N-i-N-			-Da-	
Z-i-N-			-ZU-	
L-i-			-O-	
	t) -ZA-	-I-		-KE
G-i-N-		-Z- -KI-	-GU-	
Z-i-N-		-Z- -KI-	-ZU-(T)E-	
L-i-		-Z- -KI-	-E-	

LITZAIDAKE ta LITZAIZKIDAKE erak, onela ere esaten dira: LITZAIKET (LITZAKIKET) eta LITZAIZKIKET.

Emandako erakus-bidean, irugaŕen notiñen L- dan lenengo izkia Z-'z aldaturik, eta -KE atzizkiaren ordez, -KEAN beste atzizkia gañeratzean, BALDINTZAERA'ZKO LENAGOKO GEROALDIA'ren adizkin guziak egingo ditugu, IZAN laguntzaĽearenak beti, 72'gn. ikaskayan ikusi genituenak betetzen dituztenak:

Onela: Joango NINTZAIZU*KE* - Joango NINTZAIZU*KEAN*
Etoŕiko ZINTZAIDA*KE* - Etoŕiko ZINTZAIDA*KEAN*
Egongo *LITZAIZKIOKE* - Egongo ZITZAIZKIO*KEAN*

Era berean, BALDINTZAERA'ZKO GEROALDI URBIĽENA'ren adizkiñetan, -KE atzizkia kentzen eta auŕetik BA- auŕizkia gañeratzen badugu, BALDINTZAERA'ZKO USTEKIZUNA egingo dugu; ta ori, GEROALDIA ala LENAGOKOA izango da, jaŕiko zayon aditza -KO atzizkiaz ala atzizkirik gabe agertuko dan eraz.

Oŕela eratuko diran adizkiñak, uŕengo erakus-bidea osotzen dute, ta 83'gn. ikaskayan ikasitakoak beteko dituzte :

	-N-i-N-		-T
	-Z-i-N-		-ZU
	-L-i-		-O
BA-	t) -ZA- -I-		
	-G-i-N-	-Z- -KI-	-GU
	-Z-i-N-	-Z- -KI-	-ZU-(T)E
	-L-i-	-Z- -KI-	-E

Onela : Joango BANINTZAIZU - *Joan* BAGINTZAIZKIO

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, izenorde artzaĪeak ikusten dira, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen izenordeak datoz; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion artzaĪe-adizkiñak, baldintzaeran, jaŕi beaŕ dira; kulatzen ordez, esatean eta idaztean.

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		...	nintzayoke		nintzaizueke	...
Zu	Zintzaidake		...	...		zintzayeke
Bera	...	litzaizuke	...	litzaiguke	...	...
Gu		...	gintzaizkioke		...	gintzaizkieke
Zuek	Zintzaizkidake		...	zintzaizkiguke		...
Berak	...	litzaizkizuke	...	...	litzaizkizueke	...

2. Eginkizun ontan ageŕerazten ditugun esakuntzetan, baldintzaerazko artzaĪe-adizkiñak ikusten dira; bertan, esakuntza bakoitzean, bere adizkiña da aurka zayonaren bidez aldatu beaŕ dana, ots, adi-yabea artzaĪearen bidez eta alderantziz, artzaĪea adi-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Berak uste duen baño lenago igoko *nintzayoke* araño; ... - Noiz jetxiko *zintzaidake* ni nengoen tokiraño?; ... - Ene ustez *ez litzaiguke* erориko eŕaz ain ongi zijoan zaldiarengandik; ... - Etzi gaur baño lenago jeikiko *gintzaizkizueke*, nai duzuten etxe ortara joateko; ... - Nola igaroko *zintzaizkiguke* gure auŕetik aguŕ-egin gabe?; ... - Aspaldian uŕutiratuko *litzaizkioke* beren aitari, ta orain zinkuriñak ugari; ... - *Ez nintzaizueke* iñoiz urbilduko oraingo egunetan ainbat; ... - Ezer esan gabe abiatuko *zintzayeke* bide luze ayetaruntz; ... - Gegeyi estutuko *litzaizueke* etxera ain berandu itzultzean; ... - Oso gutxi atsekabetuko *gintzaizkizuke*

laŕialdi artan; ... - Zergatik lotsatuko *zintzaizkidake* ainbeste, egun artan?; ... - Zearo zoratuko *litzaizkidake* neskatil ayek jolasetan; ...

3. Galdera guzti auei erantzun bana eman beaŕ zaye; oitura dugunez, kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Saŕiago joango nintzaizuke ikustera, baña astirik ez : Nor joango litzaidake ikustera saŕiago?; ... - Nora ez zintzaidake joango saŕiago?; ... - Zuek joango al zintzaizkiguke saŕiago ikustera?; Bai, nai baduzute, pozik ... -- Ez al zintzaiguke itzuliko ikaskaya ematen amaitu izan gaitezeneko?; bai, alegiñak egingo ditut ordurako itzultzeko : Nor itzuliko litzaizueke ikaskaya ematen amaitu izan zaitezteneko?; ... -Noizko itzuliko zintzaizkidake zuek?; ... - Ni itzuliko al nintzayoke ikaskaya ematen amaitu izan dediñeko?; Bai, zu ere ... -- Zerok isitu baitziñaten, ezin ukatu genizayeke ezer : Nortzuek ezin ukatu lizayekete ezer, gerok isitu baikiñan?; ... - Zer ezin ukatu zenizayekete, berak isitu baitziran?; ... - Zuk ezer ukatu al zenizaidake, nerau isitu bainintzan?; Ez, nik ezin ... -- Ez gintzaizkizuke endekatuko doĪoŕ oyen artean bizi beaŕ-izango bagenu ere : Nor ez litzaidake endekatuko doĪoŕ oyen artean bizi beaŕ-izango balu ere?; ... - Nola ez zintzaizkiguke endekatuko?; ... - Ni endekatuko al nintzaizueke doĪoŕ oyen artean bizi beaŕ-izango banu?; Ez, zu ere ... -- Atzo zurekin alditxo batean egoteko etoŕiko gintzaizkizukean, baña ez giñan al-izan : Nortzuk etoŕiko zitzaizkidakean atzo nirekin alditxo batean egoteko?; ... - Zertarako etoŕiko zintzaizkidakean atzo?; ... - Ni etoŕiko al nintzaizuekean atzo zuekin alditxo batean egoteko?; Ez, ... baño. -- Egun guzian alde batetik bestera ibiĪi zintzaizkien eta ez zenuten ezer beŕi ikusi al-izan : Nortzuk ibiĪi zitzaizkien egun guzian alde batetik bestera ezer beŕi ikusi eziñean?; ... - Nola ibiĪi gintzaizkien egun guzian ezer beŕi ikusi eziñean?; ... - Ni ere egun guzian batetik bestera ibiĪi al nintzaizuen ezer beŕi ikusi gabe?; Bai, zu ere ... -- Ezin ezkutatu lekizkidake gizon uzu ayek egiten ari zitzaizkizuen ankerkeriak : Nori ezin ezkutatu lekizkioke gizon uzu ayek egiten ari zitzaizkion ankerkeriak?; ... - Zer ezin ezkutatu lekizuke zuri?; ... - Zuei ezkutatu al lekizkizueke gizon uzu ayek egiten ari zitzaizkigun ankerkeriak?; Ez, guri ere ... -- Albeniz'ko gazte bioztun oŕek gurdia irauli al-izan ezpalizu, ezer egin al-izan gabe jaŕaituko ziñake : Nor jaŕaituko litzake ezer egin al-izan gabe, Albeniz'ko gazte bioztun oŕek gurdia irauli al-izan ezpalio?; ... - Nola jaŕaituko nintzake, Albeniz'ko gazte bioztun oŕek gurdia irauli al-izan ezpalit?; ... - Zuek ere ezer egin al-izan gabe jaŕaituko al ziñakete, Albeniz'ko gazte bioztun

oŕek gurdia irauli al-izan ezpalizue?; Bai, gu ere ... -- Egunsentian baño lenago Kapildui'ko tontoŕeraño igoko ez al zintzaizkieke?; bai, eŕaz igoko gintzaizkieke egunsentian baño lenago Kapildui'ko tontoŕeraño: Nor igoko litzayeke egunsentian baño lenago Kapildui'ko tontoŕeraño?; ... - Noiz igoko zintzayeke Kapildui'ko tontoŕeraño?; ... - Ni igoko al nintzaizueke egunsentian baño lenago Kapildui'ko tontoŕeraño?; Ez, ... baizik. -- Erantzutea zure esku balego, egin ezaidazu lenbailen: Nork egin beaŕ dit lenbailen erantzutea bere esku balego?; ... - Nola egin beaŕ diogu lenbailen?; ... - Nik ere lenbailen egin beaŕ al dizuet, erantzutea nire esku balego?; Bai, zuk ere ... -- Ez gintzaizkizuekean oindiño itzuliko; baña etxetik estueraz dei-egin ziguten: Nortzuk ez zitzaizkigukean oindiño itzuliko?; ... - Noiz ez zintzaizkigukean itzuliko?; ... - Ni ere ez al nintzaizukean oindiño itzuliko?; Ez, zu ere ... -- Zure aŕebaengandik itzultzen gintzaizkizularik, Mikel zure lengusua bidera irten zitzaigun: Nor irten zitzaizuen bidera, nire aŕebaengandik itzultzen zintzaizkidalarik?; ... - Noiz irten zitzaidan bidera Mikel bere lengusua?; ... - Ni irten al nintzaizun bidera zure aŕebaengandik itzultzen zintzaidalarik?; Ez, ... baño. -- Nire txandaren zai nengokizuen, ekartzen nizuen iriña neurtu zenizaidaten: Nor zegokigun bere txandaren zai, ekartzen zigun iriña neurtu genizayon?; ... - Zertarako zengozkidan zure txandaren zai?; ... - Gu ere gure txandaren zai al gengozkizuen, ekartzen genizuen iriña neurtu zenizaiguten?; Ez, ... baizik. -- Era berean zeaztasunez ertzen giñan irakasleak akartu ez gintzan: Nor ertzen zan zeaztasunez era berean, irakasleak akartu ez zezan?; ... - Nola ertzen ziñaten, era berean, irakasleak akartu ez zintzaten?; ... - Ni ere zeaztasunez ertzen al nintzan, era berean, irakasleak akartu ez nintzan?; Ene ustez bai, zu ere ... -- Ozta-ozta jaŕaitu al nintzakezute mastegiaren zeaŕ ninjoanean: Nor jaŕaitu al zintzake ozta-ozta mastegiaren zeaŕ zinjoazenean?; Noiz jaŕaitu gintzakezute ozta-ozta mastegiaren zeaŕ ginjoazenean?; ... - Ni jaŕaitu al zintzateket ozta-ozta, mastegiaren zeaŕ zinjoaztenean?; Bai, zu ere ...

4. Ongi ta astiro irakuŕi beaŕ da uŕengo irakurgaya; gero zeatz auek adierazteko: Kilkeŕak bere soñua nola egiten duen; irakurgai ori dagoen idaztiaren egiĪeak nolako sari ospetsua irabazi zuen; eta itzulpenaren egiĪea nor izan zan ere:

«KILKEŔAREN LELOA»

«Platero'k eta biok gure gau ibilketaetatik ongi ezaguna dugu kilkeŕaren soñua.

Kilkeŕaren lenbiziko soñua, iĪunabaŕean, ez-il bai-il, ixil eta latza duzute. Aldatu egiten da erespidea, berez ikasten eta, goxo-goxo, goratuz doa, bere tokiratuz doa, lekuaren eta orduaren elkaŕ-artzea biĪatzen bailoan. Alako batean, zeru muskeŕ eta gardenean izaŕak ba-daudela, soñuak txintxil lokabezko gozotasun otseztitsua artzen du.

Itxas-aize ozkiŕi, ubelak, ba-doaz eta ba-datoz; gau-liliak osotara zabaltzen dira, ta nasturiko zeru-luŕetako zelai urdiñen luŕingai aratz eta yainkozko bat ba-dabil oŕon, zabaldian barna. Eta kilkeŕaren soñuak goratu ta, landa osoa betetzen du; itzalaren mintzoa bezela da. Ez dabil ezmezean dagoneko, ez da isiltzen. Bere baitarik irteten bailitzan, ereski bakoitza bestearen bikia da, leyaŕ iĪunezko anaigo batean.

Ba-doaz orduak narerik. Ez dago gudarik luŕean eta lugiñak ongi egiten du lo, bere ametsaren muga garayean zerua dakusalarik. Maitasuna, agian, ba-dabil zoraturik, begiak begietan, orma bateko ayen-belaŕen artean. Baba-aloŕek uŕin eztizko geznak igortzen dizkiote eŕira, gaztaro lokabe, bakun eta baŕenkoŕ batean bezela. Ta garoak kulunka ari dira, iĪargiz muskeŕak, ordu bietako, iruretako, lauretako aizeari asperenka ... Kilkeŕaren soñua yotzearen yotzeaz, galdu da...

Emen dugu ¡O, kilkeŕaren goizaldiko lelo ori, garoak zurituriko indaetan barna, Platero ta biok oera goazenean otzikaraz estu-erazita!

IĪargia erortzen da, goŕixka ta logale. Onezkero, soñua iĪargiz mozkoŕik dago, izaŕez ordirik, biotz-ixuri, izkututsu, ugari... Zibuin-antzeko urdin, goibel batez ertseztatu - odei aundi, negargaŕi batzuek, eguna itxasotik ateratzen duten aldia da...».

«Platero ta biok» (38-39-40'gn. oŕialdeetan) Juan Ramón Jiménez. Ametzaga'taŕ Bingen'ek euzkeratuta.

EUN ETA BEŕOGETASEIGAŕEN IKASKAYA

ZER, ZERTU itzak.

ZER itza, galdetzekoa bezela ikasi dugunak, izena edo izenondoa legez, bizi oso zabala du, auxe adierazteko: izena bezela, *izana* dan guztia; izenondoa legez, *tasuna* dan oro.

Era berean, itz ortatik sortzen dan ZERTU aditzak ere, *egintza* dan guztia adierazten du (1).

Naiz ZER naiz ZERTU, eskuarte aundiak dira, itz egokiaren ordez erabiltzeko, itzegiten duenak, esan nai duen asmoa ondo adierazteko itz egoki ori gogoratzen eztuenean; oŕela, beaŕa zayon itza gogoratzeko, beta artzean ere.

Itz bi auek atzizki guziak aŕ ditzakete.

E. b.: Zer ekaŕi duzu? — *Zera* ... amari eman diodan ori, *gauza ori.*
Nora joan da aita? — *Zerera* ... joan da, atzo esan nizun etxera, *toki ortara* ...

Asmo bera oŕezaz, esabide oso erabiīiak ezagutzen dira; e. b.:

Bai zera! zerbait ukatzeko bezela.

Ez zera! ukatzen bati yardukitzeko bezela (2).

Ongi oaŕ ditekenez, *zera* (zer-a) itzak, emen, bayeztekoa dan *bai* ta ezeztekoa dan *ez* beste itzai, ostetasunezko zentzuna ematen die.

Ona emen ZER eta ZERTU itzen adibideak:

Zer dala ta? = *Zergatik*?; itz onen zentzunaz.

Zertarako? (Zetarako?) = *Zer egiteko*, esango baikenuen.

Zertan ari zera? = *Zer dagizu*?, edo, esateko.

Zer edo zer = *Zerbait, arean* (3).

Zerbait zertu du = Zerbait *egin* du, *gertu* du, *lortu* du, ...

Emen ari gera *zertzen* = Emen gera zerbait *egiten.*

---

(1) Ikusi: Azkue, Dic.
(2) Ikusi: 125'kn. ikaskaya.
(3) Ikusi: 66'gn. ikaskaya.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, izenorde artzaīeak ikusten dira, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen beste izenordeak; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion artzaīe-adizkiñak, baldintzaerazko ustekizunean ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idazten:

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		banintzaizu	...		...	banintzaye
Zu	Bazintzait		...	bazintzaigu		...
Bera	...	...	balitzayo	...	balitzaizue	...
Gu		bagintzaizkizu	...		...	bagintzaizkie
Zuek	Bazintzaizkit		...	bazintzaizkigu		...
Berak	...	...	balitzaizkio	...	balitzaizkizue	...

2. Emengo eginkizunean ematen ditugun esakuntzetan, baldintzaerazko ustekizunaren artzaīe-adizkiñak azaltzen dira; oyetako bakoitzean bere adizkiña da, aurka zayonaren bidez aldatu beaŕ dana, ots, adi-yabea artzaīearen bidez eta alderantziz, artzaīea adi-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Beaŕez zuri *aldenduko banintzaizu*, niretzat kaltegaŕia izango litzaidake; ... - Bidean *galduko bazintzait*, zer esango nieke zure gurasoai?; ... - Tokitik *aldatuko balitzaigu*, zaīa izango litzake gero beŕiz aurkitzea; ... - Gizon ankeŕ oyei *azpiratuko bagintzaizkie*, ituna izango litzake gure bizia; ... - Endoreari *suminduko bazintzaizkio*, etzenukete ezer lortuko iñoiz; ... - Atso oyek izoztuta dagoen kalean *leŕatuko balitzaizkit*, kaltegaŕia izango litzake guziontzat; ... - Obeto *arnastuko banintzaizue*, ene ustez eŕazago egingo nuke nire lana; ... - Lagunabaŕen artean osabai *bidekatuko bazintzaye*, noiz alkartuko ziñakete gero?; ... - Zuen bidean *zeartuko balitzaizue*, lana izango zenukete auŕera joan al-izateko; ... - Zerbait geyago *zearkatuko bagintzaizkizu*, uste dugu obeto igaroko ziñakela; ... - Nolabait *baretuko bazintzaizkigu*, obeto lo-egingo zenukete; ... - Geyago *malgutuko balitzaizkit*, egokiago gorde al-izango nituke; ...

3. Besteetan bezela, orain jartzen ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Ezer esan gabe auŕera igaroko bagintzaizkie, ziuŕ, asaŕetuko lirake: Nortzuk asaŕetuko lirake, ezer esan gabe auŕera igaroko bazintzaizkie?;

... - Ni asaŕetuko al nintzake, ezer esan gabe auŕera igaroko bazintzaizkit?; ... - Zuek asaŕetuko al ziñakete, ezer esan gabe auŕera igaroko banintzaizue?; Bai, gu ere ... -- Zure zalantzak ezabatu nai-izango nituke, zera ... oŕen kexu bizi ez zindezen: Nork nai-izango lituke nire zalantzak ezabatu onen kexu bizi ez nendin?; ... - Zertarako nai-izango zenituke gure zalantzak ezabatu?; ... - Guk ere zuen zalantzak ezabatu nai-izango al genituzke, oŕen kexu bizi ez zindezten?; Bai, zuek ere ... -- Ezin eraindu lizaigukete egun batean, gizaldi aunitzen egintza izan zana: Zer ezin eraindu lizaizuekete egun batean?; ... - Noiz ezin eraindu lizaidakete, gizaldi aunitzen egintza izan zana?; ... - Nik eraindu aal nizaizueke, gizaldi aunitzen egintza izan zana?; Ez, zuk ere ... -- Ezin egon gaitezke beti esamesaka, onurazko ezer egin gabe: Nortzuk ezin egon ditezke beti esamesaka, onurazko ezer egin gabe?; ... - Nola ezin egon zaitezkete, onurazko ezer egin gabe?; ... - Nola ezin egon naiteke beti, onurazko ezer egin gabe?; ... -- Aŕatsalde ontan uŕeratuko banintzaizu, zer esango lizukete zure lagunek?; ene ustez elidakete ezer esango nire lagunek, aŕatsalde ontan uŕeratuko bazintzait: Nori eliokete ezer esango bere lagunek, aŕatsalde ontan uŕeratuko banintzaizue?; ... - Zer ez ligukete esango gure lagunek, aŕatsalde ontan uŕeratuko bagintzaizkizue?; ... - Zuei ezer esango al lizuekete zuen lagunek, aŕatsalde ontan uŕeratuko bagintzaizkizue?; Eztugu uste, gure lagunek ... -- Ez gintzaizkizuekean ainbeste uŕutiratuko ain astiro ibiĩi ezpaziñate: Nortzuk ez zitzaizkigukean ainbeste uŕutiratuko ain astiro ibiĩi ezpagiña?; ... - Nola ez zitzaizkizuekean ainbeste uŕutiratuko?; ... - Ni uŕutiratuko al nintzaizuekean ain astiro ibiĩi ezpaziñate?; Ez, zu ere ... -- Lan bati lotua nabil eta amaitu dizayodanean bialduko diot: Nork bialduko dit egiten ari dan lana amaitu dizaidanean?; ... - Nori bialduko diozu egiten ari zeran lana amaitu dizayozunean?; ... - Nik ere, egiten ari naizen lana, bialduko al dizuet amaitu dizaizuedanean?; Bai, zuk ere ... -- Atzoko era berean aurkeztuko bazintzaigu, ez zindukegu iñoiz artuko: Nork ez ninduke iñoiz artuko atzoko era berean aurkeztuko banintzayo?; ... - Noiz ez nindukezute artuko, atzoko era berean aurkeztuko banintzaizue?; ... - Gu artuko al gindukezute iñoiz, atzoko era berean aurkeztuko bagintzaizkizue?; Ez, zuek ere ... -- Ez gintzaizkien erdu berak nai zutenean, ordu ura ez zegokigulako: Nor ez zitzayen erdu berak nai zutenean, ordu ura ez zegokiolako?; ... - Noiz ez zintzaizkigun erdu, ordu ura ez zegokizuelako?; ... - Niri ere ez al zintzaizkidan erdu nik nai nuenean, ordu ura ez zegokizuelako?; Noski, zuri ere ... -- An gengozkien beti zertzen (beti zerbait egiten): Nor zegokidan beti zertzen?; ... - Nortzuei zengozkieten beti zertzen?; ... - Ni ere beti zertzen al nengokizuen?; Bai, zu ere ... -- Mutil ausarti oyek etsiko balitzaizkigu, gure lan guztia alpeŕik izango litzake: Zer izango litzake alpeŕik, mutil ausarti oyek etsiko balitzaizkizue?; ... - Ni etsiko banintzaizue, zuen lan guztia ere alpeŕik izango al litzake?; ez, ... baño. - Eta gu etsiko bagintzaizkizue, zuen lan guztia ere alpeŕik izango al litzake?; Bai, ... -- Zerbait adoretu bazintzaizkit, zuengandik onura aundiagoa itxaron nezakean: Nork itxaron zezakean gugandik onura aundiagoa, zerbait adoretu bagintzaizkio?; ... - Nola itxaron zenezaketean nigandik onura aundiagoa?; ... - Zuek ere gugandik onura aundiagoa itxaron al zenezaketean, zerbait adoretu bagintzaizkizue?; Bai, ... -- Oŕen eŕazki kikilduko ezpazintzaigu, urtan iñor baño obeto murgil zindezke: Nor murgil liteke urtan iñor baño obeto, oŕen eŕazki kikilduko ezpalitzait?; ... - Nola murgil nindeke urtan, oŕen eŕazki kikilduko ezpanintzaizue?; ... - Zuek ere urtan iñor baño obeto murgil al zindezkete, oŕen eŕazki kikilduko ezpazintzaizkigu?; Bai, gu ere ... -- Bere beazun guzia ixuri balitzayo, ezin iŕikatu lezake ezer: Nork ezin iŕikatu lezake ezer, bere beazun guzia ixuri balitzayo?; ... -- Nola ezin iŕikatu zenezake ezer?; ... - Guk ezer iŕikatu al genezake, gure beazun guzia ixuri balitzaigu?; Ez, zuek ere ... -- Lasteŕ zerbait urtu al-izan ezpaligute, lantegia itxi beaŕ-izango genukean: Nortzuek itxi beaŕ-izango zuketean lantegia, lasteŕ zerbait urtu al-izan ezpaliete?; ... - Nola itxi beaŕ-izango zenuketean lantegia?; ... - Nik ere lantegia itxi beaŕ-izango al nukean, lasteŕ zerbait urtu al-izan ezpalidate?; Zalantzik gabe, zuk ere ...

4. Uŕengo bertsoak ongi irakuŕi beaŕ dira, Egubeŕi'rako oso egokiak diranak; gero, lenengo bi aapaldiak, gutxienez, buruz ikasi, buruz esan al-izateko, ta beren esan-nai sakona ondo ere ulertzean; bai ta bilduta dagozen aapaldiak nola deitzen diran esan ere:

«GORAZAŔE»

«Argia erne baño len,
Jesus, gizonen erostun,
Aita'k Beraren beteko
barnez baŕen erne zindun.

Aita'ren argi dirdaya,
guzion itxaropena,
entzun gaur gure eskaria
Ludi guzian baŕena.

Oroi, guzien Egiīe,
gure gorputzez jantzirik,
auŕ xume sortu ziñala
Neskutsa'ren sabeletik.

Urtero aitortzen dugu
Aita'ren barnetik egun,
atera gabe ateraz,
Zu zakigula Osasun.

Zeru, itxaso, ta legoŕ,
ba-dute gaur abes beŕi,
zerutik bizi beŕi bat
diguzula Zuk ekaŕi.

Guk ere Zure sortzean
poz-oyu egiten dugu,
ixuri odolarekin
garbituak baikaituzu.

Jesus, argitasun Zu'ri,
Ama Neskutsa'ren Seme,
Baita Gogo Guren'ari
Aita'rekin mendez-mende.
«Ala bedi».

«Urte guziko Meza-bezperak» (78'gn. oŕialdean) Orixe.

EUN ETA BEŔOGETAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

«IZAN» ADITZ LAGUNTZAĪEAREN ARTZAĪE-ADIZKIÑAK
AGINTZERA

Era ontako adizkiñen ERAKUS-BIDEA, 94'gn. ikaskayan ikusi ziranak betetzen dituztenak :

N- a)			(-Da)-T	-N
Z- a)			-ZU	
B- e)			-O	
	-KI-			
G- a)		-Z- -KI-	-GU-	-N
Z- a)		-Z- -KI-	-ZU-(T)E	
B- e)		-Z- -KI-	-E	

E. b. : Joan zakit aguro = Joan zaitez niri aguro.
Erdu zakizkigu lenbailen = Erdu zaitezte guri lenbailen.

«IZAN» ADITZ LAGUNTZAĪEAREN ARTZAĪE-ADIZKIÑAK
MENEKOERA

Era ontako ORAIÑALDI'aren adizkiñen ERAKUS-BIDEA, 103'gn. ikaskayan ikasi ziranak betetzen dituztenak :

N-			-Da-	
Z-			-ZU-	
D-			-O-	
	a) -KI-			-N
G-		-Z- -KI-	-GU-	
Z-		-Z- -KI-	-ZU-(T)E-	
D-		-Z- -KI-	-E-	

Onela : Igo nakion = Igo nadin berari.
Jetxi gakizkizun = Jetxi gaitezen zuri.

Era ontako LENALDI'aren adizkiñen ERAKUS-BIDEA, 111'gn. ikaskayan azaldu ziranak betetzen dituztenak :

N-e-N-			-Da-	
Z-e-N-			-ZU-	
Z-e-			-O-	
	-KI-			-N
G-e-N-		-Z- -KI-	-GU-	
Z-e-N-		-Z- -KI-	-ZU-(T)E-	
Z-e-		-Z- -KI-	-E-	

E. b. : Egon nenkien = Egon nendin berai.
Ibīli zenkizkigun = Ibil zindezten guri.

Menekoera'ren adizkin auen -N atzizkiaren ordez, beste auek ere jaŕi ditezke : -LA, -NEAN, -ARTE, eta abaŕ, lenago ere ikusi zanez.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan eta bere lenengo leŕoan, izenorde artzaīleak azaltzen dira, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen beste izenordeak ematen dira; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion artzaīle-adizkiñak, *agintzeran*, ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		...	nakion		nakizuen	...
Zu	Zakit		...	...		zakie
Bera	...	bekizu	...	bekigu	...	...
Gu		...	gakizkion		...	gakizkien
Zuek	Zakizkit		...	zakizkigu		...
Berak	...	bekizkizu	...	...	bekizkizue	...

2. Eginkizun ontan jartzen ditugun esakuntzetan, agintzeraren artzaīle-adizkiñak agertzen dira; ta oyetako bakoitzean, aurka zayonaren bidez aldatu beaŕ da, ots, adei-yabea artzaīlearen bitartez eta alderantziz, artzaīlea adi-yabearen bidez; kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Izan nakion aitari begirunez beteko semea; ... - *Erdu zakio* lenbailen endore jaunari; ... - *Alde-egin bekit* gazte aspergaŕi ori uŕutira; ... - *Jetxi gakizkizun* lan gogoŕ ontan gure laguntza ukan dezazun; ... - *Jeiki zakizkigu* goizago egun auetan baselizara garaiz eldu al-izateko; ... *Makuŕ bekizkizue* beaŕ dan aña, beren menpetasuna ageŕerazi dezaten; ... - *Ez nakien itzuli* amaŕetan baño beranduago; ... - *Ez zakit laŕitu* ainbeste, gizajo ori! ; ... - *Lotsa bekizu* zure aurka bete dituen ergelkeriengatik; ... - *Aldezkatu gakizkizuen* al dezakegun bezin ondo; ... - *Eskuperatu zakizkie* gogo onenaz beti; ... - *Alda bekizkigu* agintari oyek udaleko arazoak bide obean barna eramateko; ...

3. Beste ikaskayetan bezela, emen ere, galdera bakoitzari egokia izan dedin erantzun bana eman beaŕ zayo; kulatzen ordez, esanez eta idatziz :

Azkaltzen oso ondo eman beaŕ-izango didazute, aŕatsalde ontan ikustera etoŕ nakizuen : Nori eman beaŕ-izango diogu oso ondo azkaltzen, aŕatsalde ontan ikustera etoŕ dakigun? ; ... - Nola eman beaŕ-izango dizugu azkaltzen, aŕatsalde ontan ikustera etoŕ zakigun? ; ... - Guri ere azkaltzen oso ondo eman beaŕ-izango al diguzute, ikustera etoŕ gakizkizuen? ; Ez, ... baño. -- Etoŕ zakizkigu lenbailen, zuen beaŕean gaude-ta : Nork etoŕi beaŕ-izango du lenbailen zuengana, bere beaŕean zaudetela-ta? ; ... - Noiz etoŕi beaŕ-izango dugu zuengana, gure beaŕean zaudetelako? ; ... - Irakasleme oyek ere lenbailen etoŕi beaŕ-izango al dute zuregana, beren beaŕean zagozelako? ; Ez, oyek ez ... -- Ezin anpatu zitzaizkigun eskuak, jokaldi ura jokatu ondoren geneuzkan baño geyago : Zer ezin anpatu zitzaizuen, jokaldi ura jokatu ondoren zeneukaten baño geyago? ; ... - Nortzuei ezin anpatu zitzaizkien eskuak, jakaldi ura jokatu ondoren zeuzkaten baño geyago? ; ... - Niri anpatu aal zitzaizkidan eskuak, jokaldi ura jokatu ondoren neuzkan baño geyago? ; Ez, zuri ere ... -- Zugana jotzeak ainbeste neke eragin ez zizaizun, Iñaki gure adiskide onaren bitartez egin nuen : Zertarako egin zenuen ura Iñaki gure adiskide onaren bitartez? ; ... - Nork egin zuen ura Iñaki gure adiskide onaren bitartez, guregana jotzeak ainbeste neke eragin ez zizaigun? ; ... - Nik ura Iñaki gure adiskide onaren bitartez egin al nuen, zuengana jotzeak ainbeste neke eragin ez zizaizuen? ; Ez, zuk ez ... -- Joan gakizkie, lege-gizona itzul dedin eta akaŕ gaitzan baño lenago : Norengana joan beaŕ duzute, lege-gizona itzul dedin eta akaŕ zaitzaten baño lenago? ; ... - Noiz joan beaŕ duzu ayengana? ; ... - Nik ere zuengana joan beaŕ al dut, lege-gizona itzul dedin eta akaŕ nazan baño lenago? ; Ez, ... baizik. -- Goiz erdu nenkizuen, adionezko orduan zalburdi bat ipiñi zenizaidakete : Zer ipiñi genizaizuke adionezko orduan, goiz erdu zenkigun? ; ... - Zertarako ipiñi zenizayeke adionezko orduan, zalburdi bat? ; ... - Zuk ere adionezko orduan zalburdi bat ipiñi zenizaiguke, goiz erdu genkizkizun? ; Bai, nik ere ... -- Eldu zakizkigunartean, oturuntza onena gertu dizaizuekegu : Nork gertu dizaiguke oturuntza onena, eldu gakizkionartean? ; ... - Zer gertu dizaidakezute, eldu nakizuenartean? ; ... - Nik ere oturuntza onena gertu al dizayeket, eldu dakizkidanartean? ; Ez, zuk ez ... -- Igo zakizkigu zuen zai ain aspalditik gagozen tokira : Nork igo beaŕ du bere zai ain aspalditik zagozten tokira? ; ... - Nora igo beaŕ dugu? ; ... - Ayek ere igo beaŕ al dute, beren zai ain aspalditik nagoen tokira? ; Bai, ayek ere ... -- Asaŕetu gakizkizuen, egiazko zakurkeriak egin beaŕ-izango zenizkigukete : Nori egin beaŕ-izango genizkioke egiazko zakurkeriak, asaŕetu dakigun? ; ... - Zer

egin beaŕ-izango genizuke, asaŕetu zakizkigun?; ... - Niri ere egiazko zakurkeriak egin beaŕ-izango al zenizkidakete asaŕetu nakizuen?; Bai, zuri ere ... -- Oso eskeŕ oneko artuko nizuke bialdu aal zenizaidaken guzia: Zer artuko zenidake oso eskeŕ oneko?; ... - Nola artuko zenigukete bialdu aal genizaizueken guzia?; ... - Oyei ere eskeŕ oneko artuko zeniekete bialdu aal lizaizueketen guzia?; Bai, oyei ere ... -- Bada-ezpada, egun elkaiztun auek igaroten diranartean ezkutatu nintzakezute: Nor ezkutatu genezake, bada-ezpada, egun elkaiztun auek igaroten diranartean?; ... - Noiz ezkutatu zintzakegu, bada-ezpada?; ... - Nortzuk ezkutatu zenitzakete, bada-ezpada, egun elkaiztun auek igaroten diranartean?; Zuek ezkutatu ... -- Erdu bekizue sendagiĺe ori bereala ondo aztertu zaitzaten: Nor erdu beaŕ zaigu bereala, aztertu gaitzan?; ... - Noiz erdu beaŕ zait sendagiĺe ori, aztertu nazan?; ... - Guri ere sendagiĺe ori erdu beaŕ al zaigu bereala, aztertu gaitzan?; Bai, zuei ere ... -- Uŕeratu gakizkie zorigabeko oyei eŕuki aundienaz: Nori uŕeratu beaŕ zatzaizkio eŕuki aundienaz?; ... - Nola uŕeratu beaŕ zatzaizkie zorigabeko oyei?; ... - Ni ere eŕuki aundienaz uŕeratu beaŕ al natzaye zorigabeko oyei?; Bai, zu ere ... -- Izutu ez zakigun, garaiz eltzeko egiñalak egingo genituke: Nork egingo lituke alegiñak garaiz eltzeko, izutu ez nakion?; ... - Zer egingo zenukete, izutu ez nakizuen?; ... - Nik ere alegiñak egingo al nituke garaiz eltzeko, izutu ez dakizkidan?; Bai, zuk ere ... -- Kuzkurtu ez dakizkigunarte, guk bezela lan-eragin genizayeke: Nori lan-eragin zenizayokete zuek bezela, kuzkurtu ez dakizuenarte?; ... - Nola lan-eragin nizayoke, kuzkurtu ez dakidanarte?; ... - Ayek ere berak bezela lan-eragin al lizaigukete, kuzkurtu ez gakizkienarte?; Ez, ayek ez ... -- Erkitu nakienean, ez didate geyago eskatu al-izango: Nori ez diote geyago eskatu al-izango, erkitu dakienean?; ... - Noiz ez digute geyago eskatu al-izango?; ... - Zuei eskatu al-izango dizuegu geyago, erkitu zakizkigunean?; Ez, guri ere ...

4. Irakurgai-txatal au astiro irakuŕi beaŕ da, ta gero bertan aipatzen diran egaztiak nun bizi diran esan beaŕ da, bai ta norberak ezagutzen dituen beste egaztien izenak eta oyek ere nun bizi diran; itzez eta idatziz:

«NUN BIZI DIRA TXORIAK?»

«Besterik gabe, txori ezagunak datozkigu burura: Ormatxori, uso, zozo, eta artxoriak dira gure urietako bizi-lagunak eta goizetako kan-

tari beŕitsuak. Goazen landara. Emen egingo ditugu topo, txantxangoŕi, txepetx, karnaba, belamika, epeŕ eta beste solotaŕ eta menditaŕak asko.

Baña txori auek denak aipatzen badizkiogu Apirka'ko zerbait dakien bati, naiz Amazona-oyaneko auŕ indiaŕ bati, edo japondaŕ gazte bati, izen batek bakaŕ ere ez lioke ezer esango. Auentzat txori aŕotzak izango lirake guztiak.

Apirka'ko auŕ batek, beŕiz, landara doanean, ikusten dituen miĺaka txoriak aitatuko lizkiguke; ta papagayak beren margo urdin tanto goŕidunekin; eta pintardak beren luma urdin txurixkaekin; eta oin-zapalak eta anka luzeak airatuko lizkiguke. Amerika'ko indiaŕari, beŕiz, arak eta papagai isats-luzeak bururatuko litzaizkioke, ta ketzal aberaski apainduak, eta ibis izenekoak ondartzetan tanto goŕi diruditenak, eta kolibri izenekoak, aŕi-bitxiak bezin dizdizariak. Japondaŕ bati ere, lan gutxi izango litzayoke egunero txabola ondoan ikusten dituen zenbait txorien izenak ematea. Guretzat ezezagunak izango lirake denak, edo ta, noizpait baratz batean ikusitakoak, geyenera ere.

Txoriak, beraz, ez dira alde guztietan berdiñak. Batzuk, ba-dira bai besteak baño etsiagoak izanik, nun-naiko girotara jaŕi diranak. Beste batzuk, beŕiz, urteoro gure ondartzetara datozkigun xankaluzeak, eta txiŕiñak eta zaldunak eta zalduntxo txikiak bezela, urteoro Ludi'ari bira ematen diote. Ta ba-dira, alde guztietan daudela diruditenak ere. Edozein luŕaldetako kai guzietan, itxas-egaztiak berdiñak iruditzen zaizkigu; baña ez da ala. Ondo ezagutzen dituen batek, laxteŕ bereiziko ditu alako ta alako mota, ikusi utsez.

Zenbait txori, toki jakin-jakiñekoak dituzu. Paumeak, Ginea Beŕi'an eta ango inguruetan bakaŕik bizi dira. «Ave Lira» Australia'n bizi da bakaŕik, eta «Turan», beŕiz, Ameriketa'ko luŕ eŕeetan bakaŕik.

Luŕalde berotan, egazti-mota geyago da otzetan baño. Bero dagoen lekuak, loretan daude urte guzian, eta aletan eta xomoŕoz beteak. Ugaritu ere egin dira suetan egaztiak, eta askok ez dituzte egundaño uzten luŕalde berezi auek».

«Egaztien ludia», 6-7'gn. oŕialdeetan) Aranalde'taŕ Joseba - - Mirena'k euzkeratua.

EUN ETA BEŔOGETAZORTZIGAŔEN IKASKAYA

-LAN, -LANGO atzizkiak.

Lenengoa, -LA beste atzizkitik datoŕena (1), au bezela, erazko zentzunez, ageŕerazleai alkartzen zaye; bai ta ZER galdetzekoari ta onen ondorekoai ere; beren elkartuzkoak aditzondoak dira.

E. b.: One*lan*, oŕe*lan*, a*lan* = onela, oŕela, ala (2); Ze*lan*? = nola? Edoze*lan*, ze*lan*-nai = edonola, nola-nai (3).

-LANGO, bigaŕen atzizkia, -LAN'etik datoŕena, zentzun berekoa da, baña bere elkartuzkoak izenondoak dira.

Onela: One*lango*, oŕe*lango*, a*lango* = onelako, oŕelako, alako. Ze*lango* ere esaten da: Ze*lango*? = nolako?; Ze*lango*a-nai, edoze*lango*a = nolakoa-nai, edonolakoa.

-TAN atzizkia.

Zenbakitzai gañeraturik, «bideŕ»'en zentzuna du.

Onela: Iru*tan* = iru bideŕ; Lau*tan* = lau bideŕ; Asko*tan* = anitzetan; Gutxiago*tan* = bideŕ gutxiago (4).

Maiz, -TA- erdizki ta -N atzizkiaz eratua dago, -TA- erdizkiaren zentzunaz.

E. b.: Diru*tan* = dirua dala-ta; Txiki*tan* = aurtzaroan; Gazte*tan* = gaztezaroan.

Batzuetan, aŕitasunezko esakuntzetan, *aindoa* adierazten du.

Onela: Gizone*tan*, ba-zegoen! = bai, gizonak aunitz zegozela!

Uŕengo aditzondoak eratzen ditu: Bene*tan*, egi*tan* = egiz; Guzuŕe*tan* = gezuŕez; Olge*tan* = txantxetan.

MUGAGABETASUNA

26'gaŕen ikaskayan, mugagabetasuna nola egiten dan ikusi genuen, -IK atzizkiaren bidez. Ikaskai ontan, ori egiteko beste era dakusgu, -TAN atzizkiaren bitartez (-TA- erdizkia + -N atzizkia), -TA- antzekoa dana (5); eta ba-dugu, gauza bera egiteko, beste era berezia, atzizki batzuek, geyenetan mugitza daramatenak, mugitz ori gabe erabiltzean.

(1) Ikusi: 30'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 115'kn. ikaskaya.
(3) Ikusi: 51'gn. ikaskaya.
(4) Ikusi: 51'gn. ikaskaya.
(5) Ikusi: 53'gn. ikaskaya.

E. b.: Eztiot itzegin gizon*i* = Gizon bati ere ez diot itzegin.

Nire ametsak izan nituen, ez iñungo gizonagan edo emakumeagan, Yainkoa'gan baizik.

Atzizki oyen bitartez, 53'gaŕen ikaskayan esan zan -TA- erdizkia ta -N atzizkiaz gertatzen dana bera ageŕerazi diteke.

Onela: Mutīlari = mutil bati; Mutīlai = mutil batzuei; Mutīli = mutil batedobati. Gizon*agan* = Gizon*arengan*; Gizon*engan* = gizon batzuengan; Gizon*gan* = gizon batedobatengan.

-TEGI atzizkia.

Atzizki onek «tokia» adierazten du.

Onela: Gexo*tegi* = gexoen tokia; Sagardo*tegi* = sagardoa saltzen dan tokia; Arda*ntegi* = ardoa saltzen dan tokia; Egu*tegi* = egunen oŕitxoak dagozen tokia.

Zentzun oŕezaz, itza bezela ere erabiltzen da, «korta» adieraztean. Eta batzuetan be, «kopurua» esan nai du.

E. b.: Egur*tegi* = eguŕ-kopurua, edo eguŕa dagoen tokia; Mas*tegi* = mats-kopurua, ta ardantza ere.

Eskualde batzuetan, «etxea» bezela erabiltzen da.

Onela: Joana*tegi* = Yone'ren etxea; Apez*tegi* = apaizaren etxea.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, lenengo leŕoan, izenorde artzaīleak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen beste izenordeak ipintzen ditugu; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion artzaīle-adizkiñak, *menekoera*'ren, *orañaldian* jaŕi beaŕ dira; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		nakizun	...		...	nakien
Zu	Zakidan		...	zakigun		...
Bera	...	...	dakion	...	dakizuen	...
Gu		gakizkizun	...		...	gakizkien
Zuek	Zakizkidan		...	zakizkigun		...
Berak	...	...	dakizkion	...	dakizkizuen	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan ematen ditugun esakuntzetan, menekoeraren *oraiñaldiko* artzaīle-adizkiñak agertzen dira; oyetako bakoitzean,

aurka zaiyonaren bitartez aldatu beaŕ da, ots, adei-yabea artzaīearen bidez eta alderantziz, artzaīea adilyabearen bitartez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Ongi garbitu beaŕ dut nire burua irakasleari *urbil nakion*; ... - Oyek eztute nai berekin joan zaitezela, bidean berai *zeartu ez zakien*; ... - Niri *erdu dakidan*, ba-dakit beaŕ goŕi-goŕian egon beaŕ duela; ... - Arin ibīli gaitezen, *auŕeratu gakizkien*; ... - Gogoŕ jokatu beaŕ-izango dugu, guri *gibelera zakizkigun*; ... - Zuri *auŕeztu dakizkizun*, eztute alegin aundirik egin beaŕ; ... - Bearbada, ikaskayetan zuei *atzeratu nakizuela* gerta diteke; ... - Ia goizean goiz irteten ote zeran guri *berandu ez zakigun*; ... - Lasteŕ ibīliko da zuei garaiz *batu dakizuen*; ... - Oraintxe irten beaŕ dugu emendik, gurasoai bere orduan *etxeratu gakizkien*; ... - Begira ezazute ondo nun zabiltzaten, ustekabean alkaŕi *aldendu ez zakizkion*; ... - Isituki ari-izango dira jaun oyek, guri *alkaŕ dakizkigun*; ...

3. Emen azaltzen diran galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esaten eta idaztean:

Alan, bai gutxi egin beaŕ zenutela, ni pozik egon nenkizuela: Nork egin beaŕ zuen gutxi, zu pozik egon zenkiola?; ... - Nola egin beaŕ genuen gutxi, ura pozik egon zekigun?; ... - Nik ere gutxi egin beaŕ al nuen, ayek pozik egon zekizkidan?; Bai, zuk ere ... -- Gure laguntza guzia emango dizuegu, oŕelango loŕean eutsi zakizkigun: Nori emango diozute zuen laguntza guzia, oŕelango loŕean eutsi dakizuen?; ... - Zertarako emango diguzute zuen laguntza guzia?; ... - Niri ere beren laguntza guzia emango al didate oyek, oŕelango loŕean eutsi nakien?; Bai, oyek ere ... -- Batez beste, irureun eta beŕogetamaŕ gudari elduko litzaizkiguke: Nortzuei erduko litzaizkieke, batez beste, irureun eta beŕogetamaŕ gudari?; ... - Batez beste, zenbat gudari elduko litzaizueke?; ... - Niri ere, batez beste, irureun eta beŕogetamaŕ gudari elduko al litzaizkidake?; Ez, ... baño. -- Obeto elikatu bazinduztee, gaur ez zinduztekegu ikusiko oŕen aul eta argal: Nola ez gindukezute gaur ikusiko, obeto elikatu baginduzte?; ... - Nork ez ninduke gaur ikusiko onen aul eta argal, obeto elikatu banindute?; ... - Zu ere gaur oŕen aul eta argal ikusiko al zindukegu, obeto elikatu bazindute?; Bai, ni ere ... -- Itzegin beaŕ zan une ayetan isildu zenkiela nai zuten: Nortzuek nai zuten, itzegin beaŕ zan une ayetan isildu nenkiela?; ... - Noiz nai zuten ayek isildu genkizkiela?; ... - Oŕek nai al zuen, itzegin beaŕ zan une ayetan isildu zenkizkiola?; Bai, oŕek ere ... -- Obeak izatekotan, urbil zakizkie beŕiz

zuen aideai: Nortzuei urbilduko gatzaizkie, beŕiz, obeak izatekotan?; ... - Nola urbilduko natzaye, beŕiz, nire aideai?; ... - Obeak izatekotan, niri urbilduko al zatzaizkit, beŕiz?; Bai, ene ustez ... -- Makīlakadaz elbaŕitu gintzakete, baña etzuten egiten: Nork elbaŕitu zintzateke makīlakadaz eta etzuen oŕelakorik egiten?; ... - Nor elbaŕitu lezakete makīlakadaz, baña oŕelakorik etzuten egiten?; ... - Ni elbaŕitu al nintzakezute makīlakadaz?; Ez, guk ezin ... -- Berai joan genkizkienean, besoak zabal-zabalik joan beaŕ-izango genieke: Nola joan beaŕ-izango zeniekete, berai joan zenkizkienean?; ... - Nori joan beaŕ-izango nioke, berari joan nenkionean?; ... - Zuk ere besoak zabal-zabalik joan beaŕ-izango al zenidake, niri joan zenkidanean?; Bai, nik ere ... -- Ezin egin lizaigukete oŕelangorik; ezin siñistu dizaizukegu: Nork ezin egin lizaizueke oŕelangorik?; ... - Nortzuei ezin egin lizayekete oŕelangorik?; ... - Guk egin al genizaizueke oŕelangorik?; Ez, zuek ere ... -- Joseba Deun'aren bederatziuŕean ikusiko baninduzute, yayo-egongo nintzake, zuen laguntza euki nezake-ta: Nor yayo-egongo litzake Joseba Deun'aren bederatziuŕean ikusiko baginduzu?; ... - Nola egongo ziñake Joseba Deun'aren bederatziuŕean ikusiko baginduzu?; ... - Nork euki lezake nire laguntza, Joseba Deun'aren bederatziuŕean ikusiko banindu?; Atso gaixo oyek ... -- Oŕela uŕutiratu dakizkizuenean, ez jaramonik egin, itzuliko baitira: Nork eztu jaramonik egin beaŕ, oŕela uŕutiratu dakizkionean?; ... - Noiz eztugu jaramonik egin beaŕ, oyek itzuliko baitira?; ... - Nik ere ez al dut jaramonik egin beaŕ, oŕela uŕutiratu dakizkidanean, itzuliko baitira?; Noski, zuk ere ... -- Iñungo aŕotzari entzindu ez zakion, gogora ezazu guri jazo zitzaiguna: Nork gogoratuko du zuei jazo zitzaizuena, iñungo aŕotzari entzindu ez dakion?; ... - Nori entzindu ez gakizkion, gogoratuko dugu zuri jazo zitzaizuna?; ... - Zertarako gogoratuko duzute guri jazo zitzaiguna?; ... -- Geyegi artegatu ez zenkizkigula nai-izango genuke, berandutuko bagiña: Zer nai-izango zenukete, berandutuko banintz?... - Nola nai-izango zenukete artegatu ez genkizkizuela, berandutuko baziñate?; ... - Ni ere geyegi artegatu ez nenkizula nai-izango al zenuke, berandutuko baziña?; Bai, zu ere ... -- Buŕukari oyek erotu ez bekizkizue, gentzan bizi aal zaitezketen: Nortzuei ez zaizkie erotu beaŕ buŕukari oyek, gentzan bizi aal ditezen?; ... - Nortzuk ez zaizkigu erotu beaŕ, gentzan bizi aal gaitezen?; ... - Niri ere ez al zaizkit erotu beaŕ buŕukari oyek, gentzan bizi nadin?; Bai, zuri ere ... -- Ainbeste samintasunez atsekabetu ez zekizkigun, zer egin genezake?; ezta eŕez esatea zer egin zenezaketen, ainbeste samintasunez atsekabetu ez zekizki-

zuen: Nork eztaki zer egin lezaken, ainbeste samintasunez atsekabetu ez zekizkion?; ... - Zer ezta eŕez esatea?; ... - Guk al dakigu zer egin genezaken, ainbeste samintasunez atsekabetu ez zenkizkigun?; Ez, zuek ere ...

4. Ondo irakuŕi beaŕ da emen ematen dugun antzerki-atala, alkaŕ--izketa dana, ta gero, egīlea zer eta nungoa izan zan esan, bai ta bere lan bereziena nolakoa izan zan ere, ta, jakin ezkero, berberak egindako beste elertizko zerbait aipatu be; esanez eta idatziz:

«IRUGAŔEN AGEŔALDIA» «Madhav eta Amal»

Amal : Osaba, aizu, osaba...

Madhav : Zer nai duk, maite?

Amal : Ez al didazu utziko apuŕ bat gelatik ateratzen?;

Madhav : Ez, maitea, ez duk atera beaŕ...

Amal : Apuŕ-bat, besterik ez... Izebatxorekin joango naiz tilistak eyotzen ikustera... Begira kaīagoŕia exerita, bere buxtana īenīe-īenīe duela; begira nola artzen dituen pikoŕak bere eskuetan eta nola jaten dituen... Joango al naiz laixterka?

Madhav : Ez, maitea, ez...

Amal : Ai ni katagoŕi banintz! Nola jostatuko nintzaken!... Aizu osaba, zergatik ez duzu bada nai, ni joaterik?

Madhav : Sendagīleak gaitz egingo dikiala esan dialako, maite.

Amal : Eta berak nola daki ori?

Madhav : Oyek dituk ateraldiak ditukanak! Jakingo eztik bada, irakurtzen zitian idazti aundi oyetaz?

Amal : Eta idaztiek guzia esaten al dute?

Madhav : Jakiña; ez al ekian?

Amal : Nik zer dakit bada?... Nik idaztirik ez dut irakurtzen eta...

Madhav : Gizon jakintsuek, guzia zekiteanek, i bezelaxe egoten dituk, bein ere etxetik irten gabe...

Amal : Egitan? Beiñere ez?...

Madhav : Nola nai duk bada irtetzea? Jaikitzen dituanetik eta etzaten dituan arte irakurtzen ari dituk, eta ez zeukatek astirik, ezta

begirik ere, beste gauzetarako. I ere, aundia egitean, jakintsua izango aiz. Eta beti, etxean sartuta, idazti aundiak irakurtzen ari-izango aiz. Eta emendik igarotzen dituan guziek i begira geldituko dituk esanaz: Oŕek zekian, oŕek! Aŕitzekoa duk gero!

Amal : Ez, osaba, ez; ezta iñola ere; nik ez dut jakintsua izan nai; ez dut nai, ez dut nai...!».

«Amal» («Yakintza» aldizkaritik artuta - 6'gaŕen zenbakia, 422-3'gn. oŕialdeetan).

Rabindranath Tagore'ren antzerkia - Sabiaga'k euzkeratuta.

EUN ETA BEŕOGETABEDERATZIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

«IZAN» ADITZ LAGUNTZAĪEAREN ARTZAĪE-ADIZKIÑAK

ALMENERA

Era ontako ORAIÑALDI'aren adizkiñen ERAKUS-BIDEA, 124'gn. ikaskayan ikasi genituenak betetzen dituztenak :

N-		-Da-		
Z-		-ZU-		
D-		-O-		
a) -KI-				-KE
G-	-Z-	-KI-	-GU-	
Z-	-Z-	-KI-	-ZU-(T)E-	
D-	-Z-	-KI-	-E-	

E. b. : Itzuli zakidake = niri itzuli aal zatzait.
Uŕundu gakizkioke = berari uŕundu aal gatzaizkio.

Era ontako LENALDI'aren adizkiñen ERAKUS-BIDEA, 124'gn. ikaskayan azaldu ziranak betetzen dituztenak :

N-e-N-		-Da-		
Z-e-N-		-ZU-		
L-e-		-O-		
-KI-				-KE
G-e-N-	-Z-	-KI-	-GU-	
Z-e-N-	-Z-	-KI-	-ZU-(T)E-	
L-e-	-Z-	-KI-	-E-	

E. b. : Uŕeratu nenkizueke = Zuei uŕeratu aal nintzaizuen.
Irten zenkizkiguke = Guri irten aal zintzaizkigun.

EZIÑERA, beti bezela, EZIN itzaren bidez egingo dugu.

Onela : Ezin sartu zakiguke = Guri ezin sartu zatzaigu.
Ezin eseri genkizkieke = Berai ezin eseri gintzaizkien.

Len, 124'gaŕen ikaskayan egin zan bezela, LENALDI'aren era oyei, -AN atzizkia gañeratzen badiegu, eta irugaŕen notiñetan, asteko L- igidiñaren ordez, Z- jartzen badugu, LENAGOKO GEROALDI'arenak eratuta izango dira.

Onela : Jaŕi NENKIZUKEAN = Zuri jaŕi aal-izango nintzaizukean.
Aldendu ZEKIDAKEAN = Niri (edo : nigandik) aldendu aal-izango zitzaidakean.

Geratu GENKIZKIZUEKEAN = Zuei geratu aal-izango gintzaizkizuekean.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, bere lenengo leŕoan, izenorde artzaĪeak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen beste izenordeak ere; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion artzaĪe-adizkiñak, *menekoera*'ren *lenaldian* jaŕi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		...	nenkion		nenkizuen	...
Zu	Zenkidan		...	...		zenkien
Bera	...	zekizun	...	zekigun	...	...
Gu		...	genkizkion		...	genkizkien
Zuek	Zenkizkidan		...	zenkizkigun		...
Berak	...	zekizkizun	...	...	zekizkizuen	...

2. Beste eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan, menekoeraren lenaldiko artzaĪe-adizkiñak azaltzen dira; oyetako bakoitzean, notiñari aurka zayonaren bidez aldatu beaŕ da, ots, adei-yabea artzaĪearen bitartez eta alderantziz, artzaĪea adi-yabearen bidez; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Ene ustez, an jazo zana, *poztu nenkizuen* izan zan; ... - Eztakit zer egin genezaken *itundu ez zenkigun*; ... - Aŕetaz ibiĪiko nintzakean, lasterkari ura *igaro ez zekidan*; ... - Lagundu beaŕ-izango gindukezuan, ain laisteŕ *geldi ez genkizkizun*; ... - Alegiñak egin beaŕ-izango zenituzketean egokienik *abiatu zenkizkien*; ... - Geyago aŕendu beaŕ-izango ziekean gazte oyei, an bertan *gera zekizkion*; ... - Egunero *egurastu nenkizun*, betetzeko lan gutxiago euki beaŕ-izango nukean; ... - Alegiñak egingo lituzkete zure gurasoek, ondo *bideratu zenkien*; ... - Aŕen eta aŕen eskatu nion, beaŕ zan bezela *norabidetu zekizuen*; ... - Zure oldozpenetan geyago *sakondu genkizkizuela* nai zenuen; ... - Egokia zanez, obeto jokatu beaŕ-izan zenuten, eskatu genizuen bezela *zabaldu zenkizkigun*; ... - Nire asmoetan ondo *baŕendu zekizkidan*, ongienik azaldu nien nolakoak ziran; ...

3. Oitura dugunez, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Kalera nai dezadanean jetxi nakizuke, ez izan ezpairik: Nor jetxi dakidake kalera nai dezanean?; ... - Nora jetxi zakidake, nai dezazunean?; ... - Zuek ere nai dezazutenean kalera jetxi al zakizkiguke?; Bai, gu ere ... -- Elizatik irten gindezenean uŕeratu zenkiguke: Nortzuei uŕeratu nenkieke, elizatik irten zitezenean—; ... - Nor uŕeratu lekizueke, elizatik irten zindeztenean?; ... - Ni ere uŕeratu al nenkioke, elizatik irten zediñean?; ... -- Ausartu al zakidake, gauzak, beaŕ dan bezela, garbiro, ez egiteko?; ez, ni ezin ausartu nakizuke, gauzak oŕela ez egiteko: Nor ezin ausartu dakiguke, gauzak, beaŕ dan bezela, garbiro, ez egiteko?; ... - Nola ezin ausartu dakizkiguke oyek gauzak beaŕ dan bezela, ez egiteko?; ... - Zuek ausartu al zakizkiguke, gauzak beaŕ dan bezela, garbiro, ez egiteko?; Ez, gu ere ... -- Ez eta bein ere ezin auŕeratu genkizkizueke, beti azkaŕegi zinjoaztelako: Nortzuk ez eta bein ere ezin auŕeratu lekizkiguke, beti azkaŕegi ginjoazelako?; ... - Zergatik ezin auŕeratu zenkidake, ez eta bein ere?; ... - Ni auŕeratu al nenkioke, ain azkaŕ zijoalarik?; Ez, ... -- Aldez edo moldez, ez zegozten iñoiz geldi, ta gure matazak eraintzen zizkiguten: Nortzuek eraintzen zizkizueten zuen matazak, aldez edo moldez iñoiz geldi ez zegoztelako?; ... - Zer eraintzen zizuen oŕek, aldez edo moldez, iñoiz geldi etzegoelako?; ... - Nik ere zuen matazak eraintzen al nizkizuen, aldez edo moldez iñoiz geldi ez nengoelako?; Ez, ... baño. -- Zure arloak eraztu dakizkizun, zaitu itzazu zeroŕek!: Nork zaitu beaŕ ditu bere arloak eraztu dakizkion?; ... - Zer zaitu beaŕ dugu gerok, eraztu dakigun?; ... - Oŕek ere bere arloak zaitu beaŕ al ditu, eraztu dakizkion?; ... -- Ezin gera nakizuke zure etxean luzaroago: Nor ezin gera dakidake nire etxean luzaroago?; ... - Nun ezin gera zakidake luzaroago?; ... - Zuek gure etxean luzaroago gera aal zakizkiguke?; Ez, gu ere ... -- Zorabiatu zakizkiguke, zuurtasunez jokatzen ezpaduzute: Nortzuk zorabiatu dakizkizueke, zuurtasunez jokatzen ezpadute?; ... - Nola zorabiatu nakizueke?; ... - Ori ere zorabiatu aal dakiguke, zuurtasunez jokatzen ezpadu?; Bai, ori ere ... --Etxeko neskatiłak lotsatu lekizkizuke, oŕela agertuko bazintzayen: Nortzuk lotsatu lekizkidake, onela agertuko banintzaye?; ... - Zu lotsatuko al zenkiguke, onela agertuko bagintzaizu?; ... - Eta ni ere lotsatu al nenkizueke, oŕela agertuko ba zintzaizkit?; Bai, zu ere ... -- Eman ezaizkiezute auŕoyalak seinzai oyei, lenbailen garbi ditzaten: Nortzuei emango dizkiegu auŕoyalak, lenbailen garbi ditzaten?; ... - Zer emango diezute seinzai oyei, lenbailen garbi dezaten?; ... - Niri emango al dizkidazute auŕoyalak, lenbailen garbi ditzadan?; Ez, ... baizik. -- Orduan lekoratu ezin bazintzate, zure biziko uŕats onena emango zenuke: Nork emango luke bere biziko uŕats onena, orduan lekoratu ezin balezate?; ... - Zer emango nuke, orduan lekoratu ezin banintzate?; ... - Guk ere gure biziko uŕats onena emango al genuke, orduan lekoratu ezin bagintzate?; Bai, zuek ere ... -- Jardetsi ez zizaiguten, neurtu dezagun ongi esango geniena: Nork neurtu beaŕ du ongi esango ziena, jardetsi ez zizayoten?; ... - Zertarako neurtu beaŕ dut nik ongi, esango niena?; ... - Zuk ere esango zeniena ongi neurtu beaŕ al duzu, jardetsi ez zizaizuten?; Bai, nik ere ... -- Uste dut elburura eldu baño lenago, geldi lekizkigukela: Nork uste du, elburura eldu baño lenago, geldi lekizkiokela?; ... - Zer uste duzu?; ... - Zuek ere uste al duzute, elburura eldu baño lenago geldi lekizkizuekela?; Bai, guk ere ... -- Ezin murgil dakizkidake, beti beren ondoan eukiko nautelako: Nori ezin murgil dakizkioke, beti beren ondoan eukiko dutelako?; ... - Zergatik ezin murgil dakizkizueke?; ... - Zuek murgil aal zakizkigukete?; Ez, gu ere ... -- Eztakit okildu ote nenkieken, oso oldarkoŕa ezpanadin ere: Nork eztaki okildu ote legiguken, oso oldarkoŕa ezpadedin ere?; ... - Zuek al dakizute okildu ote zenkizkiguken, oso oldakoŕak ezpazaitezten ere?; ... - Eta mutikote oyek al dakite okildu ote lekizkiguken, oso oldarkoŕak ezpaditezen ere?; Ez, ...

4. Ongi irakuŕi beaŕ da uŕengo idazti-txatala, gero zeatz auek ongi aipatzeko: Ortan agertzen diran Luka, Paul, Timote ta Tit nortzuk izan ziran, zeri buruz egin zituzten beren arteko aŕemanak, zein ote zan ayek ziarduten erakundea, ta aŕeman ayek noizkoak izan ziran:

«V) IDAZTI ONEN EGIA»

«Orain arte esandakoak ageŕerazten dutenez, Luka'k idatziari siñetsi beaŕa diogu, idazle yakintsu ta egitia baitzan, Yainkoa'ketz egiña alde bat utzi izanaŕen.

Zeatzago aztertu dezagun, ordea. Auŕenik, Paul'en idazkiak ta Bidalien Egiñak leŕokatu ditzagun. Oraingo idazle geyentsuen iritziz, Paul'en eskutitzik ez omen zuen ezagun Luka'k, gai bera bakoitzak berez-bere azaltzen baitu. Irulez, zenbait atal bestetara idatzi bide zituen Luka'k. Amaikatxo alegin egin dituzte sasi-yakintsuek Paul'en eta Luka'ren esa-

nak mokoz-moko dirala egiztatzeko. Alpeŕik! Ayen ustea ustel atera da. Oyen idazkiak, beŕiz, ez dira ezertan buruzki azaldu: batek esana, ordea, besteak osoagotu ta biribilagotu egiten du. Nork bere ikuspegia du: bata edestilaria duzu, bestea, beŕiz, izlaria. Galatiaŕ'ei Paul'ek idatzi zien idazkia irakuŕi izan balu Luka'k, ango zenbait beŕi yakingaŕi beretuko zituen, noski baño noskiago. Era berean, Korinto'koei Paul'ek idatzi zizkien bi idazkiak, Luka'k ezagunak izan balitu, Bidali'ak bertan izan zituen oztopoen beŕi emango zuen, nik uste, baita Timote'k egiñak aipatu ere.

Areago oraindik: gairik nagusietan Paul'en idazkiak eta Luka'ren idazti au bekaldetu ditzagun, Paul'en idazkiak gora andia baitute sasi-yakintsu oyen aitoŕez ere.

Auŕenik, Bidali'en Egiñetan Paul yudu zala ageri da (XXI, 39; XXII, 3), parisaitaŕa ta parisaitaŕen semea (XXIII, 6) ta ayen legeko alderdirik zoŕotzenaren arauz bizi izana (XXVI, 5). Oŕelaxe azaltzen du bere burua Paul'ek, berak idatzitako eskutitzean: «Zortzi eguneko erdaindu au, Israel eŕoko Benyamin leñuko, ebertaŕengandik ebertaŕ, legez parisaitaŕ ta azkuz Elizaren yazarle, legebidean akarkizunik gabe ibilia naizan au» (Pl. III, 4-5).

Paul'ek, beŕiz, Eliza'ri itxesa zekarkiola, gizon eta emakumeak atzi ta baitegira eramateko etxerik-etxe sartuz, ta Yaun'aren ikasleen aurka oraindik zema-saŕaskiak zeriotzala (VIII, 1-3; IX, 1-2), Yesukristo'ren langile autua bilakatu zan alazki (IX, 3-6; 15-22), Luka'ren aitoŕez. Paul'en esanez, berebat, Yainkoa'ren eliza biziro ezetsi ta erasotzen ari zala, beraren Semea ageri izan zitzayon, Aren Beŕi Ona atzeŕietan zabaldu zezan, ta berbertatik, Yesu'ren esanetara etoŕi zan (Gal. I, 13-16; I Tim., I, 13; I Kor. IX, 1; XV, 8); Damasko'n Paul galtzeaŕen gau ta egun atezai zeudela yuduak ura iltzeko, «ikasleek gauez bera arturik saski batean ormatik landara eratxi zuten» (IX, 25), Luka'k dionez».

«Bidalien egiñak» (21-22'gn. oŕialdeetan) Zaitegi ta Plazaola'taŕ Yokin.

EUN ETA BEŔOGETAMARGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

«IZAN» ADITZ LAGUNTZAILEAREN ARTZAILE-ADIZKIÑAK ALMENERA'ZKO USTEKIZUNA

Era ontako ORAIÑALDI'aren adizkiñen ERAKUS-BIDEA, 135'kn ikaskayan ikasi genituenak betetzen dituztenak:

	-N-		-T
	-Z-		-ZU
	-D-		-O
AL BA-	a) -KI-		
	-G-	-Z- -KI-	-GU-
	-Z-	-Z- -KI-	-ZU-(T)E
	-D-	-Z- -KI-	-E

E. b.: Erdu al banakie = berai erdu aal banatzaye.
Gogaitu al bazakit = niri gogaitu aal bazatzait.

Era ontako LENALDI'aren adizkiñen ERAKUS-BIDEA, 135'kn. ikaskayan agertzen ziranak betetzen dituztenak:

	-N-e-N-		-T
	-Z-e-N-		-ZU
	-L-e-		-O
AL BA-	-KI-		
	-G-e-N-	-Z- -KI-	-GU
	-Z-e-N-	-Z- -KI-	-ZU-(T)E
	-L-e-	-Z- -KI-	-E

E. b.: Ausartu al bagenkizkizu = zuri ausartu aal-izango bagintzaizkizu.
Ezkutatu al bazenkizkie = berai ezkutatu aal-izango bazintzaizkie.

EZIÑERA'ZKO USTEKIZUNA, besteetan ere egin dugunez, EZIN itzaren bitartez dagigu.

Onela: Atera ezin bagakizkio = berari atera ezin bagatzaizkio.
Eldu ezin bazenkizkit = niri eldu ezin-izango bazintzaizkit.

EGINKIZUNAK

Emen damagun laukian, bere lenengo leŕoan, izenordę artzaīeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen beste izenordeak be; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion artzaīe-adizkiñak, *almenera'*ren *oraiñaldian* ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idaztен:

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		nakizuke	...		...	nakieke
Zu	Zakidake		...	zakiguke		...
Bera	...	...	dakioke	...	dakizueke	...
Gu		gakizkizuke	...		...	gakizkieke
Zuek	Zakizkidake		...	zakizkiguke		...
Berak	...	...	dakizkioke	...	dakizkizueke	...

2. Eginkizun ontan damazkigun esakuntzetan, almeneraren oraiñaldiko artzaīe-adizkiñak agertzan dira; oyetako bakoitzean, notiñari aurka zayonaren bitartez aldatu beaŕ da, ots, adei-yabea artzaīearen bidez eta alderantziz, artzaīea adi-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Ba-diteke oso bakana *irudi nakizukela*, baña ezinbestekoa zait onela agertzea; ... - Oŕenbeste *ilundu ez zakiguke*, emen geratuko gera zurekin; ... - Sukaldeko sua *itzali ez dakidaken*, aŕetaz zainduko dut luzaroago; ... - Gizon maltzuŕak *bīlakatu gakizkizueke*, baña ortarako gurasoek irakasi digutena aiztu beaŕ-izango genuke; ... - Ongi begiratu zer egin beaŕ duzuten, gizajo oyei geyegi *gartu zakizkieke-ta*; ... - Ume oyek nola ibīlī diran jakin dezagun, beaŕa izango zaigu *argitu dakizkigukela*; ... - Ene osasuna ondo zainduko dut, semeai *kutsutu ez nakieken*; ... - Oñak nun jartzen dituzun begiratu beaŕ duzu, bestela *zikindu zakieke*; ... - Sendo egin beaŕ du oŕek bere maŕezkia bereala *ezabatu ez dakiokela* nai badu; ... - Oŕek uste ezpadu ere, eŕazki *oldartu gakizkioke*! ... - Ongienik zaintzen ezpazaituztegu, laisteŕ *arindu zakizkiguke*; ... - Zer egingo zuen aita oŕek beren semeak *iraun dakizkioken*?; ...

3. Beste ikaskayetan egin dugun bezela, emen ere uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Gero, ikasgura joan nadiñean urbildu al bazakit, ez utzi ori egin gabe: Nork eztu egin gabe ori utzi beaŕ, gero, ikasgura joan zaitezenean, urbildu al badakizu?; ... - Noiz urbildu aal nakizuke?; ... - Zuek, gero,

ikas gura joan gaitezenean, urbildu al bazakizkigu, egingo al duzute ori?; Bai, guk ... -- Gauerdia baño lenago eldu al bazenkizkigu, etzaigu otutzen zergatik ez ziñaten eldu uŕengo goize arte: Nori etzayo otutzen uŕengo goize arte zergatik ezkiñan eldu, gauerdia baño lenago eldu al bagenkizkio?; ... - Zer etzaizue otutzen?; ... - Niri otutzen al zait, gauerdia baño lenago eldu al bazenkit, uŕengo goize arte zergatik eldu ez ziñan?; Bai, zuri ... -- Ezin erdu nenkizueke batera ta bestera aldi baten; oŕengatik ez nintzaizuen joan orduan zuengana: Nor ezin erdu lekiguke batera ta bestera aldi baten?; ... - Nora ezin erdu zenkiguke aldi baten?; ... - Gu erdu al genkizkizueke aldi baten batera ta bestera?; Ez, zuek ere ... -- Ezin isildu gatzaizkieke, ta entzun nai eztutena esango diegu: Nori ezin isildu zakizkioke?; ... - Guri isildu al zakizkiguke?; ... - Eta ni isildu al nakizueke?; Ez, zu ere ... -- Atseden zenkizkidake, igaro zenituzten ainbeste lan eta neke ondoren: Nori atseden genkizkioke, igaro genituen ainbeste lan eta neke ondoren?; ... - Noiz atseden genkizkizuke?; ... - Ni ere atseden al nenkizueke, igaro nituen ainbeste lan eta neke ondoren?; Bai, zu ere ... -- Obeto ezagutu al bagintzate, elukete izango gutzaz duten iritzi auengaŕia: Zer ez lukete izango, obeto ezagutu al bazintzatee?; ... - Nik zuetzaz iritzi auengaŕirik izango al nuke, obeto ezagutu al bazintzatet?; ... - Gutzaz iritzi auengaŕirik izango al zenukete, obeto ezagutu al bagintzazute?; Ez, guk ere ... -- Gaiztakeri gabe uŕutiratu al bazakizkit, enintzake geyegi estutuko: Nor elitzake geyegi estutuko, gaiztakeri gabe uŕutiratu al banakizu?; ... - Zuek estutuko al ziñakete, gaiztakeri gabe uŕutiratu al bagakizkizue?; ... - Nola ez ziñake estutuko, gaiztakeri gabe uŕutiratu al badakizu?; Geyegi ... -- Ezin jaŕaitu lekizkizueke oŕela, ori bezelako ergelkeriaz: Nor ezin jaŕaitu legiguke oŕela, ori bezelako ergelkeriaz?; ... - Nork eztaki zer egingo luken, zeaztasunez eldu ezin balekizkio?; ... - Nik al dakit zer egingo nuken, zeaztasunez eldu ezin bazenkit?; Ez, zuk ere ... kizkit!: Zer egingo zenuke zeaztasunez eldu ezin bagenkizkizu?; ... - Nork eztaki zer egingo luken, zeaztasunez eldu zin balekizkio?; ... - Nik al dakit zer egingo nuken, zeaztasunez eldu ezin bazenñit?; Ez, zuk ere ... -- Ezin ukan genizaizuke uŕuiñik: Nori ezin ukan zenizaiokete uŕuiñik?; ... - Zer ezin ukan zenizaidake?; ... - Nik ukan al nizaizueke uŕuiñik?; Ez, zuk ere ... -- Beaŕezko eraspenez egon al balekizkigu!: Pozik egongo al ziñakete beaŕezko eraspenez egon al balekizkizue?; ... - Nola egongo ziñake beaŕezko eraspenez egon al balekizkizu?; ... - Ni ere pozik egongo al nintzake, beaŕezko eraspenez egon al balekizkit?; Bai, zu ere ... --

Giza-garaitasunez bizi ezin bazenkit, obe izango da gugandik aldendu zakigula: Zer izango da obe, giza-garaitasunez bizi ezin banenkizu?; ... - Txaŕago izango al da, zuengandik aldendu gakizkizuela, giza-garaitasunez bizi ezin bagenkizkizue?; ... - Ni ere giza-garaitasunez bizi ezin banenkizue, uste al duzu zuengandik aldendu nakizuela obe izango dala?; Bai, zu ere ... -- Zeken aundienak bezelako muŕizkeri berberaz zeŕaizten beti: Nortzuek bezelako muŕizkeri berberaz zeneŕaizten?; ... - Nola geneŕaizen beti?; ... - Zu ere zeken aundienak bezelako muŕizkeri berberaz al zeneŕaizen beti?; Ez, ni ez ... -- Ugarte ayetako basati ayen artean, ontasunez beterik zebilzkigun: Nor zebilkizuen ugarte ayetako basati ayen artean ontasunez beterik?; ... - Nola zebilzkidan ugarte ayetako basati ayen artean?; ... - Ni ere al nenbilkizuen ugarte ayetako basati ayen artean, ontasunez beterik?; Ez, ... baño. -- Arazo oyetan beaŕa dan zentzutasunez, ari al balekizkizu!: Lasai egon al nindeke, arazo oyetan beaŕa dan zentzutasunez ari al balekizkit?; ... - Nola egon zindezkete, arazo oyetan beaŕa dan zentzutasunez ari al balekizkizue?; ... - Aitona ori ere lasai egon al liteke, arazo oyetan beaŕa dan zentzutasunez ari al balekizkio?; Bai, aitona ori ere ...

4. Ongi irakuŕi beaŕ dira uŕengo bertsoak, gure olerkari onenen batenak izanik, bere ametsa ere ondo ulertzeko; gero, ongi ikasi olerkari oŕen izena, nun jayoa dan, bere bizibidea zein dan eta nun bizi dan bere urte geyenetan barna:

«EUZKERA, OI EUZKERA!»

«Euzkera, oi Euzkera!, zugan da gorderik
Mendez-mende egoki Euzkaldun-gogoa,
Ez baitzayoke urbil kanpoko gezuŕik.
Euzkera, Euzkera, jalgi adi kanpora!
Euzkaldun gaitzen kaŕa, amaren goxoa,
Itxas, mendi-azantzak dauzkazu, Euzkera!
Zu zare Arbasoek utzi ats beroa...
Euzkera, Euzkera...

Begiratzen gaituzun mintzaira xaaŕa,
Gazteen biotzetan dana su ta soñu...
Pil-Pil ari zareno oro salbu dira.
Euzkera, Euzkera...

Kanpozale baikira geroak lazten nu;
Bañan itzal litake aŕotzaren menta,
Doakizun jauntzia gaurgoiti bazinu...
Euzkera, Euzkera...

Ez egon iĺunpean; zatoz jauntzi-keta
Uŕez eta iduzkiz jantziko baitzitut...
Ageŕ zaite, Euzkera, xuti ordu baita.
Euzkera, Euzkera...

Argi-ziŕintan ganik bilduko dauzkitzut
Loreak, itz beroak ta zeru-pindaŕak,
Nere biotz pil-pirez josiko baititut.
Euzkera, Euzkera...

Ageŕ zaite, Euzkera, utz pilda zaaŕak.
Emazu ba soñean jauntzi kartsu ori,
Gaindi egiten baitaut nere gazte kaŕak.
Euzkera, Euzkera...

«Miĺa euzkal-olerki edeŕ» (1.151'gn. oŕialdean) Xabier Diarze aita, «Iratzedeŕ».

(olerkariak «eskuara» itza darabil; baña guk «euzkera» jaŕi dugu, itz au egokia dalakoan eta geyago ere erabiltzen dalako).

EUN ETA BEŔOGETAMAIKAGAŔEN IKASKAYA

BESTE IZKIAK

Euzkal-izki nagusienak ikasi ditugularik, emen ipintzen ditugu beste batzuk geyago; naiz auek naiz orain arte ikusi ditugunak, ongi ta sakon aztertzeko, Azkue'ren «Itzen Eite»'an eta «Iztegi»'an aurki diteke bide onenetakoa; ta lan oyek izan dira oŕialde auek idazteko artu dugun oñaŕi nagusia. Ona emen beste izki oyek zeintzuk diran :

-ABA — Aidego-zentzunaz, itz auetan agertzen da : Ugaz*aba*, os*aba*, as*aba*, al*aba*.

-ALA — Izan diteken guzia esan nai du. E. b. : Egiñ*ala* = egin diteken guzia, azantza (asmoa bera adierazteko «alegin» ere esaten da); Ekaŕi*ala* = ekaŕ diteken guzia; Ikusi*ala* = ikus diteken guzia.

-ALDI — «Aldi», «Epe», «Txanda»'ren asmoak adierazten ditu. Onela : Egur*aldi* = eguaren giroa; Itz*aldi* = eleketa; Ibīl*aldi* = txango; Gure *aldia* = gure txanda (emen itza bezela agertzen da).

-AT — Norabide-zentzuna du. -RA (1) bezelakoa. Onela : Etxer*at* = etxera; mendir*at* = mendira; On*at*, un*at* = onera, ona.

-BER — «-Ezkero»'ren zentzuna du. E. b. : Gaiztoa dan*ber* = gaiztoa danezkero. Igo diran*ber* = igo diranezkero.

-DIN — «Antza»'ren zentzuna du. E. b. : Ur*din* = uraren antzeko margoa; Gor*din* = eldugabea, «goŕi»'ren antzekoa; Ber*din* = ideko, «beŕi»'ren antzekoa.

E- — Galdetzeko'en eratoŕitako'etan agertzen da (2) : *E*zer, *E*zein, *E*zergatik, *E*zelan, ...

-E- — (3) Askotan soñu biguingaŕi bezela erabiltzen da, batez ere bi igidiñen topoa izan ez dedin. Onela : Ĩeko (iī-*e*-ko); Bateko (bat-*e*-ko); Norekin? (nor-*e*-kin); Egin du*e*na (egin du-*e*-na).

(1) Ikusi: 5'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 51'gn. ikaskaya.
(3) Ikusi: 111'gn. ikaskaya.

-E — Bizkaya'ko alderdi batzuetan erabiltzen da, -*A* mugitzaren ordez. Onela : Arpegi*e* = arpegi*a*; Esku*e* = esku*a*.

-ETZ — BAI ta EZ itzai alkartzen zaye, zentzunari indaŕa emateko, onela egiten : Bay*etz*, Ez*etz*.

-EZIA — -TASUN (1)'en zentzunaren antzekoa du. E. b. : On*ezia* = on*tasun*; Aul*ezia* = aul*tasun*; Art*ezia* = antz*etasun*.

I- — Au ere, galdetzeko'en eratoŕitako'etan agertzen da (2) : Onela : *I*ñor, *I*ñoiz, *I*ñoiz ez, *I*ñun, ...

-I- — Batzuetan, aditzaren barnean, «itato» edo «itano»'ren zentzuna du, ta besteetan, laguntzaīearen eŕoa izaten da. Noizpait ere, *U* ta beste gedin baten artean sartzen da. E. b. : Na*i*agok = nagokik; Eman d*i*ot = berari eman diot; Egin duzuya? = egin al duzu? Adibide ontan, azken -A oŕek, galdetzeko erabīli dugun AL itzatalaren zentzuna du.

-I — Zeaŕezko zentzuna dama. Onela : Mikel'*i*; On*i*, oŕ*i*, ar*i*. Aditz askoren mugarazlea izaten da : Etoŕ*i*, Ibīl*i*, Ekaŕ*i*.

-IKAN — (-TIKAN), -*IK* beste atzizkiaren gañezkoa da, bere zentzunak berak adierazteko. Onela : Ardantegi*tikan* = ardantegi*tik*; Gazte-gaztetat*ikan* = gazte-gaztetat*ik* (Ipaŕagiŕe'ren abestia).

-KETZ — «Norbaiten izen*e*z» zentzuna adierazten du. E. b. : Ni-*ketz* = nire izenez. Geyenetan norekiko izenordeai alkartzen zaye. Asmo ori bera, ALDEZ itz onen bidez, eman diteke, baña orduan jabetasun*e*zko izenordeekin. E. b. : Ni*re aldez* = nire aldetik = nire izenez.

-KIRO — -KI + -RO eratua. Era-zentzuna du. Onela : Egiaz*kiro* = egiaz*ki*; Garbi*kiro* = garbi*ki*.

KOAN — «Tartean» edo «bitartean» itzen zentzuna du. E. b. : Bazkaltze*koan* = bazkaldu tartean. «Zerbaiten ustean», «Zerbaiten asmoa» ere esan nai du. E. b. : Bayez*koan* = bayetz ustean (3).

-MIN — Zentzun batzuk ditu : Leya, iŕika, gogo aundia, gogozko naiz soñezko gaitza. E. b. : Ikus*min* = ikusteko leya; Eŕi*min* = eŕiaren iŕika; Biotz*min* = atsekabe; Oker*min* = akats (Orixe - «Misala», 88).

(1) Ikusi: 69'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 51'gn. ikaskaya.
(3) Ikusi: Lopez Mendizabal, Iztegia.

-O- Ageґerazle urbīlena da (-A- uґrunekoa dan bezela) (1). E. b.: Gizonok gizon auek edo oyek; Aolan = ontaz edo ortaz; Guztiok = gu guztiok edo zuek guztiok. Lenaldian, aditzaren «itato» edo «itano»'ren zentzuna adierazten du: Joan nintzoan = joan ninduan = joan nintzan (iri buruz, gizona).

-RAKOAN (-RAKO'tik eratua) nolabaiteko «aldi»'aren zentzuna du. E. b.: Etxe*rakoan* = etxera joan-aldian; Igarotze*rakoan* = igaro-aldian.

-RO Len ikusitako -KIRO bezelakoa da. E. b.: Bizi*ro* = bizi*kiro*; Beґi*ro* = beґi*kiro*.

-SA (-TSA), Eґialde'ren tokiren batean, kundearen emetasuna adierazteko erabiltzen da. Onela: Artzain*tsa* = emakumea dan artzaña; Nekazari*tsa* = emakumea dan nekazaria.

-SAŔE (-TZAŔ) Itz auetan agertzen da: Maitas*aґe* = maitasuna; Bil*tzaґe*, Ba*tzaґe*, Ba*tzaґ* = bīlera, bilkura.

-SO Bigaґen belaunaldia erakusten du. Onela: Aita*so*, ama*so* = aitona, amoña; Seme*so*, alaba*so* = Bīloba (mutil eta neskatil).

-TALDE «Moltzoa», «saīa»'ren zentzuna du (itza bezela ere erabiltzen da zentzun beraz). E. b.: Ar*talde* = ardien moltzoa; Bei*talde*, Be*talde* = beyen moltzoa; Beor*talde* = beoґen moltzoa.

-TEKOAN (-TEKOTAN, -TEKOTZ, -TEKOZ) «Baldintza»'ren zentzuna du; E. b.: Ona iza*tekotan* = ona izan ezkero, ona baldin bada.

Zentzun ori emateko, taketen artean dagozen atzizkiak erabiltzea aolkatzekoa da; len ikusitako -KOAN, aditz-izenekin jartzean, atzizki oґekin izan diteken nastea izan ez dedin. Onela: Emen ego*tekoan* = emengo egoitzaren bitartea; Emen ego*tekotan* = emen egon ezkero.

-TIAŔ Batzuetan, «zerbaiterako deitua» adierazten du; besteetan, «aldekoa» izatea. Onela: Bazkal*tiaґ*, Apal*tiaґ*, Ezteitiaґ = bazkaltzeko, afaltzeko, ezteyetarako deitua dana; Eliza*tiaґ* = elizakoya, elizazalea; Jainko*tiaґ* = Jainkoa zalea; Goiz*tiaґ* = goiztaґa.

(1) Ikusi: 67, 84'gn. ikask. (-OK).

-TIKAN (Len ikusitako -IKAN bezelakoa).

-TSA (Len ikusitako -SA bezelakoa) (1).

-TZE -TZA'ren aldakuntza izan diteke (2). Emen bezela: Diru*tze* = dirutza. «Zugatz» ere adierazi dezake. E. b.: Pi*kotze* = pikondo; gaztaña*tze* = gaztañondo (3).

-UŔ Itz batzuetan agertzen da: Sudu*ґ*, Mutu*ґ*, Aitzu*ґ*.

-UŔEN «Aldi» zentzunaz, onela agertzen da: Bederatziu*ґen*, Iru*ґen*, Urteu*ґen* = bederatzi eguneko aldia, iru egunekoa, urtebetekoa. Geyenetan zenbakitzai gañeratzen zaye «aldi» zentzun oґezaz.

-UŔUN Batzuetan, auґeko, -UŔEN'en ordez erabiltzen da.

-ZILO, -ZULO, -ZUŔ - «Lei» edo «zaletasun» aundia adierazten du, bai ta «eraspena ere (4). Onela: Amaz*ilo*, amaz*ulo* = amarenganako zaletasun aundia; Aitaz*uґ* = Aitarenganako lei aundia.

-ZUN «Bīla» edo «bīlaketa»'ren zentzuna emateko erabiltzen da. Onela: Ur*zun* = ur bīla, urketa.

-ZUŔI «Zerbaiteagatik», «Lez», «Legez»'en zentzuna ematen du (5). Geyenetan, -ZUŔIAN eraz erabiltzen da. E. b.: Bere nagiz*uґian* = bere nagiagatik; Zindoz*uґian* = zindoa izaten danez, edo izaten dan lez.

Eginkizunak

1. Lauki ontan, bere lenengo leґoan, izenorde artzaīeak ipintzen ditugu, ta ezkeґ-aldeko goitiberako zeґendan, adi-yabearen beste izenordeak ere; batzuei ta besteai, alkaґi dagozkion artzaīe-adizkiñak, *almenera*'ren *lenaldian* jaґi baeґ dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		nenkizuke	...		...	nenkieke
Zu	Zenkidake		...	zenkiguke		...
Bera	...	...	lekioke	...	lekizueke	...
Gu		genkizkizuke	...		...	genkizkieke
Zuek	Zenkizkidake		...	zenkizkiguke		...
Berak	...	...	lekizkioke	...	lekizkizueke	...

(1) Ikusi: 90'gn. ikaskaya.
(2) Ikusi: 97'gn. ikaskaya.
(3) Ikusi: 43'gn. ikaskaya.
(4) Ikusi: Azkue. Iztegia.
(5) Ikusi: Lopez Mendizabal, Iztegia; eta Pierre Lhande, Iztegia.

2. Bigaŕen eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan, almeneraren lenaldiko artzaĪe-adizkiñak ematen dira; oyetako bakoitzean notin bakoitzari aurka zayonaren bitartez aldatu beaŕ da, ots, adei-yabea artzaĪearen bidez eta alderantziz, artzaĪea adei-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Eztakit *ezi nenkioken*, berak nai duen bezela; ... - *Ez al zenkiguke buruastu* etxean sartzerakoan?; ... - Zure seme ori *azi lekizuke* obeto, nire ustez; ... - *Ezin oñustu genkizkizueke* eŕaz unealdi artan; ... - *Ezin agertu zenkizkidake* bilkura artan edonolaz; ... - Eztakit *estali lekizkiguken* berak uste zutenen eraz; ... - Ziuŕ egon zaitezkete, ongi *ezkutatu nenkizueke*la garaiz; ... - Zu *ezin ostendu zenkiguke* guk orduan oartu gabe; ... - Laño ura *ayendu lekidake*, basoan galdu ez nendin; ... - Zure eŕiko jai ayetan *aspertu genkizkizuke* bereala, ta oŕengatik ezkera ara joango; ... - Nik ez dut uste iñoiz *aŕitu zenkizkieke*la, berak besterik usteaŕen; ... - Eztakit *txunditu lekizkioke*n biĪera artan ikusiko balute ere; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, oitura danez; kulatzen ordez, esanez eta idatziz:

Zortziretan baño lenago abiatu al banakizue, bederatzietarako beŕiz zuen ondoan izango nauzute: Nor izango dugu gure ondoan bederatzietarako, zortziretan baño lenago abiatu al badakigu?; ... - Noizko izango zaitugu gure ondoan, zortziretan baño lenago abiatu bazakigu?; ... - Ori ere zuen ondoan bederatzietarako izango al duzute, zortziretan baño lenago abiatu badakizue?; Bai, gure ustez, ori ere ... -- Oŕela, nare, artegatu gabe, egon al bazenkigu, asko ta asko obetuko ziñake: Nor obetuko litzake asko ta asko, oŕela, nare, artegatu gabe, egon al balekizue?; ... - Nola obetuko lirake oyek?; ... - Gu ere obetuko al giñake asko ta asko, oŕela, nare, artegatu gabe egon al bagenkizkizue?; Bai, zuek ere ... -- Geyago itzuli ez zakigunaŕen, ez uste asaŕetuko gatzaizkizula: Guk uste al dugu asaŕetuko zatzaizkigula geyago itzuli ez gakizkizuenaŕen?; ... - Nor ez zait asaŕetuko, geyago itzuli ez nakionaŕen?; ... - Ni asaŕetuko al natzaizue geyago itzuli ez zakizkidanaŕen?; Eztakit ... -- Ezer auŕeztu al badizaizuet, alegiñak egingo ditut al diteken guzia izan dedin: Nork egingo ditu alegiñak, ezer auŕeztu al badizaigu al diteken guzia izan dedin?; ... - Ezer auŕeztu al badizaiguzu, zer egingo duzu al diteken guzia izan dedin?; ... - Zuek ere ezer auŕeztu al badizaiguzute, alegiñak egingo al dituzute, al diteken guzia izan dedin?; Bai, guk ere ... -- Garaiz itxartu al bagakizkizu, zuekin txangoz joango gera:

Nor joango da txangoz gurekin, garaiz itxartu al badakigu?; ... - Nola joango zerate gurekin, garaiz itxartu al bazakizkigu?; ... - Ni ere txangoz zuekin joango al naiz, garaiz itxartu al banakizue?; Bai, nai baduzu ... -- Nai duzutenera igoteko naŕastu al bazenkizkit, ez zenukete zalantzatuko ori egiteko: Nork eluke zalantzatuko, naŕastu al balekizu, ori egiteko, nai duenera igoteko?; ... - Naŕastu al balekizkizue, nora igoteko elukete zalantzatuko ori egiteko?; ... - Nik ere nai dudanera igoteko naŕastu al banenkizue, ori egiteko zalantzatuko al nuke?; Geron ustez bai, zuk ... -- Enuen uste-izan txaldan ayek oŕen eŕaz menperatu zintzateela: Nork etzuen uste-izan txaldan ayek oŕen eŕaz menperatu gintzatela?; ... - Zer etzenuen uste-izan?; ... - Nik uste-izan al nuen txaldan ayek oŕen eŕaz menperatu nintzatela?; Ez, zuk ere ... -- Bearbada, etxerakoan esan nai-izango zenieketena aiztu dakizuela; alegindu zaitezte oŕelakorik gerta eztakizuen: Nork alegindu beaŕ du bere burua, etxerakoan esan nai-izango liekena aiztu ez dakiola?; ... - Zer egin beaŕ dugu, etxerakoan esan nai-izango geniekena aiztu eztakigun?; ... - Nik ere etxerakoan esan nai-izango niekena aiztu eztakidan, ene burua alegindu beaŕ al dut?; Bai, zuk ere ... -- Oŕen okermin aundiaz ez zeritzaigun luzaroan iraungo zuela: Nortzuei ez zeritzayen oŕen okermin aundiaz luzaroan iraungo zuela?; ... - Zer ez zeritzaizuen?; ... - Niri al zeritzaidan oŕen okermin aundiaz luzaroan iraungo zuela?; Ez, zuri ere ... -- Aletegira eltzerakoan, gure garau guzia labazoŕiz beteta zegoela oartu al-izan genuen: Nork oartu al-izan zuen bere garau guzia labazoŕiz beteta zegoela, aletegira eltzerakoan?; Zer oartu al-izan zenuten aletegira eltzerakoan?; ... - Nekazari oyek ere aletegira eltzerakoan oartu al-izan zuten beren garau guzia labazoŕiz beteta zegoela?; Ez, ... baño. -- Goŕoto ezin bagintzate, ez ginduzkete maite-izango asko ere: Nork ez zinduzteke maite-izango asko ere, goŕoto ezin bazintzate?; ... - Nortzuk ez lituzkete asko ere maite-izango, goŕoto ezin balitzate?; ... - Ni maite-izango al nindukete, goŕoto ezin banintzate?; Ez, zu ere ... -- Erdu nakizueken, zuen xedeak biziki onartu beaŕ-izango ditut: Nork onartu beaŕ- izango ditu gure xedeak, erdu dakiguken?; ... - Zer egin beaŕ--izango duzu, erdu zakiguken?; ... - Zuek ere erdu zakizkiguken, gure xedeak onartu beaŕ-izango al dituzute?; Bai, guk ere ... -- Beortalde on bat bildu al balekizu, zuretzat ona izan lekizuke: Norentzat izan lekioke irabazi ona, beortalde on bat bildu al balekio?; ... - Zer izan lekidake niretzat, beortalde on bat bildu al balekit?; ... - Zuentzat ere irabazi ona izan al lekizueke, beortalde on bat bildu al balekizue?; Ez,

... baño. -- Zintzoa izatekotan, gure gogaideen artean onartu zintzakegu: Nor onartu zenezakete zuen gogaideen artean, zintzoa izatekotan?; ... - Nola onartu nintzakezute zuen gogaideen artean?; ... - Gu ere, zintzoak izatekotan, zuen gogaideen artean onartu al gintzakezute?; Bai, zuek ere ... -- Jainkotiaŕ izan ezin bazakizkigu, izan zaitezte gutxienez lotsoŕ: Nork izan beaŕ du gutxienez lotsoŕ, Jainkotiaŕ izan ezin badakizue?; ... - Nola izan beaŕ dugu gutxienez, Jainkotiaŕ izan ezin bagakizkizue?; ... - Nik izan beaŕ al dut gutxienez lotsoŕ, Jainkotiaŕ ezin banakizue?; Bai, zuk ere ...

4. Ongi irakuŕi beaŕ da idazti-txatal au, ta gero bertan aipatzen diran notiñai buruz zeatz auek ikasi ta esan: Bakoitza nungoa zan, zer egin zuen, eta bete zuen lana zein urtean egin zuen:

«LUŔALDE BEŔIAK»

«Bai aundia dala gure Ludia, bere itxaso, luŕalde, mendi luze, itxaspeko leize ta guzti! Gaur egun leku ezezagun gutxi ditu. Gizon trebeak baztaŕ guziak aztertu baitzizkioten beren biziak galbidean jartzen. Lantegi ontan batzuk bizirik atera ziran. Asko, ordea, il egin ziran galbidearen atzapaŕetan. Guziak eziñezkoa zan zerbaiten atzetik abiatu ziran. Batzuei gaizki atera zitzayelako, beste batzuek zerbait egin zuten. Beraz, guziek lagundu digute Ludia ezagutzen.

Auŕerapenei eskeŕ, gaur eŕazagoa da auŕera egiten. Ibil-tresnak ortarako joera geitzen dute. Zer egingo zuen Kristobal Kolon'ek itxas-oŕatzik gabe; Houot eta Wilm gudalburuak itxaspean arnasa artzeko tresnarik gabe; Hillary'k Everest'en aize-zoŕorik gabe; Nautilus'ek Polo'ko izozpean atomika-indaŕik gabe? Oŕengatik aundiago gertatzen ziran beren txalupa zaŕean Ameriketa'ra joan ziran vikindaŕak; Asia zakaŕa oñez igaro zuen Marko Polo; Sahara'n pizti-eriak bakaŕ-bakaŕik jasan zituen Rene Kaille; eta Amazonas'ko baso-zuloan galdu zan Maufray trebea.

Arkitzaīeak, begiratzaīeak eta ibiltariak Ludi'ko lurtamua egiten lagundu dute, beren edesti, idazki ta ziŕiboŕoetaz. Oŕengatik dirudi Ludi'ak len aldean txikia ta ezaguna.

Egia esan, arkitzaīeei oraindik lan aundia geratzen zaye. Beren ametsak ez dute neuŕirik. Biarkoak zergatik ez ote dizkigute Ludi'aren goi-beetako ateak zabalduko?, atzokoak emen lurbirakoak idekita utzi dizkigutenezkero?

Ona Europa lurbiraren goi-aldean tinkatua. Luŕez, Ludi'ko bost zatietan txikiena da. Ludi'ko beste luŕalde guziak betetzeko amabost Europa beaŕ-izango lirakela esatea ere! Europa zaŕ au Ludi'ko beste zatien artean txapeldun da oraindik, bere edestia, bere izen on eta eŕi-lantze diztirakoŕagatik. Bere jakintza-zantzua ez da galduko. Ez al da parantzera itzegiten Kanada'n?, gaztelera Mexiko'n, portugalera Mozanbike'n, holandera Indonesia'n, englandera Eŕi batzuetan?».

«Ludia» «Guztioi erakutsita» (5-6'gn. oŕialdeetan) Atxaga'taŕ Mikel'-ek euzkeratuta.

EUN ETA BEŔOGETAMABIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ZEAŔEZ-BETETZEKOA DUEN ADITZ IRAGANKOŔEN ADITZ-JOKO BILDUA

Orain arte ikasi ditugun aditz iragankoŕ laguntzaīlearen adizkiñetan erabiīi dugun araua bera jaŕaitzean, zeaŕez-betetzekoak diran itzatalak bertan sartzeko, joko bildua daukaten aditzetan ere itzatal oyetxek darabilzkigu zeaŕez-betetzeko notiña nabaritzeko.

Oŕela, *tinkierazko oraiñaldi*rako, uŕengo ERAKUS-BIDEA era dezakegu, 15'kn. ikaskayan ikusi zana betetzen duena :

		-Da-	-T
	-RAMA-	*-ZU-*	ZU
	-KAR-	*-O-*	---
D- a)	-(A)KI- -Z- -KI-		
	-GI-	*-GU-*	-GU
	-RABIL-	*-ZU-(T)E-*	-ZU-TE
		-E-	----TE

Emen, izakaya bakaŕa danean, -KI- itzatala edo erdizkia erabiltzea egokia izango da; ta -Z-KI- bi erdizkiak askaŕa danean (1).

E. b.: Daramakizut = nik *zuri* eramaten dizut. - Dakazkid*a*zu = zuk *niri* ekartzen dizkidazu.

Era berean, *tinkierazko lenaldi*rako, 47'gn. ikaskayan ikusi genuena betetzeko, beste ERAKUS-BIDE au era dezakegu :

N-		*-Da-*	
Z-e-N-	-RAMA-	*-ZU-*	
Z-	-KAR-	*-O-*	
e)	-(A)KI- -Z- -KI-		-N
G-e-N-	-GI-	*-GU-*	
Z-e-N-	-RABIL-	*-ZU-(T)E-*	-TE-
Z-		*-E-*	-TE-

E. b.: Neramakizun = Nik *zuri* eramaten nizun. - Zenekarzkid*an* = Zuk *niri* ekartzen zenizkidan.

Era berean ere, EUKI ta ESAN aditzen erak ipiñi ditezke, jakiña, lenengoaren izakai askaŕa -UKA- bere eŕoaren erdian sartzen dan -Z- baten

(1) Ikusi: 31'gn. ikaskaya.

bidez adierazten, eta bigaŕenaren adizkiñak, berarena eztan -IÑO- eŕoarekin eratzean, len, 18, 20 ta 50'gn. ikaskayetan ikusi zanez.

EGINKIZUNAK

Uŕengo laukian, bere lenengo leŕoan, izenorde artzaīleak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen beste izenordeak ere; batzuei ta bestai, alkaŕi dagozkion artzaīle-adizkiñak *almenera*'zko *ustekizuna*'ren *oraiñaldian* jaŕi beaŕ dira; kulatzen ordez esan eta idazteko :

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		banakizu	...		...	banakie
Zu	Bazakit		...	bazakigu		...
Bera	...	...	badakio	...	badakizue	...
Gu		bagakizkizu	...		...	bagakizkie
Zuek	Bazakizkit		...	bazakizkigu		...
Berak	...	...	badakizkio	...	badakizkizue	...

2. Beste eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan almenerazko ustekizunaren oraiñaldiko artzaīle-adizkiñak ageŕerazten ditugu; oyetako bakoitzean notin bakoitzari aurka zayonaren bitartez aldatu beaŕ da, ots, adei-yabea artzaīlearen bidez eta alderantziz, artzaīlea adei-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Auŕeratu al banakizu lenbailen egingo dut ori; ... - *Atzeratu al bazakigu*, guretzat ostopoa izango zatzaigu; ... - *Auŕeratu al badakizue*, guzia galduko duzute; ... - Gaur gaberako *berandutu al bagatzaizkio*, jakin beza geroxeago erduko gerala; ... - *Arduratu al bazakizkit*, ziuŕ nago andik laisteŕ itzuli al-izango naizela; ... - Ilunabaŕean baño lenago *etxeratu al badakizkio*, beren ama lasai egon diteke; ... - Zuei *batu al banakizue* pozik joango naiz gero edonora; ... - *Gibeleratu al bazakit*, bakaŕik jaŕaituko naiz elbururaño; ... - Auŕ ori goiz *oeratu al badakizue*, lana gaur bertan amaitu al-izango duzute; ... - Arazo oyetarako zuri *alkartu al bagatzaizkizu*, guzia len eta obeto egin al-izango dugu; ... - Oyei *bereiztu al bazakizkie*, ene ustez erosoago ibiīiko zerate; ... - Aŕatsaldeko lenengo ordurako *itzuli al badakizkigu*, oso egokia izango da guziontzat; ...

3. Emen jartzen ditugun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Dakarkizudan olaŕa gereñutaŕek dagikizuten bezuza da; baña ona izatekotan, gero!: Zer da gereñutaŕek dagikidaten bezuza?; ... - Zer da dakarkidazun olaŕa?; ... - Dakarkizueten olaŕa al da guk dagikizuegun bezuza?; Ez, ... baño. -- Beren auŕak saŕi zeramazkidaten nire ikuŕatz-bildumak erakutsi nizaizkien: Nortzuk zeramazkizuten saŕi zure ikuŕatz-bildumak erakutsi zenizaizkien?; ... - Zertarako zeramazkiguten beren auŕak saŕi?; ... - Nik saŕi al neramazkizun auŕak zure ikuŕatz-bildumak erakutsi zenizaizkien; Ez, ... baizik. -- Eutsi al nakizuke egun eta egunetan neke aundirik artu gabe: Nor eutsi al dakidake egun eta egunetan neke aundirik artu gabe?; ... - Nola eutsi al zakidake egun eta egunetan?; ... - Gu eutsi al gakizkizueke egun eta egunetan neke aundirik artu gabe?; Ez, zuek ... -- Lengo egunean eskatu zizkiguten lore-txortak daramazkiegu: Nortzuek daramazkiete lengo egunean eskatu zizkieten lore-txortak?; ... - Zer daramakiezute?; ... - Nik al daramazkizuet lengo egunean eskatu zenizkidaten lore-txortak?; Ez, ... baño. -- Ez zenekidaten ongi, ikas zenezaten, auŕeko egunean jaŕi nizuen ikaskaya: Nork ez zekidan ongi, ikas zezan auŕeko egunean jaŕi nion ikaskaya?; ... - Zer ez nekizun?; ... - Guk al genekizuen ongi, ikas genezan auŕeko egunean jaŕi zeniguten ikaskaya?; Ez, zuek ere ... -- Zuen adeikune guzia ipiñi ezin badizaiguzute, obe izango da ikasgura etoŕ ez zaitezela: Zer izango da obe gure adeikune guzia ipiñi ezin badizaizuegu?; ... - Zer dala-ta izango da obe mutil ori ikasgura etoŕ ez dediła?; ... - Ni ere nire adeikune guzia ipiñi ezin badizaizuet ikasgura etoŕ ez nadila obe izango al da?; Bai, zu ere ... -- Nik diñokizudanean egia dala ziuŕ egon zaitezke: Nor egon diteke ziuŕ egia dala, zuk diñokiozunean?; ... - Nola egon naiteke egia dala, zuek diñokidazutenean?; ... - Gu ere ziuŕ egon al gaitezke egia dala, zuek diñokiguzutenean?; Bai, zuek ere ... -- Neska gazte yaukal ayek pozaŕen-pozez zegozkigun: Nortzuk zegozkizuen pozaŕen-pozez?; ... - Nola gengozkizuen gu?; ... - Ni ere pozaŕen-pozez al nengokizuen?; Bai, zu ere ... -- Ezin izan lekizkizueke gordiñak gure itzak: Zer ezin izan lekiguke gordiña?; ... - Nola ezin izan lekizkiguke zuen itzak?; ... - Nire itzak gordiñak izan al lekizkieke?; Ez, ... -- Esanekoak izan al bazenkizkigu, guziok obeto ibil gindezke: Nortzuk ibil litezke obeto esanekoak izan al bagenkizkie?; ... - Nola ibil zindezkete guziok, esanekoa izan al banenkizue?; ... - Ni ere obeto ibil al nindeke esanekoak izan al balekizkit?; Bai, zu ere ... -- Arteziaz badagikizut, uste dut

onuratsua izan lekizukela: Nola izan lekidake arteziaz badagikidazu?; ... - Nori izan lekioke onuratsua, arteziaz badagikiogu?; ... - Oyei ere onuratsua izan al lekieke, arteziaz badagikiezute?; Bai, oyei ere ... -- Niketz ezin eldu lekieke kalterik: Nori ezin eldu lekioke kalterik zuketz?; ... - Zer ezin eldu lekizueke guketz?; ... - Guri zuketz kalterik eldu al lekiguke?; Ez, zuei ere ... -- Ez daramazkiegu, edonola erabil dizaizkiguten: Zertarako ez daramazkiezute?; ... - Nori ez daramazkiozu, edonola erabil dizaizkizun?; ... - Niri al daramazkidazute, edonola erabil dizaizkizuedan?; Ez, ... baizik. -- Uste al duzu jangaitz zekizkizun janariak gertu genizaizkizukela?; ez, eztut uste jangaitz zekizkidan janariak gertu zenizaizkidakela: Nork ez du uste jangaitz zekizkion janariak gertu nizaizkiokela?; ... - Zer ez dut uste nik?; ... - Zuek uste al duzute jangaitz zekizkizuen janariak gertu lizaizkizuekela?; Ez, guk ez ... -- Erosi nizaizkieken sagaŕ gazi-gezak enurarik gabe oso gozoak izango litzaizkieke: Nori izango litzaizkioke, enurarik gabe, oso gozoak zuk erosi zenizaizkioken sagaŕ gazi-gezak?; ... - Zer izango litzaidake, enurarik gabe, oso gozoa?; ... - Zuk erosi zenizaizkidaken sagaŕ gazi-gezak ere oso gozoak izango al litzaizkidake?; Bai, nik ...

4. Uŕengoan, William Shakespeare'ren antzerki baten txatal bat ipintzen dugu; aŕetaz irakuŕi ondoren, ori euzkeratu zuena nungoa ta zer izan dan esan, bai ta egiłe aren zenbat antzerki euzkeratu duen eta zein izkelgian ere ikasi ta esan beaŕ da:

«I EKITALDI» «I Agerleku»

Lear'ek: «Zurea dozu, Pantze; beti zure, nik ez dot olango alabarik, ezta egundo geyago bere arpegirik ikusiko be-ta. Oŕezkero yoan nire eskaŕ onbage, nire maitasunbage, nire onespenbage. Erdu, Borgoña zindo. (Eresi alai. Lear, Borgoña ta beste batzuk alde dagie).

Pantze'k: Egin aguŕ zure aiztai.

Kordele'k: Gure aitaren pitxiok, begiak ezaturik izten zauez; ba-dakit zuok nortzuk eta zertzuk zarien; eta zuon aiztea nazanezkero lotsa be lotsa naz zuon akatsai euren benetako izena emoteko. Maite egizue benetan gure aita; agirian autortuko zuan biotzetan izten dot nik; baña, ai ene! ni ak begi onez ikusiko banindu, toki oberik baño obetsiko neunke nik a. Aguŕ ba, bioi.

Eŕegane'k : Ez ibīli guri gure egitekoak aipatzen eta agintzen.

Gonerile'k : Bedi zure ardurea zure yaunaren guraria egitea, zoriaren ukaŕez artu zau-ta. Menpekotasun-uŕi izan zara-ta, ondo zoŕ yatzu nai zenduanaren eza.

Kordele'k : Gerora agertuko da azerikeri kakomakotsuak estalia; euren akatsak estali daroezanai azkenean lotsariak iŕi egiten dautse. Ondo doakizuela!

Pantze'k : Goazan, ene Kordele lirain. (Pantze'k eta Kordele'k alde dagie).

Gonerile'k : Aizta, ezta gitxi gu bioi uŕ-uŕ dagokigunaz esateko dodana. Nire ustez gure aitak gau ontan alde-egingo dau emendik.

Eŕegane'k : Ori eskieŕ-eskieŕa da, ta zukin alde egingo be; uŕengo iīebetea gukin.

Gonerile'k : Ba-dakutsu a aldakoŕ utsa dala bere urteakaz; oŕetaz oartu doguna ezta gitxi be; ak beti eban maiteen gure aiztea; eta orain ze buru gitxigaz etxetik egotzi dauen argiegi agiri da.

Eŕegane'k : Ori bere adiñak dakaŕen makaltasuna yatzu; oŕatiño be ak beti be bere burua oso gitxi ezautu dau.

Gonerile'k : Bere biziko egunik onen eta zindoenetan be itsumustuka ibiltekoa izan da; au dala-ta gertu egon beaŕ dogu agandik akats zaŕ-sustartuak artzeko ezeze, zartzaro makal-asaŕekoŕak berakin batera ekarten dauzan burukeri ta txibizkeri eskuratu-eziñak artzeko be.

Eŕegane'k : Kent erbesteratzea langoxe urteera aldakoŕak izateko gara, uŕean, agandik.

Gonerile'k : Oŕez gañera, oŕ dozu Pantze'ri aguŕ egiteko zelango txerea erabīli dauen. Otoi, aizta, yo daigun biok batera; gure aitak berak dauen yokabidez agindu badagi agindu, berak egin-baŕi dauen azken-gurari au gutzat irain utsa da.

Eŕegane'k : Geroago ausnartuko dogu ori.

Gonerile'k : Zeozer egin beaŕ dogu ta berotan egin be. (Alde dagie)».

«Lear eŕege» (273-4'gn. oŕialdeetan) Laŕakoetxea'taŕ Bedita'k Euzkeraratua.

EUN ETA BEŔOGETAMAIRUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ADITZ IRAGANKOŔEN JOKO BILDUA

Lenengo notiñaren izakai bakaŕ eta askaŕa

Tinkiera'zko Oraiñaldia

Bakaŕ		Askaŕ	
	-ZU		-ZU
	-RAMA- ---		-RAMA- ---
N- a)	-KAR-	*G-* a)	-KAR- *-ZKI-*
	-RABIL- -ZU-TE		-RABIL- -ZU-TE
	----TE		----TE

Bigaŕen notiñaren izakai bakaŕ eta askaŕa

Tinkiera zko Oraiñaldia

Bakaŕ		Askaŕ	
	-T		-T
	-RAMA- --		-RAMA- --
Z- a)	-KAR-	*Z-* a)	-KAR- *-ZKI-*
	-RABIL- -GU		-RABIL- -GU
	---TE		----TE

Oaŕ ditekenez, joko bildua duten aditzek, beren adizkin auek, len, 28'gn. ikaskayan ikusi zanez, aditz laguntzaīearenak berean egiten zituen bezela eratzen dituzte; bereizitasun au izanezik, askaŕaren zentzuna emateko, ezaguna dugun -ZKI- erdizkia darabiltelarik.

EUKI aditzak onela jokatzen du :

Lenengo notiñaren izakai bakaŕ eta askaŕa

Bakaŕ		Askaŕ	
	-ZU		-ZU
	---		---
N- a)	-UKA-	*G-* a)	-UZKA-
	-ZU- -TE		-ZU- -TE
	----TE		----TE

Bigaŕen notiñaren izakai bakaŕ eta askaŕa

Bakaŕ		Askaŕ	
	-T		-T
	--		--
Z- a)	-UZKA-	*Z-* a)	-UZKA- -(T)E-
	-GU		-GU
	----TE		----TE

Era berean, Lenaldi'ari dagozkion adizkiñak jaŕi litezke (len, 55'kn. ikaskayan egin zan bezela, aditz laguntzaĪearen ipiñitakoen antzera). Baña, oso gutxi erabiltzen diralako, ez ditugu emen aipatzen.

EGINKIZUNAK

1. Emen damagun laukian, bere lenengo leŕoan, izenorde artzaĪeak jartzen ditugu, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen beste izenordeak be; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion artzaĪe-adizkiñak *almenera*'zko *ustekizuna*'ren *lenaldian* ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Ni		banenkizu	...		...	banenkie
Zu	Bazenkit		...	bazenkigu		...
Bera	...	...	balekio	...	balekizue	...
Gu		bagenkizkizu	...		...	bagenkizkie
Zuek	Bazenkizkit		...	bazenkizkigu		...
Berak	...	...	balekizkio	...	balekizkizue	...

2. BigaŕeN eginkizun ontan damazkigun esakuntzetan, almenerazko ustekizunaren lenaldiko artzaĪe-adizkiñak agertzen dira; oyetako bakoitzean, notin bakoitzari aurka zayonaren bidez aldatu beaŕ da, ots, adi-yabea artzaĪearen bitartez eta alderantziz, artzaĪea adi-yabearen bidez; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Jokalari oyen artean *okertu al banenkizue*, norena izango zan eŕua? ; ... - Gure laguntzaren bidez *zintzotu al bazenkigu*, gure poztasuna elitzake txikia izango; ... - Ikastetxe ortan zuen semea *obetu al balekizue*, bertara eramatea izango zaizue onena; ... - Ba-dakigu gu ere *gaiztotu al bagenkizkizula*, nola jokatu beaŕ dugun oŕelakorik jazo eztedin; ... - Ni igarotzean *makurtu al bazenkizkit*, obeto ibiĪiko nintzake; ... - Ene ustez, *belaunikatu al balekizkio*, beren alkea obeki erakutsiko liokete; ... - Beren auŕean *auzpeztu al banenkie*, eztut uste ori iñoiz egingo nukela; ... - Mendi oyetan ibiltzean, *sendotu al bazenkit*, bertara eramango zinduket bereala; ... - Auŕ-joko ayetan *auldu al balekigu*, ayetatik aldenduko genuke garaiz; ... - Lasterketa ayetan *akitu al bagenkizkie*, erokeria izango litzake bertan yardutea; ... - Bide luze oyetan *aunatu al bazenkizkigu*, obe izango zaizue emen lasai geratzea; ... - Neskatil ayek zure eŕi ortan *azkartu al balekizkizu*, oŕa lenbailen eramatea izango zaizu egokiena; ...

3. Orain, emen agertzen diran galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esanez eta idatziz :

Nora garamazkizute onen bide bakan auetatik? ; zuek ezagutzen eztuzuten aran txiki ikusgaŕira : Nork zaramazki oŕen bide bakan oyetatik? ; ... - Nortzuk daramazkizute oŕen bide bakan oyetatik? ; ... - Nik al zaramazkit onen bide bakan auetatik? ; Ez, ... baño. -- Beren zalburdian landolara bertara zakarte; zer nai duzu geyago? ; Nor dakarte beren zalburdian landolara bertara? ; ... - Nora nakarte beren zalburdian? ; ... - Zuek al gakarzkizute zuen zalburdian landolara bertara? ; Ez, ... baizik. -- Alako batean, uste ez zutenean eldu gintzaizkien, ezer ezkutatu ezin lizaiguketen : Nortzuk eldu zitzaizkien uste ez zutenean, ezer ezkutatu ezin lizaieketen? ; ... - Noiz eldu zintzaizkien, ezer eskutatu ezin lizaizueketen? ; ... - Ni eldu al nintzayen uste ez zutenean, ezer ezkutatu ezin lizaidaketen? ; Bai, zu ere ... -- Paris'erako abiatzen ziñatenean, ozta-oztan ikusi al zintzatekegu : Nortzuk ikusi al zenitzakete ozta-oztan, Paris'erako abiatzen ziranean? ; ... - Noiz ikusi al gintzakezute ozta-oztan? ; ... - Zuk ikusi al gintzakezu, ozta-oztan, Paris'erako abiatzen giñanean? ; Ez, nik ez ... -- Ez al darabilzkidazu nire jantziak negu ontan? ; ez, nik ez darabilzkizut zure jantziak negu ontan : Nork ez darabilzkizu zure jantziak negu ontan? ; ... - Zer ez darabildazu negu ontan? ; ... - Guk al darabilzkizuegu zuen jantziak negu ontan? ; Ez, zuek ... -- Dalakoan eztalakoan, zuen arerioak zuen etxean bertan saŕ lekizkizueke : Nortzuk saŕ lekizkiguke gure etxean bertan, dalakoan eztalakoan? ; ... - Nun saŕ lekizkidake nire arerioak, dalakoan eztalakoan? ; ... - Zu saŕ al zenkiguke, dalakoan eztalakoan, gure etxean bertan? ; Ez, ni ... -- Agi danean, zorigabeko oŕek ezin atondu dizaiguke agindu ziguna : Nork ezin atondu dizaizueke agindu zizuena? ; ... - Zer ezin atondu dizaizuekete zorigabeko oyek? ; ... - Nik atondu aal dizaizueket agindu nizuena? ; Bai, zuk ... -- Ez zenekarkidan beaŕ zan aŕetaz : Nork ez zekarkizun beaŕ zan aŕetaz? ; ... - Nola ez nekarkizun? ; ... - Guk al genekarkizuen beaŕ zan aŕetaz? ; Bai noski, zuek ... -- Nai zuten bezin laisteŕ ez generamakielako, asaŕetu al lekizkiguke? ; bai, ayek asaŕetu lekizkizueke nai zuten bezin laister ez zeneramakietelako : Nor asaŕetu lekidake, nai zuen bezin laisteŕ ez neramakiolako? ; ... - Zer-

gatik asaŕetu zenkidake? ; ... - Gu asaŕetu al genkizueke, nai genuen bezin laisteŕ ez zeneramakigutelako? ; Ez, zuek ... -- Ez zeneuzkakiguten onargaŕiak izan lekizkiguken baldintzaetan : Nork ez zeuzkakizuen onargaŕiak izan lekizkizueken baldintzaetan? ; ... - Nola ez geneuzkakizuen? ; ... - Nik onargaŕiak izan lekizkizuken baldintzaetan al neuzkakizun? ; Ez, zuk ere ... -- Ni zirpiīa izango bainintzaizuen narabilzute : Nortzuek zarabilte zirpiīa izango baizintzayen? ; ... - Nola zarabilte ayek? ; ... - Guk al zarabilgu zirpiīa izango baizintzaigun? ; Ez, zuek ez ... -- Guk zaramagu gure semea eramango genuken bezela : Nortzuek naramate beren semea eramango luketen bezela? ; ... - Nola naramazu zuk? ; ... - Nik al zaramazkit nire semeak eramango nituken bezela? ; Ez, zuk ez ... -- Erbestetasun ontan gauzkazute ankerkeri aundiegiz : Nork zauzkae erbestetasun ontan ankerkeri aundiegiaz? ; ... - Nola zauzkaegu erbestetasun ontan? ; ... - Ni al naukazute erbestetasun ontan ankerkeri aundiegiaz? ; Ez, zu ez ... -- Ez didate jaramonik egiten ; oŕengatik eztakit nora joan nenkizueken : Zergatik ez dakizu nora joan zenkiguken? ; ... - Zer ez dakizu, jaramonik egiten ez dizutelako? ; ... - Guk al dakigu nora joan genkizkizueken, jaramonik egiten ez digutelako? ; Ez, zuek ere ez ... -- Eskurakoyagoak izan genkizkieke, beren akaŕak ez artzeko : Nori izan zenkizkioke eskurakoyagoak, bere akaŕak ez artzeko? ; ... - Nola izan zenkidake nire akaŕak ez artzeko? ; ... - Ni ere eskurakoyagoa izan al nenkizueke zuen akaŕak ez artzeko? ; Bai, zu ere ...

4. Gure elebeŕi oso on baten txatal bat jartzen dugu emen ; ondo irakurtzeko lenengoz, eta gero aŕantzaleai buruz bakoitzak eman ditzaken zertzeladak eman beaŕ-izango ditu, itxasoa dala-ta, oyen bizia nolakoa izaten dan batez ere :

«XI KITOLIS»

«Gizon txiki polit makuŕ bat zan au, bere sorbaldetan larogetabi urte andi jasoten zituen gizona. Iru edo lau uletxu zuri-baltz eukazan (zeuzkan) buru soil zetakaz betean, zutik-zutiñik ; askozaz geyago ta zuri kiskuŕ kirikolatuak garondoan, bildots edo arkume baten irudira ; bepuru luze bien azpian begi urdin-abaŕ bigun-bigunak ; arpegi baltzeran guztiz zimurtua ; oyal lodi zakaŕ arabakinduagaz egiñiko jaka zaŕa soñean ; praka urdin zengle batzuei eusteko geŕiko tendeltxu bat mokoŕ gañean, ontzi-soka lodi sendoaren antzera biurtua ; ta olezko *zapata*, oinzoŕo edo trauskoak oñazpian.

Jai-egunetan obeto jazten zan, elizarako. Urdai zatiagaz, krusaīoko olioagaz edo izurdearen zañagaz noizean bein bigundu oi zirean naŕuzko oñetakoak, alkondara zuri garbia, zaŕa bazan be, ta txintxonezko jaka-prakak ; orixe zan jai-egunetako jantzia.

Itxasorako gauza etzala geratu zan ezkeroztik, egunero entzuten eban (zuen) mezatxu bat, egunero izaten zan iīuntzeko *eŕosarioan* ; gaixoren bati Jauna eruan (eraman) beaŕ jakonean (zitzayonean), an joango zan Kitolis, argi batégaz ; Jauna'ren auŕetik elizjiran ibiīi beaŕ zanean, an urtengo eban (zuen) Jaun estalkiaren makiīa bat jasoten ; elizkizun guztietan, an egongo zan Kitolis alkate-aulkidaren atzean, belauniko.

Eŕitaŕ danak gura eutsien (maite zuten) ; ain zan bera zintzoa, apala, baketsua ta mendu onekoa.

— 'Ni ez naz izan, Peru ta Mikol legez, urandiko aŕaña —asi zan esaten beren aterpeko lagunai— Toleta baño andiago enintzala, bederatzi urte neukazanean (neuzkanean), eruan nituan (eraman ninduen) lenengo neure aitak masira ; neguko izotzak gogortu eustazan (zizkidan) azuŕak, orekan ; udako eguzki beroak baltzitu eustan (zidan) azala ; bisigu ta atun tatoakaz azi ta loditu ninduen ; ni be, Mikol'en antzera, itxasoan bizi izan naz (naiz) legoŕetan baizen geyago ; baña ontzi andietan ez naz (naiz) egundo ibiīi ta Kantauri'ko uretatik eztot (eztut) urten, nai ta nayezean edo *aŕibadaren* baten izan ezik. Alan be, naikoa neke igaro dot (dut) itxas oŕetan'».

«Kresala» (93-4'gn. oŕialdeetan) Domingo Agiŕe.

EUN ETA BEŕOGETAMALAUGAŕEN IKASKAYA

OTS-ANTZEKOAK

Euzkeraz, beste izkuntzetan bezela, onelako izen aŕuntak dagoz; e. b.: BLAST (PLAST) = belaŕondoko; BLAUST (PLAUST) = jausketa; BLINK (KLINK) = uŕupa batez zerbait edatearen egipena; DZART = danba; DZAST = sartzea; KILKEŔ = txiŕitxa; PLAST = ibayan, osiñean eta abaŕ, zenbait erortzearen otsa; POSPOLIN = galepeŕa; TUPUST = topo, tanka; ZANPA = ots-aundiko, danba-otsa; ZIŔIST (TXIŔIST) = labankada; eta besteak.

Ba-dagoz, gañera, beste batzuk oŕela dei genitzakenak, eta elkartuzko itzak diranak; oyetan agertzen dan elkartzea, itz bat beŕizteaz egiten da, baña bigaŕen itzaren auŕetik M, B edo P jartzean, onela: lenengo itza gediñez asten bada, beŕiztea izki oyetako bat auŕetik ipintzean egiten da; baña igidiñez asi ezkero, auxe da aldatzen dana, bere ordez izki oyetako bat ipintzean.

Besteetan, alkartutako itzen ezberdintasuna, gedin batzuen aldatzeaz egiten da.

Españeraz ere, ba-dagoz oŕelako itzak, e. b.: «oste ni *m*oste», «tiquis-*m*iquis», lenengo motazkoak, eta «*t*ic-*t*ac», «*z*ig-*z*ag», bigaŕenekoak.

Uŕengoan, geyen ezagutzen diranen leŕokada txiki bat damagu; oyetako batzuk egiazko esakerak izaten dira:

1.° MOTA'koak — M, B edo P izkietaz:

Aiko-maiko	=	aitzaki, apuko, enuxu-banuxu.
Andimandiak	=	aundikiak.
Arteka-marteka	=	aldartean.
Asimasiak	=	len-gayak.
Autsi-mautsi	=	antolabide, elkaŕ-aditze.
Autu-mautuak	=	ipuyak.
Esamesa	=	beŕiketa, izki-*m*izki.
Inguru-minguru	=	zearka-*m*earka, inguruka.
Isilka-misilka	=	txutxu*m*utxu, kalakatzean.
Zirimiri	=	lantxurda.
Zirki-mirki	=	erdi-muzin egon.
Zizka-mizka	=	izki*m*izki, mizkeri.
Zizki-mizki	=	kulu*m*ulu, txitxiri-*b*itxiri.
Zuŕu-muŕu	=	sur*m*uŕ.
Tira-bira	=	iraulka, itzulipurdi.
Txiribiri	=	tximeleta.

Zuŕubuŕu	=	naste-*b*oŕaste.
Xista-pista	=	berealaxen.
Zaŕa-paŕa	=	aŕabots.
Ziŕi-paŕa	=	zapaŕasta.

2'gn. MOTA'koak — Gediñen aldaketaz:

Binbilin-banbalan	=	zilipurdika.
-Bilin-balan (Blin-blan)	=	joaleen soñua.
Blist-blast	=	belaŕondoko batzuen otsa.
-Dilin-dalan	=	joaleen soñua.
Dindi-danba	=	danbaka.
Kiŕiz-kaŕaz	=	ibiltzean, oskien otsa.
Tiki-taka	=	uŕatsez-uŕats ibiltzea.
Tikili-takala	=	nolabaiteko nekez.
Tipust-tapast	=	bat-bateko edo sosteko asmoa.
Trinki-tranka	=	baldarkiro.
Trinkili-trankala	=	ziŕiki-zaŕaka.

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, lenengo leŕoan izenorde artzaĪeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabeak erakusten dituztenak; tinkierazko oraiñaldian, biei dagozkien ERAMAN aditzaren adizkin bilduak, izakai bakaŕaz, ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		daramakizut	...		...	daramakiet
Zuk	Daramakidazu		...	daramakiguzu		...
Berak	...	...	daramakio	...	daramakizue	...
Guk		daramakizugu	...		...	daramakiegu
Zuek	Daramakidazute		...	daramakiguzute		...
Berak	...	...	daramakiote	...	daramakizuete	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan ipintzen ditugun esakuntzetan, ERAMAN, EKAŔI ta ERABIĪI aditzen adizkiñak agertzen dira, artez eta zeaŕ-betekizunekin, eta bakoitzean bigaŕen betekizun ori ta adi-yabea dira alkaŕi-buruz aldatu beaŕ diranak, ots, adi-yabea zeaŕ-betekizunaren bidez eta alderantziz, zeaŕ-betekizuna adi-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Nik idazti zaŕena *daramakizut*; ... - Zuk zure ortuko tilistak *dakarzkidazu*; ... - Berak txapel oso aundiak *darabilzkigu*; ... - Guk oski

beŕienak *daramazkizuegu*; ... - Zuek zuen etxeko zaldia *dakarkiozute*; ... - Berak jantziak oso uŕatuta *darabilzkidate* beti; ... - Nik ez *dakarzkizuet* eskatu dizkidazuten aŕautzak; ... - Zuk *ez darabilzkiguzu* jantziak oso zabalak; ... - Berak auŕa ikastetxera oso ondo *daramakit*; ... - Guk oraintxe *dakarkizugu* zure azkaria; ... - Zuek ez *darabilkiguzute* lengo egunean ekaŕi genizkizuen jantziak; ... - Berak zintzoki *daramakiote* beren auŕak beaŕ duen guzia; ...

3. Emen damazkigun galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Bein eta beŕiz, nekatu gabe, zabuka garabilzkite: Nork zarabilzki zabuka, bein eta beŕiz, nekatu gabe?; ... - Nola narabilte zabuka bein eta beŕiz?; ... - Nik al zarabilt zabuka, bein eta beŕiz nekatu gabe?; Ez, zuk ez ... -- Aiko-maiko ibīli gabe, gurekin zaramazkigu, ta ziuŕ gaude jauregi artan oso ondo onartuko zaituzteela: Nortzuek garamazkite berekin aiko-maiko ibīli gabe, jauregi artan oso ondo onartuko gaituztela ziuŕ dagozelako?; ... - Nola zaramat nirekin jauregi artan oso ondo onartuko zaituela ziuŕ nagoelako?; ... - Ni al naramate berekin, aiko-maiko ibīli gabe, jauregi artan oso ondo onartuko nautela ziuŕ daudelako?; Bai, zu ere ... -- Zuk al zenekarzkidan, erosi zenizaizkidala mezutu nizkizun euzkal-abestiak?; bai, nik nekarzkizun erosi nizaizkizula mezutu zenizkidan euzkal-abestiak: Nork zekarzkizun erosi zizaizkizula mezutu zenizkion euzkal-abestiak?; ... Zer zekarkigun arek?; ... - Guk al genekarzkizuen, erosi genizaizkizuela mezutu zenizkiguten euzkal-abestiak?; Ez, zuek ez ... -- Amiltoki ontara zakarzkit, bere sakonera neurtu ezin ditekela ikus dezazuten: Nork gakarzki amiltoki ontara, bere sakonera neurtu ezin ditekela ikus dezagun?; ... - Zertarako gakarzkizu amiltoki ontara?; ... - Guk al zakarzkigu amiltoki ontara, bere sakonera neurtu ezin ditekela ikus dezazuten?; Ez, ... nik zuek baizik. -- Atzipetuta neramazuten, zuen gogokizunen egia niri esan gabe: Nork zeraman atzipetuta, bere gogokizunen egia zuri esan gabe?; ... - Nola zeramagun guk?; ... - Nik atzipetuta al zeramazkidan, nire gogokizunen egia zuei esan gabe?; Ez, zuek ez ... -- Ezin ibīli zenkizkieke beti aiko-maikotan: Nor ezin ibīli lekieke beti aiko-maikotan?; ... - Nola ezin ibīli lekizkiguke beti?; ... - Ni ibīli al nenkizueke beti aiko-maikotan?; Ez, zu ere ... -- Gure lanak arteka-marteka dagizkizugu: Nortzuek dagizkidate beren lanak arteka-marteka?; ... - Nola dagizkiguzu zure lanak?; ... - Oŕek ere bere lanak arteka-marteka al dagizkizue?; Ez, oŕek ez ... -- Andimandi ayek guztiz lotuta zauzkate: Nor daukate andimandi ayek guztiz lotuta?; ... - Nola naukate andimandi ayek?; ... - Guk al zauzkagu guztiz lotuta?; Ez, ... baizik. -- Ezin egon zenkizkiguke txutxumutxu goizetik gaberarte: Nor ezin egon lekizueke txutxumutxu goizetik gaberarte?; ... - Noiz arte ezin egon lekizkizueke txutxumutxu goizetik?; ... - Gu egon al genkizkizueke txutxumutxu goizetik gaberarte?; Ez, zuek ere ... -- Nai genezan bezin laisteŕ, gugandik aldendu zintzatekegu: Nortzuek aldendu gintzakete berengandik, nai zezaten bezin laisteŕ?; ... - Nor aldendu zenezakete zuengandik, nai zenezaten bezin laisteŕ?; ... - Nik aldendu al zintzaket nigandik, nai nezan bezin laisteŕ?; Ez, zuk ez ... -- Ez zaramagu gurekin, agian zaŕa-paŕa aundia izango dalako: Nork ez narama berarekin, agian zaŕa-paŕa aundia izango dalako?; ... - Zergatik ez naramazute zuekin?; ... - Guk ez al zaramazkigu gurekin, agian zaŕa-paŕa aundia izango dalako?; Bai, guk uste dugu ... -- Uste dut xista-pista ekaŕi al-izango gaituztela: Nork uste du xista-pista ekaŕi al-izango dutela?; ... - Zer uste duzu?; ... - Nik uste al dut xista-pista ekaŕi al-izango nautela?; Bai, zuk ... -- Ezin ibīli dakizkizueke beti buŕuka, dinbi-danba: Nor ezin ibīli dakiguke beti buŕuka, dinbi-danba?; ... - Nola ezin ibīli dakidake beti?; ... - Gu beti buŕuka, dinbi-danba, ibīli al gakizkizueke?; Ez, zuek ere ... -- Tikili-takala, eldu nai zenuteneraño eraman zintzakete: Nortzuek eraman gintzakete tikili-takala, eldu nai genueneraño?; ... - Noraño eraman nintzakete tikili-takala?; ... - Guk eraman al zintzatekegu tikili-takala, eldu nai zenuteneraño?; Bai, zuek ere ... -- Gure idazkiak eskeiñi genizaizkizueke, alde guzietan barna banatu zenizaizkiguten: Nortzuek eskeiñi lizkigukete beren idazkiak, alde guztietan barna banatu genizaizkien?; ... - Zer eskeiñi zenizaigukete, alde guztietan barna banatu genizaizuen?; ... - Nik ere nire idazkiak eskeiñi al nizaizkizueke, alde guztietan barna banatu zenizaizkidaten?; Bai, zuk ere ...

4. Emen jartzen ditugun bertsoak aŕetaz irakuŕi beaŕ dira; ta gero, nolakoak diran esan: laukoak, bostekoak, seikoak, zortziñakoak ote diran; bai ta oskidea nola dagoen egiña ere:

«NEGUA DUN»

«Negua dun, bai; ta, i, norantza?
Nola ikustatzen audan!
Auŕean dut ire iduria
neguz, zorakoŕ, egitan.

Esia daukan aintziñean,
eskuitik gora maīladia;
zut-zut doa lerden igoaz,
elurño-tantoz txuria.

Goŕi oa i, urdin ta muskeŕ
oskiz oñak, ta ginbaīa;
bi ardiño ditun atzean,
gora nairik bide biīa.

Zugatza dun, eskeŕ, liraña,
ta ur-isola txit apartsu;
inguruka doan maīadi
gañean, zelai elurtsu.

Bi etxe zelayan, gain txuri;
urbil, ur-gañez zubitxo
zotz-aga txikiz ornitua,
dan-dana lanbrotan txairo.

Uŕun, zeru-goya, etxeak
ats epel oro estaduz;
urdin erdian gurutzea,
goi-giroak ondo leunduz.

Otz aiz, neska, ta sua opa;
maīa gañeko bi etxeak
—oi epelaren muxu bigun!—
bafaz dauzkate ke-bideak.

Ik ere, oi!, jo zan araño,
otz bait da, otz-otz atean.
Fedearen sua dun goxo
barne izkutu ixiīean».

«Olerki 1980» (56-7'gn. oŕialdeetan) A. O.

EUN ETA BEŔOGETAMABOSKAŔEN IKASKAYA

JOAN (YOAN) eta EROAN (YOAN'dik - YOAN-erazi) aditzak, laguntzaīeak bezela erabiltzean.

Bi aditz auek, Bizkaya'ko izkelgian, beren esan-nai mugatuaren gañetik, laguntzaren beste zentzun berezia dute; oŕela, egiazki, laguntzaīeak dira, OI-IZAN beste aditzaren zentzunaz.

Lenengoa, JOAN (YOAN), aditz iragangaitzekin erabiltzen da, ta bigaŕena, EROAN (YOAN-erazi), iragankoŕekin; eta naiz bata naiz bestea, aditzen izenekin doaz, beren aditzera bilduen bitartez.

Beraz, zentzun oŕezaz, beren aldiak, gaurko ontan bederen erabiīita diranez, Oraiñaldi ta Lenaldi'koak dira, ots, euzkal-aditzaren oñaŕizko bi aldietan, bi erabideetan edo eraketan.

E. b.: Etoŕi noa = etortzen naiz = etoŕi oi naiz.
Jetxi goaz = jetxi oi gera; Igo zijoan = igo oi zan.
Ekaŕi daroat = ekartzen dut = ekaŕi oi dut.
Idatzi daroazute = idatzi oi duzute; Egin eroan = egiten zuen = egin oi zuen.

JOAN aditzaren erak ezagunak ditugu (1); oŕengatik EROAN aditzarenak ipiñiko ditugu soiīik. EROAN'en asmoa adierazteko, len, ERAMAN beste aditza erabiīi dugu; EROAN aditza Bizkaya'n bakaŕik erabiltzen dalarik.

TINKIERA'ZKO ORAIÑALDIA - LENENGO ERABIDEA

Era orokaŕa, irugaŕen notiñaren izakayaz

IKUSI D- a) -ROA- -T (-Da-) / -ZU- / ---- / -GU- / -ZU- -E- / ----- -E- -Z

Naiz era auetan, naiz jaŕaituko diran aditz onen besteetan, izakayaren askaŕ-zentzuna -Z atzizkiaz dagigu, Bizkaya'ko izkelgiak dagien bezela noski, aditz au izkelgi oŕena dalarik.

(1) Ikusi: 3 ta 40'gn. ikaskayak.

Emen eman dugun erakus-bidearen azken era, DAROAE, ta bere askaŕa dan bestea, DAROAEZ, onela laburtzen dira maiz: DAROE ta DAROEZ.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan eta bere lenengo leŕoan, izenorde artzaīleak jartzen ditugu, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabeak erakusten dituztenak; tinkierazko lenaldian, biei dagozkien ERAMAN aditzaren adizkin bilduak, izakai bakaŕaz, ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Adi-yabea	Niri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		neramakizun	...		...	neramakien
Zuk	Zeneramakidan		...	zeneramakigun		...
Berak	...	...	zeramakion	...	zeramakizuen	...
Guk		generamakizun	...		...	generamakien
Zuek	Zeneramakidaten		...	zeneramakiguten		...
Berak	...	...	zeramakioten	...	zeramakizueten	...

2. Bigaŕen eginkizuna dan ontan agertzen diran esakuntzetan, ERAMAN, EKAŔI ta ERABIĪLI aditzen adizkiñak azalerazten ditugu, artez eta zeaŕ-betekizunekin; bakoitzean, bigaŕen betekizun ori ta adi-yabea dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, ots, adi-yabea zeaŕ-betekizunaren bidez eta alderantziz, zeaŕ-betekizuna adi-yabearen bitartez; guziak lenaldian; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Nik nire lan osoa *neramakizun* ongi azteŕ zenezan; ... - Zuk zure auŕak *zenekarzkidan* gurekin egurastera eramateko; ... - Berak aulki oyek *zerabilzkigun* bere ikasguan; ... - Guk artaldea *generamakizuen* goiko laŕe onenetara; ... - Zuek zuen garia *zenekarkiguten* gure eyeran irintzeko; ... - Berak beti *zerabilzkieten* oñetako oso zikiñak; ... - Nik ez *nekarzkizuen* nai zenituzten goxokiak; ... - Zuk ibilkera oso baldaŕak *zenerabilzkidan* nirekin zinjoazenean; ... - Berak bere maŕezkiak pozik *zeramazkizun*, ondo begira zenizaizkion; ... - Guk aitari ortuko igaliak *genekarzkion* artu bezin laisteŕ; ... - Zuek beren jostaīluak *zenerabilzkieten* noiz-nai; ... - Berak zuen idazti guziak *zeramazkizueten* zuei ezer esan gabe; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; oitura dugunez, eta kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Egunero atsotxu oŕen begiko oyengana igo noa: Nor igo doa egunero atsotxu oŕen begiko oyengana?; ... - Norengana igo zoaz egunero?; ... - Gu igo al goaz egunero atsotxu oŕen begiko oyengana?; Ez, ... baño. -- Noizean bein iruten eta luŕean kokoriko eserita ikusi daroazue: Nor ikusi daroagu noizean bein iruten eta luŕean kokoriko eserita?; ... - Nola ikusi daroe noizean bein?; ... - Nik ikusi al daroat noizean bein iruten eta luŕean kokoriko eserita?; Ez, zuk ez ... -- Ikusten danez ez garamazkite geyago, len bezela joan genkizkieken tokira: Nortzuk ez daramazkite geyago, len bezela joan lekizkieken tokira?; ... - Nola ez zaramazkite geyago?; ... - Ni al naramate, len joan nenkieken tokira?; Ez, zu ere ... -- Erdu al zoaz Gasteiz'ko gure gaztediaren bilkura leyatsuetara?; bai, oyetara erdu noa geyenetan: Nor erdu doa Gasteiz'ko zuen gaztediaren bilkura leyatsuetara?; ... - Nora erdu zoazte geyenetan?; ... - Zure ikaskideak erdu al doaz Gasteiz'ko zuen gaztediaren bilkura leyatsuetara?; Bai, oyek ere ... -- Azkenez, bideko eragozpenen batzuk eratxi al badizaizkizute, gaitz erdi: Nori eratxi dizaizkiokete, azkenez, bideko eragozpenen batzuk?; ... - Zer eratxi dizaidakete, azkenez?; ... - Zuk eratxi al dizaizkigukezu, azkenez, bideko eragozpenen batzuk?; Bai, ... -- Oŕela mintzatzean sumindu lekizkiguke: Nor sumindu lekizueke oŕela mintzatzean?; ... - Nola sumindu lekizkizueke?; ... - Zu ere sumindu al zenkiguke oŕela mintzatzean?; Bai noski, ni ere ... -- Adiskide izun oyengandik al gaitezken guzia uŕundu goaz: Nor uŕundu doa al diteken guzia adizkide izun oyengandik?; ... - Nortzuengandik uŕundu zoazte al zaitezketen guzia?; ... - Ni ere uŕundu al noa al naiteken guzia adiskide izun oyengandik?; Bai, zu ere ... -- Trinkili-trankala bada ere, zelairaño saŕi joan doa: Nor joan doa saŕi zelairaño trinkili-trankala bada ere?; ... - Nola joan zoazte saŕi zelairaño?; ... - Atso ayek ere saŕi zelairaño joan al doaz, trinkili-trankala bada ere?; Bai, ayek ere ... -- Batzuetan, joko ayek laketu daroaguz: Nortzuek laketu daroez batzuetan joko ayek?; ... - Zer laketu daroazue batzuetan?; ... - Nik laketu al daroadaz batzuetan joko ayek?; Ez, ... baño. -- Meaka izugaŕi ayetan bilduŕik gabe ibīli doaz: Nor ibīli doa bilduŕik gabe meaka izugaŕi ayetan?; ... - Nola ibīli zoazte meaka izugaŕi ayetan?; ... - Ni ere bilduŕik gabe ibīli al noa meaka izugaŕi ayetan?; Ez, zu ... -- Amiltoki artan eŕaztasun aundiaz erori zenkidake: Nor erori lekizuke eŕaztasun aundiaz amiltoki artan?; ... - Nun erori nenkizuke eŕaztasun

aundiaz?; ... - Gu ere amiltoki artan eŕaztasun aundiaz erori al genkizkizueke?; Bai, zuek ere ... -- Geyegi zirikatu daroazuz, ondorioak ondo neurtu gabe: Nork zirikatu daroaz geyegi ondorioak ondo neurtu gabe?; ... - Nola zirikatu daroadaz, ondorioak ondo neurtu gabe?; ... - Zuek ere geyegi zirikatu al daroazuez, ondorioak ondo neurtu gabe?; Ez, guk ... -- Noizean bein tokiz aldatu daroaguz ondatu ez ditezen: Nortzuek aldatu daroez tokiz noizean bein, ondatu ez ditezen?; ... - Zertarako aldatu daroadaz noizean bein tokiz?; ... - Zuek ere tokiz aldatu al daroazuez noizean bein, ondatu ez ditezen?; Bai, guk ere ... -- Gure eŕialdeko itxasertzean txiŕiak eŕuz ibīli doaz: Zein ibīli doa eŕuz gure eŕialdeko itxasertzean?; ... - Nun ibīli doaz eŕuz txiŕiak?; ... - Enarak ibīli al doaz eŕuz gure eŕialdeko itxasertzean?; Ez, ... baño. -- Mendileŕoen gañetik aŕanoak oso goyan egatu doaz: Nun egatu doaz aŕanoak mendileŕoen gañetik?; ... - Zuek ere oso goyan egatu al zoazte mendileŕoen gañetik?; ... - Eta ni ere oso goyan egatu al noa mendileŕoen gañetik?; Ez, zu ere ...

4. Uŕengo irakurgaya ongi irakuŕi ondoren, zeatz auek eman beaŕ dira: 1. Bertan aipatzen dana nun gertatu omen zan; 2. Oŕ agertzen dan Goñi zaldunak zer egin omen zuen mendian ala bizi beaŕ-izateko; 3. Noiz gertatu omen ziran ipuin ortan nabaritzen diran gertakariak:

«ZALDUNA TA SUGEAREN BUŔUKA»

«Iraun-sugeak, mendi tontoŕ batean zeukan bere leizea ta ara joaten ziran ark jan beaŕ zituanak. Neskea ere iritxi zan toki artara ta leize ondoan eseri zan. Sugea noiz azalduko zegoen bitartean, eta zer egin etzekiela, īleak oŕazten asi zan.

Ortan ari zala, ots bat entzun zuan bere ondoan, abereren bat ba-zetoŕen bezela. Begiratu zuan otsa zetoŕen tokira, ta, erabat ikaratuta geratu zan izugaŕi bat ikusi balu bezela.

— Ez ikaratu, gazte —esan zion izugaŕi antzeko arek—, itxura ontan ikusten banazu ere, zu bezelaxe kristau bat naiz.

Neskea zerbait lasaitu zan itz ayek entzutean, baña bere laŕitasuna erabat utzi gabe.

Azaldu zan ura, Goñi'ko Zalduna zan, geŕitik katea aŕastaka zuala, bere ibīlera batean an gertatu zana. Naiz galarazita eduki iñor ikustea edo iñorekin itzegitea, ain aŕigaŕi iruditu zitzayon neska ura an ikustea,

besterik oldoztu gabe, edo bere buruaren jabe izan gabe, izketan asi zitzayon esanaz:

— Zer egiten duzu emen edo ta zertan zaude bakardade ontan?

— Ola ta ola —erantzun zion neskeak— gure eŕietara suge aundi bat jeizten zan, ta an kristau asko iltzen zituan. Ori gertatu ez zedin, īlean bein edo onera bat etortzeko erabakia artu zuten, sugea eŕira jetxi ez zedin. Gaur gure aitari tokatzen zitzayon, baña aren ordez ni etoŕi naiz.

Aŕituta geratu zan Goñi'ko Zalduna itz auek entzutean ta bereala esan zion neskeari:

— Zoaz zure etxera, gaur ni geratuko naiz emen suge oŕek jateko.

— Ez —esan zion neskeak— zoaz zu emendik, bestela biok jango gaitu edo ta eŕira jetxita txikizioren bat egingo du.

— Nik buŕuka egin beaŕ dut suge oŕekin; ez dakit zergatik baña uste dut Jainkoa'k ekaŕi nauela toki ontara.

Oŕela Goñi'ko Zalduna ta neskea elkaŕekin izketan ari zirala, aize-bolara ots bat entzun zan leizetik ateratzen eta bereala suge buru aundi bat bi begiak txinpartak botatzen zituztela agertu zan».

«Kontu Zaarrak» (17-8'gn. oŕialdeetan) Jose Arratibel.

EUN ETA BEŕOGETAMASEIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

TINKIERA'ZKO ORAIÑALDIA - «EROAN» ADITZA

IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

Ner*i*	IKUSI	D- a) -ROA- -*T*- (-*D*a-)	-ZU- ---- -ZU- -E- ---- -E-	-Z
Gur*i*	IKUSI	D- a) -ROA- -*GU*-	-ZU- ---- -ZU- -E- ---- -E-	-Z
Zur*i*	IKUSI	D- a) -ROA- -*TSU*-	-T- (-Da-) --- -GU- ---- -E-	-Z
Zue*i*	IKUSI	D- a) -ROA- -*TSU-E*-	-T- (-Da-) --- -GU- ---- -E-	-Z
Berar*i*	IKUSI	D- a) -ROA- -*KO*-	-T- (-Da-) -ZU- ---- -GU- -ZU- -E- ---- -E-	-Z
Ber*ai*	IKUSI	D- a) -ROA- -*KO-E*-	-T- (-Da-) -ZU- ---- -GU- -ZU- -E- ---- -E-	-Z

Bigaŕen notiñen zeaŕez-betekizuna, ikusten danez, onela dagite: TSU ta TSUE; ta irugaŕen notiñena: KO ta KOE; auetako K ori, beste atzizkia dan KI'ren kondaŕa edo dalarik.

EGINKIZUNAK

1. Emen ematen dugun laukian, EROAN aditzaren erak ipiñi beaŕ dira; oraiñaldian, irugaŕen notiñaren izakayaz, bakaŕ eta askaŕean; adi-yabeak ezkeŕeko goitiberako zeŕendan jaŕita dagozelarik; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Adi-yabea	Izakai bakaŕa	Izakai askaŕa
Nik	Daroat	...
Zuk	...	daroazuz
Berak	Daroa	...
Guk	...	daroaguz
Zuek	Daroazue	...
Berak	...	daroez

2. Bigaŕen eginkizun ontan, EROAN aditzaren adizkiñak agertzen dira; izakai bakaŕaz dagozenak izakai askaŕekoen bidez aldatu beaŕ dira, ta alderantziz, izakai askaŕaz dagozenak izakai bakaŕekoen bitartez; bai ta bayezkoak diranak ezezkoen bidez eta alderantziz ere, ezezkoak bayezkoen bitartez; kulatzen ordez esan eta idaztean:

Nik auŕak egurastera *daroadaz* egunero; ... - Zuk oso ondo lanegin *daroazu* zure soloa; ... - Berak ikusi *daroa* besteak ikusi ez *daroena*; ... - Guk bere ortuko igaliak jan *daroaguz* gogo aundiaz; ... - Zuek nun-nai itzegin *daroazue*; ... - Berak *ez daroe* ainbeste edan; ... - Nik *ez daroat* iñoiz jan gizon gizen oyek ainbeste; ... - Zuk udabeŕian ardiak goiko laŕe ayetara eroan *daroazuz*; ... - Berak *ez daroaz* onartu biziak dakarzkion naigabeak; ... - Guk ebaki *daroagu* eguŕa udan, gero neguan etxean eukitzeko; ... - Zuek *ez daroazuez* abestu Eŕi'aren abesti politak; ... - Berak gutunak asko idatzi *daroez* batzuetan; ...

3. Emen ipintzen ditugun galderai erantzun egoki bana egin beaŕ zaye; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Sustrai gabeko eragozkiak ipiñi daroaguzuz; eta oŕela ezin egin diteke ezer: Nork ipiñi daroatsuez sustrai gabeko eragozkiak?; ... - Zer

ipiñi daroatsuet nik, ezer egin ezin izateko?; ... - Oyek ipiñi al daroatsuez sustrai gabeko eragozkiak?; Ez, oyek ez ... -- Ain gauzak iguingaŕiak esan daroakoezuezelarik, eta, jakiña, eztute zuekin iñora joan nai: Nork esan daroakoez ain gauza iguingaŕiak?; ... - Zer esan daroakoe neska mazal oyei, berarekin, gero, joan nai ez izateko?; ... - Guk esan al daroakoeguz ain gauza iguingaŕiak?; Ez, zuek ez ... -- Ziŕi-paŕa ain aundi artatik ezin atera genizaizueke garbi ezer: Nork ezin atera lizaiguke garbi ezer ziŕi-paŕa ain aundi artatik?; ... - Nundik ezin atera zenizaigukete garbi ezer?; ... - Nik atera al nizaizueke garbi ezer ziŕi-paŕa ain aundi artatik?; Ez, zuk ere ... -- Ez doaz iñoiz jetxi ona; ba-dirudi gure bilduŕ dagozela: Nor ez doa ona iñoiz jetxi?; ... - Nora ez zoazte iñoiz jetxi, oyen bilduŕ zagozela dirudielarik?; ... - Ni ere ez al noa iñoiz oŕa jetxi, zuen bilduŕ nagoela dirudilako?; Ez, zu ere ... -- Alako batean urtara bota gintzakete, iñork ezer oartu gabe: Nork bota zintzateke urtara alako batean, iñork ezer oartu gabe?; ... - Nora bota zintzatekee alako batean iñork ezer oartu gabe?; ... - Ni bota al nintzakezute alako batean urtara iñork ezer oartu gabe?; Bai, ... -- Ez zoazte gugana urbildu, nai-izango genuken ainbat: Nortzuk ez doaz zuengana urbildu, zuek nai-izango zenuketen ainbat?; ... - Nortzuengana ez doaz urbildu, nai-izango luketen ainbat?; ... - Zu ere ez al zoaz urbildu nigana, nai-izango nuken ainbat?; Ez, ni ere ... -- Maiz eta edozein kari dalarik, salatu daroaguez: Nor salatu daroatsue maiz eta edozein kari dalarik?; ... - Nortzuek salatu daroatsueez maiz eta edozein kari dalarik?; ... - Nik ere salatu daroatsuedaz maiz eta edozein kari dalarik?; Ez, zuk ez ... -- Oztadaŕa bere margo edeŕ-edeŕak erakustean eratu doa: Zer eratu doa bere margo edeŕ-edeŕak erakustean?; ... - Nola eratu doa oztadaŕa?; ... - Odeyak eratu al doaz beren margo edeŕ-edeŕak erakustean?; Ez, ... baizik. -- Artizaŕa azkoŕian beste izaŕak baño beyago distiratu doa: Zer distiratu doa azkoŕian beste izaŕak baño geyago?; ... - Nola distiratu doa artizaŕa azkoŕian?; ... - Artizaŕa iĺunabaŕean distiratu al doa beste izaŕak baño geyago?; Ez, ... baño. -- Aziak zure soloetan buŕustaz baŕeyatu daroatsuguz: Nork baŕeyatu daroadaz aziak nire soloetan buŕustaz?; ... - Nola baŕeyatu daroadazuez aziak nire soloetan?; ... - Nik baŕeyatu al daroatsuedaz aziak zuen soloetan buŕustaz?; Ez, zuk ez ... -- Ezkutatu al bazenkizkigu, elitzake luzarorako izango: Luzarorako izango al litzake, ni ezkutatu al banenkizue?; ... - Aldi labuŕerako izango al litzake, oyek ezkutatu al balekizkigu?; ... - Eta gu ezkutatu al bagenkizkizue, luzarorako ere izango al litzake?; Ez, zuek ... -- Sargori au dala kari, ezin nenkizueke an iraun ordu batean baño geyago: Nor ezin iraun lekiguke an ordu batean baño geyago sargori au dala kari?; ... - Zer dala-ta ezin iraun zenkiguke an ordu batean baño geyago?; ... - Zuek an iraun al zenkizkiguke ordu batean baño geyago sargori au dala kari?; Ez, gu ere ... -- Matazak oso ondo ta laisteŕ arildu daroadaez: Nork arildu daroatsuz matazak oso ondo ta laisteŕ?; ... - Zer arildu daroatsue oso ondo ta laisteŕ?; ... - Nik arildu al daroatsudaz matazak oso ondo ta laisteŕ?; Ez, zuk ez ... -- Moxal ayek, ordokiko zaldizko oldarkoŕenak baño lenago ta obeto eskurapetu daroaedaz: Nork eskurapetu daroatsuz moxal ayek, ordokiko zaldizko oldarkoŕenak baño lenago ta obeto?; ... - Nola eskurapetu daroaezuz moxal ayek?; ... - Guk eskurapetu al daroaeguz moxal auek ordokiko zaldizko oldarkoŕenak baño lenago ta obeto?; Ez, zuek ez ... -- Oŕelako ugolde bat elduko balitzaigu, guztiak ito lekizkiguke: Nortzuk ito lekizkizueke oŕelako ugolde bat elduko balitzaizue?; ... - Nola ito lekizkieke guztiak?; ... - Ni ere ito al nenkizueke, oŕelako ugolde bat elduko balitzait?; Bai, zu ere ...

4. Eŕi-ipuin baten txatal au ondo irakuŕi beaŕ da, beti bezela, ta gero, egiĺea nor dan, nungoa, ta eŕi-ipuñai buruz bakoitzaren iritzia nolakoa dan esateko:

«ZERUTAŔ BAT»

«Nik orain gomuta eztoñan etxeguntza batean bizi ei zan bigaŕenez ezkonduriko emakume bat, buru-baŕuba utzik edo beiñik-bein ondo beterik etzeukana bera, irakurleak igaŕiko daun lez.

Agertu yakon bein ate-onduan eskeko bat, bere soñekoak zaŕen-zaŕez danak triskilduta, alde guztietatik zulatuta, oñetakuak abua zabalik baŕeka, buruko txapela be koipez beterik, erdi-erdian leyo biribil bat ebala, bertatik ule-piĺo bat agiri yakola.

Aŕiturik ikusi ebaneko, itandu eutson emakume arek:

— Ene! Nundik urten zara era oŕetan? Nundik zatoz?

— Zeruetatik, andrea —erantzun eban Arlote'k.

— Zeruetatik zatozala? Zeruetatik esan dozu?

— Bai andrea, andixek natoŕ.

— Aitearen da Semearen!... Ondiño alakorik! Orduan, biarba, ezautu ixango dozu Juane guria.

Auxe zan bere lenengo senaŕaren ixena. Espetxe-nagositik etoŕan azeri zaŕak lasteŕ igaŕi eban zelako *lelantoni* eukan auŕian, eta, bada-ezpadan, jaŕaitu eutson onen okeŕ-aditziari.

— Ezautu ez ostera! Bai ta ... aizkide andiak gara.

— Ene ba! Ta zelan dabil bera? Ondo bixi da?

— Gitxi gora-bera neu lez. An ezta oi beste bixikerarik. Danak arlote, danak zoŕiz, ardiz, soñeko zaŕez ta nekez beterik.

— Ai ene Jaungoikua! Juane koitadue! Nork uste ixan biaŕ olakorik? Bigurtuko zara bertara baŕiro?

— Bai, aldi andirik ezta igaroko ni ara juan orduko, uste dot beintzat.

— Orduban eruan biaŕ dautsozuz gauzatxoen batzu, nire bijotzeko Juane ain txarto bixi ez dadin.

— Bai, bai, pozik be; ataraizuz, ataraizuz gauzok.

Atara ta emon eutsozan ba, diruben batzuk, soñeko baŕijak toloztuta maletatxo batean, eta gañera goraintzi andi ta ugariak Juane koitaduarentzat».

«Abarrak» (6-7'gn. oŕialdeetan) Buztintza'taŕ Ebaista (Kirikiño'k).

EUN ETA BEŔOGETAMAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

TINKIERA'ZKO ORAIÑALDIA - «EROAN» ADITZA

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕari dagozkienak

Ikusi *N*- a) -ROA- -ZU / --- / -ZU- -E / ---- -E

Ikusi *G*- a) -ROA- -ZU / --- / -Z / -ZU- -E- / ---- -E-

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕari dagozkienak

Ikusi *Z*- a) -ROA- -Da- / ---- / -Z / -GU- / ---- -E-

Ikusi *Z*- a) -RO(A)- -*E*- -Da- / ---- / -Z / -GU- / ---- -E-

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕai dagozkienak

Eztitugu adizkin auek jartzen, len, 155'kn. ikaskayan eman genituenak diralako.

NAROAE, GAROAEZ, ZAROAEZ eta ZAROEEZ, onela laburtzen dira: NAROE, GAROEZ, ZAROEZ eta ZAROEZ, alkaŕi dagokionez.

Eginkizunak

1. Lauki ontako lenengo leŕoan izenorde artzaīeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabearen beste izenordeak ere; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion EROAN aditzaren adizkiñak ipiñi beaŕ dira, bakaŕ-izakayaz, artez eta zeaŕez- betetzekoen asmoak oraiñaldian adierazten; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Adi-yabea	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		daroatsut	...		...	...
Zuk	...		daroakozu	...		...
Berak	Daroat	...	...	...	...	...
Guk		...	...		daroatsuegu	...
Zuek	...		...	...		daroakoezue
Berak	...	...	...	daroague	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan ematen ditugun esakuntzetan, EROAN aditzaren adizkiñak agertzen dira; bakoitzean, onela aldatu beaŕ dira : adi-yabea zeaŕ-betetzekoaren bidez eta alderantziz, zeaŕ-betetzekoa adi-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esan eta idaztean :

Al dudan bezin ondo, eguneroko nire ikaskaya ikasi *daroatsut*... ... - Egia al da zure arazoak zeatzez aztertu *daroadazuzala?*; ... - Etxeko edontziak oso ondo bete *daroaguz* beti; ... - *Ez daroatsuegu* uztu zuen ortuko osiña, uste-izan duzuten bezela; ... - Noiz itzali *daroaguzuez* zuen etxeko argiak?; ... - Okindegiko labea oso goiz izeki *daroadae*, geyenetan; ... - Sayeskiak oso ongi eŕe *daroakoedaz*, berai atsegin zayen bezela; ... *Ez daroaguzu* egosi eltzekaria guk nai dugun bezin ondo; ... - Aŕautzak oso egokiro eŕegosi *daroakoez*; ... - Guk *ez daroakogu* irakin ura geyegi iñoiz; ... - Guztien arazoak sakonez erkatu *daroakoezuezala* esan didate, oŕela al da?; ... - Epaīle oyek egipen guziak aŕetaz bīlakatu *daroatsuez* bein eta beŕiz; ...

3. Galdera auei, beti bezela, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esanez eta idatziz :

Ez al naroazue ikusi maiz, nai dezazuten guzia esan dizaidakezuten?; bai, egia da maiz ikusi zaroaguzala, baña ez deritzaigu ongi gure kezkaen beŕi zeatza ematea : Nori ezteritzayo ongi bere kezkaen beŕi zeatza zuei ematea, maiz ikusi zaroezanaŕen?; ... - Zer ez deritzaizue ongi?; ... - Niri ongi al deritzait nire kezkaen beŕi zeatza zuri ematea,

maiz ikusi zaroadan aŕen?; Ez, zuri ... -- Ez zaroaguz agurtu, nai duzun bezin adeyez, gugandik ezer artzeko gai ez zeralako : Nork ez naroa agurtu, nik nai dudan adeyez?; ... - Zergatik ez naroazue agurtu, nai dudan bezin adeyez?; ... - Nik agurtu al zaroadaz, zuk nai duzun bezin adeyez?; Ez, zuk ere ... -- Ez al zaroaez eraman zure gurasoak Gipuzkoa'ko ondartza onenera?; bai, nire gurasoak Gipuzkoa'ko ondartza onenera eraman naroae : Nortzuek eraman zaroaez Gipuzkoa'ko ondartza onenera?; ... - Nora eraman zaroaeez zuen gurasoak?; ... - Nik eraman al zaroadaz Gipuzkoa'ko ondartza onenera?; Ez, ... baño. -- Noizean bein gure ortuko igali onenak eskeiñi daroakoeguz : Nortzuei eskeiñi daroakoezuez noizean bein zuen ortuko igali onenak?; ... - Zer eskeiñi daroakoezue noizean bein?; ... - Nik eskeiñi al daroakoedaz noizean bein nire ortuko igali onenak?; Ez, ... baizik. -- Bereala ezagutu garoaez auŕ oŕen txiki ta begikoek : Nork ezagutu zaroaez bereala?; ... - Noiz ezagutu zaroaeez auŕ oŕen txiki ta begikoek?; ... - Nik ezagutu al zaroedaz bereala?; Ez, ... baño. -- Gizon aizun oŕek iraindu al bazintza, bere gogo guziaz egingo luke : Nork iraindu nintzake bere gogo guziaz?; ... - Nola iraindu nintzakete gizon aizun oyek?; ... - Guk iraindu al zintzakegu gure gogo guziaz?; Ez, zuek ez ... -- Bīlatu zaroaeez eten gabe, baña beti alpeŕik : Nork bīlatu garoaz eten gabe ta beti alpeŕik?; ... - Nola bīlatu garoazuez beti alpeŕik?; ... - Ni ere bīlatu al naroazue eten gabe ta alpeŕik?; Bai, guk ere ... -- Ardantegiz-ardantegi zoaztenean ez naroazue aurkitu : Nortzuek ez zaroaez aurkitu ardantegiz-ardantegi doazenean?; ... - Noiz ez zaroaguz aurkitu?; ... - Gu aurkitu al garoazuez ardantegiz-ardantegi zoaztenean?; Ez, guk ez ... -- Zigortu daroaguz, bai, baña ala ere ez beaŕ-izango genuken ainbat : Nortzuek zigortu daroaez, baña ala ere ez beaŕ-izango luketen ainbat?; ... - Nortzuk zigortu daroazuez, baña ez ala ere beaŕ-izango zenuketen ainbat?; ... - Ni zigortu al naroazu beaŕ-izango zenuken ainbat?; Ez, zu ez ... -- Atzitzen zaituen bakoitzean ankerkiz laidotu zaroaez : Nor laidotu daroaez ankerkiz atzitzen duten bakoitzean?; ... - Nola laidotu naroaez ankerkiz atzitzen nauten bakoitzean?; ... - Gu ere laidotu al garoaez ankerkiz atzitzen gaituzten bakoitzean : Ez, zuek ez ... -- Ikastetxetik aŕatsaldeetan ordu-orduan atera zaroadaz : Nork atera naroa ikastetxetik aŕatsaldeetan ordu-orduan?; ... - Nor atera daroazu ikastetxetik aŕatsaldeetan ordu-orduan?; ... - Zuek atera al zaroaedaz ikastetxetik aŕatsaldeetan ordu-orduan?; Ez, zuk ez ... -- Zergatik sartu naroazue joan nai ez dudanera?; zuretzat oso egokia izango zaizulako sartu zaroaguz, joan nai ez

duzunera: Nortzuek sartu naroae nik joan nai ez dudanera, niretzat egokia izango zaidalakoan?; ... - Nik sartu al zaroaedaz zuek joan nai eztuzutenera, zuentzat egokia izango zaizuelakoan?; ... - Gu sartu al garoazuz joan nai ez dugunera, guretzat egokia izango zaigulakoan?; Bai, zuek ere ... -- Unealdi askotan zure bezuza naroak bialdu daroaguzuz: Zer bialdu daroatsuet unealdi askotan?; ... - Noiz bialdu daroatsueguz gure bezuza naroak?; ... - Niri bialdu al daroadazuez unealdi askotan zuen bezuza naroak?; Ez, guk ez ... -- Zuen abestiak gabaz abestea gebendu daroatsuee: Zer gebendu daroague?; ... - Nortzuei gebendu daroakoee beren abestiak gabaz abestea?; ... - Niri gebendu al daroadae nire abestiak gabaz abestea?; Ez, zuri ez ... -- Agure ori sumindu al balekit, alegiñak egingo nituke baretzeko: Nork egingo lituke alegiñak baretzeko, agure ori sumindu al balekio?; ... - Zer egingo zenuke baretzeko, agure ori sumindu al balekizu?; ... - Guk ere alegiñak egingo al genituke baretzeko, agure ori sumindu al balekigu?; Bai, zuek ere ...

4. Emen ematen dugun Idazteun'aren txatal au ongi irakuŕi beaŕ da lenengoz; gero, Abram'en nortasunari buruz bakoitzak bere iritzia emateko, gizon eta siñestuna izan zanez; artu zuen deya gutxi gorabera zein urtean izan zan; oŕ aipatzen diran ibayak gaur ere nun dagozen; bai ta Idazteuna irakurtzearen gaŕantzia nolakoa dan ere esateko:

«ASPALDI BATEAN»

«Orain lau miīa urte inguru dirala, Tigris eta Eufrates ibayen erdian dagoen luŕalde batean, Jaran deritzan eŕian —beŕiro arkitu baitira eŕi onen ondaŕak— Jaungoikoa'ren adiskide aundi bat bizi zan. Abram zeritzan; eta Tarej'en semea zan. Auntz, ardi ta ganbelu-talde aundiak zituen; inguruko zelayetan bere artzayak laŕatzen baitzizkioten.

Abram aberatsa zan, eta bere emazte Sarai, oso edeŕa. Zoriontsu bizi ziran.

Bañan, alako batean, Abram'ek, otoitzean ari zala, dei bat entzun zuen bere baŕuan: «Irten zaitez zure luŕaldetik, zure senide-artetik eta zure aitaren etxetik, eta zoaz, Nik esango dizudan eŕialde batera».

«Eŕi aundi egingo zaitut, eta ots aundiko izena emango dizut, izen bedeinkatua. Nik bedeinkatuko ditut zu bedeinkatzen zaituenak, eta madarikatuko, zu madarikatzen zaituenak; eta Ludi guztiko senitarteak zugan izango dute bedeinkapen».

Abram'ek maite zituen, maite, bere luŕaldea, bere etxea ta bere aita.

Bañan Jaungoikoa'ren deya zan. Eta Abram, Jaungoikoa'ren deyari jaŕaiki, irten zan andik, bere emazte Sarai'rekin eta bere iīoba Lot'ekin eta bere neskame-moŕoi ta abere guztiekin. Txangoka-txangoka, zelai ta lekaroetan zeaŕ, sartalderuntz jo zuten, gaur Palestina deritzan luŕaldera; orduan ordea, Kanan baitzeritzan.

Abram'en bere etxetikako irteera ta Kanan'erako joate ontatik du bere asiera, Judego'en Edestia. Orain emen esango duguna, Edesti ori da, aspaldi-aspalditik ebertaŕen idaztietan idatzirik dagoen Edestia. Era berean, Kristau'en Edestia da; Jesukristo bera ere emakume judego baten semea baitzan; eta Israel'en Edesti guztia ere, Jesus'en etorerako gertukizuna besterik ez da izan.

Abram'engan asten da Israel'en Edesti ortan dago, bai ta Jaungoikoa'ren eta gizonen arteko Alkarte'aren Edestia ere. Jaungoikoa'k berak irten-erazi zion Abram'i bere jayotetxetik, Berak zuzendu zituen aren uŕatsak, Berak itzegin zion bein-da-beŕiz; eta Abram'ek erakusten digu guri ere, nola egin beaŕ dugun, Jaungoikoa'k agintzen diguna.

Edesti aŕigaŕi ta benetako ori, «Idazteuna» deritza».

«Idazteuna guztioi esana» (3-4'gn. oŕialdeetan) Lekuona'taŕ Imanol'en mendean euzkeratuta.

EUN ETA BEŔOGETAMAZORTZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

«EROAN» ADITZ LAGUNTZAĽEA

TINKIERA'ZKO LENALDIA - BIGAŔEN ERABIDEA

Era orokaŕa, irugaŕen notiñaren izakayaz

		N-				
		Z-				
		--				
IKUSI			e) -ROA-		-Z- a) -N	
		G-				
		Z-		-E-		
		--		-E-		

Azken era biak: ZEROAEN eta EROAEN, onela laburtzen dira: ZEROEN eta EROEN; eta berai dagozkien askaŕ zentzunezkoak berdin: ZEROAEZAN eta EROAEZAN onela: ZEROEZAN eta EROEZAN.

TINKIERA'ZKO LENALDIA - BIGAŔEN ERABIDEA

IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

		Z-				
		--				
Ner*i*	IKUSI		e) -ROA-	-*Da*-	-Z- a) -N	
		Z-		-E-		
		--		-E-		
		Z-				
		--				
Gur*i*	IKUSI		e) -ROA-	-*GU*-	-Z- a) -N	
		Z-		-E-		
		--		-E-		
		N-				
		--				
Zur*i*	IKUSI		e) -ROA-	-*TSU*-	-Z- a) -N	
		G-				
		--		-E-		
		N-				
		--				
Zue*i*	IKUSI		e) -ROA-	-*TSU*- -*E*-	-Z- a) -N	
		G-				
		--		-E-		

		N-				
		Z-				
		--				
Ber*ari*	IKUSI		e) -ROA-	-*KO*-	-Z- a) -N	
		G-				
		Z-		-E-		
		--		-E-		
		N-				
		Z-				
		--				
Ber*ai*	IKUSI		e) -ROA-	-*KO*- -*E*-	-Z- a) -N	
		G-				
		Z-		-E-		
		--		-E-		

ERA OROKAŔA'n azaldutako adizkiñetan bezela, bigaŕen eta irugaŕen askaŕ-notiñak, adi-yabeak bezela agertzen diranean, -ROA- + -E- alkartzea berdin dagite, -ROE-'z laburtzean.

EGINKIZUNAK

1. **Lenengo lauki ontako lenbiziko leŕoan, izakayak adierazten dituzten izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan adi-yabeen beste izenordeak; oŕela, alkaŕi dagozkion izakayezko aditzerak ipiñi beaŕ dira, EROAN aditzaren Tinkiera'zko Oraiñaldian; kulatzen ordez, esan eta idazteko:**

Adi-yabea	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		zaroadaz	...		...	...
Zuk	...		daroazu	...		...
Berak	Naroa	...	...	...	...	...
Guk		...	...		zaroaeguz	...
Zuek	...		...	...		daroazuez
Berak	...	...	...	garoaez	...	...

2. **Bigaŕen eginkizun ontan, EROAN aditzaren adizkiñak azaltzen dira, artez eta zeaŕezko betetzekoak daramazkitenak; era bakoitzean adi-yabea ta zeaŕ-betetzekoa dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, ots, adi-yabea zeaŕ-betetzekoaren bidez, eta alderantziz, zeaŕ-betetzekoa adi-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:**

Al dudan bezin ondo, mutil oŕi, egin beaŕ duena oartu *daroakot*; ... - Aiztu nai-izango nukena, oroitu *daroadazu* saŕi; ... - Biuŕikoak oso

ondo tinkotu *daroaguz* langīle oŕek; ... - Nekazari oyei beren idiak egokiro uztartu *daroakoeguz*; ... - Bizaŕa kentzeko gure labanak ez *daroaguzuez* ongi leundu; ... - Zuen matazak naspildurik edonola makotu *daroatsueez*; ... Zure oldozpen guziak eŕazki igaŕi *daroatsudaz* beti; ... - Zergatik ziztatu *daroakoezuz* beren zaragiak?; ... - Gogoŕ eta indaŕez besoa zimikatu *daroagu* askotan; ... - Guk iñoiz *ez daroakoegu* ondatu, ain aŕeta aundiaz egiten dutena; ... - Beaŕik gabe, gure ogia zeatu *daroaguzue* bazkaltzera zatozen bezin laisteŕ; ... - Oyek, asmo gaiztoz, nik daramadana zoatsi *daroadae*; ...

3. Oitura dugunez, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esanez eta idatziz:

Egun guztietan etxera itzuli ninjoan iīunabaŕean baño lenago: Nor itzuli zijoan egun guztietan etxera iīunabaŕean baño lenago?; ... - Noiz itzuli zinjoazten etxera egun guztietan?; ... - Zu ere itzuli zinjoazan egun guztietan etxera iīunabaŕean baño lenago?; Ez, ni ez ... -- An saltzeko zegozen bitxi aizunen batzuk erosi geroazan: Nortzuek erosi eroezan, saltzeko zegozen bitxi aizunen batzuk?; ... - Zer erosi zeroaen?; ... - Nik erosi al neroazan, saltzeko an zegozen bitxi aizunen batzuk; Ez, ... baño. -- Ez al zaroaez ikusi, eguerdiko itzaldietara ertzen zeratenean?; bai, ikusi garoaez itzaldi oyetara ertzen geranean: Nortzuk ikusi daroaez, eguerdiko itzaldietara ertzen diranean?; ... - Noiz ikusi garoaez?; ... - Ni ikusi al naroae eguerdiko itzaldietara ertzen naizenean?; Bai, zu ere ... -- Aitzakiak ipiñi ez genizaizkizun, zure bilbelera bertara zurekin igo-erazi ginduzun: Zertarako igo-erazi zinduztedan nire bilbelera bertara nirekin?; ... - Nor igo-erazi nuen nire bilbelera bertara nirekin, aitzakiak ipiñi ez zizaizkidan?; ... - Gu igo-erazi al ginduzuten zuen bilbelera bertara zuekin, aitzakiak ipiñi ez genizaizkizuen?; Bai zuek igo-erazi ... -- Gauza gogoŕak esaten zizkiguten aŕen, ez ginjoazan iñoiz asaŕetu: Nortzuk ez zijoazten iñoiz asaŕetu, gauza gogoŕak esaten zizkieten aŕen?; ... - Noiz ez ninjoan asaŕetu, gauza gogoŕak esaten zizkidaten aŕen?; ... - Zuek ere ez al zinjoazten iñoiz asaŕetu, gauza gogoŕak esaten zizkizueten aŕen?; Ez, gu ere ez ... -- Antziñako Eŕi ayetan ez eroaezan gorpuak eortzi iru egun igaro arte: Noiz arte ez eroaezan gorpuak eortzi antziñako Eŕi ayetan?; ... - Zer ez eroaen eortzi antziñako Eŕi ayetan iru egun igaro arte?; ... - Nun ez eroaezan gorpuak eortzi iru egun igaro arte?; Antziñako ... -- Ozta-oztan eztitatu eroaedan ogia azkaltzeko: Nori eztitatu eroaekon ozta-oztan ogia azkaltzeko?; ... - Zer eztitatu eroaetsun ozta-oztan azkaltzeko?; ... - Nik eztitatu al neroa-

tsuen ogia ozta-oztan azkaltzeko?; Ez, zuk ez ... -- Lan-egun askotan besteok antolatzen genuena aldi labuŕean eraindu eroan: Nortzuek eraindu eroaen aldi labuŕean, lan-egun askotan besteak antolatzen zutena?; ... - Zer eraindu zeroaen aldi labuŕean?; ... - Nik ere aldi labuŕean eraindu al neroan besteok antolatzen zenutena?; Ez, zuk ez ... -- Ez zeroaguzan ulertu ematen genizkizun azalpenak: Nork ez eroatsuezan ulertu ematen zenizkioten azalpenak?; ... - Zer ez neroatsuen ulertu?; ... - Guk ulertu al geroatsuezan ematen zenizkiguten azalpenak?; Ez, zuek ere ... -- Etxean aurkitu naroazue, ni ikustera zatozen beti: Nor aurkitu daroagu etxean, bera ikustera gatozen beti?; ... - Nun aurkitu zaroaguz, zu ikustera gatozen beti?; ... - Gu etxean aurkitu al garoazuez, ikustera zatozten beti?; Bai, zuek etxean ... -- Zergatik euki zeroaezan zuen abereak aŕu artan?; an bazka oso ona egon zijoalako euki geroazan gure abereak aŕu artan: Nork euki eroazan bere abereak aŕu artan, an bazka oso ona egon zijoalako?; ... - Nun euki neroazan nire abereak, an bazka oso ona egon zijoalako?; ... - Zuk euki al zeroazan zure abereak aŕu artan, an bazka oso ona egon zijoalako?; Ez, ... baizik. -- Auŕak ibiīli-erazi zeroadazan sargori aundienean ere: Nork ibiīli-erazi eroatsuzan auŕak sargori aundienean ere?; ... - Nun ibiīli-erazi neroatsuzan auŕak?; ... - Guk ibiīli-erazi al geroatsuezan auŕak sargori aundienean ere?; Ez, zuek ez ... -- Opamayak atxurdin onenaz eraiki geroakoezan: Nortzuek eraiki eroaekoezan opamayak atxurdin onenaz?; ... - Zer eraiki zeroakoen atxurdin onenaz?; ... - Nik eraiki al neroakoezan opamayak atxurdin onenaz?; Ez, ... baño. -- Gure auŕek gozokiak leya aundiegiz edoski eroaezan: Nortzuek edoski eroaezan gozokiak leya aundiegiz?; ... - Nola edoski eroaezan zuen auŕek gozokiak?; ... - Zuek ere gozokiak leya aundiegiz edoski al zeroaezan?; Ez, ... baizik. -- Izozte aundi oŕezaz, agure ayek iŕistatu lekizkiguke: Nortzuk iŕistatu lekiskizueke izozte aundi oŕezaz?; ... - Zerez iŕistatu lekizkidake agure ayek?; ... - Gu ere iŕistatu al genkizkizueke izozte aundi oŕezaz?; Bai, zuek ere ...

4. Astiro ta ongi irakuŕi beaŕ dira emen jartzen ditugun bertsoak; gero, egīlearen egiazko izena zein dan esan (emen agertzen dan izena, egiz, izen-ordea baita); gañera gure olerkari onenetakoa izan zan ura, zein muetakoa dan esan diteke: izkutuzkoa, biotz-olerkaria ala eŕikoya; azkenez bertso auek buruz ikasteko alegiñak bete:

«ZERU-AZPIA»

«(parantzeratik itzulia, mamiz. Besse de L.)»

I

«Esan amatxo : aingerutxoak
egoa uŕezko badute,
zeru oztiñean uŕe-dirdira
nik nola ikusten ez-ote? ; ...

Paŕe gozo bat amak eginda,
auŕari ala diotsa :
— Beetik dakusgun oztiña zeru-
-azpia baizik ezpaita.

— Ene, ba!, —mutiłak dio—
oŕein edeŕa dalarik,
nolakoxea ote-da, gero,
zerua goi-alderditik?...

II

Gautu zanean, ortzi zabala
bare-ozkarbi zegoen,
ta izaŕ argien zilaŕ-begiak
auŕari paŕ-zegioten.

Auŕ-kezka oro amets eztitsu
biur oi-diran garayan,
auŕak, amaren biotz-alboan.
beŕiro onela ziotsan :

Zerua azpitik oŕein edeŕa
dalarik, amatxo maite,
ai nere poza, zeru-gainkia
ikustera aal ba-ningoke!...

III

Auŕaren naya zeruratu zan,
(alatsu otoitz garbia),
ta aingerutxoak eska zioten
Yauna'ri lagun beŕia.

Eguzkiaren uŕezko yaya
beŕiro izeki zaneko,
begia itxirik zeukan aurtxoak
zeru-azpia ikusteko.

Seaska-aldean ama gaxoak
otoi-zegian, negaŕez,
semea igoa baitzun, zeruko
goikia ikusi-beaŕez».

«Biotz begietan» (18-20'gn. oŕialdeetan) Lizardi.

EUN ETA BEŔOGETAEMERETZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

«EROAN» ADITZ LAGUNTZAĿEA

TINKIERA'ZKO LENALDIA - BIGAŔEN ERABIDEA

Lenengo notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕari dagozkienak

IKUSI	*N*- e) -ROA-	-ZU- / ---- / -ZU- -E- / ---- -E-		-N
IKUSI	*G*- e) -ROA-	-ZU- / ---- / -ZU- -E- / ---- -E-	-*Z*- a)	-N

Bigaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕari dagozkienak

IKUSI	*Z*- e) -ROA-	-Da- / ---- / -GU- / ---- -E-	-*Z*- a)	-N
IKUSI	*Z*- e) -RO(A)- -*E*-	-Da- / ---- / -GU- / ---- -E-	-*Z*- a)	-N

Irugaŕen notiñaren adizkiñak, izakai bakaŕ eta askaŕari dagozkienak

Ez ditugu adizkin auek emen azaltzen, len, 158'gaŕen ikaskayan ikasi genituenak ditugulako.

EGINKIZUNAK

1. Emen ageŕerazten dugun laukian, EROAN aditzaren erak ipiñi beaŕ dira; lenaldian, irugaŕen notiñaren izakayaz, bakaŕ eta askaŕean;

adi-yabeak ezkeŕeko goitiberako zeŕendan ipiñita dagozelarik; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Adi-yabea	Izakai bakaŕa	Izakai askaŕa
Nik	Neroan	...
Zuk	...	zeroazan
Berak	Eroan	...
Guk	...	geroazan
Zuek	Zeroaen	...
Berak	...	eroaezan

2. Bigaŕen eginkizun ontan, EROAN aditzaren adizkiñak agertzen dira, artez-betetzekoak daramazkitenak; oyetako bakoitzean, adi-yabea ta izakaya dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, ots, adi-yabea izakayaren bidez eta alderantziz, izakaya adi-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esanez eta idatziz :

Oŕela begiratu *naroazunean*, guztiz bildurtuta geratzen naiz; ... - Eraman eta ekaŕi *garoaz* buruak ematen dion bezela, zoritxaŕez; ... - Oŕek edonola erabiīi *zaroaz* egunero; ... - Guk kendu beaŕ *zaroaeguz* bidetik saŕi, igaro al-izateko; ... - Zergatik euki *daroazu* ume ori zure besoetan oŕen gaizki?; ... - Igaliak jan *daroaguz* edozein ordutan eŕuz; ... - Eŕaztasun aundiaz jaso *naroae* beitik gora; ... - Beaŕ dan bezela lagundu *garoazuezenean* oso pozik geratzen gera; ... - Nirekin ipiñi *zaroadaz* alkaŕekin gosaldu dezagun; ... - Gizon yaukal oyek zuek nai duzuten orduan esnatzen *zaroaeez*; ... - Ez *daroagu* ulertzen ain ergelki mintzatzen danean; ... - Zergatik aspertu *daroazuez* zuen esamesa txaldanetaz?; ...

3. Uŕengo galdera bakoitzari erantzun egokia eman beaŕ zayo; kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Ain ur otz artan sartu geroazuzan gure ostetasunetaz jaramonik egin gabe : Nor sartu zeroan ain ur otz artan bere ostetasunetaz jaramonik egin gabe?; ... - Nork sartu zeroaezan ain ur otz artan zuen ostetasunetaz jaramonik egin gabe?; ... - Guk sartu al zeroaeguzan ain ur otz artan zuen ostetasunetaz jaramonik egin gabe?; Ez, zuek ez ... -- Noizpait oīoak uxatu eroaetsuzan ondo zenbatu ezin zenitzaken : Nori uxatu eroaekozan noizpait oīoak zenbatu ezin litzaken?; ... - Zertarako uxatu geroatsuzan noizpait oīoak?; ... - Zuk uxatu al zeroadazan oīoak noizpait, zenbatu ezin nitzaken?; Ez, nik ez ... -- Beaŕ nituen alkondarak ez zeroadazan nire naitasunez autatu : Nork ez eroatsuzan autatu beaŕ zenituen alkondarak zure naitasunez?; ... - Zer ez neroatsuzan autatu

zure naitasunez?; ... - Zuek autatu al zeroaedazan beaŕ nituen alkondarak nire naitasunez?; Ez, guk ez ... -- Ez zeroaguzan atera ikastetxetik egokia zanean baño : Nork ez zeroaen atera ikastetxetik egokia zanean baño?; ... - Nundik ez neroazuen atera egokia zanean baño?; ... - Zuek atera al neroazuen ikastetxetik saŕi?; Ez, guk ez ... -- Arian ez arian untxiak gurdikadaka eizatu zeroaekozan : Nori eizatu geroakozan untxiak arian ez arian gurdikadaka?; ... - Zer eizatu zeroakoan gurdikadaka arian ez arian?; ... - Zuek ere untxiak gurdikadaka eizatu al zeroaeguzan untxiak gurdikadaka arian ez arian?; Ez, guk ez ... -- Ez neroatsuzan kendu zure jabetasunezko gauzak; ez zuri ez iñori, baña edonori zuri baño lenago : Nori ez zeroakozan kendu bere jabetasunezko gauzak?; ... - Zer ez zeroadan kendu?; ... - Guri kendu al zeroaeguzan gure jabetasunezko gauzak?; Ez, zuei ez ... -- Aroztegi artan erdibana lanegiten genuenezkero, iñork baño geyago irabazi genezake : Nortzuek irabazi lezakete iñork baño geyago aroztegi artan erdibana lanegiten zutenezkero?; ... - Zer irabazi zenezakete aroztegi artan erdibana lanegiten zenutenezkero?; ... - Oyek ere iñork baño geyago irabazi al lezakete aroztegi artan erdibana lanegiten zutenezkero?; Bai, oyek ere ... -- Nik ez neroakoen idaroki asmo txaŕik; oŕengatik, egin zuten guzia beren eŕuzkoa izan zan : Nori ez zeroakoan asmo txaŕik idaroki?; ... - Zer ez zeroaekoan idaroki?; ... - Guk al geroakoen idaroki asmo txaŕik?; Ez, ... baño. -- Ez al daroakozuz nastu zeroŕek egunero, irin, legami ta gatza?; bai, neronek nastu daroakodaz egunero, irin, legami ta gatza? : Nori nastu daroakozuez egunero, irin, legami ta gatza?; ... - Zer nastu daroakogu egunero?; ... - Niri nastu al daroadazuez egunero, irin, legami ta gatza?; Ez, zuri ez ... -- Guretzat nor zerala?; orain eta beti gure seme oso maitea, bada : Nor da zuentzat orain eta beti zuen seme oso maitea?; ... - Nortzuentzat naiz ni orain eta beti beren seme oso maitea?; ... - Zuen gurasoentzat, zuek beren seme oso maiteak al zerate orain eta beti?; Bai, gu ere ... -- Orduan, ezer begiratzeke, edozerengatik salatu zeroaeezan : Nortzuk salatu eroaezan orduan, ezer begiratzeke ta edozerengatik?; ... - Nola salatu geroaezan orduan edozerengatik?; ... - Guk orduan, ezer begiratzeke, salatu al zeroaeguzan edozerengatik?; Ez, zuek ez ... -- Atzipetu neroazun zerbait edestera zentozan geyenetan : Nork atzipetu zeroazan, zerbait edestera zetoŕen geyenetan?; ... - Nor atzipetu zeroaen, zerbait edestera zentozten geyenetan?; ... - Zu atzipetu al zeroaguzan, zerbait edestera gentozan geyenetan?; ... - Ez dut uste, zuek ez ... -- Laidotu geroaezan ankerki, epaitu nai ginduztenean : Nor laidotu eroaen anker-

ki, epaitu nai zutenean?; ... - Nork laidotu zeroaezan ankerki, epaitu nai zinduztenean?; ... - Zuk laidotu al geroazuzan ankerki, epaitu nai ginduzunean?; Ez, nik ez ... -- Elikatu zeroaguzan, zeyan zegoen onena beti autatzen: Nork elikatu neroan, zeyan zegoen onena beti autatzen?; ... -Nor elikatu zeroaen, zeyan zegoen onena beti autatzen?; ... - Nik ere elikatu al zeroaedazan, zeyan zegoen onena beti autatzen?; Bai, zuk ere ... -- Kaskaŕ ayek zuten okerkeriagatik bidekatu zeroaeezan: Nortzuek bidekatu geroaezan, berak zuten okerkeriagatik?; ... - Nortzuk bidekatu eroaezan, ayek zuten okerkeriagatik?; ... - Nik bidekatu al zeroaedazan nik nuen okerkeriagatik?; Ez, zuk ez ...

4. Ongi irakuŕi beaŕ da uŕengo idazki-txatala, ta gero oŕ esaten dana ausnartuz, olerkiari buruz norberaren iritzia eman beaŕ-izango du:

«ZER DA OLERKIA?»

«Beti ao-miñean dabilgun itauna! Idatzi, beintzat, guziek idazten dute. Irakuŕi gutxik. Olerkia zer dan adieraztea egitasun oso, artezez, ori beste gauza bat da. Bakoitzak bere gogo-ikustera, bere oldozkunezko sen eta biotzondoa, bere azalkerazko neurbide ta ikuspegiak izan oi ditu itzen goraberazko adiera edeŕ edo mazkalez. Neuŕiz edo ta neuŕik gabe. Sakon edo azal. Burutsu edo erokiro. Bakoitzak bere baŕumiñaren, bere egi ta ustekizunen, bere zalantza edo ziurtasunezko gogayak erabiltzen ditu alako amets-liĺurazko edo ta, jakiturizko antolaketa sugartuaren irudipen argigaŕiz. Bakoitzak bere itzala dixuri bakoitzaren erabidezko duintasunez. Antziñatik dakiguna: «Zenbat buru ainbat aburu». Olerkaria, berak, beregankiro dagien Ludi'an bizi duzu, atetiko ikutuaren ezkutapenezko oyartzunak yasorik. Ona, zer dirauskun gure Lauaxeta'k: ««Ludi onen bestaldez loratzen diran landareen usañak goxalde bakotxak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsoa neure gelara yatort eta barneko zugatz onetatik txoriak aldatu ziran aŕen, abaŕ-dardarea ezta amaitu»». Olerkariari bizitzaren entzunezko, ikusizko, yakitezko edo arako ezkutapenezko doairen batez datorkio olermenaren aria biztu ta soŕarazten duen izpi sorgin, aŕigaŕia. Baña, olerkia atontzeko, edergaŕi egiteko, landu egin beaŕ. Beste batek esan zuenez, berez... ««baterez»». Asko idazten da, baña irakuŕi gutxi. Ezta gaurko gaitza bakaŕik. Cocteau'k, 1930'gko. urtean, onelatsu mintzatu zan: ««Paris'ko eŕiak olertia goŕotatzen du»». Xautuzko gizartean bizi gera.

Ta xautuzko erosotasunezko naikeriaren geyago-beaŕezko antolaketa oŕetan gabiltz murgilduta, itsumustuko abiadan. Aisa bizi-izateko erosotasunaren naikeri goŕiaren sareetan naasi-masiturik aurkitzen da, ««gu, geuk»» egin daruagun gizartea. Lasteŕ-bizitze eta eraso-bizitze gurarituaren lasterkuntza nabarmenean, bizi gara, ezinbizizko urduritasun eta erokeririk aundienean kateaturik. Eŕeztasun bizi-izatezko aukeraren-aukerazko lasaitasunezko eraturatan giltzapeturik. Azken bolada ontan, ikaragaŕizko aldakuntzak nabaitzen dira edozein arlotan. Atzoko egiak gaur gezuŕ, edo gezurtuak. Mito batzuk luŕeratu ta beste batzuk yaso dira».

«Olerti 1981 - 1» (13-4'gn. oŕialdeetan) S. Muniategi.

EUN ETA IRUROGEIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ITANO'KOA DAN ADITZ-JOKOA

ITANO'ko aditz-jokoa ikasten asi baño lenago, euzkeraren ain berezi ta aukerakoa dan aditz-joko au zeatzez aztertu baño len, berari dagozkion asmo batzuk begiratuko ditugu, ain zuzen, bere muña bezela aŕ ditzakegunak.

Ongi gogora ditekenez, asieratik eta orain arte, euzkal-aditzak, bi talde aunditan bildurik ikasi ditugu: «iragangaitzak» eta «iragankoŕak», bi talde oyek diralarik.

Baña, egitan, muetatze au eztagokio ertsiki euzkerari, erderai baizik. Eta neuŕi edo mail batean euzkal-aditzak oŕela ere muetatu al baditez, eziña da euzkerarentzat bere aditz-joko guzia zedaŕi oyetan bakaŕik artuta ikustea.

(Oŕengatik, noski, egīle batzuek euzkal-aditz-jokoa bakaŕa dala diñote, ta beste izkuntzaen muetatzean sartzea eziña dala).

Esate baterako« nor zera?» esatean, ortan dagoen asmoa, egitan, iragangaitza da, IZAN aditzaren asmoa dalarik.

Baña asmo ori bera adierazteko, beste era auek ere erabil ditzakegu: «nor zaitut?», «nor zaitu?», «nor zaitugu?», «nos zaitue?», onela esango baikenuen: «nor *zera* niretzat?», (...berarentzat?», «... guretzat?», «... berentzat?»; e. b., onela ere erantzuteko: «aita nauzu», «aita nau», «aita nauzute», «aita naute»; era auek be onela ulertu ditezkela: «aita naiz zuretzat, edo zurekiko», «aita naiz berarentzat, edo berarekiko», «aita naiz zuentzat, edo zuekiko», «aita naiz berentzat, edo berekiko».

Ori dala-ta, iragankoŕak bezela ikasi ditugun era auek: *dut, duzu, du, dugu, duzute, dute*, «ukan» aditzaren zentzuna adieraztean, «izan» aditzaren era iragangaitza dan DA'narena euki dezakete, zentzun auetaz: DA niretzat, ... zuretzat, ... berarentzat, ... guretzat, ... zuentzat, ... berentzat.

Argi ikus ditekenez, era bera batzuk, iragangaitz eta iragankoŕa diran zentzun bietan aŕ ditakegu, Baña, ori egia ta egokia izanaŕen, zein ote da, egitan, euzkeraz duten zentzun zeatza? Ortxe nonbait untzea, ikusteko zaīa dana.

Alan eta guzti, ta euzkal-aditzan dagoen egiazko zentzuna edozein izan, ustekoa da, ortan dagoen egi utsa, zeazki, argi ta garbi, asmo ori ta besteak ere, izkuntzalariek euzkal-oldozpenez bururatuko dituztenean bakaŕik zedaŕituko dala. Orain, eta geyenetan, erderaz oldozten dugularik, eta beste aldetik erderaz ere landutako adimenentzat aurkeztu beaŕ ditugulako, nolabait adierazi beaŕ ditugu gure asmoak, egunerokoak eta ezagunak ditugun bururakizunen bitartez egiagana urbiltzeko alegiñetan.

Alakotz, ITANO'koa deitzen dugun euzkal-aditz-jokoa obeto ulertzeko, euzkal-adizkin batzuek dituzten zentzun bietako asmoak, oñaŕi bezela, gogoratu beaŕ ditugu beti.

Dirudienez (1), naiz mintzatzean naiz idaztean, bein ITANO'ko aditz--jokoa erabiltzen asten bada, notin berberari zuzendutako mintzaldi edo idazkian, ortatik ateratzea eziña dala; osterantzean, egoki-eza sortuko litzake. Bigaŕen askaŕ-notiñaz izanezik; orduan, batera, batzuei buruz ari-izango beaŕ dalako, ta oyen artean, bakarka, batzuekin ITANO'ko jokoa ta besteekin BEGIRUNE'zkoa erabīliko lirakelako (2).

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, goiko leŕoan izenorde artzaīeak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabearen beste izenordeak ere; batzuei ta besteai, alkaŕi dagozkion EROAN aditzaren adizkiñak eman beaŕ dira, bakaŕ izakayaz, artez eta zeaŕez-betetzekoen asmoak lenaldian adierazten; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Adi-yabea	Neri	Zuri	Berari	Guri	Zuei	Berai
Nik		neroatsun	...		...	...
Zuk	Zeroadan		...	...		...
Berak	...	...	eroakon	...	...	...
Guk		...	...		geroatsuen	...
Zuek	...		...	...		zeroaekoen
Berak	...	...	...	eroaegun	...	...

2. Eginkizun ontan, EROAN aditzaren artez eta zeaŕez-betetzekoak daramazkiten esakuntzak azaltzen ditugu; bakoitzean onela aldatzeko:

---

(1) Ikusi: Azkue, M., 592.
(2) Ikusi: 170'gn. ikaskaya.

adi-yabea zeaŕ-betetzekoaren bidez eta alderantziz, zeaŕ-betetzekoa adi-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Ez *neroatsun* iñoiz kendu zure azkari ona; ... - Gosaria oera eraman *zeroakon* egunero; ... - Berak bere izebaren bezuzak erakutsi *eroadazan*; ... - Zuen janzkiak ondo tolestuta ipiñi *geroatsuezan* oe gañean; ... - Zuen auŕai lo-eragiteko, abesti gozoak abestu *zeroaekoezan* ilunabaŕean; ... - Ikastolan ikasten zuten guzia, iñoiz utz-egin gabe, edestu *eroaedan*; ... - Ene semeari bere prakak arabakitu *neroakozan*; ... - Beaŕ nuen guzia irun *zeroadan* adeitsuki; ... - Zure mataza guziak oso ongi albaindu *eroatsuzan* poliki; ... - Beren galtzerdi motzak saretu *geroakoezan* saŕi; ... - Eskatzen genizuen zilar guzia urtu *zeroaegun* bereala; ... - Zaragiko ardo guztia ixuri *eroaetsuen* ergelki; ...

3. Oiturazko eraz, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Gaur oso ona zaitugu, baña len Kain baño gaiztoagoa zindugun: Nork zaitu gaur oso ona?; ... - Nor duzute gaur oso ona?; ... - Gu ere oso onak al gaituzute?; Ez, ... baño. -- Benetan oso ondo izan zaitugu goize ontako zure itzaldian: Nortzuek izan naute oso ondo goize ontako nire itzaldian; ... - Nola izan nauzute goize ontako nire itzaldian?; ... - Zu ere oso ondo izan al zaitugu goize ontako zure itzaldian?; Ez, ..., ori baizik. -- Adiskide izun oyen laguntzan gero ta gaizkiago zabiltz: Nor dabil gero ta gaizkiago adiskide izun oyen laguntzan?; ... - Nola nabil adiskide izun oyen laguntzan?; ... - Zuek ere adiskide izun oyen laguntzan gero ta gaizkiago al zabiltzate?; Ez, gu ez ... -- Iñoiz ez zindugun gureganako maitagaŕi: Nor etzenuten iñoiz zuenganako maitagaŕi?; ... - Nolakoa ez ninduzuten zuenganako iñoiz?; ... - Ni izan al ninduzun iñoiz zuganako maitagaŕi?; Bai, zu ... -- Nor naute ayek?; nik uste nuen betiko beren adiskide zaŕa izango ninduketela: Nork uste zuen betiko beren adiskide zaŕa izango luketela?; ... - Zer uste zenuen ayei buruz?; ... - Gu ere betiko beren adiskide zaŕak izango al ginduzkete ayek?; Eztakit, zuek ere ... -- Txiliña entzuten genuenean ikasguan sartu ginjoazan: Nor sartu zijoan ikasguan txiliña entzuten zuenean?; ... - Noiz sartu zinjoazten ikasguan?; ... - Ni ere txiliña entzuten nuenean ikasguan sartu al ninjoan?; Bai, zu ere ... -- Noiz etoŕiko zera bein bederik gu ikustera?; uste dut laisteŕ joan al-izango naizela zuek ikustera: Nork uste du zuek ikustera laisteŕ joan al-izango dala?; ... - Nor ikustera laisteŕ joan al-izango zerala uste duzu?; ... - Zuek ere ni ikustera laisteŕ joan al-izango zeratela uste al duzute?; Bai, guk ere

... -- Doñu zaŕenak erabiltzean beren abestiak abestu eroaezan: Nork abestu eroazan bere abestiak doñu zaŕenak erabiltzean?; ... - Zer abestu zeroaen doñu zaŕenak erabiltzean?; ... - Nik ere nire abestiak doñu zaŕenak erabiltzean abestu al neroazan?; Ez, ... baño. -- Bilera oroigaŕi ayetan entzun geroazan eresiak gelgaŕiak ziran: Zertzuk ziran gelgaŕiak?; ... - Nun entzun zeroaezan ain gelgaŕiak ziran eresiak?; ... - Nik ere bilera oroigaŕi ayetan entzun al neroazan ain gelgaŕiak ziran eresiak?; Bai, zuk ere ... -- Agure oŕek bere danboliña gaŕ aundi-aundiaz jo eroagun: Nork jo eroatsuen bere danboliña gaŕ aundi-aundiaz?; ... - Zer jo eroatsun agure oŕek gaŕ aundi-aundiaz?; ... - Nortzuei jo eroakoen agure oŕek bere danboliña gaŕ aundi-aundiaz?; Zuei ... -- Gure asmoak garbiro aldeztu dizaizkiguten gero ta zintzoagoak izan beaŕ-izango dute: Nortzuek izan beaŕ-izango dute gero ta zintzoagoak zuen asmoak garbiro aldeztu dizaizkizueten?; ... - Nola izan beaŕ-izango duzute zuek, gure asmoak garbiro aldeztu dizaizkiguzuten?; ... - Nik ere gero ta zintzoagoa izan beaŕ-izango al dut zuen asmoak garbiro aldeztu dizaizkizuedan?; Bai, noski, zuk ere ... -- Maŕokeri oyezaz ergel oŕek iñor ezin atzipetu lezake: Nor ezin atzipetu lezake ergel oŕek maŕokeri oyezaz?; ... - Zerez ezin atzipetu lezake ergel oŕek iñor?; ... - Zuk atzipetu al zenezake iñor maŕokeri oyezaz?; Ez, nik ere ezin ... -- Apaiz ontzale ayek akitu ta aunatu lekizkiguke oŕenbeste lanegiten jaŕaituko balira: Nortzuk akitu ta aunatu lekizkizueke oŕenbeste lanegiten jaŕaituko balira?; ... - Nola akitu ta aunatu lekizkidake apaiz ontzale ayek?; ... - Zu ere akitu ta aunatu al zenkiguke oŕenbeste lanegiten jaŕaituko baziña?; Ez, ni ez ... -- Beren gurasoak ezertan ezin auŕezkatu litzakete ez atsekabetzeko asmoz: Nork ezin auŕezkatu litzake bere gurasoak ezertan ez atsekabetzeko asmoz?; ... - Nor ezin auŕezkatu zenezake ezertan, ez atsekabetzeko asmoz?; ... - Guk ere gure gurasoak ezertan ezin auŕezkatu genitzake, ez atsekabetzeko asmoz?; Bai, zuek ere ... -- Inguru-minguru ibili zinjoazten elizan sartu baño lenago: Nor ibili zijoan inguru-minguru elizan sartu baño lenago?; ... - Nola ibili ginjoazan elizan sartu baño lenago?; ... - Gazte oyek ere inguru-minguru ibili al zijoazten elizan sartu baño lenago?; Bai, gazte oyek ere ...

4. Uŕengo alkaŕ-izketa ongi irakuŕi ondoren, ori idatzi zuen Pierre Lhande idazlea, nor zan, nungoa, bere bizibidea zein izan zan, eta berak egindako idazlanak zeintzuk izan ziran, norberak al duen eraz esan:

«III BURNI EŕEGIÑA»

«Ozkoŕiaren argia, antxe, Laburdi'ko mendi tontoŕak xuritzen asia zagon, ta bestaldean, Urdanibi'ko leyoak baŕenean piztutako suaz dirdiratuak ageri ziran ametzen adaŕ ilunen artetik.

Flamendaŕari, ordua nai bezelakoa zeukala, biotzean zekaŕen asmoa Yolanda'ri irikitzeko iduritu zitzayon ta, an, bere ontzi edeŕen aga tantayak erakusten ziozkalarik, esan zion :

— ¡Oŕa, Yolanda, zein aberatsak gauden, gu Flamendaŕak, ontzi oriek nola erakusten diguten! Ezin asma dezakezu zein edeŕ eta ikusgaŕia dan Flandre'tako eŕia!

— ¡Bai, Jordaens, baña nik nayago gure Euzkadi!

— Euzkadi'n, Yolanda, galdua bezela zabiltz. Ameztarte orien erdian, zure edertasunaz iñor oartua eztago. Mayara jakiak ekartzen, neskame baten antzera, ikusten zaitudanean, zu oŕelako etxalaba goi ta aberatsa zerala zeñek esan dezake? Zu ein ortara jatxirik aurkitzea niri lotsagaŕi zait. Nerekin Flandretara joango baziña, egun guztian jauzki goŕiz jantzia ibiliko ziñake, zutaz arta leukaten lau mirabe gazten artean. Uriko plazan, uŕez apaindutako alki edeŕ batean jaŕia, zure begi urdin orik xoratzeko eun zaldun ospatsuk darabilzketen ezpata edo azkon-guduak begiratzen geldituko ziñake...

— Ez, jauna, ni nere jayotetxean obeto nago.

— Zer, bada? Gante'ko uri nasaya ta Brujas urixka polita beñere ikusi gabe geldi zintezke?

— Neretzat Euzkadi bezain alderdi ikusgaŕirik ludian eztago.

— Baña Flandren baŕena ibili ta gero Euzkadi'ra biurtuko gintezke...

— Amets utsa daramazu, jauna, amets utsa...

— Utsa dan ala ez, nere amets ori, zuk bakaŕik ebaki dezakezu... Baña amets ori egia izan dedin nik ba-dakit zure aotikako itz bat naikoa dala. Esan, bada, andre, esan niri ain asmatutako itzño ori...

— Esan nezakean itz bakaŕak zure ametsak itxasora jaurtiki litzake.

— ¡Gezuŕa diozu!

— Ez jauna. Ona emen itz ori ; Nik norbait maite det ; ta ura ezta Flamendaŕa ; ni norbaitek maite nau, ta ura da Euzkalduna».

«Yolanda» (26-7'gn. oŕialdeetan) Pierre Lhande, S. J.

EUN ETA IRUROGETABATGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

ITANO ADITZ-JOKOA

Irugaŕen ikaskayan esan zanez, ba-dakigu bigaŕen bakaŕ-notiñaren izenordea, *I* dala, ta berari dagozkion aditzerak ere auek dirala : I aiz, I oa, I atoŕ, eta abaŕ ; era auek, SENDI-ADITZ-JOKOA, I, ITANO'koa deitzen diogunari dagozkiolarik.

Oyen ikastea obeto egiteko, aditz-joko au bi azpegietan aztertu beaŕ dugu : bat, bigaŕen notiña adi-yabea edo izakaya bezela agertzen danean ; bestea, lenengo ta irugaŕen notiñak (bakaŕ eta askaŕ) adi-yabeak edo izakayak diranean, zentzun auetan bigaŕen notiña agertzeke. Ta azpegi oyetako bakoitzean, aditz-jokoa iragangaitz ala iragankoŕa ote dan begiratuko dugu ; gero, alke-aditz-jokoan deitu dugun «artzaĺekoa»'ren adizkiñak ere ageŕeraztean.

Emen, bigaŕen notiñaz itzegiten dugunean, beti, bakaŕekoari buruz ari gerala gogoratu beaŕ da, askaŕekoa len, esan genuenez, Zu izan baitzan, eta gero, alke-zentzunaz mintzatzeko, bakaŕ-zentzuna artu zuelarik ; eta askaŕeko bere tokia ZUEK izenorde beŕiak artu zuen ; izenorde au ta berari dagozkion aditzerak, beti, askaŕ-notiña adierazten dute, naiz alke-zentzunaz naiz itanokoaz.

Oŕela, beraz, bost talde auek eratuko ditugu :

I — ITANO-ADITZ-JOKO *IRAGANGAITZA*, adi-yabea bigaŕen bakaŕ-notiña dala.

II — ITANO-ADITZ-JOKO *IRAGANKOŔA*, adi-yabea edo izakaya bigaŕen bakaŕ-notiña dala.

III — ITANO-ADITZ-JOKO *IRAGANGAITZA*, adi-yabea, bakaŕ eta askaŕ, lenengo ta irugaŕen notiñak dirala.

IV — ITANO-ADITZ-JOKO *IRAGANKOŔA*, adi-yabea ta izakaya, bakaŕ eta askaŕ, lenengo ta irugaŕen edo irugaŕen eta lenengo notiñak dirala.

V — ITANO-ADITZ-JOKO ARTZAĹE'AREN ADIZKIÑAK.

Nabarigaŕia dan euzkal-aditz-jokoaren azpegia, zentzun orokaŕean, auxe dugu aipatzeko: adizkin-barnean, ez adi-yabea, ez izakaya, ez eta zeaŕ-betetzekoa ere adierazten eztituen notiña ageŕeraztea da. Onela, auŕeko ikaskayan ikusitako: Nauzu, Nau, Nauzute, Naute adibide auetan, -ZU, --, -ZUTE ta -TE notin-atzizkiak, adi-yabeak bezela aŕ ditezke, beren zentzuna egiīearena bezela onartzen bada; baña, zer adierazten dute, egiazko dugun beste zentzun onezaz: *zuretzat* (edo: zurekiko) naiz, *berarentzat* (edo: berarekiko) naiz, eta abaŕ, artzen badira? Zentzun ontaz, neuk notin-atzizki-mota oni «alkaŕ-betetzekoa» deituko nioke; ta oŕek alke-aditz-jokoari ere lits maitagaŕia ematen dio (1).

Eta gure itanozko euzkal-aditz-jokoan, beste azpegi nabarigaŕi ta oso berezia, auxe dugu: bigaŕen notiñean, adi-yabea bezela edo auŕeko leŕo-aldean aipatzen dugun beste zentzuaz agertzen danean, notin oŕen kundea bereiztekoa da. Ta bereizitasun au guztiz nabaritzekoa dugu, 2'-gaŕen ikaskayan esan genuen bezela, euzkeraz elizti-kunderik eztagoela gogoratzen bada. (Bigaŕen notiña adi-yabe iragangaitza edo izakai iragankoŕa danean, eguneroko erabiltzean, ezta, aldi batzuetan, kunde-bereizitasunik egiten, eta era bera bi kundeetarako erabiltzen da).

Aŕ-kundea, adizkiñaren barnean, *K* izkiaz adierazten dugu, ta eme-kundea, *N* izkiaz. Esate baterako, onela esaten da:

Aita etoŕi dek (duk) = aita etoŕi da, edo zuri (iri) etoŕi zaizu, gizona.

Aita etoŕi den (dun) = aita etoŕi da, edo zuri (iri) etoŕi zaizu, emakumea.

Esandako *K* ori, aŕ-zentzunaz, batzuetan kentzen da. Ta oŕela, esate baterako, Egin di*k*at = (iri buruz, gizona) egin dut, esan ordez, *K* ori gabe, onela esaten da: Egin *diat*. Asmo bera (iri buruz, emakumea), Egin *diñat* diñogu, aŕezko K'en ordez, emezko N jartzean; ontan, gañera, auŕeko *i* oŕek eraginda, N ori Ñ biurtu dalarik.

Itanozko asmoa, 169 ta 171'gaŕen ikaskayetan ikusiko danez, auŕeko *Z-* (ZE-) izki bateaz ere adierazten da, era batzuetan, alke-aditz-jokoan erabīli dugun D- auŕeko izkiaren tokia artzen duelarik; ongi gogoratu dezakegunez, aditz-jokoaren lenengo erabidean, D- oŕek irugaŕen notin iragangaitzetan adi-yabea, ta iragankoŕ guztietan izakaya adierazten dituela. Bizkayeraz, Z- oni, I- edo -I- dagokio.

(1) Geroztik, «Real Sociedad Bascongada de Amigos del País»'en «Boletin»'ean (II Urtea, 4'gn. Inguŕaztian, 370'gn. oŕoaldean), Dr. Ernst Lewy jaunaren «Bosquejo de una sintaxis elemental del vascuence» lana ikusi dut; bertan aditzera auei buruz aipatze bat ematen du, Schuchardt'ek *alkarbidezko erak* deitu zizkiela esaten.

Onela: *D*ago (alke)'ri, *z*egokik edo *z*egokin (itano) dagozkio.
*D*oa (alke)'ri, *z*ijoakik edo *z*ijoakin (itano) dagozkio.
*D*aramat (alke)'ri, *z*eramakiat edo *z*eramakiñat (itano) dagozkio.

Beraz, egitan, itanozko aditz-jokoa adieraztean, *bi* izki auek ditugu: *Z-* au, Bizkaya'n *I-* (notin eta aldi batzuetan), eta kunde-bedegaŕak diran *K* ta *N*.

Aipatzen dugun guztiz ori gogoratzean, beraz, uŕengo ikaskayetan, itanozko aditz-jokoaren adizkiñak zeatzez emango ditugu.

Eginkizunak

1. Uŕengo laukian, lenengo leŕoan, izakayak adierazten dituzten izenordeak ematen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeen beste izenordeak; biei, alkaŕi dagozkion izakayezko aditzerak ipiñi beaŕ dira, EROAN aditzaren Tinkiera'zko Lenaldi'an; kulatzen ordez, esateko ta idazteko:

Adi-yabea	Ni	Zu	Bera	Gu	Zuek	Berak
Nik		zeroadazan	...		...	...
Zuk	Neroazun		...	...		...
Berak	...	...	eroan	...	...	...
Guk		...	...		zeroaeguzan	...
Zuek	...		...	...		zeroaen
Berak	...	...	...	geroaezan	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan EROAN aditzaren daramazkiten esakuntzak ematen dira; bakoitzean, adi-yabea izakayaren ordez aldatzeko ta alderantziz ere, izakaya, bide batez, adi-yabearen bitartez; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Nik negu artan saŕi antzokira eroan *zeroadazan*; ... - Zuk, geyenetan, oso gaizki begiratu *geroazuzan*, zergatik?; ... - Irakasle arek gogoŕ zigortu *zeroaezala* esan zigun; ... - Guk ez *zeroaguzan* lagundu iñoiz zuk nai zenuen bezela; ... - Zuek antsiz beterik bīlatu *neroazuen* zuen atsekabe guztietan; ... - Berak, noizean bein, egurastokian aurkitu *zeroaezan*; ... - Noiz jo *zeroaedazan* zuek diñozuten bezela?; ... - Zuk ez *neroazun* atera ikastaldi ayetan nire eginkizunak ikusteko; ... - Berak, maltzurki, zirikatu *geroazan* gure bilkura guztietan; ... - Guk ez *zeroaeguzan* estutu lan guzti ayek egiteko; ... - Zuek besarkatu *geroazuezan* indaŕez

gu ikustera etortzen zintzaizkigunean; ... - Mutil ayek bultzatu *zeroa-eezan* gogoŕ ikasgura sartzerakoan; ...

3. Oiturari jaŕaitzean, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Beti egongo ziñan asaŕetuta, gizona; ura naigabea!: Nor egongo zan beti asaŕetuta?; ... - Nork zuen naigabe aundia zuek beti asaŕetuta zengoztelako?; ... - Gu beti asaŕetuta egongo giñalako, zuretzat naigabea izango al litzake?; Bai, niretzat ... -- Eskierki obea izango ziñake, obeto bizi-izango baziña: Nor izango zan obea eskierki, obeto bizi-izango balitz?; ... - Nola izango nintzake ni obea, eskierki?; ... - Zuek ere obeak izango al ziñakete eskierki, obeto bizi-izango baziñate?; Bai, ... -- Ez ziñakean zure tokian egongo, goiztirian baño lenago jetxi baziña: Nor ez zitzakean bere tokian egongo, goiztirian baño lenago jetxi balitz?; ... - Nola ez nintzakean egongo, nire tokian?; ... - Zuek zuen tokian egongo al ziñaketean, goiztirian baño lenago jetxi baziñate?; Ez, gu ere ... -- Izan zaitez beti men eta esanekoa, neska onak bezela!: Nork izan beaŕ du beti men eta esanekoa, neska onak bezela?; ... - Nortzuk bezela izan beaŕ dugu guk men eta esanekoak?; ... - Ume oyek ere men eta esanekoak izan beaŕ al dute, neska onak bezela?; Bai, ume oyek ere ... -- Nortzuk zaituztegu?; lengo berberak uste dut, ez al da oŕela?: Nor duzute lengoa berbera?; ... - Nortzuek naute lengoa berbera?; ... - Nik al zaitut lengoa berbera?; Bai, ... -- Gaur eltzen ziñatela gaztigatu bazenigute, gerturik aurkituko gindukezutean: Nor aurkituko zenuketean gerturik, gaur eltzen ziñatela gaztigatu bazeniote?; ... Nola aurkituko zinduzteguan, gaur eltzen giñala gaztigatu bagenizue?; ... - Ni ere gerturik aurkituko al nindukezutean, gaur eltzen ziñatela gaztigatu bazenidate?; Bai, uste dugu ... -- Ezin idaroki dizaizukegu oŕelako lelokeria egin dezazula: Nori ezin idaroki dizayokezute oŕelako lelokeria egin dezala?; ... - Zer ezin idaroki dizaigukezute?; ... - Nik idaroki al dizaizueket oŕelako lelokeria egin dezazutela?; Ez, zuk ere ... -- Limurtu ez nintzaten, ez nieke jaramonik egingo beren itz politai: Zertarako ez zenieke jaramonik egingo beren itz politai?; ... - Nork elieke jaramonik egingo beren itz politai, limurtu ez zezaten?; ... - Nortzuen itz politai ez zeniekete jaramonik egingo, limurtu ez zintzateen?; Zuen itz politai ... -- Ez bezate buruausterik ukan, dirua metatzeaŕen, oŕezaz ezpaitute zorionik lortuko: Nork eztu dirua metatzeaŕen buruausterik ukan beaŕ, oŕezaz ezpaitu zorionik lortuko?; ... - Zer dala-ta, eztugu buruausterik ukan beaŕ, dirua metatzeaŕen?; ... - Zuk buruausterik ukan beaŕ al duzu dirua metatzeaŕen?; Ez, ... oŕezaz ... lortuko. -- Asitako bide onean ez zearkatzeko aolkatu neroakoen: Nortzuei aolkatu zeroakoen asitako bide onean ez zearkatzeko?; ... - Zertarako aolkatu zeroakoen?; ... - Guk aolkatu al geroakoen asitako bide onean ez zearkatzeko?; Bai, zuek ere ... -- Ikuzteko neramazkien izara guztiak gaizki tolestu eroaedazan: Zer tolestu eroaetsun gaizki?; ... - Nola tolestu eroaetsuzan ikuzteko zeneramazkien izarak?; ... - Nik gaizki tolestu al neroatsuzan ikuzteko zeneramazkidan izarak?; Ez, zuk ondo ... -- Nortzuk zaituztegu, adiskideak ala etsayak?, ikus ditzagun gauzak argi; adiskideak gaituzute beti, zalantzik gabe, gizona: Nortzuk dauzkagu adiskideak?; ... - Nolakoak gaituzute beti?; ... - Zu ere adiskidea al zaitugu beti?; Bai, ni ere ... -- Zure bidean zeartu al balekizkizu, al-izan litezken bezin laisteŕ egingo zutela ez zalantzatu: Nork eztu zalantzatu beaŕ, bere bidean zeartu al balekizkio, al-izan litezken bezin laisteŕ egingo luketela?; ... - Guk ere ez al dugu zalantzatu beaŕ, gure bidean zeartu al balekizkigu, al-izan litezken bezin laisteŕ egingo luketela?; ... - Zuk ez al duzu zalantzatu beaŕ, zure bidean zeartu al banenkizu, al-izan nindeken bezin laisteŕ egingo nukela?; Ez, nik ez dut zalantzatu beaŕ ... -- Baretu zaiztezte, aŕen!, sumiñak eskuperatu zuen burua uzten baduzute, ankerkerien bat egin al-izango duzute: Nori dagokio baretzea, bere burua sumiñak eskuperatuta, ankerkerien bat egin ezin dezaken?; ... - Zer dagokie oyei, beren burua sumiñak eskuperatuta, ankerkerien bat egin ezin dezaketen?; ... - Niri ere baretzea al dagokit, nire burua sumiñak eskuperatuta, ankerkerien bat egin ezin dezakedan?; Bai, zuri ere ... -- Zilegia izango al litzaiguke baŕuti oyetan eizatzea?; nik bayetz uste dut, baŕuti oyetan eizatzea zilegia izango litzaizuekela: Nori izango litzayoke zilegia baŕuti oyetan eizatzea?; ... - Zer izango litzaiguke zilegia?; ... - Oyei ere zilegia izango al litzayeke baŕuti oyetan eizatzea?; Ez, oyei ez ..., zuei baño.

4. Beti bezela, emen damagun irakurgaya aŕetaz irakuŕi beaŕ da, ta gero, gure Eŕialde'ko abereen izenak, al ditezkenak, aipatu beaŕ dira, bai ta Ludi'an barna bizi diran aundienenak ere, bakoitza nun bizi dan be esaten:

«AURKEZTE-ITZAK»

«Zeruko egaztiak, ormaetako suaingilak, belardian lau oinka dabilzten zaldikumeak, goizeko eguzkiari irikitzen zayon aŕosak, gauza bat aŕigaŕia, danak daukate berdin: bizia. Iñork ere eztaki, noski, nundik eta nola datoŕen bizi ori; diñotenez, orain miloika urte dirala, itxas

zabal aundia izan omen zan biziaren jayoteŕi. Itxas zabalari, ordea, Goiko Jaunak eman zion izatea!

Iñori ez litzayoke bururatuko ere, aŕai bat iīez jaztea, edo txoria ezkataz, edo arkumea lumaz estaltzea. Guztiok ezagutzen ditugu zeintzuk abere diran, iīe, ezkata, edo lumadunak. Bai ta ere, zeintzuk dabilzten laŕu goŕian, igela bezela. Izan ere, igela esku-baŕena bezain laŕugoŕi dala, ba-dakigu danok.

Ala ere, abeldiaz dakiguna ezereza da, oraindik ikasi beaŕ dugunaren aldean.

Aspalditik, gure jakintsuak, miīoi ta geyago abere-mota, lurbiran bizi diranak, sailkatu ta sailkatu ari dira. Makiña bat ezuŕ aŕi-biurtu, andik eta emendik bilduak, gizon oyek azterkatu dituzte. Mundu onen edesti liīuragaŕia, ezuŕ aŕi-biurtu oyetxetan idatzia dago-ta.

Oŕela dakigu, kizkin batetik irtendako lenengo sorkariak, izate argalekoak zirala. Izate auek, ezuŕ-gabeak edo «soin-berak», deitu zituzten. Gero, aŕayak, mamoŕoak, ur-legortaŕak, naŕaztiak, ugaztunak azaldu ziran. Eta azkenean, miīoyen bat urte oraindik eztala, gure antziñako gizona azaldu zan.

Garai artan bizi ziran oraindik, aŕigaŕizko abere gaitzak, gorputza iīe luze ta lodiz estalitako mamutsak, alegia, leize zuloetako artzak, ezpata antzeko betagindun katuki gaitzak.

Mundu ontako abere txikienak, beŕiz, begi utsez ezin ikusi ditugu. Len-biztunak dira auek. Alderdi guztietan arkitzen ditugu: lokatzean, ur geldietan, ibayetan. Udarako gauetan, itxasoa argitsu biurtzen dutenak, auetxek dira. Betidanik, abererik aundiena izan dan balearen janari, auetxek berak dira.

Ipaŕaldeko ur izoztuetan, aruntz-onuntz dabiīen bale, sagutxo nabaŕ, urde latz edo jirapa lepa-luzeak, ez dute, benetan, elkaŕen antz aundirik. Ala ere, guzti auek ugaztunak dira, ots, giro iraunkoŕekoak eta aŕautzik egiten ez dutenak. Erditzen dituen ume biziak, amak esnez janaritzen ditu.

Iñundikan ere, zerbait entzun edo zenuten gaurko gure elefanteen antziñako «mastodonte» ta mamutzaŕ izugaŕietaz. Gaurko gure elefanteak, laŕantz edo aunditasunean, eztu, bere aintzindaŕen auŕean, asko galdu. Izan ere, antziñako mamutzaŕ oyetako batzuek, 4 metrora ozta-ozta irixten ziran».

«Abereen mundua» (5-6'gaŕen oŕialdeetan) Ariztia'taŕ Martin'ek euzkeratua.

EUN ETA IRUROGETABIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

I. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANGAITZA

ADI-YABEA, BIGAŔEN BAKAŔ-NOTIÑA

Talde onen adizkiñetan ezta kundea bereizten, eta itza bera bietarako erabiltzen da, aldi bakoitzean. Naiz eta, Tinkiera'zko Oraiñaldian eta Agintzeran izanezik, batzuetan kundearen bereiztea egin.

Onela: Intza*k*an, intza*n*an; Intzake*k*, intzake*n*; Adi*k*an, adiña*n*; eta abaŕ.

ADITZAK:	IZAN	JOAN	ETOŔI	EGON	IBIĪI
Tinkiera					
Oraiñaldia :	I AIZ	OA	ATOŔ	AGO	ABIL
Lenaldia :	I INTZAN	INJOAN (IÑOAN)	E(N)TOŔEN	E(N)GOEN	E(N)BIĪEN
Baldintzera					
Gero aldi urbiīena :	I INTZAKE	INJOAKE (IÑOAKE)	E(N)TORKE	E(N)GOKE	E(N)BILKE
Lenagoko geroaldia :	I INTZAKEAN	INJOAKEAN (IÑOAKEAN)	E(N)TORKEAN	E(N)GOKEAN	E(N)BILKEAN
Baldintzera'zko Ustekizuna :	I BAINTZ	BAINJOA (BAIÑOA)	BAENTOŔ	BAENGO	BAENBIL
AGINTZERA :	I ADI	OA	ATOŔ	AGO	ABIL
Menekoera					
Oraiñaldia :	I ADIN	OAN	ATOŔEN	AGOEN	ABIĪEN
Lenaldia :	I ENDIN	INJOAN (IÑOAN)	E(N)TOŔEN	E(N)GOEN	E(N)BIĪEN
Almenera					
Oraiñaldia :	I AITEKE	OAKE	ATORKE	AGOKE	ABILKE
Lenaldia :	I INDEKE	INJOAKE (IÑOAKE)	E(N)TORKE	E(N)GOKE	E(N)BILKE
Lenagoko geroaldia :	I INDEKEAN	INJOAKEAN (IÑOAKEAN)	E(N)TORKEAN	E(N)GOKEAN	E(N)BILKEAN
Almenera'zko ustekizuna :					
Oraiñaldia :	I AL BAADI				
Lenaldia :	I AL BAENDI				

Baldintzeran eta Menekoeran ageŕerazi ditugun JOAN, ETOŔI, EGON eta IBIĪI aditzen erak, oso gutxi erabiltzen dira; oyen ordez, aldi

oyetako erak bi itzen bidez egiten ditugu, laguntzaīlearen bitartez; era berean, emen ipiñi eztitugun beste aldietan, adizkiñak len ikasitako aditz--jokoaren eraz egiten dira.

Oaŕa - I, bigaŕen notiñaren izenordea izanik, beste izenordeen antzera, atzizki guztiak artzen dituela gogoratzekoa da.

Onela : Ire, Irekin, Iregana, Iri, era abaŕ.

Eginkizunak

1. Lenengo lauki ontan, lendabiziko leŕoan, aditzen izenak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, jokatu beaŕ diran aldiak; aldi oyetan, goiko aditzai dagozkien bigaŕen notiñaren aditzerak jaŕi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Aldiak	IZAN	JOAN	ETOŔI	EGON	IBIĪI
Oraiñaldia	Aiz	...	...	...	...
Lenaldia	...	injoan	...	...	...
Baldintzera:					
Geroal. urbīlena	...	...	entorke	...	...
Lenaldiko geroaldia	...	...	...	engokean	...
Baldintzera'zko					
Ustekizuna	...	...	...	...	baenbil

2. Emen ematen ditugun esakuntzetan, bigaŕen notiñaren «zuka» ta «ika»'ko aditzerak ageŕerazten ditugu, ta oyetxek dira alkaŕi buruz aldatu beaŕ diranak, ots, «zuka»'koa «ika»'koaren bidez eta alderantziz, «ika»'koa «zuka»'koaren bitartez, beti egokiak izango diran izenordeak jartzean; bai ta bayetzean dagozenak ezetzean ipintzen eta alderantziz ere; kulatzen ordez esatean eta idaztean :

I ondo *oa* beti ire gurasoekin edonora; ... - I *ez atoŕ* guregana ordu egokienetan; ... - Zu beti *zoaz* lasterka alde guztietara; ... - I *ez ago* gaur atzo bezin ongi, zoritxaŕez; ... - Nola *zabiltz* jantzi zaŕ ori eramaten?; ... - I *ez aiz* beste egunetan *intzan* bezela; ... - I, len, ikasguko auŕ onena *intzan*, zergatik ez orain ere?; ... - Nora *zinjoazan* atzo goizean ain estu?; ... - Guregana *entoŕenean* oso pozik *engoen*; ... - Gure mendietan *zenbiltzanetik ez zera* gero *etoŕi* gure eŕi ontara; ... - Nola *ibīliko aiz* bakaŕik baso aundi oyetan barna?; ... - Nai-izan ezkero, gurekin *joango zera* Urbasa'rako txangoan; ...

3. Galdera guzti auei erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; al danean itanozko bigaŕen notiñaren erak soilki erabiltzen; kulatzen ordez, esanez eta idatziz :

Nola enbīlen ain baldarkiro ondartzan?; ongi xamaŕ, noski, beste egitekorik gabe : Gaur ere ondartzan atzo bezin baldarkiro al abil?; ... - Bakaŕik al enbīlen ondartzan ain baldarkiro?; ... - Nola abil gaur ere ondartzan?; Beste asko bezela ... -- Atoŕ ona ta ez adi izan oŕen mukeŕ : Ona etoŕiko al aiz mukeŕ izan gabe?; ... - Beti oŕen mukeŕa izango al aiz?; ... - Zergatik aiz i beti oŕen mukeŕa?; ... - Len ere ain mukeŕa izan al intzan?; Ez, ..., orain bakaŕik. -- Ago emen geldi, ibiltzean jausi ez adin : Zertarako egon beaŕ emen geldi?; ... - Noiz arte emen geldi egoteko?; ... - Nun egon beaŕ beti geldi?; Emen ..., i bezela. -- Nola ibīliko intzan an goyan mugonez jetxi endin?; aŕetaz, noski, ibīli beaŕ an goyan mugonez gero ona jeixteko : Nun ibīli beaŕ aŕetaz, gero mugonez jetxi al-izateko?; ... - Noiz jeixteko ibīli beaŕ an goyan aŕetaz?; ... Zertarako ibīli beaŕ aŕetaz an goyan?; Ona jeixteko ... -- Edozein unealdian eta eragozpenik gabe, emendik irten aiteke : Noiz irten aal emendik eragozpenik gabe?; ... - Nola emendik irtetzeko edozein unealdian?; ... - Nundik irteteko edozein unealdian eta eragozpenik gabe?; Emendik ... -- Ezin uŕeratu indeke, urbildu intzan baño geyago?; bai, nai-izan ezkero eŕaz gañera : Nor urbildu aal, len baño geyago, nai-izan ezkero?; ... - Norengana urbildu aal, len baño geyago ta bilduŕik gabe?; ... - Noiz urbildu aal, len baño geyago, nai-izan ezkero?; Edonor urbildu aal, ... -- Nor duzu jaun ori zuretzat?, esan al zenizaidake argiro?; Ludi ontako jaun onena dut niretzat jaun ori : Nor duzu zuretzat Ludi ontako jaun onena?; ... - Ni al nauzu Ludi ontako jaun onena?; Ez, ... baño. - Zu al zaitugu Ludi ontako jaun onena?; Ez, ... baizik. -- Lenago elduko intzakean, bakaŕik etortzen : Nor elduko lenago, bakaŕik etortzen?; ... - Nola etortzen, elduko lenago?; ... - Nora elduko lenago, bakaŕik etortzen?; Ona ... -- Etxola artan geratu baintz, obeto : Nola obeto uste-izateko?; ... - Nun geratu, obeto izateko?; ... - Zer ote, gero, obeto izateko?; Etxola artan ... -- Ez al intzake eroriko zurubi ain txaŕ ortan?; agian bai, eŕaz izan beaŕ, zurubi ain txaŕ ontan erortzeko : Nun izan beaŕ eŕaz, agian, erortzeko?; ... - Edonor erortzeko eŕaz izan beaŕ, zurubi ain txaŕ ortan?; ... - Iñoiz erortzeko eŕaz izan beaŕ zurubi ain txaŕ ortan?; Bai, noiz-nai ... -- Leyatīlan beranduago arte egon indeke : Nun egoteko beranduago arte?; ... - Noiz arte leyatīlan egoteko?; ... - Leyatīlan gaberarte egoteko obeto apika?; Ez, ... arte baizik. -- Zergatik

ibiĪi intzan etxegañean goize guzian?; an lan aundia egiteko egoteagatik, egiazki: Nun ibiĪi beaŕ goize guzian lan aundia egiteko egoteagatik?; ... - Noiz ibiĪi beaŕ etxegañean lan aundia egiteko egoteagatik?; ... - Oyek ere etxegañean goize guzian ibiĪi beaŕ lan aundia egiteko egoteagatik?; Ez, oyek ez, ... baño. -- Irten adi sapaĪora al bezin laisteŕen: Nora irten beaŕ al bezin laisteŕen?; ... - Noiz irten beaŕ sapaĪora?; ... - Egunero irten beaŕ sapaĪora al bezin laisteŕen?; Ez, ... noizean bein baizik. -- Nola bizi aiteke bakaŕik, laguntzarik gabe?; ongi bakaŕik, noski, laguntzarekin baño: Nola bizi-izateko obeto laguntzarekin baño?; ... - Noiz bizi-izateko obeto bakaŕik laguntzarik gabe?; ... - Nun bizi-izateko bakaŕik laguntzarekin baño obeto?; Nun-nai, ... -- Nor intzan, nun enbiĪen eta nora injoan?; edonor, nunbait eta nora-nai, eiki: Edonor izateko, ala?; ... - Iñun ez ibiltzeko, ala?; ... - Edonora joateko obeto orduan?; Bai, nora-nai joateko ...

4. Aŕetaz, beti bezela, irakuŕi beaŕ dira uŕengo bertsoak; gero beren neurkera zein dan ikusi ta esan, bai ta oyetan agertzen dan zeatz berezia ere; ta buruz ikasten baldin badira, obeto:

«IL NAITENEAN»

«Il naitenean
ez busti zapirik
alpeŕik;
ez jaŕi, aŕen,
il-kutxa gañean
lorerik.

Agertu Utzi'ri
zure biotzeko
samiña;
goyan dagigun
luŕ ontako bete
eziña.

Ez erakutsi
guztien auŕean
penarik;
gorde betiko
gure maitasuna
bakaŕik.

Lotu eskuan
nirekin Gurutze
Gurena;
ta jaso gorantz
bizitzako otoirik
onena!».

«Bitargi» (96-7'gaŕen oŕialdeetan) Kerexeta'taŕ Jaime (Arantzibia).

EUN ETA IRUROGETAIRUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

II. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

ADI-YABEA, BIGAŔEN BAKAŔ-NOTIÑA
IZAKAYA, IRUGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ ETA ASKAŔ

Adizkin auetan kundea bereizten dugu, *K* aŕarentzat eta *N* emearentzat erabiltzean; eta emen, izki auek «adi-yabe egiĪe»'a adierazten dute.

ADITZ LAGUNTZAĪEA

	Bakaŕ-izakaya	Askaŕ-izakaya
Tinkiera		
Oraiñaldia	A. DE*K*, DU*K*	DITU*K*
	E. DE*N*, DU*N*	DITU*N*
Lenaldia	A. U(*K*)AN	ITU(*K*)AN
	E. U*N*AN	ITU*N*AN
Baldintzera		
Geroaldi urbiĪena	A. UKE*K*	ITUKE*K*
	E. UKE*N*	ITUKE*N*
Lenagoko geroaldia	A. UKE*K*AN	ITUKE*K*AN
	E. UKE*N*AN	ITUKE*N*AN
Baldintzera'zko Ustekizuna	A. BAU*K*	BAITU*K*
	E. BAU*N*	BAITU*N*
Agintzera	A. EZA*K*	ITZA*K*
	E. EZA*N*	ITZA*N*
Menekoera		
Oraiñaldia	A. DEZA*K*AN	DITZA*K*AN
	E. DEZA*N*AN	DITZA*N*AN
Lenaldia	A. EZA*K*AN	ITZA*K*AN
	E. EZA*N*AN	ITZA*N*AN
Almenera		
Oraiñaldia	A. DEZAKE*K*	DITZAKE*K*
	E. DEZAKE*N*	DITZAKE*N*
Lenaldia	A. EZAKE*K*	ITZAKE*K*
	E. EZAKE*N*	ITZAKE*N*
Lenagoko Geroaldia	A. EZAKE*K*AN	ITZAKE*K*AN
	E. EZAKE*N*AN	ITZAKE*N*AN
Almenera'zko Ustekizuna		
Oraiñaldia	A. AL BADEZA*K*	AL BADITZA*K*
	E. AL BADEZA*N*	AL BADITZA*N*
Lenaldia	A. AL BAEZA*K*	AL BAITZA*K*
	E. AL BAEZA*N*	AL BAITZA*N*

UŕENGO ADITZ IRAGANKOŕEN ERA BILDUAK

Ezagutuak diran ERAMAN, EKAŕI, JAKIN, ERABIĪLI, EUKI ta ESAN (IÑO) aditzen Tinkiera'zko Oraiñaldi ta Lenaldi'ko era bilduak ematen ditugu zeatzez :

ADITZAK:	ERAMAN	EKAŕI	JAKIN
Oraiñ. bak. i.	A. DARAMA*K* E. DARAMA*N*	DAKARKI*K* DAKARKI*N*	DAKI*K* DAKI*N*
Oraiñ. ask. i.	A. DARAMAZKI*K* E. DARAMAZKI*N*	DAKARZKI*K* DAKARZKI*N*	DAKIZKI*K* DAKIZKI*N*
Lenal. bak. i.	A. ERAMA*K*AN E. ERAMA*N*AN	EKARKI*K*AN EKARKIÑAN	EKI*K*AN EKIÑAN
Lenal. ask. i.	A. ERAMAZKI*K*AN E. ERAMAZKIÑAN	EKARZKI*K*AN EKARZKIÑAN	EKIZKI*K*AN EKIZKIÑAN

	ERABIĪLI	EUKI	ESAN (IÑO)
Oraiñ. bak. i.	DARABILKI*K* DARABILKI*N*	DAUKA*K* DAUKA*N*	DI(Ñ)O*K* DI(Ñ)O*N*
Oraiñ. ask. i.	DARABILZKI*K* DARABILZKI*N*	DAUZKA*K* DAUZKA*N*	DI(Ñ)OZKI*K* DI(Ñ)OZKI*N*
Lenal. bak. i.	ERABILKI*K*AN ERABILKIÑAN	EUKA*K*AN EUKA*N*AN	I(Ñ)O*K*AN I(Ñ)O*N*AN
Lenal. ask. i.	ERABILZKI*K*AN ERABILZKIÑAN	EUZKA*K*AN EUZKA*N*AN	I(Ñ)OZKI*K*AN I(Ñ)OZKIÑAN

Lenaldi'ko era auek, laguntzaīlearen bidez, bi itzezko besteen bitartez ordeztuta izan ditezke; eta alaber, dakigunez, beste aldiak ere jokatu ditezke.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lendabiziko leŕoan, bakaŕ eta askaŕ-izakayak adierazteko oarpenak jartzen ditugu; bigaŕenean, zenbaki bakoitzerako kunde bien zeatzak agertzen dira; ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, aldiak ematen ditugu; auei dagozkien IZAN aditz iragankoŕaren erak ipiñi beaŕ dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Aldiak	Bakaŕ-izakaya		Askaŕ-izakaya	
	Aŕa	Emea	Aŕa	Emea
Tinkiera:				
Oraiñaldia	Duk	...	...	...
Lenaldia	...	unan	...	...
Baldintzera:				
Geroaldi urbiīena	...	...	itukek	...
Lenagoko geroaldia	...	...	...	itukenan
Baldintzera'zko Ustekizuna	Bauk	...	...	...
Agintzera:	...	ezan	...	...
Menekoera:				
Oraiñaldia	...	...	ditzakan	...
Lenaldia	...	...	...	itzanan
Almenera:				...
Oraiñaldia	Dezakek	...	...	
Lenaldia	...	ezaken	...	
Lenagoko geroaldia	...	...	itzakekan	...
Almenera'zko Ustekizuna - oraiñaldia	...	...	...	al baditzan
Ustekizuna - lenaldia	Al baezak	...	al baitzak	...

2. Uŕengo esakuntzetan ikako aditzerak agertzen dira, onelaxe aldatzeko : aŕak emeen bidez eta alderantziz, eta orobat bakaŕean dagozenak askaŕekoen bitartez eta alderantziz ere; kulatzen ordez esan eta idaztean :

Ik ezti oso ona *dakarkik* etxeŕako; ... - Ik oso gaizki egin *ditun* gaurko eginkizunak; ... - Nora *daramazkik* ire aitaren zaldiak?; ... - Ik ez *dakin* ezertxo ere; ... - Ik gero ta obeto jango *duk*, noski; ... - Ik ire kutxa ortan laurlekoak asko *dauzkan*, ene ustez; ... - Ire jantziak oso zikiñak *darabilzkik* saŕitan; ... - Ik *ez diñon* ondo ire otoi ori; ... - Ik ardo geyegi edaten *duk* egun auetan; ... - Noraño jasoko *ditun* ume oyek ire besoetan?; ... - Zama aundiegia *eramakan* erenegun solorako; ... - Ik ez *eukanan* ezer, ire sakeletan; ...

3. Emen azaltzen diran galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, ezinbestekoa danean zukako erak erabiltzen; kulatzen ordez, esanez eta idatziz :

Asaŕetu al baadi, asaŕetu adi! : I asaŕetu al aiteke eŕaz?; ... - Nor asaŕetu al diteke bereala?; ... - Gu ere asaŕetu al gaitezke?; Bai, zuek ere ... -- Azkaltzeko orduan baño lenago itzuli al baendi, etoŕi adi, aŕen! :

I itzuli al indeke azkaltzeko orduan baño lenago?; ... - Noiz itzuli al aiteke?; ... - Eta zuek azkaltzeko orduan baño lenago itzuli al zaitezkete?; Bai, gu ere ... -- Zer duk eskuan?; idazti oso polita dut eskuan: Ik al dun idazti oso polita eskuan?; ... - Ik idazti oso politak al dituk eskuetan?; ... - Eta nik, ire neba onek al dut idazti oso polita nire eskuan?; Ez, ... baño. -- Estakik ire semea bide ortatik nora daramakan: Nik, ire aŕeba onek al dakit nire semea bide ortatik nora daramadan?; ... - Guk, ire gurasook al dakigu gure semea bide ortatik nora daramagun?; ... - Eta nik, ire osaba onek al dakit nire semea bide ortatik nora daramadan?; Ez, zuk ere ... -- Uste al dun ainbeste dantzak dantzatu ditunean, ondo egin dunala?; bai, nik uste dut dantza oyek dantzatu ditudanean ondo egin dudala: Nik, ire neba onek uste al dut dantza oyek dantzatu ditudanean ongi egin dudala?; ... - Zer uste dut nik, ire aŕeba onek?; ... - Guk uste al dugu dantza oyek dantzatu ditugunean ondo egin dugula?; Bai, zuek ere ... -- Geyegi jan uan eta oŕela orain eri ago: Zer jan nuen nik eta nola nago orain?; ... - Nor dago eri orain geyegi jan zuelako?; ... - Uste al duzute nik orduan geyegi jan nuela?; Bai, ... -- Ez dakarzkin atzo agindu itunan burusiak: Zer ez dakart nik?; ... - Noiz ez dakarzkit atzo agindu nituen burusiak?; ... - Noiz agindu nituen orain ez dakarzkidan burusiak?; Atzo ... -- Ez al dituk ornituko eroŕek bidaldirako beaŕezkoak diran gauzak?; bai, neronek ornituko ditut bidaldirako beaŕezkoak diran gauzak: Nork ornituko ditu bidaldirako beaŕezkoak diran gauzak?; ... - Zertarako ornituko ditut neronek beaŕezkoak diran gauzak?; Bidaldirako ... - Zer ornituko dut nik? ... -- Elizan iñoiz sartuko baintz, piskat obetu endin!: Nork sartu beaŕ du iñoiz elizan piskat obetu zedin?; ... - Nun sartu beaŕ dut iñoiz, piskat obetu nendin?; ... - Zertarako sartu beaŕ dut nik elizan iñoiz?; Obetu ... -- Ez unan iñoiz artu beaŕ-izan agintariak eragotzita!: Nork ez zuen iñoiz artu beaŕ-izan agintariak eragotzita?; ... - Zer ez nuen iñoiz artu beaŕ-izan?; ... - Noiz ez nuen nik artu beaŕ-izan agintariak eragotzita?; Iñoiz ... -- Ire etxerako daramazkian maŕubi guriak, nun artu dituk?; gure baratzean artu ditut nire etxerako daramazkidan maŕubi guriak: Zer daramat nik nire etxerako?; ... - Norako daramazkit gure baratzean artu ditudan maŕubi guriak? ... - Nork daramazki bere etxerako beren baratzean artu dituen maŕubi guriak?; Ik ... -- Egikera geldiegi ta okeŕak darabilzkin: Nork darabilzki egikera geldiegi ta okeŕak?; ... Zer darabilt nik?; ... - Egikera biziak al darabilzkit?; Ez, ik ez ... -- Ik iñork baño geyago artuko

ukek, irekoi ikaragaŕia aizelako: Nork artuko luke iñork baño geyago berekoi ikaragaŕia dalako?; ... - Zer artuko nuke nik nerekoi ikaragaŕia naizelako?; ... - Zergatik artuko dut nik iñork baño geyago?; Irekoi ... -- Zer nayago uken, gurekin joatea ala etxean egotea?; zuekin joatea nayago nuke nik beti: Nork nayago luke beti gurekin joatea?; ... - Zer nayago nuke nik beti?; ... - Etxean egotea nayago al nuke nik beti?; Ez, ... baño. -- Irten adi ortik, laisteŕ, eta abil!: Nork irten beaŕ du laisteŕ ortik?; ... - Nundik irten beaŕ dut nik laisteŕ?; ... - Nola irten beaŕ dut nik ortik?; Laisteŕ ...

4. Astiro ta aŕetaz irakuŕi beaŕ da emen ematen dugun idazti baten txatal au; gero luŕ-ikara zer dan, bere ondorioak zeintzuk diran, eta Ludi'ko zein tokietan izaten diran luŕ-ikarak geyen, esan beaŕ-izango da, bakoitzak dakien bezela:

«LUŔ-IKARA»

«Luŕ-ikara bat izigaŕia izan da egun auetan, Txina'ko eskualdean, *Japonia* deitzen dan tokian. Amaŕ egunez eremu andi batetan, giza-lagun guzia aŕitua egon da. Duela beŕogei urte gauza bera gertatu zan Japonia'n. Bañan oraikoan bazteŕ guziak eŕautsi omen ditu. Iragan uŕiīaren 25'ean. oartu zan bein giza-laguna leen iñaŕos-aldiari; izialdura bat ona izan zuten; bañan geyagokorik ez, egun artan. Biaramonean, luŕa geldi-geldia zegoen; bañan zerua goŕi samuŕ batean; aidea goŕiegosi; jasan aala epel eta pisu. Bazteŕak kexu ta belduŕ. Abereak berak, dal-dal-dal, ikaran omen zeuden; burua dilindan, jan ez edan ere nai gabe. Biaramonagoan orobat.

Laugaŕen egunean ziñak eta miñak. Misionest gaixo batek igortzen daroku (digu) goizean, Meza emanik, otoitzean zegoelarik, buŕunba andi bat entzun duela. Ez omen diteke asma, zer oŕo beltz lazgaŕia egiten zuen.

Beste mixionest bat, Meza'ren emaitera zoana, aldare aitzinean eŕoz gora aurdiki du luŕ-ikarak. Eliza-barnean ziran giza-lagun guziak orobat erorarazi ditu batzuk besteen gañera.

Aal zutenak aal bezela, batzuk xutik, bertzeak eŕestan atera dira elizatik kanporat, eyagoraz. Uste zuten eliza erortzera zoala. Eta izaitez gutitarik egin omen du ez baita dana erori. Lastoa bezela, ba-zeraman luŕ-ikarak oro. Elizako aldarea, leyoak, doneen laukiak xirxikatu ditu.

Kanpora diranean, ura ikusgaŕia! Iri guzia kaŕaskan; giza-lagunak oyuka maŕumaz, etxeetatik kanporat iges. Luŕa aŕailtzen da, an-emenka. Uŕadura ayetatik ufaka ba-doa kea, ta gero iztīa edo loya, goitik buŕustan, ur erakituak gaindi egiten duenean bezela. Neor (iñor) ez dagoke xutik. Etxeen erdiak luŕerat doaz, kaŕaskan. Giza-lagun anitz leerturik an geratzen da. Bi minuta baño geyago ez du iraun egun artako luŕ-ikarak. Egun artakoa zan itsusiena; bañan amaŕ egunez, guti edo aski iraun du luŕ-ikarak, batean emen, bestean an. Japonia guzia (eremu andia!) unkitu du. Ezin eŕan (esan) ditake nolako saŕaskiak egin dituen. Ba-dira ogei mīa il; beste ainbeste baño geyago kolpatuak».

«Zezenak Eŕepublikan» (14-5-6'gn. oŕialdeetan) Jean Iriart-Uŕuty.

EUN ETA IRUROGETALAUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

II. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

ADI-YABEA, BIGAŔEN BAKAŔ-NOTIÑA

IZAKAYA, IRUGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ ETA ASKAŔ

ZEAŔ-BETETZEKOA, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ

Tinkiera:	Oraiñaldia	D- -I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*		-K -N		
Tinkiera:	Lenaldia	-I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*		-K- -N-	a) -N	
Baldintzera:	Geroaldi Urbīena	-I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*	-KE-	-K -N		
Baldintzera:	Lenagoko Geroaldia	-I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*	-KE-	-K- -N-	-AN	
Baldintzera:	Ustekizuna	Ba- -I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*		-K -N		

EGINKIZUNAK

1. Uŕengo laukian, lenengo leŕoan, zeaŕ-izenordeak agertzen dira; ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, aldiak, eta aldi bakoitzerako adi-

yabea, aŕ eta eme; izakaya, irugaŕen bakaŕ edo askaŕ-notiña; kulatzen ordez, guzti oyei dagozkien erak esan eta idazteko:

Aldiak			Neri	Berari	Guri	Berai
Tink. Oraiñaldia	—	Aŕ :	Didak	...	...	...
Tink. Oraiñaldia	—	Eme:	...	dion	...	...
Tink. Lenaldia	—	Aŕ :	...	...	izkigukan	...
Tink. Lenaldia	—	Eme:	...	...	...	izkienan
Bald. Ger. Urbil.	—	Aŕ :	Idakek	...	...	...
Bald. Ger. Urbil.	—	Eme:	...	ioken	...	...
Bald. Len. Geroal.	—	Aŕ :	...	...	igukekan	...
Bald. Len. Geroal.	—	Eme:	...	...	...	izkiekenan
Bald. Ustekizuna	—	Aŕ :	Baizkidak	...	...	...
Bald. Ustekizuna	—	Eme:	...	...	baizkigun	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan, zeaŕ-betetzekoak dagoz, eta onela egiteko aldakuntzak: aŕak emeen bidez eta alderantziz; berebat izakai bakaŕa askaŕaren bitartez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Ene ustez, nik esandako guztia ik ondo ulertu *didak*; ... - Ik ez *izkiokan* ekartzen berak eskatutako sagaŕ guziak; ... - Ik gure idazti batzuk kenduko *izkigukek*; ... - Noiz esango *iekenan* lekaide ayei egin *dunan* guztia?; ... - Zer egingo *ukek* nire lan ori apurtuko *baidak*?; ... - Jantzi itsusiena ekaŕi *dion* orain; ... - Unealdi artan oñetako goŕiak erabili *izkigunan*; ... - Iñoiz ez *ieken* ire laguntza eskeiñiko; ... - Nire untxiak aŕapatuko *izkidakekan*; ... - Berarena ostuko *bayon*, egipen oso txaŕ bat egingo *uken*; ... - Ez al *izkigunan* obeto maŕeztuko gure laukiak?; ... - Gure ikuŕatz-bilduma aztertu nai-izango *igukek* bereala; ...

3. Galdera guzti auei, egokia izango dan erantzun bana eman beaŕ-izango zaye; baitezpadakoa izango danean, zukako aditzerak erabiltzean; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Dana dala, ez dizkidak antolatu agindu uan bezela: Nori ez dizkiok antolatu agindu uan bezela?; ... - Nola ez dizkiguk antolatu guri?; ... - Ire gurasoai antolatu al dizkiek agindu uan bezela?; Ez, ... ere, ez ... -- Bai zera!, ik dagikana, beti ondo dagik: Nola dagik ik dagikana beti?; ... - Noiz dagik ik dagikana ondo?; ... - Zer dagik ik beti ondo?; ... -- Dalakoan eztalakoan, guregana urbilduko intzake, baña alpeŕik; eztun ezer jakingo: Norengana urbilduko intzake, dalakoan eztalakoan?; ... - Ezer jakingo al dun?; ... - Zer ez dun jakingo guregana urbilduaŕen?; Ezer ez ... -- Eguneroko janaria, ezer esan gabe, geitu igukan: Nori geitu iokan, ezer esan gabe, eguneroko janaria?; ... - Zer geitu igukan ezer esan gabe?; ... - Nik geitu al nizuen, ezer esan gabe, eguneroko janaria?; Ez, ik ez ... -- Ontaz edo artaz, ez izkienan lotu beren otaŕak uste unan bezin ondo: Zer ez ienan lotu, ontaz edo artaz, uste unan bezin ondo?; ... - Nori ez izkionan lotu bere otaŕak, uste uan bezin ondo?; ... - Nik lotu al nizkien beren otaŕak uste nuen bezin ondo?; Ez, ik ez ... -- Esate baterako, garia goiztirian baño lenago eotu ezakek: Zer eotu ezakek, esate baterako, goiztirian baño lenago?; ... - Noiz eotu ezakek garia, esate baterako?; ... - Nik eotu al nezake garia, esate baterako, goiztirian baño lenago?; Ez, ik ez ... -- Ire zaldia garaiz gelditu baun, ez ukenan irauliko injoan gurdia: Zer ez ukenan irauliko ire zaldia garaiz gelditu baun?; ... - Nork ez zukean irauliko zijoan gurdia, bere zaldia garaiz gelditu ezpalu?; ... - Nik irauliko al nukean nijoan gurdia, nire zaldia garaiz gelditu banu?; Ez, ik ez ... -- Ez diok iñoiz ezer ostuko ire urkoari: Nori ez diot iñoiz ezer ostuko?; ... - Zer ez diot iñoiz ostuko nire urkoari?; ... - Guri ostuko al diguk ezer iñoiz?; Ez, zuei ere ... -- Ilebete guzti artan bera ikustera joango ez intzakela bayeztu iokan: Zer bayeztu iokan?; ... - Nori bayeztu iokan ilebete guzti artan ikustera joango ez intzakela?; ... - Nik bayeztu al nion ilebete guzti artan bera ikustera joango ez nintzakela?; Bai, ik ... -- Agian, irekin saŕiago eukiko ukek, noizean bein opariztuko bauk: Nork eukiko luke, agian, berarekin saŕiago, noizean bein opariztuko balu?; ... - Nola eukiko ukek irekin, agian, noizean bein opariztuko bauk?; ... - Nik eukiko al nuke, agian, nirekin saŕiago, noizean bein opariztuko banu?; Ez, ik ez ... -- Ezin sumatu itzaken ekiñana baño geyago jakin gabe: Nork ezin sumatu litzake zekiena baño geyago jakin gabe?; ... - Nola ezin sumatu itzaken?; ... - Nik sumatu al nitzake nekiena baño geyago jakin gabe?; Ez, ik ez ... -- Esi artara urbildu al baendi, eiztariak urbiletik ikusiko itukek: Nortzuk ikusi nituke esi artara urbildu al banendi?; ... - Nola ikusiko itukek eiztariak, esi artara urbildu al baendi?; ... - Nik ikusiko al nituke urbiletik eiztariak esi artara urbildu banendi?; Bai, ik ... -- Egurketa injoanean, ez ituan ondo zoŕozten ire aizkorak: Zer ez uan ondo zoŕozten egurketa injoanean?; ... - Noiz ez ituan ondo zoŕozten ire aizkorak?; ... - Nik ondo zoŕozten al nituen nire aizkorak egurketa ninjoanean?; Bai, ik ondo ... -- Albait laisteŕen itzuliko baintz, obeto, oŕela guziok alkaŕekin bazkaltzeko: Nik uste al dut, albait laisteŕen itzuliko banintz, obeto izango litzakela?; ... - Zer uste dun, guziok alkaŕekin bazkaltzeko?; ... - Zer uste dut nik guziok alkaŕekin

bazkaltzeko?; Zera ... -- Buruausterik izan ez dezakan, oldoztu ezak lenago, egin beaŕ dukana: Zertarako oldoztu beaŕ dut nik ondo lenago, egin beaŕ dudana?; ... - Zer oldoztu beaŕ dut nik lenago ondo, buruausterik izan ez dezadan?; ... - Noiz oldoztu beaŕ dut nik ondo, egin beaŕ dudana, buruausterik izan ez dezadan?; Lenago ...

4. Beste irakurgai bat damagu emen, esango dan idaztitik artuta; bertan, gizon jakitunai, apaizai batez ere, lotsa aundiaz itzegiteko lengo era berezia agertzen da, orain ia zearo aiztuta dagoena; oŕi buruz eta eŕitaŕ xaloek ametsak egiteko duten eŕaztasunaz, norberaren iritzia azaldu beza bakoitzak:

«BOSKAŔEN ESKUTITZA»

«— Jainkoa'k iluntze on diola, apaiz jauna.

— Bai, zuri ere.

— Beroŕen etxera nentoŕen zertxobait jakitera.

— Nere etxeak leaburuaŕentzat eztu giltzik, Joxepiñaxi; beti dezute zabalik. Eta zer da jakin nai dezuna?

— Beroŕen lengusu Medel'ek kale ta guztiko uri beŕia Leaburu'n egiteko ustea omen du.

— Jesus eta bat ala ere! Uri beŕia!

— Elgoyentaŕentzat beroŕen baratzetik asi ta Malaeŕeka-gain-gañeragiñokoa izango omen da. Ba omen du dirua, bai ta beaŕ ere, Leaburu ta Gaztelu'ren bitarteko zoko sakon ori luŕez betetzeko.

— Amets egin al dezu, Joxepa?

— Nere esan au ametsa baldin bada, eŕi guztia ta inguruetako beredin gizaseme ta emakume ere ametsetan ari dira. Donostia'n ez omen da iñor Medel'ek adiña diru duenik; eta Bilbao'n ere, bakan-bakantxoren bat edo bestetxo.

— Baña nundik atera dituzute, ordea, beŕi auek?

— Apaiz jauna: Izuŕain-aldera egin diteke ta eŕaz kale lerden edeŕa. Luŕak, aide kutsatuak era bagera-ta (Medel'en aitona nere amaren bigaŕen kusua zan), garestiegi eniozke emango, ontarako izan ezkero.

— Aitaren, Semearen!... Eta kale beŕi oyek jauregiz beteko dituela eztiñote?

— Zerbaitez bete bearko. Antolin Saizaŕ'ek uste du olaren batzuk ere sortuko dituela: iraltsolak, burniolak...

— Bai, oŕelako zerbait izan bearko du. Gezuŕolak sortzeko beintzat eztegu Medel'en beaŕik. Leaburu'ko etxe bakoitza gezuŕola aundi bat da egungo egunean.

Au entzun zuenean, aŕizkoa zirudien Izuŕain'go neskazaŕak; eta nik, eŕukiaŕen, ezpañetan iŕipaŕa nuela ta aopean bezela esan nion:

— Joxepa, lenengo kalea Elgoyen'en egin ezkero, bigaŕena Izuŕain'go mugak joaz, Elbaŕen aldera zuzenduko degu.

— Gezuŕa zala-ta?

Nik orduan egin nuen paŕezantzoa (algara) Basatxuŕo'n ere entzun zezakean».

«Ardi galdua» (32-3'gn. oŕialdeetan) R. Maria Azkue'k.

EUN ETA IRUROGETABOSKAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

II. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

ADI-YABEA, BIGAŔEN BAKAŔ-NOTIÑA

IZAKAYA, IRUGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ ETA ASKAŔ

ZEAŔ-BETETZEKOA, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ

Agintzera:		E- -ZA- -I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*		-K -N	
Menekoera:	Oraiñaldia	D- -I- -ZA- -I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*		-K- -N-	a) -N
Menekoera:	Lenaldia	I- -ZA- -I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*		-K- -N-	a) -N
Almenera:	Oraiñaldia	D- -I- -ZA- -I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*	-KE-	-K -N	
Almenera:	Lenaldia	I- -ZA- -I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*	-KE-	-K -N	
Almenera:	Lenagoko Geroaldia	I- -ZA- -I- -ZKI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*	-KE-	-K- -N-	-AN
Almenera'zko Ustekizuna: Oraiñaldia		AL BA- -D- -I- -ZA- -I- -ZI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*		-K -N	
Almenera'zko Ustekizuna: Lenaldia		AL BA- -I- -ZA- -I- -ZI-	*-Da-* *-O-* *-GU-* *-E-*		-K -N	

Adizkin auetan, K ta N ere, «adi-yabe egīlea» adierazten dute; izki oyetako bakoitza, bein bata ta bein bestea, adizkin bakoitzeko beste izki guziekin alkartzen diralarik.

E. b.: (Tinkiera'zko Oraiñaldia) Dida*k*
Dida*n*

Bearbada, ez edo da zeazkoa, K ta N izki auek, emen dagigun bezela, «adi-yabe-egīlea» adierazten dutela esatea; ez eta «izakaya» edo «zeaŕ--betetzekoa» («artzalea») ere, bakoitza bere aldian, adierazten dutela; batez ere, eraketaren bigaŕen bidea jaŕaitzen duten aldietako «adi-yabea» onelako adizkiñetan, lenengo izkien bidez adierazten dala gogoratzen badugu (noski, izakaya irugaŕen notiñarena danean); eta ala ere, K ta N oyek adizkiñen azken tokian agertzen dira. Egitan, K ta N izki auen adierazpena, auxe dala esan genezake: kunde-bedegaŕak dirala bakaŕik, bigaŕen notiñari aŕ ala emezko zentzuna ematen diotenak, notin ori «adi-yabea», «izakaya» edo «artzalea» danean; bai ta «alkaŕ--betetzekoa» danean ere; beraz, beti.

Alakotz, K ta N, «adi-yabea», «izakaya», eta abaŕ, adierazteko darabilzkigula esan dezagunean, zentzun oso mugatuaz izango da, ageŕerazi dugun azalpenaz beti gogoratzean.

Oaŕa. - Batzuetan, K izkia (aŕ-zentzuna adierazten duena) kentzen da, onela esateko:

E. b.: Lenaldian: Idaan, Ioan, Iguan, Iean.
Menekoera'zko Oraiñaldian: Dizaidaan, Dizayoan, Dizaiguan, Dizayean.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lendabiziko leŕoan, zeaŕ-izenordeak ipintzen ditugu; ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, aldiak, eta aldi bakoitzerako, adi-yabea, aŕ eta eme; izakaya, irugaŕen bakaŕ edo askaŕ-notiña; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

Aldiak		Neri	Berari	Guri	Berai
Agintzera	— Aŕ :	Ezaidak	...	...	...
	— Eme:	...	ezayon	...	...
Men. Oraiñ.	— Aŕ :	...	...	dizaigukan	...
	— Eme:	...	...	...	dizayenan
Men. Lenal.	— Aŕ :	Izaidakan	...	...	...
	— Eme:	...	izayonan	...	...
Alm. Oraiñ.	— Aŕ :	...	...	dizaizkigukek	...
	— Eme:	...	...	...	dizaikieken
Alm. Lenal.	— Aŕ :	Izaizkidakek	...	...	...
	— Eme:	...	izaizkioken	...	...
Alm. Lenag.	— Aŕ :	...	...	izaizkigukean	...
Geroald.	— Eme:	...	...	...	izaizkiekenan
Alm. Ustek.	— Aŕ :	Al badizaidak	...	...	...
Oraiñal.	— Eme:	...	al badizayon	...	...
Alm. Ustek.	— Aŕ :	...	...	al baizaiguk	...
Lenald.	— Eme:	...	...	...	al baizayen

2. Bigaŕen eginkizun ontan, zeaŕ-betetzekoak agertzen dira; ta aldakuntzak onela egin beaŕ-izango dira: aŕak emeen bidez eta alderantziz; bai ta bayezkoak diranak ezezkoen bitartez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esan eta idazten:

Nik uste dut ori artu dukala niri eman *dizaidakan*; ... - Benetan nai dut kutxa polit au amari eraman *dizayonala*; ... - Ez giñakean oneraño etoŕiko ire zaldiak utzi ez *izkigunan*; ... - Gogoz nai-izango nuke ire inguŕaztia lenbailen ekaŕi *izayenala*; ... - Ezin ken *dizaidakek* nirea dana; ... - Bere txindia ostu *dizayoken*, bai, baña eztut uste ori egingo dunala; ... - Ona ekaŕi indukagun gure gela au ongi atondu *izaigukekan*; ... - Jaun oyei idatzi al *izayeken* gaur bertan?; ... - Izpaŕingi oyek irakuŕi al *izaizkidakean*; ... - Ezin egosi *izayokenan* aŕautz bat bederen gizajo oŕi?; ... - Ire maŕezkiak erakutsi ezin *badizaizkiguk*, ez dizugu oyei buruz gure iritzia eman al-izango; ... - Su egoki bat piztu al *baizayen* oso ondo egongo lirake emakume ayek emen; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, ezinbestekoa izango danean, zukako erak erabiltzean; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Itxeki ezaidan pardel ori ugaletatik unealdi batean!: Nork itxeki beaŕ dit pardel ori ugaletatik unealdi batean?; ... - Nori itxeki beaŕ dion pardel ori ugaletatik unealdi batean?; ... - Nik itxeki beaŕ al diot pardel ori ugaletatik unealdi batean?; Ez, ik ... -- Utzi ezaizkiek ire osabai tresna bikain oyek bidaldian galdu ez dizaizkiekan: Zertarako nai duk nire osabai tresna bikain oyek utzi dizaizkiedala?; ... - Zer utzi beaŕ diet nire osabai bidaldian galdu ez dizayedan?; ... - Neronek utzi beaŕ al dizkiet nire osabai tresna bikain oyek bidaldian galdu ez dizaizkiedan?; Ez, ik ..., nik baño. -- Gaur gabean geyago eztul-egingo baun, utz-egin gabe sendagīleari dei-egin beaŕ-izango dion: Nork dei-egin beaŕ-izango dio sendagīleari gaur gabean geyago eztul-egingo balu?; ... - Nori dei-egin beaŕ-izango diot, utz-egin gabe, gaur gabean geyago eztul-egingo banu?; - Noiz dei-egin beaŕ-izango diot sendagīleari, utz-egin gabe, gaur gabean geyago eztul-egingo banu?; Biar bertan ... -- Ire gauzatxoak aitortu beaŕ-izango itukek, oŕen artega bizi ez endin: Nork aitortu beaŕ-izango lituke bere gauzatxoak, oŕen artega bizi ez zedin?; ... - Zer aitortu beaŕ-izango nuke, onen artega bizi ez nendin?; ... - Nori aitortu beaŕ-izango nizkioke nire gauzatxoak, onen artega bizi ez nendin?; Ire gurasoai ... -- Ez al itunan noizpait arabakituko praka oŕen uŕatuak?; bai, noizpait arabakituko nituen praka oŕen uŕatuak: Nork arabakituko zituen noizpait praka oŕen uŕatuak?; ... - Zer arabakituko nuen nik noizpait?; ... - Nik arabakituko al nituen noizpait praka oen uŕatuak?; Bai, ene ustez, ik ... -- Zer egin, ik, ondo ta laisteŕ, antolatu izaizkiguan?; emen ez agertzea naikoa izango litzake: Zertarako izango litzake naikoa emen ez agertzea?; ... - Nola antolatu nizaizkizueke nik?; ... - Nortzuei antolatuko nizaizkieke ondo ta laisteŕ?; Guri ... -- Bidazti gosebera oyetako bakoitzari, aŕautz bat bederen eŕegosi dizayoken: Nori eŕegosi dizayoket aŕautz bat bederen?; ... - Niri eŕegosi al dizaidaken aŕautz bat baderen?; ... - Nik eŕegosi al dizaizkieket aŕautz batzuk bidazti gosebera oyei?; Bai, ik ... -- Ire bordan euzkanan oīaskoak bialtzen izkigunanean obea intzan: Nor zan obea bere bordan zeuzkan oīaskoak bialtzen zizkizuenean?; ... - Nola giñan gu, gure bordan geneuzkan oīaskoak bialtzen genizkizuenean?; ... - Ni ere obea al nintzan nire bordan neuzkan oīaskoak bialtzen nizkizuenean?; Bai, i ... -- Nun erosiituan, dakarzkian oŕen oñetako gelgaŕi oyek?; Agurain'en erosi nituen, dakarzkidan onen oñetako gelgaŕi auek: Zer erosi uan Agurain'en?; ... - Nolakoak dira Agurain'en erosi genituen oñetakoak?; ... - Nik erosi al nituen Agurain'en onen gelgaŕiak diran oñetako auek?; Bai, ik ... -- Baseŕitaŕ baldaŕ oŕi, bere zaldi sutsua eutsi izayokek: Nori eutsi nizayoke bere zaldi sutsua?; ... - Guri eutsi al izaigukek gure zaldi sutsua?; ... - Nik eutsi al nizayoke baseŕitaŕ baldaŕ oŕi bere zaldi sutsua?; Bai, ik eŕaz ... -- Erdu adi aguro, autsez onen beteta dagozen zataŕ auek astindu dizaizkidanan: Nork erdu beaŕ du aguro, autsez onen beteta dagozen zataŕ auek astindu dizaizkigun?;

... - Zertarako erdu beaŕ dut nik aguro?; ... - Nik erdu beaŕ al dut aguro, autsez onen beteta dauden zataŕ ayek astindu dizaizkizuedan?; Bai, ik ... -- Nola ez ituan ipiñi ikastolan, beaŕ ituan buru-belaŕiak?; niretzat oso zaĭa zalako, ez nituen ipiñi ikastolan beaŕ nituen buru-belaŕiak: Zer ez nuen ipiñi ikastolan?; ... - Nun ez genituen ipiñi beaŕ genituen buru-belaŕiak, guretzat oso zaĭa zalako?; ... - Nik ipiñi al nituen ikastolan beaŕ nituen buru-belaŕiak?; Ez, ik ... -- Laisteŕ, burutik-burura, amaituko idakenala esan unan: Nork esan zuen, laisteŕ, burutik-burura, amaituko liokela?; ... - Nola esan genuen amaituko genizuekela?; ... - Nik esan al nuen, laisteŕ, burutik-burura, amaituko nizukela?; Ez, ik ez ... -- Bai zera!; ik ere bizian ez izkigukek iñoiz erakutsiko: Nork ez lizkizueke bere bizian iñoiz erakutsiko?; ... Noiz ez izkidakek erakutsiko?; ... - Nik erakutsiko al nizkieke iñoiz nire bizian?; Ez, ik ez ... -- Aŕ itzan tipul eta berakatz auek aparia gertutzeko: Nork artu beaŕ ditu tipul eta berakatz auek aparia gertutzeko?; ... - Zertarako artu beaŕ dituzute tipul eta berakatz auek?; ... - Nik artu beaŕ al ditut tipul eta berakatz auek aparia gertutzeko?; Bai, ik ...

4. Ondo irakuŕi beaŕ da uŕengo idazkia, gero zeatz auek emateko: Bertan aipatzen diranen artean, zein ote dan «Jainkotxo» ta zein «gizaguren»; zein eŕitan oŕelakoak izan zirala siñistu zuten; bakoitzak ezagutzen dituen beste «Jainkotxo» ta «gizaguren»'en izenak aipatzean; ipui-bilduma oŕen «Jainkotxoak» zein menditan bizi omen ziran; esanez eta idatziz:

«PROMETEO TA SUA»

«Gizonai azaldu gabe gordetzen omen zuten, aŕeta osoaz, sua, jainkoek Olinpo-mendian. ¡Bai gauza edeŕak egin zezazkean gizonak suaren bidez! Basa-iizien jabe egiteko izkiĭuak, luŕa lantzeko tresnak; etsayak uxatzeko gezi, ezpata, aztamakil eta beste asko.

Bilduŕ omen zan, ordea, Zeus jainko nagusia, gizonen eskuetan sua jartzeko. Aŕotuko omen ziran gizonak ta jainkoen aurka jeiki, bai ta, aldiaz, jainkoak bezin aundi edo aundiagoak biurtu suaren jabe izanik. Oŕengatik, ez omen zien iñolaz ere suaren beŕi gizonai eman nai, jainko guzien gañetik zegoen Zeus jainko nagusiak.

Ba omen ziran erdi jainkoak ziran beste izaki batzuk, eta Titan izenaz ezagutzen omen zituzten: Gea ta Urano'gandik sortuak omen ziran eta indaŕ aundiko zentoyak omen ziran. Oyetako batek, Prometeo'k, argi berezia omen zuen, etorkizuna ikusteko, ta txit onartzen omen zuen Zeus jainko nagusiak, eta aolkua ere eskatzen omen zion.

Eŕi artan sortu zituen bi giza-endaetaz nazkatuta omen zegoen Zeus, eta irugaŕen giza-enda sortzeko, Prometeo'ri bere iritzia eskatu omen zion. Onek, lendabizi, bustiñaz egin omen zituen jainkoen irudi txiki batzuk eta, uŕena, bizia ixuri omen zien, eta oŕela sortu omen zuen irugaŕen giza-enda beŕia.

Begiratzen omen zituen Prometeo'k Olinpo gañetik, sortu zituen gizonak, eta indartu ta ugaldu beaŕean, indargabetu ta aitzen ari zirala ikusten omen zituen.

Ori ikusita, erdibitu omen zitzayon biotza, maite baitzituen, eta eurentzat sua eskatu omen zion Zeus jainko nagusiari; baña onek uko egin zion zoŕotz.

Orduan, Zeus'en asaŕeak izutu gabe, ostu omen zion ain ondo gordeta Olinpo'n zeukan sua, ta kañabera batean sartuta, zerutik ekaŕi omen zien luŕera gizonai.

Prometeo'k berak irakasi omen zien gizonai sua nola erabiĭi, bai ta sutegian jaŕita, nola urtu burni, tupin ta beste meatzak, eta tresnak egiteko landu, ta atxuŕ, aizkora, gezi, ezpata, aztamakil eta beste gauza asko egiten ere».

«Jainkotxoen eta gizagurenen mundua» (9'gaŕen oŕialdeean) Euzkeratzaĭea: Murua'taŕ Eŕamon.

EUN ETA IROGETASEIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

II. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

IZENORDEZKO ADIZKIÑAK

ADI-YABEA, BIGAŕEN BAKAŕ-NOTIÑA

IZAKAYA, LENENGO NOTIÑA, BAKAŕ ETA ASKAŕ

Era auetan, *K* ta *N* adi-yabe-egilea adierazten dute.

	BAKAŕ-IZAKAYA			ASKAŕ-IZAKAYA		
Tinkiera: Oraiñaldia	*N*-a) -U-	-K -N		*G*-a) -*IT*-U-	-K -N	
Lenaldia	*NIN*-d) -U-	-K- -N-	a) -N	*GIN*-d) -U-	-K- -N-	a) -N
Baldintzera: Geroaldi urbilena	*NIN*-d) -U-KE-	-K -N		*GIN*-d) -U-KE-	-K -N	
Lenagoko geroaldia	*NIN*-d) -U-KE-	-K- -N-	-AN	*GIN*-d) -U-KE-	-K- -N-	-AN
Baldintzera'zko Ustekizuna	BA-*NIN*-d) -U-	-K -N		BA-*GIN*-d) -U-	-K -N	
Agintzera:	*N*-a) -ZA-	-K -N		*G*-a) -*IT*-ZA-	-K -N	
Menekoera: Oraiñaldia	*N*-a) -ZA-	-K- -N-	a) -N	*G*-a) -*IT*-ZA-	-K- -N-	a) -N
Menekoera: Lenaldia	*NIN*-t) -ZA-	-K- -N-	a) -N	*GIN*-t) -ZA-	-K- -N-	a) -N
Almenera: Oraiñaldia	*N*-a) -ZA-KE-	-K -N		*G*-a) -*IT*-ZA-KE-	-K -N	
Almenera: Lenaldia	*NIN*-t) -ZA-KE-	-K -N		*GIN*-t) -ZA-KE-	-K -N	
Almenera: Lenagoko Geroaldia	*NIN*-t) -ZA-KE-	-K- -N-	-AN	*GIN*-t) -ZA-KE-	-K- -N-	-AN
Almenera'zko Ustekizuna: Oraiñaldia	AL BA-*N*-a) -ZA-	-K -N		AL BA-*G*-a) -*IT*-ZA-	-K -N	
Lenaldia	AL BA-*NIN*-t) -ZA-	-K -N		AL BA-*GIN*-t) -ZA-	-K -N	

Oaŕa : Era auetan eta aurkezten diran beste batzuetan ere, aldaketa batzuk dagoz. Ikaskai ontakoen artean, e. b. : auek : GINDUZKAN eta GINDUZAN, GINDUKAN (lenaldia)'en ordez; BAGINDUZAK, BAGINDUK (baldintzera'zko ustekizuna)'en ordez.

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, izakayak (bakaŕ eta askaŕ) jartzen ditugu; ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, aldiak, eta aldi bakoitzerako, adi-yabea, aŕ eta eme; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

Aldiak		NI	GU
Tink. - Oraiñaldia	— Aŕ :	Nauk	...
	— Eme:	...	gaitun
Tink. - Lenaldia	— Aŕ :	Nindukan	...
	— Eme:	...	gindunan
Bald. - Ger. Urbil.	— Aŕ :	...	gindukek
- Ger. Urbil.	— Eme:	Ninduken	...
Bald. - Len. Geroal.	— Aŕ :	...	gindukekan
- Len. Geroal.	— Eme:	Nindukenan	...
Bald. - Ustekizuna	— Aŕ :	Baninduk	...
- Ustekizuna	— Eme:	...	bagindun
Agintzera:	— Aŕ :	Nazak	...
	— Eme:	...	gaitzan
Men. Oraiñaldia	— Aŕ :	...	gaitzakan
	— Eme:	Nazanan	...
Men. Lenaldia	— Aŕ :	...	gintzakan
	— Eme:	Nintzanan	...
Alm. Oraiñaldia	— Aŕ :	Nazakek	...
Oraiñaldia	— Eme:	...	gaitzaken
Alm. - Lenaldia	— Aŕ :	...	gintzakek
- Lenaldia	— Eme:	Nintzaken	...
Alm. - Lenagoko	— Aŕ :	Nintzakekan	...
Geroaldia	— Eme:	...	gintzakenan
Alm. Ustekizuna			
Oraiñaldia	— Aŕ :	...	al bagaitzak
Oraiñaldia	— Eme:	Al banazan	...
Lenaldia	— Aŕ :	...	al bagintzak
	— Eme:	Al banintzan	...

2. Beste eginkizun ontan, izakaya bezela lenengo notiña agertzen da, bakaŕ eta askaŕ; esakuntza bakoitzean aŕa emearen bidez aldatuko da ta alderantziz, emea aŕaren bitartez; era baten, bayezkoak ezezkoen bidez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Emen utzi *nauk* bakaŕik, gure adiskideen zai; ... - Aldeŕai ibīlerazi *gindunan* nai-izan unan arte; ... - Ez *nindukek* atzemango eŕaz egun guzian barna; ... - Zainduko al *gindukenan* ire gurasoek bezin ondo?; ... - Lenago lagundu *banindun*, nire lana obeki amaituko nukean; ... - Gorde *gaitzak* lenbailen ire etxean; ... - Enaiz joango irekin, oŕela uŕuñatu *nazanan*; ... - Igana erdu giñan, adeiz atotsi *gintzakan*; ... - Ire bidean alboratu *nazakek*, baña egingo al didak oŕelakorik?; ... - Ez *gintzaken* iregana erakaŕiko bereala; ... - Ez *nintzakekan* orduan ezagutu, ainbeste lagunen artean gengozalarik; ... - Emendik atera *al bagaitzan*, ia gaur bertan ote dan; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ-izango zaye, oitura dugunez; baña, beaŕa izango danean, zukako erak erabiltzean; kulatzen ordez, esanez eta idatziz :

Alegia, biar ikusiko gaitun nai unan tokian eta nai unanarekin : Nork ikusiko gaitu nai zuen tokian eta nai zuenarekin?; ... - Nun ikusiko zaituztet nai nuenarekin?; ... - Nik ikusiko al zaitut nai nuen tokian. Ez, ik ... -- Dalakoan-eztalakoan utziko bayok, ez intzake geratuko oso lasai : Nor elitzake geratuko oso lasai dalakoan-eztalakoan utziko balio?; ... - Nola ez gintzake geratuko, dalakoan-eztalakoan utziko bagenio?; ... - Ni geratuko al nintzake oso lasai, dalakoan-eztalakoan utziko banio?; Ez, i ez ... -- Ala izanezik, oa laisteŕ eta ire aitari esan ezayon : Nork esan beaŕ dio bere aitari, ala izanezik?; ... - Nork esan beaŕ dio bere aitari berarengana joanda?; ... - Nik esan beaŕ al diot nire aitari, ala izanezik?; Ez, ik ez ... -- Ire burua geyago zainduko bauk, oraindik oso luzaroan bizi al indeke : Nor bizi al liteke oso luzaroan, bere burua geyago zainduko balu?; ... - Noiz bizi al gindezke, geron burua geyago zainduko bagenu?; ... - Ni ere oso luzaroan bizi al nindeke nire burua geyago zainduko banu?; Bai, i ... -- Unealdi artan geyegi zigortu gindunan : Noiz zigortu zinduztedan geyegi?; ... - Nork zigortu zinduzten unealdi artan geyegi?; ... - Nik zigortu al zindudan geyegi unealdi artan?; Bai, ik ... -- Era berean, ik ere beste edonork ainbat auŕeztu dezakek : Nork auŕeztu dezake, era berean, edonork ainbat?; ... - Zer auŕeztu dezakegu guk, era berean?; ... - Nik auŕeztu al dezaket, era berean, beste edonork ainbat?; Bai, ik ... -- Ire buruaganako ukan dezanana, ziurki ik bakaŕik edo dakin : Nork edo daki bakaŕik bere buruaganako ukan dezana?; ... - Zuek ote dakizute, ziurki, zuen buruaganako ukan dezazutena?; ... - Nik, ire neba onek, ba ote dakit, ziurki, nire buruaganako ukan dezadana?; Bai, ik ... -- Nai ezakan tokian ipiñiko nindukek eta poz-pozik geratuko intzake : Nor geratuko litzake poz-pozik i nai zezan tokian ipiñi ondoren?; ... - Nola geratuko intzake ni nai ezakan tokian ipiñi ondoren?; ... - Ni ere poz-pozik geratuko al nintzake i nai nezan tokian ipiñi ondoren?; Bai, i ... -- Ala ere, orduan gogoŕegi epaituko bagindun ... : Nork epaituko zinduzteke gogoŕegi orduan?; ... - Noiz epaituko zinduztekegu gogoŕegi?; ... - Nik ere gogoŕegi epaituko al zinduzteket orduan?; Ez, ik ez ... -- Beingo batean, beren jostaīlu guziak ezkutatu izkiekan : Nork ezkutatu zizkien beren jostaīlu guziak?; ... - Zer ezkutatu iekan auŕ ayei?; ... - Nik ezkutatu al nizkien beren jostaīlu guziak?; Bai, ik ... -- Dalakoan-eztalakoan, zeneukaten sendi-bilkura artatik iges-egin unan : Nork iges-egin zuen geneukan sendi-bilkura artatik?; ... - Nundik iges-egin genuen, dalakoan-eztalakoan?; ... - Nik iges-egin al nuen, dalakoan-eztalakoan, geneukan sendi-bilkura artatik?; Bai, ik ... -- Ongi ezagutu nazakan, nire etxera erdu beaŕ-izango ukek : Nork erdu beaŕ-izango luke ire etxera, i ongi ezagutzeko?; ... - Nora erdu beaŕ-izango genuke i ondo ezagutzeko?; ... - Nik ere ire etxera saŕi erdu beaŕ-izango al nuke i ongi ezagutzeko?; Bai, ik ere ... -- Ozta-ozta, joan nai unaneraño jaŕaitu al-izan intzan : Nor jaŕaitu al-izan zan, ozta-ozta, joan nai zueneraño?; ... - Noraño jaŕaitu al-izan intzan, ozta-ozta?; ... - Ni ere, ozta-ozta, joan nai nueneraño jaŕaitu al-izan nintzan?; Ez, i ..., ni baño. -- Era berean, beste alde batera zuzenduko baintz, lortu ere ez ituken lortuko ire gurariak : Nork ez lituke lortuko bere gurariak naiz eta beste aldera zuzendu?; ... - Zer ez uken lortuko beste alde batera zuzenduaŕen?; ... - Nik nire gurariak lortuko al nituke, beste aldera zuzendu ezkero?; Ez, ik ere ... -- Ziurki ezin irazeki dizaizkigukek ongi labeak ogia egosteko : Nork ezin irazeki dizaizkizueke ongi, ziurki, labeak ogia egosteko?; ... - Zer ezin dizaizuket ongi, ziurki, irazeki ogia egosteko?; ... - Nik egosi al dizayeket labea ongi, ogia egosteko?; Ez, ik ezin ...

4. Emen bertso batzuk ematen ditugu, irakurtzeko ta buruz ikasteko ere; gero, egīlea nun jayo ta nun il zan, bai ta il zanean, gazte izanik, zergatik il zuten esan beaŕ da; azkenez, bertso auetan agertzen diran asmoak zeintzuk diran eta oyen artean bereziena zein dan ikusi ta esan ere :

«MENDIGOXALIARENA»

I

«Mendi eze, ikuŕin edeŕ,
azke nai zaĩut axean.
¡Amaŕ gazteren lerdena
makiĩa luzez bidean!
Mendi bitxikoŕ ezeak,
arin oŕ doaz kantari:
«Dana emon beaŕ yako
maĩe dan azkatasunari».
Eta ixil dago aŕatsa
Euzkadi'ko luŕ gañean.
¡Amaŕ gazteren lerdena
makiĩa luzez bidean!

II

Gaztedi oŕen didaŕa
bai-dala didaŕ zolia!
Abeŕi baten samiñez
urduri dabil Eŕia.
Azkatasun-goxalderuntz
sugaŕa dira basoak.
Sugaŕa basoak eta
zidaŕ argia itxasoak.
¡Oŕ doan ozte-aldrea
abeŕi-miñez kantari!:
«Dana emon beaŕ yako
maĩe dan azkatasunari».

III

Gazte oŕeik goruntz doaz
abesti eta ikuŕiñez.
Lañoan baño tiro-otsak:
bedartza dageŕ odolez.
Ikaraz doaz usoak,
mendia dago ixiĩean
¡Amaŕ gazteren lerdena
bizitza-barik luŕean!
Eta iĩuntzeko bakean
norbaĩek daŕai kantari:
«Dana emon beaŕ yako
maĩe dan azkatasunari» ».

«Aŕats beran» (51-2-3'gn. oŕialdeetan) Urkiaga'taŕ Estepan Lauaxeta.

EUN ETA IRUROGETAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

II. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

ADI-YABEA, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ IZAKAYA, BIGAŔEN BAKAŔ-NOTIÑA

Era auetan, K ta N izkiek, izakayari aŕ eta emeren zentzuna ematen diote, beste zeregiñik bete gabe; 161'gaŕen ikaskayan esan genuen bezela, oso maiz, eguneroko solasaldietan, era auek laburtzen dira, ta, e. b., onela esaten da: *AUT*, AUKAT edo AUNAT'en ordez; *INDUDAN*, INDUKADAN edo INDUNADAN'en ordez; e. a. Ots, era bateaz kunde bietakoak adierazteko.

Tinkiera:					-T	
Oraiñaldia	A- -U-		-K- -N-	a)	-- -GU	
		-TE-			---	
Lenaldia	IN- d) -U-		-K- -N-	a)	-Da- ---- -GU-	-N
		-TE-			----	
Baldintzera:					-T	
Geroaldi urbiĩena	IN- d) -U- -KE-		-K- -N-	a)	-- -GU	
		-TE-			---	
Lenagoko geroaldia	IN- d) -U- -KE-		-K- -N-	a)	-Da- ---- -GU-	-AN
		-TE-			----	
Baldintzera'zko Ustekizuna	Ba- -IN- d) -U-		-K- -N-	a)	-T -- -GU	
		-TE-			---	

EGINKIZUNAK

Emengo laukian, lenengo leŕoan, adi-yabeak adierazten dituzten izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, bost aldietako izakayak, aŕ eta emea; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

		Nik	Berak	Guk	Berek
Tink. - Oraiñaldia	— Aŕ :	Auat	...	...	...
	— Eme:	...	aun	...	...
Tink. - Lenaldia	— Aŕ :	...	...	induagun	...
	— Eme:	...	...	...	indutenan
Bald. - Ger. Urbil.	— Aŕ :	Indukeat	...	...	...
	— Eme:	...	induken	...	...
Bald. - Len. Geroal.	— Aŕ :	...	...	indukeaguan	...
	— Eme:	...	...	...	induketenan
Bald. - Ustekizuna	— Aŕ :	Bainduat	...	...	...
	— Eme:	...	baindun	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan ematen ditugun esakuntzetan, izakaya lez, beti, bigaŕen notiña agertzen da, aŕ edo emea; ta adi-yabeak bezela, lenengo ta irugaŕen notiñak; aldakuntzak onela egiteko: izakayaz, aŕa emearen bidez eta alderantziz, eta adi-yabeaz, bakaŕa bere askaŕaren bitartez, eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Oso ondo ikusten *auat* emendik, mutil; ... - Nola eramango *autek* adiskide gaizto oyek?; ... - Gurekin eraman *induagun* egun oroigaŕi artan eta pozik ibiĭi intzan; ... - Amak ekaŕi *indunan* gure etxera gurekin egun batzuetan egon endin; ... - Nik pozik lagunduko *indukeat* nai-izango bauk; ... - Ire adiskideek gogoz besarkatuko *induketen*; ... - Nire ikastolan eukiko *indukenadan*, naikoa ikasi nai-izan baun; ... - Ikastetxetik aterako *bainduagu*, nola ikasiko ukek jakin beaŕ dukan guzia?; ... - Aulki ontan ipiñiko *aunagu* obeki egon adin; ... - Lan zikin ortarako erabiĭiko *indutenan*, eŕukirik gabe; ... - Guziok batera inguratuko *indukenagu* ta ezin iges-egin ezaken; ... - Gogoŕ jo *induketekan* berekin luzaroago egon baintz; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; egoki edo beaŕa izango danean zukako erak ere erabiltzean; kulatzen ordez, esanez eta idatziz:

Kapildui'rako ire txangotik abestuten itzultzen intzanean ikusi aunat: Nork ikusi nau Kapildui'rako nire txangotik abestuten itzultzen nintzanean?; ... - Nor ikusi duk Kapildui'rako bere txangotik abestuten

itzultzen zanean?; ... - Ni ikusi al nauzute Kapildui'rako nire txangotik itzultzen nintzanean?; Bai, i ... -- Bereala ezagutu indutekan, engoen iskanbiĭa izugaŕi aren erdian: Nor ezagutu zuten bereala, zegoen iskanbiĭa izugaŕi aren erdian?; ... - Nun ezagutu ninduten bereala?; ... - Ik ezagutu al nindukan bereala, nengoen iskanbiĭa izugaŕi artan?; Bai, nik ... -- Zerbaiteaz pizkortu nintzaken; zergatik ez dun nai?: Nor pizkortu al nezake zerbaiteaz?; ... - Zerez pizkortu al zintzaket, gizona?; ... - Nork pizkortu zintzateke zerbaiteaz?; Ik ... -- Berenganako oso ankeŕa izan intzan, bai, bi, iru ta lau bideŕ ere beren lan ain aztun ura eraindu baiiekan: Nortzuei eraindu nien beren lan ain aztun ura, bi, iru ta lau bideŕ ere?; ... - Zuei ere eraindu al nizuen zuen lan ain aztun ura, bi, iru ta lau bideŕ ere?; ... - Zer eraindu nizun bi, iru ta lau bideŕ ere?; ... -- Orobat, an leŕatuko baintz amiltegiaren sakoneneraño jausiko intzake: Nor jausiko litzake amiltegiaren sakoneneraño, an leŕatuko balitz?; ... - Noraño jausiko nintzake an leŕatuko banintz?; ... - Gu ere amiltegiaren sakoneneraño jausiko al giñake an leŕatuko bagiña?; Ez, ... baño. -- Ez induketek laketuko iru edo lau urtetan gutxienez: Nor ez lukete laketuko iru edo lau urtetan gutxienez?; ... Gutxienez zenbat urtetan ez nindukete laketuko?; ... - Nortzuek ez nindukete laketuko iru edo lau urtetan gutxienez?; Oyetxek ez ... -- Aŕayopola!, ez al intzake laisterka joango ire gurasoengana, iñoiz askatuko bainduten?; bai, gogoz joango nintzake laisterka nire gurasoengana, iñoiz askatuko banindute: Nor joango litzake gogoz eta laisterka bere gurasoengana iñoiz askatuko balute?; ... - Norengana joango nintzake gogoz eta laisterka, iñoiz askatuko banindute?; ... - Nola joango nintzake nire gurasoengana, iñoiz askatuko banindute?; ... -- Bada-ezpada, ezkutatu gaitzak galtzuŕea igaro arte, otoi!: Nortzuk ezkutatu beaŕ ditut galtzuŕea igaro arte?; ... - Noiz arte ezkutatu beaŕ zaituztet, bada-ezpada?; ... - Ni ezkutatu beaŕ al nauk, bada-ezpada, galtzuŕea igaro arte?; Ez, i ... -- Negaŕ-eragin bayon, bizi guzian goŕoto-izango induketen: Nortzuek goŕoto-izango nindukete bizi guzian, negaŕ-egingo banie?; ... - Nor goŕoto-izango lukete bizi guzian, negaŕ-eragin balie?; ... Ni ere goŕoto-izango al ninduken bizi guzian, negaŕ-eragin baindunat?; Bai, i ere ... -- Ez ekikan egiazki beaŕ uana; oŕengatik zalantzatu intzan ainbeste, erabaki baño lenago: Nork ez zekien egiazki beaŕ zuena?; ... - Nik al nekien egiazki beaŕ nuena?; ... - Nor zalantzatu zan ainbeste, erabaki baño lenago?; I ... -- Auŕeztu ezan ire gaztezaroan, ire zartzaroan aurki dezanan: Nork auŕeztu beaŕ du bere gaztezaroan, bere zartzaroan aurki

dezan?; ... - Zertarako auŕeztu beaŕ dut nire gaztezaroan?; ... - Nik ere nire gaztezaroan auŕeztu beaŕ al dut, nire zartzaroan aurki dezadan?; Bai, ik ere ... -- Gaberdiko bultzia artzeko, ik garaiz itxartu gaitzaken: Zertarako itxartu zaitzateket garaiz?; ... - Nor itxartu dezaket garaiz, gaberdiko bultzia artzeko?; ... - Zuek itxartu al zaitzateket garaiz, gaberdiko bultzia artzeko?; ... -- Noizik-noizera laŕe ayetaraño igoko aiz, laŕanbilo ta belatxeta ekaŕ dizaizkigukan: Nor igoko da laŕe ayetaraño noizik-noizera, laŕanbilo ta belatxeta ekaŕ dizaizkizuen?; ... - Zertarako igoko naiz laŕe ayetaraño noizik-noizera?; ... - Nora igoko naiz noizik-noizera laŕanbilo ta belatxeta ekaŕ dizaizkizuedan?; ... -- Obeto aolkatu baitun, ez uken orain negaŕ-egin beaŕ-izango: Nork eluke orain negaŕ-egin beaŕ-izango, obeto aolkatu balitu?; ... - Noiz enuke negaŕ-egin beaŕ-izango, obeto aolkatu banitu?; ... - Nik orain negaŕ-egin beaŕ-izango al nuke, obeto aolkatu banitu?; Bai, ik ... -- Lusagaŕak aunitz bayeuzkaan, igaz diru asko aterako ukek, ezta?: Nork aterako luke igaz diru asko, lusagaŕak aunitz baitzeuzkan?; ... - Zer zala-ta, igaz diru asko aterako nuke?; ... - Nik aterako al nuke igaz diru asko, lusagaŕak aunitz baineuzkan?; Bai, ik ...

4. Uŕengo irakuŕ-txatala ondo irakuŕi beaŕ da; gero, bakoitzak, iñoiz txirlak belaŕi-ondoan jaŕi baditu, oŕela zer entzun duen esan beaŕ-izango du; bai ta, bere ustez, zoriona zer dan eta nun aurki diteken ere:

«II. EGIAZKO ZORION-BIDEA»

«Zuen poza betea dedin» (Jo. XV. 2)

«Itxasertzetan bildutako txirlaz jostatua zaitut noski. Umetan, nor ez?

Gaurko umetxoak ere alaxe jaŕaitzen dute: itxas-txirlak belaŕietara eraman, alegia, ta dakarkien itxas-otsa, buŕunba, durundia, zarata, adi-adi entzutez ez dira aisa aspertu oi.

Txirla oyek, berez, beti, batere nekatzeke, itxasoka ta itxasoka dauzkatzu. Iñork eta ezerk ezin ixilduazi ditu. Ezta egiñalak eginda ere. Ta alaxe egunez eta alaxe gauez, ase eziñeko egaŕi amoŕatuaz, itxasoa ta itxasoa otska ta eske. Ta alaxe bein ere amor-eman gabe, itxasoratzen dituzun arte guztian.

Itxas-kolkoan murgildu ezkero, beŕiz, orduantxe bai, ta orduantxe bakaŕik, ixilduko zaizkizu, orduantxe betiko ixo. Zorioneko baitituzu,

izan ere. Bien bitartean, alpeŕik aleginduko zera, alpeŕ-lana zenduke, zure egiñalak, diranak dirala, txirlen itxas-egaŕi bizia asebetetzeko, txirlak ixilazteko, alegia.

Txirla ori, zeroŕen irudi bixkia, bikotza, bibiroa, dezu. Txirlak bezelatsu, berdin-berdin, gure biotzak ere zerbaiten egaŕi urduri ta sutsua du.

.....

Zilaŕ-uŕe guztiak, txaloak, atsegiñak, jakinduriak, auŕerapenik aŕigaŕizkoenak, agintaritzak, siñistu ta somatu ere eziñeko esna-ametsik mozkorgaŕienak, eta abaŕ, ez dira gauza, iñola ere, zeroŕekin bat egiñik daramazun «zera» ixilduerazi ta paketu al-izateko. Izan ere, zure izate ber-berarekin bat eta bera baita.

.....

Zorion oso ta betearen bila gabiltzala argi dago, beraz. Itxas-txirlarena, gerok, gerokin, daramagu. Uste ezpada ere.

Itxaso gabeko txirla, bai eŕukaŕi litzakeala! Zorion-itxaso gabeko biotza bezelaxe.

Bilatzaile gera, bai. Bat ere zalantzik gabe, gañera.

.....

Onela, zorion-aurkitzaile ere bai ote, gero? Bai ta ere. Geu geron ezaguera, argiak eta kristau-siñismenak, batak eta besteak eta biak batera, alkaŕen leyan, alaxe erakusten digute-ta. Bestela, Jainkoa elitzake Jainko izango. Artarakoxe egiñak gaitu ta alaxe izan gerala Berak esanik dakigu. Ta ez nor-nairen bitartez, Bera bezin Jainko dan Bere Seme Bakaŕ Jesukristo'ren bidez baizik.

.....

Zorion-ituŕi agorteziña Jainkoa da. Jainkoa bakaŕik. Egiazko zorion dana Berari dario. Neguko otzaldi gogoŕenetan, sutondoan giro. Ta ongi dakizunez, zenbat eta sutatik gertuago, urbilago, ta beroago. Alaxe, gauza bera, berdin-berdin: zenbat eta Jainko Asetzaileagandik uŕeago ta zoriontsuago».

«Zorion bidea» (19-20, 21, 22 ta 23'gn. oŕialdeetan) M. M. Zubiaga.

EUN ETA IRUROGETAZORTZIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

II. ITANO ADITZ-JOKO IRAUNKOŕA

ADI-YABEA, LENENGO TA IRUGAŕEN NOTIÑAK, BAKAŕ ETA ASKAŕ IZAKAYA, BIGAŕEN BAKAŕ-NOTIÑA

Agintzera:		A- -ZA-	-K- -N-	a)	-Da- ----	-N
		-TE-			-GU- ----	-N
Menekoera:	Oraiñaldia	A- -ZA-	-K- -N-	a)	-Da- ----	-N
		-TE-			-GU- ----	
Menekoera:	Lenaldia	IN- t) -ZA-	-K- -N-	a)	-Da- ----	-N
		-TE-			-GU- ----	
Almenera:	Oraiñaldia	A- -ZA- -KE-	-K- -N-	a)	-T --	
		-TE-			-GU ---	
Almenera:	Lenaldia	IN- t) -ZA- -KE-	-K- -N-	a)	-T --	
		-TE-			-GU ---	
Almenera:	Lenagoko Geroaldia	IN- t) -ZA- -KE-	-K- -N-	a)	-Da- ----	-AN
		-TE-			-GU- ----	
Almenera'zko Ustekizuna:	Oraiñaldia	AL BA- -A- -ZA-	-K- -N-	a)	-T --	
		-TE-			-GU ---	
	Lenaldia	AL BA- -IN- t) -ZA-	-K- -N-	a)	-T -	
		-TE-			-GU ---	

Orain arte ikusitako erak ez dira zaĭak ikasteko, len ikasi ditugun zukakoen antzeko egiñak baitira, ta eztago beste aldakuntzarik, bigaŕen notiñaren adi-yabe ta izakaya baño, kundeari buruz K ala N izkien bitartez adierazita agertzen diralarik.

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, adi-yabeak adierazten dituzten izenordeak azaltzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan zortzi alditako izakayak, aŕ eta emea; kulatzen ordez, beaŕezkoak diran erak esan eta idazteko :

			Nik	Berak	Guk	Berek
Agintzera		— Aŕ :	Azakadan	...	...	...
		— Eme:	...	azan	...	...
Menek.	- Oraiñaldia	— Aŕ :	...	...	azakagun	...
		— Eme:	...	...	...	azatenan
Menek.	- Lenaldia	— Aŕ :	Intzakadan	...	...	...
		— Eme:	...	intzanan	...	...
Almen.	- Oraiñaldia	— Aŕ :	...	...	azakeagu	...
		— Eme:	...	...	...	azaketen
Almen.	- Lenaldia	— Aŕ :	Intzakeat	...	...	...
		— Eme:	...	intzaken	...	...
Almen.	- Lenagoko Geroaldia	— Aŕ :	...	...	intzakeaguan	...
		— Eme:	...	...	...	intzaketenan
Almen. Ustekizuna:						
	- Oraiñaldia	— Aŕ :	Al baazaat	...	...	...
		— Eme:	...	al baazan	...	...
	- Lenaldia	— Aŕ :	...	...	al baintzaagu	...
		— Eme:	...	...	...	al baintzaten

2. Beste eginkizun ontan ematen ditugun esakuntzetan, izakaya, beti, bigaŕen notiña da, aŕ edo emea; ta adi-yabeak, lenengo ta irugaŕen notiñak; aldakuntzak onela egiteko : izakayaz, aŕa emearen bidez eta alderantziz, emea aŕaren bitartez; adi-yabeak, ordea, bakaŕa bere askaŕaren bidez eta alderantziz ere, askaŕa bere bakaŕaren bitartez; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Azi *azatek* ondo gero ta obea izan adin; ... - Irten adi laisteŕ ortik, nola agoen ikus *azakagun*; ... - Isituki eskatu iguan etxe artatik atera

ez *intzakagun*; ... - Orain agoen toki ortatik, nagusi oyek eŕazki kendu *azaketen*; ... - Ezin erabil *intzakeagu* jostailu bat bezela, iñola ere; ... - Enuen uste ire ikastetxean ainbeste zigortu *intzaketeala*; ... - Ire lagun oŕek lagundu *al baazan*, ustekoa da ire xedeak beteko ditunala; ... - Obeki eŕaztu *al baintzaat*, edozein tokian aurkeztu indeke lasai; ... - Ire gurasoai esango diegu ain txukunki jantzi ez *azatenala*; ... - Olarizu'ko jayetara eramango indukeat, etxean aspertu ez *intzaadan*; ... - Ezin gorde *azakenagu* gurean, datoŕen ilerarte; ... - Ezin goretsi *intzaketek* geyago gure bilkura ayetan; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, beaŕ danean zukako erak erabiltzean; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Esan ere esan digun, oŕela jantzi intzala ezagutu ez intzanagun: Zer esan dizuet nik?; ... - Nori esan diot oŕela jantzi nintzala ezagutu ez nintzan?; ... - Oyei esan al diet oŕela jantzi nintzala ezagutu ez nintzaten?; Ez, ... baño. -- Ez al duk ikusten ankeŕ oyek eŕaz ondatu azaketeala?; bai, ongi ikusten dut ankeŕ oyek ondatu nazaketela: Zer ikusten dut nik ondo?; ... - Nork ondatu nazake eŕaz oŕ?; ... - Ni ondatu al nazakek oŕ eŕaz?; Ez, i ezin ... -- Ona ekaŕi indunagun, dakizkiñan abesti polit guzti oyek abestu izaizkigunan: Nor ekaŕi genuen ona, dakizkien abesti polit guzti oyek abestu zizaizkigun?; ... - Zertarako ekaŕi nindunan ona?; ... - Ayek ekaŕi al ninduten ona, dakizkidan abesti polit guzti oyek abestu nizaizkien?; Ez, ayek ez ... -- Amaitu dituan lanak ez dizkiguk oindiño erazagutu: Nori ez dizkiot oindiño erazagutu amaitu ditudan lanak?; ... - Zer ez dizuet oindiño erazagutu?; ... - Zuei erazagutu al dizkizuet amaitu ditudan lanak?; Ez, oindiño ... -- Beste toki batean bizi-izango baintz iñoiz eramango ez ukenana, une artan eramanan: Noiz neraman nik, beste toki batean bizi-izango banintz iñoiz eramango ez nukena?; ... - Zer neraman nik une artan?; ... - Nik eramango al nuke iñoiz ori, beste toki batean bizi-izango banintz?; Ez, ik ez ... -- Beste aldera igaro al intzakeat; baña ziurki ez ukek nai-izango: Nork igaro nintzake beste aldera nai-izango banu?; ... - Nor igaro ezakek beste aldera nai-izango balu?; ... - Nik nai-izango al nuke beste aldera igaro nintzakala?; Ez, ik ez ... -- Nun eta nola busti indutenan oŕela, soñekoak urasetuta dakarzkin-eta?; auzo ortako jayetan busti ninduten onela: Nun busti ninduten onela?; ... - Ik busti al nindunan onela auzo ortako jayetan?; ... - Nik busti al indunadan auzo ortako jayetan?; Ez, ik ez ... baño. -- Zearo zikindu gaituk, ire eskuak len ez garbitzeagatik: Nork zikindu zaituzte zearo, bere eskuak len ez

garbitzeagatik?; ... - Zergatik zikindu zaituztet nik zearo?; ... - Nor zikindu dut zearo, nire eskuak len ez garbitzeagatik?; Gu ... -- Nai-izango baun, neskatil oŕi abere basati batzuk maŕeztu izaizkioken: Nori maŕeztu nizaizkioke abere basati batzuk, nai-izango banu?; ... - Zer maŕeztu nizayoke neskatil oŕi, nai-izango banu?; ... - Nik maŕeztu al nizaizkizueke abere basati batzuk, nai-izango banu?; Bai, guri ere ... -- Bada-ezpada, ez dakarzkik gaur, beste egunetan ekartzen ituan ikurdiak: Nork ez dakarzki gaur, bada-ezpada, beste egunetan ekartzen zituen ikurdiak?; ... - Zer ez dakart nik gaur, bada-ezpada?; ... - Noiz ez dakarzkit, bada-ezpada, beste egunetan ekartzen nituen ikurdiak?; Gaur ... -- Zaindu azaten ondo, berekin ikastaroa igarotzera joan adiñean: Nork zaindu beaŕ nau ondo, berekin ikastaroa igarotzera joan nadiñean?; ... - Noiz zaindu beaŕ naute ondo?; ... - Ni zaindu beaŕ al nauzute ondo, zuekin ikastaroa igarotzera joan nadiñean?; Bai, i ... -- Bete ezak beti ire eginbidea, iñoiz akartu ez azakagun: Nork bete beaŕ du beti bere eginbidea, nik iñoiz akartu ez dezadan?; ... - Zer bete beaŕ dut beti, iñoiz akaŕ ez nazazuten?; ... - Noiz bete beaŕ dut nire eginbidea, ik iñoiz akartu ez nazakan?; Beti ... -- Ez al nindunan uŕuñatu ire semeentzat irakasle bat biltzen unanean?; ez, nik ez indunadan uŕuñatu nire semeentzat irakasle bat biltzen nuenean: Nork ez ninduen uŕuñatu nire semeentzat irakasle bat biltzen nuenean?; ... - Noiz ez indunadan uŕuñatu?; ... - Egia al da ire semeentzat irakasle bat biltzen unanean uŕuñatu nindunala?; Ez, ez da egia ... -- Ori, arian ezarian, eroŕek egin dezakek: Nork egin dezake ori, arian ezarian?; ... - Nola egin dezaket ori nik?; ... - Uste al duk ori, arian ezarian, egin dezakedala?; Bai, ... -- Eduŕean barna ainbeste ibiltzeko, ez al erabilzkikan asmantaŕak?; bai, saŕi nerabilzkien azmantaŕak eduŕean barna ainbeste ibiltzeko: Nork zerabilzkien azmantaŕak saŕi, eduŕean barna ainbeste ibiltzeko?; ... - Zer nerabilen saŕi, eduŕean barna ainbeste ibiltzeko?; ... - Noiz nerabilzkien azmantaŕak, eduŕean barna ainbeste ibiltzeko?; Saŕi ...

4. Bean aipatzen dugun elebeŕiaren txatal au ongi irakuŕi beaŕ da, ta gero bertan esaten diran abereen aotsak, bakoitza zeñena dan ikasi beaŕ ere:

«IV. FLAMENDAŔAK FLANDRARUNTZ»

—«Oŕelako salda on bat egiteko, lapikoan zer sartu beaŕ genuken ikasi ote dezakegu, andere?

Yolanda'k, jakiña, jakin-ez bezela egin zuen eta, paŕez, erantzun zion :

— «Salda begidun» beaŕ-bezelako bat egiteko, naikoak dira lau puxka.

— Lau baizik ez? Ludi'ko azken mugetaraiño puxka oyek bilatzeko joan nindeke.

— Laurak emen bertan dauzkazu, ta zure Flandre'tan ere ba-ditezkela deritzait.

— Zein dira, bada, andere?

— Aditu!, auek dira : buuu!, muuu!, juuu! ta txuuu!

— Aŕayopolo! Ze euzkera darabilzu oŕ?

Yolanda'k eskuetan zekaŕen egosari-ontzia mai gañean utzita, bi eskuak aoaren inguruan jaŕi zituen eta idiaren muŕusa bezelako oŕu bat egin zuen.

— Buuu!, buuu!, ... Oŕa : Idia. Salsa on batek, lenlenik idi edo bei-aragi puxka bat eskatzen du.

— Zapartingaŕia! Ta muuu?

— Bai, asmakaitza daukazu ori!, muuu! Zeñek ots-egiten du oŕela? Ez olaŕak noski? Ariak, gizona, ariak! Beraz saldari bota ariki zati bat... Orain juuu! zer dan, zeroŕek aburutuko ote duzu?

— Basurdea?

— Baso edo etxekoa; baña alderdi oyetan bederik, auxe dalako aurki-eŕexena ; betoŕ bada, txeŕi-azpi okel edeŕ bat.

— Alajaña! Oŕa iru. Ta laugaŕena?

— Txuuu! Ori eztakizu, e? Ta zure Flandre ospetsu ayetan zuen etxekandereek, oloak baratzetik oildu edo iges-bialtzeko, nola oyu-egin oi ote dute? Emen bezela, noski : Txuuu!, txuuu! Zer da, beraz, txuuu? Oloa. Olo edeŕ bat lapikoan gauza beaŕ-beaŕena da.

— Ez, andere. Guk oloei ez diegu egiten : Txuuu!

— Nola, bada? Izkuntza ori Ludi guziko oloak eŕez ulertzen dute-ta.

— Gureak ez. Flamendaŕek oloak uxatzeko ots-egiten diete : Hisss!

— Josu! Ori duzu prantzimanta! Beraz, tori, gogoan emazu Flandretaŕ «salda begidun» gozotsu nai dan bateri bota beaŕ ziozkala : buuu!, muuu!, juuu! ta hisss!

Bazkaltzale guziak paŕez».

«Yolanda» (31-3'gn. oŕialdeetan) Pierre Lhande, S. J.

EUN ETA IRUROGETABEDERATZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

III. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANGAITZA

ADI-YABEA, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ

Emen azaltzen diran aditz laguntzalearen era batzuk, 163 ta 166'gaŕen ikaskayetan ikusi ditugunak berak dira; ta zentzun iragangaitzaz emen ipintzean, *K* ta *N* izkiek eztute adi-yabea adierazten, «alkaŕ-betetzekoa» baño; ta ikaskai ontan ematen diran adizkin guztietan adierazpen ori dute.

Beraz, K ta N izki oyek bi zentzun emateko darabilzkigu (ta oŕezaz 160'gaŕen ikaskayan ere zerbait esaten da), ta egipen ori, euzkal-aditz-jokoa bakaŕa dala uzte dutenen asmoa eukitzeko oñaŕi on bat dala dirudi.

Tinkiera:	IZAN		JOAN	
	A.	E.	A.	E.
Oraiñaldia	NAU*K*	NAU*N*	NOAKI*K*	(-*N*)
	DU*K*, DE*K*	DU*N*, DE*N*	ZIJOAKI*K*	(-*N*)
	GAITU*K*	GAITU*N*	GOAZKI*K*	(-*N*)
	DITU*K*	DITU*N*	ZIJOAZKI*K*	(-*N*)

	ETOŔI		EGON		IBILI	
	A.	E.	A.	E.	A.	E.
Oraiñaldia	NATORKI*K*	(-*N*)	NAGOKI*K*	(-*N*)	NABILKI*K*	(-*N*)
	ZETORKI*K*	(-*N*)	ZEGOKI*K*	(-*N*)	ZEBILKI*K*	(-*N*)
	GATO(R)ZKI*K*	(-*N*)	GAGOZKI*K*	(-*N*)	GABILZKI*K*	(-*N*)
	ZETO(R)ZKI*K*	(-*N*)	ZEGOZKI*K*	(-*N*)	ZEBILZKI*K*	(-*N*)

EGON aditzaren erak diran GAGOZKIK eta ZEGOZKIK edo GAGOZKIN eta ZEGOZKIN, gipuzkerazko eraetan, egiazki, auetxek izan ditezke: GAUDEK eta ZEUDEK edo GAUDEN eta ZEUDEN; baña Etxaide'taŕ Iñaki Mirena jaunak uste zuenez : *gaude-*, *zaude-* eraetako adizkiñak itano aditz-jokoan eztira egokiak.

Azkue'k ordea, («EUSKERA», VIII urtea, III-IV zenb., 280'gn. oŕialdean) Aezkoa'ko itano-erak bezela auetxek dakarzki : GAUDEK, GAUDEN eta XAUDEK, XAUDEN.

Tinkiera'zko oraiñaldiko irugaŕen notiñen Z- lenengo izkia, lagun-

tzaĪearenak izanezik, aditz-jokoaren itanozko gaya da (1), zutanozko aditzeraena dan D- lenengo izkiaren ordez agertzen dana (2).

Tinkiera:

	IZAN		JOAN	
	A.	E.	A.	E.
Lenaldia	NINDU(*K*)AN	NIND*U*NAN	NINJOAKI(*K*)AN	(-*N*AN)
	U(*K*)AN	U*N*AN	ZIJOAKI(*K*)AN	(-*N*AN)
	GINDU(*K*)AN	GINDU*N*AN	GINJOAZKI(*K*)AN	(-*N*AN)
	ITU(*K*)AN	ITU*N*AN	ZIJOAZKI(*K*)AN	(-*N*AN)

	ETOŕI		EGON	
	A.	E.	A.	E.
Lenaldia	NENTORKI(*K*)AN	(-*N*AN)	NENGOKI(*K*)AN	(-*N*AN)
	ZETORKI(*K*)AN	(-*N*AN)	ZEGOKI*K*AN	(-*N*AN)
	GENTO(R)ZKI(*K*)AN	(-*N*AN)	GENGOZKI(*K*)AN	(-*N*AN)
	ZETO(R)ZKI(*K*)AN	(-*N*AN)	ZEGOZKI(*K*)AN	(-*N*AN)

	IBIĪ	
	A.	E.
	NENBILKI(*K*)AN	(-*N*AN)
	ZEBILKI(*K*)AN	(-*N*AN)
	GELBILZKI(*K*)AN	(-*N*AN)
	ZEBILZKI(*K*)AN	(-*N*AN)

EGON aditzaren era auek: GENGOZKI(K)AN eta ZEGOZKI(K)AN, edo GENGOZKIÑAN eta ZEGOZKIÑAN, gipuzkerazko eraetan, egiazki, auetxek izan ditezke: GEUNDE(K)AN eta ZEUDE(K)AN, edo GEUNDENAN eta ZEUDENAN; len esandako Etxaide jaunaren oaŕaz.

Baldintzera:

	IZAN			
	A.		E.	
Geroaldi urbiĪena	NINDUKE*K*		NINDUKE*N*	
	LITZAKE*K*	UKE*K*	LITZAKE*N*	UKE*N*
	GINDUKE*K*		GINDUKE*N*	
	LITZAKETE*K*	ITUKE*K*	LITZAKETE*N*	ITUKE*N*
Lenagoko geroaldia	NINDUKE*K*AN		NINDUKE*N*AN	
	ZITZAKE*K*AN		ZITZAKE*N*AN	
	GINDUKE*K*AN		GINDUKE*N*AN	
	ZITZAKETE*K*AN		ZITZAKETE*N*AN	
Baldintzera'zko Ustekizuna	BANINDU*K*		BANINDU*N*	
	BALITZA*K*		BALITZA*N*	
	BAGINDU*K*		BAGINDU*N*	
	BALITZATE*K*		BALITZATE*N*	

(1) Ikusi: Azkue, D., 395'gaŕen oŕialdea.
(2) Ikusi: 161, 171 ikaskayak.

Azkue'k diñoenez (M. 517), Geroaldi urbiĪena'ren LITZAKEK eta LITZAKEN erak ez dira egokiak, ez eta Baldintzera'zko Ustekizuna'ren BALITZAK eta BALITZAN ere.

Etxaide'taŕ iñaki Mirena jaunak («Desarrollo de las conjugaciones vascas», Donostia, 1944) emen agertzen diran Geroaldi UrbiĪena'ren LITZAKEK, UKEK eta LITZAKEN, UKEN erak dakarzki.

Era berean, Baldintzera'zko Ustekizuna aldian, BALITZAK eta BALITZAN eraen ordez, apika, BAUK eta BAUN esan zitezkean.

Eta Lenagoko geroaldian, ZITZAKEKAN, ZITZAKENAN eta ZITZAKETEKAN, ZITZAKETENAN eraen ordez, auek ere erabil litezke: UKEKAN, UKENAN eta ITUKEKAN, ITUKENAN.

Eginkizunak

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, adi-yabaak adierazten dituzten izenordeak ematen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, bost alditako adi-yabeak ere, aŕ eta emea diran alkaŕ-betetzekoekin; kulatzen ordez, guztiai dagozkien IZAN aditzaren erak esan eta idazteko:

		Ni	Bera	Gu	Berak
Tinkiera:					
Oraiñaldia	— Aŕ :	Nauk	...	...	...
	— Eme:	...	dun	...	...
Lenaldia	— Aŕ :	...	...	ginduan	...
	— Eme:	...	...	...	itunan
Bald.	— Aŕ :	Nindukek	...	...	...
Geroaldi urbiĪena	— Eme:	...	uken	...	...
Lenagoko	— Aŕ :	...	...	gindukekan	...
geroaldia	— Eme:	...	...	...	zitzaketenan
Baldintzera'zko	— Aŕ :	Baninduk	...	...	...
Ustekizuna	— Eme:	...	balitzan	...	...

2. Eginkizun ontan azaltzen diran esakuntzetan adi-yabeak dira onela aldatu beaŕ-izango diranak: Bakaŕa bada, bere askaŕaren bitartez, eta alderantziz, askaŕa izan ezkero, bere bakaŕaren bidez; aldi baten, tinkiera'zko oraiñaldikoa bada lenaldikoaren bidez; baldintzera'zko geroaldi urbiĪeneko edo lenagoko geroaldikoa bada, baldintzera'zko ustekizunekoaren bitartez, eta alderantziz era guzti oyen artean ere; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Gaur atzo baño lenago etoŕi *nauk*, gizona; ... - Pozik ibiĪi *gaitun* gure eŕiko mendietan barna; ... - Nola *zetorkik* mutil ori oŕela, erdi

bilusik; ... Oŕ *zijoazkin* gure ardiak Bizkaya'ko landaetaruntz udazkenean; ... - Gure aitaren zai *gagozkik* emen ereneguneti k, laisteŕ etoŕiko dukalakoan; ... - Eŕiko ume guztiak goiko enparantzan *zebilzkin* aŕatsaldean; ... - Txikitan orain baño obea *ninduan*, askoz ere; ... - Aro negaŕgaŕi ayetan ez *gindunan* zuen etsayak bezela, norbaitek esanaŕen; ... - Indaŕez *balitzan* ere, *ez ituken* joango goiko laŕe ayetaruntz; ... - Nundik *etoŕiko zitzakenan* ire alaba, ain nekatuta ta itun?; ... - Irekin *egongo nindukekan* ire egun txaŕ guzti ayetan, ez al duk egia?; ... - Gau guztietan *ibiliko bagindun*, etxeko guztien poza nabarituko ukek; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, beaŕa izango danean zutanozko erak erabiltzean ere; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Bein eta beŕiro ire bila etoŕi naun, baña alpeŕik: Nor etoŕi dun nire bila alpeŕik?; ... - Noren billa etoŕi aiz bein eta beŕiro?; ... - Gazte oyek etoŕi al ditun ire bila?; ez, nire ..., baño. -- Lasterkari ayek elburura, batera eldu ituan: Zeintzuk eldu ituan batera elburura?; ... - Mutil ori ere ayekin batera eldu al uan elburura?; ... - Ni bakaŕik eldu al ninduan elburura?; Ez, ..., besteekin baño. -- Agi danean, nai ta uste ez unanean ikusi auten, ez al dun oŕela?: Nor ikusi dute nai ta uste ez zuenean?; ... - I ikusi al aunagu nai ta uste ez unanean?; ... - Ni ikusi al naun nai ta uste ez nuenean?; Ez, i ez ... -- Azketsi ezaizkiok bere zoŕak, i ere azketsia izan adin: Nori azketsi beaŕ dizkiot bere zoŕak, ni ere azketsia izan nadin?; ... - Zer azketsi beaŕ diot oŕi, ni ere azketsia izan nadin?; ... - Niri azketsi beaŕ al dizkidak nire zoŕak, i ere azketsia izan adin?; Bai, iri ere ... -- Ez al indeke ire eskuko izan, eroŕek joan eta nai ezanana egiteko?; bai, ene ustez oŕela izan nindeke, neronek joan eta nai nezana egiteko: Nor izan liteke bere eskuko, joan eta nai zezana egiteko?; ... - Zertarako izan nindeke nire eskuko?; ... - Uste al duk ni nire eskuko izan nindekela joan eta nai nezana egiteko?; Bai, nik uste dut ... -- Lenago jeiki al baazatek, obeki iretzat: Nola izango duk niretzat obeki?; ... - Niretzat izango al duk obeki lenago jeiki al banazate?; ... - Eta nik lenago jeiki al baazaat, obeki izango al duk iretzat?; Bai, ik ... -- Yayo gagozkik eta zetorkian urtean, Yainkoa'k nai baldin badu, are obeto egongo gaituk: Nor zegokik yayo ta zetorkian urtean, Yainkoa'k nai baldin badu, are obeto egongo duk?; ... - I ere yayo al ago ta zetorkian urtean, Yainkoa'k nai baldin badu, are obeto egongo al aiz?; ... - Ni al nagokik yago ta zetorkian urtean, Yainkoa'k nai baldin badu, are obeto egongo nauk?; Ez, i ez ..., gu baño. -- Beti batetik bestera zijoazkiñan zer egin jakin gabe: Nor zijoakiñan beti batetik bestera zer egin jakin gabe?; ... - Nundik nora zijoazkiñan beti zer egin jakin gabe?; ... - Ni ere beti batetik bestera al ninjoakiñan zer egin jakin gabe?; Ez, i ..., baño. -- Atzituko baginduk ukoz-uko lotuta eramango gindukek: Nortzuk eramango nituke ukoz-uko lotuta, atzituko banitu?; ... - Nola eramango zinduzteket atzituko bazinduztet?; ... - Nork eramango zinduzteke ukoz-uko lotuta, atzituko bazinduzte?; Ik, ... -- Gosaria gertutzen digunen artean, aldameneko elizara Meza entzutera joango gaitun: Nora joango zerate Meza entzutera, gosaria gertutzen dizuedan artean?; ... - Nortzuk joango ditun aldameneko elizara Meza entzutera gosaria gertutzen diedan artean?; ... - Ni ere aldameneko elizara Meza entzutera joango al naun gosaria gertutzen didanen artean?; Ez, i ..., baño. -- Ikusten dugu, bai, ainbeste iraiñez ezin geyagoraño agoela: Nor ikusten duzute ainbeste iraiñez ezin geyagoraño zegokiala?; ... - Nola ikusten nauzute, ainbeste iraiñez?; ... - Nork ikusten nau, ainbeste iraiñez ezin geyagoraño nagokiala?; Nik ... -- Uste al dun iregana itzuliko ditunala, egin ienanaren ondoren?; bai, nik uste dut niregana laisteŕ itzuliko ditunala: Nor itzuliko dun niregana egin nionaren ondoren ere?; ... - Nork uste du beregana laisteŕ itzuliko ditunala, egin zienaren ondoren ere?; ... - Niregana laisteŕ itzuliko al ditun, egin nienaren ondoren?; Bai, nire ustez iregana ... -- Onezaz gañera, ire deyera erduko ezpaginduk, zer esango ukek?; ez nuke ezer esango oŕezaz gañera nire deyera erduko ezpaziñate: Nork eluke ezer esango, oŕezaz gañera, bere deyera erduko ezpaziñate?; ... - I ezer esango al ukek, oŕezaz gañera, ire deyera erduko ezpaginduk?; ... - Nik ezer esango al nuke, oŕezaz gañera, nire deyera erduko ezpaziñate?; Bai, ik ... -- Albait laisteŕen sendagilearengana eraman azatenala, senda azanan: Nor eraman beaŕ dute albait listeŕen sendagilearengana senda dezan?; ... - Norengana eraman beaŕ naute albait laisteŕen senda nazan?; ... - Ni eraman beaŕ al naun albait laisteŕen sendagilearengana senda nazan?; Ez, i ez ... -- Egun guztian esamesaka egon ordez, ire galtzerdiak josiko baitun, geyago irabaziko uken: Nork irabaziko luke geyago, egun guztian esamesaka egon ordez, bere galtzerdiak josiko balitu?; ... - Nola irabaziko zenukete geyago?; ... - Nik ere geyago irabaziko al nuke egun guztian esamesaka egon ordez, nire galtzerdiak josiko banitu?; Bai, ik ere ...

4. Azkenean aipatuko dugun idaztiaren uŕengo irakurgaya ongi irakuŕi beaŕ da, ta gero, bertan esaten dan landareen aldakuntzaz, men-

deetan barna, zertan biurtzen diran esan; bai ta gaur bizi diran landare oyetako batzuk zein goyetaraño ikusten diran ere:

«BEIN BATEAN»

«Osto bat zingira-baŕura erori ta ondoan partuztatua geratu zan. Urte-aroak auŕera zijoazen bezela, ostoa baŕurago sartzen joan zan. Azkenik loyetan ezaŕia geratu zan. Loi au buztin egin zan. Gero arkaitz biurtu. Milaka urteren buruan, eguzkiak zingira agortu zuen. Zingira-ondoa agerian geratu zan. Alako batean, uste gabe, atxuŕ-pikotx baten zartakoak izadiaren alatz au agerian jaŕi zuen: aŕi otzak gogor eutsi zion, aldiak beragan ezaŕitako landare edeŕari.

Aŕi biurtutako osto onek eta beste askok, nolabait bederen, izadia leen nolakoa izan dan adierazten digute. Garbi esaten digute, aldi ayetako luŕaren giroa gaurkoa baño askoz beroago ta bustiagoa zala. Lenen ernetu ziran landareak, itxas-belaŕak, peŕetxiko batzuk, goroldio ta iñestoŕak izan ziran. Azken auek, zaldi-buztan eta otso-zangotzaŕak izugaŕizko basoak egiten zituzten. Luŕa oztu zanean, landare-motak asko il egin ziran. Ala ere, ba-ditugu landare batzuk, antziñako aldi ayen aitorle bizi; adibidez «ginkgo» deritzana.

Egin dezagun ibilaldi bat mendian zeaŕ; eŕez aurkituko ditugu landare bereziak dituzten luŕ-azalak: beyan zelai ezeak; oyen gañean goyetako laŕe-luŕak; ondoren goroldioak, eta azkenik beti eluŕetan dauden gañetako itxas-belaŕak.

Bazteŕ guztietako luŕ-azalak ez dira berdiñak. Berdiñak ez izatea, luŕa nun eta nora begira dagoenak egiten du. Alpes-mendietan, basoa 1.500 edo 2.000 neurkin baño gorago ez da igoten; «Montañas Rocosas» deritzanetan 3.600 neurkiñera irixten da; Himalaya'ren egoaldean, beŕiz, bai ta 4.000 neurkiñetaraño ere.

Au aŕigaŕia da. Egia ordea. Ori, giroak egiten du; iñoiz lore aul berberak aurkitzen ditugu menditzaŕen galuŕetan eta sarats eta urki eñañuak bizi diran etxe-belardietan.

Beraz, eguzkiak, euriak, aizeak eta luŕ legoŕak gaŕantzi aundia dute landareentzat. Oŕengatik, ba-dakite landareak giroari dagokion bezela jokatzen. Otza gañera datorkionean, eluŕ-liliak zer egingo? Bere burua jantzi zuri batean bildu... eta bertan goxo».

«Landareen mundua» (4'gaŕen oŕialdean) «Euskeratzalea»: Ansorena'taŕ Jose Luis.

EUN ETA IRUROGETAMARGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

III. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANGAITZA

ADI-YABEA, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ

IZAN

	A.	E.
Agintzera:	EZA*K* ITZA*K*	EZA*N* ITZA*N*
Menekoera:		
Orainñaldia	NADI*K*AN DEDI*K*AN GAITEZ*K*AN DITEZ*K*AN	NADIÑAN DEDIÑAN GAITEZ*N*AN DITEZ*N*AN
Lenaldia	NENDI*K*AN ZEDI*K*AN GINDEZ*K*AN ZITEZ*K*AN	NENDIÑAN ZEDIÑAN GINDEZ*N*AN ZITEZ*N*AN
Almenera:		
Oraiñaldia	NAITEKE*K* DITEKE*K* GAITEZKE*K* DITEZKE*K*	NAITEKE*N* DITEKE*N* GAITEZKE*N* DITEZKE*N*
Lenaldia	NINDEKE*K* LITEKE*K* GINDEZKE*K* LITEZKE*K*	NINDEKE*N* LITEKE*N* GINDEZKE*N* LITEZKE*N*
Lenagoko Geroaldia	NINDEKE*K*AN ZITEKE*K*AN GINDEZKE*K*AN ZITEZKE*K*AN	NINDEKE*N*AN ZITEKE*N*AN GINDEZKE*N*AN ZITEZKE*N*AN
Almenera'zko Ustekizuna:		
Oraiñaldia	AL BANADI*K* AL BADEDI*K* AL BAGAITEZE*K* AL BADITEZE*K*	AL BANADI*N* AL BADEDI*N* AL BAGAITEZE*N* AL BADITEZE*N*
Lenaldia	AL BANENDI*K* AL BALEDI*K* AL BAGINDEZE*K* AL BALITEZE*K*	AL BANENDI*N* AL BALEDI*N* AL BAGINDEZE*N* AL BALITEZE*N*

Euzkal-izkelgi geyenetan, bai ta idazle ainitzengan ere, esakuntza menpekoetan ez dira erabiltzen beste itanozko erak, aditz-jokoan, bigaŕen notiñak, egitan, jokatzen duenetan baño. Ots, auŕizki edo atzizkia

daramaten erak izan ezkero —bayezko *ba-* ta ezezko *ez-* izanezik— ta oyetan bigaŕen notiña zuzen jokatzen eztuenean, eta agintzerazkoetan berdin, zutanozko erak erabiltzen dira.

Au ote da euzkeraz bidezkoa? Ez gera ausartzen bein-betiko erantzuna emateko, naiz eta, izkuntza batean erabiltzeak, batez ere, azkenez, legea jartzen duela aiztutzen ezpazaigu ere. Alan eta guzti, auxe esan dezakegu ziñez: itanozko aditz-jokoan, bigaŕen notiña, ez egīlea ez betekizuna bezela, agertzen eztan esakuntza menpekoen aditzeretan erabiltzen entzun dugu, ta idazle batzuek ere erabili dituztela. Ikus ditzagun batzuen batzuk:

Olabide. «*Idazteuna*»: «Ta luŕ osoak yakingo dik Israel'ek Yainko *dikala*» (I-Samuel, 17-46). «Oñordea au duk; il *dezakagun*» (Luka, 20-14). «Baña au nongoa *dukan* ba-zekikagu; Kisto'a *zetorkanean*, beŕiz, iñork ez zekikek nongoa *dukanik*» (Yon, 7-27).

Bustintza'taŕ Eŕose. «*Ipuiñak*» «VII» «Otsoa ta azeria» («Jesus'en Biotzaren Deya» Bagīla edo Garagaŕīla 1963, 19'gn. oŕialdean): «...nire miñak ireak bestekoak ez *dozakala* esango neukek neuk be».

Uztuŕe (oraingo idazlea, niri egindako gutun batean), tolosaŕa: «Egubeŕiak gainean dizkiagu. Jaunak opa *dezaizkikela* guk nai guziak».

«*Herria*» *asterokoan*, «*Jainkoa sotoetan*» (1961-II-164'gn., 550'gna. 2'gn. leŕoan): «Lehenbiziko aldia diat, mutiko bat hola mintzo *zauiatala*».

Joannatey, «*Ehunbat Sainduen Bicitzea*» (Baionan, 1876) (317'gaŕen oŕialdean): «Ichil hadi, haurra, eta beaun aitac ez *dezaunan* holakorik entzun».

Joannes Leizarraga. «*Testamentu Berria*»: «*Ezneçanala* hunqui; ecen oraiño eznaun igan neure «Aitagana»; baina habil ene anayétara, eta erran ieçén, ...) (S. Ioan, XX-17). «Non nahi duc appain *diaçagun* iatera Bascoa?» (S. Mat., 26-17).

Azaldutako era guzti oyen artean, Leizarraga'ren azken ori, «diaçagun», berezikiago begiratu beaŕ dala uste dugu; menekoerazko era baita, menpekoa dan esakuntzan noski agertzen dana, bigaŕen notiña alkaŕ-betetzekoa bezela bakaŕik, ots, itanozko jokoaren era bedegaŕenaz, agertzen dalarik.

Leizarraga'k beste bi Beŕion'tan, txatal berbera beste eraz azaltzen du: «Non nahi duc appain *deçagun?*» (S. Luc., XXII-9), ta «Non nahi duc ioanik appain *deçagun* ian deçançat Bazcoa?» (S. Marc., XIV-12). Argi ateman dezakegu azken bi Beŕion oyetan erabiltzen duen «zu»'tanozko «deçagun» era ta lenengoan ematen duen «i»'tanozko «diaçagun» beste eraren artean agertzen dan ezberdintasuna. Ori dala-ta, uste dezakegu Leizarraga'k era ori bere yitez erabīli zuela, ots, ororen mintzaeran egunerokoa bezela ezaguturik, eta oŕela izanik, era bakaŕa izango ez litzakela uste ere uste dezakegu, oŕen antzeko beste batzuk be berdin erabīliko lirakela, auek edo: «diaçadan», «diaçan», «diaçaten», ...

Orixe dala-ta, «diaçagun» era ortakoak Axular'ek be darabilzkiela ikusten dugu, baña idazle oŕengan «i»'tanozko zentzuna iñoiz euki gabe, ta oŕengatik esandako Leizarraga'ren «diaçagun» era ori, egiz, itanozkoa ote dan zalantza diteke; baña oŕela ezpada, «diaçagun» eta «deçagun» erak zentzun berberakoak dirala ere onartu beaŕ da (biak aipatutako Beŕion' etan agertzen diranez), eta era oyek eta oyen antzeko beste batzuk ere, naiz bat naiz bestea, zentzun berberak adierazteko erabīli edo litezke; ta oŕek bakana dala dirudi.

Beste alde batetik, «diaçagun» erak, itzen eitez, «i»'tanozko zentzuna duela uste ditekela uste dugu; bi era-talde auetan ageŕerazi diteken tartidetasunaz azaltzen danez. Aldi baten, menekoerazko era iragankoŕak, beren eratzean, dagozkien tinkiera'zkoetatik sortzen dirala gogoratzean:

«zu»: «degu» (tinkiera) ... «dezagun» (menekoera)
«i» : «diagu» (tinkiera) ... «diazagun» (menekoera)

Aipatutako eraetan eta batik bat Leizarraga'k erabīlitakoan oñaŕia arturik, uste dezakegu itanozko erak, lenengoan, aldi guzietan eta esakuntza-mota guzietarako be erabīli zirala.

Zer gertatu al-izan zan, itano aditz-jokoaren erabiltzea, gero, ainbeste jetxi zedin? Ezta eŕaz izango zeazki ta ziuŕ jakitea; baña ba-dago gure izkuntzaren bizian, arazoa begiratzean, argiren bat edo eman dizaigukena. Orok dakitenez, «zu» izenordea ta berari dagozkion aditzerak, lendabizi askaŕ-zentzuna ukan zuten, «zuei» dagozkienak; baña izkuntzaren eratortzean, «zu» ta bere aditzeraen zentzuna «bakaŕ» izateko unealdi bat eldu zan, lotsazko margoa emateko edo (aurki, aldameneko erderaen «vos» edo «vous»'en zentzunaz ageŕerazteko). Ordudanik, zalantzik gabe, «i» ta bere aditzerak, «zu» ta bereak, bateratasunean aurkitu ziran, eta bidezkoa zanez, «zu» gero ta geyago «i» baztertzen ari-izan zan, alde batetik begirunea azalerazteko erabiltzen zalako, ta bestetik, bere erak «i»'renak baño eŕazagoak ziralako, alkaŕ-betetzekorik ez izatean. Oŕela lenengo euzkal-idazleek, aldatze ori oso auŕeratuta zegoela aurkitu zuten, eta bearbada, naiz eŕaztasun aundiagoagatik naiz beste

zioak zirala kari, «i»'ren erabiltzea uztea ta bere ordez «zu»'rena artzea nayago-izan zuten, naiz eta oarkabez izan bazan ere. Ta era berean, eŕitaŕen artean erabiltzen ziran «í»'ren erak, zabaltzen ari-izan zan «zu»'ren zentzunerako artu ere (1).

Au ustea baño besterik ezta, naiz eta geron ustez ongi oñaŕitua; baña, edozein eraz, esan dugun guzia oñaŕiz artzean eta 160'gaŕen ikaskayan esandakoa gogoraturik (Azkue'ri irakuŕita), itanozko erak aldi guzietarako ageŕerazten ditugu, bere erabiltzea bidezkoa danentz esan gabe. Izkuntzaren geroko bilbakuntzak eta beraren erabiltzeak erabakiko dute, azkenez, egokiena izango dana.

Emen «erabiltzea» diñogunean, eztugu esan nai orain erabiltzen dana dala, euzkera itoten ari diran beste izkuntzaen egikeraz gero ta laburtuago dagoena; gure izkuntzak Eŕi'aren bizi guzian biziro erabilita, irakaskintza guzian eta euzkal-gogo-lantzearen ekintza guzietan izan diteken eta lortu beaŕ duena baizik.

Eginkizunak

1. Gure lenengo laukian, lenengo leŕoan, adi-yabeak adierazten dituzten izenordeak ipintzen ditugu, ta eskeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, zortzi alditako adi-yabeak ere alkaŕ-betetzekoekin, aŕ eta emeekin; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

		Ni	Bera	Gu	Berak
Agintzera:	— Aŕ :		ezak		...
	— Eme:		...		itzan
Menek.:	— Aŕ :	Nadikan	...	...	...
Oraiñaldia	— Eme:	...	dediñan	...	...
Menek.:	— Aŕ :	...	...	gindezkan	...
Lenaldia	— Eme:	...	...	...	ziteznan
Almen.:	— Aŕ :	Naitekek	...	...	...
Oraiñaldia	— Eme:	...	diteken	...	...
Almen.:	— Aŕ :	...	...	gindezkek	...
Lenaldia	— Eme:	...	...	...	litezken
Almen.:	— Aŕ :	Nindekekan	...	...	...
Lenagoko Geroaldia	— Eme:	...	zitekenan	...	...
Almen. Ustekizuna:	— Aŕ :	...	...	al bagaitezek	...
Oraiñaldia	— Eme:	...	...	...	al baditezen
Lenaldia	— Aŕ :	Al banendik	...	...	...
	— Eme:	...	al baledin	...	...

(1) «Kardaberaz, 4» aldizkarian azalpenak geyago ikus ditezke.

2. Bigaŕen eginkizun ontan azaltzen diran esakuntzetan, adi-yabeak dira onela aldatu beaŕ diranak : Bakaŕa bada, bere askaŕaren bidez, eta alderantziz, askaŕa izan ezkero, bere bakaŕaren bitartez; aldi baten, menekoera'zko edo almenera'zko oraiñaldikoa bada, lenaldikoaren bidez; almenera'zko lenagoko geroaldikoa edo almenera'zko ustekizunaren oraiñaldia bada, onen lenaldiaren bitartez, eta alderantziz era guzti oyetan ere; kulatzen ordez, esanez eta idatziz :

Irekin luzaroan egon *nadikan*, beti mutil zintzoa izan beaŕ duk; ... - Mutil oyek gure etxekoekin ibil *ziteznan*, ona izango uken goiz-goizean etortzea; ... - Alegin aundiak egin beaŕ, gure aldetik, gero ta obeak izan *gaitezkan*; ... - Gogoŕ zematu zuten lenbailen itzuli *zediñan*; ... - Ezin jaŕai *naitekek* zuekin egokera txaŕ ontan; ... - Erdu al *litezken*, langileak beren lanetik etoŕi baño len?; ... - Zure osaba ezin igo *ditekek* gu gagozkikan tokiraño; ... - Berealaxe jetxi *gindezken* zuenganaño zuek nai-izan ezkero; ... - Zoriontsuagoa izan *nindekekan*, an gure lagunak egon balitzatek; ... - Oso gaiztoak biurtu *zitezkenan* zuen auŕak, uri zikin artan jaŕaitu ezkero; ... - Orduan lenago irten *al bagindezek*, garaiz erdu gindezkekan jai artara; ... - Bere etxera laisteŕ sartu *al baledin*, ez zitekenan busti ainbeste; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, noraezekoa izan dediñean zutanozko erak erabiltzean; kulatzen ordez, esaten eta idazten :

Joan itzan emendik aztun oyek ik ikus ez ditzananera : Nortzuk joan beaŕ dute emendik nik ikus ez ditzaadanera?; ... - Nora joan beaŕ du aztun oŕek emendik?; ... - Ik ere emendik joan beaŕ al duk nik ikus ez azakadanera?; Ez, ... baño. -- Ik nai dunan tokira eldu dediñan, ire semea beste eraz azi beaŕ-izango dun : Nork azi beaŕ-izango du beste eraz bere semea, nai duen tokira eldu dediñan?; ... - Zertarako azi beaŕ-izango dut nire semea beste eraz?; ... - Nola azi beaŕ-izango dugu gure semea, nai dugun tokira eldu dediñan?; Beste eraz ... -- Ikus ez azatekan, emengo aldean ageŕ ez adiñela onena izango duk : Zer uste duk onena izango dukala?; ... - Zertarako izango duk onena emengo aldean ageŕ ez nadikala?; ... - Zer izango duk onena ikus ez nazaten?; Emengo aldean ... -- Arlo ori aipatuko ezpayen, ainbat obe : Zer izango litzaken, arlo ori aipatuko ezpanie?; ... - Nola izango litzaken ainbat obe?; ... - Nik arlo ori aipatuko ezpanie, ainbat obe ere izango al litzaken?; Bai, ik ... -- Ona emen karkax eta garnu auek azterkatu ditzakan : Zer dakarkik nik azterkatu dezadan?; ... - Zertarako dakarzkik karkax eta garnu

auek?; ... - Guk al dakarzkigu karkax eta garnu auek, ik azterkatu ditzakan?; Ez, ... -- Zer egingo uken zarpail ayek itzuli ez ziteznan?; alegin aundienak egingo nituke zarpail ayek itzuli ez ziteznan: Nork egingo lituke alegin aundienak zarpail ayek itzuli ez ziteznan?; ... - Zertarako egingo ituken alegin aundienak?; ... - Nik be alegin aundienak egingo al nituke zarpail ayek itzuli ez ziteznan?; Ez, ik ..., baizik. -- Bost ajola guri, nolanai ere edonun ibil gaitezkek: Nor ibil ditekek edonun nolanai ere?; ... - Nun ibil zaitezkete nolanai ere?; ... - Ni, nolanai ere, edonun ibil al naitekek?; Ez, i ezin ... -- Igarotzean aurkituko bagindun, ez al iguken aguŕ-egingo bederen?; bai gizona, pozik aguŕ-egingo nizueke, igarotzean aurkituko bazinduztet: Nork aguŕ-egingo liguke pozik, igarotzean aurkituko bagindu?; ... - Nola agur-egingo iguken igarotzean aurkituko bagindun?; ... - Nik ere pozik aguŕ-egingo al nizueke igarotzean aurkituko bazinduztet?; Bayetz uste dut, ik ere ... -- Zaragiak ziztatu izkiekan eta ez uan olio-tantarik ere irten: Zer ziztatu nien nik?; ... - Zer ez uan irten zaragiak ziztatu nizkienean?; ... - Nori ziztatu nizkion zaragiak?; Guri ... -- Edonork ainbat ekiñan eta guzioi aŕetaz ezkutatzen igunan: Nork zekien edonork ainbat eta guzioi ezkutatzen zigun?; ... - Nori ezkutatzen nion nik nekiena?; ... - Nik ere edonork ainbat al nekien eta guziei aŕetaz ezkutatzen nien?; Bai, ik ... -- Bera ezin uŕundu litekek toki ayetatik i bezela: Nor ezin uŕundu litekek toki ayetatik ni bezela?; ... - Nola ezin uŕundu litekek toki ayetatik?; ... - Ni uŕundu al nindekek toki ayetatik i bezela?; Bai, i ere ... -- Nekatuta zegozkiñan eta ezin uŕeratu litezken igana geyago: Nor zegokiñan nezatuta?; ... - Nor ezin uŕeratu liteken geyago nigana?; ... - Ni nekatuta al nengokiñan eta igana ezin uŕeratu nindeken geyago?; Ez, ..., baizik. -- Xista-pista batean zatitu azakeagu, baña oraingoz pakean utziko augu: Nor zatitu al dezakezute xista-pista batean, baña oraingoz pakean utziko duzute?; ... - Nork zatitu nazake xista-pista batean, baña oraingoz pakean utziko nau?; ... - Nik zatitu al azakeat xista-pista batean, baña oraingoz pakean utziko aut?; Bai, ik ... -- Ez al dakin nori mezutu dizaizkioken beaŕ ditunan arkayak?; ez, eztakit nori mezutu dizaizkiokedan beaŕ ditudan arkayak: Nork eztaki nori mezutu dizaizkioken beaŕ dituen arkayak?; ... - Zer dun nik ez dakidana?; ... - Niri mezutuko al dizkidan beaŕ ditunan arkayak?; Ez, iri ez ... -- Darabilzkikan burusi oyek eztituk artīezkoak gureak bezela, ez al duk oŕela?; ez, nik darabilzkidan burusi auek eztituk zuenak bezela, artīezkoak: Zer eztuk artīezkoa zuenak bezela?; ... - Nolakoak eztituk darabilzkikan burusi oyek?; ... - Nik darabilzkidan burusiak artīezkoak al dira ireak bezela?; Ez, ik ez ...

4. Ongi irakuŕi beaŕ dira uŕengo bertsoak; oartu gero «zortziko txikia» deitzen diran oyetakoak dirala, bai ta aapaldi bakoitzean zein bertsoa dan zortziko oŕen arautik at dagoena ere; esan, gañera, zergatik deitzen diran neuŕi ortako bertsoak oŕela; ta alegiñak egin, azkenez, buruz ikasteko:

«SAN RAFAEL'EN JUANA AIZPARI»

1

«Txori txiki politak
leyoan kantari,
kontu txiki polit bat
esan dit gaur neri:
Kontutxo bat, kontutxo bi,
ez galdetu neri;
kontu ori galdetu,
txori txikiari.

2

Kanpaya dilin-dalan
egunsentiari
mojatxo bat jaiki da
goizean kantari.
Mojatxo bat, mojatxo bi,
nor da gaurko ori?
Kontu ori galdetu,
txori txikiari.

3

Luŕean pasa ditu
urteak larogei,
ta Konbentu baŕuan,
beŕogetamasei.
Mojatxo bat, mojatxo bi,
Nor da gaurko ori?
Kontu ori galdetu
txori txikiari.

4

Sor Juana du izena,
abizena Lasa:
ezta ain motxa izan
onetxen arnasa.
Mojatxo bat, mojatxo bi,
Azkoiti'n amabi.
Esan dizut nik entzuna
txori txikiari.

5

Ikusi du erortzen
makiña bat orbel,
baña tentea dago
Aizpa San Rafael.
Nor dan ori? Zein dan ori?
Jakin dezu garbi:
orain ez ezer galdetu
txori txikiari.

6

San Rafael dezula
zeruko Patroya,
luza deizula Jaunak
gaur dezun sasoya.
Aingeru bat, aingeru bi,
Rafael gidari:
zeruan saŕ zaitzala
abarka ta guzti».

«Luŕ beŕi bīa» (308-9'gn. oŕialdeetan) Etxaniz'taŕ Nemesio.

EUN ETA IRUROGETAMAIKAGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

IV. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŕA

ADI-YABEAK, LENENGO TA IRUGAŕEN NOTIÑAK, BAKAŕ ETA ASKAŕ IZAKAYA, IRUGAŕEN NOTIÑA, BAKAŕ ETA ASKAŕ

Tinkiera'zko Oraiñaldia



Azkue'k («Euskera», VIII urtea, III-IV, 271'gn. oŕialdean) AEZKOA'n egunero erabīlita bezela, era auek aipatzen ditu: DITIAT eta DITIÑAT; DITIK eta DITIN; DITIAGU ta DITIÑAGU; DITIE ta DITIÑE.

ERAMAN, EKAŔI, JAKIN, EGIN, ERABIĪLI, ESAN eta EUKI, iragankoŕak diran aditz auen erakusbideak:

Tinkiera'zko Oraiñaldia - Izakayak, bakaŕ eta askaŕ



Aipatu ditugun zazpi aditzen era bildu oyek, Tinkiera'zko Oraiñaldikoak diranak, eman ondoren, uŕengo ikaskayan, aditz oyek berak Lenaldian dituzten era bilduak ere emango ditugu; beste aldietakoak, ostera, ez ditugu azalduko, oso gutxi erabiltzen diralako. Aldi oyetan, bi itzeko aditz-jokoa erabil diteke, osoa agertzen dan laguntzaīlearen jokoaren bitartez. ERAMAN, EKAŔI ta ERABIĪLI aditzen eŕoen ondoren azaltzen dan KI) itzatala, izakai bakaŕaren erai bakaŕik dagokie. Onela: ZERAMAKIAT = Nik daramat, gizona; ZEKARKIAT = Nik dakart, gizona.

Egitan, itzatal ori -ZKI- erdizkian agertzen dana bera da, askaŕezko zentzuna -Z- izkiak bakaŕik ematen duelarik, 31, 140 ta 142'gn. ikaskayetan esan zan bezela.

Oaŕ ditekenez, laguntzaīlearen izakai bakaŕezkoak diran adizkiñetan izanezik, beste era guztiak Z- bat daramate asteko, zutanozko aditz-jokoan azaltzen diran era berberaetan ikusten dan asteko D- beste izkiaren ordez jaŕita; alakotz, auxe esan genezake: aditz-jokoaren lenengo oñaŕizko aldian erabiltzen diran itanozko adizkiñetan, astekoa dan Z- izki oŕen bidez artez-betetzekoa adierazten dala.

Azkue'k (D., 377 ta 395 oŕialdeetan) G., AN. ta BN.'n, itanozko aditz-jokoaren izkiak bezela, ZE- ta Z- auŕizkiak aipatzen ditu, Bizkaya'n erabiltzen diran I- edo -I- beste izkiai dagozkielarik (1).

Guzti ori, egiz, oŕela baldin bada, zergatik ezta orixe gertatzen laguntzaīlearen tinkierazko oraiñaldian ikusi ditugun izakai bakaŕeko eraetan?, eta orobat menekoeraz eta almenerazko oraiñaldietan ere?; guzti oyetan, zutanozko aditz-jokoan, lenengo oñaŕizko aldian eta bere ondorekoetan be, izakaya adierazten duen D- guztiz ezaguna dan auŕizki ori agertzen dalarik?

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, adi-yabeak adierazten dituzten izenordeak ematen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan. jokatu beaŕ duten aditzen izenak; era guztiak izakai bakaŕezkoak eta oraiñaldikoak izatean; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

(1) Ikusi: 161, 169'gn. ikaskayak.

		Nik	Berak	Guk	Berek
Eraman	— Aŕ :	Zeramakiat	...	...	...
	— Eme:	...	zeramakin	...	...
Ekaŕi	— Aŕ :	...	...	zekarkiagu	...
	— Eme:	...	...	...	zekarkiten
Jakin	— Aŕ :	Zekiat	...	...	...
	— Eme:	...	zekin	...	...
Egin	— Aŕ :	...	...	zegiagu	...
	— Eme:	...	...	...	zegiten
Erabiĩi	— Aŕ :	Zerabilkiat	...	...	...
	— Eme:	...	zerabilkin	...	...
Esan	— Aŕ :	...	...	ziñoagu	...
	— Eme:	...	...	...	ziñoten
Euki	— Aŕ :	Zeukaat	...	...	...
	— Eme:	...	zeukan	...	...

2. Uŕengo eginkizunean ageŕerazten ditugun esakuntzetan, adi-yabeak dira aldatu beaŕ diranak, bakaŕa bada berari dagokion askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕ bada bere bakaŕaren bitartez; era berean, alkaŕ-betetzekoa aŕa bada emearen bitartez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esaten eta idazten.

Nik nire semea *zeramakiat* ikastetxera egunero; ... - Gizon oŕek bere soñekoa guztiz uŕatuta *zekarkin*; ... - Guk ez *zekiagu* biĩera ortan zer egin *diteken*; ... - Berek beren lana beti ongi *zegiten*, enurarik gabe; ... - Nik ez *zerabilzkiat* iñoiz auŕ oyek *zeramazkitekan* kapelak; ... - Berak nai *diñana* edonoren auŕean *ziñon*, iñola ere lotsatu gabe; ... - Guk ez *zeuzkaagu* gurean, zuei galdutako idaztiak; ... - Gizon ausarti ayek ez *zeramazkiten* izkiĩuak oyanetan ibiltzeko; ... - Nik ez *zekarzkiñat* nire sakelean, ik kalean utzi *ditunan* oŕatzak; ... - Mutikote oŕek ez *zekizkik* iñoiz irakasleak ipiñitako ikaskayak; ... - Guk ez *zerabilzkiñagu* itz zikin oyek gure solasaldietan; ... - Gure etxeko emakumeek ez *zeuzkatek* beren umeentzat, zuenak bezelako jostaĩuak; ...

3. Oitura dugun bezela, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; kulatzen ordez, esan eta idaztean:

Eroŕek ipiñi dunan bezela nayago diñat: Nork nayago din eroŕek ipiñi dunan bezela?; ... - Nola nayago dun?; ... - Guk ere ik ipiñi dunan bezela nayago al diñagu?; Ez, zuek ez ... -- Ur auek itxasokoak baño gaziago aurkitzen zitiagu: Nork aurkitzen zitik ur auek itxasokoak baño gaziago?; ... - Nola aurkitzen zitiztek emakume oyek ur auek?; ... - Nik ere ur auek itxasokoak baño gaziago aurkitzen al zitiat?; Ez, ... baizik. Ire aitak gaur goizean ekaŕi diñan eiza garbituko ditenala uste diñagu: Nork uste din aitak gaur goizean ekaŕi diñan eiza garbituko diñagula?; ... - Zer uste duzute zuek?; ... - Nik ere uste al diñat ire aitak gaur goizean ekaŕi diñan eiza ondo garbituko dunala?; Ez, ik ez ... -- Agi danean, gogatsu ta kementsu joateko abiatzen itukan: Nor abiatzen ukan, agi danean, gogatsu ta kementsu joateko?; ... - Nola abiatzen itukan joateko?; ... - Ni ere joateko, gogatsu ta kementsu abiatzen al ninduan?; Ez, i ez ..., baño. -- Sagaŕ geza auek zekarzkiten, nai badun erosi dizaizkienan: Nork zekarzkin sagaŕ geza auek, nai badun erosi dizaizkionan?; ... - Zer zekarten ayek, nai badiñat erosi dizayodan?; ... - Nik al zekarzkinat sagaŕ geza auek, nai badun erosi dizaizkidanan?; Ez, ik ez ... -- Gazte eskurakoi oŕek bere gurasoentzat bezuza bat zekarkik: Nork zekarkik bere gurasoentzat bezuza bat?; ... - Zer zekarkik gazte eskurakoi oŕek bere gurasoentzat?; ... - Nik al zekarkiat bezuza bat nire gurasoentzat?; Ez, ik ez ..., baizik. -- Neskatsa lotsoŕ ayek auŕak eskutik leunki zeramazkiten: Nortzuek zeramazkiten auŕak eskutik leunki?; ... - Nor zeramaten neskatsa lotsoŕ ayek eskutik leunki?; ... - Nik al zeramazkiñat auŕak eskutik leunki?; Ez, ik ez ..., baño. -- Ba-zekiagu, gutxienez, lengo egunean utzi indukagun tokian ez engoela: Nork zekik, gutxienez, lengo egunean utzi indukan tokian ez engoela?; ... - Zer zekiat nik gutxienez?; ... - Ik al dakik, gutxienez, mutil ori ik utzi uan tokian ez zegokiala?; Bai, nik ba-zekiat ... -- Akitu al gaitzakek aldapa latz ori onen iraduz igotean: Nor akitu dezakek aldapa latz ori onen iraduz igotean?; ... - Nola akitu gaitzakek?; ... - Nik akitu al azakeat aldapa latz ori onen iraduz igotean?; Ez, ik ez ... -- Zer diñon?, aldi onen otz ontaz irtetzera oala?; ez aunagu utziko: Aldi onen otz dunala-ta nor ez dun irten utziko?; ... - Nor eztiñat irten utziko aldi onen otz dunala-ta?; ... - Ni irten utziko al naun aldi onen otz dunala-ta?; Ez, nik ere ez ... -- Oŕela dei dezanan artean, oŕen emeki, eztun ezer lortuko: Nork eztin ezer lortuko oŕela, oŕen emeki, dei dezan artean?; ... - Zer eztiñat lortuko, oŕela, onen emeki dei dezadan artean?; ... - Nik ezer lortuko al diñat, oŕela, onen emeki, dei dezadan artzean?; Ez, ik ere ... -- Aŕetaz busti baituk, orain ez itukek zearo legortuta eukiko: Nola ez genituke orain eukiko, aŕetaz busti bagenitu?; ... - Nork ez lituke orain zearo legortuta eukiko, aŕetaz busti balitu?; ... - Nik ere orain zearo legortuta eukiko al nituke, aŕetaz busti banitu?; Ez, ik ere ... -- Abiĩen baño askoz obeto enbiĩen: Nor zebilkik, zebilkian baño obeto?; ... - Nola nabilkik ni?; ... - Oyek al zebilzkik, zebilzkikan baño obeto?; Ez, oyek ere ... -- Gure bitxiak artu itunan, biaramon arte

bakaŕik gorde itzanan: Nork artu zituen zuen bitxiak, biaramon arte bakaŕik gorde zitzan?; ... - Zer artu nuen nik, biaramon arte bakaŕik gorde nezan?; ... - Oŕek artu al zituen zuen bitxiak, biaramon arte bakaŕik gorde zitzan?; Ez, ... baño. -- Ezin eldu indeke adion oberenean: Nor ezin eldu litekek adion oberenean?; ... - Noiz ezin eldu nindekek?; ... - Gizajo ori ere adion oberenean ezin eldu al litekek?; Bai, gizajo ori ere ...

4. Bean aipatuko dugun idaztiaren txatal au ongienik irakuŕi beaŕ da; itanoz idatzita dagoenez, aŕetaz irakuŕi ondoren, bertan agertzen diran aditzerak zutanoz ipiñi beaŕ dira, bi joko oyen artean dagoen ezberdintasuna ondoenik oartzeko:

«ETXE-BARNE BIZIA»

(1933'ko «Kirikiño Saria»'rako aukeratua)

«Aspaldikoa!...: irea oraintxe jasotzea egin diat. Ez dakik nolako pozez irakuŕi dedan. Izan ere, sei urte elkaŕ ikusi gabe... Baña, oraingoan ba-atoŕ, eta osoko etortzea izango al dek!

Emaztea ta guziok onik gaudela esatea atsegin zaidak. Nere koxkoŕak ezagutzen ez ditukela-ta, ayen argazki bat eskatzen didak. Ni ortan, zabaŕ-samaŕa nauk eta argazkiz etxeon ez gatxeok oŕein ornituak. Baña, dana dala, eure begiz nexka-mutikook ezagutu bitarteko, neronek egingo diat, nere eskuz, argazki..., ta, ia zinema ere esateko natxegok: 'etxe-barne bizi' bat egingo diat, erderaz *bodegón viviente* esango bagendu bezela. Bat aŕatseko ordu erditxo bat maŕeztuko diat, eta artara alde-aldera antz-emango diok auŕak nolakoak ditudan, ots, beste non-naikoen antzekoak.

Atarian ilun, eta leyoan txingoŕ lunlun-otsa diranean, goxoa oi dek etxeko sutondoa. Ala bart, gurena. Ta, etxe-baŕutik auŕ-zarata balebil, areago; ordun, adiskide, suaren gaŕak argiago ziruditek; dardara giaŕagoz ibili zebiltzak, goia miaztu-bearka... I mutil zaŕ gogortua ago, ta ez bide dek azken ori siñisten. Eŕuki aut, gizona! Etzak paŕerik egin.

Baña, itxon orain; dagoaneko begi-auŕean diagu nere mutiko zaaŕena. Bost-bat urte dizkik. Alki batera igo, egutegiari eguna kendu, ta ba-zetorkidak. Galderaz josiko natxiok... ea an zer jartzen duan; ea zergatik ura jartzen duan; ea zertarako jaŕi duan ura, ura jaŕi duanak; ea

uŕengo eguna igandea dan, ta ea zergatik igande ta ez ostiral; ea zenbat lo-eginda sartuko dan Oŕila —Mayatza'ri ala esaten zioten orain— ... Jakiña, azkenerako, zakuŕaren ipurdira biali beaŕ-izan diat.

Ez dek samurtu. Etxean baŕena an ziak orain, Tolosa'ko iñauterietako jo-aldi zoro ayetarik bat joaz: *Tun-pa tun-pa tun, taŕapatatan, taŕapata tuuun-ta*...; eta abaŕ; ba-dakik zein esaten dedan. Alako zalaparta eramangaŕi ezpaita, beŕiro oju-egin beaŕ-izan zioat, ixiltzeko. Luzaroko ez, noski».

«Itz - Lauz» (15-16'gn. oŕialdeetan) Lizardi'taŕ Xabier.

EUN ETA IRUROGETAMABIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

IV. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

ADI-YABEAK, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ IZAKAYA, IRUGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ ETA ASKAŔ

Tinkiera'zko Lenaldia

Izakai bakaŕa				Izakai askaŕa			
N- Z- GeN- Z-	-I- -TE-	-(K)- -N-	a) -N	N- Z- GeN- Z-	-IT- -I- -ZTE-	-(K)- -N-	a) -N

ERAMAN, EKAŔI, JAKIN, EGIN, ERABILI, ESAN eta EUKI, iragankoŕak diran aditzen erakusbideak :

Izakayak, bakaŕ eta askaŕ

N- Z- GeN- Z-	-*RAMA*- KI) -*KAR*- KI) e) -*KI* -*GI*- -*RABIL*- KI)	-ZKI-	-(K)- -N-	a) -N	N- Z- GeN- Z-	-I(Ñ)O- -ZKI- -TE-	-(K)- -N-	a) -N

Izakai bakaŕa				Izakai askaŕa			
N- Z- GeN- Z-	e) -*UKA*- -TE-	-(K)- -N-	a) -N	N- Z- GeN- Z-	e) *UZKA*- -TE-	-(K)- -N-	a) -N

Ikus diteke auŕeko ikaskayan KI itzatalaz adierazitakoa.

Baldintzera - Geroaldi urbilena

Izakai bakaŕa				Izakai askaŕa			
N- L- GeN- L-	-I- -KE- -TE-	-K -N		N- L- GeN- L-	-IT- -I- -KE- -TE-	-K -N	

Baldintzera - Lenagoko Geroaldia

Izakai bakaŕa				Izakai askaŕa			
N- Z- GeN- Z-	-I- -KE- -TE-	-(K)- -N-	-AN	N- Z- GeN- Z-	-IT- -I- -KE- -TE-	-(K)- -N-	-AN

Baldintzera'zko Ustekizuna

Izakai bakaŕa				Izakai askaŕ			
-N- -L- Ba- -GeN- -L-	-I- -TE-	-K -N		-N- -L- Ba- -GeN- -L-	-IT- -I- -ZTE-	-K -N	

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontan, lenengo leŕoan, adi-yabeak adierazten dituzten izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, lau alditako alkaŕ-betetzekoak, aŕ eta eme; aditz laguntzalearen erak, izakai bakaŕarekin; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

		Nik	Berak	Guk	Berak
Lenaldia:	— Aŕ :	Nian	...	...	...
	— Eme:	...	ziñan	...	...
Bald. - Geroaldi	— Aŕ :	...	...	genikek	...
Urbilena	— Eme:	...	...	...	liketen
Bald. - Lenagoko	— Aŕ :	Nikean	...	...	...
Geroaldia	— Eme:	...	zikenan	...	...
Baldintzaera'zko	— Aŕ :	...	...	bagenik	...
Ustekizuna	— Eme:	...	...	...	baliten

Orobat, orain, Izakai askaŕarekin :

Lenaldia:	— Aŕ :	Nitian	...	...	...
	— Eme:	...	zitiñan	...	...
Bald. - Geroaldi	— Aŕ :	...	...	genitikek	...
Urbilena	— Eme:	...	...	...	litiketen
Bald. - Lenagoko	— Aŕ :	Nitikean	...	...	...
Geroaldia	— Eme:	...	zitikenan	...	...
Baldintzaera'zko	— Aŕ :	...	...	bagenitik	...
Ustekizuna	— Eme:	...	...	...	balitizten

2. Bigaŕen eginkizun onen esakuntzetan ematen ditugun adi-yabeak aldatu beaŕ dira, bakaŕa bada berari dagokion askaŕaren bidez, eta alderantziz, askaŕa bada bere bakaŕaren bitartez; berdin, alkaŕ-betetzekoa

aŕa bada emearen bitartez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Leyo artatik oso ondo ikusten *nian* enparantza guzia; ... - Artzain oŕek goizetik zaintzen *ziñan* bere artaldea; ... - Ez *genitian* gure ikaskayak ongi ikasten; ... - Otso ayek aurkitutako ardi guziak bereala ilten *zitiztenan*; ... - Noiz jango *nikek* nik, ik ainbat?; ... - Neska lirain ayek ondo edestuko *litiketen zekizkitenan* ipuin guztiak; ... - Oyek ainbeste edango *genikean*, baña ez *genian* nai-izan; ... - Besteek baño lenago josiko *ziketenan* ire amak utzitako janzki guzia; ... - Noiz irabaziko *nitikean* bazkun arek eskeiñitako ogerlekoak?; ... - Emakume arek, jayetarako, bere jantzi politenak jantziko *zitikenan*; ... - Gaur goizean ori jango *bagenik*, ez *gindukek* orain gose-izango; ... - Ire semeak solo guztiak landuko *balitizten*, lan ori beste iñori ez *iokenan* eman beaŕ-izango; ...

3. Emen ematen ditugun galdera guziai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, beaŕa izango danean zutanozko erak erabiltzean; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Ez zitiñat oraindik, ik uste ditunan urteak: Nork ez zitin oraindik, nik uste zitiñadan urteak?; ... - Zer eztun ik oraindik?; ... - Nik al zitiñat oyek uste zitizten urteak?; Ez, ik ... -- Ikazkin zakaŕ oŕek ire bizi guzian ikusi dukan ikatz onena ornitzen zian: Zer ornitzen zian ikaskin zakaŕ oŕek?; ... - Nork ornitzen zian nire bizi guzian ikusi diadan ikatz onena?; ... - Nik ornitzen al nian oyek beren bizi guzian ikusi ditekan ikatz onena?; Ez, ... baño. -- Bidazti ayek jaulkitzen zitiztenan egipenak ez itunan aditzen: Nork ez zitiñan aditzen bidazti ayek jaulkitzen zitiztenan egipenak?; ... - Zer ez niñan aditzen nik?; ... - Noiz ez nitiñan aditzen bidazti ayek jaulkitzen zitiztenan egipenak?; Orduantxe ... -- Eskatzen digukan tokian aurkeztu gaitezkan, ik ere gurekin etoŕi beaŕ-izango duk: Nork etoŕi beaŕ-izango dik zuekin, eskatzen dizuedan tokian aurkeztu zaitezten?; ... - Ik aurkeztu beaŕ al duk eskatzen digukan toki ortan?; ... - Nik ere, eskatzen didakan tokian aurkeztu beaŕ-izango al diat?; Bai, ik ere ... -- Nola abiīen batekik bestera oŕen bakaŕ eta itun?; ezinbestekoa dun orain onela ibiltzea: Nor zebilkin batetik bestera oŕen bakaŕ eta itun?; ... - Neska oyek al zebilzkin batetik bestera oŕen bakaŕ eta itun?; ... - Ni ere al nabilkin batetik bestera oŕen bakaŕ eta itun?; Ez, i ez ... baño. -- Ire jantziak, aurkitu zitean eun gareztienaz atondu zitiztean: Nork atondu zitian nire jantziak, aurkitu zian eun gareztienaz?; ... - Zer atondu zitean, aurkitu zitean eun gareztienaz?; ... - Nik ere ire jantziak, aurkitu nian eun gareztienaz atondu al nitian?; Ez, ik ez ... baizik. -- Ozta-oztan genekiñan ik esan ienana: Nork zekiñan ozta-oztan nik esan niena?; ... - Zer unan zuek zenekitena?; ... - Nik al nekiñan ozta-oztan ik esan ienana?; Bai, ik ere ... -- Nik ez neramakian beste dirurik, emen oraintxe utzi diadana baño: Nork ez zeramakian beste dirurik, emen oraintxe utzi diana baño?; ... - Nun utzi duk oraintxe, len eramakan dirua?; ... - Zuek utzi al duzute emen oraintxe, len zeneramaten dirua?; Ez, guk ez ... -- Ire auŕak pozez beterik zebilzkiñan, egun batzuk igarotzeko an utzi itunanean: Nor zebilkiñan pozez beterik, egun batzuk igarotzeko an utzi niñanean?; ... - Noiz zebilzkiñan pozez beterik nire auŕak?; ... - Ni ere pozez beterik al nenbilkiñan, egun batzuk igarotzeko an utzi nindunanean?; Ez, ... baizik -- Zer daukak sakel ain sakon oyetan, erakutsi nai ez digukalarik?; irudi edeŕ batzuk zeuzkaat sakel sakon auetan: Nork zeuzkak sakel ain sakon oyetan, erakutsi nai ez dizkigun irudi edeŕ batzuk?; ... - Zer zeukatek oyek sakel ain sakon oyetan?; ... - Nik ere al zeuzkaat sakel sakon auetan erakutsi nai ez dizkizuedan irudi edeŕ batzuk?; Ez, ik ez ... -- Ire mendietan landatzeko, zugatz-mota auek autatuko nitiken: Nork autatuko litiken zugatz-mota ayek nire mendietan landatzeko?; ... - Zer autatuko uken gure mendietan landatzeko?; ... - Nik ere zugatz-mota ayek autatuko al nitiken ire mendietan landatzeko?; ... -- Bere aiton-amoñen etorkian bere zatia beaŕetsiko ezpalik!: Nork ez likek beaŕetsiko bere aiton-amoñen etorkian bere zatia?; ... - Pozik egongo al intzake gure aiton-amoñen etorkian nire zatia beaŕetsiko ezpanik?; ... - Gu ere pozik egongo al gindukek, ire aiton-amoñen etorkian ire zatia beaŕetsiko ezpauk?; Bai, zuek ... -- Zana-zala, nai zitenana esan eta egiten zitenan beti: Nork esan eta egiten ziñan beti nai ziñana, zana-zala?; ... - Zer esan eta egiten unan beti, zana-zala?; ... - Nik ere, zana-zala, nai niñana esan eta egiten al niñan beti?; Bai, ik ere ... -- Buru-egiten badiek, ertsi ta zapalduko autek: Nork ertsi ta zapalduko nau, buru-egiten badiet?; ... - Nor ertsi ta zapalduko ditek, buru-egiten badie?; ... - Nik ere ertsi ta zapalduko al auat, buru-egiten badidak?; Ez, ik ez ... -- Eskeiñi igunana ekarkiñan, baña ontaz edo artaz, ez digun eman nai-izan: Nork zekarkiñan eskeiñi zizuena?; ... - Zer ez didan eman nai-izan, ontaz edo artaz?; ... - Nik nekarkiñana eman nai-izan al diet auei?; Ez, ik ...

4. Uŕengo irakurgaya ondo irakuŕi beaŕ da; gero, bertan agertzen diran itanozko aditzerak, zutanozkoen bidez aldatzeko, oŕela bi aditz-joko oyen artean dagoen ezberdintasuna ondo atemateko:

«XVI. JOSE JOKIN SUMAKARI»

«Alaba bereganatu ta bere atzean zutik geratzean :

— Ba al dun Muñube'ren beŕirik? erdi-ixilean galdetu ta ordurako beste mayetan eseritakoak ez entzuteko.

— Ez.

— Nun ote zebilkiñan zital ori? «Demonio!»...

Alaba bere atzean begira-begira.

— Manuela!!... —Manuela ixilik bere atzean.

— Manuela!! —eta bere atzean zegoela ikusirik— A!, Oŕ al intzan?... Muñube'ren gauzak bere gelan al ditun?

— Ba...

— Guziak?

— ...ba.

— Ez al diten ezer ostu?

— ...mmu?

— Esango niken ba! Ez itunan ba sartuko bere gelan etxekoak besterik?

— ...mmu.

— Dirua ere bere tokian ez zegokiñan ba?

— Ba...

— Gogoratzen al aiz Muñube'k apal-gañeko kutxatxo artan eukitzen ziñan oŕatz artaz?

— ...

— Ez zegokiñan orain an...

— ...mmu?

— Ez! Berak eraman ote din?

— ...mmu.

Joxe Jokin'ek ba-zekien azkeneko «...mmu» onek «ba-liteke» esan nai zuela.

— Bai, bai!... Jakiña... Ba-oake. Oa, oa!...

.....

Bere gelara igo ta andik laisteŕ, bere alabari deitu, ta karta itxi bat emanaz, auxe esan zion legoŕ-legoŕ :

— Gaur ikaragaŕia diñagu neska! Ni ez nagokin ondo ta oera noakin. No au ta gorde ezan Garaidi jauna etoŕi arte. Beretzat dun. Begira, gero, galdu!... A!, ta ixilik gero gaur! ...».

«Amabost egun Urgain'en» (127-8-9'gn. oŕialdeetan) J. A. Loidi Bizkaŕondo.

EUN ETA IRUROGETAMAIRUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

IV. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

ADI-YABEAK, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ

IZAKAYA, IRUGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ ETA ASKAŔ

Agintzera



Menekoera'zko Oraiñaldia



Menekoera'zko Lenaldia



Almenera'zko Oraiñaldia (1)



(1) Ikusi 171'gn. ikaskaya.

Ataun aitak, bere eliztian, era auek Z- e) izkiakaz asten ditu, guk ipiñi ditugun D- e)'en ordez. Era auek erabil litezke, 3'gn. notin bakaŕekoak gutxienez, guk 163'gn. ikaskayan, 2'gaŕen notin bakaŕekoak bezela erabiĩi ditugunekin ez nasteko.

Almenera'zko Lenaldia

Izakai bakaŕa		Izakai askaŕa	
N- L- GeN- L-	e) -ZA- -KE- -TE-	-K -N	N- L- GeN- L- -IT- -ZA- -KE- -TE- -K -N

Almenera'zko Lenagoko Geroaldia

Izakai bakaŕa		Izakai askaŕa	
N- Z- GeN- Z-	e) -ZA- -KE- -TE-	-K -N- -AN	N- Z- GeN- Z- -IT- -ZA- -KE- -TE- -K -N- -AN

Almenera'zko Ustekizuna - Oraiñaldia

Izakai bakaŕa		Izakai askaŕa	
AL BA- -D- e) -ZA- -TE-	-K -N- a) -T -- -GU ---	AL Ba- -D- -IT- -ZA- -TE-	-K -N- a) -T -- -GU ---

Almenera'zko Ustekizuna - Lenaldia

Izakai bakaŕa		Izakai askaŕa	
AL BA- -GeN- -L-	-N- -L- e) -ZA- -TE- -K -N	AL BA- -GeN- -L-	-N- -L- -IT- -ZA- -TE- -K -N

EGINKIZUNAK

1. Lauki ontan, lenengo leŕoan, adi-yabeak adierazten dituzten izenordeak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, zortzi alditako alkaŕ-betetzekoak, aŕ eta emea; aditz laguntzaĩearen erak ageŕerazi beaŕ dira, izakai bakaŕarekin; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

			Nik	Berak	Guk	Berek
Agintzera:		— Aŕ :	Dezakadan	...	...	...
		— Eme:	...	bezan	...	...
Men.:	Oraiñaldia	— Aŕ :	...	...	dezakagun	...
		— Eme:	...	...	...	dezatenan
Men.:	Lenaldia	— Aŕ :	Nezakan	...	...	...
		— Eme:	...	zezanan	...	...
Alm.:	Oraiñaldia	— Aŕ :	...	...	dezakeagu	...
		— Eme:	...	...	...	dezaketen
Alm.:	Lenaldia	— Aŕ :	Nezakek	...	...	...
		— Eme:	...	lezaken	...	...
Alm.:	Lenagoko Geroaldia	— Aŕ :	...	...	genezakekan	...
		— Eme:	...	...	...	zezaketenan
Alm.	**Ustekizuna:** Oraiñaldia	— Aŕ :	Al badezaat	...	...	...
		— Eme:	...	al badezan	...	...
Alm.	**Ustekizuna:** Lenaldia	— Aŕ :	...	...	al bagenezak	...
		— Eme:	...	...	...	al balezaten

2. Beste eginkizun onen esakuntzetan agertzen diran adi-yabeak aldatu beaŕ dira, bakaŕa askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez; orobat, alkaŕ-betetzekoa aŕa bada, emearen bidez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Ikas *bitzak* gazte oŕek ondo bere ikaskayak; ... - Laisteŕ etoŕi beaŕ *diñagu* beaŕ dan orduan jan *dezanagun*; ... - Txindi ori, esan *idakan* etxerako, igaliak erosi *nitzakan*; ... - Gazte oyek ezin saldu *dezaketen* beren gurasoen etxea; ... - Ezin abestu *genitzakek* ik nai *ituan* abesti guztiak; ... - Geyago edan *nezakenan*, baña ez *niñan* ainbeste artu nai-izan; ... - Gizon ankeŕ ayek *al badezatek*, gure zugatz guztiak loŕinduko *zitiztek*; ... - I bezin ongi idatzi *al banezan*, egunero idatziko *niken* zerbait egunkarietarako; ... - Ekaŕ *ezaizkidak* ire praka oyek ondo josi *ditzakadan*; ... - Oŕ *zeuzkanan* nire auŕak al bezin ondo aŕatsalde guzian zaindu *zitzanan*; ... - Asko jokatu *dezakeagu* alkaŕekin egun auetan; ... - Bere soñeko guziak uŕatu *litzaketen* otadi ortan barna joan ezkero; ...

3. Uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, beaŕa izan-

go danean zutanozko erak erabiltzean; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Egotzi bezak mutiko biuŕi ori bere etxetik, bizi-izaten ikas dezakan: Nork egotzi beaŕ dik mutiko biuŕi ori bere etxetik bizi-izaten ikas dezakan?; ... - Nor egotzi beaŕ diat nire etxetik bizi-izaten ikas dezakan?; ... - Ni ere ire etxetik egotzi beaŕ al nauk bizi-izaten ikas dezakadan?; Ez, i ez ... -- Idazki txaldan ayek bialdu zitizten zuzendu ditzanagun: Nork bialdu zitin idazki txaldan ayek zuzendu ditzazuten?; ... - Zer bialdu diten zuzendu dezazuten?; ... - Idazki ayek nik zuzendu ditzanadan bialdu al zitizten?; Ez, ... -- Izan ere, biñaka ta indaŕez zeramazkitean: Nork zeramazkian, izan ere, biñaka ta indaŕez?; ... - Nortzuk zeramazkitean, izan ere, biñaka ta indaŕez?; ... - Nik al neramazkian, izan ere, biñaka ta indaŕez?; Ez, ik ez ... -- Ire lorak belaskatuko balitzaten, itun eta musin geratuko intzake: Nor geratuko litzaken itun eta musin bere lorak belaskatuko balitzaten?; ... - Zer belaskatuko litzaken?; ... - Nire lorak belaskatuko balitzaten, ni ere itun eta musin geratuko al ninduken?; Ez, ... baño. -- Ez diagu nai gure pardeletan ezer erantsi dezakan: Nork eztik nai bere pardeletan ezer erantsi dezakadan?; ... - Zer ez duzute nai?; ... - Nik nai al diat nire pardeletan ik ezer erantsi dezakan?; Bai, ik nai duk ... -- Garia bildu zitenan eyeraen batean eo zezatenan: Nork bildu ziñan garia eyeraen batean eo zezatenan?; ... - Zer bildu unan nire eyeran eo nezanan?; ... - Nik bildu al niñan garia eyeraen batean eo zezatenan?; Ez, ik ez ... -- Edonork eraindu ditzakek erortzeko zorian zegozkialako: Zergatik eraindu ditzakeat?; ... - Zer eraindu dezakeagu erortzeko zorian zegokialako?; ... - Oyek ere eraindu al ditzaketek erortzeko zorian zegozkialako?; Ez, oyek ezin ... -- Nik igana nentorkiñanean, ez nekiñan iñoiz nola atotsiko ninduken: Nork ez zekiñan, igana zetorkiñanean, nola atotsiko uken?; ... - Zer ez ekiñan nigana entoŕenean?; ... - Ayek al zekitenan, nigana zetozkiñanean, nola atotsiko nitikan?; Ez, ayek ere ez ... -- Lan ain urguri ayetan iñork ezin garaitu intzakek: Nor ezin garaitu genezakek lan ain urguri ayetan?; ... - Nun ezin garaitu intzakeat nik?; ... - Ni garaitu al nintzakek lan ain urguri ayetan?; Ez, i ere ... -- Nik uste diñat engoen baño geyago ezin gizendu indekenala: Nork uste din nengokiñan baño geyago ezin zizendu nindekenala?; ... - Zer ez dun uste?; ... - Guk uste al diñagu, ori zegokiñan baño geyago ezin gizendu litekenala?; Ez, zuek ez ... -- Ezin iñausi genitzakek baratzeko zugazno guziak?; bai, nik uste diat baratzeko zugazno guziak eŕaz iñausi zenitzaketela: Nork uste dik baratzeko zugazno guziak eŕaz iñausi nitzakeala?; ... - Zer uste diagu guk?;

... - Oyek uste al ditek baratzeko zugazno guziak eŕaz iñausi itzakeala?; Bai, oyek uste ditek ... -- Iruten ari intzanean, estu ta negartsu ikusi indutenan: Guk ikusi al indunagun estu ta negartsu, iruten ari intzanean?; ... - Nork ikusi indunan estu ta negartsu, iruten ari intzanean?; ... - Ni ikusi al nindunan estu ta negartsu, iruten ari nindunanean?; Ez, i ez ... -- Buru-egin gindunan egiten unana ikustera igo ez gindeznan: Zertarako buru-egin zinduztedan?; ... - Guk buru-egin al indunagun egiten geniñana ikustera igo ez endin?; ... - Ni buru-egin al nindunan egiten unana ikustera igo ez nendiñan?; Bai, i ere ... -- Gure artean egun geyagotan baldin baago, itxaroten diat obeto ezagutu gaitzakala: Zer itxaroten duk zuen artean egun geyagotan baldin banagokik?; ... - Nik itxaroten al diat gure artean egun geyagotan baago obeto ezagutu nazakala?; ... - Ik ere itxaroten al duk zuen artean egun geyagotan banagokik obeto ezagutu azakadala?; Bai, nik ere ... -- Laisteŕ jan badezanagu, ire etxera garaiz elduko gaitun: Nor elduko dun garaiz gure etxera, laisteŕ jan al badezan?; ... - Nora elduko aiz garaiz, laisteŕ jan al badezan?; ... - Ni ere ire etxera garaiz elduko al naun, laisteŕ jan al badezanat?; Bayetz uste diñat, i ere ...

4. Uŕengo irakurgaya ondo irakuŕi beaŕ da, auŕekoak bezela; ta gero, bakoitzak lenengo gizonari ta lenengo biziari buruz dakiena esan beaŕ-izango du:

«LENENGO GIZONAK»

«Adan eta Eba'tzaz Asiera-idaztiak esaten digunez gañera, ezer ez dakigu lenengo gizonaz. Ala beaŕ ere, edestigaŕirik ondoren utzi ezpaitzuen. Beŕogetamaŕ miīa urte ingurukoa dugu, lenengo gizonaz dakiguna. Geyagoko etxegintzaren beŕirik gabe, zugatz-gañak eta arkaitz-arteak biurtu zituen orduko gizonak bizi-leku. Araxe jo beaŕ, giro txaŕari ta gau-pizti gosetuei iges-egiteko.

Aragiaz gañera, doi-doi izaten zuten zer janik. An-oŕ-emen, basa-igalirik iñoiz arkitzen bazuten, pozik gure gizonak. Baña luŕean erein eta landareak azi, ez oŕelakorik oraindio.

Orduko oyan itxi ta laŕe jorietan, katamotz eta artz nagi, elegante itxurako mastodonte ta aspaldin amaitutako piztitzaŕ iīetsurik, gizonaren urko ba-zebiīen ugari.

Eŕukaŕia gure gizontxu ura, etsai-arte artan, eguŕ eta aŕi beste izkiīurik gabe. Bizi beaŕ eta, luŕeko igaliaz gañera, piztitzaŕ ayei eraso beaŕ,

jango bazuen. Aragia zuenean, beŕiz, bertan-bera jan beaŕ; gorde ezkeroz, usteltzeko geratzen baitzan.

Eraso-egunetan, ez ziran beren gorde-lekuetatik ateratzen; antxe baŕuan, geroko eizaren eta janari edeŕen ametsetan. Leze-baŕuko aŕietan margoztu zizkiguten, bein edo bein, eizean aŕapatutako abereen irudiak ere. Irudi oyek, miīaka ta miīaka urte luzeetan, oŕ iraun digute gaurdaño, begi-betegaŕi.

Etzan giza-piīa aundia orduan bizi zana. Gaurko gure eŕi koxkoŕ bat osotzeko lain ozta-ozta, alegia. Saŕitan, leze-zulo nekegaŕi ayetan beretan ere, ezin egin zuten «bertan-goxo». Abereak laŕe-biīa beste norabait zoazkielarik, gizonak ere oŕ abiatu beaŕ aundi-taldeari jaŕaiki, basorik-baso, bilduŕ-ontzi, lotarako zugatz-adaŕetan-eta kokaturik. Eta, nork esan zenbat urte aundi, oŕela. Etziran «mamitan bizi», gizagajoak. Beren ez jakin ta ez ikusian, areagoko ametsik ere izango etzutenari eskeŕak».

«Errialde guztien edestia» (10-11'gn. oŕialdeetan) Goikoetxea Maiza'taŕ Yon'ek euzkeratuta.

EUN ETA IRUROGETAMALAUGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

IV. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

ADI-YABEAK, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ IZAKAYA, IRUGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ ETA ASKAŔ IZAKAI TA IZENORDEZKO ADIZKIÑAK (ZEAŔEZ BETETZEKOAK: LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ; ETA BIGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ)

Bigaŕen notiñari dagozkion adizkiñetan, onela: | -K- / -N- | agertzen diran -K- ta -N- izkiak bigaŕen notin onen zeaŕez-betetzekoa adierazten dute. Baña izki oyek berak, beste notiñen eraetan, «alkaŕ-betetzekoa» deitu diogunari dagozkion, eta onela [-K- / -N-] laukitxo baten barnean agertuko dira; ta auŕerantzean ere oŕela ikusiko dira, esandako «alkaŕ-betetzekoa» adieraziko dutenean.

TINKIERA'ZKO ORAIÑALDIA

Niri:	Z- -I- -ZKI- *-Da-*	-TE-	[-K / -N]		
Guri:	Z- -I- -ZKI- *-GU'*	-TE-	[-K / -N]		
Iri:	D- -I- -Z) -KI-	-TE-	| *-K-* / *-N-* |	a)	-T / -- / -GU / ---
Berari:	Z- -I- -ZKI- *-O-*	-TE-	[-(K)- / -N-]	a)	-T / -- / -GU / ---
Berai:	Z- -I- -ZKI- *-E-*	-TE-	[-(K)- / -N-]	a)	-T / -- / -GU / ---

TINKIERA'ZKO LENALDIA

Niri:	Z-	-I- -ZKI- -*Da*-	-TE-	-(K)- / -N-	a)	-N
Guri:	Z-	-I- -ZKI- -*GU*-	-TE-	-(K)- / -N-	a)	-N
Iri:	N- / Z- / GeN- / Z-	-I- -Z- -KI-	-TE-	-*K*- / -*N*-	a)	-N
Berari:	N- / Z- / GeN- / Z-	-I- -ZKI- -*O*-	-TE-	-(K)- / -N-	a)	-N
Berai:	N- / Z- / GeN- / Z-	-I- -ZKI- -*E*-	-TE-	-(K)- / -N-	a)	-N

EGINKIZUNAK

Bi lauki auetako lenengo leŕoan, zeaŕez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak doaz; eta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak adierazten dituztenak; era guztietan, izakaya, irugaŕen notiña da, bakaŕean; adi-yabe bakoitzerako, alkaŕ betetzekoak, aŕ eta eme; lenengoaren era guztiak Tinkiera'zko oraiñaldikoak izango dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko :

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			Dikiat	...	...
	— Eme:			...	zionat	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	ziek
	— Eme:	Zidan	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			Dikiagu	...	...
	— Eme:			...	zionagu	...
Berek	— Aŕ :	...	...	...	...	zietek
	— Eme:	...	ziguten	...	...	...

Zeatz berberak erabiltzen, Tinkiera'zko lenaldikoak berdin :

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			nikian	...	...
	— Eme:			...	nionan	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	ziekan
	— Eme:	Zidanan	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			genikian	...	...
	— Eme:			...	genionan	...
Berek	— Aŕ :	...	...	...	...	zietekan
	— Eme:	...	zigutenan	...	...	...

2. Bigaŕen eginkizun onen esakuntzetan agertzen diran adi-yabeak aldatu beaŕ dira, bakaŕa askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez; orobat, alkaŕ-betetzekoa aŕa bada, emearen bidez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esatean eta idaztean :

Ain zuzen nik nai *niana* eman *zidak* zaldun oŕek; ... - Emakume on oyek ipiñiko *ziguten* biderako beaŕ *diñagun* guzia; ... - Iri ez *dikitek* kenduko ez *daukakana*, noski; ... - Irakasle oŕi ez *zizkionagu* erakutsiko idatzi *zitiñagun* gutunak; ... - Uste al *duk* artzain oyei beren ardiak kenduko *zizkieteala?*; ... - Ire jantziak bereala garbituko *dizkiagula* ziuŕ egon aiteke; ... - Janari ura xista-pistan egosi *zidanan* andere maratz arek; ... - Ez *zizkigukan* eŕaz aŕapatuko gure usakumeak; ... - Emen ipiñi *genizkiñan* ortuetatik ekaŕitako maŕubiak, ondo gorde *itzanan*; ... - Ez *niokan* iñoiz ukatu jateko beaŕ *ziana*; ... - Beren solo guztiak landatu *genizkienan* berak ezer eskatu gabe; ... - Bereala ebakiko *nizkikan* egi oyetako garo guziak eta iñork baño lenago; ...

3. Emengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye; beaŕ danean zutanozko aditzerak erabiltzean; esanez eta idatziz :

Jaun ayek idaroki zidateana eztuk onartzeko gauza; ... - Zer eztuk onartzeko gauza?; ... - Nori idaroki ziotek jaun ayek onartzeko eztukan gauza?; ... - Ik idaroki al didak onartzeko eztukan gauzik?; Ez, nik ez ... -- Eldu adin bezin laisteŕ ateak idekiko dizkiñagu: Nori idekiko dizkiozute ateak eldu dediñan bezin laisteŕ?; ... - Zer idekiko didan eldu nadiñan bezin laisteŕ?; ... - Nork idekiko dizkin ateak eldu adin bezin laisteŕ?; Ik ... -- Ertsideki batean gordeta zeukatean guztia atera zietek: Nori atera ziotek gordeta zeukaan guztia?; ... - Zer atera dikitek?; ... - Niri atera al zidatek gordeta neukaan guztia?; Ez, ... baño. -- Ardurabako gazte oŕek ez zekiñan itz bat bakaŕik ere: Nork ez zekiñan itz

bat bakaŕik ere?; ... - Zer ez zekiñan gazte ardurabako oŕek?; ... - Nik al nekiñan itzen bat edo beste?; Ez, ik ere ... -- Neskatil auek piskat bederen iŕibaŕe-egingo baliten, edozein gauza emango ieken, eztun egia?; bai, neskatil, auek piskat bederen iŕibaŕe-egingo baliten, edozein gauza emango nieñan: Nori emango ioken edozein gauza, piskat bederen iŕibaŕe-egingo balin?; ... - Oni emango al nioke edozein gauza, iŕibaŕe-egingo balin?; ... - Zuei edozein gauza emango al nizueke iŕibaŕe-egingo bazenute?; Bai, guri ere ... -- Batez beste, orduan zortzi kutxen batzuk iltzatzen zizkigutek: Batez beste, zenbat kutxa iltzatzen dizuete ordu batean?; ... - Nori iltzatzen zizkioat ordu batean, batez beste, zortzi kutxen batzuk?; ... - Niri ere orduan zortzi kutxen batzuk iltzatzen al dizkidak batez beste?; Bai, iri ere ... -- Berak onez onean artu nai ezpazitik sendakai auek, irentsi eragingo zizkioat: Nori irentsi eragingo dizkiok sendakai oyek berak onez onean artu nai ezpazitik?; ... - Zer irentsi eragingo diok, berak onez onean artu nai ezpadik?; ... - Niri ere sendakai oyek irentsi eragingo al dizkidak, onez onean artu nai ezpazitiat?; Bai, iri ere ... -- Zazpi begietan abil; bestela, eztaukanena ere lapurtuko dikin: Nori lapurtuko zion ez zeukanena ere?; ... - Zer lapurtuko zidan zazpi begietan ezpanabilkin?; ... - Zuei ez daukazutena ere lapurtuko al dizue?; Ez, guri ez ... -- Uŕengo autezkundeetarako, zabalkundea paŕa-paŕa banatzen ari dituk: Nor ari duk uŕengo autezkundeetarako zabalkundea paŕa-paŕa banatzen?; ... - Zer ari dituk banatzen paŕa-paŕa uŕengo autezkundeetarako?; ... - I ari al aiz uŕengo autezkundeetarako zabalkundea paŕa-paŕa banatzen?; Ez, ni ez ... -- Onezaz gañera, mendiko zugatz guztiak soildu zizkidatean: Nori soildu zizkiotean, onezaz gañera, mendiko zugatz guztiak?; ... - Zer soildu zikitean onezaz gañera?; ... - Zuei ere mendiko zugatz guztiak soildu al zizkizueten oŕezaz gañera?; Ez, guri ez ..., baño. -- Ire oldozpen guztiak eŕaz igartzen genizkiñan: Nori igaŕi izkionan eŕaz bere oldozpen guztiak?; ... - Zer igaŕi ziotenan eŕaz?; ... - Niri ere nire oldozpen guztiak eŕaz igartzen zizkidatenan?; Ez, iri ez ... -- Agintariai eskatu ziekan guztia iritxi ziotekan: Zer iritxi zidatekan niri?; ... - Nortzuei iritxi zietekan agintariai eskatu zietekan guztia?; ... - Nik iritxi al nikian agintariai eskatu iekan guztia?; Ez, ik ez ... -- Solo guztiak loro-sareetaz inguratu zizkigutenan: Nori inguratu zizkiotenan solo guztiak loro-sareetaz?; ... - Zer inguratu zizueten loro-sareetaz?; ... - Niri inguratu al zizkidatenan solo guztiak loro-sareetaz?; Ez, iri ez ... -- Esan beaŕ zietekana itzetik ortzera erantzun zietekan: Nori erantzun ziotekan itzetik

ortzera, esan beaŕ ziotekana?; ... - Zer erantzun zietekan itzetik ortzera?; ... - Niri ere esan beaŕ zidatekana itzetik ortzera erantzun al zidatekan?; Ez, ... baizik. -- Goi ayetan otzez iīa idoroko induketenala uste geniñan: Nork uste ziñan goi ayetan otzez iīa idoroko induketenala?; ... - Zer uste zenuten?; ... - Nik uste al niñan goi ayetan otzez iīa idoroko induketenala?; Ez, ik ez unan uste ...

4. Emen jartzen ditugun bertsoak aŕetaz irakuŕi beaŕ dira ta izketa bat dalarik, auxe esan beaŕ da: Gizonen artean ala emakumeen artean ala gizon-emakumeen artean egiña ote dan, bai ta ori, aditzeraetan, zertan igartzen dan ere; gañera, egiīeari buruz bakoitzak dakiena esan beaŕ du bere gisaz:

«IÑAUTERI» - «ORAKUNDE»

— «Asi adi —dio Peru'k.
Matxin'ek: —Jo zak, nai baduk,
— Akit ondora. —Atoŕ nigana.
— Ire bilduŕ, beintzat, ez nauk.
— Eure denboran, esaidak, zenbat
giza-laŕu bildu dituk?».

— «Zerbait edan orduko
beŕiketak au mendeko.
I añako bat luŕeratzea
ez diat, naski, luzeko.
Erdi zaragi zegokianekin
buŕukan ez nauk asiko».

— «Oraintxe bat geyago
isil-isil ez ba ago.
— Giza-laŕuak? ego-aize eran
joanago bizkoŕago:
oyu mintzo oŕek barnean baño
agoan dik indaŕago».

— «Mozkoŕ esan beaŕ neri!
I bayetz leenik erori!
— Mozkoŕ gaixo bat luŕeratzea
ez ukek beti gauza aundi.
— Ik ez ukek oinbeste kemen,
ala banengokian ni».

— «Aul, ezer-ez, beŕizu!
— Ume zirtzil mukizu!
Egon mingaña, besoz mintza adi»
sartu zayo ondora Peru.
Barnez otzak ez egon aŕen,
ez dira beela berotu».

«Euskaldunak» (170-1'gn. oŕialdeetan) Ormaetxea'taŕ Niñola «Orixe».

EUN ETA IRUROGETAMABOSKAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

IV. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

ADI-YABEAK, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ
IZAKAYAK, IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ
(ZEAŔEZ-BETETZEKOAK: LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ; ETA BIGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ)

Baldintzera - Geroaldi Urbilena

Niri:	L-	-I- -ZKI- *-Da-* -KE-	---- -TE-	-K -N
Guri:	L-	-I- -ZKI- *-GU-* -KE-	---- -TE-	-K -N
Iri:	N- L- GeN- L-	-I- -Z- -KI- -KE-	---- -TE-	*-K -N*
Berari:	N- L- GeN- L-	-I- -ZKI- *-O-* -KE-	---- -TE-	-K -N
Berai:	N- L- GeN- L-	-I- -ZKI- *-E-* -KE-	---- -TE-	-K -N

Irugaŕen era-taldea dan «Iri»'an, araugea dirudiena oaŕ diteke: K ta N izkiak, naiz eta emen bigaŕen notiñaren zeaŕez-betetzekoa adieraziaŕen, adizkiñaren azken tokian agertzen dira; beste notiñentzat jaŕitako kiria gorde balute, -KE- itzatalaren auŕetik joan beaŕ-izango luketela dirudi; ta oŕela jaŕi ezkero, askaŕ-zentzuna duen -TE- erdizkia elitzake joango, beste notiñentzat bezela, K ta N oyen auŕetik.

Etxaide'taŕ Iñaki Mirena jaunak -TE- itzatala, beti, K ta N izkien

auŕetik dakaŕ, bai ta izki auek zeaŕez-betetzekoak bezela agertzen diranean.

Kanpion'ek Etxaide'k dagiena bera ageŕerazten du, berez N'az amaitzen diran Tinkiera'zko Lenaldian edo Menera'zko Oraiñaldian izanezik; oyetan -TE- itzatala K ta N'ren atzetik doa.

Baldintzera - Lenagoko Geroaldia

Niri:	Z-	-I- -ZKI- *Da-* -KE-	---- -TE-	-K- -N-	-AN
Guri:	Z-	-I- -ZKI- *-GU-* -KE-	---- -TE-	-K- -N-	-AN
Iri:	N- Z- GeN- Z-	-I- -Z- -KI- -KE-	---- -TE-	*-K- -N-*	-AN
Berari:	N- Z- GeN- Z-	-I- -ZKI- *-O-* -KE-	---- -TE-	-K- -N-	-AN
Berai:	N- Z- GeN- Z-	-I- -ZKI- *-E-* -KE-	---- -TE-	-N- -K-	-AN

Baldintzera'zko Ustekizuna

Niri:	BA-	-L-	-I- -ZKI- *-Da-*	---- -TE-	-K -N	
Guri:	BA-	-L-	-I- -ZKI- *-GU-*	---- -TE-	-K -N	
Iri:	BA-	-N- -L- -GeN- -L-	-I- -Z- -KI-	---- -TE-	*-K -N*	

Berari:	BA-	-N- -L- -GeN- -L-	-I- -ZKI-	*-O-*	---- -TE-	-K -N
Berai:	BA-	-N- -L- -GeN- -L-	-I- -ZKI-	*-E-*	---- -TE-	-K -N

Ikaskai ontan ikusitako iru aldietako bakoitzean, irugaŕen era-taldean, -ZKI- askaŕezko itzatala, -Z- ta -KI-'etaz bananduta dagoela oaŕ diteke; ta oŕezaz auxe adierazi nai dugu: -KI- itzatal ori izakai bakaŕezko aldizkiñetan ere erabil ditekela.

Eginkizunak

Iru lauki auetako lenengo leŕoan, zeaŕez-betetzekoa adierazten duten izenordeak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak adierazten dituztenak; era guztietan, izakaya irugaŕen notiñarena da, bakaŕean; adi-yabe bakoitzerako alkaŕ-betetzekoak, aŕ eta eme azaltzeko; eta aditz laguntzaīearen erak eman beaŕ dira, izakai bakaŕarekin. Lenengo laukiaren era guztiak Baldintzera'zko Geroaldi Urbiīen'ekoak izango dira; kulatzen ordez, esan eta idazteko:

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			Nikikek	...	...
	— Eme:			...	nioken	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	liekek
	— Eme:	Lidaken	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			genikikek	...	...
	— Eme:			...	genioken	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	lieketek
	— Eme:	...	liguketen	...	...	...

Bigaŕen lauki ontan, zeatz berberak erabiltzen, baña Baldintzera'zko Lenagoko Geroaldi'koak jokera berdiñean:

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			nikikekan	...	...
	— Eme:	...		...	niokenan	...
Berak	— Aŕ :		...	...	...	ziekekan
	— Eme:	Zidakenan	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			genikikekan	...	...
	— Eme:			...	geniokenan	...
Berek	— Aŕ :	...	...	...	...	zieketekan
	— Eme:	...	ziguketenan	...	...	...

Irugaŕen lauki ontan, zeatz berberak erabiltzen, Baldintzera'zko Ustekizun'ekoak, era berean:

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			banikik	...	...
	— Eme:			...	banion	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	baliek
	— Eme:	Balidan	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			bagenikik	...	...
	— Eme:			...	bagenion	...
Berek	— Aŕ :	...	...	...	...	balietek
	— Eme:	...	baliguten	...	...	...

2. Beste eginkizun onen esakuntzetan agertzen diran adi-yabeak aldatu beaŕ dira, bakaŕa askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez; berebat, alkaŕ-betetzekoa aŕa bada, emearen bitartez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Oŕek nik nai-izango *nikeana* utziko *lidakek* eta bereala; ... - Ez *liguketen* bazkaltzen emango gure etxean bezin ondo; ... - Iñoiz ez *nikikek* gauza nimiñoena ere kenduko, ziuŕ egon aiteke; ... - Artzain oyek gure zaldi beoŕ guztiak egokiro zainduko *lizkiguketen* laŕe ayetan; ... - Mutil biuŕi oŕek al-izango *likekan* guztia ebatsiko *liekek*, lenago ala geroago; ... - Nik intxauŕak geyago ekaŕiko *nizkikekan*, baña zertarako geyago?; ... - Guk gure semeari ez *geniokekan* bezuza oberik iñoiz ekaŕiko; ... - Endore jaunari, pozik, opari obea eskeiñiko *zioketenan*, al-izan ezkero; ... - Orenlaria galduko *baidak*, ez *nikikek* beste bat erosiko; ... - Ori egitea aginduko *baliguten*, egokiro erantzungo *genieken*; ... - Beren lanak erakutsiko *balizkitek*, aŕiturik geratuko intzake; ... - Beren auŕak estualdi ortatik aterako *bagenizkien*, oso pozik geratuko *litzaketen*; ...

3. Orain arte egin dugun bezela, uŕengo galderai erantzun egoki

bana eman beaŕ zaye, beaŕ-izan ezkero zutano'zko aditzerak erabiltzean; esanez eta idatziz:

Erditik malgutuko lidaketek eta gero apurtuko ukek eskierki: Nori malgutuko lioketek erditik?; ... - Zer apurtuko ukek eskierki?; ... - Nik malgutuko al nikikek?; Ez, i ez ... -- Bere landareak iñork baño obeto muetatuko genizkioken: Nork muetatuko lizkioken bere landareak iñork baño obeto?; ... - Zer muetatuko lioketen iñork baño obeto?; ... - Niri ere nire landareak iñork baño obeto malgutuko al izkidaken?; Bai, nik ... -- Garaiz gaztigatuko likiketek ire arlo guztiak gerturik euki al itzakekan: Nori gaztigatuko lioketek bere arlo guztiak gerturik euki al zitzakekan?; ... - Zertarako gaztigatuko lidaketek garaiz?; ... - Nik gaztigatuko al nikikek garaiz, ire arlo guztiak gerturik euki al itzakekan?; Ez, ik ez ... -- Alabaña, orduan al-izan uan guzia laidotu ginduken: Nork laidotu zinduzten al-izan zian guzia?; ... - Nor laidotu uan al-izan uan guzia?; ... - Ni laidotu al nindukan al-izan uan guzia?; Ez, i ez ... -- Esan ezayek auŕ biuŕi oyei ainbeste oyu-egin ez dezatekan: Nortzuei esan beaŕ zieat ainbeste oyu-egin ez dezatekan?; ... - Iri esan beaŕ al dikiagu ainbeste oyu-egin ez dezakan?; ... - Niri esan beaŕ al didak ainbeste oyu-egin ez dezakadan?; Ez, iri ez ... -- Nebatzat onartuko bagindun, gure biziaren alaitasun aundiena emango iguken: Zer emango nizueke nebatzat artuko bazinduztet?; ... - Nori emango nioken bere biziaren alaitasun aundiena nebatzat onartuko banin?; ... - Niri ere nire biziaren alaitasun aundiena emango al idaken, nebatzat onartuko banindun?; Bai ene ustez, iri ere ... -- Gazte askoŕ oŕi egin zitian eginkizunak onetsi zizkioagu: Nik onetsi al zizkioat gazte askoŕ oŕi egin zitian eginkizunak?; ... - Zer onetsi diok gazte askoŕ oŕi?; ... - Niri onetsi al dizkidak egin zitiadan eginkizunak?; Ez, ... baño. -- Egiztu bezaten egipen ayerkoŕ bat egin ez ditenala ta gure artean atotsiko zitiñagu: Nor atotsiko dun, egipen ayerkoŕ bat egin ez diñala egiztu ezkero?; ... - I atotsiko al augu, egipen ayerkoŕ bat egin ez dunala egiztu ezkero?; ... - Ni atotsiko al naun, egipen ayerkoŕ bat egin ez diñadala egiztu ezkero?; Bai, i ere ... -- Beren belbiĺa eskeiñiko balidatek, onartuko nikek, aisa gero!; Nork onartuko likek beren belbiĺa eskeiñiko baliotek?; ... - Ik onartuko al ukek beren belbiĺa eskeiñiko balikitek?; ... - Nik onartuko al nikek beren belbiĺa eskeiñiko balidatek?; Bai, ik ere ... -- Ire semesoek joko oso ausartak zerabilzkiten: Nork zerabilzkin joko oso ausartak?; ... - Nik al zerabilzkiñat joko oso ausartak?; ... - Ik al darabilzkin joko oso ausartak?; Ez, ... baizik. -- Erantzutea ire esku balegok

jakin nai diadan guztia idatzi ezaidak: Nork idatzi beaŕ zidak jakin nai diadan guzia?; ... - Zer idatzi beaŕ dikiat?; ... - Niri idatzi beaŕ al zidak oŕek, jakin nai diadan guzia?; Ez, oŕek ... -- Beaŕ dezanana ornituko dikiten abiatzen aizen bide latz eta luzerako: Zer ornituko zidaten abiatzen naun bide latz eta luzerako?; ... - Nori ornituko zioten beaŕ dezana abiatzen dunan bide latz eta luzerako?; ... - Zuei ornituko al dizuete beaŕ dezazutena abiatzen zeraten bide latz eta luzerako?; Ez, guri ez ... -- Zakuŕ amoŕatu oŕek ozka-egingo induken, bere ondotik iraduz igaroko baintz: Nor ozka-egingo liken zakuŕ amoŕatu oŕek, bere ondotik iraduz igaroko balitzan?; ... - Zeñek ozka-egingo induken, bere ondotik iraduz igaroko baintz?; ... - Ni ere ozka-egingo al ninduke zakuŕ amoŕatu oŕek, bere ondotik iraduz igaroko banindun?; Bai, i ere ... -- Onuntz zuzendu indunagun gizatxaŕ oyek atzitu ez intzaten: Nork zuzendu ninduen onuntz gizatxaŕ oyek atzitu ez nintzaten?; ... - Nik zuzendu al indunadan onuntz gizatxaŕ oyek atzitu ez intzaten?; ... - Ni zuzendu al nindunan onuntz gizatxaŕ oyek atzitu ez nintzaten?; Ez, i ez ... -- Garaiz mezutu baliotek, bere aita bizirik ikusi zezakekan: Guk garaiz mezutu bageniok, bere aita bizirik ikusi al zezakekan?; ... - Iri garaiz mezutu balikitek, ire aita bizirik ikusi al ezakekan?; ... - Niri garaiz mezutu baidak, nik ere nire aita bizirik ikusi al nezakekan?; Bai, ik ere ...

4. Ondo irakurtzekoa da uŕengo idatzatala, ta irakuŕi ondoren bakoitzak euzkerari buruz eta gure gogo-lantzearekiko uste duena azal dezala, naiz itzez naiz idatziz:

«KENKA LAŔIA»

«Euzkaldungo guziak betidanik nozitzen ari dan laŕiunerik goŕiena oraingoxe au edo da, noski.

1936'gnetik 1939 urtez geroz, guda galgaŕia kariz, gaitz izugaŕiak erori zaizkigu gañera. Ogasunen gora-berak, nekazaritzaren kenka txaŕa, baseŕiak uztutzea, aŕotz-etortzea, eŕiketa-moŕontza ta ainbat aldaketa gaizto, oŕa nola luŕ-jota daukate gure Eŕi doakabea.

Doi-doi, euzkal-gogoak, seme leyal eta gartsu batzuen biotz barnean dirau, eŕi-elertian, elizan eta bertsolaritzan zitu emanik oraindik.

Luze-zabalean, indaŕez galdutakoa, gogo-lantze ta gogoaren bide sarkoŕagoz ozta-ozta atxikitzen goaz.

Lan gaitz ontan, ezin uka Batikano II batzaŕa suspergaŕi izan zai-

gula, Jainkoa'ri eskeŕ. Eta Liturjia beŕia gantzurin gozo bailitzan, euzkera ta euzkaldungoa laguntzera datorkigu.

Gañerantzeko giro eguratsa ezin guretzat txaŕagoa izan. Eta au aski ezpalitz, ia nola gure arteko liskaŕ, eŕa ta goŕotoak bazteŕak nastutzera datozela. Gazte ta zaaŕen arteko asaŕe itsa piztutzera; buru-bero ta su-emaīle batzuek ondamena edatzen ari zaizkigu.

Abertzale alderdi zaaŕari akaŕ-egitea eŕez da; alegia, geldirik dagoela, ez duela giaŕik, ez igidurik, abaŕ eta abaŕ.

Naimen oneko gazte suaŕ eta bioztunekin elkaŕ-izketan yardutea beaŕezkoa da, asmo zuzenez leyatu diralarik. Ayen asmo ta gogayak entzun ditzagun, beraz; baña, orobat entzun eta jakin ditzatela ayek ere, gure izpideak.

Gazteai bide eman beaŕ diegula gauza agiria da. Zaaŕok egin dezaketen lanik bikañena garaiz gazteai amor-ematea da.

Auek baitira etorkizunaren jabe. Ausardi ta bulaŕa gaztetasunean baitagoz. Eta naiz gazteok beti berekin izpide osoa ez izan, oyu-egin baitezakete:

'Gaztetasunak bainerabīla
Aidean enara bezela...'
.....

'Oi ba ardura nabīla maiteagana...'.

«Tajuz eta Zentzuz» (7-8'gn. oŕialdeetan) Fernando Etxekorena.

EUN ETA IRUGETAMASEIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

IV. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

ADI-YABEAK, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ

IZAKAYAK, IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ

(ZEAŔEZ-BETETZEKOAK: LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ; ETA BIGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ)

Agintzera

Niri:	Be- -ZA- -I- -ZKI- *-Da-*	---- / -TE-	-K / -N	
Guri:	Be- -ZA- -I- -ZKI- *-GU-*	---- / -TE-	-K / *-N*	
Iri:	Di- / Be- -ZA- -I- -Z- -KI- / Di- / Be-	-TE-	-K- / -N-	a) -Da- -N / ---- / a) -GU- -N / ----
Berari:	Di- / Be- -ZA- -I- -ZKI- *-O-* / Di- / Be-	-TE-	-K- / -N-	a) -Da- -N / ---- / a) -GU- -N
Berai:	Di- / Be- -ZA- -I- -ZKI- *-E-* / Di- / Be-	-TE-	-K- / -N-	a) -Da- -N / ---- / a) -GU- -N

Menekoera'zko Oraiñaldia

Niri:	D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-Da-*	---- / -TE-	-K- / -N-	a) -N
Guri:	D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-GU-*	---- / -TE-	-K- / -N-	a) -N

Iri:	D- -i- -ZA- -(I)- -Z- -KI-	-TE-	-K- -N-	a) -Da- ---- -GU- ----	-N
Berari:	D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- -O-	-TE-	-K- -N-	a) -Da- ---- -GU- ----	-N
Berai:	D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- -E-	-TE-	-K- -N-	a) -Da- ---- -GU- ----	-N

171'gaŕen ikaskayan esan zanez, auxe aŕigaŕitzat aŕ diteke: Aldi ontako lenengo, bigaŕen, langaŕen eta boskaŕen erakusbideetan, erak, 173'gaŕen ikaskayan ikusitako aldi berarenetan bezela, itano aditz-jokoaren adizkaya bezela, Tinkiera'zko Oraiñaldiko era bilduak dituzten aditzetan agertzen dan Z- lenengo izkiaz ez astea.

Menekoera'zko Lenaldia

Niri:	Z- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- -Da-	---- -TE-	-K- -N-	a) -N
Guri:	Z- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- -GU-	---- -TE-	-K- -N-	a) -N
Iri:	N- Z- -i- -ZA- -(I)- -Z- -KI- GeN- Z-	-TE-	-K- -N-	a) -N
Berari:	N- Z- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- -O- GeN- Z-	-TE-	-K- -N-	a) -N
Berai:	N- Z- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- -E- GeN- Z-	-TE-	-K- -N-	a) -N

Eginkizunak

Lenengoa iru lauki auetan banatua dago; iruretan, lenengo leŕoan, zeaŕez-betetzekoa adierazten duten izenordeak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabeak adierazten dituztenak; era guztietan, izakaya irugaŕen notiñarena da, bakaŕean; adi-yabe bakoitzerako alkaŕ-betetzekoak, aŕ eta eme, azaltzen dira; oŕela, aditz laguntzaĺearen erak dira emateko. Lenengo laukiaren erak Agintzera'zkoak izateko; ta kulatzen ordez, esatean eta idaztean eman beaŕ dira:

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			dizaikiadan	...	...
	— Eme:			...	dizayonadan	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	bezayek
	— Eme:	Bezaidan	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			dizaikiagun	...	...
	— Eme:			...	dizayonagun	...
Berek	— Aŕ :	...	...	...	...	bezayetek
	— Eme:	...	bezaiguten	...	...	...

Bigaŕen laukian, zeatz berberak erabiltzean, Menekoera'zko Oraiñaldi'ko erak jaŕi beaŕ dira, era berean:

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			dizaikiadan	...	...
	— Eme:			...	dizayonadan	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	dizayekan
	— Eme:	Dizaidanan	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			dizaikiagun	...	...
	— Eme:			...	dizayonagun	...
Berek	— Aŕ :	...	...	...	...	dizayetekan
	— Eme:	...	Dizaigutenan	...	...	...

Irugaŕen laukian, zeatz berberak erabiltzen, Menekoera'zko Lenaldi'ko erak ere jaŕi beaŕ dira, jokera berbera erabiltzen:

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			nizaikian	...	...
	— Eme:			...	nizayonan	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	zizayekan
	— Eme:	Zizaidanan	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			genizaikian	...	...
	— Eme:			...	genizayonan	...
Berek	— Aŕ :	...	...	...	...	zizayetekan
	— Eme:	...	zizaigutenan	...	...	...

2. Bigaŕen eginkizun onen esakuntzetan agertzen diran adi-yabeak aldatu beaŕ dira, bakaŕa askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez; orobat, alkaŕ-betetzekoa aŕa bada, emearen bitartez eta alderantziz ere; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Eman *bezaidak* lenbailen ezkubidez *zegokidakana*; ... - Ken *bezaizkiten* ire etxean, oŕen bustita *dauzkanan* galtzerdi oyek; ... - Eskeiñi *dizaizkioagun*, etxean egin *zitiagun* ziztoŕ auek; ... - Ordaindu *bezaizkieten* zoŕ guztiak bereala; ... - Ementxe utzi *dizaidaala* erenegun eraman *zidaan* beoŕ ura!; ... - Ikastetxe ontara ekaŕi augu ikaskai guziak ongi irakasi *dizaizkitenan*; ... - Beren umeak utzi *zizkietek*, beaŕ dukan bezela zaindu *dizaizkietekan*; ... - Lanabesa ori bialdu *zionan*, ongienik gorde *dizaionan*; ... - Solora bialdu genian, bedaŕ guzia ondo ebagi *zizaigukan*; Aŕain auek ekaŕi *izkigunan*, gure sukaldean eŕegosi *genizaizkiñan*, ala ez?; ... - Isituki, gure etxea saldu *genizaiokala* eskatzen *zigukan*; ... - Beren auŕak bide onetik zuzendu *nizaizkienala* nai-izan zitenan; ...

3. Beste ikaskayetan egin dugun bezela, emen ere, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, beaŕ danean zutanozko eran erabiltzean; itzez eta idatziz egiteko:

Ez diagu geron burua ainbeste goratu, oŕela oles-egin dizaigutekan: Nortzuek ez ditek beren burua ainbeste goratu, oŕela oles-egin dizaietekan?; ... - Zer ez dik oŕek ainbeste goratu, oŕela oles-egin dizaiotekan?; ... - Nik nire burua ainbeste goratu al diat, oŕela oles-egin dizaidatekan?; Ez, ik ez ... -- Isitu ezan, zoŕ dikitenana eskatzen, zerbait bederen ordain dizaikitenan: Nork isitu beaŕ din, zoŕ ziotenana eskatzen, zerbait bederen ordain dizaiotenan?; ... - Zer eskatu beaŕ zieten, zerbait bederen ordain dizaietenan?; ... - Nik ere zoŕ zidatenana eskatu beaŕ al zienat, zerbait bederen ordain dizaidatenan?; Bai, ik ere ... -- Ostetu balizayetek, txindi biīa beste toki batera joan beaŕ-izango ziketekan: Nortzuek joan beaŕ-izango ziketekan beste toki batera txindi biīa, ostetu balizayetek?; ... - Nora joan beaŕ-izango zikekan oŕek diru biīa, ostetu balizayotek?; ... - Ik ere, txindi biīa, beste toki batera joan beaŕ-izango al ukekan, ostetu balizaikitek?; Ez, nik ez ... -- Su ta gaŕ zegokin; ori etxera badakarkin, xista-pista batean puskatuko dikin: Nori puskatuko zion ori xista-pista batean, etxera bazekarkin?; ... - Zer puskatuko zien xista-pista batean, etxera bazekarkiten?; ... - Niri ere xista-pista batean puskatuko al zidan, etxera bazekarkiñat?; Bai, iri ere ... -- Ez diñat janaria emendik eramango, txasta dizaidatenan

arte: Nork ez din janaria emendik eramango, txasta dizayotenan arte?; ... - Noiz arte ez duzute janaria emendik eramango?; ... - Ik ere ez al dun janaria emendik eramango, txasta dizaikitenan arte?; Bai, nik ere ... -- Bere aitak atsa usaindu dizayokan bezin laisteŕ, eŕe egin dikala jakingo dik: Noiz jakingo diagu eŕe egin dikala?; ... - Zer jakingo ditek bere gurasoek atsa usaindu dizayotekan bezin laisteŕ?; ... - Nik ere eŕe egin dikala jakingo al diat, atsa usaindu dizayokadan bezin laisteŕ?; Bai, ziuŕ, ik ere ... -- Austu ziotenan osoro, ta oldoztu ere egin gabe: Nori austu genionan osoro, ta oldoztu ere egin gabe?; ... - Ayek austu al ziotenan osoro, ta oldoztu ere egin gabe?; ... - Nik austu al nionan osoro, ta oldoztu ere egin gabe?: Ez, ik ez ... -- Makiña bat bideŕ salatu induten eta eŕurik gabe: Nor salatu zitean makiña bat bideŕ eta eŕurik gabe?; ... - I salatu al indugun makiña bat bideŕ, eta eŕurik gabe gañera?; ... - Ni salatu al ninduzuten makiña bat bideŕ eta eŕurik gabe?; Ez, i ez ... -- Landare ayek bialdu nizkiekan, muetatu zizaizkidatekan: Nortzuei bialdu izkiekan landare ayek muetatu zizaizkitekan?; ... - Zertzuk bialdu izkidakan, muetatu nizaizkikan?; ... - Guk bialdu al genizkiekan landare ayek, muetatu zizaizkigutekan?; Ez, zuek ez ... -- Apaltasunez ikasguan sartzeko ordua atzeratu dizayeagula aŕendu zigutek: Nori aŕendu ziotek apaltasunez, ikasguan sartzeko ordua atzeratu dizayeala?; ... - Zer aŕendu ziotek apaltasunez?; ... - Niri aŕendu al zidatek apaltasunez, ikasguan sartzeko ordua atzeratu dizayeadala?; Ez, iri ez ... -- Ez zekizkitekan beren abeŕiaren edestiko jazoak, guk nai-izango genikekan bezela: Nork ez zekizkikan bere abeŕiaren edestiko jazoak, zuek nai-izango zenuketean bezela?; ... - Zer ez zekitekan nik nai-izango nikean bezela?; ... - Nik al nekizkikan nire abeŕiaren edestiko jazoak ik nai-izango ukean bezela?; Ez, ik ere ez ... -- Gure oldozteko era jakin-erazi genionan, berak bere aŕazoibideak ostetu zizaizkigunan: Nori jakin-erazi zenioten zuen oldozteko era, berak bere aŕazoibideak ostetu zizaizkizuen?; ... - Zer jakin-erazi ionan, berak bere aŕazoibideak ostetu zizaizkiñan?; ... - Nik jakin-erazi al nionan nire oldozteko era, berak bere aŕazoibideak ostetu zizaizkidanan?; Bai, ik ere ... -- Era berean bera gugana etortzen uan onu-eman genizayokan: Nor etortzen uan era berean zuengana onu-eman zenizayoten?; ... - Norengana etortzen uan era berean onu-eman zizayokan?; ... - Ni etortzen al ninduan era berean berarengana onu-eman zizaidakan?; Ez, i ez ... -- Askiki egiztuko bagenion, arloa askoan eukiko liken: Nork eukiko liken askoan arloa, askiki egiztuko banion?; ... - Zer eukiko liketen askoan, askiki egiztuko

bagenien?; ... - Nik ere arloa askoan eukiko al niken, askiki egiztuko balidaten?; Bai, ik ere ... -- Bein eta beŕiro egin unana ukatu igunan: Nori ukatu ionan bein eta beŕiro egin unana?; ... Zer ukatu idanan bein eta beŕiro?; ... - Nik ukatu al nikiñan bein eta beŕiro egin niñana?; Bai, ik ere ...

4. Emen jartzen dugun irakurgaya astiro ta aŕetaz irakuŕi beaŕ da, ta gero bertan itanoz agertzen diran esakuntzak zutanoz ipiñi beaŕ dira, bi aditzera ezberdin oyek alkaŕekiko ongi nabaritzeko:

«XII - LANAREN SARI»

— «Bai, seme, ba-zekiat ire leyaltasunaren truk ezer itxaro ez dukala ta seme zintzo baten jokabidea orixe duk, ain zuzen. Baña ala ta guztiz ere nik eman gura dikiat, Butroe'ko izkīluak ospez bete baītituk iñork ez beste.

— Ongi mintzatu zera, aita, ene anayak ez bezela jokatu bainaiz beti zure alde. Onengatik, iruditzen zait, sariak ez duela ene joka-malaren lotsarik izanen.

— Bai, bai, ala uste diat nik ere —erantzun zion Gomiz Onzalutx'ek bere semearen aŕokerizko zipoa jasoaz.

— Etzaizu damutuko, aita, ni izango bainatzaizu gudaririk kementsuena eta moŕoi leyalena bizi zeran artean.

— Uste ortan natxiok ni ere, Otxoa, eta eztuk ire joka-legeaz damutu beaŕik izanen. Baña, goazemak arira, seme. Ire bi anayarik zaaŕenak, Eneko ta Onzatu, Bizkaya'ko etxe kaparetako alabaekin ezkondu itukan...

— Txordon Legizamon jaunaren kaparetasuna loitu xamaŕa egonaŕen... oaŕerazi zion Otxoa'k, maxiazale.

— Bai, noski, eta alako ataŕamentua ekaŕi dik; baña ori eztuk nire eŕua... Baña joanak joan, i aut irugaŕen semea.

— Orain bigaŕena, aita, mail bat irabazi baitut —ebaki zion Otxoa'k panpaŕoikeriz.

— Bai, ala duk, zoritxaŕez, Onzalu gizajoak ezpaitik geyago bururik jasoko. I, ezkongai ago ta ire etorkizunak kezkaturik natxiok.

— Bai ni ere, aita; etzazula uste ezetz.

— Oŕa ba, iretzako ere ba-zeukaat neskatīla bat begiz jota.

— Nor da bera?

— Urdaibai'ko Mariana, Meteri Ioane-Done jaunaren alaba.

— Dakustanez, beŕiz ere alaba bakaŕ bat begiz jo duzu, aita.

— Bai, seme, ire onari begiratuz berexi diat Urdaibai'ko jabegaya. Gaizki al deritzak?

— Ez nuen ene iritzia agertzeko asmorik, baña, eskatzen didazun ezkero, eztut uste Urdaibai'ko alaba Butroe'ko baten lain denik.

— Butxoe'ko oñordekoarentzat ez, noski; baña gogoan euki ezak irugaŕena aizela».

«Goŕotoa lege» (139-40-i'gn. oŕialdeetan) Yon Etxaide-Itarte.

EUN ETA IRUROGETAMAZAZPIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

IV. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

ADI-YABEA, LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ
IZAKAYAK, IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ
(ZEAŔEZ-BETETZEKOAK: LENENGO TA IRUGAŔEN NOTIÑAK, BAKAŔ ETA ASKAŔ; ETA BIGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ)

Almenera'zko Oraiñaldia

Niri:	D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-Da-* -KE-	---- -TE-	-K -N	
Guri:	D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-GU-* -KE-	---- -TE-	-K -N	
Iri:	D- -i- -ZA- -I- -Z- -KI- -KE-	-TE-	*-K- -N-*	a) -T -- -GU ---
Berari:	D- -i- -ZA- -(I)- ZKI- *-O-* -KE-	-TE-	-K- -N-	a) -T -- -GU ---
Berai:	D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-E-* -KE-	-TE-	-K- -N-	a) -T -- -GU ---

Aldi ontako lenengo, bigaŕen, laugaŕen eta boskaŕen erakusbideai buruz, auŕeko ikaskayan, oyei dagozkien Menekoera'zko Oraiñaldiko eraekiko egin zan oarketa bera egin diteke.

Almenera'zko Lenaldia

Niri:	L- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-Da-* -KE-	---- -TE-	-K -N	
Guri:	L- -i- -ZA- -(I)- -ZKI *-GU-* -KE-	---- -TE-	-K -N	

Iri:	N- L- GeN- L- -i- -ZA- -I- -Z- -KI- -KE-	-TE-	*-K -N*	
Berari:	N- L- GeN- L- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-O-* -KE-	-TE-	-K -N	
Berai:	N- L- GeN- L- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-E-* -KE-	-TE-	-K -N	

Almenera'zko Lenagoko Geroaldia

Niri:	Z- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-Da-* -KE-	---- -TE-	-K- -N-	-AN
Guri:	Z- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-GU-* -KE-	---- -TE-	-K- -N-	-AN
Iri:	N- Z- GeN- Z- -i- -ZA- -I- -Z- -KI- -KE-	-TE-	*-K- -N-*	-AN
Berari:	N- Z- GeN- Z- i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-O-* -KE-	-TE-	-K- -N-	-AN
Berai:	N- Z- GeN- Z- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-E-* -KE-	-TE-	-K- -N-	-AN

Almenera'zko Ustekizuna - Oraiñaldia

Niri:	AL BA- -D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-Da-*	---- -TE-	-K -N	
Guri:	AL BA- -D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-GU-*	---- -TE-	-K -N	

Iri:	AL BA- -D- -i- -ZA- -I- -Z- -KI-	-TE-	-K- -N-	a)	-T -- -GU ---
Berari:	AL BA- -D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-O-*	-TE-	-K- -N-	a)	-T -- -GU ---
Berai:	AL BA- -D- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-E-*	-TE-	-K- -N-	a)	-T -- -GU ---

Almenera'zko Ustekizuna - Lenaldia

Niri:	AL BA- -L- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-Da-*	---- -TE-	-K -N
Guri:	AL BA- -L- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-GU-*	---- -TE-	-K -N
Iri:	AL BA- -N- -L- GeN- -L- -i- -ZA- -I- -Z- -KI-	---- -TE-	-K -N
Berari:	AL BA- -N- -L- GeN- -L- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-O-*	---- -TE-	-K -N
Berai:	AL BA- -N- -L- GeN- -L- -i- -ZA- -(I)- -ZKI- *-E-*	---- -TE-	-K -N

Egin kizunak

1. Lenengoa, bost lauki auetan banatua dago; bostetan, lenengo leŕoan, zeaŕez-betetzekoa adierazten duten izenordeak jartzen ditugu, ta ezkeŕ-aldean, goitiberako zeŕendan, adi-yabak adierazten dituztenak;

emengo era guztietan, izakaya irugaŕen notiñarena da, bakaŕean; adi-yabe bakoitzerako alkaŕ-betetzekoak ere, aŕ eta eme, agertzen dira; oŕela, aditz laguntzalearen erak dira emateko. Lenengo laukiaren erak Almenera'zko Oraiñaldi'koak izango dira; ta kulatzen ordez, esan eta idazteko :

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			dizaikikeat	...	...
	— Eme:			...	dizayokenat	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	dizayekek
	— Eme:	Dizaidaken	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			dizaikikeagu	...	...
	— Eme:			...	dizayokenagu	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	dizayeketek
	— Eme:	...	dizaiguketen	...	...	...

Bigaŕen laukian, zeatz berberak erabiltzean, Almenera'zko Lenaldi'ko erak eman beaŕ dira, era berean :

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			nizaikikek	...	...
	— Eme:			...	nizayoken	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	lizayekek
	— Eme:	Lizaidaken	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			genizaikikek	...	...
	— Eme:			...	genizayoken	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	lizayeketek
	— Eme:	...	lizaiguketen	...	...	...

Irugaŕen laukian, zeatz berberak erabiltzen, Almenera'zko Lenagoko Geroaldi'ko erak ere ipiñi beaŕ dira, jokera berberaz beti :

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			nizaikikean	...	...
	— Eme:			...	nizayokenan	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	zizayekean
	— Eme:	Zizaidakenan	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			genizaikikean	...	...
	— Eme:			...	genizayokenan	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	zizayeketean
	— Eme:	...	zizaiguketenan	...	...	...

Laugaŕen laukian, zeatz berberak erabiltzean, Almenera'zko Ustekizun'aren Oraiñaldi'ko erak dira jartzeko, jokera berean yarduten:

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			al badizaikiat	...	...
	— Eme:			...	al badizayonat	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	al badizayek
	— Eme:	Al badizaidan	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			al badizaikiagu	...	...
	— Eme:			...	al badizayonagu	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	al badizayetek
	— Eme:	...	al badizaiguten	...	...	...

Boskaŕen lauki ontan, zeatz berberak erabiltzen, Almenera'zko Ustekizun'aren Lenaldi'ko erak ageŕerazi beaŕ dira, lengo jokera berberaz:

		Niri	Guri	Iri	Berari	Berai
Nik	— Aŕ :			al banizaikik	...	...
	— Eme:			...	al banizayon	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	al balizayek
	— Eme:	Al balizaidan	...	...	...	...
Guk	— Aŕ :			al bagenizaikik	...	...
	— Eme:			...	al bagenizayon	...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	...	al balizayetek
	— Eme:	...	al balizaiguten	...	...	...

2. Bigaŕen eginkizun onen esakuntzetan agertzen diran adi-yabeak aldatu beaŕ dira, bakaŕa askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez; berdin, alkaŕ-betetzekoa aŕa bada, emearen bidez, eta alderantziz ere; kulatzen ordez esan eta idazten:

Arantz au atera *dizaidakek* nai baldin *badik*; ... - Azpil guztiak garbi *dizaizkiketen* bazkaldu ta gero; ... - Ezin ipiñi *dizaiokeagu* bere otaŕean eskatu *ziguana*; ... - Etxea txukundu *lizaiguken* laisteŕ eta ongi; ... - Gauzak asko esan *nizaizkikek* baña ezin, oso iraduz *nabilkik* eta; ... - Beren txindi guzia ebatsi *lizayeketen*, aŕetaz ibiliko *ezpalitzaten*; ... - Gure soloak landatu *al zizaizkiguketean*, baña oso alpeŕak itualako ez *zitean* ezertxo ere egin; ... - Geyago abestu *al genizaikikenan*, baña oso nekatuta *gengozkiñan*; ... - Beyak jaitzi *al badizaizkidatek*, laguntza oso aundia egingo zigutek; ... - Nai *dunan* guzia lortu *al badizaikiten*, oso pozik egon al-izango aiz; ... - Baratzeko zugatzak iñausi *al balizaizkigutek*, lan egokia egingo *liguketek*; ... - Bere sakelak bete *al banizaizkion*, uste *diñat* bere etxera oso pozik joango *ukenala*; ...

3. Beti bezela, uŕengo galderai erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, noraezekoa izango danean zutano aditzerak erabiltzean; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Itxasontziak kai ondoan tinkotu dizaizkiguketek, ziurki: Nori tinkotu dizaizkioketek itxasontziak kai ondoan, ziurki?; ... - Zer tinkotu dizaizuekete kai ondoan, ziurki?; ... - Niri ere tinkotu al dizaizkidaketek itxasontziak kai ondoan ziurki?; Ez, iri ez ... -- Ire eres-ingiak obeto tolestu dizaizkiketenala uste diñat: Nork uste din nire eres-ingiak obeto tolestu dizaizkidaketenala?; ... - Ire ustez, zer tolestu dizaidaketen obeto?; ... - Nik tolestu al dizaizkikenat obeto ire eres-ingiak?; Ez, ... baño. -- Beren janariak txastatu genizaizkieala nai zitean, baña gurekin zirki-mirki zebilzkialako, ez geniekan jaramonik egin: Nork nai zian bere janariak txastatu zenizaizkiotela?; ... - Nortzuei ez zenieten jaramonik egin?; ... - Nik nai al nian nire janariak txastatu zizaizkidateala?; Ez, ik ez ... -- Eskatzen dikitean guztia eman beaŕ-izango diek, musindu ez ditezkan: Nortzuei eman beaŕ-izango zieat eskatzen zidatekan guztia, musindu ez ditezkan?; ... - Oyek ere eskatzen zietean guztia eman beaŕ-izango al zietek?; ... - Guk ere eskatzen zigutekan guztia eman beaŕ-izango al zieagu?; Ez, zuek ez ... -- Nai badun erabat egin dizayokenagu: Nori egin dizaiokezute erabat nai badiñat?; ... - Nola egin dizaigukezute nai badiñagu?; ... - Nik egin al dizaikikenat erabat nai badun?; Ez, ik ez ... -- Ezin ulertu dizaizkidaketek oŕen zeatzez azaldu zizkieadan asmoak: Nori ezin ulertu dizaizkioketek oŕen zeatzez azaldu zizkiekan asmoak?; ... - Zer ezin ulertu dizaikiketek?; ... - Nik ulertu al dizaizkikeat oŕen zeatzez azaldu dizkidakan asmoak?; Bai, ene ustez ik bai ... -- Leunki, arian ezarian, igandik uŕutiratu gindukan, gaizto alena!; Nor uŕutiratu nian nigandik, leunki, arian ezarian?; ... - Nork uŕutiratu induan berarengandik, leunki, arian ezarian?; ... - Ni uŕutiratu al nindukan, leunki, arian ezarian igandik?; Ez, i ez ... -- Atzo pipeŕ-egin idanan eta gaur, oso nare, ez didan ezer esaten: Nork egin zikiñan pipeŕ atzo, ta gaur ez dikin ezer esaten?; ... - Nori egin nionan pipeŕ atzo, ta gaur ez zionat ezer esaten?; ... - Zer egin zidanan atzo, ta gaur ez zidan ezer esaten?; Nik ... -- Ezin uztu lizaidaketek oxiña nai zitean bezin laisteŕ: Nork ezin uztu lizaidakek oxiña nai zian bezin laisteŕ?; ... - Zer ezin uztu lizaikiketek nai zitean bezin laisteŕ?; ... - Nik uztu al nizaikikek oxiña nai nian bezin laisteŕ?; Ez, ik ere ... -- Ire baratza berealaxen umandu genizaikiken: Nork umandu lizaidaken nire baratza berealaxen?; ... - Noiz umandu lizaidaketen nire baratza?;

... - Nik umandu al nizaikiken ire baratza berealaxen?; Ez, ik ez ... -- Bakaŕik zetozkiñalakoan ez unan gertu guzientzako aski: Nork ez ziñan guzientzako aski gertu, bakaŕik zetozkiñalakoan?; ... - Zer ez niñan gertu, bakaŕik zetozkiñalakoan?; ... - Zein ustean ez geniñan aski gertu?; Bakaŕik ... -- Ire lansaria geitu lizaikiketen, baña zikoitzak ditun eta ez diten egingo: Nori geitu lizayoketen bere lansaria, baña zikoitzak ditunalako ez diten egingo?; ... - Zer geitu lizaidaketen?; ... - Nik geitu al nizaikiken ire lansaria?; Bai, ik ere ... -- Lusagaŕ-gurdi au emen irauli lizaiguketek: Nori irauli lizayoketek emen lusagaŕ-gurdi au?; ... - Zer irauli lizayeketek emen?; ... - Nik irauli al nizaikikek emen lusagaŕ-gurdi ori?; Ez, ik ez ... -- Oneraño ekaŕi gindunan, lenago zuzpertu gindeznan ustean: Nor ekaŕi unan oneraño lenago zuzpretu zediñan ustean?; ... - Nork ekaŕi indunan oneraño, lenago zuzpertu endin ustean?; ... - Nik ekaŕi al indunadan oneraño, lenago zuzpertu endin ustean?; Bai, ik ekaŕi ... -- Oŕelako ankerkeria egingo unala zin-egin baigu, ez genikikenala siñistuko: Nori ez niokenan siñistuko, oŕelako ankerkeria egingo ziñala zin-egin baligun?; ... - Zer ez idakenan siñistuko, zin-egin banikin?; ... - Nik siñistuko al nikikenan, oŕelako ankerkeria egingo unala zin-egin baidan?; Ez, ik ere ...

4. Uŕengo irakurgaya astiro ta ondo irakuŕi ondoren, esan dezala norberak Txina'ri buruz dakien guzia: nolako zabala dan, zenbat biztanle duen, zein luŕasoan dagoen, zein endakoak diran ango seme-alabak, eta abaŕ bakoitzak al dezaken guztia:

«TXINA'KO EDESTIA

«Europa'ko basoetan, lendabiziko gizonak eta abere ezigaitzak zebilzten garayan, Ipaŕ-Txina'ko nabaetan agintari indartsuak zeuden. Ordurako, gizabide auŕeratu bat ezagutzen zuten.

Kristo baño lenagoko 1.765'gaŕen urtean, Txang eŕege-jatoŕiak, lenengo aldiz, idazkerako eraketa bat erabiĩi zuen. Ordutik oraingo gizaldi onen asiera arte, eŕege-jatoŕiak asko izan dira Txina'n. Danak utzi dute beren ezaupidea Txina'ko luŕ-azalean. Eŕi'ak anai-arteko gudaketako ezbeaŕak, basatien saŕerak, ugaldeak, gose-aldiak, izuŕiak eta batez ere agintaritza txaŕak eraman zituen. Matxinada iraunkoŕetako baten ituŕia, Mongolia'n zegoen. Zaldizko basati-taldeak, ipaŕeko malkaŕetatik bein-banan jetxitzen ziran Asia guzia menperatzeko asmoz.

Mongolia'ko Jenjis Khan buruzagiak, txinataŕak beren artean zeukaten gudaketetan naastu, ta txinataŕ gudari-talde danak banaka-banaka ezeztatu zituen. 1.279'gaŕen urtean bere ilobaso Kublai Khan izan zuen oiñordeko. Eŕege izendatu, ta guda beŕien bitartez, bere eŕiak aunditu zituen, Txina Ludi'ko eŕirik indartsuen biurtu arte. Txina izan zan, 1.275'gaŕenetik 1.292'gaŕen arteko urteetan, Polo'taŕ Marko'ek ezagutu zuen eŕia. Berak zabaldu zituen Europa'n, Txina aŕigaŕi baten beŕiak.

Mongoliataŕen agintea, poliki-poliki, makaltzen joan zan. 1.655'gaŕen urtean, ipaŕ-sortaldeko bidetik, mantxuriataŕak sartu ziran Txina'n. Mantxuriataŕak agindu zuten beŕeun urte ayetan, Europa'ko endeŕiak ekindako salerosketa-saŕerak, indaŕ aundia artu zuten. Txina'k gudaketa bat izan zuen Inglateŕa'kin opioa zala-ta; ta beste bat Japon-ekin Korea kendu nai ziolako. Tsu-hsi eŕegiña ospatsuaren aldian, Txina'k alegiñak jo zituen europataŕen ogasun-nagusitza andik uxatzeko. Aren ondorena, 1.900'gaŕen urteko boxersen matxinada izan zan. Giza-talde itxu, ezkutuko gizarte, ta eŕege-gudarien jeikiera bat izan zan, Txina'tik atzeŕitaŕak botatzeko asmoz; baña Europa'tik joandako endeŕi-arteko talde batek menperatu zituen.

1.911'gaŕen urtean, aspalditik berotuta zebiĩen matxinada bat lertu zan. Matxinada'n mantxuriataŕen eŕege-jatoŕia luŕeratuta izan zan eta erkala jaŕi zan».

«Sortalde Uŕutia» (8-9'gn. oŕialdeetan) Izuzkiza'taŕ Yon Yoseba'k euzkeratuta.

EUN ETA IRUROGETAMAZORTZIGAŔEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

IV. ITANO ADITZ-JOKO IRAGANKOŔA

IZENORDEZKO ADIZKIÑAK - ADI-YABEAK, IRUGAŔEN NOTIÑA, BAKAŔ ETA ASKAŔ IZAKAYAK, LENENGO NOTIÑA, BAKAŔ ETA ASKAŔ

Erakusbide auetan, K ta N'k alkaŕ-betetzekoa adierazten dute.

Izakai bakaŕa

Tinkiera'zko Oraiñaldia	:	*Na-* -TXIO-	---- -TE-	-K -N	
Tinkiera'zko Lenaldia	:	*NiN-* -TXIO-	---- -TE-	-K- -N-	a) -N
Baldintzera'zko Geroaldi Urbiĺena	:	*NiN-* -TXIO- -KE-	---- -TE-	-K -N	
Baldintzera'zko Lenagoko Geroaldia	:	*NiN-* -TXIO- -KE-	---- -TE-	-K- -N-	-AN
Baldintzera'zko Ustekizuna	:	Ba- *-NiN-* -TXIO-	---- -TE-	-K -N	

Izakai askaŕa

Tinkiera'zko Oraiñaldia	:	*Ga-* -TXIO-	---- -TE-	-K -N	
Tinkiera'zko Lenaldia	:	*GiN-* -TXIO-	---- -TE-	-K- -N-	a) -N
Baldintzera'zko Geroaldi Urbiĺena	:	*GiN-* -TXIO- -KE-	---- -TE-	-K -N	
Baldintzera'zko Lenagoko Geroaldia	:	*GiN-* -TXIO- -KE-	---- -TE-	-K- -N-	-AN
Baldintzera'zko Ustekizuna	:	BA- *-GiN-* -TXIO-	---- -TE-	-K -N	

Eztakigu aldi auetan, eŕoa bezela, agertzen dan -TXIO- itzatal ori nundik etoŕ diteken; bearbada, aspaldiko eŕo bat eta itanozko adizkaya dan ZE beste itzatalarekin egin zan lenengoko alkartzetik edo.

Izakai bakaŕa

Agintzera	:	*Na-* -ZA-	---- -TE-	-K -N	

Izakai askaŕa

		Ga- -IT- -ZA-	---- -TE-	-K -N	

Izakai bakaŕa

Menekoera'zko Oraiñaldia	:	*Na-* -ZA-	---- -TE-	-K- -N-	a) -N

Izakai askaŕa

		Ga- -IT- -ZA-	---- -TE-	-K- -N-	a) -N

Izakai bakaŕa

Menekoera'zko Lenaldia	:	*NiN* -t- -ZA-	---- -TE-	-K- -N-	a) -N

Izakai askaŕa

		GiN- -t- -ZA-	---- -TE-	-K- -N-	a) -N

Izakai bakaŕa

Almenera'zko Oraiñaldia	:	*Na-* -ZA- -KE-	---- -TE-	-K -N	
Almenera'zko Lenaldia	:	*NiN-* -t- -ZA- -KE-	---- -TE-	-K -N	
Almenera'zko Lenagoko Geroaldia	:	*NiN-* -t- -ZA- -KE-	---- -TE-	-K- -N-	-AN

Izakai askaŕa

Almenera'zko Oraiñaldia	: *Ga-* -IT- -ZA- -KE-	---- -TE-	-K -N	
Almenera'zko Lenaldia	: *GiN-* -t- -ZA- -KE-	---- -TE-	-K -N	
Almenera'zko Lenagoko Geroaldia	: *GiN-* -t- -ZA- -KE-	---- -TE-	-K- -N-	-AN

	-Na-			-Da-		
AL BA-	-Da-	-KI-		-O-	-K / -N	
	-Ga-		-ZKI-	-GU-		
	-Da-		-ZKI-	-E-		

ALMENERA'ZKO USTEKIZUNA - LENALDIA

ERAKUSBIDE OROKAŔA

	-eN-		-K	(-N)
	-NeN-		-Da-	-K
AL BA-	-Le-	-KI-	-O-	-N
	-GeN-	-ZKI-	-GU-	
	-Le	-ZKI-	-E-	

EGINKIZUNAK

1. Lendabiziko lauki ontako lenengo leŕoan, zeaŕez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabeak erakusten dituztenak, aŕ eta eme bereiztean; kulatzen ordez, Almenera'zko Oraiñaldi'rako dagozkion erak esan eta idazteko :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Akidakek	...	...	...
	— Eme:		...	akioken	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		nakiekek
	— Eme:	Nakiken		...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	dakigukek	...
	— Eme:	...	...	dakioken	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		gakizkiekek
	— Eme:	Gakizkiken		...		...
Berak	— Aŕ :	...	dakizkidakek	...	...	...
	— Eme:	...	...	...	dakizkiguken	...

1. Bigaŕen lauki ontan, auŕekoan ageŕerazi ditugun zertzeladak berak jartzen ditugu; kulatzen ordez, Almenera'zko Lenaldi'rako dagozkion erak esan eta idazteko ere :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Enkidakek	...	...	...
	— Eme:		...	enkioken	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		nenkiekek
	— Eme:	Nenkiken		...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	lekigukek	...
	— Eme:	...	...	lekioken	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		genkizkiekek
	— Eme:	Genkizkiken		...		...
Berak	— Aŕ :	...	lekizkidakek	...	...	...
	— Eme:	...	...	...	lekizkiguken	...

1. Irugaŕena dan lauki ontan, auŕeko beste bietan aipatu ditugun zertzeladak berak ipintzen ditugu; kulatzen ordez, Almenera'zko Lenagoko Geroaldi'rako egokiak izango diran erak esan eta idazteko :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Enkidakekan	...	...	...
	— Eme:		...	enkiokenan	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		nenkiekekan
	— Eme:	Nenkikenan		...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	zekigukekan	...
	— Eme:	...	...	zekiokenan	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		genkizkiekekan
	— Eme:	Genkizkikenan		...		...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	zekizkigukekan	...
	— Eme:	...	zekizkidakenan	...	...	...

1. Laugaŕen lauki ontan, auŕeko beste iruretan azalerazi ditugun zertzeladak berak ageŕerazten ditugu; kulatzen ordez, Almenera'zko Ustekizun'aren Oraiñaldi'rako egokiak izango diran erak esan eta idazteko :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Al baakidak	...	...	...
	— Eme:		...	al baakion	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		al banakiek
	— Eme:	Al banakin		...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	al badakiguk	...
	— Eme:	...	...	al badakion	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		al bagakizkiek
	— Eme:	Al bagakizkin		...		...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	al badakizkiguk	...
	— Eme:	...	al badakizkidan	...	...	...

1. Boskaŕena dan azken lauki ontan, auŕeko beste lauetan eman ditugun zertzeladak berak ipintzen ditugu; kulatzen ordez, Almenera'zko Ustekizun'aren Lenaldi'rako era egokiak esan eta idazteko :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Al baenkidak	...	...	...
	— Eme:		...	al baenkion	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		al banenkiek
	— Eme:	Al banenkin		...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	al balekiguk	...
	— Eme:	...	...	al balekion	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		al bagenkizkiek
	— Eme:	Al bagenkizkin		...		...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	al balekizkiguk	...
	— Eme:	...	al balekizkidan	...	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan ematen diran esakuntzetan ikus ditezken aditzerak onela aldatu beaŕ-izango dira: Adi-yabeak lenengo ta irugaŕen notiñenak diranean, bakaŕa askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez, eta aldi baten aŕa emearen bidez eta alderantziz ere; eta adi-yabea bigaŕen notiñarena danean, zeaŕez-betetzekoa bakaŕa izan ezkero, askaŕaren bitartez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez, aldi baten adi-yabea aŕa bada emearen bidez eta alderantziz be; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Ondo igo *akigukek* gureganaño, ez al *duk* nai ala?; ... - Bide zabal ortan bereala auŕeratu *gakizkiken*; ... - Beren auŕak berandutu *dakizkiokek* eta orduan kezkaz beterik egongo *dituk*; ... - Garai onean etxeratu *nenkiken*, beraz lasai egon ni eldu arte; ... - Gaberdian baño lenago oeratu *lekiekek*, uŕengo goizean atsedenez jeiki al-izateko; ... - Ez al *enkioken* batu ire eŕiko gaztediari, bakaŕik ez ibiltzeko?; ... - Oartu gabe atzeratu *nenkiekekan*, ta oŕengatik arin ibīli beaŕ-izan *nian*; ... - Nai-izan *balin*, noiz-nai alkartu *zekigukenan*, guzion artean lana obeto burutzeko; ... - Berezi *al baakiek*, ene ustez *eztuk* ezer galduko, irabazi baño; ... - Naŕastu *al badakizkigun*, lotsarik gabe ori ere egingo *diten*; ... - Ire etxeko zabuan zabuatu *al bagenkizkik*, egunero joango *gintzaizkikek* alkaŕekin jolasteko; ... - Zaŕ maltzuŕ oyek nastu *al balekizkidan*, *etzekiñat* nire lana nola amaituko *niñan*; ...

3. Emen ageŕerazten ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, noraezenean zutanozko erak ere erabiltzean; kulatzen ordez, esanez eta idatziz egiteko:

Gure bidean atzeratu genkizkiken, baña izan ezan eskiertasuna elduko gindukenala: Nor atzeratu lekiken bere bidean?; ... - Nun atzeratu enkiguken?; ... - Ni ere nire bidean atzeratu al nenkiken?; Bai, i ere ... -- Eragozpen guziak ostetu lekizkiokek; bera beren gañetik eŕaz igaroko litzakek: Zer ostetu lekiokek ari?; ... - Nortzuei ostetu lekizkiekek eragozpen guziak?; ... - Zeren gañetik igaroko litzakek ura?; Eragozpen guzien gañetik ... -- Arduraz itxeki azanagun, eta jausi ez adin, luzatu itzan besoak gureganuntz: Zertarako luzatu beaŕ zitiñat besoak zuenganuntz?; ... - Nork luzatu beaŕ zitin besoak zuenganuntz, jausi ez dediñan?; ... - Guk ere besoak luzatu beaŕ al zitiñagu, arduraz itxeki gaitzatenan?; Bai, zuek ere ... -- Emen eukitzean itzuri al badakidak, beste toki batera eramango diat: Nork eramango dik beste toki batera, emen eukitzean itzuri al badakiok?; ... - Oyek eramango ditek beste toki batera, emen eukitzean itzuri al badakiek?; ... - Eta guk ere beste

toki batera eramango al diagu emen eukitzean itzuri al badakiguk?; Ez, ... baño. -- Gauza oberik otu ezin baakin, zertarako nai augu gurekin?: Ayek nai al ditun irekin, gauza oberik otu ezin badakien?; ... - Gu nai al gaitun irekin, gauza oberik otu ezin badakigun?; ... - Ayek nai al natxioten berekin, gauza oberik otu ezin badakidan?; Ez, i ere ... -- Aizun ayek onu emango balidaten ez nieken jaramonik egingo: Nork ez lieken jaramonik egingo, aizun ayek onu emango balioten?; ... - Zer ez genieken egingo, aizun ayek onu emango baliguten?; ... - Ik jaramonik egingo al ieken, aizun ayek onu emango balikiten?; Ez, nik ere ... -- Edozein egunean uŕundu al bagakizkin, egingo diñagu ta bakaŕik geratuko aiz: Nor geratuko dun bakaŕik edozein egunean uŕundu al bagakizkion?; ... - Nola geratuko naun, edozein egunean uŕundu al baakidan?; ... - Gu ere bakaŕik geratuko gaitun, edozein egunean uŕundu al badakizkigun?; Ez, zuek ez ... -- Besteai bezela okertu al badakizkiek, aŕeta aundiagoaz zaitu beaŕ-izango zitiztek: Nori okertu dakizkiokek besteai bezela?; ... - Nola okertu dakizkidakek?; ... - Iri ere, besteai bezela okertu al badakizkik, aŕeta aundiagoz zaitu beaŕ-izango al dituk?; Bai, nik ere ... -- Esan zidaten nire ikuŕatz-bilduma ik osotuko didanala: Nori esan zioten bere ikuŕatz-bilduma osotuko dionala?; ... - Zer osotuko dikiñat?; ... - Nik esan al zienat oyei, beren ikuŕatz-bilduma osotuko zienadala?; Bai, ik ere ... -- Oŕaztu ezin balekiok, bere bīloak naspīlatuegi zeuzkaalako uan: Zergatik ezin oŕaztu lekiokek?; ... - Iri ere ezin oŕaztu al lekikek ire bīloak naspīlatuegi euzkaalako?; ... - Niri ezin oŕaztu lekidakek nire bīloak naspīlatuegi neuzkaalako?; Noski, iri ere ... -- Aiztu al balekin, zergatik ez unan idazten inguŕazti edo ingi batean?; Aiztu al balekion, nork idatzi beaŕ ziñan inguŕazti edo ingi batean?; ... - Nun idatzi beaŕ niñan aiztu al balekidan?; ... - Guk ere inguŕazti edo ingi batean idatzi beaŕ geniñan, aiztu al balekigun?; Bai, zuek ere ... -- Bai zera!, emendik atera nazatekan arte, nik ez diat iñorako uŕatsik emango: Nork eztik iñorako uŕatsik emango, emendik eatra dezatekan arte?; ... - Noiz arte ez diagu iñorako uŕatsik emango?; ... - Oyek iñorako uŕatsik emango al ditek, emendik atera ditzatekan baño lenago?; Ez, oyek ere ... -- Asaŕetu al baenkigun, i ez gogait-eragiteko oso aŕeta aundiaz ibīliko gintzaizkiken: Ni oso aŕeta aundiaz ibīliko nintzaiken, asaŕetu al baenkidan?; ... - Nola ibīliko litzaidaken, ni ez gogait-eragiteko, asaŕetu al banenkion?; ... - I ere oso aŕeta aundiaz ibīliko intzaikiguken gu ez gogait-eragiteko, asaŕetu al bagenkizkin?; Bai, ni ere ... -- Bere zauriak zornatu al balekizkiok, beaŕa izango litzakek obeto zaindu zitzakala: Nortzuek zaindu beaŕ-izango litiketek

obeto beren zauriak, zornatu al balekizkiek?; ... - Nik ere nire zauriak obeto zaindu beaŕ-izango nitikek, zornatu al balekizkidak?; ... - Eta ik ere ire zauriak obeto zaindu beaŕ-izango itukek, zornatu al balekizkik?; Bai, nik ere ... -- Beren estalkiak uŕatu lizaizkieken, baña iñola ere egin ez dezanala aŕentzen dikiñat: Nork uŕatu lizaizkieken beren estalkiak?; ... - Nori aŕentzen diok beren estalkiak uŕatu ez dizaizkienala?; ... - Nire estalkiak ere uŕatu al lizaizkidaketen ayek?; Ez, ayek ez ...

4. Uŕengo irakuŕ-txatala aŕetaz irakuŕi ondoren, bera agertzen dan «Ebangeline» idaztiaren egīlea nor izan zan esan beaŕ da, bai ta berak argitaratutako idazti ta aldizkaria zeintzuk izan ziran eta nun azaldu zituen ere:

«LENENGO ATALA -I -LARRAZABAL BASAUZOA»

«Akadi luŕaldean, Mina'ko aintziraren bazteŕean, uŕun, berezian, gentzatsu zetzan Laŕazabal eŕixka, ibaŕ igalitsuan. Zelai zabalak sortalderuntz edatzen ziran, eŕixkari bere izena emanik, eta laŕea yan-ala artalde zenbatu-eziñei. Lan eten-gabeaz baseŕitaŕek beren eskuz yaso zituzten ugaiñak geldierazten zituzten itxasaldi ziriñak; baña, garai erabakietan ugateak iriki ta adiguritsu onartua izaten zan itxasoa, ara ta ona ibaŕak gain ibiltzeko. Oixezki ta egoaldean ziran liñu-aloŕak eta baratzak eta arta-soloak, uŕutiraño edatuz, esirik gabe, zelai gain; ta uŕuntsu, ipaŕaldean, Blomidon arkaitza ta baso zaŕak zutik ziran; eta egurats goyan mendien gain itxaso-lañoak bere txabola tinkatzen zuen, ta Atlanti altsutik odeyak ageri ziran ibaŕ zoriontsuaren gain, egundaño, ordea, ez ziran jeisten beren egon-lekutik. Antxe, baseŕi artean, kokatzen zan Akadi eŕixka, Normandi'ko baseŕitaŕek Endika'ren jauraldietan jaso oi zituzten keraz. Lastozkoak ziran egatzak, sapai-leyatīla ta guzti; ta egatz-egalak, etxabea gaindituz, itzalpean ataŕea babesten.

An, udako īlunabaŕ naretsuetan, eguzkiak etzatean eŕiko etxarteak argitan jaŕi ta ke-zulo gañetako aize-oŕatzak uŕegoŕiztean, etxeko andere ta neskatsak eguratsean eseri oi ziran eluŕ-zurizko txanoz eta gona goŕi-urdin-muskeŕez, uŕezko liñua goruetan iruten, euntegi buŕunbatsuetarako; ango añezka zaratatsuak ate-barnean beren otsa txiŕigen negaŕ zuŕumuŕuz ta neskatsen eresiz nastu oi zuten.

Astiro, kaleak-bera ba-zetoŕen txaunburua, ta auŕak jolasa eten oi zuten, onesteko zabaltzen zan eskuari muin egiteaŕen. Beren artean gur-

gaŕi zebīlen; eta etxeko-andere ta neskatsak jeiki ta aren etoŕera astiroa itz adiguritsuz agurtzen. Dagoaneko, aloŕetik etxeratzen ziran baseŕitaŕak ta naretsu eguztia aŕats-apalean murgiltzen zan atseden artzeko, ta ilunabaŕa nagusi zan. Gezu batean, yoaltegitik eztitsu Angelus'ak ots-egiten zuen, eta eŕiko etxeak gain gora ke urdinxka boladak, eun biotzetatik goruntz doazen kedats-lañoak iduri, pake ta poz-egoitzetatik igoten ziran.

Onela bizi ziran orobat maitasunean Akadi'ko baseŕitaŕ xalo ayek, Yainko ta gizakume maitasunean, alegia. Yauntxo ankeŕakin nagusi dan belduŕaz berebat azke ziran, bai ta eŕiak jo oi ditun bekaitzaz ere. Ateentzako ez zituzten moŕoīlorik, ezta langarik ere leyoentzako. Beren egoitzak nornairentzat zabalik ziran, egua ta etxeko-jabeen biotzak bezain zabalik. Bertan, beartsu zan aberatsena, ta beartsuena asaro bizi zan».

«Ebangeline» (7-8'gn. oŕialdeetan) Zaitegi ta Plazaola'taŕ Iokin.

EUN ETA LAROGETALAUGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

V. ITANO ADITZ-JOKOA

ADITZ-JOKO BILDUA DUTEN ADITZEN ARTZAĪE-ADIZKIÑAK

Aditzak : JOAN, ETOŕI, EGON, IBĪLI.

Ikasi beaŕ ditugun aditz auei dagozkien eraetan, -KI- erdizki artzaĪearen ordez, -TXI- agertzen da, notin batzuentzat asko erabiltzen dana.

(Izan ote diteke -TXI- erdizki au, auŕeko ikaskayetan agertu dan -Z- (-Tze-) bestearen aldaketa bat?; -Z- (Tze-) ori, Azkue'k diñoenez (D. 377, I izkia), bizkayeraz itano-zentzuna ematen duen -I- erdizkiaren ordez, beste izkelgietan erabiltzen bide baita).

«JOAN» ADITZA - TINKIERA'ZKO ORAIÑALDIA

NI: *N*- -OA- -KI- -K (-N) / -TXI- -O- / -TXI- -E- / -K / -N

GU: *G*- -OA- -*Z*- -KI- -K (-N) / -TXI- -O- / -TXI- -E- / -K / -N

Lenengo eraen aldaketak: Natxia*k* (-*n*) Gatxiazti*k* (-*n*)

I: OA- -KI- -Da- / -O- / -GU- / -E- / -K / -N

BERA: *Zi*- j) -OA- -KI- -K (-N) / -Da- / -O- / -GU- / -E- / -K / -N

BERAK: *Zi*- j) -OA- -*Z*- -KI- -K (-N) / -Da- / -O- / -GU- / -E- / -K / -N

Lenengo eraen aldaketak: Zitxie*k* (-*n*) Zie*k* (-*n*) Zia*k* (-*n*)

Zijoazte*k* (-*n*) Zeaztik (-*n*)

«JOAN» ADITZA - TINKIERA'ZKO LENALDIA

NI: *NIN*- j) -OA- -KI- -K- (-N-) / -TXI- -O- / -TXI- -E- / -K- / -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketak: Nintxijua(*k*)an (-*n*an) Natxia*k*an (-*n*an)

GU: *GIN*- j) -OA- -*Z*- -KI- -K- (-N-) / -TXI- -O- / -TXI- -E- / -K- / -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketak: Gintxijua(*k*)an (-*n*an)
Gatxiazti (*k*)an (-*n*an)

I: i- j) -OA- -KI- -Da- / -O- / -GU- / -E- / -K- / -N- a) -N

BERA: *Zi*- j) -OA- -KI- -K- / -Da- / -O- / -GU- / -E- (-N-) / -K- / -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketak: Zitxie*k*an (-*n*an)
Zie*k*an (-*n*an)
Zia*k*an (-*n*an)

BERAK: *Zi*- j) -OA- -*Z*- -KI- -K- / -Da- / -O- / -GU- / -E- (-N-) / -K- / -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketak: Zijoazte*k*an (-*n*an)
Zijoazti*k*an (-*n*an)

EGINKIZUNAK

1. Lenango lauki ontan eta bere lenengo leŕoan, zeaŕez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak agertzen dira, ta ezkeŕ-aldeko goitibera-ko zeŕendan, adi-yabeak azaltzen dituztenak, aŕ eta eme bereiztean; kulatzen ordez, Tinkiera'zko Oraiñaldi'rako egokiak izango diran JOAN aditzaren erak esan eta idazteko :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Beraí
I	— Aŕ :		Oakidak	...	...	...
	— Eme:		...	oakion	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		noatxiek
	— Eme:	Noakin		...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	zijoakiguk	...
	— Eme:	...	...	zijoakion	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		goatxiek
	— Eme:	Goazkin		...		...
Berak	— Aŕ :	...	zijoazkidak	...	...	...
	— Eme:	...	...	...	zijoazkigun	...

1. Bigaŕen lauki ontan, auŕekoan eman ditugun zertzeladak berak ematen ditugu; kulatzen ordez, Tinkiera'zko Lenaldi'rako egokiak izango diran JOAN aditzaren erak esan eta idazteko:

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Ijoakidakan	...	...	...
	— Eme:		...	ijoakionan	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		ninjoatxiekan
	— Eme:	Ninjoakiñan		...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	zijoakigukan	...
	— Eme:	...	...	zijoakionan	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		ginjoatxiekan
	— Eme:	Ginjoazkiñan		...		...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	zijoazkigukan	...
	— Eme:	...	zijoazkidanan	...	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan ikus ditezken aditzerak onela aldatu beaŕ-izango dira: Adi-yabeak lenengo ta irugaŕen notiñenak diranean, bakaŕa askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez, eta aldi baten aŕa emearen bidez eta alderantziz ere; eta adi-yabea bigaŕen notiñarena baldin bada, zeaŕez-betetzekoa bakaŕa izan ezkero askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez, aldi baten adi-yabea aŕa bada emearen bidez eta alderantziz be; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Oraintxe *noakik* i besarkatzera; ... - Ba-*goatxien* ongi atosteko; ... - Ta orain, ain berandu, gugandik al *oakiguk*?; ... - Etxetik *oakidan* damurik oaŕerazi gabe, gaizto alen ori!; ... - Igana *zijoakik* ire aŕeba, irekin egoteko nayean; ... - Artzain guziak *zijoazkigun* beren ardiekin mendietara; ... - Izebarengana *ninjoatxiokan* bere maitasunaren biīa; ... - Auŕ xalo ayengana *ginjoatxienan* ajola aundienaz gerturik; ... - Noiz *ijoakidakan* nire aldetik ain zapuzkeri aundiaz?; ... - Len ez *ijoakigunan* gugandik onen sorayoki; ... - Negaŕez *zijoakikan* ume ura gugandik iges-eginda; ... - Beren lagun guztiak *zijoazkienan* zearo asperturik; ...

3. Orain ematen ditugun galdera guztiai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, egokia izango danean zutanozko erak ere erabiltzean; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Aŕanopola!, nora oa ortik oŕen iraduz?; osaba ikustera, orain eldu zaiguk eta: Nor zijoakiok bere osabarengana?; ... - Zergatik goatxiok ire osabarengana onen iraduz?; ... - Ni ere al noatxiok zuen osabarengana?; Ez, i ez ... -- Gure semeak alde batera utzi zitin gure aolkuak eta joan zaigun: Nortzuek utzi zitizten alde batera zuen aolkuak?; ... - Nor dun joan zaizuena?; ... - Ni ere joan al natzain ire aolkuak alde batera utzita?; Bai, i ere ... -- Bialdu digukan koipe guzia lipaŕ batean urtu zaiguk: Nori urtu zayok bialdu zioadan koipe guzia?; ... - Zer urtu zaizue lipaŕ batean?; ... - Niri ere urtu al zaidak bialdu didakan koipe guzia?; Bai, iri ere ... -- Gure landareak astean bein bederen umanduko balizkidaten ez litzaketen igartuko: Zer ez litzaken igartuko astean bein bederen umanduko balikiten?; ... - Nori ez litzaizkioken igartuko bere landareak astean bein bederen umanduko balizkioten?; ... - Niri nire landareak igartuko al litzaizkidaken astean bein bederen umanduko balizkidaten?; Ez, iri ere ... -- Ba-goazkin, ezin geyagoraño lanegin baitiñagu: Nor zijoakidan ezin geyagoraño lanegin baitin?; ... - Nori oakion ezin geyagoraño lanegin baitun?; ... - Ni ba al noatxien ezin geyagoraño lanegin baitiñat?; Ez, ... baizik. -- Arian-ezarian ire indaŕ eta kemen guztiak zijoazkik: Nori zijoazkiok arian-ezarian bere indaŕ eta kemen guztiak?; ... - Zer zijoakiok oŕi arian-ezarian?; ... - Niri ere arian-ezarian nire indaŕ eta kemen guztiak al zijoazkidak?; Ez, ... baño. -- Batez beste ume-ikastola ayetan ikasleen erenak ba-zekiñan batutzen: Nork zekiñan batutzen ume-ikastola ayetan?; ... - Nortzuek zekitenan batutzen ume-ikastola ayetan?; ... - Nik al nekiñan batutzen ume-ikastola artan?; Ez, ik ez ... -- Nerau nenbilkian diñozkikan mendien tontoŕ zoŕotz oyetan: Nor zebilkian nik ziñozkiadan mendien tontoŕ zoŕotz oyetan?; ... - Nun zebilzkian gazte ayek?; ... - I al enbiīen oyek ziñozkitekan mendien tontoŕ zoŕotz oyetan?; Ez, ni ez ... -- Noizean bein oskigiīe kalakari ayengana ninjoakikan: Nor zijoakikan noizean bein oskigiīe kalakari ayengana?; ... - Nortzuengana zijoazkikan ire semeak noizean bein?; ... - I al ijoakidakan noizean bein oskigiīe kalakari ayengana?; Ez, ni ez ... -- Saŕiegi ijoakienan eta nekarazi baño besterik ez ienan egiten, gogaikoŕ alen ori: Norengana ninjoatxienan saŕiegi eta nekarazi baño besterik ez nienan egiten?; ... - Nor zijoakienan saŕiegi ta nekarazi baño besterik ez zienan egiten?; ... - Guregana al ijoakigunan eta nekarazi baño besterik ez igunan egiten?; Ba-liteken, ni ere ... -- Ezin sumindu aiteke oŕela, edozein gauzagatik, ostera gexotzen amaituko aizelako: Nor ezin sumindu ditekek oŕela, edozein gauzagatik, ostera gexotzen amaituko dukalako?; ... - Zuek sumindu al zaitezkete oŕela, edozein gauzagatik?; ... - Uste al duk ni ere oŕela ezin sumindu naitekeala edozein gauzagatik, ostera gexotzen amaituko naukalako?; Bai, nik uste diat i ere ... -- Ez dizkiagu ekaŕi bonbil oyek, oŕen

aguro uztu dizaizkigukan: Nori ez dizkiozute ekaŕi bonbil oyek oŕen aguro uztu dizaizkizuen?; ... - Niri ekaŕi al dizkidak bonbil oyek onen aguro uztu dizaizkikadan?; ... - Iri ekaŕi al dizkiat bonbil oyek, oŕen aguro uztu dizaizkidakan?; Ez, niri ere ez ... -- Ura unan ire amoŕua esnea zijoakiñanean!: Norena unan amoŕua esnea zijoakionanean?; ... - Ayen amoŕua al unan esnea zijoakienanean?; ... - Nire amoŕua al unan esnea zijoakidananean?; Ez, ... baño. -- Iskanbīla arezaz asmoak zijoazkigukan eta ain zuzen ere geyen beaŕ genitianean: Nori zijoazkiokan asmoak eta ain zuzen ere geyen beaŕ zitianean?; ... - Zertzaz zijoazkiekan asmoak eta ain zuzen ere geyen beaŕ zitizteanean?; ... - Iskanbīla arezaz niri ere al zijoazkidakan asmoak eta ain zuzen ere geyen beaŕ nitianean?; Ez, iri ez ... -- Lengo zantzailkeriak berak beŕiz egingo baizkiguk, beŕiro zigortuko indukeagu: Nor zigortuko nikek beŕiro, lengo zantzailkeriak berak egingo balizkidak?; ... - Nork zigortuko indukek beŕiro, lengo zantzailkeriak berak beŕiz egingo baizkiok?; ... - Ni ere beŕiro zigortuko al nintxioketek, lengo zantzailkeriak berak beŕiz egingo banizkiek?; Bai, i ere ...

4. Beti bezela, aŕetaz irakuŕi beaŕ da uŕengo alkaŕ-izketa; gero, ori euzkalduna eztan idazle ospetsu baten lanaren itzulpena dalarik, euzkerara egin diran beste itzulpen batzuk aipatu beaŕ dira, ta, norberaren ustez, zein ote dan itzulpen geyenak egin zaizkion egīle atzeŕitaŕa esan; gañera, itanozko eraen ordez, zutanozko zeintzuk jaŕi beaŕ-izango liraken esan ere.

«AMAL ETA GERO SUDHA»

Amal — Nor aiz, nexka? Nolako otsa ateratzen diten ire besoetako eraztunak! Egon adi apuŕ batean!; nai al dun? (Neskato bat sartzen da).

Sudha — Ezin gelditu nauk, ez diat betarik, berandu duk!

Amal — Ez al dun egon nai? Nik ere ez diñat bada emen egon nai!

Sudha — Zer duk ik? Goizeko izaŕ bat dirudik.

Amal — Etzekiñat. Sendalariak ez natxion irten nadīla uzten...

Sudha — Ez adi bada atera! Sendalariak esaten dikiana egin beaŕ duk, gaiztoa baldin baaiz bada, asaŕetu egingo duk irekin. Ba-zekiat nik, beti leyo ortatik begira aspertuko aizena... Utzi ezaidak pixka bat ixten...

Amal — Ez, ez ezan itxi... Au beste leyorik ez zegokin zabalik... Nor aizen esan nai al didan? Ez audala ezagutzen uste diñat.

Sudha — Ni Sudha nauk.

Amal — Sudha?, zein Sudha?

Sudha — Lore-saltzaīlearen alaba.

Amal — Eta ik zer egiten dun?

Sudha — Nik? Loreak bildu saskitxo ontan.

Amal — Lore biltzen ari al aiz? Oŕengatik ditun oŕen alayak ire oñak, eta oŕengatik ateratzen diten oŕen ots pozgaŕia ire besoetako eraztunak... Ni atera banendin...! Nik bilduko nitiken lore geyenak, ia ezin ikus ditezkenanak...

Sudha — Amaika gauza nik loreena zekiadana...!

Amal — Bai ta nik ere. Mamu ipuñeko Txanpaka eta bere zazpi anayena, guzia zekiñat. Eta une batean ateratzen utziko banintxioten, baso aundi batera joan laisterka ta galdu egingo ninduken. Eta txori ezti jalea egoten dun toki artan Txanpaka lorea izango ninduken ni. Izan nai al dun ik Parul nere aŕeba?

Sudha — Bai zoroa aizen! Nola izango nauk bada ni Parul, ire aŕeba, Sudha izanda?; eta Sasi nere Ama, lore saltzen ibiltzen dukana izanda? Ik baldin baekik nik egunero egin beaŕ-izaten zitiadan lore-txortak...! Ai, benetan pozik egongo ninduken i bezela...!

Amal — Eta zer egingo uken egun guzian?

Sudha — Ez nindukek gutxi jostatuko Benai nere anderekin, eta Meni katuarekin, eta ... Baña, adizak, oso berandu duk eta nik joan egin beaŕ diat; bestela saski utzarekin itzuliko nauk, eta...

Amal — Egon adi beste pixka baten, tira, irekin oso pozik natxegon eta».

«Amal»

«Yakintza» aldizkariaren 7'gaŕen zenbakia. 1934'ko Ilbertz-otsaīla (21-22'gaŕen oŕialdeetan) Rabindranath Tagore - Sabiaga'k euzkeratuta.

EUN ETA LAROGETABOSKAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

V. ITANO ADITZ-JOKOA

ADITZ-JOKO BILDUA DUTEN ADITZEN ARTZAĿE-ADIZKIÑAK

«ETOŕI» ADITZA - TINKIERA'ZKO ORAIÑALDIA

NI: *Na*- -TOŕ- -KI- -K (-N) / -TXI- -O- -K / -TXI- -E- -N

GU: *Ga*- -TOŕ- *-Z-* -KI- -K (-N) / -TXI- -O- -K / -TXI- -E- -N

Lenengo eraen aldaketak: Uatxetoŕ*ek* (*-n*) Gatxetoŕ*ek* (*-n*)

I: aTOR- -KI- -Da- / -O- / -GU- / -E- : -K / -N

Bera: *Ze*- -TOR- -KI- -K (-N) / -Da- / -O- / -GU- / -E- : -K / -N

Berak: *Ze*- -TO(R)-*Z*-KI- -K (-N) / -Da- / -O- / -GU- / -E- : -K / -N

Lenengo eraen aldaketak: Zetoŕ*ek* (*-n*) Zetoztek (*-n*)

«ETOŕI» ADITZA - TINKIERA'ZKO LENALDIA

Ni: *NeN*- -TOR- -KI- -K- (-N-) / -TXI- -O- -K- / -TXI- -E- -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketak: Natxetoŕ*ekan* (*-nan*)
Nentxetoŕ*ekan* (*-nan*)

GU: *GeN*- -TOR- *-Z-* -KI- -K- (-N-) / -TXI- -O- -K- / -TXI- -E- -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketak: Gatxeto(r)zte*kan* (*-nan*)
Gentxeto(r)zte*kan* (*-nan*)

I: eTOR- -KI- -Da- / -O- / -GU- / -E- : -K- / -N- a) -N

Bera: *Ze*- -TOR- -KI- -K- / -Da- / -O- / -GU- / -E- : (-N-) / -K- / -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketa: Zetoŕ*ekan* (*-nan*)

Berak: *Ze*- -TO(R)- *-Z-* -KI- -K- / -Da- / -O- / -GU- / -E- : (-N-) / -K- / -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketa: Zeto(r)zte*kan* (*-nan*)

EGINKIZUNAK

1. Lenengo lauki ontako lenengo leŕoan, zeaŕez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak azaltzen dira, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabeak ematen dituztenak, aŕ eta eme bereiztean; kulatzen ordez, Tinkiera'zko Oraiñaldi'rako egokiak izango diran ETOŕI aditzaren erak esan eta idazteko :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ:		Atorkidak	...	...	...
	— Eme:		...	atorkion	...	...
Ni	— Aŕ:	...		...		natortxiek
	— Eme:	Natorkin		...		...
Bera	— Aŕ:	...	...	...	zetorkiguk	...
	— Eme:	...	...	zetorkion	...	...
Gu	— Aŕ:	...		...		gatortxiek
	— Eme:	Gatozkin		...		...
Berak	— Aŕ:	...	...	...	zetozkiguk	...
	— Eme:	...	zetozkidan	...	...	...

1. Bigaŕen lauki ontan, auŕekoan eman ditugun zertzeladak berak jartzen ditugu; kulatzen ordez, Tinkiera'zko Lenaldi'rako egokiak izango diran ETOŕI aditzaren erak esan eta idazteko :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Etorkidakan	...	...	...
	— Eme:		...	etorkionan	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		nentortxiekan
	— Eme:	Nentorkiñan		...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	zetorkigukan	...
	— Eme:	...	...	zetorkionan	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		gentortxiekan
	— Eme:	Gentozkiñan		...		...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	zetozkigukan	...
	— Eme:	...	Zetozkidanan	...	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan ematen ditugun esakuntzetan ikus ditezken aditzerak onela aldatu beaŕ-izango dira: Adi-yabeak lenengo ta irugaŕen notiñenak diranean, bakaŕa askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez, eta aldi baten aŕa emearen bidez eta alderantziz ere; eta adi-yabea bigaŕen notiñarena baldin bada, zeaŕez-betetzekoa bakaŕa izan ezkero, askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez, aldi baten adi-yabea aŕa bada emearen bidez eta alderantziz be; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

Nola *atorkidak* gaur onen berandu, mutil?; ... - Ain zuzen, berak esan *zidanan* orduan *natortxion*; ... - Asmo zuzenaz *bazetorkiguk* beso zabalik atotsiko *diagu*; ... - Gugana *atorkigun* orain, deitu ez augunean; ... - Gu beti *gatozkik* berdin, irekin jolasteko gogoaz; ... - Maiz *zetozkien* zentzungabeko galderak egiten; ... - Igaz aurten baño txeratsuago *etorkigunan*, neskatīla; ... - Zalantzaz beterik *nentortxiekan* orduan nire irakasleengana; ... - Bere amoñarengana *zetorkionan* aŕatsaldero azkaltzen eman *zizayonan*; ... - Guztiz egarbera *etorkiokan* izebarengana berak zeukaan sagardoa eman *zizaikan*; ... - Noiz *gentozkiñan* iregana asaŕeturik, esan *dunan* bezala?; ... - Ume guzti ayek oro iŕibera *zetozkidakan* nirekin luzaroan egoteko; ...

3. Emen ageŕerazten ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, beaŕa izango danean zutanozko aditzerak erabiltzen; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Lan bati lotua nabilkian aŕen, guzia utzi diat eta i entzutera natorkik: Nor entzutera atorkiok lan bati lotua ibīliaŕen?; ... - Zer utzi duk ni entzutera etortzeko?; ... - Ori al zetorkik i entzutera, lan bati lotua ibīliaŕen?; Ez, ... baño. -- Beti atorkidan berbera eskatzen eta mīla bideŕ esan dikiñat eman ezin dizaikikenadala: Nor zetorkin beti berbera eskatzen?; ... - Nori esan dion mīla bideŕ eman ezin dizaiokenala?; ... - Norengana atorkion beti berbera eskatzen?; ... -- Bizia biŕindu zaiguk ezin geyagoraño: Nori biŕindu zayok bizia ezin geyagoraño?; ... - Zer biŕindu zaizue ezin geyagoraño?; ... - Niri ere bizia ezin geyagoraño biŕindu al zaidak?; Ez, iri ez ... -- Beren naimen on guztietaz adoretuko natxioten, baña alpeŕik izango dun, orain guztiz ukatoŕa nagokiñalako: Nor adoretuko diten beren naimen on guztietaz?; ... - Nor zegokin guztiz ukakoŕa?; ... - I adoretuko al aunagu gure naimen on guztietaz?; Bai, uste diñat ni ... -- Atzak bete lan zegokin eta ala ere egunero zetorkin ire gurasoetaz galdetzera: I al atorkidan egunero nire gurasoetaz galdetzera?; ... - Oyek ere atzak bete lan al zegozkin?; ... - Uste al dun

ni ere atzak bete lan nagokiñala?; Ez, nik ez diñat ... -- Beren auzoko yaukal guztiak era berean zetozkiek: Nortzuk zetozkiok era berean?; ... - Nola zetozkidak nire auzoko yaukal guztiak?; ... - I ere era berean al atorkiguk?; Ez, ni ez ... -- Egin nai ditenena egitea utziko balitzayen, ondatuko liketen: Nork ondatuko liken egin nai dinena egitea utziko balitzayon?; ... - Nik ondatuko al niken egin nai diñadana egitea utziko balitzaidan?; ... - Ik ondatuko al uken egin nai dunana egitea utziko balitzain?; Ez, nik ez ... -- Onezkero landareak zildu balitzatek, ziurki izozteak areago kalte-egingo liekek: Zeri kalte-egingo liokek izozteak ziurki, onezkero landareak zildu balitzatek?; ... - Iri kalte-egingo al likikek izozteak, onezkero landareak zildu balitzatek?; ... - Eta niri kalte-egingo al lidakek izozteak, onezkero landareak zildu balitzatek?; Ez, iri ere ez ... -- Bat-banaka gentozkikan lasaitasun aundiagoaz ikus gintzakan: Nortzuk zetozkikan bat-banaka, lasaitasun aundiagoaz ikus itzakan?; ... - Norengana gentortxiokan bat-banaka, lasaitasun aundiagoaz ikus gintzakan?; ... - Nola gentortxiekan lasaitasun aundiagoaz ikus gintzatekan?; Bat-banaka ... -- Ire kauz gure opil guztiak zeetuko izkigukean: Nork zeetuko zizkikean bere kauz ire opil guztiak?; ... - Zer zeetuko zigukekan bere kauz?; ... - Nik ere nire kauz ire opil guztiak zeetuko al nizkikean?; Bai, ik ere ire kauz ... -- Ez nindunan etoŕi iregana, oŕela zorabiatu nintzanan: Nor ez unan etoŕi iregana, oŕela zorabiatu ezanan?; ... - Nortzuk ez itunan etoŕi iregana, oŕela zorabiatu itzanan?; ... - I etoŕi al intzan niregana, oŕela zorabiatu intzanadan?; Ez, ni ez ... -- Nire zakuŕ zintzoak, irteten nindunanean, alboan edo atzean beti zetozkidanan: Zeintzuk zetozkiñan beti alboan edo atzean, irteten intzanean?; ... - Oŕengana ere al zetozkionan beti bere zakuŕ zintzoak, alboan edo atzean, irteten unanean?; ... - Oyengana al zetozkienan beti beren zakuŕ zintzoak, irteten itunanean, alboan edo atzean?; Ez, ... baizik. -- Onez-on bazetorkikan, zergatik ez ukan atosten obeto, adiskidetzat?; Nik beti atosten nian adiskidetzat onez-on bazetorkidakan: Nortzuk atosten itukan adiskidetzat onez-on bazetozkikan?; ... - Ni atosten al nindukan adiskidetzat onez-on nentorkikanean?; ... - I atosten al indukadan adiskidetzat, onez-on etorkidakanean?; Bai, ni ... -- Gurekiko gure egokeraetan tinkotuko ginduken eta ez geniken ezer egingo: Nortzuk tinkotuko litzaketen berenekiko egokeraetan?; ... - Nork ez liken ezer egingo?; ... - Ni ere nirekiko egokeraetan tinkotuko al ninduken?; Ez, ... baño. -- Ire soñeko muŕitzak zaŕatatuko zitiagu ezin geyagoraño: Zer

zaŕatatuko dik oŕek ezin geyagoraño?; ... - Nik zaŕatatuko al zitiat ire soñeko muŕitzak ezin geyagoraño?; ... - Ik zaŕatatuko al dizkidak nire soñeko muŕitzak ezin geyagoraño?; Ez, nik ez ...

4. Uŕengo irakuŕ-txatala ongi ta astiro irakuŕi ondoren, norberak Eguzki, Īargi ta izaŕai buruz dakiena esan beaŕ-izango du, bai ta ezagutzen dituen izaŕen izenak ere:

«SAŔERA»

«Ona emen gizakumeak, sorkaridia obeto ezagutzeko, egin dituen alegiñak. Ona emen, idazti bakaŕean bilduaz, aztien lendabiziko igargizunen edestia, ortzilari aundien bizitza, auen tresnaen auŕerapena, oyek arkitu dutenaren edestia eta Zabaldi'an garaitzaīe lendabizi gertatu diranen ausardiketak.

Ortzi-tamu aundiaren lendabiziko oŕiak, kaldeataŕek maŕazkitu zituzten, orain 3.000 urte ta geyago. Atzoko ipuña da au, gizadiaren soŕeratik onera dauden mīlaka urteak gogoan artzen badira. Babilonia'ko Bakaldunen aroaz emendik eta kretaaŕek sortu zituzten jakintza-gayen ondoren grezitaŕek izaŕ-moltzoen irudi ikusgaŕiak asmatu zituzten.

Eskorpio, udara-aldiko gauetan, zeru-ertzaren goenean aŕastaka, *Herkules*, beti bere maīuarekin. Negu-aldiko gauetan, *Orion* edeŕa dirdiratsu, ertzak iru uŕezko iltze dituela. «Aundienetako» izaŕetan, batzuek arabezko izenak dauzkate: *Altaīr*, *Aldebaran*, eta *Bega* ere bai. Azkeneko au, urdin bizia, emendik amabi bat mīla urtera, gure ipaŕ-izaŕ motelaren tokian jaŕiko da.

Gizakumeak laisteŕ oartu zuten, ba-dirala izaŕ ibiltariak, «geldi» dauden izartaldeen artean. Ibiltari auei «izarbel» izena eman zieten. Auek, antziñakoen ustean, jainkozko izakiak ziran, eta gizakien arazoetaz arduratuak zebilzten, oberako edo txaŕerako. *Artizaŕa* edeŕaren eta egokiaren goitizaŕa zan. *Marte*, kemenarena. *Jupiter*, zuzenbidearena. Itzal-aldietaz biziro ikaratzen ziran txinataŕak. *Erensugetzaŕ* bat Eguzkia irentsitzen ari zala uste zuten. Alpeŕik jardungo zuten Mandarin'ak, guzti ori izadi-agerkari bat besterik etzala ta. Īargia Eguzkiaren auŕean jartzea besterik etzala gertatu, buruan saŕerazten. Eŕi ezjakiñari egokiago zirudion, gongo-joka Erensugea izutzea.

Itxuraz, auŕeko au bezain burugabeko siñiskeriak joan ziran zabal-

tzen Sartaldean ere. Izan ere, Izaŕiztiak gizakumeen zeintasunak ezagutu ta geroa iragaŕi nai-izan ditu, jayotegunean izaŕak zuten egoera argibide dutela. Ez ditugu, noski, nastu beaŕ, siñiskerien eskuko dan *izaŕiztia* eta zeru-gorputzak zernolakoak diran, nundik nora dabilzten eta nola aldatzen diran ikasten duen *izaŕ-yakintza*.

Gure Ludia auts-ale bat besterik ez da, Sorkaridia osotzen duten mīlaka miīoi izaŕen artean. Baña oŕenbestekoa dan Sorkaridi onek, bere aundiz izutzen gaituen aŕen, bere ixilpeak ikuspidean uzten dizkigu. Gizakumearen irudimen sortzaīea ta aren zenbatza-tresnaen almena, Sorkaridi'aren benetako aundia neurtzeko zorian arkitzen dira gaur».

«Izartegia» (4'gaŕen oŕialdean) Lukas Doŕonsoro'k euzkeratuta.

EUN ETA LAROGETASEIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

V. ITANO ADITZ-JOKOA

ADITZ-JOKO BILDUA DUTEN ADITZEN ARTZALE-ADIZKIŃAK

«EGON» ADITZA - TINKIERA'ZKO ORAIŃALDIA

NI: *Na*- -GO- -KI- -K (-N) / -TXI- -O- -K / -TXI- -E- -N

GU: *Ga*- -GO- *-Z-* -KI- -K (-N) / -TXI- -O- -K / -TXI- -E- -N

Lenengo eraen aldaketak: Natxego*k* (*-n*) Natxio*k* (*-n*) — Gatxeude*k* (*-n*)

I: aGO- -KI- -Da- / -O- / -GU- / -E- : -K / -N

BERA: *Ze*- -GO- -KI- -K / -Da- / -O- / -GU- / -E- : (-N) / -N / -K

BERAK: *Ze*- -GO- *-Z-* -KI- -K / -Da- / -O- / -GU- / -E- : (-N) / -K / -N

Lenengo eraen aldaketak: Zio*k* (*-n*) Zeo*k* (*-n*) Zitxio*k* (*-n*) — Zeude*k* (*-n*)

«EGON» ADITZA - TINKIERA'ZKO LENALDIA

NI: *NeN*- -GO- -KI- -K- -O- -E- : -K- / -N- : a) -N

Lenengo eraren aldaketak: Nentxego*k*an (*-n*an) Natxego*k*an (*-n*an)

GU: *GeN*- -GO- *-Z-* -KI- -K- -O- -E- : -K- / -N- : a) -N

Lenengo eraren aldaketak: Gentxeude*k*an (*-n*an) Gatxeude*k*an (*-n*an)

I: eGO- -KI- -Da- / -O- / -GU- / -E- : -K- / -N- : a) -N

Lenengo eraren aldaketa: Zego*k*an (*-n*an)

BERA: *Ze*- -GO- -KI- -K- / -Da- / -O- / -GU- / -E- : (-N-) / -K- / -N- : a) -N

Lenengo eraren aldaketa: Zeude*k*an (*-n*an)

BERAK: *Ze*- -GO- *-Z-* -KI- -K- / -Da- / -O- / -GU- / -E- : (-N-) / -K- / -N- : a) -N

EGINKIZUNAK

1. Lendabiziko lauki onen lenengo leŕoan, zeaŕez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak jartzen ditugu, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabeak adierazten dituztenak, aŕ eta eme bereiztean; kulatzen ordez, Tinkiera'zko Oraiñaldi'rako egokiak izango diran EGON aditzaren erak esan eta idazteko :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Agokidak	...	...	...
	— Eme:		...	agokion	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		nagotxiek
	— Eme:	Nagokin	...	...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	zegokiguk	...
	— Eme:	...	...	zegokion	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		gagotxiek
	— Eme:	Gagozkin		...		...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	zegozkiguk	...
	— Eme:	...	zegozkidan	...	...	...

1. Bigaŕen lauki ontan, auŕekoan eman ditugun zertzeladak berak

erabilli beaŕ dira; kulatzen ordez, Tinkiera'zko Lenaldi'rako egokiak izango diran EGON aditzaren erak esan eta idazteko:

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Egokidakan	...	...	...
	— Eme:		...	egokionan	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		nengotxiekan
	— Eme:	Nengokiñan		...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	zegokigukan	...
	— Eme:	...	...	zegokionan	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		gengotxiekan
	— Eme:	Gengozkiñan		...		...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	zegozkigukan	...
	— Eme:	...	zegozkidanan	...	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan ikus ditezken aditzerak onela aldatu beaŕ-izango dira: Adi-yabeak lenengo ta irugaŕen notiñenak diranean, bakaŕa askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez, eta aldi baten aŕa emearen bidez eta alderantziz ere; eta adi-yabea bigaŕen notiñarena baldin bada, zeaŕez-betetzekoa bakaŕa izan ezkero, askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez, aldi baten adi-yabea aŕa bada emearen bidez eta alderantziz be; kulatzen ordez, esatean eta idaztean:

Zelan *agokiguk* oean orain arte lotan?; ... - Nire etxean *nagokin* iñora irten gabe luzaroan; ... - Lasai *zegokidak* neskatil au bere lanera joateko iñola ere leyaturik gabe; ... - Ez *agokidan* iñoiz, beaŕ dan bezela, ez etxean ez iñun be; ... - Atean *gagotxiok* beraren zai, maiz eta eroapenez beterik; ... - Gure auŕekin *zegozkin* zuenak ere aŕatsaldeko jolasean; ... - Zergatik *egokidanan* enparantzan, bere orduan apaltzera joan gabe?; ... - Ez *nengotxiokan* gaizki, ipiñi *nintxiotekan* ikastetxe edeŕ artan; ... - Saŕiegi *zegokiñan* eri zure ama, zer ote *ziñan* gaixoa oŕela bizi-izateko?; ... - Mendi artako ariztian *gengotxiekan* beren gogokoak *itukan* zizak artzen; ... - Ez al *zegozkiñan* ire etxekoak urduri uŕutiko txango ayetara *ijoakienanean*?; ... - Iñoiz ez *egokigukan* iregana leyatsu *ginjoazkianean*, zer zala-ta?; ...

3. Emen ageŕerazten ditugun galderai, erantzun egoki bana eman beaŕ zaye, ezinbesteko izango danean zutanozko erak ere erabiltzean; kulatzen ordez, esanez eta idatziz ematen:

Luzaroan nagokik ao zabalik bere edeskunak entzuten: Nor zegokidak ao zabalik luzaroan bere edeskunak entzuten?; ... - Ire auŕak al zegozkik luzaroan ao zabalik bere edeskunak entzuten?; ... - I al agokiok luzaroan ao zabalik bere edeskunak entzuten?; Ez, ... baño. -- Zergatik agokien beti su ta gaŕ?, obe izango litzaken baretu endila: Nor zegokien beti su ta gaŕ?; ... - Oyek al zegozkigun beti su ta gaŕ?; ... - Gu al gagotxien beti su ta gaŕ?; Ez, ... baizik. -- Gure bidean zeartuko balitzaizkiguk, al eta ezin baztertu beaŕ-izango liketek: Nork baztertu beaŕ-izango likek al eta ezin, zuen bidean zeartuko balitzaizue?; ... - Ik ere baztertu beaŕ-izango al ukek al eta ezin, gure bidean zeartuko baintzaiguk?; ... - Eta ni baztertu beaŕ-izango al nikek al eta ezin, oyen bidean zeartuko banintzayek?; Bai, ik ere ... -- Ba-zekiñat neke jasangaitz eta ikaragaŕietaz zematuko nintxiokenala: Nork zekin neke jasangaitz eta ikaragaŕietaz zematuko likenala?; ... - Zerez zematuko induken?; ... - Gu ere neke jasangaitz eta ikaragaŕietaz zematuko al gintxioken?; Ez, ... baño. -- Unetik unera lekorera begiratzen zegokin, zer egin jakin gabe: Nola zegokin unetik unera lekorera begiratzen?; - I al agokigun unetik unera lekorera begiratzen, zer egin jakin gabe?; ... - Ni al nagotxien unetik unera lekorera begiratzen, zer egin jakin gabe?; Bai, i ere ... -- Nola zegozkiguk lotan oŕen luzaroan, zeukaagun lanaz?; ezertarako ajolik ez ditekalako dagozkizue oŕela: Nor zegokiek lotan oŕen luzaroan, zeukatekan lanaz?; ... - Nortzuk zegozkidak lotan oŕen luzaroan, zeukaadan lanaz?; ... - I al agokiok lotan oŕen luzaroan berak zeukaan lanaz?; Ez, ni ez ... -- Guzia, beaŕ dukan giñoan atonduko likiketek: Nori atonduko lioketek guzia beaŕ dikan giñoan?; ... - Nola atonduko lidaketek guzia?; ... - Ik atonduko al idakek guzia, beaŕ diadan giñoan?; Bai, eŕaz ... -- Seiñaka autatu ta eraman ditzaketen, albait lasteŕen beren lana asi dezatenan: Nortzuk autatu ta eraman ditzaken seiñaka, albait lasteŕen beren lana asi dezatenan?; ... - Gu ere seiñaka autatu ta eraman al gaitzaketen, albait lasteŕen gure lana asi dezanagun?; ... - Nik seiñaka autatu ta eraman al ditzakenat, albait lasteŕen beren lana asi dezatenan?; Ez, ik ezin ... -- Ni oso eskeŕ-oneko nengotxiekan nire aitari egin zizkiotekan ainbeste eskeŕengatik: Nor zegokiekan oso eskeŕ-oneko, bere aitari egin zizkiotekan ainbeste eskeŕengatik?; ... - Zergatik zegozkiekan oso eskeŕ-oneko? ... - I ere so eskeŕ-oneko al egokiekan ire aitari egin zizkiotekan ainbeste eskeŕengatik?; Bai, ni ... -- Edozein gauzagatik, orduan gibelez-gibel egokionan: Nor zegokionan orduan gibelez-gibel edozein gauzagatik?; ... - Niri al egokidanan orduan gibelez-gibel edozein gauzagatik?; ... - Ni al nengotxionan orduan gibelez-gibel edozein gauzagatik?; Ez, i ez ... -- Aolkatu itzak ondo auŕ oyek, eragabeko mutilak izan ez ditezkan: Nortzuk aolkatu beaŕ zitiat ondo, eragabeko

mutīlak izan ez ditezkan?; ... - Ni ere ondo aolkatu beaŕ al nauk, eragabeko mutīla izan ez nadikan?; ... - I oso ondo aolkatu beaŕ al augu, eragabeko mutīla izan ez adin?; Bai, ni ere ... -- Endeka bat unan; astekal iru ta lau bideŕ mozkortu zegokigunan: Nor zegokizuen astekal iru edo lau bideŕ mozkorti?; ... - Nola zegokidanan iru edo lau bideŕ ura astekal?; ... - Ni al nengokiñan astekal iru edo lau bideŕ mozkorti?; Ez, i ez ... -- Ertzain suminkoŕ ayek ez zegozkikan iñoiz, egon beaŕ zitekan tokian: Nor ez zegokikan iñoiz, egon beaŕ zian tokian?; ... - Ni al nengokikan iñoiz, egon beaŕ nian tokian?; ... - I al egokiekan iñoiz, egon beaŕ uan tokian?; Ez, ni ere ... -- Ik ba-ekiñan ire suyak zeukanan gogoa opatu ziñala: Nork zekiñan bere suyak zeukanan gogoa opatu ziñala?; ... - Nortzuek zekitenan ire suyak zeukanan gogoa opatu ziñala?; ... - Nik al nekiñan oŕen suyek zeukatenan gogoa opatu zitenala?; Bai, ik ba-ekiñan ... -- Aisa aitu al baadi, eztuk ainbeste lanegin beaŕ: Nork eztik ainbeste lanegin beaŕ, aisa aitu al badedik?; ... - Nik ainbeste lanegin beaŕ al diat, aisa aitu al banadik?; ... - Eta oyek ere ainbeste lanegin beaŕ al ditek, aisa aitu al baditezek?; Noski, oyek ere ez ...

4. Ajola aundia izanda, irakuŕi astiro uŕengo bertsoak; oyetan agertzen diran itano'zko aditzeraen ordez, zutanozko zeintzuk jaŕi litezken esan; eta bertan adierazten diran gurasoen maitasuna ta siñismena nolako alkaŕ-bidean ikusi ote ditezken oaŕerazi ere:

«XABIERTXO'REN ERIOTZA»

III

«— Berandu? - Bai, maitea;
iīuntzea den...
Atsekabeak ez din
astiaren neurtzea
yakiten.
— Itxo... Nortzu ditezkek
atarikuok?...
Nor zetorkek, algaraz,
miñagotzera gure
malkuok?

—

— Nortzun dituk?... Esayek
alde-egiteko!
— Goŕiz argitutako
jayotzaz, dun sorta bat
mutiko...

—

— Biyoaz! - Ez, maitea;
begira zayen...
Gurea iñoiz, azita,
oyek bezela ibiltze
aal-uken!

—

— Zuzen diok. Auŕ Onak
onetsi bitza!
Sartu, mutil edeŕok,
seaska-alderaturik
jayotza.
Sartu ta yo, belduŕik
gabe. Gaxoa
lotan duzute, bañan
otsak astindu-gaitza
dik loa...
Lo, bai, gaur baituk Auŕ Ona
jayotzekoa!
Yaiki, biotz autsia,
pozezko jaya baituk
gaurkoa!
Yaiki, gure maiteena
Belen'en baita,
ortzi izartuan zeaŕ
ego bigun aŕoek
bultzata!...».

«Biotz begietan» (32-3-4-5-6'gaŕen oŕialdeetan) Lizardi'taŕ Xabier.

EUN ETA LAROGETAZAZPIGAŕEN IKASKAYA

ADITZ-JOKOA

V. ITANO ADITZ-JOKOA

ADITZ-JOKO BILDUA DUTEN ADITZEN ARTZAĿE-ADIZKIÑAK

«IBIĪ» ADITZA - TINKIERA'ZKO ORAIÑALDIA

NI: *Na*- -BIL- -KI- -K (-N) / -TXI- -O- -K / -TXI- -E- -N

GU: *Ga*- -BIL- -Z- -KI- -K (-N) / -TXI- -O- -K / -TXI- -E- -N

Lenengo eraen aldaketak: Natxebiĭe*k* (-*n*) Gatxebiĭe*k* (-*n*) / Gatxebiltza*k* (-*n*)

I: aBIL- -KI- -Da- / -O- / -GU- / -E- : -K / -N

BERA: *Ze*- -BIL- -KI- -K- / -Da- / -O- / -GU- / -E- : (-N) / -K / -N

BERAK: *Ze*- -BIL- -*Z*- -KI- -K / -Da- / -O- / -GU- / -E- : (-N) / -K / -N

Lenengo eraen aldaketak: Zebiĭe*k* (-*n*) Zebilzte*k* (-*n*) / Zebiltza*k* (-*n*)

«IBIĪ» ADITZA - TINKIERA'ZKO LENALDIA

NI: *NeN*- -BIL- -KI- -K- (-N-) / -TXI- -O- -K- / -TXI- -E- -N- a -N

Lenengo eraren aldaketak: Nentxebiĭe*k*an (-*n*an) Natxebiĭe*k*an (-*n*an)

GU: *GeN*- -BIL- -*Z*- -KI- -K- (-N-) / -TXI- -O- -K- / -TXI- -E- -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketak: Gentxebiĭe*k*an (-*n*an) Gatxebiĭe*k*an (-*n*an)

I: eBIL- -KI- -Da- / -O- / -GU- / -E- : -K- / -N- a) -N

BERA: *Ze*- -BIL- -KI- -K- / -Da- / -O- / -GU- / -E- : (-N-) / -K- / -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketa: Zebiĭe*k*an (-*n*an)

BERAK: *Ze*- -BIL- -*Z*- -KI- -K- / -Da- / -O- / -GU- / -E- : (-N-) / -K- / -N- a) -N

Lenengo eraren aldaketak: Zebilzte*k*an (-*n*an) Zebiltze*k*an (-*n*an)

EGINKIZUNAK

1. Lendabiziko lauki onen lenengo leŕoan, zeaŕez-betetzekoak adierazten dituzten izenordeak ipintzen ditugu, ta ezkeŕ-aldeko goitiberako zeŕendan, adi-yabeak adierazten dituztenak, aŕ eta eme bereiztean; kulatzen ordez, Tinkiera'zko Oraiñaldi'rako egokiak izango diran IBIĪLI aditzaren erak esan eta idazteko :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Abilkidak	...	...	...
	— Eme:		...	abilkion	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		nabiltxiek
	— Eme:	Nabilkin		...		...
Bera	— Aŕ :	...	...	...	zebilkiguk	...
	— Eme:	...	...	zebilkion	...	...
Gu	— Aŕ :	...		...		gabiltxiek
	— Eme:	Gabilzkin		...		...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	zebilzkiguk	...
	— Eme:	...	zebilzkidan	...	...	...

1. Bigaŕen lauki ontan, auŕekoan jaŕi diran zertzeladak berak erabiĭi beaŕ dira; kulatzen ordez, Tinkiera'zko Lenaldi'rako egokiak izango diran IBIĪLI aditzaren erak esan eta idazteko :

		Iri	Niri	Berari	Guri	Berai
I	— Aŕ :		Ebilkidakan	...	...	...
	— Eme:		...	ebilkionan	...	...
Ni	— Aŕ :	...		...		nenbiltxiekan
	— Eme:	Nenbilkiñan		...		...
Gu	— Aŕ :	...	...	...	zebilkigukan	...
	— Eme:	...	...	zebilkionan	...	...
Bera	— Aŕ :	...		...		genbiltxiekan
	— Eme:	Genbilzkiñan		...		...
Berak	— Aŕ :	...	...	...	zebilzkigukan	...
	— Eme:	...	zebilzkidanan	...	...	...

2. Bigaŕen eginkizun ontan agertzen diran esakuntzetan ikus ditezken aditzerak onela aldatu beaŕ-izango dira: Adi-yabeak lenengo ta irugaŕen notiñenak diranean, bakaŕa askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez, eta aldi baten aŕa emearen bidez eta alderantziz ere; eta adi-yabea bigaŕen notiñarena baldin bada, zeaŕez-betetzekoa bakaŕa izan ezkero, askaŕaren bidez eta alderantziz, askaŕa bakaŕaren bitartez, aldi baten adi-yabea aŕa bada emearen bidez eta alderantziz be; kulatzen ordez, esaten eta idazten:

